

Jakintza-arloa: Soziologia

# Ibilbide akademiko-profesionalak prekarizazio estratifikatuaren garaian: meritokrazia auzitan

Egilea: HARKAITZ ZUBIRI ESNAOLA  
Urtea: 2011  
Zuzendaria: IMANOL ZUBERO BEASKOETXEA  
Unibertsitatea: UPV-EHU  
ISBN: 978-84-8438-355-0

## Hitzaurrea

### Begirada kualitatiboa belaunaldi prekarizatuari

Meritokrazia jarri nahi dugu auzitan. Gure hipotesia honakoa da: meritu indibidualen argumentua erabiliz ekoizten da hierarkia soziala, indibiduoak horren arabera saritzeko eta zigortzeko, ustezko merituetan oinarrituz indibiduoari posizio sozialak esleitzeko, baina meritu horiek ez dira soilik indibidualki egiten, aukera berdintasunik ez dago, joko arauak ez dira neutralak, ebaluazio irizpideak ez dira objektiboak, dinamika hauek ez dute justiziarekin batere zerikusirik, botere harremanak eta gatazka dira ardatz.

Ibilbide akademiko-profesionalak aukeratu ditugu hori ikertzeko eremutzat. Ibilbide hauek zeresan handia dute norbanakoek lortzen dituzten posizio sozialetan. Ibilbidea nolakoa, hein batean halakoa izango da norbanakoaren posizioa. Meritokraziak dio meritu indibidualek jartzen dutela norbanako bakoitza bere lekuan eta, gainera, horrela egitea guztiontzat ona dela: norbanakoak ahalegintzera bultzatzen ditu, beren gaitasunak ahal bezain beste probestera, eta horri esker indibiduoak bere buruari mesede egiteaz gain, bere inguru sozial guztiari ere lagundu egiten dio, alperkeria uxatu egiten baitu eta, halaber, baliabide potentzial guztien erabilera sustatzen baitu.

Alta, ikerketa honetan darabilgun hipotesiaren arabera, norbanakoaz gain, beste zenbait faktorek ere berebiziko garrantzia dute ibilbide akademiko-profesionalen ekoizpenean. Beste erakunde sozial batzuek ere funtsezko rola jokatzen dute. Gure hipotesiak lau erakunderen arteko etengabeko negoziazioaren eredua proposatzen du ibilbide akademiko-profesionalen bilakaera aztertzeko: norbanakoa, familia, hezkuntza sistema eta enplegua. Baina, gure hipotesiaren arabera, erakundeen artekoa ez ezik erakunde bakoitzaren baitako negoziazioa ere funtsezkoa da. Izan ere, ikerketa honen ikuspegiaren arabera, gatazka da ibilbide akademiko-profesionalak artikulatzen dituen indarra. Posizio-hartze taigabeen eremua da, beti bestearen erreferentziaren testuinguruan. Horrela ekoizten da hierarkia eremu honetan. Horrela eraikitzen da ezberdinkeria. Meritokraziak dio ezberdinkeria eta hierarkia indibiduoari dagozkiola. Ikerketa honen abiapuntua beste bat da: ezberdinkeria ez da berezkoa, ezberdintasuna ez den bezalaxe. Biak dira produktu sozialak. Baina ezberdinkeria hierarkiari eta estratifikazioari dagozkio: ezberdinak gara, batek besteak baino meritu handiagoa du, gehiago balio du eta hala aitortu behar dugu. Aitzitik, ezberdintasuna ikuspegi baliokidearekin lotuta dago: ezberdinak gara baina berdin balio dugu, ezberdinak eta baliokideak gara. Ezberdinkeria ekoizten duten mekanismoak aztertzea eta, ahal den neurrian, mahaigaineratzea baliagarria izan daiteke prozesu sozial hauek epaitzeko eta eraldatu nahi ditugunetz erabakitzeko.

Ez ditugu ibilbide akademiko-profesionalak oro har aztertu. Garai eta leku zehatz bat dira ikerketa honen kokalekua: Gipuzkoan jaiotakoan artean gaur egun hogeita hamar urteren bueltan dabiltzanen ibilbideak analizatu ditugu. Une historiko berezi bat hezurmamitzen dute. Azken hamarkadetan aldaketa esanguratsuak gertatzen ari dira eta ingurumaria horretan gauzatu dira aztergai

ditugun ibilbide akademiko-profesionalak. Trantsizio sozio-kultural baten erdian gaude. Horixe islatzen da ibilbide akademiko-profesionaletan eta horixe bera eragiten dute ibilbide hauek. Mikropolitikaren eremuan jokatzeko dira makropolitikaren kartak. Ikertu ditugun ibilbideek zerikusi txikia dute beren gurasoen ibilbideekin. Familia, hezkuntza sistema eta enpleguaren mundua ez dira lehengoak. Aldaketak, noski, ez dira zerutik erori. Hori guztia aztertzen saiatu gara, beti ere ibilbide akademiko-profesionalei lotuta.

Lan teorikoa eta enpirikoa uztartu ditugu ikerketa honetan. Batetik, ikertzaile eta saiogile esanguratsuen ekarpenak izan dira ikerketaren erreferentzia teorikoa. Bestetik, elkarrizketa sakonaren teknika erabiliz egin dugu lan enpirikoa. Bigarren mailako datu kuantitatiboak aintzat hartu ditugu, baina hobetsi egin dugu ikuspegi kualitatiboa, aztergai dugun fenomenoaren sakonera analizatzea baita ikerketa honen xede nagusia. Kontu handiz ibiltzen saiatu gara determinismora, mekanizismora eta gehiegizko orokortzera eraman gaitzaketen arriskuak ekidin nahian. Testuinguru sozial oso konplexu baten aurrean gaudela aintzat hartuz, biak islatzea izan dugu helburu: ibilbide akademiko-profesional garaikideen joera nagusiak eta ibilbideen espektro zabala. Biak aztertu nahi izan ditugu, ezaugarri partekatuak eta aniztasuna, hala homogeneizazioa nola diferentziazio prozesuak. Prekarizazioranzko joera, adibidez, fenomeno orokortua da, baina ez dirudi guztiei berdina eragiten dienik.

Azalpen guztiak bost ataletan banatu ditugu:

I) Lehenik eta behin, indibiduoak bere ibilbidea nola eraikitzen duen analizatzen ahalegindu gara. Testuinguru sozialak nola eragiten dion analizatzeari ere eskaini diogu arreta. Hainbat ekarpen teoriko islatu ditugun arren, batik bat Bourdieuren ikuspegiaren oinarritu gara.

II) Ondoren, ibilbide akademikoen gora-beherak analizatze aldera, gaur egungo hezkuntza sistemaren izaerari buruzko zenbait ikuspegi teoriko izan ditugu hizpide.

III) Segidan, ibilbide profesionalen testuinguru garaikidea aztertzearen, azken hamarkadetan enpleguaren munduan izan diren aldaketa sakonak aztertzen dituzten hainbat ekarpen analizatu ditugu.

IV) Hurrengo atalean, berriz, ikerketa honetarako propio egin ditugun elkarrizketak dira oinarria. Batetik, elkarrizketak egiteko erabili ditugun irizpideak azaltzen dira bertan. Bestetik, elkarrizketetan lortu dugun informazio esanguratsuen aurkezten saiatu gara.

V) Azken atal honetan, ikerketaren ondorio nagusiak laburbildurik azaldu nahi izan ditugu. Horretarako, aurreko ataletan azaldu ditugun ekarpen teoriko esanguratsuenak eta ikerketaren emaitza enpirikoak artikulatzen ahalegindu gara, adostasunak eta desadostasunak nabarmenduz.



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Gizarte eta Komunikazio-Zientzien Fakultatea

# **Ibilbide akademiko-profesionalak prekarizazio estratifikatuaren garaian**

## **Meritokrazia auzitan**

Egilea: Harkaitz Zubiri Esnaola

Zuzendaria: Imanol Zubero Beaskoetxea

Soziologia Saila

Euskal Herriko Unibertsitatea

“All animals are equal  
But some animals are more equal  
than others”

George Orwell, *Animal Farm*

# Aurkibidea

0. Belaundali kualitatiboa belaunaldi prekarizatuari .....	8
I. Espazio sozialaren joko eremua .....	10
1. Gizarte-Indibiduo dikotomia gainditzeko saiakera .....	10
1.1 Estrukturalismoaz eta subjektibismoaz haratago .....	10
1.1.1 Estrukturalismoari kritika .....	10
1.1.2 Subjektibismoari kritika .....	11
1.1.3 Subjektibismo kolektibista .....	12
1.1.4 Probabilitatearen fatalismoaren aurka .....	13
1.1.5 Jokoaren zentzua .....	14
1.2 Habitus-a .....	16
1.2.1 Egonkortasuna eta aldaketa .....	17
1.2.2 Posizio sozialari lotutako dispozizio multzoa .....	18
1.2.3 Bizi baldintzapezetara egokitzeko zailtasunak .....	20
1.2.4 Gorputzean errotuta .....	21
2. Kapitalak .....	21
2.1 Kapital motak .....	22
2.1.1 Kapital ekonomikoa .....	22
2.1.2 Kapital kulturala .....	23
2.1.2.1 Barneratutako kapital kulturala .....	23
2.1.2.2 Kapital kultural objektibatua .....	24
2.1.2.3 Kapital kultural erakundetua .....	24
2.1.3 Kapital soziala .....	24
2.1.3.1 Beste kapitalen errendimendua areagotzeko gako bat .....	25
2.1.3.2 Inbertsio etengabeak .....	26
2.1.4 Kapital sinbolikoa .....	26
2.1.4.1 Egia, gatazka sozialen produktu .....	26
2.1.4.2 Kodifikazioa .....	27
2.1.4.3 Beste kapitalen meneko baina haien eragile .....	28
2.1.4.4 Galtzailearen lekuan .....	29
2.2 Kapitalaren bolumenaren eta egituraren ibilbidea .....	30
2.2.1 Ibilbidearen efektua .....	30
2.2.2 Kapitalen eraldaketak .....	31
2.3 Kapitalaren transmisioa eta erreproduzioa .....	32
2.3.1 Familia, erreproduziorako funtsezko gunea .....	32
2.3.2 Transmisiorako gaitasun ezberdinak .....	33
2.3.3 <i>Familia</i> kontzeptua gaur egun .....	35
3. Espazio soziala .....	39
3.1 Jendea .....	39
3.1.1 Singulartasunen aniztasun multzoa .....	39
3.1.2 Kapitalek neurria ezartzen diote aniztasun neurrigabeari .....	40
3.1.3 Botere harremanen testuingurua .....	43
3.2 Kapitala, espazio sozialaren ardatz .....	45
3.2.1 Ezberdintzeko borondatea eta muga ezberdintzaileak .....	46
3.2.1.1 Ikuspegi ez substantzialista, erlazionala baizik .....	46
3.2.1.2 Taldekatzearen une objektibista eta une subjektibista .....	47
3.2.1.3 Nola hartu posizio soziala eta norekin elkartu .....	47
3.2.1.4 Mugak mundu sozialean .....	47
3.2.2 Eremuak .....	48
3.2.2.1 Kapitalaren balioa eremu bakoitzean .....	48
3.2.2.2 Dominazioa eta erresistentzia eremu eremu .....	49
3.2.3 Agenteen interesa .....	49
3.2.3.1 Diru etekina bakarrik ez .....	50
3.2.3.2 Erabateko kalkulu arrazionalik ez .....	50
3.2.3.3 Praktikak beti oinarritzen dira interesean .....	51

3.2.4	Espazio sozial ez estatikoa .....	51
3.2.4.1	Ikuspegi historizista .....	52
3.2.4.2	Aldaketarako aukerak beti testuinguru batean .....	52
3.2.4.3	Erresistentziaren fenomenoak .....	53
<b>II. Eskolak baditu milaka aurpegi .....</b>		<b>56</b>
1.	<b>Eskola modernoa .....</b>	<b>57</b>
1.1	Durkheim-en hezkuntzaren soziologia, liberalak eta tradizio idealista .....	57
1.2	Parsons-en funtzionalismoa hezkuntza sisteman .....	62
1.3	Davis eta Moore: ezinbesteko estratifikazioa .....	63
1.4	Hezkuntza sistema modernoaren eraikuntza .....	64
2.	<b>Marxistak eta weberiarak .....</b>	<b>74</b>
2.1	Marx interpretatuz .....	74
2.2	Weber-en itzala .....	80
2.3	Bourdieu: Marx eta Weber uztartuz .....	82
2.3.1	Berdintasun formalak zer izkutatzen duen .....	83
2.3.2	Hezkuntza sistemaren izaera .....	85
2.3.3	Azterketak eta epaiak .....	87
2.3.4	Eskolarekiko interesa .....	89
3.	<b>Erresistentziaren teoriak .....</b>	<b>101</b>
3.1	Bourdieu, erreproduzioaren teoretatik haratago .....	102
3.2	Fernández Enguita, erreproduzioa eta erresistentzia uztartuz .....	105
3.3	Botere harremanen konplexutasuna .....	107
3.3.1	Estrukturalismo-funtzionalistaren aurka .....	107
3.3.2	Erreproduzioaren hainbat ezaugarri .....	108
3.3.3	Agente aktiboak .....	111
3.3.4	Kontraesana .....	112
3.3.5	Determinismorik ez .....	114
3.3.6	Korrespondentzia soila ez .....	116
3.4	Eskolaren aurkako kulturak .....	118
3.5	Bestelako pedagogiak .....	120
3.6	Bestelako aktore ezberdintzaileak .....	125
3.6.1	Ekonomia soila baino askoz gehiago .....	125
3.6.2	Generoa .....	126
3.6.3	Hizkuntza .....	136
4.	<b>Erreformen ondoren .....</b>	<b>147</b>
4.1	Irakasleak .....	147
4.2	Etena eta jarraipena .....	155
4.2.1	Hedapen etengabea baina mugatua .....	155
4.2.2	Integrazioaren aldarria .....	164
4.2.3	Tituluen inflazioa eta aldaketa morfologikoak .....	170
4.2.4	Neoliberalak .....	174
<b>III. Kontraerasoa. Lanaren sareak politika neoliberalaren garaian .....</b>		<b>177</b>
0.	<b>Garaiak aldatu egin dira .....</b>	<b>177</b>
1.	<b>Teknologiaren iraultza eta merkatuen globalizazioa .....</b>	<b>178</b>
1.1	Teknologia iraultza .....	178
1.2	Merkatuen globalizazioa .....	180
1.2.1	Finantza merkatuak .....	181
1.2.2	Nazioarteko merkataritza .....	182
1.2.3	Ekoiaren internazionalizazioa .....	183
1.2.4	Zientzia eta teknologia .....	183

1.2.5	Lana .....	183
1.3	Aldaketen motorra .....	184
<b>2.</b>	<b>Aberastasunaren banaketa</b> .....	186
2.1	Irabazleak eta galtzaileak .....	186
2.2	Familiaren galbahea .....	193
2.3	Galderak egin beharra .....	196
<b>3.</b>	<b>Neoliberalismoa, proiektu politiko baten oldarraldia</b> .....	197
3.1	Askatasuna aldari .....	197
3.1.1	Liberalismoa .....	198
3.1.2	Neoliberalismoa .....	199
3.2	Hedapenaren historiari entresaka .....	203
3.2.1	Neguko koarteletan .....	203
3.2.2	Krisietan espezialista .....	206
3.2.3	Periferian .....	208
3.2.4	Erdigunean .....	211
3.2.5	Pirinioen bi aldeetara hedatuz .....	221
3.3	Estatuaren rola praktikan .....	225
3.3.1	Hitzak eta ekintzak .....	225
3.3.2	Eskuhartzea handitu eta eraldatu .....	228
3.3.3	Legezko babesaren endekatzea .....	231
3.3.4	Zerga politika .....	232
3.4	Neoliberalismoaren ametserrantz hurbiltzen .....	236
3.4.1	Meritokrazia deitzen diote .....	237
3.4.2	Lan erreformen herentzia .....	239
3.5	Neoliberalismoa krisian ala krisia neoliberalismoan? .....	246
3.6	Orain galdera gehiago dauzkagu .....	247
<b>4.</b>	<b>Kritikari kontra</b> .....	247
4.1	Kapitalismoaren zenbait ezaugarri .....	247
4.2	Kapitalismoaren aurkako kritika .....	250
4.2.1	Oinarrizko ezaugarriak .....	250
4.2.2	Kritika motak .....	251
4.2.3	1968ko maiatza, mitoa baino askoz gehiago .....	252
4.3	Erresistentzia ahultzeko estrategiak .....	258
4.4	Kontsumo gizartearen eraikuntza .....	261
4.5	Kritikaren endekatzea .....	265
4.6	Galdera gehiago .....	269
<b>5.</b>	<b>Langile eredu berria: masa ekoizpenetik malgura</b> .....	269
5.1	Lanaren etika industrializazioan .....	269
5.2	Langile fordista .....	274
5.3	Langile posfordista .....	280
5.4	Informazioa, materiaren hirugarren dimentsioa .....	286
<b>6.</b>	<b>Langileen arteko gatazka</b> .....	294
6.1	Enpresen estrategiak lana berregituratzeko .....	294
6.2	Oligopolioak .....	304
6.3	Prekarietateak baditu milaka aurpegi .....	308
6.3.1	Behin-behinekotasuna .....	310
6.3.2	Lanaldi partziala eta autoenplegua .....	314
6.3.3	Soldata .....	318
6.3.4	Lanaren gaineko kontrola .....	322
6.3.5	Hortaz, zer da prekarietatea? .....	324
6.4	Langileen sare estratifikatuak: munduan, herrialdean, enpresan .....	326
6.4.1	Joera orokorra .....	326
6.4.2	Erdigunean .....	330
6.4.3	Munduan .....	332
6.4.4	Kapitalaren mugikortasuna .....	335
6.4.5	Prekarietatearen estratu estratifikatua .....	337
6.5	Langileak elkarren aurka .....	352



<b>7. Denbora, diruaren beste aurpegia</b> .....	354
7.1 Zurruna eta malgua aurrez aurrez .....	355
7.1.1 Burdinezko kaiolaren denbora .....	355
7.1.2 Ziurgabetasunaren denbora .....	356
7.1.3 Diderot-en denbora ideala .....	357
7.2 Erritmoa eta arritmia .....	357
7.2.1 Erritmoa .....	357
7.2.2 Arritmia .....	358
7.3 Kapitalismo berriaren denbora ustez malgua .....	360
7.4 Hiru lan eredu: arritmikoa, malgu erritmikoa eta <i>malgu ez jarraia</i> .....	364
7.4.1 Lan eredu arritmikoa .....	364
7.4.2 Lan eredu malgu erritmikoa .....	364
7.4.3 Lan eredu <i>malgu ez jarraia</i> .....	365
<b>8. Errejimen sinbolikoa</b> .....	365
8.1 Errestaurazio neoliberala .....	365
8.2 Modaren egitura eta dinamika .....	367
8.3 Hutsalak al dira modak? .....	371
8.4 Azken moda .....	375
<b>IV. Prekarizazio estratifikatuaren belaunaldia</b> .....	383
<b>1. Elkarrizketaren erronkak</b> .....	383
1.1 Soziologoaren erronkak .....	383
1.1.1 Ekoizpen zientifikoaren ezaugarriak .....	384
1.1.2 Haustura epistemologikorik ez dago .....	385
1.1.3 Metodo kualitatiboa .....	385
1.2 Elkarrizketaren erronkak .....	386
1.2.1 Sondeoak .....	386
1.2.2 Bourdieuren proposamenak .....	387
<b>2. Elkarrizketatuen ezaugarriak</b> .....	389
2.1 Aukeraketa irizpideak .....	390
2.2 Elkarrizketaren estrategia .....	390
2.3 Elkarrizketatuen ibilbide akademiko-profesionalen perfila .....	393
<b>3. Eskolak ertz ugari</b> .....	425
3.1 Eskolak funtzionatzen du .....	425
3.2 Eskola ez dabil ondo .....	427
3.3 Ikasleen espektro zabala .....	432
3.4 Ikastetxeen aniztasuna .....	435
3.5 Diziplina eta teoria .....	438
3.6 Irakaslearen eta ikaslearen rola .....	443
3.7 Aspirazioak, gaitasuna, patua eta beste zenbait sinesmen .....	448
<b>4. Familiaren koltxoia</b> .....	457
4.1 Ikastetxea aukeratzen .....	457
4.2 Zereginak, aspirazioak eta beste zenbait ahalegin .....	461
4.3 Familiaren posizioa erreferentziatzat .....	464
4.3.1 Ikasketa maila .....	465
4.3.2 Posizio okupazionala .....	470
4.4 Koltxoia .....	472
4.4.1 Afektiboa .....	472
4.4.2 Ekonomiko-estrategikoa .....	473
4.4.3 Kulturala .....	477
4.4.4 Krisietarako .....	478

<b>5. Subjektu aktiboa</b> .....	479
5.1 Ikasketekiko interesa .....	480
5.2 Estrategien adibidea (1): unibertsitatea bai ala ez .....	483
5.3 Estrategien adibidea (2): unibertsitatean zer ikasi .....	489
<b>6. Prekarietatearen kultura</b> .....	497
6.1 Egoeren aniztasuna .....	497
6.2 Eskolaren abaroan .....	500
6.3 Familiaren itzala .....	505
6.4 Subjektuaren lana .....	513
6.5 Aldaba onak .....	519
6.6 Estratifikazioa .....	520
6.7 Atomizazioa .....	528
6.8 Ziurgabetasuna .....	530
6.9 Lanaren etika .....	532
<b>V. Ondorioak: balioa eta estratifikazioa ekoizten, jendearen aniztasunetik espazio sozial hierarkizatura</b> .....	537
<b>VI. Bibliografia</b> .....	568
<b>VII. Taulen eta grafikoen zerrenda</b> .....	579
1. Taulen zerrenda .....	579
2. Grafikoen zerrenda .....	581

# 0. Begirada kualitatiboa belaunaldi prekarizatuari

Meritokrazia jarri nahi dugu auzitan. Gure hipotesia honakoa da: meritu indibidualen argumentua erabiliz ekoizten da hierarkia soziala, indibiduoak horren arabera saritzeko eta zigortzeko, ustezko merituetan oinarrituz indibiduoari posizio sozialak esleitzeko, baina meritu horiek ez dira soilik indibidualki egiten, aukera berdintasunik ez dago, joko arauak ez dira neutralak, ebaluazio irizpideak ez dira objektiboak, dinamika hauek ez dute justiziarekin batere zerikusirik, botere harremanak eta gatazka dira ardatz.

Ibilbide akademiko-profesionalak aukeratu ditugu hori ikertzeko eremutzat. Ibilbide hauek zeresan handia dute norbanakoek lortzen dituzten posizio sozialetan. Ibilbidea nolakoa, hein batean halakoa izango da norbanakoaren posizioa. Meritokraziak dio meritu indibidualek jartzen dutela norbanako bakoitza bere lekuan eta, gainera, horrela egitea guztiontzat ona dela: norbanakoak ahalegintzera bultzatzen ditu, beren gaitasunak ahal bezain beste probestera, eta horri esker indibiduoak bere buruari mesede egiteaz gain, bere inguru sozial guztiari ere lagundu egiten dio, alperkeria uxatu egiten baitu eta, halaber, baliabide potentzial guztien erabilera sustatzen baitu.

Alta, ikerketa honetan darabilgun hipotesiaren arabera, norbanakoaz gain, beste zenbait faktorek ere berebiziko garrantzia dute ibilbide akademiko-profesionalen ekoizpenean. Beste erakunde sozial batzuek ere funtsezko rola jokatzen dute. Gure hipotesiak lau erakunderen arteko etengabeko negoziazioaren ereduak proposatzen du ibilbide akademiko-profesionalen bilakaera aztertzeko: norbanakoa, familia, hezkuntza sistema eta enplegua. Baina, gure hipotesiaren arabera, erakundeen artekoa ez ezik erakunde bakoitzaren baitako negoziazioa ere funtsezkoa da. Izan ere, ikerketa honen ikuspegiaren arabera, gatazka da ibilbide akademiko-profesionalak artikulatzen dituen indarra. Posizio-hartze taigabeen eremua da, beti bestearen erreferentziaren testuinguruan. Horrela ekoizten da hierarkia eremu honetan. Horrela eraikitzen da ezberdinkeria. Meritokraziak dio ezberdinkeria eta hierarkia indibiduoari dagozkiola. Ikerketa honen abiapuntua beste bat da: ezberdinkeria ez da berezkoa, ezberdintasuna ez den bezalaxe. Biak dira produktu sozialak. Baina ezberdinkeria hierarkiari eta estratifikazioari dagozkio: ezberdinak gara, batek besteak baino meritu handiagoa du, gehiago balio du eta hala aitortu behar dugu. Aitzitik, ezberdintasuna ikuspegi baliokidearekin lotuta dago: ezberdinak gara baina berdín balio dugu, ezberdinak eta baliokideak gara. Ezberdinkeria ekoizten duten mekanismoak aztertzea eta, ahal den neurrian, mahaigaineratzea baliagarria izan daiteke prozesu sozial hauek epaitzeko eta eraldatu nahi ditugunetz erabakitzeko.

Ez ditugu ibilbide akademiko-profesionalak oro har aztertu. Garai eta leku zehatz bat dira ikerketa honen kokalekua: Gipuzkoan jaiotakoaren artean gaur egun hogeitamar urteren bueltan dabiltzan ibilbideak analizatu ditugu. Une historiko berezi bat hezurramitzen dute. Azken hamarkadetan aldaketa esanguratsuak gertatzen ari dira eta ingurumaria horretan gauzatu dira aztergai ditugun ibilbide akademiko-profesionalak. Trantsizio sozio-kultural baten erdian gaude. Horixe islatzen da ibilbide akademiko-profesionalak eta horixe bera eragiten dute ibilbide hauek. Mikropolitikaren eremuan jokatzen dira makropolitikaren kartak. Ikertu ditugun ibilbideek zerikusi txikia dute beren gurasoen ibilbideekin. Familia, hezkuntza sistema eta enpleguaren

mundua ez dira lehengoak. Aldaketak, noski, ez dira zerutik erori. Hori guztia aztertzen saiatu gara, beti ere ibilbide akademiko-profesionalei lotuta.

Lan teorikoa eta enpirikoa uztartu ditugu ikerketa honetan. Batetik, ikertzaile eta saiogile esanguratsuen ekarpenak izan dira ikerketaren erreferentzia teorikoa. Bestetik, elkarrizketa sakonaren teknika erabiliz egin dugu lan enpirikoa. Bigarren mailako datu kuantitatiboak aintzat hartu ditugu, baina hobetsi egin dugu ikuspegi kualitatiboa, aztergai dugun fenomenoaren sakonera analizatzea baita ikerketa honen xede nagusia. Kontu handiz ibiltzen saiatu gara determinismora, mekanizismora eta gehiegizko orokortzera eramán gaitzaketen arriskuak ekidin nahian. Testuinguru sozial oso konplexu baten aurrean gaudela aintzat hartuz, biak islatzea izan dugu helburu: ibilbide akademiko-profesional garaikideen joera nagusiak eta ibilbideen espektro zabala. Biak aztertu nahi izan ditugu, ezaugarri partekatuak eta aniztasuna, hala homogeneizazioa nola diferentziazio prozesuak. Prekarizazioranzko joera, adibidez, fenomeno orokortua da, baina ez dirudi guztiei berdin eragiten dienik.

Azalpen guztiak bost ataletan banatu ditugu:

- I) Lehenik eta behin, indibiduoak bere ibilbidea nola eraikitzen duen analizatzen ahalegindu gara. Testuinguru sozialak nola eragiten dion analizatzeari ere eskaini diogu arreta. Hainbat ekarpen teoriko islatu ditugun arren, batik bat Bourdieuren ikuspegian oinarritu gara.
- II) Ondoren, ibilbide akademikoen gora-beherak analizatze aldera, gaur egungo hezkuntza sistemaren izaerari buruzko zeinbat ikuspegi teoriko izan ditugu hizpide.
- III) Segidan, ibilbide profesionalen testuinguru garaikidea aztertzearren, azken hamarkadetan enpleguaren munduan izan diren aldaketa sakonak aztertzen dituzten hainbat ekarpen analizatu ditugu.
- IV) Hurrengo atalean, berriz, ikerketa honetarako propio egin ditugun elkarrizketak dira oinarria. Batetik, elkarrizketak egiteko erabili ditugun irizpideak azaltzen dira bertan. Bestetik, elkarrizketetan lortu dugun informazio esanguratsuen aurkezten saiatu gara.
- V) Azken atal honetan, ikerketaren ondorio nagusiak laburbildurik azaldu nahi izan ditugu. Horretarako, aurreko ataletan azaldu ditugun ekarpen teoriko esanguratsuenak eta ikerketaren emaitza enpirikoak artikulatzen ahalegindu gara, adostasunak eta desadostasunak nabarmenduz.

# I. Espazio sozialaren joko eremua

Hamaika kritika egin dizkiote Bourdieuri: idazkera zaila daukala, errazkerian erortzen dela, elitismoa, populismoa, subjektibista dela, determinista, indibidua ezabatzen duela, antikomunista dela, komunista dela, eredu estatikoak erabiltzen dituela eta ez duela aldaketa sozialerako tarterik uzten, eta abar luze bat. Agian tarteka kritika horietako batzuei ez zaie arrazoirik falta.

Bourdieuren lanak mila erataria irakur daitezke, baita modu suntsitzailean ere. Guri ere iruditu zaigu tarteka liburu batzuetan eta besteetan ez duela gauza bera esan nahi edo gutxienez ibilian-ibilian bere lanen zenbait alderdi zorroztu eta beste batzuk kamustu egin dituela. Bourdieuren lanek arrisku handiak dauzkatela iruditu zaigu. Baina bere ikuspegiak sor ditzaketen arazoak arazo, Bourdieuren ekarpenak oso aberasgarriak izan daitezke gure mundu sozialak analizatzeko. Hala ere, esate baterako *La reproduction*, *Le sens pratique* edo *La distinction* liburuak bakarririk irakurtzea ez da komeni. Haiekin batera Bourdieuk gerora idatzi zituen argipenak (agian batzuek *nabardurak* edo, areago, *zuzenketak* esango lukete) irakurtzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Bourdieu askoz aberatsagoa da bere osotasunean. Edonola ere, zaila da Bourdieuren liburuen irakurketetatik gure mundu soziala ulertzeko ekarpen oso baliagarriak ez ateratzea. Borondate txarra behar da horretarako. Lehenengo atal honen oinarri gisa Bourdieuren ekarpen aberasgarrienak baliatzen saiatu gara. Aztergai dugun gaiari begiratzeko behintzat Bourdieuren oinarriek eraginkorrak dirudite.

## 1. Gizarte-Indibiduo dikotomia gainditzeko saiakera

### 1.1 Estrukturalismoaz eta subjektibismoaz haratago

Dikotomia teoriko ugariren faltsutasuna agerian uzten saiatzen da Bourdieu: teorikoak eta enpiristak, subjektibistak eta objektibistak, estrukturalismoa eta fenomenologia. Aurkakotasun hauen onarpena oso arriskutsua dela salatzen du Bourdieuk<sup>1</sup>, ikerketa sozialen mutilazioa susta baitezakete. Subjektibismoak eta objektibismoak osatzen duten dikotomia hausten nola ahalegintzen den aztertuko dugu gehienbat. Bourdieuren<sup>2</sup> asmoa subjektibismoaren eta objektibismoaren akatsak baztertzea eta bien lorpenak baliatzea da.

#### 1.1.1 Estrukturalismoari kritika

Bere garaiko estrukturalisten joeren aurrean (Lévi-Strauss eta bereziki Althusser) Bourdieuk<sup>3</sup> *agente* kontzeptua hobetsi zuen. Agenteak Bourdieurentzat ez dira egituraren epifenomenoa. *Egitura*, *arau* eta *eredu* hitzak erabiltzen ziren garaian, Bourdieuk *estrategia* hitza erabili zuen, adierazi nahi baitzuen agenteak ez direla txotxongiloak. Estrukturalisten ikuspegitik, praktika egituretako posizioen gauzapean hutsa da. Bourdieurentzat, ordea, agenteak zentzu praktikoa du. Agenteak

---

<sup>1</sup> Bourdieu, 1996, 44 or.

<sup>2</sup> Bourdieu, 1991, 47 or.

<sup>3</sup> Bourdieu, 1996, 22-23 or.

ahalmena du bere gaitasunak, ezagutzak eta joerak neurri batean egoerara moldatzeko. Agenteak asmatzeko eta inprobisatzeko gaitasuna eta joera du.

### 1.1.2 Subjektibismoari kritika

Bourdieu<sup>4</sup> ikuspegitik ezagutza oro eta bereziki mundu sozialari buruzko ezagutza, eraikuntza lanaren produktua da eta ezagutza guztiek sortzen dituzte pentsamendu eta adierazpen eskemak. Agenteak sormena du, beraz. Bizi baldintzen eta praktiken artean agenteen jardura egituratzailea dago. Agenteek ez diete mekanikoki erantzuten estimulu mekaniko batzuei; beraiek eraikitzen lagundu duten mundu baten deiei eta mehatxuei erantzuten diete.

Baina Bourdieuren<sup>5</sup> *agenteak* daukan sormenerako gaitasuna ez da tradizio idealistaren subjektu traszendentalarena. Bourdieurena arrazoi praktikoaren agentea da. Estrukturalismoa ukatzen duen bezala, Bourdieuk ez du onartzen subjektu kalkulatzailer arrazionalaren ikuspegia. Bourdieuk *agente* kontzeptua erabiltzen du, eta ez *subjektu* kontzeptua, zeren azken hau espontaneismo, indibidualismo eta askatasun indibidualarekin lotzen baitu. Sartrek bere existentzia kanpo loturarik gabeko subjektua balitz bezala bizi izan zuela aitortzen badio ere, Bourdieu<sup>6</sup> ez dator bat Sartre-ren *subjektu* kontzeptuarekin. Bourdieuk<sup>7</sup> baztertu egiten du subjektu unibertsalaren ideia. Fenomenologiaren ego traszendentela etnometodologoen berreskuratu dutela esaten du Bourdieuk eta uko egiten dio ideia horri. Agenteek mundua aktiboki hautematen dute, zalantzarik gabe, Bourdieuren iritziz, eta beren mundu ikuskera eraikitzen dute, dudarik ez, beti ere Bourdieuren aburuz, baina eraikuntza hau egiturazko koakzioen testuinguruan gauzatzen da. Bourdieuk<sup>8</sup> dioenez, idealismoaren ikuspegitik forma eta kategoria unibertsalak daude. Bourdieuren ikuspegitik, ordea, ez. Bourdieuren arabera, agenteek barnean daramatzaten eskemak historia kolektiboan eta historia indibiduallean zehar barneratzen dira. Ez daukate ezagutza garbiarekin zerikusirik. Bourdieuren ikuspegitik, barneratutako eskema horiek praktikan eta praktikarako bakarrik dira baliagarriak.

Bourdieuk bezala, Foucault-ek<sup>9</sup> ere, eta postestrukturalismo frantsesak oro har, gaitzetsi egiten du subjektuaren metafisika. Ukatu egiten du subjektu erabat autokontzientea, guztiz askea dena, bere autonomia izpirituaren metafisikan oinarritzen duena. Sartre-rena bezalako subjektuen filosofiaren aurka, Foucault-ek subjektuaren eraikuntza historiaren testuinguruan aztertu zuen, ni-aren teknologien genealogia eginez hermeneutikaren bitartez. Foucault-en arabera, garai bakoitzean ni-aren hainbat teknologia erabiltzen dira subjektua eraikitzeko. Teknologia hauek aldi berean ezagutza eta boterea dira.

Negri<sup>10</sup> ere bat dator ikuspegi honekin. Pentsalari postestrukturalistei eta batik bat Deleuze-ri jarraiki, Negriren ahalegin teorikoak singularitasunari pisu oso handia aitortu nahi dio baina beti ere sustantzia oro kenduz. Indibidualtasunaren metafisika, mistifikazio gaitzesgarria iruditzen zaio

<sup>4</sup> Bourdieu, 1999b, 478 or.

<sup>5</sup> Bourdieu, 1996, 22-23 or.

<sup>6</sup> Bourdieu, 1991, 75 or.

<sup>7</sup> Bourdieu, 1996, 133-134 or.

<sup>8</sup> Bourdieu, 1999b, 478 or.

<sup>9</sup> Foucault, 1990.

<sup>10</sup> Negri, 2004, 136-137 or.

Negriri. Gorputz batek ez du bakarrik egoteko aukerarik. Negriren ikuspegia inmanentea da indibiduoarekiko, trszendentzia oro baztertuz. Negrik dioenez, trszendentzia da indibidualtasunaren trszendentzia ororen giltza eta, Negriren arabera, gorputzaren ikuspegitik harremana eta prozesua baino ez dago. Gorputza lan bizia da eta, beraz, adierazpena eta lankidetzatza da, munduaren eta historiaren eraikin materiala.

### 1.1.3 Subjektibismo kolektibista

Biologikoki gizaberea munduarekiko irekia dago, Bourdieuren iritziz. Munduaren eraginpean dago. Munduak baldintzatzen du gizaberea: baldintza material eta kulturalak moldarazten dute, ingurumaria horretan bizi baita jaiotzetik. Sozializazio prozesuan murgildua dago hasiera-hasieratik eta horren ondorioz gertatzen da indibidualizazioa: ni-aren berezitasunak harreman sozialetan eta harreman sozialen bitartez sortzen eta jorratzen dira: Bourdieurena subjektibismo kolektibista bat da.<sup>11</sup>

Agentea, Bourdieuren ikuspegitik, historia kolektiboaren arrastoan dabilen pauso indibiduala da. Indibiduoaren joerak, bi muturrak aipatzearen, hausturarako edo jarraipenerako izan daitezke.<sup>12</sup> Estilo *pertsonala*, Bourdieuren iritziz, garai edo talde sozial baten estiloarekiko desbideraketa da. Hots, estiloa *pertsonala* da beti ere zerbaiteko erreferentzia egin dezakeen artean: gertaera sozial hori ez da gertaera bat bere baitan. Gertaera guztiak, baita estilo pertsonala deiturikoa ere, osotasunarekiko eta bereziki erreferentzia zehatzekiko harremanean jazotzen dira. Gainera, sozialki une eta leku bakoitzean estilo estandartzat hartzen denarekiko erreferentzia ez da bakarrik adostasunaren bitartez egiten; ezberdintasunak ere *modua* egiten du.<sup>13</sup>

Oinarri hori hartuta, subjektu-objektu oposizioa faltsua da Bourdieuren ikuspegitik. Agenteen ikuspegiak aztertzen dituen ikus daiteke nola uztartzen dituen Bourdieuk bata eta bestea: ikuspegia, begirada subjektiboa da (une subjektibista), baina aldi berean espazio sozial objektibo batean oinarriak dituen begirada da (une objektibista).<sup>14</sup> Bourdieuren arabera, agenteak aldi berean sailkatuak daude eta sailkatzaileak dira, baina beren sailkapenak ez dira ausaz egiten edo ez dira subjektu erabat askearen produktu; agenteek sailkapenean duten posizioaren arabera sailkatzen dute, baina posizioak ez ditu determinatzen. Posizio sozialak testuinguru sendo bat ezartzen dio agenteari, baina ez hori baino gehiago. Ezta gutxiago ere. Horrez gain, ezin da pentsatu Bourdieuk aldaketa soziala ukatzen duenik. Bourdieuren ikuspegitik, agenteak egituratuta daude (ez determinatuta) eta egituratzaileak dira (beren bizitzen gain eragina daukate). Hots, agenteak historia dira (haren produktu behintzat) eta historia egiten dute (ekoizleak dira). Ez dira, beraz, kanpo faktoreen marionetak, ezta izaki erabat burujabeak ere.

Ildo honetatik hainbat ekarpen egin izan dira baita psikologiaren eremuan ere. Psikologiaren korrante ugariak uste dute jarrera eta jokabideak ez direla ausaz gertatzen, nolabaiteko ordena jarraitzen dutela. *Motibazioa* hitza latineko *emovere* hitzetik dator eta honek *mugiarazti* esan nahi du. Weiner-en arabera, sarritan motibazioa ikaskuntzatik eratortzen da eta, halaber, ikaskuntzak

<sup>11</sup> Bourdieu, 1999c, 177-178 or.

<sup>12</sup> Bourdieu, 1996, 108-114 or.

<sup>13</sup> Bourdieu, 1991, 104 or.

<sup>14</sup> Bourdieu, 2000c, 102 or.

motibazioa islatzen du<sup>15</sup>. Ikuspegi honen arabera<sup>16</sup>, ni-a eraiki egiten da. Nork bere burua nola ikusten duen eta nola ikusi nahiko lukeen islatzen da eta, halaber, besteen aurrean nola agertzen den ere islatzen du (guztien aurrean ez da berdin agertzen). Bandura-k eta Brown eta Smart-ek diote autokontzeptuak arautu eta zuzentzen duela jarrera eta, halaber, autokontzeptuak pertzepzioak ere baldintzatzen dituela eta, ondorioz, inguruko estimulu batzuekiko itxita edo irekita gaudela. Kontaezinak dira autokontzeptuaren osaketan parte hartzen duten aldagaiak, baina horietako batzuk besteak baino askoz esanguratsuagoak dira: umeentzat hurbilekoak diren pertsonak (gurasoak eta bestelako hurbilekoak) eta handitu ahala adiskideak, eta gerora norbanakoa murgildua dagoen giroa, zentzu sozio-kulturalean ulertuta. Erabakiorra da besteen aitortza nork bere buruaren autokontzeptua eraikitzeko. Jaiotzez nolakoa den ez da garrantzitsua, baizik eta inguruak zer tratatu ematen dion. Une jakin batean nork bere buruaz duen ideia ez badator bat inguruko guztiek erakusten diotenarekin eta kontraesan hau mantentzen bada, ni-ak bere autokontzeptua aldatu egingo du. Ez dira soilik aldaketa handiak, batzuk txikiak eta oso sotilak dira.

Izan ere, ekarpen hauen arabera<sup>17</sup>, autokontzeptua nork bere buruaz duen irudia da eta funtsezko osagaia da nortasunaren eraikuntzan. Autoestimak norbanakoari zorientasuna, asetasuna eta ondo setiaraztea ahalbidetzen dionez, norbanakoa bere buruaz irudi ona mantentzen saiatzen da eta horretarako sozialki esanguratsuak diren besteen balorazioetan oinarrituz aukeratu egiten ditu bere esperientziak. Besteen balorazio positiboa jasotzeko, norbanakoa ez dago esperientzia mota guztietara irekia. Ikuspegi honen arabera, hiru prozesuk baldintzan dute autoestima: arrakasta edo porroten esperientziak, besteengandik jasotako balorazioak eta gertakizunak interpretatzeko indibiduoak eraikitzen dituen markoak.

#### **1.1.4 Probabilitatearen fatalismoaren aurka**

Errealitate soziala ez dago erabat determinatuta, ezta erabat indeterminatuta ere, Bourdieuren arabera<sup>18</sup>. Errealitate soziala sendoki egituratuta dago. Errealitate sozialean agente eta erakunde bakoitzak ezaugarri ezberdinak dauzka eta konbinazio batzuk besteak baino probableagoak dira.

Bourdieu<sup>19</sup> dioenez, pentsamendu estatistikoa parez pare dugunean, arriskua dago probabilitatea eta ekidinezintasuna nahasteko. Adibidez, jatorri soziala eta eskolako arrakasta lotzen baditugu, esan dezakegu jatorri sozial batzuetakoek probabilitate handiagoak dituztela eskolan arrakasta izateko, baina ezin dugu esan jatorri sozial batek ezinbestean dakarrela eskolan emaitza onak edo txarrak lortzea. Pentsamendu estatistikoak joerak erakusten ditu, ez patu saihestezinak. Gainera, Bourdieuren arabera<sup>20</sup>, probabilitateak mundu sozialaren zati bat bakarrik aztertzeraz iristen dira. Kultur transmisioaren arauak aztertzean, esate baterako, analistak arauen joerari buruz bakarrik hitz egin dezake. Fatalismoaren aurka hori gutxi balitz, Bourdieuk gogorarazten digu arau horiek definizioz kontinjenteak direla. Sekula ez dira betierekoak. Gainera, unean uneko gertaeren zati

---

<sup>15</sup> Mietzel, 2003.

<sup>16</sup> Beltrán & Bueno Alvarez, 1995.

<sup>17</sup> Goñi, 1996.

<sup>18</sup> Bourdieu, 2000c, 118-119 or.

<sup>19</sup> Bourdieu, 2000a, 41 or.

<sup>20</sup> Bourdieu, 2000a, 44-47 or.



bat (batzuetan besteetan baino handiagoa) azaldu gabe gelditzen da beti. Horren aurrean, ikerlariaren borondatea %100 aztertzerantz jotzea izan behar da, Bourdieuren iritziz, iritsiko ez dela jakinik. Hortaz, Bourdieuri<sup>21</sup> irakurtzen diogunean iritzi pertsonala determinatuta dagoela, osasuntsua litzateke galdetzea ea zenbat faktorek determinatzen duten, eta agian erantzun aproposena litzateke esatea hamaika direla, ez dutela beti berdin eragiten, eta gainera batzuk oraindik ere erabat ezezagunak direla.

Probabilitatearen fatalismoan erortzea oso okerra da. Etsipena dakar. Adibidez erakunde sozial bat analizatu eta esaten badugu erakunde horrek ezberdintasun sozialak erreproduzitzen dituela (Bourdieu, adibidez, hori dio Eskolari buruz), horrek ez du esan nahi arazo gaindiezina denik. Gainera, mekanismo soziala ezagutzearekin batera handitzen dira mekanismoa eraldatzeko aukerak.<sup>22</sup> Probabilitate handienak ere ez du bermatzen emaitza. Probabilitate handia eta erabateko ziurtasuna oso ezberdinak dira. Bien arteko jauzi kualitatiboa erraldoia da. Ziurgabetasunak lege sozialen logika probabilistikoa du oinarria. Nahikoa da ziurgabetasunaren printzipioa erabiltzea praktikarekiko begirada etsitua baztertzeko. Ziurgabetasunaz ari garenean, denbora sartzen da tartean. Eredu baten mekanikari buruz hitz egin beharrean, Bourdieuk estrategien dialektikaz hitz egiten du, baina beti ere aktore arrazionalaren teoriarekin bat egin gabe.<sup>23</sup>

### 1.1.5 Jokoaren zentzua

Zentzu praktikoak gidatzen ditu agenteen ekintzak, Bourdieuren arabera. Zentzu praktikoaren lehenestean, Bourdieuk esan nahi du agenteen ekintzak ez direla izaten erabat kontzienteki hausnartuak eta gauzatuak. Ekintzen kontzientzia maila batzuetan handiagoa eta besteetan txikiagoa da. Hala ere, erabateko kontzientzia ukatzean Bourdieuk ez du esan nahi agenteen ekintza nahiko sistematikoak ez direnik. Bourdieuren arabera, agenteen ekintzak maiz ez daude helburu baten arabera antolatuta, baina atzera begirako helburu baten itxurako asmoa daukate. Dena den, agenteen ekintzen ezaugarrietatik Bourdieuk dezente azpimarratzen du bat: ekintza bakoitza ekintza gauzatu den eremura egokitzen da, ez du irizpide orokor soila jarraitzen. Eredu bakoitzak joko arau bereziak dauzka eta agenteen zentzu praktikoak joko eremuaren jokoaren zentzura egokitu beharra dauka baldin eta eraginkorragoa izan nahi badu. Barneratu egin behar du eremuaren zentzua, *zentzu* hitzak dauzkan bi adieretan: orientabidea eta esanahia.<sup>24</sup>

Aurreikuspena eta presa dira jokoaren funtsezko ezaugarriak. Jokoan sartua dagoena ez da soilik ikusitakora doitzen. Sarri, aurreikusitakoak indar handiagoa hartzen du.<sup>25</sup> Futbolean, esate baterako, jokalaria batek orainalditik ikus dezakeenaren arabera pasako dio baloia beste jokalaria bati, ordura arte izan dituen esperientzien multzoa presaren presaz une bakar batean baloratuz. Batzuetan baloia bere kidea dagoen lekura botatzen saiatuko bada ere, futbolean maiz askoz eraginkorragoa izaten da baloia kidea iritsiko den lekura botatzea. Aurreikuspen ekintza hauek

---

<sup>21</sup> Bourdieu, 2000a, 48 or.

<sup>22</sup> Bourdieu, 2004, 178-179 or.

<sup>23</sup> Bourdieu, 1991, 169 or.

<sup>24</sup> Bourdieu, 1991, 113 or.

<sup>25</sup> Bourdieu, 1991, 139 or.

bat-batekoak dira. Askotan ia ez dago distantziarik, perspektibarik, panoramikarik, denbora tarterik, atxikimendu gabeziarik. Presaren presaz egiten dira ekintza hauetako asko.

Jokalari onek uneoro (pentsa futboleant) jokoak eskatzen diona egiten du. Egin beharrekora egokitzen da. Joera honek etengabeko asmakuntza eskatzen du. Sorkuntza taigabea ezinbestekoa da egoera infinituki aldagarrietara egokitu ahal izateko, egoerak ez baitira inoiz berdin-berdinak. Futbol jokalaririk batek mugimendu ugari egin beharko ditu, kontaezinak, baita ustez berari ez dagozkionak ere, egoeraren arabera, eraginkortasuna areagotzeko. Beraz, arauarekiko errespetua ez da ziurra, araua kodifikatua badago behintzat. Futboleko aurrelari batek batzuetan aurrelari bati ez dagozkion mugimenduak ere egingo ditu. Suposatzen ez zitzaizkion mugimenduak ere egingo ditu; ez zitzaizkion suposatzen ez zekizkielako egiten edo egin ohi ez zituelako. Futboleant estrategia funtsezkoa da baina strategiaren probabilitateak jokoaren gora-beheretara egokitzen dira eta horregatik gertatzen da batzuetan gauza bat eta besteetan bestea. Jokalaria baloia erortzen den lekurantz joaten da, baloia gidatuta bezala, baina jokalaririk ere gidatzen du baloia, ostikoka edo bestela jokalaririk horren mugimenduek beste jokalaririk baloia era zehatz batera mugitzera behartzen dituelako, adibidez presioa egiten duenean edo presioa egiteari uzten dionean. Estrategiak ez dira arauarekiko errespetuan oinarritzen. Estrategia oinarritzat hartuta, jokalaria jokoaren zentzuaz jabetu ahala kontzientzia honek bultzatzen du aukeren artean bere iritziz (presaren presaz eta aurreikuspenean oinarrituz) aukera hobereana hautatzen saiatzera. Beha daitezkeen erregulartasunak (estatistikari esker adibidez) muga objektiboen edo muga barneratuen produktu dira.<sup>26</sup>

Max Weber-ek ere ideia hori azaltzen du: agente sozialek araua obeditzen dute baldin eta obeditzearen interesa, ez obeditzearen interesa baino handiagoa bada. Hortaz, arau ez diren beste printzipio batzuk ere eragiten dituzte praktikak.<sup>27</sup>

Orain arte esandakoak ikuspegi determinista ukatzen du, baina agian ikuspegi hau subjektibista dela esan daiteke. Baina ez da horrela: Bourdieuk argi uzten du jokoaren zentzua asimetrikoki banatuta dagoela jokalarien artean eta denek ez dutela pareko trebeziarik egoerei aurre egiteko. Ez dituzte, beraz, guztiek aukera berdinak beren jokaldiak arrakastaz burutzeko.<sup>28</sup>

Futbolarena ez ezik mus jokoaren metafora ere erabil dezakegu, baina mundu sozialarekin parekatu nahi badugu, esan beharko genuke jokalaririk guztiek ez dutela lau kartekin jokatzeko: batzuk bai, batzuk lau dauzkate, beste batzuk zortzi, bederatzi edo, hogeitun, beste askok hiru, bi edo bat, eta gainera agian markatutako kartak dira. Bakoitzak normalean jaso ohi dituen karta kopuruaren arabera erakitzen du bere jokaldiaren estrategia. Jokalari bakoitzean, berriz, estrategia habitusean oinarritzen da, baina baita egokitutako kartetan eta beste mugimenduetan ere. Jokalari bakoitzaren bukaeran jokalaririk arteko harremana alda daiteke: agian baten batek kartaren bat gehiago edo gutxiago izan dezake eta agian norbaitek trebezia berriren bat ikasi du, baina normalean (salbuespenak salbuespen) indar harremana ezin da kolpez gehiegi aldatu.

---

<sup>26</sup> Bourdieu, 1996, 70 or.

<sup>27</sup> Bourdieu, 1996, 83 or.

<sup>28</sup> Bourdieu, 1996, 70 or.

Jokoaren metafora nahiko egokia da mundu sozialaren gora-beherak azaltzeko, baina Bourdieuk badaki metafora honek arrisku handiak dauzkala, gaizkiulertuak erraz eragin baititzake. Batetik, pentsa daiteke norbaitek edo norbaitzuk asmatu dutela joko eta asmatzaile horrek edo horiek ezartzen dituztela arauak. Bestetik, are larriagoa da pentsatzea joko-arauak finkoak direla. Eta ez, mundu soziala ez da horrelakoa. Lehenik eta behin, erregularitasuna eta araua bereizi behar dira: arestian esan bezala, posizio sozial batzuetan joera handiagoa dago (batzuetan askoz handiagoa) x, y eta z lortzeko, baina ez da araua, joera baizik. Bestalde, joko arauak aldatu egiten dira denboran zehar. Joko arauak ez daukate asmatzaile bakar bat. Posizioen arteko indar harremanaren arabera ezartzen dira joko arauak. Beraz, indar harremanak aldatu ahala eraldatu ohi dira joko arauak.<sup>29</sup>

## 1.2 Habitus-a

*Habitus* kontzeptua funtsezkoa da Bourdieuren lanetan. Bourdieuren asmoa da *habitus* kontzeptuaren bitartez gizabanako-gizarte dikotomia gainditzea.<sup>30</sup> Bourdieuren ikuspegitik ni-a ez da *subjektua* (kontzientziaren filosofiaren zentzuan). Ni-a ere ez da, Bourdieuren aburuz, egiturak determinatzen duen menpeko elementu soila (estrukturalismoaren zentzuan).<sup>31</sup> Bourdieuk ez du *ni*-aren kontzeptua erabiliko. Horren ordez *habitus* kontzeptuak hartuko du bere lekua, zeren Bourdieuk esanahi (edo gutxienez nabardura) berriak eman nahi baitizkio. *Habitus*a, disposizio sistema iraunkor eta transferigarria da. Egitura egituratzailea den egitura egituratua da *habitus*a. Biak aldi berean. Hots, baldintza batzuek sortzen dute *habitus*a, baina halaber *habitus*a praktiken eta errepresentazioen printzipio ekoizlea eta antolatzailea da. Praktika eta errepresentazio hauek beren helburuetara doituak egoteko joera dute, nahiz eta ez *with full awareness* (egoeraz erabat jabetuz), Bourdieuren definizioaren arabera, ezta beren helburuak lortzeko eragiketa guztiak menperatuz ere. Egiturazko joera kolektibo batzuei erantzuten diete, baina ez dira arauetikiko obedientziaren ondorio, ezta orkestra zuzendari baten ekintzaren produktua ere.<sup>32</sup>

*Habitus*a, zentzu praktikoa da<sup>33</sup>. *Habitus*a, bertute bihurtutako beharra da: egoera bakoitzean ezinbesteko aukerak onesteko joera du *habitus*ak. Hortaz, analistak teorikoki baldintza objektiboak eraikitzen baditu eta hautematen badu agenteen esperantza subjektiboak analistak detektatu dituen baldintza objektiboetara dezente doitzen direla, ez da derrigorrez agenteek beren esperantza eta asmo guztiak (edo gehienak) kontzienteki doitu dituztelako, baizik eta *habitus*ak aurrea hartzeko joera daukalako. Bizi baldintzek disposizio multzoak ekoizten dituzte. Disposizio hauek bizitzari aurre egiteko nolabaiteko printzipioak dira. Historia indibidual nahiz kolektiboan pilatutako jakintzak dira: bizitako posibilitate eta posibilitate eza, askatasun eta beharrak, erraztasun eta debekuak, eta abar luze bat. Disposizio hauek egoerara egokitzeko joera dute. Hau esanda, *joera* hitza azpimarratu behar dugu, Bourdieuk ez baita doikuntza perfektuez ari: *habitus*a ez da hutsik egiten ez duen makineria.<sup>34</sup>

---

<sup>29</sup> Bourdieu, 1996, 71-72 or.

<sup>30</sup> Bourdieu, 1996, 41 or.

<sup>31</sup> Bourdieu, 1999c, 173 or.

<sup>32</sup> Bourdieu, 1991, 92 or.

<sup>33</sup> Bourdieu, 1991, 99 or.

<sup>34</sup> Bourdieu, 1991, 94 or.

### 1.2.1 Egonkortasuna eta aldaketa

Chomsky-ren<sup>35</sup> arabera, gramatika ekoizlearen teoriaren arabera, gizakiok oinarrizko gramatika bat daramagu atxikia jaiotzez, eta kanpoarekiko hartu-emanen arabera garatuko dugu era batean edo bestean. Chomsky-k dioenez, hizkuntzaren ohiko erabilera ez da trebezien erabileran oinarritzen. Hizkuntzaren erabilera sortzailea da, beharrezkoa baita forma berrien ekoizpen eta interpretazio etengabea. Forma hauek berriak izan daitezke bai hiztunaren esperientzian bai hizkuntzaren historian. Baina, Chomsky-ren arabera, hizkuntza jakin bat ezagutzeko ezinbestekoa da hizkuntza horren arau eta printzipio sistema ezagutzea, zeren hauek determinatzen baitute hizkuntzaren erabilera. Haurrak jakintza hau bereganatzeko, herentzia biologiko sendo batean oinarritzen du ikaskuntza. Herentzia honek zehaztasun nahiko handiz determinatzen ditu garapen linguistikoan erabili ahal izango diren sistema motak. Hizkuntza jakin baten ezagutza ahalbidetzeko ezinbestekoa da burmuinak, aparatu motrizak eta hautemate aparatuek arau eta errepresentazio sistema horiek beren baitan prozesatzea. Chomsky-k dioenez, sistema hau hein handi batean egonkorra eta aldaezina da, giza gorputzaren oinarrizko forma eta antolakuntza egonkorrak eta aldaezinak diren bezalaxe. Herentzia biologikoak determinatzen ditu. Chomsky-ren arabera, badirudi hizkuntzen arteko aldea soilik lexikoan eta biologikoki determinatuta ez datozen bestelako zenbait arauetan bakarrik aurki daitekeela.

Hizkuntzari buruzko bere ikuspegiari jarraiki, Chomsky-ren arabera, haurrak hizkuntza bere herentzia biologikoaren zati dela jabetzen delako bereganatu dezake haurrak hizkuntza bere aberastasunean eta konplexutasunean, eta beste horrenbeste gertatzen da modu askoz zabalago batean gizakiak lortzen duen guztiarekin. Chomsky-k dioenez, hezkuntza ez da edukinontzi bat urez betetzearen parekoa, baizik eta loreari nahieran hazteko aukera ematea, baina beti ere beharrezkoak dituen zainketak eskainiz. Garapen linguistikoarekin egiten duen bezalaxe, testuinguruaren izaerak neurri handi batean determinatu egiten du giza garapena. Jakinmin naturala, inteligentzia eta sormena garatu daitezkeen beharrezkoa da estimulu egokiz hornitutako giroa. Testuinguruak ahalbidetzen du norberaren gaitasun biologikoak garatzea. Chomsky-ren ikuspegitik, garapenaren norabidea hein handi batean barrutik determinatua egoteak ez du esan nahi zainketa, estimulu eta aukera gabe aurrera egingo duenik.

Bourdieuaren habitus kontzeptua, ordea, ez dator bat Chomskyren gramatika kontzeptuarekin, ezta ekarpen horretatik eratortzen den ikuspegiarekin ere. Bourdieuaren habitusa ez da barnean daramagun gramatika baten ekoizpen soil. Bourdieuaren arabera, barruan daramagun zera hori baldintza sozialaren arabera eraikitzen da. Jaiotzetik ez dago gramatika antzeko zera moldagarri bat. Habitusa ez da soilik moldagarria; habitusa bere osotasunean baldintza historikoen emaitza da (emaitza posibleetako bat). Bourdieuaren ikuspegitik habitusak baldintza sozial zehatzen produktua dira eta, aldi berean, eremu bakoitzera doitutako diskurtso ekoitziak dira.<sup>36</sup>

Habitusa historia indibidual nahiz kolektiboaren produktua da, baina aldi berean habitusak praktika indibidual nahiz kolektiboak ekoizten ditu. Beraz, historiak habitusa ekoizten du, baina

---

<sup>35</sup> Chomsky, Noam: 2005a, 100-109 or.

<sup>36</sup> Bourdieu, 2000a, 121 or.

halaber habitusak historia ekoizten du praktiken bitartez.<sup>37</sup> Habitusa, Bourdieuk esaten duen bezala, bere trenbideak daramatzen trena da<sup>38</sup>.

Habitusa etengabe aldatzen da esperientzia berriak medio. Egonkortasuna eta aldaketa dira habitusaren ezaugarri nagusiak. Familiaren baitan barneratzen den oinarrizko habitusa, adibidez, ez da prozesu mekaniko batean barneratzen. Ereku bakoitzak eskatzen dituen disposizioak ere ez dira mekanikoki barneratzen. Aldaketa prozesuak luzeak eta etengabeak dira, eta neurri batean hautemanezinak. Erakunde errituek galbahe papera jokatzen dutenez, salbuespenak salbuespen, ez dira bat-bateko eta muturreko aldaketak gertatzen. Prozesua gatazka handirik gabe garatzen da, baina lan eta sufrikario moral nahiz fisiko ugari nozitu eta eragin behar izaten dira. Pasa beharreko frogak ere ez dira gutxi izaten. Hala ere, aldaketa guztiak ez dira denboran hainbeste luzatzen. Batzuetan aldaketa handiak gertatzen dira eta orduan agenteek zailtasunak izaten dituzte aurreko epeetako disposizioen batasuna mantentzeko<sup>39</sup>.

Bourdieu-ren ekarpen hautetatik ez oso urrun, Davies-ek<sup>40</sup> dio gizabanakoa ez dela eraikuntza sozial prozesu baten emaitza egonkorra. Osatu eta berrosatu egiten da parte hartzen duen praktika diskurtsiboen bitartez. Norbera aldatu egiten da bere posizioak bere diskurtsioan eta besteen diskurtsioan duen kokapenaren arabera, norbanakoak *ni* bat baino gehiago balu bezala, eta hauetako bakoitza bere buruarekiko eta besteekiko kontraesankorra izan daiteke. Honenbestez, ikuspegi honek hautsi egiten du norbanakoaren batasunaren mitoa. Norbanakoaren subjektibitate anitzek erabat norberarenak balira bezala bizitzen dira zeren norbanakoak bereak balira bezala hartzen baititu praktika diskurtsiboak eta istorio-lerroak, eta esanahia ematen baitie norberaren esperientziaren parametroetan.

### 1.2.2 Posizio sozialari lotutako disposizio multzoa

Habitusak normalki posizio sozial batekiko lotura handia dauka: probabilitate estatistiko handiagoa dago posizio sozial zehatz batean praktika zehatz batzuk eta ez beste batzuk gauzatzeko.<sup>41</sup> Hortaz, esan dezakegu Bourdieuren arabera honako elementuok elkarrekiko harreman estua daukatela: posizio sozialak, jarrerak (habitusak) eta erabakiek. Posizio sozial bakoitzari habitus bana dagokio. Habitusa printzipio ekoizle eta bateratzailea da. Habitusak posizio bakoitzaren ezaugarri erlazionalak bizimodu bateratu bihurtzen ditu. Izan ere, honakoa da habitusa: pertsona, gauza eta praktiken aukeraketa bateratuen multzoa. Habitusak ezberdinak eta ezberdintzaileak dira aldi berean: posizio sozial bakoitzak bere ikupegitik ikusten ditu bere habitusa eta besteen habitusak. Horrexegatik adibidez urliari ideia bat zentzuzkoa irudituko zaie, eta ideia hori bera berendiari, berriz, arriskutsua, eta sandiari zentzugabea, eta abar. Zeinu bereizgarriak dira. Ezberdintasun hauek sistema sinbolikoak osatzen dituzte. Ezberdintasuna, jakina, ez da gure bizitzen leit motiv bakarra, baina funtsezkoa da: denok izan nahi dugu nor eta, beraz, inor ez izatea ez da inoren gustukoa. Gure nortasunak esanahia izan behar du. Ezin du

<sup>37</sup> Bourdieu, 1991, 94-95 or.

<sup>38</sup> Bourdieu, 1991, 98-99 or.

<sup>39</sup> Bourdieu, 1999c, 211-218 or.

<sup>40</sup> Davies, 2004.

<sup>41</sup> Bourdieu, 1999b, 379 or.

indiferentzia eragin, erabatekoa ez behintzat. Nortasunaren eraikuntzak (besteak beste) kontrakoa bilatzen du: diferentzia, deferentzia, begirunea alegia.<sup>42</sup>

Habitusaren baitan gauzatzen da Bourdieuk *allocation* deitzen duen fenomenoa. Goffman-ek *sense of one's place* deitzen duen horren antzekoa da: bakoitzak daukan norberaren lekuaren zentzua. *Allocation* izenekoa Bourdieuren teorian funtsean norbaitek bere buruarekiko daukan irudia eta estima moldaraztean datza. Norbaiten aspirazio eta exigentziak bakoitzak bere buruaz pentsatzen duenaren arabera eraikitzen dira. Bakoitzak bere lekua zein den sumatzen du, batzuetan zehatz, besteetan ez, eta horren arabera eraikitzen du bere estrategia. *Allocation* izenekoaren bidez nork bere buruaz daukan sinismena moldarazten du eta horrela nor hori arlo, diziplina edo erakunde zehatz batzuetara bideratzen da. Horietako batzuk posizio sozialki prestigiotsuetarantz. Beste batzuk, ordea, devaluatuetarantz. Familia, eskola, lagunartea, lana eta abar dira agenteari lan hori betetzen laguntzen dioten erakunde sozialak.<sup>43</sup>

Psikologiaren eremuan egindako hainbat ekarpenen arabera ere<sup>44</sup>, norbanakoaren motibazio orokorrean eragin oso handi du helburu zehatz bat lortzeko motibazioak. Lorpenera bideratutako motibazioa duten ikasleek uste dute beren lorpenak beren trebeziari esker erdietsiak direla, motibazio txikia dutenek baino autoestima handiagoa baitute. Porroten aurrean ez dute amore ematen, zereginei konstantzia handiagoz egiten diete aurre, etekinekiko interes handiagoa dute eta berehalako *feedback*-a eskatzen dute. Besteak beste, familia giro mota batzuen ondorioa da: jarrera, hizkuntzaren kalitatea eta lan ohiturak dira hori ulertzeko gakoetako batzuk. Zeregin bati buruzko espektatiba eta balorazioak ere eragin handia dute motibazioan: positiboki baloratzen denean, gehiago inplikaturako da: “gustuko dut, erraza da, erabilgarria da”. Nork bere buruaz eta zereginaz duen ikuspegian oinarritzen da: testuinguruaren arabera nork bere kompetentzia-inkompetentzia eta zereginaren zailtasunean.

Hala ere, habitusa ez da soilik agentearen posizio sozialetik zuzenean eratortzen. Batetik, nahiz eta posizio sozial bakoitzari habitus bana dagokion, posizio sozial bakoitzak beste habitus mota batzuk ekoizteko aukera ere bazeukan (batzuetan agian ez oso ezberdinak, beste batzuetan agian bai) baina aukera batzuk hautatzen ditu. Bestetik, habitusa ez du soilik posizio sozialak baldintzatzen; habitusak berak gauzatzen dituen ekintzek ere baldintzatzen dute habitusa. Hortaz, Bourdieuk dio habitusa bi elementuren konbinazioan determinatzen dela: batetik, bizi baldintzetatik eratorrita aurreikusten den etorkizunaren arabera, eta bestetik, habitusak berak egiten duen etorkizunaren arabera.<sup>45</sup>

Bestalde, Bourdieuk bere teorian ez du esaten agente guztiek beren posizio sozialarekiko berdin jokatzeko dutenik. Posizio sozialarekiko kontzientzia izanik, nork bere posizio sozialarekiko zenbait jarrera oso bereizi har ditzake. Errealitate sozialak behin eta berriz erakusten du posizio sozial batzuetan gauza batzuk gertatzeko aukerak beste aukera batzuk baino handiagoak direla, eta horren kontzientziak sarri bultzatzen ditu agenteen espektatibak aukera probableenetara doitzera. Horixe da orden soziala mantenduarazten duen faktore indartsuenetako bat. Arlo askotan etsipena uste baino handiagoa da, orden soziala bere horretan onartzen baita. Ondorioz,

<sup>42</sup> Bourdieu, 1997, 16-21 or.

<sup>43</sup> Bourdieu, 1999b, 22-23 or.

<sup>44</sup> Beltrán Llera & Bueno Alvarez, 1995.

<sup>45</sup> Bourdieu, 1991, 110 or.

maiz erresistentziarik gabe bakoitzak bere gain hartzen du bere bizitzaren zama oso-oso, gatazkaren jokoan menekoaren posizioa praktikan onartuz. Baina posizio soziala onartzeak ez du soilik zama suposatzen, zeren egoera latzenek ere etekinak eskaintzen baitituzte (batzuetan handiagoak, besteetan txikiagoak). Etekin horiek erraz sakrifikatzen ez direnez, haserrea, matxinada eta transgresioa ez dira hain ohikoak.<sup>46</sup>

### 1.2.3 Bizi baldintzapenetara egokitzeko zailtasunak

Bourdieu esaten duenean habitusa posizio sozialean oinarritzen dela eta bakoitzak dauzkan aukerak kontuan hartuz osatzen dela<sup>47</sup>, beharra bertute bihurtuz, ez du esan nahi agenteek beren posizio soziala zehaztasun osoz ezagutzen dutenik. Goffman-ek *sense of one's place* horren bitartez eraikitzen du agenteak bere estrategia, baina nor bere lekua zein den ikusteari buruzko zentzu praktikoa neurri batean oker edo oso oker egon daiteke<sup>48</sup>. Hortaz, Bourdieuren ikuspegitik, baldintza objektiboek eragin handia daukate habitusaren sorreran, erabakiorrak dira, eta, beraz, habitusak eragindako ekintzak, neurri handi batean, egoerara egokituta egiten dira, baina ezin da ahaztu tarteka (batzuetan uste baino maizago) agenteen ekintzak baldar doitzen direla egoeraren baldintza objektiboetara<sup>49</sup>. Gainera, agenteek ezagutzen dutena baino zentzu handiagoa daukate agenteen ekintzek. Agenteak inoiz ez dira jabetzen %100ean zer egiten ari diren.<sup>50</sup>

Posizio sozialaren aukeretara egokitzeko doikuntza eza ez dator soilik posizioaren egoera eta beharrak analizatzean egiten diren akatsetatik edo agenteek beren ekintzen esanahia ez erabat ezagutzetik. Horrez gain, Bourdieuk dio kontuan hartu beharra dagoela posizioaren eta posizioa hartzearen arteko harremana ez dela mekanikoa eta ekidinezina<sup>51</sup>. Prozesu horretan hautatu egiten da. Gorago aipatu dugun bezala, ni-ak (Bourdieuren erara ulertuta) eragina dauka bere hautuetan<sup>52</sup>. Hori guztia dela eta, Bourdieuren arabera, habitusa ez dago derrigorrez egoerara egokitua eta ez da derrigorrez koherentea<sup>53</sup>.

Doikuntza akatsak zuzentzen dituzten prozesuak ere aztertzen ditu Bourdieuk. Nagusiki *zahartze soziala* izeneko aipatzen du. Bere posizio sozialaz kontzientzia argiagoa lortu ahala, agentearen ibilbidean habitusa nola alda daitekeen azal dezake prozesu honek. Zahartze sozialak, Bourdieuren ikuspegitik, desinbertsioa eragin dezake: ingurune sozialak xaxaturik, helburuak bete gabe denbora pasa ahala bereziki, agenteak bere aspirazioak eta exijentziak bere aukeretara doitzeko joera dauka. Agentea bere baldintzak onartzera izaten da bultzatua. Horrelakoetan, bete ez diren helburu batzuetara lotutako iraganeko bidelagunak uzteko joera dago. Halaber, itxaropen batzuk eginezintzat jotzen dira, eginak izan ez direlako.<sup>54</sup>

<sup>46</sup> Bourdieu, 1999c, 306 or.

<sup>47</sup> Bourdieu, 1997, 64 or.

<sup>48</sup> Bourdieu, 1999c, 243 or.

<sup>49</sup> Bourdieu, 1999c, 192 or.

<sup>50</sup> Bourdieu, 1991, 118-119 or.

<sup>51</sup> Bourdieu, 1999c, 199 or.

<sup>52</sup> Bourdieu, 1999c, 229 or.

<sup>53</sup> Bourdieu, 1999c, 210 or.

<sup>54</sup> Bourdieu, 1999b, 109 or.

## 1.2.4 Gorputzean errotuta

Habitusak gorputzari atxikia dago eta gorputzaren ekintzetan eta moduetan ikus daiteke. Habitusak diziplina batzuk ezartzen dizkio gorputzari.<sup>55</sup> Agente batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak ezarriz eraikitzen da espazio soziala eta ezaugarri bat norbaitetaz jabetzean (norbait ezaugarri batetaz jabetzen den heinean), naturalizatu egiten da eta ezberdintasuna gorputzu egiten da, ezberdintasuna norbaitek gorputzen du.<sup>56</sup> Gorputza da habitusaren etxea: habitusa gorputzean sustraitzen da eta gorputzen da. Horri esker naturalizatzen da habitusa, berezko bezala agertuz, gorputzaren joera naturala balitz bezala agertuz. Ez da soilik agenteen ekintza agerikoenetan islatzen; gorputzaren errepresentazio sotilenetan ere ikusten da: ahotsaren tonua, gorputzaren jarrera, ibilkera, begirada, hizkera, aurpegiaren jitea eta abar. Senak bizi du gorputza, sena gorputzarentzat erabat naturala balitz bezala.<sup>57</sup>

Diziplina sozialek, gorputzera atxikita daudelarik, denbora diziplinen forma hartzen dute. Ondorioz, denboraren bitartez gorputzean sortutako disposizioetan ezartzen da orden sozial oso bat, denboraren erabilera arautzeko modu zehatzen bitartez, ekintza indibidual eta kolektiboak denboran zehar banatzearen bitartez eta ekintza hauek gauzatzeko erritmo egokiaren bitartez.<sup>58</sup>

## 2. Kapitalak

Mundu soziala, pilatutako historia da. Ez da behin-behineko indar oreka-desoreka egoeren jarraipen hutsa. Iraganaren herentziak zeresan handia dauka. Bourdieuren *kapital* kontzeptua baliagarria da hau adierazteko. Kapitalak orainaldian pilatutako oro adierazteko balio du: materiala nahiz sinbolikoa eta gorputzez kanpokoa nahiz barneratua. Unean uneko kapitalaren banaketa asimetrikoak eragozten du indar harremanak ausaz gertatzea, bingoa balitz bezala, edozein eratako sorpresak beti posible balira bezala. Bingoan aukera berdintasuna legoke baldin eta aldiro kartoiak orekatuki banatuko balira. Bingoan aldiro edozein egon liteke goian edo behean. Aitzitik, espazio sozialean kapital gehiago pilatuta daukanak probabilitate handiagoa dauka helburu batzuk erdiesteko, bingoan kartoi gehiago dauzkanak bezala, eta zeresanik ez ia bingoko kartoi guztiak daukazunean. Kapital gutxiago duenak, berriz, aukera gutxiago dauzka.

Kapitala pilatzeko denbora eta jarraikortasuna behar da eta, gainera, kapital mota bakoitzaren eraginkortasuna aldatu egiten da eremuaren arabera, ez dute denek edozein eremutarako balio: agente bakoitzak daukan kapitalaren bolumenak eta kapitalaren izaerak baldintzatuko dituzte agente horren arrakastarako aukerak eremu bakoitzean.<sup>59</sup>

---

<sup>55</sup> Bourdieu, 1999c, 189 or.

<sup>56</sup> Bourdieu, 1991, 100 or.

<sup>57</sup> Bourdieu, 1991, 118-119 or.

<sup>58</sup> Bourdieu, 1991, 128 or.

<sup>59</sup> Bourdieu, 2000c, 131-132 or.



## 2.1 Kapital motak

Analisi askok mailakatzen dute mundu soziala ardatz bakarria kontuan hartuta. Hala eginez gero, banakoak lerro zuzen batean goitik behera mugitzen dira plano unidimentsional batean. Mailakatzeko Bourdieuren *kapital* kontzeptua unidimentsionalki erabiliko bagenu, kapital bakarria dagoela esan nahiko luke horrek. Bourdieuk gaitzetsi egiten du ikuspegi hori. Bourdieuren teorian kapital mota ugari aurkituko ditugu.

### 2.1.1 Kapital ekonomikoa

Analisi sozial ugari lehenesten dute faktore ekonomikoa. Are gehiago, batzuk eragile bakartzat ere hartzen dute. Bourdieuk, ordea, ekonomizismoaren aurka egiten du. Etnozentrismo mota bat dela uste du. Adibidez, Bourdieuren bi ikerketa alderatzean nabarmen ikusten da: Bourdieuk ezkontza estrategiak aztertu zituen Bearnon eta Kabilian, eta agerian utzi zuen Kabilian ohorea lehenesten dutela.<sup>60</sup>

Hala ere, Bourdieuk argi adierazten du gure espazio sozialetan kapital ekonomikoak garrantzia oso handia daukela. Bourdieuren arabera, botere ekonomikoaren jabetzak lehenik eta behin behar ekonomikoa urruntzeko boterea zilegiztatu du. Botere ekonomikoa nahikoa izanez gero, distantzia ezarri daiteke behar ekonomikoarekiko. Horrexegatik, botere ekonomikoak maiz aberastasunak xahutuz edo, areago, suntsituz berresten du bere boterea. Botere ekonomikoak gastu arranditsuaren, zarrastelkeriaren eta alperrikako luxuaren formak har ditzake.<sup>61</sup>

*La distinction*-en kapital ekonomikoa neurtzeko INSEEren inkesta bat erabili zuen Bourdieuk. Bertan, zerga bidez kontuan hartzen diren diru sarrerak bakarrik hartzen dira kontuan. Hori horrela izanik, Bourdieuk badaki kasu askotan beste hainbat diru sarrera eta jabetza ere kapital ekonomikotzat har zitezkeela eta, beraz, agente askoren kasuan neurtutako kapital ekonomikoa kopuru errealetik behera gelditzen dela, baina aldi berean, lortutako datuak erabilgarriak ere badira, Bourdieuren iritziz.<sup>62</sup>

### 2.1.2 Kapital kulturala

Kontzeptu hau funtsezkoa da Bourdieuren analisisetan. Gure espazio sozialak mailakatzeko ardatz garrantzitsuenetako bat da. Ibilbide akademikoari eta profesionalei dagokienez, zeresanik ez. Esate baterako, eskolako arrakasta edo porrota aztertzeko erabiltzen du Bourdieuk kapital kulturala: eskolan ondo moldatzea gaitasun naturalen ondorio dela ukatzen du horrela; Bourdieuren iritziz, Giza Kapitalaren Teoriak, esate baterako, eskola analizatzean ahaztu egiten du familiaren baitako kapital kulturalaren transmisioa, eta hori akats larria da Bourdieuren ikuspegitik, zeren familiak

---

<sup>60</sup> Bourdieu, 1991, 190 or.

<sup>61</sup> Bourdieu, 1999b, 52 or.

<sup>62</sup> Bourdieu, 1999b, 531 or.

denbora eta diru inbertsioa egiten baitu seme-alabengan.<sup>63</sup> Kapitalaz jabetzeko behar den denborak lotzen ditu kapital kulturala eta ekonomikoa<sup>64</sup>.

Kapital kulturalari dagozkion kompetentziek ere *koste* eta *prezio* soziala daukate, Bourdieuren arabera. Kapital ekonomikoarekin bezala, kompetentzia kultural bakoitza eskuratzearen kostea eta balizko etekina hartzen dira kontuan, eta horren arabera kompetentzia batzuk beharrezkotzat jotzen dira. Baliogabetzat jotzen diren kompetentziak, berriz, edozein merkatutan bezala, ez dira onargarritzat hartzen eta bazterrera uzten dira. Beraz, kapital kulturalaren harreran inbertsio kulturalen aplikazio produktiboen zentzua dago. Hala ere, honek ez du esan nahi, esparru ekonomikoan bezala, etekinaren maximizazioa modu berean bilatzen denik. Izan ere, kultura ezezagutzaren eremurik behinena da: estrategiek baldintzetara doitzeko joera dute eta, beraz, aplikazio produktiboen zentzua bermatuz etekin batzuk ziurtatzen dira, baina etekinak propio bilatu gabe. Horrela, bada, kulturaz gehien baliatzen direnak desinteresatu bezala ikusiak dira eta beraiek ere beren buruak hala ikusten dituzte. Beraz, Bourdieuren ikuspegitik, *inbertsio* kontzeptua kapital ekonomikoan bezain baliagarria da kapital kulturalan. Bourdieuk *inbertsio* kontzeptua bi zentzutari ulertzea proposatzen du: batetik, zerbaiten alde apostu egitea etekina lortzeko (ekonomian, kultural eta abar), eta, bestetik, jokoan jokatzeko joko arauetan sinistea (kultur kapitalaren kasuan, adibidez, besteak beste beren inbertsioak desinteresatuak direla sinistea joko arauak errespetatzea litzateke).<sup>65</sup>

Kapital kulturalak hiru forma har ditzake<sup>66</sup>:

### 2.1.2.1 Barneratutako kapital kulturala

Barneratutako kapital kulturala<sup>67</sup> gorputzari atxikirik dago. Barneratze prozesu baten ondorioa da. Pilaketa honek denbora behar du. Kapital kultural barneratua ezin dio batek besteari utzi. Nork berea landu beharra dauka, horretarako denbora hartuta, sozialki erakundetutako borondatea inbertituz, beste aukera batzuk sakrifikatuz. Barneratutako kapitala habitus bihurtzen da. Edukitzetik izana sortzen da.

Lehenengo edukien transmisioak arrasto sakonak uzten ditu. Hizkera adibide garbia da. Hala ere, oro har, barneratutako kapital kulturalaren transmisioa eta harrera ez dira hautematen errazak eta, beraz, jatorria jaiotzean bertan balute bezala hartzen dira. Gaitasun legitimoa bezala agertzen da. Merkatu guztietan erakutsi beharrekoa kapitala da eta honi esker kapital sinboliko bihurtzen da, etorkizunean etekin ekonomikoak eta sinbolikoak eman ditzan baldin eta barneratutako kapital kultural zehatz bat espazio sozial horretan eskasa bada eta balioa aitortzen bazaio.

<sup>63</sup> Bourdieu, 2000c, 136-138 or.

<sup>64</sup> Bourdieu, 2000c, 139-143 or.

<sup>65</sup> Bourdieu, 1999b, 84-85 or.

<sup>66</sup> Bourdieu, 2000c, 136 or.

<sup>67</sup> Bourdieu, 2000c, 139-143 or.

### 2.1.2.2 Kapital kultural objektibatua

Kapital kultural objektibatua<sup>68</sup> da kapital kulturalaren transmisiorako euskarri fisikoa: liburuak, koadroak, makinak, eta abar. Objektu horiek erosteko kapital ekonomikoa behar den arren, erabiltzeko derrigorrezkoa da kapital kulturala, norberarena nahiz beste norbaitek lagunduta. Kapital kultural objektibatuak ez die arau indibidualei erantzuten ia, historiaren produktu baitira. Hizkuntza adibide argia da.

### 2.1.2.3 Kapital kultural erakundetua

Kapital kultural erakundetua<sup>69</sup> ez da egoera biologikoaren araberkoa, kapital kultural barneratua den bezala. Kapital kultural erakundetua akademikoki onartzen da. Agiri ofizialen bidez legalki bermatzen da. Eramailerekin independentea ez ezik agenteak une horretan daukan kapital kulturalarekin independentea ere bada.

Titulu akademikoen merkatuan dagoen titulu zehatz baten eskasiaren edo ugaritasunaren arabera irabazten edo galtzen du balioa titulu batek. Batzuetan, denbora eta diru inbertsioak ez du aurrez suposatutako etekinik eragiten, merkatua aldatu egin delako edo merkatua ondo ezagutzen ez delako.

Kapital kultural barneratua gehienbat era ikusezinean eta besteentzat izkutuan transmititzen denez, gaur egungo gure espazio sozialetan kapital horri etekina atera ahal izateko gero eta beharrezkoagoa da barneratutako kapital kulturala kapital kultural erakundetu bihurtzea.<sup>70</sup>

## 2.1.3 Kapital soziala

Farr-ek<sup>71</sup> *kapital soziala* kontzeptuaren historia ikertzen duenean, Putnam-en izena nabarmentzen du. Farr-en arabera, Putnamen-tzat kapital soziala elkarte, jarduera eta harremanen sarea da, arau eta gaitasun psikologikoen bitartez jendea elkartu eta erkidego bihurtzen ditu, gainerako kapitalak bezain ezinbestekoa delarik gizarte zibilarentzat eta etorkizuneko ekoizpen kolektiborako. Farr-ek beste hainbat izen ere funtsezkotzat ditu kapital soziala deitzen duenaren historian: Hanifan, Dewey, Bellamy eta XIX. mendeko hainbat ekonomialari politiko aipatzen ditu. Nolanahi ere, Farr-ek dio agian hobe dela kapital soziala izeneko ez kapital bezala hartzea.

Portes-ek<sup>72</sup>, berriz, bi joera bereizten ditu *kapital soziala* kontzeptuaren erabileran: batetik, Bourdieu-rena eta, bestetik, Coleman-ena. Baina, Portesen arabera, bi joerek uste dute norbanakoek edo familiek etekinak lortzen dituztela besteekiko loturen bitartez. Portesen arabera, Bourdieuk izaera instrumentala nabarmentzen du, harremanek etorkizunean izan ditzaketen etekinei begira eraikitzen dituztela adieraziz. Colemanek, aldiz, hasieran kontrol iturritzat aztertu

<sup>68</sup> Bourdieu, 2000c, 144-146 or.

<sup>69</sup> Bourdieu, 2000c, 146-148 or.

<sup>70</sup> Bourdieu, 2000c, 162 or.

<sup>71</sup> Farr, 2004.

<sup>72</sup> Portes, 2000.

zitzen, Portesen arabera, baina ondoren *oinarrizko lotura sozialaren* higaduraz arduratuta, erkidegoaren loturen defentsa sutsua egiten du. Portesek dioenez, Colemanentzat lotura sozialak garrantzitsuak dira, norbanakoei mesede egiten dietelako. Joera hau jarraitu dutenek kapital soziala erkidegoaren ezaugarritzat hartu dute. Portesek dioenez, Putnamek, adibidez, erkidegoek edo nazioek daukaten kapital sozialari buruz hitz egiten du, *stock* bat bailitzan, baita honek garapenean dauzka egiturazko eraginari buruz ere. Aitzitik, Portesek zalantzan jartzen du kapital soziala kontzeptuaren erabilgarritasun zientifikoa, zeren bere eragina hutsala izan baitaiteke edo bestelako azalpen teorikoek hobeto erakuts dezaketelako aztergai den fenomeno. Esate baterako, etorkinen seme-alaben emaitza akademikoak neurtzerakoan, Portesek ez du uste kapital soziala kontzeptuaren beharra dagoenik, ikerketa zehatz horretan nahikoa baiteritzo kontuan hartzea familiaren estatus soziala eta ekonomikoa, haurren trebezia ingeles hizkuntzarekin eta bertan bizitzen daramaten denbora. Prozesu hauek ikertzerakoan zorrotasuna funtsezkoa da, Portesen arabera, zeren bestela kapital soziala erkidegoarekiko miresmen huts bihur baitaiteke.

Bourdieu<sup>73</sup>, ordea, *kapital soziala* kontzeptuaren alde egiten du. Kapital soziala ere funtsezko baliabidea da gure mundu sozialean, Bourdieuren iritziz. Agenteak beste agente batzuekiko kidezari esker lortzen ditu kapital sozialaren baliabideak. Horretarako, agenteak nolabaiteko talde baten kide izan beharra dauka: elkar ezagutza eta elkar onarpen harreman-sare iraunkor batean egoteari esker, agenteak zenbait baliabide eskura ditzake, potentzialki nahiz modu gauzatuan. Baliabide horiek osatzen dute kapital soziala. Hortaz, agenteen arteko harremana da kapital sozialaren funtsa. Harreman hori elkartruke sinboliko edo materialean eta harreman horren mantentze lanetan oinarritzen da. Harreman horretan sareko kide guztiek ez dute kapital bolumen eta mota berdina izan beharrik (adibidez, nagusiaren eta bere enpleguaren arteko harremanean), baina taldeko kide indibidualek orotara daukaten kapitala baliagarria izan daiteke beste kide guztientzat ere. Beraz, azken batean agente baten kapital soziala bi faktoreren arabera izango da: batetik, praktikan mugiaraz ditzakeen lotura-sareen hedapenaren arabera eta, bestetik, harremanetan dauden agenteek edo taldeek daukaten kapital bolumenaren eta motaren arabera.

### 2.1.3.1 Beste kapitalen errendimendua areagotzeko gako bat

Kapital soziala funtsezkoa da agenteak dauzkan beste kapitalen etekinak areagotzeko. Kapital sozialaren garrantzia argi ikusten da, adibidez, honako kasu honetan: demagun bi agentek kapital ekonomiko eta kultural parekoa dutela baina haietako batek kapital sozial handiagoa daukala eta kapital sozialari atxikitako baliabideak mugiaraziz bere kapital ekonomiko eta kulturalari etekin handiagoa ateratzen diola (esate baterako etxebizitza merkeago baina hobeago bat erosten eta enplegu hobeago bat lortzen). Dena den, kapital sozialak beste kapitalen potentzialtasuna areagotzeko balio badu ere, Bourdieuren arabera, kapital soziala ez da beste kapitalekiko independentea; beste kapitalen jabetza handiak lagundu egiten dio agenteari edo taldeari kapital sozialaren bolumena areagotzen.<sup>74</sup>

---

<sup>73</sup> Bourdieu, 2000c, 148-156 or.

<sup>74</sup> Idem.

### 2.1.3.2 Inbertsio etengabeak

Harreman sare baten existentzia ez da inoiz betidanikoa. Ezta behin-betikoa ere. Harreman sareak erakundetze ahalegin etengabe baten produktua dira. Erakundetze errituak ezinbestekoak dira lotura erabilgarri eta iraunkorrak ekoizteko eta berrekoizteko, etekin sinboliko eta materialetarako bide bezala. Inbertsio estrategiak dira, etekinera bideratuak, baina beti ere elkarrekiko onarpenean oinarritzen dira. Beraz, Bourdieuk *inbertsio* kontzeptua ere badarabil kapital sozialarekin: denbora eta energia xahutzen dira kapital soziala lortu asmoz, etekinak ematen dituen inbertsio produktiboaren ikuspegitik. Parekotasun horren bitartez lotzen ditu Bourdieuk kapital soziala eta kapital ekonomikoa<sup>75</sup>.

Kapital sozialean inbertsioak ez dira soilik nor bere buruarentzat egiten. Agente edo talde batek beste agente edo talde batentzat ere egin ditzake inbertsioak. Esate baterako, familiak seme-alaben ezkontza eta lagunak erabakitzen dituen errealitate sozialetan, familiak bere erabakiak inbertsio sozial bezala bizi ditu. Familiak hain argi agintzen ez duen errealitate sozialetan, ordea, teknika sotilagoak baliatzen dira: bizilekua aukeratu, ikastetxea, kirol mota, aisialdiko jarduerak, eta abar. Jakina, kapital sozialaren izaera ezagututa, ezin da ahaztu inbertsio orok trukean zerbait jasotzea espero duela, nahiz eta trukean jasotzea espero den hori mota askotako etekina izan daitekeen.<sup>76</sup>

### 2.1.4 Kapital sinbolikoa

Edozein motatako kapitalak legitimotzat hauteman eta onartzen direnean, kapital hauek kapital sinbolikoaren forma hartzen dute, Bourdieuren ikuspegitik.<sup>77</sup> Botere sinbolikoa ikusezina da, baina eragin oso handia dauka. Botere sinbolikoa gauzatu ahal izateko ezinbestekoa da dominatuen konplizitatea: beren buruak ez dituzte dominatu bezala ikusi behar. Horrez gain, dominatzaileek beren posizioa pribilejiatua dela ez ikustea baliagarria da.<sup>78</sup>

#### 2.1.4.1 Egia, gatazka sozialen produktu

Egia badago, borroka sozialen emaitza da. Hori da Bourdieuren ikuspegia. Ezagutza oro, eta bereziki mundu sozialari buruzkoa, eraikuntza lanaren produktua da. Mundu sozialari buruzko ezagutza tresnak indar harremanen emaitza dira eta, halaber, mundu sozialean eragiteko botere tresna dira. Horrexegatik, errealitatearen interpretazio publikoa egiteko beti dago lehia agente nahiz talde sozialen artean. Gatazka da, beraz, esparru sinbolikoaren ezaugarri behinena. Talde sozialek esparru sinbolikoan elkarren aurka borrokatzen dute. Bakoitzak bere interesei egokitzen zaizkien definizioak ekoizteko joera dauka<sup>79</sup> eta bakoitza bere egia horiek besteengan ezartzen saiatzen da normalean.<sup>80</sup> Batetik, bakoitzak bere buruari buruz egiten duen errepresentazio

---

<sup>75</sup> Idem.

<sup>76</sup> Idem.

<sup>77</sup> Bourdieu, 2000c, 106 or.

<sup>78</sup> Bourdieu, 2000c, 88 or.

<sup>79</sup> Bourdieu, 2000c, 94 or.

<sup>80</sup> Bourdieu, 1997, 84 or.

subjektiboa, objektiboa balitz bezala inposatzeko ahalegina egiten du egunerokotasunean<sup>81</sup>. Bestetik, mundua ikusteko era bat ezartzen ere saiatzen da: munduan modu zehatz batean jokatzeko testuinguruak sortzeko ahaleginak dira.<sup>82</sup>

Bourdieuren iritziz, borroka politikoa (*politika* kontzeptuaren adierarik zabalenean) borroka kognitiboa da, praktikoa nahiz teorikoa. Borroka sinbolikoetan agente edo talde batek mundu sozialari buruzko bere ikuspegia legitimotzat ezartzen duen heinean, ospe eta onarpen bezala pilatutako kapital sinbolikoaren aitortpena irabaziko du.<sup>83</sup>

Hala ere, boterearen esparrua (ez nahastu esparru hertsiki politikoarekin, botere harremanak eremu sozial guztietan baitaude) ez da besteak bezalakoa. Kapital kopuru eta mota ezberdinak dauzkaten agenteen arteko indar harremanak dira, beti ere baldin eta agente hauek eremu bakoitzean indar harremanetan sartzeko gutxieneko kapitala badaukate. Agente hauen arteko gatazkak areagotu egiten dira kapital mota bakoitzaren balioa zalantzan jartzen den bakoitzean; hau da, eremuaren baitan ezarritako oreka kolokan dagoenean eta, bereziki berrekoizpenaz arduratzen diren erakunde sozialen baitan oreka zalantzan jartzen denean.<sup>84</sup>

#### 2.1.4.2 Kodifikazioa

Botere sinbolikoak arauak eraikitzeke ahalmena dauka. Araua, kodifikatutako errealitatea da. Kodifikazioaren bidez forma ezartzen da. Kodifikatzea mugak ezartzea da. Lausoa ezabatu egiten da. Kodifikatzean, mundu sozialak gardenagoa dirudi. Mundu sozialaren informazio uholdea galbahetik pasa eta mundu soziala sinpleagoa bihurtzen baita. Arrazionalizazio ahalegina (*arrazionalizazioa* egiarekin batera loturarik ez duen prozesua bezala ulertuta) botere harremanen testuinguruan ulertu beharra dago. Arrazionalizazioak eraginkortasun interesatua du helburu. Hots, posizio batzuen aldeko eraginkortasuna. Kodifikatzeak formaren eraginkortasun sinbolikoa dauka: formak jartzea, ekintza edo diskurtso bati egokia edo legitimoa den forma ematea da, ez hala delako baizik eta hala balitz bezala ezartzeko gaitasuna dagoelako. Forma legitimotzat inposatzea lortuz gero, indar inposatzailea izkutatu eta botere sinbolikoak ahalbidetzen du indar inposatzailea erabat gauza dadin, formak ezartzen dituen baldintzetan, haien sortzaile den heinean.<sup>85</sup>

Mundu sinboliko batean sinistek ahalbidetzen du hitzen boterea. Hitzek ez lukete baliorik izango baldin eta haien oinarrian mundu sinboliko bat ez balego. Botere sinbolikoa ezinbestekoa da aginduak emateko, hitzen hurrenkera mantentzeko edo iraultzeko. Soilik sinismen sinbolikoaren bitartez onartzen da hitzen legitimitatea eta hitz hauek ahoskatzen dituztenen legitimitatea.<sup>86</sup> Hitzak botere harremanen sarean sortzen dira eta botere iturri dira. Ikusarazi, sinistarazi, ekinarazi egiten dute. Konplizitatea da gakoa: bozeramailearen kasuan, adibidez, gorputz soziala gorputz biologiko batean hezurramitzen da, hitz egiteko baimena hari emanez, besteek entzun, ulertu eta

---

<sup>81</sup> Bourdieu, 2000a, 93.

<sup>82</sup> Bourdieu, 2004, 178-179 or.

<sup>83</sup> Bourdieu, 1999c, 244 or.

<sup>84</sup> Bourdieu, 1997, 50 or.

<sup>85</sup> Bourdieu, 1996, 84-85 or.

<sup>86</sup> Bourdieu, 2000c, 98-99 or.

erantzuten duten bitartean.<sup>87</sup> Hitzaz hartzeko joera zuzenki proportzionala da hitz egiteko eskubidearen sentimenduarekiko eta sentimendu hau botere sinbolikoan oinarritzen da.<sup>88</sup>

Hau guztia dela eta, izendatze ekintzak indar harremanen prozesuan analizatzea komeni da. Ezin da ahaztu izena eta izana bi gauza ezberdin direla. Hitzen hurrenkerak, edozein delarik ere, ez du sekula gauzen hurrenkera estuki islatzen. Batzuetan urrutitik ere ez. Izena beti izango da izanari begiratzeko ikuspegi bat. Errealitate soziala informazio uholde bat da eta izenak derrigorrez zerikusia dauka behatzailearekin. Hortaz, izenaren eta izanaren artean sortzen den tartearaz baliatzen dira estrategia sinboliko oro, zeren izenaren eta izanaren arteko desorekak ustiatzen saiatzen baitira; beren interesen alde egitearren, agenteak nahiz taldeak hitzen gaineko boterea eskuratzen saiatzen dira. Izan ere, batetik, guztiek ez dute zerbaiti izena jartzeko ahalmena, eta bestetik, izena jartzeak (botere sinbolikoaren erakusgarri den heinean) eragina dauka izanarengan. Beraz, Egia neurtzeko egiazkotasuna baino bere pisu soziala hartu behar da kontuan.<sup>89</sup>

#### 2.1.4.3 Beste kapitalen meneko baina haien eragile

Kapital sinbolikoa aztertzerakoan, Bourdieuren aburuz, analisi materialista edo izpiritualista soila ez da egokia.<sup>90</sup> Botere sinbolikoa beste kapitalekin harremanetan dago. Bourdieuren ikuspegitik, harreman hau oso konplexua da. Ezin da mekanismo soil bezala aztertu. Bourdieuren iritziz, batetik, kapital sinbolikoa beste kapitaletan oinarritzen da. Izan ere, botere sinbolikoa beste botereen itzulpen bat ere bada. Prozesu honetan forma eraldatzen zaio eta sarri ezagutezina bihurtzen da. Halaber, beste kapitaletatik abiatzen den itzulpen prozesu honetan botere sinbolikoa legitimitatea lortzen saiatzen da. Baina aldi berean, beste kapitalen meneko izateari utzi gabe, kapital sinbolikoa beste kapitalekiko botere dominatzaile ere bihurtzen da. Botere legitimatua bihurtzen denez, eraldaketa honek ahalbidetzen du botere sinbolikoak beste kapitalen banaketan eragin handia izatea. Horrela, subordinatua zen botere mota hau aldi berean botere dominatzaile bilakatzen da. Meneko botere soil izateari uzten dio. Bourdieuren ikuspegitik, beraz, fenomeno sozialen azterketan funtsezkoa da analizatzea beste botereak nola bihurtzen diren botere sinboliko. Halaber, Bourdieuren iritziz beharrezkoa da transfigurazio lana aztertzea: botere sinbolikoaren hastapenetako oinarria lausotzen edo, areago, izkututzen denean, prozesu honetan gertatzen den transfigurazio edo eufemizazio lana. Fenomeno honek ahalbidetzen du ez ikusi ahal izatea botere sinbolikoak bere oinarrian daukan bortxa. Posizio sozialen arteko indar harremanetan oinarritutako bortxa. Eufemizazio prozesuan, objektiboki oinarrian dagoen bortxa botere sinboliko bihurtu daiteke eta horrela botere sinbolikoak eragin errealak sorraraz ditzake. Indar harremanetatik botere sinbolikoa eratortzen denean, dominazioa gauzatzeko ez dago hainbeste energia xahutu beharrik, zeren botere legitimitatuek askoz aisago aplikatzen baitituzte beren aginpideak.<sup>91</sup>

Adibidez, demagun kapital kultural eta ekonomiko gehien daukatenean eremu batean lanpostuen balioen hierarkia bat ezartzea lortzen dutela. Hierarkia hori ezartzeko irizpideak onartzen badira,

<sup>87</sup> Bourdieu, 2004, 211 or.

<sup>88</sup> Bourdieu, 1999b, 420 or.

<sup>89</sup> Bourdieu, 1999b, 491 or.

<sup>90</sup> Bourdieu, 2000b, 49-51 or.

<sup>91</sup> Bourdieu, 2000c, 98-99 or.

hurrengo pausoa izan daiteke, esate baterako, soldatak hierarkiaren arabera banatzea. Lanpostu bakoitzaren soldataren zenbatekoa makina bat irizpideren arabera erabaki daiteke (besteak beste zailtasun intelektuala, prestakuntza akademikoa, ardura, estresa, lan orduak, arriskua, eragin kaltegarriak, lanaren deserosotasuna, ordutegiaren izaera, eta abar) baina talde batek bere interesak inposatzea lortzen badu, bere lanpostuak izango dira ondoen baloratuak (horretarako irizpide aproposak ezarriko dira) eta botere sinboliko horrek ahalbidetuko die bestelako kapital batzuetan etekin handiagoak erdiestea. Hori egin ahal izateko botere sinboliko nahikoa badaukate, ez dute aldiro ahalegin berezirik egin beharko esate baterako kapital ekonomikoaren banaketa asimetrikoa zuritzeko.

#### 2.1.4.4 Galtzailearen lekuan

Sistema batzuen funtzionamenduan gehienbat sinismenean oinarritzen da, eta beste askoren kasuan hala ez bada ere, ez dago sistemarik (ezta ekonomia bera ere) bere funtzionamenduaren zati esanguratsu bat sinismenari zor ez dionik.<sup>92</sup> Botere sinbolikoa, beraz, funtsezkoa da indar harremanetan. Dominatzailearen lehentasunetako bat botere sinbolikoa eskuratzea da. Hala ere, egoera hierarkizatu orotan nola edo hala dominatuek gutxieneko legitimotasuna aitortzen diote egoera hierarkizatuari<sup>93</sup>. Gutxien-gutxienik une horretan egoera zehatz bat inposatzeko gaitasuna aitortzen zaio. Dena den, legitimotasunaren intentsitatearen arabera, indar harremana aldatzeko aukera handiagoak edo txikiagoak izango dira. Legitimotasuna txikitu ahala handitzen dira aldaketarako aukerak.

Baina badaude galtzaile izan eta galtzaile izaten jarraitzeko hamaika modu seguru. Bourdieuk horietako zenbait aipatzen ditu:

- a) Talde dominatuek inkompetentzia, porrota eta ez-duintasun kulturalaren sentimendua izateko aukera handiagoak daukate. Hala denean, balio dominatzaileekiko aitortza sortzen da. Talde dominatzaileak imitatu nahi izaten dituzte kasu horietan; ahal dutenean, berdina eginez, eta ezin dutenean, suzedaneoren batekin ordezkatzuz.<sup>94</sup>
- b) Indiferentzia ere ez da jarrera neutra. Bourdieuren iritziz, inpotenziaren isla baino ez da. Indiferentzia, beraz, porrotaren beste aurpegi bat da.<sup>95</sup>
- c) Paradoxikoki, jarrera kritiko bat ere kritikatzeko denaren indar legitimatzaile bihurtu daiteke. Talde batzuek talde dominatzaileen ideiak eta balioak erabiltzen dituzte beren kexen oinarritzat. Irizpide horiei jarraiki salatzen dute beraiek ez daudela beren ustez dagokien posizioan. Horrela, ustez ikuspegi kritikoa den batek talde dominatzailearen balioak onartzen ditu.<sup>96</sup>

---

<sup>92</sup> Bourdieu, 1996, 34 or.

<sup>93</sup> Bourdieu, 1999b, 397 or.

<sup>94</sup> Bourdieu, 1999b, 393 or.

<sup>95</sup> Bourdieu, 1999b, 413 or.

<sup>96</sup> Bourdieu, 1999b, 467 or.



d) Porrot guztietan handiena borroka sinbolikoan erabat garaitua izatea eta inork inolako errekonozimendurik ez aitortzea da. Azken finean kapital sinbolikoagatik borroken oinarria ez dira soilik nork bere buruarekiko daukan irudia eta nork bere burua besteei aurkezteko modua. Kapital sinbolikoa harremanean oinarritzen da eta, beraz, botere sinbolikoa nahi dutenen lehentasuna bestearen aitortzea da. Hain zuzen botere hori bera eskuratzeagatik borrokatzen duten arerioen aitortzea. Izan ere, botere sinbolikoa besteekiko boterea baita. Botere sinbolikoak bere existentzia besteei zor die. Oinarrian besteen ikusteko modua, hautemateko era eta ebaluazioa dago.<sup>97</sup>

e) Borrokarik gabeko porrotak maiz gertatzen dira (ez gatazkarik gabekoak, zeren gatazka egon, beti baitago, nahiz eta usu oso izkutuan mantentzen den). Kapital sinbolikoa eskuratzeko ageriko gatazka ez da beti handia izaten. Batzuetan gatazkarik ez dagoela ematen du. Espazio sozial batean borroka sinbolikoa oso txikia bada, Bourdieuren ustez horrek esan nahi du errealitate sozial horren erakundetze maila oso handia balitz bezala ikusten dela eta agente nahiz talde sozialen ikuspegitik mailaketa horrek sendotasun ustez gaindiezina duela.<sup>98</sup>

## 2.2 Kapitalaren bolumenaren eta egituraren ibilbidea

Kapitalak analizatzeko Bourdieuren iritziz ez da nahikoa kapitalaren bolumena eta kapitalaren egitura (kapital motak) aztertzea. Bourdieuk hiru ardatz proposatzen ditu: kapitalaren bolumena, kapitalaren egitura eta, horiez gain, kapitalaren bolumenak eta egiturak denboran zehar izan duten ibilbidea. Agente baten kapitala aztertzerakoan Bourdieuk ez du kontuan hartzen soilik unean uneko kapitala. Beharrezkoa da, bere ikuspegitik, ibilbide osoan zehar egindakoa aintzat hartzea. Jatorrizko kapitala (kopurua nahiz egitura) eta azterketa egiten den uneko kapitala oso ezberdinak izan daitezke. Azken finean, beraz, hiru dimentsiotako espazio soziala proposatzen du Bourdieuk.<sup>99</sup>

### 2.2.1 Ibilbidearen efektua

Agente bakoitzaren kapitaletik eratorritako inertzien eta eremu bakoitzaren mugimenduen tira-biran, habitus bakoitzari gutxi-gorabeherako ibilbide ekiprobableak dagozkie. Helmuga guztiak ez dira inondik inora probabilitate berdinekoak abiapuntu guztientzat. Izan ere, Bourdieuren ikuspegitik, agenteen posizio sozialen eta disposizioen arteko korrelazioa handia da. Bestalde, ibilbide batetik bestera pasatzea gertaera kolektiboekin (gerra, krisi, eta abar) eta indibidualekin (aukera puntualak, lagunak, babesak, eta abar) lotuta dago eta normalean kasualitate bezala deskribatzen da (zorioneko nahiz zorritzarreko kasualitate bezala), baina Bourdieuren ikuspegitik gertaera horiek estatistikoki indibiduoaren posizio eta disposizioekin lotura daukate. Hots, agente guztiek ez daukate aukera berdinak.<sup>100</sup>

---

<sup>97</sup> Bourdieu, 1999c, 218 or.

<sup>98</sup> Bourdieu, 1991, 232 or.

<sup>99</sup> Bourdieu, 1999b, 108 or.

<sup>100</sup> Bourdieu, 1999b, 108 or.

Hala ere, Bourdieuren arabera, analizatu egin behar dira agenteek eta kolektiboek denboran zehar espazio sozialean izan dituzten posizioak. Habitus bakoitzari zenbait ibilbide ekuipable dagozkion arren, makina bat faktorek daukate eragina ibilbideengan eta, beraz, ibilbidean zehar gora-behera handiak izan daitezke. *Ibilbidearen efektua* izenekoa Bourdieuren ikuspegitik funtsezkoa da azaltzeko, adibidez, abiapuntu bera duten bi agente nola irits daitezkeen helmuga ezberdinetara. Ibilbide efektuak ere argitu dezake, Bourdieuren arabera, nola posizio sozial berean dauden bi agentek habitus ezberdinak dauzkaten, posizio horretara arte iritsi arteko ibilbide ezberdinak izan dituztelako<sup>101</sup>. Ibilbidearen efektua indibiduala edo kolektiboa izan daiteke, eta analisia oraindik gehiago zaildu daiteke baldin eta banako baten ibilbidea bere taldea erreferentziatuz hartuz eta hari kontra eginez gauzatua bada. Gainera, ibilbideak ezin dira azaldu faktore bakar batzuk kontuan hartuz. Askoz konplexuagoa da: eremu eremuko analisia egin behar da baina ez isolatuki baizik eta elkarrekiko eta orokortasunarekiko loturak kontuan hartuz; eremu bakoitzean agentea zenbat kapital mugiarazteko gai den aztertu behar da, nola eraldatzen den kapital bolumen orokorra eremu bakoitzean.<sup>102</sup>

### 2.2.2 Kapitalen eraldaketak

Agente nahiz taldeen ibilbidean zehar nor bere posizio sozialean mantentzeko edo posizio pribilegiatu baterantz mugitzeko makina bat estrategia erabil daitezke. Bourdieuren aburuz, horiek aztertzea funtsezkoa da egitura sozialen aldaketa garrantzitsuenak analizatzeko.<sup>103</sup> Estrategia horien artean kapitalen eraldaketa azpimarratzen du Bourdieuk.

Kapital mota bat beste kapital mota batean bihurtzen duen fenomenoari deitzen dio Bourdieuk kapital eraldaketa. Berrekoizpen estrategiaren helburua posizio soziala mantentzea da eta horretarako sarri kapital mota bat ahalik eta koste txikienarekin beste kapital mota batean eraldatzeko inbertsioak egiten dira. Kapital eraldaketetan ez da kapitala galtzen. Kapitala izaeraz aldatzen da. Eraldaketaren helburua kapitalaren bolumena oro har ez galtzea da. Energia sekula galtzen ez den bezala, beti eraldatu egiten baita, Bourdieuk energia soziala mantentzearen printzipioa deitzen dio honi.<sup>104</sup> Beraz, kapitalen eraldaketa dagoenean, kapital batean irabazi ahala uzten zaio beste kapital batean irabazteari. Kapital bakoitzean inbertitutako denbora eta energia kontuan hartuz gero, kapital batean inbertitzen dena ez da beste batean inbertitzen. Hala ere, ikuspegi honen arabera, honek ez du esan nahi kapital batean irabazteak derrigorrez beste kapital motei galera ekarriko dienik etorkizunera begira; izan daiteke kapital eraldaketari esker aurrez kapitala galdu zuen kapital horretan etorkizunean kapitala irabaztea.

Kapital eraldaketak (mugikortasun soziala deiturikoa) bi eratakoa izan daiteke<sup>105</sup>:

- a) mugimendu bertikala: bolumen aldaketa, gora nahiz behera.

<sup>101</sup> Bourdieu, 1999b, 466 or.

<sup>102</sup> Bourdieu, 1999b, 109-113 or.

<sup>103</sup> Bourdieu, 1999b, 147-148 or.

<sup>104</sup> Bourdieu, 2000c, 157-164 or.

<sup>105</sup> Bourdieu, 1999b, 128 or.

b) mugimendu transbertsala: eremu batetik bestera igarotzea eta, beraz, kapital errekonbertsioa, eraldaketa, edo azpikapital batetik besterakoa. Ondasun egituraren eraldaketaren bitartez mantendu nahi izaten da kapital bolumena eta espazio sozialeko dimentsio bertikaleko posizioa.

Eraldaketen eraginkortasuna neurtzeko zailtasunak handiak dira analistarentzat. Zailtasun horren funtsean konpetentzien balioa neurtzeko zailtasuna dago: konpetentzia horien balioa neurtzeko borroka, gatazka sozialen baitan dago.<sup>106</sup>

## 2.3 Kapitalaren transmisioa eta erreprodukzioa

Indar harreman asimetrikoak denboran zehar iraun dezan Bourdieuren iritziz funtsezkoa da agente nahiz talde bakoitzak bere ondorengoei behar adina kapital transmititzea. Kapitalen transmisioa une kritikoa da<sup>107</sup>. Transmisioaren eraginkortasunaren baitan dago agente bakoitzaren ondorengoek posizio soziala mantentzea edo ez. Transmisioa bermatzen bada, espazio sozialeko indar harremanen erreprodukzioa gauzatuko da.

Hainbat erakunde sozialek xaxatuta, ondorengoek hainbat kapitaletan inbertituko dute. Inbertsioak egiteko ikuspegia ez da hutsetik sortzen. Inguruko erakunde sozialek sustatuko dute alde batera edo bestera joan dadin. Hortaz, erakunde sozialen eragina oso garrantzitsua da zeren agenteen inbertsio hauek funtsezkoak izango baitira erreprodukzioaren estrategian. Non inbertitu erabakitzeke, agenteek kontuan hartuko dituzte beren aukerak konpetentzia zehatzak pilatzeko, gauzatzeko eta haiei balioa emateko. Inbertsioak, beraz, konpetentzia horiei aurreikusten dizkieten etekinen arabera egingo dituzte. Konpetentzia batean inbertsio gehiago egiteko bultzada eraginkorrena, konpetentzia horretan ordura arte egindako inbertsioen bidez etekinak eskuratzea da.<sup>108</sup>

### 2.3.1 Familia, erreprodukzioarako funtsezko gunea

Fernández Palomares-en<sup>109</sup> arabera, lau dira agente sozializatzaile nagusienak: familia, hedabideak, eskola eta adinkideak. Baina Bourdieuren iritziz erreprodukzioa bermatzeko joera duen funtsezko erakunde soziala familia da.

Familiak gorputz bakar bezala funtzionatzeko joera dute. Bourdieuren arabera, *corporate bodies* delakoak balira bezala jokatzen dute. Familiaren baitan kasu ohikoena da gurasoek seme-alabei beren kapitala transmititzeko joera izatea. Beren posizio soziala betierekotzeko borondatearen bitartez erreprodukzio estrategiak abiarazteko joera dute bizitza sozialaren esparru orotan. Helburu horrekin egiten dituzte diru, denbora edota energia inbertsioak egitasmo zehatzetan.<sup>110</sup>

<sup>106</sup> Bourdieu, 1999b, 91 or.

<sup>107</sup> Bourdieu, 2000c, 163 or.

<sup>108</sup> Bourdieu, 1999b, 84-85 or.

<sup>109</sup> Fernández Palomares, 2003.

<sup>110</sup> Bourdieu, 1997, 33 or.

Cardenal-ek<sup>111</sup> dioenez ere familia agente erabakiorra da espektatiba sozialak osatzeko. Halaber, kontsumoaren eremua eta irabazien banaketarako gunea ere bada. Horrez gain, familia lan mundura sartzeko sare sozialak ahalbidetzen dituen oinarizko baliabidea da.

Familiaren baitako erreproduktzioarako joeran hizkuntza euskarri erabakiorra da. Marazzi-ren<sup>112</sup> arabera, hizkuntza da transmisiorako oinarria. Edukia eta forma transmititzen ditu baina aldi berean mugak ezartzen dizkio bizitzari, mundua ikusteko bere era inposatzen baitu, mundua hizkuntzaren galbahetik igarotzen baita. Hautzaroan hizkuntzaren ikaskuntza bortxa moduko bat da, behartu egiten baitu haurra hitzen bitartez azaldu ezin ditzakeen bizipenak isiltaraztera, esperientziarekin ados ez dauden edukiak adieraztera, norberarenak ez diren asmoak edukitzera. Hizkuntzak ematen dio aukera norbanakoari Historian sartzeko baina aldi berean hizkuntza galbahe bat da eta berarengandik ezin da iragan norbanako guztien esperientzia guztia. Hizkuntza izatez da diziplinatzailea, bizitzari mugak jartzen dizkiolako. Bizitza modu askotara irakur liteke eta hizkuntzak modu zehatz batzuk ezartzen ditu. Bourdieuren terminoetan esango genuke hizkuntza, kapitala transmititzeko euskarria dela baina mundua ikusteko eta munduan mugitzeko aukerak mugatu egiten dituela; hau da, hizkuntza baliabidea eta muga dela aldi berean.

Nolanahi ere, familien erabakiak ez dira kausa-erantzukizunaren prozesu determinatuak, Bourdieuren arabera. Ez dira erabat arrazionalki eta faktore guztien jakitun hartzen diren erabakiak. Ez dira mundu sozialeko indarrekiko osoki menpe hartzen. Agenteak neurri batean ekintzaileak eta kontzienteak dira. Zentzu praktikoa dute; hots, makina bat gaitasunen jabe dira: lehentasunak dauzkate, ikuspegiak zehazteko eta hautemandakoa ezberdintzeko irizpideak dauzkate, ezagutzarako egitura egonkorrez eta ekintzarako eskemaz hornituta daude. Horiek guztiek ahalbidetzen eta orientatzen dute egoeraren ulermena. Haiei esker ematen zaio egoera bakoitzari erantzun egokitu bat (ez egokia derrigorrez, egokitua baizik, egoeraren arabera alegia). Habitua da horretarako oinarria: zentzu praktikoa gisako zerbait da. Une bakoitzean zer egin erabakitzen laguntzen du.<sup>113</sup>

Psikologiaren eremuko hainbat ekarpenen arabera<sup>114</sup>, ez dago zalantzarik gurasoen seme-alaben autokontzeptuaren osaketan eta garapenean duten eraginaz, baina ikerketen emaitzei dagokienez eztabaida handia dago. Nolanahi dela, aldagai nabarmenenak honakoak dira: gurasoen onarpen, interes eta afektibitate maila, gurasoen autoestima, autoritarismoa edo autoritatea gabezia, seme-alabek autonomia garatzeko aukera, hitzezko azalpen ugartasunak edo urritasuna. Baina familiaren eraginaz gain kontuan hartu behar dira norbanakoen parekoak diren gainerako hurbileko norbanakoak eta bestelako autoritateak (irakasleak, besteak beste).

### 2.3.2 Transmisiorako gaitasun ezberdinak

Bourdieu-ren arabera, familia guztiek ez dute beren egoera beren ondorengoengan erreproduzitzeko gaitasun berdina. Erreproduktzioa da pribilejiorik handienetakoa. Bakoitzak bere baldintzapezetatik hartzen ditu bere erabakiak. Batzuei asko kostatzen zaie pixka bat lortzea.

<sup>111</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 39 or.

<sup>112</sup> Marazzi, 2003, 26 eta 29 or.

<sup>113</sup> Bourdieu, 1997, 39-40 or.

<sup>114</sup> Goñi, 1996.

Beste batzuei, berriz, askoz gutxiago. Hortaz, bakoitzaren gaitasunaren arabera estrategiak ezberdinak izaten dira. Batetik, estrategiak agentearen kapitalaren bolumenean eta potentzialtasunean oinarritzen dira. Bestetik, estrategiek kontuan hartzen dute erreprodukzioarako bitartekoen egoera: ohiturak, herentzia legeak, lan merkatua, eskola sistema eta abar. Halaber, estrategiek aintzat hartzen dute talde sozialen arteko indar harremana: bakoitzaren erreprodukzio bitartekoek lor dezaketen errendimendu diferentzialaren aurreikuspena funtsezkoa da agenteek beren estrategiak erabakitzeko orduan.<sup>115</sup>

Bourdieu gustuari buruz egiten duen analisiaren arabera, esate baterako, erreprodukzioarako gaitasun indartsua daukatenek ez daukate kapital kulturalen inbertitzen hainbeste arduratu beharrik, beste baliabide batzuk baitauzkate. Kapital ekonomiko handia daukatenek, adibidez, kapital kulturalen gutxiago inbertitzeko joera dute. Kapital kultural handia daukatenek, aldiz, lehentasunez inbertitzen dute beren seme-alabentzako kapital kulturalen. Bestalde, erreprodukzioarako gaitasun txikia dutenek, ordea, Hezkuntza Sistema beste inork baino gehiago behar dute.<sup>116</sup> Dena den, Bourdieuren ikerketaren arabera kapital eskolarrak gero eta garrantzi handiagoa duenez, talde orok dauka kapital honetaz inoiz baino gehiago arduratu beharra eta, ondorioz, gero eta gehiago inbertitzen dute horretan, baina batzuen eta besteen estrategiak inola ere ez dira berdintzen.<sup>117</sup>

Hala ere, familiaren baitako kapital transmisioan arazo handiak sor daitezke. Bourdieuren arabera, familiek batzuetan irizpide, sentimendu eta ikuspegi kontrajarriak transferitzen dizkiete seme-alabei, eta hauek habitus anbibalenteak, hautsiak edo kontraesankorrak sor ditzakete. Zenbaitetan familiek aspirazio gehiegi ezartzen dizkiete seme-alabei eta hori pisu handia da beraientzat. Beste batzuetan aita-amak gainditu nahiaren erronkak edo haiengandik urrundu nahiak lan handia suposatzen die ondorengoei. Beste batzuei, berriz, espektatibak familiaren baitan erazutzen zaizkie. Hala ere, arazo hauek ez dira sortzen soilik familiak eraginda; inguruko mundu sozial osoak mezu kontrajarri ugari transmititzen ditu.<sup>118</sup>

Cardenal-ek<sup>119</sup> dioenez, helduaroranzko trantsizioan familia babes afektibo eta moralerako espazioa da, subjektuaren euskarria azken finean, baina familia batzuek justu kontrako funtzioa ere bete dezakete. Familia lanaren banaketarako eremua da eta banaketa horren arabera trantsizioarako erabakiak hartzeko autonomia sustatu edo oztopatu egin daiteke.

Vigotsky-ren<sup>120</sup> ekarpenak azpimarratu egiten du transmisioaren fenomenoak. Arrakasta maila ezberdinak izan ditzake, Bourdieuk esango lukeen gurasoen kapitala eraginkortasun handiagoz edo txikiagoz transmititu dezakete. Vigotskyk sor daitezkeen hainbat arazo aztertzen ditu: gurasoen interes falta seme-alabekiko (arreta falta, haurra denbora luzez bakarrik egotea, haurraren atsekabeari ez erantzutea, soilik oinarritzko premiak asetzea eta gutxi hitz egitea, atxikimendu emozional eskasa), gurasoek seme-alabei modu desegokian hitz egitea (atxikimendu positiborik sortzeke, azkarregi edo zakar edo konplexuegi hitz eginez), gurasoek haurra gehiegi

---

<sup>115</sup> Bourdieu, 1999b, 122 or.

<sup>116</sup> Bourdieu, 1999b, 118 or.

<sup>117</sup> Bourdieu, 1999b, 133-134 or.

<sup>118</sup> Bourdieu, 1999d, 446 or.

<sup>119</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 39 or.

<sup>120</sup> Vigotsky, 2008.

babestea (ikasteko eta autonomizatzeko estimuluak desagerraraziz), haurrak arretarik ez jartzeko joera izatea, gurasoek pertsonalki haurrari denbora nahikoa ez eskaintzea.

### 2.3.3 *Familia* kontzeptua gaur egun

*Familia* kontzeptuari buruz hausnartzea komeni da. Kontzeptuaren definizio dominatzaileek fenomenoak deskribatu baino, errealitate soziala eraikitzen dute, Bourdieuren aburuz. Baina aldi berean familia errealitate sozialaren eraikuntzarako kategoria garrantzitsua da. Sozialki hala onartua dago eta, beraz, fenomeno soziala da. Familia kontzeptua sozialki eraginkorra da. Bere eragina kontuan hartzea ezinbestekoa da kapitalaren transmisioa aztertzeko orduan. *Familia* denok buruan daukagun kontzeptua da, zeren jaiotzen garenetik transmititzen baitzaigu eta sozializazio lan handiaren ondorioz erakunde sozial eraginkorra baita. Abizenaren inposaketa, adibidez, objektibatze ekintza bat da. Izendatzea erabiltzen du izana azaleratzeko. Baina inposaketa emozionala ere bada, adibidez “hau zure arreba da” esatean, maitasun ez-sexuala inposatu nahi baita. Hartara, familia banakoen gainetik dagoen gorputz bihurtzen da.<sup>121</sup>

Psikologiaren eremuan ere García Correa-k dioenez<sup>122</sup>, familia talde primarioa da eta garapen kognitiboan nahiz egokitzapen sozialean eragin handia du. Halaber, hezkuntza eragile erabakiorra da eta eragin oso handia du eskolako errendimendu akademikoan. García Correa-ren arabera, familiaren izaera kualitatibo nahiz kuantitatiboa oso aldakorra izan da denboran zehar eta kultura bakoitzean. Hasieran *famel* hitzak esklaboa esan nahi zuen: familia pertsonen gaineko jabetza zen, zentzu biologikoan edo zerbitzurako erosiak edo gerran esklabotzat hartuak. Erromatarren artean, adibidez, familian sartzen ziren bikote ezkondua ez ezik baita esklaboak ere. Mendebaldea izeneko eremuan familietan barruko hartu-emanen helburua seme-alabak balio, arau eta sinesmen sistema batean sozializatzea da. Hots, seme-alabak pertsona eredu batzuetara egokitzea nahi du familiak. Rolak eta espektatibak ezartzen ahalegintzen dira hartu-eman hauen bitartez. Familia mota batzuetatik besteetara balio, arau eta sinesmenetan eta hauek transmititzeko modu, estrategia eta mekanismoetan ezberdintasun handiak daude.

Bourdieu-ren arabera, gaur egun oraindik ere familiak, errealitate soziala izaki, funtsezko rola dauka pribilejio ekonomiko, sozial, kultural eta sinbolikoak transmititzen. Ezberdinketa sozialaren mantentze lanak egiten ditu. Bere baitan pilatzen eta transmititzen da kapitala. Familiak bere batasuna bermatzen du transmisioari esker eta transmisiorako. Erreproduktzio estrategien subjektu garrantzitsuena da. Bereziki familia zabal eta kohesionatuak, antzeko habitusak dituztenez, egokiak dira kapitala pilatzeko, kudeatzeko eta transmititzeko.<sup>123</sup>

Bourdieu-ren arabera, esan dezakegu, beraz, familia fikzio bat dela, artefaktu sozial bat dela, ilusio bat, baina ilusio sendoa da. Gaur egun sozialki ekoitzia eta berrekoitzia izaten jarraitzeko bitarteko indartsu ugari dauzka eta, gainera, beste makina bat erakunde sozialek babesten dute.<sup>124</sup>


<sup>121</sup> Bourdieu, 1997, 126-138 or.

<sup>122</sup> García Correa & Bueno Alvarez, 2003.

<sup>123</sup> Bourdieu, 1997, 126-138 or.

<sup>124</sup> Bourdieu, 1997, 126-138 or.

Dena den, Bourdieuren teoriari baliatu eta gaur egun familiari buruz ari garenean, gure inguruan ezin da familia tradizionalaren kontzeptuan bakarrik pentsatu. Dagoeneko, bizikidetzaren unitateen %50a baino gutxiago dira eta. Horren erakusgarri izan daiteke 1. Grafikoa: Euskal Herrian 2001 urtean 24 urte arteko seme-alabekin bizi ziren bikoteak familia guneen %44,4 ziren, 24 urte arteko seme-alabarik gabe bizi ziren bikoteak %40,2, 24 urte arteko seme-alabekin bizi ziren guraso bakarreko familia guneak %8,2 eta 24 urte arteko seme-alabarik gabe bizi ziren guraso bakarreko familia guneak %7,1.<sup>125</sup>



Iturria: INE, INSEE, Eurostat in Aztiker

Europako Batasunean joera berdina errepikatzen da, 1. Taulan ikus daitekeenez.

Izan ere, familia patriarkalaren krisia errealitate oso agerikoa da gaur egun, Castellsen arabera<sup>126</sup>. Hots, familiaburu den gizon helduak familia osoaren gain dominazio estua daukan eredu nabarmen ahuldu da. Eta ez soilik herrialde industrializatuenetan. Familia tradizionalaren eredu egokitzen ez diren bizikidetzaren unitate gero eta gehiago daude eta horren adierazle dira kopuruz handitzen ari diren hainbat fenomeno: besteak beste, dibortzioak, bikote banaketak, bikoteak osatzeko adinaren atzeratzea, jaiotza tasaren murrizketa, ezkondu gabe elkarbizitzea, hezitzaile bakarreko bizikidetzaren unitateak, pertsona bakarra bizi den etxeak, gay, lesbiana eta queer mugimendua.

Castellsen arabera<sup>127</sup>, jendea gero eta modu ezberdin gehiagotan elkartzen da bizikidetzarako eta seme-alabak hazteko eta hezitzeko. Esate baterako, 1995 urtean AEBetan soilik familien laurdenak zeuzkan familia tradizionalaren ezaugarriak. Are gehiago, baldintza horiei gehitzen badiogu gizonezkoak enplegua edukitzea eta emakumezkoa etxeko lanetaz arduratzea kanpoan enplegurik eduki gabe, orduan 1995 urtean AEBetan familien %7a doitzen zen eredu horretara. Ez da familiaren desagertzea, familiaren eraldaketa baizik. Anizten ari da eta bere baitako botere

<sup>125</sup> Aztiker, 2006, 151 or.

<sup>126</sup> Castells, 2001b, 224-334 or.

<sup>127</sup> Castells, 2001b, 224-334 or.

harremanak aldatzen ari dira. Ez da sortu familia eredu berri bat, aniztasuna nagusitzen ari da, nahiz eta joera batzuk egon badauden.

**1. Taula: Familia guneak, motaren eta 24 urte arteko seme-alabak dituzten edo ez kontuan hartuta. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001 (Kopuru absolutuak eta ehuneko bertikalak)**

<i>Estatua</i>	<i>Familia guneak</i>	<i>Bikotea seme-alabekin</i>	<i>Bikotea seme-alaba gabe</i>	<i>Guraso bakarrekoak seme-alabekin</i>	<i>Guraso bakarrekoak seme-alaba gabe</i>
	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>	<i>%</i>	<i>%</i>	<i>%</i>
Erresuma Batua	16.546.749	32,5	51,1	16,4	-
Letonia	624.305	37,5	30,2	23,3	9,1
Finlandia	1.401.963	40,9	45,7	10,3	3,1
Estonia	379.592	40,9	34,2	18,4	6,5
Danimarka	1.440.433	41,6	50,0	8,4	-
Austria	2.206.151	42,8	41,3	11,1	4,9
Herbehereak	4.512.133	42,9	48,3	7,0	1,7
Alemania	23.915.800	43,1	46,8	9,8	-
Hungaria	2.868.694	44,2	39,4	11,6	4,8
Frantzia	16.096	44,2	43,5	9,3	3,0
<i>Euskal Herria</i>	<i>800.206</i>	<i>44,4</i>	<i>40,2</i>	<i>8,2</i>	<i>7,1</i>
Txekia	2.910.013	44,6	35,6	14,6	5,2
Lituania	986.678	45,3	33,8	14,8	6,1
Grezia	2.904.866	45,4	42,5	6,3	5,8
Italia	16.130.368	45,6	41,4	6,5	6,5
Espainia	11.162.937	47,5	37,7	8,9	5,9
Eslovenia	555.945	48,2	33,0	11,7	7,1
Portugal	3.069.745	49,8	38,2	7,5	4,5
Polonia	10.457.617	50,5	30,0	12,7	6,7
Irlanda	924.464	52,1	31,3	11,4	5,3
Eslovakia	1.414.381	52,9	29,7	17,4	-
Zipre	189.913	55,3	37,3	4,8	2,6

Iturria: INE, INSEE, Eurostat in Aztiker

Fernández Palomares-ek<sup>128</sup> dioenez, gaur egungo familiak ez luke eredu bakarra izango, hainbat eredu baizik:

- a) Berreginak: berriro ezkontzen diren pertsonak osatzen dute eta aurreko harremanetako seme-alabak bizi dira elkarrekin, baita bikote berriak izan ditzaketen seme-alabak ere.
- b) Monoparentalak: aitak edo amak bakarrik osatzen dute, gehienak seme-alabak dauzkaten emakumezkoak direlarik.
- c) Kohatibazioa: ezkondua ez dagoen bikoteak osatzen du.
- d) Gay eta lesbianen bikoteak.
- e) Bakarrik bizitzea.

Giddens-ek<sup>129</sup> familiaren eremuko aldaketak honela laburbiltzen ditu:

- 1) Familia zabalaren eta ahaidetasunaren bitartez lotutako bestelako taldeen eragina murriztu egin da.
- 2) Bikotea libreki aukeratzeko joera orokorra.

<sup>128</sup> Fernández Palomares, 2003.

<sup>129</sup> Giddens, 1998.



- 3) Emakumezkoen eskubideen aitortzaren hedapena.
- 4) Senideen arteko ezkontzen murrizketa.
- 5) Askatasun sexualaren zabalkundea.
- 6) Haurren eskubideen hedapenerako joera.

Castells-ek<sup>130</sup> dominazio patriarkalaren krisia azaltzeko lau arrazoi azpimarratzen ditu:

- 1) Ekonomiaren eta lan merkatuaren aldaketa handiak eta emakumezkoentzako hezkuntza formalerako aukerak handitzea.
- 2) Teknologia, biologia, farmakologia eta medikuntza arloko aldaketa handiak, haurdunaldia eta erreprodukzioa kontrolatzeko baliabide bezala.
- 3) Mugimendu feministaren eragina.
- 4) Mundu globalizatu batean ideien hedapen azkarrak mugimendu feminista anitza ahalbidetu du.

Fernández Palomares-ek<sup>131</sup> hiru kausa bereizten ditu:

- 1) Ekoizpen modu kapitalistaren garapena.
- 2) Aldaketa demografikoak (osasunaren arloko aurrerapausoei lotuta).
- 3) Emakumezkoen liberazio prozesua (emakumezkoen roletan izan direla aldaketa lotuta).

Nolanahi ere, Castellsen arabera<sup>132</sup>, orain familiaren baitako rolen banaketa ez da hainbeste tradizioaren araberakoa eta gero eta gehiago negoziatu behar dira. Familiak gorputz bakarra balitz bezala jokatzeko joera du maiz, kapitalaren transmisioan kasu, baina aldi berean ezin da ahaztu familia bera gatazka eremu bat ere badela. Bourdieuren ikuspegia ukatu gabe, komeni da gatazkaren ikuspegia ere aintzat hartzea, oso argigarria izan baitaiteke. Familiaren baitan kideen arteko indar harreman gatazkatsuak garatzen dira, interes kontrajarriak baitaude. Familiaren baitako gatazka hauek ere kontuan hartu behar dira. Agente bakoitzak gatazka horien testuinguruan daukan posizioak eta posizio horren garapenak eragin handia dute agenteen estrategietan. Gainera, gaur egun familiaren baitako harremanak gero eta gehiago indibidualizatzen ari direnez, kide bakoitzaren interesak gero eta nabarmenagoak dira eta arau orokorrekin lehiatzen dira.<sup>133</sup>

<sup>130</sup> Castells, 2001b, 224-334 or.

<sup>131</sup> Fernández Palomares, 2003.

<sup>132</sup> Castells, 2001b, 224-334

<sup>133</sup> Idem.

## 3. Espazio soziala

### 3.1 Jendea

#### 3.1.1 Singulartasunen aniztasun multzoa

Hardt eta Negri-k<sup>134</sup> *multitude* kontzeptua proposatzen dute gaur egungo errealitatea ulertzeko gakoetako bat bezala. Batzuek euskarara *jendetza* bezala itzuli duten arren, hemen *jendea* bezala erabiliko dugu. Hardt eta Negri bereizi egiten dute *multitude* edo *jendea* kontzeptua beste zenbait subjeto sozialen definiziotik. *Multitude* ez da herria, masa edo langile klasea. Herria, bat da. Masen funtsa ezberdintasunak ez nabarmentzea da, ezberdintasun guztiak masan murgilduta eta itota gelditzea. *Langile klasea* kontzeptua modu baztertatzailan erabili izan da, langileak lan egiteko beharrik ez duten jabeetatik bereizteko ez ezik langile klasea gainerako langileengandik ere bereizteko.

Negri-ren<sup>135</sup> arabera, jendea, *multitude* delakoa, multiplizitatea da, definigaitza eta neurtezina. Herria unitate bezala errepresentatzen da. Jendea, aldiz, multiplizitate singularra da, unibertsal zehatza. Herriak gorputz sozial bat osatzen du. Jendeak, berriz, ez. Masa sarri deskribatu izan da irrazionala, pasiboa, arriskutsua eta indarkeriazalea bezala. Negri-ren arabera, jendea agente sozial aktiboa da. Ez du unitate bat osatzen baina antolatua dago. Jendea ez da erkidegoa (*Gemeinschaft*), ezta gizartea (*Gesellschaft*) ere. Hardt eta Negri-k<sup>136</sup> diotenez, *multitude* delakoa subjektu sozial aktiboa da. Singulartasunek partekatzen dutena hartzen du oinarri ekintzarako. *Multitude* delakoa barnetik ezberdina eta anitza da eta ez du nortasuna edo batasuna hartzen ekintzarako oinarri. Ikuspegi sozioekonomikotik *multitude* delakoa da ekoizpen posmodernoaren oinarria, kapital kolektiboak bere garapen globalaren gorputz bihurtu nahi duena.

Negri-ren<sup>137</sup> arabera, jendea, *multitude* delakoa, singulartasunen multzoa da. Singulartasun ezberdinek osatzen dute baina orokortasunarekin identifikatzen dira. Inoiz ez dira indibiduo bereizi sustantzializatuak. Singulartasuna orokortasuna kontuan hartuz eraikitzen da. Halaber, singulartasunak orokortasuna eraikitzen du. Pentsalari postestrukturalistei eta batik bat Deleuze-ri jarraiki, Bourdieuk eta Foucaultek indibidualtasunari buruz proposatzen dutenarekin bat eginez, Negri singulartasunaren garrantzia eta pisua nabarmentzen ditu, singulartasunek osatzen baitute orokortasuna, baina indibiduoari sustantzia kendu egiten dio. Ikuspegi trazedentea gaitzetsiz, Negri inmanentziatik begiratzen dio indibiduoari: gorputza lan bizia da, harremanean eta prozesuan gauzatzen da, adierazpena eta lankidetzeta da, munduaren eta historiaren eraikin materiala. Hardt eta Negri-ren<sup>138</sup> arabera, singulartasunen multzoak ekoizten ditu osagai partekatuak eta aldi berean osagai partekatuak dira singulartasunaren oinarri. Singulartasunek osagai partekatuetan oinarritzen diren elkarren arteko harremanak dituzte eta aldi berean beraien arteko komunikazioak osagai partekatuak ekoizten ditu.

<sup>134</sup> Hardt & Negri, 2004, 16 or.

<sup>135</sup> Negri, 2004, 101-102 or.

<sup>136</sup> Hardt & Negri: 2004, 128-129 or.

<sup>137</sup> Negri, 2004, 128 eta 136-137 or.

<sup>138</sup> Hardt & Negri, 2004, 233 or.

### 3.1.2 Kapitalek neurria ezartzen diote aniztasun neurrigabeari

Hardt eta Negri-ren<sup>139</sup> arabera, gaur egungo dominazio dinamikak indarrean jarraitu ahal izateko ezinbestean suntsitu behar dute jendearen, *multitude* delakoaren, singulartasuna. Jendea unifikatu edo hainbat unitatetan segmentatu behar da. Hau da, singulartasunez osatutako jende multzo eskerga espazio sozialean integratu behar da, *multitude* delakoa segmentatu eta baketu egin behar da aldi berean, mugiarazi eta kontrolatu. Prozesu honetan gaur egun gatazkak integratzen saiatzen dira, ez aparatu sozial koherentea ezarriz baizik eta ezberdintasunak kontrolatuz. Beraz, integrazio sozialaren alde egin beharrean, prozesu hau mekanismo barreiatzaile eta ezberdintzailea da.

Espazio sozialean integratzeko, eraikitzen den espazio sozialeko kapitalaren arabeko balioa esleitu behar zaio *multitude* delakoaren singulartasunei, baina ez guztiei, soilik kapitalaren irizpideen arabera balioa dutela definitzen direnei.

Negri-ren<sup>140</sup> arabera, espazio sozialean singulartasun eta taldekatzeko bakoitzari esleitutako kapitalaren arabeko banaketa eta gatazka sozialak dira errealitate politikoaren oinarria, baina horrek ez du esan nahi eskema monokausal, dialektiko, teleologiko, etengabe, ekonomizista, mekanizista edo determinatu baten arabera funtzionatzen duenik, ezta urrik eman ere. Espazio soziala beti prozesu subjektibo anitzen multzoa da.

Jendea espazio sozialean integratu dadin, jendearen aniztasuna espazio sozialaren hierarkian harrapatuta gelditu dadin, funtsezkoa da kapitalak jokatzen duen rola, edo, hobeto esanda, kapitalek (pluralean) jokatzen duten rola. Kapitalen bitartez integratzen da jendea espazio sozialean. Izan ere, kapitalak neurria ezartzen dio singulartasunari. Prozesu honen helburua honakoa da: kuantitatiboki gero eta handiagoa den biztanleriaren aniztasuna kapitalaren metatze prozesuarentzat erabilgarri bihurtzea. Aniztasuna kapitalaren galbahetik igaroarazten da. Jendearen aniztasuna hierarkizatu egiten da espazio sozialean, irizpide sozialen arabera aniztasunaren hainbat ezaugarri kapitalaren balioa esleituz. Foucault-en<sup>141</sup> arabera, Mendebaldearen jauzi ekonomiko handia abiarazteko lehenengo urratsa kapitala (Bourdieuarentzat kapital ekonomikoa alegia) metatzeko prozeduretan oinarritu bazen, agian gainerako gaitasunak metatzeko metodoek ahalbidetu dute politikoki botere tradizional, erritual, garesti eta ageriko bortxa erabiltzen zutenetik aldentzea eta horren ordean menpekotasunaren teknologia fin eta kalkulatu hedatzea. Jendearen aniztasuna erabilgarri bihurtzen duten teknikek azeleratu egiten dute kapitalaren metatze mugimendua.

Baina, Hardt eta Negri-ren<sup>142</sup> arabera, norbanako, talde eta biztanlerien aniztasuna ezin da bere osotasunean kapitalek ezarritako neurrien menpe jarri. Aniztasunaren zati handi bati kapitalaren neurria ezarriz espazio sozialean integratzen bada ere, aniztasunak bere osotasunean gaina hartzen dio kapitalen neurtzeko gaitasunari eta ondorioz aniztasuna ezin da bere osotasunean metatze kapitalistaren legeen menpe jarri. Kapitalizazioari ihes egiten dioten singulartasun zatiek beren espazioa egiten dute eta subjektu aktibo bihurtzen dira.

<sup>139</sup> Hardt & Negri, 2002, 308-354 or.

<sup>140</sup> Negri, 2004, 19-20, 31 eta 47-49 or.

<sup>141</sup> Foucault, 2005.

<sup>142</sup> Hardt & Negri, 2002, 360 or.

Nolanahi ere, Preciado-ren<sup>143</sup> ekarpenetan oinarrituz ondoriozta genezake aniztasuna ere teknologia mota bat dela. Preciadok dioenez, Foucault-en teknologiari buruzko ikuspegia oso indartsua da, Foucaultentzat teknika ez delako soilik objektu, tresna, makina edo bestelako artefaktuen multzoa. Preciadok dioenez, teknika, Foucaulten arabera, botere eta ezagutza dispositibo konplexua da, bere baitan integratzen dituena tresnak eta testuak, diskurtsoak eta gorputzaren errejimenak, bizitzaren maximizaziorako legeak eta arauak, gorputzaren plazerak eta egiaren enuntziatuen erregulazioa. Hortaz, Preciadok sexua eta generoa, biak, teknologiak direla dioen bezala, *multitude* delakoaren aniztasuna eta kapitalismoak aniztasunari ezartzen dion ordena eta hierarkia, biak, teknologiak dira. Kapitalismoaren dinamikak ezartzen dituen ordena eta hierarkia sistema teknologiak dira, baina, horrez gain, kapitalismoaren ekarpenik gabe ere, *multitude* delakoaren aniztasuna eta indibiduo bakoitzaren ezaugarriak ere teknologiak dira, ez naturak esleitutako ezaugarriak. Hots, kapitalismoak ordena eta hierarkia ezartzen duenean, ez du naturaren gainean jarduten, teknologiaren gainean baizik.

Chomsky-k<sup>144</sup>, arestian berari buruz azaldu dugunaren haritik, beste ikuspegi batetik begiratzen dio aniztasunari, eta horretarako Marx, Bakunin eta beste zenbait ezkertiar aipatzen ditu iturritzat. Chomsky-ren arabera, Marx-en utopian taigabe honako leloa errepikatzen da: norbera bere gaitasunen arabera, norbera bere beharren arabera. Chomsky-k dioenez ez da arazo intelektualik onartzeko gizabanakoek gaitasun natural ezberdinak dituztela, ez baitago inolako arrazoirik sariak gaitasun pertsonalen arabera banatzeko, gaitasunak edozein irizpiderekin baliosten direlarik ere. Izan ere, Chomsky-ren arabera, gizakien gaitasun naturaletan dauden ezberdintasunak giza kondizioa besterik ez dira. Gakoa, Chomsky-ren arabera, beharrak asetzea da, eta horiek neurri handi batean historikoki baldintzatuta daude. Baina utopia horretan indibiduoek trebetasun eta helburu pertsonal ezberdinak izango lituzkete. Beraz, Chomsky-k dioenez, ikuspegi ezkertiarak bereizi egin beharko lituzke eskubide berdintasuna eta gaitasun berdintasuna.

Azken batean, Chomsky-ren ikuspegitik okerra da esatea gizakiaren esentzia bakarra bere existentzia historikoa dela eta giza natura ez dela egonkorra eta aldaezina, baizik eta gizakiaren ekintza autotraszendeteek egiten dutela giza natura. Chomsky ez dago ados ideia horiekin. Ideia hauen jatorria Marxen ideia batean kokatzen du: giza historia bihurtzen den natura da gizakiaren benetako natura. Baina Chomsky-ren iritziz argi dago baieztapen hori okerra dela, adibidez, giza naturaren osagai fisikoei dagokienez. Burmuinak berak ere, Chomsky-ren arabera, programa genetiko trinko bati erantzuten dio. Orain arte burmuinari buruz dakigun gutxiak baieztatu egiten du burmuinak badauzkala oinarritzko egiturazko hainbat ezaugarri.

Bensaïd-ek<sup>145</sup>, berriz, gogor kritikatzten du Hardt eta Negriren *multitude* kontzeptua. Bensaïd-en arabera, *multitude* kontzeptua teorikoki nahasia da, soziologikoki zehazgabea eta estrategikoki hutsala. Giorgio Agamben-en ekarpenetan oinarrituz, Bensaïd-ek dio *herri* hitzak bi adiera dituela: batetik, oinarritzko subjektu politikoa da eta, bestetik, klasea da, politikatik baztertuta dagoena, legalki ez denean, *de facto*. Honenbestez, *herria* bi muturreko kontzeptutzat ageri da: batetik, gorputz politiko integral baten eta borondate orokor bateratu baten adierazpen bezala eta, bestetik, beharra duten eta baztertuta dauden gorputzen multiplizitate fragmentarioa, hots,

---

<sup>143</sup> Preciado, 2002.

<sup>144</sup> Chomsky, 2005a, 154-172 or.

<sup>145</sup> Bensaïd, 2009.

erabateko barne hartzearen eta esperantza gabeko bazterketaren artean, existentzia politikoaren eta bizitza biluziaren artean. Beraz, *herriak* beti darama bere baitan funtsezko banaketa biopolitikoak.

Bensaïd-en arabera, *multitude* kontzeptuaren funtzio nagusia subjektu sozialen heterogeneotasun positiboa aitortzea da, baina Bensaïd-ek dio aniztasun hori ez dela berria, nahiz eta proletargo homogeneo baten errepresentazioak izkutuan mantendu duen denbora luzez.

Bensaïd-ek dio Hardt eta Negriren *multitude* kontzeptuak ustez lan inmaterialaren eta intelektualaren hedapena islatzen duela, baina langile klasea ez dela desagertu, ezta hurrik eman ere, ikusezin bihurtu dela. Gérard Desportes eta Laurent Mauduit-en ekarpenetan oinarrituz, Bensaïd-ek mugimendu bikoitz batetaz hitz egiten du: batetik, langile klasearen berproletarizazioa, bizi baldintzak (berriro) kaskartzen ari zaizkiolarik, eta, bestetik, ezkerrearen desproletarizazioa, langile klasearekiko interesa txikitu eta klase ertainekikoa handitzen zaiolarik. Horrez gain, Bensaïdek uste du mundu sozialaren eraldaketa *multitude* kontzeptuak islatzen duena baino sakonagoa dela. Bensaïden arabera, Marxek 1857-1858 urteetako *Grundrisse*-n iragarri zuenaren haritik, lan intelektuala lan produktiboan integratzeak areagotu egiten ditu balioaren legeak berezko dituen kontraesanak, tentsioa handitu egiten baitu lanaren sozializazio hazkorraren eta jabetze pribatuaren artean, lan zehatz pertsonalizatuaren eta lan hau merkatuan trukagarri den lan abstraktu izatera murriztearen artean. Dinamika bikoitza gauzatzen da: batetik, soldatapeko lan intelektualaren garapena eta, bestetik, zerbitzu sektoreko lanen taylorizazio masiboa.

Bensaïden arabera, klase gatazkaren pluralak aurkakotasuna nabarmentzen duen bitartean, Hardt eta Negriren *multitude* delakoaren ontologiak herri bateratzailearen fetixismo populista indartzen du, *multitude* horren baitan kontraesanik ez balego bezala, alienaziorik edo fanatismorik ez balego bezala. Bensaïdek dio onartuko lukeela *multitude* terminoa proletargoari jartzea merkantilizazio globalizatuaren garaian, bizitza sozial eta pribatuaren eremu guztietan kapitala nagusitzen den aroan, izaki bizidunen gaineko kontrol biopolitiko hedatzen ari den une historikoan, baina Bensaïdek dio ezerk ez duela bermatzen *multitude* intsumiso horrek *herria* gaindituko duenik, ez denik izango *plebe* izeneko hartara itzultzen.

Bensaïdek dioenez, Foucaultek harriduraz hartu zuen hainbat teoria posmodernok plebearen multitudinea hartu nahi izatea bioboterearen aurkako erresistentziaren subjektutzat. Bensaïden arabera, Alain Brossat-ek dio *plebea*, bentzutuen mundua, herri legitimoaren kontrapartida dela, herriak bai baitauka historia egiteko gaitasuna eta plebeak ez. Bensaïdek dioenez, Paolo Virnok *multitude* izeneko banatuta dagoela askatasun eta menpekotasun adierazpenen artean eta, halaber, ezberdintasunaren diskurtsoak ahalbidetu egin ditzakeela bai ezberdintasunarekiko errespetua bai ezberdintasunean oinarritutako hierarkia berria.

Bensaïdek dio denbora asko behar izan dela plebea herri bihurtu dadin, erregearen menpekota hiritar bihurtu dadin, ofizialki eskubide berdinen jabe, eta askoz denbora gutxiago behar izan dela herri hori klase sozial antagonikoetan banatzeko eta populismo erromantikoaren ilusioak hondoratzeko. Haustura 1848 urteko ekainean kokatzen du Bensaïdek, estrategia sozialistak klase erreferentziak *multitude* eta masa anomikoen gainetik lehenetsi zituzten unean. Bensaïden arabera, porrotek eta ilusioaren higadurak eraman ditu batzuk kontrako bidea egitera: populismo

maoistatik (herria zerbitzatu) plebearen batasun mistikora. Ez dagoenez *azken borrokarik*, *multitude* hori bihurtzen da *azken botere berreslea*. Neokontserbadore poskomunistentzat, inperioko kristau berriak bailira, nahikoa da *multitude* heroikoaren bertuteen alde apustu egitea, jadanik ez baitago langile klase heroikorik. Bensaïdek dio Hardt eta Negrik badakitela *multitude* izate hutsa ez dela nahikoa alienazio merkantilari aurre egiteko, merkatutekniak aniztasuna dominatu dezakeela, ezberdintasun bakoitza kontsumorako aukera bihur dezakeela, aniztasunaren kudeaketa diru irabazi asmoko eragiketa bihur dezakeela. Bensaïdek etsipenaren erretorika ikusten du Hardt eta Negriren hainbat aldarrikapenetan: espektatiba handien gainetik tokikoa lehenestea, berehalako eraginkortasunak gaina hartzea amets urrunei, pragmatismo apala gailentzea abstrakzio teorikoen aurrean. Bensaïden arabera, Hardt eta Negrik garrantzia kentzen diote kontraerreforma liberalek herriaren aurka izan duten arrakastari. Horren aurrean Hardt eta Negrik exodoa, exilioa eta deserzioa proposatzen dituzte, baina ez zentzu espazialean, antropologikoan baizik, Bensaïdek dioenez; mugimendu etikoa da, bizimoduaren eremukoa.

Traszendentsiarik gabeko mistikak ordezkutzen du politika iraultzailea, Bensaïden arabera. Helburua *bizimodu ona* delarik, Hardt eta Negrik adierazpide *etikoak* lehenesten dituzte, ez politikoak. Bensaïdek dio honek erretorika moralizatzailea eta despolitizatzailea dakarrela. Ez dago hausturarik. Horren ordez, enfasi teologikoa ikusten du Bensaïdek, mistika. Bensaïden arabera, Walter Benjaminek salatu egiten zuen politikarien garapenarekiko atxikipena eta masarekiko konfiantza, hori baitzuten oinarritzat, baina, halaber, Benjaminek zioen mugimendu iraultzaile alemaniarraren akats larriena antzekoa izan zela: korrontearen norantzan igeri egiten ari zirela sinestea. Bensaïdek dio Hardt eta Negrik ez diotela ihes egiten baikorkeria horri.

Bensaïden arabera, Hardt eta Negrik finantza kapitalaren etorkizuneranzko joeran antzeman dezakete, paradoxikoki, *multitude* horren irudia, baita buelta emandakoa eta itxuragabetua denean ere. *Munstroa* handitzeak etorkizun alternatiboa hurbilarazten duela sinesteak ondorioak dauzka: inperialismo zaharkituarekin alderatuta, inperioak bertute progresistak izango lituzke Hardt eta Negriren arabera eta, ondorioz, bere aristokrazia eta eliteekin aliantza legitimoak egitea zurituko luke. Bensaïdek dioenez, honek guztiak ezerezera darama, zeren azalpenik ez baitu susmatzen funtsezkoa deritzon galderarentzat: ezerezetik nola erator daiteke zerbait edo norbait?

### 3.1.3 Botere harremanen testuingurua

Foucault-en<sup>146</sup> arabera, gorputza erabat murgilduta dago eremu politikoan eta botere harremanek zuzenean eragiten diote gorputzari. Inguratu egiten dute, markatu, otzandu, zigortu, lanera behartu, zeremonietan sarrarazi, zeinu zehatzak eskatzen dizkiote. Baina harremana oso konplexua da. Gorputza ekoizle bihur dadin ez da nahikoa bortxa edo ideologia erabiltzea. Forma anitzeko beste hainbat tresna ere baliatzen dira. Aparatuak eta erakundeak boterearen mikrofisika erabiltzen dute. Teknika txiki ugari sortzen dute orokortasun handia abiaraztea.

Foucault-en ikuspegitik boterea ez da jabetza, estrategia baizik. Boterea ez da gauzatzen debeku soilaren bidez. Botereak gorputzak zeharkatzen ditu. Botere harremanak gizartearen oinarri sakonenean errotzen dira. Ez daude estatuak hiritarrekin dituen harremanetan bakarrik edo klase

---

<sup>146</sup> Foucault, 2005.

sozialen artean edo norbanakoen mailan. Ez dira alde bakarrekoak. Botere harremanek gatazka gune ugari dituzte, sare antzeko bat osatzen dute. Ondorioz, Foucaultek uko egiten dio botere harremanetatik libre dagoen ezagutzaren ideiarri. Botereak ezagutza ekoizten du. Ez dago ezagutzarik botererik gabe, eta alderantziz. Beraz, subjektuak ezin du botere harremanez kanpoko ezagutzarik ekoizti.

Deleuzek Foucaulten boterearen kontzeptua ulertzeko bost irizpide ematen dizkigu, hauek Mendebaldeko ikuspegietan sarri erabili diren printzipio nagusienei kontrajartzen baitzaizkie<sup>147</sup>:

- a) Jabegoaren irizpidea: tradizionalki boterea norbaiten esku zegoen materiatzat hartua izan da. Klase dominatzailea zen haren jabe. Foucaultek honen aurrean boterea gizarte osoan zehar zabaltzen den armiarma saretzat izango du. Talde baten partaide diren guztien artean zirkulazioan dago<sup>148</sup>.
- b) Lektuzaren irizpidea: jabetza norbaitena zen bezalaxe, botereak kokapen zehatza ere bazuen. Estatu zen boterearen gune eta Estatu aparatuetan gauzatzen zen honen boterea. Irakurketa honen ondorioz oinarrizko bi akats ikus zitezkeen Foucaultek ekintza politiko zehatzak proposatzerako orduan: alde batetik, Estatuaz jabetzea botereaz jabetzea ote zen, eta bestetik, kontra-Estatu bat sortzea boterearen aurkako jarduera egokia ote zen. Poitiersekoaren aburuz, edozein kasutan, Estatu aparatuen indarra ezin da gutxietsi. Esate baterako, Luis XIV. eta Luis XV.aren monarkia biziki zentralizatua boterearen egungo barreiaketaranzko aurreneko ereduetakoa bat izan zela argitzen digu. Luis XV.aren garaian sortu zen polizia, adibidez<sup>149</sup>. Puntu honetan Habermasen arrazionalizazio prozesuen goitikako eta behetiko hedadurekin egiten du bat. Foucaultek Estatu botereak osatutako sarearen tresna bat dela eta ez bakarria aldarrikatzen du. Estatu aparatuek erabakigarriak diren arren, amaraunean murgildutako mikrobotereen azterketa ezinbestekoa da boterea bere osotasunean ulertzeko<sup>150</sup>.
- c) Subordinazio irizpidea: marxismoaren adar anitzek proposatzen dutenaren aurka, boterea ez da ekonomiaren menpeko gainegitura hutsa. Foucaultek ez du egituraketa piramidalik onartzen. Berak segmentazioaren ikuspegia aldarrikatzen du. Sarri elkarrekintzarik gabe jazotako gertakizunak ere badaudela esaten du eta orokortzea botereak erabilitako teknikak erabiltzea dela dio. Segmentazioaren aldeko hautua eginik ere, gertakizunen arteko zeharkako loturak badaudela esaten du.
- d) Koerzitibotasunaren irizpidea: boterea ez da soilik koerzitiboa, errealitatea ere ekoizten baitu. Foucaultek ez du ukatzen botereak mota askotako bortxa erabiltzen duenik, hori baita boterearen funtsezko bitartekoetako bat, Foucaulten iritziz. Baina botereak badu beste alderdi bat ere. Izan ere, boterea oso sortzailea da, ekoizpen anitzen iturri,

---

<sup>147</sup> Deleuze in Foucault, 1994.

<sup>148</sup> Foucault, 1991.

<sup>149</sup> Idem.

<sup>150</sup> Idem.

plazerraren kitzikatzaile, jakintzaren osatzaile, hamaika diskurtsoren egile, Foucaultek dioenez<sup>151</sup>. Botereak kudeaketa zilegiztatzen du<sup>152</sup>.

- e) Legalitatearen irizpidea: ez da legezkoaren eta legez kanpokoaren arteko dikotomia hain argi egiterik. Mugak ez ditu subjektu burujabe batek finkatzen, botereak baizik. Gainera botereak legez kanpokoak ere erabiltzen ditu bere helburuak betetzearren. Bestalde, ezin da legea bake egoerarekin identifikatu, estrategien gatazka jarduera gisa baizik. Ageriko ekintzen ordezkotzat duenez, botereak bere bortxa legearen bidez aplikatzen du.

### 3.2 Kapitala, espazio sozialaren ardatz

Bourdieu proposatzen duen espazio soziala teorikoki eraikia da. Analistak eraikitzen du. Ez da espazio sozial enpirikoa. Orain arte azaldu ditugun tresna teoriko guztiak espazio sozialean elkartzen dira: agente bakoitzak bere kapital jabetzaren arabera hartzen du posizio sozial bat espazio sozialean, posizio sozial horrek sustatuko duen habitus bat agentearengan, eta agenteek beren zentzu praktikoan oinarrituz jokoaren zentzuan ahal bezain beste murgildurik parte hartuko dute espazio sozialaren kapital borroketan. Beraz, Bourdieuren teorian agenteen multzoak osatzen du espazio soziala. Agenteak beren kapital jabetzaren arabera daude barreiatuta espazio sozialean zehar. Espazioaren banaketa teorikoa osatzeko Bourdieuk nagusiki hiru ezaugarri hartzen ditu kontuan: kapital bolumena (orotara zenbateko kapitala daukan agenteak), kapitalaren izaera (agente bakoitzaren kapitalean zein kapital motak duen lehentasuna besteen gain) eta agente bakoitzaren kapitalak bolumenez eta izaeraz egin duen ibilbidea.<sup>153</sup>

*Habitus* kontzeptuak biltzen ditu, Bourdieuren arabera, agentearen kapitalen gora-behera guztiak. Hortaz, agente batzuen eta besteen artean bereizketa egiteko Bourdieuk habitusa hartzen du oinarri. Habitusak dira praktika ezberdinen printzipio ekoizlea eta, aldi berean, praktika hauen sailkatze sistemen ekoizlea; hau da, praktika ezberdinak ekoitzi eta bereiziak direla ikusteko gaitasuna. Horrela eraikitzen du Bourdieuk bizimoduaren espazio soziala. Habitusaren bitartez analiza daiteke honako harremana: bizi baldintza sozio-ekonomiko-kulturalen eta bizimoduaren espazio sozialeko posizioen ezaugarri bereizgarrien artean, eta hauekiko epai, balorazio eta ikuspegiak (azken hauek zeinu bereizle eta bereizgarrien sistema osatzen dute). Bizi baldintza ezberdinek habitus ezberdinak ekoizten dituzte eta, ondorioz, praktikak ere ezberdinak dira. Habitusa, hortaz, egitura egituratua da (bizi baldintza multzo bakoitzetik habitus ezberdin bat edo batzuk atera daitezke) eta aldi berean egitura egituratzailea da, bi zentzutan: batetik, praktikak eta praktikarekiko ikuspegiak ekoizten dituzte, eta bestetik, praktikak ekoitziz egiturak partzialki eralda ditzake (jokoaren teoriak esaten duenaren arabera, adibidez). Bizi baldintzen eta habitusaren arteko dialektikan gertatzen dira kapital banaketan aldaketak.<sup>154</sup>

---

<sup>151</sup> Foucault, 1994.

<sup>152</sup> Idem.

<sup>153</sup> Bourdieu, 2000c, 106 or.

<sup>154</sup> Bourdieu, 1999b, 169-172 or.



### 3.2.1 Ezberdintzeko borondatea eta muga ezberdintzaileak

Espazio fisikoa, Strawsonen arabera, posizioen elkarrekiko kanpokotasunaren bitartez definitzen da. Bourdieuk printzipio hori bera erabiltzen du espazio sozialaren banaketak egiteko: espazio soziala agenteen eta taldeen elkarrekiko esklusioaren bitartez definitzen da. Espazioa sozialaren gakoa, beraz, diferentzia da; alegia, frantsesezko *distinction*, hitz honek dauzkan bi adieretan: bereizketa eta errekonozimendua.<sup>155</sup>

Ezberdinketarako joera honek gatazkara darama, Bourdieuren arabera. Baina gatazkaren iturburua ez da gizakiaren botere borondatea, Bourdieuren iritziz, baizik eta espazio sozialaren egitura bera: kapitalen banaketa desorekatuak posizio ezberdinak eragiten ditu eta posizio bakoitzaren etekinak ezberdinak direnez, ezberdintasun hori mantentzera, handitzera edo murriztera daramaten estrategiak eragiten ditu, posizio eraginkorrenak mantendu edo eskuratu nahian dabilzan agenteengan.<sup>156</sup>

Hala ere, gatazkaren iturburuari buruz ari garela, Bourdieuren ekarpen teorikoak ukatu gabe, esango genuke ezin dela ahaztu espazio soziala sozialki eraikia dela. Ondorioz, gizakiak zerikusi handia dauka espazio sozialaren izaeran: agenteek espazio sozialaren baitan garatzen dituzte beren estrategiak baina aldi berean agenteek aldiro beren habitusen eta praktiken bitartez espazio soziala eraiki egiten dute.

Bestalde, Bourdieuren espazio sozialari sarri leporatu zaio ezberdintzeko borondateak garrantzi handiegia daukala teoria horretan. Kritika horien aurrean Bourdieuk esan zuen ezberdintzea ez dela agenteen bizitzaren *leit motif* bakarra, beste batzuk ere badirela, baina Bourdieuk azpimarratu egiten du nor bezala onartua izateko ahalegina badela bizitzaren funtsezko dimentsioetako bat, eta beraz, ezberdintzearen fenomeno funtsezkoa dela agenteen bizitza sozialean.<sup>157</sup>

#### 3.2.1.1 Ikuspegi ez substantzialista, erlazionala baizik

Bourdieuren espazio sozialari buruz hitz egitean, etengabe erabiltzen da *ezberdintasuna* hitza. Argitu ezik, erabilera honek gaizkiulertu bat baino gehiago sor dezake. Pentsa daiteke agian ezberdinketak agenteen nahiz taldeen izaeran oinarritzen direla. Bourdieu, ordea, ez da substantziaz ari. Posizio sozialek daukaten elkarrekiko harremanetan oinarritzen da. Bourdieuren espazio sozialean produktu sozial ororen balioa erlazionala da. Sekula ez da berezkoa. Ez da substantzialista edo enpirikoa, nahiz eta espazio sozialak mundu sozialaren errepresentazio izan nahi duen heinean, errealitate sozialetik ahal bezain hurbil egoten saiatu behar duen.<sup>158</sup>

<sup>155</sup> Bourdieu, 1999c, 178 or.

<sup>156</sup> Bourdieu, 1999c, 241 or.

<sup>157</sup> Bourdieu, 1996, 33 or.

<sup>158</sup> Bourdieu, 1997, 7 or.

### 3.2.1.2 Taldekatzearen une objektibista eta une subjektibista

Talde praktikoen osieran une objektibista eta une subjektibista daude, Bourdieuren arabera. Une objektibistan ezaugarri komunek erraztu egiten dute banakoen elkarketa. Une subjektibistan, berriz, taldeak bere burua errepresentatzeko moduak eraikitzen ditu eta modu hauek mundu sozialean eragina daukate. Ondorioz, Bourdieuren ikuspegitik espazio soziala ikertzeko ezinbestekoa da analisiak kontuan hartzea baldintzapen objektiboak eta, halaber, agenteek beren buruak nola errepresentatzen dituzten.<sup>159</sup>

Agenteak ekoizpen sinbolikoen bitartez saiatzen dira batetik beren mundu ikuskera inposatzen eta, bestetik, beraien posizioa munduan beren irizpideen arabera definitzen eta, ondorioz, beren nortasunaren ezaugarriak eta balio soziala. Espazio sozialari buruzko analisisiek, beraz, ezinbestean hartu behar dute kontuan zeintzuk diren espazio sozialari buruzko egiak eta baita ere egia horien arteko ezberdintasunak nola bihurtzen diren gatazka iturri. Egia inposatzeko gatazkan agenteek ahalmen ezberdina daukate, jabetzan duten kapitalaren arabera, eta helburuak ere usu ezberdinak eta batzuetan kontrajarriak izaten dira.<sup>160</sup>

### 3.2.1.3 Nola hartu posizio soziala eta norekin elkartu

Agenteak beren kapitalean oinarritzen dira posizio sozial batera edo bestera doitzeko, Bourdieuren ikuspegitik. Distantzia sozialaren esperientzia subjektiboaren arabera, urrun daudenekin moldatzeko aukerarik eza sentitzen da eta hurbil daudenekiko, berriz, konplizitatea. Baldintzatzaile homogeenoeak eragin homogenezatzaileko joera daukate (joera hitza azpimarratuko genduke hemen; ez da determinazioa) eta, beraz, hurbilekoen arteko harremanaren garapena errazten dute. Elkartzeko joera daukatenez, elkartu egiten dira maiz (bikoteak, lagunarteak, lankideak eta bestelako taldeak) eta elkarketak beren elkartzeko motiboak areagotzen ditu, antzeko praktikak garatzen dituztelako.<sup>161</sup>

Dena den, distantzia objektibo txikienekoen artean egon daiteke distantzia subjektibo handiena, zeren besteak beste *bizilagunak* mehatxatzen baitu gehien nortasun soziala. Ezberdintasuna zalantzan jar dezake. Horrelakoetan ez ezik beste kasuetan ere ezberdintasun txikiena ere botere sinbolikoaren logikak ezberdintasun absolutu bihur dezake, *continuum*-a dagoen lekuan ezberdintasun absolutu eta egonkorra ezarriz.<sup>162</sup>

### 3.2.1.4 Mugak mundu sozialean

Mundu sozialean ez dago muga argirik. Ez dago jarraikortasunean eten nabarmenik. Horrek, ordea, ez du esan nahi ezberdintasuna ez dagoenik, baizik eta taldekatze argirik ez dagoela. Teorikoki eraikitako talde sozialen arteko mugak itsasoen arteko mugak bereiztea bezala da: non hasten eta non bukatzen diren esatea sarri ezinezkoa da, eta hala ere, itsaso ezberdinak egon,

<sup>159</sup> Bourdieu, 2000c, 118-119 or.

<sup>160</sup> Idem.

<sup>161</sup> Bourdieu, 2000c, 108-109 or.

<sup>162</sup> Bourdieu, 1991, 231 or.

badaudela esan dezakegu, geure buruetan banaketa geografikoak (mapak) egitearren bada ere. Errealitate sozialean ezberdintasunak nabarmenak dira muturren artean, baina erdialdeari begiratuz gero, batzuen eta besteen arteko aldeak normalean ez dira hain argiak. Zenbaitetan oso lausoak dira. Kasu horietan oraindik garrantzi handiagoa hartzen du bakoitzak bere burua nola aurkezten duen: estrategia batzuek, adibidez, beren jatorri soziala izkututzen dute, artean beste batzuek azpimarratu egiten dutelarik. Talde sozialen eraikuntza subjektiboa gai da bereizketa iraunkorrak, onartuak eta eraginkorrak errepresentatu eta sustatzeko. Horrexegatik, mundu sozialaren ekoizpen sinbolikoan mugen definizioa eta, ondorioz, taldeen definizioa eta nortasuna da borrokagai garrantzitsuenetakoa.<sup>163</sup>

Botere sinbolikoak gaitasuna du hitzei indarra emateko eta taldeak osatzeko, erakundetzeko, lehenago soilik inplizituki zegoena azaleratzeko. Hau da, lerro jarrai batean etena errerepresentatzeko eta, beraz, etena sustatzeko gai da.<sup>164</sup>

### 3.2.2 Eremuak

Espazio soziala osotasun bat da baina eremuetan banatuta dago. Eremu guztiek daukate osotasunarekiko lotura, baina aldi berean eremu guztiek jokutzen dute merkatu autonomo bezala. Eremu batzuk besteek baino autonomia handiagoa daukate. Hala ere, eremu guztietan gertatzen diren gatazkek beti daukate lotura eremuaz kanpoko indar harremanekin: eremu bakoitzak bere gaitasunaren arabera baldintzatzen du osotasuna eta, aldi berean, osotasunak eremu bakoitza baldintzatzen du.<sup>165</sup>

#### 3.2.2.1 Kapitalaren balioa eremu bakoitzean

Habitusek ekoizitako orori jartzen zaio balioa espazio sozialean, baina balio hori inguruko eremu bakoitzarekiko harremanean hartzen dute. Produktu sozial berberak balio handia izan dezake eremu batean eta txikia beste batean. Hartara, Bourdieuk *kompetentzia* kontzeptuaren ordeztu *kapitala* terminoa hobesten du: Chomskyren *kompetentzia* kontzeptuak ez bezala, Bourdieuren iritziz *kapital* kontzeptuak egoki adierazten du produktu sozial bakoitzaren balioa bere inguruarekiko harremanean definitzen dela eta ez dela berezkoa; kompetentzia batek ez du inolako baliorik baldin eta ez badago balioa emango dion merkaturik.<sup>166</sup>

Hortaz, Bourdieuren formula honakoa da:  $\text{habitusa (kapitala) + eremua = praktika}$ .<sup>167</sup> Bourdieuren ikuspegitik, habitusaren eta eremuaren artean sortzen dira jokoak eta jokoaren zentzua. Harreman horretan eraikitzen dira apostuak eta potentzialtasun objektiboak.<sup>168</sup> Ondorioz agenteen kapitalaren eraginkortasuna bi faktoreen arabera izango da: batetik, agentearen jabetzaren eta eremuaren ezaugarrien arteko konparazioan erlatiboki sortzen denaren arabera

<sup>163</sup> Bourdieu, 2000c, 120-123 or.

<sup>164</sup> Bourdieu, 2000c, 124 or.

<sup>165</sup> Bourdieu, 1997, 65 or.

<sup>166</sup> Bourdieu, 2000a, 122-124 or.

<sup>167</sup> Bourdieu, 1999b, 99 or.

<sup>168</sup> Bourdieu, 1999c, 199 or.

eta, bestetik, eremu horrek espazio sozial orokorrean daukan legitimotasun mailaren araberakoa. Eremuaren legitimotasun orokorra handitu ahala, eremu horretako konpetentziek gehiago asetuko dute banakoa eta sari handiagoak jasoko ditu, baina aldi berean, eremuaren legitimotasun orokorra handitu ahala, kapital gabezia gogorrago zigortua izango da.<sup>169</sup>

Agentearen kapitalaz gain, Bourdieuren iritziz zentzu praktikoa da beste gakoa. Agenteak daukan zentzu praktikoa zorrotasuna agente bakoitzaren kapitalean oinarritzen da, baina aldi berean jokoaren zentzuan presa eta aurreikuspena funtsezkoak direnez, agentea sekula ez dago determinatuta eta, beraz, aldiro bere zentzu praktikoa zorrotz mantentzea komeni zaio. Izan ere, eremuaren unean uneko beharretara egokitzen diren estrategiak dira eraginkorrenak. Hartara, zentzu praktikoa zorrotasuna da ekintzen eraginkortasunaren gakoa. Hala ere, batzuetan zorrotz eta besteetan baldar, ekintza oro egokitzen da mundu sozialaren aldaketetara eta egoera berrietara, eta testuingurua, partzialki eraldatuta egon arren, zentzua daukan osotasuntzat hartzen dute.<sup>170</sup>

### 3.2.2.2 Dominazioa eta erresistentzia eremuz eremu

Espazio sozialean oro har agenteen arteko harremana modu batekoa izan arren, agente horien arteko indar harremana ezberdina da eremu bakoitzean: eremu batzuetan ahul dauden batzuk beste batzuetan indartsu egon daitezke. Ondorioz, dominazio harremanak oso konplexuak bihurtzen dira. Botere harremanak amaraun bat dira.

Eremu bakoitzean agenteak elkarrekiko lehia daude. Eremuaren arauak jarraiki, eremuaren etekinak bereganatzeko asmoa dute. Dominatzaileek bitarteko gehiago dauzkate eremuak beren alde funtziona dezan, beren irizpidea besteei ezartzeko, baina dominatuaren erresistentziarako gaitasuna ere kontuan hartu behar da, zeren besteengandik jasotako irizpideak ez ezik bereak ere bai baitituzte eta irizpide hauek beren posiziotik kanpora hedatzeko gai baitira. Harreman konplexu horretan sortzen dira posizio sozialen arteko adostasunak eta gatazkak.<sup>171</sup>

### 3.2.3 Agenteen interesa

Interesa ikuspegi utilitarista batetik definituz gero, ekintzak arrazoi kontzienteetan oinarritzen direla suposatu beharko litzateke, eta ekintzak ahal bezain eraginkorrak koste txikienean izatera bideratuak daudela. Bestetik, dena diru etekinera mugatuko litzateke.<sup>172</sup>

Bourdieu, ordea, ez dator bat ikuspegi honekin. Bourdieuren arabera, agenteen interesa ez da erabat arrazionala, sarri ez du diru etekina helburu, eta ez da mekanikoki eratortzen.

<sup>169</sup> Bourdieu, 1999b, 84-86 or.

<sup>170</sup> Bourdieu, 1999c, 183-184 or.

<sup>171</sup> Bourdieu, 2000a, 135 or.

<sup>172</sup> Bourdieu, 1997, 141-145 or.

### 3.2.3.1 Diru etekina bakarrik ez

Bourdieuaren ikuspegitik ez dago interesa oro har defini dezakeen helburu zehatzik. Ezin da esan, adibidez, interesa beti diru etekinera bideratua dagoenik. Interesa ezin da orokortasunean definitu. Interesa eremuz eremu eraikitzen da. Beraz, interesa definitzeko makina bat ezaugarri beharko lirateke: eremu bakoitzak (gatazka esparru bakoitzak) bere ezaugarriak dauzka eta espazio sozialean ezin konta ahala eremu daude. Gainera, garai eta lekuaren arabera desagertu eta sortu egiten dira eremuak. Irauten duten eremu ororen ezaugarriak, berriz, aldatu egiten dira. Beraz, eremuen aniztasuna eta aldakortasuna kontuan hartuz Bourdieuk ondorioztatzen du agenteen estrategiak ez direla interes bakarraren arabera osatzen. Interesak oso ugariak eta anitzak dira. Estrategiak, berriz, konplexuak. Horien arabera egiten dira mota guztietako inbertsioak. Ondorioz, Bourdieuren arabera, interesa soziologoaren ikuspegitik ezagutza historikoaren bitartez *ex post* berreraiki daiteke, enpirikoki, ez *a priori*, izaera transhistorikoa balu bezala.<sup>173</sup>

### 3.2.3.2 Erabateko kalkulu arrazionalik ez

Bourdieuaren ikuspegian ez dago subjektu bat objektu baten aurrean (subjektua ezagutzaren bidezko ekintza intelektual batean eraikia bezala ulertuta), baizik eta ibilian dabiltzan agenteak. Praktikaren gorabeheretan zentzu praktikoak gidatzen ditu agenteak. Habitusak eman dizkion kartak eskuan, agenteak jokoa nola jokatu erabakitzen du uneoro, aurreikuspenean oinarrituz eta presaka, baina ez beti kontzienteki jokatuz. Gehienetan senak lausoki aginduta jokatzen dute, beste guztiek zer karta dituzten zehatzegi jakin ezinik, eremuaren egoerari buruzko infomazio osatua jaso ezinik. Agenteen estrategiak gutxitan oinarritzen dira asmo estrategiko sendo batean. Ez dira hain kontzientekak. Agenteek praktikan gauzatzen dituzte beren tesiak, habitusaren eta eremuaren arteko harremanean, eta gainera, tesi horietako asko sekula ez dira agenteengan tesi bezala planteatzen.<sup>174</sup>

Bourdieuaren arabera, banakoak ez du jokatzen erabat libreki, kontzienteki eta, utilitaristek esaten duten bezala *with full understanding* aukeren eta etekinen kalkulua eginez. Bourdieuk habitusari buruz zera argitzen du: pilatutako esperientziaren ondorioz gorputzetan biltzen dira hautemate, ebaluazio eta ekintza sistema zehatzak, eta sistema hauek estimulu baldintzatzaileen identifikazioan eta errekonozimenduan oinarritzen dira. Helburuen posizio espliziturik gabe eta bitartekoen kalkulu arrazionalik gabe sarri, egoeraren aurreko zentzu praktikoak estrategiak moldatzera eta berritzera daramatza.<sup>175</sup>

Hala ere, ekintza erabat arrazionala ez izateak ez du esan nahi ez-arrazionala denik edo ausaz gertatzen denik. Agenteen praktikak ezarpen estrukturalen baitan gertatzen dira. Haien unean uneko produktu eta ekoizle dira.<sup>176</sup> Estrategia da praktikaren orientazioa. Ibilbidean gertatzen diren gauza asko unean uneko jokoaren baitan gertatzen dira, baina joko eremu guztietan funtsezkoak dira agente bakoitzaren ahalmena eta borondatea eta une bakoitzean adi egotea,

<sup>173</sup> Bourdieu, 1996, 108-114 or.

<sup>174</sup> Bourdieu, 1997, 141-145 or.

<sup>175</sup> Bourdieu, 1999c, 183 or.

<sup>176</sup> Bourdieu, 1999c, 183 or.

zentzu praktikoa zorrotzuta. Izan ere, ezer ez da ausaz gertatzen.<sup>177</sup> Jokoaren baitan gora-behera handiak izan daitezke, baina joeraz agenteen praktikak estrategian oinarritzen dira, eta estrategia interesean, eta interesa habitusean, eta habitusa posizio sozialean, eta posizio soziala kapitalean<sup>178</sup>. Maila batetik besterako itzulpenean ezer ez da mekanikoki gertatzen eta zentzu praktikokoak araua soilik errespetatuko du baldin eta araua ez errespetatzea baino gehiago komeni bazaio, baina honek guztiak ez du esan nahi agenteen interesean ausa nagusitzen denik. Nahiz eta kalkulu hutsa ez izan, nahiz eta mekanikoki ez eratorri, nahiz eta determinatuta ez egon, Bourdieuren ikuspegitik agenteen interesek oinarri sendoak daukate. Hortaz, Bourdieuren arabera ezin da esan agenteek arrazoirik gabe jokatzten dutenik, baina ezin da esan ere arrazionalak direnik.<sup>179</sup>

### 3.2.3.3 Praktikak beti oinarritzen dira interesean

Bourdieuren ikuspegitik interesa (berak definitzen duen bezala) ekintza sozial guztietan dago presente. Ez dago praktika sozial desinteresaturik. Agenteen ekintzak inoiz ez dira doakoak. Beti oinarritzen dira interesean.<sup>180</sup> Bourdieuk definitzen dituen kapitalak soilik ekonomikoak ez diren bezala, Bourdieurentzat ekonomia ez den beste guztia ez da desinteresatua. Bourdieuren aburuz Artea artearekiko maitasunagatik aldarrikatzean ere interesa dago oinarrian.<sup>181</sup> *Interes* kontzeptuaren ikuspegi ekonomizistaren erruz, interes ez ekonomikoak ez dira interesatutzat jotzen, ekintza desinteresatutzat baizik. Interesatuak dira, ordea, baina interes horiek ez dira ekonomikoak bakarrik: eremu bakoitzak bere interesak dauka.<sup>182</sup>

Beraz, ekintzak interesatuak direla esatea hain da baieztapen lausoa eta esanahi zehatzik gabea, ezen zentzua galtzen duela analista sozialarentzat zentzu orokor batean, baina ez eremu bakoitzean aztertuz gero; hauetariko bakoitzean agenteek beren interesa daukate. Izan ere, eremu batzuetan etekin ekonomikoak bilatzea oso gaizki ikusia dago, edo areago batzuetan, baita erabat debekatua ere. Eremuari dagozkion bestelako etekinak bilatzea, ordea, ondo ikusia egoteaz gain, interes horiek ez bilatzea zigortu egiten da.<sup>183</sup>

### 3.2.4 Espazio sozial ez estatikoa

Bourdieuren espazio soziala ez da estatikoa. Eredu teoriko honek ez dio uko egiten aldaketa sozialari. Bourdieuren analisiak une historiko zehatzei dagozkie, baina horrek ez du esan nahi aztertutako egoera hori egonkorra denik. *La reproduction* liburu ospetsuan, adibidez, Hezkuntza Sistemaren analisi sinkronikoa ez ezik diakronikoa ere beharrezkoa dela adierazten du Bourdieuk.<sup>184</sup> Bere ikuspegitik ezer ez da betidanikoa eta ezer ez da betirako. Bourdieuren arabera, edozein egoera historikok ekoizten du historia. Aldaketa soziala etengabea da.<sup>185</sup>

<sup>177</sup> Bourdieu, 1996, 33-36 or.

<sup>178</sup> Bourdieu, 1996, 108-114 or.

<sup>179</sup> Bourdieu, 1997, 140 or.

<sup>180</sup> Bourdieu, 1997, 141-145 or.

<sup>181</sup> Bourdieu, 2000a, 133 or.

<sup>182</sup> Bourdieu, 2004, 115 or.

<sup>183</sup> Bourdieu, 1997, 141-145 or.

<sup>184</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 113 or.

<sup>185</sup> Bourdieu, 2000a, 38-60 or.

### 3.2.4.1 Ikuspegi historizista

Gizabanakoa, historia sozialean txertatua ulertu behar da<sup>186</sup>. Bourdieuren ikuspegia ez da unibertsalista, historizista baizik: mundu sozialaren izaera kontinjentea da eta unean uneko forma hartzen du<sup>187</sup>. Esate baterako, leku eta une bakoitzean dagoen estrategia ezberdinen multzoa aldatu egiten da leku eta une bakoitzaren arabera: Bourdieuren ikerketetatik adibide bat jartzearren, aipa dezagun eskontza estrategiek Kabilian ohorea lehenesten dutela, eta Biarnon, berriz, kapital ekonomikoak Kabilian ez bezalako garrantzia daukala<sup>188</sup>.

Mundu sozialaren logika sakonenak antzeman ahal izateko beharrezkoa da historikoki datatutako eta lekututako errealitate enpiriko baten berezitasunetan murgiltzen saiatzea, baina kasu horren azterketa egitean ezin da ahaztu aztergai den egoera konfigurazio posibleen unibertso finito baten kasu bat bezala hartu beharra dagoela.<sup>189</sup>

Mundu sozialaren edozein egoera behin-behineko oreka baino ez da, dinamikaren unean uneko egoera. Banaketa eta sailkapen guztiak berreraiki egiten dira etengabe. Banaketaren funtsean bertan dago gatazka: baliabide mugatuak eskuratzeko borroka da.<sup>190</sup>

### 3.2.4.2 Aldaketarako aukerak beti testuinguru batean

Bourdieuren teorian uko egiten zaio estatikotasunari nahiz determinismoari. Agenteen bizitza ez dago predeterminatuta. Agenteen printzipioak eta printzipio horiek gauzatzeko bideak definitu eta berdefinitu egiten dira etengabe.<sup>191</sup>

Determinismoak eta askatasun indibidualak osatzen duten dikotomiaren aurrean, Bourdieuk Pascalen paradoxa aldarrikatzen du: banakoak ezagutza eremu batzuk determinatuta dauzka eta ikuspegi horretatik ezagutu ditzake bere determinazioak (honek ez du esan nahi dena determinazioa denik) eta determinazioak gainditzen saia daiteke. Introspektzioa, nork bere buruari buruz hausnartzea, tresna eraginkorra izan daiteke lan horretan.<sup>192</sup> Hala ere, habitusaren kontzientzia hartzeak ez du dominazio bertan behera uzten. Gorputz sozialaren arauak gorputzaren arau bihurtu dira eta gorputzak askatzeko borondatea traizionatzen du, habitusa atxikirik baitauka. Habitusaren ezaugarriak aldatu nahi izanez gero, kontzientzia eta borondatea ez dira nahikoak, ezaugarri horien eraginkortasuna modu egonkorrean errotuta baitago gorputzean.<sup>193</sup>

Baina hautsi daiteke espektatiba eta aukeren zirkulua. Gaur egun, adibidez, batetik Hezkuntza Sistemarako sarrera orokortuak eta segurtasun falta profesionalak biderkatu egiten dituzte desajusteak eta honek tentsioak eta frustrazioak eragiten ditu, etorkizun falta orokortzen ari baita;

<sup>186</sup> Bourdieu, 2000a, 73 or.

<sup>187</sup> Bourdieu, 1996, 41 or.

<sup>188</sup> Bourdieu, 1996, 75 or.

<sup>189</sup> Bourdieu, 1997, 12 or.

<sup>190</sup> Bourdieu, 1991, 237 or.

<sup>191</sup> Bourdieu, 1991, 96 or.

<sup>192</sup> Bourdieu, 1999c, 174 or.

<sup>193</sup> Bourdieu, 1999c, 236 or.

bestetik, orden sinbolikoaren autonomia ere kontuan hartu behar da, bereziki espektatibak eta aukerak doitu ez daudenean, askatasun tarte erlatiboak gerta baitaitezke.<sup>194</sup>

Aldaketa soziala egoerak ahalbidetu ditzakeen aukeren arabera da, une bakoitzean aukeran zer egin eta zer pentsa daitekeen eremu bakoitzean. Halaber, aldaketa soziala baita ere agenteen interesen izaeraren arabera da, izan baitaitezke interes-aukera seguruagoak, estandaragoak, edo baita sozialki berritzaileak diren interesak ere, edo baita oraindik sozialki sortuak ez dauden interes erabat berri batzuetara bideratuak. Aldaketaren motorra gatazkak dira eta helburutzat indar harremanak mantentzea edo aldatzea izan ditzakete. Borrokan ari diren agenteen estrategiak beren posizioaren arabera dira (baldintzatuta daude, ez determinatuta): kapital kopuru eta moten jabetzak baldintzatzen du habitua eta habitusak bultzatzen ditu jarrera bat edo beste hartzera.<sup>195</sup>

### 3.2.4.3 Erresistentziaren fenomenoak

Bourdieu dikotomia tradizional ugari hausteko borondatea erakusten du. Gatazkaren eredu eta adostasunaren eredu aurkarizat jo izan dira maiz, baina Bourdieu biak integratzen ditu. Bourdieuren espazio sozialean beti daude adostasuna eta gatazka, nahiz eta hauen forma eta intentsitatea oso aldakorra den. Bourdieu hezkuntza sistemari buruz hitz egiten duenean, adibidez, adostasuna eta gatazka ageri dira: batetik, dominatu askok nola edo hala aurka egiten diote hezkuntza sistemari (*La reproduction*-en berrekoizpena azpimarratu arren, alderdi gatazkatsuak ere badaudela aipatu izan zuen Bourdieu eta, gainera, ezin da ahaztu Bourdieu zabaldu zituela Paul Willis-en lanak Frantziako Estatuan); bestetik, Bourdieu gaitzetsi egiten ditu hezkuntza sistemari buruzko zenbait analisi, zeren erresistentziaren intentsitatea puztuz ahaztu egiten baitute dominatuak dominatu direla baita beren burmuinetan ere.<sup>196</sup>

Dominatzaileen ideologia, ideologia dominatzailea zela esan zuen Marxek. Bourdieuren arabera, argi dago, batetik, kapitalaren babesa daukanak *zentzuzkoa* zer den inposatzeko gaitasun handiagoa daukala. Gainera, dominatuak ere dominazioa mantentzeko bere ekarpena egin ohi du maiz<sup>197</sup>. Dominazio harreman batean dominatuaren ezagutza ekintzak, neurri batean behintzat, ezinbestean dominazioaren aitortza ekintzak dira; beraz, menekotasunaren adierazle<sup>198</sup>. Adibidez, hierarkizazio printzipio legitimoen definizioan sarri adostasuna izan ohi da. Jokoan murgiltzean joko arauak onartzen diren heinean, gutxieneko adostasunak daude: helburuak, arauak eta abar. Hots, borroka legitimoetarako bitarteko eta apostuen definizioa aldi berean dira botere bitartekoak eta boterea eskuratzeko borrokan apostuak. Beraz, printzipio horiek onartuz gero, dominatuek unean uneko hierarkia ere onartzen dute.<sup>199</sup>

Baina hori Bourdieuren ikuspegiaren zati bat da. Beste zatia ezagutzea ere ezinbestekoa da. Bourdieu<sup>200</sup> dioenez, dominazioa inoiz ez da erabatekoa. Dominazioa gauzatzean kontraesanak

<sup>194</sup> Bourdieu, 1999c, 309 or.

<sup>195</sup> Bourdieu, 1997, 63 or.

<sup>196</sup> Bourdieu, 1996, 50-51 or.

<sup>197</sup> Bourdieu, 1996, 133-134 or.

<sup>198</sup> Bourdieu, 2000b, 26 or.

<sup>199</sup> Bourdieu, 1999b, 317 or.

<sup>200</sup> Bourdieu, 2000b, 141.



gertatzen dira. Bourdieuren arabera, dominazioa esparru orotan dagoen arren, forma eta intentsitate aldakorra dauka, eta beti erakusten ditu kontraesanak Bourdieuk, esate baterako, 1968ko maiatzeko mugimenduak aipatzen dizkigu. Jatorri sozial altu bati lotutako estatus aspirazioen eta lorpen akademikoei lotutako lorpenen arteko desfasea handien zen lekuetan lortu zuten intentsitate handiena<sup>201</sup>. Desfase horiek gatazka iturri izaten dira.

Bourdieuren<sup>202</sup> arabera, agente nahiz talde guztiek mundua testu bat balitz bezala irakurtzen dute eta irakurketa horretan beren galbahea jartzen dute beti. Agenteen gorputz eta ohiturek hautemate eskemen sistema bezala funtzionatzen dute, bai pentsamenduari bai ekintzari dagokionez.

Baina esango genuke erresistentziaren ideiak ez daukala behar adinako zentraltasuna Bourdieuren ekarpenetan eta horrek kamustu egiten duela bere analisi ahalmena. Foucault-ek ikuspegiak ere antzeko arazoak dauzka.

Certeau-k<sup>203</sup> biei, Bourdieu eta Foucaulti, egin zien kritika zentzu horretan. Certeuren arabera, dominatu estatusa izateak ez du esan nahi pasiboa edo otzana izatea. Harreman sozialek beti beren terminoak determinatzen dituzte, eta ez alderantziz, eta horrelako determinazio erlazionalen aniztasun inkoherente eta sarri kontraesankor bat gurutzatzen da indibiduoengan. Errepresentazio baten presentziak edo zirkulazioak erabiltzaileentzat (ez ekoitzi dutenentzat) zer diren jakiteko, Certauk dio aztertu egin behar dela ekoizleak ez diren erabiltzaileek nola manipulatu dituzten. Izan ere, erabiltzaileek eraldatu egiten dituzte kultur dinamika dominatzailearen ekoizkinak beren interes eta arauetara egokitzeke.

Foucaulten dispositibo diziplinatzaileei dagokienez, Certauk dio aztertu beharra dagoela jendeak nola lortzen duen erresistentzia gizarte osoa horren menpe gelditu ez dadin. Foucaulten gizarte diziplinarioari buruz Certauk dio ezinezkoa dela gizarte baten funtzionatzeko era prozedura dominatzaile mota bakarrera murriztea. Egon, beti daude beste teknologia batzuk, eta hauek joera dominatzaileekin gurutzatuta funtzionatzen dute. Gizarteetan gehienbat joera nagusiek antolatu ohi dituzte erakunde arauemaileak, baina haiekin batera beti egon ohi dira beste praktika kopuru kontaezin bat, gehienetan *minor* mantendu ohi direnak. Gainera, teknologia dominatzaileak ez dira hain koherenteak izaten elkarrekiko, zerena, besteak beste, beren helburua praktika mota asko dominatzea baita.

Bourdieu-ri buruz Certauk dio Bourdieuren ikuspegian nagusi dela posizio aproposaren ekonomia, eta honek bi forma hartzen dituela: kapitalaren maximizazioa, ondareari dagokiona, eta gorputzaren garapena, indibiduala nahiz kolektiboa, iraupena nahiz espazioa sortzen dituen. Bi formak funtsezkoak diren arren, Certauk dio Bourdieuk ez dituela artikulatzen, ez duela kontraesan benetan eraginkor handirik ikusten, eta ondorioz espazio teoriko itxiak sortzen ditu bere ikuspegian. Agenteek beren posizioarekiko modu koherentean eta inkontzientea jokatu dute. Egiturak alda daitezke, mugikortasun sozialaren printzipio bihurtuz, baina lorpenek ez dute mugimendua sortzen. Habitusak bermatzen du gizartearen egonkortasuna. Estrategien

---

<sup>201</sup> Bourdieu, 1996, 54 or.

<sup>202</sup> Bourdieu, 2000b, 21.

<sup>203</sup> Certeau, 1988.

multiplizitateak ahalbidetzen ditu fenomeno sozialak, baina, Certeuren arabera, aktore pasiboa islatzen da ikuspegi horretan. Bourdieuren habitusak ezaugarri horiek dauzka: koherentzia, egonkortasuna, inkontzientzia eta lurraldetasuna. Erreproduktzioaren legea nagusitzen da. Certeauk Bourdieuren errealitate sozialaren ikerketen konplexutasuna nabarmentzen du, baina, aldi berean, Certeauk dio errealitate horri Bourdieuk agresiboki arrazoi dogmatikoak inposatzen dizkiola eta ito egiten duela Bourdieuk berak lehenago azaldu duen konplexutasuna.

Halaber, Preciado-k<sup>204</sup> kritikatu egiten ditu Foucault-en boterearen eta subjektibizazioaren teoria eta Judith Butler-en nortasun performatiboaren teoria. Preciadoren arabera, biopolitikaren diziplina normalizatzaileen amaraunak ez ditu gorputzaren subjektibizazio formak determinatzen. Halaber, gorputza ez da nortasunari buruzko diskurtsoen emaitza performatiboa. Gorputzak ez dira materia pasiboa. Arrakasta eta intentsitate maila ezberdinekin bada ere, gorputzek ihes lerroak trazatzen dituzte. Subjektibazio forma berriak ahalbidetzeko, gorputzak gai dira agentzia kolektiboen bitartez hainbat teknologia bere egiteko.

Honenbestez, ondorioztatuko genuke dominatua ez dela orrialde zuri bat. Beraz, hari honi tiraka, Bourdieuren ikuspegiari ekarpen berri bat egin geniezaioke edo, behintzat, ezaugarri hau nabarmendu genezake. Bourdieuren<sup>205</sup> arabera, *irakurlea* kontuan hartzen denean, sarri ahaztu egiten da irakurle bakoitzak baldintza sozial ezberdinak bizi dituela eta, beraz, funtsik gabekoa dela irakurle unibertsal baten ideia, denek berdin irakurriko balute bezala. Bourdieuren hausnarketa honek pisu handia dauka. Irakurlea aipatzen du Bourdieuk, baina ez genuke soilik liburuak irakurtzen dituen banako edo talde batean pentsatu behar. Bourdieu soilik inkestatuari buruz ari da, baina ideia hori zabalduko bagenu, posizio bakoitzak bere habitusa ekoizten duenez eta habitus bakoitzak bere mundu ikuskera izateko joera daukanez, dominazio eta erresistentzia ulertzeko *irakurlearen* kontzeptua agente orori zabalduko litzateke.

Hori eginez gero, nahiz eta Bourdieuk ez duen egiten, Bourdieuren ikuspegi teorikoa erabiliz esan ahal izango genuke habitus adina irakurle mota dagoela. Kontuan hartuz mundu soziala gertaera etengabeen uholde erraldoi bat dela eta, beraz, egunerokotasunean bizitzeko banakoek nahiz taldeek mundua irakurri egiten dutela etengabe, gertaera guztietatik batzuk bakarrik hautematen dituztelarik une bakoitzean, ondorioztatuko genuke habitus adina irakurle mota dagoela. Hortaz, dominatua ez litzateke inoiz orrialde zuri bat. Ezingo litzateke bere gainean nahi den guztia idatzi. Esango genuke irakurlearen galbaheak batzuetan zulo handiak dauzkala, besteetan oso zulo txikiak, zulorik ez agian, eta gehienetan tarteko egoeraren batean dagoela.

---

<sup>204</sup> Preciado, 2008.

<sup>205</sup> Bourdieu, 1996, 116 or.

## II. Eskolak baditu milaka aurpegi

Eskola eztabaida iturri izan ohi da eta da maiz. Eskolari buruz ikuspegi askotatik hitz egin dute. Atal honetan eskolari buruzko hainbat ikuspegi azaltzen ahaleginduko gara. Merino, Sala eta Troiano-k<sup>206</sup> hezkuntza politikarekiko lau ikuspegi ideologiko-politiko bereizten dituzte:

- a) Muturreko liberalismoa (merkatuan oinarritutako liberalismoa): beraiek *merkatu librea* deitzen dutenean oinarritutako gizarteak soilik berma dezake askatasunerako eskubidea eta, aldi berean, aberastasun orokorra sustatzearen bitartez integrazio soziala. Horrexegatik diote arriskutsua dela estatuak hezkuntza arloan eskuhartzea, traba egiten duelako indibiduen, familien eta eskolen arteko lehiakortasuna. Estatuak oro har hezkuntza sistematik at mantendu behar du. Soilik indibiduo batzuen gehiegikerien aurrean eskuhartu behar du.
- b) Kontserbadurismo soziala (liberal politikoak): gizarte armoniosu eta meritokratikoa du helburu, indibiduo bakoitzak merezi duen posizioa beteko duen gizarte, posizio hori indibiduoaren gaitasunaren eta ahaleginaren emaitza denean. Xede hau bete ahal izateko ezinbestekoa da indibiduo guztiek beren bizitzetan aukera berdintasuna izatea. Horretarako mugikortasun sozialerako kanalak bermatu behar dira, hauen bitartez indibiduoek sozialki *gora* egiteko aukera izan dezaten. Kanal horietako bat litzateke hezkuntza sistema. Ikuspegi honek estatuaren eskuhartze handiagoa onartzen du baldin eta estatuak funtzionatzeko modu sozial meritokratikoa, herrialdeko industriarentzat erabilgarria izango den lanekuan inbertsioak eta integrazio soziala sustatzen baditu.
- c) Sozialdemokrazia: ikuspegi honen arabera eskubide zibil indibidualak eta askatasun indibidualak helburu dituzten politika sozialak ez dira nahikoa eskubide sozialak, berdintasuna eta justizia soziala bermatzeko. Horrexegatik estatuak eskuhartzen du gutxieneko beharretatik haratagoko beharrak asetze aldera. Ikuspegi horri jarraiki eskaintzen du hezkuntza sistema publikoa. Hezkuntza eskaintza merituez baino indibiduen beharrez arduratzen da. Ezberdinkeriei aurre egiteko neurri gehigarriak hartu behar izaten dira helburu den taldearen arabera. Horri deitzen zaio hezkuntza konpentsatorioa.
- d) Utopismo igualitarista: ikuspegi honek funtsean bi kritika egiten dizkio ikuspegi sozialdemokratari. Batetik, eskolatzea zabaltzeak eta hezkuntza konpentsatorioak ez dute lortu ezberdinkeria sozialekiko paraleloak diren hezkuntza arloko ezberdinkeriak gainditzea. Bestetik, hezkuntza sistemak ez du gainditu izaera hierarkizatzailea: hezkuntza sistemak titulazio ezberdinak helburu dituen adar anitz sortzen dituzte, eta, gainera, adar hauetako batzuk eskola porrotarekin lotzen direnean, eskola, ezberdinkeria sozialak legitimatzen ari da sistema kapitalistan. Horren aurrean bi alternatiba proposatu dituzte hezkuntza sistementzat: batetik, ekoizpen modu kapitalista gainditze aldera, langile klasearen tresna askatzailetzat erabiltzea, eta, bestetik, hezkuntza sistemaren aukerak ukatuz, deseskolatzearen aldeko jarrerak sustatzea edo lanaren banaketa sozial txikietara bueltatzea.

Bereizketa hau erabilgarria izan daitekeela ukatu gabe, ez zaigu egokiena iruditzen, batik bat aztergai dugun fenomeno, ibilbide akademiko-profesionalak, analitzatzeko, eta, gainera, Merino,

---

<sup>206</sup> Merino & Sala & Troiano, 2003.

Sala eta Troianok ematen dituzten zenbait azalpen murriztaileak iruditzen zaizkigu. Dagokigun gaia aztertze aldera, bost ikuspegi bereiziko genituzke:

- a) Eskola garaikidearekiko ikuspegi dominatzaileak.
- b) Marxismoaren interpretaziotik eratorritako korrespondentziaren teoria.
- c) Weber-en ekarpenetatik eratorritako ikuspegiak.
- d) Marx eta Weber uztartuz Bourdieuk eskaintzen duen ikuspegia.
- e) Erresistentziaren teoriak.

Ikuspegi horiek guztiak azaltzarren, atalak honela egituratu ditugu:

- 1) Lehenengo atalean a) ikuspegiari dagozkion hainbat ekarpen aztertuko ditugu (Durkheim, Parsons, Ilustrazioa, Dewey...).
- 2) Bigarren atalean b), c) eta d) ikuspegiari dagozkien ekarpenak analizatuko ditugu (Bowles eta Gintis, Baudelot eta Establet, Parkin, Rist, Bourdieu...).
- 3) Hirugarren atalean erresistentziaren teoriarikiak izango ditugu hizpide (Gramsci, Freire, Apple, Willis, Giroux...)
- 4) Laugarren atalean hezkuntza sisteman izan diren erreformak aztertuko ditugu, hezkuntzaren eremuan zer nolako eragina izan duten zehazte aldera.

## 1. Eskola modernoa

### 1.1 Durkheim-en hezkuntzaren soziologia, liberalak eta tradizio idealista

Durkheim funtsezko erreferentzia da hezkuntzaren soziologian. Bere ekarpenek<sup>207</sup> hezkuntzaren eremua aztertzeko oinarri teorikoak ezarri dituzte. Durkheim-en arabera, aro historiko bakoitzak bere hezkuntza mota dauka. Ez dago hezkuntza unibertsal edo betierekorik. Hezkuntzaren xedea belaunaldi berriak une historiko bakoitzeko baldintzetara moldatzea da. Ondorioz, hezkuntzak garaian garaiko egoerara egokitu behar du. Ikasleak ideia zaharkituegien edo aurreratuegien arabera heziz gero, hezkuntzak erresistentzia indartsuekin egingo du topo.

Hezkuntzaren izaera soziala nabarmentzen duenez, Durkheim-ek aurre egiten die hezkuntza indibiduoari dagokiola esan eta ondorioz psikologiaren eremuan kokatu dutenei. Durkheim-ek korrante psikologista horren kideztat ditu Kant, Mill, Herbart eta Spencer.

Durkheim-en ikuspegiaren beste muturretik, Dewey-k<sup>208</sup> dio bizitzan funtsezkoena existitzen jarraitzeko borroka dela. Iraupena bermatzeko modu bakarra etengabe berritzea da. Elikadura eta ugalketa maila fisiologikoan direna da hezkuntza bizitza sozialean. Lorazainak lorearen hazkuntza ahalbidetzen duen bezala, hezitzaileak ingurune egokia sortu behar du haurrak barruan daramana gara dezan. Deweyk dioenez, kanpotik ezartzen den helburua mugiezina eta zurruna da. Ez da jakintza sustatzeko estimulua, baizik eta gauza jakin bat egiteko kanpotik ematen den agindua.

---

<sup>207</sup> Durkheim, 1993.

<sup>208</sup> Dewey, 1995.

Jarduera libreagoa eta hobeto orekatua iradoki beharrean, jarduerari ezartzen zaion muga da. Hezitzailearen nahiz hezituaren zereginak mekanikoak eta menpekoak bihurtzen dira.

Hildo honi jarraiki, Chomsky<sup>209</sup> ados dago Bertrand Russell eta John Dewey-k hezkuntzari buruz egin dituzten ekarpenekin. Chomskyk ikuspegi humanistatzat definitzen ditu. Ilustrazioan kokatzen ditu bere sustraiak, XVIII. mendean. Dewey eta Russell-ek indartu egin zuten pentsamolde hau. Ikuspegi honen arabera, hezkuntza ez da edukinontzi bat urez betetzearen parekoa, baizik eta lore bati hazteko ematen zaion laguntzaren antzekoa. Hau da, baldintza egokiak sortu behar dira ohiko eredu sortzaileak loratu daitezten. Nolanahi ere, Chomsky-k dio ikaskuntzan uztartu egiten direla jaiotzetiko gaitasunak, jaiotzetik determinatuta dauden heltze prozesuak eta testuinguruarekiko hartueman prozesuak, baina, Chomsky-ren arabera, orain arte ikerketek ondorioztatu dituzten emaitzek ez dute aukera ematen zehazteko hartueman hauek nola gauzatzen diren eta faktore guztien izaera zehatza zein den.

Dewey eta Chomsky-k ordezkutzen duten tradizioa aldaera berdinzalea den arren (eta joera nagusiarekiko dituzten ezberdintasunak ez dira gutxietsi behar, batzuek eta besteek helburu politiko oso ezberdinak baitauzkate), hauek ere Lerenak<sup>210</sup> *tradizio idealista* deitzen duenaren baitan koka ditzakegu. Lerenaren arabera, tradizio idealista soilik bi subjektutan oinarritzen da: irakaslea eta ikaslea. Tradizio idealistaren araberrako ikaskuntza prozesuak izaera bikoitza du: irakasleak saiatu egin behar du ikasleak barruan daramana azaleratzen, esnarazten, eta bide batez ikasleak berezkoa lukeena askatzen. Hezkuntzaren bitartez irakasleak ikaslea bere sustraiekin harremanean jarriko luke. Gakoa ez litzateke kanpotik inposatzen dena baizik eta kanpokoarekiko harremanean barruan bilatzen, aurkitzen eta garatzen dena. Hezkuntza sortze edo ekoizpen bezala baino ateratze edo askatze bezala errepresentatzea aspaldiko kontua da, Lerenak dioenez. Horren zantzuak aurki ditzakegu, adibidez, latinezko *eductio*, *educatio* hitzean: honen esanahia gauza bat bestearengandik ateratzea da. *Ezagutu zure burua* aldarri delfikoa ere horren arrastoa litzateke, Lerenaren arabera.

Nolanahi ere, Durkheim-ek dioenez<sup>211</sup>, bere ikuspegiarekin bat etorritik gainerako ikuspegiak ere (Kant, Dewey eta enparauak barne har ditzakegu) ez dute sekula pentsatu gizaki jaiotzetik dela izan daitekeen eta izan beharko lukeen guztia. Nabarmenegia da gizakia pixkanaka eratzen dela. Baina Durkheim-en ikuspegia eta gainerakoena ez dator bat, esate baterako, hezitzailearen zereginen, eta horrek islatzen du zeinen modu ezberdinean ikusten duten hezkuntza. Durkheim-en arabera, hezitzailearen zeregina ez da haurraren gorputz eta adimenezko organismoan dauden ezkutuko gaitasunak argitara ateratzea. Gaitasun hauek erabat definituak baleude, hezitzaileak ez luke ezer berririk sortuko haurraren, eta, beraz, bere zeregina birtualtasun horiek alperrik ez galtzen, moteltzen edo desbideratzen uztea litzateke. Durkheim ez dator bat ikuspegi honekin. Durkheim-ek dioenez, edozein egongo litzateke prest onartzeko Erroma eta Grezia klasikoan hezkuntzaren helburu bakarra erromatarrak eta greziarrak egitea zela, elkartasunez joka zezaten erakunde politiko, moral, ekonomiko eta erlijiosoek osatzen zuten multzoarekiko. Baina aldi berean ohikoa da sinestea hezkuntza garaikideak gainditzen ari direla zeregin sozial horiek eta

---

<sup>209</sup> Chomsky, 2005a, 48, 231 or.

<sup>210</sup> Leren, 1980.

<sup>211</sup> Durkheim, 1993.

etorkizunean baldintzapean sozialetatik erabat askeak izango direla. Aitzitik, Durkheim-en arabera, hezkuntzak izaki berri bat sortzen du gizakiarengan. Hezkuntza gizartearen lana da.

Edonola ere, Durkheim-en arabera, hezkuntza gauzatzea ez da orri zuri baten gainean idaztea bezala. Ez da edukinontzi bat urez betetzearen gisakoa. Hezkuntzak ezin ditu bere egitasmoak nahieran bete. Haatik, hezkuntza beti errealitate baten gainean gauzatzen da eta hezkuntzak ezin du errealitate hori autonomia osoz desegin, aldatu edo sortu. Herrialde bakoitzaren historiaren harian, ideia multzo bat ekoizten da giza izaeraz, giza ahalmen bakoitzaren garrantziaz, eskubideez, betebeharez, gizarteaz, gizabanakoaz, aurrerapenaz, zientziaz, arteaz, eta abar. Gizarte bakoitzak bere eredu ideala eraikitzen du, aldi berean bakarra eta anitza dena. Durkheim-en arabera, ideia hauek guztiek osatzen dute herrialde bakoitzaren izpiritu nazionalaren oinarria. Hezkuntza guztiek ideia horiek kontzientzietan txertatzea dute helburu, hala dirudunenetan nola txiroenetan, bai karrera liberaletan dabiltzanenetan bai industrial dabiltzanenetan. Hezkuntzak umearen baitan piztu egin behar ditu, batetik, gizarteari oro har egokiak iruditzen zaizkion egoera fisiko eta mentalak eta, bestetik, gizarte talde espezifiko bakoitzak (kastak, klaseak, familiak, lanbideak) beharrezkotzat dituen egoera fisiko eta mentalak. Gizarteek iraun ahal izateko beharrezkoa da gutxieneko homogeneousutasuna, baina hori bezain beharrezkoa da ezberdintasuna, eta hain zuzen bi hauek luzatzen eta indartzen ditu hezkuntzak, batetik homogeneousutasuna eta bestetik ezberdintasuna eta espezializazioa.

Lerenak<sup>212</sup> tradizio idealista deitzen duena bat dator ezberdintzearen ideiarekin hein batean, nahiz eta bere oinarritzko ikuspegitik interpretatzen duen. Lerenak dioenez, tradizio idealistak hezkuntzaren bi funtzio nabarmentzen ditu: aginte postuetarako jaiorenak hautatzea eta sailkapen hau hautatuek nahiz baztertuek legitimoa, naturala eta ukaezina balitz bezala onartzea. Lerenaren arabera, Platonek, adibidez, hezkuntzaren galbahe legitimatzailea erabiltzea proposatu zuen ezberdintasunean oinarritutako hurrenkera sozial *natural* eta *zuzena* sortzeko, berezkoak lirakeen ezberdintasunak abiapuntutzat harturik. Lerenaren arabera, Platonek dio norbanako bakoitzak talentu ezberdina daukala, batzuek gaitasun handiagoa dutela jarduera batzuetarako eta besteek beste batzuetarako, eta ondorioz hiritar bakoitzak jaioren denerako zereginean jardun beharko lukeela. Horretarako hezkuntza sistema lehiaketa eremu izan behar da: gero eta jende gehiago sartu lehian, gero eta ukaezinagoa izango da bere emaitza. Honela, Lerenaren arabera, Platonek *barnekoa kanpora ateratzearen* mito sokratikoa formalizatu egiten du eta hezkuntza sistemaren bi zutabeak uztartu egiten ditu: barnean dagoena ateratzea eta eskola irekia. Hau da, hezkuntza jende guztiarentzat egina dago, jende guztiak integratu beharko luke, baina jende guztiak ez du hezkuntza sisteman modu berean aurrera egiteko gaitasunik, eta arazoa ez da hezkuntza sistemarena, baizik eta ikasleen gaitasunena. Tradizio idealistaren arabera, hezkuntza sistemaren baitako ezberdinketen, banaketan eta hierarkizazioaren arrazoiak haurren garapen biopsikologikoaren aroetara egokitzean datza. Hezkuntza sistema mekanismo bakar, jarrai eta progresibo bezala aurkezten da. *Onenen* galbahe hautatzailearen funtzioa da. Izan ere, ikuspegi honen arabera, hezkuntza sistema erabat neutrala, berez ona, transhistorikoa, naturala eta beharrezkoa da.

Lerenaren arabera, tradizio idealista esentzialista da, gizakiak berezko hainbat ezaugarriren nukleo esentziala duela suposatzen baitu. Gainera, tradizio idealistaren arabera, harreman sozialen

---

<sup>212</sup> Lerenak, 1980.

protagonista bakarrak subjektuak lirateke eta borondate erabat libre eta kontzientea lukete. Halaber, tradizio idealistak suposatzen du kultura unibertsala badagoela eta hori ikastea komenigarria dela.

Durkheim-en<sup>213</sup> arabera, berriz, arestian aipatu dugun bezala, hezkuntzak ez du ikaslearen baitan dagoena aterarazten, hezitzailea ez da loreari hazten laguntzen dion lorazaina. Aitzitik, Durkheim-en arabera, hezkuntzak izaki berri bat sortzen du gizakiarengan. Haatik, lehen azaldu dugun bezala, Durkheimen arabera hezkuntza ez da orri zuri batean idaztea bezala, hezkuntza beti errealitate baten gainean gauzatzen delako eta errealitate hori ezin delako nahieran eraldatu. Baina Durkheim-ek dio hezkuntza beste zentzu batean ere ez dela orri zuri batean idaztea bezala. Izan ere, hezkuntzak ez du gizakia hutsetik abiatuz eraikitzen, Locke eta Helvetiusek uste zutenaren kontra. Gizakiarengan gauzatuak dauden aurrejoeren gainean aritzen da hezkuntza, sortzetiko joerak oso indartsuak baitira, errotik deusezten edo eraldatzen oso zailak. Baldintza organikoek eragiten dituzte joera hauek. Hezitzaileak eragiteko tarte txikia du hauengan. Haatik, gizakiaren sortzetiko ezaugarriak oso orokorrak eta lausoak direnez, ore baten antzekoak, alde handia dago jaiotzetiko kualitateen eta hauek bizitzan zehar hartuko duten forma espezifikoaren artean. Hots, sortzetiko eraketak ez du etorkizuna estuki determinatzen. Izan ere, sortzetiko ezaugarri gehienak oso malguak dira eta determinazio oso ezberdinak har ditzakete. Umeak gurasoengandik jasotzen dituen ahalmenak oso orokorrak dira, baina ahalmen horietako bakoitza helburu eta zeregin mota oso ezberdinetarako balia daiteke. Durkheim-en arabera, alde handia dago jaiotzetiko birtualtasun zalantza korren eta gizartean baliotsua izateko eraiki behar den izaki sozial arras definituaren artean. Bi hauen artean dagoen aldea baliatzen du hezkuntzak bere lana egiteko.

Horren guztiaren ondorioz, Durkheim-ek dioenez, hezkuntza sozializatzailea da belaunaldi gazteentzat. Durkheim-en arabera, gizabanako bakoitzak bi izaki dauzka bere baitan: batetik, izaki indibiduala, norbere buruari eta gertaera pertsonalei dagokizkien egoera mentalek osatzen dutena eta, bestetik, izaki soziala, norberaren baitan norbera partaide den taldearen erlijiozko sinesteak, sinesteak eta praktika moralak, tradizio nazionalak edo profesionalak edo bestelako iritzi kolektiboak islatzen dituen. Izaki soziala ez da berezkoa gizakiaren oinarritzko eraketan eta ez da bere kasa garatzen. Salbu eta herentziari dagozkion hainbat ezaugarri, haurrak jaiotzen denean bere izaera indibiduala besterik ez dakar. Berekoia eta asoziala da. Hezkuntzaren zeregina da izaki indibidual horri bizitza morala eta soziala ezartzea. Durkheim-ek dioenez, hezkuntzak izaki berri bat sortzen du gizakiarengan.

Durkheim-en arabera, gizarteak ateratzen du gizakia bere isolamendu indibidualetik. Gizarteak behartzen du gizabanakoa soilik bereak ez diren interesak ere kontuan hartzera. Gizarteak erakusten dio gizabanakoari bere pasioak eta senak menperatzen eta, halaber, norberaren helburu pertsonalak xede orokorragoen esanetara jartzen.

Gizartetik datorkion guztia kenduz gero, gizakia animalia egoerara itzuliko litzateke, Durkheim-ek dioenez. Animaliak geldi geratu zireneko maila gaintitu ahal izateko, gizakiarentzat ezinbestekoa izan da soilik bere ahalegin pertsonalean ez oinarritzea. Norberarena kontuan hartzeaz gain, gizabanakoa erregulartasunez aritzen da bere antzekoekin lankidetzan. Honi esker sendotzen du gizakiak bere jardueren errendimendua. Belaunaldi batek lortzen dituen lan emaitzak ez dira

---

<sup>213</sup> Durkheim, 1993.

hutsalak ondoren datorren belaunaldiarentzat. Belaunaldi bat desagertzen den bakoitzean, bere ezagutza ez da ezerezean gelditzen. Durkheim-en arabera, ezagutza belaunaldiz belaunaldi etengabe metatu egiten da. Aitzitik, animalia batek ezer gutxi transmititu diezaieke bere ondorengoei.

Belaunaldi batetik besterako transmisioa maiz modu ia oharkabean gauzatzen da, Durkheim-en arabera. Gurasoentzat eta hezitzaileentzat huskeriak diren hamaika ekintza txikik beren aztarna uzten duten umeengan. Hauetaz jabetu ez arren, horrelakoek erabakitzen dute umearen izateko modua eta izakera. Hezkuntza astiro-astiro gorpuzten da, pazientziaz eta jarraikortasunez. Izan ere, hezkuntza, gurasoek eta irakasleek umearengan duten eragina da. Ekintza etengabekoa eta orokorra da, ez soilik kontzienteki norberaren esperientziaren emaitzak ondorengoei komunikatzen dietenean.

Dewey bat dator ideia honekin, baina Deweyk, jakina, bere ikuspegitik interpretatzen du. Deweyk dioenez<sup>214</sup>, hezkuntzaren oinarria komunikazioa da, baina sinesmen, emozio eta ezagutzen komunikazio zuzena ez da baliagarria haur edo gazte batek gizartearentzat egokiak diren gaitasun eta jarrerak gara ditzan. Giroa da bitarteko eraginkorrena. Borondate kontzienterik gabe, haur edo gaztearen disposizioak sakonagoak eta intimoagoak bihurtzen dira hainbat talderen jardueretan gero eta gehiago parte hartu ahala. Baina gizarte konplexuagoa izan ahala, beharrezkoagoa da haur eta gazteen disposizioak garatzeaz arduratuko den giro sozial berezia sortzea. Haur eta gazteen bulkada naturalak edo kontinjenteak ez datoz bat jaio direneko taldearen bizimoduarekin. Horrexegatik taldeak gidatu egin behar ditu. Baina ez koakzio fisikoaren bitartez. Kontrol hau gauzatzeko modu eraginkorrena haur eta gazteek parte hartzen duten egoeren izaeran datza, horretara egokitu egiten baitira. Hezkuntzaren gakoa haur eta gazteen barne kontrola lortzea da eta horretarako kanpo baliabide koertzitiboak erabili beharrean, eraginkorrena interesen bidezko nortasuna, intelijentzia eta ulermena erabiltzea da.

Baina, Dewey-ren estrategia pedagogikoaren aurka, Durkheim-ek gaitzetsi egiten du ikuspegi *epikureoa* deitzen duena, zeren Durkheim-en iritziz hezkuntza ezin baita gauzatu ahaleginik egin gabe eta soilik plazerean oinarrituz. Nork bere burua hertsatzeko, bortxatzeko, behar fisikoa edo morala izaten da oinarri. Haurrak bere irakasle eta gurasoen bitartez bakarrik jakin dezake zein den bere betebeharra. Haurra hezkuntzaren arloren batean espezializatzen bada, ez du egiten bere barruko arrazoiek eraginda. Gizarteak behartzen du haurra. Hori egiteko hezitzaileak eta gurasoak baliatzen ditu. Hezitzaileek eta gurasoek beren jokabidearen eta mintzairaren bitartez erakusten diote zein den bere zeregina haurrari. Autoritate morala da hezitzailearen ezaugarri nagusia. Irakasleak derrigorrez izan behar du haurren kontzientziei agintzeko borondatea eta indarra. Irakasleak horretan sinestu egin behar du. Baina autoritate horren oinarria ez da irakaslearen adimen pertsonala. Gizarteak esleitzen dion zeregin sozialetik eratortzen da. Irakaslea gizartearen organo bihurtzen da. Bere garaiko eta herriko ideia moral handien interpretea da. Durkheim-en arabera, autoritate mota horrek ez du bortxarekin edo zapalkuntzarekin zerikusirik. Haatik, izaera moral batean oinarritzen da, Durkheim-ek dioenez.

---

<sup>214</sup> Dewey, 1995.



## 1.2 Parsons-en funtzionalismoa hezkuntza sisteman

Bere burua Durkheim-en ildoan kokatuz, Parsons-ek<sup>215</sup> ere aztertu zuen hezkuntza sistema. Parsons-en arabera, hezkuntza sistema, egitura sozialaren osagai bat da. Sozialki eta historikoki eraikia dago. Hezkuntza sistemaren helburua subjektuei hainbat esperientzia biziartzea da, horrela subjektuek beren nortasunak eta jokabideak molda ditzaten, oinarritzat hartu beharko lituzketelarik helduen erakundeek dituzten funtsezko arauak. Gizartearentzat beharrezkoa da subjektuek nortasun mota zehatz batzuk izatea eta horrexegatik sortzen ditu gizarteak hainbat egitura indibiduoek hainbat esperientzia bizi ditzaten.

Parsons-ek dioenez, eskolako sozializazioaren bitartez indibiduoak gizartearen oinarritzako balioak barneratuko ditu eta, halaber, indibiduo bakoitzak onartu egingo du lanaren banaketa sozialean bere lekua eta bere posizioa eta horrek dakartzan ondorioak. Azken hau funtzio sailkatzailea da.

Funtzio sozializatzailea, Parsonsen arabera, hezkuntza sistemaren maila guztietan egiten da. Parsonsek *errendimendua* deitzen duena da ardatz.

Familiak eskaini ezin diezaiekena ematen die hezkuntza sistemak indibiduoari, Parsonsek dioenez. Eskolako esperientzia eta bere eragina familiaz haratago doa. Bizitzan emango duen lehen pauso garrantzitsua da, aurreneko aldiz biziko baitu biologikoak ez diren arazoengatik estatus arloko ezberdintzea. Parsons-ek *merituak* deitzen dituenak, bere lanaren emaitzak lirakeenak, hartuko dituzte oinarri. Eskola da indibiduoek ezagutuko duten izaera formal, inpersonala edo burokratikoko estreinako erakundea. Esperientzia horrek trebatu egingo ditu indibiduoak modu horretan antolatua dagoen gizartean molda daitezten. Familiak beste era batera funtzionatzen duenez, ezin die indibiduoari horretan lagundu. Bai, ordea, helduekiko autonomiaz egoera berrien aurrean erabakiak hartzen eta ardurak beren gain hartzen.

Parsonsen arabera, eskolan indibiduoek esperientzia jakin batzuk bizi ditzaten, eskola sozialki egituratua dago. Parsonsek *sozialki egituratua* esaten duenean, esan nahi du gure bizitzetako testuinguru sozialak ez daudela ausazko gertaerez eta ekintzez osatuta. Aitzitik, egituratuta daude, irizpide batzuei jarraitzen diete. Gure jokabideek eta besteekiko harremanek erregulartasunak dauzkate.

Esate baterako, Lehen Hezkuntzako dinamika eraginkorra izan dadin Parsonsek zenbait osagai proposatzen ditu:

- 1) Irakasle bakarra: gizartea ordezkatzeko luke, eta bakarra izanik, elkarbizitza sakonagoa eta estuagoa izan daitekeenez, harreman afektibo intentsoagoa bizitzeko aukera handiagoak daude. Bigarren Hezkuntzan irakasle gehiago daudenez, gizarte formalarekiko antza handiagoa izango du, baina familiatik gizarteranzko trantsizioa progresiboki egin behar da.
- 2) Ikasgelako estatus sistema: ikasle *onak* eta *txarrak* bereiztu egin behar dira, ezberdintzea (ezberdintasun legitimatua) ahalbidetzeko.
- 3) Errendimendua da ezberdintzearen oinarria.

---

<sup>215</sup> Parsons, 1990.

Halaber, Parsons en arabera, zenbait baldintza bete behar dira:

- a) talde homogeneoa izan behar da,
- b) guztiek egin behar dituzte jarduera berdinak,
- c) bi polo egon behar dira, irakaslea eta ikasleen taldea, irakasleak ordezkatzeko duelarik helduen mundua edo gizartea eta bere autoritate guztia hartzen duelarik bere gain,
- d) irakasleak ebaluaziorako arau erlatiboki sistematikoen multzoa kudeatu behar du, ikasle guztiei berdintasunez aplikatu behar diena, ikasleek horrela ikas dezaten izaki generikotzat tratatuak izaten.

Errendimenduari dagokionez, bi alderdi bereizten ditu Parsonsek: kognitiboa (emaitzen ekoizpena) eta morala (arauen onarpena eta barneratzea). Errendimenduaren erreferentzia kulturarekiko adostasuna da (kultura dominatzaileaz ari da Parsons). Errendimendua ardatz harturik, harreman sozial mota bat irakasten du eskolak. Harreman honek hiru ezaugarri izango lituzke:

- a) gauzak egitea ezinbestekoa da, baina egin behar diren gauzak bakarrik egin behar dira, hots, eskolaren baldintzetara eta helduek berezko garrantzia aitortzen dioten jardueretara egokitzen diren gauzak egin behar dira;
- b) lehiakortasuna eta indibidualismoa (besteen aurretik eta gainetik egoteko borondatea) sustatu behar da, baita emaitzetatik eratorritako ezberdintasunen onarpena, indibiduo bakoitzaren bizi baldintza ezberdinen legitimotasuna aitortuz;
- c) autoritatearen aitortza eta onarpena (helduena edo irakasleena).

Honenbestez, Parsons en eredu en errendimendu pertsonalaren ebaluazioak funtsezko rol integratzailea jokatzen du sistemarentzat. Orden sozialak funtziona dezan ezinbestekoa da hierarkia ezartzea eta, beraz, ezberdintasunean oinarritzen da. Ezberdintzea funtzionala da. Funtzionatzeko modu hori onartzea eta legitimatzea ezinbestekoa da. Indibiduoek bereizketa indibidual desatsegina onar dezaten, batik bat galtzaileek onar dezaten, derrigorrezkoa da ebaluazioa inpartziala eta zuzena izatea (Parsonsek ulertzen duen eran), familien estatus sozioekonomikoekiko independentea.

### 1.3 Davis eta Moore: ezinbesteko estratifikazioa

Pentsamendu korrante honi jarraituz, Davis eta Moore-k<sup>216</sup> 1972. urtean zioten ez dela inoiz izan klase sozialik edo estratifikaziorik gabeko gizarterik. Davis eta Moore-n arabera, behar unibertselek derrigorretan dute estratifikazioa. Gizarte guztiek kokatu eta motibatu behar dituzte indibiduoak egitura sozial hierarkizatu batean. Gizarte guztiek banatu behar dituzte beren indibiduoak posizio sozial ezberdinetan eta, aldi berean, posizio sozial horiei dagozkien zereginak betetzera bultzatu behar dituzte. Orden soziala erlatiboki egonkorra denean ere, aldaketa prozesua etengabea da. Indibiduo berriak taigabe jaio eta integratzen dira orden sozialean. Beraz, posizio sisteman integratzeko prozesuak araututa eta motibazioz beteta egon behar du.

---

<sup>216</sup> Davis & Moore, 1999.

Posizio sozial batzuk besteak baino atseginagoak dira, gaitasun handiagoa eskatzen dute eta funtzionalki garrantzi handiagoa dute, Davis eta Moorek diotenez. Ondorioz, gizarteek ezinbestean behar dituzte mota bateko edo besteko sariak, pizgarri moduan funtziona dezaten. Halaber, gizarteek derrigorrez behar dute sari hauek posizioaren arabera banatzeko mekanismoren bat. Sariak eta beren banaketa funtsezko osagaiak dira orden sozialarentzat, horrela sortzen delarik estratifikazioa. Posizio sozial bakoitzari sari bana dagokio. Hiru sari mota daude:

- 1) biziraupenari eta erosotasunari dagozkienak,
- 2) aldarteari eta aisialdiari dagozkienak,
- 3) norberarekiko errespetuari eta ni-aren hedapenari dagozkienak.

Davis eta Moore-n arabera, posizio sozialen arteko hierarkia ezberdintasunek ahalbidetzen dute indibiduo kualifikatuena posizio sozial garrantzitsuetan kokatu ahal izatea.

## 1.4 Hezkuntza sistema modernoaren eraikuntza

Durkheim, Parsons, Davis, Moore eta gisakoek hezkuntza sistemari begiratzeko erabili duten ikuspegiak oinarri historikoak ditu, segidan aztertuko ditugun hainbat ekarpenen arabera.

Varela eta Alvarez Uria-k<sup>217</sup> diotenez, 1807. urtean Lord-en Ganberan Whitbread izeneko legebiltzarkide batek lege proposamen bat aurkeztu zuen Ingalaterra osoan haur guztientzat eskolak sortzeko. Proposamena atzera bota zuten. Royal Society delakoaren lehendakariak legearen aurka egoteko bere arrazoiak honela azaldu zituen:

“Teorikoki langile klaseari eskolak ematearen egitasmoa nahiko okerra da, baina praktikan, gainera, haien moralitasuna eta zorientasuna kaltetuko luke. Herriko jendeari beren posizioa mespretxatzen erakutsiko lioke eta utzi egingo liokete nekazaritzan eta bestelako enpleguetan zerbitzari onak izateari, nahiz eta beren posizioan beren patua horixe den. Menpekotasuna irakatsi beharrean, eskolak matxino bihurtuko lituzke, zenbait konterri industrializatutan ikusi dugun bezalaxe. Orduan sedizio panfletoak, liburu arriskutsuak eta kristautasunaren aurkako argitalpenak irakurri ahal izango lituzkete. Beren nagusien aurrean lotsagabeak izango lirake; urte gutxiren buruan horren guztia ondoz ondo litzateke gobernuak haien guztien aurka indarra erabili beharko lukeela.”

Hitz horiek argi islatzen dituzte garai hartako beste askoren bildurrak. Baina eskola hedatu egin da eta, hein handi batean behintzat, ez du Whitbread-ek aurreikusi zuen eragina izan. Horren zergatia ulertu ahal izateko baliagarria izan daiteke eskola modernoaren eraikuntza egitasmoari kritikotasunez begiratu diotenen zenbait ekarpen analizatzea.

Varela eta Alvarez Uria-ren<sup>218</sup> arabera, etengabeak izan dira eskola naturaltzat jotzeko ahaleginak, betikoa eta betirako balitz bezala hartua izateko saiakerak, baina gaur egungo eskola ez zen bat-batean agertu betirako irauteko. Prozesu historiko konplexu baten emaitza da. Nagusiki XVI.

---

<sup>217</sup> Alvarez & Varela, 1991, 286. or.

<sup>218</sup> Alvarez & Alvarez, 1991.

mendean zehar agertu ziren hainbat dispositibo uztartzearen eta instrumentalizatzearen bitartez hasi zen eraikitzen. Egitasmo hau gauzatu ahal izateko zenbait baldintza sozial beharrezkoak izan ziren:

- a) haurtzaroaren estatutua definitzea,
- b) haurren heziketarako espazio fisiko zehatza eraikitzea,
- c) haurren heziketarako teknologia zehatzak eta kode teoriko landuak zeuzkaten espezialisten agerpena,
- d) heziketarako bestelako moduen suntsipena,
- e) eskolaren instituzionalizazioa: botere publikoek ezarritako eta legeek inposatutako derrigorrezko eskolatzea.

Foucault-ek<sup>219</sup> dioenez, eskola Modernitateko beste zenbait erakunderekin batera berregin zuten: ejerzitoa, espetxea, ospitala eta lantegia, besteak beste. Erakunde hauetan ezarri zen diziplinak hainbat teknika erabiltzen zituen norbanakoak espazio horietan banatzeko:

- a) eremua bere baitan itxi egiten zen, leku heterogeneo bat besteen aurrean mugatuz,
- b) eremu horretan norbanako bakoitzari leku bat esleitzen zitzaion, eremua gorputz adina esparrutan banatuz,
- c) esleitutako lekuek ez diote soilik jagote funtzioari erantzuten, ez dira soilik komunikazio arriskutsuak hausteko, espazio erabilgarri bat sortzeko ere badira, beti ere ekoizpenaren baldintzetara doitzeko ahalegina eginez,
- d) banaketak mailaketa irizpideen arabera egiten ziren.

Foucault-en ikerketen arabera, eskola modernoak astiro-astiro hedatuko da, baina batik bat XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera indartuko da prozesu hori. Ikasgela homogeneizatu egiten da. Elkarren ondoan dauden banakoek osatuko dute, irakaslea jagole dutela. Mende honetan hasiko da mailaketa funtsezko irizpide bihurtzen eskolaren eremuan banaketak egiteko: frogen bitartez aldiro lortzen den emaitzaren arabera mailaketa, adinaren arabera, irakasgaien arabera, zailtasun mailaren arabera, eta abar. Ikasle bakoitzak irizpide hauen guztien arabera beteko du posizio bat eskolaren eremuan. Seriean lan egiten den espazio batean norbanako bakoitzari leku bat esleitzean ahalbidetu da ikasle bakoitza kontrolatu ahal izatea eta guztiek aldi berean lan egitea. Lehen, irakasleak aldiro ikasle batekin egiten zuen lan, bitartean gainerako ikasleen multzo nahasia asialdian eta jagolerik gabe zegoelarik. Eskola modernoak ikaskuntza denboraren ekonomia berri bat antolatu du. Eskolaren eremuak ikasteko makina bat bezala funtzionatzea lortu du, baina baita jagoteko, hierarkizatzeko eta saritzeko makina bat izatea ere. Erakunde modernoetan *zuegak*, *lekuak* eta *mailaketak* antolatuz ekoizten dituzte espazio konplexuak: arkitektonikoak, funtzionalak eta hierarkikoak. Diziplinaren helburu nagusienetako bat koadro biziak sortzea zen, multitude nahasi, erabilezin eta arriskutsuak multiplizitate ordenatuak bihurtzeko. Koadroa aldi berean botere teknika eta jakintza prozedura da. Aniztasuna antolatzea du helburu, jendearen aniztasuna zeharkatzeko eta dominatzeko tresnak sortzea, azken batean ordena ezarri ahal izateko. Honela ahalbidetzen da aldi berean norbanakoa indibiduo bezala ezaugarritzea eta multiplizitatea ordenatzea. Elementu anitzak erabili ahal izateko lehenengo baldintza da.

---

<sup>219</sup> Foucault, 2005.

Jarduera kontrolatu ahal izateko, Foucaulten arabera, hainbat teknika erabiltzen dira erakunde modernoetan eta, beraz, baita eskolan ere:

- a) denboraren erabilera mota bat inposatzea (herentzia zaharra da) hiru prozeduren bitartez: erritmoak ezarriz, zeregin zehatzetara behartuz eta errepikapenaren zikloak arautuz;
- b) ekintzak denbora ezarriaren baitan egitea, jokabidearen eskema anatomo-kronologikoa definituz;
- c) eraginkortasuna eta azkartasuna bermatzeko gorputzaren mugimenduen eta jokabidearen arteko loturak irakastea;
- d) gorputz-objektu artikulazio mota bat sustatzea, hauen artean izan behar diren harremanak definituz,
- e) erabilera zorrotza bultzatzea, denboraren ustiatze teoriko gero eta handiagoa helburu.

Denboraren erabilerari dagokionez, Foucaultek dio erakunde moderno hauetan funtsezkoa dela makina osatzen duten elementuak koordinatuki artikulatzea. Beraz, gorputza makina multisegmentario baten pieza bihurtzen da. Batzuen denbora besteen denborara doitu behar da, norberarengandik ahal bezain beste indar ustiatzea ahalbidetuz besteekiko koordinazioan. Konbinazio honek ezinbestean behar du aginte gune bat.

Foucault-en arabera, diziplinak gorputzetan oinarrituz lau indibidualtasun mota ekoizten ditu edo, beste era batera esanda, lau ezaugarri dituen indibidualtasun bat sortzen du: zelularra (banaketa espazialaren jokoagatik), organikoa (jardueren kodetzeagatik), genetikoa (denboraren metaketagatik) eta konbinatorioa (indarren konposizioagatik). Horretarako lau teknika erabiltzen ditu: koadroak sortzen ditu, maniobrak ezartzen ditu, jarduerak ezartzen ditu eta teknikak jartzen ditu eskura.

Eskola modernoak, gainerako erakunde modernoek bezalaxe, ez ditu indarrak kateatzen indarra apaltzeko, baizik eta indarrak biderkatzeko eta erabili ahal izateko. Ez da botere garaile agerikoa. Apala da, fidakaitza, ekonomia justua du, baina etengabe egiten du aurrera.

Botere diziplinatzailearen eraginkortasuna tresna sinpleen erabileran oinarritzen da: ikuskatze hierarkikoa, zigor normalizatzailea eta bi hauen konbinazioa den prozedura: azterketa. Begirada normalizatzailea da. Kalifikatzea, sailkatzea eta zigortzea ahalbidetzen du. Norbanakoengandik ikusgarria den adierazpen bat ateratzen du, honetan oinarrituz norbanakoak ezberdintzeko, indibidualizatzeke, eta saritzeko nahiz zigortzeko. Horrexegatik, dispositibo diziplinatzaileetan azterketa oso erritualizatua egoten da. Boterearen zeremonia eta esperientziaren forma uztartzen dira, indarraren erakustaldia eta egiaren eraikuntza eta ezarpena elkartzen dira. Azterketa helburu duen dinamikan irakaslearen helburua bere ezagutza transmititzea eta ikasleek ezagutza berria barneratzea da. Hainbat ezagutza irakaslearengandik ikaslearengana igarotzea ahalbidetzen du, baina ikasleak ikasi behar duena irakasleari erakustea besterik ez du helburu eta ikasleak ordainetan bere indibidualtasunaren marka jasotzen du irakaslearengandik. Azterketan ere ikus daiteke boterea ez dela ezezka bakarrik definitu behar. Botereak ez du soilik baztertzen, erreprimitzen, zentsuratzen edo izkututzen. Botereak ekoitzi egiten du. Errealitateak ekoizten ditu. Egiaaren erritualak ekoizten ditu eta honetatik eratortzen dira indibidualtasuna eta ezagutza.

Eskola modernoa jokabidea bideratzeko makineria da. Erakunde honen arkitektura ez da soilik ikusia izateko (jauregiena bezala) edo jagondua izateko (gotorlekuen geometria bezala). Helburua barne mailako kontrol artikulatua eta zehatza lortzea da. Barnean daudenak ikusgarri bihurtzea du xede, haien gainean eragin ahal izatea, haien jokabidea aldatu ahal izatea boterearen eragina haienganaino eramanez. Azken batean, arkitektura honek norbanakoak eraldatu nahi ditu. Itxiera eta isolamenduaren eskema zaharraren ordeztuz, kalkulu berri baten arabera diseinatzen da, irekierak, betetako guneak eta hutsuneak dauzkan eremua sortuz, pasabideak eta gune gardenak dauzkana.

Jagotea ezinbestekoa da, baina beti ere ekoizpen prozesuaren baitan kokatu behar da ekoizpenak irauten duen denbora guztian. Honenbestez, ezinbestekoa bihurtzen da behargin espezializatuek ardurak hauek beren gain hartzea. Jagotea zeregin ekonomiko erabakiorra izango da, aldi berean ekoizpenaren barne osagaia eta botere diziplinatzailearen mekanismoa baita. Jagote hierarkizatua ez da XVIII. mendeko asmakuntza teknikoetakoa, baina bere hedapen handiak botere mekanika berriei zor die bere garrantzia. Jagoteari esker botere diziplinatzailea barneko sistema integratua bihurtzen da. Botere anitz, automatiko eta anonimo bezala antolatzen da, zeren, bere funtzionamenduak norbanakoak euskarri dituen arren, sistema honek goitik behera, behetik gora eta zeharka funtzionatzen baitu eta, azken finean, osotasunak eustea lortzen baita, osotasunean osagai bakoitzak besteari eragiten eta eusten baitio. Antolaketa piramidalak buruzagia ahalbidetzen badu ere, aparatu osoak ekoizten du boterea, makineria osoak banatzen ditu norbanakoak eremuan zehar etengabe. Honi esker botere diziplinatzailea beti adi dago, printzipioz ez du itzal gunerik uzten eta kontrolaz arduratzen direnak taigabe kontrolatzen ditu, eta hau guztia modu apalean, diskretuan, zarata handirik atera gabe, ia isilpekoan.

Hau guztia dela eta, ez du bortxa erabiltzeko premiarik ia inoiz. Atelierrean, eskolan, ejerzitoan, mikrozigorren dinamika nagusitzen da. Jokabidearen zati txikiak zigortzeko modukoak bihurtzean datza. Itxuraz ezdeusak diruditen osagaien funtzio zigortzailea ematea alegia: denboraren arloan (atzerapenak, ausentziak, etenak), jardueraren arloan (adi ez egotea, deskuidoak, arretaz ez jokatzeko), hitzaren arloan (berriketa, insolentzia), gorputzaren arloan (jarrera *desegokiak*, keinu ez onartuak, zikintasuna), sexualitatea (agerikoegia izatea, *dezentziaren* arauak ez betetzea). Nolanahi ere, zigor diziplinatzaileen ordenak kontuan hartu behar du izaera bikoitza duela: batetik, artifiziala da, lege batek ezartzen baitu, egitasmo batek, araudi batek, baina, bestetik, prozesua natural eta behagarriak ere aintzat hartu behar ditu, ezinbestekoa baita ikaskuntzaren iraupena edo zeregina betetzeko denbora bezalako prozesuak ere kontuan hartzea. Zigorrak prozedura sotilak dira: zigor fisiko arina, gabezia txikiak eta umiliazio txikiak, besteak beste. Arautik urruntzen denaz arduratzen da botere diziplinatzailea. Urruntzeak murriztea du helburu. Beraz, izaera *zuzentzailea* du. Edonola ere, zigorra sistema bikoitz baten osagaietako bat baino ez da, sari-zigor sistemarena alegia. Sistema bikoitz honen bitartez ezartzen da mailaketa: ezaugarrien arabera banatzen da hierarkia, eta horren arabera saritzen eta zigortzen da.

Botere normalizatzaileak homogeneotasunera behartzen du, alde batetik, baina, bestetik, indibidualizatu ere egiten du, desbideratzeak zilegiztatzen dituelako, mailaketak zehaztuz, espezialitateak zehaztuz eta ezberdintasunak funtzional bihurtuz. Berdintasun formalak dagoen eremu batean arauaren botereak erraz funtzionatzen du, zeren ezberdintasun indibidualak erabilgarri eta neurketaren ondorio bihurtzen baititu.

Nolanahi ere, Foucaultek botere diziplinatzailearen hedapenaz hitz egiten duenean ez du esan nahi botere mota honek gainerakoak ordezkatu dituenik, ezta eskolan ere. Foucaultek dioenez, botere diziplinatzailea gainerako botereen artean infiltratu da, batzuetan gainerakoak deskalifikatuz baina aldi berean haien arteko bitartekari bihurtuz, elkarren artean uztartuz, hedapena ahalbidetuz, eta batik bat boterearen eragina osagai txiki eta sotilenetaraino eramatea zilegiztatuz. Izan ere, botere diziplinatzailearen hedapenak XVIII mendeko gorakada demografikoarekin lotura du. Kontrolatu eta manipulatu nahi diren taldeen eskala kuantitatiboa nabarmen aldatuko da. Halaber, ekoizpen aparatuaren hazkundera oso handia da, gero eta hedatuagoa eta konplexuagoa izango da, gero eta kostu handiagoa izango du eta, beraz, errentagarritasuna ere handitzea izango da helburua. Honenbestez, botere diziplinatzaileak hiru irizpide izango ditu:

- 1) botere hau gauzatzeko prozeduren kostua ahal bezain txikia izatea,
- 2) botere sozial honen eragina intentsitatez eta hedapenez ahal bezain zabala izatea, porrot eta hutsunerik gabe,
- 3) boterearen eta aparatuen eraginkortasunaren hazkundera sistemaren baitako osagaien otzantasanaren eta erabilgarritasunaren hazkundera ahalbidetzea.

Banaka hartuta, botere diziplinatzailearean prozedura gehienek historia oso luzea dute, ez dira XVIII mendea sortu inola ere. Baina mende honen berritasuna da teknika hauek guztiak lehen ez bezain beste uztartzen eta hedatzen hasi zirela, lehen ez bezain besteko ezagutza eta botere ekoizpena ahalbidetuz.

Foucault-en hipotesiaren arabera, Mendebaldearen jauzi ekonomiko handia abiarazteko lehenengo urratsa kapitala (Bourdieuarentzat kapital ekonomikoa alegia) metatzeko prozeduretan oinarritu bazen, agian gainerako gaitasunak metatzeko metodoek ahalbidetu dute politikoki botere tradizional, erritual, garesti eta ageriko bortxa erabiltzen zutenetik aldentzea eta horren ordez menpekotasunaren teknologia fin eta kalkulatu hedatzea. Jendearen aniztasuna erabilgarri bihurtzen duten teknikek handitu egiten dute kapitalaren metatze mugimendua.

Lerena-k neurri batean Foucault-en ikuspegiari jarraitzen dio. Lerena-ren<sup>220</sup> arabera, Argien Mendean klase dominatzaileen helburua honakoa da: hezkuntzaren egitasmo prometeikoaren bitartez gizakien ekoizpena arrazionalizatzea eta sistematizatzea. Botere zaharren objektu eta produktu izan zirenak, orain subjektu autonomo eta soberanoak izan behar dira. Hori beharrezkoa da botere berria gauzatu dadin. Hots, botere berriak legitimatzea lor dezan, ekoizpen prozesuan harria bota eta eskua izkutatu egin behar du. Lerenak dioenez, hezkuntza naturala, negatiboa eta askatzailea dute aldarrai, baina naturalismo espiritualistaren oihal honek izkuta egiten ditu garai honetan eraikitzen dituzten diseinu zehatzeko aparatu sareak (eskola, koartela, ospitala eta abarrak barne hartzen dituena). Panoptikoaren eredua ezartzen saiatzen diren bitartean, klase dominatzaileek sortu egiten dituzte hainbat kontzeptu: gizaki unibertsala eta hezkuntza askatzailea, besteak beste.

Lerenak dioenez, hezkuntzaren garapena ez da *heroien eta gaitztoen* historia, ez dio jarraitzen zapaldu/askatu dikotomiari. Gatazka sozialaren testuinguruan, indibiduoak ekoizteko moduen

---

<sup>220</sup> Lerena, 1983.

historia da. Argien Mendea baino lehenago abiarazi ziren dinamika horiek (sokratismoarekin eta kristautasunarekin batik bat) goia jo zuten garai hartako pentsamendu dominatzailearen programetan. Foucault-ek aztertu zuenaren haritik, Lerenak dio askatzea eta diziplinatzea prozesu bera direla. Hezkuntzaren ikuspegi honen arabera, sokratikoen ekarpen antropologiko bat oinarri hartuta, gizakia ez da gizaki jaiotzen, egin egiten da uko eta bilaketa prozesu baten bitartez, honek berriro jaiotzea suposatzen duelarik. Gizakiak bere burua aurkitzen du berriro (bere burua zuzentzen du, sendatzen du, aldarazi egiten du, askatu egiten du) bere burua ukatuz eta gezurtatuz, eta hori guztia funtsean askapen prozesua litzatekeen prozesu batean. Hori lehenengoak akademia platonikoan erakundetuko dute.

Fernández Enguita-k ere eskola modernoaren eraikuntzari buruzko ikuspegi kritikoa plazaratu du. Fernández Enguitaren arabera<sup>221</sup>, eskolatzeko unibertsalak ez zuen hainbesteko zerikusirik izan filantropiarekin, ilustrazioaren idealekin eta ebanjelizazioaren sukarrarekin. Fernández Enguitak dioenez, askok uste dutena baino lotuagoa zegoen modernitateko bi erakunderekin: estatu-nazioa eta enpresa industrialak eragile erabakiorrak izan ziren. Fabrika industrialak hautsi egin zuen subsistentzia ekonomiaren dinamika eta norbere konturako lanaren nagusitasuna (artisautza, nekazaritza komertziala, saltoki txikiak). Langileek ez zituzten beren lanaren helburuak erabakiko, ekoizpen prozesua kontrolatuko, ezta beren denbora libreki erabakiko ere. Aldaketa hau oso gatazkatsua izan zen. Eskolak funtzio erabakiorra bete zuen. Fabrikaren ereduari jarraiki eraikitzen saiatu zirenez, eskolak fabrikaren aurrekari lana egiten zuen ikasleentzat. Egokitzeko prozesuan eskenatoki eraginkorra zen.

Fernández Enguitak dioenez, eredu honek helburutzat zuen ikasleek eskolan barneratzea fabrikaren topatuko zituzten dinamika: autoritate inpersonala eta burokratiko baten menpe jartzea, beste norbaitek guztientzat hartzen zituen erabakiak onartzea, lana nola, noiz eta zer erritmotan egitea, denbora jarraikortasun zatigarri eta baliotsutzat hartzea, norberaren jardueraren gidatuarengandik (norberaren lanarengandik) gratifikazio intrinsekoak ez espero izatea, extrinsekoak (errekompentsa) baizik, elkarren aurka modu suntsitzailean (estigmatizatzailean eta baztertzailan) lehiatzea, beste baten ebaluazio etengabea izatea, lorpenetan ezberdintasun aritmetikoak izateagatik errekompentsetan ezberdintasun geometrikoak espero izatea, egitura sozial ezberdinkeriadun eta estratifikatua onartzea baina ustez ezberdintasun eta meritu indibidualetan oinarritua dagoela sinestea, norberaren jardueraren lanaren banaketa horizontalaren eta bertikalaren arabera antolatzea, norberaren jardueraren erregular eta jarraia mantentzea unean uneko aldartea eta baldintzak kontuan hartzeke, eta antolatutako lanaren beharren arabeko jokabideak garatzea, besteak beste.

Ilustrazioarekin lotzen du fenomeno hau Fernández Enguita-k<sup>222</sup>. Ilustrazioaren baitan hezkuntzari buruz idatzi zutenek hainbat konturi buruz ikuspegi oso ezberdinak zituzten arren, guztiek bat egiten zuten tradizioaren mugak gainditzearen alde eta superstizioaren, botere ezarriaren eta elizako zentsuraren aurka. Rousseauk izan ezik, gainerakoek garapena eta askatasuna argien hedapenarekin eta arrazoiaren agintearekin lotzen zuten. Eskola funtsezkoa zen egitasmo horretan. Guztiek nahi zuten hezkuntza kritikoa, ez dogmatikoa, ez unean uneko egia handiak transmititzeko, baizik eta indibiduaa trebatuz bere kasa bilatzeko gai izan zedin edo,

<sup>221</sup> Fernández Enguita, 2001.

<sup>222</sup> Fernández Enguita, 1992, 13-27 or.



behintzat, egiaren aldaeren artean aukeratzeko gai izan zedin. Helburua ez zen ezagutzaz jabetzea, baizik eta izpirituaren autonomia lortzea. Montaigne-k zioenez, “buru ondo eginak, ez buru ondo beteak”. Hezkuntza tresna eraginkortzat zuten gizakia bere egoera naturaletik ateratzeko eta kontratu sozialera (Locke), moraltasunera (Kant) edo errepublikako hiritartasunera (baita Rousseau ere) lotzeko.

Baina, Fernández Enguitaren arabera, hezkuntzari buruzko Ilustrazioaren diskurtsoak alde batera utzi zituen emakumezkoak, herrialde ez europarrak eta, modu sotilagoan, klase sozial apalak. Azken finean, Ilustrazioak, Grezia klasikoan bezala, gizateria bitan banatu zuen: libreak eta menpekoak. Lehenengo taldekoei ezaugarri hauek esleitzen zizkieten: gizonezkoak, jabeak, burgesak, zuriak, zibilizatuak, adin nagusikoak. Menpekoei, berriz, gutxienez hauetako ezaugarriren bat esleitzen zieten: emakumezkoak, ez-jabeak, proletarioak, ez-zuriak, basatiak, adin txikikoak. Azken batean, liberalismoak nahiz Ilustrazioak *gizonen* arteko berdintasuna aldarrikatu zuten, baina bere horretan utzi zituzten, besteak beste, sexuari, arrazari edo klaseari zegozkion ezberdintasunak. Muga hauen isla garbia da sufragio politikoaren diseinua, hastapenetan baztertu egin baitzituzten ez-jabeak, emakumezkoak, zuriak ez ziren gizonezkoak, gazteak eta beste hainbat talde. Sufragioaren diseinua aldatu bazen, ez zen izan libreki edo bat-batean aldatu zelako, baizik eta gatazka politiko eta sozialek (batzuetan dinamika iraultzaileak tarteko) diskurtsoaren eta orden politikoaren zabalpena behartu zutelako.

Dikotomia honi jarraiki, Fernández Enguitaren arabera, Ilustrazioak bi multzotan banatzen ditu pertsonak: dakitenak eta ez dakitenak, ilustratuak eta barbaroak, subjektu moralak eta animalia intelijentziadunak. Lehenengo taldekoek bigarrenekoei bidea erakutsi behar diete, bigarren taldekoek hala nahi edo ez nahi, zeren bigarren taldekoek soilik lehenengo taldekoekiko menpekotasunean ikas baitezakete. Obedientzia, zorrozatasuna eta diziplina goretsi zituzten horretarako. Ikuspegi honen arabera, adin txikikoa erabat menpekota da eta irakaskuntza, berriz, diziplinatze, inposaketa eta irakaspen prozesua da. Erabakitzeko gaitasuna desagerraraziz eta, ondorioz, ikaskuntza prozesuarekiko ardura kenduz, ezabatu egiten dute ikasketarako tresnarik eraginkorra: interesa. Haur eta gazteei ukatu egiten diete esanguratsuak iruditzen zaizkien aferetan beren gaitasunak lanean jartzea. Horren orde behartu egiten dituzte interesik pizten ez dieten jardueretan ibiltzera.

Azken finean, Fernández Enguitak dioenez, Ilustrazioak kontraesan bezalako emaitzak utzi zituen. Hezkuntzari dagokionez, batetik, bultzada handia eman zion, nahiz eta muga handiak ere ezarri zituen, ez baitzuen bere diskurtsoa unibertsalizatu. Bestetik, ordea, hezkuntzari buruzko ikuspegi zehatza utzi zuen eta, hezkuntza prozesuaren antolakuntza ikuspegi horretatik eratortzen denez, egungo ereduaren oinarrian dauden botere harremanek murriztu egiten dute ikasketaren potentzialtasuna eta aldatu egiten dituzte ikasketaren substantzia nahiz emaitzak.

Terrén-ek<sup>223</sup> ere Ilustrazioan kokatuko du bere begipuntuaren xedea. Terrén-ek dioenez, Modernitatearen egitasmoa mugimendu intelektual baten eskutik jaioko da. Sustriaiak Berpizkundeko humanismoan dituen arren, XVIII. mendeko bigarren erdian sendotuko da instituzionalki, elite kultural ilustratua agertzen denean. Elitea intelektual ilustratuak eraiki zuen diskurtsoaren arabera, subjektibotasunak idolatriatik, autoritate tradizionalaren formetatik eta

---

<sup>223</sup> Terrén, 1999.

ezagutza forma anakronikoetatik askatu ondoren, subjektibotasun horiek jadanik ez dauzkate bizimodu preilustratuetakoko baliabide existentzialak eta, beraz, subjektibotasunak bergizarteratu egin behar ziren orden arrazional berrian, antolaketa estrategia sareetan eta ezagutzaren legitimazio forma berrietan.

Terrén-en arabera, Modernitateak bere burua arrazoiaren garaipentzat aurkeztu zuen. Egitasmo politiko honek unibertso politiko berria sustatu zuen, bere baitan eskaintzen zuelarik askatasunean eta ordenean, indibiduoetan eta sisteman, oinarritutako koordinazio zientifikoa. Beraz, Modernitatearen egitasmo politikoak arrazionalizazio eta, aldi berean, emantzipazio programatzat aurkeztu zuen bere burua. Ondorioz, ekoitzi zituzten erakundeak eta diskurtsoak bi ardatz uztartzen ahalegindu ziren: salbazio historia baten filosofia eta jagondutako lanaren diziplina, ideien garapena eta gorputzaren kontrola, etorkizuna pentsatzea eta orainaldia bizitzea. Etorkizuna eraikitzeko zientzia, teknologia, eta, batik bat, hezkuntza baliatu nahi izan zituen. Baina egitasmoaren erreforma globala ahalbidetzeko erakundeen eta harreman sozialen diseinuan operatiboki gauzatu zen heinean, gero eta baztertzailagoa eta opakoagoa bihurtu zen mundua ikusteko modu alternatiboekiko. Garapen soziala bere osotasunean determinatu nahi zuen egitasmo bihurtu zen eta, ondorioz, hastapenetako oposiziorako eta liberaziorako bultzada politikoa desagertuz joan zen. Horren orde z gero eta indartsuagoa bihurtu zen beste asmo bat: gero eta biztanleria zati handiagoaren gain manipulazio estrategiak eta bolumenen kontrola ezartzeko borondatea.

Garapenaren filosofiak, Terréne arabera, hainbat irudi utopiko eman zizkion ilustrazioaren diskurtsoari. Irudi horietan elite kulturalak aldaketa soziala zuzentzen zuen. Baina potentzialtasun legitimatzailea berehala bihurtu zen teknologia diziplinatzaile sare handiak hedatzeko koartada filosofiko. Dominazio estilo berria zen, sozializazio forma alternatiboak suntsitzen zituena. Kultur aldaketa ahalbidetzen duten prozesuek metaforizazio prozesuak eragiten dituzte eta ekoizpen berriak komunikazio eta dominazio forma berrien egitura sakonean errotzen dira. Berpizkundetik nagusitu den geometriaren hizkera da horren aitzindari. Modernitatean arrazoi planifikatua da metafora behinena. Arkitekturaren arloan, adibidez, Frantziako Iraultzaren arkitekto nagusia den Ledoux-ek funtzionalismoaren ikuspegitik geometria militar eta planifikatuak diseinatu zituen. Ildo berean, Modernitatearen metaforetan nabarmena da sinbologiaren joera: arima osasuntsua, hezitako arima, ondo eraikitako arima da, berreraikitakoa, arrazoiaren epaimahaiaren aurrean erreformatua.

Eskolari dagokionez, Terrének dio ez zela Modernitate ilustratuaren asmakuntza izan baina ilustratuen asmoek berritasun nabarmenak zituztela hezkuntzaren arloan: masen antolaketarako eta aisialdia desagerrarazteko funtsezko bitartekoa izatea nahi zuten. Aldaketaren gakoak XVIII. mendearen bigarren erdian eta XIX. lehenengoan aurki daitezke. Garai hartan, zigorraren ekonomia humanizatzaile berriak arima bihurtu zuen errepresioaren jopuntu, gorputzaren gainetik, eta etorkizunera bideratutako denboraren ikuspegia indartu zuen.

Epaitegi lanetan bezala, hezkuntzaren praktikan nagusitu egin zen ezagutzaren ikuspegi berri bat, Terréne arabera. Botere harremanak beste era batera artikulatu nahi zituen. "Arima eraikiz" indibiduoek birmoldaketa produktiboa bilatzen zuten. Horrela hedatuko da humanismo burgesaren funtsezko kontzeptu bat: meritokrazia. Hortaz, Terréne arabera, masen

hezkuntzaren antolaketak ezinbestekoa dirudi orden berria legitimatu dadin eta eraginkorra izan dadin, eta hau funtsezko bitartekoa izango da *homo oeconomicus* delakoaren oinarriak ezartzeko. Injiniaritzak eta esperimentu teknikoek makina sortu zuten, baina denbora mekanikoaren kontrol zorrotzak ahalbidetu zion garapenerako oinarria.

Kapitalaren metaketak derrigorrez behar zuen denboraren eta ezagutza barreiatuen antolaketa eta metaketa, eta hori lotu ahal izateko hezkuntzaren *arrazionaltasunak* bere diziplina moldeekin funtsezko rola jokatu zuen, Terrének dioenez. Erlojuaren denbora bihurtu zen hegemoniko. Lana eta ezagutza arlokako trebezetan banatu ziren. Espazio itxi, homogeen eta estandarizagarriak nagusitu zirenean, metatzeko prest zeuden. Baldintza hauek ahalbidetu zuten denbora urretzat hartzea, trebakuntza militarren eredu masaren kudeaketa operatiborako eredutzat hartzea, eta irudi monakalaren bizimodu erregular, jarraitu eta espazio bati lotua izatea esperientzia antolatzeko eredu. Baldintza hauei zegokien esperientzia produktiboa, moralki eraikitzailea eta administratiboki kontrolatzeko modukoa zen. Hauxe zen hezkuntza eredu berriari lotutako esperientzia eta hauxe izango zen biztanle guztientzat derrigorrezkoa, Foucaultek *jokabiderako eskema anatomo-kronologikoa* deitzen duena.

Terrének dio elite ilustratuak helburu bat baino gehiago zuela. Hiritarrak garapenaren sinbologia berria onartzea eta agintarien zuzendaritzarako gaitasunaren legitimitasuna onartzea nahi zuten, baina, halaber, masa *desorganizatua* barrutik jagon eta erregularatu nahi zuten programa diziplinarioaren bitartez. Industrializazio kapitalistaren errejimena hedatzen hasi zenerako ejerzitoaren eta monastiaren ereduak aspaldi ezarriak zituzten beren oinarriak.

Nagikeria, Terrének dioenez, bizio politikotzat hartzen zen. Garapena *arrazoiaren* bidetik joan zedin ezinbestekoa zen aisialdirako joera desagerraraztea. Politika berri honek azken finean denboraren ikuspegi unidimentsional berri bat inposatu nahi zuen, hain zuzen zorrotz gauzatutako lan mekanikoaren denborarena. Testu ilustratuek herria aisialdirako joerarekin lotzen zuten eta Modernitatearen kultura pedagogikoak paper erabakiorra jokatu zuen denboraren ikuspegi berriaren alde. Eskolako ezagutzak eta hari lotutako praktika diziplinarioak ziren horretarako bitarteko. Adibidez, 1838. urteko Espainiako eskola araudiaren artikulua esanguratsu batek zioen “irakasleak eskolako ariketak eta denboraren banaketa moldatu behar [zituela] haur bat ere aisialdian ibil ez [zedin]”.

*Eskola* hitzaren etimologia eginez, Terrének jatorritzat grekerazko *schole* hitza seinalatzen du. Bere esanahia *aisialdia* da, eta modu zabalago batean ulertuta *aisialdirako erabiltzen den gunea*. *Echo* (eduki) delakotik eratorria, *escholazekin* (denbora eduki) hitzak zentzu positiboa zuen eta hau ukatzeko (*asb colia*) bere antonimoa erabiltzen zen: lana. Egia esan, Terrénentzat *holganza* itzulpen oso egokia ez den bezala, guretzat ere *aisialdia* ere ez da oso zuzena, *schole* ez baitzen beste denbora batetik liberatutako denbora, ez baitzen lanaren ondorengo jarduera ezarako eta atsedenaldirako denbora, baizik eta denbora aristokratikoa, arimaren jorratze desinteresatua ahalbidetzen zuena, trebakuntza profesionaletik apartekoa, helburua bere baitan zuen jarduera azken finean.

Beste ikuspegi batetik, Ramírez eta Boli-k<sup>224</sup> diote haur guztiak barne hartuko zituen masen hezkuntza sistema estatu-nazioek eraiki zutela XVIII. eta XIX. mendeen artean. Ramírez eta Boli-

---

<sup>224</sup> Ramírez & Boli, 1999.

ren arabera, estatuak masen hezkuntza sistema baimentzea, babestea, finantzatzea eta kontrolatzea lehenik mendebaldeko Europan gauzatu zen. Ondoren, ezaugarri oso instituzionalizatuak zituen eredu hau mundu osora hedatzen hasi zen.

Ramírez eta Boli-k diotenez, hezkuntzari buruzko analisi korporatibo gehienek ez dituzte aintzat hartzen hezkuntza sistema publikoen jatorri historikoak eta horren ondorioz ez dute aztertzen berrikuntza sozial arrakastatsu honen esanahi soziologikoa. Estatutik estatura esperientziak ezberdinak izan ziren, baina, aldi berean, antzeko zenbait ezaugarri ere izan zituzten: hezkuntza publikoaren zenbait helburu ideologiko, konstituzioetan sartu zituzten hainbat lege eta disposizioen onarpena (estatuak masen hezkuntza sistemarekiko zuen interesaren erakusgarri) eta estatu mailako hezkuntza ministeritzen eta idazkaritzen sorrera.

Ramírez eta Boli-ren arabera, estatuak hezkuntza sistema honen alde egin zuen apustua ez zen izan soilik ekonomia industrialaren beharrei, klase nahiz estatus gatazkei edo une eta leku historiko bati emandako erantzuna. Faktore hauek guztiak, zalantzarik gabe Ramírez eta Bolirentzat, oso garrantzitsuak izan ziren, baina fenomeno bere osotasunean ulertzeko Ramírez eta Bolik ezinbestekoa deritzote estatu-nazioek parte hartzen zuten sare kulturala kontuan hartzea. Europako estatu-nazio batzuen arteko lehiak eragin oso handia izan zuen masen hezkuntza sistemaren sustapenean. Estatuaren helburua estatu-nazio bakoitzaren egitasmoarekiko atxikipena lortzea izan zen eta horretarako tresna politikotzat baliatu zituzten masen hezkuntza sistemak.

Aro Modernoko mendebaldeko Europan hainbat ideia legitimatzaile sortu ziren, Ramírez eta Boli-ren arabera, eta horietatik gutxienez bost funtsezkoak dira ulertzeko hezkuntza nola bihurtu zen estatuaren erronka garrantzitsuenetako bat:

- 1) indibiduoarena,
- 2) nazioa indibiduen multzotzat hartzearena,
- 3) garapenarena (indibiduala nahiz nazionala),
- 4) sozializazioaren eta bizi zikloaren jarraipenarena,
- 5) estatu nazioaren zaindaritzat hartzearena.

## 2. Marxistak eta weberiarak

Durkheim-ekin batera, Marx eta Weber seinalatu ohi dira soziologiaren hiru erreferentzia klasikotzat. Segidan, Marx eta Weber-en ekarpenak interpretatuz hezkuntza sistemari buruz sortu dituzten hainbat ikuspegi analizatuko ditugu.

### 2.1 Marx interpretatuz

Asko idatzi dute Marxek esan nahi izan zuenari buruz. Eztabaida sutsuak izan dira. Hezkuntza sistemari dagokionez ere iritzi kontrajarriak daude. Ez datoz bat Marxek esan zuenari buruz, baina, aldi berean, Marxen ekarpenak nola erabili beharko lirakekeen eztabaidatzerako orduan, ikuspegiak oraindik askoz anitzagoak dira. Has gaitezen Marxek hezkuntza sistemari buruz esan zuena edo esan ez zuena analizatzen.

Lerena-k<sup>225</sup> dioenez, Marx-ek ez zuen eskolari buruzko proposamenik egin apenas. Marxek batez ere eskola zer ez zen izan behar azaldu zuen. Lerenak dioenez, Marxek *hautzaroa*, *eskola* eta *hezkuntza* ahal bezain gutxi hedatzea hobetsi zuen. Marxek ez zuen eskola berri batentzako ekarpenik egin, Lerenaren arabera, eskola eraitsi egin nahi baitzuen, eskola posible izango ez zen gizartea eraiki nahi baitzuen.

Aitzitik, Flecha eta Serradell-en<sup>226</sup> arabera, Marx-ek ez zituen hezkuntzari buruzko liburuak argitaratu, baina eremu hau kontuan hartu zuen bere hausnarketetan, eta bere teoriari lotutako analisiak eta alternatibak proposatu zituen. Bere egitasmoak hiru ardatz zituen: berdinzalea, laikoa eta produktiboa. Flecha eta Serradell-ek diotenez, estrukturalismo marxistak kontrakoa zioen arren, Marx-ek hezkuntza berdinzalearen aldeko borroka babesten zuen. Kritikatu egin zituen gizarte kapitalista batean ekoizpen bitartekoen jabetza dutenen eta lan indarra saldu behar dutenen artean ezberdinkeria dagoen gizarte batean, eskola berdinzalea eraiki zitekeela sinesten zutenak, baina Marx-ek uste zuen kapitalismoa ordezkatu zuen gizarte berdinzale baten aldeko borrokan beharrezkoa zela eskola berdinzale baten alde egitea. Norabide horretan zihoazen proposamenak egin zituen: eskolatzearen unibertsalizazioa biztanleria osoarentzat, eskolaren doakotasuna guztiek aukera izan dezaten, klase altuentzat eskola pribatuak eta gainerakoentzat publikoak eskaintzen dituen dinamika desagerraraztea, haurren lan arloko ustiapena desagerraraztea eta eskola derrigorrezko bihurtzea.

Haurrek familiaren ikuspegia gainditzeko aukera izan zezaten, Marxek eskola proposatu zuen haurrengan ezagutza aniztasuna eta ikuspegi kritikoa susta zitzan, Flecha eta Serradell-ek diotenez. Eskola tresna politikotzat zuen, langileen eta herritarren erakundeen esku egon beharko zukeena. Bakunin eta Kropotkin anarkistek proposatu zutenaren haritik, Marxek zioen hautsi egin behar zela eskolaren eta ekoizpenaren arteko banaketa, trebakuntza teorikoa eta praktikoa uztartuz, hezkuntza horrela praktika sozialean bete-betean txerta zedin.

---

<sup>225</sup> Lerena, 1983.

<sup>226</sup> Flecha & Serradell, 2003.

Baina Marxek azaldu zuenaz gain, Marxen ekarpenak baliatuz beren teoriak eraiki zituztenak aztertzea ere baliagarria da eskolari buruzko ikuspegiak aztertze aldera. Ospetsuenak *erreprodukzioaren teoriak* dira, pluralean, bat baino gehiago azaldu izan baitira. *Korrespondentziaren teoria* izenekoa da erreprodukzioaren teoriaren baitan sona handiena izan duenetako bat. Althusser-ek<sup>227</sup> plazaratu zuen erreprodukzioaren teoria hezkuntza sistemari aplikatuta, baina erreferentzia guztietan beste izen batzuk gailentzen dira, eta korrespondentziaren teoriaren kasuan AEBetan Bowles eta Gintis eta Frantzian Baudelot eta Establet dira.

Baudelot eta Establet-en<sup>228</sup> arabera, erabat dikotomikoa da aberastasunaren banaketa eta lan munduan dagoen banaketa, eta banaketa hori bera errepikatu egiten da eskolan. Eskolak erreproduzitu egiten ditu ekoizpenaren baldintza materialak, eskolaren eremuan ere lan intelektuala eta eskulana bereiziz.

Baudelot eta Establet-ek diote hezkuntza sistemak funtzio bikoitza betetzen duela: batetik, ikasleak bi saretan banatzen dituenean, gizartea polarizatzearen aldeko lana egiten du, horrela banaketa materiala bermatuz, eta, bestetik, ikasleei ideologia burgesa barneratuarazteko funtzio politiko eta ideologikoa betetzen du. Bi funtzio hauek aldi berean gertatzen dira, eskola aparatuen funtzio bakarra osatuz. Eskola aparatuek lan indarraren *kalitatea* handitzen laguntzen du, ezagutzak eta trebeziak transmitituz, baina funtzio ideologizatzailea gailentzen zaio. Dinamika hau ez da *arrazionalki* edo *armoniosuki* gauzatzen, gatazka eta kontraesanik gabe. Baudelot eta Establet-ek diotenez, banaketa lehen urteetan hasten da. Banaketa ez da soilik emaitza edo helburua. Banaketa bitartekoa eta funtzionatzeko printzipioa ere bada. Ikasleen orientazioa ez da hasieratik egina dagoen banaketaren isla baino. Orientazioa azaleko fenomeno besterik ez da, benetako banaketa prozesuaren adierazpena baino ez. Sektore sozial apalenetako haur eta gurasoak jabetzen dira horretaz eta horren arabera jokatzeko dute eskolarekiko.

Baudelot eta Establet-ek diotenez, eskolak aparatu ideologiko bezala funtziona dezan derrigorrezkoa du tarteka errepresioa erabiltzea, dela estatu aparatuek antolatzen duten errepresio zuzena, dela batik bat eskola praktiken bitartez gauzatzen dena. Baudelot eta Establetekin diote burgesiaren bere ideologia ezarri ahal izateko erresistentzien aurka borrokatu behar duela eta horrexegatik ezinbestean ukatu eta izkutatu behar duela proletariaren ideologia. Ahalegin honen bitartez klase dominatzailearen ideologia gizarte osoan ideologia dominatzaile bihurtzen da, Baudelot eta Estableten arabera.

Bowles eta Gintis<sup>229</sup> dira korrespondentziaren teorian beste erreferentzia aipatuena. AEBetako hezkuntza sistema dute aztergai. Bowles eta Gintis-en arabera, AEBetako hezkuntza sistemak askatasunaren eta berdintasunaren aurkako harreman interpersonalak sustatzen ditu. Horren zergatia aurkitzeko aztertzen dute Bowles eta Gintis-ek eskolak eremu ekonomikoko harreman sozialekin duen harremana, eta ondorioztatzen dute eskolaren oinarriko antolakuntza ezaugarriak eremu ekonomikoko dominazio eta subordinazio harremanetatik hartuta daudela. Bowles eta Gintis-en arabera, korrespondentzia dago eskolako trebakuntzaren eta lanaren eremuko harreman sozialen artean. Elkarrekiko lotura zuzena dute. Bowles eta Gintisek diote lan

---

<sup>227</sup> Althusser, 1970.

<sup>228</sup> Baudelot & Establet, 1975.

<sup>229</sup> Bowles & Gintis, 1985.

munduaren eta eskolaren arteko harreman estu horrek azaltzen duela hezkuntza sistemak lan indar otzan eta fragmentatua ekoizteko duen gaitasuna. Eskolako trebakuntzaren esperientzia, ez soilik ikaskuntza formalaren edukia, funtsezkoa da prozesu honetan.

Horrexegatik diote Bowles eta Gintisek hezkuntza sistema funtsezko osagaia dela gaur egungo klase gizartearen erreprodukzioan. Hezkuntza sistemak bizitza propioa du, zalantzarik gabe, Bowles eta Gintis-ek diotenez, baina hezkuntzaren eremuko balioak lan esperientzian eta klase egituraren izaeran oinarritzen dira. Ondorioz, hezkuntza sistemak helduen lanetako roletarantz bideratzen ditu gazteak eta, beraz, mugatu egiten ditu bestelako garapen pertsonal motak, gazteen garapen pertsonalaren funtzioa bazterrerara utziz. Izan ere, botere koertzitibo soilak ez du erreprodukzioa bermatzeko balio. Kontzientziaren arloko ekimenek berebiziko garrantzia dute erakunde ekonomikoen betierekotzea bermatzeko. Ekoizpen harreman sozialak erreproduzitu ahal izateko, hezkuntza sistema jendearengan subordinazioa eta kontzientzia fragmentatua barneratzen ahalegintzen da (ez beti arrakasta maila berdinarekin), helburutzat duelarik jendea bestelako bizimodu bat egiteko ez batzea.

Bowles eta Gintis-en arabera, hezkuntza sistemako harreman sozialen egiturak ikaslea etorkizuneko lanposturako diziplinara egokituazteaz gain, lanpostu horretarako egokiak diren beste hainbat osagai barneratuazten ere ahalegintzen da: jokabide pertsonala, norbera aurkezteko moduak, nork bere buruaz duen irudia, eta klase sozial mailako identifikazioak, besteak beste. Lan alienatuaren baldintzak errepikatu egiten dira eskolan, baina ikasleen jatorrizko klase sozialaren arabera aldatu egiten da eskola bakoitzaren sozializazio ereduak.

Beraz, korrespondentziaren teoriaren ekarpen behinena lan munduaren eta eskolaren arteko lotura zuzena da. Korrespondentziaren teoriarekin bat etorri gabe, analisi askok nabarmentzen dute lanaren eta eskoaren arteko harremana, nahiz eta korrespondentziaren teorien beste hainbat ezaugarriekin ados ez dauden.

Carnoy<sup>230</sup>, adibidez, ados dago Baudelot eta Establet-ekin eta Bowles eta Gintis-ekin esaten dutenean hezkuntza sistemak gizarte kapitalistetan ekoizpenaren arloko kontraesanarekiko bitarteko lana egiten duela, helburutzat duelarik ekoizpen harremanetan eta klase sozialetan oinarritutako gizarte erreproduzitzea. Alta, Carnoy-ren arabera, ekarpen hauek ez dute azaltzen ekoizpenean izaten den kontraesan eta aldaketa prozesua eta honek zer zerikusit duen hezkuntza sistemaren gertatu den kontraesan eta aldaketa prozesuarekin. Carnoy-ren iritziz kontraesanak ekoizpenean gertatzen dira, ekoizpen kapitalistak lanetik superabita lortu nahi duelako eta klase kapitalistak inbertsioa kontrolatu nahi duelako, langileak kontrol prozesutik kanpo utziz, beren produktutik aldentuz, lanerako eskubidea ukatuz, eta langileen artean fetixismo kontsumista sustatuz. Carnoy-k dioenez, kapitalistak kontraesan hauen gain bitartekaritza lana egiten saiatzen dira, bai beren aparatu ekonomiko *pribatuaren* bidez, bai estatuaren bidez. Baina bitartekaritza lan honek berak kontraesanak sortzen ditu marxismoak gainegitura deitzen duen eremuan.

Hezkuntzaren eremuan, esate baterako, Carnoy-ren arabera, estatuak ahalegin handia egiten du hezkuntza sistemaren bitartez ekoizpenaren eremuko kontraesanen gain eragina izan dezan. Hezkuntza sistemak bitartekaritza zuzenaren lana egiten du trebakuntza bermatuz, batik bat

---

<sup>230</sup> Carnoy, 1999.

langile kualifikatuena, nagusiki koadro profesionalena, eta horrela kapitalaren metaketan laguntzen du. Era berean, estatua hezkuntzaren bitartez klase sozialen banaketa erreproduzitzen ahalegintzen da. Baina, Carnoy-ren arabera, kapitalismoak kontraesanak sortzen ditu aldi berean biztanleriaren hezkuntza formalaren maila orokorra handitzea sustatzen duenean eta enplegua eskaintzeko aukera maila berean handitzen ez denean. Gainera, Carnoy-k dioenez, eskolak, estatuaren aparatu ideologikoaren zati den heinean, ikasleei azaltzen die demokrazia politiko batean bizi direla eta sistema ekonomikoa zuzen eta berdinzalea dela. Modu sinboliko abstraktu eta ez praktikoa baten izaera ematen zaio irakaspen hauei, baina sinbolismo hau arriskutsua ere bada indar hegemonikoentzat. Nolanahi ere, Carnoy-k dio ez dagoela batere argi nola eragiten duten kontraesan hauek erreprodukzio prozesuan. Edonola ere, hezkuntza sistemaren baitako kontraesan hauek murriztu egiten dute hezkuntza sistemak ekoizpenaren eremuarekiko daukan bitartekaritzarako gaitasuna. Eskolak ekoizpen arloko klase gatazkarekiko bitartekari lana egin, egiten du, baina bitartekaritza lanak bere gain hartzean, eskolak klase gatazkaren zati eta gune bihurtzen dira.

Lerena-ren<sup>231</sup> arabera, berriz, gizarte kapitalista garaikideetan kulturaren eremuak eta bere baitako hezkuntza sistemak beren logika dute eta neurri batean independenteak dira, baina logika hau klase sozialen arteko dominazio harremanean sortutako beharren isla da eta, aldi berean, behar hauek ekoizpen modu kapitalistaren ekoizpenaren eremuan dautza. Edonola ere, Lerenak nabarmendu egiten du erakunde sozial guztiek autonomia daukatela, erlatiboa, baina autonomia. Testuinguru sozialak eragina du hezkuntza sisteman, baina, aldi berean, eremu honek barne logika eta joko arau autonomoak ere badauzka.

Lerena-k<sup>232</sup> dioenez, jatorri sozialak nabarmen baldintzatzen du ikasleen ibilbide akademikoa. Hezkuntza sistemaren baitako sailkapen hierarkikoak aurretiazko ezberdinkeria sozialak legitimatzeko ekarpena egiten du. Eskolak ez ditu ezberdinkeria sozialak desagerrarazten eta, gainera, ezberdinkeria sozial eztabaidatu horien itzulpena egiten du, eskolarako gaitasunaren itxura emanez, eta horrela ezberdinkeria berri ez-eztabaidagarriak ekoizten ahalegintzen da.

Nolanahi ere, Lerenaren arabera, hezkuntza sistema mugikortasun sozialerako bitarteko garrantzitsuenetakoa da. Erreprodukzioari eta jatorri sozialari dagozkion iritziak ukatu gabe, Lerenak dio hezkuntza sistemak inoiz ez bezala ahalbidetzen duela desklasatze indibiduala, kapitalismoaren beste aro batzuetan baino askoz gehiago. Lerenak dioenez, kontuan hartu behar da klase sozialei buruz ari dela, ez kastei buruz, nahiz eta maiz klase sozialek kasten moduan funtzionatzen duten. Baina, berez, Lerenak dioenez, klase sozialak ez dira talde itxiak. Lerenaren arabera, Schumpeter-ek dio klase sozialak hotel edo autobus baten gisakoak direla, beti beteak daudela baina ez dituela derrigorrez jende berberak betetzen (Schumpeter-ek esaten duena da “beti jende ezberdinak betetzen” dituela).

Chomsky marxista ez den arren, bere zenbait ekarpenek bat egiten dute korrespondentziaren teoriak azaltzen dituzten hainbat ezaugarriekin. Chomsky-ren arabera<sup>233</sup>, eskolan puntualtasuna edo obedientzia bezalako balioak lehenesten badira, eredu hori oso egokia izango da, adibidez,

---

<sup>231</sup> Lerena, 1980.

<sup>232</sup> Lerena, 1980.

<sup>233</sup> Chomsky, 2005a, 236, 240, 247 or., eta 2005b, 235 or.



interes jakin batzuen arabera lantegi bateko beharginen izaera moldatzeko, hots, pertsona hauek ekoizpen tresna bihurtarazteko. Baina balio hauek ez dira baliagarriak norbanako sortzaile eta independenteak sustatzeko. Chomsky-ren arabera, gaur egungo eskolan eredu autoritarioa eta teknokratikoa nagusitzen da. Arazoak ebaztera bideratua dago eta horrekin batera trebetasun teknikoa balioesten da. Azterketak eta lanak indibidualak eta lehiakorak izan ohi dira. Ikasleak helburu oso zehatza ezartzen dio bere buruari. Uko egiten die erudizioaren marko konbentzionaletik irteten den ikerketa abenturazale eta espekulatiboei, bide horretan porrot egiteko arriskua handia baita. Irakasleak agindutakoarekiko sumisioa eta obediencia urratzen dutenei jokabide arazoak dituztela leporatzen diete. Hauek guztiak osagai arruntak dira gizarte industrial aurreratuetan, Chomsky-k dioenez.

Fernández Enguita-ren<sup>234</sup> hainbat ekarpen ere korrespondentziaren teoriekin bateragarriak dira, nahiz eta beste asko erabat kontrajarriak diren. Baina bateragarriak direnei dagokienez, Fernández Enguitak dio eskolak lan indarraren sozializazio lana ere egiten duela. Lan eremuaren hainbat ezaugarri daukanez, eskenatoki eraginkorra da (batzuetan gehiago, besteetan gutxiago) etorkizuneko lan indarra trebatzeko eta diziplinatzeko. Ordenarekiko eta autoritatearekiko obsesioa du eskolak, Fernández Enguitaren arabera. Eskolan denbora gehiena ez zaio ezagutzen transmisioari eskaintzen, baizik eta eserita, isilik eta adi mantentzea lortzeari, irakasleak esandakoa egin dezaten, beraiek nahiko luketenaren orde. Irakaslearen autoritatea onartuz ikasten dute etorkizunean izango dituzten beste autoritate batzuk onartzen. Eskolako autoritatea gertaera txikietan gauzatzen denez, askoz eraginkorragoa da. Fernández Enguitak dio ekintza pedagogiko orok edo erakunde guztiek ordena behar dutela funtzionatu ahal izateko, baina eskola garaikideak behar duen ordena eta horren intentsitate handia zertan oinarritzen den ulertu ahal izateko, Fernández Enguitak dio horren kausa gaur egungo eskola motaren antolaketa modua eta ekintza pedagogiko mota direla. Badaude ikasketak antolatzeko beste zenbait modu (autodidaxia, irakaskuntza pertsonalizatua, eta taldekako ikasketa lana, besteak beste), baina gaur egungo eredu nagusiak baztertu egiten ditu horiek guztiak, orain indarrean dagoen ereduaren mesedetan.

Aukera hau, Fernández Enguitak dioenez, oso baliagarria da ikasleak eskolan bertan barnera dituzan aldi bereko irakaskuntzaren bitartez ondoren soldatapeko lanean izango dituen baldintzak (autodidaxia, norbere kontura egindako lanarekin lotuta dago eta taldekako ikasketa, berriz, libreki asoziatutako lanarekin). Aldi bereko irakaskuntzaren bitartez ikasleak ikusi egiten du zer den kategoria baten zati bezala tratatua izatea eta zer den kolektibo baten kide bezala kudeatua izatea. Ikasleak ikasi egiten du mundu inpersonalean eta burokratiko baten kide izaten, eta hau ezin dute familiarean baitan ikasi. Eskolan, aldiz, ikasi egiten dute bereizi egin behar direla rola eta hori betetzen duen pertsona. Adibidez, irakaslearen rol orokorra eta une horretan beren aurrean dagoen irakaslea, edo nork bere burua irakaslearen kategorian ikusiko du eta, aldi berean, azpikategoriaren batean sartuta (hirugarren mailako ikaslea, ikasle errepikatzailea...).

Ikasketen helburuak, edukiak, prozedurak, ikasleen gaintik dagoen norbaitek ezartzen ditu, ez ikasleek. Testuinguru honetan ikasleak galdu egiten du kontrola bere lanaren emaitza izango den produktuarekiko eta lan prozesuarekiko. Honela sortzen da alienazioa, bestelakotzea, etorkizunean lanean gertatuko zaion bezala, eta hori barneratu egiten du eskolan. Lan prozesuarekiko kontrolaren galera argi islatzen da eskolako ordutegiaren antolakuntzan.

---

<sup>234</sup> Fernández Enguita, 1990, 99-105 or.

Ikaslearen jardueraren antolatzaile oso indartsua da, ikaslea etengabe behartzen baitu interesatzen ez zaizkion jarduerak hastera eta, era berean, interesa piztu diotenak baztertzeraz. Antolatzeko modu honek sustatu egiten du ikuspegi sozial jakin bat barneratzea, hain zuzen denbora, gauza guztien balioaren neurria bihurtu den gizartearen ikuspegia barneratzea. Bi karrerak edo bi irakasgaik ustez balio berdina dute baldin eta denbora epe berdina hartzea eskatzen badute. Ikaslearen jardura ez da ikuspegi kualitatiboaren arabera moldatzen. Helburua ez da emaitza zehatz bat lortzea edo zereginen bat ondo betetzea, baizik eta ikuspegi kuantitatiboari jarraiki zeregin zehatz bat denbora epe jakin batean edo ahalik eta denbora gutxienean burutzea. Industria iraultzak ikuspegi hori inposatu zuen lanaren munduan.

Fernández Enguitak dioenez, eskolako ikaskuntzak elkarren aurkakotzat aurkezten ditu lana eta jardura librea. Eskolaren baitan egiten diren hainbat jardura izan daitezke (eta maiz badira) jardura librearen baitakoak, aisialdikoak. Ondorioz, ikasleak berehala ikasten du jardura berberak jolas izaera izan dezakeela irakaslerik gabe egiten denean eta, aldiz, lan izaera izango duela irakaslearen abaroan egiten denean. Irakaslea da ikaslearen lehen nagusia.

Funtsezkoena ez da ikaslearen interesa, Fernández Enguitaren arabera, baizik eta irakaslearen borondatea. Azken aldian *motibatu* izan da aldarrietako bat baina ideia formulatzeko moduak erakusten du bere baitan dagoena: motiboak dauzkana ez dago motibatu beharrik. Gehienetan irakasleak aurrez erabaki duena ikasleak bere kasa egin dezan konbentzitzea saiatzea da *motibatzea* deitzen denaren funtsa.

Fernández Enguita-k<sup>235</sup>, autonomiari dagokionez, lanaren munduan hiru lanpostu mota bereizten ditu, eskematikoki esatearren: langile batzuei inizatiba, autonomiaz jokatzeko gaitasuna eta erakundearen helburuak barneratzea eskatzen diete; beste batzuei ikuskaritza etengaberik gabe beren zeregina betetzea eskatzen diete; eta, azkenik, beste batzuei erabateko sumisioa eskatzen diete, arauak zehatz-mehatz betez errutinazko jarduerak egin ditzaten. Eskolak bertikalki nahiz horizontalki egiten du ahalegina ikasleak etorkizunean izango dituen lan eskakizunen arabera trebatzeko. Bertikalki, hezkuntza sistemak mailan gora egin ahala, gero eta autonomia handiagoa eskatzen dio ikasleari. Horizontalki, teknika asko daude: hezkuntza adarraren arabera eskatzen duten autonomia maila oso ezberdina da (Lanbide Heziketa edo ikasketa akademikoak); maila eta adar berdineko ikastetxeek metodologia ezberdinak darabiltzate beren ingurune sozialaren, publikoaren eskakizunaren eta kostearen arabera; ikastetxe bakoitzaren baitan ustezko orientazio akademikoaren arabera ezaugarri ezberdinetako taldeak sortzen direnean; ikasgela bakoitzean irakasleak ikasleei izaera ezberdineko zereginak esleitzen dizkienean.

Fernández Enguitak dio mekanismo hauen guztien bitartez eskolak hainbat jokabide eta disposizio psikologiko sustatzen dituela ikasleengan, baina horrez gain ikasleak jokabide eta disposizio horien arabera sailkatzen eta aukeratzen dituela. Lorpen ez-kognitiboak gutxienez lorpen kognitiboak bezain garrantzitsuak dira, garrantzitsuagoak ez badira, zeren eskolak saritu egiten baititu helduen lanean integratzeko jokabideak, zigortu egiten ditu kontra egiten dutenak, eta ez ditu kontuan hartzen gainerako guztiak. Esate baterako, saritu egiten ditu ahaleginean irautea, kanpo sarien arabera ekitea, puntualtasuna eta gisakoak, baina zigortu egiten ditu independentzia eta sormena.

---

<sup>235</sup> Fernández Enguita, 1990, 105-110 or.

## 2.2 Weber-en itzala

Weber-ek ez zuen propio hezkuntza sistemari buruzko ikerketarik egin, Fernández Enguitak<sup>236</sup> dioenez, baina bere ekarpenek baliabide ugari eskaini dituzte hezkuntzaren eremua aztertzeko.

Parkin-ek<sup>237</sup>, esate baterako, Weber-en *itxiera soziala* kontzeptua erabili du *credentialism* deitzen duen fenomenoaz aztertzeko. Kolektibitate sozialek beren irabaziaz (ez soilik ekonomikoak) handitzearen baliabideak eta aukerak hautagai kopuru txiki batentzat bakarrik uzten dituen prozesuari deitzen dio itxiera soziala. Aukera jakin batzuk monopolizatzeko ezaugarri fisiko edo sozial batzuk definitu behar dira bazterketa hori argumentatzeko. Monopolizazio hori antzeko ezaugarriren bat dutenen aurkako estrategia da. Praktika baztertzailerik hauen izaerak eta hedapenak baldintzatzen du banaketa sistema orokorraren izaera. Parkin-en iritziz bitxia da Weber-ek *itxiera soziala* kontzeptua estratifikazioaren arlorako erabili ez izana, fenomeno hau boterearen banaketarekin estuki lotua baitago eta Weber-ek boterea estratifikazioarekin lotzen baitzuen.

Parkin-en arabera, itxiera sozialak automatikoki sortzen du negatiboki pribilegiatutakoen estatus taldea. Beraz, itxiera sozial baztertzailerik boterea *beherantz* erabiltzea dakar, derrigorrez sortzen duelako gutxiagotzat definitutakoen taldea. Baina, aldi berean, boterea *gorantz* erabiltzea dakar, baztertuek baliabideen zati handiagoa eskuratzeko ahalegin orok mehatxatu egiten baititu gehiagotzat definitutakoen pribilegioak.

Itxiera sozialaren praktika mota bat *credentialism* delakoa da, Parkin-en arabera. Estrategia honen bitartez titulu akademikoak erabiltzen dira lanaren banaketan estimatuak diren posizioetarako sarrera kontrolatzeko. Aitortza profesionala lortu nahi izan duten okupazio administratibo askok erabili dituzte ziurtagiriak (*credentials*) sailkapena sortzeko asmoz. Profesionalizazio estrategiaren helburuetako bat okupazio jakin baterako hautagaien eskaintza mugatzea eta kontrolatzea da, merkatuan beren balioa mantentzeko edo handitzeko asmoz.

Titulazioekiko konfiantza handitzea justifikatzeko ohiko argumentuak dira jardueraren zailtasuna eta gaitasun indibiduala zorrotzago frogatzeko beharra, baina, adibidez, Berg-ek<sup>238</sup> bere ikerketen bidez ezin izan du loturarik aurkitu jardueraren zailtasun gero eta handiagoaren eta tituluen beharra handitzearen artean.

Parkin-ek<sup>239</sup> dioenez, kalifikazioak eta ziurtagiriak tresna eraginkorrenak dira *kapital kulturala* dutenek seme-alabei estatus profesionala transmititzeko aukera handiagoak izan ditzaten. Nolanahi ere, Parkin-en arabera, itxiera soziala ez dute soilik joera *intelektualeko* lanbideek erabili mugatze sistematikoen estrategia. Eskuz egiten diren lanean oinarritzen diren hainbat lanbideek, adibidez, antzeko teknikak erabili dituzte eskaintza arautzeko. Baina horixe bera egin dute beste askok ere, teknikak beren baliabideen arabera egokituz.

Parkin-en arabera, jabetzaren erakunde soziala funtsezkoa da talde sozialak eraikitzeko, baina titulazioak itxiera sozialerako teknikatzat erabiltzen direnean, jabetza bezain teknika garrantzitsua

<sup>236</sup> Fernández Enguita, 1999.

<sup>237</sup> Parkin, 1999.

<sup>238</sup> Berg, 1973.

<sup>239</sup> Parkin, 1999.

da talde sozialak osatzeko. Jabetzak bezala, titulazioen bidezko itxiera sozialak ere arau baztertzailerak erabiltzen ditu, gutxi batzuek pribilegioak eta etekinak eskuratzeko eta gehiengoari ukatzeko. Hori guztia kontuan hartuta, Parkin-ek ondorioztatzen du kapitalismo garaikidean klase dominatzaileak definitzeko bi zutabe daudela: batetik, kapital produktiboaren jabe direnak edo kapital produktiboa kontrolatzen dutenak eta, bestetik, zerbitzu profesionalen monopolio legala dutenak. Hauek dira klase dominatzailearen nukleoa, botere baztertzailerak baitaizkate. Parkin-ek desegokia deritzo klase dominatzailea definitzeko soilik jabetza eskubideak kontuan hartzea, tradizio marxistaren adar batek egiten duen bezala, edo soilik aditu tekniko eta profesionalak sartzea multzo horretan, Daniel Bell-ek egiten duen eran.

Parkin-ek jabetzaren kontzeptua zabaldu egiten du harik eta osagai soilki kulturalak ere barne hartzen dituen arte, ez liratekeelarik soilki ekoizpenaren eremuaren epifenomenoak, baizik eta bere baitan garrantzia luketenak. Baina Parkin-ek berak eragozpen handi bat ikusten du proposamen honetan: jabetza zentzu zabalean definituta ere, itxiera sozialaren formetako bat baino ez litzateke. Beste asko ere badaude; *apartheid* sistema adibidez. Hortaz, Parkin-en ustez egokiena jabetza kontzeptua bere horretan uztea da, itxiera sozial mota bat bezala, eta gainerakoak beste itxiera motatzat hartzea.

Bestalde, hari honi jarraituz, Rist-ek<sup>240</sup> *etiketatzea* izeneko fenomenoaz aztertzen du hezkuntzaren eremuan. Rist-en arabera, etiketatzea, publiko sozial jakin batek epai sozial jakin bat egitea da. Kontrol sozialerako teknika bat da. Etiketatzen den pertsonari egozten zaion desbideraketa ez da pertsona horren ezaugarri bat, baizik eta besteek legeak eta zigorrak *legearen urratzaileari* aplikatzearen ondorio. Desbideratutzat hartzen dena, etiketa arrakastaz esleitu dioten pertsona da. Jokabide desbideratuak, aldiz, desbideratutzat etiketatu dituzten pertsonen jokabideak dira. Etiketaren teoria erabiltzen dutenek atentzioa eraman egiten dute desbideratutako indibiduotik etiketatze prozesura, baina horrekin batera azaltzen dute etiketatzeak sarri izaten duela borondatezkoa ez den ondorioa: desbideratutzat definitutako pertsonak sendotu egiten dituzte beren *desbideraketan*. Hori ere eragin dezake etiketatzearen estigmatizazioak. Beraz, desbideraketarekiko erreakzio sozialek sustatu egiten dituzte jokabide desbideratuak. Rist-en arabera, Erikson urrunago doa: bere arabera, gizarteek beren baitan desbideraketa maila jakin bat izateko borroka egingo dute, funtzionalki baliagarria baita taldeak mugatzeko, petxeroak eskaintzeko, norberaren taldeak elkartasuna sustatuko duten kanpo talde baztertuak sortzeko, eta abar.

Rist-ek dioenez, hezkuntza formalaren eremuan ere etiketatzen da. Irakasleek ikasleekiko dituzten espektatibek eragina izaten dute, adibidez, zeren irakasleek sarri jokatzen baitute ikasleekiko espektatiben arabera. Errendimendu kognitiboaz eta akademikoaz gain, espektatiben eraikuntzan zerikusia dute arrazak, generoak, klase sozialak eta etniak, besteak beste. Baina horrez gain ezaugarri interpersonalek ere eragiten dute (ikasgelan ikasleak daukan jokabideak, kasu)

Etiketatzek, Rist-ek dioenez, ikasleen jokabideengan eragin zuzena du. W.I. Thomas-ek gizarte zientzietan oinarritzko bihurtu den printzipio bat formulatu zuen: pertsonak egoera jakin bat errealtzat definitzen badu, egoera erreala izango da bere ondorioetan. Bere burua betearazten duen profeziaren funtsa da hauxe: egoera jakin bat definitzen duen espektatibak eragina du egoera

---

<sup>240</sup> Rist, 1999.

horretan izaten den jokabidearekiko, egoera horretan ustez zegoena benetan ekoiztera iristen delarik. Robert K. Merton-ek ideia hau landuz, honela formulatu zuen: bere burua betearazten duen profetia hasieran egoeraren definizio faltsu batean oinarritzen da, baina definizio horrek jokabide berri bat eragiten du eta jokabide honek benetako bihurtzen du hasieran faltsua zen ideia.

Rist-en arabera, gaur egun ikerketak iritsi diren puntua kontuan hartuz, esan liteke irakasleen espektatibek batzuetan betearazten dituztela beren buruak. Horrez gain, Rist-ek nabarmendu egiten du etiketatzean sortzen den harremanak barne hartzen dituela bi aldeek jokabideak eta hautaketak. Etiketatua izatearen ondorioz bere nortasunaren definizioa aldatu beharko duen pertsonak mila erataraz erantzun diezaiotke egoerari. Halaber, pertsonaren definizio instituzionala ez da sendotzen harik eta zer etiketa jarri behar denari buruzko negoziazioa bukatzen den arte.

### 2.3 Bourdieu: Marx eta Weber uztartuz

Bourdieu pauso bat harago doa. Fernández Enguita-k<sup>241</sup> Bourdieu weberiarren artean kokatzen du, baina nabarmena da Bourdieuk Marx-en hainbat ekarpen ere bere egiten dituela. Beraz, esan genezake Bourdieuk Marx eta Weber uztartu egiten dituela. Honela Bourdieuk erreproduzioaren teorien aldaera berritzaile bat proposatzen du.

Bourdieuaren lanak irakurtzen hasita, bere liburu asko irakurtzea komeni da. Bourdieuaren argitalpen batzuek eskandalua eta eztabaida bizia eragin zuten beren garaian, eta horren ondorioz Bourdieuk urteak eman zituen bere aurreko lanei buruzko azalpenak ematen. Beraz, liburu bakoitzarekin batera lagungarria da Bourdieuk berak liburu horri buruz beste argitalpen batzuetan argitu zuena ere adi irakurtzea. Horixe gertatzen da *La reproduction* sonatuarekin. Liburu hau irakurri ondoren esan dezakegu agian Bourdieu eta Passeronen aburuz eskolak soilik ezberdintasun sozialak bermatzen eta ekoizten dituela, baina Bourdieuaren lanak osotasunean irakurtzean esan daiteke Bourdieuaren ikuspegitik eskolak funtzio sozial ugari dituela, nahiz eta Bourdieuk eta Passeronek gehienbat eskolaren funtzio ezberdintzailea aztertu zuten. Bourdieuaren<sup>242</sup> arabera *La reproduction*-en ez zuten esan nahi izan eskola soilik ezberdintasunen ekoizlea zela eta horren aurrean ezin zela ezer egin, baizik eta *alde batetik* eskolak ere laguntzen zuela ezberdintasunak bermatzen eta ekoizten, eta agian alde hori kontrola daitekeela. Eskolaren alderdi hori zergatik azpimarratu zuten ulertzeko Bourdieuk dio beren garaiko testuingurua hartu behar dela kontuan: orduan nagusiki eskolaren alderdi askatzailea zegoen denen ahotan. Agian Bourdieuk eta Passeronek bere egin zuten garai bateko errusiar filosofo batek esandakoa: hesola bat lurrean oso oker sartuta dagoenean, zuzendu nahi izanez gero, justu beste alderantz okertzeko bezala jo behar zaio, azkenean zuzen gorantz begira gelditu dadin.

Argitaratu zenean askok eta askok oso gaizki hartu zuten *La reproduction*: muturreko ezkertiarra, kontserbadorea, nihilista eta desmotibatzailea bezalako adjektiboak erabili zituzten gustatu ez zitzaizela esateko, Bourdieuk<sup>243</sup> dioenez. Kritika horien guztien aurrean, Bourdieuk *La reproduction*-

---

<sup>241</sup> Fernández Enguita, 2003.

<sup>242</sup> Bourdieu, 2004, 250 or.

<sup>243</sup> Bourdieu, 2004, 136 or.

en irakurketa kontserbatzaile, mekanizista eta ezkorren aurka egin zuen. Bourdieuk<sup>244</sup> bazekien liburu deserosoa zela, baina bere iritziz progresista zen: bazekien arazo latzak mahaigaineratzen zituela eta bazekien arazo horiek gaintzea oso zaila zela, baina Bourdieuren iritziz ezinezkoa zen arazo horiek gaintzea baldin eta ez baziren arazo bezala planteatzen. Bourdieuren arabera, mekanismo sozial ugariaren eraginkortasunak asko zor dio mekanismoari buruzko ezezagutzari. Fenomeno baten probabilitateak ezagutzen direnean, Bourdieuren aburuz, handitu egiten dira fenomeno horri aurre egiteko aukerak.

Ordura arte Hezkuntza Sistema eduki progresistak erakusteko zela onartzen zen eta, beraz, gogorra zen bat-batean Bourdieu eta Passeronen tesia onartzea (hezkuntza sistema kontserbatzailea ere bazela). Bourdieuk<sup>245</sup>, aldiz, ez zerabilen ikuspegi fatalistatik: konponbidea bazegoela defendatzen zuen. Bourdieuren<sup>246</sup> ikuspegitik berea ez da ikuspegi determinista. Bourdieuren<sup>247</sup> iritziz ezin dira nahastu probabilitatea eta ekidinezintasuna, esate baterako, jatorri soziala eta eskolako arrakasta erlazionatzen direnean.

### 2.3.1 Berdintasun formalak zer izkutatzen duen

1964ko uztailaren 28an Le Monde egunkarian agertu zen iritzi artikulu batean entxufismoa salatu eta oposizio bidezko kontratazioen defentsa egiten zen. Bourdieuk<sup>248</sup> horren harira idatzi zuen gaur egun entxufismoari gaina hartu ziola beste mehatxu are arriskutsuago eta izkutuago batek: berdintasun formalak diskriminaziorako joera izkutatzea hain zuzen. Bourdieuren arabera, bizi baldintza okerragoak dauzkatenek aukera txikiagoak daukate enplegu onenak lortzeko, beren familiek kapital gutxiago transmititu baitiete. Horrek zerikusi zuzena du hezkuntza sistemari Bourdieuk eta Passeronek egiten dioten kritikarekin.

Bourdieu<sup>249</sup> ez du konplot bati buruz hitz egiten. Ez du esaten eskolaren borondatea txarra denik. Arazoa askoz konplexuagoa da. Bourdieuren<sup>250</sup> ikuspegitik, egungo hezkuntza sistema ereduak kapitalen banaketa desorekatua mantentzen laguntzen du: eskolara kapital handiagoaren jabetza dutelarik iristen direnek besteek baino kapital akademiko handiagoa eskuratu ohi dute. Ondorioz, eskolak, orain arte eraiki den modu guztietan, desoreka sozialak iraunarazten laguntzen du. Hezkuntza sistemak joera du kapital kulturala daukatenak ez daukatenengandik bereizteko. Horretarako hainbat prozedura erabiltzen ditu. Horrela, eskolak sozialki onartutako mugak ezartzen ditu: titulu akademikoak emanez eta ukatuz izanari izena jartzen dio. Beraz, Bourdieuren<sup>251</sup> arabera, lehenagotik zeuden ezberdinkeria sozialak legitimatzen laguntzen du. Baina ez hori bakarrik: ezberdinkeria sozial berriak ere ezartzen ditu agente batzuk talde zehatzetako kide bihurtzen dituenean (x ikastetxean y ikasketak egin dituen), kide hori konsagratu egiten baitu. Hortaz, Bourdieuren arabera, hezkuntza sistema aldi berean sailkapen sistema eta sailkapenen ekoizpen sistema da.

<sup>244</sup> Bourdieu, 2004, 125 or.

<sup>245</sup> Bourdieu, 2004, 96 or.

<sup>246</sup> Bourdieu, 2000a, 41 or.

<sup>247</sup> Bourdieu, 2000a, 41 or.

<sup>248</sup> Bourdieu, 2004, 72 or.

<sup>249</sup> Bourdieu, 1997, 41 or.

<sup>250</sup> Bourdieu, 2004, 117 or.

<sup>251</sup> Bourdieu, 1997, 33-35 or.

Familiaren kapital ekonomikoa eta bereziki kulturala handia bada, ikasleak aukera handiagoak dauzka eskolan arrakasta izateko, Bourdieuren arabera<sup>252</sup>. Meritu indibidualak oso erlatiboak dira. Doain pertsonala, hortaz, jasotako kapitalean oinarritzen da neurri handi batean. Berdintasun formalaren ideiak, ordea, meritu pertsonala hartzen du oinarritzat: berdintasun formala guztiz errespetatzen den testuinguru batean, ordea, ezberdinketa sozialak meritu pertsonalean oinarritzen dira. Doaiaren ideia esker legitimatzen dira kapital handiena daukatenen posizioak, naturalak balira bezala, ezberdinketaren funtsa jarrera pertsonala balitz bezala. Horrela hezkuntza sistemak hierarkia ezartzen eta legitimatzen du bere titulazioetan. Bazterketa eta promozioa soilik meritu pertsonaletan oinarrituta balego bezala jokatzeko du. Ondorioz, Bourdieuren<sup>253</sup> arabera, Hezkuntza Sistemako diplomak banaketa asimetrikoak legitimatu egiten ditu ezberdinkeria sozialak. Familiarengandik jasotako kapitalak eragin handia du agenteak lortzen dituen diplometan, baina diplomak erdiesteak edo ez bakoitzaren meritu indibidualen arabera balitz bezala onartzeko joera dago oro har. Lortzen ez badira, hortaz, akats indibiduala da soilik, meritu falta. Alta, berdintasun formalaren atzean kapital bolumenaren eta egituren arteko ezberdintasunak eta kapital transmisioaren auzia daude.

Taberner-en<sup>254</sup> arabera ere, familia agente sozializataile nagusienetakoa da eta familiaren ezaugarriek zerikusi oso handia dute eskolako errendimenduarekin: familiaren eskolarekiko jarrerak ez ezik klase sozialak, talde profesionalak edo kultur kapitalak ere eragin handia dute. Beraz, Taberner-en arabera, familia da gako hau haurrari bizitza sozialerako eta eskolarrerako nortasun mota egokiena ahalbidetzeko. Baina, Taberner-ek dioenez, ez da ahaztu behar familia bere kontrolatik kanpo dagoen testuinguru sozial baten baitan dagoela eta, ondorioz, honek ere eragin erabakiorra duela hezkuntzan. Gainera, adinkideek eta hedabideek ere agente sozializatailearen rola jokatzeko dute gaur egun. Horrez gain, Taberner-en arabera, kontuan hartu behar da familiaren baitako gatazka mailak eta familiaren baitako anomia mailak ere eragina dutela haurren nortasunarengan eta, ondorioz, eskolako errendimenduan.

Martín Criado-k eta bestek<sup>255</sup>, berriz, azaltzen dute kapital kulturala ez dela objektu material arrunt bat bezala transmititzen. Familia baten baitan heldu batek kapital kultural egokia izan dezake eskolan arrakasta izateko (kapital kulturala kapital eskolar bihurtzeko) baina horrek ez du bermatzen kapital hori familiako haurrei transmitituko dienik. Familiako helduen eta haurren arteko hartuemanaren izaerak eta intentsitateak nabarmen baldintzatuko dute transmisioa: erabiltzen den denbora, ezartzen diren dinamikak, nagusitzen diren estrategiak, etab. Horrek guztiak garrantzi erabakiorra du.

Marchesi-ren<sup>256</sup> arabera, aldiz, eskolako ezberdinkeriak ez dira hezkuntza sistema formalean sortzen, baina bertan areagotu egiten dira. Marchesi-k<sup>257</sup> PISA txostenaren emaitzetan oinarrituz dio familia testuinguru apalago batek ez dituela automatikoki emaitza akademiko kaskarrak eragiten baina familiaren baldintzak direla ikasleen errendimenduan eta ikastetxeen funtzionamenduan eragiten duten faktore erabakiorrenetako bat.

---

<sup>252</sup> Bourdieu, 2004, 74-81 or.

<sup>253</sup> Bourdieu, 2004, 75 or.

<sup>254</sup> Taberner Guasp, 1999.

<sup>255</sup> Martín Criado eta beste hainbat, 2000.

<sup>256</sup> Marchesi, 2000.

<sup>257</sup> Marchesi, 2006.

### 2.3.2 Hezkuntza sistemaren izaera

Bourdieu eta Passeronen<sup>258</sup> arabera, ekintza pedagogiko oro arbitrariotasun kulturalen oinarritzen da, baina beti izkututzen du bere izaera. Bourdieu eta Passeronek diotenez, talde dominatzaileek beren indarrari esker ezartzen dute hezkuntza sistemaren izaera, baina, botere sinbolikoaz baliatzen den botere oro bezala, hezkuntza sisteman ere saiatzeko da izkututzen bere legitimotasunaren oinarrian dauden indar harremanak. Botere sinbolikoa den heinean, bere esanahiak inposatzeko gaitasuna dauka, baina legitimotasunez inposatu ahal izateko bere edukiak naturalak balira bezala aurkezten ditu. Horrela, bere boterearen oinarrian dauden indar harremanak izkututzen ditu eta,aldi berean, bere indar sinbolikoa gehitzen dio indar harreman horri: botere sinbolikoa indar harremanean oinarritzen da, baina,aldi berean, indar harremanean eragina du. Hortaz, indar harremanen egoerari esker garatu daiteke botere sinbolikoa, baina indar harremanek botere sinbolikoaren bitartez lortzen dute indar harremanak daudenik ere ez jabetzea.

Chomsky<sup>259</sup> ere hein batean ados dago ikuspegi honekin. Chomsky-k dioenez, ez da zaila hezkuntza sistemako kideek (Chomsky unibertsitateaz ari da) beren buruak engainatzea eta pentsatzea beren posizioa neutrala dela, ez dela hainbat baliotan oinarritzen. Baina, Chomsky-ren arabera, argi dago hainbat sektoreren interesi erantzuten diela. Posizio hori mantentzea erabaki politikoa da. Garaian garaiko boterearen banaketa berrestea suposatzen du. Autoritatea eta pribilejio sozialak sendotzen ditu. Estatua mantentzearen alde egindako apustua da. Azken finean, Chomsky-ren arabera, arazo sozialak hezkuntzaren eremuan ere islatzen dira. Egoera aldatzeko edozein ahaleginek tupust egingo du administrazioarekin eta sailetako arduradunekin, baina traba handiagoa izango dira ikasleak eta irakasleak, lehenengok erroka berri zailei egin beharko lieketelako aurre eta bigarrenek, berriz, bildurrez hartuko luketelako beren segurtasuna, autoritatea eta egitura gremiala kolokan jartzea.

Fernández Enguita-ren arabera<sup>260</sup> ere hezkuntza sisteman ezagutzaren transmisio prozesua osoan zehar irakaspena, hautaketa eta omisioa gertatzen dira:

- a) Irakaspena: eskolaren erakundeak propio bilatzen du haurrek eta gazteek beste batzuek aurrez determinatutako ideiak eta interpretazioak barneratzea.
- b) Hautaketa: eskolak ez du kultura oro har transmititzen, kultura jakin bat baizik.
- c) Omisioa: zerbait hautatzeak automatikoki suposatzen du gainerako guztia baztertzea, gainerakoa irakasteak merezi ez duelako edo beste zenbait ezagutzei gainerakoen aurrean lehentasuna ematen dietelako.

Hala ere, Bourdieuren<sup>261</sup> arabera, hezkuntza sistemaren kasua oso konplexua da. Izan ere, batetik, talde dominatzaileak bat baino gehiago dira eta interes kontrajarriak daukate, eta, bestetik, talde hauen interesak ez dira hezkuntza sisteman bere horretan islatzen, baizik eta zenbait galbahetatik igaro ondoren. Hezkuntza sistemaren historia luzea eta konplexua da eta gaur egun ere interes mota askori erantzuten die, ez soilik gutxi batzuen interes bakan batzuei. Hezkuntza sistema, aurpegi ugari dituen erakunde da. Bere baitan interes antagonikoak ere defendatzen ditu. Baina,

<sup>258</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 18 eta 30 or.

<sup>259</sup> Chomsky, 2005a, 249 eta 265 or., eta 2005b, 104 or.

<sup>260</sup> Fernández Enguita, 1990, 94 or.

<sup>261</sup> Bourdieu, 2004, 253 or.



gainera, Bourdieu eta Passeronek<sup>262</sup> diotenez, hezkuntza sistemak autonomia erlatiboa dauka. Horren ondorioz, adibidez, arbitrariotasun kulturalan aldaketak daudenean, hezkuntza sistemak aldaketak erreproduzitu egiten ditu, baina atzerapenez egiten du. Autonomiaren arabera atzerapena izaten da. Instantzia maila bakoitzak autonomia maila ezberdina izan dezake, erakundetzearen izaeraren eta intentsitatearen arabera.

Dena den, Bourdieu eta Passeronek<sup>263</sup> diotenez, interesak batzuk edo besteak izan, eskolak autoritatea irabaztea du helburu, legitimotasunak ahalbidetuko baitio bere ekintzen eraginkortasuna. Hezkuntza sistemak ahalegina egin ohi du bere ingurune sozialaren zilegitasuna lortzeko. Autoritateari esker transmititu ahal izango ditu bere eduki sinbolikoak. Transmisioa bermatu ahal izateko sozialki legitimatutako sari eta zigorrak baliatzen saiatzen da. Hartzaileak eskolaren autoritatea onartzen duen heinean, hartzailea prest dago edukiak jaso eta barneratzeko. Autoritatea onartzeko aukerak handiagoak dira beti ere hartzailearentzat ekintza pedagogikoaren produktu horiek merkatuan balio ekonomikoa eta sinbolikoa duten heinean; hots, sarituak izateko aukerak dituztela hautematen den heinean. Horri deitzen diote Bourdieuk eta Passeronek errealtatearen edo merkatuaren legearen printzipioa. Azken batean, Bourdieu eta Passeronek diotenez, Eskolaren baitan ekintza pedagogikoaren arrakastaren kausak bi dira:

- a) ekintza pedagogiko dominatzaileak familia bakoitzaren ekintza pedagogikoari ematen dion balioa eta, halaber, familia bakoitzak ekintza pedagogiko dominatzaileari ematen dion balioa;
- b) familia bakoitzaren kapital kulturalaren arabera eta, era berean, familia bakoitzaren kapital kulturalak kapital kultural dominatzailearekiko duten distantziaren arabera.

Baina hezkuntza sistema etengabe saiatzen da ezaugarri hauek izkutuan mantentzen, Bourdieu eta Passeronen arabera.

Bere jardunean hezkuntza sistemak berriro ekoitzi behar ditu autoritatea eman zioten baldintza sozialak, Bourdieu eta Passeronen<sup>264</sup> arabera. Indarrean dagoen arbitrariotasun kulturala berriro ekoitzi behar du. Ahal bezain koste txikiaz, habitus ahal bezain homogeneo eta iraunkorra sustatuz, ahal bezain beste hartzaile-helburu legitimoentzat, eta arbitrariotasun kulturalaren printzipioekin ahal bezain ados egongo direnak. Hori lortu ahal izateko funtsezkoak dira transmisiorako moduak, edukiak eta iraupena egokiak izatea. Bourdieuk eta Passeronek transmisioaren produktibitatea neurtzeko hiru irizpide erabiltzen dituzte: eskolak agenteengan sustatutako habitusaren iraupena, intentsitatea eta transferibilitatea.

Hezkuntza sistemen legitimotasunak gora-behera handiak dauzka, Bourdieu eta Passeronek<sup>265</sup> diotenez. Une historikoaren arabera ez ezik hartzailearen arabera ere legitimotasun maila aldatu egiten da. Aitortutako legitimotasun mailaren arabera estutzen edo zabaltzen da hartzailearen galbahea, baina, Bourdieu eta Passeronen arabera, autoritatearen delegazioa beti mugatua da. Bourdieu eta Passeronek diotenez<sup>266</sup>, legitimotasuna areagotu ahala hezkuntza sistemak kanpo

<sup>262</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 78-83 or.

<sup>263</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 19-47 or.

<sup>264</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 47-50 eta 72-74 or.

<sup>265</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 19-47 or.

<sup>266</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 52-57 or.

koertzioaren behar txikiagoa izango du. Azkenean, hezkuntza sistemaren baliabide guztiak indartu egiten dira baldin eta dominatzaileak transmititutako habitusa arrakastaz inposatzen bada. Habitusa gehiago barneratzen den heinean geldituko da mekanismoa izkutuan.

### 2.3.3 Azterketak eta epaiak

Bourdieu eta Passeronen<sup>267</sup> arabera, eskolak independente eta berdinzale erakutsi behar du bere burua, nahiz eta neurri handi batean hierarkia sozialak bere horretan mantentzen dituen. Azterketak dira berdintasunaren ikurrik behinena hezkuntza sistema garaikideetan. Azterketak *egiaren ordua* bezala aurkezten dira, baldintzak formalki berdintasunezkoa izanagatik denentzat aukera berdinak baleude bezala.

Azterketen bidez bermatzen da berdintasun formalaren ideala, Bourdieu eta Passeronen<sup>268</sup> arabera. Azterketak dira kultura dominatzailea transmititzeko tresna eraginkorrenak. Azterketen bidez ikasle batzuk *legitimoki* baztertzen dira. Beste biderik ez dela sinestu ohi da sarri. Ahaztu egiten da, adibidez, Grezia Klasikoan ez zegoela azterketarik. Azterketetan gaindituek eta ez-gaindituek sortzen dute hautaketa legitimoaren oinarria. Dena den, porrot egiten duten askok alde aurretik, azterketara iritsi baino lehenago, beren buruak baztertu egiten dituzte ibilbide horretan, sarri *motibazio falta* argudiatuz.

Hezkuntza sistema garaikideak egiten dituen ikasleekiko epai sendo eta zorrotz itxurakoek (gainditua eta ez-gainditua, eta bakoitza mailakatuta) *patu* sentazioa errotzen dute agenteengan, Bourdieuk<sup>269</sup> dioenez. Epai hauek etorkizuna zein izango den adierazten dutela ematen du. Agente bakoitzaren izaera argitzen dutela dirudi, “hau zara zu eta ez beste ezer” esaten ariko balira bezala. Horrek hierarkia ekoizten du. Epai hauek itxuraz eztabaidaezinak dira. Sarri gurasoek indartu egiten dute epaiaren eraginkortasuna. Ondorioz, honek guztiak eragin oso handia du ikasleengan. Bourdieuren<sup>270</sup> arabera, eskolak ikuspegi meritokratikotik begiratzen du eta ikuspegi substantzialista batean oinarritzen da: eskolaren epaiak erabatekoak eta substantzialistak direnez, zauri sendaezinak eragin ditzakete. Bourdieu eta Passeronen<sup>271</sup> diotenez, eskolak aurrekari sendoak ezartzen ditu bere zigorren bidez; gero etor daitezke norbere buruarekiko mespretxua, eskola erakunde bezala baliogabetzea, eskolaren zigorrak baliogabetzea, eta porrota nahiz bazterketa onartzea. Bourdieu eta Passeronen ikuspegitik, kanpo zigorretik barne zigorreranzko bidean legitimatzen eta betierekotzen dira ezberdintasun sozialak.

Bourdieu<sup>272</sup> *allocation* deitzen duen fenomeno hezkuntza sisteman ere gertatzen da. *Allocation* izeneko fenomeno hori zera da: norbaiten aspirazio eta exijentziak moldaraziz norbait hori arlo, diziplina edo erakunde sozialki prestigiotsu nahiz devaluatu baterantz bideratzea. Horretarako funtsezkoa da nork bere buruaz daukan irudia eta estima moldaraztea. Eskola bere ibilbide osoan

<sup>267</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 185 or.

<sup>268</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 161-165 eta 178-179 or.

<sup>269</sup> Bourdieu, 2004, 250 or.

<sup>270</sup> Bourdieu, 1999d, 445 or.

<sup>271</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 230.

<sup>272</sup> Bourdieu, 1999b, 20-23 or.

zehir saiatzen da lan hori egiten. Hala ere, Eskola ez da lan hori egiten duen bakarra, ezta garrantzitsuena ere. Bourdieuren iritziz familia da zeregin horretan funtsezkoena.

Fernández Enguita<sup>273</sup> bat dator Bourdieuk eta Passeronek aurkezten duten ikuspegiarekin. Fernández Enguitaren arabera, jardueraz kanpoko sariketa sistemaren bitartez motibatzeak eragiten du, onartua den heinean, hezkuntzaren gatazka erdigunetik periferiara mugiaraztea. Irakasten dena interesekoa denetz arduratzeari utzi eta sariaz kezkatzera pasatzen dira ikasleak baldin eta sariketa sistemak zuzena izatearen onarpena badu. Ez dira asetzen lanarekin, baizik eta lanarekin zerikusi zuzena ez duen sariarekin. Eredu horixe bera dago indarrean gaur egungo lan munduan.

Gainera, Fernández Enguitak dioenez, eskolaren aldarria elkartasuna eta lankidetzat izan arren, eskolak lehiakortasuna sustatzen du batik bat kalifikazio indibidualen bitartez, guztiek dakitelako kalifikazio bat ona izateko derrigorrez gainerakoak baino hobea izan behar dela. Baina lehiakortasuna ebaluazio ofizialetan ez ezik ikasgelako egunerokotasunean ere badago. Sariak kalifikazio hauen arabera banatuko dira eta nork bere lekua zein den barneratuko du, mekanismoak nahi bezala funtzionatzen duenean behintzat. Etorkizunean lanaren banaketa hierarkikoa legitimatuko duten mekanismoak eskolan barneratzen hasten dira, eraginkortasun handiz hasi ere. Eskolako ebaluazioaren funtzioa ez da diagnostikoa, sailkapena baizik. Ebaluazioaren irizpideak ez dira absolutuak, erlatiboak baizik. Batez bestekoaren eta modaren gainetik egotearen irizpidean oinarritzen da ikasle batzuen nabarmentzea, lorpena-denbora ardatzaren arabera, enpresa kapitalistaren irizpideetan bezala.

Castillo<sup>274</sup> ados dago ikuspegi honekin. Castilloren arabera, hezkuntza sistemak ebaluatu egiten du, hau da, ezberdintasunak banatu egiten ditu. Norberaren ahaleginaren balioa handitu edo txikitu egingo da gainerakoen ahaleginaren arabera. Emaitza onenak dituztenak saritzen direnez, hauei gainerakoengandik bereizteko distintzio ikurrak (notak) emango dizkiete, nahiz eta gainerakoen emaitzak onak izan, zeren gainerakoenak ez baitira onenak. Hortaz, norberaren ibilbidea ez du soilik norberak egiten baizik eta norberak eta bere baldintzek, bi zentzutan: batetik, abiapuntuak ezberdinak izaten direnez, batzuek bide luzeagoa egin behar dute posizio batera iristeko, beti ere iristea lortzen badute eta beren ahalegina (inbertsioa) ezerezean gelditzen ez bada, eta bestetik, kualifikazioari dagokionez, ustez nahikoa den ahalegina egin ondoren, gainerakoekin lehiatu behar da eta agian beste batzuek distintzio markak eskuratu ahal izango dituzte, norberaren kaltetan. Beraz, kontua ez da ona izatea, onena baizik, beti testuinguruak agintzen dituen irizpideen arabera. Leitmotiv hori oso eraginkorra da produktibitatea sustatzeko eta hierarkia sozio-ekonomikoa sendotzeko.

Psikologiaren eremuan egin diren hainbat ekarpenen arabera<sup>275</sup>, berriz, ikasleen sinesmenetan ikasketarako gaitasuna ahaleginaren arabera izatetik gaitasun ia aldaezintzat hartua izateranzko trantsizioa gertatzen da hezkuntza sistema formalaren baitan murgildu ahala eta mailetan gora eginez. Horretan zerikusi handia du eskolaren kalifikazio sistemak, ikasleak bere buruaz zer sinestu behar duen bideratzen baitu modu oso indartsuan. Irakasleak ikasleen errendimenduak

---

<sup>273</sup> Fernández Enguita, 1990, 110-111 or.

<sup>274</sup> Castillo, 2004, 68 or.

<sup>275</sup> Mietzel, 2003.

alderatu, marko horretan kalifikatu eta horren arabera hierarkia sortzen badu, lehiakortasun baldintzak sortzen dira eta hierarkia horretan nor bere burua gehienetan maila batean ikusten badu, denboraren poderioz bere kompetentzia ahalmena konstantea dela sinestera iritsiko da. Aitzitik, irakaslearen kalifikazioa oinarrituko balitz ikasleek beren buruak ahaleginaren poderioz aldatu duten mailan, ikasleek beren buruak eta kompetentziak aldagarritzat ikusiko lituzkete. Beren gaitasun aitortua aldagarria dela ikusten duten ikasleek aukera handiagoak dituzte barne-motibatuak egoteko. Decy eta Rian-en arabera, barne motibazioa agertuko da soilik nor bere burua gai dela ikusten duenean eta, halaber, burujabetza edo autonomia maila nahikoa duela sentitzen duenean. Kanpo aginduek mugak handiak ezartzen badituzte, soilik kanpo motibazioa ahalbidetuko dute. Batezbestekoa baino ahalegin handiagoa egiteko ezinbestekoa da barne motibazioa. Bestalde, motibazioan eragina dute honakoek: arrakasta-porrotei ematen zaien azalpenak, nor bere eraginkortasunaz duen sinesmenak eta ingurukoek (irakasle, guraso eta abarrek) zenbateraino laguntzen dioten banakoari hori sinesten, eta ekintzek dituzten ondorioak eta ondorioei ematen zaizkien azalpenak.

#### 2.3.4 Eskolarekiko interesa

Bourdieu<sup>276</sup> arabera, gaur egun familiek eskolarekiko interes handia dute. Diru, denbora eta energia inbertsio handiak egin ohi dituzte eskolan, baina guztiek ez dute maila berean egiten eta, halaber, guztiek ez dute erlatiboki etekin berdina lortzen, ez baitauzkate horretarako aukera berdinak. Esate baterako, Bourdieu eta Passeronek<sup>277</sup> hezkuntza sistemaren egunerokotasuna komunikazio gisa aztertzen dutenean, argi adierazten dute komunikazio eraginkorrerako baldintzak soilik hurbiltasun soziala dutenen artean betetzen direla. Hortaz, komunikazio pedagogikoak progresiboki baztertu egingo ditu baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak. Sozialki hurbilago dauden ikasleengandik, berriz, konplizitatea lortu nahiko du. Izan ere, oinarri tradizionaleko pedagogia batek arrakasta izan dezake baldin eta ikasleek aurreuposatutako kapital linguistiko eta kulturala (eta hau gauzatzeko borondatea) badaukate, ezagutza hori bera konsagratzen baitu sistema honek, nahiz eta inoiz ez duen esplizituki adierazten edo metodikoki transmititzen. Komunikazioaren eraginkortasuna hainbat faktoreren arabera da: mezuaren edukiaren balioa, autoritatearen onarpen maila, mezua transmititzeko eskubide maila, hartzailearen gaitasunaren egitura, komunikazioaren espazio soziala, erritmoa, erritua, hizkera eta abarren onarpena. Eskema honen arabera, arrazoi egokiak irakasleak transmititzen dizkio ikasleari eta ikasleak, berriz, arrazoi okerrak transmititzen dizkio irakasleari. Bourdieu eta Passeronen arabera, sinesmen honek ahalbidetzen du eskolan komunikazio arazo ororen errua ikasleari leporatzea. Horrela, ahaztu egiten da komunikazio honen erakunde-egitura eta, era berean, izkutatu egiten dira erakunde honen sorrerarako indar harremanak.

Bourdieu eta Passeronek<sup>278</sup> beren garaiaren azterketa egiten dutenean, zenbait ezaugarri argigarri aurkitzen dituzte. Bereziki lehenengo eskola urteetan, ulermena eta hizkuntzaren erabilera-gaitasuna dira irakaslearen ebaluazioen ardatza, jakintza *praktikoaren* kaltetan, Bourdieu eta Passeronen arabera. Familiarengandik jasotako kapital linguistikoa, beraz, funtsezkoa da: hiztegi

<sup>276</sup> Bourdieu, 1997, 33 or.

<sup>277</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 89 eta 123-135 or.

<sup>278</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 91-94 or.

eta kategorizazio aberastasunak baldintzatuko du egitura konplexuak (logikoak nahiz estetikoak) ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna. Gerora ere *estiloa, azaltzeko gaitasuna* eta gisakoak oso kontuan hartuko dira, baita unibertsitatean eta natur zientzietan ere. Eduki hauei ematen zaien garrantziaren arabera aldatu ohi da talde sozial batzuen eta besteen arrakasta. Hala ere, ezberdintasunek desagertze aldera egiten dute eskolaratze masiboa hedatu ahala, zeren guraso izango direnen kapital kulturala igo egiten baita. Talde sozial apalenek ibilbide akademikoetan aurrera egin ahala, kapital kultural (kapital linguistikoa barne) gehiago transmititu diezaiekete seme-alabei. Ibilbide akademikoan aurrera egin ahala, Bourdieu eta Passeronen<sup>279</sup> arabera, gaitasun linguistikoaren garrantziak behera egiten du. Gora, berriz, jatorri sozialak eta generoak. Bourdieuk eta Passeronek zioten emakumezkoak letretako ikasketetan bi aldiz gehiago zirela ikustea besterik ez zegoela. Zerikusia daukate emakumezkoen gaitasunei buruzko definizio sozialek. Halaber, ikasketa batzuk gehienbat emakumezkoentzat direla barneratua dago neurri batean. Lanpostuekiko ere fenomeno bera gertatzen da. Bi faktore hauek bihurtzen dira funtsezko. Hala ere, ikertzen duten testuinguruari dagokionez, Bourdieu eta Passeronek<sup>280</sup> aipatzen dituzte posizio sozialekin lotutako beste faktore batzuk ere: bizilekua, ezaugarri demografikoak, enpleguaren segurtasuna, irabaziak eta irabazien hazkunde ikuspegia, aisia, eskolarekiko ikuspegiak, asmoak eta gogoak. Baina oroz gain posizio sozio-ekonomiko-kulturala eta generoa.

Bourdieu eta Passeronen azterketak garai eta leku baten ezaugarriak analizatzen ditu eta kontuan hartu behar da garai eta leku bakoitzak bere ezaugarriak dituela, baina, hala ere, funtsezkoa da aintzat hartzea garai eta leku bakoitzak testuinguru batean eraikitzen duela bere hezkuntza sistema eta beti oinarritzen dela arbitrariotasuna kulturalan. Leku eta garai bakoitzean lehenesten diren ezaugarriak batzuen mesedetan eta besteen kaltetan izango dira. Testuinguru horretan eraikitzen da agenteen interesa eskolarekiko. Ez da arazo indibidual bat. Bourdieu eta Passeronen ikerketak erakutsitako datuen arabera, talde sozial bakoitzak probabilitate ezberdinak dauzka ibilbide akademikoan arrakastaz aurrera egiteko. Eta aurrera egitea lortuz gero ere, ezberdinketak beste era sotilagoetan gertatzen dira.

*La Reproduction*-en, adibidez, beren kasu azterketari buruzko datu kuantitatibo esanguratsuak aurkezten dituzte Bourdieuk eta Passeronek<sup>281</sup>. Esate baterako, 1961-1962 artean soldatapeko nekazarien seme-alabek %1,2ko probabilitatea zeukaten goi mailako ikasketak egiteko; industriako zuzendari batenak %50ekoa baino gehiago. 1962-1966 artean probabilitate guztiek egin zuten gora kategoria orotan, baina nahiz eta probabilitate handiak dituztenen aukerak aukera gutxiago daukatenen aukera baino gutxiago igo ziren, datua erlatibizatu egin behar dela esaten dute Bourdieuk eta Passeronek: adibidez, soldatapeko nekazarien seme-alabek %1,1etik %2,7ra egin zuten gora eta lanbide liberalak eta goi karguak zituztenen seme-alabenenak %38,0tik %58,7ra; lehenengoan igoera %100 baino handiagoa da, baina ezin da bigarrenekoekin alderatu. Industriako zuzendarien seme-alabek %52,8tik %74,0ra igo ziren. Hezkuntza sistemaren demokratizazioa, beraz, erlatiboa da.

<sup>279</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 96-98 or.

<sup>280</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 100 eta 111 or.

<sup>281</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 244-247 or.

Honenbestez, Bourdieuk eta Passeronek<sup>282</sup> diote hezkuntza sistemaren baitako ezberdintze prozesuak ezin direla ondo ulertu baldin eta ez badira kontuan hartzen talde sozialen eta beren ezaugarrien arteko harremanak, ezberdintasunak eta gatazkak. Hezkuntza sistema ezin da isolatuki analizatu, erakunde abstraktu bat balitz bezala. Bourdieu eta Passeronen iritziz, eskolan arrakasta ezin zaio nagusiki indibiduoari egotzi, bere egoera soziala bigarren mailan utziz. Bourdieu eta Passeronek<sup>283</sup> diotenez, eskola erabiltzeko borondatea eta bertan arrakasta izateko aurrejarrerak eta gaitasunak lotura dute talde sozial bakoitzak eskola erabiltzeko eta bertan arrakasta izateko aukera objektiboekiko. Lotura honek ezberdinkeria sozialak mantentzeko baldintzak eragiten ditu.

Bourdieu eta Passeronen<sup>284</sup> arabera, ibilbide akademikoan agente bakoitzak berari dagokion bidea hartzen duela uste du. Soilik lortutakoa lortzeko esperantza izaten dute eta ez dute lortzen espero ez zuten ezer. Horrela betierekotzen da orden soziala. Adibidez, Bourdieuk<sup>285</sup> dio langile askoren seme-alabek lehenbailehen hasi nahi dutela lanean, heldu bihurtzeko gogotsu baitaude, dirua beren kasa eskuratzeko, eta ondoeza sortarazten die urteetan luzatzen den eskolaratzeak. Indiferentzia, Bourdieuren<sup>286</sup> iritziz, konpetentzia faltaren isla da. Bourdieuren arabera, eskolarekiko axolarik eza, beraz, ezintasunaren isla da.

Bestalde, ikasketa jarrairi dagokionez, Bourdieuren<sup>287</sup> ekarpena esanguratsua da. Demagun pertsona batek bere burua artistatzat daukala baina publizitatean lan egiten duela eta, denbora pasa arren, publizitateko enplegu hori behin-behinekotzat duela, etorkizunean artista izango dela uste baitu. Hartara, desinbertsioa eta berrinbertsioa atzeratu egiten dira etengabe. Bitartean, ziur aski iritsiko ez den etorkizun horretarako prestatzen ari da. Gerotik gerora atzerapenetan ibilita, erraza da ulertzea nola onartzen den bizi osorako ikasketa jarraia. Gaur egun ikasketa eta ekonomia sistemak gero eta nabarmenago ibilbide amaiezina sustatzen dutela dirudi. Ibilbide horietan egiten diren mugimendu sozialak oso txikiak izan ohi dira, baina hala ere, etorkizunean posizio soziala aldatuko denaren ikuspegiak eramaten du seguruen aldatuko ez den posizio soziala ez onartzera. Ibilbide ustez amaiezin hauek krisi eta kritika soziala eragin dezakete agenteengan, baina krisi eta kritika sozial hori aise eralda daiteke krisi eta kritika pertsonalean.

Bourdieuren<sup>288</sup> iritziz, ikasketa jarraian sinesteko baldintzak betetzen dituzte erdibideko posizioan dauden guztiek. Indeterminazio estrukturala da hauen ohiko ezaugarria. Erakarpen eta egozpen indarrak parekoak dira hauen kasuan eta etengabe makina bat alternatibari egin behar izaten diete aurre esparru orotan. Beraz, eguneroko bizitzaren eragiketa txiki asko ere kontzientziaren galbahetik igaroarazi beharra daukate.

Hala ere, Bourdieuren<sup>289</sup> arabera, kapital txikia heredatzen dutenak ez dira testuinguru honen kaltetu bakarrak. Hezkuntza sistemak ez du soilik kapital txikia daukana estutzen. Kapital handia

---

<sup>282</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 161-165 eta 178-179 or.

<sup>283</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 230 or.

<sup>284</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 233 or.

<sup>285</sup> Bourdieu, 2000a, 146 or.

<sup>286</sup> Bourdieu, 1999b, 413 or.

<sup>287</sup> Bourdieu, 1999b, 155-156 or.

<sup>288</sup> Bourdieu, 1999b, 348 or.

<sup>289</sup> Bourdieu, 1997, 42 or.

pilatzeraz deitua dagoena ere estu eta larri ibiliko da helburu batzuk lortzearen, hauek ere lehiakortasunaren testuinguruan mugitzen baitira, denak denen aurka.

Nolanahi ere, Bourdieu eta Passeronen<sup>290</sup> ikuspegi eskematikoaren kontra egin nahi dute: zuri-beltzean begiratu gero, ikasle organikoa eta kritikoa bakarrik ikusiko lirateke, baina edozein analisis erraz erakuts dezake aniztasuna eta konplexutasuna oso zabala dela.

Bestalde, Bourdieuk<sup>291</sup> dio badakiela bere ikuspegiarekin ez datozela bat hezkuntza sisteman sartuta dauden agente askok. Hezkuntza sistemak *liberatu* egiten ditu batzuk, eta hain zuzen horietan dira eskolaren askatzeko gaitasunean gehien sinesten dutenak. Beraiek alde aurretik horretara iristeko baldintzak betetzen zituztela ahaztuz, ibilbide akademikoan ikasitakoak eta lortutako titulazioek lagundu dietela bakarrik azpimarratu ohi dute, Bourdieuren iritziz.

Kohn-ek<sup>292</sup>, ikuspegi honekin bat eginez, dio egitura sozialak eragina duela indibiduoarengan. Klase sozial bakoitzak gizarte baldintza ezberdinak bizi dituenez, ezberdin ikusten du mundua: errealitate sozialarekiko ikuspegi ezberdinak garatzen dituzte, aspirazio ezberdinak, esperantza eta bildur ezberdinak, desiragarria litzatekeenaren kontzeptua ezberdinak. Horixe gertatzen da haurren heziketan ere. Aita batek, adibidez, kualitate bat bestea baino egokiagoa dela pentsatuko du baldin eta kualitate hori garrantzitsutzat jotzen badu, hots, baldin eta kualitate hori ez garatzeak haurrari kalte egingo liokeela baderitza eta kualitate hori garatzea segurutzat jotzen ez badu. Balio ezberdinak aukeratzea neurri batean lotuta dago aitaren bizi baldintzekin, eta horretan eragina dute, besteak beste, aitaren okupazioaren ezaugarriek eta aitak hezkuntza formalari egozten dion garrantziak eta baliagarritasunak.

Castillo-ren<sup>293</sup> arabera ere, funtsezkoa da etxekoen eta eskolaren rola ikasleari aholkuak eman (esplizituki nahiz inplizituki) eta espektatibak sortzeko. Prozesu honetan sortzen diren norbanakoen arteko ezberdintasunak ageriagoan gelditu dira lan eta eskola erreformen ondoren.

Psikologiaren eremuan egin diren hainbat ekarpenen arabera<sup>294</sup>, familiaren eta seme-alaben errendimendu akademikoaren arteko loturari dagokionez, oso garrantzitsuak dira familiaren gaitasun eta espektatiba kognitiboak (zer ezagutzen duten eta zer ezagutzeko gogoia-asmoa-espektatiba duten), hizkuntza gaitasuna eta estiloa, familiaren giro afektiboaren kalitatea, maila kulturala, maila sozio-ekonomikoa, familiaren jarrera eskolan erakusten denarekiko eta eskolarekiko (eskola seme-alabak aparkatzeko leku, ezagutza erabilgarriak eskuratzeko leku, mugikortasun sozialerako plataforma, formazio integralerako leku). Izan ere, psikologiaren eremuko ekarpen hauen arabera<sup>295</sup>, lotura nabarmena da kompetentziaren eta posizio sozialaren artean. Ezberdintasunak handitu egiten dira ikasleen adina handitu ahala. Posizio sozialaren eta seme-alaben eskolako errendimenduaren arteko lotura estuagoa da edo lasagoa da posizio soziala definitzeko moduen arabera. Edonola ere, posizio sozialek eta gurasoen nahiz seme-alaben espektatiba sozialek eragin handia dute nork bere buruaz duen ikuspegiaren eta kompetentzia

<sup>290</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 113 or.

<sup>291</sup> Bourdieu, 2004, 77 or.

<sup>292</sup> Kohn, 1999.

<sup>293</sup> Castillo, 2004, 64-75 or.

<sup>294</sup> Beltrán Llera & Bueno Alvarez, 1995.

<sup>295</sup> Hernández, 1991.

garapenean. Posizio sozialari lotutako baldintza materialek ere eragina dute, bizimodua baldintzatzen duten heinean. Horrez gain, familian erabiltzen den kode linguistikoak ere eragina du, baita familia barruko harremanen kalitateak eta izaerak ere.

Baina psikologiaren eremuko ikuspegi honen arabera<sup>296</sup>, ikasleek ez dituzte beren lorpenak horrela bizi. Hezkuntza sistemako lehenengo mailetako ikasleei galdetzean, sei-zazpi urte dituztenean, eskola zereginen batean arrakasta edo porrota izatea, azkarra izatea edo ikastea, ahaleginaren arabera dela uste dute gehienek. Hots, beren eraginpean dagoela, beraiek egiten dutenaren arabera dela. Aitzitik, mailetan gora egin ahala handitu egiten da arrakasta edo porrota justifikatzeko gaitasun aldaezintzat dituztenetan oinarritutako erantzunak: “ona naiz matematiketan”, “ez naiz ondo moldatzen ingelesarekin”. Alegia, ahalegina ez da hainbeste gaitasuna handitzeko baizik eta gaitasun eza konpentsatzeko. Hortaz, iritzi honen arabera, ahalegin oso handia egin behar duenak gabezia dauka, zeren ikasle *onek* ez baitute hainbeste saiatu beharrik. Nork bere buruaz duen ikuspegiak nabarmen baldintzatzen du norberak eskolaren erronken aurrean erantzuteko duen modua.

Fernández Enguitak<sup>297</sup> dio makina bat ikerketa egin direla ikasleen emaitza akademikoen kausak azaldu nahian eta ikasleen hamaika ezaugarriekin lotu dituztela. Ezagunenak jatorri soziala, aitaren kategoria okupazionala, amaren ikasketak, diru irabazi maila, generoa, test bidez inteligentzia koefizientea eta gisako beste zenbait izan dira. Beste ikerketa batzuek ezaugarri puntualagoak hartzen dituzte erdigunetzat: anai-arreben kopurua eta haien artean betetzen den lekua, familiaren etxean ikasteko lekua dutenez, itxura pertsonala, eta autoestima, besteak beste. Baina ikerketa hauek gehienetan aldagai partehartzaileez arduratzen dira, ez aldagai independenteez, edo errealitate oso konplexuak aldagai oso sinpleen bitartez azaltzen saiatzen dira. Edonola ere, Fernández Enguitaren arabera, badirudi jatorri sozialaren eta kulturalaren eragina zenbait faktoreren edo faktore talderen bitartez gauzatzen dela:

- 1) Hizkera: maila bezain garrantzitsua da mota, ez baita eskolako hizkera derrigorrez beste edozein hizkera baino hobea, baina harekiko hurbil daudenek erraztasun handiak dauzkate, ikasketa prozesuen tresna garrantzitsuena hizkuntza baita.
- 2) Kultur kapitalaren bolumena eta izaera: hizketarekin bezalaxe, eskolan eskatzen den perfiletik hurbilago dagoenak erraztasunak izango baititu eta urrunago dagoenak, berriz, gutxiago, eta horrek ez du esan nahi urrun dagoenak kultur kapital eskasagoa duenik, eskolakotik urrunago dagoela baizik.
- 3) Espektatiba sozialak eta eskolarekiko ikuspegiak: ikaslearentzat bere inguru hurbilekoak erreferentzia oso garrantzitsua dira bere espektatiben eta ikuspegien eraikuntzan, eta horietan eskolaren rola pisu handiegirik ez badu edo eskolak eskaintzen duenarekiko interesik ez badu, eskolarekiko dinamikan eragina izango du.
- 4) Jokabidea: eskola ikasle gehienentzat leku ez-erakargarria bihurtzen denean, funtsezkoa da ea atzeratzearen logikaren arabera jokatzeko dutenez, *orain ahalegina egin gero lortzeko* logikaren arabera alegia, eskolak saritu egiten baitu jokabide mota hau.
- 5) Familiaren jarrera eskolarekiko: horren arabera lehenesten da hezkuntza mota bat edo bestea, baina ez soilik akademikoa edo profesionala, erlijiosoa edo laikoa, baizik eta

---

<sup>296</sup> Mietzel, 2003.

<sup>297</sup> Fernández Enguita, 1990, 54-61 or.



hezkuntza irekiagoa nahi duten autonomia eta askatasun handiagoa emanaz edo hezkuntza itxiagoa eta diziplinarioagoa nahi duten, besteak beste.

Cardenal-en<sup>298</sup> arabera, aldiz, ere hezkuntza sistema *eskola unibertsala* bezala aurkezten da, baina borroka eremua da. Adin bateko norbanako guztiak hartzen ditu, eta ematen dituen tituluen bitartez norbanako horiek lan merkaturantz proiektatzen ditu, baina lan merkatua hierarkizatua dagoenez, jatorri sozial ezberdinetatik datozen norbanakoek posizio-hartze sozialerako estrategiak garatzeko eremu bihurtzen da hezkuntza sistema. Are gehiago lan merkatua prekarizatua eta polarizatua badago. Hortaz, ikastea lorpen sozialerako espektatibei lotuta dago eta lorpen hauek gauzatzea hezkuntza sistemaz kanpoko faktoreei lotuta dago, baita eskolako lorpenez kanpoei lotuta ere, nagusiki jatorri sozialari eta generoari, baina faktore eragile hauek guztiak ez dira begibistakoak. Cardenal-en arabera, testuinguru honetan hautaketaz eta hierarkizazioaz arduratzen den hezkuntza sistemak legitimazio krisia bizi du.

Cardenal-ek<sup>299</sup> Espainiako estatuko datuak gurasoen lanbideak kontuan hartuz aztertzen dituelarik (ikus 2. taula), bi ondorio ateratzen ditu datu hauetatik::

- 1) talde guztietan handitu da eskolako kapitala
- 2) talde batzuek joera handiagoa dute ikasketa mota batzuetarako eta ez besteetarako.

Ondorio hauen oinarrian dagoen 1991 urteko ikerketa kuantitatiboan *klase sozialak* izeneko aldagaia honela bereizi zuten:

- a) kapitalistak: enpresaburuak, hau da, soldatapekoak nekazaritzan, industrian edo zerbitzuetan dituztenak;
- b) ondasundun klase ertainak (CMP): soldatapekorik gabeko enpresarioak eta kooperatiba kideak;
- c) klase ertain funtzional goi kargudunak: (CMFa): soldatapekoak edo autonomoak diren profesional eta teknikariak, nekazaritza ustiapenen zuzendariak, nekazaritzakoak ez diren enpresen eta administrazio publikoko zuzendariak, nekazaritzakoak ez diren enpresen eta administrazio publikoetako sailburuak;
- d) klase ertain behe kargudunak (CMFb): aurreko taldean sartzen ez diren administrazio eta zerbitzuetako enplegatuek, nekazaritzakoak ez diren enpresetako erdi-/behe-mailako arduradunak, militar profesionalak;
- e) Langileak: nekazaritzako eta zerbitzuetako gainerako langileak, nekazaritzakoak ez diren behargin espezializatu eta ez-espezializatuak.

---

<sup>298</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 63 or.

<sup>299</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 74-76 or.

Datuak honakoak dira:

2. Taula: Eskolatze tasa garbiak ikasketa mailaren eta klase sozialaren arabera 1981 eta 1991 (ehunekoak)								
	Eskolaurrea		BUP/COU		Lanbide Heziketa		Unibertsitatea	
	1981	1991	1981	1991	1981	1991	1981	1991
Kapitalistak	79,1	94,3	52,0	56,6	10,5	14,4	30,1	33,0
CMP	70,8	92,4	30,7	43,3	11,9	18,6	13,3	18,1
CMFa	85,5	95,7	72,4	78,1	6,4	6,9	47,0	50,7
CMFb	80,6	94,4	53,1	60,3	13,7	15,2	26,3	28,2
Langileak	72,6	92,0	21,7	32,9	16,2	21,6	7,9	10,7
Orotara	75,5	93,2	34,5	46,3	13,7	17,7	16,6	21,1

Iturria: Cardenal de la Nuez, María Eugenia *El paso a la vida adulta...* Honakoari hartu dio: CIDE (1999): *Las desigualdades en España II*, Madril, MEC, 44 or. Halaber, honek honakoari hartu dio: Calero, J & Bonal, S (1999): *Política educativa y gasto público en educación. Aspectos teóricos y una aplicación al caso español*. Bartzelona, Pomares-Corredor.

Halaber, Cardenal-ek<sup>300</sup> Kanarietako Estatistika Institutuaren (ISTAC) 1998 urteko datuetan oinarrituz, estratuaren arabera beste banaketa bat egin zuen:

- goi estratua: enpresetako zuzendariak edo goi-mailako profesionalak eta teknikariak diren enplegatzaileak;
- estratu ertain-altua: gainerako okupazio kategorietako enplegatzaileak, barne hartuta bertan lan egiten duten hoteletakoak, komertzialak eta nekazaritzakoak, eta baita ere soldatapekoak edo autonomoak diren goi-mailako profesionalak eta teknikariak eta administrazioko edo enpresetako zuzendari eta kudeatzaileak;
- estratu ertaina: autonomoak, zerbitzuetako, industriako eta eraikuntzako erdi-mailako arduradunak, industriako eta eraikuntzako langile autonomo espezializatuak, langile teknikari laguntzaileak (soldatapekoak nahiz autonomoak), eta baita ere unibertsitate titulua duten pentsiodunak baldin eta ez badute beraiekiko dependentzia duen inor;
- estratu ertain-baxua: eraikuntzako eta industriako soldatapeko enplegatu espezializatu eta semi-espezializatuak, administratiboak eta hosteleria eta zerbitzuetako enplegatuak, nekazaritzako, abeltzaintzako edo arrantzako soldatapekoak eta kooperatibetako kideak;
- estratu baxua: merkataritzako enplegatuak, segurtasuneko eta etxeke zerbitzuetako langile autonomoak, lehen sektoreko soldatapekoak eta soldatapeko enplegatu ez espezializatuak.

Datuak 3. Taulan ikus daitezke:

3. taula: hiru urtetik gorako biztanlerian derrigorrezkoak ez diren ikasketetan dabilzanen kopurua ikasketa mailaren eta estratuaren arabera Kanariar Uhartetean, 1996 (ehuneko bertikalak).						
	3 urtetik gorako biztanleria	Estratu altua	Estratu ertain- altua	Estratu ertaina	Estratu ertain- baxua	Estratu baxua
Batxilergoa	38,50	38,20	40,20	39,70	38,10	37,20
Lanbide Heziketa	24,70	7,25	10,70	24,20	32,30	35,90
Unibertsitatea	36,70	54,4	49,00	36,03	29,60	26,70
Orotara	38,02	49,43	47,70	40,70	34,10	29,40

Iturria: ISTAC in Cardenal de la Nuez, María Eugenia: *El paso a la vida adulta. Dilemas y estrategias ante el empleo flexible*. CIS, 2006, Madril.

<sup>300</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 18 or.

Datu hauetatik ere Cardenalek ondorioztatzen du jatorri sozialaren arabera ibilbide mota ezberdina egiteko joera dagoela. Jatorri sozialak ibilbidea determinatzen ez duen arren, joera sendoak ezartzen ditu.

**4. Taula: Eskolatzeta tasa garbiak adinaren eta klase sozialaren arabera 1981 eta 1991 (ehunekoak)**

<i>Adina</i>	<i>Orotara</i>		<i>Cap.</i>		<i>CMP.</i>		<i>CMFa</i>		<i>CMFb</i>		<i>Obr.</i>	
	1981	1991	1981	1991	1981	1991	1981	1991	1981	1991	1981	1991
4	67,9	88,8	73,9	91,5	62,4	88,5	83,3	93,7	75,4	99,5	63,0	87,8
5	89,5	95,4	91,8	97,2	85,7	96,2	95,7	97,6	93,2	97,2	87,9	96,2
14	86,7	94,7	93,7	97,4	83,4	94,8	98,0	99,4	95,7	98,5	82,5	83,9
15	74,6	87,8	88,0	93,3	69,6	87,3	96,5	99,5	91,2	96,2	66,2	82,2
16	60,8	76,8	78,2	86,0	55,0	76,9	93,5	97,2	82,6	90,7	49,0	69,7
17	52,6	67,7	72,7	79,3	47,9	67,1	90,7	94,9	75,7	84,5	38,9	58,6
21	26,4	36,8	44,9	51,7	21,9	35,9	67,6	76,2	41,2	52,0	19,0	24,8
23	18,7	25,2	32,7	37,7	14,2	23,7	47,0	57,6	28,6	34,6	10,2	15,2

Iturria: Subirats & García de la Barrera in Feito, Rafael: "Sistema de enseñanza y estratificación social" in Fernández Enguita, Mariano: *Sociología y educación*. Ariel, 1998,artzelona.

Subirats eta García de la Barrera-k<sup>301</sup> 2002 urteanartzelona Metropolitarraren Inkesta izenekoaren datuak oinarri hartuta ondorioztatu zuten eremu metropolitarran 2000. urtean 26-35 urte artean zituztenek kopuru oso ezberdinak zituztela unibertsitateko titulua lortzeari zegokionez baldin eta jatorri sozial kontuan hartzen bazen: esate baterako, eskulanetan ziharduten langileen seme-alaben %14ak erdietsi zuen unibertsitateko titulu bat, artean kategoria profesional altua zutenen seme-alaben %70ak eskuratu zutelarik. Antzeko datuak aurki daitezke 1981 eta 1991 urteetako erroldetan (ikus 4. Taula), Cardenal-ek eskaintzen zituen datuen iturri beretik, erroldatik:

Navarro-k<sup>302</sup> eskaintzen dituen datuek ere joera berdina islatzen dute. Esate baterako, kontuan hartzen badugu familiek hezkuntzaren eremuan egiten duten gastu pribatua eta gastu horrek etxeko gastuetan duen pisua, beti ere aztergai ditugun familiak eskuragarri duten errentaren araberrako bost taldetan bereiziz (ikus 5. taula), ondoriozta genezake Espainiako estatuan hezkuntzaren eremuan gehien gastatzen duten familiei suposatzen diela gastu txikiena hezkuntzak beren etxeko gastuetan. Adibidez, bi muturretara joz, ikus genezake 1. taldeak egiten duela hezkuntzako gastuaren %10,21 eta horrek bere etxeko gastuetan %2,61eko pisua duela, baina 5. taldeak egiten duela hezkuntzako gastuaren %31,93 eta horrek bere etxeko gastuetan %0,92ko pisua duela. Hau da, gehien daukanak inbertitzen du gehien hezkuntzan, baina, aldi berean, gehien daukanari kostatzen zaio erlatiboki gutxien.

<sup>301</sup> Subirats & García de la Barrera in Feito, 2003b.

<sup>302</sup> Navarro, 2005.

<b>5. Taula: Familiek hezkuntza egiten duten gastu pribatua eta gastu horrek etxeko gastuetan duen pisua, eskuragarri duten errentaren arabera bosten taldeen arabera Espainiako estatuan, 1998 (ehunekoak)</b>						
	<i>Eskuragarri duten errentaren bosten taldea</i>					
	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>	<i>4</i>	<i>5</i>	<i>Guztira</i>
Bosten taldeen arabera gastuaren banaketa	10,21	16,25	18,98	22,63	31,93	100,00
Etxeko gastuetan duen pisua	2,61	2,20	1,64	1,27	0,92	1,33

Iturria: Familia Aurrekontuen Inkesta Jarraia 1998 (4 hiruhileko) delakoan oinarritutako lanketa in Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 349.

Eskuragarri duten errentaren arabera aztertzen badugu eskolatzetasa eta ikasketamaila (ikus 6. Taula), ondoriozta genezake batzuen eta besteen arteko alde handia dela Espainiako estatuan: errentamaila handiena dutenek lortzen dituzte eskolatzetasa eta ikasketamaila handienak. Esate baterako, bi muturrak analizatuz gero, ikus genezake eskolatzetasa unibertsitatean 18 eta 22 urte artekoetan %21,85koa dela 1. taldekoen artean eta %47,44koa 5. taldekoen artean. Halaber, goi mailako ikasketak bukatu dituztenak 25 eta 29 urte artekoetan aztertuz gero, ikus genezake %21,75eko dela 1. taldekoen artean eta %39,35koa 5. taldekoen artean.

<b>6. Taula: Eskolatzetasa eta ikasketamaila, adin tartearen eta etxekoek eskuragarri duten errentaren arabera Espainiako estatuan, 2000 (ehunekoak)</b>						
	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>	<i>4</i>	<i>5</i>	<i>Guztira</i>
Eskolatzetasa, derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntzan (16-17 urtekoak)	41,71	39,21	52,86	48,39	66,76	49,87
Eskolatzetasa goi mailako hezkuntzan (unibertsitatea) (18-22 urtekoak)	21,85	23,32	29,18	26,43	47,44	30,86
Derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntzako ikasketak bukatu dituztenen ehunekoak (20-24 urtekoak)	53,04	53,67	58,65	61,04	67,85	60,69
Goi mailako ikasketak amaitu dituztenen ehunekoak (25-29 urtekoak)	21,75	33,57	26,73	25,34	39,35	32,15

Iturria: PHOGUE-2000 delakoan oinarrituz egindako lanketan in Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 355-357.

Etxekoan lanbidea hartzen badugu eskolatzetasa eta ikasketamaila aztertzeko erreferentziatzat, talde batzuen eta besteen arteko aldeak are handiagoak dira Espainiako estatuan (ikus 7. Taula). Adibidez, muturretara joz, eskolatzetasa unibertsitatean 18 eta 22 urte artekoetan %65,93koa da I taldean eta %9,09 VII taldean. Halaber, goi mailako ikasketak bukatu dituztenen kopurua 25 eta 29 urte artekoetan %69,10koa da I taldean eta %6,41koa VII. taldean.

<b>7. Taula: Eskolatzte tasa eta ikasketa maila, adin tartearen eta etxekoan lanbidearen arabera Espainiako estatuan, 2000 (ehunekoak)</b>								
	<i>I</i>	<i>II</i>	<i>III</i>	<i>IV</i>	<i>V</i>	<i>VI</i>	<i>VII</i>	<i>Guztira</i>
Eskolatzte tasa, derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntzan (16-17 urtekoak)	82,98	55,63	51,53	42,59	16,20	64,01	31,67	49,87
Eskolatzte tasa goi mailako hezkuntzan (unibertsitatea) (18-22 urtekoak)	65,93	35,23	30,71	20,51	14,21	32,26	9,09	30,86
Derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntzako ikasketak bukatu dituztenen ehuneko (20-24 urtekoak)	93,73	74,29	65,85	50,35	35,65	60,91	20,53	60,69
Goi mailako ikasketak amaitu dituztenen ehuneko (25-29 urtekoak)	69,10	36,15	40,87	16,98	18,98	37,80	6,41	32,15
Iturria: PHOGUE-2000 delakoan oinarrituz egindako lanketan in Navarro, Vicenç: <i>La situación social...</i> , 355-358. Oharra: I Profesionalak, II Erdibidekoa (ez eskuzkoa/errutinazkoa), III Jabe txikiak, IV Eskuzko kualifikatua, V Eskuzkoa ez kualifikatua, VI Nekazaritza arloko jabeak, VII Nekazaritza arloko langileak								

Etorkinen eskolatzte tasa biztanleria osoarekiko alderatuz gero ere, kopuru oso ezberdinak ikus ditzakegu (ikus 8. Taula). Eskolatzte tasa derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntzan 16 eta 17 urte artekoetan %49,87koa da biztanleria oro har hartuta, baina kopuru hori %34,00koa da etorkinen artean. Era berean, eskolatzte tasa unibertsitatean 18 eta 22 urte artekoetan %30,86koa da biztanleria oro har hartuta, baina kopuru hori %11,00koa da etorkinen artean.

<b>8. Taula: Etorkinen eskolatzte tasa adinaren arabera Espainiako estatuan, 2001 (ehunekoak)</b>		
	<i>Etorkinak</i>	<i>Biztanleria oro har</i>
Eskolatzte tasa, derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntzan (16-17 urtekoak)	34,00	49,87
Eskolatzte tasa goi mailako hezkuntzan (unibertsitatea) (18-22 urtekoak)	11,00	30,86
Iturria: 2001eko Erroldan oinarrituz egindako lanketan in Navarro, Vicenç: <i>La situación social...</i> , 355-356.		

Navarro eskaintzen dituen datuetan ikus daiteke hezkuntzan lortutako mailak zerikusia duela bestelako datuekin. Esate baterako, urteko lan errenta handiagoa da ikasketa maila handiagoa lortu ahala (ikus 9. Taula). Gizonezkoen artean Lehen Hezkuntza mailako ikasketak edo txikiagoak zeuzkatenek batez beste 10.856 euro irabazten zituzten Espainiako estatuan 2000. urtean, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa bukatuta zutenek 10.902 euro, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa bukatuta zutenek 13.454 euro, eta goi mailako titulua bukatuta zutenek 19.683 euro. Emakumezkoen artean, berriz, Lehen Hezkuntza mailako ikasketak edo txikiagoak zeuzkatenek batez beste 5.243 euro irabazten zituzten, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa bukatuta zutenek 6.705 euro, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa bukatuta zutenek 9.483 euro, eta goi mailako titulua bukatuta zutenek 13.407 euro.

Datu hauetan generoaren arabera diskriminazioa ere argia da. Titulazio akademikoak errentagarriagoak dira gizonezkoentzat. Urteko laneko errentari dagozkion datuen arabera, emakumezkoek titulazio akademikoetarako aukera izaten dute.

<b>9. Taula: 25 eta 64 urte arteko biztanleria enpleguaren urteko laneko errenta, bukatutako ikasketak mailaren eta generoaren arabera Espainiako estatuan, 2000 (euroak)</b>		
	<i><b>Gizonezkoak</b></i>	<i><b>Emakumezkoak</b></i>
Lehen Hezkuntza edo gutxiago	10.856	5.243
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa	10.902	6.705
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa	13.454	9.489
Goi mailakoa	19.683	13.407
<b>Guztira</b>	<b>13.000</b>	<b>9.098</b>
Iturria: PHOGUE-2000 delakoan oinarrituz egindako lanketan in Navarro, Vicenç: <i>La situación social...</i> , 361.		

Langabezia tasa ere txikiagoa da ikasketak maila handitu ahala (ikus 10. Taula). Adibidez, 25 eta 64 urte arteko biztanleria aktiboaren langabezia tasa Lehen Hezkuntza mailako ikasketak edo gutxiago zeuzkatenen artean %9,10eko zen gizonezkoen zegoenez eta %18,66koa emakumeen zegoenez, baina goi mailako ikasketak bukatuta zeuzkatenen artean kopuru horiek %5,07koa eta %12,37koa ziren hurrenez hurren.

Datu hauetan ere nabarmena da genero arloko diskriminazioak kalte handia egiten diela emakumezkoen. Langabezia tasaren kopuruak gizonezkoenak baino askoz handiagoak dira ikasketak maila guztietan. Beraz, langabezia tasari dagokionez ere, ondoriozta genezake emakumezkoen baino etekin handiagoa ateratzen dietela gizonezkoen titulu akademikoak.

<b>10. Taula: 25 eta 64 urte arteko biztanleria aktiboaren langabezia tasa, bukatutako ikasketak mailaren eta generoaren arabera Espainiako estatuan, 2000 (euroak)</b>		
	<i><b>Gizonezkoak</b></i>	<i><b>Emakumezkoak</b></i>
Lehen Hezkuntza edo gutxiago	9,10	18,66
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa	7,16	20,53
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa	5,15	14,58
Goi mailakoa	5,07	12,37
<b>Guztira</b>	<b>6,88</b>	<b>16,51</b>
Iturria: PHOGUE-2000 delakoan oinarrituz egindako lanketan in Navarro, Vicenç: <i>La situación social...</i> , 361.		

FGT pobrezia adierazlearekin ere zerikusia du ikasketak mailak (ikus 11. Taula). Bi muturrak aztertzen baditugu, ikus dezakegu Lehen Hezkuntza mailako ikasketak edo gutxiago zituztenen artean FGT pobrezia adierazlea %22,55koa zela gizonezkoen artean eta %30,6koa emakumezkoen artean, baina goi mailako ikasketak bukatuta zituztenen artean, berriz, FGT pobrezia adierazlea %3,92koa zela gizonezkoen artean eta %9,72koa emakumezkoen artean.

Edonola ere, Bourdieuk eta Passeronek diotenez, ikasketak maila kontuan hartzeaz gain, ikasketak maila bakoitzean zein aukera, zein adar, hartzen diren ikusi behar da: letrak, injinieritza... Bokazioa eta gustu pertsonalak arrazoi bakarra balira ikasketetan aukerak egiteko, kategoria sozial guztietan portzentaje berberak aurkituko lirateke, baita goi-ikasketak motak aukeratzeko orduan ere. Baina joera ez da hori. Klase apalenek letrak eta zientziak aukeratzeko joera dute: nekazarien seme-alabak %75,1 eta beharginenak %82,7. Goi klaseek zuzenbidea eta medikuntza: goi karguen seme-alabak %66,5 eta industrialenak %62,2. Kategorian jaitsi ahala, aukerak murriztu egiten dira eta kategoria txikienez ia letrak eta zientziak bakarrik egitera mugatuta daude.

<b>11. Taula: FGT pobrezia adierazlea (pobreziaren muga: eskuragarri duten errentaren medianaren %60a) bukatutako ikasketa mailaren eta generoaren arabera, kontuan hartuta 25 eta 64 urte arteko familiaren erreferentziatzko pertsona Espainiako estatuan, 2000 (ehunekoak)</b>		
	<i>Gizonezkoak</i>	<i>Emakumezkoak</i>
Lehen Hezkuntza edo gutxiago	22,55	30,06
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa	16,15	22,99
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa	8,47	12,00
Goi mailakoa	3,92	9,72
<b>Guztira</b>	<b>14,77</b>	<b>19,24</b>

Iturria: PHOGUE-2000 delakoan oinarrituz egindako lanketan in Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 361.

Fernández Enguitaren arabera<sup>303</sup> ere, ezberdinketa ez da soilik ikasketa mailaren arabera gertatzen (gaur egun Hego Euskal Herrian Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketako hastapenak, maila ertainekoa eta goi mailakoa, unibertsitateko diploma, lizentziatura, masterra, doktorea). Ezberdinketa ikasketa motaren arabera ere gertatzen da. Balio handiagoa dute goi mailako eskola teknikoetako ikasketek fakultatekoek baino, medikuntzakoek gehiago zientzia fakultatekoek baino, fisikako espezialitateak gehiago biologiakoak baino, etab.

Horrez gain, Waisgrais eta Calero-ren<sup>304</sup> arabera, ikastetxe pribatuen eta publikoen arteko dikotomiak ezberdinkeria iturri izaten jarraitzen du.

Dubet-ek<sup>305</sup>, aldiz, bere analisisian erabiltzen dituen hainbat osagaik Bourdieuren ekarpenen antza dute, baina aldi berean esan genezake Bourdieuren analisisik urrun dagoela. Dubet-ek dio gizarte garaikideetan oinarritzekoak direla aukeren berdintasun eta merituen baliospena. Bi hauek uztartuz funtsezko bi printzipio berma daitezke, Dubet-en arabera: indibiduen arteko berdintasun eta gizarte garaikideetako lanaren banaketa. Ezberdintasunak eraginkortasunez legitimatzeko modua da, Dubetek dioenez. Nolanahi ere, Dubeten ikuspegitik, oinarritzeko ezberdintasun sozialek eragotzi egiten dute dinamika hau behar bezala gauzatzea. Hezkuntza sisteman, adibidez, familiaren konpetentziak eta estrategiak nabarmen baldintzatzen dute seme-alaben arrakasta. Paradoxa handia sortzen da horrela: berdinak balira bezala egin behar diete aurre hainbat frogari, baina frogari horien helburua ezberdintasunak sortzea da, baina beti ere norbanakoaren merituen arabera sailkapena balitz bezala azalduz, arrakastaren edo porrotaren ardura norbanakoari balegokio bezala. Gainera, frogari hauen emaitzak atzeratzen izan ohi dira maiz, hezkuntza sistematik joaten dena nekez itzultzen baita. Ez da berreskurapenerako aukera askorik. Honenbestez, uste doakoa den hezkuntza sistemak ez du erraz ikusten uzten diru transferentzia handienek mesede egiten dietela batik bat hezkuntza sistemak saritzen ditueni, hots, diru publikotik gehiago jasotzen dutela.

Honen aurrean Dubetek nagusiki bi proposamen egiten ditu: aukera berdintasunerako aukera zabaltze aldera lantzea eta meritokraziaren ondorio kaltegarriak baretzea, baina beti ere gaur egungo hezkuntza sistemaren egiturak eta dinamikak gehiegi aldatu gabe. Horrez, gain, Dubeten ikuspegiak Bourdieurengandik gehien urruntzen dituen kulturalarekiko ikuspegia da. Dubetek dio badagoela ikasle guztiek ikasi beharreko kultura partekatu bat eta hezkuntza sistemak bermatu

<sup>303</sup> Fernández Enguita, 1990, 51 or.

<sup>304</sup> Waisgrais & Calero, 2008.

<sup>305</sup> Dubet, 2005.

behar duela hori. Dubetek ez du azaltzen nork eta nola erabakitzen duen zer den kultura partekatua, ezta norekiko dagoen hurbilago eta nori egiten dion mesede.

### 3. Erresistentziaren teoriak

Hezkuntzarekiko ikuspegi ezberdina aurkezten dute erresistentziaren teoriak, orain arte ikusi ditugunekin alderatuz gero. Eskola garaikidearen joera nagusiak kritikotasunez aztertzen dituzte, baina erresistentziaren teoria ez dator bat aurreko atalean (“2. Marx eta Weber interpretatuz” izenekoan) aztertu ditugun ikuspegi kritikoeekin. Erresistentziaren teoriak, besteak beste, aurrekari ezberdinak aipatzen dituzte.

Gramsci, adibidez, maiz aipatzen dute erresistentziaren teoriariek beraien aurrekaritzat. Marxismoa beste batzuek egin ez zuten bezala interpretatuz, Gramsci-k<sup>306</sup> plazaratu zituen gerora erresistentziaren teoriarien oinarri izango diren hainbat ekarpen. Gramscik dio pertsona guztiak direla intelektuak. Lan guztietan behar da kualifikazio intelektuala, Gramsciren arabera. Eskolan, adibidez, Gramscik ez du irakaslearen eta ikaslearen arteko halako bereizketarik egiten. Gramsciren idealaren arabera, irakaslearen eta ikaslearen arteko harremana aktiboa eta erreziprokoa da, irakaslea ikasle eta, aldi berean, ikaslea irakasle delarik. Izan ere, Gramsciren arabera, eskola, intelektueltasuna mailakatuta lantzeko tresna bat da. Eskolaren hedapenak eta bertikaltasun mailak zerikusia du gizartearen konplexutasunarekin.

Gramscik nabarmendu egiten du kulturaren eremua, kultura modu zabalean ulertuz. Gramscirentzat kultura ez da zenbait marxisten ispilu soil gisako gainegitura. Horrexegatik Gramscik berebiziko garrantzia ematen dio ikuspegi filosofikoei kultur mugimendu bihurtzeari, horrek ahalbidetzen baitu praktika soziala. Gramsciren arabera, kulturaren munduan gertatzen den gatazkak bideratzen du praktika soziala, ez alderantziz. Iraultza guztien aurretik etorri da kritika lana kultur eremuan. Kritikak sortzen du kontzientzia. Gramscik *ekoizpena* deitzen duenaren eta intelektualen arteko harremana ez da berehalakoa. Tartean makineria sozial konplexu bat bitartekari izaten da. Intelektualengan (zentzu zabalean ulertuta) gauzatzen da bitartekaritza.

Intelektueltasuna pertsona guztien kontua dela esaten duen bezala, Gramscik dio kultura ez dela pertsona ontzi huts bezala ikustea eta datu enpirikoz betetzea, gero ordenatu ditzan. Ikuspegi horrek handiustekoak eta baztertuak sortzen dituela salatzen du Gramscik. Pertsona batzuek beraientzat bakarrik gorde nahiz izaten dutenean *intelektual* definizioa, Gramscik dio fenomeno hau hegemoniaren aldeko eta kontrako gatazkaren baitan aztertu behar dela. Izan ere, Gramsciren arabera, kultura, barne ni-aren antolakuntza eta diziplina da, kontzientzia eskuratzea, honela bizitza, eskubideak eta zereginak ulertzeko, eta horrela da pertsona guztientzat, ez soilik bakan batzuentzat.

Ikuspegi honetatik Gramscik ez du eskola erreproduzio makineria soiltzat ikusten. Gramscik dio eskolak baduela zenbait funtzio egoki betetzeko gaitasuna. Gramsciren arabera, eskolak askatasuna eta norberaren ekimena sustatu behar ditu, ez esklabotasuna eta makinizitatea. Ikasle

---

<sup>306</sup> Gramsci, 1981.



guztiek izan behar dute norbere indibidualtasuna gauzatzeko aukera. Ereku guztiak guztientzat ireki behar dira praktikan. Gramscik dio eskola ezin dela izan ofizio baterako trebatzeko sehaska soilik. Eskolak helburu izan beharko luke, Gramsciren arabera, ikasleen gaitasun kritikoa sustatzea. Errealitate osoa behatzeko gai diren ikasleak izan behar dira helburu, kritikarako ohitura dutenak, analisirako eta sintesirako joera dutenak. Nortasun autonomoa eta arduratsua jorratu beharko litzateke, baina kontzientzia sozial sendoarekin. Ikasle guztiengan sustatu beharko litzateke hori guztia. Honenbestez, Gramscik ez du onartzen lan intelektuala vs eskulana dikotomia.

Halaber, Gramsciren arabera, eskolak ezberdinkeria sozialak orekatzeko ahalegina egin behar du. Ez du ezberdinkeriaren aurrean neutraltasunez jokatu behar. Gramscik dio hezkuntza adarren aniztasunak estratifikazioa bermatu egiten duela baldin eta adarrak modu hierarkizatuan ezartzen badira.

Gramscik eskola sortzailea proposatzen du, ikaslearentzat esanguratsua dena ardatz hartuta, baina Gramscik ez du hau guztia liberalen moduan proposatzen. Gramscik dio gizakia ekoitzi egiten dela, ez loratu. Gramscirentzat gizakia batik bat ekoizkin historikoa da, ez naturala. Gainera, Gramsciren arabera, zenbait arlotan trebakuntza bere horretan mantendu behar da, orain arte egin izan den modu dogmatikoan, zeren ezagutza horiek barneratzea beharrezkotzat baitu.

Baina Gramsci aipatu ondoren, zuzenean erresistentziaren teorialariekin hasi baino lehenago, beren ekarpenak aurretik ere aztertu ditugun beste bi analista ere izango ditugu hizpide, haiengan islatzen diren zenbait ekarpenek bidea egin dietelako erresistentziaren teoriei. Beraz, erresistentziaren teorialarien artean kokatuko ez genituzkeen arren, segidan aipatuko ditugun bi analistek ere badute nolabaiteko zerikusia erresistentziaren teoriekin.

### **3.1 Bourdieu, erreproduzioaren teoretatik haratago**

Bourdieuren ekarpenak modu murriztailean irakurtzen badira, zentzugabea da pentsatzea Bourdieuk edonolako zerikusi positiborik izan dezakeenik erresistentziaren teoriekin. Baina, batetik, Bourdieuk hezkuntza sistemaren zenbait ezaugarri besteak baino gehiago nabarmendu zituen arren, gogorarazi beharra dago, arestian aipatu dugun bezala, Bourdieuren lanak testuinguru zehatz batean egin eta plazaratu zirela, hain zuzen eskolaren eraldatze ahalmena ezaugarriarik aipatuena zen garaian. Bestetik, aurretik esan dugun bezala, Bourdieuren lanak bere osotasunean irakurtzea komeni da, bere ikuspegiak ertz asko dituelako. Bourdieuren ekarpenek gabezia nabarmenak dituzten arren (lehenengo atalean edo atal honetan aipatzen ditugunak, adibidez), erreproduzioaren teorien aldaera murriztaile batek baino askoz gehiago eskaintzen dute. Bestela, ulergaitza litzateke Bourdieuk Paul Willis-en lana Frantziako estatuan hedatzen lagundu izana edo, halaber, Paulo Freirek esatea Bourdieuk erreproduzioaren teoria landu zuen moduari esker bidea ireki zela hezitzaile askori erresistentzia helburu zuen hezkuntza sustatu zezaten eta hein handi batean oinarri horretan eraiki direla erresistentziaren teoriak.

Batik bat lehenengo atalean (“I. Espazio sozialaren joko eremua”) aztertu dugunak balio dezake Bourdieuren ikuspegiaren konplexutasuna azaltzeko, baina, nolahi ere, orain arte aipatu ez ditugun beste ekarpen batzuk ere azaldu nahi ditugu segidan.

Esate baterako, bere diskurtsoaren bazterrean gelditzen bada ere, Bourdieuk<sup>307</sup> hezkuntza sistemaren alderdi aldatzailea ere aipatzen du. Bourdieuren ikuspegitik eskolak erreproduzioa ez ezik aldaketa ere eragiten du. Bourdieuk dioenez, eskola erakunde oso konplexua da eta interes antagonikoak ere garatzen dira bere baitan. 1968ko maiatza jartzen du Bourdieuk horren adibide esanguratsutzat.

Beraz, hezkuntza sistemak lagundu dezake erreproduzioaren aurka, Bourdieuren<sup>308</sup> ikuspegitik, baita ezberdintasunaren soziologian oinarrituta ez badago ere. Gaur egun, adibidez, batetik hezkuntza sistemarako sarrera orokortuak eta segurtasun falta profesionalak biderkatu egiten dute aspirazioen eta lorpenen arteko doikuntza eza eta honek tentsioak eta frustrazioak eragiten ditu, etorkizun falta orokortzen ari baita, Bourdieuren ustez. Esparru sinbolikoaren autonomia ere kontuan hartu behar da, bereziki espektatibak eta aukerak doituta ez daudenean, askatasun tarte erlatiboak gerta daitezke-eta.

Gainera, Bourdieuk<sup>309</sup> eskola alda daitekeela sinesten du. Erreproduzioa baino eraldaketa eragiteko aukerak dituela uste du Bourdieuk. Hori egin dezan, Bourdieuk dio ezinbestekoa dela eskolatzearen hastapenetatik ezberdintasunaren soziologian oinarritzea. Ikasleak eskolan hasten direnean, ezberdintasun handiak dauden ikasleen artean eta, Bourdieuren aburuz, desabantaileri aurre egiteko metodologia sakon eta zorrotzean oinarritzen ez bada, berdintasuna formaltasun hutsean gelditzen da eta, beraz, eskolak ez du bere funtzio demokratizatzailea betetzen. Hori ez egiteagatik kritikatu zuen bere garaiko hezkuntza sistema, zeren, Bourdieuren arabera, hezkuntza sistema horrek, gehienera jota, ezberdinkeriak ez areagotzea izan zezakeen helburu.

Bourdieuk<sup>310</sup> behin baino gehiagotan parte hartu zuen Frantziako estatuko hezkuntza sistema hobetzeko osatu ziren lan taldeetan, baita estatuko agintariak eskatutako zenbait batzorde ofizialetan ere. Makina bat proposamen egin zituen, baina, bere iritziz, proposamen horiek ez ziren gauzatu. Irtenbide teknokratikoen aurka, Bourdieuk nagusiki hezkuntza sistemaren demokratizazioranzko neurriak azpimarratu zituen. Esparru guztiak talde sozial guztientzat irekita egotea nahi zuen. Horrek garai hartako eta gaur egungo aukeraketa prozedura errotik aldatzea suposatuko luke. Hezkuntza sistemaren bazterketa mekanismo arruntak alde batera utzi beharko liriateke. Irakasle nahiz ikasleak aukeratzeko orduan jatorri sozialaren herentziaren eragina minimizatzea funtsezkoa litzateke horretarako. Eskolaz kanpo ere ezingo litzateke titulazio akademikoa erabili soldata bereizkeria justifikatzeko. Dinamika berriak sortu beharko liriateke: adostasun berriak ikasle eta irakasleen artean helburuak, ebaluazioa, transmisioa eta abar bermatzeko. Botere banaketaren aldaketa ekarriko luke honek. Beste neurri askoren artean, Bourdieuk errekupeazio eta konpentsazio irakasgai osagarriak proposatzen ditu, hizkuntzaren irakaspenarekiko lehentasun osoa eta herri hizkerekiko errespetua eta haietara egokitzea.

---

<sup>307</sup> Bourdieu, 1997, 43 or.

<sup>308</sup> Bourdieu, 1999c, 309 or.

<sup>309</sup> Bourdieu, 2004, 247 or.

<sup>310</sup> Bourdieu, 2004, 82-92 or.

Bourdieu<sup>311</sup> Collège de France-ko talde batean egin zituen bere azken proposamenak Mitterrand presidente zela, etorkizuneko hezkuntza sistema nolakoa izan beharko lukeen proposatzeko eskatu zienean. Talde honek hainbat ondorio atera zituen. Hona haietako batzuk: pentsamendu zientifikoaren unibertsalismoarekin batera zientzia sozialen erlatibismoa erakutsi behar dute; adi egon behar dute bizimoduaren, jakintzen eta kultur sentzibilitateen aniztasunarekiko, ez hierarkizatuz, baizik eta ahalik eta forma gehien ontzat emanez; eskolaren epaiaren ondorioak ahal bezain beste txikitu behar dira, arrakastek kotsagratu eta porrotek hondoa joaraz ez dezaten; segregazioa eragotzi; transmititu beharreko gutxieneko ezagutzak adostu eta tarteka errebisatu; hezkuntza etengabea egin, bizitza osoan zehar, hausturarik gabe.

Bourdieu<sup>312</sup> beste batzuekin elkarlanean egin dituen proposamenei kritika ugari egin zaizkie. Aholku kontrajarriak ematea izan zen kritika horietako bat. Bourdieu kritika hauei ere erantzun zien. Ikasleen kalifikazioari dagokionez, adibidez, Bourdieu esan zuen epaiak okerrak direla, baina, aldi berean, sustatzaile funtzioa betetzen zutela jendeak eskolako kapitalean inbertitu zezan. Epaiaren indarra gutxitze bidean baina sustatzaile izateari utzi gabe, Bourdieu proposatu zuen lehiarako eremuak biderkatzea, eremu batean moldatzen ez dena beste eremuren batean moldatuko delako. Eremu batzuei besteei baino prestigio handiago ematen ez bazaie, denak parean gelditzen badira, proposamen hau baliagarria izan daiteke, Bourdieuren aburuz. Gakoa ez da denek berdina eta maila berean ikastea, baizik eta eremuak biderkatzea, haietako bakoitzean hierarkia eragozteke, baina bakoitzak izan dezala gustuko eremua non onartua den eta aldi berean eremu horri besteen pareko balioa ematen zaion. Baina Bourdieu badaki eremu bakoitzari emandako prestigioa aldatzea ez dela erraza. Zaila da eremuak prestigioaren arabera ez hierarkizatzea. Eskolaren baitan akaso posible dela uste du Bourdieu, baina eskola mundu sozialaren baitan kokatuta dago eta eskolaz kanpo hori ezinezkoa litzateke baldin eta ahalegin hori soilik eskolak egingo balu. Arazo honetaz ez ezik beste makina batetaz ere jabetzen ziren Bourdieu eta bere taldekideak. Hezkuntza sistema perfektuena diseinatu arren, hezkuntza sistema garaiak historia zeukan eta egoera zehatz bat bizi zuen, eta horri buelta ematea lan nekeza zatekeen. Horrez gain, hezkuntza sistemaren balizko diseinu egoki bat mundu sozial baten baitan gauzatu beharra zegoen. Hartara, Collège de France-ko lan taldeak bere proposamenak gauzatzeko arazoak zerrenda ere egin zuen.

Honek guztiak agerian uzten du Bourdieuren<sup>313</sup> arabera hezkuntza sistemaren eragina mugatua dela. Bourdieu Collège de France-ko taldearekin batera hezkuntza sistema hobetzeko neurriak proposatzen dituenean, badakite eskolaren ahalegin hutsa ez dela nahikoa ezberdinkeriei aurre egiteko. Are gehiago, eskolaren ekimen soilak, oso handia izanik ere, ezin ditu hezkuntza sistema berdinzale baten helburuak bete. Hezkuntza sistema mundu sozial zabal eta konplexu baten barnean dago eta, autonomia erlatiboa izan arren, eskolak oso lotura estuak ditu beste eremu sozialekiko.

Eskolaren eragiteko gaitasun mugatua nabarmen agertzen da Bourdieuren zenbait ikerketetan. Esate baterako, gustua aztertzen ari delarik, Bourdieu<sup>314</sup> dio eskolak gaitasun oso txikia duela

---

<sup>311</sup> Bourdieu, 2004, 245 or.

<sup>312</sup> Bourdieu, 2004, 254-257 or.

<sup>313</sup> Bourdieu, 2004, 254-257 or.

<sup>314</sup> Bourdieu, 1999b, 20 or.

gustuaren gain eragiteko. Hala ere, Bourdieuren<sup>315</sup> arabera, eremu batzuetan kapitalak lotura handiago du kapital eskolarrarekin: eremu legitimoagoetan ezberdinkeriek estatistikoki lotura handiagoa dute kapital eskolarrarekin, artean legitimitasun gutxien daukaten eremuetako ezberdintasunek lotura handiagoa dutelarik ibilbide sozialarekin.

### 3.2 Fernández Enguita, erreprodukzioa eta erresistentzia uztartuz

Fernández Enguita ez genuke Durkheim edo Parsons-en jarraitzaileen artean kokatuko, ezta erreprodukzioaren edo erresistentziaren teorialarien artean ere, bere iritziak askotarikoak izan direlako eta bere ibilbidean zehar aldaketa nabarmenak izan dituelako (nekez uztar daitezke 1990eko hamarkadara arte eta ondoren plazaratu dituen hainbat iritzi), baina bere zenbait ekarpen erraz doitzen dira atal honetan aztergai ditugun ikuspegiekin, eta ondoren aipatuko ditugun hainbat ekarpenentzat sarrera baliagarria izan daitezke.

Fernández Enguita-k<sup>316</sup> dio bateragarriak direla erreprodukzioaren eta kontraesanaren tesiak. Erreprodukzioaren teoriei askok leporatu dizkiete mekanizismoa, ekonomizismoa, erredukzionismoa, estrukturalismoa, funtzionalismoaren eragina izatea, eta beste hainbat arazo. Horren aurrean garatu da erresistentziaren teoria. Fernández Enguitak Apple eta Giroux kokatzen ditu hildo honetan. Sarri kritikatu dituzte erreprodukzioaren teoriak esanez ez dutela kontraesana, gatazka, kontuan hartzen. Baina Fernández Enguitak dio harreman sozialen erreprodukzioa derrigorrez dela egituraren eta kontraesanen erreprodukzioa. Horrez gain, Fernández Enguitak dio gizakiek prozesu aktiboen bitartez hautematen dituztela beraiek murgilduta dauden harremanak, eskaintzen dizkieten esanahiak bereganatu egiten dituzte eta, gutun bat sartzen den postontzia izatetik urrun, esanahi hauek berregin egiten dituzte, beti ere baldintza sozial zehatzen testuinguruan, kontzientzia indibidual eta kolektiboa eraikiz. Erreprodukzioa beti subjektuen sormenaren bitartez gauzatzen da. Prozesu hauek, bi muturrak eskematikoki aipatzearen, egokitze praktikak eta oposizio praktikak sor ditzakete. Baina gure gizartearen antolaketa eta konplexutasun maila handiko dinamiketan alde bakarreko determinismoak ez dira posible. Azken finean, Fernández Enguitak Marx-en hitzak bere egiten ditu: “Gizakiek beren historia egiten dute, baina ez dute arbitrarioki egiten, ez dute beraiek aukeratutako baldintzetan egiten, baizik eta iraganetik zuzenean ematen dizkieten eta heredatzen dituzten baldintzetan”.

Fernández Enguitaren arabera<sup>317</sup>, hezkuntzaren soziologiaren ikuspegitik hezkuntzaren dinamika ez da eratortzen gizakiaren ezaugarri naturaletatik. Fernández Enguitak ez du onartzen irakaslea lorea ureztatzen duen lorazainarekin parekatzea. Hezkuntza ez da barrutik kanporako prozesua, kanpotik barrurakoa baizik. Ez da indibiduoaren autoprodukzio prozesua, baizik eta indibiduoaren ekoizpen eta gizartearen erreprodukzio prozesua. Horrez gain, Fernández Enguitaren arabera, hezkuntza ez da afera tekniko soil. Ez da teknika batzuk edo besteak erabili behar diren helburu jakin batzuk lortzeko. Hezkuntza ez da prozesu teknikoaren eskenatokia, horiekin batera bai baitaude botere harremanak, interes ezberdinak dauzkaten taldeak, harreman sozial

<sup>315</sup> Bourdieu, 1999b, 84-86 or.

<sup>316</sup> Fernández Enguita, 1992, 13-27 or.

<sup>317</sup> Fernández Enguita, 1990.

egonkorrak, jokabide arauak, balioak, ideologiak, eta abar. Irakasleen eta ikasleen artean dagoen lotura bakarra balitz irakasleek dakiten zerbait ikasleek ez dakitela, ikasgelak hutsik egongo lirateke gehienetan, eta beteko balira, ez lukete gaur egun bezala funtzionatuko. Gainera, kontuan hartu behar da ikasleak ez direla aldagai bakarra eta, beraz, eskolaren emaitzen ardura osoa ezin lepora dakiekeela ikasleei. Ikasleen jatorri sozioekonomiko soilak ere ez du balio emaitzen gorabeherak azaltzeko. Halaber, ikasleak ez dira agente pasiboak, ez dituzte erakundearen helburuak eta eraginak zuzenean islatzen. Izan ere, ikasleak, hezkuntzako gainerako agenteak bezalaxe, hezkuntzaren erakundearen bitartekoak, galbaheak eta berregileak dira.

Ikasleak ez dira irakasle ahalguztidunaren aurrean dauden izaki ahalgeak, ezta urrik eman ere, Fernández Enguitaren arabera. Ikasgelatik kanpo eskolak agintzen dienari uko egin diezaiokete, eskola utz dezakete edo piper egin dezakete. Ikasgelan, berriz, ikasleen boterea batik bat ordenaren aurkako ekimenetan islatzen da. Modu askotako etenak edo lan erritmoa baretzeko ahaleginak ohikoak dira. Ondorioz, ikasturteak ez dira izaten irakasleak nahiko lituzkeen bezalakoak. Negoziazio informal prozesu bat da. Eskolaren erakundeak, irakasleak eta ikasleek nahi dutenaren eta egiteko prest daudenaren artean negoziatzen da. Nolanahi ere, Fernández Enguitaren arabera, irakaslearen boterea handiagoa izan ohi da.

Eskola erakunde multifuntzionala da, Fernández Enguita-k dioenez. Bere ezaugarriak unidimentsionalki azalduz gero, azalpenaren konplexutasuna galdu egiten da. Besteak beste, zaintzarako, langabezia izkutatzeko, estatu-nazioen kontzientzia nazionala sustatzeko eta doktrina erlijiosoak zabaltzeko ere erabili izan dira eskolak. Nolanahi ere, Fernández Enguitaren arabera, gaur egun honako funtzioak dira behinenak:

- 1) Lanerako trebatzea: funtzionalistek defendatzen eta nabarmentzen dute hau.
- 2) Hiritartasunean trebatzea hainbat arlotan: hiritar, subdito, hautesle, zerga ordaintzaile, legearen menpeko, eskubideen eta betebeharren subjektu, eta abar.
- 3) Gizarte zibilean integratzea.
- 4) Merkatuaren eta meritokraziaren merkatu ezberdintzailea legitimatzea sariak banatzeko mekanismo bezala, aukera berdintasuna benetan badagoela onartzen duen ikuspegia hedatuz.

Fernández Enguita-ren arabera<sup>318</sup>, eskolak islatu egiten ditu ezberdinkeria sozialak (aberastasuna, jabetza, nazionalitatea, kultura, familiaren ezaugarriak, etab.) eta azal akademiko eta meritokratiko batez biltzen dituen legimitatu egiten dituela eta, halaber, eskolak ezberdinkeria berriak sortzen dituela (eskolako lorpenei lotutakoak), baina, Fernández Enguitak dioenez, aldi berean eskolan pertsona guztiek aukera berdintasunerako parada izateko pentsatuta ere badagoenez (hezkuntzarako eskubidea), aldarriei dagokienez behintzat, eskubide hau hedatu den heinean, proiektio sozial zabalagoak dituen berdintasun dinamikak eragin ditu.

---

<sup>318</sup> Fernández Enguita, 2001.

### 3.3 Botere harremanen konplexutasuna

Giroux-en<sup>319</sup> arabera, pedagogia erradikala izeneko Erresuma Batuan eta AEBetan sortu zen, hezkuntzaren soziologiaren baitan, hezkuntza praktika tradizionala dei daitekeenarekiko erantzun bezala. Eskolak gizarte demokratiko eta berdinzaleak eraikitze mekanismo nagusia zirela defendatzen zuten teoriak eragin zieten kezka bultzaturik, hezkuntzaren teoria kritikoak eskolako hezkuntzaren baitan dominazioa eta zapalkuntza nola ekoizten diren izan zuten aztergai. Eskolak demokraziarako eta mugikortasun sozialerako tresnak direla bere horretan onartu ordez, ideia hauek problematizatu egin zituzten eta beren ikerketetan pribilejiaz eta dominazio forma ideologiko eta materialak aurkitu zituzten. Kritiko erradikalek oro har hezkuntzaren izaera politikoa ez kontuan hartzea leporatu diete hezitzaile tradizionalari, paradoxikoki eskolaren diskurtsoa despoltizatu egiten dutelarik eta, aldi berean, dinamika kapitalista erreproduzitzen eta legitimatzen dutelarik.

Korronte honetan koka dezakegu Young<sup>320</sup>. Bere ekarpenak mugari izan ziren Erresuma Batuan garatu zen Hezkuntzaren Soziologia Berriarentzat. Young-ek uko egiten dio eskola kaxa beltza balitz bezala aztertzeari. Young-ek ez du nahi zer sartu eta ateratzen den analizatzea barruan zer gertatzen den ikertzeke. Eskola gizartearen testuinguruan ulertzen du, baina ahalegina egiten du eskolako agenteei (irakasleei, ikasleei...) protagonismoa aitortzeko.

Giroux-ek dioenez, pedagogia erradikalak ez du bat egin erreprodukzioaren teoriekin. Baina, hala ere, erresistentziaren teoriaren eta erreprodukzioaren teoriaren arteko harremana ez da bi muturren artekoa bezain urruna. Segidan aipatuko ditugun Apple, Freire, Willis, Macedo eta Giroux beraren ekarpenetan ikus daiteke erresistentziaren teoriariek bere egiten dituztela erreprodukzioaren teoretako zenbait osagai, beste batzuk eraldatu egin dituztela eta, era berean, beste ezaugarri batzuk guztiz baztertu dituztela.

#### 3.3.1 Estrukturalismo-funtzionalistaren aurka

Giroux-ek<sup>321</sup> erreprodukzioaren teoriekin bat egiten du hezkuntzarekiko ikuspegi funtzionalista kritikatzeko. Giroux-ek dioenez, ikuspegi estruktural funtzionalistarentzat eskolari buruzko kezka nagusia arau eta balio sozialak nola transmititzen diren analizatzea da. Eredu funtsean positibistan oinarrituz, ikuspegi honek nabarmendu egiten du eskolak ez daudela gizartearen interesetatik isolatuta. Ikuspegi estruktural-funtzionalistaren arabera, eskolak sozializatu egiten ditu ikasleak sinesmen, arau eta disposizio multzo baten onarpena jorratuz, lan hau egitea derrigorrezkoa baita gizarteak ondo funtziona dezan. Beraz, eskola oso baliagarria da, zeren gizarteak behar dituen trebeziak eta konpromisoak irakasten baitizkie ikasleei.

Giroux-ek dioenez, eskolarekiko ikuspegi tradizionalaren arduraren nagusia eraginkortasuna, helburu diren jokabideak eta ikaskuntza printzipioak dira, eta ezagutza kontsumogaitzat hartzen dute. Halaber, eskolak trebakuntza gune soilak dira. Ikuspegi tradizionalak ikasleei *kultura* (bakarra

---

<sup>319</sup> Giroux, 1990.

<sup>320</sup> Young, 1999.

<sup>321</sup> Giroux, 1990.

balitz bezala) eta hainbat trebezia transmititzea du xede, horien bitartez gizartean eraginkortasunez joka dezaten. Arrazionaltasun teknikoaren logika nagusitzen da. Hezkuntza afera tekniko bihurtzen dute. Ikuspegi funtzionalistaren arabera, teoria tradizionalaren arazo nagusia ezagutza zehatz bat eta adostasun morala transmititzeko modu eraginkorrek bilatzean datza.

Giroux-en arabera, gizarteko gainerako eremuetan bezala, eskolan ere hainbat kultura daude gune berean, batzuek dominatzaileak, besteak menpekoak, errealitatearen ikuspegi ezberdinak definitzeko eta legitimatzeko hainbat botere maila dituztenak. Kultura dominatzaileak gainerako kulturak gaitzeste eta baztertze lana egiten du. Eskolako kultura ez da neutrala eta ez du dominatuaren beharren alde egiten. Ezagutza ez da neutrala, ezta objektiboa ere, eraikuntza soziala baizik, beti gorpuzten baititu interes eta ikuspegi zehatzak. Ezagutzak boterearekin du lotura. Arrazionaltasun teknokratikoak ezagutza transmititzeko bitartekoei eskaintzen die arreta, hezkuntza eredu bat edo beste gauzatzeko moduei, baina ez dute sustatzen hezkuntza eredu horiekiko kritikoa izateko gaitasuna. Giroux-en arabera, hezkuntza, metodoen baten aplikazio mekaniko soiltzat hartzen dutenek analfabetismo kontzeptual eta politikoa bultzatzen dute.

Izan ere, Giroux-en arabera, egunerokotasunean onartu ohi ditugun definizioak (adibidez lana, jolasa, lorpena, inteligentzia, dominioa, porrota eta ikaskuntza) sozialki eraikitako kategoriak dira eta beren baitan interes eta arau zehatzen pisua daramate. Boterea, ezagutza, ideologia eta irakaskuntza elkarrekiko lotuta daude, etengabe aldatzen ari diren eredu konplexuen bitartez. Elkarrekiko harreman hauek harilkatzen dituen loturak izaera soziala, ekonomikoa eta politikoa du eta, aldi berean, historiaren produktua eta prozesu historikoa dira. Hezkuntzaren eremuko agenteek bere egin dituzte hauetako zenbait sinesmen, praktika, ideia eta arau, eta hauek guztiak pisu handia dute hezkuntzako agenteek beren hezkuntzako esperientziak hautematen eta egituratzen dituzten moduan.

Halaber, Giroux-ek ikuspegi estrukturalista-funtzionalista kritikatzeko esaten du eredu honek ez duela onartzen garapena gatazkan ere oinarritzen dela. Adostasunaren eta egonkortasunaren garrantzia nabarmentzen ditu, mugimenduarena baino. Ikuspegi honek gutxietsi egiten ditu gatazka soziala eta interes sozioekonomiko lehiakorrak. Ikuspegi apokaliptikoa islatu nahi du, sinesmen, balio eta egitura sozioekonomikoetan ezer problematikorik ikusten ez duena. Ondorioz, ikasleek irizpide behaviorista murriztaileen arabera definitzen ditu, sozializazioaren produktu soiltzat. Ikasleak hartzaile pasiboak balira bezala definitzen dituzenez, gatazkaren jatorria sozializazio akatsetan datza, ikuspegi estrukturalista-funtzionalistaren arabera.

### **3.3.2 Erreprodukzioaren hainbat ezaugarri**

Erreprodukzioaren teorien harian, Apple-k, adibidez, joera hegemonikoak curriculumaren bitartez nola hedatzen saiatzen diren aztertu du. Apple-n<sup>322</sup> arabera, kontrol soziala ez da soilik diziplinaren bitartez eragiten. Eskolak hedatzen dituen esanahi formek (munduari begiratzeko ikuspegiak alegia) ere eragina dute hezkuntza arloko praktiketan. Curriculumaren bitartez ere,

---

<sup>322</sup> Apple, 1986.

Apple-k dioenez<sup>323</sup>, eskolak ezagutza ekoizten du eta, aldi berean, kapitalaren metaketa bermatzeko lan indarra sailkatu eta hierarkizatu egiten du, baina, halaber, kultur modu batzuk ere pribilejiatzen ditu, zein kultur mota lehenetsi, mantendu eta transmititu behar den bultzatuz, Raymond Williams-ek *tradizio selektiboa* deitzen duenari jarraiki, eta honela zenbait arau eta balio irakatsiz eskolak bere ekarpena egiten dio talde dominatzaileen ideologiaren hegemoniari, eta ondorioz eskolak gizarte bakoitzaren behar kulturalak ere ekoizten ditu. Hortaz, Apple-n arabera, eskolak hainbat funtzio betetzen ditu: ezagutza ekoizten du, ezberdinkeria erreproduzitzen du eta kultur modu batzuk pribilejiatzen ditu. Beraz, eskolak ekoizpen eta erreproduzio erakundeak dira, Apple-n arabera.

Kultur ekoizpenaren bitartez ahalbidetzen den kultur kontrola, Apple-k dioenez, indar erreproduktibo oso indartsua da. Ezagutza legitimatua edo *erreal*a jotzen denaren definizioak ekoiztea, *erreal*a zer den aukeratzea edo gertaerei buruz benetakoa ez den adostasuna plazaratzea tresna oso boteretsua da, batik bat kultur kapitala kontrolatzeko gaitasun handiena dutenen eskuetan. Baieztapen honek, jakina, ez du konspirazioen teoriekin zerikusirik, Apple-k gogorarazten digunez. Joera hauek modu askoz konplexuagoan garatzen dira.

Apple-k<sup>324</sup> dioenez, eskolak bere curriculum osatzen duenean (agerikoa nahiz izkutua), ezagutza sozial andana du aukeran eta horretatik guztitik ezagutza jakin batzuk aukeratu eta antolatzen ditu. Hautaketa honetan aukeraketa sozial eta ideologiko kontziente nahiz inkontzienteak gertatzen dira. Inoiz ez da neutrala. Eskolaren baitako botere harremanek ez ezik testuinguru sozial zabalagoko botere harremanek ere eragina dute. Bestelako testuinguru sozialen erreprodukzioan eragiten duten baldintzek ere badute eragina eskolaren dinamiketan oro har eta curriculumaren aukeraketan zehazki. Ezagutzaren estratifikazio soziala da eragile horietako bat.

Azken finean, Apple-k curriculumen osaketa prozesuen hiru ideia gezurtatzen ditu:

- 1) hautaketa prozesuak neutralak direla;
- 2) eskolak benetan batik bat gaitasuna duela ardatz;
- 3) eskola benetan modu egokian antolatua dagoela informazioa transmititzeko eta trebezia teknikoak irakasteko ikasle guztientzat aukera berdintasuna bermatuz bai eskolan bai etorkizunean jasoko dituzten sari ekonomiko-sozialei dagokienez.

Izan ere, Apple-n arabera, eskolak ez du jorratzen lan indar kualifikatu anitza ekoizteko hautaketa eta ekoizpen modu neutrala. Gaitasunen banaketan baino interes handiagoa du hierarkia ezartze aldera arau eta disposizioak banatzen indibiduo bakoitzak posizio jakin bat har dezan.

Apple-k aztertzen dituen curriculumen historian egileak ez dira neutralak eta curriculumaren edukien aukeraketak ez dira ausaz izan. Hezkuntza, ekonomia eta gizarte politika jakinekin konprometituta dauden pertsonak izan dira curriculumen egileak eta beren lanek praktikan jartzean ezberdinkeriarik ekarpena egin diote. Hezkuntza eta kultur neurriek eta hauek gauzatzeko ikuspegiak kontrol sozialerako mekanismotzat funtzionatu dute. Mekanismo hauek ez dute ia ezertan sustatu posizio sozial ahulenak dauzkaten ekonomia eta kultur garapena. Historikoki,

---

<sup>323</sup> Apple, 1997.

<sup>324</sup> Apple, 1986.



Apple-n arabera, curriculum egileen asmoa ez da izan aniztasuna guztiz desagerraraztea, baizik eta kontrolatzea eta bide jakin batzuetara bultzatzea, ez ditzaten mehatxatu jarduera sozial garaikideen irizpide dominatzaileak, *adituen* ezagutzaren ekoizpena eta hazkunde ekonomia mota jakin bat. Gaur egungo curriculumek garai batekoen oinordetza bere egin dute, adibidez, erkidego sentimendua mantentzeko borondatea, kultur homogeneousuna eta balioen adostasuna oinarri dituztelarik, nahiz eta hau guztia ez den esplizituki egiten.

Hildo honetan, Euskal Herriari dagokionez, oso baliagarria da Perez Urraza, Bilbao eta Ezkurdiaren<sup>325</sup> ekarpena. Hauen arabera, irakasleek batik bat testuliburuaren bitartez ezagutzen dute curriculum ofiziala. Horren ondorioz, material hauek honako funtzioak betetzen dituzte:

- 1) preskripzio ofizialen itzultzaile eta banatzaileak dira,
- 2) esangura handiko curriculum eraikitzaileak dira irakasle nahiz ikasleentzat,
- 3) pedagogi kodeen hedatzaileak dira.

Beraz, argialetxeen baitan testuliburuaren bitartez interpretatu eta birdefinitu egiten dute curriculum ofiziala, baina administrazio publikoak ikuskatu eta onetsi egin behar ditu. Perez Urraza, Bilbao eta Ezkurdiaren arabera, hezkuntza sistema estatalek testuliburu gero eta estatalago bihurtuarazi dute, naturala balitz bezala eduki soziokultural hegemonikoei bide eginez.

Baina gerora bere ikerketei buruz egin dituen irakurketetan Apple-k<sup>326</sup> autokritikoki dio ikerketa horietan ez duela garbi utzi bere ekarpenak ez direla erreproduzioaren teorietan kokatzen. Apple-k berretsi egiten du eskola erreproduziorako erakundea dela, baina nabarmendu egiten du eskola hori baino askoz gehiago ere badela. Apple-n arabera, estatuak hezkuntza sisteman eragin handia badu ere, hezkuntza sistemaren zati handi bat estatuaren zati izan arren, nahiz eta hezkuntza agente aktiboa izan kontrol hegemonikoaren prozesuan, Apple-k ez du uste ikasketa planaren eta hezkuntzaren alderdi guztiek klase dominatzaileen interesei erantzuten dietenik. Estatu gatazka gunea da hainbat klase sozial eta klase segmentuentzat eta arraza eta sexu taldeentzat. Estatuak bere legitimotasuna mantendu ahal izateko interes mota oso ezberdinak integratzen ditu, baina beti ere konpromisoa, gatazka eta borroka aktiboa artikulatzen dituen testuinguru oso konplexuan. Horren guztiaren emaitzak ez dira klase dominatzaileen interesen isla soila. Estatuaren baitako gatazkak ere agertzen dira, eta konspirazioen teoriak ez dute balio prozesu hauek azaltzeko.

Gainera, Apple-n arabera<sup>327</sup>, boterearen fenomeno ezin da aztertu klase edo sektore dominatzailearen bila, hegemoniaren erdigunea litzatekeenaren bila. Izan ere, halako erabateko erdigunerik ez dago. Boterearen logika zentral bakarra baino, hainbat erdigune daude, nabarmenen artean daudelarik klase soziala, generoa, arraza eta naziotasunaren irizpideen arabera moldatzen direnak. Baina horien arabera eraikitzen diren logika sozial guztiak kontinjenteak dira. Beren esanahiak testuinguru sozial zehatzetan eraikitzen dira, eta testuinguru hauek beste hainbat modutara baldintzatuta daude. Azken batean, logika sozial orok aurkituko ditu mugatzen duten beste hainbat logika, maiz aurka egingo diotenak.

---

<sup>325</sup> Perez Urraza & Bilbao & Ezkurdia, 2006.

<sup>326</sup> Apple, 1997.

<sup>327</sup> Apple, 1996, 187 or.

Gurera etorritz, adibidez, hainbat faktorek nahiko argi iradokitzen dute egoeraren konplexutasuna. Usategi eta Valle-ren arabera<sup>328</sup>, euskal hezkuntza sisteman, eta balioen hezkuntzari dagokionez, hezkuntza erkidegoak ez du helburu multzo bakarra partekatzen. Lege organikoek eta curriculumaren arloko dekretuek hezkuntzako kide guztiei eragiten dieten arren, hezkuntza eredu bat baino gehiago dago eta eredu hauetariko bakoitza neurri batean helburu ezberdinetara bideratzen da. Desadostasunak bere testuinguruan kokatu behar dira: gaur egun ikusmolde kultural eta ideologiko ezberdinak daude hezkuntza erkidegoan nahiz gizartean. Halaber, ikastetxe motari dagokionez ere, aniztasuna nabarmena da: ikastetxe publikoak eta itunduak daude (ikastolak, ikastetxe erlijiosoak, kooperatibak eta gizarte ekimeneko ikastetxeak, eta ikastetxe independenteak) eta horri gehitu behar zaio, era berean, hainbat hezkuntza eredu daudela (A, B eta D). Baina horrez gain, balio sistema monokultural batean oinarrituz ikuspegi etnozentrista eta berdintzaile batetik klase ertain kulturalaren esanetara funtzionatzeko eraiki zen hezkuntza sistemak gero eta nekezago egiten du aurrera, balioen arteko aldeak hausturara iritsi direlako gizabanakoen eta talde sozialen bizimoduak dagokienez. Aniztasuna da egoeraren ezaugarri behinena.

### 3.3.3 Agente aktiboak

Erreproduzioaren hainbat teorian islatzen denaren aurka, Apple-k<sup>329</sup> dio eskola ez dela soilik ezagutza esplizituak eta inplizituak transmititzen dituen gunea. Eskolak ez du lortzen ikaslea soilik pertsona pasibo eta gabeziaduna izatea eta ezberdinkeriazko gizarte batean integratzeko gogoia piztea. Erreproduzioaren teoriak ikasleak mezu sozialen hartzaile pasibotzat ikusten dituzte, baina Apple-k dio langile auzoetan edo herrietan nahiz aldirietako zenbait eskoletan irakasle ibili den edonork dakiela ikasleek berrinterpretatu egiten dituztela ikasketa metodo planifikatu ofizialak, edo, asko jota, partzialki onartzen dituztela, eta sarri erdiz-erdi uko egiten dietela.

Apple-k dioenez, fabrika, eskola eta bulegoetan, adibidez, ekoizpen prozesua erreproduzioaren ikuspegiak uste duena baino konplexuagoa da. Soilik dirua, autoritatea, adituen planifikazioa, produktibitate arauak edo denboraren diziplina dominatzailea kontuan hartzeaz gain, maila guztietan langile guztiek konpromisoak hartzen dituzte, baina, aldi berean, erresistentzia praktikak gauzatzen dituzte, eta azken finean erreproduzio prozesuan kontraesan ugari sortzen dira. Langileek erresistentzia teknika sotil anitz erabiltzen dituzte. Maiz kontrol metodoei aurka egiten diete eta eraldatu egiten dituzte. Onarpena ez ezik erresistentzia eta aurkakotasuna ere konstanteak dira, nahiz eta unean unean intentsitate eta izaera oso ezberdinak izan. Gainera, Applek nabarmentzen du erresistentzia gauzatzeko modu asko daudela eta zenbaitetan hauetako batzuen bitartez hain da handia beren estrategiaren kontraesankortasuna, ezen azkenean erreproduzioa indartu egiten baituten.

Baina, Apple-k dioenez, lanaren eremuan, adibidez, ikerketa ugari erakutsi dute langile helduek jarraitu egiten dutela ekoizpen arau informalak gauzatzen eta mantendu egiten dutela begiralearekiko eta adituarekiko desafio gaitasuna. Langileen sumisioa eta obedientzia sustatu nahi zuten egitasmo askok lan indar *aproposa* lortu beharrean, maiz erresistentzia, gatazka eta borroka

<sup>328</sup> Usategi & Valle Loroño, 2006.

<sup>329</sup> Apple, 1996, 187 or.

eragin dituzte. Fenomeno hauek etengabe gertatu dira eta forma anitzen bitartez agertu da. Horrexegatik zorroztu eta eraldatu behar izan dituzte lan indarra kontrolatzeko metodologiak, langileen jokabideak eta arauak desagerrarazi ahal izateko. Edonola ere, erresistentzia eta gatazka egoteak ez du esan nahi garaile aterako direnik, hainbat egiturak eta prozesuk mugatu egiten baitute haien arrakasta nabarmenegia.

Langileak agente aktiboak diren bezala, Apple-n arabera, ikasleak ere ez dira aktore pasiboak. Langileek bezala, ikasleek aktiboki sortzen dituzte formak, eta hauek sarri kontrajarri egiten dira eskolako arau eta disposizioekiko. Erakunde sozialak ezaugarritzeko erreprodukzioa bezain baliagarria da kontraesana, eta eskola erakunde horietako bat da. Ikasleak etengabe ahalegintzen dira beren ingurunea modu sortzailean beren interesetara egokitzen. Hori argi ikusten da Willis-en<sup>330</sup> eta Everhart-en<sup>331</sup> ikerketetan. Antzeko ikuspegia darabil Mc Robbie-k<sup>332</sup> langile giroko baldintzetan emakumezkoa izatearekin sortzen diren dinamikak ikertzen dituenean.

Freire-ren<sup>333</sup> arabera ere, ikasleak edo ikasle potentzialak ez dira hutsik dauden eta bertan ezagutza jarri behar den edukiontzia. Pertsona hauen sormena eta berregiteko gaitasuna ezin dira gutxietsi. Beren ikasketa prozesuan subjektu aktiboak dira.

Fiske-ren<sup>334</sup> arabera, berriz, kapital kulturalaren izaera ezberdina kontuan hartu beharrekoa da, zeren kapital kulturalaren eremuan etengabea baita oposizioa, interrogazioa, bazterketa, eskandalua eta ihesa, kapital ekonomikoan inoiz gertatzen ez den eran. Beti mantentzen da dominazio indarreko erresistentzia jarrera. Foucault-ek dionari jarraiki, boterea ez da norabide bakarreko indarra, ez da goitik beherakoa. Botereak oposizioa dagoenean bakarrik funtziona dezake. Telebista, esate baterako, ez da norabide bakarreko botere eragilea. Botere gutxiago dutenek lapurtu eta moldatu egiten dituzte kultura dominatzailearen osagaiak, maiz modu subertsiboan, adibidez jatorrizkoa parodiatuz edo harekiko alardea, eskandalua edo erresistentzia sortuz. Botere gutxiago dutenak ez dira testuaren edo ekoizlearen menpeko babu kulturalak. Aitzitik, beren irakurketekiko kontrol maila bat mantentzen dute beti (batzuetan handiagoa, besteetan txikiagoa). Izan ere, ezberdinak dira talde sozial bakoitzaren interesak, eta taldeek horren arabera jokatzeko dute. Horrexegatik, kultura besteentzat ekoizteko ahalegina ezin da inoiz erabat arrakastatsua izan.

### 3.3.4 Kontraesana

Apple-k dioenez, erreprodukzioaren ikuspegiak ez du erakusten harreman sozial kapitalistak izatez direla kontraesankorrak eta eskolan ere dinamika nagusiek barne kontraesanak sortzen dituztela. Esate baterako, eskolek kapitala metatzeko baldintzak sortzearen funtzioa betetzen dute, hierarkikoki antolatutako ikasle multzoak hautatzen eta sailkapen horren ziurtagiriak esleitzen, baina aldi berean legitimazio sozialaren funtzioa ere betetzen dute, meritokrazia ideia faltsua sustatuz eta ezberdinkeria sortzeko forma ideologikoak legitimatuz. Bi funtzio hauek maiz

---

<sup>330</sup> Willis, 1988.

<sup>331</sup> Everhart, 1979.

<sup>332</sup> Mc Robbie, 1978.

<sup>333</sup> Freire, 1990.

<sup>334</sup> Fiske, 1999.

elkarren aurka egiten dute. Kapitala metatzearen beharrak kontra egin diezaiokie legitimazio beharrari. Adibidez, egungo gizartearen dinamikotasunari eusteko beharrezkoa da gaitasun kritikoa sustatzea eta, beraz, eskolak erakutsi egin beharko lioke ikasleari kritikotasuna garatzen, baina gaitasun kritikoa mehatxatu egin dezake kapitalaren metatze prozesua.

Willis-en<sup>335</sup> arabera ere, ez da egokia dinamika ororen kontraesankortasuna aipatzen ez duen ikuspegi funtzionalista. Beharrezkoa deritzo erreprodukzioaren analisisian maila funtzionala ere aztertzeari, baina ziurgabetasunaren bitartez egiten diren borrokek ere kontuan hartu behar dira, dominazio prozesua eraginkortasunez mehatxatzen baitute. Eskolaren aurkako kulturak, adibidez, osagai erreproduktiboak ez ezik osagai subertsiboak ere badauzka, eta aintzat hartzeko modukoak dira. Izan, haustura, atzerapen, etsaitasun, borroka sakon eta logika benetan subertsiboak ere badira politika erreproduktibo alternatibo edo ez dominatzaileetan.

Giroux-ek<sup>336</sup> dio erreprodukzioaren teorien ekarpenen akatsik larriena izan dela kritikaz eta dominazioaz haratago doan ezer ez dutela proposatu. Giroux-ek dioenez, erreprodukzioaren teorien arabera eskolak erreprodukzio sozial soilerako guneak dira. Esaneko langileak ekoizten dituzte. Eskola hauek dominaziorako makineria perfektua dirudite. Ikuspegi honek ez du ahalbidetzen erreforma pedagogikoaren edo eskolen eraldaketarako diskurtsoaren eraikuntza. Analisi hauetan ez zaio arreta handirik eskaintzen hezkuntza sistemaren baitan ohikoak diren kontraesan, espazio eta tentsioei. Gainera, dominazio praktiken aurrean jendeak ez du soilik sofritzaile papera hartzen, beti bilatzen baititu erresistentzia praktikak, intentsitate handiagokoak edo txikiagokoak, eta erresistentzia beti ezagutza eta ulermen formei lotuta doa.

Foucault-entzat bezala, Freirerentzat<sup>337</sup> boterea ez da solik estatuaren kontua. Boterea ez da bakarrik polizia, militar eta epaitegien bitartez gauzatzen. Boterea ez dago soilik gobernua, klase agintariak eta bestelako talde dominatzaileak dauden gune publiko nahiz pribatuetan. Boterea nonahi dago. Pertsonen jokamolde guztien oinarrian dago boterea. Pertsonengan eta pertsonen bidez gauzatzen da. Pertsonak dauden eremu guztietan dago boterea. Eta botere harremanetan beti daude hausturak, tentsioak eta kontraesanak. Gainera, boterea ez da bakarrik zapaltzailea. Ezagutza, harreman sozialak eta bestelako forma kulturalak ere ekoizten dituzte botere harremanek. Batzuetan dominazioak estutu egiten ditu dominatuak; beste batzuetan dominatuak barneratu egiten dute dominazioa eta horretan parte hartzen dute, horrela beren ekarpena eginez, dominazioa sedimentatu egiten baita. Kasu hauetan dominatuak eroso sentitzen dira dominazioaren logikaren baitan, beren ikuspegiak eta praktikak garatzeko aukerak oztopatuz.

Hezkuntzari dagokionez, Freirek<sup>338</sup> dio heziketa prozesua ez dela praktika autonomoa edo neutroa, baina horrekin ez du esan nahi hezkuntza ideologia dominatzailearen kopia dela. Hezkuntzaren eta gainerako eremuen artean dagoen harremana dinamikoa, kontraesankorra eta ez-mekanikoa da. Freireren arabera, hezkuntzak ideologia dominatzailea erreproduzitu egiten du, baina hezkuntzak ez du hori bakarrik egiten. Gizarte garaikideetan hain ohikoak diren kontraesanak erakunde pedagogikoetaraino iristen dira.

---

<sup>335</sup> Willis, 1988.

<sup>336</sup> Giroux, 1990.

<sup>337</sup> Freire, 1990.

<sup>338</sup> Freire, 1989.

Freire-ren<sup>339</sup> arabera, dominazioa ez da talde batek besteari bere boterea arbitrarioki inposatzea. Dominazioaren logikak uztartu egiten ditu praktika ideologikoak eta materialak, historikoak eta garaikideak, eta inoiz ez dira erabat emankorrak, beti dauzkate kontraesanak, etengabe sortzen dira borrokak botere harreman asimetrikoetan. Egoerak beti ezartzen dizkio mugak, baina gizakiek ekoizten dituzte muga horiek eta hauek gainditzeko aukerak ere ekoitzi ditzakete.

### 3.3.5 Determinismorik ez

Apple-n<sup>340</sup> arabera, hezkuntzaren baitako gainerako osagaiak aipatu gabe, soilik erreprodukzioa nabarmentzen duten ikuspegiak sozializazioaren eredu deterministaranzko joera dute, gizartearen ekoizpen moduek prozedura tekniko-administratiboak eta forma ideologikoak erabat kontrolatuko balituzte bezala. Apple-k dioenez, ikuspegi honen muturreko azalpenetan egitura sozialak egon, badaude, baina aktoreak ez, agente aktibo bezala ulertuta behintzat ez. Gainera, Apple-n arabera, ikuspegi deterministak erreprodukzio inplizituaren tresna dira, ezberdinkeria bermatzen duten osagai diren heinean. Guztia erabat determinatua badago, ez dago ezer egiterik. Apple-n arabera, ideia hori sustatzen dute ikuspegi deterministek.

Freire-rek<sup>341</sup> ere kritikatu egiten du mekanizismoa. Freirek dioenez, batzuen iritziz ezinezkoa da errealitatea ulertzeko modua aldatzea baldin eta aurretik egitura soziala aldatzen ez bada, gizarteak erabat baldintzatzen duelako errealitatea hautemateko modua eta kontzientziak ezin duelako gainditu errealitatearen indar baldintzatzailea. Freire ez dator bat ikuspegi honekin, baina, aldi berean, ez dago ados ikuspegi idealistarekin. Freireren arabera, idealismo solipsistak ukatu egiten du mundua. Solipsismoarentzat mundua kontzientziaren ekoizpen gutziatsua da. Kontzientziak errealitatea ekoizten duenez, kontzientzia errealitatearen *a priori* bat da. Aitzitik, Freirek dioenez, kontzientzia ezinezkoa litzateke kontzientziari oinarria ematen dion eta kontzientzia baldintzatzen duen testuingururik edo mundurik gabe, baina, aldi berean, mundu hau ez litzateke posible baldin eta munduak kontzientziari oinarria ematen dionean, mundua bera kontzientziaren hausnarketa kritikorako objektu bihurtuko ez balitz. Ikuspegi honi jarraiki kritikatu du Freirek baita behaviorismo mekanizista ere, gizakiak ukatu egiten dituelako, gizakiak makinatzen hartzen dituelako. Baina behaviorismo logikoa ere kritikatu egiten du Freirek, bere iritziz behaviorismo mota honek ere gizakien kontzientzia ukatu egiten duelako, soilik abstrakzio bat dela baitio. Freirek dioenez, kontzientzia edo mundua gutxiesten baditugu, ezinezkoa da egitura sozialak azaltzea. Izan ere, Freireren arabera, kontzientzia ez da errealitatearen kopia eta, halaber, errealitatea ez da kontzientziaren eraikin gutziatsua. Freirek dioenez, subjektu-objektu harremanak kontraesankorrak eta dinamikoak dira, Marxek zioen eran, eta ez objektibismo mekanizistak interpretatzen dituen moduan.

Freireren arabera, kontzientzia-hartze prozesuak ezin ditu ekidin errealitate historikoak ezartzen dizkion mugak, baina, era berean, kontzientzia-hartze prozesua bideragarria da, zeren gizakien kontzientzia baldintzatua egonik baldintzatua dagoela jabetzen delako. Kontzientziaren dimentsio kritiko honek ahalbidetzen du gizakiek errealitatea eraldatzeko helburuak ezartzea. Gizakiek

---

<sup>339</sup> Freire, 1990.

<sup>340</sup> Apple, 1997.

<sup>341</sup> Freire, 1990.

munduarekin dauzkaten harremanak ez lirateke erreflexiboak eta finalistak izango baldin eta testuinguru aldi berean historiko eta fisiko jakin batean gauzatuko ez balira. Hausnarketa kritikorik gabe ez da helburua ezartzerik eta, aldi berean, helburuak ez du esanahirik baldin eta ez bada gertaera etengabeen denbora lerro batean gauzatzen. Gizakiek munduarekiko dauzkaten harremanak berez dira historikoak, gizakiak berak historikoak diren bezalaxe. Gizakiek historia ekoizten dute eta historiak gizakiak ekoizten ditu, baina, era berean, gizakiak jabetu egin daitezke gizakiak eta historiak elkar ekoizten dutela.

Freireren ikuspegitik, izaki bizidunen artean soilik gizakiak egiten du lan. Ekintza lan bezala hartzeko irizpidea ez da izaki bizidunak ahalegin fisikoa egiten duenetz baizik eta subjektua bere kontzientziaren bitartez jabetzen denetz bere ahaleginaz, ekintza programatzeko aukeraz, bere eta ekintzen objektuaren arteko ekintzan tresnak sortu eta bitarteko bezala erabiltzeko paradaz, helburuak edukitzeaz, emaitzak aurreikusteaz. Are gehiago, Freireren arabera, ekintza lan bezala hartu dadin, emaitza esanguratsuak ekoitzi behar ditu, agente aktiboarekiko ezberdinak direnak baina, aldi berean, agentea baldintzatzen dutenak eta bere hausnarketan objektu bihurtzen direnak. Gizakiek munduarekiko eraginkortasunez ekiten duten heinean, mundua eraldatzen duten neurrian, praxiaren inbertsioak gizakien kontzientzia historikoki eta kulturalki baldintzatu egiten du.

Beraz, Freirek dioenez, testuinguru sozialak nabarmen baldintzatzen du errealitatea ulertzeko modua, baina, era berean, Freireren arabera, ideologia dominatzailearen oinarritik ere antagonismoa sortzea posible da, eta, gainera, egin, egiten da. Nork bere errealitatean dauzkan arazoak kontuan hartuz errealitate gatazkatsua problematizatzen duenean sortzen da antagonismoa. Testuinguruan bertan murgilduta egonik gertatzen da hau, testuinguruarekiko erabat atxitzen ez garenean.

Willis-en<sup>342</sup> arabera ere, erreprodukzioaren teoria estrukturalistentzat ideologia dominatzaileak ahalguztiduna dirudi. Aurkezten duten mekanismo perfektu horretan pieza guztiak oso ondo doitu daude. Aldaezina ematen du. Ideologiak bere egiten ditu kontraesan oro eta gatazka oro, erreprodukzioaren funtzioa bermatzea lortuz. Aitzitik, Willis-en arabera, gatazka sakonak eta tentsio handiak daude erreprodukzio sozial eta kulturalaren baitan. Agente sozialak ez dira ideologiaren euskarri pasiboak. Agenteek berregin egiten dituzte existitzen diren egiturak gatazkaren, kontra egitearen eta onarpen partzialaren bitartez. Guztiz ezinezkoa da erabateko dominazio eraginkorra.

Willis-en arabera<sup>343</sup>, hainbat osagaik indar handiz baldintzatzen dute indibiduo bakoitzak hartuko duen posizio soziala, baina ez dago prozesu mekanizistarik, egiturazko azalpenak ez dira egokiak, baldintza guztiak hainbat galbahetatik igarotzen direlako. Indibiduo bakoitzak bere baldintzapenekiko harreman problematikoa du, ez pasiboa, aktiboa baizik. Nork bere bidea egiteko autonomia maila bat dauka, baina aukerak eta bideak inoiz ez dira argiak indibiduoarentzat. Azalpenetara iristeko faktore asko kontuan hartzea ez da nahikoa ibilbideen nondik-norakoak ezaugarritzeko. Beharrezkoa da *nola* eta *zergatik* azaltzea.

---

<sup>342</sup> Willis, 1988.

<sup>343</sup> Willis, 1988.

Willis-ek dioenez, edozein dominazio motak askatasun batzuk formalki bakarrik onartzen dituzenean, apustu egiten du askatasun horiek erabiltzeko moduak ez diola kalte egingo bere dominazio prozesuari, baina mehatxua beti hor dago eta askatasun potentzialak askatasun errealean bihurtzeko baldin eta interes hori dutenek nahikoa botere behar bezala mugiarazten badute.

Apple-k<sup>344</sup> dio, Willis-en ideietan oinarrituz, gizakion kultur bizitza (kultura zentzu zabalean ulertuta) etengabe lekuek eta egoerek egituratzen dutela, baina lekuak eta egoerak ez direla soilik determinatzaile bezala ulertu behar, aldi berean harremanak eta baliabideak baitira. Baliagarriak dira bizi ditugun harremanak eta bestelakoak aurkitzeko, bilatzeko eta esperimentatzeko.

Hezkuntzaren eremuari dagokionez, Apple-k<sup>345</sup> berretsi egiten du kultura mantentzen eta banatzen duten erakundeek, eskolak kasu, ekoitzi eta erreproduzitu egiten dituztela hainbat kontzientzia forma, eta hauen bitartez kontrol soziala mantentzea ahalbidetzen dutela, talde dominatzaileek ageriko dominazio mekanismoak baliatzeko beharrik izan gabe. Baina baieztapen honetatik Apple-k ez du ondorioztatzen ekonomiaren eta kontzientziaren arteko harremana zuzena dela. Hori egitea, Apple-n ikuspegitik, mekanizista eta determinista litzateke. Hezkuntzak bere autonomia maila du, baina, gainera, beste eremuekiko harremanari dagokionez, kausa bezain efektua da.

Teleologia ere kritikatu du Willis-ek<sup>346</sup>. Esate baterako, Willisen arabera, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan ongizate sozialera eta hezkuntzara bideratu ziren aurrekontu publikoak handitzeak ez zion erantzun derrigorrez kapitalismoaren interesei. Lehian zeuden taldeek ere izan zuten zerikusia horretan. Prozesu kapitalista, hezkuntza bezalako erakundeak baliatzen saiatzen da, baina zenbait arazo errealean gaitzetzeko baliagarriak diren bitartean, hezkuntza sistema bezalako erakundeak ezin dira bere osotasunean dominazio prozesuen menpera makurtu. Espazio partzialki autonomoak mantentzen dituzte, hainbat aurkakotasuni eusten diete, zenbait arazo eta tentsio puri-purian mantentzen dituzte, eta honek guztiak ez dio mesederik egiten dominazio prozesuari, ez modu teleologiko eta erabat funtzionalean behintzat. Erreproduzizioa ahalbidetzen dute, baina kritika, kontraesana eta tentsioa handitzeko eragile ere badira.

### 3.3.6 Korrespondentzia soila ez

Erreproduzizioaren teoria batzuen tesi nagusienetakoari aurka eginez, Apple ez dator bat *korrespondentziaren teoria* deitzen denarekin. Eskolako dinamika eta enpresa ekonomiaren beharrak zuzen eta estu lotzen direnean, baztertu egiten dira hezkuntza eremuaren sakonera, bere autonomia erlatiboa, bere barne historia eta erakundearen baitan dagoen aniztasuna, eta ondorioz ezin dira ondo ulertu hezkuntza sistemaren baitako irakasleen, ikasleen eta langileen praktikak eta metodoak. Nolanahi ere, honekin Apple-k ez du esan nahi eskolek politika ezberdintzailea egiten ez dutenik, hori gertatzen dela uste baitu Apple-k, baina Bowles eta Gintis-ek diotenaren kontra, Apple-k esaten du prozesu hori ez dela gertatzen zuzenean, mekanikoki, ekonomiaren edo estatuaren kanpo presioen bitartez, ezta urrik eman ere.

---

<sup>344</sup> Apple, 1996.

<sup>345</sup> Apple, 1986.

<sup>346</sup> Willis, 1988.

Apple-k<sup>347</sup> berretsi egiten du eskolak bezala kultura mantentzen eta banatzen duten erakundeek ekoitzi eta erreproduzitu egiten dituztela hainbat kontzientzia forma, eta hauen bitartez kontrol soziala mantentzea ahalbidetzen dutela, talde dominatzaileek ageriko dominazio mekanismoak baliatzeko beharrik izan gabe. Baina baieztapen honetatik Apple-k ez du ondorioztatzen ekonomiaren eta kontzientziaren arteko harremana zuzena dela. Hori egitea, Apple-n ikuspegitik, mekanizista eta determinista litzateke. Apple-n<sup>348</sup> arabera, ezin da ahaztu hezkuntza erakundearen eta botere ekonomiko, kultural eta politikoen artean dagoen harremana, baina eragotzi egin behar da itsukeria ekonomizistan erortzea.

Apple-k<sup>349</sup> dioenez, kultur prozesuek lotura estua dute harreman sozialekin, batik bat klasearekin, banaketa sexuarekin, arrazaren kontzeptuan oinarritutako egituraketekin eta menpekotasuna sustatzen duten adinaren araberrako zapalkuntzekin. Baina, Apple-n arabera, kultura botere harremanekin lotuta egoteaz gain, kultura boterea ere bada eta asimetriak sortzen laguntzen du indibiduoek eta talde sozialek beren beharrak definitzeko eta hautemateko duten gaitasunean. Beraz, Apple-n ikuspegitik, kultura ez da autonomia, ez du kanpo eremu batek determinatzen eta gatazka sozialen markoa da.

Giroux-ek<sup>350</sup> ere ez du bat egiten *korrespondentziaren teoria* delakoarekin. Baina, gainera, Giroux-ek nabarmendu egiten du aparatua kulturalak duen garrantzia gero eta handiagoa. Gramsci, Frankfurteko Eskola, Bourdieu eta Bernstein bezalakoek ekarpenak aipatuz, Giroux-ek dio herrialde aberastuetan dominazioa gero eta gutxiago oinarritzen dela indarkerian edo bere mehatxuan (polizia, ejerzitua eta abar) eta, aldi berean, adostasuna ekoizten duen aparatua kulturala gero eta eraginkorragoa eta baliagarriagoa dela dominazioa gauzatzeko. Gizarte garaikideen erreprodukzioa zuzenki lotua dago mezu kulturalen ekoizpenarekin eta banaketarekin. Hortaz, Giroux-ek dioenez, kultura dominatzailea erreproduzitzen eta publikorantz hedatzen duen aparatua kulturala funtsezko afera politikoa da. Giroux-en arabera, aparatua kultural hauen helburua sinesmenen eta jokabideen sistema dominatzaileak erreproduzitzea eta hedatzea da. Kontrol eredu honi hegemonia ideologikoa deitu zion Gramscik. Giroux-ek dioenez, indar hegemoniak ahalegindu egiten dira ideologia eraikitzen eta eguneroko jokabidea gidatzen duten ohitura eta praktiketan sakon errotzen. Frankfurteko Eskolak bultzada handia eman zion analisi honi. Ikuspegi honen arabera, teknologiaren garapen azkarrak ekarpen handia egin dio kultura dominatzailearen erreprodukzioari eta orden sozioekonomikoa mantentzeari.

Giroux-en arabera, joera horietan hezkuntza sistemak rol garrantzitsua jokatzen du. Giroux-ek dioenez, Bourdieu eta Bernstein-en ekarpenek, adibidez, egoki azaldu dute gizarte dominatzaileak objektu materialak banatzeaz gain, kultur kapitala erreproduzitzen eta banatzen duela, hau da, joera sozial dominatzaileek legitimotzat hartzen dituzten esanahi, gustu, disposizio, jokabide eta arau sistemak erreproduzitzen eta banatzen dituela. Eskola ez da errealitate ideologikoki neutrala. Ez du harreman eta interes sozial dominatzaileen erreprodukzio agente soil bezala jokatzen, baina boterearen teknologiei lotutako erregulazio politiko eta moralen formen bitartez eskolak asimetriak eragiten ditu indibiduoek eta taldeek beren beharrak definitzeko eta haien kontzientzia hartzeko trebezian. Izan ere, Giroux-ek dioenez, boterea, forma sozialak ekoizten dituen praktika

---

<sup>347</sup> Apple, 1986.

<sup>348</sup> Apple, 1989.

<sup>349</sup> Apple, 1989.

<sup>350</sup> Giroux, 1990.



multzoa da, eta hauen bitartez eraikitzen dira esperientzia multzoak eta subjektibotasun moduak. Diskurtsoa aldi berean da boterearen iturri eta produktu.

### 3.4 Eskolaren aurkako kulturak

Willis-en<sup>351</sup> ekarpenaren oinarri enpirikoa eskolako kultura kontrajarriari buruzko ikerketa da. Aztergai direnak gizonezkoak, zuriak, langile girokoak, ez kualifikatuzat hartuak, aurkakotasun jarrera dutenak eta lan manualak egiten dituztenak dira, 1970eko hamarkadako Ingalaterran. Honakoa azaldu nahi du Willis-ek: klase ertainetakoei nola uzten dieten klase ertainetako enpleguak lortzen eta, aldiz, langile klasekoek nola onartzen dituzten langile klaseko enpleguak nahiz eta lan baldintza okerragokoak izan. Fenomeno hori ulertzeko gakoetako bat eskolaren aurkako kultura dela uste du Willis-ek. Kultura honen funtsezko ezaugarrietako bat maila pertsonalean nahiz orokorrean autoritateari aurka egitea da. Eskolaren eremuan irakasleak ditu jomugan, baina, halaber, ikasketetan ondo edo behintzat hobeto moldatzen diren ikasleak ere gaitzesten dituzte. Bi kolektibo horiek gutxietsi egiten dituzte, haien gainetik sentitzen direla adierazten dute. Hizkera, janzkera, musika, jokabidea, ohiturak eta bestelako adierazpideak baliatzen dituzte hori errepresentatzeko. Hau guztia gauzatzeko taldearen garrantzia oso handia da. Edonola ere, Willisek ikasleen artean lau talde bereizten dituenen (langile klaseko konformistak eta ez-konformistak eta klase ertainetako konformistak eta ez-konformistak), Willisek dio ikuspegi eskematiko hau soilik azalpenaren argitasunaren mesedetan egiten duela eta taldeen arteko ezberdintasunak ez direla hain zurrinak, mapa soziala askoz konplexuagoa dela eta konberjentzia puntu asko daudela.

Gainera, Willis-en arabera, langile giroko gurasoak ez dira multzo homogeen bat. Guztiek ez dute ikuspegi berdina. Ez dituzte balio berdinak. Ez dute berdin jokatzeko. Gurasoek beren posizio sozialarekiko harreman konplexu eta sortzaileak dauzkate eta, gainera, inola ere ez dituzte beren seme-alabak eredu estandar batean gatibatzen. Independentzia erlatibo maila bat dago gurasoen eta beren seme-alaben artean. Guraso batzuk oso konformistak dira, eskolarekiko lotura zuzena eta estua dute, eskola ahal bezain beste babesten saiatzen dira eta, hala ere, eskolaren aurkako kulturaren murgiltzen diren seme-alabak dauzkate. Aldiz, horrelako guraso batzuek eskolaren dinamikan murgiltzen diren seme-alabak dauzkate. *Gurasoen jarrera* bezalako adierazleetatik abiatzen diren analisi mekanizistak ez dira baliagarriak, Willis-en iritziz.

Edonola ere, Willis-ek dio langile industrialen giroko balioek eta sentimenduek maiz eskolaren aurkako eragina dutela eta ezberdintzeko osagaiak transmititzen dituztela. Sarri gurasoek transmititzen dituzte, baina gurasoak ez dira beti horien jatorri, edo ez dira jatorri bakarra. Gurasoen eragina txikitu egiten da seme-alaben mundua handitu ahala. Gaztearen garapenak eta bere kultur konfiantza hazkorrak maiz gurasoekiko lehiara bultzatzen ditu. Mundu berekoak direla jabetzen dira eta atxikipenarekin batera tentsioa sor daiteke. Gurasoen mailan egoteko presioak eragin dezake *nor bere kasa* moldatzeko borondatea handitzea eta, ondorioz, ikasle izanik lor ezin daitekeenez, eskolarekiko gero eta gehiago urruntzea.

---

<sup>351</sup> Willis, 1988.

Willis-ek dio eskolaren aurkako kulturak zerikusia duela langile industrialen kulturarekin. 1970eko Ingalaterran eskolaren aurkako kulturaren murgilduta zeudenek oro har lantegi industrialetan egingo zuten lan eta eremu honetan baldintzak gogorrak izan arren eta aginduak kanpotik jaso arren, langileek beren esanahiak eraikitzen dituzte, beren ikuspegiak sortzen dituzte, eskolaren aurkako kulturaren murgilduta daudenek bezalaxe, garaiak sentituzetik urrun, beren ezagutza besteena baino egokiagoa dela uste dute. Trebezia eta konfiantza oinarrizko ardatzak dira eta autoritatearen aurkako hainbat adierazpideren bitartez gauzatzen da. Eskolarekiko aurkakotasunak emaitza akademiko kaskarrak eragiten ditu eta ibilbide akademikoak lan mota batzuetara bideratzen ditu (Willis-ek aztertu zuen 1970eko hamarkadako Ingalaterran industriako langileen enpleguetara). Enpleguek ez dituzte gazteak berez asetzen, baina enpleguaren bidez talde baten kide bihurtzen dira eta talde horrek aitortzen dio balioa indibiduoari. Beraz, enpleguak ez du bere baitan asetzen langilea, baina kanpoko osagaiak lortzea ahalbidetzen dio eta azken hauek balioko dute langilea *asetzeko*. Lan industrialaren baldintzak eskolakoak baino askoz gogorragoak dira, baina neurri batean eskolaren aurkako kulturak trebatu egin ditu lantegiko giroan erosoago txertatzeko. Erresistentziarako trebezia garatuagoa dutenez, beren *ankera* indartuta ikusten dute.

Azken finean, Willis-en arabera, eskolan bertan ideologia dominatzailea hainbat arlotan garaituz, eskolaren aurkako kulturak trebatu egiten ditu gazteak etorkizunean izango dituzten lan eta bizi baldintzei aurre egiten, baina, aldi berean, gazte hauek eraikitzen duten subjektibotasunaren bitartez modu *librean* eta aktiboki hartzen dituzten lan baldintza gogorreneko enpleguak. Honenbestez, gazte hauek ez dute lanaren banaketa, zapalkuntza bezala ikusten. Gazte hauen mundu ikuskera prozesu honetan zehar eraiki eta sendotzen da, baina hainbat kanpo faktorek, ideologia dominatzaileak adibidez, eragin egiten diete, unean uneko produktu sozio-politikoak (genero banaketari buruzko zenbait ideiei dagokienez, kasu) naturalizatzea sustatzen duelarik.

Freire-ren<sup>352</sup> arabera ere, dominazioa sofritzen dutenek ere badute beraiengan dominazioa bere egiteko joera, batzuek besteek baino handiagoa. Dominatzaileen irizpideak barneratzen direnean gertatzen da, edo norik bere dominazioa ahalbidetzen duten irizpideak ekoizten dituenen. Dominatuek dominatzaileen eredu imita dezaten beharrezkoa da dominatzaileen eredu hobea dela sinestaraztea, dominatuak gutxiago izatearen sentsazioa geratzea eta, halaber, dominatuek dominatzaileen ereduak barneratzea eta bere egitea, dominatzaileak dominatuen baitan biziko balira bezala. Baina, edonola ere, Freireren arabera, ez da dominatzailea kultura jakin bat sortzen duena eta dominatuei inposatzen diena. Dominatuen eta dominatzaileen arteko egiturazko harremanen emaitza da dominatuen kultura.

Willis-en dioenez, ibilbide akademiko arrakastatsuagoak dituztenen artean ere asko datoz langile familietatik. Nahiz eta jatorri sozioekonomiko berdina izan eta eskolaren aurkako jarrera duten, *ethos* nagusia ez da eskolaren aurkako kulturaren dabiltzaneren berdina eta, tartekako antzeko jokabideak izan ditzaketan arren, ez dute berdin jokatzeko. Batzuen eta besteen arteko aurkakotasun jarrerak ohikoak dira.

---

<sup>352</sup> Freire, 1990.

### 3.5 Bestelako pedagogiak

Freire-ren<sup>353</sup> arabera, hezkuntza, ekintza politikoa da. Hezkuntzaren izaerak berez dauzka ezaugarri politikoak eta, halaber, politikak hezkuntzaren hainbat ezaugarri dauzka. Politika da hezkuntzaren funtsa.

Freirek uztartu egiten ditu hezkuntza eredu tradizionalarekiko kritika zorrotza, erreproduzioaren teorietan aurki daitezkeen hainbat osagai eta itxaropen nahiz borroka filosofia, aukeren hizkeran sustraitzen dena, askatasunaren teologiaren tradizioetik elikatuz.

Freirek dioenez, analfabetismoa berez ez da arazoaren jatorria. Lehenagokoa den mugatze baten produktua da eta hori gero arazo bihurtzen da. Inork ez du aukeratzen analfabetoa izatea. Baldintza objektibo jakinek eragiten dute analfabetoa izatea. Freirek dio hezkuntza tradizionalak objektu pasibo bihurtu nahi dituela dominatuak eta alienatu egiten dituela. Kultura dominatzailearen izaera erreproduktiboa ere nabarmendu zuen Freirek. Bere arabera, kultura dominatzaileak *isiltasunaren kultura* ekoizteko eta mantentzeko ahalegina egiten du. Hezkuntza tradizionalak bere burua neutrotzat aurkezten du, baina izatez praktika ideologikoak eta materialak dira. Freireren arabera, erreproduktioari aurre egin behar zaio, aurre egin dakioke, dekodetuz, aurka eginez eta eraldatuz, baina beti ere zapaldutako indibiduen eta taldeen diskurtsoen, esperientzien eta historien markoan.

Hortaz, hezkuntzaren eremuan dominazioaren logikari aurre egiteko aukera badagoela dio Freirek. Dominaziozko botere harremanak ez dira makineria perfektua. Baina hezkuntzak liberazio prozesu izaera lor dezan beharrezkoa da jabetzea dominazioak hartzen duen formaz, bere egoeraren izaeraz eta subjektiboki nahiz objektiboki pairatzen dutenei sortzen dizkien arazoez. Horretarako ezinbestekoa da abiapuntua dominatuen ezaugarri historiko eta kulturalak eta bizitza sozialaren formak izatea. Freirek ez du sinesten kultura goi, ertain eta behe mailetan bereiz daitekeenik eta, halaber, ez du sinesten dominazioa gauzatzeko soilik talde dominatzaileek kultura ekoitzi eta hazia erein behar dutenik, talde dominatuek beren dominazioan batere ekarpenik egin gabe, suposatuz talde dominatuen kultura askea eta progresista dela, soilik talde dominatzailearen zapalkuntzatik askatu beharko lukeela.

Beraz, Freire-ren ikuspegitik, ikastea lan zaila da, jarrera kritikoa eta diziplina intelektuala eskatzen baititu. Tradizionalki irakaskuntzak ikaslearen ikuspegi kritikoa eta sortzailea desagerrarazteko joera izan du eta, ondorioz, ikaskuntza prozesu mekaniko batean bihurtu izan da, ikasleen interesa galaraziz. Aitzitik, Freire-ren iritziz ikaslearen ikuspegi kritikoa sustatu behar da: testu baten aurrean, adibidez, irakurleak ekintzaren subjektu rola hartu beharko luke, testu horrek errealitatearen aurrean hartzen dituen jarrerak kritikoki aztertu beharko lituzke, aztergai den gaia ezagutu beharko luke, irakurlearen eta egilearen harreman dialektikoaz jabetu beharko luke, eta apaltasun osoz jokatu beharko luke. Freire-ren arabera, ikastea ez da ideiak kontsumitzea, baizik eta ideiak sortzea eta birsortzea. Ikastea ez da soilik edukiei dagokien afera pedagogiko bat; ikastea batez ere afera politikoa da. Freirek uste du ikasleei beren egoerari buruzko ikuspegi kritiko bat erakutsi behar zaiela, beren eskubideak zeintzuk diren jakinarazi eta mundu errealean egoteko kontzientzia kritiko bat sustatu. Beraz, ikaslea pertsona autonomoa eta askea bihur dadin,

---

<sup>353</sup> Freire, 1990.

Freire-k uste du derrigorrezkoa dela ikasleak ikasten duenarekiko jarrera aktiboa, kritikoa eta apala izatea. Freirek, ordea, ez du teoria eta praktikaren arteko dikotomiarik egiten, bere ustez teoria eta praktika elkarren lagungarri baitira, eta egiazki beren aurkaria pentsamendu imitatiboa baita. Freire-ren arabera, hezkuntza praktika ezin da neutrala izan, askatasunera bideratua egon behar du. Ikastea, beraz, ikasleak bere baldintza sozialak ezagutzea da, munduarekiko bere harremanaz jabetzea eta bere zereginaz arduratzea, errealitatearen eraldakuntza helburu dutelarik. Mundua aldatu gabe ezin da benetako hezkuntza humanista gauzatu, Freire-ren iritziz. Freireren ikuspegitik ezinezkoa da ikaskuntza askerik baldin eta mundua askatzen hasten ez bada.

Freire-k<sup>354</sup> bi heziketa mota bereizten ditu: batetik, hezkuntza dominazio ekintza jotzen duena, irakasleak ezagutza ikasleari transferitzen dion eskema erabiltzen duena, eta, bestetik, hezkuntza liberazio ekintza jotzen duena, irakaslearen ezagutza ez ezik ikasleen ezagutza, sormena eta gaitasun kritikoa ere oinarri dituen. Freirek hezkuntza tradizionala lehenengo multzoan sailkatzen du, ikaslearentzat esanguratsuak diren arduratzeke inposatzen dizkiolako ikasi beharrekoak, ikaslea gutxietsiz.

Freireren<sup>355</sup> arabera, ikuspegi autoritario, elitista eta erreakzionario batetik pertsonen inkopetentzia fenomeno ia naturalizat jotzen da, eta suposatzen da pertsona hauek balio txikiagoa dutela eta lagundu egin behar zaiela. Aitzitik, Freireren ikuspegitik ikasleak beti daki asko. Bere posizioari eta testuinguruari buruzko ezagutza garatzeko beti norberak du potentzialtasun handiena. Horrek ez du ukatzen irakasleak daukan ezagutzaren baliagarritasuna, beti ere irakasleak ikasleei beren ezagutza aitortzen badie, uko egiten badio *dakienak ez dakienei irakasten die* eskemari eta ikasleak gehiago ezagutzeko bidean dauden pertsonak bezala hartzen baditu.

Beraz, irakasleak, Freireren arabera, etengabe ikasi behar du ikasleengandik baldin eta heziketa prozesua liberatzailea izatea nahi badu. Irakasleak beti du asko ikasteko ikasleengandik. Horretarako ezinbestekoa da tradizionalismo monotono, harro eta elitista gainditzea. Ez du balio irakasleak gutzia dakiela eta ikasleak ezer ez dakiela esaten duen eskemak, baina horrek ez du esan nahi irakaslea eta ikaslea berdinak direnik, nahiz eta aldea ez den beti berdina, garaiaren, pertsonen eta ikuspegiaren arabera. Nolanahi ere, beharrezkoa da ikasleak irakaslearen izaera demokratikotzat, ez-elitistatztat eta ez-autoritariotzat hartzea.

Giroux-en<sup>356</sup> arabera, pedagogia kritiko batentzat funtsezkoa da eskolak eremu publiko demokratikotzat eta irakasleak intelektual eraldatzailetzat definitzea. Eskolak leku demokratikotzat ikus beharko liriteke, helburu izango luketelarik pertsonak eta gizartea hainbat modutara potentziatzea, eta ez lan eremuaren luzapen gisa edo nazioarteko merkatuen lehian borrokatzeko abangoardiako erakunde bezala. Izan ere, Giroux-ek demokrazia kritikoa deritzona du xede, askatasun indibiduala eta justizia soziala oinarri. Hezkuntzaren eremuan, Giroux-en arabera, irakasleak intelektual eraldatzailearen rola izan beharko luke. Bere egiteko nagusia gazteen jakintzaren balioa eta gaitasun kritikoa jorratzea izan beharko litzateke. Intelektuala letren munduko pertsona baino gehiago da. Giroux-en arabera. Intelektualak ideien eta praktika sozialen bitartekariak, legitimatzaileak, ekoizleak eta transmisoreak ere badira. Beren funtzioak izaera

---

<sup>354</sup> Freire, 1990.

<sup>355</sup> Freire, 1989.

<sup>356</sup> Giroux, 1990.

politiko argia du. Baina Giroux-ek intelektualaren rola irakasleari esleitzen dion bezalaxe esleitzen dio rol hau bera ikasleari.

Bestalde, Freirek dioenez, hezkuntza liberazio prozesu izan dadin ezinbestekoa da prozesu horretan errealitatea ezagutzea eta horren kontzientzia izatea. Bere hasierako ekarpenetan Freirek<sup>357</sup> dio zapalduta dagoenaren ikasketa prozesuan ikaslea kritikoki jabetu beharko litzatekeela hein handi batean dominatuta dagoela. Freireren arabera, kontzientzia hori ezinbestekoa da baldin eta ikasketa liberazio prozesu izango bada. *Zapalduaren pedagogia* izenekoak bi une dauzka, Freirek dioenez: lehenengoan zapalduak konturatzen hasten dira kontzienteki beren egoeraz, eta praktikan errealitatearen eraldaketarekin konprometitzen hasten dira, eta bigarren unean, errealitate zapaltzailea eraldatu ondoren, pedagogia etengabeko liberazio prozesu bihurtzen da. Honen guztiaren bitartez dominazioaren kulturari egiten diote aurre. Zapalduen *isiltasunaren kultura* hautsi egiten dute. Dinamika honetan, Freirek dioenez, ez dute lekurik propagandak, beste batek kanpotik zuzentzeak, manipulazioak eta bestelako dominazio tresnek. Prozesu hau ezin da indibiduala izan, ezin da batek besteari egindakoa izan. Inork ez du inor hezitzen. Bakarrik, inork ez du bere burua hezitzen. Jendeak elkar hezitzen du, tartean mundua dela.

Freirek<sup>358</sup> proposatzen duen hezkuntza ereduan kritikarako gaitasuna garatzea da helburu. Nork bere posizioa ulertu beharko luke bere testuinguru sozialean. Elkarrizketa aktiboaren bitartez ikasleek ardua soziala eta politikoa beren gain hartu beharko lukete eta arazoaren interpretazio sakonetara iritsi beharko liriateke. Beraz, Freirerentzat kontzientzia hartzea funtsezkoa da eta ez da aldaketa ekonomikotik eratortzen. Aitzitik, baldintza historiko egokietan oinarritzen den lan pedagogiko kritikoak eragiten du.

Baina gerora Freirek<sup>359</sup> aurretik egindako ekarpenari buruz autokritikoki esango du kontzientzia ez dela nahikoa, hots, errealitatea ezagutzea eta eraldatzea ez direla gauza bera, aurretik Freirek berak esan zuenaren kontra. Gainera, azalpen berrien arabera, hezkuntza gizartearen eraldaketarako euskarriztat hartzea ez da hezkuntza liberatzailearen ziklo epistemologikoa bere osotasunean ulertzea. Hezkuntzak ez du gizartea irizpide batzuen arabera eraldatzen. Aitzitik, gizarteak formulatzen ditu bere arauak eta saiatu egiten da arau hauetara egokitzen den hezkuntza sortzen, baina, hala ere, ez da prozesu mekanikoa. Beraz, gizartearen arauak eraikitzen dituzten indar berberak ahalegina egiten dute hezkuntza beren interesetara molda dadin eta, ondorioz, saiatu egiten dira hezkuntzak arau horien kontra egin ez dezan. Haatik, honek ez du esan nahi hezkuntzan joera nagusien aurkako aldaketak eragin nahi dituztenek ez dutenik aukerarik ezer egiteko. Baldintza historikoak kontuan hartuz eraiki behar dituzte beren helburuak eta egoeraren arabera ikasi behar dute nola irits daitezkeen xede horietara. Freirek dioenez, norberaren mugak onartu egin behar dira, baina ez da erori behar ezkortasun suntsitzailean, ezta oportunitate lortsagabeen ere.

Freirek dioenez, nork bere posizioari dagozkion beharren eta interesen definizioa norberak eraikitzen du. Ezin da transferitu. Ez dago guztiarentzat balio duen defniziorik. Posizio bakoitzak

---

<sup>357</sup> Freire, 1980.

<sup>358</sup> Freire, 1982.

<sup>359</sup> Freire, 1990.

berea du, posizioak baldintzatu egiten duelako, baina posizioak ez du erabat baldintzaten definizioa, posizio berean definizio bat baino gehiago egin daitezkeelako. Ezagutza hori errealitatearekiko ekintzan eta ekintzaren bitartez ekoizten da. Beraz, batzuentzat baliagarria den ezagutza ez da derrigorrez baliagarria besteentzat. Ondorioz, aurrez ezarritako curriculumak dominazio ekintzaren izaera du.

Freireren<sup>360</sup> arabera, eskolak ez luke inoiz egia absoluturik inposatu beharko. Inoiz guztiz ziur ez egotearen ziurtasuna sustatu beharko luke. Hau funtsezkoa da pedagogia kritikoarentzat. Halaber, adierazpen eta subjektibotasunerako aukerak sustatu egin beharko lituzke. Ikasleek errealitateari buruzko ikuspegi kritikoa izatea bultzatu beharko luke pedagogia kritikoak. Inoiz ez luke ukatu behar teknologiaren garrantzia, baina ikaskuntza prozesuak ez luke soilik mugatu behar errealitatearen ulermen teknologikoa izatera.

Apple-k<sup>361</sup> dio Freireren ekarpena mirezgarria dela, baina Apple-ri zalantzak sortzen zaizkio Freire-k hezkuntzarako proposatzen duen estrategiaren ardatz batean. Apple-k ez du uste egokia denik burgesa deitzen den ezagutza hainbeste baztertzea, Apple-k ez baitu uste beharrezkoak diren baliabide guztiak erkidegoan aurki daitezkeenik. Apple-k dioenez, burgesa deitzen dioten ezagutza hori, baita diziplina tradizionalenetan ere, jendearen lanaren lepotik eraiki zuten. Hots, jendearen lanari esker sortu izan diren testuinguruetan ekoizti dituzte ezagutza horiek. Ondorioz, Apple-n arabera, ezagutza burgesak jende guztiarenak ere badira eta hala izatea merezi dute.

Nolanahi ere, Freireren<sup>362</sup> arabera, ikasleentzat beharrezkoa da beren testuinguruko historia, esperientzia eta kulturari buruz alfabetatzea, baina, aldi berean, beharrezkoa dute zirkulu dominatzaileetako kode eta kulturen jabe egitea, beren testuinguruak gainditu ahal izateko. Maiz bi dimentsio hauen arteko tentsioa handia izan ohi da.

Baina, hala ere, Apple-k oraindik gehiago nabarmentzen du Freirek zirkulu dominatzaileetako kode eta kultura deitzen duen horretaz jabetzeko beharra.

Barbiana-ko<sup>363</sup> eskolaren teoriak neurri batean Apple-n hildoari jarraitzen dio. Milani-k abiarazitako egitasmoak ikuspegi argia du oinarri: gizarte garaikidean desoreka sozio-politiko-ekonomiko-kultural nabarmenak daude eta eskola plataforma oso erabilgarria da desoreka horiek desagerrarazten hasteko, maila apaleneko ikasleei bizitzarako baliagarriak zaizkien jakintzak transmititzeko aukera ematen baitu eskolak. Hortaz, Barbiana-ko eskolan bizitzarako beharrezkoak diren irakasgaiak aukeratu eta, derrigorrez ikasi beharrekoak direla ikusaraziz, ikasleak kompetentzia horiek barnera ditzan da helburu. Etorkizuneko pertsona autonomo eta aske bat sortu ahal izateko baliabideak eskaini nahi dizkio Barbiana-ko eskolak ikasleari. Milani-ren arabera, estratifikazio sozialari aurre egiteko tresna oso baliagarria da eskola baina ez da behar bezala erabiltzen. Maila sozial apaleko ikasleari ikusarazi behar zaio sozialki zapaldua egotearen arrazoi nagusienetako bat dela orain arte ukatu egin zaiola (engainu eta bestelako metodo eta eduki okerren bidez) beharrezkoa zitzaiona ikasteko aukera. Ikasleari ikusarazi behar zaio eskola

---

<sup>360</sup> Freire, 1989.

<sup>361</sup> Apple, 1996.

<sup>362</sup> Freire, 1989.

<sup>363</sup> Hainbaten artean, 2000.

baliatu behar duela bizitzarako beharrezkoak diren lezioak ikasteko, eskolarekiko etsaitasuna eta alperrikako edukiak baztertuz.

Beste zenbait estrategia alternatibo ere proposatu dituzte azken hamarkadetan. Erresistentziaren teorien artean kokatuko ez genituzkeen arren, Freirek egiten dituen proposamenekiko antzekotasunak dituzte hauetako zenbaitzuk. Hiru aipatuko ditugu: Summerhill, Rogers eta Reimer.

Neill-en<sup>364</sup> egitasmoaren arabera, adibidez, Summerhill eskolak ume-umetatik bultzatzen ditu ikasleak beren kasa hautatzera, Dewey eta gisakoen irizpideetatik ez oso urrun. Umeen berezko ontasunean eta errealismoan sinesten dutelarik, ikasleek dute zein eskoletara, noiz eta zenbateko maiztasunez aukeratzeko eskumena. Horrez gain, adin guztietako ikasle orok parte hartzen dute eskolaren erabaki ia guztiak hartzeko bilera orokorretan eta aukera honek ikasleak aktibatu egiten ditu, erabaki ahalmena sustatzen baitu. Egunerokotasunean egin beharrekoa beren borondatearen esku izanik, ikasleek ez dute agindu emailerik eta, beraz, ezinbestean garatu beharra dute autonomia. Neill-en ikuspegiaren arabera, ume eta nerabe guztiak oso aktiboak dira. Izatez onak, zentzudunak eta errealistak dira. Ikasle bakoitzari bere kasa gara dadin uzten baldin bazaio, baldin eta helduek oztoporik jartzen ez badiote, ikaslea gai den lekura arte garatuko da. Horrexegatik Summerhill-en eskoletara joatea hautazkoa da, ez derrigorrezkoa. Ordutegia egon, badago, baina irakasleentzat bakarrik. Normalean ikasleek beren adinaren arabera aukeratzen dute eskola batzuetara edo besteetara joan nahi duten, baina aukera horiek sarri ikasleen interesen arabekoak ere izaten dira. Nork bere buruarekiko konfiantza izaten irakasten du metodo honek, Neill-en arabera. Ikasleek ez diete bildurrik ikasleei, ezin baitituzte zigortu irakasle tradizionalak ikasle tradizionalekin egiten duten eran. Summerhill eskolan kide guztiek osatutako bilerak erabakitzen du eskola afera guztien gainean, salbu eta oinarrizko segurtasun neurrien, irakasleen kontratazioaren eta kontabilitatearen gainean. Neill-en aburuz aske sentitzen den ikasle batek nekez izango du helduen kontrako gorrotorik eta, beraz, ez du interesik izango helduen pazientzia kolokan jartzen.

Rogers-en<sup>365</sup> strategiak beste bide batetik jotzen du ikasleen autonomia sustatzeko. Eskola tradizionalaren prozesu eta rol arruntak baztertuz, irakaslearen enpatia eta benetakotasuna dira Rogers-en strategiaren abiapuntua, zeren irakasleak irakasle izateari utzi eta hezitzaile-trebatzaile-laguntzaile rola hartu behar baitu. Rogers-en iritziz irakasleak zentraltasuna galdu egin behar du. Agintari izateari utzi behar dio. Irakasle rolak ezartzen dion maskara kendu eta bera den bezalakoa agertu behar da ikasleen aurrean. Irakaslea baino laguntzailea izan behar da, ikasleei ikastea erraztuko dien norbait. Ikastetxe eta ikasketa bakoitzaren egoerari lotuta oinarrizko arauak (ahal bezain gutxi) finkatzearekin batera, hezitzaileak ikasleen barrutik datorren ezagutza gogoia sustatu behar du, Rogers-en ikuspegitik bide horrek bakarrik ahalbidetzen baitu benetako ikaskuntza. Curriculumak ezarritako mugak nabarmenegi urratu gabe, irakasleak ekintza pedagogikoaren zentraltasuna utzi eta ikasle bakoitzari utzi behar dio arlo horretan bere buruaren gaineko erabakiak hartzen. Norberak hautatu behar du arlo horren marko orokorraren (oso orokorraren) baitan zer ikasi nahi duen eta nola ikasi nahi duen. Nork bere interesaren arabera aukeratzen duenez, indibiduoaren autonomia ezinbestean garatzen da. Hortaz, arlo bakoitzean

---

<sup>364</sup> Neill, 1967.

<sup>365</sup> Rogers & Freiberg, 1996.

ikasle bakoitzak erabaki behar du zer landu eta nola landu. Irakasleak lagundu egingo dio ikasleari ikasleak berak erabakitakoa gauzatzen.

Reimer-ek<sup>366</sup> xede duen autonomia bestelakoa da. Gaur egungo eskolak maila apalenero ikasleei kalte egiten die, Reimer iritziz: diru gastu erraldoiak egiten dira hezkuntza sisteman eta gastu horien zati handiena estrato sozial pribilegiatuenean probesten dute zeren, Reimer-en arabera, maila apaleneroek hezkuntza sistema lehenago uzten baitute eta pribilegiatuenean, berriz, beranduago eta, beraz, hezkuntza sistemaren maila gorenetan gastatzen den dirua nagusiki pribilegiatuenean alde egiten den inbertsioa baita. Reimer-ek honako alternatiba proposatzen du: eskolak desagerrarazi eta aurrekontuak ikasteko eta irakasteko prest dauden pertsonen sareak sortzera bideratu. Norberak erabakiko luke zer saretan, zer ikasteko edo irakasteko eta norekin aritu. Amaraun itxurako sare deszentralizatua proposatzen du Reimer-ek, norberak nondik jo erabakitzeko autonomia eta nahieran ikasteko aukera izango lukeen sare zabal eta konplexua. Liburu eta bestelako bitarteko material eta teknologikoez gain, mota guztietako pertsonen osatuko lirake, ezagutza fluxua handiagoa eta aberasgarriagoa izan dadin, jende guztiaren ezagutza baliatuz sarea bazter guztietara iritsiko litzatekeelarik.

## 3.6 Bestelako faktore ezberdintzaileak

### 3.6.1 Ekonomia soila baino askoz gehiago

Bourdieu<sup>367</sup> kapital ekonomikoaz gain bestelako kapital motak ere oinarritzat hartu ditu bere ikerketetan (kapital kulturala, kapital soziala eta kapital sinbolikoa kasu), eta generoa eta bizilekua bezalako faktoreak ere kontuan hartu behar direla esaten du, nahiz eta ez duten Bourdieuren ikuspegian kapitalek daukaten zentraltasuna.

Baina erresistentziaren teorien baitan koka ditzakegun hainbat ikuspegiren arabera beste zenbait aldagai ere ezinbestekoak dira. Esate baterako, Apple-k<sup>368</sup> hezkuntzaren botere ezberdintzailea ulertzeko hiru gako nabarmentzen ditu: klase soziala ez ezik baita generoa eta arraza ere. Halaber, Apple-n arabera<sup>369</sup>, naziotasunaren irizpideak ere kontuan hartu behar dira. Era berean, Iztuetak<sup>370</sup> dio hezkuntzaren eremua ikertzeko klase sozialaz gain hizkuntza eta nazio nortasuna ere kontuan hartu behar direla.

Hurrengo bi azpiataletan funtsezkoak iruditzen zaizkigun bi faktore izango ditugu aztergai: generoa eta hizkuntza. Orain arte aztertu ditugun ikuspegietan ez ziren kontuan hartzen edo, behintzat, ez zuten beste faktore batzuek zeukaten zentraltasuna. IV. atalean ikerketa enpirikoa aztertzen dugunean, bi faktore hauek baliagarriak izango dira eta, beraz, orain bi faktore hauei dagozkien hainbat ekarpen aztertuko ditugu.

---

<sup>366</sup> Reimer, 1971.

<sup>367</sup> Ikus tesi honetako "I. Espazio sozialaren joko eremua" atala.

<sup>368</sup> Apple, 1996.

<sup>369</sup> Apple, 1996, 187 or.

<sup>370</sup> Iztueta, 2000b.



### 3.6.2 Generoa

Sexua eta generoa aztertzeko funtsezko erreferentziak bihurtu dira Judith Butler eta Donna Haraway. Bi hauen ekarpenekin abiaraziko dugu atal hau.

Butler-ek<sup>371</sup> Simone de Beauvoir-en aldarria hartzen du abiapuntutzat: “ez zara emakume jaiotzen, emakume bihurtu egiten zara”. Ikuspegi hori ez dator bat tradizio fenomenologikoarekin. Butler-en arabera, generoa ez da nortasun egonkorra. Aitzitik, denboran zehar lausoki eraikitzen den nortasuna da. Ekintzen errepikapen estilizatuaren bitartez sendotzen da. Hortaz, Butler-ek baztertu egiten du nortasunaren eredu sustantzialista eta horren ordean denboraltasun sozialari (*social temporality*) lotuta dagoen beste ikuspegi bat proposatzen du. Butler-en arabera, generoa barne mailan jarraiak ez diren ekintzek eraikitzen badute, generoak sustantzia edukitzearen itxura, funtsean, eraikitako nortasunaren emaitza da. Horrexegatik, genero arloan eraldaketarako oinarria harreman arbitrarioetan bilatu behar da. Izan ere, generoari buruzko ikuspegi reifikatu eta naturalizatu oro eraikia da. Butler-en arabera, antropologia kultural feministak eta ahaidetasunari buruzko ikerketek argi erakutsi dute konbentzio kulturalak ez dituztela soilik produktu eta zerbitzuen ekoizpena, trukea eta kontsumoa bermatzen. Ahaidetasunaren eremuko loturak ere bermatzen dituzte. Horretarako tabuak eta araudi zigortzaileak baliatzen dituzte, baina baita bere menpeko helburuetarako sormena ere. Butler-en iritziz, gaur egungo genero nortasunek mantendu egiten dituzte garai bateko ahaidetasunaren arrastoak.

Halaber, Butler<sup>372</sup> ez dator bat feminismo tradizionalarekin. Butler-en arabera, tradizionalki feminismoak pentsatu izan du badagoela emakume kategoriarekin lotutako nortasun jakin bat eta horrek sustatzen dituela feminismoaren interesak eta, halaber, nortasun hori dela ekimen politiko feministaren subjektua. Baina, Butler-en arabera, ustezko nortasun hori, subjektu hori, eraikin diskurtsibo bat da. Botere harremanen testuinguruan ekoizten da. Butler-en arabera, *emakumeen* askatasuna bilatzen duen estrategiak porrot egingo du baldin eta ez badu *emakume* kategoriarekiko ikuspegi kritikoa erabiltzen. Izan ere, tradizionalki feminismoak bere subjektutzat hartu izan duen kategori hori, *emakumea*, generoa ezartzen duen sisteman ekoizten da. Sistema horrek berak ekoizten ditu subjektu maskulinoak eta femeninoak. Hortaz, *emakume* kategoria akritikoki onartzeak esan nahiko luke generoa ezartzen duen sistema horrek ezartzen dituen kategorien banaketa partzialki onartzea.

Butler-en arabera, generoaren ekoizpena ezberdina da testuinguru politiko eta kultural bakoitzean. *Emakume* terminoak politikoki nortasun partekatua den ideia ahalbidetu izan du, baina terminoa ez da zehatza. Testuinguru historiko bakoitzean emaitza ezberdinak sortatzen dira. Izan ere, generoak lotura du arrazarekin, klasearekin, etniarekin, sexuarekin eta tokian tokiko diskurtsoek ekoizten duten nortasunarekin. Feminismoaren subjektuaren unibertsaltasuna, batasuna eta egonkortasuna hondoratu egiten dira feminismoaren diskurtsoak funtzionatzen duen eremuan, askok uko egiten baitiote kategori hori bera onartzeari.

Feminismoaren *gu* terminoa beti eta soilik *phantasmatic construction* bat dela dio Butler-ek. Kategoriar horien estatusa ez da gaitzesteko modukoa, baina feminismo politiko tradizionalaren teoriaren

---

<sup>371</sup> Butler, 2007b.

<sup>372</sup> Butler, 2007a.

mugak zalantzan jarri behar dira, Butler-ek dioenez. Feminismoaren *gu* tradizionalak ukatu egiten ditu terminoaren baitan leudekeen konplexutasuna eta indeterminazioa, eta baztertu egiten ditu ordezkatu nahiko lituzkeen hainbat. Izan ere, ez dago politika eraikitzeko genero ontologiarik, zeren genero ontologiek beti funtzionatzen baitute ezarritako testuinguru politikoen baitan.

Butler-en<sup>373</sup> arabera, generoa eraikin izateak ez du esan nahi denboran edo espazioan *aurretik* dagoen *ni* edo *gu* batek eraikitzen duenik. Nekez izan daiteke *ni* edo *gu* bat generoarekiko loturarik gabe, Butler-en arabera. Besteak beste, generoaren harreman ezberdintzaileen bitartez eraikitzen dira subjektuak. Generoari lotuta, baina generoak subjektibatuta, *ni* hori ez dago genero ezarpen prozesuaren aurretik edo ondoren. *Ni* hori genero harremanen baitan eta genero harremanen ardatz bezala sortzen da.

Honenbestez, Butler-ek uko egiten dio konstruktibismoaren eta esentzialismoaren arteko eztabaidari, honek ez baitu kontuan hartzen dekonstruktibismoak ez duela esaten *guztia diskurtsiboki eraikia* dela. Dekonstruktibismoa ez da monismo diskurtsibo edo linguistizismo horretan erortzen. Halaber, ez da *diskursoak eraikitzen du subjektua*, honek subjektuaren posizioa mantendu egiten baitu, nahiz eta lekua aldatuz diskursoaren ondoren kokatzen duen.

Butler-en<sup>374</sup> arabera, kritika feministak ikertu egin behar ditu maskulinitatearen ekonomiaren aldarri totalizatzaileak, baina aldi berean bere buruarekiko kritikotasuna mantendu behar du feminismoaren keinu totalizatzaileak aztertuz. Etsaia formaz singularizat hartzea, adibidez, zapaltzailearen estrategia imitatzea da, termino ezberdinak eskaini beharrean. Gainera, keinu kolonizatzaileak ez dira soilik maskulinistak. Besteak beste, arraza, klase eta heterosexismoaren arloko menpekotasun harremanak izan daitezke

Politika egin ahal izateko, Butler-ek nortasuna emaitza bezala berkontzeptualizatzea proposatzen du. Ekoiztutako edo sortutako emaitza. Baina beti ere unibertsaltasuna, batasuna eta egonkortasuna izango ez lituzkeena. Nortasuna emaitza den heinean, ez dago erabat determinatua eta ez da artifiziala eta arbitrarioa. Horrela feminismoak gainditu egiten du bi sexuen diskurtoa eta, halaber, uko egiten dio borondate askearen eta determinismoaren dikotomiari. Testuinguru zehatzetan gauzatzen da agentzia, ekimena. Testuingurua da ekimenaren eskenatokia. Testuinguruak ahalbidetzen dituen estrategia subertsiboak gauzatu behar dira. Nortasuna eraikitzen duten errepikapen praktiketan eskuhartuz, praktika hauei aurre egiteko aukera inmanenteak jorratu behar dira, Butleren arabera.

Honenbestez, Talburt-en<sup>375</sup> arabera, hein handi batean Butler-en ekarpenetan oinarrituz abiatu zen *queer* kontzeptuak bat egiten du teoria postestrukturalistekin, posmodernoeekin eta feministekin zenbait arlotan: guztiek baztertzen dituzte nortasun binomioak, subjektibotasunaren izaera unitarioa, pertsonen autonomiari buruzko ideia liberalak eta uniformitatean oinarritutako erkidegoa.

---

<sup>373</sup> Butler, 1993.

<sup>374</sup> Butler, 2007a.

<sup>375</sup> Talburt in Talburt & Steinberg, 2005.

Haraway-k<sup>376</sup>, berriz, cyborg feminismoa deitzen duena proposatzen du. Haraway-ren arabera, cyborga organismo zibernetikoa da, makina eta organismo hibridoa, errealitate sozialari bezain beste fikzioari dagokion izakia, baina zientzia fikzioaren eta errealitate sozialaren arteko muga ilusio optikoa besterik ez da. Haraway-k XX. mende bukaera aldera dio gu cyborgak garela, makinak eta organismoak uztartuz osatzen den hibridoa, eremu teorikoari nahiz fabrikazioari dagokionez. Cyborgak irudimena eta errealitate materiala bat eginarazten ditu, eraldaketa historikorako aukerak egituratuz.

Haraway-ren arabera, *Mendebaldea* deitzen den eremuaren zientzian eta politikan nagusi da arrazakeria eta gizonezkoen dominazioa ardatz tradizionalak dituen kapitalismoa, kultur ekoizpenerako baliabidetzat hartzea natura, eta norberaren erreprodukzioa bestearen islan oinarritzea. Azken batean, Haraway-k dioenez, organismoaren eta makinaren arteko harremana mugen inguruko gerra izan da, auzitan izan direlarik ekoizpenerako, erreprodukziorako eta irudimenerako eremuak.

Cyborg kontzeptuak, izaerak eta egitasmoak ahalbidetu dezake kapitalismo militarista eta patriarkalaren aurkako borroka politika, Haraway-ren arabera. Hiru mugarrik ireki dute gaur egun politika-fikziorako aukera:

- a) gizakien eta animalien arteko muga sinesgarririk ez dago zientzian;
- b) organismoei eta makinei aplikatu ohi zitzaizkien bereizketak (naturala eta artifiziala, adimena eta gorputza, norberak garatua eta kanpotik diseinatua, etab.) ahuldu egin dira eta, halaber, interpretazio traszendentala eta harekin ontologiaren oinarri zen *Mendebaldeko* epistemologia, baina horren guztiaren alternatiba ez da zinismoa edo fedegabezia, baizik eta politika;
- c) fisikoaren eta ez-fisikoaren arteko muga ez da batere zehatza.

Haraway-ren arabera, industria iraultza berriak teknologia berrien laguntzaz prekarietatea hedatu duelarik, inoiz baino behar handiagoa dago *arrazza*, *genero*, *sexualitate* eta *klase* dominazioaren aurka egiteko. Kontuan hartu behar da patriarkatuak, kolonialismoak eta kapitalismoak errealitate sozial kontraesankorren esperientzia historiko bildurgarrien bitartez ezarri dituztela genero, arraza eta klase kontzientzia, eta sarri erresistentzia mugimenduek ontologia eta epistemologia esplizituak eraikiz hainbat sektore barne hartu edo baztertu egin dituztela, baina badirudi *Mendebaldeko* epistemologiek porrotera eraman dutela hurbiltasuna eraginkorrak eraikitzearen zeregina.

Bestalde, sexuaren eta generoaren arteko harremanari dagokionez, Butler-ek dio<sup>377</sup> generoak modu askotara interpretatu dezakeela sexua. Generoa ez da sexuaren emaitza eta ez dago itxuraz sexua dagoen bezain definitua. Izan ere, generoa kulturalki eraikitzen da. Bi sexuen egonkortasuna bere horretan onartuko bagenu (Butler-ek ez du egiten), horrek ez luke esan nahiko *gizon* kategoriaren eraikuntza soilik *ar* gorputzaren gainean egin daitekeenik. Beraz, sexuak bi direla bere horretan hartuta ere, horrek ez luke esan nahiko generoak bi direnik. Baina, gainera, Butler-ek dio sexua ere generoaren kategoria bat dela. Sexuak historia du. Bi sexuen naturalizazioa ekoizpen soziala da. Sexua diskurtsoa da, Butler-ek dioenez.

---

<sup>376</sup> Haraway, 1991.

<sup>377</sup> Butler, 2007a.

Butler-en<sup>378</sup> arabera, *sexua* ideal arauemailea da. Estuki araututako praktiken bitartez gauzatzen da. Hots, *sexua* ideien eremuko eraikina da eta denboran zehar ezartzen da. Ez da gorputzaren berezko gauza edo gorputzaren ezaugarri egonkorra, prozesua baizik. Arauen errepikapenaren bitartez ezartzen da. Errepikapena beharrezkoa izateak adierazten du gauzapena inoiz ez dela erabatekoa.

Baina gaur egun behintzat, Butlerek dioenez, *sexu* kategoriaren arauak gorputzen materialtasuna gauzatzen dutenean, hain zuzen gorputzen *sexua* gauzatzen dutenean, inperatibo heterosexuala sendotzearen alde gauzatzen dituzte ezberdintasun sexualak. Materialtasunaren ezaugarri horiek boterearen eraginez gertatzen dira. Beraz, *sexua* ez da norberak daukana, edo norbera denaren deskribapen egonkorra. *Norbera* bideragarri bihurtzen duen arauetako bat da *sexua*, kulturalki ulertzeko modukoa denaren eremuan gorputzari bizitzarako ezaugarriak esleitzen dizkion arauetako bat. Botere harremanen dinamikan gertatzen da hau. Unean uneko arauak erabat lotuta daude emaitza materialekin.

Bulter eta Haraway neurri batean uztartuz Preciado-k<sup>379</sup> dio sexualitatea teknologia dela eta sexu/genero sistemaren osagaiak (gizonezkoa, emakumezkoa, homosexuala, heterosexuala, transexuala...) makinak baino ez direla, produktuak, tresnak, aparatuek, trikimailuak, protesiak, sareak, aplikazioak... *Sexua*, organu eta praktika bezala, ez da leku biologiko zehatz bat, ezta bulkada naturala ere. *Sexua*, dominazio teknologia heterosoziala da, Preciadoren arabera. Generoen arteko botere banaketa asimetrikoan oinarrituz, sexuak gorputza gune erogenoetara mugatzen du, zenbait afektu hainbat organurekin bat eginaraziz, zenbait sentsazio hainbat erreakzio anatomikoekin. Gizakion natura, teknologia sozialaren eragina da. *Natura*=heterosexualitatea ekuazioa erreproduzitzen du gorputzetan. Sistema heterosexuala feminitatea eta maskulinitatea ekoizko aparatu soziala da. Gorputzak banatuz eta fragmentatuz gauzatzen da: organoak murrizten ditu eta intentsitate sentsitibo eta motrize handiko guneak ekoizten ditu (ikusmenekoak, ukimenekoak, usaimenekoak...) eta gune horiek ezberdintasun sexualaren gune natural eta anatomikotzat identifikatzen ditu.

Preciado-ren arabera, nortasun sexuala ez da diskurtsoaren aurreko haragiaren instintuzko adierazpena. Genero praktikek gorputzean ezartzen dutenaren adierazpena da. Feminismo konstruktibista deritzonaren arazoa da, Preciadoren arabera, gorputza-sexua generoak kulturaren edo une historikoaren arabera forma emango liokeen materia formagabetzat hartzea.

Gorputzaren lehenengo fragmentazioa edo sexuaren ezarpena gauzatzeko prozesuari izendatze performatiboa deitzen dio Preciadok, Butler-en haritik. Inork ez dio honi ihes egiten gaur egun. Jaiotzaren aurretik ekografiaren bitartez (teknologia hau deskriptiboa izateagatik ospetsua bada ere, izatez preskriptiboa da, Preciadoren arabera) edo jaiotzaren unean *sexua* esleitzen da, maskulinoa edo femeninoa. Ideal zientifikoak anbiguotasuna ekiditea du helburu, ahal bada jaiotza eta sexuaren esleipena bat etorriaraziz. Izen propioak eta bere truke-txanpon izaerak ahalbidetuko dute interpelazio performatibo hori. Baina horren eraginez organuak eta bere funtzioak mugatu egiten dira, beren erabilera *normala* edo *lizuna* bereizten da. Baina interpelazioa ez da soilik performatiboa. Prostetikoa ere bada: gorputzak egiten ditu.

---

<sup>378</sup> Butler, 1993.

<sup>379</sup> Preciado, 2002.

Preciado-k<sup>380</sup> heterosexualitate bezala izendatzen duen sistema batik bat kontzeptu ekonomikoa da, Preciadoren arabera. Ekoizpen eta truke harremanetan posizio bat definitzen du. Harreman hauetan lan sexuala, haurdunaldiko lana eta gorputza heziketa eta zaintza lana erremunerazio gabeko lan bihurtzen dira. Butler-en terminologia erabiliz, Preciadok dio sistema ekonomikoa sexual honek koertzio performatiboa erabiltzen duela, hots, konbentzio kulturek ezartzen dituzten prozesu semiotikotekniko, linguistiko eta gorputzekoen errepikapen erregulatuen bitartez gauzatzen dela. Kapitalismoaren hazkundera pentsaezina litzateke dispositibo heterosexuala erakundetu ez balitz eta emakumeek egiten dituzten zerbitzu sexualak, haurdunaldikoak, heziketakoak eta zaintzakoak plusbalia bihurtu ez balira.

Preciadok<sup>381</sup> dioenez, genero maskulinoari eta femeninoari naturaltasunez egozten zaizkion rol eta praktika sexualak gorputzean idatzitako erregulazio arbitrarioen multzoa dira eta horiek ahalbidetzen dute sexu batek bestea materialki ustiatzea. Ezberdintasun sexuala gorputzaren hetero-banaketa da eta horretan simetria ez da zilegi. Ezberdintasun sexualaren eraikuntza murritzeta ariketa teknologikoa da: gorputzaren osotasunaren zenbait zati isolatzen dira, adierazle sexualak bihurtu daitezke. Ekoizpen eta erreproduzio sistema heterosexualaren eraikin metonimikoak dira gizonak eta emakumeak. Sistema horrek baimentzen du emakumeak lan indar sexualtzat eta erreproduzio bitartekotzat hartzea.

Honenbestez, Preciadok kritikatu egiten du bai feminismo esentzialista bai konstruktibista. Esentzialista bere baitan isten da, posizio kontserbadoreak mantenduz amatasunari, erreproduzioari eta ezberdintasun femeninoari buruzko jarretan. Feminismo konstruktibista *genero* kontzeptua ardatz hartuz intelektualki trebeagoa den arren, tranpa batean erortzen da, Preciadoren arabera: batetik, feminitatea eraikuntza prozedura teknologiko artifizialen emaitza dela behin eta berriro azaltzen du, baina maskulinitatea bere botere teknologikoaren menpe gelditzearen beharrik izan gabe gelditzen dela dirudielarik, paradoxikoki ematen du natural itxura duela.

Preciadok dioenez, modak edo zirujia estetikoak azken bi mendeetan lehentasunezko helburutzat emakumea izateak tesi hau indartuko luke. Ikuspegi horren arazoa da, ordea, badirudiela teknologiak emanda datorren natura eraldatzen duela. Preciadoren arabera, ikuspegi horrek ez du ikusten teknologia naturaren ekoizpentzat. Aldiz, Preciadoren arabera, genero teknologien ahalegin handiena ez da izan emakumezkoen eraldaketa, baizik eta zenbait ezberdintasun organiko ezartzea. Preciadok fenomeno honi *generoaren ekoizpen prostetiko*a deitzen dio. Horrez gain, Preciadok konstruktibismoa kritikatzeko du gorputza eta sexua berresentzializatzeagatik, zeren konstruktibismoaren arabera aldaera kulturek gorputzean eta sexuan muga natural gaindiezina topatzen baitute.

Beraz, Preciadok dioenez, sexua eta generoa teknologiatzat ulertzeak gaitzen laguntzen du esentzialismoaren eta konstruktibismoaren arteko kontraesan faltsua. Ez da posible gorputzak (material pasiboak edo erresistenteak bailiran) ezberdintasun sexuala eraikitzen duten indar sozialetatik isolatzea. Teknozientzia garaikideak ez ditu aintzat hartzen organikoaren eta mekanikoaren arteko ezberdintasunak, zuzenean eskuhartzen baitu bizidunaren hainbat egituren

---

<sup>380</sup> Preciado, 2008.

<sup>381</sup> Preciado, 2002.

eraldaketan eta ezarpenean. Foucaultek *biopolitika* deitu zion gizarte garaikideen aro berri honi, bizitzaren ekoizpena eta kontrola helburu duen garai honi. Bioteknologia berria errotuta dago kultur aldagarritasuna kontrolatzen eta erregulatzen duten gorputzetan eta egituretan, haien gain eta haiekin lan egiten du. Izan ere, ezinezkoa da zehaztea non bukatzen diren *gorputz naturalak* eta non hasten diren *teknologia artifizialak*.

Davies-en<sup>382</sup> arabera ere, maskulinitatea eta feminitatea ez dira norbanakoaren berezko ezaugarriak. Gure gizartearen ezaugarri estrukturalak dira. Prozesu sozialek baldintzatzen dituzte eta prozesu sozialetan sortzen dira. Maskulinitatea eta feminitatea behartuta sartzen dira norbanako bakoitzaren praktikan. Jendearen hizketetan adierazten den munduaren errealtasuna bere egiten du norbanakoak eta, ondorioz, eskolan ere gizonezkoek zenbait ezaugarri bereganatzeko joera dute, eta neskek, berriz, gauza bera egiten dute beste ezaugarri batzuekin. Norbanakoari nortasun identifikagarri bat eskatzen zaionez, norbanakoak bere burua gizonezko edo emakumezko bezala kokatzen du, horrela genero arloko dualismoa kanpoko eta koertzitiboa delarik baina norberarena balitz bezala bizitzen delarik. Baina praktika diskurtsiboak ez dira soilik kanpotik behartutako zerbait. Norbanakoa ikuspegi kontzeptual, ezaugarri psikologiko eta emozionalez hornitzen dute. Hauen bitartez norbanakoak bere burua gizonezkoetat edo emakumezkoetat hartzen du eta mundu sozialari lotuta eremu pribatuan beren buruarekiko esperientziak gauzatzen dituzte.

Prozesu honetan, Davies-ek dioenez, hainbat osagaik (irudiek, metaforek, egitura narratiboek, deitzeko moduek, irakaskuntza praktikek...) bideratu ditzakete emakumezkoak hezkuntza arloko diskurtsioan bazterrekotzat kokatzera, ahul eta ekimenerako gaitasunik gabeak bezala agertzera, artean gizonezkoak diskurtso horren bitartez ageriboki maskulinoak izatera bideratuz, beraiek direnaren esanahia emakumezkoekiko oposizioan hartuz.

Connell-ek<sup>383</sup> dioenez, egoera aldatzen ari da. Bigarren Mundu Gerraren ondoren estatuek baztertu egin zituzten guztientzako enplegu politikak, eta merkatu diziplina nagusitzen hasi zen. Horren ondorioz genero harremanetarako funtsezkoak izan ziren baldintzak aldatzen hasi ziren. Izan ere, familiaren etxearen eta lantokiaren arteko loturan (ez soilik lantokian edo lanpostuan) oinarritzen da, adibidez, langile klasearen maskulinitatea. Horrez gain, herrialde aberastuetan genero harremanetan aldaketa nabarmena dago: gizonezkoen boterearekiko erronka irekia da feminismoa eta, halaber, erakundetutako heterosexualitatearekiko erronka, berriz, lesbianen eta gay-en mugimendua da. Connell-ek bereiztu egiten ditu mugimendu hauek presentzia eta botere operazionala, azken hau maiz txikia baita. Baina egiturazko eskenatokian egotearekin bakarrik modu berri batean baldintzatzen dute generoaren eta sexualitatearen politika osoa. Horren ondorioz maskulinitatean gertatzen diren aldaketak ez dira ikusi behar *sexu rol* unitario baten samurtzea edo gogortzea bezala, baizik eta erakunde mailako eta pertsonen arteko aldaketen bitartez genero harremanetan hegemonia mantentzeko eta hainbat alorretan abantailak mantentzeko eremu anitzeko borroka bezala.

---

<sup>382</sup> Davies, 2004.

<sup>383</sup> Connell, 2007.

Baina, Morris-ek<sup>384</sup> dioenez, gure kulturak insistentzia handiz hitz egiten du generoari buruz eta, ondorioz, estrategia egokiena zapaltzaileak diren genero kontzeptuei aurre egitea da. Morris-en arabera, queer teoriariek diote ez dagoela oinarrizko generorik, generoak ez daukatela ezer naturalik, generoa eraikuntza soziala dela, eta Haraway-k dio agian postgeneroaren aroaren atarian gaudela eta genero kontzeptua gaindituko genukeen garai baten hastapenetan egon gaitzkeela, baina, Morrisek dio generoaren arloko estrategian egokiagoa dela generoa esplizitu egitea, isiltasunak ukatu egiten baitu ezberdintasuna existitzen denik eta aukera ematen baitio kultura dominatzaileari sinesteko kultura bakarra dela.

Butler<sup>385</sup> ere bat dator ideia honekin, hein batean behintzat. Queer politika izango denaren hainbat proposamen plazaratzearekin bat, Butler-ek dio beharrezkoa dela *queer* terminoa ez ezik *emakume*, *gay*, eta *lesbiana* bezalako terminoak erabiltzen jarraitzea, nahiz eta horrek kontraesanak sortzen dituen.

Hezkuntzaren eremua propio aztertzen duten ekarpenei dagokienez, Kelly eta Nihler-ek<sup>386</sup> diote erreprodukzioaren teoriatik egin diren ikerketa gehienek ez dutela generoaren gaineko ikerketa sistematikoa egin. Gainera, ikertzen denean, soilik soldadari eta prestigioari dagozkion ezberdinkeriak hartzen dira kontuan, eta gutxietsi egiten da familiaren garrantzia eta nola eragiten dioten bizimodu pribatuak eta etxeok generoen arteko ezberdinkerari. Kelly eta Nihler-en arabera, emakumezkoen heziketa mezu kontraesankorrez beteta dago eta emakumezkoek mezu hauek beren galbahetik igarorazten dituzte, negoziazio eta erantzun prozesu batean, beren mesedetan erabiliz.

Lucey, Melody eta Walkerdine-n<sup>387</sup> arabera, dikurtso liberalak eta erreprodukzioaren teoriak ez dira baliagarriak azaltzeko, adibidez, langile giroko haur emakumezkoek nola izaten duten arrakasta eskolan. Baina, halaber, Willis-en ekarpena erreferentziatuz hartuz, Lucey, Melody eta Walkerdine-k diote erresistentziaren teorietan *konformisten* kategorian sartzen dituztenean ere ez dela egokia. Egoera *konformismo* edo *erresistentzia* jarrera baino konplexuagoa da. Klase ertainetako haurrei txikitatik indar handiz bidaltzen dizkiete mezua esanez unibertsitatera joan behar dutela eta prestigio sozialeko lanbideetan ibili behar direla. Baina langile giroko emakumezkoek ez dute halakoak egiteko egiturazko mezu indartsurik jasotzen eta, beraz, bide hori egiten dutenean, nortasunaren arloko galerak eta aldaketak bizitzen dituzte. Subjektu berri bat ekoitzi behar dute, beren egoeraren konplexutasunera molda dadin. Hibridoak bihurtzen dira, horrek dakartzan zailtasun guztiakin. Hibridotasuna gertaera kulturala eta soziala den arren, ekonomia fisiko batean ez da erraztasunez bizitzen.

Davies-en<sup>388</sup> arabera, haurrak berritasunera irekita daude. Prest daude baita ohiko espazio eta denboratik kanpoko aukerak jorratzeko ere. Berritasunarekiko irekitasunaren eta ordenarekiko desiraren arteko tentsioa egon, badago, baina eskolaren politika pedagogikoak baldintzatu egiten du haurrek ezberdintasunarekiko izango duten jarrera eta bide batez haurrek ezberdinak izateko izango dituzten aukerak.

---

<sup>384</sup> Morris, 2005.

<sup>385</sup> Butler, 1993.

<sup>386</sup> Kelly, 1999.

<sup>387</sup> Lucey & Melody & Walkerdine, 2007.

<sup>388</sup> Davies, 2007.

Rofes-en<sup>389</sup> arabera, irakasleak ikasgelan proiektatzen duen energiak eragin handia du ikasleengan. Irakasleak esaten, egiten, islatzen eta iradokitzen duenaren arabera, ikasgelaren dinamika nabarmen aldatzen da. Generoari eta sexuari dagokionez, Rofesek dio praktika sexistek eta heterosexistek kalte handia eragiten dietela generoaren ideia dominatzaileekin bat ez datozen ikasleei. Rofes-en arabera, eskola agente maskulinizatzailetzat definitu izan dute. Rofes-ek batik batik irakasle gizonetako gayen eragina du aztergai. Rofes-en arabera, irakasleak publikoki gay dela esanez soilik ez du eragin transgresorerik maskulinitate tradizionalarekiko sumisioa mantentzen bada. Rofesek dioenez, pedagogia kritikoaren helburua bada kolektiboki ulertzen saiatzea nola elkar eragiten duten indar sozio-politikoak eta gure eguneroko bizimoduak, eta nola horrek eragiten duen nortasunen, praktika sozialen eta komunitarioen ekoizpenean, orduan isiltasuna, ekiditze jarrera eta sexuaren despertsionalizazioa / deskorporazioa baliagarriak izan daitezke *statu quo* arriskutsu eta zapaltzaile bat berresteko eta adierazteko. Egoera honek estigmatizazioa, isiltasuna, petxeroen asmakuntza eta erasoak eragiten ditu eta, ondorioz, nahasmena, frustrazioa, mina eta gehiegikeria sortzen dira.

Reay-ren<sup>390</sup> arabera, gaur egungo genero arloko botere harremanak gizonetakoak vs emakumeetakoak diskurtso bitar sinplista baino askoz korapilatsuagoak eta kontraesankorrak dira. Generoa gauzatzeko bideak ez dira hain eskematikoak. Diskurtso bitarrak maiz ez du ikusten uzten genero bakoitzaren baitan eta gizonetako-emakumeetako kategorien artean dagoen aniztasuna. Lehen Hezkuntzako ikasgela bat aztertzean, Reayk ikusi zuen ikasle guztiak burubelarri ari direla aktiboki genero nortasunak ekoizten. Prozesu sozial ugariaren bitartez ekoizten dute generoa, beti ere klase sozialaren, arrazaren eta sexualitatearen hierarkiak uztartuz. Ikasgela honetan feminitate eta maskulinitate ugari daude aukeran, baina maskulinitate hegemonikoa agerikoa da, ikasgelatik kanpo bezaxe. Testuinguru honetan neskentzat zentzua dauka menpeko feminitatearen diskurtso tradizionalei aurre egitea, eta honela indartu egiten da generoen arteko banaketa. Baina generoen eremuko ordena hautsi egiten dute emakumeetako hartzen dituzten hainbat posizioak. Izan ere, feminitatearen diskurtso dominatzaileek subordinatzen dituzte emakumeetako gizonetakoak. Horrexegatik diskurtso transgresoreak eta feminitate *desbideratuak* ematen diete aukera emakumeetako gizonetako menpeko genero subordinatuetatik ihes egiteko.

Reayk berretsi egiten du feminitateak soilik erlazionalki uler daitezkeela. Reay-k dioenez, feminitateen eta maskulinitateen arteko elkarrekiko menpekotasuna dago, hots, bietako bakar bat ere ezin da isolatuta ulertu. Aztertutako ikasgelan adinkideen diskurtsoak dio emakumeetako langileagoak direla, helduagoak direla eta trebezia sozial gehiago dituztela, baina gizonetako guztiek eta emakumeetako kopuru esanguratsu batek ez du uste gizonetakoak hobek direla eta, hala ere, uste dute hobea dela gizonetako izatea. Izan ere, ikasgeletan ikasten dena azterketetan islatzen dena baino askoz gehiago da. Ikasten dituzten lezioen artean daude genero berdintasunaren aurka egiten duten genero harremanei buruzko lezio zaharrak.

Baina Morris-ek<sup>391</sup> dioenez, eskolak ez du autosormen etengabea sustatzen, eta hori egitea ezinbestekoa da izakia kultur produktua dela ulertuz aldatzea eta berrasmakuntza ahalbidetzeko.

---

<sup>389</sup> Rofes, 2005.

<sup>390</sup> Reay, 2007.

<sup>391</sup> Morris, 2005.



Aitzitik, eskolak izaki uniformeak ekoizteko joera du, zeren irakasleek eta kudeatzaileek aurrez ezarritako ideien bitartez pentsatzen baitute nortzuk diren haurrak eta nolakoak izan beharko luketen helduaroan. Ezagutza estandarizatuek sekula ezingo lituzteke existentzia sortzaileak ahalbidetu.

Taberner-en<sup>392</sup> arabera, Espainiako estatuan 1970. urteko Ley General de Educación delakoaren bitartez OHO ezarri aurretik gizonzkoen kopurua askoz handiagoa zen hezkuntza sistemaren maila guztietan (lehen, bigarren eta goi mailako hezkuntzan). Klase xumeetako emakumezkoen gehiengoa goiz aterarazten zuten hezkuntza sistema formaletik etxeko lanetan aritzeko edo lan merkatu formalean sartzeko ezkongabeak ziren bitartean. Unibertsitateko ikasketak (salbu eta Magisteritza edo Erizaintza bezalako zenbait) gizonzkoentzat egokiagoak zirela zeritzon gehiengoak. Gaur egun, ordea, derrigorrezko eskolatzeari dagokionez, ez dago alde portzentualik, baina derrigorrezkoak ez diren bi mailetan (bigarren mailakoa eta goi mailakoa edo unibertsitatekoa) kopuruak lehen zirenen alderantzizkoak dira orain, emakumezkoena handiagoa baita. OHOn emaitza akademiko hobeak lortzen hasi zirenez, gutxiago errepikatzen zuten eta UBI egiteko aukera handiagoak izan zituzten, eta ondoren unibertsitateko ikasleen artean ere gehiengo bihurtu ziren.

Titulazio maila generoaren arabera Gipuzkoan 15 urtetik gorakoen artean aztertuz gero (ikus 12. Taula), ondoriozta genezake kopuruak ez direla hain ezberdinak gizonzkoen eta emakumezkoen artean. Esate baterako, titulazio gabekoen artean gizonzkoen kopurua (%6,3) emakumezkoena (%9,3) baino txikiagoa dela, eta berdina gertatzen da bigarren mailako hezkuntzan, batik bat derrigorrezkoaren ondorengoan, gizonzkoen kopurua %31,9koa eta emakumezkoena %23,9koa baita. Baina hirugarren mailako ikasketetan emakumezkoen kopurua (%16,6) gizonzkoena (%14,6) baino handiagoa da, berdina gertatzen da lehenengo mailako ikasketetan, emakumezkoen kopurua %26,7koa eta gizonzkoena %22,7koa baita.

<b>12. Taula: Hamabost urtetik gorako biztanleriaren titulazio maila, generoaren arabera. Gipuzkoa, 2001 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)</b>						
<b><i>Ikasketa maila</i></b>	<b><i>Guztira</i></b>		<b><i>Emakumezkoak</i></b>		<b><i>Gizonzkoak</i></b>	
	<b><i>Kopurua</i></b>	<b><i>%</i></b>	<b><i>Kopurua</i></b>	<b><i>%</i></b>	<b><i>Kopurua</i></b>	<b><i>%</i></b>
Guztira	583.914	100,0	298.472	100,0	285.442	100,0
Titulazio gabe	45.852	7,9	27.779	9,3	18.073	6,3
1. mailako ikasketak	144.559	24,8	79.700	26,7	64.859	22,7
2. mailako ikasketak I	140.144	24,0	70.394	23,6	69.750	24,4
2. mailako ikasketak II	162.324	27,8	71.197	23,9	91.127	31,9
3. mailako ikasketak	91.035	15,6	49.402	16,6	41.633	14,6

Iturria: Biztanleria Zentsuak (INE) in Aztiker

Edonola ere, 2. atalean aipatu dugun bezala, Fernández Enguita-k<sup>393</sup> dio ezberdinkeria ez dela soilik ikasketa mailaren arabera gertatzen. Ikasketa mota ere kontuan hartu behar da. Balio handiagoa dute goi mailako eskola teknikoetako ikasketek fakultatekoek baino, medikuntzakoek gehiago zientzia fakultatekoek baino, fisikako espezialitateak gehiago biologiakoak baino, etab.

<sup>392</sup> Taberner Guasp, 1999.

<sup>393</sup> Fernández Enguita, 1990, 51.

Taberner-en<sup>394</sup> arabera ere, adibidez unibertsitateko ikasketa guztiek ez dute prestigio sozial baliokidea. Gaur egun Goi Mailako Eskola Teknikoetan egiten direnek dute prestigio handiena eta horietako gehienetan oraindik gizonezkoak dira gehiago.

Esate baterako, EHU-UPVko<sup>395</sup> datuak aztertuz gero (ikus 13. Taula), ondoriozta genezake ikasleen artean oro har emakumezkoen kopurua (%56,03) handiagoa dela gizonezkoena (%43,97) baino, baina prestigio sozial handiko zenbait ikasketetan emakumezkoak ez dira hamar ikaslelik hiru izatera ere iristen: emakumezkoak meatzaritza teknikoan %30,15 dira, injiniaritzan %29,30, industri injiniaritzan teknikoan %27,79, politeknikoan %25,62, informatikan %23,01, itsasketa eta itsasontzi makinetan %18,30 eta Eibarko industri injiniaritzan teknikoan %16,80.

<b>13. Taula: EHU-UPV-ko ikasleak sexuaren eta lizentziaturaren arabera (ehuneko horizontalak)</b>		
<i>Lizentziaturak</i>	<i>Emakumezkoak</i>	<i>Gizonezkoak</i>
Guztira	56,03	43,97
Erizaintza	86,72	13,28
Gizarte Langintza	82,49	17,51
Farmazia	81,89	18,11
Psikologia	81,50	18,50
Irakasle Eskola	81,29	18,71
Medikuntza eta Odontologia	78,21	21,79
Filosofia eta Hezkuntza Zientziak	76,81	23,19
Arte Ederrak	71,29	28,71
Filologia, Geografia eta Komunikazioa	68,22	31,78
Gizarte Zientziak eta Komunikazioa	66,30	33,70
Kimika	63,99	36,01
Lan Harremanak	62,20	37,80
Zientzia eta Teknologia	61,47	38,53
Zuzenbidea	60,35	39,65
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	57,17	42,83
Enpresa Ikasketak	54,70	45,30
Arkitektura	53,79	46,21
Meatzaritza Teknikoa	30,15	69,85
Injiniaritzan	29,30	70,70
Industri Injiniaritzan Teknikoa	27,79	72,21
Politeknikoak	25,62	74,38
Informatika	23,01	76,99
Itsasketa eta Itsasontzi Makinak	18,30	81,70
Eibarko Industri Injiniaritzan Teknikoa	16,80	83,20

Iturria: EHU-UPV

Genero arloko aurrerapausoak eta oraindik irauten duten ezberdinkeriak agerikoak dira ere EHU-UPVko<sup>396</sup> enplegatuen datuetan (ikus 14. Taula). Doktoreen artean emakumezkoak (%53) gizonezkoak (%47) baino gehiago dira, eta berdina gertatzen da administrazioko langileen artean ere, emakumezkoen kopurua %64,20koa eta gizonezkoena %35,80koa baita, baina irakasleen eta kudeaketa karguen artean gizonezkoen kopurua handiagoa da: adibidez, alde handiena dagoen postuetara joz, ikus genezake gizonezkoak hamarretik zazpi direla dekanok / zentroetako zuzendari, errektore talde eta saileko zuzendarien artean, eta irakasleei dagokienez, gizonezkoak hamarretik sei baino gehiago dira irakasle eta ikertzaile doktore nahiz ez doktoreen artean, eta aldea are handiagoa da katedradunen artean, gizonezkoak baitira hamarretik zortzi.

<sup>394</sup> Taberner Guasp, 1999.

<sup>395</sup> Berria, 2007-03-07.

<sup>396</sup> Berria, 2007-03-07.

<b>14. Taula: EHU-UPV-ko enplegatuak sexuaren arabera kudeaketa karguen, doktoeren, irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetaoen artean (ehuneko horizontalak)</b>		
<b><i>Kudeaketa karguak</i></b>	<b><i>Emakumezkoak</i></b>	<b><i>Gizonezkoak</i></b>
Idazkariak	58	42
Dekanordeak/zuzendariordeak	47	53
Sailetako idazkariak	35	65
Dekanoak/zentroetako zuzendariak	29	71
Errektore taldea	27	73
Sailetako zuzendariak	26	74
<b><i>Doktoreak</i></b>		
Osasun zientziak	69,70	30,30
Humanitateak	57,10	42,90
Zientzia Esperimentalak	58,60	41,40
Gizarte eta Justizia Zientziak	53,60	46,40
Irakaskuntza Teknikoak	35,90	64,10
Guztira	53	47
<b><i>Irakasleak</i></b>		
Irakasle eta ikertzaile ez doktoreak	39	61
Irakasle eta ikertzaile doktoreak	35,20	64,80
Unibertsitateko katedradunak	19,60	80,40
<b><i>Administrazioa eta zerbitzuak</i></b>		
Langileak	64,20	35,80
Iturria: EHU-UPV		

Lanbide Heziketari dagokionez<sup>397</sup>, EAEn 2006. urtean 27.368 ikaslek eman zuten izena eta horietatik %41,35 (11.318) emakumezkoak ziren. Erdi Mailako Zikloan ikasleen %38,61 ziren emakumezkoak eta Goi Mailako Zikloan, berriz, %43,21.

Fernández Enguita-ren arabera<sup>398</sup>, oraindik gizonezkoak nagusi diren hezkuntza sistemaren adarretara aurki iritsiko dira emakumezkoak, denbora kontua da. Arazo larriena ez dago hezkuntza sistemaren barruan, kanpoan baizik, titulu berdinek baliagarritasun txikiagoa baitu emakumezkoentzat. Ondorioz, emakumezkoek genero desabantailak konpentsatzeko estrategia kredenzialistak hartzeko joera handiagoa dute.

Baina, atal honetan ikusi ditugun hainbat iritziren arabera, kontua ez da soilik ikasketa maila eta motari dagokionez gizonezkoen pare egotea edo haiek gainditzea. Hori bezain garrantzitsua da hezkuntza sistemaren baitan maskulinitatea eta feminitatea esleitzen dien sistemak bere horretan segitzen duenez, eta horretan ez dirudi aldaketa hain handia denik, atal honetan aztertu ditugun hainbat ikuspegik diotenez.

### 3.6.3 Hizkuntza

Iztuetak<sup>399</sup> kritikatu egiten ditu Bowles eta Gintis ez dutelako nazio-nortasuna eta hizkuntza kontuan hartzen. Iztuetaren arabera, hizkuntzaren, hezkuntzaren eta klasearen kontzeptuek elkarrekiko harremanak dituzte eta, aldi berean, esparru horietako bakoitzak bere espezifikotasuna adierazten du, bere autonomia dauka.

<sup>397</sup> Berria, 2007-03-07.


<sup>398</sup> Fernández Enguita, 2001.

<sup>399</sup> Iztueta, 2000b.

Aztergai dugun testuinguruan behintzat oso esanguratsuak dira hizkuntzaren arloko gorabeherak. Euskarari dagokionez, urte luzez amildegian behera erori ondoren, azken hamarkadetan abiarazi dituzten ekimenei esker euskararen erkidegoak milaka kide irabazi ditu, 300.000 lagun inguru, eta, halaber, eremu berrietara iristeko gai izan da, baina, hala ere, gaur egun euskara txikia eta ahula da oraindik. Izan ere, azken urteetako hedapena ez da zenbait datu kuantitatibok erakusten dutena bezain sendoa eta eraginkorra. Hainbat adierazlek argi islatzen dituzte euskararen argilunak.

Euskararen ezagutza hedatzen ari da (ikus 2. Grafikoa). Elebidunen kopurua helduen eta adinekoen artean baino handiagoa da gazteenen artean: 1986an hamarretik bi izatetik (haurrak %23,2 eta gazteak %20,7) 2001ean hamarretik lau baino gehiago izatera pasa ziren (haurrak %45,8 eta gazteak %40,3). Normalizaziorako bidean, seinale ona da. Baina kopuru hauek ez dira diruditen bezain onak.


**2. Grafikoa: Euskararen ezagutzaren bilakaera adin taldeka. Euskal Herria, 1986-2001 (ehunekoak).**



Iturria: Euskararen Datu Basea. Soziolinguistika Klusterra eta Aztiker (Datuen jatorria: Biztanleria Zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak Arabarako, Bizkairako, Gipuzkoarako eta Nafarroa Garairako, eta Soziolinguistikako Inkesta Ipar Euskal Herrirako).

Gaur egun oro har euskal herritarren laurdena (%25,7) da elebiduna, 2006. urteko IV. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (ikus 3. Grafikoa). Hamar euskal herritarretatik sei (%58,9) erdaldun elebakarrak dira. Gainerakoak, %15,4 hain zuzen, elebidun hartzaileak dira. Gainera, kopuru hauek ezin dira bere horretan besterik gabe hartu. Adibidez, elebidunen artean zein hizkuntzatan moldatzen diren hobeto galdetuz gero, hamar elebidunetik lauk (%38,9) erdaraz hobeto moldatzen direla erantzun du. Hamar elebidunetik hiruk (%30,7) euskaraz hobeto. Euskaraz nahiz erdaraz berdin moldatzen direla, berriz, hamarretik hiruk (%30,3) erantzun dute. Kopuru hauek elebidunenak dira, ez euskal herritarrenak. Beraz, hogei euskal herritarretatik hiru (%15,7) moldatzen dira euskaraz erdaraz baino hobeto edo erdaraz bezain ondo.


3. **Grafikoa: Hizkuntza gaitasuna. Euskal Herria, 2006 (ehunekoak).**



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza.

Hogetik hiru. Hain zuzen horixe da kalean euskaraz egiten diren elkarrizketen kopurua, %14,2, Soziolinguistika Klusterraren arabera (ikus 4. Grafikoa). Kopuruak gora egin du azken bi hamarkadetan, eta hori norabide egokia da noski, baina azken 17 urteetan soilik %3,4 handitu da kopuru hori.

4. **Grafikoa: Kaleko elkarrizketak hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2004 (ehunekoak).**




Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

IV Soziolinguistikako Inkestan ere erabileraren datuak aztertzen dira (ikus 5. Grafikoa), baina, neurketak kalean egin beharrean, inkestatuak erantzuten duena da oinarria. Ondorioz, politikoki zuzena denaren soslaiari tarte irekitzen zaio, baina, nolana ere, emaitzei erreparatuz gero, ez dirudi tarte oso handia denik. Erdara nagusitzen da kasuen %85ean: euskal herritarren hiru laurdenek (%74,9) erdara bakarrik erabiltzen dute eta hamarretik batek (%9,8) erdara euskara baino gehiago. Beraz, euskararen erabilerari dagokionez, berriro kopuru beretsua agertzen zaigu, hogetik hiru, euskal herritarren %15,3 hain zuzen: euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutela hamarretik batek (%9,9) erantzun du, eta euskara erdara beste erabiltzen duela hogetik batek (%5,4).

Hortaz, euskararen erabilera ez da handitzen ari euskararen ezagutza handitzen ari den maila berean, ezta urrik eman ere. Haur eta gazteen artean oso nabarmena da. Datu kezkarria da hau. Euskararen hedapenak dauzkan gabeziak garbi iradokitzen ditu.

5. **Grafikoa: Elkarrizketak hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2006 (ehunekoak).**



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza.


Inguruabar honetan irakurriko ditugu euskal kultur kontsumoari buruzko datuak, euskararen egoeraren erreferentziatzat balio dezaketelakoan. Izan ere, eremu honetan ere euskara txikia eta ahula da.

- 1) Txikia dela esaten dugu zeren inguruko kulturen kontsumitzaile kopuruekin alderatuta, euskararena hizkuntza erkidego askoz txikiagoa izaki, euskal kulturaren kontsumitzaile kopurua askoz txikiagoa baita.
- 2) Ahula dela esaten dugu, bere eremuko biztanleen laurdenera soilik iristen delako.
- 3) Baina beste zentzu batean ere bada ahula: euskal herritarrek oro har kultura kontsumitzeko dituzten joerak kontuan hartuta, euskararen hizkuntza erkidegoko kideek legokiekeena baino askoz euskal kultura gutxiago kontsumitzen dute.

Azter ditzagun ideia hauek datu kuantitatiboen bitartez.

Kulturaren hainbat adierazpidetan hizkuntzaren ardatza ziur aski esanguratsua ez den arren (dantzaren eta arte plastikoen arloko emaitza gehienetan kasu), beste hainbat adierazpidetan funtsezkoa da. Besteak beste, kontsumitzaile potentzialen kopurua nabarmen baldintza dezake. Gaur egun Euskal Herrian hiztun gehien dituzten hizkuntzek lor ditzaketen kopuruak oso ezberdinak dira (ikus 6. Grafikoa): mundu mailan gaztelaniak 352 milioi hiztun dauzka, frantsesak 122 milioi eta euskarak, berriz, milioi bat baino gutxiago. Beraz, euskara oso txikia da bi erraldoiren artean.


6. Grafikoa: Gaztelaniaren, frantsesaren eta euskararen hiztun kopurua. Mundua, 2001 (kopuru absolutuak, milioiak).



Iturria: Aztiker: *Euskal Herria datuen talaiatik* 2006.  
Honako iturriak erabili dituzte: Grime, B.F. (2002), *Euskararen Datu Basea 1.0*, Biztanleriaren Zentsuak (EUSTAT, IEN), *Soziolinguistikazko Inkesta* (Eusko Jaurlaritza).

Baina gure azterketan soilik Euskal Herria hartuko bagenu kontuan, euskararen kalterako asimetria ere nabarmena litzateke. Izan ere, erdal kulturaren kontsumo potentziala askoz handiagoa da euskal kulturaren aldean. Biztanleriari buruzko 2006. urteko datuen arabera, Euskal Herrian 3.015.558 lagun bizi dira orotara. Horien arten 16 urte edo gehiagokoak, berriz, 2.589.600 lagun dira. Lehen esan dugunez, 16 urte edo gehiagokoen artean %25,7 (665.800 pertsona) elebidunak dira, %15,4 elebidun hartzaileak (397.900 pertsona) eta %58,9 erdaldun elebakarrak (1.525.900 pertsona). Kontuan hartuz elebidun guztiak direla erdal kultur produktuen kontsumitzaile potentzialak, datu hauen arabera ondoriozta genezake erdal kultur produktuen kontsumitzaile potentzialen kopurua 2.589.600 pertsonakoa dela (ziur aski hauetatik %91 inguru gaztelaniazkoena eta %9 inguru frantsesekoena) eta euskal kultur produktuen kontsumitzaile kopurua, berriz, 665.800 lagunekoa dela (ikus 7. Grafikoa). Hau da, erdal kulturaren kontsumoa potentzialki ia bost aldiz handiagoa da euskal kulturarena baino.

7. **Grafikoa: Kulturaren kontsumitzaile kopuru potentziala hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2006 (kopuru absolutuak).**



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza.

Euskara gutxiagotuta egotea ez da berez gertatu. Ez da naturala. Prozesu historiko-politiko baten ondorioa da. Euskararen gutxiagotze prozesuan zerikusitua handia izan zuen hezkuntza sistemak, maiz erabili baitzen euskararen aurkako tresnatzat.

Amurrio-ren arabera<sup>400</sup>, Ipar Euskal Herrian 1670. urte inguruan hasitako eskolen hedapena indar handiz areagotu zuten XVIII. mendean. Aurreko bi mendeetan ez bezala, mende honetan doktrina eskolan euskaraz irakasteko ahalegin sendoari esker gauzatu zen euskal alfabetakuntza 1686-1789 urte bitartean. Hego Euskal Herrian, aldiz, eskolatzearen hedapen prozesuarekin batera euskara zigortu egin zen eskolan. Irakaskuntza osoa gaztelaniaz egiten zen. Doktrina euskaraz egiten zen baina arrazoi pastoralengatik bakarrik. Testuinguru horretan ezarri zuten udalek euskararen aurkako eratzunaren zigorra, maisuak hori betetzera behartuz. Gerora, Frantziako eta Espainiako estatu hizkuntzak dekretu indarrez inposatu zirenean, egoerak okerrera egin zuen Euskal Herri osoan, 1891 urtean Convention Nationale izenekoaren bitartez Ipar Euskal Herrian eta 1857. urtean Moyano Legearen bitartez Hego Euskal Herrian. Inguruabar horretan sortu ziren foruzaleen aldarriak.

Perez Urraza, Bilbao eta Ezkurdiaren arabera<sup>401</sup>, Frantziako Iraultzaren ereduari jarraiki eta nazio-estatuaren hedapenarekin batera, XIX. mendean zehar Europan zabaldu ziren hezkuntza sistemak estatuko hizkuntza dominatzaileari egin zioten tokia. Horrenbestez, Euskal Herriko eskola ofizial guztietan, Iparraldean nahiz Hegoaldean, erabat desagerrarazi zuten euskararen arrastoa. Ikasleak euskalduna baziren ere, irakaskuntza guztia erdaraz egiten zen, estatu bakoitzak sustatzen zuen batasunaren, nortasunaren eta espainiar nahiz frantziar abertzaletasunaren izenean.

<sup>400</sup> Amurrio, 2006.

<sup>401</sup> Perez Urraza & Bilbao & Ezkurdia, 2006.



Amurrio-ren arabera<sup>402</sup>, XIX mendeko Espainiako estatu liberalaren jardun nazionalizatzailea eragin gutxikoa izan zen baldin eta mendebaldeko gainerako estatuekin alderatzen badugu. Horren ondorioetako bat da estatu honen eremuko hainbat lurraldetan ezaugarri kultural ezberdinek eta gaztelania ez diren beste hizkuntzek irautea. Testuinguru horretan sortu ziren XIX. mendearen erdialdean, erromantizismoaren eraginari esker besteak beste, gutxiagotutako kulturetako intelektuaren mugimenduak. Beren hizkuntzen eta kulturen garapena zuten xede. Liberalismoak eta karlismoak ordezkatzeko zuten zentraltasun politikoari aurre egiten zieten mugimendu politikoekin hartueman soziopolitikoak zituzten mugimendu intelektual hauek. Beren kritiken jomugetako bat hezkuntza sistema espainiarra zen, gaztelania hedatzen zuela leporatzen ziotelako.

Mateos-ek dioenez<sup>403</sup>, euskal nazionalismoa hastapenetatik, XIX. mendean sortu zenetik, arduratu da hezkuntzaz. Garaian garaiko indar politikoaren arabera abiarazi ditu ekimenak eremu honetan. Hainbat arlo jorratu ditu (euskara, curriculum diseinua, ikastetxearen autonomia maila edota sare publikoa eta ikastolaren arteko harremanak) baina euskal nazionalismoaren hezkuntza arloko diskurtsoaren osagai nabarmenena euskara izan da eta horrela izaten jarraitzen du. Mateos-en arabera, euskal nazionalismoak estatu baten sostengua ez duenez, euskal lurralde osoa batzen duen egitura politikorik ezean nekez irudika daiteke euskal herritartasuna, eta horren ondorioz euskal nazionalismoak ez du ikusten ahaletan berezirik egin behar denik euskal herritartasunari buruzko gogoetan. Testuinguru horretan kokatzen du Mateosek euskarari eta euskal kulturari hezkuntza arloan ematen zaion lehentasuna.

Iztuetak dioenez<sup>404</sup>, euskal irakaskuntza elebidunaren lau aro historiko bereizi ohi dira:

- 1) Fuerismotik nazionalismora (1896-1936): Foruak abolitu (1876) ondorengo eskolak maisu-maistra erdaldunen bitartez euskararen atzerakadan eragiten duten garaian, hainbat euskaltzalek, hala nazionalistek nola foruzaleek, hezkuntza arloko zenbait ekimen abiaraziko dituzte: norberak sortutakoak (Azkuek 1896an Bilbon, Miguel Muñoak 1914an Donostian), instituzionalak (Bizkaiko Foru Aldundiaren babesean 1919tik aurrera 1930 urtera bitartean 100 eskola, 5.800 haur eta 148 irakasle. Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta, berriz, 1929tik aurrera udalek finantzaturako 110 nekazari eskola eta 150 udal eskola, eta Aldundiak finantzaturako 64 eskola, 2.300 ikaslerekin, 1934 urteko datuen arabera), pribatuak (nazionalistek 1932an Bizkaiko Ikastolen Federazioa sortu zuten hezkuntza erabat euskaraz eta kristaua emateko, 14 eskola Bizkaian eta 1 Gipuzkoan).
- 2) Frankismotik trantsizio politikora (1940-1976): epe honetan bi aro bereziten dira: a) klandestinitate garaia (1941-1959): nabarmenena klandestinitatean eratzen diren ikastolak dira, Donostian eta Bilbon hasiz (Zipitria, Peña, Garai, Berrojallbiz, etab., izan ziren ziren aitzindari, isilpean, euskara irakasteko akademia gisa jokatuz eta horretarako edozein etxebizitza baliatuz; b) ikastolen hedapena eta legalitatea (1960-1977) 1950eko hamarkadan zehar hiriko ikastolekin harremani gabe eta elkarren artean egindako plangintzarik gabe herrietan irekitzen hasi ziren ikastolen egitasmoa 1960ko hamarkadan gorpuztu zen ageriko erakunde gisa: 3 ikastola Gipuzkoan 1960 urtean, 10 Bizkaian, 1 Ipar Euskal

<sup>402</sup> Amurrio, 2006.

<sup>403</sup> Mateos, 2006.

<sup>404</sup> Iztueta, 2000a.

Herrian 1969 urtean. Hazkunde handiena oro har 1960-1970 artean gertatu zen, 71 ikastetxe ireki zituztelarik, eta Arabar eta Nafarroan 1970-1975 artean, hurrenez hurren 15 eta 5 ikastola ireki zituztelarik.


- 3) Trantsizio politikotik aurrera (1978 urtetik aurrera): autonomia estatutuaren bitartez EAEko Eusko Jaurlaritzari transferituko dizkiote Eskolaurrea, OHO, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Helduen Heziketa Iraunkorra eta OHOk unitateetako Hezkuntza Berezikoa, Ikasketa Bateratuetakoa, Ikasketa Espezializatuetakoa, Arte Aplikatuena eta Ofizio Artistikoetarako Eskolak, Urrutiko Hezkuntzakoak eta Hizkuntza Eskola Ofiziala, Inspekzio Teknikoa, ikasketa-programak eta euskara irakasteko norabide metodologikoak, irakasleak euskalduntzeko plangintza, ikastetxe zuzendarien aukeraketa eta izendapena, etab. Baina estatuko gobernuak beretzat gordeko ditu honakoak: ordenación general del sistema educativo, programación general de la enseñanza, fijación de las enseñanzas mínimas y regulación general de las condiciones para la obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales válidos en todo el estado y la Alta Inspección...”.

Iztuetaren arabera<sup>405</sup>, EAEko Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Mikel Lasaren ekarpenetan oinarrituz 1981 urtean egin zuen hezkuntza arloko hizkuntza ereduen proposamena: A ereduari guztiak gaztelaniaz eta euskara bigarren hizkuntzatzat, lau ordu astean, B ereduari gaztelania gehiago euskara baino, eta D ereduari batez ere euskara, eta gaztelania ere lantzea. Hezkuntza elebidunaren aldeko politika nagusituko da, A eta B ereduari gaztelaniaren alde eta D ereduari, berriz, euskararen alde. Hezkuntza elebakarra, ordea, baztertu egiten da eta bide batez hezkuntza sistema zatitu egiten da hizkuntza ereduaren aukeraren arabera.


Gaur egun hizkuntza ereduen sistemak indarrean jarraitzen du. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako datuak kontuan hartuz (ikus 8. Grafikoa), esan genezake Euskal Herrian oro har D ereduari dela aukeratuena (%40,1) baina ikasleen erdia ere ez dagoela D ereduari matrikulatuta. Gainera, ikasketa maila handitu ahala txikitu egiten da D ereduari matrikulatutakoen kopurua. Bigarren maila II izenekoan, adibidez, A ereduari da nagusi (%48,7) eta X / G ereduaren (%25,9) ondoren, hirugarren lekuan dagoela D ereduari (%23).

---

<sup>405</sup> Iztueta, 2000a.



Iturria: Irakaskuntza estatistikak (EUSTAT), Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa (2005) in Aztiker.



Iturria: Irakaskuntza estatistikak (EUSTAT), Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa (2005) in Aztiker.

Gipuzkoako datuetan handiagoa da D ereduaren matrikulatutakoen kopurua (ikus XXX. Grafikoa): batez beste %66,6 dago D ereduaren matrikulatuta Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Baina, hala ere, Gipuzkoan ere A eredua (%48,5) nagusi da Bigarren maila II izenekoan, D ereduak (%48,1) bigarren lekua duelarik.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da D ereduaren bilakaera hazkorra dela, batik bat hezkuntza sistemaren oinarrizko ikasketetan (ikus 15. Taula). Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, adibidez, 1982-1983 ikasturtean Euskal Herrian ikasleen %12,8 eta Gipuzkoan ikasleen %28,3 matrikulatu zituzten D ereduaren. Kopuru horrek gora egin du urtez urte, eta 2003-2004 ikasturtean kopuru hori Euskal Herrian %45,8koa eta Gipuzkoan %71,9koa zen.

**15. Taula: Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan D ereduan matrikulatuen bilakaera ikasturteka. Euskal Herria eta Gipuzkoa, 1982-2006 (ehunekoak)**

<i>Urtea</i>	<i>Euskal Herria</i>	<i>Gipuzkoa</i>
1982-1983	12,8	28,3
1983-1984	-	32,4
1984-1985	-	34,7
1985-1986	-	35,8
1986-1987	-	37,5
1987-1988	-	37,9
1988-1989	-	39,1
1989-1990	-	40,6
1990-1991	22,2	42,4
1991-1992	23,0	44,7
1992-1993	24,3	46,1
1993-1994	27,0	48,4
1994-1995	29,1	51,3
1995-1996	31,6	53,1
1996-1997	35,1	57,9
1997-1998	37,4	60,6
1998-1999	39,1	63,1
1999-2000	40,7	64,8
2000-2001	42,2	67,0
2001-2002	43,3	68,7
2002-2003	44,3	70,3
2003-2004	45,8	71,9
2004-2005	47,3	73,6
2005-2006	-	74,3

Iturria: Irakaskuntza estatistikak (Eustat), Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoa (2005), Hizkuntza Kontseilua eta Frantziako Estatuko Inspection Academique

Unibertsitatean euskararen presentzia oraindik txikiagoa da (ikus 16. Taula). Ikasleen erdia (%50,1) zen euskalduna eta eskolen laurdena (%26,8) izaten ziren euskaraz 2001-2002 ikasturtean. Nolanahi ere, unibertsitate batetik bestera alde handia dago: EHU-UPVn ikasleen %55,0 ziren euskaldunak eta eskolen %35,0 izan ziren euskaraz, Mondragon Unibertsitatean kopuruak askoz handiagoak izan ziren (%75,0 eta %70,0 hurrenez hurren), Deustuko Unibertsitatean batez bestekoa baino txikiagoak (%58,8 eta %19,5 hurrenez hurren) eta gainerakoetan askoz txikiagoak (Nafarroako Unibertsitatean %33,3 eta %2,5, NUP-UPNAn %20,2 eta %7,3 eta Paue-Atturin %14,6 eta %7,0 hurrenez hurren).

Unibertsitateko irakasleen hizkuntza arloko datuek ere argi islatzen dute euskararen diskriminazioa (ikus 17. Taula): irakasleen %28,4 da euskalduna eta %19,9ak eskaintzen ditu eskolak euskaraz. Aurreko taulako datuetan azaldu dugun bezala, alde handia dago unibertsitate batetik bestera: EHU-UPVn irakasleen %36,3 da euskalduna eta %25,3ak eskaintzen ditu eskolak euskaraz, kopuruak askoz handiagoa da Mondragon unibertsitatean (%83,4 eta %79,6 hurrenez hurren), batez bestekoa baino txikiagoa Deustuko Unibertsitatean (%21,3 eta %11,3) eta askoz txikiagoa gainerakoetan (Paue-Atturin %15,0 eta %7,0, NUP-UPNAn %9,2 eta %5,6 eta Nafarroako Unibertsitatean %1,0 eta %0,6 hurrenez hurren).

**16. Taula: Ikasleak unibertsitateetan, euskararen ezagutzaren eta eskolako hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2001/2002 ikasturtea (kopuru absolutuak eta ehunekoak)**

	<i>Guztira</i>			<i>Euskaldunak</i>		<i>Ez euskaldunak</i>		<i>Eskolak euskaraz hartu</i>		<i>Eskolak erdaraz hartu</i>	
	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>
Guztira	93.270	46.697	50,1	46.573	49,9	25.008	26,8	68.262	73,2		
EHU-UPV	54.251	29.838	55,0	24.413	45,0	18.988	35,0	35.263	65,0		
Mondragon Unibertsitatea	3.055	2.291	75,0	764	25,0	2.139	70,0	916	30,0		
NUP-UPNA	7.309	1.475	20,2	5.834	79,8	531	7,3	6.778	92,7		
Deustuko Unibertsitatea	15.075	8.863	58,8	6.212	41,2	2.940	19,5	12.135	80,5		
Nafarroako unibertsitatea	12.000	4.000	33,3	8.000	66,7	300	2,5	11.700	97,5		
Paue-Atturi	1.580	230	14,6	1.350	85,4	110	7,0	1.470	93,0		

Iturria: HHAA (2002) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntza Plangintzarako Zerbitzua in Aztiker.  
Oharra: NUP-UPNAko datuak 2005-2006 ikasturtekoak dira.

**17. Taula: Irakasleak unibertsitateetan, euskararen ezagutzaren eta eskolako hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2001/2002 ikasturtea (kopuru absolutuak eta ehunekoak)**

	<i>Guztira</i>			<i>Ez euskaldunak</i>		<i>Eskolak euskaraz eman</i>		<i>Eskolak erdaraz eman</i>	
	<i>Kop.</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>
Guztira	6.243	1.773	28,4	4.470	71,6	1.245	19,9	4.997	80,1
EHU-UPV	3.725	1.351	36,3	2.374	63,7	941	25,3	2.784	74,7
Mondragon Unibertsitatea	211	176	83,4	35	16,6	168	79,6	43	20,4
NUP-UPNA	802	74	9,2	728	90,8	45	5,6	756	94,4
Deustuko Unibertsitatea	705	150	21,3	555	78,7	80	11,3	625	88,7
Nafarroako unibertsitatea	700	7	1,0	693	99,0	4	0,6	696	99,4
Paue-Atturi	100	15	15,0	85	85,0	7	7,0	93	93,0

Iturria: HHAA (2002) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntza Plangintzarako Zerbitzua in Aztiker.  
Oharra: NUP-UPNAko datuak 2005-2006 ikasturtekoak dira.

Larrinagaren<sup>406</sup> arabera, gizarte modernoetan hizkuntza eta kultura guztien eramaileek ez dituzte aukera berdinak izan birsortzeko baliabideak eskuratzeko. Horren ondorioz, gutxiengoak bakarrik erdietsi du eredu unibertsaltzat hartzen dena eraikitzeko parada, eta gehiengoak, berriz, eredu legitimo eta unibertsaltzat hartzen denetik kanpo egin behar izan du bere bidea. Ikuspegi historikotik, aurrerapauso handia deritzo Larrinagak euskara unibertsitateara ailegatu izana eta tradizio akademikoari ekin izana, euskara eta euskal kultura goi mailako hezkuntza erakundeetatik kanpo egon delako orain dela ez askora arte. Baina aldi berean Larrinagak dio euskarak unibertsitatearen esparruko baliabide gisa ez duela jaso gaztelaniaren maila bereko balioa edo legitimotasuna. Azken batean, euskara menpean mantentzen duen hizkuntza gatazkaren isla dela deritzo Larrinagak.

Honenbestez, hizkuntzari dagokionez, orain arte aipatu ditugun datuak kontuan hartuz, Lehen eta Bigarren Hezkuntza hizkuntza ereduaren sistemak eta unibertsitatean hizkuntzarekiko politikak ez dutela bermatzen ikasle guztiek euskaraz ikastea, ezta belaunaldi gazteenetan ere. Hezkuntzaren

<sup>406</sup> Larrinaga, 2006.

eremua hizkuntza politikarako tresnarik behinena izan da agian, emaitza partzial eraginkorrak ahalbidetu dituelarik, eta, hala ere, oraindik hezkuntza sistemak ez du bermatzen ikasle guztiak euskaraz ikastea. Emaitza akademikoek behintzat ez dute zerikusirik horrekin. Adibidez, kontuan hartzen baditugu PISA<sup>407</sup> txostenaren emaitzak EAEn sareen eta ereduaren arabera (ikus 18. Taula), ondoriozta genezake D ereduko ikasleek emaitza hobexagoak lortzen dituztela.

<b>18. Taula: PISA txostenaren emaitzak EAEn sareen eta ereduaren arabera, 2007 (batez bestekoak)</b>					
<i>Zientziak</i>		<i>Irakurketa</i>		<i>Matematikak</i>	
A Publikoa	435,6	A Publikoa	423	A Publikoa	416,1
B Publikoa	476,7	B Publikoa	468,5	B Publikoa	485,3
D Publikoa	486,9	EAE	478	D Publikoa	496,8
EAE	495	D Publikoa	478,6	EAE	501
A Itundua	501,3	A Itundua	489,7	A Itundua	508,3
B Itundua	504,6	B Itundua	506,4	B Itundua	516,6
D Publikoa	513,8	D Publikoa	507,3	D Publikoa	517,5

Iturria: OCDE

## 4. Erreformen ondoren

Erreformatik etengabeak izan dira hezkuntza sisteman. Aldaketaren aldarria konstantea izan da, azken hamarkadetan bereziki. Aldaketa horiek zertan diren analizatu nahi dugu segidan. Irakasleen rola izango dugu lehenik aztergai, honi buruz sortu den eztabaidak islatu egiten dituelako hezkuntzaren eremuan gertatu diren aldaketak. Gero erreforma garrantzitsuenak eta hauen emaitzak analizatuko ditugu.

Orain arte aztertu ditugun ikertzaileen ekarpenek gaurkotatzea galdu duten analizatzea da gure kezka nagusia.

### 4.1 Irakasleak

Azken hamarkadetan eztabaida ugari eta sutsuak izan dira irakaslearen rolari buruz. Eztabaida hauetan nahiko argi ikus daiteke hezkuntza sistemak gaur egun bizi duen egoera.

Fernández Enguita-ren arabera<sup>408</sup>, ohiko eztabaida izan da ea hezkuntza sistemak batik bat erreproduzitu edo eraldatu egiten duen. Fernández Enguitak dioenez, eskolak beti erreproduzitu egiten du, neurri batean behintzat, baina aldi berean gaur egungo gizarteak ez ziren diren izatera iritsiko baldin eta eskolagatik ez balitz, eta, beraz, horrekin Fernández Enguitak esan nahi du eskolak eraldatu ere egiten duela. Ondorioz, Fernández Enguitarentzat gakoa da ea eskolaren ekintzan zein osagai den indartsuena, jarraipena edo aldaketa. Fernández Enguitak hiru egoera mota ideal bereizten ditu:

<sup>407</sup> Berria, 2007-12-13.

<sup>408</sup> Fernández Enguita, 2001.

- 1) Belaunaldiz gairako aldaketa edo eskola gabeko gizartea: testuingurua gehiengoarentzat egonkorra delarik, gazteak hazten direnean, gurasoena bezalako den munduan integratu behar direnez, ez dago trebatzaile espezializatuen beharrik, helduek badakitelako irakatsi beharreko guztia eta beraiek arduratzen direlako gazteei irakasteaz, eta ondorioz sendia edo hurbileko erkidegoa da erakunde hezitzailea. Hezkuntzaren funtzioa erreproduktorea da argi eta garbi. Hori gertatzen da gizarte primitiboetan eta oro har industriaurreko gizarteetan.
- 2) Belaunaldien arteko aldaketa edo erakundearen urrezko aroa: sakoneko aldaketak hain dira handiak, ezen belaunaldi bat edo gehiago mundu oso ezberdin batean integratu behar direla, lehengo egoerarekiko oso ezberdina dena, eta ondorioz lehengo belaunaldiek gidari izateko gaitasuna galdu egin dute eta erakunde berri eta agente espezializatuak behar dira, hauek tradizioarekiko kontrajarriko den garapena edo etorkizuna ordezkatzeko dutelarik. Eskola tresna bat da nazio homogeneoa ekoizteko ahaleginean: merkatu gardena, derrigorrezko soldadutza leiala, proletargo diziplinatua, hiritartasun fidagarria. Horiek guztiak dira helburu, Fernández Enguitaren arabera.
- 3) Belaunaldi barneko aldaketa edo hezkuntza sistemaren krisia: aldaketa soziala oso azkarra denean, belaunaldi batetik besterako aldaketa ez ezik belaunaldi bakarraren baitan ere aldaketa sakonak biziko dituzte. Irakasleak etengabe ikasi behar du egoera berrira egokitzen, baina, Fernández Enguitaren arabera, ohikoa da lehengo moduetara lotu eta ez aldatzea. Irakasleen trebakuntza ez da lehenago baino handiagoa, baina publikoaren maila nabarmen handitu da. Honenbestez, irakaslearen estatusa txikiagoa da. Halaber, publikoa gero eta anitzagoa da eta irakasleak eskaintzen diona batzuentzat gehiegi eta besteentzat gutxiegi da, eta egoera honek ere irakaslearen desprestigioa eragiten du. Jakina, aldaketa hauek guztiak ez dira homogeneoki gertatzen, baizik eta asimetrikoki denboran, espazioan eta hainbat jende moten artean.

Une honetan hezkuntza sistema zer egoeratan dagoen aztertze aldera, baliagarria da analizatzea adituek irakasleen egoerari buruz azken hamarkadetan esan dutena.

Bourdieu dioenez<sup>409</sup>, hezkuntza sistemak agente espezializatuak behar ditu. Kopuruz nahikoak izan behar dute. Horrez gain, ordezkatuak izateko eta etengabe erreklutatze modukoak izan behar dute. Hezkuntza sistemak agenteengan delegatzen du eskolako autoritatea eta agente hauek lan pedagogiko heterogeneo eta heterodoxorik egin ez dezaten sortzen dira hainbat baldintza, agente hauek erreprodukziora bideratuta ez dauden praktikak bazter ditzaten. Bourdieu eta Passeronen<sup>410</sup> arabera, hezkuntza sistema agentei trebakuntza, kode eta tresna homogeneizatu eta homogeneizatzaileak ematen saiatzen da. Beraz, Bourdieu eta Passeronen<sup>411</sup> arabera, irakaslea bere rolean harrapatuta dago. Irakasleak zalantzan jar dezake hezkuntza sistemak eman dion rola, bai baitauka gutxieneko autonomia (batzuetan besteetan baino txikiagoa), baina presio handiak dauzka dinamika nagusiak zalantzan jar ez ditzan. Hala ere, irakasleak autonomia erlatibo eduki, badauka, bereziki hezkuntza sistemak eman dion rolaz jabetzen denean, baina beti ere hezkuntza sistemaren parte izaten jarraitzen du.

<sup>409</sup> Bourdieu, 2000a, 106-108 or.

<sup>410</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 75-81 or.

<sup>411</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 131 or.

Apple-n<sup>412</sup> arabera, hezkuntza ez da neutrala eta, ondorioz, hezitzailea ekintza politiko batean murgiltzen da, horren kontzientzia izan edo ez. Hezitzaileek ezin dute beren jarduera guztiz banatu hezkuntza arloko akordio instituzional handiengandik eta ekonomia industrial garatuetako kontzientzia formengandik. Baina Apple-k<sup>413</sup> dio irakasleek ere, ikasleek bezala, ideologia dominatzaileekiko beren erantzun sortzaileak ematen dituztela, edo behintzat emateko gai direla.

Freire-ren<sup>414</sup> arabera, irakasleen eta langile sozialen rola modu abstraktuan ulertzea oso xaloa da, errealitate neutro batean garatzen diren metodo eta teknika neutroak izango balira bezala. Horrelako agente batek ohiko irizpideak aukeratzen baditu, bere lan metodologiak oztopatu egingo du balizko edozein aldaketa mesedegarri. Hori eginez, *statu quo* delakoa normalizatzeko ekarpena egiten du. Hezkuntza praktika guztiek daukate munduarekiko eta pertsonarekiko ikuspegi jakin bat bere baitan, ikuspegia esplizitua izan edo ez.

Feito-k<sup>415</sup> dioenez, eskolak bereziki mesede egiten die talde sozial jakin batzuei. Hastapenetan eskola talde horiek heitzeko diseinatu zuten eta pausoz pauso 6-16 urte arteko biztanleria osoa barne hartu du, eta eskolak nahiz irakasle gehienek diote erabateko justiziaz jokatzeko dutela, eskolak jende guztia berdinean tratatzen duela, eta hain zuzen horixe da arazoa, Feito-ren arabera. Ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonen egiten die mesede eskolak eta soilik ezaugarri horietara doituz gero lortu daiteke arrakasta eskolan. Bestela, Feitok dioenez, eskolak neutraltasuna mantentzen duela sinestuko bagenu, ondorioztatu beharko genuke klase apaletako seme-alabek gaitasun txikiagoa dutela. Alta, esperientzia eta ikerketa ugari erakusten dute hori ez dela horrela.

Willis-ek<sup>416</sup> nabarmendu egiten du hezkuntza sistemaren baitako elkartruke harremanak ez direla klase sozialen logikaren arabera gertatzen, irakasleek ez dutela kontzienteki ahalegina egiten langile klaseko ikasleak menperatzeko edo langileen kultura dominatzeko edo ezabatzeke. Irakasleak, oro har, beren orientazio akademiko-profesionalen arabera pazientziaz lan egiten ahalegintzen dira, nahiz eta badauden bestelakoak ere. Estatuak irakasleari ikasleen gaineko kontrol formala esleitzen dio, baina egiten duen kontrol sozialak ez dio klase sozialaren paradigmatari erantzuten, hezkuntzaren eremukoari baizik.

Dena den, Bourdieuk<sup>417</sup> trantsizio handi bat gertatu dela adierazten du: irakaslearen rola krisian dago, bere autoritatea krisian dagoen heinean, eta, beraz, hezkuntza sistema bera krisian dago. Hezkuntzaren edukietan aldaketak ugariak dira eta irakasleari neurri batean askatasuna ematen zaio krisi hau bizitzeko. Aldaketa honek krisia adierazten du, baita eduki legitimoaren definizio dominatzailean ere. Agerian gelditzen da edukien definizioa dominatzen duten talde sozial dominatzaileen arteko gatazka.

Hardt eta Negri-k<sup>418</sup> diotenez, gaur egun gizarte diziplinatzaileko erakunde sozial guztiak (eskola, familia, ospitala, fabrika, besteak beste) krisian daude.

---

<sup>412</sup> Apple, 1986.

<sup>413</sup> Apple, 1997.

<sup>414</sup> Freire, 1990.

<sup>415</sup> Feito, 2003b.

<sup>416</sup> Willis, 1988.

<sup>417</sup> Bourdieu, 2000a, 106-109 or.

<sup>418</sup> Hardt & Negri, 2002, 302 or.



Esteve-k<sup>419</sup> dioenez, asko aldatu dira irakasleen lanari dagozkion lan baldintzak.

- 1) Familiak eta hurbileko erkidegoak irakasleei hainbat eskumen transferitu dizkiete eta, gainera, lehen familiek irakasleari babes handia ematetik, orain familiak eskolari eta bereziki irakasleei hainbat arazo leporatzera pasa dira, baita irakaslearen ardura eta arazoa eragozteko aukera oso txikiak direnean ere.
- 2) Tradizionalki eskolari esleitzen zitzaion roletako bat, informazio eta jakintza iturri behinena izatearena, errotik aldatu da, sozializazio kanal berriek gero eta pisu handiagoa baitute horretan.
- 3) Baliabide falta ohiko arazoa da eskolan. Irakasle asko maiz kexu dira berrikuntza metodologikoak eskatzearekin batera ez dutelako baliabide nahikoa eskura jartzen (material didaktikoa, teknologia berrien eskuragarritasuna, eraikinen egokitasuna, altzariak, kalefakzioa, eta abar).
- 4) Gure garaian ez dago adostasun handirik eskolaren funtzioari buruz, transmititu behar dituen balioez eta ikasleek zalantzan jarri eta kritikatu beharko luketenaz. Orain dela urte batzuk eskola, gizartea eta beste hainbat erakunde bat zetozen eta, ondorioz, konberjentziatzko sozializazioa gauzatzeko baldintzak eraginkorragoak zirenez, joera orokorraren baitan zebilen irakaslearen segurtasun pertsonala bermatu egiten zen. Gaur egun, ordea, hezkuntza sistemaren baitan ere, irakasleen artean ere, desadostasunak handiak dira. Beti egon izan dira heterodoxoak, betidanik gertatu izan dira gatazkak, baina ez dira gaur egungoak bezain orokortuak izan.
- 5) Lehen ez bezala, gaur egun gehiengoak jadanik ez du sinesten hezkuntza sistema etorkizun orokor hobeko baten promesa dela.
- 6) Eliteko hezkuntza batetik masa hezkuntza batera pasatzeak ondorio oso nabarmenak izan ditu. Batetik, kuantitatiboki handitu egin da ikasleen eta irakasleen kopurua. Bestetik, egoera kualitatibo berriak agertu dira, zeren gaur egun haur guztiak eskolatuta daudenez, garai bateko ikasleria homogeneoa gaur egun oso heterogeneoa baita.

Baina, Esteveren<sup>420</sup> arabera, aldaketa hau gertatu den bitartean, irakasleen trebakuntzan ez dira horretara egokitzeko aldaketak egin. Trebakuntza garaian irakasleek ikusten dituzten ideal pedagogikoak ez datoz bat lanean hasten direnean biziko dituzten hezkuntza praktikekin.

Testuinguru honetan, Esteveren arabera, irakasleek oro har kontraesanetan dauden hainbat rol uztartzeko ahalegina egiten dute maiz. Ikasleekiko lehen ez bezalako hurbiltasuna bilatzen dute, ikasleen garapen pertsonala ahalbidetze aldera, baina ikasturte amaieran epaitu eta sailkatu egiten dituzte. Ikasleen autonomia eta garapen pertsonala sustatu behar dituzte, baina indibiduo guztiak taldearen arauetara egokituarazi behar dituzte. Ikasleen behar indibidualak arretaz lantzea eskatzen diete, baina, aldi berean, eskaerak ezartzen dituzte. Irakasleak sarri gizartearekiko edo eskolarekiko haustura sakona bizi du, baina, aldi berean, ikasleen begien aurreak irakasle hori bera gizartearen eta hezkuntza sistemaren ordezkariatzat ikusten dute.

---

<sup>419</sup> Esteve, 1994, 1-4 puntuak, eta Esteve & Franco & Vera, 1995, 5-6 puntuak.

<sup>420</sup> Esteve, 1994.

Baina, aldi berean, Esteveren<sup>421</sup> arabera, irakasle askok gero eta gehiago jotzen dute abstentzionismo eta dimisionismo jokabideetara. Testuinguru honetan okertu egin da irakaslearen irudi soziala, baina, aldi berean, gizarteak gero eta gehiago eskatzen dio irakasleari.

Estevek<sup>422</sup> testuinguru honetan irakasleen lau jarrera bereizten ditu:

- 1) idealen eta praktikaren gatazkan irakasleak batetik besterako jokabidea izango du hezkuntza praktikan eta bere buruaren balorazioan;
- 2) egoera honetan sortutako antsietatea jasateko, ezintasunari aurre egiteko, ihes egiteko, hainbat mekanismo baliatuko ditu, besteak beste inhibizioa eta praktikaren errutinizazioa;
- 3) hezkuntza sistemaren gaitzak ahalegin pertsonal soilarekin orekatzen saiatzean, antsietatea nagusitu egiten da, nork bere burua gutxiesten ere litekeena delarik;
- 4) gatazka errealitate objektibotzat onartzen dutelarik, erantzun egokiak bilatzen dituzte jokabide integratu bati jarraiki.

Beraz, Esteveren arabera, irakasle guztiek ez dute jarrera berdina testuinguru berriaren aurrean, baina, halaber, egoera berriak ez die irakasle guztiei berdina eragin. Batzuek erantzunak aurkitu dituzte, beste batzuek eraginkortasuna murriztu dute edo uko egin diote kalitatezko irakaskuntzari, batzuek lehengo metodoak erabiltzen jarraitzen dute nahiz eta badakiten ez direla baliagarriak, baina ez dakite nola ordezkatu. Irakasle batzuek, ordea, bete-betean sofritzen dute frantsesez *malaise enseignant*, ingelesez *burnout* eta gaztelaniaz *malestar docente* esaten dena, eta euskaraz *irakasleen ondoeza* bezala azaldu dezakeguna. Fenomeno orokortua da, baina batzuk bereziki kolpatzen ditu. Kopurua oso esanguratsua da, Esteveren arabera. Irakasleek nozitzen dituzten gaixotasun kopuru hazkorrean islatzen da hori.

Usategi eta Valle-ren arabera<sup>423</sup>, gaur egungo EAEko irakasleen diskurtsoetan nabarmena da eskolak bakarrik ikusten duela bere burua belaunaldi berriei hainbat balio transmititzerakoan eta helburu jakinetara bideratzerakoan. Paradoxa bat gauzatzen da horrela: hezteko ardura osoa eskolaren gain jartzen duen gizarte batean, eskola legitimotasuna galtzen ari da erakunde orientatzaile eta sozializatzaile gisa. Irakasleen diskurtsoetan eskolak bizi duen isolamendua da nagusi. Urrundu egin dira eskolak trebakuntza arloan egiten duen lana eta gizarteak oro har baina familiak bereziki egiten duen lana. Irakasleen ikuspegitik, eskola erakunde arraroa bihurtu da. Gainerako erakunde sozializatzaileetatik urrun eta haiekiko kontraesanean dago. Irakasleentzat etsigarria da ikustea ez datozela bat inondik inora eskolan transmititzen diren kode etikoa eta prestakuntza eta eskolatik kanpo indartsuen diren balioak. Haustura argia da eskolak transmititu nahi dituen eta ikasleek kanpoan bizi dituzten balioen artean. Gainera, gaur egun eskola ez da ezagutzen hornitzaile nagusia, galdu egin du rol hori, eta ikasleentzat eta horien familientzat eskola ez da hornitzaile errespetatuena. Eskolak ematen dituen erantzunak zaharkituta gelditzen dira segituan, eta ikasleek eskura dauzkaten baliabideekin azkarrago, zehatzago eta erakargarriago jasotzen dituzte tradizionalki irakasleak transmititu ahal izan duena.

---

<sup>421</sup> Esteve, 1995.

<sup>422</sup> Esteve, 1994.

<sup>423</sup> Usategi & Valle Loroño, 2006.

Honenbestez, Usategik eta Vallek diotenez, ahuldu egin da eskolaren legitimotasuna, hezteko eginkizuna eta, batik bat, irakaslearen irudia. Fenomeno hori are eraginkorragoa da hezkuntza mailetan gora egin ahala. Halaber, Usategik eta Vallek diotenez, egoera zaildu egiten da beste zenbait arazo ere tarteko daudelako: baliabide falta, gizarte ezberdinkeria edo bazterkeria eta ikasleen arteko ezberdintasun kulturalak. Baina funtsean arazoa da gizartearentzat eskola *azken itxaropena* da arazo sozial guztientzat, baina aldi berean gizarte horrentzat eskola erakunde periferikoa da.

Fernández Enguita-ren arabera<sup>424</sup>, berriz, gizarte gero eta espezializatuago bati dagokionez, bizikidetza unitateen autoaskitasuna gero eta txikiagoa da. Guztiek kontsumitzen dute ekoizten ez dutena eta, halaber, guztiek ekoizten dute kontsumitzen ez dutena. Bizikidetza unitateen gaur egungo osiera eta dinamika ikusita, logika honi jarraiki arrazoizkoena da, Fernández Enguitaren arabera, seme-alaben heziketa gero eta gehiago eskolaren gain uztea. Era berean, eskola ere aldatu egin da, Fernández Enguitak dioenez: adibidez, garai batean jendearen bizitzan leku oso txikia izatetik (4-6 urte artean gehientzat, askorentzat gutxiago, eta gutxi batzuentzat gehiago) orain haurtzaro ia osoa, nerabezaroa eta gaztaroaren zati handi bat hartzen ditu: Hego Euskal Herrian eta Espainian legez derrigorrezkoak diren hamar urte hartzen dituzten Lehen Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak, baina praktikan derrigorrezkoak izan ohi diren beste 5-6 urte hartzen dituzte Haur Hezkuntzak eta goi mailako bigarren hezkuntzak. Denbora horretan ikasleak ez daude familiarekin. Eskolak gaina hartu die erakunde extrafamiliar sozializatzaile guztiei eta neurri batean baita familiari ere.

Baina, Fernández Enguitaren arabera, lehen irakasleen ikasleria ezberdina zen. Irakaslearekin alderatuta, gurasoen maila akademikoa eta profesionala txikiagoa izan ohi zen. Gaur egun, ordea, denetik dago: batzuek irakasleen maila edo handiagoa dute, baina, horrez gain, ikasleak oro har irakasleari tarte batez aukera emateko prest daude baina inola ere ez txeke zuri bat. Halaber, gero eta ikasle gehiago ez daude hainbat gauza onartzeko prest.

Fernández Enguitak dio gaur egun gakoa ez dela ea familiek abdikatu duten edo hori irakasleek egin duten, ea familiek gehiegi eskatzen dioten eskolari edo eskolak gutxiegi eskaintzen dien ikasleei eta beren familiei. Fernández Enguitaren iritziz beharrezkoa da jabetzea familia eta eskola bakar-bakarrik gelditu direla hezkuntza lanetan eta ez dela beste erakunderik etorriko laguntzera, baldin eta ez bada bigarren mailako zereginetan. Beraz, Fernández Enguitaren arabera, familiei eta eskolei dagokie zereginen banaketa egokia, nahikoa eta eraginkorra egitea.

Baina, aurretik bere ikerketetan nabarmendu zituen hainbat arazori muzin eginez, Fernández Enguitak<sup>425</sup> 2000ko hamarkadan irakasleak seinatu zituen hezkuntza sistemako arazoen erdigunetzat eta horrela eztabaida handia xaxatu zuen. Fernández Enguitaren arabera, irakasleen lan egoera anibalentea da, batetik talde profesionalen eta bestetik langile klasearen ezaugarriak baitauzka. Proletarizaziorantz egiten dute hainbat faktorek: kopuru gero eta handiagoa, sektoreko enpresa pribatuen hedapena eta kontzentrazioa, gastu sozialen murrizketarako joera, administrazio publikoaren logika arauemailea eta bere soldatek lanesku helduaren kosteetan duten eragina. Baina joera honen aurka eta ondorioz profesionalizazioaren alde egiten dute beste

---

<sup>424</sup> Fernández Enguita, 2001.

<sup>425</sup> Fernández Enguita, 1990, 149-167 or.

zenbait faktorek. Batik bat irakasle lanaren izaera espezifikoak nekez estandarizatu, asko fragmentatu edo makinek ordezkatu dezaketanak. Halaber, profesionalizazioaren joera indartzen duten profesional liberalen mailako ikasketak izateak, hezkuntzarekiko arreta sozial gero eta handiagoa, eta sektore pribatuaren gaitetik sektore publikoak duen garrantzia. Faktore hauen guztien ondorioz irakasleak langile profesionalen baldintzen erdibide kontraesankorrean mugitzen dira, semiprofessionalen rola jokatuz. Nolanahi ere, Fernández Enguitak dio kontuan hartu behar dela irakasleen artean ezberdintasun handiak daudela: ez dago egoera berdinean unibertsitateko katedraduna, titularra edo laguntzailea, eta are gutxiago jardunaldi osoan ez denean, baina aldi berean ezberdina da lehen hezkuntzako edo bigarren hezkuntzako irakasle baten egoera, eta are ezberdinagoa sektore publikoa edo pribatua bada.

Fernández Enguita-ren arabera<sup>426</sup>, ohikoa izan da hezkuntza sistemaren arazoak erakundetik kanpokoei leporatzea, administrazio publikoari batik bat, beti kanpokoei eta inoiz ez irakasleei, baina Fernández Enguitak dioenez, ikuspegi horri buelta eman behar zaio. Irakasleek kolektibo profesional bezala gero eta botere handiagoa dute, Fernández Enguitaren arabera, eta neurri handi batean horrek eragiten du hezkuntza sistema inobilismoan hondoratzea. Fernández Enguitaren arabera, hezkuntza publikoan ere interes eta helburu publikoak (ikasleena, inguruko erkidegoarena, eta gizartearena oro har) interes eta helburu pribatuen (irakasle bakoitzaren) eta korporatiboen (irakasle multzoaren) menpe gelditzen dira eta horren ondorioz zenbaitetan interes eta helburu publikoak baztertu egiten dira. Joera hau gero eta indartsuagoa da, batik bat 1990eko hamarkadatik aurrera.

Edonola ere, bere ekarpenekin eztabaida honetan harrotu zituen hautsen ondoren, gerora Fernández Enguitak<sup>427</sup> argitu zuen irakasleena ez dela arazo bakarra, ez dela arazo guztien kausa, baina orain arte izkutan mantendu dela eta garrantzitsua iruditu zaiola ikusteko moduan azaltzea. Azalpen horiek eztabaidaren bukaera aldera etorri ziren.

Bitartean hezkuntzaren eremuko aditu eta langile askok erantzun zioten. Contreras-ek<sup>428</sup>, adibidez, ihardetsi zuen testuinguru oso konplexu batean agente ikusgarrienari erru guztia leporatzen ziola Fernández Enguitak. Contrerasesk dio arazoaren analisia egiterakoan beste faktore asko ere kontuan hartu beharko lirakekeela:

- 1) Eskolartasunaren aldaketak: Bigarren Mundu Gerraren ondoren oro har eta Espainiako estatuan 1970eko Ley General de Educación delakoaren ondoren konplexutasuna nabarmen handitzen da bi zentzutan: eskolak jende guztia hartzen du eta, gainera, gero eta denbora luzeagoz, baina aldi berean izaera hautatzailea mantendu egiten du, lehen hezkuntza sistematik baztertzen zituztenak orain barnean mantentzen direlarik. Kontraesan hauen ondorioz jadanik ez daude argi eta sendo lehen garbi zeuden rolak eta adostasunak. Ikuspegiaren batasuna hautsi egin da eta orain irakasleek, ikasleek, administrazioek eta gurasoek *koadro dramatikoa* osatzen dute eta agente guztiek etsaitasunez begiratzen diote elkarri. Ez da koordinazio arazo, ideologiko-politikoa baizik.

---

<sup>426</sup> Fernández Enguita, 2002.

<sup>427</sup> Fernández Enguita, 2002.

<sup>428</sup> Contrera, 2002.

- 2) Heziketa praktiketara aldatzea: hezitzaile askorentzat beren lana nabarmen aldatu da, baina azken erreformek ez dute eragin nabarmenik izan praktika pedagogikoan eta horren ordez curriculum eta psikopedagogia ezaugarriak aldarritzat izan dituen erreformak aldatzea ofizialaren ahaleginak gehiago bideratu ditu bere diskurtsoaren onarpenera eta ez egoera berrietara egokitzera. Pedagogia aktiboaren ideiak ez du aukera handirik baldin eta ez badira aldatzen espazioak, denborak, hezitzaileen espezializazioa arloen arabera, curriculumaren antolaketa eta ebaluazioa diziplinen eta diziplina eremuen arabera, curriculum ofizialaren helburuen arabera ikasleen errendimendua neurtzen, etab. Metodo pedagogikoa aldatu nahi denean baina beste guztia bere horretan mantentzen denean, erraz aurreikusi daiteke emaitza. Eskolari buruzko ideia aldatu nahi dute erakundea aldatzeke, Contreras-ek dioenez.
- 3) Hezitzaileak kontrolatzeko kontrol berrien paradoxa: irakasleen autonomia handiagoaren diskurtsoarekin batera agertu dira kontrol neurri handiagoak, behintzat kontrol burokratikoari dagokionez.
- 4) Irakasleen desautorizazioa: aldatzea pedagogikoa egiteko gogoz garai batean izan zen mugimendua itzali denean, irakasleak adituen erreformen arabera egokitzen dira aldatzetara. Irakasleek erdigunea galdu egin dute, egunero kontraesan handia topatzen dituzte ikasgeletan, gatazkei ezin aurre eginik dabilta, eta testuinguru honetan irakasleek gero eta gehiago jotzen dute defentsa eta ihes jokabideetara.

Beste testuinguru batean plazaratutako ekarpenak diren arren, Chomsky-ren eta Giroux-en iritziak ere interesgarriak izan litezke eztabaida honen harira.

Chomsky-k<sup>429</sup> ez du egoki ikusten hezkuntza sistemak bere gain hartzea gurasoek seme-alaben zainketan eta heziketan ematen ez dituzten orduak, zeren Chomsky-ren arabera arazoa da gurasoek ez dutela denbora nahikoa pasatzen seme-alabekin. Chomsky-k dioenez, gurasoek seme-alabekin ematen duten denbora erreala nabarmen murriztu da azken hamarkadetan. Gizarte angloamerikarretan, kasu, azken hogeita bost urteetan %40 txikitu dela dio Chomsky-k, eta prozesua azkartu egin dela azken urteetan.

Giroux<sup>430</sup> ere ez dator bat Fernández Enguitak deskribatzen duen irakasleen lan baldintzen anibalentziarekin. Giroux-ek dioenez, irakaslearen lana proletarizatu egin da. Hots, eskolako buroraziaren baitan irakasleak tekniko espezializatutzat hartu ohi ditu diskurtso dominatzaileak. Curriculumak garatu edo kritikoki hartu beharrean, irakasleari egitasmo curricularrak kudeatzea eta betetzea dagokio. Arrazionaltasun teknokratikoa eta instrumentala nagusitzen dira.

Agian funtsean eztabaida hau irakasleen rola aztertzeke ikuspegien arteko talka da. Guerrero-ren<sup>431</sup> arabera, irakasleen rola soziologikoki aztertzerakoan bi ardatz hartzen dira kontuan: batetik, irakasleek kategoria sozial bat osatzen dute, egitura sozialean posizio berbera duen kolektiboa da, eta, bestetik, irakasleak agente hezitzaileak dira, prozesu hezitzailean modu esanguratsuan eskuhartzen dute. Guerrerok dioenez, hiru ikuspegik aztertzen dituzte irakasleak kategoria sozial

---

<sup>429</sup> Chomsky, 2005a, 64.

<sup>430</sup> Giroux, 1990.

<sup>431</sup> Guerrero Serón, 2003.

bezala: funtzionalismoak profesio edo semi-profesio (lanbide) bezala, marxismoak klase bezala, eta weberiarrek estatus talde bezala.

Guerreroren arabera, funtzionalismoak irakasleen arteko barne mailaketa aztertzen du, kontuan hartuz, batetik, estratu profesional bakoitzaren autonomia profesional maila, zeina bat datorren hasieran eskatzen zaien hezkuntza mailarekin, eta, bestetik, harreman kontraktual funtzionaria edo laborala hezkuntza sistema publikoan eta pribatuan, hurrenez hurren. Ikuspegi marxistak, aldiz, irakasleak langile klasearen estratutzat hartzen dituzenez, lan prozesua aztertu eta ondorioztatzen du irakasleen lanbidea proletarizatzen ari dela. Irakasle lanaren arrazionalizazio prozesuak eta hezkuntza erreformek eragin dute irakaslearen gehiengoak galdu egin duela bere lanaren kontzepzioaren eta produktuaren gaineko kontrola. Irakasleen lanaren intentsifikazioak handitu egiten du deskualifikazioa, tarteka irakasleen higadura eragiten duelarik. Beraz, Guerrerok dioenez, funtzionalismoaren arabera, irakasleak profesionalizazio prozesuan daude. Marxismoaren arabera, berriz, proletarizazio prozesuan.

## 4.2 Etena eta jarraipena

Erreformen harian etena ala jarraipena nagusitu da? Ezberdindu egin beharko genuke eskola ereduaren zenbaitzat den (biztanleriaren zer ehuneko) eta zeinentzat pentsatua dagoen. Izan daiteke eskola gutxiengoarentzat diseinaturik izatea eta gutxiengoa bakarrik egotea, baina izan daiteke talde batzuentzat bakarrik pentsatua izatea eta, hala ere, biztanleria osoa eskolatuta egotea, edo izan daiteke guztientzat moldatuta egotea eta guztiak bertan egotea. Egoera zertan den aztertzen saiatuko gara hainbat adituren ekarpenen bitartez.

### 4.2.1 Hedapen etengabea baina mugatua

García Gràcia-ren<sup>432</sup> arabera, Europako hezkuntza sistemetan etengabea izan da erreforma. Lerenaren ikuspegiaren oinarrituz, García Gràciak hiru eredu nagusi bereizten ditu: eskolastikoa, liberala eta teknokratikoa. Baina historikoki nola gauzatu diren aztertuz gero, normala den bezala, eredu ideala ez dator bat eredu historikoaren ezaugarriekin, azken hauek nabardura gehiago baitaizkate eta batzuetan eredu bat baino gehiagoren ezaugarriak hartzen baitituzte. Espainiako estatuan hainbat eredu historiko bereizten ditu García Gràciak: Errejimen Zaharraren sistema eskolastikoa, hezkuntza sistema liberalaren eredu kontserbadorea (Moyano Legea, 1857) eta eredu progresista (Bigarren Errepublika, 1931-1936), hezkuntza sistema franquistaren eredu tradizional erreazionarioa (nazional-katolizismoa) eta azken franquismoko eredu teknokratikoa, eredu sozialdemokrataren erreforma konprentsiboa (LODE 1985ean, LOGSE 1990ean eta LOPEGCE 1995ean) eta eredu neoliberal-kontserbadorea (LOU 2001ean eta LOCE 2002an).

Lehenengo erreformei dagokienez, arestian aipatu dugun bezala, Foucault-ek<sup>433</sup> dio eskola ere Modernitateko beste zenbait erakunderen (ejertzitua, espetxea, ospitala, lantegia...) eredu jarraituz berregin zutela. Aldaketa honek ahalbidetu zuen Mendebaldearen jauzi ekonomiko handia:

---

<sup>432</sup> García Gràcia, 2003.

<sup>433</sup> Foucault, 2005.

batetik, kapitala metatzeko prozeduretan oinarritu zen eta, bestetik, politikoki botere tradizional, erritual, garesti eta ageriko bortxa erabiltzen zutenen ordean, menpekotasunaren teknologia fin eta kalkulatu hedatzen hasi ziren, honela jendearen aniztasuna erabilgarri bihurtzen duten teknikak handitu egiten zutelarik kapitalaren metatze mugimendua. Lerena-ren<sup>434</sup> arabera ere, Argien Mendeko hezkuntzaren egitasmo prometeikoaren helburua gizakien ekoizpena arrazionalizatzea eta sistematizatzea izan zen. Halaber, Terrén-ek<sup>435</sup> dioenez, Ilustrazioko garapenaren filosofiak hainbat irudi utopiko ekoitzi zituen, irudi hauetan elite kulturalak aldaketa soziala zuzentzen zuelarik, baina potentzialtasun legitimatzailea berehala bihurtu zen teknologia diziplinatzaile sare handiak hedatzeko koartada filosofiko. Hezkuntzaren praktikan “arima eraikitzea” zen aldarririk, horren xedea indibiduen birmoldaketa produktiboa zelarik. Horrela hedatuko da humanismo burgesaren *meritokrazia* kontzeptua.

Ramírez eta Boli-k<sup>436</sup> diote haur guztiak barne hartuko zituen masen hezkuntza sistema estatunazioek eraiki zutela XVIII. eta XIX. mendeen artean. Perez Urraza, Bilbao eta Ezkurdiaren arabera<sup>437</sup>, Frantziako Iraultzaren hezkuntza arloko egitasmoetan oinarrituz, nazio-estatuaren eraikuntzarekin batera hedatu ziren hezkuntza sistemak Europan zehar XIX. mendean. Frantziako estatuak 1806. urtean ezarri zuen berea, Napoleonen garaian. Estatuak hartzen zuen lurralde osorako zen eta izaera zentralista zuen. Espainiako estatuan, berriz, 1857. urteko Moyano Legeak ezarri zituen burgesiaren hezkuntza arloko helburuak. Hiru irakasmaitan zatitu zuten hezkuntza sistema estatikoa (oinarrian herria eta gailurrean elitea) eta sinplea (txikia, erraz antolatzeko eta zuzentzeko modukoa) zen baina baliagarria zen xede politikoak hezkuntzan gauzatzeko. Ereduek honek Bigarren Mundu Gerrara arte iraun zuen.

Fernández Enguitaren arabera<sup>438</sup>, eskolatzeko unibertsalean eragile erabakiorrak izan ziren estatunazioa eta enpresa industrialak. Fernández Enguita-ren arabera<sup>439</sup>, eskolatzekoaren lehenengo hedapen esanguratsua elizaren eta langile mugimenduaren eskutik etorri zen arren, estatunazioa erabakiorra izan da hezkuntza sistemaren zabalkundean, interesatuenetakoa izan zelako eta delako: eskola tresna indartsua da kultura, hezkuntza eta nortasun nazionala sustatzeko, indibiduoaren eta botere politiko estatalaren artean harremana estutzeko eta hiritartasuna orokortzeko. Errejimen mota guztiak eta botere politiko guztiak horretan ahalegindu dira XIX. eta XX. mendeetan zehar. XXI. mendean ere ahalegintzen dira eskola baliatzen kultura homogeneo eta leiala sustatzeko. Batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak gradu eta tolerantzia mailakoak dira.

Cardenal-en<sup>440</sup> arabera, industrializazioarekin haurtzaroa ekonomikoki ez-produktiboa den garaia bihurtzen da. Ikasketak urteak dira, ez eduki zuzenki profesionalak barneratzeko hainbeste, baizik eta nagusiki hezkuntza sistemaren bitartez kompetentzia sozial zehatz batzuk barneratzeko. Industrializazio aurreko garaian ezezaguna zen eraren normalizatua dago printzipio hau, adinaren arabera urratsetan banatzen delarik. Estatuak du begirale baina haurtzaroak bere eremuak ere baditu eta adinez parekoak direnen arteko elkartrukea intentsitate handikoa da. Nolanahi ere,

<sup>434</sup> Lerena, 1983.

<sup>435</sup> Terrén, 1999.

<sup>436</sup> Ramírez & Boli, 1999.

<sup>437</sup> Perez Urraza & Bilbao & Ezkurdia, 2006.

<sup>438</sup> Fernández Enguita, 2001.

<sup>439</sup> Fernández Enguita, 2001.

<sup>440</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 27-28 or.

Cardenal-en arabera, haurtzaroaren espazio soziala familiarena eta hezkuntza sistemarena da, eta helduarokoa lanarena eta seme-alabak izatearena, beti ere garai hartan ezartzen den ereduaren arabera. Edonola ere, industrializazioan sortzen den hezkuntza sistema bitan banatzen da: lehen hezkuntza klase sozial herrikoientzat eta hezkuntza ertaina eta goi mailakoa klase sozial indartsuenentzat.

Cardenal-ek<sup>441</sup> dioenez, Bigarren Mundu Gerraren ondoren *eskola unibertsalaren* eredia indartu egin zen. Haurrak, nerabeak eta gazteak masiboki sartu ziren bertan eta ondorioz praktikan lehen hezkuntzak guztiak hartu zituen eta hazkunde esanguratsua izan zuen hezkuntza ertaineko eta goi mailako ikasleen kopuruak. Aurretik lan merkaturako sarrera nagusiki familiaren erakundean eta lantokian bertan egiten zen ikasketan oinarritua zegoen. Hezkuntza sistemak leku hori hartu zuenean, ikasle kopurua nabarmen handitu zen, eskolatze urteen iraupena luzatu egin zen eta ikasketa profesionalak sistema formalaren baitan txertatu ziren.

Levin-en<sup>442</sup> arabera, hezkuntza erreformak aztertzeke garaian kontuan hartu behar da lehen Europako hezkuntza sistema tradizionalak bi bideko diseinua zeukatela, ikasle batzuk unibertsitaterantz eta besteak ikasketa komertzial eta profesionaletarantz bideratzen zituztelarik. Hautaketa irizpideak neurri handi batean klase sozialarekin eta familia aurrekariarekin lotuta zeuden. Diseinu honen aurkako bi argumentu mota erabiltzen ziren: batetik, sistema honek klase ezberdinkeriak areagotu egiten zituela eta, bestetik, gizarteek talentu galera sofritzen zutela hautaketa azkarregi egiten zelako.

Baina, Levin-ek dioenez, mendebaldeko Europako hezkuntza sistemek bi funtzio betetzen dituzte: batetik, ekonomia kapitalistetako soldatapeko lana erreproduzitzen lagundu behar dute eta, bestetik, biztanleriaren gehiengoarentzat berdintasuna eta mugikortasuna ahalbidetzen duen agente garrantzitsuena izan behar dute. Baina bi funtzio hauek uztarrezinak dira baldin eta ekoizpen kapitalistaren erreprodukzio beharrek hezkuntza arloko emaitza hierarkizatuak behar badituzte eta, aldiz, hezkuntza sistemaren ideologiak mugikortasun sozialaren beharra asetze aldera berdintasuneranzko espektatibak eta politikak eragiten baditu. Mendebaldeko Europako eskolatze prozesuaren historian islatzen da bi helburu hauen arteko borroka.

Levin-en arabera, Bigarren Hezkuntza tradizionalenak batik bat erreprodukzioa, estratifikazioa eta hierarkia azpimarratzen zituen, aukera eta diru irabazien arloko berdintasuna alde batera utziz. Aitzitik, *comprehensive education* delakoak garrantzi handiagoa ematen die alderdi berdinezaleei eta murriztu egin nahi du ezberdinkerien borondatezko erreprodukzioa, baina ekoizpen kapitalistaren egiturazko ezberdinkeriak mantentzen diren heinean hierarkiak hezkuntza formalaren eremuan ere eraikitzea beharrezkoa bihurtzen denez, arlo batean gauzatutako berdintasuna derrigorrez orekatu behar da beste arlo batean eraikitako hierarkiarekin. Adibidez, Bigarren Hezkuntzan berdintasuneranzko neurriak hartzen badira, borroka batik bat goragoko hezkuntza mailetara bideratuko da. Baina, aldi berean, hezkuntza maila orokorra handitzen den heinean handitzen da gazteen aspirazio maila, espektatibek benetako aukerei gaina hartuko dietelarik, eta honek kontzientzia hartzea eta etorkizuneko gatazka ereiten ditu.

---

<sup>441</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 64-68 or.

<sup>442</sup> Levin, 1999.



Taberner-en<sup>443</sup> arabera, estatu sobietarrak sortu zenetik abiarazi zuen eskola inklusiboa, biztanleria osoarentzat Lehen eta Bigarren Hezkuntza derrigorrezkotzat zuena eta ikasle guztientzat curriculum orokor bakarra zerabilena. AEBetan nahiz Erresuma Batuan 1950eko hamarkadan orokortu zen. Mediterraneo inguruko estatuetan hamarkada bat beranduago hasi ziren eskola inklusiboa gauzaten.

Taberner-en arabera, diktadura faxistaren garaian Espainiako estatuan 1857 urteko Ley Moyano delakoaren curriculum bikoitzaren sarera bueltatzen da. Alde batetik, langile jendearentzat 12 urterekin bukatzen zen Lehen Hezkuntza zegoen eta, bestalde, unibertsitatera bideratutako Batxilergoa zegoen. Lehen Hezkuntza Lanbide Heziketarekin lotu zitekeen mailaz maila (atelierreko ikaslea, ofiziala eta maisua). Taberner-en arabera, 1970eko hamarkadara arte Baudelot eta Establet-ek deskribatzen dutena agerikoa da Espainiako estatuan ere: batetik, langileentzat prestigiorik gabeko Lehen Hezkuntza eta Lanbide Heziketako sarea eta, bestetik, baliabide gehien zituztenentzat bigarren eta goi mailako sarea. Frantziako estatuan ez bezala, Espainiakoan elizak paper oso garrantzitsua jokatuko du bigarren eta goi mailako sarean.

Baina, Taberner-ek dioenez, Espainiako estatuan sistema honek porrot egin zuen. 1966 urterako hamar urteko ikasle gehiago zeuden Batxilergoko lehen mailan Lehen Hezkuntzan baino. 1970. urtean egin zuten erreforma egin gabe ere, ordura arteko sistema aldatu egingo zen, Lehen Hezkuntzako Eskola Nazionalak ia hutsik gelditu baitziren. Unibertsitateko ikasleen kopurua ere nabarmen handitu zen. Honenbestez, Espainiako estatuak, OCDEren aholkuei jarraituz eta errejimen faxistaren deslegitimazioa nahiz hezkuntzaren deslegitimazioa gainditze aldera, 1970 urtean Ley General de Educación izenekoa onartu zuen, Ley Villar bezala ere ezagutzen dena. Oraindik ez zuten lortu erabateko eskolatzea, bigarren nahiz goi mailako hezkuntzako eskolatze tasak Europako txikienetakoak ziren eta hezkuntzarako aurrekontuak oso txikiak ziren. Europako ereduaren antza zuen OHO berriak, 14 urte arteko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa baitzen, baina lehengo hezkuntza sistemaren ezaugarri ugari bere horretan mantendu zituzten.

Terrén-en arabera<sup>444</sup>, berriz, Bigarren Mundu Gerraren ondoren ikuspegi teknokratikoa nagusitu zen. Hezkuntza, jendea integratzeko eta gizarteak garatzeko tresnatzat nabarmentzen zuen diskurtso honek, baina 1960ko hamarkadan indartsu garatu ziren ikuspegi kritikoak hezkuntza garaikidearekiko ikuspegi ezkorra hedatu zuen eta, testuinguru horretan hainbat erreforma egin zituzten arren, orduan hasi zen hezkuntzari buruzko diskurtso politiko guztietan krisiaren topikoa txertatzen. Gainera, krisi ekonomikoaren testuinguruan murriztu egin zituzten hezkuntzarako baliabideak. Halaber, 1978. urtetik aurrera Erresuma Batuan eta AEBetan gobernu berriak osatu zirenean, berdintasunaren leloa baztertu egin zuten askatasunarena lehenesteko eta bide batez indartzeko eraginkortasuna nabarmentzen zuen modu formalki antiburokratikoa, bere balioen artean kalitatea, malgutasuna eta pribatutasuna barne hartzen zituelarik. Ikuspegi honen haritik hasi ziren esaten hezkuntzaren gaitzek irakasleen errendimendu eskasean zutela oinarria. Hezkuntzaren krisiak aurkitu zuen bere petxeroa, Terrén-ek dioenez.

---

<sup>443</sup> Taberner Guasp, 1999.

<sup>444</sup> Terrén, 1999.

Espainiako estatuan, Cardenalek dioenez<sup>445</sup>, *eskola unibertsalaren* egitasmoa 1970eko hamarkadako hezkuntza erreformetan hasi ziren proiektatzen, baina ez zen gauzatu (bigarren hezkuntzari eta batik bat unibertsitateko hezkuntzari dagokionez) 1980ko hamarkada erdira arte. 1970eko Ley General de Educación delakoak derrigorrezko eskolatzea 10 urtetik 14 urtera atzeratu zuen, ikasketa profesionalak lanbide heziketako bi mailatan banatu ziren eta bigarren hezkuntzako zenbait ikasketa (merkataritza ikasketak, irakasle, erizain, gizarte lana, besteak beste) unibertsitateko lehen mailako ikasketa bihurtu ziren.

Lerena-ren<sup>446</sup> arabera, Espainiako estatuko 1970 urteko hezkuntza erreforma aro teknizistarekin lotuta dago. Lerenak dioenez, berak *tradizio idealista* deitzen duenaren harian hainbat erreforma pedagogiko egin dituzte, Lerenak tradizio idealistaren baitan hiru aro bereizten dituelarik: eskolastikoa, liberala edo tradizionala eta teknizista. Nobleziak sehaska, estatusa eta ohorea aipatzen zituen lekuan, burgesiak bokazioa, gaitasuna eta meritua aldarrikatuko ditu. Honenbestez, Lerenaren arabera, tradizio idealista Sokratek eraman zuen praktikara, Platonek teorizatu egin zuen eta Rousseau-k eta Kant-ek berraurkitu eta plazaratu egin zuten. Hurrengo urratsa, Lerenak dioenez, aro teknizista izan da. Lerenaren arabera, 1970eko hezkuntza erreformak hedatu eta indartu egin zuen hezkuntza sistemaren erreproduzio funtzioa. Joera historikoari jarraiki, erreforma honen bitartez hezkuntza sistemak gero eta biztanleria kopuru handiagoa hartu zuen bere baitan. Ikasleen arteko lehiakortasuna handitu egin zen eta hezkuntza sistemak zorrotz egin zituen hautaketa eta sailkapen mekanismoak. Curriculumak eta teknika pedagogikoak ere berritu zituen. Halaber, hezkuntza sistemaren legitimazioa sendotzea lortu zuen, bere sarien eta zigoren balorazio on zabalagoa sustatuz. Lerenak une honetan kokatzen du hezkuntza liberal edo tradizionaletik hezkuntza teknokratikorako jauzia.

Lerenak dioenez, hezkuntza teknizistak tradizio idealistaren bi zutabeak bere egin ditu:

- a) Eskola irekia: formalki bermatu egiten du hezkuntza sistemaren parte hartzeko eskubidea eta aukera formal horrek sustengantzen du berdintasunaren printzipioaren aldarria.
- b) Ikasle bakoitzak barnean daramana ateratzearen ideia lotuta dago norberaren ustezko gaitasunarekin, eta ideia honek ahalbidetzen du norberaren ustezko gaitasunaren araberrako hautaketa, horrela bermatzen delarik sailkapenaren printzipioa.

Erreformak erreforma, Lerenak dioenez, hezkuntza sistemaren funtzionamendu printzipio nagusia berdín mantendu da, nahiz eta modu ezberdinetan gauzatu den: egitura soziala indibiduen batura da eta, ondorioz, ezberdintasunaren arazoa banaketa kontua besterik ez da, ia beti gaitasun naturalen argumentua oinarritzat hartuz. Ikuspegi honen arabera, munduak ez du ondo funtzionatuko harik eta rola ondo banatuta dauden arte eta, beraz, nor bere paperarekin konformatzen den arte.

Varela eta Alvarez Uria-ren<sup>447</sup> arabera, jesuita eskoletatik gaur egun arte hezkuntzaren logika instituzionalak erreformak, aldaketa sakonak eta metamorfosiak ere izan ditu, baina hastapenetan bezala hezkuntza sistemaren logikak gaur egun ere ezagutzaren gainetik botere harremanak

<sup>445</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 64-68 or.

<sup>446</sup> Lerena, 1980.

<sup>447</sup> Alvarez Uria & Varela, 1991.

lehenesten ditu. Eskolako sozializazioak saritu egiten ditu batzuk eta zigortu besteak. Izan ere, eskola jatorri sozialekiko galbahe sentsiblea eta patuen ezartzailea da. Arrakastak nahiz porrotak ezaugarritutako nortasun sozialak eraikitzen laguntzen jarraitzen du, norik bere posizio soziala onar dezan sustatuz, egoera hau arrakasta edo porrot pertsonalari bategokio bezala aurkeztuz. Honenbestez, erreformen ondoren ere, eskolak ekarpen eraginkorra egiten du hierarkizazio soziala jorrazteko.

Varela eta Alvarez Uriak diotenez, iritzi kontrajarriak daude hezkuntza masiboki hedatzearen eragileei buruz. Batzuen iritzi langile mugimendua izan zen, baina beste batzuen aburuz ez da ahaztu behar hastapenetan hezkuntza sistema hedatzeari uko egin ziotenek, gero beren interesen aldeko tresnatzat ikusi izan zutela eskola. Mendeetan zehar klase hegemonikoek pentsatu zuten *kondizio baxuko* haurrei oinarritzko heziketa soilik zegokiela. Ilustrazioaren heziketa proiektua ere bat zetorren ideia honekin. Baina hierarkia eraikitzeko mekanismo berriak aurkitu eta eraginkortasunez baliatu ahala handitu egin da talde hegemonikoen artean eskola hedatuaren alde egin dutenen kopurua. Pedagogia tradizionalen oihartzuna nabarmena delarik, *pedagogia legitimista* izenekoek integratu egin nahi dituzte langile jendearen seme-alabak, eta integrazio prozesu horretan sartzen da haur hauek erreformatzea eta zuzentzea, Varela eta Alvarez Uriaren arabera. Derrigorrezko eta doakoa den eskola izan da egitasmo honen tresna behinena. Gainera, badirudi ideologia hauek ondo uztartzen direla meritokraziaren ideologiarekin: promozio sozialerako beharrezkoa da lan indibiduala. Aitortu egiten dute hierarkia dagoela ezagutza, hezkuntza maila, ikastetxe, programa, titulu eta kulturen artean, eta aldarrikatu egiten dute haur guztiek mugikortasun sozialerako aukera berdina dauzkatela. Baina pedagogia hauek mekanismo oso indartsuak daukate ikasleen ezberdinketa hierarkikoa ezartzeko. Bereziki jatorri xeheenekin dira eraginkorrak. Hezkuntza sistemek etnozentrismo sozialerako joera handia dute, goretsi egiten baitituzte zenbait ezagutza, nagusiki talde indartsuenei loturikoak, eta gainerakoak gutxietsi egiten dituzte, ez-ezagutzat hartuz. Baina erreformen ondoren azken pedagogiek ez dituzte hain gordin aurkezten, hauengan eragin handia izan baitute beste zenbait ikuspegik, pedagogia erlatibistek kasu.

Hala ere, Varela eta Alvarez Uriak diotenez, hezkuntza sistemek izan dituzten aldaketak ezin dira modu sinplista batean aztertu. Inoiz ez dira alde bakarrekoak izan. Erreforma beti prozesu politiko eta sozial konplexuak dira funtsean. Eragile askok egiten dute beren ekarpena. Gainera, kontuan hartu behar da kontraerreforma kontserbadoreak ere izan direla nahiko sarri.

Sennett-en<sup>448</sup> arabera, industria aroaren hastapenetan langile gutxi izan zuten hezkuntza sistema formalean trebatzeko aukera. Garai hartan goranzko mugikortasun soziala ez zen ohikoa. Batik bat XX. mendean zehar hezkuntza sistema formala inoiz ez bezala hedatu zen. Erakunde honek alfabetizazio eta trebezia aritmetiko maila nabarmen zabaldu zuen, aro victoriarrean gehienentzat pentsaezina zen neurrian. Azken hamarkadetan, Sennetten arabera, langile ez kualifikatuen seme-alaben artean %15ekoa da gorantz eginez klase ertain baxura pasatzen direnen kopurua Erresuma Batuan eta AEBetan, %15 Alemanian eta %30 ingurukoa Txinan. Industrializazioaren hastapenetan baino handiagoa den goranzko mugikortasun hau beherantz egiten dutenekin orekatzen da.

---

<sup>448</sup> Sennett, 2006, 76-77 or.

Waisgrais eta Calero-k<sup>449</sup> diotenez, azken hamarkadetan Espainiako estatuan nabarmen handitu da gazteen ikasketa maila. Gaur egun hezkuntza formala derrigorrezkoa da 6 eta 16 urte bitarteko biztanleria guztiarentzat. 17 urtekoetan eskolatze tasa %80ra iristen da eta derrigorrezkoa izan gabe eskolatzea unibertsala da 4 eta 6 urte arteko haurrentzat.

Baina, Waisgrais eta Calero-k<sup>450</sup> diotenez, derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketak egin dituztenen kopurua txikia da baldin eta OCDE-ko estandarrekin alderatzen badugu. MEC-en 2005 urteko datuen arabera, %62,7ak bukatu du Goi Mailako Bigarren Hezkuntza eta Europako Batasunean Espainiako estatuan dago 18 eta 24 urte arteko abandono goiztarraren hirugarren kopuru handiena. OCDE-ren 2005 urteko datuen arabera, 15 eta 19 urte arteko gazteen %2,7 hezkuntza sistema formaletik kanpo daude eta ez dabilta lan bila, eta kopuru hau %5,2ra handitzen da 20 eta 24 urte artekoetan. Kopuru horiei hezkuntza sistematik kanpo dauden eta lan bila dabilta gazteak gehitzen bazaizkie, esan daiteke Espainiako estatuan 14 eta 24 urte arteko gazteen %22a ez dagoela hezkuntza sisteman eta ez duela enplegurik. Baldintza hauetan handitu egiten da bazterketa sozialaren arriskua, batik bat Bigarren Hezkuntza bukatu ez dutenen artean.

Fernández Enguita-k eskaintzen dituen datuen arabera<sup>451</sup>, 1985-1986 ikasturtean (aztergai dugun populazioak 6 eta 11 urte artean zituenean, hau da, errepikatu ez bazuen, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, OHO, 1 eta 5 mailen artean zegoenean) Espainiako estatuan 1970 urteko Ley General de Educación zegoen indarrean eta lege horren arabera 6 eta 16 urte arteko guztiek eskolatuta egon behar zuten, derrigorrezko eskolatze epea 10 urtekoa zelarik. Eskolako atzerapenik ez bazegoen, suposatzen zen OHOn zortzi urte pasatzen zituztela, eta bi gehiago Lanbide Heziketan, eta horrela honen lehen ziklo osoa egin, edo BBB eta hau bukatzeko urte bat gehiago egin behar zutela. Fernández Enguitaren datuak MECen ikasturte hari buruzko estimazioetan oinarritzen direnez, Fernández Enguitak berak dio atentzioa ematen duela datu horien arabera 6 urte zituen biztanleriaren %105 zegoela eskolatuta, %106 7 urtekoetan, %105 8 urtekoetan, eta horrela beste hainbat. Fernández Enguitaren arabera, adin horretan ikasle guztiak eskolatuta zeudela onartuz gero, kopuru horietan gertatzen den akats estatistikoa kontuan hartu behar da beste adin batzuetan kopurua txikiagoa denean, benetan kopurua txikiagoa izango dela pentsatuz. MECen arabera, 9 urtekoen %104 zeuden eskolatuta, 10 eta 11 urtekoen %103, 12 urtekoen %102, 13 urtekoen %99, 14 urtekoen %90,14, 15 urtekoen %73,15. Beraz, MECen arabera, 14 urterekin 10etik batek utzia zuen eskola eta 15 urterekin, berriz, laurdenak.

Fernández Enguitak MECen datuei jarraiki dioenez, OHoko ikasleen artean ikasturtearen errepikapena eta atzerapena *eskola porrota* deitu ohi denaren aurrekaritzat har daiteke maiz eta horiei dagokienez, 1985-86 ikasturtean errepikatu egin zuten ikasle guztien %6,9ak, hasierako zikloan %4,5ak, ertaineko %5,2ak eta goi zikloko %10,1ak. Ikasturteari dagokionez, atzeratuta daude ikasle guztien %19, urte bateko atzerapena dutelarik %13,8ak, bi urtekoa %4,1ak, hirukoa %0,9ak, lauak %0,5ak eta lau urte baino gehiagokoa %0,05ak. Edonola ere, galbahe handiena OHoko azken ebaluaketan gertatzen da: 1984-85 ikasturtean bakarrik %60,8ak lortu zuen eskola graduatua eta gainerakoek eskolatze ziurtagiria besterik ez zuten lortu.

<sup>449</sup> Waisgrais & Calero, 2008.

<sup>450</sup> Waisgrais & Calero, 2008.

<sup>451</sup> Fernández Enguita, 1990, 72-77 or.

Baina, Fernández Enguitak MEC datuetan oinarrituz dioenaren arabera, BBB eta UBiko datuak are larriagoak dira. 1985-86 ikasturtean ikasturtea errepikatu zuen 1. mailako ikasleen %14,6ak, 2. mailakoen %17,2ak, 3. mailakoen %16,0ak eta UBiko %19,3ak. Eskola uzten zutenen kopurua BBBko maila bakoitzean %7-8 artekoa da eta UBiko %9-10ekoa. Estimazioen arabera, ikasketak bukatzen dituztenen kopurua BBB hasi zutenen %54,6 ingurukoa litzateke.

Are okerragoa da Lanbide Heziketako egoera, datu hauen arabera. 1984 urtean Lehen Graduan matrikulatutakoen %25ak utzi zuen eta 1985-86 ikasturtean errepikatu egin zuen lehen mailako ikasleen %8,4ak eta bigarren mailakoen %14,4ak. Estimazioak eginez, Fernández Enguitak dio 1983 urtean matrikulatu zirenekiko kopuruarekiko 1985 urtean zikloa bukatu zutenen kopurua %45,73koa dela. Bigarren Graduan 1984 urtean matrikulatutakoen artean lehen mailatik bigarreneira %17ak utzi egin zuen eta errepikatu %3,4ak lehen mailan eta %5,6ak bigarren mailan. Espezializatutako ikasketen errejimenean 1984 urtean lehengo urtean hasi zirenen %20 inguruk utzi zuten eta errepikatu %6,4ak lehen mailan eta %12,0ak bigarren mailan 1985-86 ikasturtean.

Fernández Enguitak dioenez, unibertsitateko datuen estimazioak askoz zailagoak dira, batetik espezialitateen eta unibertsitateen arteko ezberdintasunengatik, matrikulazio bikoitzengatik eta karrera aldaketengatik eta, bestetik, horri buruzko ikerketa asko ez daudelako, baina egin diren ikerketen arabera, karreraren eta unibertsitatearen arabera %20 baino gutxiago eta %60 baino gehiagoren artekoa da uzten dutenen kopurua.

Carabaña-ren<sup>452</sup> arabera, hezkuntza sistema Espainiako estatuan piramide baten moduan errepresentatu daiteke. Diktadura faxistaren lehen zatian, 1959 urtera arte, lehen eta bigarren hezkuntza (lehen baxuentzat eta bigarrena klase ertainentzat diseinaturik, 1938 urteko Batxilergoko legeak, 1956 urteko legeak aldatu ez zuena, esplizituki esaten duenez) motel hazi ziren. 1960ko hamarkadan, ordea, hazkundea bizitu egin zen, baina ez erreforma baten ondorioz, baizik eta Batxilergoko ikasleen kopurua nabarmen handitu zelako. Faktore demografikoak eta akademikoak ez ezik ekonomikoak ere eragin handia izan zuten.

Carabaña-k dioenez, 1970 urteko Ley General de Educación (LGE) delakoak ikasleen hautaketa 10 urtetik 14 urtera atzeratu zuen eta hautaketa irizpideak sozioekonomikoak ez ezik akademikoak ere izango ziren. Halaber, Lanbide Heziketa hedatu egin zen Batxilergoarekiko alternatiba gisa. Honen ondorioz murriztu egin zen Batxilergoaren amaierara iristen zirenen kopurua, nahiz eta COU gaingiduzten zutenen kopurua askoz motelago hazi zen. Beraz, 1970eko hamarkadan unibertsitateko ikasle kopuruaren hazkundearen arrazoia 1960ko hamarkadako Batxilergoko ikasleen hazkundea da. Selektibitateak moteldu egin zuen prozesua, unibertsitaterako sarbidea zaildu baitzuen. Soilik Lanbide Heziketan eragin zuen 1970eko LGE delakoak sarri egotzi izan dioten eskolatzeko kopuruaren hazkundea.

Carabaña-ren arabera, 1980ko hamarkadan murriztu egin ziren BBBera sartzeko zailtasunak eta, ondorioz, handitu egin zen ikasleen kopurua maila hauetan. Eskola porrota nabarmen txikitu zen (Carabañak bi arrazoi posible azaltzen ditu: hezkuntzaren kalitatea hobetu zelako edo irakasleak beste era batera kalifikatzen zutelako). Beraz, Carabañaren arabera, 1990eko unibertsitatearen masifikazioa nagusiki 1980ko hamarkadako eskola porrotaren murrizketari zor zaio, eta neurri

---

<sup>452</sup> Carabaña, 1999.

txikiagoan 1985 urtearen ondoren ikasleek gero eta gehiago aukeratzen dutelako BBB egitea. Jaiotzen kopurua etengabe murriztu zenez, txikitu egin zen ikasle kopurua, baina derrigorrezko heziketa bi urtez luzatzeak baretu egin zuen joera.

Euskal Herrian, berriz, 15 urtetik gorako biztanleen artean %10,0 da ikasle (ikus 19. Taula). Gipuzkoan, aldiz, %10,1. Kopurua handixeagoa da emakumezkoen artean (%10,5 Euskal Herrian eta %10,8 Gipuzkoan) gizonzkoen artean baino (%9,5 Euskal Herrian eta %9,4 Gipuzkoan). Kopuruak handiagoak dira adinean behera egin ahala: 15-19 urte artekoetan %85,4 Euskal Herrian eta %86,6 Gipuzkoan, 20-24 urte artekoetan %39,5 Euskal Herrian eta %39,7 Gipuzkoan, 25-29 urte artekoetan %8,3 Euskal Herrian eta %8,3 Gipuzkoan, 30-34 urte artekoetan %2,6 Euskal Herrian eta %2,7 Gipuzkoan eta 35 urtetik gorakoaren artean %0,9 Euskal Herrian eta %1,1 Gipuzkoan.

<b>19. Taula: Hamabost urtetik gorako ikasleak eta biztanlerian duten pisua, adinaren eta sexuaren arabera. Euskal Herria eta Gipuzkoa, 2001 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)</b>									
	<i>Guztira</i>			<i>Emakumezkoak</i>			<i>Gizonzkoak</i>		
	<i>Biztanleak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>%</i>	<i>Biztanleak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>%</i>	<i>Biztanleak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>%</i>
<b>Euskal Herria</b>	2.513.806	251.992	10,0	1.289.191	135.878	10,5	1.224.615	116.114	9,5
15-19	152.954	130.554	85,4	74.065	65.453	88,4	78.889	65.101	82,5
20-24	204.752	204.752	39,5	99.433	43.764	44,0	105.319	37.130	35,3
25-29	239.361	239.361	8,3	116.414	10.704	9,2	122.947	9.208	7,5
30-34	234.148	234.148	2,6	114.266	3.947	3,5	119.882	2.035	1,7
35<	1.682.591	14.650	0,9	885.013	12.010	1,4	797.578	2.640	0,3
<b>Gipuzkoa</b>	583.914	59.171	10,1	298.472	32.339	10,8	285.442	26.832	9,4
15-19	34.018	29.446	86,6	16.418	14.750	89,8	17.600	14.696	83,5
20-24	47.970	19.054	39,7	23.364	10.420	44,6	24.606	8.634	35,1
25-29	57.579	4.784	8,3	27.697	2.562	9,3	29.882	2.222	7,4
30-34	54.493	1.457	2,7	26.371	960	3,6	28.122	497	1,8
35<	389.854	4.430	1,1	204.622	3.647	1,8	185.232	783	0,4

Iturria: Biztanleria Zentsuak (INE, INSEE) in Aztiker

Titulazio maila adinaren arabera aztertuz gero (ikus 20. Taula), esan genezake Gipuzkoan oro har biztanleriaren erdiak bukatu dituela bigarren mailako ikasketak (%24,0ak I mailakoak eta %27,8ak II mailakoak), laurdenak (%24,8) lehen mailako ikasketak eta hamarretik ia batek (%7,8) ez dauka titulaziorik. Adinean behera egin ahala nabarmen handitzen da ikasketa maila. Esate baterako, bigarren hezkuntzako II ikasketa maila bukatuta daukatenei dagokienez, 15-24 urte artekoetan %47,6 dira, 25-39 urte artekoetan %40,7, 40-59 urte artekoetan %24,2 eta 60 urtetik gorakoetan %6,8. Joera berdina errepikatzen da, adibidez, titulaziorik gabekoei dagokienez: %22,8koa da 60 urtetik gorakoaren artean, %5,0ekoa 40-59 urte artekoetan, %1,2koa 25-39 urte artekoetan eta %1,0koa 15-24 urte artekoetan.

Hirugarren mailako ikasketei dagokienez, Gipuzkoan oro har biztanleriaren %15,6ak bukatuta dauzka, baina adinaren araberrako aldeak handiak dira. Batez bestekoaren oso gainetik dago 25-39 urte artekoen adin taldea, bere kopurua %28,4koa baita, eta beste muturrean 60 urtetik gorakoak daude (%4,2) eta tartean 40-59 urte artekoak (%14,4). Bestalde, 15-24 urte artekoen kopurua (%12,8) ezin da bere horretan kontuan hartu, beren adinarekin ezinezkoa baita talde hontako gehienek hirugarren mailako ikasketak bukatuta izatea.

Honenbestez, adinean behera egin ahala ikasketa maila nabarmen handitzen denez, esan genezake Gipuzkoari dagozkion datuetan ere islatzen dela hezkuntza sistemaren hedapena bai biztanleria zati handiagoa hartzen duelako bai biztanleek gero eta gehiagok hezkuntza sistemaren baitan urte gehiago irauten dutelako.

**20. Taula: Hamabost urtetik gorako biztanleriaren titulazio maila, adinaren arabera. Gipuzkoa, 2001 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)**

<i>Ikasketa maila</i>	<i>Guztira</i>		<i>15-24</i>		<i>25-39</i>		<i>40-59</i>		<i>60&lt;</i>	
	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>	<i>Kop.</i>	<i>%</i>
Guztira	583.914	100,0	81.988	100,0	166.663	100,0	187.891	100,0	147.372	100,0
Titulazio gabe	45.852	7,9	816	1,0	1.925	1,2	9.447	5,0	33.664	22,8
1. mailako ikasketak	144.559	24,8	10.380	12,7	10.502	6,3	48.676	25,9	75.001	50,9
2. mailako ikasketak I	140.144	24,0	21.258	25,9	38.988	23,4	57.297	30,5	22.601	15,3
2. mailako ikasketak II	162.324	27,8	39.035	47,6	67.900	40,7	45.406	24,2	9.983	6,8
3. mailako ikasketak	91.035	15,6	10.499	12,8	47.348	28,4	27.065	14,4	6.123	4,2

Iturria: Biztanleria Zentsuak (INE) in Aztiker

PISA<sup>453</sup> txostenaren emaitzek diotenez, berriz, NFE OCDEren batez bestekoaren gainetik dago zientzietan eta matematiketan eta azpitik, ordea, irakurketan, eta EAE OCDEren batez bestekoaren azpitik dago zientzietan eta irakurketan eta gainetik dagoela, aldiz, matematiketan (ikus 21. Taula).

**21. Taula: PISA txostenaren emaitzak estatuaren (+Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskadiko Autonomia Erkidegoa) eta arloaren arabera, 2007 (batez bestekoak)**

<i>Zientziak</i>		<i>Irakurketa</i>		<i>Matematikak</i>	
Finlandia	563	Korea	556	Taipei (Taiwan)	549
Hong Kong (Txina)	542	Finlandia	547	Finlandia	548
Kanada	534	Hong Kong (Txina)	536	Hong Kong (Txina)	547
Estonia	531	Kanada	527	Korea	531
Japonia	531	Zeelanda Berria	521	Herbehereak	523
Zeelanda Berria	530	Polonia	508	Japonia	515
Alemania	516	Erresuma Batua	495	NFE	513
Erresuma Batua	515	OCDE	492	Danimarka	504
Suitza	512	Frantzia	488	Eslovenia	501
NFE	511	EAE	487	EAE	498
OCDE	500	Norvegia	484	Frantzia	490
EAE	495	NFE	481	OCDE	498
Frantzia	495	Portugal	472	Norvegia	490
AEB	489	Lituania	470	Espainia	480
Espainia	488	Espainia	461	AEB	474

Iturria: OCDE

#### 4.2.2 Integrazioaren aldarria

Azken kopuru hauek kontuan hartuz gero, badirudi hezkuntza sistemaren hedapenari dagozkion arazo ugari gaintitu egin direla, baina, segidan ikusiko ditugun ekarpenen arabera, ez da hala gertatu.

<sup>453</sup> Berria, 2007-12-13.

Varela eta Alvarez Uriaren<sup>454</sup> arabera, 1970 urteko hezkuntza legearen erreformarekin hasi zen Espainiako estatuan pedagogia modu berrietaranzko trantsizioa eta LOGSE legeak sakondu zuen trantsizio hori. Varela eta Alvarez Uriak diotenez, pedagogia tradizionalaren hamaika ezaugarri mantentzen dira, baina pedagogia erlatibistak edo ikusezinak aldarrikatzen dituen osagaiak gero eta presenteago daude: ikaskuntza sortzailea, komunikatiboa, erlazionala, adierazkorra, afektiboa, eta horretarako curriculum ireki eta malgua, metodologia aldakorra, aktiboa eta partehartzailea, eta heziketa osagai informalak gehiago baliatzea. Varela eta Alvarez Uriaren arabera, pedagogia berri honek proposatzen duen subjektu sortzaile, malgu, komunikatibo eta balioanitza ondo egokitzen zaio kapitalismo garaikideari. Hezkuntza sistema erreformatuak gaitasun handiagoa du populazio fluxuak moldatzeko, modu gero eta ezberdinkeriazaleagoan (gizartearen konplexutasun hazkorraren norabidea hierarkikoki interpretatuz), nortasun gero eta indibidualizatuagoak eraikiz, helburu sozial gero eta anitzagoetara bideratuz, eta, azken finean, gaitasun eta interes indibidualak ustez zientifikoki ebaluatuz ibilbide sozialak ekoizten gaitasuna handituz.

Varela eta Alvarez Uriaren<sup>455</sup> arabera, LOGSE legeak dio ezberdinkeria sozialak gainditzea duela helburu, eskola porrota gainditzea eta Lanbide Heziketa balioestea, baina, aldi berean, lege honek kultura, irakaskuntza, hezkuntza eta gizarte bakarraz hitz egiten du. Interes gatazkak izkutatuz, kontzeptuak unibertsalizatu egiten ditu.

Varela-ren<sup>456</sup> arabera, 1990 urteko LOGSE legeak hezkuntza pertsonalizatua maiz aipatzen du, 1970 urteko legeak bezala, baina 1990 urtekoan ez dira hainbeste nabarmentzen lehiakortasuna, eraginkortasuna, ahalegin indibiduala eta nortasun profesional sendoen eraikuntza, 1970 urterako Opus Dei-ko ordezkariak prestatu zuten legean bezain beste ez behintzat. Alta, ikuspegi sozial eskasa tarteko, singularrean hitz egiten da kulturaz eta hezkuntzaz, eta ez da aipatzen gizartean hainbat klase sozial daudela eta hainbat sozializazio eta ikastetxe mota daudela. Ondorioz, Varelaren arabera, lege hau ez da seriooki arduratzen hainbat talde sozialek kultur eredu ezberdina izateagatik jasaten duten eskola arloko zigorrak. Gainera, legeak ia soilik ikuspegi psikologikoak erabiltzen dituenek, irizpide logiko-formalek eta psikologikoen erabakitzen dute ea ezagutza jakin batzuk esanguratsuak diren, eta ez dute kontuan hartzen ezagutza hauek prozesu sozial eta materialak sustatzeko duten gaitasuna. Varela dioenez, Carabaña-ren iritziz LOGSE legearen ikuspegi psikologikak soslai nabarmena du, hainbat ikerketek frogatu baitute haurren eta nerabeen hautematea estuki lotuta dagoela klase sozial bakoitzaren kultura eta hierarkia sinbolikoekin. Varelaren arabera, Carabañaren iritziz LOGSE legeak nabarmentzen dituen ezaugarriak erakusten dutenez (sormena, komunikatiboak, erlazionalak, adierazpenekoak eta afektiboak), klase ertain berrien eskemetara doitzen dira.

Feito-ren<sup>457</sup> arabera, erreformen ondoren ere, eskola ez da hainbeste aldatu. Eskola funtsean hiriguneetako klase ertain eta altuen seme (gizonezko) zurientzat pentsatua dago. Gero sartu dira emakumezkoak, langile klaseak eta gutxiengo etnikoak. Feitoren arabera, eskolak Procusto-ren burdinezko ohea dirudi: harrera atsegina egiten du, baina bisitaria bere dimentsioetara egokitu behar da. Hezkuntza arloko erreforma guztiek izan dute helburu talde sozial berri bat eskolan sarraraztea. Horrelakoetan beti sortzen da hezkuntza maila txikituko denari buruzko kritika.

<sup>454</sup> Alvarez & Varela, 1991.

<sup>455</sup> Alvarez Uria & Varela, 1991.

<sup>456</sup> Varela, 1999.

<sup>457</sup> Feito, 2003b.



Espainiako estatuan horixe gertatu zen 1970ean LGE onartu zutenean, hezkuntza konprentsiboa 14 urte arte luzatuz, eta 1990ean LOGSE onartu zutenean, derrigorrezko hezkuntza 16 urte arte luzatuz. Eskolak abiapuntutzat hartzen du beti berak irakasten duen kultura dela bakarra eta onena, eta, ondorioz, ez dagoela prest ikasleen ezagutzatik abiatzeko, salbu eta ikasleen ezagutza eskolak proposatzen duenarekin bat datorrenean. Horrexegatik, dominatzaileak ez diren taldeetako seme-alabek arrakasta izan dezaten ezinbestekoa da seme-alabek beren familian edo erkidegoan eskolarekin bat datozen praktika kulturalak edo laboralak aurkitu ahal izatea. Horixe gertatuko litzaieke, adibidez, AEBetako gutxiengo asiarrak-amerikarrek seme-alabei, beren lan arloko etikak indartu egiten baitu epe luzearako ikuspegia eta, ondorioz, eskolaren erabilgarritasuna.

Oliver eta Puigvert-en<sup>458</sup> arabera, 1990 urteko LOGSE legeak derrigorrezko eskolatzea 16 urte arte luzatu zuenez, hezkuntza sistemaren rol sozializatzailea indartu egin zuen. Halaber, eskola porrotaren kopuruak murriztea izan zuen helburu. Horretarako funtsean bi neurri ezarri zituen: batetik, ekintza tutoriala eta, bestetik, curriculumaren malgutasunak eta irekitzea. LOGSE legeak izaera berdinzaleagoa duen arren, adibidez curriculumaren malgutasunak joera handia izan du ezberdinkerietara egokitzeko eta, ondorioz, neurri segregatzailea ere bada.

Willis-ek<sup>459</sup> 1970eko hamarkadako hezkuntzari buruzko diskurtso berritzaileak ere aztertu zituen. Esate baterako, lanbide ikasketetako diskurtso berri baten arabera, lanbide heziketak uko egin behar dio ekonomiaren eta bere laneskua eskaeraren menpekotasunari eta bere helburua bezerearen ezaugarrietara egokitzea da. Areago, industriaren eskaerei erantzun beharrean, lanbide heziketak desafio egin behar dio industriari eta aldatzera bultzatu behar du, eta hori lortzeko etorkizunean langile izango diren ikasleengan eta beren lanean asetzeko eskaerengan eragin behar du.

Baina, Willis-ek dioenez, diskurtso hori ez da gauzatu. Jadanik 1970eko hamarkadarako Ingalaterran hedatuta zegoen hezkuntza diskurtso berritzaile baten aplikazioa. Diskurtso honen arabera, hezkuntza esanguratsuak ikaslearen interesa hartu behar zuen kontuan eta ikasketaren norabidea horren arabera moldatu; jarduerak ez dira inposatu behar, sustatu baizik; ikuspegi akademikoaren erdigunean ez da irakasgaia, ikaslea baizik; programa indibidualak ikasleari bere eritmoan ibiltzea ahalbidetzen dio; taldekako irakaskuntzak baliabideak ikaslearentzat eskura jartzen ditu. Willis-en iritziz ikuspegi honen hainbat irizpide oinarri egokiak izan daitezke hezkuntza sistema erreformatzeko, baina ez dute praktika pedagogiko berritzailerik eragin. Gehienez ere, Willis-ek dioenez, porrot egin duten eredu tradizionalak integratzeko balio izan dute. Maiz kontrola handitzeko asmoz edo bazeuden joerak zuzitzeko asmoz aplikatu dira teknika hauek. Willis-en arabera, teknika hauek jatorri erradikala izan dezakete agian, baina oinarri ezberdin eta zaharren gainean gauzatu dira.

Giroux-ek<sup>460</sup> dioenez, hezkuntza esanguratsuen diskurtsoak ikasleen beharrak asetzeko edo ikasleekiko atsegina izatea lehenesten ditu, helburu dutelarik eskolan ordena eta kontrola mantentzea. *Beharrak asetzeko* kontzeptuak ikaslearen gabezia adierazten du. Ikuspegi honen

---

<sup>458</sup> Olivier & Puigvert, 2003.

<sup>459</sup> Willis, 1988.

<sup>460</sup> Giroux, 1990.

oinarrrian dago gabezia sozialaren ideia eta, ondorioz, hezkuntza kulturalki aberaste, osatze edo asimilatze prozesutzat hartzen du. Diskurtso honek ia ez du aipatzen esperientzia pribilejiatutzat hartzen denak bizimodu zehatz bat lehenesten duela, bizimodu hori besteen gaintik balego bezala. Ikasleriaren esperientzia desbideratutzat, urritzat eta kulturalki eskatzat hartzen denez, ikasleak bestearen rola jokatzen du hezkuntzan. Beraz, eskola porrotaren arduraren osoa ikasleari leporatzeaz gain, ikuspegi horretatik nekez pentsa daiteke ea administratzaileek eta irakasleek arazorik sortzen dutenetz. Horrez gain, diskurtso honetan oinarritutako praktika pedagogikoez ez dute ikasleen liberazioa helburu. Ikasleen kulturaren eta herri kulturaren hainbat osagai bereganatzen saiatzen dira, soilik egoeraren kontrola mantentzearen. Ikuspegi honek botereaz eta dominazioaz jardute duenean, elkarrekiko errespetua eta ulermena sustatzen duten helburu pedagogikoa baliabide bezala erabiltzen dituzte, baina gehienetan bereizi egiten dituzte kultura eta botere harremanak.

Bernstein-ek<sup>461</sup> ere ikuspegi pedagogiko hauen ezaugarri txarrak nabarmentzen ditu. Bernstein-en arabera, bi praktika pedagogiko mota nagusi bereizi ohi dira maiz: kontserbadorea edo tradizionala eta progresista edo haurra erdigunetzat duena. Lehenak merkatua du orientazio eta legitimazio ardatz, lanbideko trebetasunak nabarmentzen dituelarik. Bigarrenak, berriz, merkatuarekiko independentzia duelarik, ezagutzari aitortzen dion autonomian oinarritzen ditu bere orientazioa eta legitimazioa. Bernstein-en arabera, bi pedagogia hauen artean dagoen aurkakotasuna bi ideologia elitisten arteko lehian oinarritzen da, lehena merkatuaren klase hierarkian oinarritua eta bigarrena, aldiz, ezagutzaren eta klase babesaren hierarkian oinarritua.

Reay-ren<sup>462</sup> arabera, Mendebaldeko gizarte ugarian klase soziala oraindik ere arrakasta akademikoaren *predictor* indartsua da, baina ezberdintze prozesuak hezkuntza maila gero eta altuagoetan gertatzen da. Gainera, Reay-k Ingalaterrako hezkuntza sistemari buruz dio langile klaseko ikasleak arrakasta duenean, honek ez duela suposatzen langile klase izatearen balorazioa baizik eta ezabatzea, hezkuntza ihes egiteko modu bezala. Izan ere, historikoki eta gaur egun langile klasea masa ezjakin, akritiko eta gustu gabeko bezala agertu da diskurtso dominatzaileetan. Gabezia da egozten dieten ezaugarri behinena. Langile klaseari buruzko irudi baikorrik ez egiteak sustatu egiten du hauek hezkuntza formalaren arloan deskualifikatuta eta akademikoki behar bezala ez babestuta egotea. Horrexegatik gaur egungo titulu akademikoekiko joera hazkorrak, *credentialism* delakoak, langile klaseak kaltetzen ditu gehien. Tradizionalki hezkuntza sistemak langile klaseak ertainak baino gutxiago, kultura gutxiagokoak, ez hain azkarrak izatearen ideia islatu du. Baina hezkuntza sistema hedatu eta modu berri batean estratifikatzearen ondorioz, langile klaseko ikasleek bizipen berriak izan dituzte hezkuntza sisteman, aldi berean barruan eta kanpoan egotearen sententzia alegia. Betidanik egon izan dira Reay *sink*, *failing schools* deitzen dituenak, aurrerabiderik eman ez eta hondoa jotzeko lekua ziren eskolak, baina orain *sink*, *failing universities* delakoak ere badaude.

Bernstein-en<sup>463</sup> arabera, hezkuntza konpentsatzailearen terminoa bera atentzioa emateko modukoa da. Ikasleek edo beren familiek gabeziak dituztela eta eskolak orekatu behar dituela adierazi nahi du. Arazoa termino hauetan planteatzen denean, ikasleak *kulturalki elbarriak* balira

---

<sup>461</sup> Bernstein, 2004.

<sup>462</sup> Reay, 2004.

<sup>463</sup> Bernstein, 1999.

bezala hartuz, ikasleen etiketatze lana erraz gauzatzen da. Irakasleek gutxi espero dute ikasle hauengandik eta gehienetan ikasleek errez erantzuten diete espektatiba hauei. Baina Bernstein-en iritziz ikerketek gehiago jo beharko lukete eskaintzen den eskola ereduaz aztertzea eta ez hainbeste ikasleen balizko gabeziataraz.

Bernstein-ek<sup>464</sup> Lehen Hezkuntzako ikasleak aztertuz ondorioztatu zuen ikasleen jatorrizko klase sozialak eta erabiltzen zuten hizkerak elkarrekiko harremana zutela. Bi bereizten ditu nagusiki: langile klaseetako seme-alaben *kode murrizta* eta gainerakoen *kode landua*, azken hau delarik eskolak erakundetzen duena. Baina Bernstein-ek<sup>465</sup> dio *kode murrizta* ez duela hizkuntza arloko gabeziarekin parekatu nahi. Eskolako kodearekin bat ez datorrela azaltzea zen bere asmoa. Bernstein-ek dioenez, klase sozial bakoitzak testuinguru bakoitzean modu ezberdinean jokatu du, jokatzeko joera ezberdinak dituzte, ez hobeak ez okerragoak.

Fernández Enguitak dioenez<sup>466</sup>, *aukera berdintasuna* da gaur egungo hezkuntza sistemek gehien maite duten aldarria. Erreforma bakoitzaren abiapuntua oraindik berdintasuna lortu ez izana eta bere aldaketan bitartez lortzearen promesa da. Baina aukera berdintasuna gauzatu dela gezurtatzen duten datuak asko dira (ikus 3. Atala).

Fernández Enguitaren<sup>467</sup> arabera, Mendebaldeko gizarte garaikideetan ezberdinkeria garrantzitsuenak klase, genero eta etnia arlokoak dira. Hiru arloek antzekotasunak dituzte eskolaren eremuari dagokionez. Lehenik baztertu egin zituzten. Hastapenetan eskolak fenomeno kaletarra ziren eta soilik goi burgesiarentzat (jatorrizko esanahiari jarraiki) eta elizaren, burokraziaren edo militarren arloko lanetara bideratutako burgesia txikiarentzat. Bigarren aro batean klase, genero edo etnia diskriminazioa sofritzen zutenak modu segregatuan eskolatu zituzten, bi bideko hezkuntza sortu zutenean. Hirugarren aro batean talde hauek eskola arruntetan sartu dira edo sartzen ari dira. Hontaz arduratu dira izen banarekin ezagutu diren hiru hezkuntza erreforma: *comprehensividad*, *coeducación* eta *integración* aldarriak izan zituztenak. Baina eskola *arrunt* edo *obiko* hauek beste sektore batzuen ereduari oinarrituz diseinatu jarraitu dute: burgesia ertain eta txikiarenean, gizonezkoenean, etnia nagusiarenean. Ezaugarri horiek betetzen dituzten ikasleek hor jarraitu dute, hezkuntza eredu horretara errazago egokituz. Gainera, irakasleek eta hezkuntza arloko agintariek ere nagusiki ezaugarri horiek dauzkate.

Erreforma hauen prozesuak eta emaitzak, Fernández Enguitak dioenez, espero zirenetik oso ezberdinak izan dira. Emaitza onenak emakumezkoek dagozkienak dira, Fernández Enguitaren arabera: gizonezkoek baino kopuru handiagoan dabilta hezkuntza sisteman, eta sarrera nahiz promozio emaitza hobeak lortzen dituzte hezkuntza maila guztietan, nahiz eta oraindik ez diren adar guztietara iristen. Klase sozialei dagozkien emaitzak, berriz, erdipurdikoak izan dira, nahiz eta iraupen luzeagoko erreformak izan diren eta horretan ahalegin handiagoa egin den. Talde hauentzat hezkuntza maila handitu den arren, hezkuntza mugikortasunerako aukerak handitu badira ere, klase jatorriak oraindik ere pisu handia du eskolako aukerei dagokienez (eta gero honek lan merkatuan dituen ondorioei dagokienez), baina kontuan hartu behar da erreformen eragina ez dela berdina izan klase apal guztientzat, batzuei beste baino mesede handiagoa egin

<sup>464</sup> Bernstein, 1988.

<sup>465</sup> Bernstein, 1999.

<sup>466</sup> Fernández Enguita, 1990, 82-92 or.

<sup>467</sup> Fernández Enguita, 1999.

baitie. Are ezberdinagoak dira etnien arloko emaitzak. Erreformatik gutxiengo batzuei mesede handia egin diete, baina beste batzuen emaitzak erabateko porrota izan dira.

Fernández Enguitaren arabera, honen guztiaren arrazoa ekonomikoa bezain beste da kulturala. Eskolak kultura mota batean oinarritua izaten jarraitzen du, kultura mota baten eredu eta transmisore izaten segitzen du. Kultura horrekiko urruntasunak edo hurbiltasunak eragin handia izango du ikasleen eskolako emaitzetan.

Aitzitik, O'Donell eta Sharpe-n<sup>468</sup> arabera, klase sozialari eta generoari dagokionez, gaur egun eskolak baliokidetasunaren eta parekidetasunaren alde egiten du, baina ezin ditu gainerako eragileen diskurtsoak eta praktikak gainditu. Eskolak ezin du gizartea gehiegi aldatu, epe motzera ez behintzat. Irakasleek duten gaitasun faltaren sentsazioa erreala da, beraien ekimenaren aurrean indar handia baitute etxeok, hedabideek eta adinkideek.

Willis-en<sup>469</sup> arabera ere, gaur egungo hezkuntza ereduak ez da gai klase sozial arloko eraldaketa sustatzeko, baina Willis-ek ereduari leporatzen dio, hain zuzen Willis-ek hezkuntzari buruzko ikuspegi sozialdemokrata deitzen duenari. Willis-en arabera, eredu honek ez du laguntzen klase egitura soziala gainditzeko. Ekonomiaren hazkundeak langile talde bakan batzuei posizioa hobetzen laguntzen die, baina taldeak oso txikiak dira eta hobekuntzak ez du zerikusirik hezkuntzarekin. Mugikortasun indibidual tasa handiek ere ez dute klase egitura eraldatzen laguntzen, eta are gutxiago gainditzeko laguntzen.

Baina, O'Donell eta Sharpe-n<sup>470</sup> arabera, 1960ko hamarkadan Hargreaves-ek eta 1970ekoan Willis-ek aztertu zutenaren parekorik ez da nabarmentzen 2000ko hamarkadako Ingalaterran. Badirudi etniaren osagaiak gain hartu diola eskolaren aurkako kulturaren ardatz nagusiztat.

Power, Whitty, Edwards eta Wigfall-en<sup>471</sup> arabera, berriz, Lehen Hezkuntzatik unibertsitate garaira arteko ibilbideak aztertuz, ondorioztatu dute gaur egun familia eta etxeok faktore garrantzitsua direla eskolarekiko orientazioa eta, neurri batean, emaitza akademikoak ulertu ahal izateko. Eragin honen hainbat alderdi kontuan hartuta ere ezinezkoa da ikasleen garapenari buruzko aurreikuspen sinplistik egitea, baina, *kulturalismo* eta *determinismo* bezala definitu dituzten ikuspegiak baztertuz, Power eta enparauek diote familia eta etxeok kontuan hartzea bitarteko baliagarria dela hezkuntza arloko garapena aztertzeko.

Terrén-en arabera<sup>472</sup>, badirudi postepistemologia posmodernoak metanarratibetan oinarritzen ez den hezkuntza diskurtso berria eskatzen duela. Beraz, balizko curriculum diseinu honek bere egin beharko luke kulturaren ikuspegi posmodernoak: Rorty-ren hitzei jarraituz, Terrének dio ez apaizak, ez fisikariak, ez poetak, ezta alderdikideak ere, ez direla besteak baino arrazionalagoak, ez zientifikoagoak, ezta sakonagoak ere. Hots, ezagutza posmodernoak ez dauka adituaren autoritatea eta, beraz, orain arteko legitimazio ereduak ez du balio eskolako ezagutzarentzat. Ondorioz, Newton-en zientziaren abiapuntutik erabili den curriculumaren ikuspegi anakronikoa da, itxia delako eta sinplekeria metatzailean oinarritzen delako. Hezkuntza modernoaren

<sup>468</sup> O'Donell & Sharpe, 2004.

<sup>469</sup> Willis, 1988.

<sup>470</sup> O'Donell & Sharpe, 2004.

<sup>471</sup> Pover & Whitty & Edwards & Wigfall, 2004.

<sup>472</sup> Terrén, 1999.

ortodoxiaren ardatz dira, baina balizko hezkuntza posmodernorako ez luke balioko. Nolanahi den, Terrének dio balizko hezkuntza posmodernoak oraindik ez duela eredurik.

Bestalde, hezkuntzaren eskaera handitzen ari dela ikusirik, Terrének galdetzen du ea hori ezagutzaren gizarte berriaren adierazle den. Itxaropena eta desilusioa uztartzen dituen ziurgabetasunean ibiltzen direnentzat gizarte postindustrialaren utopia ez dago batere hurbil, hots, gero eta lan gutxiago baina modu kualifikatu eta aberasgarriagoan egingo litzatekeen gizarte hori. Aldiz, hurbila da azpienpleguaren, aldi baterako lanaren edo langabeziaren *miseria posmoderno*a. Eta bere bazterketaz ziur denarentzat, ziurgabetasunaren eremu gris horretan ere ez dabilzanentzat, eskola bide itxia da, ez darama inora.

### 4.2.3 Tituluen inflazioa eta aldaketa morfologikoak

Erreforma hauek guztiek arazo berriak ere sortu dituzte. Hezkuntza sistemak esleitzen dituen tituluen inflazioa eta hezkuntza sistemaren aldaketa morfologikoen izaera aztertuko ditugu segidan.

Bourdieu eta Passeronen<sup>473</sup> arabera, titulu akademiko bati esker lor daitekeen etekin ekonomiko eta soziala, merkatu ekonomikoan eta sinbolikoan dagoen titulu akademiko horren ugaritasunaren edo eskasiaren arabera da. Kopuru erlatiboaren arabera lortzen du titulu akademiko batek balio handiagoa edo txikiagoa izatea. Bourdieuren<sup>474</sup> arabera, beste merkatuetan bezala, titulu akademikoen merkatuan ere funtsezkoa da ezberdintzeko gaitasuna: posizio batek besteek baino balio sozial handiagoa izan dezan derrigorrez behar du besteekiko ezberdintasun lehiakorra, posizio bat besteen gainetik jarriko duten ezaugarri bereizgarriak alegia. Horrexegatik, Bourdieu eta Passeronen<sup>475</sup> arabera, ikasketetan porrot egiten duten ikasleek edo balio sozial txikiko ibilbide akademikoak egiten dituztenek ere funtzio orokor garrantzitsua jokutzen dute: ezberdinketa ahalbidetzen dute.

Bourdieu eta Passeronen<sup>476</sup> diotenez, titulu akademikoen merkatu lehiakorrean, beraz, eskolaratze masiboak aldaketa sakonak eragin ditu. Eskolaratze masiboa zabaldu ahala, talde sozial guztiek luzatu dituzte beren ibilbide akademikoak. Hezkuntza Sistema masifikatu aurretik, titulazio txikiek ere balio handia zuten. Gaur egun, berriz, gero eta jende gehiagok egiten ditu baita goi ikasketak ere. Ondorioz, ikasketa mota bakoitzeko titulatu kopurua asko handitu da eta, beraz, titulatuaren inflazio honek eragin du titulu hauen balio galera merkatu akademikoan, dagoeneko ez baitira hain bereizgarriak. Hori dela eta, ezberdintzeko modu berriak sortu dira.

Bourdieuren arabera<sup>477</sup>, titulazio akademikoekiko lehiakortasun gero eta handiagoa sustatu egin dute, besteak beste, talde dominatzaileek eta ertainek, bereziki kapital ekonomikoan aberatsak direnek, zeren erreprodukzioa bermatzeko inoiz baino gehiago inbertitu behar izaten baitute kapital eskolarrean. Duela gutxi arte hezkuntza sisteman ibilbide mugatua zutenetatik gehienek besteen pare luzatu dute denboran beren ibilbide akademikoa. Ondorioz, titulazioen inflazio

<sup>473</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 203-204 or.

<sup>474</sup> Bourdieu, Pierre, *Cuestiones...* 146-147.

<sup>475</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 203-204 or.

<sup>476</sup> Bourdieu & Passeron, 2001b, 115-116.

<sup>477</sup> Bourdieu, 1999b, 131-132 or.

handia dago eta, beraz, gaur egun Hezkuntza Sistemak bakarrik ez du garai batean bezala bermatzen erreprodukzioa. Titulazio zehatz batean titulatuaren kopurua handitu arren, lanpostu eskaintza ez bada neurri berean handitzen, titulazioen balioa txikitu egiten da. Gerta daiteke baita ere eskaintzen diren lanpostuen kopurua handitzea baina lehenago titulazio bereizgarria zenaren balioa murriztea, beste maila bateko titulazioak bihurtu direlako bereizgarri.

Hala ere, Bourdieuk<sup>478</sup> dioenez, tituluen balioa aldatu den arren, agente askok oraindik ere titulu horiei beihala zuten balioa aitortzen diete. Hortaz, tituluen jabeek beren aspirazioak garai batean titulu horiek zuten balioan oinarriturik eraikitzen badituzte, dezepzioa oso handia izan daiteke.

Bourdieuk<sup>479</sup> *histeresia* deitzen duen fenomeno ohikoa da gaur egun. Produktu sozial bati, titulazio akademiko bati adibidez, orain garai bateko balioa eman nahi izatea da, debaluazioa kontuan hartzeke. Histeresia handiagoa da Hezkuntza Sistemarekiko distantzia handitu eta titulazio akademikoaren merkatuarekiko informazioa ahulagoa edo abstraktuagoa izan ahala. Bourdieuk *alodoxia* ere aipatzen du: produktu sozial bati, titulu akademiko bati adibidez, objektiboki ez dagokion balio soziala ematea. Titulazio akademiko baten balioa oro har sozialki zenbat balia daitekeenaren arabera da. Lan merkaturako eskasa izan arren, agian inguruko zirkuluen artean balio handia izan dezake. Tituluen jabeek normalean tituluen balio nominalaren alde egin ohi dute, eta lanpostuen jabeek, berriz, balio errealaaren alde.

Titulazioen debaluazioaren aurkako erresistentzia, Bourdieuren<sup>480</sup> iritziz, askoz handiagoa da jatorri sozial altu bati lotutako kapital soziala izanez gero. Baina aldi berean, titulazioaren debaluazioaren biktima nagusiak lan merkaturako titulurik gabe sartzen diren agenteak dira, debaluatutakoa baino beherago baitaude. Titulurik ez daukatenean kaltetan, gero eta gehiago dira titulua derrigorrezkotzat duten lanpostuak. Dena den, titulazio akademikoari aitortzen zaion errekonozimendu gero eta handiagoak, Bourdieuren ikuspegitik, eragin onuragarriak izan ditzake: sistema ofizialetan bateratzen dira posizio sozial batzuk betetzeko eskubidea ematen duten titulu eta gaitasunak eta, ondorioz, isolatze efektuak murriztu egiten dira; hau da, beren hierarkizazio sistemak dituzten espazio sozialak gutxitu egiten dira. Hala ere, honek ez du esan nahi titulazio akademikoak bihurtu denik agente ekonomikoaren eredu bakar eta unibertsala. Merkatu eskolarretik kanpo, titulazioaren balioa bere jabearen balio ekonomiko eta sozialaren parekoa izango da. Bourdieuren ikerketen arabera, jatorri sozialean igo ahala, aukera handiagoak daude, esate baterako, zuzendari funtzioetan aritzeko, eta gutxiago ekoizpen, fabrikazio edo mantenu lanetan aritzeko. Heredatutako beste bitartekorik ez dutenek sofritzen dute gehien titulazioen debaluazioa.

GRET ikerketa taldeko Casal-en<sup>481</sup> arabera, Eskolatik Lanerako Trantsizioa (ELT) nabarmen aldatu da azken hamarkadetan. Masarentzat diseinatutako hezkuntza sistemaren testuinguruan gertatzen da hori. Eskola-lana harremanean hezkuntza sistemak, lanaren eremuak eta bestelako agente sozialek diskurtso berri bat barneratzen dutenean jazotzen da: berariazko trebakuntza akademikoak lanerako balioesten denez, gazteek hezkuntza sistemaren zirkuluak kurritzen dituzte titulu akademikoak lortzeko asmoz. Titulu akademikoak ziurtagiri profesionaltzat hartzen dituen

<sup>478</sup> Bourdieu, 2000a, 146-147 or.

<sup>479</sup> Bourdieu, 1999b, 140 or.

<sup>480</sup> Bourdieu, 1999b, 132-134 or.

<sup>481</sup> Casal, 2003.

diskurtsoa modu eraginkorrean hedatu da. Bere egin dute agente sozialek (enpresek eta sindikatuek) eta hezkuntza erkidegoak (irakasleek, familieek eta ikasleek). Titulu akademikoen truke-balioak baldintzatu egiten ditu agente sozialen eta hezkuntza erkidegoaren posizioak eta espektatibak.

Ondorioz, Casalen arabera, tituluen inflazioa handiagoa izan ahala, handiagoa izango da ELTaren iraupena. ELT motelduak ezartzen duen joera da hezkuntza sistemaren baitan matentzearena, baita emaitza akademikoak kaskarrak direnean ere, baldin eta beharrezkoa bada espezialitatea edo adarra aldatuz. Normalean azpiokupazio orokorra eragiten du. Casalen arabera, Castells-ek *kapitalismo informazionala* deitzen duenaren garaian eskola-lana harremana konplexuagoa da. Ikasketak-langabezia-enplegua lerroaren ordeztu gaur egun ibilbide akademikoen eta profesionalen egoerak eta prozesuak askoz konplexuagoak dira. Gainera, ELT iraupen luzeagokoa da eta testuinguru sozio-ekonomiko berri batean txertatzen da: lanaren desazelerazio eta deserregulazio prozesuek kaltetu egiten dituzte ongizatea, egonkortasun eta berdintasun soziala. Horrez gain, Casalen arabera, abiapuntuko trebakuntzaren garrantziak inoiz ez bezalako zentraltasuna hartu du. Horren guztiaren ondorioz erabat aldatu da ELT eraikitze eta egiteko modua.

Cardenal-ek<sup>482</sup> dioenez, titulazio kopuruaren inflazioak herritarren kultura maila estandarizatu handitu egin du, baina ez du lehen titulu horiei zegokien lanpostuen kopuruaren handitzea eragin, erabaki horiek lan merkatuaren eta ekoizpen sistemari baitagozkie. Ondorioz, tituluen inflazioa dela eta, tituluek balioa galdu dute lan merkatuan: 1972-1976 urteen artean letretan lizentziatuen %60ak bere ibilbide profesionala goi mailako profesional bezala hartzen zuen, %25ak erdi mailako profesional bezala eta %15ak beste lanbide batzuetan; 1987-1991 urteen artean portzentajeak %40, %25 eta %35 izan ziren hurrenez hurren. Honenbestez Cardenal-ek dio hezkuntza sistemaren oinarria gaur egun oso ahula dela, ez baita gai promes egiten duena betetzeko: onenentzat goranzko mugikortasun soziala eta lanpostu on bat titulua lortzen dutenentzat. Bi promesa hauetako batere ez du betetzen hezkuntza sistemak.

Fernández Enguitak<sup>483</sup> MECen datuetan oinarrituz (ikus 1.4 atala) dio datu hauek guztiek ezberdintasunak argi islatzen dituztela baina ezberdintzeko moduak asko aldatzen ari direla. Ezberdintasunek jarraitu egiten dute baina eskolatzeko maila altuagoetan islatzen dira. 1966 eta 1986 urteak alderatzerakoan argi ikus daiteke eskolatzeko maila handitu egin dela (ikus 22. Taula).

Fernández Enguitak 1975-76 eta 1985-86 ikasturteak alderatzen dituenean, ikus daiteke Batxilergoko ikasleen kopurua %51 eta lanbide heziketakoena %142 handitu zela. Unibertsitatean hazkundea %56koa izan zen denbora tarte horretan, baina alde handia zegoen ikasketa mota batzuen eta besteen artean: fakultateetan %65, unibertsitate eskoletan %48 eta goi mailako eskola teknikoetan %15. Beraz, Fernández Enguitaren arabera, hezkuntzaren masifikazioa edo demokratizazioa deitzen dena modu selektiboan gertatu zen, arlo guztiei ez baitzien maila berdinean eragin.

---

<sup>482</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 70 eta 81 or.

<sup>483</sup> Fernández Enguita, 1990.

22. Taula: Eskolatzte adinean daudenen eskolatzte maila adinaren arabera. Espainiako estatua, 1966 eta 1986 (ehunekoak)								
Urtea	Adina							
	4	6	9	14	16	18	21	25
1966	%42	%53	%84	%65	%26	%14	%8	%4
1986	%95	%97	%100	%99	%61	%41	%22	%8

Iturria: Fernández Enguita, Mariano: *La escuela a examen*, 72-77 (MECen datuetan oinarritua)

Gainera, Fernández Enguitak dioenez, enpleguen piramidea ez zen asko aldatu eta ondorioz ikasketa formalen maila orokorra handitu zenean, unibertsitateko tituluek, batik bat gehien masifikatu zirenek, ez zuten lehen bezain beste balio enplegua lortzeko.

Sennett-en<sup>484</sup> arabera, hezkuntza sistemak trebatzen dituen gazte andanari ez zaio enplegurik ematen, edo behintzat ez zaio ematen trebatuta dauden arloetan.

Baina, Bourdieuren<sup>485</sup> iritziz, hezkuntza sisteman eta hari lotutako beste eremuetan gertatu diren aldaketak ezin dira inflazio-debaluazio prozesu mekaniko batera mugatu, jakina. Talde eta, areago, indibiduo bakoitzaren estrategietan konplexutasun handia ikus daiteke. Hamaika faktore sartzen dira jokoan. Horiek guztiak, gainera, testuinguru eraldatu batean jazotzen dira gaur egun: hezkuntza sistemaren baitan aldaketa morfologiko nabarmenak gertatu dira.

Bourdieu<sup>486</sup> dioenez, lehenago hezkuntza sistemak etapa argiak zeuzkan eta etapa bakoitza gainditzeak edo bertan gelditzeak esanahi argia zeukan. Eskolaren beihalako muga argiek banaketa sozial argiak erakusten zituzten. Hezkuntza sistema garaikidearen ibilbideek, ordea, adar anitz dauzkate eta ez da lehenago bezain erraz ikusten hierarkizazioaren bertsio berria. Hierarkia sotilek sarri ez dute ikusten uzten bide askok ez daramatela ustez daramaten lekura. Sakon ezagutu behar da hezkuntza sistema berria baldin eta zehazki esan nahi bada zeintzuk diren irteerarik gabeko ibilbideak eta zeintzuk ez. Aisa eror daiteke balioa galdu duten titulazioetan, zeren balioa galdu duten orientabideak ere asko baitira. Ondorioz, aspirazio eta aukeren arteko doikuntza eza lehenago baino handiagoa da, baina aldi berean, tartea askoz lausoagoa da. Hezkuntza sistema tradizionalak indartsu barneratzen zituen mugak: porrotak eta mugak zuzentzat eta ekidinezintzat ikusarazten zituen. Gaur egun askoz bide eta bidexka gehiago eskaintzen dira ibilbide akademikoak eten ez daitezen, baina ibilbideen balioa zalantzarazkoa da kasu askotan. Gaur egungo hezkuntza sistemak ez du desinbertsio gordina sustatzen baina aldi berean ez du ibilbideen ikuspegi errealista erakusten.

Cardenal-en<sup>487</sup> arabera, *eskola unibertsalaren* eredia Europako herrialde aurreratuenetan baino beranduago gauzatu zen Espainiako estatuan. Gainera, enpleguaren krisia hedatzen hasi zen garai berean izan zen. Honenbestez, enpleguaren krisiak indartu egin zuen eskola unibertsalaren papera. Testuinguru honetan 1990eko Ley de Ordenación General del Sistema Educativo izenekoak derrigorrezko eskolatztea 16 urtera arte atzeratu zuen. Lege hau mugarri izan zen: araua dibertsifikatu egin zen: bigarren hezkuntzako irakasgaien aukera zabaldu egin zen, baita lanbide

<sup>484</sup> Sennett, 2006, 76-77 or.

<sup>485</sup> Bourdieu, 1999b, 153-154 or.

<sup>486</sup> Bourdieu, 2000a, 146-147 or.

<sup>487</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 18 or.



heziketako aukera ere, praktikak berariazko lantokietan egin behar ziren, eta abar. Hezkuntza sistema adar anitzez osatutako dispositibo oso konplexua bihurtu zen eta hautaketa lerroak berdefinitu egin ziren. Aldaketa hauek eragin nabarmena izan dute. Gero eta urte gehiago ematen dira ikasketetan (esperientzia hori partekatzen du belaunaldi gazteak) baina aldi berean ibilbide akademikoak konplexuagoak eta lausoak dira, ez baititu ibilbide sarearen hierarkizazio sotila eta irteerarik gabeko bideak argi ikusten uzten eta arrakastarako erabakiak hartzeko zalantzak sorrarazten ditu. Hortaz, hezkuntza sistema erreformaren ondoren bi aurpegiko prozesua bihurtu da: estandarizatu eta dibertsifikatu egiten du aldi berean. Lehengo eskola ereduaren hautaketa moduak eskola mailako banaketa (eskola arloko merituen banaketa) argi islatzen zuten eta ikasleek errazago barneratzen zituzten. Artean, itxuraz inor diskrimatzen ez duten eredu berriek ez dute ikaslea argi posizio sozial batera bideratzen ari direla erakusten eta, beraz, ikasleak ez du ustez dagokion posizio hori barneratzeko erraztasunik.

Bourdieu<sup>488</sup> arabera, erreproduzio soziala bermatzeko estrategiak erabakitzeko orduan, zentzu praktikoa zorroztea gero eta beharrezkoagoa da, bereziki eskolari dagokionez, zeren ibilbide akademikoan aniztasun gero eta handiagoak bide bakoitzaren balioa lausotzen baitu sarri. Bakoitzak bere ezagutzari esker edo, bestela, inguruko pertsonen bitartez jakin dezake bide bakoitzaren balioaren berri. Lortzen den informazioaren baliagarritasunaren arabera, burtsan bezala, bakoitzak bere kapital kulturalari etekin handiagoa edo txikiagoa atera ahal izango dio. Kasu honetan ere ikus daiteke arrakasta akademikoaren eta jatorri sozialaren arteko harremana: joeraz, kapital handiagoa daukanak egin ahal izango ditu aukera eraginkorrenak.

#### 4.2.4 Neoliberalak

Terrén-ek<sup>489</sup> dio eskolaren krisi giroan ikuspegi neoliberalak arrakasta izan dezakeela, baina, Terrénean iritzi, alternatiba okerra da. Hezkuntzarekiko neoliberalismoaren diskurtsoan ardatzetako bat goitik inposatutako modernizazio teknokratiko-burokratikoaren aurka egitea da. Berdintasuna eta demokraziaren erradikalizazioa proposatzen dutenen aurka, diskurtso neoliberalak eraginkortasuna, kalitatea eta aukeratzeko gaitasuna nabarmentzen ditu. Hiritartasunaren praktika kontsumitzailearen dinamikara murrizten du. Arrazionaltasun planifikatzaileak gero eta gaitasun txikiagoa du bestelako merkatuak kontrolatzeko, industrialismo fordista masa merkatu egonkorra eta bizimodu uniformizatuak zirenean ez bezala, eta era berean hezkuntzan gero eta zailagoa da egitasmo politiko global batekiko koherentea izango den eta arrazionaltasun sozial definitua izango duen eredu diseinatzea. Neoliberalismoak proposatzen duena da hezkuntza gero eta gehiago izatea kontrol pribatuaren eta interesaren kudeaketa enpresarialaren menpe dagoen espazio publikoa. Merkatuaren *arrazionaltasuna* ardatz izatea proposatzen du neoliberalismoak.

Terrénean arabera, bere bidea egin ahal izateko, 1960ko hamarkadan indartsu plazaratu ziren kritikek utzi zuten giroa baliatzen du neoliberalismoak. Izan ere, neoliberalismoarentzat nahiz pedagogia ezkertiar erradikalentzat arazoa goitik inposatutako modernizazio teknokratikoa zen, baina batzuentzat nahiz besteentzat ideia horren edukiak oso ezberdinak ziren. Batzuentzat

---

<sup>488</sup> Bourdieu, 1997, 40 or.

<sup>489</sup> Terrén, 1999.

kapitalismo berantiarrek baretu eta moldatu egin zuen bere akaberan ikus zitekeen errepresioaren logika, zeren ekimen berri hauek bermatu egin nahi baitzuten ustiapena eta ezberdinkerien erreprodukzioa. Besteentzat, berriz, bizitza ekonomikoaren burokratizazio prozesuan izkutuko filozofialismoa ikusten zuten eta honek mehatxatu egiten zuen askatasuna, hauentzat demokraziaren oinarri zena. Neoliberalismoarentzat kapitalismoak eta demokraziak elkarren beharra dute eta planifikazio sozialerako eredu eredu burokratikoek trahatu egiten dute kapitalismoaren eta demokraziaren arteko harremana. Horrexegatik ikusten dituzte Modernitatearen hezkuntza publikorako politikak oztopotzat.

Oliver eta Puigvert-en<sup>490</sup> arabera, Espainiako estatuan 2002. urtean onartu zuten Ley Órgánica de Calidad de la Educación (LOCE) delakoak, besteak beste, hezkuntza ibilbide aukera gehiago eskaintzen ditu, baina neurri honek aniztasunari mesede egin beharrean, zailtasun handienak dituzten ikasleak diskriminatzen ditu. Segregazioa da lege honen ardatz nagusienetakoa bat, bai ikasleei bai ikastetxeei dagokienez. Ikuspegi orekatzailea (konpentsatzailea) du oinarri, hau da, ikasle batzuk eskolako erritmoa jarraitzeko gai ez direla deritzo.

Bestalde, Oliver eta Puigvert-en arabera, 2002. urteko Ley Orgánica de Cualificaciones y de la Formación Profesional delakoak ere, ibilbide ugari eskaintzen dituelarik, aniztasuna du aldari, baina aldi berean dio “lanbide heziketako eskaintza publikoen garapena beti ere lan merkatuaren eta honek eskatzen dituen kualifikazioen arabera egingo” dela. Lanbide heziketa lan merkatuaren menpekotzat hartzean, lan merkatuari aginte rola aitortzen zaio.

<b>23. Taula: Hezkuntza arloko inbertsioen oinarrizko adierazleak EAEn, Nafarroan eta Espainiako estatuan, 2002 (portzentajeak eta kopuru absolutuak)</b>		
	<i>EAE</i>	<i>Nafarroa</i>
Hezkuntza ez unibertsitarioan egindako gastu publikoa (PBGaren %)	3,28	2,97
Hezkuntza unibertsitarioan egindako gastu publikoa (BPGaren %)	0,52	0,46
Ikasle ez unibertsitarioko gastu publikoa (euroak)	4.766	4,235
Ikasle unibertsitarioko gastu publikoa (euroak)	4.326	6.294
Hezkuntzarako gastu publikotik zenbat inbertitzen den ikastetxe pribatuetan	29,7	22,5
Ikasle ez unibertsitarioetatik zenbat dauden ikastetxe itunduetan	51,2	37,4
Ikastetxe pribatuetan egiten den gastu publikoa / ikastetxe itunduetan dauden ikasleak	2.737	2.571
Iturria: Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Oharrak: Kontuan hartu den gastua kasu orotan likidatutako gastua da. Datu hauetan gastu publikoak ez du barne hartzen matrikula bidezko finantzazio pribatua hezkuntza unibertsitarioan. Espainiako estatuko balioek soilik administrazio autonomikoek egindako gastuak hartzen ditu kontuan. Ez da kontuan hartzen Trebakuntza Okupazionalan, beketan eta jarduerarako egiten den gastua.		

Elkartzen-en<sup>491</sup> arabera, neoliberalismoak ezartzen dituen joerei jarraituz, hezkuntzan egin den gastu publikoaren kopurua erlatiboki txikitu egin da azken urteetan: 1993 urtean BPGaren %4,17 erabili zen eta 2005 urtean, berriz, %4 baino gutxiago, Espainiako estatuaren %5eko eta OCDEko %5,5eko batez bestekoaren azpitik jarritz (ikus 23. Taula).

<sup>490</sup> Olivier & Puigvert, 2003.

<sup>491</sup> Gara, 2006-09-25.

Nolanahi ere, azpiatal honetan ez dugu neoliberalismoa sakonago analizatuko, zeren hurrengo atalean, “III. Kontraerasoa” izenekoan, aztergai nagusienetako bat izango baita.

### **III. Kontraerasoa. Lanaren sareak politika neoliberalaren garaian**

#### **o. Garaiak aldatu egin dira**

Kontraerasoa, horixe da atal honen izenburua, baina zein da fenomeno honen subjektua eta zein objektua. Hau da, kontraerasoa nork egin du eta zer egin du, edo pluralean, nortzuk zer egin dute. Horri erantzutea da atal honen helburua.

Gatazka guztien muinean baliabide zehatz batzuk eskuratzeko borroka dago. Baliabideak ez dira soilik ekonomikoak. Kulturalak, sozialak edo sinbolikoak izan daitezke, besteak beste. Azken finean, ahal bezain beste botereren jabe egin eta mundua norberaren interesen arabera definitzeko ahaleginen arteko talka da gatazka. Lanaren mundua zenbateraino eta nola aldatu den aztertu nahi izanez gero, ezinbestekoa da gatazkaren nondik-norakoak kontuan hartzea.

Gurean azken aldi nagusiki beste gatazka batzuk izan ditugu hizpide eta bitartean aldaketa erraldoiak gauzatu dira hainbat eremutan. Lanaren mundua kasu.

Gaur egungo munduan aberastasuna sekulakoa da. Zentzu askotan gainera. Mundua ulertzeko gako bat aberastasun horiek nola banatzen diren aztertzea da. Horretarako lanaren mundua talaia bikaina da, zeren eremu honetan gertatzen diren gatazkek funtsezko garrantzia baitute nork zer eskuratuko duen erabakitzeko orduan.

Erronkariko esaera zahar batek hala dio: “kebengoek kangoei ebats; kerlak kala dra” (hemengoek hangoei ebatsi; gerlak hala dira). Hemen eta han esaten duenean, ez litzateke geografiari dagokion kontzeptu bezala ulertu behar. Hemen eta han esatea batek besteari esatearen parekoa da. Horrela uler daiteke gatazka, batek besteari kentzen saiatzea. Baliabideak beti dira mugatuak eta baliabide horiek eskuratzeko gatazka etengabea da. Batzuetan agerikoa, besteetan izkutukoa, baina egon, beti dago hor. Lanaren munduko gatazkek (pluralean) forma eta eduki zaharrak eta berriak dauzkate. Ikuspegi zaharrak eta berriak uztartuz fenomeno sakonago ulertu ahal izateko ahalegina da honakoa. Zer eta nola aldatu den ulertzeko zenbait gako azaltzen saiatuko gara hurrengo orrialdeetan, gehienetan ere ikuspegi kritiko batetik. Gako bakoitza bakarka hartuta soilik erantzunaren zati batekin geldituko ginateke. Gako bakoitza azaldu ondoren, galdera berriak sortzen dira. Horrexegatik gakorik gako azalpenaren ibilbide osoa egitea komeni da, aldaketei buruzko ikuspegi zabalagoa lortu ahal izateko.

Lehenengo atalean gaur egun asko hedatu den diskurtsoa izan dugu aztergai: merkatuen globalizazioa eta teknologien iraultza. Bigarren atalean aldaketekin nortzuk irabazi eta nortzuk galdu duten definitzen haste aldera, aberastasunaren banaketaren bilakaera analizatu dugu. Hirugarren atalean azken hamarkadetan berebiziko garrantzia izan duen egitasmo politiko baten nondik norakoak izan ditugu hizpide. Laugarren atalak azken hamarkadetako mugimendu kritikoa aztertuko du, hain zuzen honek aldaketengan izan duen eragina. Hurrengo atalean langile ereduaren ezaugarriak nola aldatu diren analizatuko dugu. Seigarren atalak ekoizpen eta langile sareak izango ditu aztergai eta azken bi ataletan, berriz, nagusitzen ari den denboraren errejimena eta errejimen sinbolikoa hurrenez hurren.

# 1. Teknologien iraultza eta merkatuen globalizazioa

Teknologien iraultzari eta batik bat merkatuen globalizazioari buruzko diskurtsoak bazter guztietara hedatu dira. Liburu uholdeak eragiteaz gain, hedabide indartsuenetan zabalkunde handiena duten ideiak dira agian, eta jende ugariaren ahotan ere entzun daitezke maiz. Bi faktore hauek, teknologien iraultza eta merkatuen globalizazioa, zertan diren analizatzeko sarri aipatzen da Manuel Castells-en lana. Aldeko nahiz kontrako ugari izan arren, ezin uka erreferentziala dela. Castellsen ikerketek askoz eremu gehiago ere aztertzen dituzte baina bere lanetan bi fenomeno hauek ezagutzeko makina bat azalpen aurki ditzakegunez, atal honetan Castellsen ekarpena hartuko dugu oinarri.

Hortaz, orain Kontraerasoaren bi subjektu ditugu aztergai: merkatuen globalizazioa eta teknologien iraultza. Azalpen hauek ez gaituzte asebeteko, hainbat zalantza, galdera eta kritika eragingo baitituzte, baina diskurtso eta praktika hain hedatuak aztertzea abiapuntu egokia izan daiteke.

## 1.1 Teknologien iraultza

Kristauen egutegian bigarren milurtekoa bukatu eta berria hasi denean, aldaketa sakonak gertatu dira gure gizarteetan. Castells-en arabera<sup>492</sup>, teknologien iraultza funtsezko fenomenoetako bat izan da. Teknologia iraultzari buruzko diskurtsoetan maiz exagerazio profetikoa edo manipulazio ideologikoa aurki ditzakegu, Castellsen iritziz<sup>493</sup>, baina hala izanik ere, Castellsen aburuz ezin da bere eragina gutxietsi: azken hamarkadetan gauzatzen ari den teknologia iraultza XVIII. mendeko industria iraultza bezain garrantzitsua izaten ari da, aldaketa handiak sustatu baititu ekonomian, gizartean eta kulturaren. Bereziki 1980ko hamarkadatik aurrera gizartea berregituratzeko bitarteko oso garrantzitsua izan da.

Bi mende behar izan zituen industria iraultzak Europa Mendebaldean hasi eta munduaren zati handi batera hedatu ahal izateko. Informazio teknologiak, aldiz, beste horrenbeste hedatu dira bi hamarkadetan zehar, 1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera.<sup>494</sup>

Nolanahi ere, teknologia iraultza garaikidea hobeto ulertzeko komenigarria da industria iraultzaren ezaugarriei begiratzea, Castellsen iritziz<sup>495</sup>. Historialariek frogatu dutenaren arabera, gutxienez bi industria iraultza izan ziren. Lehenengoa XVIII. mendearen azken herenean hasi zen. Garai hartan zenbait teknologia berri agertu ziren: lurrin makina, hainbat erabilera zituen ehuntzeko makina, eta Cort prozesua metalurgian, besteak beste. Oro har, epe horretan makinek tresnak ordezkatu zituzten. Bigarren industria iraultzan, berriz, ehun bat urte geroago, asmakuntza berriak izan ziren oinarri: elektrizitatearen garapena, barne konbustioko motorra, zientzian oinarritutako kimika, altzairuaren fundizio eraginkorragoa eta komunikazio teknologien hastapenak (telegrafoaren hedapena eta telefonoaren asmakuntza). Mendebaldea deitzen den herrialde horien indarraren mundu mailako hazkundea ezinezkoa zatekeen iraultza hau gertatu

<sup>492</sup> Castells, 2001a, 33 or.

<sup>493</sup> Castells, 2001a, 60 or.

<sup>494</sup> Castells, 2001a, 64 or.

<sup>495</sup> Castells, 2001a, 65 or.

izan ez balitz. Mendebaldearen indarra batik bat gaitasun teknologikoari lotua dago, Castellsen iritziz. Bi iraultza teknologikoen aurretik Mendebaldeak izan zuen bilakaera aztertuz gero, kulturen, zientzian, politikan edo arlo militarrean ezin dugu aurkitu Mendebaldearen mundu mailako boterea azaltzen duen faktorerik.

Teknologia iraultzak batik bat informazioaren teknologiak izan ditu oinarri, Castellsen ikuspegitik<sup>496</sup>. Zehatzago esatearren, aldaketaren nukleoa informazioa prozesatzen duten eta komunikaziorako balio duten teknologiak izan dira. Gauzatu diren industria iraultzetan lurrin makina, erregai fosilak eta energia nuklearra ardatz izan diren bezala, iraultza teknologiko honetan informazioaren teknologiak dira oinarri. Nolanahi ere, gaur egungo teknologia iraultzaren ezaugarri behinena ez da ezagutzaren eta informazioaren zentraltasuna baizik eta ezagutza eta informazio horien aplikazioa ezagutza ekoizten duten eta informazioa / komunikazioa prozesatzen duten tresnetan. Honela, berrikuntzak eta teknologia berrien erabilerak elkar elikatzen dute. Ondorioz, ordenagailuak, komunikazio sistemak eta geneen dekodifikazioa nahiz programazioa giza adimenaren luzapen bihurtu dira. Giza adimenaren eta makinaren arteko integrazioa gero eta handiagoa da.

Castellsek informazio teknologien hainbat ezaugarri nabarmentzen ditu:

- 1) Informazioa da beren lehengai. Teknologia berriek informazioaren gain eragiten dute. Informazioa ez dute soilik teknologiaren gain eragiteko erabiltzen, aurreko teknologia iraultzetan gertatzen zen bezala.
- 2) Informazioa giza jardueraren ezinbesteko osagaia denez, bitarteko teknologiko berriek eragin sakona dute indibiduoarengan eta kolektiboarengan baina ez dituzte inondik inora determinatzen.
- 3) Sarearen morfologia dute oinarri. Sare moduko harreman logikaz baliatzen dira.
- 4) Malgutasunean oinarritzen dira. Prozesuak atzera bota daitezke, erakundeak moldatu egin daitezke, baita erroten eraldatu ere.
- 5) Teknologia zehatzak gero eta gehiago uztartzen dira. Sistema oso integratua osatzen dute. Behialako ibilbide teknologiko bereziak orain konbinatu egiten dira. Hartara, mikroelektronika, telekomunikazioak, optoelektronika eta ordenagailuak uztartu egiten dira informazio sistemetan.

Teknologia iraultzak dimentsioa soziala du ezinbestean. Pablo Sastrek<sup>497</sup> hainbat tresnen genealogia eginez, asmakuntza hauen jatorria eta eragina aztertu ditu. Marazzi-ren<sup>498</sup> arabera, teknologia berriek ez dute berez auresateko modukoa den ezer, adibidez ordenagailu bati hamaika erabilera eman dakizkiokeelako, baina gaur egungo teknologia eta antolakuntza jauziak aldaketa tekniko soilak baino askoz gehiago dira: normaltasun garaian sendotu diren zirkulu sozialak, errutinak eta botere guneak suntsitzea da aldaketa hauen funtsa, kontrol politikoaren arloko helburuak baititu oinarri. Castellsek<sup>499</sup>, berriz, eduki sozial zehatzik eman gabe, Kranzbergen legea gogoraraziz, dio teknologia ez dela ez ona, ez txarra, ezta neutrala ere. Ekonomian, esate

<sup>496</sup> Castells, 2001a, 61-63 or.

<sup>497</sup> Sastre, 2007.

<sup>498</sup> Marazzi, 2003, 18 eta 61-62 or.

<sup>499</sup> Castells, 2001a, 109 or.

baterako, eragin nabarmena du. Castellsen<sup>500</sup> iritziz, produktibitatea eta lehiakortasuna gero eta gehiago oinarritzen dira informazioaren ekoizpen, prozesamendu eta aplikazio eraginkorrean. Horrexegatik Castells-ek ekonomia mota berri bat dela dio: ekonomia informazionala. Baina kontzeptu hau ez da postindustrialismoaren teorien parekoa. Castells-ek azaltzen duenez, industrialismoa eta postindustrialismoa bereizten dituzten teoriak esaten dute postindustrialismoan ezagutzaren ekoizpena dela produktibitatearen eta hazkundearen oinarria, jarduera ekonomikoa produktuen ekoizpenean oinarritzetik zerbitzuak ematean oinarritzera pasatzen dela, eta informazio eta ezagutza gehien baliatzen dituzten jardueren garrantzia handitzen dela. Castells-en iritziz, ordea, ez da ekonomia industrial eta postindustrial bereizi behar, baizik eta ezagutzan oinarritutako nekazaritza, industria eta zerbitzu ekoizpenen bi formen artean. Postindustrialismoa beharrean, informazionalismoa nabarmentzen du Castells-ek.

Bestalde, Castells-ek azaltzen duenez, postindustrialismoaren teorien arabera, gizarte postindustrialean industriako enplegua desagertzen eta zerbitzuetakoa ikaragarri hazten ari da. Castells-en arabera, argi dago gaur egungo ekonomiak zerbitzuetako enplegu kopuru oso handia ekoizti duela, baina ez da ahaztu behar zerbitzuetako enplegu ugari industriako ekoizpenean oinarritzen direla eta, beraz, ekoizpen egitura beraren zatiak direla. Halaber, nahiz eta AEBetan eta Europako Batasunean industriako enpleguen kopurua txikitu, ezin da ahaztu oro har kopurua nabarmen handitu dela. Gainera, eremu batzuetan txikitu arren, eremu horietan zerbitzuetan sortu diren enplegu asko eta asko industriako ekoizpenen egitura berean kokatuta daude.

Postindustrialismoaren teorien arabera, kualifikazio handia behar duten eta informazioa baliatzen duten enpleguen hazkundera oso handia izango zen. Castells-en arabera, lan mota hauen kopurua nabarmen handitu bada ere, ia maila berean handitu da kualifikazio oso txikia edo bat ere gabeko lanen kopurua. Hortaz, Castells-en arabera, enplegua gero eta polarizatuagoa dago.

Azkenik, postindustrialismoaren teoriak gainbegiratzeari dagokionez, Castells-ek nabarmentzen du joera orokorrak egon, badaudela, baina ezin dela eredu teoriko bakar bat ezarri, zeren joera hauek testuinguru ezberdinetan modu heterogeneotan gauzatzen baitira.

## 1.2 Merkatuen globalizazioa

Gaur egungo ekonomia, globala da, Castellsen arabera<sup>501</sup>. Errealitate historiko erabat berria da. Ekonomia globala eta mundu mailako ekonomia ezberdinak dira, Castells ikuspegitik. Mendebaldean gutxienez XVI. mendetik mundu mailako ekonomia garatu da. Hau da, ekonomia honetan pilatzen zen kapitalak munduko bazter gehienak zituen sorleku. Baina ekonomia globala beste zerbait da: mundu mailan garatzen da, modu unitarioan, eta denborari dagokionez aldi berean eta epe jakin batean. Mundu mailako ekonomia ez da ekonomia globala bihurtu XX. mendearen bukaera aldera arte. Horretarako ezinbestekoak izan dira informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien azpiegiturak. Halaber, gobernuak eta nazioarteko erakundeek bultzatu dituzten deserregulazio eta liberalizazio politikek bidea egiten lagundu diote gaur egungo ekonomia globalari.

---

<sup>500</sup> Castells, 2001a, 111 or.

<sup>501</sup> Castells, 2001a, 136-200 or.

Nolanahi ere, Castells-en<sup>502</sup> arabera, guztia ez da globala XXI. mende hasiera honetan: ekoizpenaren zati handiena, enplegua eta enpresak tokikoak edo erregionalak dira eta hala izaten jarraituko dute. Eta hala ere, ekonomia globala egon, badago, zeren mundu osoko ekonomiek (ekonomia hauen elementu globalek nahiz tokikoek) ekonomiaren nukleo globalizatuaren errendimenduarekiko menpekotasun handia baitute. Nukleo globalizatu horretan daude finantza merkatuak, nazioarteko merkataritza, ekoizpen transnazionala eta, neurri batean, zientzia eta teknologia eta lan espezializatua. Ikus ditzagun elementu hauek guztiak banan-bana.

### 1.2.1 Finantza merkatuak

Mundu osoko finantza merkatuek elkarrekiko harreman erabat estua dute, Castellsen arabera. Lotura globala taigabea da. Ez dago denbora edo espazio etenik. Egoera hau ezinezkoa litzateke hainbat aldaketa gauzatu izan ez balira. Batetik, herrialde gehienetan finantza merkatuak deserregulatu egin dira, eta transakzio transnazionalak, berriz, liberalizatu. Hori egin ahal izateko ezinbesteko euskarri bat behar da: teknologia berrien azpiegitura (telekomunikazio garatuak, informazioa jasotzeko eta bidaltzeko sistema interaktiboak eta ordenagailu oso aurreratuak transakzioen konplexutasuna abiadura handiz prozesatu ahal izateko). Bestetik, finantza merkatuen arteko lotura zilegiztatzeko funtsezkoak izan dira finantza produktu berriak: *options* eta *swaps* delako produktuen gisako eratorriak, besteak beste. Horrez gain, finantza fluxuen mugimendu espekulatiboek ere sustatu egiten dute finantza merkatuen integrazioa, zeren merkatu, titulu edo moneta batetik atera eta beste batera sartzen baitira maiz. Azkenik, arriskuak kalifikatzen dituzten agentziak ere faktore garrantzitsua dira finantza merkatuen integrazioarako, zeren agentzia hauek mundu osoko merkatuei arau berberak ezartzen baitizkiete (Castellsek 2001. urtean argitaratu zuen hau).

Burtsa merkatuak eta monetak interdependienteak diren bezala, gauza bera gertatzen da moneta politikekin eta interes tipoekin. Ondorioz, leku guztietako ekonomiek elkarrekiko gero eta harreman estuagoa dute. Kapitalaren fluxuak gero eta globalagoak dira eta ekonomiaren errendimendu errealekiko gero eta autonomia handiagoa dute. Azken finean, erabakiorra da kapitalaren errendimendua finantza merkatu globalizatuetan. Balioa gero eta gehiago pilatzen da finantza eremuan. Are gehiago, beste askoren ikuspegiaren kontra, Castellsen iritziz balioa finantza eremuan gero eta gehiago sortzen da. Izan ere, finantza merkatuen globalizazioa da ekonomia berriaren bizkarrezurra, Castellsen arabera. Eta kapitalaren errendimendua eremu horretan ere neurtzen da eta errendimendu hau ez da soilik arau ekonomikoetan oinarritzen. Finantza merkatuak merkatu dira baina hain dira inperfektuak, ezen soilik partzialki erantzuten diotela eskariaren eta eskaintzaren legeei. Finantza merkatuen nondik norakoak analizatzeko derrigorrez hartu behar dira kontuan merkatu arauak, enpresen estrategiak, motibazio politikoa duten ekimenak, banku zentralen egitasmoak, teknokraten ideologia, masen psikologia, maniobra espekulatiboak eta jatorri ezberdina duten informazioaren gora-beherak. Hauen guztien konbinazio konplexuan egosten da finantza merkatuen ibilbidea.

---

<sup>502</sup> Castells, 2001a, 136-200 or.



## 1.2.2 Nazioarteko merkataritza

Nazioarteko merkataritza ere faktore oso garrantzitsua da ekonomia globalizatuan baina, Castellsen iritziz, dagoeneko ez da ekonomia nazionalen arteko lotura nagusia. Castellsen ustez garrantzitsuagoak dira finantza merkatuak eta ekoizpenaren eta kanpo inbertsio zuzenaren internazionalizazioa. Edonola ere, merkataritza ekonomia globalaren funtsezko elementuetako bat da. Nazioarteko merkataritza nabarmen handitu da XX. mendearen azken herenean, bai bolumenari bai BPGaren portzentajeari dagokionez, hala herrialde garatueta nola garapen bidean dauden herrialdeetan. Garai batean nazioarteko merkataritzan batik bat lehengaiak nagusitzen ziren bitartean, gaur egun produktu manufakturatuek osatzen dute nazioarteko merkatuaren zati handiena, nazioarteko merkataritza ez energetikoari dagokionez. Horrez gain, garraio eta telekomunikazio azpiegitura berriak eraikitzeak ahalbidetu du enpresa zerbitzuen globalizazioa. Baina merkataritzan aldaketa sakonagoa gertatzen ari da: gaur egun, balio erantsiari dagokionez, produktuen eta zerbitzuen gaineko ezagutza funtsezko osagai bihurtu da. Ondorioz, nazioarteko desberdintasunak ez dira lehengo parametroetan gertatzen. Garai batean ekonomia garatuek batez ere balio handiko produktu manufakturatuek esportatzen zituzten, artean garapen bidean zeuden ekonomiek balio txikiagoa zuten lehengaiak esportatzen zituztelarik; gaur egun, ordea, ezagutzaren eta teknologiaren banaketa desorekatuak ahalbidetzen du ezberdintasuna: teknologia garatua eta ez-garatu eta zerbitzu intentsiboak eta ez-intentsiboak dira nazioarteko merkataritzaren bi muturrak. Ekonomia kanporantz bideratua egoteak ez du bere garapena bermatzen. Esportatzen duenaren balioa funtsezko elementuetako bat da. Hori dela eta, lehiakortasunari dagokionez, nazioarteko lanaren banaketan oso garrantzitsuak dira gaitasun teknologikoa, ezagutzaren garapena eta giza baliabideen kualifikazioa. Testuinguru berri honetan lehiakortasun ekonomiko globalaren intentsifikazioa nabarmena da, Castellsen arabera<sup>503</sup>, eta ondorioz, ezberdintze geografikoa eta kulturala agerikoa da. Eta azken finean garai bateko herrialdeen arteko desorekak neurri handi batean bere horretan mantentzen dira, nahiz eta gaur egun beste parametro batzuetan gauzatzen diren.

Nazioarteko merkataritzak azken hiru hamarkadetan beste tentsio bat ere bizi izan du, itxuraz behintzat elkarri kontra egiten dioten bi joeren artean: batetik, merkataritzaren liberalizazio gero eta handiagoa eta, bestetik, bloke komertzialak sortzeko asmoz hainbat gobernuak garatu dituzten egitasmoak. Baina, Castellsen iritziz, merkataritzaren erregionalizazioa eta erregioen arteko merkataritza joera osagarriak dira. Elkarri bultzatza eginez hazi dira.

Gaur egun, ordea, herrialdeen garrantzia unitate komertzial bezala gero eta txikiagoa da, artean enpresen eta enpresa sareen garrantzia gero eta handiagoa delarik. Honekin Castellsen ez du esan nahi enpresa guztiek mundu mailan saltzen dutenik. Barne merkatuak dira gaur egun herrialde gehienetan BPGaren portzentaje handiena hartzen dutenak. Baina aldi berean enpresa guztien helburu estrategikoa, izan handi nahiz txiki, ahal duten leku guztietan saltzea da, bai zuzenean bai mundu mailan aritzen diren bestelako enpresekiko loturen bitartez.

---

<sup>503</sup> Castells, 2001a, 34 or.

### 1.2.3 Ekoizpenaren internazionalizazioa

1990eko hamarkadan ekin zitzaion intentsiboki ekoizpena, banaketa eta produktu nahiz zerbitzuen kudeaketa internazionalizatzeari. Bide honetan gutxienez hiru prozesu hartu behar dira kontuan: kanpo inbertsio zuzenaren hazkundera, korporazio multinazionalen rola (aurrerago ikusiko dugunez, beste batzuen iritziz *transnazional* deitu beharko liratekeenak) eta nazioarteko ekoizpen sareen osaketa.

Kanpo inbertsio zuzena laukoiztu egin zen 1980 eta 1995 urteen artean. Korporazio multinazionalak dira iturri nagusia baina hala ere soilik kanpo inbertsio zuzenaren %25a dagokie, Castellsen arabera. Nolanahi ere, multinazionalak lotutako enpresa sareak ere kontuan hartuko balira, kopurua askoz handiagoa litzateke. Izan ere, multinazionalen baitan ekoizten dena gero eta gutxiago da eta, aitzitik, gero eta gehiago ekoizpen sare transnasionaletan. Dena den, kontuan hartu behar da multinazionalak ekoizpen sare transnasionalen funtsezko osagaia direla, nahiz eta gaur egun alderantzizko ere gertatzen den; hau da, multinazionalak ezingo luketela aurrera egin sarean dauden enpresen lankidetzarik gabe.

### 1.2.4 Zientzia eta teknologia

Informazio teknologietan oinarritutako lehenengo teknologia iraultza AEBetan, nagusiki Kalifornian, gertatu zen, eta orain herrialde industrializatuetako eremu metropolitarrak zabalak dira AEBetatik kanpo informazio teknologien berrikuntza eta ekoizpen leku garrantzitsuenak, Castellsek dioenez<sup>504</sup>. Zientzia eta teknologia OCDE erakundearen kide batzuen eskuetan pilatzen dira. 1993an, adibidez, hamar herrialdek zeukaten ikerketa eta garapen globalaren %84a eta azken bi hamarkadetakako AEBetako patenteen %95aren jabe ziren. 1990eko hamarkadaren bukaeran errenta handiena zuten herrialdeetan bizi zen munduko biztanleriaren bostenak bere esku zituen mundu mailako telefono harien %74a eta hauek ziren mundu mailako internet erabiltzeen %93a.

Hortaz, zientzia globala den arren, bere barne dinamikan munduko biztanleriaren zati handi bat baztertzeko du.

Gainera, industria iraultzarekin gertatu zena errepikatzen ari da neurri batean. Industriaren teknologia berrien eragin positiboak ez ziren berehala iritsi, Castellsek gogorarazten duenaren arabera<sup>505</sup>. Hazkunde ekonomikoa handitu eta bizi maila hobetu egin zen, besteak beste ikusgarria izan zen bizi itxaropenaren luzapena, baina hori guztia ez zen automatikoki gertatu.

### 1.2.5 Lana

Lana ekoizpenaren faktore erabakiorrena da, Castellsen iritziz<sup>506</sup>. Baina ekonomia globalizatzen ari bada ere, lana, salbuespenak salbuespen, tokikoa da eta hala izaten jarraituko du ziur aski. Gaur

<sup>504</sup> Castells, 2001a, 94 eta 99 or.

<sup>505</sup> Castells, 2001a, 67 or.

<sup>506</sup> Castells, 2001a, 166-169 or.

egun Mendebaldea deitzen den eremuko herrialde gehienetan inmigrazioaren proportzioa bertako biztanleekiko ez da beste garai batzuetan baino handiagoa. Migrazioa mundu mailan handitzen ari bada ere, estatuek muga oso estuak uzten dituzte lanaren globalizatorako. Halaber, munduko biztanleen zati oso handi bat baztertuta dago aberastasunaren pilaketaren eta kontsumoaren prozesu globaletatik.

Bestalde, kopuru oso txikia diren arren, aipatzeko modukoa da lan espezializatu bakan batzuen globalizazio prozesua gauzatzen ari dela, Castellsen arabera<sup>507</sup>. Ez da soilik lan oso kualifikatua. Mundu osoan eskari oso handia duten zenbait lan ere globalizatzen ari dira: goi zuzendariak, finantza analistak, zerbitzu aurreratuen aholkulariak, zientzialariak eta injiniariak, eta gisako beste zenbait. Baina horiekin batera dauden hainbat eliteko kirolari, artista, diseinatzaile, aktore, guru izpirituak, aholkulari politiko, gaizkile eta antzerako beste batzuk. Merkatu globalean salbuespenezko balio erantsia sortzeko gaitasun duten banako gutxi batzuk dira.

Sassen-ek<sup>508</sup> hiru klase global aipatzen ditu: profesional eta zuzendari-kudeatzaile transnazionalak, sare transnazioaletako funtzionario publikoak (epaileak, inmigratio agenteak, poliziak...) eta baliabide gutxiago dauzkaten taldeetakoek osatzen duten multzo anitza (baliabide eskaseko ekintzaileak, gizarte zibileko funtsezko sektoreak, diaspora sareak, etorkinen etxe eta komunitate transnazionalen sareak). Profesionalen klase transnazionala ekoizpen bitartekoen jabetzagatik baino gehiago definitzen da ekoizpen bitartekoen kontrolagatik, Sassenen iritziz. Nazioarteko hitzarmenei esker oso espezializatutako sektoreetako langileek, finantza eta telekomunikazioetakoek kasu, hainbat urtez erresidentzia baimena lortzeko eta hortik eratorritako eskubide eta babesak baliatzeko aukera dute. Baina profesionalen klase globala espazio geografikoari dirudiena baino lotuagoa dago. Haatik, Sassenek dioenez, baliabide gutxiago dauzkaten taldeetakoek dirudiena baino izaera globalagoa dute. Hauen artean aniztasuna oso handia da eta elkarrekiko hartuemanak eskasak dira, baina hainbat baldintza eta dinamika partekatzen dituzte. Multzo honetako kide gehienek mugikortasun txikia dute. Politika eta araudi neoliberalak kapital globalaren profesional hurbilenekei herrialdeetako ateak irekitzen dizkien bitartean, inmigratio politikak harresiak eraikitzen ditu lan merkatuko sektore ugari sar ez daitezkeen. Beren testuinguruko baldintza politikoak globalak dira, nahiz eta tokiko testuinguruan erabat errotuta egon daitezkeen.

### 1.3 Aldaketen motorra

Iraultza teknologikoa eta merkatuen globalizazioa aztertzen ari garenean, prozesu hauen eragileak zeintzuk diren identifikatzea funtsezkoa da. Beren kasa garatzen al dira bestelako faktoreen eraginik gabe? Aldaketa hauek zenbaterainoko eragina dute kanpo faktoreengan?

Negri-ren<sup>509</sup> arabera, ez dago erregulaziorik gabeko globalizatorik. Merkatua erregulatzen duen subjektu gabeko esku ikusezinaren ideiak ez du funtsik. Beti daude eskuak, esku aktiboak,

---

<sup>507</sup> Castells, 2001a, 166-169 or.

<sup>508</sup> Sassen, 1991, 203-233.

<sup>509</sup> Negri, 2004, 12-13 or.

ikusteko nekezagoak edo errazagoak diren arauak, eraginkorrak eta beti manipulazailak, bai merkatuan bai gizartearen edozein arlotan.

Castellsen iritziz<sup>510</sup> informazio teknologietan gertatu den iraultzak giza jardueraren eremu ugartan eragin handia izateko aukera eman dio teknologia berriei, baina honek ez du esan nahi teknologiak gizartea determinatzen duenik, ezta gizarteak teknologia aldaketen ibilbidea zehazten duenik ere. Faktore askok eragiten dute aldaketa teknologikoa, besteak beste asmakuntza eta ekimen pertsonalak. Hortaz, elkar eraginen sare konplexu baten araberakoa izango da azken emaitza. Izan ere, berrikuntza teknologikoa ez da gertaera isolatua. Ezagutzaren egoera zehatz bat islatzen du. Testuinguru instituzional eta industrial zehatz batean gertatzen da. Zenbait arazo tekniko definitu eta konpontzeko gaitasuna erakusten du. Aplikazio hori errentagarria izan dadin bilatzen duen ikuspegi ekonomiko bat dago. Halaber, ekoizle eta erabiltzaile sare bat dago, beren esperientziak komunikatu eta esperientziatik eratorritako ezagutza pilatzeko gai dena, teknologia berriak erabiltzen eta sortzen ikasten duelarik.

Ez da ahaztu behar, Castellsen iritziz, enpresen xede nagusia errentagarritasuna eta bere akzioen balioa handitzea dela. 1970eko hamarkadan errentagarritasunaren beherakada gertatu zenean, herrialde guztietan enpresak estrategia berriak trazatzen saiatu ziren. Testuinguru horretan etekinak handitzeko lau bide zeuden: ekoizpen kostuak murriztea (laneskuaren kostuetatik hasiz), produktibitatea handitzea, merkatua zabaltzea eta kapitalaren errotazioa azeleratzea. Herrialde eta enpresa bakoitzean bide ezberdinak hartu ziren arren, oro har XX. mendeko azken hamarkadetan zehar lau bideak kurrutu ziren. Castells-en arabera, epe motzera langileen kaleratzea eta soldaten murrizketa lehenetsi ziren, baina aldi berean enpresentzat eta kapitalismoarentzat oro har erronka ekidinezin bat zegoen: merkatu berriak aurkitzea, gero eta produktu eta zerbitzu gehiago ekoizten zituen makineria produktibo bat hartzeko prest egongo zena. Bestalde, berrikuntza teknologikoak eta erakundeen antolakuntza moduak bigarren mailan gelditu ziren, epe luzera eragina izan zezaketen faktoreak bezala. Baina 1980ko hamarkadan enpresen errentagarritasuna hazten hasi zenean, enpresen arteko lehiakortasuna medio, inbertsio handiak izan ziren komunikazio/informazio teknologietan.<sup>511</sup>

Fenomeno hauek, ordea, beste era batera aztertu dituzte beste askok. Castellsen ikuspegitik badirudi errentagarritasunak eta lehiakortasunak eragiten dutela iraultza teknologikoa eta merkatuen globalizazioa. Demagun errentagarritasunaren beherakadak sustatu zuela aldaketa. Hala bada, bi galdera behintzat bururatzen zaizkigu. Zerk ahalbidetzen du errentagarritasuna eta lehiakortasuna? Zerk eragin zuen errentagarritasunaren beherakada? Galdera horiei erantzun gabe azalpenaren zati txiki bat bakarrik izango dugu. Hortaz, saia gaitezen erantzuna osatzeko beste zenbait gako azaltzen.

Nolanahi ere, Negri eta Hardt-en<sup>512</sup> ekarpenean oinarrituz, hasteko aipa ditzagun zein bi erantzun ukatzen ditugun. Batetik, orden garaikidea ez da bat-batean sortu, espontaneoki, oso heterogeneoak diren indar globalen hartuemanen ondorioz, esku ikusezin natural eta neutral batek kontzertu armoniosu global bat zuzenduko balu bezala. Bestetik, orden berria ez du indar

<sup>510</sup> Castells, 2001a, 35 eta 67 or.

<sup>511</sup> Castells, 2001a, 129 eta 132 or.

<sup>512</sup> Hardt & Negri, 2002, 21 or.

globalen ginetik dagoen botere bakar batek, arrazionaltasun gune bakar batek, gidatzen bere egitasmo kontziente eta orojakilearen arabera, globalizazioaren konspirazioaren teoria bati erantzunez bezala.

Zuberok<sup>513</sup> ere kritikatu egiten du globalizazioa fenomeno ia naturala balitz bezala hartzea: “globalizazioa agertu da, globalizazioak egin du...”. Globalizazioak nabarmen eraldatu du lan mundua eta testuinguru berrian hautsi egin da Bigarren Mundu Gerarren osteko adostasuna, Zuberok dioenez, baina globalizazioaren fenomeno ezin da hartu emankumeen eta gizonen borondatearekin eta eskuhartzearekin zerikusirik ez balu bezala. Ikuspegi deterministak globalizazioa (uholde, lehorde edo lurrikara bat bailitzan) ezin dela ekidin adierazten du, ez dela gure araberakoa, ez baita inoren araberakoa, eta, beraz, inork ez du errurik, nahiz eta kaltetuak beti izango diren. Ikuspegi deterministaren arabera, globalizazioaren biktimek beren sofrimendua beren gain hartu behar dute, beren gain hartu aurrera egitearen ardura eta zenbaitetan baita hondamendiaren aurreikuspenik ez egitearena ere, haren ondorioak ez txikitzearen eta gaitasun nahikoa ez izatearen errua.

Hortaz, ikuspegi deterministan ez erortzearen, gaur egungo aldaketa sakonei buruzko beste zenbait azalpen aztertzea komeni da.

## 2. Aberastasunaren banaketa

1970eko hamarkadan enpresak aldaketa handiak egiten hasi zirela esanez bukatu dugu aurreko atala. Teknologien iraultza eta merkatuen globalizazioa izan ziren horren emaitzetako batzuk. Baina nork irabazi zuen aldaketa hauekin? Nork galdu? Beraz, orain irabazleak eta galtzaileak identifikatzea interesatzen zaigu, azken hamarkadetan gertatu dena ulertzeko funtsezkoa baita. Adierazle mota asko erabil ditzakegu hori egite aldera, baina hasteko ohikoenera joko dugu: hain zuzen aberastasunaren banaketa izango dugu aztergai, Bourdieuk *kapital ekonomikoa* deitzen duena.

### 2.1 Irabazleak eta galtzaileak

Azken hamarkadetan ezberdinkeriak eta polarizazioa handitu egin dira mundu mailako aberastasunaren banaketan, Castellsek azaltzen dituen datuen arabera<sup>514</sup>. PNUDeK 1996-1999 urteetako Giza Garapenari buruzko txostenean dio 1993 urtean mundu mailako Barne Produktu Gordina 23 bilioi dolar izan zela eta horietatik bakarrik 5 bilioi dolar zegozkiela garapen bidean zeuden herrialdeei, nahiz eta herrialde hauetan zegoen munduko biztanleriaren %80a. Desorekak handitu egin dira. 1960 eta 1991 urteen artean mundu mailako biztanleriaren %20 dirudunenaren aberastasuna handitu egin da, artean gainerako %80arena txikitu egin delarik. Munduko biztanleen artean txiroenak diren %20ak mundu mailako aberastasunaren zati gero eta txikiagoa dauka: %2,3tik %1,4ra txikitu zen 1999 urtera arteko azken hogeita hamar urteetan. Artean munduko biztanleriaren %20 dirudunena %20 txiroenarekin alderatuz gero, ezberdintasuna

---

<sup>513</sup> Zuberok, 2007, 39 or.

<sup>514</sup> Castells, 2001b, 105-110 or.

ikaragarri handitu da: 1960 urtean 30:1eko aldea zegoen, 1997 urtean 74:1eko aldea. 1994 urtean AEBetako mila milioi dolar baino gehiagoko errenta zeukaten 358 lagun ondarea handiagoa zen munduko biztanleriaren %45a bizi zen herrialdeen errenta baino. Aberastasuna goiko erpinean zeudenen eskuetan pilatzeko prozesua azkartu egin zen 1990eko hamarkadaren bigarren erdian: munduko 200 lagun dirudunenen ondare garbia 1994 urtean 440.000 milioi izatetik 1998 urtean bilioi bat milioi izatera pasa zen. 1998 urtean munduko hiru lagun dirudunenen ondarea handiagoa zen 48 herrialde azpigaratuenetakoen errenta baino, eta hauetan 600 milioi lagun bizi ziren. Batez besteko errentari dagokionez, herrialde industrializatuen eta azpigaratuen arteko aldea handitu egin zen: 1960 urtean 5.700 dolarrekoa zen, 1993 urtean 15.000 dolarrekoa.

Herrialdeen artean ez ezik herrialde bakoitzeko biztanleen arteko ezberdintasunak ere handitu egin dira. Gini indizearen arabera (herrialde bakoitzeko biztanleen arteko errenta aldeak neurtzen ditu), OCDEko herrialdeetan ere handitu egin zen barne mailako desberdintasuna eta polarizazioa 1970eko hamarkadaren amaiera ingurutik 1990eko hamarkada erdialdera artean.

AEBak fenomeno honen ispilu bildurgarria dira. Castellsek argitaratutako datuen arabera<sup>515</sup>, teknologikoki ekonomia handiena eta garatuena da munduan baina herrialde horretan bertan XX. mendeko azken bi hamarkadetan nabarmen handitu dira ezberdinkeria sozialak, polarizazioa, pobrezia eta muturreko pobrezia. Zergen ondorengo irabaziak ziklo ekonomikoen une gorenetan kontuan hartuz, 1973 urtean %4,7koak ziren, 1979 urtean %5,1ekoak, 1980 hamarkadan egonkortu egin ziren eta 1995 urtean %7koak ziren. Enpresa handienetako goi karguen batez besteko soldata ere handitu egin zen: 1973 urtean 1.269.000 dolarrekoa zen urteko, 1989 urtean 3.180.000 dolarrekoa urteko, eta 1995 urtean 4.367.000 dolarrekoa urteko. Zuzendaritzako karguen batez besteko soldataren eta langileen batez besteko soldataren arteko aldea ere handitu zen: 1973 urtean 44,8 aldiz handiagoa zen, 1995 urtean 172,5 aldiz handiagoa. Etxeen %1 dirudunenaren errenta ere handitu zen: 1977 urtean zergen ondoren batez besteko errenta 243.700 dolarrekoa zen, 1999 urtean 515.600 dolarrekoa. Tarte horretan familien batez besteko errenta %0,6 handitu zen 1970eko hamarkadan, %0,4 1980 hamarkadan eta %0,1 1990eko hamarkadan. Honen arrazoa nagusiki ikuskaritza lanik ez duten ekoizpeneko enplegatuen asteko soldata errearen murrizketari zor zaio: 1973 urtean 479,44 dolarrekoa izatetik 1995 urtean 395,37 dolarrekoa izatera pasa zen. AEBetako etxeen %80an (217 milioi lagun) errenta nazionalaren zati gero eta txikiagoa eskuratu zuten: 1977 urtean %56 eta 1999 urtean %50. Gini indizea 1967 urtean 0,399 izatetik 1995 urtean 0,450 izatera pasa zen. Biztanleriaren %20 dirudunenak errentaren %44,2a zeukan 1977 urtean eta %50,4 1999 urtean. Pobreziaren lerrotik behera daudenen kopurua ere handitu egin da: 1973 urtean biztanleriaren %11,1 ziren eta 1997 urtean biztanleriaren %13,3, hau da 35 milioi lagun. Muturreko pobrezian, berriz, 14,6 milioi lagun bizi ziren.


Emmanuel Sáez<sup>516</sup> Kaliforniako Berkeley Unibertsitateko ekonomialariak joera berbera islatzen du aurkezten dituen datuetan. Sáez-ek dioenez, AEBetako %10 dirudunenaren metatzen indizea %40tik %49ra pasa zen 1917 eta 1928 urteen artean. Ondoren etorri zen ekonomia krisiak %33ra jaitsi zuen. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik 1970eko petrolioaren krisira arte egonkortu egin zen %30-35 artean baina petrolioaren krisiaren aurretik, 1967 eta 1972 urteen artean,

<sup>515</sup> Castells, 2001a, 157-163 or.

<sup>516</sup> Gaur8 in Gara, 2008-05-31.

beherantz egin zuen, 1947 eta 1952 artean egin zuen bezalaxe, baina beti ere %30etik jaitsi gabe. Sáez-en arabera, 1981 urtea da inflexio puntua. Dirudunenek gero eta gehiago pilatzeko prozesuari indar handiz ekin zioten orduan, 2000 eta 2001 urte arteko krisiaren garaian salbu. AEBetako %10 dirudunenak gero eta gehiago irabazi zuen baina hazkundera are handiagoa izan zen %1 dirudunenarentzat: 1976 urtean aberastasun guztien %8 biltzen zuen eta 2006 urtean, berriz, %23. AEBetako %1 horretan dauden etxeetan urtean 382.000 dolar inguru irabazten dituzte, hilean 32.000 dolar inguru alegia. Bitartean langileen erosteko ahalmena ez da ia hazi: 2002 eta 2006 urteen artean AEBetako etxeen %99an batez beste %0,9 hazi zen baina etxe dirudunenetan %11 hazi zen. Horrez gain, 1973 eta 2008 urteen artean ia ez da hazi lagileek lanordu bakoitzeko kobratzen duen soldatari dagokion erosketa ahalmena: goi karguak dituzten enplegatuen soldatak kontuan hartu gabe, 35 urtetan %8 hazi da baina 2000 urtetik aurrera ez du gora egin.

**10. Grafikoa: AEBetako 0,01 dirudunen irabazien bilakaera, 1913-2003 (BPGarekiko ehuneko)**



Iturria: Sáez, Emmanuel.

*Garatua* deitzen den munduaren zatian aberastasunaren desorekaz hitz egiten duten ikerketa ugari aurki daitezke. Horietako bat aipatzearren, La Caixa-ren arabera<sup>517</sup>, Europan 70 milioi lagun bizi dira pobrezia arriskuan, Europako Batasuneko biztanleen %16a hain zuzen. Transferentzia sozialik gabe %16ko txirotasuna %40koa litzateke. AEBetan, berriz, biztanleriaren %23a bizi da pobrezia erlatiboan, hau da, estatuko batez besteko errentaren %60tik beherako diru irabaziekin. Portugalen, Irlandan, Grezian eta Espainiako estatuan %20koa da eta Europako batez bestekoa, berriz, %16koa. Frantziako estatuan %13koa da baina hiritarren erdia hileko 1.313 euro baino gutxiagoko diru irabaziekin bizi da eta %10 753 euro baino gutxiagorekin, 2004 urteko zergei buruzko datuen arabera. Izan ere, gutxien daukan %20ak errenta globalaren %9,6 eskuratu zuen eta, aitzitik, gehien daukan %20ak errenta globalaren %37a.

Aberastasunaren banaketa aztertzen ari garelarik, ezinbestean analizatu behar dugu klasikoa bihurtu den ikuspegitik ea nola banatu diren irabaziak kapitalaren eta lanaren artean. Harreman

<sup>517</sup> Gara, 2007-08-12.

honi dagozkion datu ugari aurki daitezke eta horietako zenbait aurrerago aipatuko ditugu, baina atal honetan labur-labur ari garelarik, datu gehiegi ez pilatzearen, berriro ere Castells hartuko dugu oinarri (ondoren hasiko gara gainerako iturriei dagokien arreta eskaintzen). Castellsen arabera<sup>518</sup> kapitalismo berriak garapena eta azpigarapena areagotu egiten ditu aldi berean, aberastasunari dagokionez ezberdinkeria eta polarizazio handitu egiten ditu, pobrezia eta muturreko pobrezia sustatu egiten ditu munduan zehar, baita herrialde industrializatuetan ere, batik bat herrialde eta sektore sozial batzuk kolpatuz (herrialde industrializatutako gazteak kasu), eta hau guztia nabarmen islatzen da kapitalaren eta lanaren arteko harremanean. Castellsek dioenez<sup>519</sup>, kapitalismoak berregituraketa prozesu sakona bizi du eta aldaketei esker kapitalak lehen baino indar handiagoa du lanaren gain. Kapitalismoaren hedapena globala da orain, merkatuen integrazioa inoiz baino handiagoa eta enpresek egoera baliatu ahal izan dute beren errentagarritasuna handitzeko. Kapitalismoa berkapitalizatu egin da eta, bitartean, gaur egun lanak inoiz baino zentraltasun handiagoa duen arren, inoiz baino ahulago dago.

Beste analista asko ere iritzi berekoak dira. Esate baterako, Boltanski eta Chiapello-k<sup>520</sup> diotenez, azken hamarkadetan etekinen banaketa gero eta gehiago joan da kapitalaren jabeen eskuetara. Halaber, Lanaren Nazioarteko Erakundearen txostenetan oinarrituz Sennett<sup>521</sup> ere bat dator: etekinen banaketan handitu egin da desoreka. Goi mailako zuzendarien diru irabaziak handitu egin dira, hierarkian goian eta behean daudenen arteko soldata arloko ezberdintasunak areagotu egin dira eta geruza ertainetan dauden langileen soldatek ez dute gora egiten baldin eta elitekoekin alderatzen baditugu.

Beck-en<sup>522</sup> arabera ere, errenta ezberdintasunak nabarmen handitu dira, besteak beste, AEBetan. Goi mailako ikasketarik gabeko langileen artean 1973 urtetik 1993 urtera orduko soldata 11,85 dolarretik 8,64 dolararrera jaitsi zen. 1970eko hamarkadaren hasieran goiko erpinean %5 familiek beheko erpineko %5 familiek baino hamar aldiz gehiago irabazten zuten eta gaur egun ezberdintasun hura ia bost aldiz handiagoa da. Bestalde, azken hogeitun urteetan produktibitatea etengabe igo arren, biztanleen gehiengoaren diru irabaziak (hamarretik zortzirenak hain zuzen) egonkortu edo txikitu egin dira. Lanerako adinean dauden batez besteko biztanleen %8aren asteko diru irabaziak %18 inguru txikitu ziren 1973 eta 1995 urteen artean, asteko 315 dolarretik 258 dolararrera. Epe horretan, 1979 eta 1989 urteen artean hain zuzen, goi zuzendarien soldatak %19 hazi ziren.

Espainiako estatuan, berriz, INEren kontabilitate berriak adibidez 2004 urteari buruz erakutsi zuen estatu gero eta dirudunago batean bizi gara eta aldi berean ezberdinkeriak gero eta nabarmenagoak direla. Kontabilitate berriak 40.000 milioi euro azaleratu zituen eta BPGa %3,1 igo zen (hiru dezima uste zenaren gaintik), gehienbat beltzean lan egiten zuten milioi bat enplegatuei esker (batez ere etorkinak). Batez besteko errenta, ordea, ez zen ia aldatu. Lanaren errentak BPGaren %49,3a izatetik %47ra jaitsi ziren eta enpresen irabaziek, aldiz, BPGaren gaintik bi puntu egin zuten gora harik eta %41,8ra iritsi arte.<sup>523</sup>

<sup>518</sup> Castells, 2001b, 110 or.

<sup>519</sup> Castells, 2001a, 33 eta 131 or.

<sup>520</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 299 or.

<sup>521</sup> Sennett, 2006, 20 eta 51 or.

<sup>522</sup> Beck, 2000, 123-128 or.

<sup>523</sup> El País 2005-05-23.



Honenbestez, INEren<sup>524</sup> arabera (ikus 24. Taula), 2006 urtean batez besteko urteko soldata gordina EAEn 22.929,98 eurokoa zen eta Nafarroako Foru Erkidegoan (NFE), berriz, 21.660,50 eurokoa, baina banaketa oso asimetrikoa izan zen: esate baterako, generoa kontuan hartuz gero, emakumezkoek EAEn gizonezkoek irabazi zutenaren %71,61a irabazi zuten batez beste eta NFEEn, aldiz, %72,57a.

<b>24. Taula: Urteko soldata gordina eta ratioa, generoaren eta erkidegoaren arabera. EAE eta NFE, 2006 (euroak eta ratioa)</b>				
	<i>Urteko soldata gordina</i>			<i>Giznko-</i>
	<i>Guztira</i>	<i>Gizonezkoak</i>	<i>Emakumezkoak</i>	<i>Emakuzko Ratioa</i>
EAE	22.929,98	25.947,03	18.581,12	71,61
NFE	21.660,50	24.459,80	17.750,37	72,57

Iturria: INE, Encuesta de Estructura Salarial 2006.

<b>25. Taula: Urteko soldata gordinaren batez bestekoa, mediana eta moda. Espainiako estatua, 2006 (euroak)</b>	
Batez bestekoa	19.680,88
Mediana	15.760,46
Moda	14.446,46

Iturria: INE, Encuesta de Estructura Salarial, 2006

Espainiako estatuan, INEren arabera beti ere, 2006 urtean batez besteko urteko soldata gordina 19.680,88 eurokoa zen eta emakumezkoek gizonezkoek irabazi zutenaren %73,67a irabazi zuten. Baina Espainiako estatuko datuetan bestelako desorekak ere islatzen dira. Izan ere, urteko batez besteko soldata gordinari ez ezik urteko soldata gordinaren medianari eta modari erreparatzea ere komeni da. 25. Taulan ikus daitekeenez, urteko soldata gordinaren batez bestekoa 19.680,88 euro izan arren, mediana eta moda askoz txikiagoak dira, 15.760,46 euro eta 14.446,46 euro hurrenez hurren. Mediana, kontuan hartu diren balio guztien erdian kokatzen da; hau da, urteko soldata gordinari dagokionez, 15.760 euro baino gutxiago irabazten dituzte. Modak, berriz, maiztasun handiena duen balioa adierazten du eta Espainiako estatuan 2006 urtean 14.446,46 eurokoa izan zen. Datu hauek laneko diru irabazien arteko desoreka nabarmenak argi adierazten dituzte.


Baina INEren datu hauetan beste hainbat adierazlek ere garbi erakusten dute asimetria. Esate baterako, okupazioaren araberako banaketak (ikus 11. Grafikoa). INEk bereizten dituen okupazio talde nagusiak kontuan hartuz<sup>525</sup>, eta beti ere soilik laneko errentei buruz ari garelarik, aipagarria

<sup>524</sup> INE, Encuesta de Estructura Salarial 2006.

<sup>525</sup> INE, Okupazioen Sailkapen Nazionalaren Talde nagusiak: A) 10 soldatapeko edo gehiagoko administrazio publikoen eta enpresen zuzendaritza; B) 10 soldatapeko baino gutxiagoko enpresen kudeaketa; D) 2. eta 3. zikloko unibertsitateko eta gisako ikasketen titulazioei lotutako lanbideak; E) 1. zikloko unibertsitateko eta gisako ikasketen titulazioei lotutako lanbideak; F) Teknikariak eta profesional laguntzaileak; G) Administrazio lanetako enplegatutak; H) Errestaurazio zerbitzuetako eta zerbitzu pertsonaletako langileak; J) Babes eta segurtasun zerbitzuetako langileak; K) Merkataritzako dendariak eta gisakoak; L) Nekazaritzako eta arrantzako langile kualifikatuak; M) Eraikuntzako langile kualifikatuak, makineriako beharginak salbu; N) Ustiatze, metalurgia, makineria eraikuntza eta gisako industrietako langile kualifikatuak; P) Arte grafiko, oihalgintza eta jantzigintza, elikagai lanketa, zurgintza, artisau eta gisako industrietako langile kualifikatuak; Q) Instalazio industrial eta makineria higiezinetakoko beharginak, montatzaileak eta ensanbladoreak; R) Gidariak eta makineria higigarrien beharginak; S) Zerbitzuetako (garraioak salbu) langile ez kualifikatuak; T) Nekazaritzako,

da A taldekoen (10 soldatapeko edo gehiagoko administrazio publikoen eta enpresen zuzendaritza) urteko batez besteko soldata gordina 60.342,39 eurokoa dela, baina gainera talde honetan %10ak 98.952,72 euro baino gehiago irabazten dituela. Aitzitik, adibidez S taldekoek (Zerbitzuetako (garraioak salbu) langile ez kualifikatuak) 11.434,58 euroko urteko soldata gordina dute eta talde honetan gehien irabazten dutenek 17.705,90 euro baino gehiago irabazten dituztela.

11. Grafikoa: Batez besteko soldaten arteko aldea okupazioaren arabera (INEren Okupazioen Sailkapen Nazionalaren Talde nagusien arabera, ikus 520. oinoharra), Espainiako estatua 2006 (batez besteko soldatarekiko desbideraketa ehunekoetan).



Iturria: INE Encuesta de Estructura Salarial 2006.

Laneko okupazioa eta generoa kontuan hartuz gero, erredua errepikatu egiten da: erremunerazio handiena duten okupazioak (A, B, D, E eta F) eta txikiena dutenak (S, T, K eta H) berberak dira gizonezkoentzat nahiz emakumezkoentzat, baina okupazio talde guztietan emakumezkoek gizonezkoek baino gutxiago irabazten dute, alde txikiena N taldean (Ustiatze, metalurgia, makineria eraikuntza eta gisako industrietako langile kualifikatuak) eta alde handiena B taldean (10 soldatapeko baino gutxiagoko enpresen kudeaketa) dagoelarik.

Ezberdinkeriak neurtzeko baliagarria da Gini indizea ere kontuan hartzea. Aberastasunaren banaketa neurtzeko erabiltzen da. Banaketa orekatuagoa izan ahala txikitu egiten da indizeak adierazten duen zenbakia. Nazio Batuen Erakundeak Giza Garapenari buruzko 2005 urteko txostenean berdintasun mailaren arabera ezartzen duen ordenean: Gini indizea kontuan hartuz, Danimarka da berdintasunari dagokionez onena, 0,247ko indizea duelarik; Frantziako estatua 32. postuan dago, 0,327ko indizearekin, eta Espainiako 43. postuan, 0,347ko indizearekin<sup>526</sup>. INEren<sup>527</sup> arabera, 2006 urtean Espainiako estatuaren Gini indizea 0,335koa zen, NFErena 0,292koa eta EAErena, berriz, 0,319koa.

arrantza, eraikuntza, manufaktura industriako eta garraioetako beharginak.

<sup>526</sup> Argia, 2.124. zenbakia, 2008-02-17.

<sup>527</sup> INE, Encuesta de Estructura Salarial 2006.

OCDEren 2005 urteari buruzko datuek ere fenomeno berbera islatzen dute<sup>528</sup>: Espainiako estatuan %20 dirudunenak %20 pobreenak baino 5,4 aldiz gehiago irabazten du. Europako batez bestekoa 4,9koa da. Frantzia eta Alemanian 4 ingurukoa da.

Euskal Zerga Sistemari ere egoera antzekoa da<sup>529</sup>. Aitortutako errenten %80 soldatapeko langileengandik dator. Iruzurak, berriz, 2001eko datuekin alderatuta %14,5eko erritmoan egin du gora. Hiru ondorio atera ditzakegu: zerga arloko bidegabekeria areagotzen ari da, ogasunek portzentualki iruzurgileen aurkako gero eta ekintza gutxiago egiten dituzte, eta kapitalaren errentek zergei dagokionez tratatu askoz hobea dute.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ogasunen 2005 urteko datuen arabera<sup>530</sup>, zergak ordaintzen dituztenen artean %45ak, 461.926 lagunek hain zuzen, pobrezia mugatik beherako diru sarrerak aitortu zituzten. Urte horretan pobrezia muga hileko 778 euron kokatuta zegoen, OCDEren irizpideen arabera. Pertsona Fisikoen Gainerako Zergaren aitortzea egin zuten hamar lagunetik sei (%62,1ak) 18.000 eurotik beherako lan errentak izatea aitortu zuten. Multzo honen esku dago oinarri likidagarri orokorraren %32,2. Hots, %62,1aren esku soilik %32,2 dago. Bitartean 31.707 lagunek 54.000 eurotik gorako irabaziaz aitortu zituzten. Are pribilegiatuagoak direnei dagokionez, 8.544 lagun, aitortzea egin zutenen %0,8 hain zuzen, aitortutako errentaren %6,4aren jabe dira. Azken hauek errenta globalaren %14,4 eskuratu zuten. Enpresek praktikan Sozietateen Gainerako Zergaren %17,5eko tipoa ordaindu zuten, %32,5etik oso urrun. Zerga bidez biltzen den diruaren %83ak lan errentetan du jatorria eta soilik %8,2ak jarduera ekonomikoetan, %6,3ak kapital higigarrian eta %2,1ak kapital higiezinean.

Eusko Jaurlaritzak plazaratu dituen datu hauen arabera, azken sei urteetan %63,15 hazi dira diru irabazi handienak dituztenen errentak. Zerga politikak zerikusi handia du horretan. Esate baterako, 1999 urtean 54.000 eurotik gorako errentei %36,1eko tipoa ezarri zieten eta 2004 urtean %32,5era murriztu zuten, baina praktikan 1999 urtean 54.000 eurotik gorako irabaziaz ordaindu zituztenek batez beste %30 ordaindu zuten PFGZa eta 2004 urtean, berriz, %27, artean 18.000 eta 30.000 euro artean aitortu zituztenei 2004an %18,3ko tipoa ezarri zieten baina praktikan soilik %16,4ra murriztu ahal izan zuten beren ordainketa. Hortaz, 54.000 eurotik gorako diru irabaziaz aitortu zituztenek praktikan gehiago murriztu ahal izan zuten beren ordainketa baldin eta, adibidez, 18.000 eta 30.000 euro artean aitortu zituztenekin alderatzen baditugu. Zerga biltzetan ezberdinkeria areagotzeko bitarteko artean EPSVak aipatzeko modukoak dira: errenta txikiak batez beste 1.000 euro inguru sartu zituzten, bitartean errenta handiek 10.000 euro jarri zituztelarik, eta horrek eragin nabarmena izan zuen EPSVei egindako ekarpenetan oinarritzen diren kenkarietan. Beste horrenbeste gertatzen da hainbat kenkarirekin: familiari dagozkionak, ohiko etxebizitzarenak, mezenazgoarenak, inposizio bikoitzarenak, eta abar. 2004 urtean kontzeptu hauetan oinarrituta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ogasunek 980.000 milioi euro jasotzeari utzi zioten eta horri esker errenta handiko zerga ordaintzaileak diren %3,1ak %18 murriztu ahal izan zuten beren ordainketa. Bestalde, iruzur fiskala ere kontuan hartzekoa da. Atentzioa ematen du soldata txikiak dituzten langileek aitortzen duten laneko diru irabazia handiagoa izatea errenta handiak dituztenek aitortzen dutena baino.

---

<sup>528</sup> El País, 2007-06-26.

<sup>529</sup> Argia 2005-04-17.

<sup>530</sup> Gara, 2007-08-12.

## 2.2 Familiaren galbahea

Polarizaziorantz jotzen ari den testuinguru honetan, Cal Barredoren<sup>531</sup> arabera, pobrezian ez erortzeko sustengu gero eta garrantzitsuagoak dira lagunak eta nagusiki familia, zeren beste erakunde batzuk, estatuak bereziki, babesle lanak baztertzen ari baitira. Familiaren elkartasun mekanismoen bitartez, gazteen pobrezia izkutuan gelditzen da. Navarro-k<sup>532</sup>, Kataluniako egoera aztergai duelarik, nabarmendu egiten du familiek betetzen dutela Ongizate Estatuak dituen gabeziak.

Gazteen prekarietate egoera familiaren babesean baretzen dela frogatze aldera, Sanzok<sup>533</sup> Eusko Jaurlaritzaren EDPS 2000 inkestan oinarrituz aztertu ditu indibiduoak banaka; hau da, indibiduoaren banakako baliabideak hartzen ditu kontuan, hain zuzen beren jarduera ekonomikoa edo Gizarte Segurantzaren ekarpenak, eta ez besterik. Familiaren ekarpenak, adibidez, ez ditu kontuan hartzen. Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Ezberdintasun Sozialei buruzko Inkestak pertsona bakarreko etxeentzat erabiltzen dituen irizpideei jarraiki, hiru egoera mota bereizi ditu Sanzok: pobrezia, ongizate gabezia eta ongizate osoa. Egoera hauek arrisku egoera bezala ulertzen dira, ez gertatzen ari diren egoerak bezala.

Sanzok datu bat nabarmentzen du (ikus 26. Taula): baldin eta EAEn potentzialki independentea den biztanleriaren %62,2a pertsona bakarreko etxebizitza batean biziko balitz, pobrezia gainditzeko nahikoa baliabide indibidual izango lituzke, baina ez sozialki espero den ongizate mailara iristeko. EAeko biztanle potentzialki independenteen artean soilik %32,9ak izango luke horretarako gaitasuna baldin eta beren banakako baliabideak kontuan hartzen baditugu. Aitzitik, baldintza hauetan %37,8ak ezingo lioke pobrezia ihes egin.

26. Taula: Biztanleria jardueraren arabera. EAE, 2000 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)					
<i>Jarduerarekiko harremana</i>	<i>Absolutuak</i>	<i>Biztanleria osoarekiko ehunekoa</i>	<i>Biztanleria ez dependiente osoarekiko ehunekoa</i>	<i>Aktiboaren ehunekoa</i>	<i>Okupatuaren ehunekoa</i>
Ez soldatapekoa	160.268	7,7	9,6	16,5	13,2
Soldatapeko egonkorak	420.703	20,3	25,2	43,2	50,3
Zerbitzu publikoak	83.374	4,0	5,0	8,6	10,0
Zerbitzu pribatuak	155.958	7,5	9,3	16,0	18,7
Gainerako sektoreetako ez beharginak	39.231	1,9	2,3	4,0	4,7
Gainerako sektoreetako beharginak	142.141	6,9	8,5	14,60	17,0
Soldatapeko ez egonkorak/prekarioak	255.136	12,3	15,3	26,2	30,5
Langabetuak	136.964	6,6	8,2	14,1	
Ez aktiboak	699.440	33,8	41,8		
Adin txikikoak eta 25>	397.889	39,2			
Guztira	2.070.400,00	100,00	100,00	100,00	100,00
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren EDPS 2000					

<sup>531</sup> Cal Barredo, 2004.

<sup>532</sup> Navarro, 2002.

<sup>533</sup> Sanzo, 2004.

Arrisku honek ez die biztanle guztiei berdin eragiten. 27. Taulan ikus daitekeenez, adina kontuan hartu beharreko faktorea da: ongizate gabeziaren arriskua batez bestekoaren gainetik dago 35 urtetik beherakoen artean (15 eta 24 urte artekoetan %93,1 eta 25 eta 34 urte artekoetan %79,8) eta 65 urtetik gorakoen artean (%73,4).

Halaber, ikasketa maila ere kontuan hartzekoa da (ikus 27. Taula): ikasketa maila txikitu ahala handitzen da ongizate gabezia eta pobrezia jasateko arriskua.

<b>27. Taula: Biztanleria potentzialki independentearen pobrezia tasa, ongizate gabezia tasa, pobreen kopurua eta ongizate gabeziaren kopurua generoaren, adinaren eta ikasketa mailaren arabera. EAE, 2000 urtean. (ehunekoak)</b>				
<i>Sexua, adina eta ikasketa maila</i>	<i>Pobrezia tasa</i>	<i>Ongizate gabezia tasa</i>	<i>Pobreen kopurua</i>	<i>Ongizate gabezia kopurua</i>
Gizonezkoak	16,1	48,7	20,5	35
Emakumezkoak	58	84,2	79,5	65
15-24 urte	57,1	95,1	12,7	11,9
25-34 urte	39,6	79,8	21,1	24
35-44 urte	32,1	58,9	15,4	16
45-54 urte	36,6	46,1	16,2	11,5
55-64 urte	43,9	58,3	17,1	12,8
65< urte	30,4	73,4	17,5	23,9
Lehen mailakoak	43,3	74,3	63	61
Bigarren mailakoak	41,3	64	11,5	10
Profesionalak	28,7	64,4	13,4	17
Unibertsitatekoak	27,3	48,2	12,1	12
Guztira	37,8	67,1	100	100

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren EDPS 2000

Prekariotasun indibiduala oso hedatua dago, Sanzoren arabera. Prekariotasuna sofritzen dute diru irabazietan egonkortasuna ez dutenek (kontratazio irregular edo behin-behinekoa medio) edo/eta diru sarrera txikiak izanagatik pobrezia arriskuan daudenek. Indibidualki, egoera hauetakoren batean dago EAeko biztanleriaren %48,5. Kopurua ia ez da txikitzen biztanleria aktiboaren kasuan: %44,9. Ongizate gabezia ere prekariotasunaren adierazle bezala hartuko balitz, kopurua %62,6koa litzateke. Edozein adierazle erabiltzen delarik ere, Sanzok nabarmentzen du sistema ekonomikoarekiko posizio indibidualari dagokionez, prekarietate handia dagoela.

EAEko ekoizpen sisteman bi multzo handi bereiz daitezke eta kopuruz antzekoak dira (ikus 28. Taula): batetik, gehienbat langile kualifikatuz edo semi-kualifikatuz osatutako enplegatu egonkor eta diru nahikoa jasotzen dutenen multzo bat, eta, bestetik, beste multzo handi bat, kopuruz bestearen parekoa, zeinetan biltzen diren diru nahikoa jasotzen ez duten enplegatu egonkorak, kontratu egoera prekarioetan edo irregularretan dauden enplegatuak, eta langabetuak. Aktibo ez dependienteen artean ere banaketa antzekoa da, baina hauen artean handiagoa da pobrezia nozitzeko arriskuan daudenen kopurua.

Sanzok Eusko Jaurlaritzaren EDPS 2000 inkestan oinarrituz ematen dituen datuen arabera (ikus 29. Taula), 18 eta 44 urte arteko biztanleriaren %15ak etxebizitza independente batean bizi nahiko luke, baina baliabide ekonomikoaren gabezia medio, ez dute beren borondatea gauzatzeko. Pertsona hauen %93ak 18 eta 34 urte artean dauzka. Halaber, independizatu nahi eta ezin dutenen %76,5ak bigarren edo hirugarren mailako ikasketak dauzka. Gainera, independizatu nahi

eta ezin dutenen %65,1a biztanleria okupatua da. Horien artean %26,5 okupatu egonkorrak dira eta %38,6, berriz, ezegonkorrak. Ez independizatzeko bi kausa nagusiak, batetik, etxebizitza erosi ahal izateko gaitasun ekonomiko falta, eta, bestetik, ongizate gabezia edo pobrezia arrisku handia dira.

<b>28. Taula: Potentzialki independentea den biztanleriaren banaketa, jardueraren eta pobrezia arriskuaren arabera. EAE, 2000 (Kopuru absolutuak eta ehunekoak talde bakoitzeko biztanleria osoarekiko)</b>			
<i>Jarduerarekiko harremana eta pobrezia arriskua</i>	<i>Kopuru absolutuak</i>	<i>Potentzialki independentea den biztanleriarekiko ehunekoak</i>	<i>Aktiboen ehunekoak</i>
Jarduera egonkorra Pobreziarik ez	535.722	32	55,1
Jarduera egonkorra Pobrezia	45.249	2,7	4,7
Egoera ezegonkorra/ Prekarioa/ Langabezia Ez pobrezia	179.223	10,7	18,4
Egoera ezegonkorra/ Prekarioa/ Langabezia Pobrezia	212.877	12,7	21,9
Ez aktiboak Ez pobrezia	325.070	19,4	
Ez aktiboak Pobrezia	374.370	22,4	
Prekarietate edo pobrezia Kasuen proportzioa		48,5	44,9
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren EDPS 2000			

Sistema ekonomikoan indibiduo bakoitzak daukan kokapena eta kokapen honetatik eratorritako baliabideak funtsezkoak dira independizazio indibidualaren kopuruak aztertzeko. Ez independizatzeko politikak logika ekonomiko eztabaida ezina dauka.

<b>29. Taula: Independizatuakoen eta ongizate mailaren kopuruak lan jarduerarekiko harremanaren arabera. EAE, 2000 (ehunekoak eta tasak)</b>			
<i>Jarduerarekiko harremana</i>	<i>Independizatuakoen portzentajea</i>	<i>Ez pobrezia tasa</i>	<i>Ongizate Tasa</i>
Okupatuak	60,9	84,5	49,4
Ez soldatapekoak	73,8	84,8	52
Soldatapeko egonkorrak	72,7	95	66,8
Soldatapeko ez egonkorrak / prekarioak	33,3	66,8	19
Langabetuak	35,2	6,5	1,2
Ez aktiboak	87,6	46,5	19,4
Adin txikikoak eta 25>	0,1	0,1	0
Guztira	56,5	50,3	26,6
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren EDPS 2000			

Orain arte aipatutako datuekin alderatuz gero, paradoxa handia dirudi EAEko bizikidetzaren unitate gehienetan ongizate maila nahikoa dagoela ikustea. Eusko Jaurlaritzaren EDPS 2000 inkestaren arabera (ikus 30. Taula), EAEko bizikidetzaren unitateen %98,3ak jarduera ekonomiko batetik eratorritako diru sarreraren bat edo Gizarte Segurantzaren ekarpen ekonomikoren bat jasotzen du, eta horrek ongizate maila nahikoa lortzea bermatzen du kasuen %72,2an eta pobrezia gainditzea kasuen %95,7an. Gainera, EAEko bizikidetzaren unitateen %71,7an maila handiko diru

sarrera bat edo maila ertaineko bi diru sarrera daude, eta honek pobrezia gäinditzea suposatzen du kasuen %100ean eta ongizate maila nahikoa lortzea kasuen %93,3an.

<b>30. Taula: Bizikidetzä unitateak, diru sarreren eta ongizate mailaren arabera. EAE, 2000 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)</b>				
<i>Diru sarrera mota</i>	<i>Probabilitatea</i>			
	<i>Kopuru absolutuak</i>	<i>Portzentajea</i>	<i>Ongizatea</i>	<i>Pobrezia</i>
Gutxienez diru sarrera propioen bat	676.371	98,3	72,2	95,7
Gutxienez handi bat edo bi ertain	493.451	71,7	93,3	100
Diru sarrera propioen beste egoera bat	182.920	26,6	15,4	84,2
Diru sarrera propiorik ez	11.856	1,7	11	25,8
Guztira	688.227	100	71,2	94,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren EDPS 2000

Datu batzuk eta besteak alderatzean, ez dago paradoxarik. Etxebizitza berean arrisku talde ezberdinetan dauden indibiduoak elkarrekin bizi direnez gehienetan, familiak arriskuak ezabatzen ditu maiz eta ongizatearen berme bihurtzen da. Familiak izkututzen du banakoen pobrezia potentzialerako arrisku kasuen %70,3 eta ongizate gabeziarako arrisku kasuen %60,6. Hortaz, arazoa erraldoia izan arren, familiaren elkartasunak eragin bikoitza du: batetik, bere kideak babesten ditu, baina, bestetik, independizatzeko prozesuen arazoei aurre egiteko aukera potentzialak blokeatzen ditu.

## 2.3 Galderak egin beharra

Atal honetan azaldu dugunaren arabera, aberastasunaren banaketa gero eta asimetrikoagoa da. Mundu mailan oro har ez ezik AEBetan, Europan eta Euskal Herrian ere gertatzen ari da. Polarizazio sozio-ekonomikoa hazkorra da. Kapitala eta errenta handiak aberastasunaren gero eta zati handiagoa eskuratzen ari dira eta, aitzitik, lanaren errentek oro har baina bereziki errenta ertain eta txikiek gero eta zati txikiagoa lortzen dute. Nagusiki 1980ko hamarkadan indartsu abiarazi zen fenomeno da hau, gehien irabazten dutenek erlatiboki hirurogei urte lehenago irabazten zuten bezain beste poltsikoratzeko aukera berreskuratu dutelarik. Asimetria handieneko bi garai hauen artean aldatu egin zen aberastasunaren banaketaren joera, orekatze aldera egin zuelarik. Batik bat 1960ko hamarkadaren bukaera aldera eta 1970eko hamarkadan zehar nabarmen murriztu zen dirudunen eskuratzen zuten aberastasunaren zatia. Baina garai hura amaitu zen eta, esan bezala, 1980ko hamarkadatik 2000ko hamarkadara nabarmen hazi da asimetria. Polarizazio fenomenoaren ondorioz, EAEn adibideari bagazozkio behintzat, oso handia da ongizate mailara iristeko nahikoa irabazi ez dituztenen kopurua, irabazi nahikoa lortzen dituztenen parekoa ia, baina hala izanik ere, pobrezia eta ongizate gabezia ez dira hainbesteren hiritarregana iristen, familiak galbahe lana egiten baitu, norbanako prekarizatuenei pobreziatik ihes egitea ahalbidetuz baina aldi berean arazoaren tamaina izkutaraziz.

Azalpen hauek guztiak baliagarriak badira ere, hasieran egin dugun galderari erantzun gabe jarraitzen dugu eta galdera berriak sortu dira: Nor da *kontraerasoa* deitzen dugun fenomenoaren

subjektua? Nork abiarazi zuen fenomeno hau? Nola? Eta zergatik gertatu zen kapitalaren metatze prozesuaren eta errenta handien irabazien beherakada handia 1960ko hamarkadaren bukaera aldera eta bereziki 1970eko hamarkadan zehar?

Testuinguru honetan subjektua definitzeko bat-bateko erantzuna zuzena izan daiteke: kapitala. Hortaz, ikuspegi honen arabera, aldaketa hauek guztiak kapitalaren eta lanaren arteko gatazkaren ondorio izan daitezke. Baina baieztapen honen aurrean hainbat galdera sor daitezke. Adibidez, ez al dago kapitalaz eta lanaz gain aberastasunaren banaketan eragiten duen beste erakunderik? Guda eremu ez arautuak dira? Eta *lana* kontzeptua erabiltzen dugunean, zertaz ari gara? Diru irabazien banaketari dagokion asimetria al da *kontraerasoak* eragin duen aldaketa bakarra?

Honezkero galdera nahikoa egin ditugu eta horiei guztiei erantzuten saiatuko gara segidan, baina alde zuzenetik, baldin erantzuteko asmorik gabe, bi iritzi aipatuko ditugu, ondoren azalduko dugunaren aurrekari moduan baliagarriak sorta daitezkeelakoan. Horra, beraz, bi ekarpen Marazzi eta Polavieja-ren eskutik.

Batetik, Marazzik<sup>534</sup> dioenez, kapitalaren eta lanaren arteko harremana ez da merkatuan oinarritzen. Marazzik teoria neoklasikoaren aurka egiten du honela. Merkatuaren teoria neoklasikoen arabera, lan indarraren salneurria finkatzen dituen merkatuaren eskariaren eta eskaintzaren egoera dira. Marazzik, ordea, testuinguru soziala ezinbesteko jotzen du kapitalaren eta lanaren arteko harremana ulertzeko. Durkheimek zioenarekin bat etorritik, Marazzik dio soldata ezartzeko arauak oinarri sozialak dituztela.

Bestetik, Polavieja-ren<sup>535</sup> arabera, aldaketa sozio-ekonomikoak soilik kapitalaren eta lanaren arteko harremanean oinarrituz aztertzen dituztenek segmentazio sozialak azaldu nahi izaten dituztenean, maiz taldekatze ez errealistak egiten dituzte, sinplifikazioan eroriz. Ondorioz, Polavieja-ren arabera, guk kontraerasoa deitu dugun fenomenoaren subjektu bakarra ez da kapitala. Gainera, kapitala nortzuk bultzatzen duten ere argitu beharko litzatete. Horrez gain, ikuspegi hauek sarri ez dute analizatzen estatua bezalako erakundearen erregulazio politika, merkatuak arautuak ez balira bezala aztertzen dituzte, estatuak eta gainerako erakunde arauemaileek beren baldintzak ezarriko ez balituzte bezala.

Orain Polaviejak aipatzen duen kontu bati helduko diogu: nortzuk bultzatzen dute kapitala? Erantzunaren zati bat azaltzen saiatuko gara hurrengo atalean, zati esanguratsua, baina zati bat bakarrik.

### 3. Neoliberalismoa, proiektu politiko baten oldarraldia

David Harvey antropologoak neoliberalismoaren historiari buruzko liburu oso interesgarri bat argitaratu zuen 2005. urtean<sup>536</sup>. Bere azalean lau politikari ospetsuren argazkiak ageri dira: Ronald Reagan, Margaret Thatcher, Augusto Pinochet eta Deng Xiaoping, hurrenez hurren AEBetako,

---

<sup>534</sup> Marazzi, 2003, 34 or.

<sup>535</sup> Polavieja, 2003, 4-35 or.

<sup>536</sup> Harvey, 2005.



Erresuma Batuko, Txileko eta Txinako buruzagi ohiak. Harvey-ren arabera lau hauek dira neoliberalismoa gauzatzen hasi zirenen artean aurpegi erakusgarrienak. Harrezkero, jakina, proiektu politiko honen gidaritza eta sustapena beste askoren esku ere egon da.

Atal honetan azken urteetako ibilbide profesioaletan eragin itzela izan duen mugimendu hau labur aztertzen saiatuko gara. Lehenik eta behin, neoliberalismoaren printzipio nagusiak analizatuko ditugu. Segidan bere hedapenaren historiaren hainbat ezaugarri nabarmenduko ditugu eta teoriatik praktikarako jauzian sortu dituen kontraesanak ere izango ditugu aztergai.

## 3.1 Askatasuna aldarri

### 3.1.1 Liberalismoa

Amin-en<sup>537</sup> arabera, liberalismoa Paris-Londres-Amsterdam hirukian XVI. mendetik aurrera ernatu zen, baina zentzu politiko zabalean, Imaz-ek dioenez<sup>538</sup>, liberalismoa XVIII eta XIX mendeetan hasi zen hiruki horretatik haratago zabaltzen. Berpizkundearen eta Ilustrazioaren hainbat ideia bereganatu (arrazoia, gizabanakoaren garrantzia eta askatasuna, besteak beste) eta bere galbahetik pasa zituen. Liberalismoa aldaketa sozialaren funtsezko motorra izan zen: orain dela berrehun urte Modernitatea abiarazi zuen, iraultza politikoa sustatuz (absolutismoa eta Errejimen Zaharra gaindituz ezarri zituen demokrazia parlamentarioak, 1787 urteko AEBetako konstituzioarekin eta 1789 urteko Frantziako iraultzarekin kasu) eta industria iraultza bultzatuz (Ingalaterran XVIII mendean zehar legebiltzarrak *Enclosure Acts* izenekoak bitartez lurak itxi eta pribatizatu zituenean, hamaika nekazari txikik landa eremua utzi eta hirietara joan behar izan zuten enplegu bila, industrializazio kapitalistaren oinarri izango ziren lantegiei lan indarra eskuratzea ahalbidetuz).

Liberalismoak askatasuna du aldarri nagusi. Izan ere, liberalismoa latineko *liber*-en eratorria da. Liberalismoak aldarrikatzen duenaren arabera, estatuak ahalik eta gutxien parte hartu behar du merkaturan, politikak ahalik eta gutxien ekonomian. Estatuak jabetza pribatua eta hiritarren segurtasuna bermatu beste zereginik ez luke izan behar. Estatuak kontratuak betearazi, merkataritza askea ziurtatu eta botere politikoak mugatu egin behar ditu. Liberalismoaren arabera, ez da estatuaren ardura hiritar guztiei osasun zerbitzuak, hezkuntza eta pentsio ekarpenak bermatzea, horrela alperkeria sustatzen baitu eta ez baitira norbanakoaren merituak eta ahaleginak behar bezala saritzen. Gakoa, liberalismoak dioenez, norbanakoaren askatasuna ahalbidetzea da, honek lehiakortasunera daramalako eta gizarteak giro honetan garatzen direlako. Lehiakortasunari esker David-ek Goliat-i ere irabaz diezaioke, liberalismoaren arabera. Lehia, enpresa pribatuen artean gauzatzen da. Jabetza publikoa utzikeria handiagoz kudeatzen da, lehiakortasun ezak alperkeria sustatzen duelako, liberalismoaren arabera. Beraz, kanpo araurik gabe, kanpo eskuhartzerik gabe, merkatuak bere bidea egiten du eta denbora nahikoa emanez gero, beti norbanako guztiei aberastasuna eta askatasuna ekartzen diela uste du liberalismoak, garapen ekonomikotik eratortzen dela garapen politiko-soziala, Imazek<sup>539</sup> azaltzen duenez.

---

<sup>537</sup> Amin, 2007.

<sup>538</sup> Imaz, 2006, 46-47 or.

<sup>539</sup> Imaz, 2006, 48-49 eta 55 or.

Polanyi-ren<sup>540</sup> arabera, *laissez-faire* delakoari lotutako ideiak XVIII erdialdera hasi ziren erabiltzen eta 1820 urtetik aurrera nabarmen indartu ziren liberalen hiru dogma klasikoak: lanak bere salneurria merkatuan aurkitu behar du, txanponaren sorrera autoerregulazio mekanismoen menpe egon behar da, eta merkantziak trabarik gabe mugitu behar dira herrialde batetik bestera. Polanyi honela laburbiltzen ditu hiru dogmak: lan merkatua, urre-eredua eta elkartruke librea.

### 3.1.2 Neoliberalismoa

Liberalismoa da neoliberalismoaren aurrekari historiko zuzenena<sup>541</sup>, nahiz eta esate baterako Chomsky-ren iritziz ezin den hartu bata bestearen oinordeko bezala<sup>542</sup>: ideia liberal klasikoak oinarri dituztela esan eta, besteak beste, Adam Smith goraiatzaren duten arren, Chomskyren arabera neoliberalismoa aldi berean printzipio sistema berria da. Gainera, Chomsky-ren iritziz neoliberalismoaren printzipioei arretaz begiratu gero, nabarmena da Ilustraziotik eta tradizio liberaletik urrundu egiten dela.

Edonola ere, aurrekaria izan edo ez, neoliberalismoak hainbat osagai mailegatu dizkio liberalismoari. Aipagarrienak nabarmentzen saiatuko gara segidan.

Imazek<sup>543</sup> dioenez, neoliberalismoak ez du bere burua proiektu politiko bezala aurkezten. Ikuspegi zientifiko-objektibo-neutrala darabilela uste du neoliberalismoak, beraien proposamena dela bide zilegi bakarra eta ez aurkera ideologiko-politiko bat. Gainerako proposamen politikoei sineskerietan oinarritzea leporatzen die, beste hainbat egitasmo politikok egin izan duten bezalaxe.

Herrera-ren<sup>544</sup> arabera, ekonomia neoklasiko ofizialak (korrante honetan neoliberalismoa da nagusi) bortitz erasotzen ditu ekonomista heterodoxoak arlo mikro eta makroekonomikoan, baina baita erakundeen arloan ere. Eraso hauek, ordea, ez dute nagusitasun teorikoarekin zerikusirik. Ekonomia neoklasikoa krisi teoriko sakonean murgildua dago. Mikroekonomian (matematikoki) ezinezkoa zaie frogatzea oreka orokorraren singularitatea agenteen maximizazioan oinarrituz, nahiz eta beren ikerketetan arazo hauek ez aipatu. Makroekonomian arazo handiak dauzkate *kapitala* eta *estatua* bezalako oinarrizko kontzeptuak azaltzeko eta agente bakartia *merkatu*, *elkartruke* eta *salneurri* bezalako terminoekin lotzeko. Eremu neoinstituzionaletan hautespen indibidual askeen ideologiak hondamendi intelektualetara eramaten du. Baina arazo teorikoak arazo, Herrera-k dioenez, teoria neoklasikoak funtzio sozial argia du: politika neoliberaleri itxura zientifikoa eman nahi die. Praktikan porrot egin arren, teoriaren emaitzak errealitatean ez gauzatu arren, diskurtso teorikoa baliagarria da bere egitasmoak zilegi diren bakarrak bezala aurkezten jarraitu ahal izateko.

---

<sup>540</sup> Polanyi, 1989.

<sup>541</sup> Harvey, 2005.

<sup>542</sup> Chomsky, 2000.

<sup>543</sup> Imaz, 2006, 80 eta 156 or.

<sup>544</sup> Herrera, 2008, 58 or.

Zuberok<sup>545</sup> dioenez ere, globalismo neoliberala egitasmo politikoa da argi eta garbi, baina apolitikoa balitz bezala aurkezten du bere burua. Gaur egun hegemonikoa bihurtu den fenomeno hau, Zuberoren iritziz, ez da soilik pentsamolde ekonomiko bat baizik eta batik bat sistema politiko bat, zeinaren helburuek eskatu egiten baituten, paradoxikoki, politika ukatzen duen diskurtso eta praktika politikoa. Baina asmo hau baino faltsuagorik ez dago, Zuberoren arabera. Izan ere fenomeno honek despolitizatzearekin batera berpolitizatu egiten du. Globalizazioa diskurtsoaren baliabide bezala erabiltzen dute enpresaburuek negoziatorako indarra berreskuratzeko. Petrella-k “trabarik gabeko kapitalismoa” deitzen duena garatzen da: kapitalismo nazional, batik bat agroindustrial eta ekonomia mixtokotik mundu mailako kapitalismoranzko joera da, industria eta hirugarren sektorea nagusi dena eta koertzio mota orotik askatzeko joera duena. Gizarteetako berdinaletasun irizpideak desagerrazten ditu, eremu demokratikoa higatu egiten du. Merkatuaren eraginkortasunaren izenean egiten du, demokraziaren gainetik dagoen zerbait balitz bezala.

Harvey-ren<sup>546</sup> arabera ere neoliberalismoa oinarrian teoria politiko-ekonomikoa da. Bere aldarriak giza duintasuna eta gizabanakoaren askatasuna dira eta hori lortu ahal izateko honakoa proposatzen du: gizakion ongizatearen bidean garatzeko liberatu egin behar dira norbanakoaren negozioetarako askatasunak eta trebeziak, horretarako testuinguru egokiena jabetza pribatu indartsua, merkatu liberalizatuak eta merkataritza liberalizatuak direlarik. Estatuak testuinguru egokiena bermatzea beste zereginik ez luke izan behar, besteak beste dirua (kalitatea eta osotasuna), defentsa edo segurtasuna, jabetza pribatua eta merkatuen funtzionamendua. Ikuspegi honetatik esan zuen Margaret Thatcher-ek “ez [dagoela] gizartea deitzen den ezer, soilik gizonak eta emakumeak [daudela]”.

Pobreziari buruzko ikuspegia ere liberalismoari mailegatu dio neoliberalismoak. Seattle-n 1999 urteko azaroaren 28an, protesta entzutetsuak hasi aurreko egunean, Munduko Merkataritza Erakundearen zuzendari orokor Mike Moore-k hitza hartu zuen Erakunde Sindikal Askeen Nazioarteko Konfederazioaren bilkuraren aurrean esateko pobrezia zela eta ez merkataritza mundu mailako lan baldintza txarren eragilea eta egoera hobetzeko ez zirela zigorrak ezarri behar, horren orde beharrezkoa zela merkataritza gehiago hedatzea.<sup>547</sup>

Izan ere, Hart-Landsberg-ek<sup>548</sup> dioenez, neoliberalismoaren ideia garrantzitsuenetakoa da merkatu liberalizatuek pobrezia desagerrarazten dutela. Ezberdinkeria sozialak azaltzeko neoliberalismoak bi argumentu mota erabili ohi ditu: batetik, merkatua behar bezain liberalizatu ez egoteak eragiten dituela arazoak<sup>549</sup> eta, bestetik, sistema guztiek sortzen dituztela ezberdintasunak, gizakion arteko ezberdinkeriak desagerraraztea ezinezkoa delako, baina sistema honek, neoliberalismoak proposatzen duenak, ezberdinkeria gutxiago eragiten dituela zeren ezberdinkeria sortzeaz gain aberastasuna ere ekoizten baitute eta honek guztiei egiten baitie mesede, baita txiroenci ere.<sup>550</sup>

---

<sup>545</sup> Zuberu, 2007, 43-45 or.

<sup>546</sup> Harvey, 2005, 2-7 eta 22 or.

<sup>547</sup> Zuberu, 2007, 11 or.

<sup>548</sup> Hart-Landsberg, 2008.

<sup>549</sup> Klein, 2007, 81 or.

<sup>550</sup> Imaz, 2006.

Ondorioz, neoliberalismoari okerra iruditzen zaio edozein baliabideren banaketa berdintasunean pentsatuz egitea, Imazek<sup>551</sup> azaltzen duenez. Neoliberalismoaren ikuspegitik lehiakortasuna da gizarteek garatzeko duten bide aproposena, beste bide guztiek ekonomiaren garapen osasuntsua trabatzen baitute. Ondorioz Ongizate Estatuak gaitzetsi egiten dute neoliberalak. Ongizate Estatuak nagusiki lau zutabe ditu, Navaroren<sup>552</sup> arabera: transferentziak (zahartzaroko erretiro ekarpenak dira garrantzitsuenak), zerbitzu publikoak (osasun zerbitzuak, hezkuntza, zerbitzu sozialak, familientzako zerbitzuak, bazterketa sozialaren aurkako zerbitzuak, lan trebakuntzarako zerbitzuak, eta abar), langileen, kontsumitzaileen eta egoiliarren babeserako arauak (lan araudiak, ingurugirokoak, kontsumitzaileenak, eta abar) eta enplegu egokiak sortzera bideratutako politikak. Imazen<sup>553</sup> arabera, neoliberalismoak Ongizate Estatuaren kontrakoa bilatzen du: kaleratzearen merketzea, erretiroa atzeratzea, pentsio sistema pribatuak sustatzea, eta gisako beste hainbat politika. Neoliberalismoak Ongizate Estatuak desagerraraztea du helburu

Washingtoneko Adostasuna (Washington Consensus) printzipio neoliberalen erakusgarri esanguratsua da. John Williamson-ek<sup>554</sup> 1989 urtean Erta eta Hego Amerikan pentsatuz prestatu zituen errezeta ekonomikoetan oinarrituz, proposamen orokorrak adostu zituzten. Dokumentu honetan argi islatzen dira neoliberalismoaren errezeta nagusiak: 1) diziplina fiskala, 2) gastu publikoaren lehenetsunaren berregituraketa, 3) zergen berregituraketa, 4) interes tasen liberalizazioa, 5) truke tasa lehiakorra, 6) nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa, 7) kanpo inbertsio zuzenen sarreren liberalizazioa, 8) pribatizazioa, 9) deserregulazioa, 10) jabetza eskubideak.

Klein-ek<sup>555</sup> Chicagoko Eskolan oinarritutako proiektu politikoen hiru zutabe nabarmentzen ditu: 1) gobernuak desagerrarazi egin behar dituzte etekinak metatzea trabatzen duten arau guztiak; 2) gobernuak saldu egin behar dituzte enpresa pribatuak kudeatu ditzaketan eta etekinak eman ditzaketan aktibo guztiak; 3) gobernuak errotik moztu behar dituzte egitasmo sozialetara bideratutako aurrekontuak.

Herrera-k<sup>556</sup>, berriz, honela laburbiltzen ditu neoliberalismoaren *dogma* deitzen dituenak: maila nazionalean 1) kapitalaren jabetza egituraren desitxuraketa kapital pribatuaren mesedetan, 2) helburu sozialeko gastu publikoen murrizketa, 3) inflazioaren aurkako borroka soldaten austeritatea lehenetsiz; eta maila globalean AEBetako dolarraren nagusitasuna betierekotu nazioarteko moneta sisteman eta merkataritza liberalizatua sustatu, protekzionismoa desagerraraziz eta kapital transferentziak liberalizatuz.

Neurri hauek guztiek teoria neoklasikoan dute oinarria. Teorialari neoklasiko guztiak ez dira neoliberalak baina harreman konplexu horretan neoliberalak ez direnek neoliberalismoarekiko menpekotasuna izan ohi dute, Herrera-k<sup>557</sup> dioenez, eta azken 20 urteetan ekonomista neoklasikoak jaun eta jabe izan dira teoria ekonomikoaren eremuan. Arestian aipatu dugun bezala, teoria neoklasikoak guztia azaldu nahi du norbanakoaren maximizazio jokabidean oinarrituz:

<sup>551</sup> Imaz, 2006, 99 or.

<sup>552</sup> Navarro, 2005, 23-24 or.

<sup>553</sup> Imaz, 2006, 51 eta 59 or.

<sup>554</sup> Williamson, 2008.

<sup>555</sup> Klein, 2007, 88 or.

<sup>556</sup> Herrera, 2008, 58 or.

<sup>557</sup> Herrera, 2008, 60-68 or.

teoria honen arabera, saltzaile eta erosle orok beren interesen arabera jokatzeko dutenean, lehiakortasunak salneurri eta kopuru multzo bakarra sortzen du eta honela oreka perfektua sortzen da produktu eta zerbitzu ororen eskariaren eta eskaintzaren artean eta ekoizpenean erabiltzen diren insumoen artean, eta oreka honen ondorioz ongizate sozialak goia jotzen du eta norbanako batek ezingo luke bere egoera pertsonala hobetu beste norbanako batena kaltetu gabe. Oreka teoria orokor honek formalizazio matematiko pisutsua eta zorrotzasun normatibo estua erabiltzeaz gain, Herrera-ren arabera oinarri errealek gabeko uste ugari ditu abiapuntu. Teoria neoklasikoaren arabera, norbanakoaren hautuak askeak, arrazionalak eta interes pertsonalak bultzatutakoak dira eta baldintza hauek bete daitezkeen agenteen ezaugarriez gain harremanen testuinguru soziala ere egokia izatea ezinbestekoa da.

Hart-Landsberg-ek<sup>558</sup> dioenez, neoliberalismoaren teoria hau David Ricardo-ren abantaila lehiakorraren teorian eta bere ondorengo aldaeretan oinarritua dago. Teoria honen funtsean hainbat uste daude:

- a) Enpresen arteko lehiakortasuna perfektua da.
- b) Enplegu osoa dago ekoizpen faktore guztietan.
- c) Eskulana eta kapitala erabat mugikorrek dira herrialdeen barnean eta ez dituzte estatuen mugak gainditzen.
- d) Merkataritzaren bitartez herrialdeak eskuratzen dituen aberastasunak bertako biztanleek eskuratzen dituzte herrialdean bertan gastatzeko.
- e) Estatuen kanpo merkataritza beti orekatua dago.
- f) Merkatuko salneurriek produktuen kostu errealek (edo sozialak) zorrotz islatzen dituzte.

Baina, Hart-Landsberg-en arabera, errealitatean baldintza hauek ez dira betetzen eta, beraz, teoria ezin da bere horretan onartu. Neoliberalismoa, eraldaketa handiak sustatzen eta zurriz dituen joera da, baina, Hart-Landsberg-ek dioenez, ez du pobrezia txikitzen, kontrakoa baizik. Gaur egungo ikerketa neoliberalak oinarrizko akats larriak dituzte baina, gainera, ez dute merkatu liberalizatuak zurrizteko indar handirik. Adibidez, *Global Economic Prospects 2002* delakoak Munduko Bankuarentzat 2005-2015 urteetako aurreikuspenak egitean zioen Saharaz azpiko Afrikako herrialdeentzat aldaketa neoliberalak %0,6 igoaraziko zutela BPGa. Beraz, 2005 urtean 500 dolarreko errenta per capita zutenek 2015 urterako 503 dolarrekoa izango dute, aurreikuspen hauen arabera. Halaber, adibidez, *Global Economic Prospects 2005* txostenean neurri liberalizatzaileek 1997-2001 urteen artean izan zuten eragina neurtuz, irabazi egonkorrak orotara 260.000 milioi dolarrean jaitsiko lirateke 2015 urtean eta soilik %41 joango litzateke Hirugarren Mundua delako eremura.

---

<sup>558</sup> Hart-Landsberg, 2008.

## 3.2 Hedapenaren historiari entresaka

### 3.2.1 Neguko koartelelan

Milton Friedman heriotza aukera ona izan zen historia ofiziala berridazteko, Kleinen<sup>559</sup> arabera. Askok argitaratu zuten Friedmanen proposamen erradikalak gobernu gehien ortodoxia bihurtu zirela eta bere errezetak era baketsuan aplikatu ahal izan zituztela beren gizarteetan. Bide batez publikoki esan zuten azken hamarkadetako kapitalismoaren garaipena askatasunean oinarritu zela eta merkatu liberalizatuak demokraziarekin batera etorri zirela. Baina Friedman hil zenerako ideia horiek indartsu hedatzen baziren ere, doktrina hau ez zen beti hain boteretsua izan.

Neoliberalismoaren hastapenak aurkitzeko 1940ko hamarkadaren bukaerara jo beharra dago, Harvey-ren<sup>560</sup> arabera. Neoliberalismoa Bigarren Mundu Gerraren ostean hasi zen erretzen. Friedrich Von Hayek austriar filosofo politikoak 1947 urtean sortu zuen Mont Pelerin Society izenekoa, neoliberalismoaren teoriaren abiapuntua. Kideen artean zeuden Ludvig von Mises, Milton Friedman eta, parte batez, Karl Popper. Elkartearen sorrera adierazpenak honelaxe dio:

“Zibilizazioaren balio nagusiak arriskuan daude. Munduko makina bat lekutan desagertu egin dira giza duintasunaren eta askatasunaren oinarritzko baldintzak. Gainerako lekuetan etengabe mehatxupean daude gaur egungo politikaren joeren erruz. Botere arbitrario hedakorrek progresiboki higatzen du norbanakoaren eta borondatezko taldearen posizioa. Mendebaldeko Gizonarentzat baliotsuenak diren pentsamendu eta adierazpen askatasuna ere mehatxupean daude, erruz zabaldu baitira gutxiengoekiko tolerantzia aldarrikatzen duten hainbat sinesmen, nahiz eta gutxiengoek botere posizio bat eskuratzea besterik ez duten helburu, beraienak ez diren gainerako ikuspegi guztiak ezabatzeke asmoz.

Elkarte honen iritziz, egoera hau ahalbidetu dute irizpide moralak ukatzen dituen historiaren ikuspegi batek eta legeak jarraitzea zalantzan jartzen duten teoriaren hazkundeak. Halaber, elkarte honen aburuz, jabetza pribatuarekiko eta merkatu lehiakorrarekiko sinesmenaren endekatzeak sustatu du egoera hau. Erakunde hauei lotutako boterea eta ekimenak hedatzen ez diren bitartean nekez irudika daiteke askatasuna eraginkortasunez bermatuko duen gizarte bat.”<sup>561</sup>

Beren buruak *liberal* bezala deskribatu zituzten, baina, Harvey-ren arabera, talde honi *neoliberal* etiketa ezartzen zaio, atxikipen handia baitzuten XIX mendearen bigarren erdian Alfred Marshall, William Stanley Jevons eta Leon Walras-en lanei esker agertu ziren merkatu librearen printzipio neoklasikoekiko, baztertuta utziz Adam Smith, David Ricardo eta, jakina, Karl Marx bezalako teoria klasikoak, nahiz eta, besteak beste, Smith-en esku ikusezinaren teoria eta Ricardo-ren lehiakortasunaren teoria hartu egin zituzten, gizakiaren oinarritzko instintuak mugiarazteko indar bezala.

---

<sup>559</sup> Klein, 2007, 41-43 or.

<sup>560</sup> Harvey, 2005, 9-12 or.

<sup>561</sup> Mont Pelerin Society in Harvey, 2005, 20 or.

Baina garai hartan neoliberal aitzindarien proposamenek ez zuten arrakastarik izan, Harvey-k dioenez. Beste garai bat zen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren hain zuzen, mundu mailako agintariek estatuaren egiturak eta nazioarteko harremanak berrerratu egin zituzten 1930eko baldintza katastrofikoak errepika ez zitezen, dinamika kapitalista arrisku larrian jarri baitzuten. Kapitalaren eta lanaren arteko adostasun antzeko batzuk ere ezarri zituzten. Bretton Woods hitzarmena abiarazi zuten. Ordukoak dira baita Nazio Batuen Erakundea, Munduko Bankua eta Nazioarteko Moneta Funtza ere. AEBetako dolarra ezarri zen errearen salneurri jakinean aldatzeko erreferentziaren ardatz eta merkatuak liberalizatzen hasi ziren. AEBek botere militarra bermatu zuten. SESB eta Gerra Hotza izan ziren sistema honen muga agerikoena. European sozialdemokrazia, kristau demokrazia eta gisako estatu eskuhartzaileak eraiki ziren. AEBek estatu liberal demokrataren ereduaren antza handia zuten. Japonia, izenez demokratikoa baina izatez burokratikoa zen. Mendebaldean oro har orduan hedatu zen keynesiar eredu, ongizate estatua izenekoa eraikiz. 1950eko eta 1960ko hamarkadetan hazkunde ekonomikoa oso handia izan zen.

Eliteko zenbait kideren diru babesak jaso arren, neoliberalak osatu zuten taldea bazterrekoa izan zen 1970eko hamarkadara arte. Orduan batik bat AEBetan eta Erresuma Batuan *think-tank* delakoak erruz finantzatu zituzten eta, eragin akademiko gero eta hedatuagoa oinarri, eskenaren erdian jarri zen neoliberalismoa. Hedapenari nabarmen lagunduz, Nobel saria eman zioten Hayek-i 1974 urtean eta Friedman-i 1976 urtean, Suediako bankuetako elitearen eskutik.

Klein-en<sup>562</sup> arabera, Friedman-en ametsa gizartearen gaur egungo ereduak ezabatzea eta kapitalismo garbienaren egoerara itzularaztea zen. Desagerrarazi egin nahi zituen gobernuen eskuhartzeak, zerga mugak eta hainbat talderen interesak. Friedmanen doktrinan eskaintza, eskaria, inflazioa eta langabezia indar ekonomiko egonkor eta aldaezinak ziren, naturaren indarrak balira bezala. Merkatu librearen utopian indar hauek guztiak oreka perfektuan bizi ziren, eskariak eskaintza mugiaraziz, ilargiak itsasoaren mareak mugitzen dituen bezala. Izan ere, Chicagoko Eskolaren arabera merkatu libre sistema zientifiko perfektua da. Merkatu libre oinarri duen ekonomian arazoak sortzen badira (inflazio edo langabezia handia kasu), merkatua behar bezain libre ez delako izango da, Friedman eta bere jarraitzaileek diotenez.

Askatasuna aldarri, Chicagoko Eskolaren kontrairaultzak langileek irabazitako eskubideak bertan behera uztea nahi zuen eta, halaber, estatuak hamarkadetan eraiki zituen enpresa indartsuenak oparitzea zuen helburu, Kleinek<sup>563</sup> salatzen duenez. Matematikaren eta zientziaren hizkeran adierazita zetorren arren, Friedmanen ikuspegia bat zetorren transnazional handien interesekin. Kapitalismo kolonialistak herrialde berri zabalak bereganatu zituen, trukean ezer ordaindu gabe, bertako aberastasunak hartuz eta tokiko jendeari ezer eman gabe, eta horrela lortutako etekinak ahalbidetu zuen hazkunde ekonomiko handi hura. Friedmanek, berriz, merkatu berri bat irekitzea proposatu zuen, batzuei aberastasun handia azkar ekarriko zien eremu berri bat: konkistatu beharreko muga berria estatua bera zen, bere zerbitzu publikoak eta bestelako aktiboak, eta horietako asko benetako balioa baino askoz merkeago jarri zituzten enkantean.

Harvey-ren<sup>564</sup> arabera, neoliberalismoa hasieratik izan da klase boterea berreskuratzeko egitasmoa. Neoliberalismoak ez du balio izan mundu mailako kapitalaren pilaketa prozesua biziarazteko:

---

<sup>562</sup> Klein, 2007, 80-82 or.

<sup>563</sup> Klein, 2007, 88-89 or.

<sup>564</sup> Harvey, 2005, 16-19, 31 eta 154-167 or.

hazkunde ekonomikoa 1960ko hamarkadan %3,5 ingurukoa zen, 1970eko hamarkada istilutsuan %2,4koa, 1980ko hamarkadan %1,4koa, 1990eko hamarkadan %1,1koa. Zenbait herrialdetan, Errusian kasu, galera handiak eragin ditu. Inflazioa murriztea eta kontrolatzea da neoliberalismoak bere arrakasta eraginkortzat har dezakeen bakarra. Neoliberalismoaren lorpenik garrantzitsuena aberastasuna modu ezberdin batean banatzea da, ez aberastasuna ekoiztea. Hots, neoliberalismoak honakoa lortu du: aberastasuna modu desorekatuagoan banatzea. Harvey-k *kenduz pilatu* formula erabiltzen du neoliberalismoaren dinamika nagusia azaltzeko. Harvey-ren arabera, Marx-ek kapitalismoaren sorreran deskribatu zituen funtzionatzeko moduen antzekoa da neoliberalismoa: lurraren merkantilizazioa eta pribatizazioa eta nekazariak behartuta kanporatzea (azken urteetan Txinan eta Mexikon bezala); zenbait jabetza eskubide (arrunta, kolektiboa, estatuarena, eta abar) jabetza eskubide pribatu eskusiboak bihurtzea (Txinan gertatu dira ikusgarrienak); eskubide kolektiboak bertan behera uztea; lan indarraren merkantilizazioa eta ekoizpen eta kontsumo eredu alternatiboak desagerraztea; aktiboak eskuratzeko (baliabide naturalak barne) prozesu kolonial, neokolonial eta inperialak; trukearen eta zergen monetizazioa, batik bat lurrarena; eskolaboen merkataritza, batik bat sexuaren industrian; lukurreria, zor nazionala eta mailegu sistema erabiltzea kenduz pilatzeko. Ekimen hauek guztiak gauzatze aldera, neoliberalismoaren diskurtsoak legitimazio sistema bezala funtzionatzen du, kapitala pilatzeko prozesua bermatzeko baldintzak berregin daitezten eta elite ekonomikoen boterea berriro sendotu dadin, baina printzipio neoliberalak ez dira garrantzitsuena zeren beharrezkoa izan den uneoro printzipio neoliberal zirenak baztertu egin baitira, edo eraldatu, ezezagun bihurtzera arte, hala beharrezkoa izan dutenean. Horrek ez du esan nahi ideia-ardatz oso boteretsuak eta eraginkorrak erabiltzen ez dituztenik. Edonola ere, Harvey-ren arabera, neoliberalismoak klase boterea berreskuratzeko ekimena izateak ez du esan nahi botere ekonomikoa pertsona berberei itzuli zitzaizela. Jende berri asko kokatu da elitean.

Hart-Landsberg-ek<sup>565</sup> dioenez, 1980 osteko aro neoliberallean hazkunde ekonomikoa motelagoa izan da, desoreka komertzialak handiagoak izan dira eta baldintza sozialak okertu egin dira. Navarro-ren<sup>566</sup> arabera ere neoliberalismoaren garaian hazkundea moteldu egin da. Garapen bidean dauden herrialdeetan urteko hazkunde ekonomikoa 1960-1980 urteen artean %5,5koa izan zen eta 1980-2000 urteen artean %2,6koa. Urteko hazkunde per capita, berriz, 1960-1980 artean %3,2koa eta 1980-2000 artean %0,7koa. OCDEko herrialdeetan, aldiz, hazkunde ekonomikoa per capita 1961-1980 artean %3,5koa eta 1981-1999 artekoa %2,0koa izan zen. Hortaz, OCDEko herrialdeen eta garapen bidean dauden herrialdeen (Txina salbu) arteko aldea handitu egin da. Baina herrialdeen arteko aldeaz gain, herrialde bakoitzaren baitako ezberdintasunak ere handitu egin dira, bai herrialde garatuetan bai garapen bidean dauden herrialdeetan. Herrialdeen arteko eta herrialde barneko ezberdintasunak uztartuz, Branco Milanovic-en datuen arabera, munduko biztanleriaren %1 dirudunenak mundu mailako diru irabazien %57 jasotzen du, eta dirudunen eta txiroenen arteko aldea 78 aldiz handiagoa izatetik 114 aldiz handiagoa izatera pasa da. Beraz, mundu osoan zehar txirotasuna handitu egin den arren, dirudunek handitu egin dute bere aberastasun ekonomikoa.

---

<sup>565</sup> Hart-Landsberg, 2008.

<sup>566</sup> Navarro, 2008, 75-77 or.



Castelek<sup>567</sup> dioenez, 1970 urtetik aurrera BPGa etengabe hazi da oro har, krisi urteetan salbu, baina politika neoliberaleri esker, ekoitzi den aberastasunaren banaketa gero eta modu desorekatuagoan gauzatu da eta ondorioz handitu egin dira ezberdinkeria sozialak.

Nolanahi ere, ukaezina da, Kleinen<sup>568</sup> arabera, Friedmanen merkatu librearen arauak eta printzipio hauek aplikatzeko estrategia zorrotzek aukera eman diela zenbait pertsoneri ikaragarri aberasteko eta, bazterreretara begiratzen ez badute, erabateko askatasunaren antza handia duen egoeran bizitzea ahalbidetu die, muga nazionalak gaindituz, legeak eta zergak ekidinez, dirua diruaren gainean pilatuz.

Baina nola lortu du neoliberalismoak hau guztia? Izan ere, aldaketa oso handia da. Esate baterako Chomsky-ren<sup>569</sup> arabera, neoliberalismoak definitzen du gaur egun paradigma ekonomikoa. Aitzindariak bakan batzuek izan ziren arren, gaur egun neoliberalismoa orientazio erreferentzia nagusia da eskubiko alderdientzat, zentrokoentzat eta tradizionalki ezkerrekoak izan diren askorentzat ere. Proiektu politiko honek ahalbidetu dio pertsona kopuru erlatiboki txiki bati beren interes pribatuak maximizatzea.

Hortaz, neoliberalismoak gutxi batzuen interesak bakarrik defendatzen baditu, nola hedatu da hainbeste?

### 3.2.2 Krisietan espezialista

Neoliberalismoaren hedapena ulertu ahal izateko gakoetako bat *krisia* da. Marazzi-ren<sup>570</sup> arabera, ekoizpen eta kontsumo sistema berriak gauzatu ahal izateko ezinbestekoa da krisi mota esanguratsuren bat. Ezinezkoa da normaltasun garaian horrelako aldaketa sakonak ezartzea, zeren desoreka soziala eta ezegonkortasun politiko handia eragingo bailuke bestela ere eta sozialki legitimatzen oso zaila litzatekeelako.

Milton Friedman-ek<sup>571</sup> krisien garrantzia nabarmendu zuen:

“Soilik krisi batek (erreal nahiz hautemandakoa) eman dezake aukera benetako aldaketak gauzatzeko. Krisi hau gertatzen denean, giroan dauden ideien arabera hartzen dira erabaki mota batzuk edo besteak. Nik uste dut hori dela gure oinarritzko funtzioa: gaur egun dauden politiketikiko alternatibak garatzea, bizirik eta jardunean mantentzen ditugun harik eta politikoki ezinezkoa dena politikoki ekidinezina bihurtzen den arte”.

Naomi Kleinen<sup>572</sup> arabera hauxe da kapitalismo garaikidearen funtsezko teknika: krisiak baliatzea. Politika neoliberalen hiru ardatz nagusiak (pribatizazioak, arauen deserregulazioa eta gastu sozialaren murrizketa) ez litzuke gehiengoak bere horretan onartuko baina krisiek ezinezkoa

---

<sup>567</sup> Castel, 1997.

<sup>568</sup> Klein, 2007.

<sup>569</sup> Chomsky, 2000.

<sup>570</sup> Marazzi, 2003, 18 or.

<sup>571</sup> Friedman, Milton in Klein, 2007, 27 or.

<sup>572</sup> Klein, 2007, 31-32 or.

gauzatzeko aukera ematen dute, nola baliatu asmatuz gero. Horixe gertatu zen, besteak beste, Txilen, Argentinan, Txinan, Errusia, Erresuma Batuan edo Jugoslavian. Ekonomia ez zen izan gatazka hauek abiarazi zituen motibazio bakarra baina kasu guztietan *shock* egoera kolektiboak ahalbidetu zuen *shock* terapia ekonomikoa. *Modus operandi*-a ezberdina izan da leku eta une bakoitzean. Batzuek bortxa handikoak izan dira. Beste batzuetan bortxa ez da agerikoa izan. Baina guztietan lehenik gertaera traumatiko larriak izan dira eta giro horretan errazago gauzatu ahal izan dituzte politika neoliberal gordinenak ere, bestela arrakastarik izango ez luketenak. Kleinek dioenez, bere kideak salatzen dituen eta bere sinesmenei uko egiten dien gatibu ikaratuak bezala, shock egoeran dagoen gizarteak uko egiten dio bestela irmo defendatuko lituzkeen balioei.

Baina krisiari buruz ari garelarik, ezin dugu ahaztu neoliberalismoak noiz eman zituen bere lehenengo pausoak, noiz pasa zen teoria izatetik praktikan aplikatzera: aitzindariak 1970eko hamarkadan zehar ekin zioten neoliberalismoaren proposamenak estreinakoz gauzatzeari, hain zuzen prozesu kapitalistak krisi sakon eta larria bizi zuen garaian. Izan ere, badirudi neoliberalismoak krisia tresna bezala erabiltzeaz gain, neoliberalismoa bera krisiaren emaitza ere badela, norena eta kapitalismoaren krisiaren emaitza. Gogora ditzagun bigarren atalean aztergai izan ditugun zenbait datu. Esate baterako, Castells, Sáez eta Harvey-k joera berdintsua islatzen dute: kapitalak eta errenta handiek beste garaietan eskuratzen zutena baino aberastasunaren zati handiago lortu zuten 1929ko krisira arte, Bigarren Mundu Gerratik aurrera ez zuten lehengo mailarik erdietsi baina beren posizioa okertu egin zen batik bat 1960ko hamarkadaren bukaeran eta 1970eko hamarkadan zehar, eta egoerari buelta ematen hasi ziren ziren 1980ko hamarkadatik aurrera, 2000ko hamarkadarako kapitala eta errenta handiak posizio oso sendoan iritsi zirelarik. Halaber, aurrerago ikusiko dugunez, kapitalismoaren krisia ez zegokion soilik kapitalaren metatze prozesuari. Krisiak ekoizpenaren gaineko kontrola galtzarekin ere zerikusia zuen. Egoera honetan, Harvey-ren<sup>573</sup> arabera, eliteek benetan sentitu zuten beren posizioa oso ahula zela, agian desagertzeko bidean sartuak zirela. Garai horretan hasi ziren lehenengoz neoliberalismoaren errezetak aplikatzen.

Badirudi Espainiako estatuan ere, kapitalismoaren metatze prozesuari eta ekoizpenaren gaineko kontrolari dagokionez, garai hartan egoera berdintsua zela. Albarracín-en<sup>574</sup> arabera, Espainiako estatuan 1960ko hamarkadaren bukaera aldera eta batik 1970 urtetik aurrera nabarmen txikitu zen kapitalaren etekin tasa. Beraz, 1973 urteko petrolioaren krisia baino lehenago hasi zen. Orduz geroztik herrialde industrializatu gehienetan *austeritate* eta *doikuntza* politika berriei ekin zieten, soldaten kaltetan kapitalaren errentagarritasuna handitze aldera. Garai hartan Europako Erkidego Ekonomikoa zen hartan politika berriak 1980 hamarkadatik aurrera eman zituen fruituak, soldata errealean hazkundera produktibitatearen hazkunderaren azpitik garatu zelarik. Herrialde industrializatu gehienetan 1975 urtean bortitz ekin zioten aldaketari, baina Espainiako estatuan Moncloa-ko Hitzarmenak izan ziren abiapuntua, UCD alderdiaren gobernuak lehen urratsak eman zituen eta PSOE alderdiaren gobernuak gauzatu zituen aldaketa sakonena eta bortitzenak, enpleguaren prekarietatea handituz kapitalaren etekin tasa eta lehiakortasuna eraginkortasunez sustatu zituztelarik. Halaber, estatuaren zerga politika eraldatu egin zuten, langileen bizkar hau ere, Albarracín-en arabera.

---

<sup>573</sup> Harvey, 2005, 16-19 eta 31 or.

<sup>574</sup> Albarracín, 1991, 318 or.

### 3.2.3 Periferian

Hardt eta Negri-k<sup>575</sup> diotenez, gaur egun ez da zilegi zentroa eta periferia edo Iparra eta Hegoa bezalako eremu geografiko zabalak trazatzea, baina guk aztertu ahal izan dugunaren arabera esango genuke adibidez Chicagoko Ekonomia Eskolatik eratorritako doktrinak ez direla berdin gauzatu kapitalismoaren herrialde nagusienetan eta gainerakoetan. Leku batean balio izan duenak ez du beste batean balio izan. Ez da berdin Txile edo Erresuma Batua.

Bigarren Mundu Gerraren ostean AEBetako eta Erresuma Batuko diplomaziak Gerra Hotzaren logikan kokatu nahi izan zituen garapen bidean zeuden gobernuak, Kleinen arabera<sup>576</sup>. 1950eko hamarkadan munduko hainbat herrialdetan eskuhartu zuten, Iranen 1953an eta Guatemalan 1954an adibidez. Hirugarren Munduan Hego Amerika zen kezka iturri nagusienetako bat eta bertan gauzatuko zen Chicagoko Eskolaren lehenengo eskala handiko esperimentua.

Txilen izan zen. Allenderen gobernuaren aurkako estatu kolpeaz eta ondoren etorri ziren hilketa sistematikoez hitz egiten denean, adibidez Amnistia Internazionalak giza eskubideen aurkako ekintza bezala definitzen ditu eta ez helburu politiko eta sozial garbiak zituen tresna bezala. Kleinek<sup>577</sup> dioenez, ordea, Augusto Pinochet buru zuen estatu kolpea ez zen izan muturreko bortxa erabili eta gero aberastasuna lapurtu zuen ekintza. Batik bat lapurketa izan zen, aberastasuna eta boterea eskuratzea helburua zuen eta hori lortzeko indarkeria ikaragarria izan zen bitartekoa. Bertan izan ziren Chicago Boys delakoak, eraldaketa ekonomikoaren gidari.

Asko hitz egin dute batzuek Txileko mirakulu ekonomikoaz. Bada, Kleinen arabera, Pinochet gobernuan izan zen hamazazpi urteetan ez zen politika ekonomiko egonkorrik izan. Hainbeste aipatzen den Txileko hazkunde ekonomikoaren garaia ez zen iritsi 1980ko hamarkadaren erdialdera arte, hain zuzen Chicagoko Eskolako kideek shock terapia ezarri eta hamar urte beranduago arte, eta ordurako politika ekonomikoaren irizpideak hamaika aldiz aldatu zituen, Friedmanen errezetetatik urrunduz. Chicagoko doktrinaren jarraitzaile fidela izan arren, egoerak behartu zuen Pinochet aldaketa sakonak egitera. Ekonomia hondoratu egin zen 1982 urtean: zorra lehertu egin zen, berriro hiperinflazioari egin behar izan zion aurre, eta langabezia %30era iritsi zen, Allenderekin baino hamar aldiz handiagoa. Arazoaren kausa enpresa handi erasokorrenak izan ziren. Estatuaren arauetatik libre, enpresa hauek herrialdearen aktiboak mailegatutako diruarekin erosi zituzten eta 14.000 milioi dolarreko zorra pilatu zuten. Egoera hain zen larria, ezen Pinochetek Allenderen neurri berdinak hartu behar izan zituela: enpresa hauetako asko nazionalizatu egin zituen. Amildegia ertzean, Chicago Boys askok gobernuetan zeuzkaten postuak galdu egin zituzten eta enpresetako zuzendaritzetan zebiltzan beste asko iruzurratetik ikertu zituzten. Nekez eutsi ahal izan zioten beren ekarpenen izaera zientifiko-neutroari. Argi dago Txile ez zela izan merkatu librearen laborategi garbi bat. Aitzitik, elite txiki dirudun bat denbora oso laburrean oso dirudun izatera pasa zen, hasieran zorrean eta dirulaguntza publikoetan oinarrituz eta gero zorra ordaintzeko diru publikoa erabiliz.

---

<sup>575</sup> Hadt & Negri, 2002, 307 or.

<sup>576</sup> Klein, 2007, 90-91 or.

<sup>577</sup> Klein, 2007, 109-173 or.

1988 urtean, ekonomiaren gorabeherak egonkortu zirenean eta hazkundera abian zenean, biztanleriaren %45a pobrezia marraren azpitik zegoen eta bitartean biztanleriaren %10 dirudunenaren irabaziak %83 hazi ziren. 2007 urtean oraindik ere Txile zen munduko herrialderik okerrenetakoa berdintasunari zegokionez: Nazio Batuen Erakundeak aztertzen dituen 123 estatuetatik Txile 116. postuan zegoen; hots, zerrendakoen artean Txile da ezberdinkeria gehien dituen zortzigarren estatua.

Berehala etorri ziren Brasil, Uruguay eta Argentina, Kleinek<sup>578</sup> dioenez. Friedman-ek 1973 urtean Brasilera bisita egin zuenean, esperimendu ekonomikoa *mirakulua* zela adierazi zuen, hain zuten errejimena bere garai bortitzenean zegoenean. Urte berean militarrek estatu kolpea jo zuten Uruguayn eta 1974 urtean Chicagoko Eskolaren errezetak gauzatzea erabaki zuten. Segituan jaitsi ziren soldadak %28 eta Montevideoko kaleetan eskale gudaosteak agertzen hasi ziren, lehen inoiz gertatu ez zen bezala. Argentinan militarrek 1976 urtean hartu zuten gobernua. Duela urte gutxi Argentinako epaitegi federaleko epaile batek genozidio bezala definitu zuen 1976 eta 1983 urteen artean Argentinako Errepublikan gertatu zena. Gainerako estatuetan bezala, hilketak aurrez planifikatutako sistema baten parte ziren. Helburua ez zen pertsona inbididualak erasotzea baizik eta pertsona horiek ordezkatzeko zituzten sektore sozialak suntsitzea. Genozidioa pertsona talde bat erahiltzea da, ez pertsona inbididualak erahiltzea. Honenbestez, Txilen, Brasilen, Uruguayn eta Argentinan esku hartu zutelarik, estatu hauek guztiak Chicagoko Eskolaren laborategi bizidun bihurtu ziren. Militarrek ez zituzten ezkutatu gizarteak aldatzeko beren asmo iraultzaileak, baina ukatu egin zuten bortxa erabiltzen zutenik helburu ekonomikoak lortzeko. Kleinen arabera, ordea, jendea bildurrak jota izan gabe eta bestelako oztopoak bortitz desagerrarazi gabe, ezin izango zituzten eraldaketa ekonomikoak gauzatu jendea matxinarazi gabe. Baina bortizkeria eta bildurra sistematikoki hedatu zuten garai honetan, kultura zehatz bat propio suntsitzea zen asmoa eta bide batez beste kultura mota bat sortzea. Txile, Argentina eta Uruguayko diktaduren hastapenetan estatuak baimentzen zituen bilkura bakarrak botere militarren erakustaldiak eta futbol partidak ziren.

Kleinek dioenez, enpresa atzerritar batzuek zuzenean hartu zuten parte bortizkeria kanpainetan. Brasilen, adibidez, hainbat transnasionalek elkar hartuta finantzatu zituzten zenbait heriotza eskadroi pribatu. Horien artean zeuden Ford eta General Motors. Argentinan Ford-ek kotxez hornitu zituen militarrek: Ford Falcon ospetsua erabili zuten milaka bahiketa eta desagerketetan. Trukean Junta Militarrek desagerrarazi egiten zituen arazoak sortzen zituzten sindikalistak ekoizpen kateetatik.

1976 urteko ekonomiako Nobel saria Milton Friedmani eman zioten, inflazioa eta langabezia lotzen zituen lan *original eta eragin handikoagatik*. 1977 urteko bakearen Nobel saria, berriz, Amnistia Internazionalari eman zioten, neurri handi batean Txilen eta Argentinan eskubideen urraketak agerian uzteagatik. Kleinen arabera, Hego Amerikako herrialde horietan izan zen muturreko bortizkeriak eta eraldaketa ekonomikoek elkarrekiko lotura ez zutenaren irudia ematen ari zitzaien munduari. Amnistia Internazionalaren 1976 urteko Argentinari buruzko txostenean ez zen bortizkeriaren kausei buruz ezer aipatzen. Txostenak ez zuen ezer ere esaten Junta Militarrek gauzatu zituen eraldaketa ekonomikoaren parametro erabat ezberdinei buruz. Gainera, Kleinek dioenez, Amnistia Internazionalaren txostenak gatazka bertako militarren eta muturreko

---

<sup>578</sup> Klein, 2007, 123-173 or.

ezkertiarren artekoa bezala aurkeztu zuen. Ez zituen aipatu AEBetako gobernua, CIA, Argentinako terratenienteak edo korporazio transnazionalak. Hori guztia azaldu gabe, badirudi ausazko sadismo ekintza hutsa besterik ez zirela izan, gertaera oso bortitz baina arras ulertezinak.

Baina, Kleinen arabera, errepresioa eta ekonomia egitasmo politiko beraren bi alderdi banaezin izan ziren. Horren erakusgarri da estatuarekiko eta fundazio atzerritarrekiko independentea zen *Brasil: Nunca Mais* giza eskubideei buruzko txostena. Epaitegi militarren erregistroetan oinarritua dago. Diktadurak jarraitzen zuten bitartean, hainbat abokatuk eta elizaren ekintzailek ezkutuan fotokopiatu zituzten, gero frogaz bezala erabili ahal izateko. Dokumentu horietako batean irakur daitekeenez, hainbat erahilketa deskribatu ondoren honakoa dio: “politika ekonomikoa gehiengoarentzat guztiz inpopularrak zenez, bortizkeria baliatzea beharrezko izan zen hura gauzatzeko”.

Nolanahi ere, Kleinen arabera, askoz gehiago hil ziren Rodolfo Walsh-ek *miseria planifikatua* deitu zuenaren erruz. 1980ko hamarkadan, esate baterako, Latinoamerikan eta Afrikan kanpo zorraren bitartez behartu ziren krisietan Nazioarteko Moneta Funtseko funtzionario batzuek argi azaldu zuten aukera bakarra “pribatizatzea edo hiltzea” zela. Zorpetzearen fenomenoan erabakiorrak izan ziren bi faktore, biak Washingtoneko politikekin lotuak: batetik, diktadorek sortutako zorrak mantendu egin ziren trantsizio politikoen ondoren eta, bestetik, AEBetako Erreserba Federalak kolpez interes tipoak igo zituenean, zorren kopurua izugarri hazi zen. Gainera, estatu terrorismoaren herentzia ez zen desagertu. 1980 eta 1990eko hamarkadetan politikariek urrundu egin nahi izan zuten estatu kolpe berrien arriskua eta horretarako AEBetako kapitalak eta bertako eliteek ezarritako arauak jarraitu zituzten. Nazioarteko Moneta Funtseko eta Munduko Bankuak ezarri zituzten doikuntza politikak krisia gainditzeko errezeta bezala aurkeztzen zituzten baina, Kleinen arabera, ekonomialariek bazekiten arau haiek ez zutela zerikusirik krisiaren amaierarekin.

Chicagoko Eskolako ereduak eta haren aldaerak mundu osoan zehar hedatu dira azken hamarkadetan, Kleinek dioenez: Polonia, Errusia, Txina, Hego Afrika, Malaysia, Hego Korea, Tailandia, Indonesia, Filipinak... zerrenda oso luzea da.

Baina ez ziren intentsitate berdinarekin zabaldu leku guztietara, Harvey-k dioenez<sup>579</sup>. Asiako 1990eko hamarkada bukaerako krisian kapitala gutxien liberalizatu zuten estatuak (Singapur, Taiwan eta Txina) ez zituzten hainbeste arazo jasan, eta gainerakoek (Tailandia, Indonesia, Malaysia eta Filipinak) okerrago ibili ziren. Gainera, Nazioarteko Moneta Funtseko aholkuak jarraitu ez zituen Malaysia gainerakoak baino azkarrago osatu zen.

Irak pauso handia izan zen Chicagoko Eskolaren oinordekoentzat, Kleinen<sup>580</sup> arabera. Lehen, gerren funtzioa, itxita zeuden merkatuak irekitzea eta gerra ostean hazkunde aroak ahalbidetzea izan ohi zen maiz. Gaur egun, ordea, gerren eta bestelako desastreen testuinguruan ematen den erantzuna hain pribatizatua dago, ezen gerrak eta desastreak merkatu oparo bihurtu baitira bere horretan. Garapen ekonomikoa hasteko ez da beharrezkoa gerra amaitu arte itxoitea. Gerra bera da negoziua. Hondamendia bera da diru iturri. Iraken, esate baterako, energia zerbitzuak eskaintzen dituen Halliburton enpresak 20.000 milioi baino gehiagoko etekinak lortu ditu

---

<sup>579</sup> Harvey, 2005, 97 or.

<sup>580</sup> Klein, 2007, 36-37 or.

honezkero. 2006 urteko urria gerraren hilabete odoltsuenetakoa izan zen, 3.709 zibil irakiar hil baitziren, eta orduantxe aitortu zuten Halliburton-en arduradunek “Irak uste baino hobea izaten ari zela”. Israel lehendik ari zen horrelako politikak aplikatzen. Eta 2004 urteko abenduko tsunamia lehenengo aukera handia izan zen desastreak politika neoliberalaren hedapenerako erabiltzeko.

Edonola ere, orain arte kapitalismoaren periferiaz aritu gara, baina zer gertatu zen neoliberalismoarekin erdigunean? Kleinek dioenez, Stephen Haggard politologo neoliberal sutsuak *tristuraz* onartu izan du erreforma ekonomiko sakonenak militarren estatu kolpeen ondoren gauzatu ahal izan direla. Zerrenda horretan Txile, Brasil, Uruguay eta Argentinaz gain, Indonesia, Turkia, Hego Korea eta Ghana sartu izan ditu. Ereduek neoliberal alderdi bakarreko zenbait errejimenetan ere aplikatu ahal izan dute, Haggard-en arabera: Mexiko, Singapur, Hong Kong eta Taiwan. Baina 1980ko hamarkadaren hastapenetan alderdi anitzeko hauteskundeak zeuzkaten sistemetan oraindik estatu bakar batek ere ez zuen merkatu liberalizatuaren eredua praktikara eraman.

### 3.2.4 Erdigunean

Harvey-ren<sup>581</sup> arabera, Hego Amerikakoak bezalako estreinako ekimenen ondoren (Txile izan zen estatu neoliberal eraikitze lehenengo esperientzia, *basatia* Harvey-ren hitzetan), esperientzia horietatik hainbat irakaspen lortu zituztelarik, neoliberalismoa 1978-1980 urteen artean abiarazi zen mundu mailako boteregune garrantzitsuetan. Txinako buru Deng Xiaoping-ek 1978 urtean liberalizaziorako lehen urratsak eman zituen Txinan. AEBetako Erreserba Federalaren buru Paul Volcker-ek 1979 urteko uztailan diru politika sakon aldatu zuen, inflazio txikia helburu bakarra balitz bezala ekinez, kostu sozialen kaltetan. Erresuma Batuan Margaret Thatcher-ek 1979 urteko maiatzan abiarazi zuen inflazioa baxu mantentzea eta sindikatuen indarra desagerraraztea helburu zuen politika. AEBetan Ronald Reagan-ek 1980 urtean ekin zion inflazioaren kontrola lehenesteari, sindikatuak suntsitzeari, industria, nekazaritza eta baliabideen ustiaketa deserregulatzeari, eta finantzen boterea barne nahiz nazioarte mailan hedatzeari.

Kapitalismoaren erdigunean Erresuma Batua izan zen aitzindari. Harvey-ren<sup>582</sup> arabera, 1970eko hamarkadan Erresuma Batua estatu korporatibista bihurtzen ari zen, baina aldi berean ikasleen eta gazteen artean oro har individualismoa eta adierazpen askatasuna afera garrantzitsuak ziren, klase sistemaren eta herentzia kolonialaren testuinguruan. Klase pribilejioen aurka egin zuten izaera posmodernoko erradikalismoak eta politikarekiko eszeptizismoak, eta hauek jarri zuten oinarria metanarratiba ororen aurka. Orduan gori-gorian zegoen kapital metaketaren krisia, krisi fiskala eta estanflazioa. Alderdi Laboristaren gobernuaren aurka mugitu ziren baita beren jarraitzaile tradizionalak ere. Halaber, sektore publikoak protesta masiboekin ekin zien. Hurrengo hauteskundeetan Margaret Thatcher-ek irabazi zuen.

---

<sup>581</sup> Harvey, 2007.

<sup>582</sup> Harvey, 2007, 53 or.

Kleinek<sup>583</sup> dioenez, Margaret Thatcher-ek ondo ezagutzen zuen Txilen gertatu zena. Kleinen arabera, Thatcher-ek Txilekoari buruz zioen “ekonomiaren arrakasta itzela zela, (...) erreforma ekonomikoen adibide harrigarria zela eta bertatik irakaspen ugari ondoriozta zitezkeela”, baina Hayek guruari gutun pribatu batean aitortu zionaren arabera, “Erresuma Batuan dauden erakunde demokratikoak eta adostasun maila handia lortzeko beharra kontuan hartuta, Txilen erabili zituzten hainbat neurri onartezinak dira hemen. Gure erreformak gure tradizioen eta konstituzioaren arabekoak izan behar dira, nahiz eta prozesua motela bezain amorragarria izan daitekeen.” Gutun hori idatzi zuen garaian hiru urte zeramatzan lehen ministro lanetan eta ordurako langabetuen kopurua eta inflazioa bikoiztu egin ziren, ikatzaren arloko meatzarien aurkako gatazkan porrot egin zuen eta Thatcher-en onarpen tasa oso txikia zen inkestetan. 1982 urteko Malvinetako gerrak nabarmen lagundu zion Thatcher-i joera horri buelta emanez sindikatu nagusienak gogor kolpatzen. 1984 urtean adierazpen publiko gogoangarri batzuetan honakoa esan zuen: “Malvinetan kanpo etsaiaren aurka borrokatu behar izan genuen eta orain barne etsaiaren aurka borrokatu behar dugu. Azken honen aurka borrokatzea askoz zailagoa da baina askatasunarentzat kanpo etsaia bezain arriskutsua da”. Argentinaren eta sindikatuen aurka irabazi ondoren, gerra giroa hurbil eta ekonomia krisian zeudelarik, 1984 eta 1988 urteen artean gobernuak privatizatu egin zituen British Telecom, British Gas, British Airways, British Airport Authority eta British Steel, eta saldu egin zituen British Petroleum-en zeuzkan partizipazioak. Diktadura militarrik gabe Thatcher gai izan zen *shock* terapiaren aldaera mugatuago bat aplikatzeko.

Izan ere, Friedman-ek krisiak baliatzea proposatzen zuenean, krisi ekonomikoak zituen gogoan, ez militarrik, Kleinek dioenez. Erresuma Batuan gertatutakoa aurrerapauso handia izan zen Chicagoko Eskolaren errezeten hedapenean.

Aguilar eta beste zenbait ikertzailek diotenez<sup>584</sup>, Chicago Boys delakoek 1973 eta 1975 urteen artean Txilen estatu kolpearen babesean gauzatu zituzten erreforma ekonomiko eta instituzionalak ez ziren *manu militari* inposatzen ziren modernizazioak baizik eta mugarik gabeko gerra soziala, eta berehala hedatu zen mundu osoan zehar intentsitate eta emaitza ezberdinekin. Erdiguneko herrialdeetan ez dute muturreko bortxa erabili baina herrialde hauetan neoliberalismoak ez du galdu gerra sozialaren izaera: ezberdinkerien areagotzea, aberastasunaren polarizazio hazkorra, langile jendearen baldintzen okertzea, batik bat sindikalki eta sozialki antolatuta zeudenen aurka, langile industrialak ahultzeko edo suntsitzeko eremu zabalen desindustrializazioa, hirien eraldaketa. Halaber, oro har erdiguneko herrialdeetan kapitalisten eta diru irabazi handiko taldeen egoera hobetu egin da, periferian krisi militar eta geopolitiko etengabeak izan dira, Erta eta Hego Amerika atzeraldi sozialera eraman duen krisi historikoa izan da, jendearen diru irabazietan eta bizi baldintzetan atzerakada eragin duen Afrikaren integrazioa ekonomia globalean, Txina, India eta Errusiako ekonomiak kapitalismoaren eremuan sartu dira.

Baina, Harvey-ri<sup>585</sup> jarraiki, orain arte azaldutakoaren aurrean erraz sor daiteke honako galdera: onartuko bagenu neoliberalismoak gutxi batzuen interesak besterik ez dituela defendatzen, gutxi

---

<sup>583</sup> Klein, 2007, 177-191 or.

<sup>584</sup> Aguilar & Navarro & Oliveres & Pastor & Zeller, 2008, 10-11 or.

<sup>585</sup> Harvey, 2005, 23, 39-41 eta 49 or.

batzuen mesedetan sustatutako ekimena dela, bortxa fisiko esplizitu orokortua erabili ez duen lekuetan nola lortu du bere eredia inposatzea?

Crouch-en<sup>586</sup> arabera, demokrazia formaleko estatuetan politika neoliberalak nola inposatzen diren aztertzeko kontuan hartu behar da tartekako hauteskundeak egon, badaudela, eta gobernuak hauteskudeen bitartez aldatzen direla, baina gizarte hauetan hiritarren partaidetza eta eztabaida publikoa gero eta gai gutxiagoren inguruan izaten direla eta agenda politikoa nahiz kudeaketa politikoa batik bat politikari profesionalen eta beren aholkulari taldeen esku daudela. Crouch-en iritziz, demokraziaren endekatzearen arrazoi nagusia enpresaburuen eta gainerako talde gehienen interesen artean dagoen desoreka da.

Wright Mills-en<sup>587</sup> arabera ere, AEBetan gutxiengo oso boteretsu batek gobernatzen du. Hierarkia horiek kontrolatzen dute estatua, enpresak eta ejerzitoa, eta beraiek hartzen dituzte erabaki handiak. Hiru eremu horien gaineko kontrolak ahalbidetzen die hiritarren botere soziala ahultzea. Masa gizartean erakunde burokratizatu eta urrunek jendeari zerbitzua ematen diete eta kontrola egiten dituzte aldi berean menpeko subjektu bihurtaraziz.

Baina Crouch eta Wright Mills-en erantzunekin ez diogu Harvey-ren galderari bete-betean erantzuten. Berformulatu dezagun galdera: baldin eta neoliberalismoak gutxi batzuen interesak besterik ez baditu defendatzen, nola lortu du bortxa fisiko esplizitu orokortua erabili ez duen lekuetan hainbeste hedatzea, zer modutan erdietsi du hainbeste jendeak aktiboki nahiz pasiboki neoliberalismoaren dinamikak onartzea?

Harvey-ren<sup>588</sup> arabera, neoliberalismoak hainbat bitarteko erabiltzen ditu bere eragina hedatzeko: diru politika (inflazioa geldiarazi, gainerako ondorio sozialak kontuan hartzeke), desindustrializazioa eta ekoizpenaren externalizazioa monopolioak sendotzeko, 1980eko hamarkadatik aurrera Munduko Bankua eta Nazioarteko Moneta Funtsa munduan zehar zabaltzeko eta kapitalen jabe handiek maileguengatik etekin handiak lortzeko. Baina hori baino gehiago ere bada. Txilen eta Argentinan goi klaseak eta indar militarrek elkartu egin ziren baina beste leku askotan demokrazia errepresentatiboaren bitartekoak erabili dituzte eta horretarako, hauteskundeak irabazi ahal izateko, biztanleriaren zati handi batean adostasun politikoa sortu behar da. Bitarteko ugari erabili dira hori lortu ahal izateko. Joera ideologiko indartsu honek eragina izan du enpresetan, hedabideetan, gizarte zibileko hainbat erakundetan (ikastetxeetan, unibertsitateetan, elizetan eta lanbide elkartean, besteak beste). Neoliberalismoaren eragina hainbat sektoretara zabaltzeko funtsezkoak izan dira *think tank* delakoak. Besteak beste, hedabideen zati handi batek eta hamaika intelektualek ideia neoliberalerantz egin dituzten bideek giroa sortu dute, askatasunaren bermea neoliberalismoaren irizpideak jarraitzea delako ideia sustatuz. Ondoren alderdi politikoetara hedatu da. AEBetan, adibidez, negozioen munduak diru inbertsio erraldoiak egin izan ditu alderdi politikoetan, eta AEBak ez dira salbuespena. Izan ere, negozioen munduaren estrategiak bi zutabe izan ditu: oinarri herritar zabala eta tresna politikoak. Jendearen atentzioa ekiditea lortu zuten ekonomia eta kultura arloan kapitalismoarekin eta enpresen boterearekin zerikusia zuen edozerengandik. Azkenik neoliberalismoak estatu

---

<sup>586</sup> Crouch, 2004.

<sup>587</sup> Mills, C. Wright, 1987.

<sup>588</sup> Harvey, 2005, 23, 39-41 eta 49 or.



boterea ere eskuratu du, Harvey-ren arabera, jende askok bere interes material eta ekonomikoen aurka bozkatu duen hamaika alditan.

Harvey-k dioenez, egitasmoaren proposamena argi eta garbi elitea ekonomikoek boterea berreskuratzea dela esanez gero, nekez lortuko du jendearen babes zabala, baina ekimenaren helburua norbanakoaren askatasuna sustatzea dela aldarrikatuz gero, errazago atxiki ahal izango zaio jendea egitasmoari eta ondorioz eliteek botere handiagoa berreskuratzea ere errazagoa izango da. Gainera, estatu aparatuek joera neoliberala hartzen badute, beren boterea erabil dezakete joera neoliberalen alde pertsuasioa, kaptazioa, sobornoa eta mehatxua bideratzeko. Koertzioa ez da nahiko kasu gehienetan. *Zentzuzko* bihurtu behar du. Jende kopuru nahikoak aukera hori beharrezkoa balitz bezala ikusi behar du. Adostasuna eraiki egin behar da.

Egin dugun galderari erantzun ahal izateko, Giroux-ek<sup>589</sup> beste ekarpen baliotsu bat ere egiten du. Besteak beste, Gramsci eta Frankfurteko Eskola aipatuz, Giroux-ek dio herrialde aberastuetan dominazioa gero eta gutxiago oinarritzen dela indarkerian edo bere mehatxuan (polizia, ejerzitoa, eta abar) eta gero eta garrantzi handiagoa duela aparatu kulturalaren lanak. Teknologia (Foucault-en zentzuan) berri gero eta hedatuago eta eraginkorrago hauek adostasuna ekoizten dute. Beren xedea sinesmen eta jokabide sistema dominatzaileak erreproduzitzea eta hedatzea da. Gramscik hegemonia ideologikoa deitu zion kontrol eredu honi.

Giroux-ek<sup>590</sup> dioenez, kultura (bere zentzu zabalenean) beti nahasten da boterearekin, eta politika bihurtzen da bi eratarata: batetik, egunerokotasuna osatzen duten irudiak, esanahiak eta ideiak nola moldatzen diren ulertzeko funtsezkoa dira jabetza, irismen eta gobernu arloko aferak, eta, bestetik, kulturak subjektibotasunaren eremuarekin dituen loturen bitartez botere izaerako eragina du, hots, botere harreman desorekatuen testuinguruan identifikazioak eta jarrera subjektiboak eskaintzen ditu ezagutzaren, balioen, ideologiaren eta praktika sozialen bitartez. Giroux-en arabera, badirudi neoliberalismoak argi ikusi duela kultur aparatuek eragin oso handia duela eta horrexegatik ekin diola azken hamarkadetan kultur aparatuari dagozkion politikak indar handiz gauzatzeari. Giroux-ek dio horren seinale dela lehenaz gain enpresen munduak kulturaren eremuan duen eragin gero eta handiagoa.

Giroux-en<sup>591</sup> arabera, kultura dominatzaile garaikidea sakonki lotua dago kontsumismoaren eta positibismoaren *ethos*arekin. XX. mende hasieran kultura nabarmen industrializatzen hasi zenean, bere mezua zabaltzeko komunikazio forma berriak eskuratu zituen. Orduz geroztik produktuen eta zerbitzuen ekoizpenarekin batera hazi zen kontzientziaren ekoizpena. Gainera, XX mendeko kapitalismoak publizitate masiboa abiarazi zuenean, asko hedatu zen kontsumismo amaigabearen ideia, eta horrekin batera kapitalismo berriaren arrazionaltasunak bizitza sozialaren eremu guztietan eragiteko gaitasun handia lortu zuen. Halaber, zientziaren eta teknologiaren ikuspegi positibistan oinarrituz, legitimazio teknokratikoak ekarpen handia egin zuen eraldaketa hauen sustapenean.

---

<sup>589</sup> Giroux, 1990.

<sup>590</sup> Giroux, 2001.

<sup>591</sup> Giroux, 1990.

Beraz, erdiguneko herrialdeetan egoera ezberdina denez, Klein-en arabera<sup>592</sup>, politika neoliberal esplizituek hauteskondeetan irabaztea ere lortu dute (Ronald Reagan eta Nicolas Sarkozy adibide garbiak dira), baina kasu hauetan *kapitalismoaren gurutzadak* jendearen presioari beste era batera egin behar dio aurre eta aldaketak kolpez egin beharrean progresiboki egin behar izaten dituzte, egin ahal izaten dituztenetan.

Chomsky-k<sup>593</sup> gobernatzeko era horri “onarpenik gabeko onarpena” deitzen dio. Testuinguruak aukera ematen duenean, bortxa erabiltzen dute. Aitzitik, bortxaren erabilera mugatua dagoenean, funtsezkoa da iritzi publikoaren gaineko kontrola edo gutxienez iritzi publikoa ahal bezain beste baldintzatzea. Horretan lan egiten du industria handi batek gaur egun. Imazek<sup>594</sup> ere nabarmentzen du neoliberalismoak propaganda makineria oso indartsua eta eraginkorra duela eta neurri handi batean gai izan dela diskurtsoen arteko borrokan hainbat ideien bataila irabazteko. Gatazka horretan, Navarro<sup>595</sup> dioenez, neoliberalismoa zabaltzeko funtsezkoak dira hedabideak. Navarroken arabera hedabideen funtzioa *informatzea eta pertsuaditzea* da eta Espainiako estatuan bereziki homogeneoak dira. PPrene inguruko hedabideek ez ezik PSOEren inguruko hedabideek ere pentsamendu neoliberal bultzatzen dute maiz. Esate baterako, El País egunkariako editorialak 2003 urteko ekainaren 4an txalotu egin zuen Alemaniako gobernuak egin zituen austeritate sozialerako proposamenak, barne zeudelarik zor publikoa murriztea, osasun zerbitzuak murriztea, langabezia ekarpenak txikitzea, kaleratzea merketzea, erretiro adina atzeratzea eta pentsio sistema berrikustea. Editorialaren arabera, neurri hauek egokiak ziren langabezia murrizteko eta subsidio publikoz gainkargatuta zegoen estatua arintzeko.

Baina hedabideak ez dira neoliberalismoaren diskurtsoa hedatzen bakarrak. Navarro<sup>596</sup> salatzen duenez, Espainiako estatuan amnistia eta amnesia nahastu zituen trantsizio politikoaren ondoren, azken urteetan gobernuan izan diren bi alderdiek politika ekonomiko oso deterministak egin dituzte, *pentsamendu bakarra* delakoaren hainbat irizpide jarraituz: gastu publiko eta sozialaren murrizketa, lan merkatuaren deserregulazioa eta hiritarren eskubide sozialen murrizketa. PSOEko gobernuaren ekonomia ministro Carlos Solchaga nafarrak zioen estatu bakarrak ezin duela bakarka ezer egin.

Ospe eta oihartzun handiko hainbat intelektualek ere nolabait bat egiten dute determinismoaren ideiarekin. Bauman-en<sup>597</sup> arabera, adibidez, gaur egungo gizarteak pilotuen kabina hutsa daramaten hegazkinak dira. Beck ere hurbil dago determinismoaren ideiatik. Beck-en<sup>598</sup> arabera, ziurgabetasuna endemikoa izango da etorkizunean. Neoliberalismoak bere borondatearen kontra eragin dituen ondorioak dira. Teknologia iraultzak enplegu erregularra desagerrarazteko joera eragin duela dio Beck-ek. Hegoaldeko lan munduan ohikoak diren multiplizitatea, konplexutasuna eta ziurgabetasuna Iparraldean nagusitzen ari dira. Prekarietatea, jarraikortasun eza, zehazgabetasuna eta informaltasuna ikaragarri ari dira hedatzen. Beck-en ustez ekidinezina den egoera honen aurrean, aholkua argia da: “Konforma zaitez, zure ezagutzak eta diplomek ez baitute balio, eta inork ezin baitiezazuke esan zer ikas dezakezun etorkizunean baliagarria izan

<sup>592</sup> Klein, 2007, 33 or.

<sup>593</sup> Chomsky, 49-50 or.

<sup>594</sup> Imaz, 2006, 157 or.

<sup>595</sup> Navarro, 2002, 137 or.

<sup>596</sup> Navarro, 2002, 25 eta 161 or.

<sup>597</sup> Bauman, 2003a.

<sup>598</sup> Beck, 2000.

zaitezen". Halaber, estatuek ere ez dute aukerarik, Beck-en iritziz: estatuen aukera bakarra pobrezia hazkorra langabeziaren gorakadarekin ordaintzea edo pobrezia kopuru handien truke langabezia kopuru txikixeagoak lortzea da.

Haatik, beste zenbaitek, Zuberok<sup>599</sup> kasu, gogor kritikatzin dute globalizazioa fenomeno ia natural bezala hartzea. Navaroren<sup>600</sup> iritziz, berriz, ikuspegi determinista antidemokratikoa da eta, gainera, erabat ideologikoa da. Esate baterako, Espainiako estatuko gastu soziala 1994 urtean BPGaren %24 izatetik 2000 urtean %20 izatera pasatzea ez zaio zor globalizazio edo integrazio ekonomikoari, ezta ekonomia berriaren eskakizunei ere, baizik eta finantza kapitalaren eta klase dominatzaileen interesei, hauei egiten baitie mesede gobernuaren politika erregresiboak. Europako beste estatu batzuek epe honetan handitu egin dute gastu sozialari eskaintzen dioten BPGaren portzentajea.

Europako Batasuneko estatu guztietan eredu kapitalista dago indarrean eta testuinguru honetan ezberdinkeria handia da, gainera azken hamarkadetan hazten ari da, baina estatu batzuk besteekin alderatuz gero nabarmena da aberastasunaren banaketari dagokionez asimetria maila oso ezberdinak daudela. Esate baterako, Zuberok<sup>601</sup> lan munduaren joera orokorra Danimarkako egoerarekin alderatzen duenean, nabarmena da globalizazio kapitalistari erantzuteko modu bat baino gehiago dagoela. Hori erakusteko hainbat adierazle oso esanguratsu aurkezten ditu Navarro-k<sup>602</sup>, adibidez babes sozialean egiten den gastuari dagokionez. 31. Taulan ikus daitekeenez, Europako Batasunean Espainiako estatuak du babes sozialerako gastu txikiena, Irlandaren ondoren. Gainera, 1993 urtetik aurrera babes sozialean inbertitzen den kopuruak (kopuru erlatiboa da, BPGaren ehunekoa adierazten baitu) behera egin du urtez urtez etengabe.

Eurostat-en arabera<sup>603</sup>, 2005 urtean Suediak bideratu zuen bere BPGaren ehuneko handiena gastu sozialera, %32 hain zuzen. Letonia dago beste muturrean, Suediak baino ia hiru aldiz gutxiago erabili baitzuen horretarako, bere BPGaren %12,3 baino ez. 27 kidek osatutako Europako Batasuneko batez bestekoa %27,2koa da. Kopuru horren ginetik soilik Suedia, Frantzia, Danimarka, Belgika, Alemania, Suitza, Austria eta Herbehereak daude. Gainerako estatu guztiak batez bestekoa baino beherago daude. Hauen artean zenbait estatuk handitu egin dute gastu sozialera bideratzen duten BPGaren zatia: 2000 eta 2005 urteen artean Errumaniak handitu du gehien, %10,9 gehiago hain justu, Irlandak %9,3, Hungariak %8 eta Estoniak %7,7. Beste zenbait estatuk, batez bestekoaren azpitik dauden arren, ez dute horrelakorik egin. Espainiako estatuak, adibidez, 2000 urtean bere BPGaren %20,8 erabili zuen eta 2005 urtera arteko hazkundera %3,2koa izan zen eta ondorioz Espainiako estatuak zuen EBrekiko alde handitu egin zen. EAEn, berriz, 2007 urtean BPGaren %12,7 baino ez zen erabili gastu sozialerako, 2006 urtean baino %0,01 gehiago besterik ez. Nafarroan, berriz, bere BPGaren %20,7 inbertitu zen.

---

<sup>599</sup> Zuberok, 2007, 39 or.

<sup>600</sup> Navarro, 2002, 25 eta 161 or.

<sup>601</sup> Zuberok, 2007.

<sup>602</sup> Navarro, 2005.

<sup>603</sup> Berria, 2008-05-11.

31. Taula: Babes sozialerako gastuan erabiltzen den BPGaren zatia 1991-2001 (ehunekoak)											
Estatua	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001
Espainia	21,2	22,4	24,0	22,8	22,1	21,9	21,2	20,6	20,2p	20,2p	20,0p
EB-15	26,4	27,7	28,7	28,4	28,2	28,4	28,0	27,5	27,4p	27,3e	27,5e
Belgika	27,0	27,7	29,3	28,7	28,1	28,6	27,9	27,6	27,3p	26,8e	27,5e
Danimarka	29,7	30,3	31,9	32,8	32,2	31,4	30,4	30,2	30,0	29,2	29,5
Alemania	26,1	27,6	28,4	28,3	28,9	29,9	29,5	29,3	29,6	29,6	29,8p
Grezia	21,5	21,2	22,0	22,1	22,3	22,9	23,3	24,2	25,5	26,3	27,2
Frantzia	28,4	29,3	30,7	30,5	30,7	31,0	30,8	30,5	30,2	29,8	30,0p
Irlanda	19,6	20,3	20,2	19,7	18,9	17,8	16,6	15,4	14,7	14,1	14,6p
Italia	25,2	26,2	26,4	26,0	24,8	24,8	25,5	25,0	25,2	25,2p	25,6p
Luxenburgo	22,0	22,5	23,3	22,9	23,7	24,1	22,8	21,7	21,7	20,3	21,2p
Herbehereak	31,2	31,9	32,3	31,7	30,9	30,1	29,4	28,4	28,0	27,4	27,6p
Austria	27,3	27,8	29,1	29,9	29,8	29,8	28,7	28,3	28,9	28,4	28,4
Portugal	17,2	18,4	21,0	21,3	22,1	21,2	21,4	22,1	22,6	23,0	23,9p
Finlandia	29,8	33,6	34,5	33,8	31,7	31,6	29,2	27,2	26,8	25,5	25,8
Suedia	34,3	37,1	38,2	36,7	34,6	33,9	33,0	32,2	31,8	30,7	31,3p
Erresuma Batua	25,7	27,9	29,0	28,6	28,2	28,0	27,5	26,9	26,4	27,1	27,2p


Iturria: 1991-2000 urte arteko datuak: Eurostat, 2003, European Social Statistics, Social Protection. Expenditure and Receipts. Data 1991-2000. 2001 urteko datuak: Eurostat, New Cronos Database in Navarra, Vicenç: *La situación social...*, 2005.  
Oharra: P: behin behineko datua; e: aurreikusitako datua

Europako Batasunean politika sozialak garatzeko erabili ziren inbertsioen zatirik handiena zahartzaro pentsioetarako erabili zen. Europako Batasunean 2005 urtean horretarako erabili zen gastu sozialaren %44,2, osasungintzarako %27,5, alargunei eta umezurtzei laguntzeko %7,7 eta ezinduentzat %7,6. Alta, EAEn BPGaren %5 erabili zen osasungintzarako eta ondorioz osasunean gastatutako diruaren %27,8 familiek hartu behar izan zuten beren gain, erakunde publikoek gainerako %72,2 ordaindu zutelarik.

Testuinguru honetan Elkartzen-ek<sup>604</sup> salatu egiten du garapen ekonomikoari buruz hitz egiten denean adierazle ekonomizistak lehenesten direla (enpresen etekinak eta BPGa kasu), baztertu egiten direlarik biztanleriaren ongizate soziala nahiz bizi maila neurtzen dituztenak, egoera soziala zertan den jakiteko ezinbestekoa da hauei erreparatzea. Esate baterako, Espainiako estatuari dagokionez, eskuin muturreko diktaduraren ondorioz 1975 urtean gastu publiko soziala %14koa zen, artean Mendebaldeko Europan %22koa zelararik. 1980 eta 1990eko hamarkadetan zehar handitu egin zen harik eta 1993 urtean %24ra iritsi zen arte, Europako Batasuneko batez bestekotik inoiz baino hurbilago, %28,8an baitzegoen, baina harrezkero politika neoliberalerantz lerratzearen ondorioz 1999 urtean EB-rekiko aldea %7,5era handitu zen. Euskal Herrian beherakada are handiagoa izan zen: 1993 urtean BPGaren %24 izatetik 1999 urtean %20,1 izatera jaitsi zen, artean Europako Batasunean %28,8tik %27,6ra txikitu zelararik. Euskal Herrian beherakadak jarraitu egin zuen eta 2005 urtean ez zen BPGaren %19ra iritsi. Zerga bidezko diru sarrerak handitu egin dira 1998 eta 2005 urteen artean baina erakunde publikoen aurrekontuen defizita eta zor publikoa aurrez amortizatzeko erabili dute, ez EB-rekiko defizit soziala zuzentzeko. Eurostat-en arabera, erosketaren ahalmenaren berdintasunari dagokion gastuaren kalkulua eginez, EB-n gastu sozialean erabiltzen diren batez besteko 100 euroko, EAEn 59 euro gastatzen dira eta Espainiako estatuan 49 euro, oso urrun Danimarkaren 156 eurotatik edo hurbilago dauden Alemaniaren 122 eurotatik edo Frantziako estatuaren 116 eurotatik.

<sup>604</sup> Gara, 2006-09-25.

12. Grafikoa: Gastu soziala Europako Batasunean, estatuaren arabera, 2005 (BPGarekiko ehunekoa).



Iturria: Europako Batzordea

Navarro-k<sup>605</sup> salatu egiten du eremu ekonomikoak eremu politikoa determinatzen duela sinestarazi nahi duen *dogma*, hain zuzen estatuak indarra galdu dutela eta globalizazioak politika zehatz batzuk egitera behartzen dituela argudiatzen duen diskurtsoa. Navarrok hainbat adibideren bitartez egiten die ideia horiei aurre. Navarroren arabera, Europako estatu globalizatuenak Suedia, Norvegia, Finlandia eta Danimarka dira: BPGaren %34aren bueltan esportatu zuten, artean Belgika, Alemania, Frantzia eta Italiak %29aren bueltan egin zutelarik, eta anglosaxoiek, berriz, gutxiago, hain zuzen %26aren bueltan AEB, Erresuma Batua eta Kanadari dagokienez. Estatu

<sup>605</sup> Navarro, 2002, 110-121 or.

indartsuak ahalbidetu die Europa iparraldeko estatuei eskuhartze soziala ez ezik lehiakortasuna eta integrazio ekonomikoa ere eraginkortasunez bideratzea. Anglosaxoiek, aldiz, kanpo merkataritza (BGParen portzentaje bezala) eta babes sozial txikiena dute. Europa iparraldeko estatuetan 1960-1990 urteen artean alderdi sozialdemokratek gobernutik berbanaketa politika publikoak egin zituzten, enplegu osoko politikak (nagusiki giza kapitalean eta azpiegitura fisikoetan inbertituz), estatuak enplegua sortzea lehenetsi zuelarik bai sektore pribatuan (inbertsioak sustatzeko mailegu eta zerga politiken bidez) bai sektore publikoan (ongizate estatuaren zerbitzuak hedatuz) eta politika hauek guztiek sustatu egin zuten emakumezkoen partaidetza lan merkatuan, Europako Batasuneko enplegu eta okupazio tasa handienak lortu zituzten (helduen %74), desokupazio tasa txikiak (%3,4), inbertsio tasa handienak (BPGaren %26), hazkunde ekonomiko handiena (urtean %3,4), ezberdinkeria tasa txikiak (Gini indizean 22), estatuko berbanaketa jarduera handiena eta kanpo merkataritza tasa handiena. Pentsamendu neoliberalerako The Economist-ek editorial batean honakoa aitortu zuen: “Europako iparraldeko herrialdeak amesgaiztoa izan dira liberalentzat Bigarren Mundu Gerraz geroztik. Herrialde eraginkorrenak eta berdinzaleenak izan dira hain zuzen liberalen aurkako proposamenetan oinarrituz” (1992-06-02).

Aitzitik, Navarrok dioenez, tradizio liberaleko estatu anglosaxoiek izan dituzte langabezia tasa handienak (%8), inbertsio tasa txikiak (BPGaren %18), hazkunde tasa txikiak (urtean %2,8), ezberdinkeria sozial handienak (Gini indizean 31) eta estatuko berbanaketa jarduera txikiak OCDEko estatuen artean. Navarrok dioenez, maiz erabili da BPGa AEBen ereduaren nagusitasuna frogatu nahian. 1993-1998 artean AEBak %3,4 hazi ziren urteko, artean Europako Batasunaren batez bestekoa urteko %2,5 izan zelarik. Baina datu honek izkutatu egiten du bien arteko aldea AEBen biztanleriaren hazkundean oinarritzen dela eta ez eraginkortasun ekonomikoan. Izan ere, BPGaren hazkunde ekonomikoa pertsonako neurtuz gero, AEBetan %2,4koa izan zen eta Europako Batasunean %2,3koa.

Langabezia ere sarri erabili izan da AEBen eredia goraiatzeko, Navarrok dioenez. G-7-ko estatuen langabezia tasa estandarizatuak 1979, 1989 eta 1999 urteetan aztertuz gero, ikus daiteke, AEBetan salbu, gainerako estatuetan handitu egin dela. Baina langabezia neurgailu bezala erabiltzen badugu, ezin ahaztu genezake 1998 urtean lan merkatu arautuagoak zeuzkaten hainbat estatuk lagabezia tasa berdinak, antzekoak edo hobeak izan zituztela: adibidez Norvegiak %3,3, Herbehereek %4,0, Austriak %4,7, Portugalak %4,9 eta Danimarkak %5,1. Edonola ere, langabezia tasa ez da eraginkortasun ekonomikoaren adierazle ona, Navarroren iritziz. Tasa hau kalkulatzeko enpleguen eskaintzaz gain (enplegu ekoizpenaren adierazle gordina) enpleguen eskaria ere kontuan hartzen da eta, beraz, estatu batean eskari handiagoa badago, langabezia handiagoa izango da, nahiz eta bi estatuk arrakasta maila berdina izan enpleguen ekoizpenean. Hortaz, langabezia baino enpleguen sortze tasa adierazle esanguratsuagoa da. G-7-ko eta OCDEko estatuen enpleguen sortze tasa 1979-1989 eta 1989-1998 urteen artean analizatzen baditugu, ikus dezakegu AEBetan 1979-1989 urteen artean %1,7 izatetik 1989-1998 urtean %1,3 izatera jaitsi zela eta Erresuma Batuan, berriz, %0,6tik %0,0ra. Gainera, 1990eko hamarkadan OCDEko bost estatuk urteko tasa handiagoak izan zituzten eta merkatu arautuagoak eta babes sozial handiagoak zeuzkaten: Irlandan %3,0, Herbehereetan %1,9, Zelanda Berrian %1,5, Australian %1,1 eta Norvegian %1,0. Aldiz, Espainiako estatuan %0,5, Erresuma Batuan %0,0 eta AEBetan %1,3 izan zen.

Produktibitatea kontuan hartuz gero, Navarroken arabera, hazkunde tasak txikitu egin dira OCDEko estatuetan: AEBak kontuan hartu gabe, 1960-1973 artean %5,5 izatetik 1973-1987 artean %2,6 eta 1987-1995 artean %2,2 izatera pasa ziren batez beste. AEBetan are handiagoa izan zen gainbehera: %2,9tik %1,2ra eta gero %0,9ra. Azken hau OCDEko txikiena da, Kanada, Portugal eta Australiaren ondoren. 1995-1998 artean AEBetako tasa nabarmen handitu bada ere (%2,1), OCDEko beste herrialde batzuen baina txikiagoa izaten jarraitzen du.

Eredu sozialdemokrata eskandinaviarraren *porrota*z Navarrok dio 1990eko hamarkadan langabezia kopuruak nabarmen gora egin arren, enplegu tasa handienak dauzkatela (Espainiako estatuaren tasak ia bikoiztu), bizi maila handiena eta ezberdinkeria sozial txikiak OCDEn. Horrez gain, Navarrok dio langabeziaren hazkundera ez dela globalizazioarengatik izan, errealitate politikoen ondorioz baizik. Suedian enpresaburuek botere handiagoa lortu dute (neurri batean zatiketa sindikalen ondorioz), alderdi kontserbadore eta liberalen gorakadak eta alderdi sozialdemokratarekiko urruntzeak, alderdi honek finantza kapitalaren deserregulazio politikak hasiz hitzarmen soziala urratu zuenetik. Finlandian bere ekonomiaren merkatu garrantzitsuenetako bat zen Sobietar Batasuna hondoratu egin zen. Norvegiak eta Danimarkak Europako langabezia tasa txikiena dute (1997 urtean %4,9 eta %6,9 hurrenez hurren) Austriarekin (%4,4) eta Herbehereekin (%6,3) batera.

Nolanahi ere, globalizazioari erantzuteko moduari dagokionez herrialdeen arteko ezberdintasunak nabarmenak diren arren (besteak beste, elite bakoitzak bere ezaugarriak ditu, herrialde nahiz garai bakoitzean), Harvey-ren<sup>606</sup> arabera zenbait ezaugarri errepikatu egiten dira:

- Tradizionalki jabetza eta kudeaketa bereizi egin dira, baina neoliberalizazioarekin kudeatzaileei *stock options* (jabetza tituluak) delakoak, besteak beste, ordain gisa eskainiz, jabetza eta kudeaketa uztartuz joan dira, espekulaziorako joerak areagotuz, Enron bezalakoetan adibidez.
- Ekoizpen enpresa eta finantza erakundeen arteko ohiko gatazka desagertu edo behintzat itxuraldatu egin da. Enpresa handiak gero eta finantza negoziarako joera handiagoa dute. Halaber, finantza mundua bazter guztietan agertu eta hedatu da, finantza eremuaren ekonomiarekiko dominazioa indartuz, baita estatu aparatuekiko ere. Lehen, 1960ko hamarkadan, “General Motors-entzat ona zena, ona zen AEBentzat” esan ohi zuten baina 1990eko hamarkadan leloa oso ezberdina zen: “Wall Street-entzat zer den ona, horrek besterik ez du axola”. Honenbestez, kudeatzaile batzuen botereak txikituarazi egin du kapital jabeen boterea zenbait eremutan.
- Espekulazioaren etekinei esker (finantza merkatuak tarteko) zenbaitek oso denbora gutxian irabazi eskergak erdietsi ahal izan dituzte.
- Enpresentzako aukera berriek eta merkataritza egitura berriek elite berriak sortzeko prozesuak ahalbidetu dituzte.
- Eliteak gero eta trasnazionalagoak dira baina ez diote uko egiten estatu aparatuen babesari, mesede handia egiten baitie.
- Kide mota oso ezberdinek osatzen dituzte eliteak. Ez dute talde bezala elkarrekin konspiratzen. Eliteen baitan interes gatazkak ere ohikoak dira. Baina neurri batean antzeko

---

<sup>606</sup> Harvey, 2005, 31-35 or.

interesak dauzkate, baita buruzagi politikoeekin ideiak trukatu eta adosteko eremu iraunkorrak ere eta sinergia horien guztien bidez mundu mailako aferetan eragin oso handia dute baita gainerako jendeak urrutitik ere ez daukan ekintzarako askatasuna ere.

### 3.2.5 Pirinioen bi aldeetara hedatuz

Frantziako estatuan hautesleek PSF gobernua osatzeko aukeratu zutenean, alderdi honen hauteskunde programan lan arloko legediaren babesak garrantzi handia zuen baina prekarietaren hedapena PSF gobernura iristearen eskutik joan zen. 1986 urtean alderdi eskuindarragoak gobernura iritsi zirenean, PSFren gobernuak ekindako bideari jarraitu zioten, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>607</sup>.

Espainiako estatuan, Albarracín-ek<sup>608</sup> dioenez, prozesu kapitalista sustatzeko politika ekonomikoa gogorra izan zen baina ezinbestean mailaz maila gauzatu behar izan zuten, ez guztia kolpez. Sistema ekonomikoak eta langileek ez zioten bat-bateko aldaketari biderik egin izango.

Etxezarretaren<sup>609</sup> arabera, Espainiako estatuan gerra osteko ekonomia ereduak 1960ko hamarkadaren amaiera aldera erakutsi zituen agortzen ari zenaren estreinako seinaleak, eta argi gelditu ziren 1973 urtetik aurrera. Mugarria, berriz, 1979 urtea izan zen, trantsizio politikoarekin batera gogortu baitzen politika ekonomikoa, izaera neoliberaletako politikak gordin ezartzen hasi zirenean. Moncloa-ko hitzarmenak bide horren oinarri izan ziren. Politika ekonomikoan bi ardatz nagusitu ziren: batetik, krisiari aurre egiteko kapital pribatua izango zen lehentasunezko agente eragilea eta, bestetik, estatuko ekonomia mundu mailako sistema ekonomikoan murgiltzeko borondatea nagusituko zen, atzerriko kapitalarengandik modernizaziorako bultzada espero baitzuten. Kapital pribatuaren mesedetan ezarriko ziren honako lehentasunak: errekupeazio ekonomikoa eta etekina potentziaztea. Gainera, baldintza hauek ezinbestekoak ziren atzerriko kapitala erakartzeko. Halaber, lanaren kostuak murriztea lehentasunezko helburu bihurtu zuten, bide batez inflazioa kontrolatzeko, lehiakortasuna sustatzeko eta etekinak handitzeko asmoz. Erresistentzia uste baino ahulagoa izan zenez, politika hauen izaera gogortu egin zen, batez ere soldatak zigortuz, malgutasuna sustatuz eta langabezia kopuru handiak mantenduz. Berreskuraturako etekinak ez ziren enplegua sortzeko erabili baizik eta enpresen diru kontuak garbitzeko, finantza mugimenduetarako eta, neurri txikiagoan, ekoizpen sistema eraldatzeko. Salneurrien gorakadak islatzen duenez, ekoizpen kostuen garestitzea kontsumitzaileari ordainarazi zioten. 23-F estatu kolpe saiakerak areagotu egin zuen prozesua, gatazka soziala baretu egin baitzen trantsizio politikoan atzerakada izango zenaren bildur.

1982 urtean PSOE alderdiak gobernua irabazi zuelarik, Etxezarretak dioenez, aurreko gobernuen politikak sakondu egin zituen, politika ekonomiko neoliberalari ekin zion, baita eraginkortasun ekonomikoaz haratago ere, berbanaketaren helburuari hazkundearenak gaina hartu ziolarik (are gehiago, ezberdinkeria izango da hazkunderako baldintza), eta ez ziren egoerak eskatzen zituen unean uneko neurriak izan, egonkorrak baizik. Oparotasun garai bati ekiteko sakrifizioa ezinbestekoa zenaren ideia indartsu erroto zen hiritar askorengan eta gehiengoak konfiantza epe

<sup>607</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 287-288 or.

<sup>608</sup> Albarracín, 1999, 405.

<sup>609</sup> Etxezarreta, 1999.



luzea eman zion PSOERI. Honenbestez, estatuak asko eman eta gutxi eskatuko dio kapital pribatuari. Babes ideologiko-praktiko zabalari esker indartu egingo da kapitala, merkatuaren ideia eta ideologia neoliberalak. Hamarkada bat lehenago pentsaezina zen neurrian, sozialki gero eta legitimatuagoa egongo da enpresaburuen rola aberastasunaren sortzaile bezala. Halaber, sektore publikoa izango da galeren agente sozializatzaile nagusia eta etekin pribatuaren sustatzaile garrantzitsua.

Etxezarretaren arabera, Frankismoaren eskuhartze merkantilista zuzenetatik PSOERen gobernu garaiko estatuaren eskuhartze zuzen eta diskrezioaletara pasako da, baliabide handien transferentziak eginez, botere ekonomikoaren eremu berriak sortuz, etekinak sor ditzakeen jardura oro pribatizatuz eta enpresa taldeen sorrera zeharka baina estu zuzenduz. Hots, lehen administrazioak araudien eta derrigorrezko koefizienteen bidez esku hartzen zuen baliabide pribatuen esleipenean. PSOERen gobernuak, berriz, baliabideak zuzenean esleituko ditu eta horretarako erabiliko ditu zerga sistema, zorpetzea eta ondare publikoaren salmenta. Estatuak ordaindutako aukerak handiak izango dira sektore pribatuarentzat. Testuinguru honetan estatuak aktiboki landuko du kontzertazio soziala. Ondorioz, bizimoduak zenbait alorretan hobera egin arren, berregituraketa batik bat langileek ordainduko dute. Ongizate orokorra hazi egingo da baina okerrago banatuko da. Hazkunde mota honek ezinbestean darama gizarte segmentatuago baterantz. Etxezarretak dioenez, marko kapitalista batean ere PSOEk aukera zuen bestelako politikak egiteko.

Navarro-ren<sup>610</sup> arabera, eskuin muturreko diktadurak herentzian, besteak beste, ezberdinkeria sozial handiak utzi zituen, kapitalaren errentei mesede eta lanaren errentei kalte egiten zietenak. Grezia eta Portugalekin batera (bertan ere diktadura eskuindar oso gogorak sofritu zituzten) Espainiako estatua da Europako Batasuneko errenta ezberdintasun handienak dauzkan estatua. Trantsizioaren ondoren sektore herritarrek egin zuten presioari esker 1980ko hamarkadan eta 1990ekoaren hasieran ezberdinkeria hauek txikitu egin ziren: biztanleriaren %70ak kontsumitzen zuen errenta orokorraren zatia handitu egin zen, artean errenta handienak zeuzkan %25arena txikitu egin zelarik. Felipe Gonzalez buru izan zuten PSOERen gobernuak uztartu egin zituzten politika sozialdemokratikak (gastu soziala eta ongizate estatua zabalduz) eta langileen aurkako politikak (lan merkatuaren baldintza okertuz, besteak beste). Navarro-ren<sup>611</sup> arabera, 1993 urtetik aurrera Pedro Solbes ekonomia ministro zelarik Espainiako estatuak berriro ekin zion garbi Europako Batasuneko ongizate eredutik urruntzeari, gastu sozial txikia egonkortuz eta kalitate handiko zerbitzu sozialen garapena eragotziz. PPren gobernuak jarraitu egin zuten politika hori. Ondorioz, helburu zuten estatuaren aurrekontuen oreka lortzera iritsi ziren 2000. urtean eta trukean handitu egin zen Espainiako estatuaren defizit soziala Europako Batasunarekiko. BPGarekiko gastu publikoa EB-15eko batez bestekoarekin alderatuz gero, txikiagoa da Espainiako estatuan osasun zerbitzuetan, ikastetxeetan, unibertsitateetan, etxetara ematen diren zerbitzuetan, pentsioetan, familientzako laguntzetan, etxebizitza sozialetan eta abar.

Petras-en<sup>612</sup> arabera, PSOEk Felipe Gonzalez gobernuko presidente izan zuen garaian *ekonomiaren modernizazioa* deitu zutenaren estrategiak hiru ardatz izan zituen: ekonomia liberalizatu, estatuko

<sup>610</sup> Navarro, 2002, 84-85 eta 161-162 or.

<sup>611</sup> Navarro, 2006, 31 or.

<sup>612</sup> Petras, 1996, 16-29 or.

ekonomia nazioarteko lanaren banaketan askoz gehiago txertatu eta joko arau berriak ezarri. Azken honek nagusiki bi emaitza izan zituen: batetik, ekonomiaren desindustrializazioa eta *zerbitzuen ekonomia* delakoaren gorakada eta, bestetik, ekonomiaren desnazionalizazioa eta atzerriko jabetza duen kapitalaren hazkundea. Halaber, modernizazio estrategiak handitu egin zuen enplegu ezegonkor eta gaizki ordaindutakoen kopurua eta langileak beren ikasketa mailaren azpitik enplegatzea. Liberalizazioak enpresariei egin zien mesede eta langileei kalte, atzerriko kapitalari mesede eta bertakoari kalte, espekulazioari mesede eta kapital produktiboari kalte. Petras-en arabera, errezeta horiek kalitateko demokraziak argalarazi egiten ditu, kultura zibiko-demokratiko-partehartzailearen ordez prekarietatearen kultura sustatuz.

Díaz Salazar-en<sup>613</sup> arabera, UCD, PSOE eta PPK sustatu duten eredu neoliberal, laneko prekarietatea eragiten duena, mundu mailako testuinguru neoliberalan garatzen da. Espainiako estatuan honako ezaugarriak ditu: a) sindikatuen ahultzea, b) aldi baterako kontratazioaren, azpikontratazioaren eta lanaldi partzialeko kontratazioaren sustapena, c) zerbitzu publikoen pribatizazioa eta aldi baterako lan enpresen sorrera, d) fiskalitatearen murrizketa eta pentsio plan pribatuen sustapena, e) geografia, ordutegi eta funtzio mugikortasunaren sustapena, f) langabeentzako dirusarien murrizketa, g) langileak kaleratzeko kosteen murrizketa enpresentzat, h) soldata produktibitatearen arabera moldatzea, ez salneurrien arabera, eta soldata berrikusteko klausulen desagertzea, i) hitzarmen kolektiboen ordez kontratu pertsonalizatuak gero eta gehiago erabiltzeko joera, j) enpresa publikoen pribatizazioa eta estatuak sortutako enplegu kopuruaren murrizketa nabarmena.

Navarro-ren<sup>614</sup> arabera, politika hauen ondorioz Ongizate Estatuak gabezia handiak ditu Espainiako estatuan. Gastu publikoaren portzentajea 1995 urtekoa izan balitz, 1998 urtean 19.232 milioi euro gehiago edukiko zituzkeen, erretirorako ekarpenak Europako Batasunaren batez bestekora igotzeko eta Gizarte Segurantzaren erreserbak 2030 urtera arte hornitzeko adina. Baina zerga politikek enpresen eta kapitalaren errentei egin zieten mesede, batik bat burtsako finantza eta higiezin inbertsioei. Horrexegatik handitu da errenta hauen partaidetza aberastasunean, artean soldaten partaidetza txikitu egin delarik. Izan ere, Espainiako estatuan gastu sozial publikoa BPGaren %20a da, Europako Batasuneko txikiena Irlandarekin batera, eta beherantz doa 1994 urtetik aurrera. Halaber, gastu soziala pertsonako Europako Batasuneko txikiena da: 3.244 euro, artean Europako Batasuneko batez bestekoa 5.606 eurokoa delarik. Gastu sozialean izan den murrizketa hau hazkunde ekonomikoa indartsu izan den urteetan gertatu da. Honenbestez, Europako Batasuneko gastu sozial txikiena duten estatuen eta handiena dutenen artean 1998 urtetik 1999 urtera hiru aldiz txikiagoa izatetik ia lau aldiz txikiagoa izatera pasa da. Kontuan hartu behar da, adibidez, 1997 urtean Espainiako ongizate estatuak pobrezia maila (estatuko errentaren medianaren erdia bezala ulertuta) biztanleriaren %28,2tik %10,4ra murriztu zuela; hau da, %63,1eko eragina izan zuela, artean Ongizate Estatuak Alemanian %80,6koa, Suedian %80,4koa, Danimarkan %72koa eta Herbeheretan %70ekoa izan zuelarik.

Honenbestez, Navarro-ren<sup>615</sup> arabera, Espainiako estatuko gizartearen ezberdinkeriak ingurukoak baino handiagoak dira. PNUDen 1998 urtera arteko neurketetan 9-11 postuen

<sup>613</sup> Díaz Salazar, 2003, 70-74 or.

<sup>614</sup> Navarro, 2002, 48-50 eta 106 or.

<sup>615</sup> Navarro, 2002.

artean zebilen, baina neurketa horretan eskolatze indizea gainbaloratuta zegoen eta pixka bat zuzendu eta hezkuntzaren kalitatea neurtzen hastean, 21. postura jaisten da. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da PNUDen txostenek ez dutela ondo neurtzen errenten arteko aldea. Soldatapekoen kopuruak hobeto neurtuta daude baina gainerakoak ez. PNUDen arabera 1999 urtean Espainiako estatuak zeukan errenta ezberdintasun txikiena Europako Batasunean. Baina Europako Batasunean iruzur fiskal handiena Espainiako estatuak eta Italiak dutela kontuan hartuta eta, gainera, PNUDen arabera 1999 urtean dirudunenen urteko batez besteko irabazien kopurua 22.237 eurokoa dela ikusita, argi gelditzen da dirudunenen bizimodua ezin dela diru horrekin ordaindu eta, beraz, kopurua okerra dela, eta ondorioz azalpenak okerrak direla, Navarrok dioenez. Aitzitik, Luxemburg Study Group (LSG) delakoaren arabera, errentaren banaketa Espainiako estatuan Europako Batasuneko desorekatuenetakoa da. Bizi itxaropenak argi islatzen du egoera hori.

Lanaren eremuari dagokionez, Díaz Salazar-en<sup>616</sup> arabera, lan erreformatan nagusitu den neoliberalismoak lege eta araudi mailan honako urrats hauek eman ditu eta pausoz pauso sendotu da:

- Lan harremanen legea (Ley de Relaciones Laborales, 1976): enplegu egonkorra lehenetsi zuen, gainerako enplegu motak salbuespentzat jotzen zituelarik, baina legeari gorputza eman zioten dekretuek lan malgutasun hazkorra sortu zuten. 1978-1980 artean lan kontratazio ez kausala onartu zen, jarduerak inposatutako behin-behinekotasunari lotua ez dagoena alegia, eta horrela hasi ziren enpleguaren egonkortasunaren printzipioa higatzen.
- Moncloa-ko hitzarmenak (Pactos de la Moncloa, 1977): legebiltzarreko alderdi guztiek sinatu eta sindikatu handi guztiek babestu zituzten. Krisiari aurre egiteko argumentua erabili arren, iraunkorrak bihurtu ziren onartutako neurriek lanaren malgutzea eta errentaren banaketa desorekatuagoa eragin zuten epe ertainera, lan merkatuaren fragmentazioa sustatuz.
- Langileen estatutua (Estatuto de los Trabajadores, 1980): sendotu egin zituen behin-behineko kontratazio ez kausalaren hainbat modalitate.
- Enpleguaren hitzarmen nazionala (Acuerdo Nacional de Empleo, 1981): enpleguaren kontratazioa malgutzearen *beharra* onartzen dute sindikatu handiek, ezinbestekotzat joz.
- Hitzarmen ekonomiko eta soziala (Acuerdo Económico y Social, 1984): PSOE alderdiak UCD estatuaren gobernuan ordezkatu zuelarik politika neoliberal indartu zuenean, gobernuak eta UGT sindikatuak sinatu zuten akordio hau, erreformak sakonduz. CCOO sindikatuak ez zuen sinatu eta 1985 urtean greba orokorra antolatuko zuen.
- Lan erreforma (1994): ABLEak sortzea ahalbidetzen du, lan merkatuaren malgutzea eta prekarizazioa sakonduz.
- Enpleguaren egonkortasunerako hitzarmen konfederala (Acuerdo Interconfederal para la Estabilidad del Empleo, 1996): PP alderdiak 1996 urtean PSOE estatuko gobernuan ordezkatu zuelarik, 1986 urtetik hautsia zegoen *kontzertazio soziala* berregin zuen gobernuak, enpresaburuak eta sindikatu handiak adostasunean bilduz. Kontratazio modu makurrenak arinki mugatu zituzten.

---

<sup>616</sup> Díaz Salazar, 2003, 70-72 or.

- Lan erreforma (2001): gobernuan zegoen PP alderdiak lan merkatua gehiago malgutzen zuen eta kaleratzeak merketzen zituen erreforma inposatu zuen.
- Desenplegu sistema babesteko eta okupazioa hobetzeko errege dekretua (Decreto-Ley 5/2002 sobre medidas para la reforma del sistema de protección por desempleo y mejora de la ocupación, 2002): prekarietate politika sakondu zuen, kaleratzeak merketuz eta langileak enplegu prekarioak onartzera behartuz.

Lan erreformei dagokienez, Castillo-k<sup>617</sup> ibilbide honetan bi ekimen nabarmentzen ditu lan merkatuari dagokionez: 1984 eta 1994 urteetako Langileen Estatutuaren erreformak. Kanpo malgutzea erreformatu zuen 1984 urtekoan enplegua *malgutu* zen: kaleratzea merketu, kontratazio modu berriak eta egoera txarrean dauden taldeentzako kontratu bereziak. Barne malgutzea erreformatu zuen 1994 urtekoan, berriz, lana *malgutu* zen: honek izan zuen eragin handiena lanaren antolakuntzan eta hitzarmen kolektiboetan.

Baina orain arte azaldu dugun honetan guztian neoliberalismoaren hedapenaz ari garelarik, atentzioa ematen du zenbaterainoko maiztasunez ari garen estatuaren ekimena aipatzen. Izan ere, oinarri hartu ditugun analisisiek (neoliberalismoaren aurkakoak gehienak, eta horietako zenbait ikuspegi kritikotik eginak) nabarmendu egiten dute estatuak neoliberalismoaren hedapenean jokatu duen papera. Deigarria da, neoliberalismoaren diskurtsoak estatuari rol oso txikia eman nahi bailioke. Hemen kontraesana dagoela dirudi behintzat. Kontu hau argitzen saiatuko gara segidan.

### 3.3 Estatuaren rola praktikan

#### 3.3.1 Hitzak eta ekintzak

Neoliberalismoaren printzipioen arabera estatuak ez du esku hartu behar ekonomian. Jabetza pribatua eta segurtasuna bermatzea beste funtziorik ez du. Aitzitik, neoliberalismoaren diskurtso teorikoaren eta praktikaren artean alde handia dago.

Hardt eta Negri-ren<sup>618</sup> arabera, Estatu-nazioak merkantzien, moneten eta biztanleen fluxuak erregistratzen dituzten tresna soil bihurtzen ari dira. Enpresa transnationalek zuzenean banatzen dute lan indarra merkatuetan, baliabideak esleitzen dituzte eta mundu mailako ekoizpenaren hainbat sektore hierarkiko antolatzen dituzte. Aparatu konplexu honek inbertsioak aukeratzen ditu eta finantza nahiz moneta maniobrak zuzentzen ditu. Honenbestez, mundu mailako merkatuen geografia berria determinatzen du.

Are gehiago, Hardt eta Negri-ren<sup>619</sup> arabera, gobernu eta politika erabat integratuta daude *dominazio transnazionalaren sistema* deitzen duten horretan. Baina aldi berean estatuak funtzionatzen jarraitzen du eta bere rola ez da nolana hikoia. Ikuspegi honen arabera, botere globalak piramide itxura du, hiru zatiz osatua dago eta oinarriantz jaitsi ahala piramidea zabalagoa da. Goiko

<sup>617</sup> Castillo, 2004, 11 or.

<sup>618</sup> Hardt & Negri, 2002, 45 or.

<sup>619</sup> Hardt & Negri, 2002, 283-287 or.

erpinen superpotentzia bat dago, AEBak, bortxaren erabilera globalaren hegemonia duelarik; bakarrik ekin dezake baina maiz nahiago izaten du Nazio Batuen babesean jokatu. Oraindik piramidearen goiko herenean, piramidea pixka bat zabaltzen den heinean, moneta tresna global garrantzitsuenak kontrolatzen dituen Estatu-nazio talde bat dago. Eta piramidearen goiko herenaren azken mailan eremu globalean beren kultur eta biopolitika boterea hedatzen duten elkarte multzo heterogeneo bat dago (gutxi gorabehera eremu militarrean eta monetaren eremuan hegemonia duten potentziak barne hartzen ditu). Piramidearen goi mailaren azpitik, piramidearen erdi aldera, mundu osoko merkaturak zehar beren sareak hedatu dituzten enpresa kapitalista transnazionalak daude: kapital fluxu sareak, teknologia fluxuak eta biztanleria fluxuak, besteak beste. Piramidearen bigarren maila honetan, maiz enpresa transnazionalen menpe dagoen maila batean, Estatu-nazio gehienak daude, gaur egun tokiko erakunde territorializatuak direlarik. Estatu-nazio hauek hainbat funtzio betetzen dituzte: potentzia hegemoniko globalekiko bitartekaritza politikoa, enpresa transnazional handiekiko negoziazioa eta beren lurraldearen baitan dauden behar biopolitikoaren araberrako errentaren banaketa. Zirkulazio globaleko fluxuaren galbaheak eta aginte globalaren artikulazioaren erregulatuak dira; hots, aberastasun fluxuak botere globaletik bereganatu eta banatu egiten dute eta, halaber, beren ahalmenen neurria diziplinatu egiten dituzte beren biztanleriak. Piramidearen azken herenean, oinarrian, botere globalean gehiengoaren interesak ordezkatzeko dituzten taldeak daude.

Beraz, Negri-ren<sup>620</sup> arabera, estatuak ez dira desagertzen ari. Are gehiago, batzuek indartzen ari dira. Foucault-ek deskribatu zuen estatu panoptikoa estatu sinoptikoa bihurtzen ari da, besteak beste teknologia berriek eta datu base elektronikoen kontrolerako ematen dituzten aukerei esker. Baina aldi berean aldaketa kualitatibo handia gauzatu da: estatu-nazioak ez dira modernitateko autoritate goren burujabeak, orain burujabetzaren zati bat transferitu egin baitute, lehen azaldu dugun piramidean suma daitekeenez.

Castellsen iritziz<sup>621</sup> modernitatean eraiki zuten estatu-nazio ereduak krisian dago baina aldi berean estatua forma berri bat hartzen ari da eta, gainera, prozesu hori gertatzen ari den bitartean estatuak eremu politikoko beste zenbait eragileren laguntzaz aldaketa oso handiak eragin ditu mundu garaikidean, besteak beste ekonomia globalizatuaren eragile nagusia delarik.

Estatua ez da orain dela hamarkada batzuk izan zena, Castellsen iritziz<sup>622</sup>. Mundu mailako kapital, produktu, zerbitzu, teknologia, komunikazio eta botere fluxuek gaina hartu diote estatuaren dominazio gaitasunari. Halaber, estatuak beren boterea berresteko mundu mailako erakundeak sortu dituzte baina nazioarteko erakunde hauek estatuaren boterea murriztu egin dute. Era berean, estatuak legitimotasuna berreskuratze aldera egin dituzten deszentralizazio ekimenek indartu egin dituzte joera zentrifugoak eta ahuldu egin dute gaur egun dauden estatuakiko atxikimendua. Izaerari eta hedapenari dagokionez, prozesua ezberdina izan da gizarte bakoitzaren indar politikoen eta erakundearen arabera, baina, Castellsen dioenez<sup>623</sup>, globalizazio prozesua gauzatzeko mekanismoa antzekoa izan da herrialde gehienetan: presio politikoa, gobernuen ekintza zuzenaren bitartez edo Nazioarteko Moneta Funtzak, Munduko Bankuak edo/eta Merkataritzarako Munduko Erakundeak ezarrita. Esate baterako, finantza globalizazioaren

<sup>620</sup> Negri, 2004, 34 eta 95 or.

<sup>621</sup> Castells, 2001a, 335-400 or.

<sup>622</sup> Castells, 2001a, 335-400 or.

<sup>623</sup> Castells, 2001a, 177 or.

lehenengo oldarraldiaren erruz Amerika eta Afrikako herrialde gehienek ekonomiak suntsituta gelditu ziren: kanpo zorra ordaintzearen *austeritate politika* deitzen zutena ezarri zuten gobernu gehienek.

Beraz, Castells-en arabera ere gaur egun estatuaren rola ez da nolana hikoia. Ekonomia globala politikoki eraiki dute gobernuak eta mundu mailako erakundeak, Castellsen arabera<sup>624</sup>. Enpresak eta enpresa sareak bezain garrantzitsuak dira gobernuak eta mundu mailako erakundeak, Castellsen iritziz<sup>625</sup>. Estatuak eta bestelako erakunde publikoak merkataritza eta agente ekonomikoen jokabidea arautzeko neurriak hartzen dituzte, jarduera batzuk sustatuz, beste batzuk mugatuz eta beste zenbait itxuraldatuz. Teknologia iraultzak eta ekonomia pribatuak ezin izango zuketena beren kasa ekonomia globalizatu. Castellsen dioenez<sup>626</sup>, estatuak funtsezkoak izaten ari dira prozesu horretan, batik bat herrialde dirudunenetako gobernuak, G-7a eta bere inguruko erakundeak, hau da Nazioarteko Moneta Funtza, Munduko Bankua eta Merkataritzarako Munduko Erakundea. Erakunde hauen politikek hiru zutabe izan dituzte: barne mailako jarduera ekonomikoaren deserregulazioa, merkataritzaren eta nazioarteko inbertsioaren liberalizazioa, eta sektore publikoak kudeatzen zituen enpresen pribatizazioa. Klein-ek dio horixe dela neoliberalismoaren hirusun saindua: deserregulazioa, liberalizazioa, pribatizazioa<sup>627</sup>. Bide horretan Estatuak modu erabakiorrean esku hartu du merkatuak era selektiboan deserregulatzeko eta Ongizate Estatuak desagitzen, Castellsen arabera<sup>628</sup>.

Zergatik sustatu dute estatuak politika hori estatuen beren boterearen kontra? Kausen bila, Castells-ek lau maila bereizten ditu: estatu-nazio batek hautematen dituen interes estrategikoak, testuinguru ideologikoa, lidertzan daudenen interes politikoak eta goi karguak dituztenen interes pertsonalak.

Hardt eta Negri-ren<sup>629</sup> arabera, kapitalisten eta estatuen arteko antagonismoak maiz elkarren aurka jarri baditu ere, harreman hori benetan gatazkatsua dela esan daiteke soilik baldin eta kapitalistak indibidualki hartzen badira. Estatuaren ekimenek tarteka kapitalista indibidualen interesen aurka egin arren, epe luzera beti egiten du oro har kapitalisten interesen alde eta maiz ezinbestekoa izan ohi da prozesu kapitalistak bermatzeko zeren kapitalisten arteko lehiakortasunak, erabat librea izanik ere, ez baitu kapitalista kolektiboaren interesa bermatzen, kapitalistak batik bat epe motzerako etekinari begiratzen baitio. Beraz, kapitalistek estatuaren aurka egingo dute baita estatuak kapitalista kolektiboaren interesen alde ari denean ere.

Honenbestez, Hardt eta Negri-ren<sup>630</sup> ondorioa da eztabaidagaia ez dela ea estatuak indartsua edo ahula izan behar den, ezta indar politikoen ekonomian esku hartu behar duten ere, baizik eta *nola* esku hartu behar duten estatuak eta gainerako indar politikoen ekonomian. Erregulazio politikorik ez balego, adibidez lan gatazkei irtenbideak ezartzeko indar harremanik ez balego, ez litzateke merkatu kapitalistarik existituko. Hardt eta Negriren ikuspegitik, merkatuen edo merkataritzaren liberalizazioa aldarrikatzen dutenek ez dute kontrol politiko gutxiago eskatzen baizik eta beste

<sup>624</sup> Castells, 2001a, 184 or.

<sup>625</sup> Castells, 2001a, 152 or.

<sup>626</sup> Castells, 2001a, 174 or.

<sup>627</sup> Klein, 2007.

<sup>628</sup> Castells, 2001a, 34 or.

<sup>629</sup> Hardt & Negri, 2004, 281 or.

<sup>630</sup> Hardt & Negri, 2004, 199-213 or.

kontrol politiko mota bat. Merkatu ekonomikoek ezin dute iraun baldin eta haiek ezartzen dituen orden eta erregulazio politikorik ez badago. Gaur egungo globalizazioak, esate baterako, kontrol motetan aldaketak eragin ditu: korporazioek sortzen eta kudeatzen dituzten hitzarmen eta autoritate forma pribatuak merkatu globalean, mundu mailako merkataritzaren eta ekoizpenaren praktika zehatzak erregulatzen dituzten estatu-nazioen arteko merkataritza hitzarmenak, eta nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeen babesarekin maila globalean indarrean dauden arau orokorrak. Beraz, Hardt eta Negriren arabera, indar politikoak erabakiorrak dira gaur egungo globalizazio prozesuan eta estatuek ez dute nolanhiko pisua, nahiz eta lehengoaren forma eta intentsitate berdina ez duten.

Indar politiko dominatzaileen arkitektura berri honek, Hardt eta Negri-ren arabera, merkatu kapitalistaren eta erakunde juridiko-politikoaren indarrak uztartuz hainbat helburu bilatzen ditu: a) etekina bermatzea xede dutelarik, hartueman kapitalistak arautzea, b) nazioartean adostasuna eraikitzea helburu, estatu-nazioen arteko bitartekaritza lanak sustatzea, c) autoritate global berri baten eraikuntza. Merkatu lege globalen hitzarmen berriak, politika eta hitzarmen komertzial nazional eta erregionalak, eta erakunde ekonomiko supranazionalak koordinatzen saiatzen dira ekonomia globala arautzeko, orden garaikidea erreproduzitzea helburu dutelarik. Testuinguru honetan estatuaren rola funtsezkoa da: besteak beste, lanaren eta boterearen banaketak bermatzen ditu, merkatuaren ordena bermatzeko potentzia militarren lanak egiten ditu eta jabetza pribatua bermatzen du.

### 3.3.2 Eskuhartzea handitu eta eraldatu

Chomsky-ren<sup>631</sup> arabera, nabarmen garatu diren herrialdeek ez dute jarraitu merkatu librearen doktrina. Horixe da AEBen kasua, hastapenetatik izan baita protekzionismoan buru. Ekonomiaren garapen arrakastatsua izan duten herrialdeetan estatuaren eskuhartze handia erabakiorra izan da. Izan ere, merkatu librearen doktrinak bi aldaera ditu: batetik, ahulenei inposatzen zaien doktrina ofiziala eta, bestetik, Chomsky-k merkatuaren benetako doktrina deitzen duena: merkatu librearen doktrina ona da zuretzat baina ez niretzat, salbu eta komeni zaidan arlo eta uneetan. Horrela izan da merkatu librearen doktrina sortu zenetik. Erresuma Batuan 1846 urtean aldarrikatu zen lehenengoz nazioarteko mugak gainditu nahi zituen liberalismoa, baina printzipio hauek XVII. menderako hedatuak zeuden jadanik eta, hala ere, 150 urtez itxoin zuten liberalismo internazionalistarekin benetan hasteko, hain zuten Erresuma Batua protekzionismoaren, bortxaren eta estatu boterearen bitartez gainerakoak baino egoera hobean kokatu zen arte.

Polanyi<sup>632</sup> bat dator Chomsky-ren ideia honekin. Polanyi-ren arabera, industrializazioko enpresen jatorri librekanbista asmakeria hutsa da. Protekzionismoaren babesean hazi ziren. Elkartrukerako askatasuna arriskutsu jotzen zuten. 1930eko hamarkadara arte itxoin beharko da liberalismo ekonomikoa eskema sozialean gurutzadaren izpirituarekin sar dadin eta *laissez-faire* doktrina fede militantea bihur dadin. Merkatuaren indarra eta hedapena ahalbidetzeko ezinbestekoa izan zen liberalismo sutsua, baina protekzionismo urte luzeen ondoren.

<sup>631</sup> Chomsky, 2000, 32-41 or.

<sup>632</sup> Polanyi, 1989, 224 or.

Gaur egungo enpresen kasua ere berdina dela salatzen du Chomsky<sup>633</sup>. Bill Clintonek 1993 urtean Asia eta Pazifikorako Goi Bileran Boeing jarri zuen Amerikako enpresa guztientzat eredu. Hegazkinen ekoizpen merkatuaren zati handiena Boeing-Mc Donald eta Airbus enpresen esku dago gaur egun eta biek zor diote beren posizioa neurri handi batean urte luzez jaso izan zituzten dirulaguntza publiko erraldoiei. Egoera berdina da ordenagailuen eremuan eta elektronikaren oro har, automozioan, bioteknologian, hedabideetan, eta ekonomiaren sektore dinamiko ia guztietan.

Harvey-ren<sup>634</sup> arabera ere, neoliberalismoak etengabe izan ditu epe luzerako eta motzerako ikuspegiak arteko gatazkak. Bere printzipioak hautsi egin ditu taigabe. Adibidez, mundu mailako 2001 urteko atzerakada ekonomikoan AEBak eta Txinak estatu keynesiarrak bailiran jokatu zuten.

Friedman-ek behin eta berriz zioen bere proposamenak merkatua estatuaren eskuhartzetik askatu nahi zuela baina, Kleinen<sup>635</sup> arabera, neoliberalismoaren esperimendu ekonomikoen historialak argi ikusten uzten du Friedmanen ikuspegi puristatik nabarmen urrundu zirela eta aldi berean Friedman-en oniritzia izan zutela. Azken hiru hamarkadetan Chicagoko eskolako errezeta ekonomikoak aplikatu diren herrialdeetan aliantza agerikoa da enpresa transnazional gutxi batzuen eta dirua egin duen klase politikoaren artean. Konbinazio honetan botere ikaragarria pilatzen da eta bi taldeen arteko mugak lausotu egin dira. Kleinen iritziz, gobernuaren eta enpresa sektorearen arteko banaketa marra ezabatzen duen sistema bat definitzeko termino egokiena ez da liberala, kontserbadorea edo kapitalista, baizik eta korporatibista. Sistema honen ezaugarri nagusien artean leudeke aberastasun publikoa jabetza pribatuaren eskuetara transferitzea (sarri zorpetze handia eraginez), oso dirudunen eta txiroenen arteko distantzia handituz, eta defentsarako nahiz segurtasunerako txeki zuria hartzen duen nazionalismo erasokorra. Muturreko aberastasunaren burbuilan bizi direnentzat ez dago gizartea antolatzeko modu mesedegarriagorik, soilik epe motzerako etekinari begiratzen bazaio behintzat.

Aguilar eta beste zenbait ikertzailek diotenez<sup>636</sup>, neoliberalismoaren haritik asko hedatu da estatuaren aurkako deslegitimazio mezua. Funtzionario publikoak parasito ejerzitoak direla eta estatu administrazioa ez dela gai afera publikoak kudeatzeko zabaldu da, bidea irekiz sektore publikoaren endekatzeari (baita oinarrizko zerbitzuetan ere: hezkuntza, osasun zerbitzuak, zerbitzu sozialak, besteak beste): nazioarteko merkatuen liberalizazioa, deserregulazioa, pribatizazioa, estatuaren gastu sozialaren murrizketa. Estatuaren deslegitimazio kanpaina egin du neoliberalismoak, bere erara moldatutako estatua sortzeko. Ez dago eredu bakarra. AEBetan, adibidez, estatua progresiboki baztertzen joan da zerbitzu publikoa eta berbanaketa lanak, baina gero eta gehiago eskaini dizkie goi mailakoei baliabideak, kudeaketa makroekonomikoa keynesianismo militarren bitartez eta oro har goi mailakoen posizioa indartzeko. Europan egoera konplexuagoa eta kontraesankorragoa da. Aldaketak ezberdinak izan dira indar harremanen arabera, tradizio politikoaren arabera, sindikatuen indarraren arabera, gerra osteko kapitalismoa garatzeko baldintzen arabera. Joera orokor bat badago ordea, pribatizazio zuzen edo zeharkakoak kasu, baina estatuak gaur egun oraindik pisu handia dauka Europako dinamika kapitalistan. Periferian ere, nahiz eta lehenengo begiratuan estatuaren pisua txikitu egin den,

<sup>633</sup> Chomsky, 2000, 32-41 or.

<sup>634</sup> Harvey, 2005, 152 or.

<sup>635</sup> Klein, 2007, 38-39 or.

<sup>636</sup> Aguilar & Navarro & Oliveres & Pastor & Zeller, 2008, 13-14 or.



oraindik funtsezko tresna da neoliberalismoa gauzatzeko. Mexiko, Brasil eta Argentina adibidez garbiak dira.

Navarro-ren<sup>637</sup> arabera ere neoliberalismoaren diskurtso eta praktika ez datoz bat. Neoliberalismoaren teoriak honakoa dio: 1) estatuak gutxitu egin behar du bere eskuhartzea jardura ekonomiko eta sozialetan, 2) lan eta finantza merkatuak liberalizatu egin behar dira beren energia sortzailea askatu ahal izateko, 3) merkataritza eta inbertsioak sustatu behar dira, desagerrarazi egin behar direlarik mugak eta trabak, lan indarraren, kapitalaren, merkantzien eta zerbitzuen mugikortasun osoa ahalbidetzeko. Hiru printzipio hauek gauzatzeak ahalbidetu du, neoliberalismoaren arabera, mundu mailako hazkunde ekonomikoa eta garapen soziala. Baina, Navarrok dioenez, neoliberalismoaren praktika oso bestelakoa da. Azken 30 urteetan OCDEko herrialde gehienetan estatuaren eskuhartzea eta gastu publikoa handitu egin dira, AEBetan barne.

Esate baterako, Navarro-ren arabera, Reagan-en garaian gastu publiko federala BPGaren %21,6 izatetik %23 izatera pasa zen, gastu militarra BPGaren %4,9tik %6,1era pasaz. Zor federala eta zergak handituz finantzatu zen. Beraz, Reagan-ek ez zuen estatuaren eskuhartzea murriztu. Eskuhartzearen izaera aldatu zuen, goi klaseei oraindik mesede handiagoa eginez, bere hauteskunde kanpainak ordaintzen zituztenei hain zuzen. Alderdi Demokratikak industria lantegiak abandonatu zituela leporatu zionean, Reagan-ek honakoa erantzun zien: “Gure gobernuak Mendebaldeko beste gobernuak baino gehiago bultzatu eta zabaldu ditu politika industrialak” (Washington Post, 1983ko uztailaren 13an). Reagan zuzen zebilen. Mendebaldeko gainerako gobernuak ez zuten hain politika industrial zabala egin. Izan ere, Mendebaldea deitzen den eremuko gobernuen artean AEBetako estatu federala izan zen eskuhartzaileenetakoa. Are gehiago, azken 30 urteetan handitu egin da AEBetako estatu federalaren eskuhartzea. Eremu ekonomikoan handitu egin da protekzionismoa, dirulaguntzak handituz hainbat arlotan (nekazaritzaren sektoreari, militarri, aeroespazialari eta biomedikuari emandakoak nabarmendu direlarik). Eremu sozialean Reagan, Bush, Clinton eta Bush semearen gobernuak handitu egin dituzte estatuaren eskuhartzeak, eskubide sozialak murriztera eta hiritarren gaineko jagoletza esponenzialki handitzera bideratuz.

2008 urteko finantza krisian ere agerian gelditu dira neoliberalismoaren diskurtsoaren eta praktikaren arteko kontraesanak<sup>638</sup>. Adibidez, Poloniako gobernuak publikoki gogorarazi du Europako Batasunak ontzigintzaren sektorea moldatzera behartu zuela eta debekatu egin ziola estatuari laguntzak ematea. Finantza krisiaren karietara, berriz, hainbat sektore pribatu laguntzeko ehunka milioi erabiltzea erabakitzen ari dira. Hainbat gobernuak horixe jakinarazi zuten publikoki 2008 urteko urrian<sup>639</sup>: Frantziakoak 360.000 milioi euro bankuetako dirua bermatzeko eta arazoak dituzten erakundeak birkapitalizatzeko, Alemaniakoak 500.000 milioi euro bankuen arteko maileguak sustatzeko eta likidezia arazoak nahiz baliabide gutxi dituzten bankuei laguntzeko, Espainiakoak 100.000 milioi euro bankuentzako abaletan eta 30.000 milioi euro arazoak dituzten bankuei laguntzeko. Burtsek igoera historikoekin erantzun diete neurri hauei: 2008ko urriaren 13an, adibidez, Frankfurt, Paris eta Milango burtsek %11 baino gehiagoko igoerekin ospatu zuten Europako gobernuak bankuak estualditik ateratzen laguntzeko egitasmoa. Aurretik ere<sup>640</sup>,

<sup>637</sup> Navarro, 2008.

<sup>638</sup> Berria, 2008-10-19.

<sup>639</sup> Berria, 2008-10-14.

<sup>640</sup> El País, 2008-09-19.

AEBetako gobernua 2008ko iralaren 18an bankuak salbatzeko estatu agentzia bat osatuko zuela eta ehundaka milioi dolar erabiliko zituela publikoki adierazi zuenean, mundu osoko burtsek inoiz ez bezala egin zuten gora.

### 3.3.3 Legezko babesaren endekatzea

Estatuak eskuhartzeko duen modu eraginkorrenetako bat legeak dira. Lan arloko legedian oro har izan diren aldaketek ikaragarri baldintzatu dituzte lanaren mundua eta bide batez beste makina bat eremu sozial.

Hernández-en<sup>641</sup> arabera, Espainiako estatuan gaur egungo legeen egoerara iritsi arteko bidea luzea izan da. Lan harremanak arautzen dituen marko juridikoak aldaketa erabakigarriak jasan ditu azken bi hamarkadetan harik eta aurretik pentsaezinak izango liratekeen malgutasun, desarautze eta prekarizazio mailan kokatu den arte. Aldaketek helburutzat ekoizpen kosteak merketzea izan dute eta hau lortzeko batik bat lan faktorea merketu dute. Ondorioz, Espainiako estatuko populazio aktiboaren erdia inguru egoera ahulean dago lan baldintzei dagokienez eta horrek pertsona askoren bizitzan ezegonkortasun handia eragiten du.

Hernández-ek dioenez, industria iraultza sendotzean sortzen da lan esparrua jorratzen duen zuzenbidearen esparrua. Langileak Estatuen elementu egonkortzaile bihurtzeko asmoz sortzen da, langileen eta sindikatuen erakunde mugimenduek eragin orokor oso handia zuten garaian. Espainiako Estatuan trantsizioaren aurretik ilegaltasunetik langileen sindikatu eta alderdiek eragin handia izanik, lan araudietan hobekuntza garrantzitsuak sustatzea lortu zuten. Negoziazio indartsuen bitartez botere ekonomiko eta politikoei egin asmo zituzten doitzeko politikak eragotzi zituzten. Mobilizazio gaitasun handiak ahalbidetu zuen lan faktorearen babesa sustatuko zuten arauak garatzea. Hurrengo bi hamarkadetan, ordea, patronalak eta sindikatu nagusiek hainbat hitzarmen sinatu zituzten kontrako bidean. 1978ko Konstituzioak merkatu ekonomia aldarrikatu zuen. Orduz geroztik Hernández-ek honakoak aipatzen ditu: 1980ko AMI, 1981eko ANE, 1983ko AI, 1984ko AES, denboran gertuago 1994ko Lan Erreforma eta 1997an berriro ere Lan Erreforma, eta azkenik 2002ko Dekretu sonatua. Ondorioz, desenplegu ekarpenen, gizarte segurantzaren eta pentsioen murrizketak eta lan kontratazio arau berriak sortuko ziren, behin-behinekotasun harremana, prekarizazioa, eta tarteka desenpleguan egotera behartzen duen errotazioa eraginez. Kategoria zentrala enplegu egonkorra izatetik behin-behineko enplegua arau izatera igaro da.

Rodríguez-Piñero Royo-k<sup>642</sup> dioenez, Europako Batasun osoan malgutzeko politikak eragina izan dute legedian, baina beste inon ez bezain beste Espainiako estatuan behin-behineko kontratua izan zen plantilak egokitzeko eta laneskua merketzeko tresna, batik batik sartzen ziren langile berrientzat eta ez barne mailan. Langabeziaren aurka egitearen argumentuarekin, botere publikoek malgutasuna sustatu zuten lege arauen bitartez. 1994 urteko lan erreforma izan zen erreforma zabal eta sakonena. Baina XXI. mendean malgutasuna sustatzeko bidean legea baino garrantzitsuagoa izan da negoziazio kolektiboa. Sindikatu handiek onartu egin dituzte aldaketak

---

<sup>641</sup> Hernández, 2004.

<sup>642</sup> Rodríguez-Piñero Royo, 2005, 217-219 or.

oro har. Rodríguez-Piñero Royo-ren arabera, Espainiako estatuaren lan merkatuan ez dago deserregulaziorik baizik eta egoeren aniztea eta ondorioz araudien inflazioa. Gainerako estatuek bezala, Espainiako estatuak ere bere eremuan protagonismoa hartu du. Areago, estatuak iniziatiba hartu eta prozesua zuzendu egin du, kostuen zati handi bat baliabide publikoen bitartez ordaindu dutelarik.

Prieto-ren<sup>643</sup> arabera, PSOE 1985 urtean hasi zen estatuaren eskuhartzea murrizten eta merkatuaren aldeko politika neoliberalak aplikatzen. Navarro-ren<sup>644</sup> arabera, PSOEren gobernuek hasieratik ekin zioten hainbat politika sozialdemokrata eta langileen aurkako politikak konbinatzeari, baina beti ere norabide neoliberallean, Navarrok sozio-liberala deitzen duen politika eginez.

María Poveda eta Antonio Santos Ortegak<sup>645</sup> lau aldaketa mota nabarmentzen dituzte azken hogeita bost urteetan: 1) errentaren banaketa aldatu egiten da kapitalaren mesedetan eta langileen kaltetan (azterketa honen arabera, 1975 urtetik aurrera Espainiako estatuak eskaintzen dio errendimendu tasa handiena kapitalari; 2) Ongizate Estatua lehenik zalantzan jarrarazten dute ideologikoki (1979-1992) eta gero higatu egiten da (1993 urtetik aurrera); 3) errentagarriak ziren eta ondo funtzionatzen zuten enpresa publikoak pribatizatu egingo dira; 4) lan harremanak deserregulatu egingo dira, lan merkatua beste edozein merkatu balitz bezala.

Nolanahi ere, aldaketa hauek ez dira soilik Espainiako estatuaren kontua. Fenomeno gero eta orokortuago honek hainbat bitarteko baliatuz eraldatu ditu zenbait estatutako legediak. Esate baterako, enpresen antolaketa berriak joera du lan zuzenbidea baztertu eta merkataritza zuzenbidea erabiltzeko, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>646</sup>. Honela enplegatzaileak ekidin egin ditzake lan arloko legediak ezartzen dituen baldintzak. Honela, Frade eta Darmon-ek<sup>647</sup> diotenez, merkatu arloko legedia gaina hartzen ari zaio lan arloko legediari, zenbait epaien jurisprudentzia eta zenbait hitzarmen kolektibo berriren bitartez. Lan arloko legeen arabera, enplegu ez estandarra sabuespenezko kasuetan bakarrik balia daiteke eta behin-behineko kausei lotuta daude. Esate baterako, norbait aldi baterako enplegatzen bada, zereginak epe jakin bat izango duelako egin beharko litzateke, eta kontratua zereginak irauten duen epera doituko litzateke. Alabaina, adibidez Espainiako estatuko Telefónica enpresa pribatizatuan zenbait sindikatuk enpleguen behin-behinekotasuna neurri batean babesten zuen lan hitzarmena sinatu zuten eta epaitegietan onartua izan zen. Ondorioz, legeztatu egin zuten legez zilegi ez zena: behin-behinekotasuna egonkortu zuten. Baina Telefónica-n lan hitzarmenaren aurretik eta ondoren bete beharreko zereginen izaera ez da aldatu. Enpresaren antolakuntza aldatu da soilik.

### 3.3.4 Zerga politika

Estatuak eskuhartzeko beste modu oso eraginkor bat zerga politika da. Aberastasunaren banaketan zuzenean eragiten du. Biltzen den zergen zenbatekoa eta nori zenbat hartzen zaion

<sup>643</sup> Prieto, Carlos in Imaz, 2006, 176 or.

<sup>644</sup> Navarro, 2002, 161-162 or.

<sup>645</sup> Poveda, María & Santos Ortega, Antonio in Imaz, 2006, 176 or.

<sup>646</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 343 or.

<sup>647</sup> Frade & Darmon, 2005.

erabakiorra da estatu baten politikan. Navarro-k eta Quiroga-k<sup>648</sup> aurkezten dituzten datuen arabera (ikus 32. Taula), 1970 eta 1998 urteen arteko karga inpositiboa handitu egin zen aztertutako hainbat estatutan. Hazkunde handiena Espainiako estatuak izan zuen: 1970 urtean %18koa izatetik, 1980 urtean %23koa, 1990 urtean %29koa eta 1998 urtean %34koa izatera pasa zen. Tradizio sozialdemokratako herrialdeetan abiapuntua handiagoa zen eta hazkunde erlatibo hain handia izan ez duten arren, batez beste Espainiako estatuaren baino karga inpositibo askoz handiagoa dute: 1970 urtean %35eko zen, 1980 urtean %42koa, 1990 urtean %45ekoa eta 1998 urtean %47koa. Suediaren datuak are nabarmenagoak dira: urte hauetan %39tik %48,8ra pasa zen, gero %53ra eta azkenik %51,8ra. Tradizio kristaudemokrata duten herrialdeetan garapena apalagoa izan da: 1970 urtean batez beste %31koa zen, 1980 urtean %37koa, 1990 urtean %38koa eta 1998 urtean %41ekoa. Bestalde tradizio liberaleko herrialdeetan ez dago ia hazkunderik: 1970 urtean batez beste %28koa zen, 1980 urtean %29koa, 1990 urtean %32,8koa eta 1998 urtean %32koa. Erresuma Batuan abiapuntua handiagoa den arren, tradizio liberaleko herrialdeen batez bestekoaren haritik ez dago ia hazkunderik: aipatu ditugun urteetan %35etik %33ra, gero %36,5era eta azkenik %36,4ra pasa zen. AEBetan, berriz, hazkundera baino murrizketa dago: urte hauetan %27tik, %26ra pasa zen, gero %26an mantendu zen eta azkenik %25era jaitsi zen.

<b>32. Taula: Karga inpositiboaren garapena 1970-1998 (ehunekoak)</b>				
<i>Non</i>	<i>1970</i>	<i>1980</i>	<i>1990</i>	<i>1998</i>
Espainiako estatua	18	23	29	34
Tradizio sozialdemokratako herrialdeak	35	42	45	47
(Suedia)	39	48,8	53	51,8
Tradizio kristaudemokratako herrialdeak	31	37	38	41
Tradizio liberaleko herrialdeak	28	29	32,8	32
(Erresuma Batua)	35	33	36,5	36,4
(AEB)	27	26	26	25

Iturria: OCDE, 2001, in Navarro, Vicenç & Quiroga, Agueda: "La protección social en España" in Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 2005.


Karga inpositiboari dagokionez alde handia dago estatu batzuen eta besteen zerga politiken artean nahiz eta guztiak dinamika kapitalistan txertatuta dauden. Baina oro har nabarmena da 1990 urtea inflexio puntua dela gehienentzat, une horretan hasten baita karga inpositiboaren kopurua beherantz egiten. Hauxe da hain zuzen neoliberalismoaren eragina hedatzen hasten den garaia.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, KPGM ahokularitza enpresak 2008ko irailean argitaratu zuen txostenaren arabera<sup>649</sup>, aztertu dituen estatu guztietan, 106 hain zuzen, lehenengo aldiz azken 14 urteetan ez ziren igo sozietateen gaineko zergak. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko zerga politikak ere aztertu dituzte eta egoera berdina da. Baina aztergai izan dituzten kasu guztietan sozietateen gaineko zerga ez igotzeaz edo txikitzeaz gain, mundu osoko gobernuek produktu eta zerbitzuen gaineko zeharkako zergak handitu egin dituzte, sozietateen gaineko zergetatik jasoko ez dutena orekatze aldera.

<sup>648</sup> Navarro, 2005.

<sup>649</sup> Gara, 2008-09-21.

13. **Grafikoa: Zergen aurreko ezberdintasunaren bilakaera. Espainiako estatua, 1996-2001 (Gini indizea)**




Iturria: Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 589.

Orain arte aipatu ditugun zantzen hariari jarraiki, ez da harrigarria ondorioztatzea zerga politikak berdintasuna sustatzeko gero eta gaitasun txikiagoa duela. Espainiako estatuko datuei dagokienez (ikus 13. Grafikoa), batetik argi dago zergen aurreko ezberdintasuna handitu egin dela: Gini indizea 1996 urtean 0,4001ekoa zen eta gorantz egin zuen harik eta 2000 urtean 0,4757koa izatera iritsi arte.

Baina bestetik Espainiako estatuaren zerga politikaren berbanaketarako gaitasuna txikitu egin da. Adibidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga kontuan hartzen badugu (ikus 14. Grafikoa), Reynolds-Smolensky indizea aintzat hartuz esan genezake txikitu egin zela PFEZaren berbanaketarako gaitasuna, 1996 urtean izatetik 2001 urtean izatera pasa baitzen


14. **Grafikoa: PFEZaren berbanaketarako gaitasunaren bilakaera. Espainiako estatua, 1996-2001 (Reynolds-Smolensky indizea)**



Iturria: Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 599.

Izan ere, txikitu egin da PFEZaren progresibitate Espainiako estatuan (ikus 15. Grafikoa): Kakwani indizea 1997 urtean 0,2774 izatetik 2001 urtean 0,2343 izatera pasa zen.


15. **Grafikoa: PFEZaren progresibitatearen bilakaera. Espainiako estatua, 1996-2001 (Kakwani indizea)**



Iturria: Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 600.

Horren guztia ondoz handitu egin dira errenta eskuragarriaren banaketan gertatzen diren ezberdintasunak Espainiako estatuan (ikus 16. Grafikoa): Gini indizea 1996 urtean 0,3516koa zen eta gorantz egin zuen hurrengo urteetan, desorekarantz alegia, harik eta 2000 urtean 0,4316ra iritsi arte.

16. Grafikoa: Ezberdintasunak errenta eskuragarriaren banaketan. Espainiako estatua, 1996-2001 (Gini indizea)



Iturria: Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 600.

Izan ere, Europako Batasunaren baitan ere zerga politiken arteko aldea nabarmena da<sup>650</sup>. Zerga presioari dagokionez (ikus 33. Taula), Danimarkak eta Suediak BPGaren ia %50 jasotzen dute zergetan, %30 inguru zuzenekoetan edo Gizarte Segurantzari egiten dizkioten kotizazioen bidez eta %17-18 zeharkakoetan. Frantziako estatuan zergen presio orokorra %44,2koa da, ia %30 zuzenekoetan eta Gizarte Segurantzaren kotizazioetan eta %15,7 zeharkakoetan. Presio hori askoz txikiagoa da Espainiako estatuan, baina are txikiagoa Hego Euskal Herrian. EAEn eta NFEen zerga presio orokorra %33,2koa eta %32,5koa da hurrenez hurren, zuzenekoetan eta Gizarte Segurantzaren kotizazioetan %21 inguru eta zeharkakoetan %10-11.

33. Taula: Zerga presio orokorra, zeharkakoa, zuzenekoa eta Gsaren kotizazioak Europan (BPGaren ehunekoa)

	<i>Orokorra</i>	<i>Zeharkakoak</i>	<i>Zuzenekoak</i>	<i>GSari kotizazioak</i>
Danimarka	49,1	18	30,2	1
Suedia	48,9	17,1	19,8	12,1
Frantzia	44,2	15,7	12,3	16,5
Finlandia	43,5	13,9	17,5	12,1
EB-27	39,9	13,9	13,5	12,6
Espainia	36,5	12,7	12,1	12,1
EAE	33,2	11,1	10,0	11,3
NFE	32,5	10,1	10,2	11,4

Iturria: INE, Eustat, Eurostat, ELA

### 3.4 Neoliberalismoaren ametserantz hurbiltzen

Orain arte aipatu ditugun aldaketa handiek eragin zuzena dute hemen aztergai dugun fenomenoan, Gipuzkoan 1975 eta 1979 urteen artean jaiotakoen ibilbide akademiko eta

<sup>650</sup> Berria, 2009-03-01.

profesioaletan hain zuzen, ibilbide hauek testuinguru honetan garatzen baitira. Segidan neoliberalismoaren baitan indar handia duen ideia bati buruzko zenbait ekarpen bilduko ditugu eta horrekin batera analizatuko dugu zenbait ikuspegiren arabera lan erreformek aztergai dugun populazioan izan duten eragina.

### 3.4.1 Meritokrazia deitzen diote

Imazek<sup>651</sup> dioenez, liberalismoaren arabera, norbanakoa da bere baldintzen arduradun eta, beraz, nork bere egoeraren erantzunkizuna du. Askatasuna bermatuz gero, norbanakoak bere gaitasun eta ahaleginen arabera egingo du bere bidea eta, neoliberalismoak dioenez, nork merezi duena lortuko du, batzuek gehiago eta besteek gutxiago, nork bere ahalmenaren eta lanaren arabera. Neoliberalismoak horrela azaltzen ditu ezberdinkeria sozialak eta horri *meritokrazia* deitzen dio, nor bere lekuan jartzen dela argudiatuz, nor merezi duen tokian. Gainera, neoliberalismoaren arabera, nork bere interesa bilatuz interes orokorrari mesede egiten zaio. Imazek dioenez, hain zuzen haxe da neoliberalismoari gehien kritikatzeko zaion ideietako bat. Neoliberalismoarekiko ikuspegi kritikotik salatu egiten dute indibidualismo neoliberalak. Gezurtatu egiten dute interes partikularra bilatuz interes orokorrari mesede egiten zaiola defendatzen duen teoria. Ikuspegi kritikoaren arabera ez dago merkatua auto-orekatzen duen esku ikusezinik. Merkatuak irentsi egiten ditu ahulenak. Neoliberalismoa teoria indartsuenaren teoria dela salatzen du ikuspegi kritikoak. Baliabide gehien dituztenek aukera handiagoak dituztela ahaztea leporatzen diote neoliberalismoari: “otsoen erabateko askatasuna arkumeen heriotza ziurra da, boteretsuen erabateko askatasuna ez da bateragarria ahulenen bizimodu duinarekin”, dio Azurmendik.

Idea horixe bera nabarmentzen du Chomsky-k<sup>652</sup>: benetako aukerarik eman gabe askatasuna oparitzea opari pozoitua da.

Harvey-k<sup>653</sup> dioenez, neoliberalismoaren arabera, norbanakoaren arrakasta edo porrota norberaren bertute eta ahaleginen arabera da (adibidez, hezkuntzaren bidez behar adina edo behar bezala ez inbertitzearen erruz) eta testuinguruak ez du horrekin zerikusirik. Neoliberalismoaren arabera, merkatuan dagoen agente orok dauka informazio berbera eskuratzeko aukera. Suposatzen da ez dagoela botere edo informazio asimetriarik eta, beraz, norbanakoek beren interesen aldeko erabaki ekonomikoki arrazionalak hartzen dituztela. Haatik, Harvey-ren arabera, baldintza hauek nekez betetzen dira gaur egun, inoiz bete badira.

Beck-en<sup>654</sup> arabera, 1980ko hamarkadaren bukaera aldera, indibidualizazioaren izenean aldarrikatu zen jatorriaren loturekiko haustura. Gaur egun maiz entzun daiteke nork bere etorkizuna askatasunez erabaki dezakeela, jatorri sozialari eta sexuari gaina hartuz. Baina klase gabeko gizartearen promesaren ordez polarizazio berria eta handia gertatu da. Geruza sozial guztientzat *igogailu efektua* beharrean *ate jiratorioaren efektua* gertatzen ari da: irabazle gutxi eta galtzaile asko ekoizten dira. Indibidualizazioak bi aurpegi dauzka: batetik, fenomeno kolektiboa da nor bere erara bizitzeko gogoaren hazkundera eta, bestetik, lanaren indibidualizazioak higatu egin du

<sup>651</sup> Imaz, 2006, 55 eta 166 or.

<sup>652</sup> Chomsky, 2000, 99 or.

<sup>653</sup> Harvey, 2005, 65 or.

<sup>654</sup> Beck, 2000, 62-66 or.



erregulazio eta estandarizazioa ardatz zuen enpleguaren mundua. Autonomiaren kultura berri eta prekariora sortu da, nor bere aferen enpresaria dena.

Edonola ere, badirudi neoliberalismoaren meritokraziaren ideia hauek guztiak nahiko errotuta daudela gure gizartean.

Klein-ek<sup>655</sup> kontatzen duenez, langile askok McJob delako enpleguetan (Dan Gallin-en definizioaren arabera, gutxi kualifikatuak, gaizki ordainduak, estresanteak, nekagarriak eta ezegonkorrak direnak) hamar urte eman ondoren ere esaten jarraitzen dute pasieran baleude bezala sentitzen direla. Nekeza egiten zaie beren enpleguen kalitatea eta arrakasta pertsonalaren sentimendua uztartzea baina, hala ere, gehiengoak esaten du klase ertainekoak direla, nahiz eta askok urtean 13 mila dolar irabazten dituzten. Beren egoeraz kontzienteki eta publikoki jabetzen direnen artean, Starbucks-eko enplegatu batek zioen berak uste zuela “Starbucks lehenengo urratsa izango zela, baina zoritxarrez ez da urratsa, amildegira salto egitea baizik”<sup>656</sup>.

Alonso de Armiño, Gómez, Moreno eta Zuberok<sup>657</sup> EAEko gazteen lan baldintzei buruz egin zuten ikerketaren arabera, gazteei beren lan arazoan kausei buruz galdetuta, askok ez dute ezagutzen lan arloan eragiten duten aktore sozial eta ekonomikoen papera. Gehienek ez dituzte beraien kasu pertsonalak orokortzen. Ez dituzte kasu partikularrak fenomeno orokortu baten parte bezala adierazten. Banako indibidualizatua nagusitzen da, lotura sozial gutxikoa, lan merkatuaren aurrean desorientatua dagoena, nahiz eta adinean gora egin ahala eta ikasketa maila handiagoa izan ahala diskurtsoaren konplexutasuna handitzen den. Maila indibidualean irtenbidea bilatze aldera, argi dute zerbait egin beharra dagoela, baina ez dute argi zer egin. Irtenbide bezala gehiago ikastea besterik ez dute aipatzen, bai unibertsitatean ibili diren gazteek bai ibili ez direnek. Diskurtso neoliberal dominatzailea bere egiten dute. Ez dago arazoaren kausen aurka kolektiboki egitera bultzatzen dituen motibaziorik. Oso gutxik aipatzen dute arazo orokorraren aurka antolatze aukera. Azken batean, etorkizunari begira ikuspegi ezkorra nagusitzen da. Nork bere aldetik ahal duen guztia egin behar du ahal den neurrian salbatu ahal izateko, gazte hauek diotenaren arabera. Izan ere, Zuberoren<sup>658</sup> arabera, enplegatuek gero eta gehiago hautematen dute beren etorkizuna jokabide pertsonalaren arabera dela eta ez hainbeste kolektiboki hitzartutako bermeen arabera.

Gazte hauen diskurtsoa ez da hain harritzekoa, hainbat ikuspegi politikok horixe sustatu baitute. *Horizonte de expectativas* delakoa lan sozio-politikoaren produktua da<sup>659</sup>. Hala neoliberalismoak nola sozialdemokraziak prestakuntza seinalatzen dute enplegu krisiari aurre egiteko irtenbideetako bat bezala, Imazek<sup>660</sup> dioenez. Diskurtso kritikoak, ordea, prestakuntzaren garrantzia ukatu gabe, ez du uste langile prekarioen arazoa prestakuntza falta denik, enplegu duin falta baizik. Gainera, langile prekarioen prestakuntza maila maiz oso handia da: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ekonomia katedradun Josep Oliver eta José Luis Raymond-ek 2003 urtean zuzendu zuten ikerketaren arabera, Espainiako estatuan lanean ari direnen artean %15ak (2,2 milioi

<sup>655</sup> Klein, 2005, 280-283 or.

<sup>656</sup> Idem, 282.

<sup>657</sup> Alonso de Armiño & Gómez & Moreno & Zubero, 2004.

<sup>658</sup> Zubero, 2000, 21 or.

<sup>659</sup> Imaz, 2006, 157 or.

<sup>660</sup> Imaz, 2006, 193 or.

langilek) beren lanpostuek eskatzen dutena baino prestakuntza handiagoa dute. Are gehiago, gehiegizko prestakuntza handitu egin da azken urteetan. Baina fenomeno honi muzin eginez, enplegu krisia gainditzeko prestakuntza nabarmetzen duen diskurtsoak eztabaida eremu kolektibotik indibidualera eramaten du, enplegu duina ez lortzearen kausa norbanakoen prestakuntza faltarekin edo lan merkaturako trebezia egokiak ez edukitzearekin lotuz.

Testuinguru honetan, Marazzi-ren<sup>661</sup> arabera, neoliberalismoarekiko atxikipen masiboak egoera paradoxikoa sortu du, indibidualismoa balio kolektibo bihurtu baita. Uztartu egiten dira indibidualismoa eta klase ertain deitzen denaren kide izateko borondatea. Kolektibotasunetik desagregatzearen esperientzia bezain egiazkoa da kolektibotasunaren kide izateko desira, baina klase ertainaren erretorikak efektu bitxia sortzen du: eremu publikoak existitzen ez den erkidego politiko bat islatzen du. Nolanahi ere, Navarro-ren<sup>662</sup> arabera, kontuan hartu behar da adibidez inkestetan klase sozialari buruz galdetzen denean, soslaia oso nabarmena izan ohi dela: esate baterako, norbaiti goi, ertain edo behe klasekoa den galdetzean, *bebe* terminoak gutxiespena adierazten duenez, nabarmen gutxitzen dira hori adierazten duten erantzunak. Aitzitik, galdera beste era batera eginez gero, emaitzak oso ezberdinak izan daitezke, lortu nahi den emaitzaren arabera (esate baterako,artzelonako eremu metropolitarran egin zuten inkesta batean galdera zen ea burgesia, burgesia txikia, klase ertaina edo langile klasea ziren eta %72ak erantzun zuen langile klasea zirela, eta ziur aski *burges* terminoak askorentzat izan dezakeen gutxiespen izaerak baldintzatu egiten ditu erantzunak).

### 3.4.2 Lan erreformen herentzia

Lan erreformek, Castillo-ren<sup>663</sup> arabera, lan harremanen alde bat arautu zuten, lan eskaintza hain zuzen, eta beste aldea, lan eskaria, deserregulatu egin zuten. Izan ere, erreformen helburua lan indarraren trebakuntza aldatzea eta kontratazioaren malgutzea izan zen. Baina kontuan hartu behar da izaera kapitalista duten ekoizpen moduetan enpresen helburu behinena ez dela balioa sortzea baizik eta lanean sortzen den balioaren ahal bezain besteko zatia eskuratzea. Hortaz, enpresariak etekinak lortzeko produktibitatea handitu dezake (inbertsio teknologikoen edo langilearen kualifikazioaren bitartez, besteak beste), baina etekinak lortzeko beste era bat ere badu, eremu hori arautua ez dagoen bitartean: lanaren intentsitatea handitu edo/eta lan kostuak txikituz eraldatuko du lan ordainduaren eta ez ordainduaren denboraren artean dagoen aldea eta, ondorioz, etekinak handitu ahal izango ditu. Eta lan erreformen harira, kualifikazioa lan eskua hautatzeko erabiltzen da eta ez ekoizpen egiturak aldatzeko, formazio kontratuak kostuak txikitzeko erabiltzen dira eta ez ibilbide profesionalak sustatzeko, trebakuntza programak finantzazio publikoa jasotzeko baliatzen dira eta ez teknologia berriak sartu eta kalitateko lanak sortzeko. Ondorioz, Espainiako estatuaren hazkunde ekonomikoa handitu egin da Europako Batasunekoarekin alderatuta baina produktibitatea abiadura berean txikitu da. Enplegu kopurua handitu da baina bere degradazioaren truke.

---

<sup>661</sup> Marazzi, 2003, 88 or.

<sup>662</sup> Navarro, 2006, 29-31 or.

<sup>663</sup> Castillo, 2004, 15-17 or.

Castillo-ren<sup>664</sup> arabera, enpresaren etekina lortzeko produktibitatea handitzea ez ezik abantailazko harremana ere bilatzen du lanpostuaren produktibitatearen, eskatutako kualifikazioaren eta gaitasun hori duten pertsonen kopuruaren artean. Oinarritzko bi trebakuntza eredu daude: batetik, enpresatik kanpoko lan merkatuan garatzen da kualifikazioa eta honen lan mailako aitortza eta, bestetik, barne merkatuan enpresa bakoitzak daukan lanaren antolaketaren arabera menpekotasuna dago. Lehenean kualifikazioa transferiblea da, enpresa bat baino gehiagotan erabil daiteke, mugikortasuna errazten duelarik. Bigarrena, aldiz, kualifikazioen aitortza enpresa bakoitzaren erabakien arabera da, bere lanaren antolakuntzaren eta giza baliabideak erabiltzeko modu zehatzaren arabera. Erreformen ondoren, kanpo merkatuak gaitasun orokorraren arabera funtzionatzen du, eta langilearen kualifikazioa ez da enpresarekiko negoziazioan balioa ematen duen zerbait baizik eta gainerako langileen aurrean, haiekiko lehia baitago lanpostu horietan. Horrexek eragiten du ginkualifikazioa, gehiegizko kualifikazioa; hots, alde nabarmena langileen kualifikazioaren eta lanpostuaren ezagutza beharren artean. Eta barne merkatuan ikasitakoak ez du baliorik beste enpresetan eta, beraz, enpresarekiko menpekotasuna handia da. Ondorioz, kualifikazio honek enpresari balio dio eta langileari ez.

Enpleguen logika (curriculum formala) eta lanen logika (benetako kualifikazioa) bereizteak hainbat ondorio izan ditu. Batetik, hezkuntza sistema bihurtu da lanpostuak lortzeko bitartekaririk behinena. Kualifikazioak aitortzeko sistemak gero eta ezaugarri gehiago hartzen ditu bere baitan eta, beraz, gero eta kualifikazio eremu gehiago formalizatzen ari dira. Hezkuntza sistemaren ebaluazio jarraian gaitasuna ez ezik jarrerak ere barne hartu dituzte. Honenbestez, norbanakoaren ezaugarri kualitatiboak zenbaki bihurtu nahi ditu; hau da, kopurua neurgarri eta alderagarri. Izan ere, hezkuntza sistemaren funtzio latentea lanpostu baterako trebatzea baino lan merkatuan abiapunturako posizio on batera bideratzea da. Ondorioz, ibilbide akademikoak trazatzea norbanakoaren aukera bezala eta beraz norbanakoaren ardura bezala hartzen da baina arrakasta edo porrot akademikoak baldintzatzen du eta hau jatorri sozialak baldintzatzen du. Honela, izkutuko curriculum (titulu akademiko hobeak lortzea ahalbidetzen duten eskolaz kanpoko baliabideak eskuratzeko ezberdintasun sozialak) objektibatu eta ikusgarri bihurtzen du hezkuntza sistemak eta, beraz, curriculum formal horrek zuzena, anonimoa eta objektiboa izatea aldarrikatzen duen arren, ezberdintasunak indartzen ditu. Bestalde, lanpostu baterako aukeraketa egiterakoan, kualifikazioarekin zerikusia ez duten makina bat faktorek eragin oso handia dute: adibidez, posizio soziala, norberaren giroa, kontaktuak eta zein ikastetxetan ibili den, besteak beste. Azken finean, testuinguru familiar eta sozialak.

Testuinguru prekarizatua oso eraginkorra da, Castillo-ren<sup>665</sup> arabera, produktibitatea sustatzeko eta hierarkia sozio-ekonomikoa sendotzeko. Ikasi edo lan egin, hori zen garai batean aukera: lan egiten goiz hasteak independizatzea suposatzen zuen, bestelako aukerak murriztea eraginez, eta ikasten jarraitzeak, berriz, baliabide ekonomiko gutxiago eduki baina emaitzak aurrerago jasotzeko aurreikuspena. Fernández Enguita-ren arabera ere bi eredu zeuden: klase ertainaren eta altuaren ereduaren arabera, trantsizio luze eta mailaz mailako batean bidez, eskola urte luzeak oinarri, ekoizpen hierarkiaren posizio ertain eta altuetara iristen da, gakoa sariak atzeratzean datzalarik, etorkizunak orainaldian eragin erabakiorra izan dezan utziz; langile klasearen ereduaren arabera, berriz, trantsizioa goiztarragoa da eta denbora kontzentratuagoa dago. Orduan, lanpostu

<sup>664</sup> Castillo, 2004, 48-56 or.

<sup>665</sup> Castillo, 2004, 68-120 or.

batzuek saritu egiten zuten pilatutako kualifikazioa. Kualifikazioak zerikusi zuzena zuen lanpostuarekin. Hori guztia, bi bideen eskema, aldatu egin da. Honezkero ez dago horrelako bereizketarik. Gaur egun kualifikazioak zerikusi handiagoa du gainerakoekiko ezberdintzearekin eta ez lanpostuarekin. Gainera, kualifikazio maila orokorra handitzean, batetik titulu bakoitzaren balioa (balio ezberdintzailea) txikitu egin da eta, bestetik, lanpostuen kualifikazio beharra hainbeste handitu ez denez, orain lanpostu bakoitzerako askoz hautagai gehiago daude eta horrek lanpostuaren baldintzak okertzen laguntzen du.

Cardenalek<sup>666</sup> dioenez, testuinguru honetan aldatu egin da norbanakoen estrategia hezkuntza sistemarekiko. Eskolako esperientzia oso anitza da baina ezaugarri komunak dauzka: iraupen luzea oro har. Oso errotuta dago gazteen artean ikasten ez duenak aukera gutxiago dituela. Ikasketekiko estrategia aldaketa orokortu honek handitu egin du gazteen etxeoketikiko menpekotasuna eta bide batez gazteen posizio sozio-ekonomikoa oso anbiguo bihurtu du. Lan ibilbide guztietan islatzen da banakoen egonkortzea nabarmen atzeratu dela eta, beraz, luzatu etxeoketikiko menpekotasuna. Familia kinka larrian jarriko duten egoerarik sortzen ez den bitartean, lan eta gizarte posizioarekiko estrategiak denboran nabarmen luza daitezke. Familiak babesa ematen ez duenean, arazoak biziki larritzen dira. Posizio on bat lortzeko lanerako sartu-irten asko eta eskolan inbertsio handiak behar dira oro har eta, hala ere, honek ez du posizioa ziurtatzen. Beraz, ibilbide horretan banakoaren posizioa oso anbigua da. Gainera, desinbertsioak eta espektatiben muturreko aldaketak nekez gertatzen dira, zeren posizio anbigua luzatzea aukera zilegitzat hartzen baita. Hartara, gazteek beren trebakuntza maila handitzeko inbertsio handiak egiten dituzte etengabe.

Giza Kapitalaren teoriak esan izan dutenaren kontrakoa gertatzen ari da. Schultz-ek<sup>667</sup> sortu eta Nobel saridun Becker-en *Giza Kapitala*<sup>668</sup> liburuak hedatu zuen teoriaren arabera, ekoizpen faktoretzat lana eta kapitala hartzeaz gain, heziketa ere kontuan hartu behar da, lanaren produktibitatea aldarazten baitu, eta ideia hau soldataren lehiakortasunaren teoriarekin uztartu zenean, ondorioztatu zuten langileen heziketaren bitartez kualifikazioa handitzen zenean, beren errenta ere handitzen zela, eta errenta handienak, berriz, txikitu egiten zirela, lehiakortasuna handiagoa zelako. Beraz, ikuspegi honen arabera, hezkuntza faktore produktiboa izateaz gain, berdintasunaren alde egiten duen eragilea ere bada, errenten banaketa orekatuagoaren alde egiten duelako.

Haatik, Thurow-ek oinarri enpirikoa erabiliz Giza Kapitalaren Teoriaren bi tesi nagusiak gezurtatu egingo ditu: AEBetan 1949-1969 artean hezkuntza sistema formala nabarmen hedatu bazen ere, lan merkatuan errentak ez ziren modu orekatuagoan hedatu; aitzitik, gehiago polarizatu ziren. Halaber, produktibitatearen hazkundera ez zen izan langileen heziketaren hazkunderaren parekoa. Thurow-en arabera, heziketa ez beste faktore batzuek eragin handiagoa dute produktibitatean eta, bestalde, errenta modu orekatuagoan banatzeko egokiena errentaren eremuan zuzenean esku hartzea da: zerga politika progresiboa, soldaten kontrola, sektore publikoaren ekimena, soldaten arteko alde handiak murrizten dituzten enpresariei laguntzak eta bide horretan doazen bestelako neurriak.

<sup>666</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 107 or.

<sup>667</sup> Schultz, 1960.

<sup>668</sup> Becker, 1983.

Castillo-ren<sup>669</sup> ikuspegia ere justu Giza Kapitalaren Teorien beste muturrean dago. Castillo-ren arabera, azken urteetan aldaketei esker, hezkuntza arloko hazkundera ere tarteko, orain lan merkatua amets liberaketik hurbilago dago. Baina Castillo-ren ikuspegi analizatzen jarraitu aurretik, GRET ikerketa taldean oinarrituz Planas-ek egiten duen ekarpena aztertuko dugu, Castillo-rena aztertzeko baliagarria izan daitekeelako.

Planas-ek<sup>670</sup> lan eskaintza eta eskaria aztertzerakoan hainbat ekarpen argigarri eskaintzen ditu. Europako Batasuneko lan eskaintzan honako joerak nabarmentzen ditu Planasek GRET ikerketa taldearen analisisetan oinarrituz:

- Lan merkatuan sartzen diren titulu fluxuaren hazkunde orokorra. Hezkuntza sistematik irteten den belaunaldi bakoitzaren ikasketa maila aurrekoarena baino handiagoa da.
- Ikasketa mailari lotutako aktibitate tasaren hazkundera, batik bat emakumezkoengan, hauek izan baitira eta baitira aktibitate tasa txikiena dutenak.
- Aldaketa demografiko handiak, batik bat biztanleriaren zahartze prozesua, honek aldatu egiten duelarik hasierako prestakuntzaren, trebakuntza jarraia eta lanerako konpententzien ekoizpenari dagokion esperientzia profesionalaren arteko harremana.
- Hezkuntza sistema formaletik kanpo trebatzeko espazioen eta aukeren hazkundera eta, ondorioz, titulu akademikoek kubritzen ez dituzten konpententziak barnerratzeko aukerak.
- Aldaketak ekoizpen prozesuetan eta lanaren antolakuntzan, lanpostuan bertan trebatzeko aukerak handitzen dituztelarik, batez ere lan kualifikatuentzat.
- Ibilbide akademikoen eta trebakuntzazko ibilbideen luzapena bizitza osoan zehar, auresangarriak ez ziren aldaketak tarteko.
- Bizitza osoan zeharreko trebakuntza ibilbideen polarizazioa, hasierako trebakuntza oinarri delarik, horrela trebakuntza txikiena dutenek trebakuntza jasotzeko aukerak txikituz.
- Trebakuntza progresiboki *merkantzia* bihurtzea, honek eragin handia duelarik batetik trebakuntza eskaintzaren eraikuntzan eta bestetik arrazoi ekonomikoetan oinarrituta hezkuntzarako eta trebakuntzarako diskriminazioan.

Baina Planas-ek lanaren eskaria aztertzeko darabilen ikuspegiak ekarpen baliagarriak egiten ditu. Planasen arabera, lanaren eskariari dagokionez, bereizi egin behar dira enpresen beharrak eta ekonomiaren beharrak. Ekonomiaren beharrak ez dira une jakin batean enpresek dauzkaten beharren batura. Ezberdintasun hau bi osagaietan oinarritzen da: batetik, enpresen beharrak ezagutzearen bitartez ezin dira identifikatu ekonomiaren beharrak epe luzera eta, bestetik, indibiduen trebakuntza jokabideak ez datoz guztiz bat indibiduo hauei enplegua ematen dieten enpresen beharrekin. Azken arrazoi hau osagai berritzaile ekonomiarentzat.

Lehenego arrazoiari dagokionez, Planasen arabera, merkatu ekonomia globalizatu batean ohikoa da epe ertain eta luzerako konpetentzia beharrei buruzko informazio zehatza ez izatea, ezin baitira enpresen beharren bitartez identifikatu, batik bat enpresek epe motzera erantzuteko gero eta presio handiagoa dutenean. Izan ere, epe ertain eta luzera trebatutako pertsonen eskaintzaren eta trebatutako pertsonen behararen arteko harremana askoz interaktiboagoa da ekonomian.

<sup>669</sup> Castillo, 2004, 68-120 or.

<sup>670</sup> Planas, 2003.

XX. mendearen bigarren erdiko esperientziak erakusten du Europako ekonomiak funtsean gai izan zirela trebatu zuten lan eskua absorbitzeko nahiz eta itxuraz behar baino kopuru handiagoan trebatu zituzten. Are gehiago, gero eta trebakuntza handiagoa duten belaunaldi gazteei esker aurrean ez zuten lan eskariari aurre egin ahal izan zioten ekoizpen sistemetan aldaketa teknologikoak eragin handia izan zuenean.

Bigarren arrazoiari dagokionez, Planasen arabera, ekonomiaren eta enpresen beharrak bat ez etortzeko beste arrazoi bat da ezerk ez duela bermatzen enpresen beharrak eta indibiduen beharrak bat etortzea. Indibiduoek hartzen dituzten trebakuntza arloko erabaki askok ez diete enpresen behareri erantzuten, batzuetan kontra ere egiten diete, baina, arestian esan bezala, indibiduen hezkuntza arloko jokabideak funtsezko faktorea dira ekonomien garapenean.

Honenbestez, Planasek ondorioztatzen du enpresaburuek beren mesederako baliatu ahal izan dutela oro har soldatapekoen eta bereziki gazteen hezkuntza mailaren hazkundera. Kanpo merkatu batean kontratatu ahal izan dute, lan eskua malguagoa, eta insertzio kosteak murriztu ahal izan dituzte. Hasierako trebakuntzaren hazkundera ahalbidetu egiten du trebakuntza ekimenak arinagoak eta motzagoak izatea eta, aldi berean, aukera ematen du barne merkatu berrituetan mugikortasun forma berriak garatzeko. Halaber, hezkuntza mailaren hazkundera sustatu ahal izan du enpresek ezagutza aukera berri hauek baliatzea beren hautaketa irizpideak gorantz aldatzeko. Enpresek zuzenean *erosi* dituzte hezkuntza sistematik berehala erabilgarriak edo potentzialki erabilgarriak diren ezagutzak.

Orain azter dezagun Castillo-ren<sup>671</sup> ikuspegia. Carnoy-k<sup>672</sup> azaltzen duenaren kontra (Carnoy-ren arabera, kapitalistak ahaleginu egiten dira hezkuntza sistema bezalako baliabideen bitartez kontraesanek sortutako tentsioak baretzen, baina aldi berean kontraesan berriak sortzen dituzte), Castillo-k, azken urteetako aldaketetan oinarrituz, esaten du orain lan merkatua amets liberaletik hurbilago dagoela, zeren ezberdintasunik gabeko lan eskua ez badago ere, orain lanpostu guztietarako, baita kualifikatutzat jotzen direnentzat ere, behar baino langile askoz gehiago baitaude aukeran. Azkenean, langile-hautagaien gaineko presioaren eraginez, langileek soldata berberarengatik (batzuetan, ez gutxitan, gutxiagorengatik) lan gehiago oparitzen diote enplegatzaileri. Izan ere, kualifikazio formalaren eta lanpostuaren kualifikazioaren arteko aldeak eragin nabarmena du. Azken finean, gehiegizko kualifikazioaren dinamika honek lanaren merkantilizazioa sustatzen du. Dinamika honek tituludunak kaltetzen ditu baina are gehiago kaltetzen ditu titulurik ez dauzkatena, beherantz bultzatzen baititu.

Tradizionalki Lanbide Heziketa hartzen zutenek lanbide zehatz bati lotutako ikasketak egiten zituzten eta unibertsitatekoek, aldiz, ezagutza eremu orokorrago bat lantzen zuten eta, ondorioz, lan mota gehiago egin zituzketen. Dikotomia honen testuinguruan sortu zen Willis-ek azaltzen duen langileen seme-alaben kontrakultura: jabetu egin ziren hezkuntza sistemak ez zuela aukera berdintasuna bermatzen, beraiek langile postuak bakarrik lortzen zituztela eta, ondorioz, eskolari uko egin zioten, instituzio bezala uko, uko diziplinaren truke tituluak lortzeari, beraien lekua ez zela konturatu baitziren, eta eskulana goستن baitzuten lan mentala deitzen zenaren kaltetan. Lanbide bati lotutako ezagutza ikasten zuten. Jarrera hau oso funtzionala zen ekoizpen

<sup>671</sup> Castillo, 2004, 68-120 or.

<sup>672</sup> Carnoy, 1999.

sistemarentzat: langileen seme-alabei segurtasuna eskaintzen zitzairen, posizio bat hartzen bazuten, bertan eroso sentituko zirela, beren lekuan, beren posizioan, eta horrela onartzen zituzten lan kaskarragoak eta soldata txikiagoa.

Gaur egun, ordea, hori aldatu egin da askorentzat, Castillok dioenez. Hezkuntza Sistematik kanporatu eta lan merkatuak ez ditu baldintza onetan hartzen. Lan oso kaskarretan edo lan bila dabiltzala, orain beraiek ere funtzionalak dira: erreserba ejerzitua dira, beraiek hortxe egonda ahalbidetzen dute hezkuntza lan urte gehiago inbertitu dituztenak kontratatzea titulugabeek egin ahal izango lituzketen postuetarako, baina titulugabeek bultzatzen egiten dute eta tituludunak baldintza okerragoetan eta soldata txikiagoengatik har ditzakete, zeren ezetz esanez gero, beti egongo baita beste norbait lan hori egiteko prest.

Castillo-ren arabera, enplegurako zentru berezietan, atelier-eskoletan eta trebakuntza kontratuarekin enpresetako praktika ez ordainduetan lan produktiboa egiten da, langileek epe jakin batera mugatutako egonaldietan produktuak eta zerbitzuak ekoizten dituzte eta produktu eta zerbitzu horiek merkatuan saldu egiten dira. Alabaina, langileei ordaintzen dieten erretribuzioa ez da kalkulatzeko produktu edo zerbitzu horiek erdiesten duten salneurriaren arabera edo balioaren arabera baizik eta lan egiteak langileari egiten dion legalki zehaztutako neurriaren mesedearen arabera. Eta dagokiena ez ordaintzeaz gain, Castilloren arabera, maiz lan hauetan ez da ezer ikasten. Baina beste era batera *kualifikatzen* dute, lan baldintza batzuetara ohitzera behartzen baitute: uneoro prest egotea, egokitze gaitasuna eta presentzia, kolektiboki ez ekiteko baldintzak sortzearekin batera. 1994 urteko lan erreforman ABLEak arautzen zituen legearen bigarren atalean, *Contrato de puesta a disposición* delakoan, berriro ere lanaren balioa nabarmentzen zen, ez soldata baten truke egiteagatik baizik eta lana besterik gabe, eta ondorioz erremunerazioa lan egitearen beharrak determinatzen du, ez emandako lana betetzeko egindako ahaleginak, baina halaber, eta hau da originalena agian, Castillok dioenez, lege honen arabera langileak ABLEari ematen dio bere lan indarra baina enpresa erabiltzaileak zehazten ditu baldintzak eta, beraz, langileek definizioz ez dute negoziazio ahalmenik, zeren besteak beste ez baitakite zer lan mota egingo duten, iraupena, ezta lekua ere.

Honek guztiak eragin handia du langile belaunaldi berriaren osasunean, Castillo-ren<sup>673</sup> arabera. Lan jardueraren intentsitatea handiagoa denez, ahalegin fisiko eta psikologikoek eragindako kalteak goizago agertzen hasten dira. Gainera, lan istripuen maiztasuna askoz handiagoa da langile belaunaldi berri honetan. Baina horrez gain, prekarietateak eragindako zauri psikologikoak ere nabarmentzeko modukoak dira. Espektatibak zapuztea, jitoan hainbat urtez ibili ondoren, kausa nagusienetako bat da.

Erreproduzio sozialaren orain arteko erdua krisian dago, Castillok<sup>674</sup> dioenez. Ikasketa urteak luzatzeaz gain, lanean ari direlarik ere langile gazteek gurasoen diru irabaziekiko menpekotasuna dute, zeren gazteek soldata eskasak eta behin-behinekoak baitira eta etxebizitzaren salneurriak, berriz, oso garestiak. Etxebizitzaren egoerak prekarietatea sustatzen du, lanaren beharra handitu egiten baitu, soldata txikiagoak onartzearen truke bada ere. Hortaz, lana intentsifikatzeko tresna ere bada etxebizitzaren egoera. Etxebizitzaren sektorea aztertzea ere oro har esanguratsua da, oro

---

<sup>673</sup> Castillo, 2004, 126 or.

<sup>674</sup> Castillo, 2004, 147 eta 169-170 or.

har gertatzen dena sektore horretan argi eta garbi islatzen baita: esate baterako, Madrileko Erkidego Autonomoan 1985-1992 urteen artean etxebizitzaren salneurrian eraikuntza kostuek zeukaten pisua %60tik %40ra murriztu ziren, bitartean lurarren salneurria %25etik %40ra handitu eta etekinena %15etik %20 handitu zelarik. 2000ko hamarkadan biziagotu egin da dinamika hau eta eraikuntza kostuak ez dira etxebizitzaren azken salneurriaren %25era iristen. Beraz, etxebizitzaren salneurriak etengabe gora egin duen urteetan soldatak txikitu eta, aitzitik, lurraren sustatzaile eta espekulatzaileen etekinak nabarmen handitu dira. Etxebizitzaren sektorean gertatu den fenomenoak gauzatu da lan munduan ere.

Honenbestez, langile belaunaldi berriaren gurasoekiko diru menpekotasun harremana ere aldatu egin da, Castillok<sup>675</sup> dioenez. Lehen ikasketa garaian soilik legitimatzen zen. Gaur egun asko aldatu da hori, menpekotasuna kuantitatiboki nahiz kualitatiboki handitu egin baita.

Petras-ek<sup>676</sup> gurasoen eta seme-alaben belaunaldiak alderatzen dituelarik, ezberdintasun handiak ikusten ditu. Gazteak familia ekonomikoki egonkorretan jaio dira (gehienak, ez guztiak, eta gero eta gutxiago gainera). Dirudunak ez izan arren (batzuek besteek baino gehiago daukate), gutxienez familiako kide batek enplegu egonkor eta ez gaizkiegi ordaindua izan ohi du. Familiak seme-alabei babesa eskaini ohi dio, lehen baino luzarago, hezkuntzarako, oinarritzko beharretarako eta aisialdirako. Seme-alabek eskola uzten badute, ez da behar ekonomikoengatik izaten, baizik eta aspertuta sentitzen direlako, dirua irabazteko gogoak gaina hartzen dielako edo eskola-porrotaren erruz. Belaunaldi berriko langileek urte luzez beren gurasoek baino bizi kalitate hobea izan dute, etxeko abiapuntua hobea da, baina prekarietatea nagusitzen da kanpoan eta bide batez etxean. Etena da konstantea ziurgabetasunaren belaunaldian. Paradoxa handia da kotoi artean jaio eta bizi izan den belaunaldiak izatea etorkizun hain lausoa.

Cardenalek<sup>677</sup> dioenez, etxekoen arteko hitzarmenaren ondorioz (izan esplizitua nahiz inplizitua) gazteek diru kopuru esanguratsua izaten dute eskura eta lan merkatuan baino lehenago integratzen dira kontsumoaren kulturaren.

Petras-en<sup>678</sup> arabera, modernizazio ekonomikoa deitu duten fenomenoak injustizia sozialak areagotu egiten ditu. Ekonomista liberalek aldarrikatzen dute merkatua lehentsi behar dela eta merkatua ondo badoa, bizi maila hobea eta askatasun politiko handiagoa eratoritzen direla, baina adibidez Espainiako estatuko eraldaketa sozio-ekonomikoen agerian uzten dute teoria horren faltsutasuna. Merkatua indartzeak familiarekiko menpekotasun handiagoa dakar, ziurgabetasun pertsonal handiagoa, beheranzko mugikortasun soziala eta autonomia pertsonal txikiagoa. Kontsumo produktu ugari erosteko aukera inoiz baino handiagoa den arren, langile belaunaldi berriak baliabide askoz gutxiago dauzka bizimodu kontsumistako zutabe garrantzitsuenak diren osagaiak eskuratzeko, batik bat etxebizitza. Egitura sozialari dagokionez, merkatu librea deritzonak talde sozialen arteko ezberdintasunak handitzeaz gain, taldeen baitako ezberdintasunak ere areagotu egiten ditu, gizarte fragmentatua, atomizatua, sortuz.

---

<sup>675</sup> Castillo, 2004, 147 or.

<sup>676</sup> Petras, 1996, 54-59 eta 80-82.

<sup>677</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 107 or.

<sup>678</sup> Petras, 1996, 54-59 eta 80-82 or.



### 3.5 Neoliberalismoa krisian ala krisia neoliberalismoan?

Garaipenaren aldartearekin Francis Fukuyama-k<sup>679</sup> historiaren amaiera aldarrikatu zuen, baina handik urte gutxira hainbat krisi azaleratu dira: Asiakoa, .com izeneko krisia, eta azken hilabeteetan finantza krisia eta berehala krisi orokorra. Orain neoliberalismoaren krisiaz hitz egiten da, baina gaur egun zer ari da gertatzen, neoliberalismoaren krisia ala krisia neoliberalismoan? Ala biak uztartzen ari dira?

Lienemann eta Quiles-ek<sup>680</sup> L'Humanite-n diote krisiaren jatorria prekarietatea dela, soldadak ez atzera ez aurrera gelditu izana. Análisi honen arabera, ezin da onartu lege ukiezinik, merkaturia edo lehia librea izan diren bezala, hauek eragin baitute burbuila, eta berreskuratu egin behar direla politika, herriaren subiranotasuna, eskuhartze publikoa eta estatuaren rola ekonomian. Beraz, krisia aldaketarako parada dela defendatzen dute. Iritziz honengan suma daiteke ikuspegi kritikoak aldarrikatzen duena; hots, neoliberalismoak kapitalismoaren legitimazio krisia sortu duela baina arazoa ez dela neoliberalismoa, kapitalismoa baizik, izan ere neoliberalismoa kapitalismoaren biziraupenerako sortu baitzen.

Haatik, Financial Times-eko editorialean<sup>681</sup> diote helburua merkatu librea salbatzea izan behar dela eta finantza krisiaren garaian ezinbestekoa dela bankuen nazionalizazio partziala eta administrazio publikoak sektore pribatua diruz laguntzea. Ikuspegi honen arabera, mugimendu hauek ez dute kapitalismo pribatuaren aurka egiten. Izango diren hurrengo krisietan estatuak ere eskuhartu beharko duela uste dute, gero estatuak erositako banku zatiak, adibidez, inbertsiogile pribatuei atzera saltzeko. Gobernuak krisien aurkako neurriak hartu behar dituzte, gero arauak huts egingo dute, ondoren estatuak berriro zatiak jasotzeari ekin beharko dio, atzera saldu, eta horrela etengabe. Financial Times-eko editorial honen arabera, ez dago beste alternatibarik.

Asko dira iritziz berekoak. Duela gutxi, 2008ko udazkeneko finantza krisiaren testuinguruan, Milton Friedman-en krisiari buruzko ikuspegian bikain txertatuz Espainiako gobernuko ekonomia ministro Pedro Solbes-ek honakoa adierazi zuen hitzez hitz: “Si entrar en recesión sirve para limpiar la economía, para remontar, no tiene mayor importancia”<sup>682</sup>. Hitz horiei buruz El Mundo egunkariko Melchor Miralles-ek TVE-n esan zuen “tal vez será así pero es una desfachatez decirlo”<sup>683</sup>.

Kapitalismoa berregiteko (baina ez gehiegi eraldatzeko) garaia dela aldarrikatu dute batzuek. Luttwak-ek<sup>684</sup> bezala kapitalismoaren bertuteetan sutuki sinesten dutenetako batzuek gaitzetsi egiten dute neoliberalismoa. Luttwak-ek turbokapitalismoa deitzen dio. Bere iritziz kapitalismoa da gizakien asmakizunen artean boteretsuena, ez du parekorik gutizia energia produktibo anitzetan bihurtzeko gaitasunean, eta beste edozein administrazio moduk ezingo luke halako eraginkortasuna eta berrikuntzarako joera lortu etekinaren eta aberastasunaren bila, ezingo lituzke merkatu kapitalistak hain armoniotsuki koordinatu. Luttwak-ek ez du ezer txarrik ikusten

<sup>679</sup> Fukuyama, 1992.

<sup>680</sup> Lienemann, Marie Noëlle & Quiles, Paul in “Hausturak” in L'Humanite, 2008-10-03.

<sup>681</sup> Financial Times-eko editoriala, 2008-10-13.

<sup>682</sup> El País, 2008-09-11.

<sup>683</sup> TVE, 2008-09-11.

<sup>684</sup> Luttwak, 2000.

kapitalismo garaikidearen forma aurreatuenean helburuetan. Baina gaur egun dinamika kapitalistak hainbat joera oker dauzkala eta ohiko bihurtu direla dio Luttwak-ek, eta ondorioz kalte sozial ugari eragiten ari dela (dagoeneko kalte ekologikoak ez direla eragiten esaten du Luttwak-ek, zigorrei bildur dietelako).

Beharbada goizegi da krisi honek zer ondorio izango dituen aurreikusteko baina badirudi apostuak eginak daudela.

### **3.6 Orain galdera gehiago dauzkagu**

Honenbestez, neoliberalismoari buruzko ekarpenak biltzen saiatu den atal hau bukatutzat emango dugu. Azken hamarkadetan dinamika kapitalista eraldatzen ahalegindu den mugimenduari buruzko azalpenak jaso ditugu hemen, baina oraindik erantzunik gabeko hainbat galdera ditugu. Esan dugu errentagarritasuna txikitu zelarik eta ekoizpenaren gaineko kontrola galdu zutelarik, horren aurkako erantzuna izan zela neoliberalismoa, baina oraindik ez dugu erantzun zergatik egin zuen behera errentagarritasunak, zerk eragin zuen ekoizpenaren gaineko kontrolaren gainbehera. Zeren aurka egin zuen kapitalismoak? Zerk bultzatu zuen eraldaketara?

Gainera, galdera berriak ere sortu zaizkigu. Shock-aren terapia teoria egokia da batik bat periferiako herrialdeetan baina kapitalismoaren erdigunean ez dira hain ikusgarriak, bortitzak eta azkarrak izan, nahiz eta hiruen dosiak ere izan dituen. Hortaz, nola lortu du neoliberalismoak nagusitzea? Orain arte eliteak aipatu ditugu aktore eragileen artean, baina hauek al dira aktore bakarrak? Beste inoren aliantza edo isiltasuna erdietsi al du neoliberalismoak?

## **4. Kritikari kontra**

Kapitalak erronka handi bati egin behar izan zion aurre eta orain garaile ateratzen ari da. Baina zein izan zen kapitalaren aurkaria? Kapitala gatazka galtzen ari zenaren sintoma behintzat aipatu dugu: errentagarritasuna txikitzen eta ekoizpenaren gaineko kontrola galtzen ari zen. Baina zein izan zen kausa? Kosteen gorakada? Petrolioaren salneurrien hazkuntza? Maiz erabili ohi dira horrelakoak galdera hauei erantzuteko baina oso partzialak direla esango genuke. Boltanski eta Chiapelloren<sup>685</sup> analisisian oinarrituko gara bestelako azalpen bat eman ahal izateko baina, aurkariari buruz ezer aipatu aurretik, lehenik eta behin kapitalismoaren zenbait ezaugarri azaldu behar ditugu.

### **4.1 Kapitalismoaren zenbait ezaugarri**

Sennett-ek<sup>686</sup> dioenez, Marx-en garaitik kapitalismoaren ezaugarriarik iraunkorrena bere aldakortasuna da agian. Beraz, kapitalismoaren oinarritzko ezaugarri iraunkor bat aipatzearen,

---

<sup>685</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 33-67 or.

<sup>686</sup> Sennett, 2006, 19 or.

Boltanskik eta Chiapellok nabarmentzen dutenari jarraiki, esan genezake kapitalismoak derrigorrez eskatzen duela kapitala modu mugagabean pilatzea, ahal bada modu formalki baketsuan. Kapitalaren pilaketa ez da aberastasunak metatzen joatea. Kapitala etengabe itxuraldatu behar da eta ekoizpen bihurtu, segidan ekoizpena diru bihurtzeko eta dirua inbertsio berrietan erabiltzeko. Modu eskematiko honetan begiratuta, kapitalismoak ez du forma materialekiko batere atxikipenik eta bere izaera abstraktuak ahalbidetzen du etengabe pilatzen jarraitzeko aukera. Mugarik ez balego bezala jokatzeko du. Kapitalismoaren helburua beti kapital gehiago pilatzea denez, kapitala zirkulazioan jarri behar da, etengabe berrinbertitu behar da, eta ondorioz taigabe dago mehatxupear, batez ere gainerako kapitalisten mugimenduen ondorioz. Dinamika honek ziurgabetasun iraunkorra eragiten du eta kapitalista behartu egiten du etenik gabe pilaketa prozesua jarraitzeko ekimenak gauzatzera. Hau guztia, jakina, kapitalismoaren oinarriko ezaugarriak dagoak, ez kapitalismoaren adierazpen errealei.

Nor da kapitalista? Modu askotara defini daiteke. Boltanski eta Chiapelloren arabera, definizio oinarrikoenari bagagozkio, kapitalista da soberakina eduki eta inbertitzean soberakina handitzea lortzen duen edonor. Definizio murriztago baten arabera, berriz, kapitalistak dira ondare esanguratsu baten jabe direnen multzoa. Frantziako estatuan ez lirateke etxeen %20 baino gehiago izango. Nolanahi ere, definizio are murriztago baten arabera, kapitalistak dira kapitalaren pilaketa eta hazkundera eragiten duten aktore nagusienak, etekinak handitu ditzaten enpresei presio egiten dietenak.

Kapitalismoaren beste ezaugarri aipagarri bat soldatapekoak edukitzea da. Kontratazioarako forma juridiko oso ezberdinak har ditzakeen arren (baita formalki soldatapekoa ez izaten ere), Boltanski eta Chiapelloren arabera, modu oso eskematikoan esatearren, funtsean hainbat ezaugarri daukate: biztanleriaren zati honek ez dauka batere edo ia batere kapitalik, ez du sistema bere onurarako orientatzen, bere lan indarra saltzetik lortzen ditu diru irabaziak (ez berak ekoiztako produktuak saltzetik), ez dauka produkzio bitartekorik eta, ondorioz, ekoizpen bitartekoen jabe direnen erabakiekiko menpekotasuna dauka, eta soldata harremanaren testuinguruan soldata baten truke uko egiten die bere ahaleginaren emaitzen jabe izateari, kapitalaren jabe direnen mesedetan. Teorikoki langileak uko egin diezaioke kapitalistak eskainitako lan baldintzei baina enplegurik gabe luzaroan iraun ezin dezakeenez, borondatezko sumisio dosi bat onartu behar izaten du. Gaur egun soldatapeko baldintzetan dago inoiz egon den biztanleriaren zati handiena.

Soldata berez pisuzko arrazoia izan daiteke langileak enpleguari eutsi diezaion baina soldata soilik ez da nahikoa langilea bere enpleguaren zereginetan buru-belarri inplikatu dadin. Koakzioa ere ez da nahikoa langileen kontrakotasuna edo indiferentzia gainditzeko. Langileen konpromisoaren kalitateak beste oinarri bat dauka: lanpostua justifikatzeko erabiltzen den argumentazioaren onarpena. Prozesu kapitalistetan parte hartzeak langileari ez ezik kolektibotasunari ere mesede egiten diola sinesten bada, banakoarentzat nahiz guztiontzat mesedegarria dela, orduan langileen konpromisoa handiagoa izateko aukera gehiago egongo dira. Beraz, langileen konpromisoa lortu ahal izateko beharrezkoa dira motibazio pertsonalak eta kolektiboak eraikitzea. Nolanahi ere, indarkeria eta legitimotasuna ez dira elkarren aurkako bi metodo bezala ikusi behar, bien artean *continuuma* bai baitago.

Kapitalismoarekiko konpromisoa justifikatzen duen ideologia da kapitalismoaren izpiritua, Boltanski eta Chiapelloren arabera. Ideologia hau aldatu egin da garai bakoitzean zeren bere helburua eraginkortasunez betetzeko (langileak konprometitzea alegia) modu ezberdinak erabili baititu. Lehenengo kapitalismoaren izpirituan familia mailako kapitalismoa zen eredu. XIX. mendearen amaiera aldera burges ekintzailearen irudia da eredu: deskribapenaren elementu heroikoen artean nabarmentzen ziren jokoak, espekulazioa, arriskua eta berrikuntza. Modu orokorrago batean zurriz zenean, abentura kapitalista liberazioaren sinonimotzat aurkezten zen, batik bat liberazio espaziala edo geografikoa. Orokortasunari mesede egiten ziola argumentatzeko garapena, etorkizuna, zientzia, teknika edo industriaren abantailak erabili ohi ziren. Beraz, sakrifizioak utilitarismo arrunt honetan oinarritzen ziren ideologikoki. Garai hartakoak dira burgesiaren aurkako hipokresia salaketak ere. Geroago eraikiko zen kapitalismo eredu, berriz, zuzendariaren (soldatepeko burua) eta koadroen inguruan antolatzen da eta enpresa handiak dituzte oinarri. 1930 eta 1960ko hamarkadetan, enpresario indibiduala baino erakundea nabarmenduko du kapitalismoaren izpirituak, zuzendaria delarik heroien eredu. Erraldotasunarekiko lilura sutua izango da. Epe luzerako arrazionaltasunarekiko eta planifikazioarekiko fedea bermatuko du segurtasun sentazioa. Zuzendarien zeregina erakunde erraldoiak luzarora begira bideratzea da. Klase gatazkaren adierazpen ugari baretu egingo dira eta justizia sozialaren izpirituak eragina izango du kapitalismo berri honetan.

Soldata altu eta egonkorrak eredu izan ziren garaian komunisten mehatxuari aurre egitea izan zen helburua, artean zabalkude kolonialak bere horretan jarraitu zutelarik, Hardt eta Negri-ren<sup>687</sup> arabera.

Kapitalismoak berez ez du bere baitan inoren konpromisoa sustatzeko arrazoirik, ez kapitalistena ezta langileena ere, Boltanskik eta Chiapellok diotenez. Kapitalismoari berez ez zaizkio justiziarik dagozkion argumentuak axola. Izan ere kapitalismoa bere forma abstraktuenean eremu moraletik erabat aparte dago. Bere helburua bere baitan aurkitzen du kapitalismoak: kapitala pilatzea. Ez du inoren interesa aldarrikatzen. Baina eragiteko daukan gaitasun ikaragarria mantendu nahi badu, kapitalismoak ezinbestean mailegatu behar ditu bere baitan aurkitu ezin ditzakeen baliabideak: garai bakoitzean nagusitzen diren sinesmenak kontuan hartu (baita bere aurka egiten dutenak ere) eta moldatu egiten ditu, bere pertsuasio ahalmena handitzearen. Kapitalismoak bere etsaien laguntza behar du euskarri moralak identifikatu eta bere dinamikan txertatzeko. Prozesu kapitalista iraunarazteko bereganatzen ditu besteen baliabide moralak (kritika helburu erreformistarekin nahiz iraultzailearekin egin) baina beti ere besteen ekarpenak bere galbahetik igaroarazi eta bere interesetara moldatuz. Kapitalismoak berari egiten zaion kritikan aurkitu du iraunarazteko gakoetako bat.

Hardt eta Negri-ren<sup>688</sup> arabera, kapitalismoak izaera parasitarioa du baina ez bakarrik besteen ahaleginaren emaitzak ustiatzen dituelako, baita besteen arabera eraldatzen delako ere. Besteen mugimenduak, kritikak eta borroak dira kapitalismoaren garapenaren motorra. Kapitalismoaren formen historia ezinbestean da historia erreaktiboa. Proletargoa deitzen duten multzoak eraikitzen ditu forma sozial eta produktiboak eta etorkizunean kapitalak bereganatu egin beharko ditu. Hardt eta Negri *gobernalu imperiala* deitzen dutena oskol hutsa da, parasito bat balitz bezala.

<sup>687</sup> Hardt & Negri, 2002, 226 or.

<sup>688</sup> Hardt & Negri: 2002, 220, 250 eta 328-329 or.

Ordena mehatxatzen dutenen aurka burutzen dituen berezko ekimenak suntsitzaileak dira, koertzitiboak. Beraz, ontologikoki erabat negatiboa eta pasiboa da. Jendearen, *multitude* delakoaren mugimenduei etengabe egiten die eraso baina, hala ere, ezin dute jendearen produktibitatea behar baino gehiago murriztu, harekiko menpekotasuna baitute. Bere bizitasuna jendeak, *multitude* deitzen dutenak, daukan gaitasunetik lortzen du, hauek baitira energiaren iturriak eta balioaren sortzaileak. Parasitoak bere ostalariaren indarrak ahultzen ditu. Parasitoaren jokabidea ezinbestean bere dekadentziari lotuta dago, Hardt eta Negriren arabera.

Kapitalismoaren izpirituak bere burua justifikatzeko beharrari erantzuten dio, Boltanskik eta Chiapellok<sup>689</sup> diotenez. Batik bat kritika antikapitalistari aurre egitea du helburu. Kapitalismoaren izpiritua ez da arima gehigarria, ez da azaleko gainegitura. Prozesu kapitalistaren erdiguneetako bat da eta haren zerbitzura dago. Baina kapitalismoaren izpirituak kapitalismoa justifikatzeaz gain, kapitalismoari kritika egiteko oinarri bat ere bada, zeren antolaketa sozialaren irizpide arautuen eta kapitala pilatzeko era errealean arteko aldea salatzeke euskarria izan baitaiteke.

Beraz, kapitalismoak bi zeregin lehenesten ditu: batetik, kapitala pilatzea du helburu eta, bestetik, bere iraupenaren legitimazio printzipioak eraiki behar ditu.<sup>690</sup> Aldiz, Bourdieuren ikuspegia baliatuz esan genezake kapitalismoak kapitala metatzea duela helburu, baina ez soilik kapital ekonomikoa baizik eta baita sinbolikoa, soziala eta kulturala ere, azken hauek ere funtsezkoak baitira kapitalismoaren iraupena bermatzeko.

## 4.2 Kapitalismoaren aurkako kritika

Gogora dezagun lehen egin dugun galdera: kapitalismoak zein erronkari egin behar izan zion aurre neoliberalismoaren oldarraldiaren bitartez? Garai hartan zein zen kapitalaren aurkaria? Erantzun orokorra argia da: kapitalismoaren aurkako kritika izan zen kapitalaren etsai nagusia, Boltanskik eta Chiapellok diotenez. Orain kritika hori aztertzen ahaleginduko gara. Halaber, kritikari aurre egiteko garai hartan kapitalak erabili zituen estrategiak analizatuko ditugu. Hau guztia egiteko Boltanski eta Chiapelloren ekarpenean oinarrituko gara batik bat.<sup>691</sup>

### 4.2.1 Oinarrizko ezaugarriak

Kapitalismoari egiten zaion kritika gai izan liteke kapitalismoaren izpiritua deslegitimatzeke eta bere eraginkortasuna desagerrarazteke. Halaber, kritikak prozesu kapitalistari kontra egiten dionean, behartu egiten ditu kapitalismoaren bozeramaileak ondorengo ideia nabarmentzera: kapitalismoa zenbait lagunentzat ez ezik gizartearentzat orokorrean ere mesedegarria da. Kapitalismoak kritikari erantzuten dionean, bere burua horretara behartuta ikusten duelako, kritikak nabarmentzen dituen puntuei buruz hitz egin behar izaten du neurri batean, bestela berarentzat lan egiten duen jendetzaren atxikipena galtzeko arriskua baitauka, jendeak kritikari jaramon egin baitiezaioke. Kapitalismoak erantzuten duenean, bere baitan hartzen ditu bere aurka

<sup>689</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 68 or.

<sup>690</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 98 or.

<sup>691</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 71-92 or.

kritika egiteko erabili diren hainbat balio, bere buruaren justifikazioa indartzeko. Baina kapitalismoak beste era batera ere joka dezake kritikaren aurrean: kritikak leporatzen dizkion salaketei aurre egin beharrean, kapitalismoak nahasmena eragin dezake etekinak lortzeko moduak eraldatuz eta dinamika berriak ulertzeko zailtasunak sortuz. Horrela kritika armarik gabe utz dezake eta bide batez ihes egin diezaioke justizia sozialaren eskaerei, eta prozesu horretan gai izan daiteke kapitalismoaren izpiritu berri bat eraikitzeko, bere menpekoen konpromisoa modu eraginkorragoan bermatu ahal izateko.

Kritika akituta dagoenean, garaitzen dutenean edo bere erasorako gaitasuna galtzen duenean, kapitalari aukera ematen dio justiziarako dispositiboak ahultzeko eta ekoizpen prozesuak nahieran moldatzeko. Aitzitik, erasorako gaitasuna eta sinesgarritasuna irabazten dituen kritikak behartu egiten du kapitalismoa justiziarako dispositiboak indartzera, bestela kapitalismoren izpirituak legitimotasuna eta ondorioz eraginkortasuna galduko bailuke.

Edonola ere, honek guztiak ez du esan nahi kapitalismoaren dinamikak soilik kritikaren arabera moldatzen direnik. Lehiakide kapitalisten eragina ere kontuan hartzeko modukoa da. Lehiakide kapitalistek egiten dituzten mugimenduen arabera, baldin eta hobeak bezala hautematen diren eskaintzak sortzen baditu, kontsumitzaileak uko egin diezaioke hainbat produktu eta zerbitzu erosteari eta langile potentzialak uko egin diezaioke kontratatua izateari edo utzi egin dezake enplegua baldintza hobeagotan eskaini dioten beste baten truke. Kapitalisten artean sor daitekeen lehiakortasunak behartu egiten ditu kapitalistak beren lehiakideen aurrean abantailazko posizioak bilatzera.

#### **4.2.2 Kritika motak**

Kapitalismoaren aurkako kritika kapitalismoa bera bezain zaharra da. Kritikaren adierazpenak lau multzotan sailkatu dituzte Boltanskik eta Chiapellok::

- a) Kapitalismoari benetakotasun falta leporatzen diote. Berari lotuta dauden objektuen, pertsonen, sentimenduen eta oro har bizimoduaren faltsutasuna salatzen dute.
- b) Kapitalismoa zapalkuntzaren iturria dela aldarrikatzen dute, bere menpean dauden gizakien askatasuna, autonomia eta sormena eragozten duelako: batetik, merkatuaren dominazioak indar inpersonala den heinean ezartzen ditu salneurriak, erabakitzen du zeintzuk diren emakume eta gizon nahiz produktu eta zerbitzu egokiak eta baztertu egiten ditu gainerakoak, eta bestetik, soldatapekoen menekotasun baldintzen bidez ezartzen dira enpresaren diziplina, nagusien jagoletza estua eta arau nahiz prozedura zorrotzak.
- c) Kapitalismoak inoiz ez bezalako miseria eta ezberdintasun soziala eragitea salatzen dute.
- d) Kapitalismoari norberekoikeria eta oportunismoa sustatzea leporatzen diote. Interes partikularrei mesede egiten dienez, urratu egiten ditu harreman eta elkartasun sozialak, batik bat dirudunen eta txiroen arteko elkartasuna.

Kritika hauek guztiak laburbilduz, Boltanskik eta Chiapellok bi kritika mota bereizten dituzte: kritika artista eta kritika soziala. Lehenengoaren aitzindariak bizimodu bohemioren asmatzaileak

dira. Kritika artistak batez ere goian aipatu ditugun aurreneko bi kritikak erabiltzen ditu: batetik, kapitalismoaren benetakotasun falta eta lilura sortzeko gaitasun eza eta, bestetik, kapitalismoaren nagusitasunari lotutako burgesiak eragindako zapalkuntza. Aldiz, kritika sozialaren aitzindariak sozialistak eta geroago marxistak dira. Kritika sozialak goian aipatu ditugun azken bi kritikak nabarmentzen dituzte: gizarte burgesean interes partikularren norberekoikeria eta inoiz baino dirudunagoa den gizarte batean herritar ugariaren miseria handitzea, azken fenomeno hau azaltzeko ustiapenaren teoria erabiltzen delarik.

#### 4.2.3 1968ko maiatza, mitoa baino askoz gehiago

Klein-en<sup>692</sup> arabera, ekonomia abiadura egokian hazten ari zen Bigarren Mundu Gerraren osteko hamarkadetan, aberastasun handia ekoitzi zen, baina jabeek eta akziodunek aberastasunaren zati handi bat banatu egin behar izaten zuten ordaindutako zergen eta soldaten bitartez. Estatu keynesiarraren *laissez-faire* delakoaren aurkako politika garesti ateratzen ari zitzaion sektore pribatuari. Klein-en arabera, Chicagoko Eskolaren etsai nagusia keynesianismoa zen.

Harvey-k<sup>693</sup> neoliberalismoa analizatzean dio neoliberalismoak etengabe hitz egin duela estatu eskuhartzailearen aurka, keynesianismoaren aurka, baina azken batean neoliberalismoa hastapenetatik izan dela klase boterea berreskuratzeko egitasmoa. Kapitalaren metatze prozesua berrabiaraztea eta ekoizpenaren gaineko kontrola berreskuratzea zuten helburu eta horretarako ideien borroka funtsezkoa zen baina legitimazio sistema besterik ez zen, azken xedea elite ekonomikoen boterea berreskuratzea baitzen.

Hardt eta Negri<sup>694</sup> ere ez datoz bat Klein-ekin. Kontraerasoaren jomuga ez zen keynesianismoa, baizik eta jendearen (*multitude* delakoaren) gehiengoak abiarazi zuen mugimendu kritiko boteretsua. Hardt eta Negri *internazionalismo proletarioa* deitzen diote. Mugimendu honen gora-behera ziklikoak aztertuz, Hardt eta Negri intentsitate handiko hainbat une nabarmentzen dituzte. Lehenengo olatua 1848 urtearen ondoren Lehenengo Internazionalaren hedapen politikoa dela deritzote. Ondoren, 1880 eta 1890eko hamarkadetan intentsitatea handitu zuen erakunde politiko sozialistak eta sindikatuak sortuz. Gero gora egin zuen 1905 urteko errusiar iraultzarekin eta borroka antiinperialisten lehenengo zikloarekin. Bigarren olatua 1917 urteko sobietar iraultzaren ondoren hasi zen. Nazioarteko borroken hazkundeak jarraitu zion eta soilik faxismoek geldiarazi eta New Deal-ak eta fronte antifaxistek integratu ahal izan zuten. Azken olatua Txinako iraultzarekin abiatu zen. Afrika eta Amerika Latinako borroketan zehar hedatu zen harik eta mundu osoan 1960ko hamarkadan lehertu zen arte. Hamarkada honetan ekoizpen kapitalistaren nazioarteko sistema krisian zegoen eta krisi hau ez zen kapitalak berezkoa duen krisi dinamikoetako bat gehiago. Aitzitik, Hardt eta Negri proletargoa (zentzu berria emanez) deitzen duten multzoaren aurkako gatazkaren ondorio zen batik bat. Kapitalismoaren herrialde nagusienetan langileek gogor egin zuten kapitalismoaren lan erregimen diziplinen aurka. Honen eraginez kolokan zeuden talde sozialen arteko banaketa, lan merkatuaren orduko dinamika eta merkatuaren hierarkiak. Langileek aurka egin zieten lan sozialaren antolaketa koertzitiboari eta

---

<sup>692</sup> Klein, 2007, 87 or.

<sup>693</sup> Harvey, 2005, 2-7 or.

<sup>694</sup> Hardt & Negri, 2002, 62 eta 244-248 or.

aginte egitura diziplinatzaileei. Kapitalismoaren herrialde subordinatuetan nekazarien eta proletarien mugimenduak behartu egin zuen tokiko eta nazioarteko erregimen politikoen erreforma. Nazioarteko lanaren banaketak ezartzen zituen langileen hierarkiak gaindituz, kapitalismoaren aurkako mugimenduek antzeko norabidea eta intentsitate hazkorra izan zuten. Hogeita hamar urtez indarrean egon zen orden ekonomikoa hondoratzeko hasi zen. Azkenik, mekanismo keynesiarrak eta Bretton Woods-en ezarritako parametroak ere krisian sartu ziren. 1970eko hamarkadan krisia ofizial eta estruktural bihurtu zen. Negri-ren<sup>695</sup> arabera, ziklo hauetan guztietan 1968 urtean izan zen mugarri: dinamika batzuen helmuga eta beste batzuen abiapuntu bihurtu zen.

Boltanski eta Chiapello<sup>696</sup> ere ez ez datoz bat Klein-ekin. Estatu keynesiarrak beste zerbaiti eman zion erantzuna, hain zuzen prozesu kapitalistari traba eta kontra egiten zion mugimendu kritiko indartsuari. Aguilar eta beste zenbait ikertzailek diotenez<sup>697</sup> ere, uhin neoliberalaren jatorria 1968-1975 urte arteko egoeraren aurkako erantzuna da, ordura arteko kapitalismo eredia mehatxatuta ikusi zuten-eta. Navarro-ren<sup>698</sup> arabera, langileek eta nekazariak bereziki Bigarren Mundu Gerraren eta 1970eko hamarkadaren erdialdera artean erdietsi zituzten lorpenei erantzuna izan zen neoliberalismoa.

Nolanahi ere, Moreno-ren<sup>699</sup> arabera, 1968ko maiatzan islatzen da langileek ez dutela hainbesteko garrantziarik aldaketa sozialeko prozesuetan. Morenok dioenez, langileak berandu eta modu periferiko eta marginalean lotzen zaizkio ikasleen eta intelektuaren mugimenduari eta, gainera, PCF eta CGT-k trabatutako egiten dituzte protestak, hegemonia galtzearen beldur direlako. Langile gutxiak egiten dute bat ikasleekin, Morenok dioenez. PCF eta CGT-k bide erreformista hartzen dute eta De Gaulle-rekin lan baldintzen eta soldaten hobetzeko adostasunera iristen dira.

Morenok esaten duenaren sintoma ikus daiteke, esate baterako, Negri<sup>700</sup> aldaketa sozialaren motor bezala proposatzen duen kontzeptuan: *multitude*, jendea, ez baita langileek (zentzu tradizionalan) osatzen duten taldea baizik eta subjektibitate anitzez osatutako multzoa, singularitasun anitzek artikulatzen dutena, eta, jakina, subjektu horietako asko langileak dira baina beste asko ez. Hardt eta Negri-k<sup>701</sup> diotenez, tradizionalki langile klase bezala definitu dena oso garrantzitsua da baina ez dute eta ez luke izan behar inolako pribilejiorik Hardt eta Negri *multitude* deitzen duten horren baitan. Horrexegatik *multitude* kontzeptua irekia eta hedakorra da, kapitalaren dominaziopean dauden guztiak hartzen ditu bere baitan.

Edonola ere, 1960 eta 1970eko mugimendu kritiko indartsuetan langileek izan zuten funtsezko rola hainbat ikertzailek lanetan islatzen da. Esate baterako, Coriat-ek<sup>702</sup> langileen bultzada nabarmentzen du garai hau aztertzean. Lanaren antolakuntza *zientifikoa* jarri zuten mugimendu kritikoaren jomugan. Ekimen honi gehitu zitzaizkion bestelako hainbat fenomeno sozioekonomiko eta guztien artean eragin zuten legitimotasun krisia eta eraginkortasun krisia.

<sup>695</sup> Negri, 2004, 53 or.

<sup>696</sup> Boltanski & Chiapello, 2002.

<sup>697</sup> Aguilar & Navarro & Oliveres & Pastor & Zeller, 2008, 17 or.

<sup>698</sup> Navarro, 2008, 78 or.

<sup>699</sup> Moreno, 2003, 145 or.

<sup>700</sup> Negri, 2004, 118 or.

<sup>701</sup> Hardt & Negri, 2004, 135 or.

<sup>702</sup> Coriat, 2001, 121-124, 132-133 eta 146 or.



Coriat-en iritziz, 1968 baino 1971 urtea izan zen langile borroken inflexio puntua. Enplegu industrialarekiko higuina ez zen bakarrik lanaren izaera errepikakor eta zatikatuaren aurkako ezinikusia. Aldi berean kapitalaren estrategia sozialarekiko higuina da. Coriaten arabera, kapitalaren metaketak 1960ko hamarkadatik aurrera izan zituen zailtasunak ulertzeko gakoetako bat lanaren produktibitate soziala eskuratzea bermatzeko ezintasuna izan zen. Metodo tayloriarrek eta fordierrek eraginkortasuna galtzeari zor zaio hori. Ordezkorik ere ez zieten aurkitu.

Boltanski eta Chiapellok ere protagonismo oso handia aitortzen diete langileei 1960 eta 1970eko hamarkadetakoa mugimendu kritikoa. Ikur bihurtu den 1968ko mugimendu kritikoa, adibidez, marxismoarentzat aldaketa sozialaren motorra izan zen langile jendea ere izan zen protagonista, ez ziren bazterrerak gelditu. Hori bai, ez ziren protagonista bakarrak izan. Mugimendu iraultzaileetan kritika artista eta kritika soziala elkartu egiten dira maiz, Boltanski eta Chiapelloren arabera<sup>703</sup>, eta horixe gertatu zen 1968ko maiatza ikur bihurtu zuen garaian: garai honetako mugimendu kritikoa izaera bikoitz hori izan zuen, kritika sozialaren eta kritika artistaren sinergiak uztartu egin baitziren. Horri lagundu zion aldi berean ikasleen eta langileen matxinada izateak. 1960ko hamarkadan ekoizpen sistemaren berregituraketaren ondorioz langileen oro har baina batez ere sektore tradizionalak (meatzaritza, ontzigintza, siderurgia) soldatapekoen baldintzak kaskartu egin ziren. Hazkundearen etekinetatik baztertuta zeuden eta, gainera, orduan zeukatena ere mehatxupean ikusten zuten. Monopolioen boterea eta oligarkiaren *berekoikeria* salatuko dituzte, “garapenaren fruituak bereganatzen dituztelako”<sup>704</sup>. Bestalde, ikasleen eta unibertsitateetatik nahiz lanbide eskola handietatik irten berriak diren soldatapeko gazteen kopurua nabarmen handitu da hamarkada batean. Unibertsitatean dabilzan ikasleen kopurua ia boskoiztu egin zen 1946 urtean 123.313 izatetik 1971 urtean 596.141 izatera. Aldi berean beren lan baldintzak kaskartzen ikusi dituzte eta gero eta zailagoa dute enplegu autonomo eta sortzaileetan aritzea. Testuinguru honetan garatuko da alienazioa, bestelakotzea, berreskuratuko duen kritika indartsua, kritika artista, ordurako AEBetako mugimendu hippyan presente zegoena. Balio nagusiekiko atxikipenik eza, benetakotasun falta, eguneroko bizitzaren miseria, teknifikazioa eta teknokraziak eragin duten deshumanizazioa eta gisakoak salatuko dituzte batetik, eta bestetik autonomiaren galera, sormenik eza eta mundu modernoaren errepresio mota ezberdinak izango dira beren aldarrietan nagusi, baina Marx, Freud eta Nietzscheren hizkeren galbahetik igaroraziz.

Bi kritiken arteko tentsioak ez ziren nabarmenegiak izan. 1970eko enpresen testuinguruan bi kritiken eskaerak uztartu egiten dira mugimendu horretan: kritika sozialak segurtasuna eta kritika artistak autonomia eskatzen dituzte. Bi kritikek salatzen dituzte boterearen banaketa (epaitzeko boterea batik bat) eta merkatuen gorabehera lotutako ziurgabetasun biografikoen banaketa. Autonomia eta segurtasun eskaerak hastapenetan iturri ezberdinak dauzkate baina 1968ko mugimendua biziagotu ahala aktore berberak aldarrikatuko dituzte biak.

1968ko maiatza mundu mailako mugimendu kritikoa baten adierazpen oso indartsu eta eraginkorra izan zen. 1960 eta 1970eko hamarkadetan garatu ziren mundu osoan zehar hamaika nazio askapenerako mugimendu, eskubide zibilen aldeko mugimendu eta langileen mobilizazio, besteak beste. Marazziren<sup>705</sup> arabera, militantismoaren intentsitateak ez zuen miseria islatzen

<sup>703</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 244 or.

<sup>704</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 244-250 or.

<sup>705</sup> Marazzi, 2003, 84 or.

baizik eta jendearen errealitatearen eta espektatiben artean zegoen aldea. Bourdieu<sup>706</sup> ere iritzi berekoa da: jendeak gehiago espero zuen, oraindik ez zuen lortu, baina erdietsi zezakeela uste zuelako sortu zen protesta soziala.

Testuinguru horretan 1968ko maiatzak goia jo zuen. Bere eragina hilabete bakarreko mobilizazioak baino askoz handiagoa izan zen. Esate baterako, 1971 urteko maiatzan, OCDEk sustatuta, Europa mendebaldeko, AEBetako eta Japoniako hainbat aditu eta ugazaba elkartetako ordezkari elkartu ziren eta bertan R.W. Revans hizlari belgiarrak bozeramaile lanak egin zituen.<sup>707</sup>

“Ekonomia industrialak iraultza bat jasaten ari dira. Kultur muga guztiak gainditzen ditu. OCDEko herrialde guztietan aldi berean agertu zen eta ez die soilik langileei eragiten, koadroen ikuspegi eta jokaerei ere eragiten die. Iraultza hau batik bat autoritatearen aurkako desafio bezala azaleratzen da. Presente dago baita etika protestanteak arrakasta moral eta materiala izan zuen herrialdeetan ere, Alemania, Herbehereak, Erresuma Batua, AEBak, non zenbait gaztek fabriketako lana baino txirotasuna ere nahiagoa baituten. Kapitalismoaren krisia bereziki larria da Frantzia industrialean, etengabe eztabaidatzen ari baita klase, hierarkia, autoritate eta araudi gabeko gizartea eraikitzeaz, eta Italian, non industria arloko gatazkak eta ondoeza soziala uztartu egiten baitiren eta lan lekuetan garapen teknikoari dagokion edozein huskeriak kausarekiko proportzio gabeak diren bortxazko gatazkak eragiten baitituzten. Herrialde hauetan, baina baita Alemanian ere, ezarritako autoritatea larriki erasotu dute, modu antolatuan eta deliberatuan, batzuetan bortxa fisiko esplizitura iritsiz.”

Harvey-k<sup>708</sup> kontatzen duenez, Richard Nixon-ek AEBetako Epaitegi Goreneko kide bihurtu baino lehenxeago Lewis Powell-ek krisiaren larritasunaz argi hitz egin zuen Merkataritza Ganberan 1971 urteko abuztuan. AEBetako *enpresa libreen sistema* deitzen zuenarekiko kritika eta oposizioa urrunegi joanak zirela argudiatu zuen eta bazela garaia negozioren munduak sendoago ekin zezan negozioren mundua bera suntsitu nahi zutenen aurka, banakako ekimenak ez zirela nahikoa eta epe luzerako ondo pentsatutako eta finantzatutako estrategia bateratuak egin behar zirela maila nazionalen, AEBetako negozioren munduak nahikoa baliabide zeuzkalako erakunde garrantzitsuenak (unibertsitateak, eskola profesionalak, hedabideak, publizitatea, epaitegiak) konkistatzeko.

Harvey-ren<sup>709</sup> arabera, AEBetan Bigarren Mundu Gerraren aurretik errenta handiena zuen %1ak aberastasun nazionalaren %16 eskuratzen zuen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren %8 baino gutxiago jaso zuen ia hiru hamarkadaz eta hazkunde ekonomikoak iraun zuen bitartean ez zuten horrekin arazo berezirik sortu. Hazkundearen krisiarekin, ordea, interes tasa errealak negatiboak bihurtu ziren eta etekinak, berriz, askoz txikiagoak. Kapitalaren metatze dinamika trabatu egin zen. Goi klaseak mehatxatuta sentitu ziren benetan. Desagertzeko bidean zihoazela sentitu zuten.

---

<sup>706</sup> Bourdieu, 1999b.

<sup>707</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 249-250 or.

<sup>708</sup> Harvey, 2005, 43 or.

<sup>709</sup> Harvey, 2005, 2-7 or.

17. Grafikoa: AEBetako %1 dirudunenaren irabazien bilakaera 1922-1998 (BPGarekiko ehunekoa)



Iturria: Harvey, David: *A Brief History of Neoliberalism*, 16. Or.

Catalan-en<sup>710</sup> arabera, Espainiakoa estatuan 1970eko hamarkadan diktadura faxista ahuldu zenean, aldarrikapenen leherketak eragin handia izango zuen etekin tasan eta bide batez hazkunde eredu globalean. 1960ko hamarkadan soldata errealak azkarrago hazi ziren, enpleguen eskaintza gero eta handiagoa eta lan indar exzedentearen kopurua gero eta txikiagoa zelako eta egoera honek ahalbidetu zuelako borroka sindikalaren forma berriak garatzea. Albarracín-en<sup>711</sup> arabera, krisi ekonomikoa hasi zen arte, soldatak salneurrien gaintetik hazi ziren eta bien arteko aldea nabarmena izan zen. Ekonomiaren zabalkundeak ez ezik langile mugimenduen gaitasun hazkorrak ere eragin zuen fenomeno hau. Soldatak produktibitatearen gaintetik hazi zirenez, langileek BPGaren partaidetzan zati handiagoa izango zuten eta ondorioz kapitalaren etekinaren portzentajea murriztu egin zen. Baina 1970eko hamarkadan zehar ere langileen mugimendua oso indartsua izan zen: 1976 urteko urtarriletik 1977 urteko ekainaren 15ean hauteskundeak egin zituzten arte, urte eta erdiz alegia, 7.514.000 langilek parte hartu zuten grebetan, garai hartako soldatapekoen %88a litzatekeen kopurua hain zuzen, eta 1977 urtean Moncloako Hitzarmenak sinatu ondoren, 1978 urtean soldatapekoen %46ak parte hartu zuen gatazka kolektiboetan, 5.713.000 langilek hain zuzen, langile bakoitzeko 3,3 greba egun eginez, 1977 urtekoa baino kopuru txikiagoa baina gaur egunera arteko urteak baino handiagoa. Herrero-k<sup>712</sup> berretsi egiten ditu azalpen hauek: soldatek errenta globalaren zati gero eta handiagoa zuten eta soldata arloko ezberdintasunak murriztu egin ziren.

<sup>710</sup> Catalan, Jordi in Etxezarreta, 1991, 108-109 or.

<sup>711</sup> Albarracín, Jesús in Etxezarreta, 1991, 334, 401 eta 424 or.

<sup>712</sup> Herrero, Jose Luis in Etxezarreta, 1991, 373-375 or.

18. Grafikoa: AEBetako, Erresuma Batuko eta Frantziako %0,1 dirudunenaren irabazien bilakaera 1913-1998 (BPGarekiko ehuneko)



Iturria: Harvey, David: *A Brief History of Neoliberalism*, 16. Or.

Roca Jusmet-en<sup>713</sup> arabera, 1970eko hamarkadan zehar 1977 urte amaierako soldata doikuntzara arte enpresen eta kapitalaren errentetatik langileen soldatetaranzko berbanaketa gertatu zen neurri batean baina analista gehienek aipatu dutena baino apalagoa. Gainera, berbanaketa hau hein batean azal daiteke lan kostuetan zergek eta kotizazioek izan zuten pisu hazkorrean oinarrituz. Soldata monetarioen hazkunde handiaren zati handi bat produktibitatearen eta salneurrien gorakadak irentsi zuten eta kapitalaren errentagarritasunari ez zioten hainbeste eragin. 1977 urtetik aurrera kontrako alderantz egin zuen banaketaren norabideak, soldaten partaidetza txikitu egin baitzen errenta orokorrari dagokionez.

Kapitalismoaren krisia sakona zen, Boltanski eta Chiapelloren arabera<sup>714</sup>. Hiru talde motari lotutako hiru aldarrikapen mota uztartu ziren: gazteek lanari uko egitea, kualifikazio txikiko langileen grebak eta bestelako protestak egitea, eta hainbat langilek, batik bat koadroetakoek, lanerako autonomia gehiago eskatzea, enpresaren kontrolean partaidetza handiagoa izateko edo zenbaitetan baita autogestiorako ere. Giro honetan ohikoak ziren langileen grebak, pikete gogorak, bortxa fisikoa eta hitzezko bortxa ugazaben eta koadroen aurka, okupazioak, bahiketak, poliziaren aurkako oldarraldiak. Legez kanpoko baliabideak erabili ziren egin zituzten greben erdian. Halaber, langileen herenak legez kanpoko ekintzak egingo ditu.

Erresistentzia forma ezberdinen hedapenak eragin zuzena du ekoizpen kostuetan. Krisiak adierazpen modu ugari ditu: absentismoa, funtzionamendua trabatzen duen enplegatuen errotazio maila enpresa askotan, lanari uko egiteko joera handia, langileen interes faltak eragindako ekoizpenaren eta zerbitzuaren kalitatearen galera eta ekoizpenaren epe atzerapenak eta beste

<sup>713</sup> Roca Jusmet, Jordi in Etxezarreta, 1991, 595-645 or.

<sup>714</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 250 or.

hainbat. Enpresek beren kostuetan barne hartu beharko dituzte lanaren kalitate eskasak, materialaren eta denboraren galerak, dinamikaren moteltzeak, sabotajeek eta bestelakoek eragiten dituzten kalteak. Soldatapekoen erresistentzia pasiboak eragin oso handia du ekoizpenaren emaitzetan. Langileek kontra egiten diote kronometrajeari, uko egiten diete arauak ez hausteko talde barruan egiten diren presioei, koordinatu egiten dituzte lanaren abiaduraren moteltzeak, uko egiten diote lana egiteko ohiko prozedurei. 1970eko hamarkadan lanaren arloko anabasa errealtate argia da. Autoritate krisiak, hierarkien ahuleziak eta bulegoen eta atelierren arteko tentsio handiak gobernaezin bihurtu dituzte hainbat lantegi, eta ekoizpen unitate handiak gelditzeko arriskuan daude.

Coriat-ek<sup>715</sup> ere eraso molde ezberdinak nabarmentzen ditu: agerikoak ziren gatazkekin batera, langileen erresistentzia gauzatzeko forma berri ugari zabaltzen dira eraginkortasun handiz, egunerokotasunean eta maiztasunez egin daitezkeenak, eta hauen ondorioz asko higitzen dira lanaren antolakuntza *zientifikoa* eta ekoizpen katea, hauen eraginkortasuna nabarmen txikituaraziz. Coriat-en arabera absentismoa, enplegatuen errotazioa eta ekoizpenarekiko arreta falta aldi berean eraginkortasun galeraren adierazle eta kausa dira.

Hardt eta Negri-ren<sup>716</sup> arabera, gabeziak amorrua eta gorrotoa sor ditzake, etsaia finkatzen lagundu dezake, baina matxinada soilik aberastasunean oinarritzen da; hots, inteligentzia, esperientzia, ezagutza eta desira exzedenteak bakarrik sor dezake matxinada.

Bauman-en<sup>717</sup> arabera, *garapena* ez da historiaren ezaugarri bat baizik eta orainaldiak bere buruarekiko daukan konfiantza. Bi sinesmen uztartzen dira: “denbora gure alde dago” eta “guk eginarazten ditugu gauzak”.

Albarracín-en<sup>718</sup> arabera, krisiak eta politika ekonomikoak langileen mobilizazioak bultzatu egin zituzten, baina, horrez gain, langabeziarekiko bildurrak ere eragin handia izan zuen: enpleguen galera azkartu zenean, lan arloko gatazkak murriztu egin ziren eta, aitzitik, enpleguen lan baldintzak hobetu ahala handitu egin zen greba kopurua.

### 4.3 Erresistentzia ahultzeko estrategiak

1960ko eta 1970eko hamarkadan zehar kapitalismoak erresistentzia mugimendu handiei egin behar izan zien aurre mundu osoan zehar. Hardt eta Negri-ren<sup>719</sup> arabera, testuinguru horretan kapitalismoak aldaketa nabarmenak bizi izan zituen. Bi bide zeuzkan aukeran eta biak erabili zituen: aukera errepresiboa eta eraldaketa teknologikoa. Aukera errepresiboa prozesu soziala atzeratzeko helburua zuen baina kontrol egitura zaharren bitartez aldi baterako krisiaren indar suntsitzaileak eta langile mugimenduaren determinazioa geldiarazi ahal izan bazituen ere, azken finean aukera errepresiboa erantzun autosuntsitzailea zen. Aldaketa teknologikoaren bitartez (Hardt eta Negri gizartea eraikitzeke teknologia sozialez ari dira) proletargoaren osaera aldarazi

<sup>715</sup> Coriat, 2001, 126 or.

<sup>716</sup> Hardt & Negri, 2004, 249-250 or.

<sup>717</sup> Bauman, 2003a, 141 or.

<sup>718</sup> Albarracín, Jesús in Etxezarreta, 1991, 402-404 or.

<sup>719</sup> Hardt & Negri, 2002, 249-250 or.

nahi izan zuten, hura integratu, dominatu eta bere praktika nahiz forma berriak baliatu ahal izateko.

Boltanski eta Chiapelloren arabera<sup>720</sup>, kapitalismoa bere funtzionamendua eta dispositiboak eguneratzen ahalegindu zen. Batzuetan kritikak leporatzen ziona aditu eta erantzun zuzena eman zion, kritikaren balioa aitortuz. Beste batzuetan kritikak salatzen zuenari ihes egin zion, eraldaketaren bitartez nahasmena eraginez. Kapitalismoaren mugimendu eta aldaketa hauen helburua kritika baretzea, prozesu kapitalistak legitimatzea eta kapitala pilatzen jarraitzea zen. Nekez defenda daiteke kapitalismoak bere xedek erdietsi ez zituenik. Gatazka horien emaitzak islatze aldera, Boltanskik eta Chiapellok Frantziako estatuko bi epealdi aurrez aurre jartzen dituzte: 1968-1978 eta 1985-1995. Lehenengo epealdiko mugimendu sozialak langile klasea ez ezik beste zenbait sektore ere hartu zituen, sindikalismoa oso aktiboa zen, klase sozialekiko erreferentziak etengabeak ziren bai politikarien bai soziologoek diskurtsoetan, intelektualek mundu soziala interpretatzerakoan indar harremanak eta bortxa ikusten zituzten nonahi, balio erantsiaren banaketa soldatapekoen alderantz zihotan eta legediak eskaintzen zuen segurtasuna ere gero eta gehiago zen soldatapekoen mesedetan. Halaber, produktuen kalitatea txikitu egin zen, baita lan prozesuen produktibitatea ere, zeren neurri handi batean ugazabek, zuzendariak eta enpresa kudeatzaileak ezin baitzuten lan indarra kontrolpean mantendu. Aitzitik, bigarren epealdian mugimendu sozialaren adierazpen nagusia giza laguntza formakoa da, sindikalismoa desorientatuta dago eta ekimen eraginkorrak abiarazteko indarra galdu du, klase sozialekiko erreferentziak ia erabat desagertu dira, baita soziologoek diskurtsoetan ere, eta batik bat langile klaseak ez du bere errepresentazio soziala bermatuta, hainbeste ezen analista sozial ospetsu batzuek gai diren barre egin gabe esateko langile klasea dagoeneko ez dela existitzen. Aldi berean soldatapekoen baldintzak prekarizatzen ari dira, errenta arloko ezberdintasunak handitu egin dira, balio erantsiaren banaketa kapitalaren alderantz doa, lan indarra kontrolatzeko gaitasuna ere berreskuratu dute, lan arloko gatazkak eta greben kopurua txikitu egin dira, absentismoa ere txikitu da eta ekoiztiko produktuen kalitatea gorantz doa.

Baina nola gertatu zen aldaketa handi hau?

Aguilar eta beste zenbait ikertzailek diotenez<sup>721</sup>, neoliberalismoa gerra soziala da. Langileak ahuldu nahi ditu teknologia berriak, lanaren antolaketa modu berriak, lan merkatuen segmentazioa eta prekarizazioa baliatuz, sindikatuak zapalduengandik urrunduz eta *malgutasuna* nahiz *lehiakortasuna* bezalako terminoetara hurbilduz. Ereku berriak konkistatu nahi ditu: Txina, bloke sobietar ohia, mota guztietako balibideak, zerbitzu publikoak, oinarrizko aberastasuna publikoak, eta abar. Izan ere, kontraerasoaren helburua kapitala maila globalean malguki metatzea da. Finantzializazioa eta enpresa transnazionalen botere hazkorra da fenomeno honen isla ikusgarrienetakoa, eta horrekin batera militarizazioa eta gerra globala gero eta handiagoa eta eskubideen murrizketa.

Hart-Landsberg-ek<sup>722</sup> dioenez, neoliberalismoa ez da kapitalismoak egin duen aukera txar bat, ez diote uko egin 1960-70eko ereduari besterik gabe, aukera erreal bat borondatez baztertzen den

---

<sup>720</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 241-242 or.

<sup>721</sup> Aguilar & Navarro & Oliveres & Pastor & Zeller, 2008, 17 or.

<sup>722</sup> Hart-Landsberg, 2008.

bezala. Izan ere, neoliberalismoa, prozesu kapitalistak mantentzeko egiturazko erantzun behartua da. Hart-Landsberg-ek dioenez, arazoa ez da neoliberalismoa, kapitalismoa baizik.

Aldaketa handi hauek ez ziren berez gertatu. Historia sozialean ezer ez da naturala. Frédéric H. Fajardie-ren arabera<sup>723</sup>, 68ko maiatzak porrot egitearen arrazoia “espekulatzailak, traidoreak, sozialdemokraziara salto egin zuten guztiak, kazetaritzan eta beste zenbait lanbidetan karrera egin zuten horiek” izan ziren. Ikuspegi honekiko osagarria izan daitekeenarekin Boltanskik eta Chiapellok<sup>724</sup> batez ere kritikari aurre egiteko kapitalaren estrategiak aztertu dituzte.

Kritikaren indarra oso handia bihurtu zenean, ugazaba elkarteek eta gobernua hastapenetan kritika sozialaren terminoetan erantzungo dute. Autonomia eta sormena baztertuz, soldata eta segurtasuna hobetzea eskaini zieten estatu mailako sindikatuei. Baina ugazaben elkarten iritziz estrategia honek koste handiegia ditu eta ez du lortu protestak geldiaraztea eta lantokietan jokabideak kontrolatzea. Beraz, sindikatuen zuzendaritza eta sindikatuen oinarri soziala sintonia berean ez daudela dirudi. Ugazaba elkarteetako alderdi berritzaileenek krisiari beste era batera erantzutea proposatuko dute. Hauen estrategiak kritika artistari erantzun nahi dio. Sindikatuarekin bake soziala hitzartzeari uko egingo diote, hobekuntza sozialak negoziatzeari utzi egingo diote eta lantokietan ekidin egingo dituzte. Estrategia aldaketa honek kritikaren baitan izan ziren aldaketei ere erantzuten die. Izan ere 1960ko hamarkadaren bukaeran eta 1970ekoaren hasieran kritika soziala indartsua da, kritika soziala bigarren mailan utzi du. Baina 1970eko hamarkadaren bigarren zatian kritika artista nabarmen haziko da, artean kritika artista ahuldu egiten delarik. Ugazaba elkarten erantzunak egoera hori baliatzen du. Autonomia eskaeraren balioa aitortu ez ezik dinamika industrialaren ardatz ere bihurtzen du. Autonomiaren aldarria beren galbahetik igaroarazi eta funtsezko zutabe bihurtuko dute bai autonomia eskatu zuten langileentzat (koadroen artean batik bat) bai esplizituki eskatu ez zutenentzat ere. Soldatapekoei segurtasuna eman nahi zieten ekimenen ordez itxura batean hierarkien kontrola arindu eta norbanakoaren potentziala kontuan hartzen dituen neurriak abiarazten dituzte. Kritikaren eskaerak hartu eta beren interesetara egokitu ondoren, ugazaba elkarteek segurtasuna autonomiarekin ordezkatu zuten.

Enpresen kontrola berreskuratzea zen ugazaba elkarten helburu nagusia garai hartan, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>725</sup>. Hori lortu ahal izateko ez zuten hierarkiaren boterea handitu. Ez zioten kritika sozialari erantzuten jarraitu. Horren ordez, lehengo kontrol neurriak baztertu eta berriak sortzera jo zuten. Kritika artistaren aldarrikapenetan oinarritu ziren horretarako. Ez zituzten eskaerak bere horretan hartu. Beren interesetara egokitu zituzten, subertsiboa zena errentagarri bihurtuz. Negri eta Hardt-ek<sup>726</sup> azaltzen duten izaera parasitarioak ahalbidetu ziren eraldaketa hori. Boltanskik eta Chiapellok<sup>727</sup> diotenez, kontrolaren ordez autokontrola sustatzeari ekin zioten, erakundeak zeraman ardura langilearen bizkar utzi nahian. Era berean, maila askotan erakundearen ekoizpena externalizatzearen bitartez, lehen erakundeak bere gain hartzen zuen arriskua gero eta gehiago langileen gain uzten hasi zen. Egitasmo partekatu bezala eraman gabe eta lehengo epeko *konskista sozialak* zuzenean zalantzan jarri gabe, erantzun indartsurik ez

<sup>723</sup> Fajardie, Frédéric H. In *Mugalarri* 486, 2008-08-23, 7 or.

<sup>724</sup> Boltanski & Chiapello, 2008, 257-280 or.

<sup>725</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 281-286 or.

<sup>726</sup> Hardt & Negri, 2002.

<sup>727</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 281-286 or.

eragitearren, bide berriak hartu zituen kapitalismoak krisiaren aurrean. Enpresen kontrola berreskuratzeko hainbat neurri gauzatu zituzten: morfologikoak (deslokalizazioak, azpikontratazioaren garapena, etab.), antolakuntzazkoak (Just In Time, polibalentzia, hierarkien hedapena murriztea) eta juridikoak (kontrataziorako araudi malguagoak soldata arloan, merkataritza zuzenbiak lan zuzenbidearen gain gero eta garrantzi handiagoa izatea). Aldaketa oso sakonak gauzatu ahal izan dituzte aurrez aurreko eztabaidak ekidinez. Balio erantsia kapitalaren jabeen alderantz bideratu zuten berriro eta ekoizpenean ordena ezarri ahal izan zuten.

Hardt eta Negri-ren<sup>728</sup> arabera, egoera sozio-politiko-kultural-ekonomiko berria, pentsalari hauek *imperia* deitzen dutena, garai bateko borrokei eman dioten erantzuna da. Jendeak, *multitude* deitzen duten horrek, abiarazi zuen klase gatazkak botere gune indartsuak sortu zituen eta hain zuzen hori indargabetzeko edo behintzat fagozitzeko ahalegina dela uste dute gaur egungo egoera. Kontraerasoa abiarazi zutenentzat ekimen arrakastatsua dela uste dute Hardt eta Negri-k: modernitatearen dialektikak ez zuen ustiapenaren dialektikaren amaiera ekarri. Aitzitik, banaketa gero eta handiagoa da baliabide handiak kudeatzen dituzten gutxiengoen eta txirotasunean edo ezintasunaren mugan bizi den jendearen artean.

#### 4.4 Kontsumo gizartearen eraikuntza

1960eko eta 1970eko hamarkadetan masifikazioaren aurkako eta aniztasunaren aldeko eskaera gero eta nabarmenagoa zen, Boltanskik eta Chiapellok<sup>729</sup> diotenez. Kapitalismoak endogenizatu egin zuen joera hau. Ordura arte merkataritza eremutik at egon zen errealitate bat kontuan hartu eta ezberdintasuna merkantilizatuz hasi zen eraikitzen gaur egungo kontsumo gizartea, eskaerari erantzuteko eta bide batez kapitalismoa bera legitimatzeko.

Klein<sup>730</sup>-en arabera, Chicagoko Eskolaren erakarpen indar garrantzitsuena agian *askatasun indibidualak* beren diskurtsoan zuen lehentasuna izan zen. Ezkerraren ideiak langileen artean gero eta gehiago hedatzen ari ziren garai hartan, Chicagoko Eskolak jabeen interesak defendatzeko modu bat eskaintzen zuen. Diskurtso idealista eta erradikala zen. Friedman-ek zioenez, berak ez zuen aldarrikatzen lantegien jabeek soldata txikiak ordaintzeko eskubidea baizik eta *demokrazia partehartzailearen* ahalik eta forma garbiena, hain zuzen *nork gebien maite duen gorbataren arabera bozka eman zezakeen* merkatu libre. Ezkertiarrek proposatzen zutena langileak beren ugazabetatik, hiritarrak diktaduratik eta herrialdeak kolonialismotik askatzea zenean, Friedmanek *askatasun indibiduala* proposatzen zuen. Diskurtso honetan hiritar bakoitzak gaina hartzen zion jarduera kolektiboari eta liberatu egiten ziren beren borondatea nahieran adieraz zezaten baina beti ere kontsumitzaile ziren heinean. Marxismoak langileen utopia erabili zuen bezala, Chicagoko Eskolak ekintzaile lehiakorren utopia erradikala aurkeztu zuen perfekziora eta orekara iristeko.

Harvey-ren<sup>731</sup> arabera, norbanakoaren eta justizia sozialaren balioak ez dira derrigorrez konpatibleak. 68ko mugimenduan izan zen tentsiorik bere aldarrietan bata zein bestea nabarmentzen zituztenen artean, baina uztar daitezke eta mugimendu hartan uztartu egin ziren

<sup>728</sup> Hardt & Negri, 2002, 55-56 or.

<sup>729</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 556-557 or.

<sup>730</sup> Klein, 2007, 83 or.

<sup>731</sup> Harvey, 2005, 41-42 eta 47 or.



maiz. Haatik, biak kontrajartzeko ahaleginean arrakasta lor daiteke. Erretorika neoliberalak norbanakoaren askatasuna aldarrikatzean kontrajarri egiten ditu bi mutur balira bezala, batetik, libertarismoa, nortasunaren politika, kultur aniztasuna edo kontsumismo narzisista eta, bestetik, justizia sozialaren ideiak, elkarren artean zerikusirik ez balute bezala. Neoliberalismoak ez ditu bereizketa horiek sortu, ezta urrik eman ere, askoz lehenagokoak baitira, baina ahal bezain beste baliatu ditu bere interesen alde. 68ko mugimenduan ibili ziren gehienentzat estatu eskuhartzailea etsaia zen eta horretan ados egon zitekeen neoliberalismoaren diskurtsoa, baina 68koentzat enpresa kapitalistak, negozioen eremua eta merkatu sistema ere etsai ziren eta ideia hori mehatxu argia zen boteregune kapitalistarentzat. Beraz, norbanakoaren askatasunaren eta estatu eskuhartzailearen aurkako ideia ardatz hartuz, mugimendu haien sinergiak baliatu eta neoliberalismoaren egitasmoa gauzatu egin zitekeen. Neoliberalismoa ondo prestatuta zegoen zeregin ideologiko hori betetzeko.

Neoliberalismoarentzat, Harvey-k dioenez, oso baliagarria bihurtu zen bere estrategia politikoan kontsumitzaile askearen ideia nabarmentzea, ez soilik produktuen kontsumoari dagokionez, baita bizimoduari, adierazpen moduei eta beste hainbat kultur praktikei dagokionez ere. Horrenbestez, neoliberalismoak politikoki eta ekonomikoki behar zuen kontsumismo ezberdintzailea eta norbanakoaren askatasuna (hauen aldaera bat) aldarri izango zituen kultura populista batean oinarritutako merkatu neoliberalak. Hau zen enpresen eta eliteen erronka 1980ko hamarkadaren inguru horretan. Eliteek, ez borroka gutxiren ondorioz, onartu egin behar izan zuten bizimoduen aniztasuneranzko bidea eta kontsumo aukera ezberdinen hazkundera. Bitartean inbertsio bankuek ekonomia berregituratu egin zuten finantza jardueren, zerbitzu juridikoen, hedabideen eta kontsumismo dibertsifikatuaren inguruan.

Juaristiren<sup>732</sup> arabera, Euskal Herriko kontsumo gizartea aztertuz ere ikus daiteke gehiegizko kontsumoaren azpian batik bat enpresa handien ekimena dagoela. Beren interesen aldeko irizpide, ideologia eta arauak sustatzen dituzte, pentsamendu bakarra eta kultur homogeneotasuna nagusitu dadin. Talde ekonomiko boteretsuek elikatzeko, elkarrekin hartu-emanetan sartzeko eta, oro har, bizitzeko modu berberak hedatzen ahalegintzen dira leku guztietan. Ekonomiaren eta, oro har, gizartearen antolaketa eredu honi esker batik bat enpresa handien etekinak hazi egiten dira.

Negri-ren<sup>733</sup> arabera, kontsumo arauak merkatuaren testuinguruan murgilarazten dira. Indibidualismoaren muturreko adierazpena hedatuko da eta ondorioz garapen produktiboa testuinguru berrira egokitzea behartuko dute.

Bauman-ek<sup>734</sup> dioenez, kontsumo gizartea indibidualizazioan oinarritzen da eta indibidualizatzailea da, eta kontsumo gizartea eraikitzeke ezinbestekoa da ekoizpen malgua izenekoa. Bockok-en arabera<sup>735</sup>, kontsumismoa da gaur egungo kapitalismoaren legitimazio indar eraginkorrena. Nazioarteko Ekonomia Testuinguruko Behatokiko zuzendari Vicente Pallardó-k dioenez gaur egun kontsumitzaileak BPGaren %60 dira<sup>736</sup>.

---

<sup>732</sup> Juaristi, 2005, 141 or.

<sup>733</sup> Negri, 2004, 56 or.

<sup>734</sup> Bauman, 2000.

<sup>735</sup> Bockok, 1989.

<sup>736</sup> Consumer Eroski 125. alea, 2008ko urria.

Azken batean ezin da ahaztu kontsumo gizartea produktu sozial bat dela. Klein-ek<sup>737</sup> eraikuntza prozesuari buruzko ikuspegia ematen digu. Klein-ek dioenez, XIX. mendean publizitatearen funtzioa aldatu egin zen: produktuei buruzko informazio buletinak izateari utzi zioten eta marka bakoitzeko produktuei lotutako irudia eraikitzen hasi ziren. Logoei hurbiltasuna eta ospea lortzea zuten helburu, poteratuta zetozen produktuen berrikuntzarekiko mesfidantza baretzeko. 1940ko hamarkadaren amaierarako enpresa handientzat marka jadanik ez da etiketatako irudi hutsa. Markari lotutako nortasuna eraikitzen hasiak dira. Denboraren poderioz enpresa handiek gero eta gehiago barneratuko dute enpresek produktuak ekoizten dituztela baina kontsumitzaileek markak erosten dituztela. Azken hamarkadetan propaganda gastuak salmenta estrategia baino askoz gehiago dira: balioan inbertitzen dute, kontsumitzaileen aurrean markaren balioa handitu dadin. Hainbat publizitate agentzien arabera, produktuen benetako balioari buruz lehiatzea kaltegarria da bai markentzat bai enpresentzat. Gaur egungo kontsumo gizartean gero eta enpresa gehiagoren estrategian marka da benetako ekoizpena. Produktua, berriz, markaren edukia besterik ez da. Starbucks transnasionaleko marketing presidenteorde Scott Bedbury-k<sup>738</sup> publikoki aitortu zuenez, “kontsumitzaileek ez dute uste produktuen artean benetan ezberdintasun handia dagoenik” eta horregatik markak “harreman emozionalak ezarri behar ditu” bere bezeroekin. Klein-en arabera, kontsumogai bezala aurkezten diren produktuek ez dute arrakastarik izango etorkizunean. Arrakastatsuenak kontzeptu bezala aurkezten direnak izango dira: marka bizi esperientzia bezala, bizimodu mota bat bezala, estilo bat bezala. Tibor Kalman<sup>739</sup> diseinatzaile grafiko ospetsuak honela laburbildu zuen marken funtzioak izan duen aldaketa: “lehen uste zuten markaren funtza kalitatea zela, baina gaur egun ausardiaren bereizgarri estilizatua da”. Markekin obsesionatuta dauden erosleek kontsumoarekiko joera ia fetitxista dute, markaren izenak talisman baten boterea balu bezala.

Markak nortasunarekin izan behar du lotura: gaztea, guay, alternatiboa izan daiteke, adibidez, Klein-en arabera<sup>740</sup>. Izan ere, gazteen sektore demografikoaren agerpena izan da merkatuarentzat inoizko aukerarik handienetako bat. Baina ez da gazteen kontua soilik. Bourdieu-k<sup>741</sup> dioenez, espazio sozialeko posizio bakoitzak bere kontsumo irizpideak eraikitzen ditu gainerako posizioekiko bereizgarri bezala. Irizpideak mota askotakoak izan daitezke baina ez dira soilik ekonomikoak. Bourdieuk sakon aztertu zuen 1970eko hamarkadako Frantzian, esate baterako, kapital ekonomikoari eta kulturalari lotutako irizpideak nagusitzen ziren. Norberaren posizio soziala kontsumo ohituretara proiektatzen da baina aldi berean kontsumo irizpideek baldintzatu egiten dute norberaren posizio soziala. Bourdieuk posizio sozialari lotutako kontsumo ohitura bereizgarriak hainbat alorretan aztertu zituen: etxebizitza, kirola, musika, literatura, zinea eta janaria, besteak beste.

Kleinek<sup>742</sup> dioenez, gaur egun marka produktuarekin ez ezik inguruko kulturarekin ere lotzen ahalegintzen da. Adierazpen kulturalak diruz babesten dituenean, adibidez, markaren helburua ez da jendeak fenomeno horrekiko markaren lotura hautematea baizik eta marka izatea erakarpen indar nagusia. Markaren xedea ez da kultura babestea baizik eta kultura izatea. Marka batek

---

<sup>737</sup> Klein, 2005, 31-54 eta 178 or.

<sup>738</sup> Idem, 47 or.

<sup>739</sup> Idem, 51 or.

<sup>740</sup> Idem, 99 eta 156 or.

<sup>741</sup> Bourdieu, 1999b.

<sup>742</sup> Klein, 2005, 57-74 or.

bere hurbileko arerioen aurka lehia izatez gain, bere publizitate inguruarekiko lehia ere badu, baita babesten dituen adierazpen kultural eta artistekiko ere. Esate baterako, Gap enpresa bost urtez marka eta bizimodua sortzen ahalegindu ondoren, artistak bezain beste hasi zen kultura ekoizten.

Negri<sup>743</sup> dioenez, marka gaur egun kapitalaren definizio egokienetako bat bihurtu da. Merkantziaren fetitxe izaera logo bihurtu da. Fetitxismoa, balio hori ekoizti duen lan soziala izkutatzetik sortzen bada, gaur egun mekanismo hau merkantzien ekoizpen eta zirkulazio osora hedatuko da, marka ekoiztetik hasi eta azpikontratazio globaletik eratorritako ustiapenaren esklabotzara arte. Eta, Klein-en<sup>744</sup> iritziz, aldi berean kontsumogaien uholdeak beste egoera paradoxiko bat ere sortzen du: kontsumorako benetako aukerak gero eta txikiagoak dira.

Bauman-en<sup>745</sup> arabera, garai batean txiroa izatea enplegurik ez izatea zen. Gaur egun, ordea, batik bat merkatutik kanpo dagoen kontsumitzailea izatea esan nahi du. Ez dago erabateko aldaketarik, ezin da zuri-beltzean hitz egin, trantsizioari buruz baizik, baina eskematikoki adieraztearren Baumanek dio norbanakoak gero eta gehiago hezitzen direla beren nortasun soziala kontsumoaren bitartez asetzeko. Gizarte guztiek kontsumitu izan dute bizi ahal izateko baina azken hamarkadetan Mendebaldea izeneko eremua ekoizle gizartea izatetik kontsumitzaile izatera pasa da, Baumanen iritziz. Posizio sozial batek eskatzen dituen betebeharrak asetzeko gero eta garrantzitsuagoak dira kontsumo ohiturak, gero eta gutxiago enpleguak. Kontsumogaiak aukeratzeko gaitasuna da estratifikaziorako oinarria kontsumo gizartean. Aukeratzeko gaitasuna handitu ahala, kontsumitzeko mugak hautsi ahala, posizio prestigiotsuagoa egokituko zaio norbanakoari eta autoestima ere handiagoa izango du. Norberaren aberastasuna eta diru sarrera oso garrantzitsuak dira, hauek gabe kontsumo gaitasuna mugatu egiten baita, baina baliabide hauen garrantzia batik bat kontsumoan gauzatzen da. Txiroa izatea ez da soilik erosotasun falta eta sufrimendu fisikoa. Egoera sozial eta psikologikoa ere bada. Dirudunak gurtu egiten dira eta aldi berean sustatu egiten da jende guztia daukanarekin ez asetzea, beti gehiago nahi izatea.

Testuinguru honetan ulertu behar da Juaristik<sup>746</sup> azaltzen duen *kontsumo orekatzailea*: baliabide gutxiko norbanakoak oinarrizko beharrak asetzera beharrean, bere gastuak kontsumogaiak erostera bideratzen duenean, inbertsioa egiten ari da, hobeto sentitzeko, adibidez langile gazte prekarizatu batek zor handitan sartuz kotxe garestia erosten duenean.

Bauman-en<sup>747</sup> arabera, kontsumitzaileak etengabe tentatu behar dira eskaintza berriekin. Dinamika azkarra izan behar da, produktu eta zerbitzu iragankorretan oinarrিতua. Kontsumitzaileek berritasuna etengabe bilatzeko joera izan behar dute. Desioa asetzen eta pizten gauzatzen da kontsumismoa, desioa baretzen eta biziagotzen, Baumanek<sup>748</sup> dioenez, kontsumitzaileak sistematikoki bihurtzen dira sustatzen duten produktuan eta, ondorioz, aldi berean produktuaren sustatzaile lana egiten dute. Kontsumo gizartean norbanakoa ezin da subjektu bihurtu lehenago produktu bihurtzen ez bada, baina subjektu izateko ezinbestekoa da agente aktiboa izatea. Merkatuen neurrira eginak dauden mundu ikuskerek eta jokabideek inbaditu, konkistatu eta

---

<sup>743</sup> Negri, 2004, 211 or.

<sup>744</sup> Klein, 2005, 196-197 or.

<sup>745</sup> Bauman, 2000, 11-12 or.

<sup>746</sup> Juaristi, 2005.

<sup>747</sup> Bauman, 2000.

<sup>748</sup> Bauman, 2003b.

kolonizatu dute giza harremanen sarea. *Orain*-ismoa nagusitzen ari da, bizimodu azaleratua. Kontsumo gizarteak zorientasuna orain eta hemen eskaintzen du, eta ondoren etorriko diren orain eta hemen guztietan. Ez dago orain gerorako ahalegina egin beharrik. Baina ez dago frogarik esateko batez besteko kontsumo maila handitu ahala jendea zorientsuagoa dela. Kontsumitzaileen gizarteak eraginkortasun handiz sortzen ditu gabeziak norbanakoarengan, eta oinarri horretan eraikitzen diren desirak ematen diote auspoa kontsumitzaileen gizarteari. Kontsumitzailearen bizitzak ez du zerikusirik erostearekin eta jabetzarekin, Baumanen iritziz, ezta herenegun erosi eta atzo harro erakutsi zena desagerraraztearekin ere, baizik eta mugimenduan jarraitzearekin. Asetasuna behin-behineko esperientzia besterik ez da izan behar. Etengabe asetuta egotea ez da desiragarria izan behar kontsumitzailearentzat. Asetasuna, geldialdi ekonomikoarekin parekatzen da. Beti beste zerbait desiratu behar da, kontsumitzaileek oraindik eskuratu ez dutena. Zentzu honetan, nortasuna ez da opari bat baizik eta bizitza osoan zehar behartutako lanak egitera derrigortzen duen kondena.

Juaristi-k<sup>749</sup> dioenez, Euskal Herria XX. mendean zehar urritasunaren gizarte izatetik kontsumo gizarte izatera pasa da. Espainiako estatuko ekonomiak 1960ko hamarkadaren erdi aldera ekoizpenean oinarritzen jarraitzen zuen baina berehala hasiko zen salmentetan oinarrituko zen eredu jorratzen. Hala ere, hastapenak besterik ez ziren. Adibidez, familien %13ak baino ez zeukan telebista eta aste osoan zehar telebistan agertzen ziren iragarkien iraupena 27 ordu eta 40 minutukoa zen. 2005 urtean 400 ordutik gorakoa izan zen. Progresiboki kontsumismoa jardera sozial gehienetara zabaldu da. Gerra aurreko eta osteko Euskal Herrian gauzak behin eta berriz erabiltzen ziren harik eta maiz erreziklatu ondoren erabilgarritasuna galtzen zuten arte. Gaur egun, ordea, guztia da iragankorra, presa da nagusi, eta gauzak behin erabili ondoren botatzeko joera gero eta handiagoa da. *Izan* eta *ukan* aditzak nahastu egin ditugu eta erosteko gaitasuna erabiltzen hasi gara gure ingurukoena izaera neurtzeko. Testuinguru honetan zorpetzea gero eta ohikoagoa da gaur egun: 1991 urtean Hego Euskal Herriko familien %44,3ak zituen zorrak, 2005 urtean %80ak. EAEko biztanle bakoitzak batez beste 20.100 eurotako zorra du.

## 4.5 Kritikaren endekatzea

Neoliberalismoaren ekimenak gauzatzen hasi zirenetik nabarmen aldatu zen egoera. Harvey-ren<sup>750</sup> arabera, AEBetan biztanleriaren %1 dirudunenak eskuraten zuen aberastasun nazionalaren zatia %15era igo zen, Bigarren Mundu Gerra aurreko mailetara ia. AEBetako %0,1 dirudunenak 1978 urtean aberastasun nazionalaren %2 poltsikoratu zuen, 1999 urtean %6. Bitartean CEO edo goi kargudunen eta langileen arteko diru irabazi aldea 1970 urtean 30-1 izatetik 2000 urtean 500-1 izatera pasa zen. Erresuma Batuan %1 dirudunenak bere irabaziak bikoiztu egin zituen: 1982 urtean aberastasun nazionalaren %6,5 eskuratzetik 2000 urtean %13 eskuratzera pasa ziren. Irabaziak erdietsi zituzten nonahi eta boterea lehen ez bezala pilatu ahal izan zuten. Fenomeno hau mundu osoan zehar hedatu da. Errusiar oligarkiaren adibidea kasu argia da.

---

<sup>749</sup> Juaristi, 2005, 116 or.

<sup>750</sup> Harvey, 2005, 16-19 or.

Albarracín-en<sup>751</sup> arabera, Espainiako estatuan trantsizio politikoa izan zenetik langile mugimenduaren jarduerak gorabehera handiak izan ditu. Hastapenetan, luzaroan ase gabeko aldarrikapenak eta diktadura faxistaren amaiera medio, lan arloko gatazka oso handia izan zen. Gero hainbat aldaketa objektibo gertatu ziren eta sindikatuek kontzertazio politika egin zuten eta ondorioz mobilizazioak nabarmen murriztu ziren, baina, aldi berean kontraesan berriak sortu zirenez, greba orokor bakan batzuk ere izan ziren. Nolanahi ere, ondoren kontzertazio politika nagusitu da, salbuespenak salbuespen, eta horrek lan arloko gatazka murriztea eragin du. Politika ekonomiko neoliberalak gauzatu ahal izateko ezinbestekoa izan da sindikatuen lankidetzaren edo, gutxienez, haien erresistentzia erlatiboki barea.

1980ko eta 1990eko hamarkadetan zehar sindikatuak ahuldu egin ziren eta kapitalismoaren aurkako kritikak nabarmen galdu zuen indarra, Boltanskik eta Chiapellok<sup>752</sup> diotenez. Lanaren munduan gauzatu diren aldaketek kezak eta haserreak eragin dituzte baina ez dira protesta publiko orokortuetan bihurtu. Beraz, egoera okertu egin da batik bat baliabide gutxien dituztenentzat, izan baliabide ekonomikoak, eskolakoak, sozialak edo bestelakoak. Baina zailtasun sozial gero gehiago izan arren, gatazka sozialen kopurua eta intentsitatea txikitu egin da.

Sindikatuak dagokienez, beren indarra alderdi askotan ahuldu da. Boltanskik eta Chiapellok<sup>753</sup> azaltzen dituzten Europako datuetan ikus daiteke sindikatuak afiliazioa izugarri jaitsi dela: 1976 eta 1988 artean Espainiako estatuan %60 jaitsiera jasan zuten eta ondorioz soldatapeko biztanleria aktiboa kontuan hartuta, afiliatutakoen kopurua %11koa zen epe honen amaieran; Frantziako estatuan jaitsiera %50ekoa izan zen, afiliatutakoen kopurua azkenean soldatapeko biztanleria aktiboaren %20tik %9ra jaitsiz; joera antzekoa izan zen Austrian, Herbehereetan eta Portugalen; Erresuma Batuan %4,4 jaitsi zen, soldatapeko biztanleria aktiboa kontuan hartuta, sindikatuak afiliatutakoen kopurua %39an gelditu zelarik; zenbait herrialdetan handitu egin zen afiliazioa, Belgika, Danimarka, Finlandia, Islandia, Italia, Luxenburgoko, Norvegia eta Suedian kasu.

Ramos Díaz-ek<sup>754</sup> aurkezten dituen datuen arabera, alde handia dago Europako Batasuneko estatuen artean sindikatuen afiliazio mailari dagokionez. 34. Taulan ikus daitezkeen, kopuru handienak Danimarkak (%80) eta Finlandiak (%80) dituzte eta txikienak, berriz, Frantziak (%10), Grezian (%17) eta Espainian (%18).

---

<sup>751</sup> Albarracín, Jesús in Etxezarreta, 1991, 419-424 or.

<sup>752</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 363 eta 369 or.

<sup>753</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 366-367 or.

<sup>754</sup> Navarro, 2005, 159 or.

<b>34. Taula: Sindikatuen afiliazio maila eta negoziazio kolektiboen irismena (ehunekoak)</b>		
<i>Estatuak</i>	<i>Sindikatuen afiliazio maila</i>	<i>Negoziazio kolektiboen irismena</i>
Erresuma Batua	30	40
Irlanda	45	45
Espainia	18	70
Frantzia	10	85
Grezia	17	90
Alemania	30	74
Portugal	35	80
Italia	38	90
Austria	45	90
Belgika	55	90
Danimarka	80	75
Finlandia	80	95
Iturria: Kohl & Plazer, 2002, 105 or., in Busch, 2004, in Navarro: <i>La situación social...</i>		

Langabeziaren eta desindikalizazioaren arteko harremana hain argia ez den arren, enplegua lortzeko zailtasunak ere ahuldu egin zuen sindikatuen negoziatorako ahalmena, Boltanski eta Chiapelloren arabera<sup>755</sup>. Beren oinarrien mobilizazio gaitasunaz zalantza handiak zeuzkaten. Ugazaba elkarteen eta sindikatuen arteko indar harremana aldarazi egin zuen egoera ekonomiko berriak, besteak beste.

Enpresen berregituraketek, langileen mugikortasun handiak eta enplegu prekarioaren hedapenak ere ahuldu egin dute sindikatuen posizioa, Boltanski eta Chiapelloren<sup>756</sup> arabera. Analista hauen iritziz aldaketa hauek sarri etekin ekonomiko zuzena baino sindikatuen eta bide batez langileen negoziazio indarra ahultzea dute helburu. Marazziren<sup>757</sup> arabera ere, lan munduan gauzatu den trantsizioak sindikalismo indartsua eta langile mugimendua suntsitzea izan du helburu, antolakuntza modu berriak indarrean jartzeko ezinbestean behar baitzuten erresistentzia ahulagoa. Halaber, Boltanskik eta Chiapellok<sup>758</sup> diotenez, enplegua gero eta gehiago zerbitzuen sektorean eta enpresa txiki eta ertainetan kokatzen denean, langileak sindikazio gutxiko egituretan ibiltzen dira, gatazka zuzenerako tradizio eskasa dagoen lekuetan eta prekariedade arau denean. Klein-en<sup>759</sup> arabera, adibidez marka ospetsuak dituzten txikizkako enpresek gogor borrokatzen dute sindikatuak sor ez daitezen edo langileak sindikatueta sar ez daitezen. Horrela errazago lortzen dute langileek eragin handia ez izatea enpresaren irabazi eta galera kopuruetan.

Marazzik<sup>760</sup> dioenez, enpleguak mantentzearen sindikatuek maiz soldatak txikitzea edo aurretik irabazitako eskubideak murriztea onartu dute eta beste zenbaitetan enpresek azpikontratazioa erabili dute gaizki ordaindutako, babestu gabeko eta sindikalizatu gabeko langileak kontratzeko eta bide batez sindikatuen boterea ahultzeko. J.L. Monereo-ren<sup>761</sup> arabera ere sindikatuek soilik zenbait eskubide babestu dituzte, neoliberalismoak ezartzen dituen oinarriko printzipioak onartuz, lehiakortasuna kasu. Honen adibide liriateke Espainiako estatuan eta CCOO sindikatuak 2001 urtean sinatu zuen pentsioen akordioa eta UGT sindikatuak CEOE enpresaburuen

<sup>755</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 288 eta 376 or.

<sup>756</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 375-377 or.

<sup>757</sup> Marazzi, 2003, 16 or.

<sup>758</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 375-377 or.

<sup>759</sup> Klein, 2005, 287 or.

<sup>760</sup> Marazzi, 2003, 40 or.

<sup>761</sup> Monereo, J.L. in Imaz, 2006, 186 or.

erakundearekin 2003, 2004, 2005 eta 2006 urteetan sinatu zituen Negoziazio Kolektiborako Akordioak. Monereo-ren arabera, jokabide mota hauek indartu egin dituzte azken urteetako erreformen helburuak: eredu soziala ahultzea, honen zutabe diren lan zuzenbidea eta Gizarte Segurantza higatuz.

Harvey-ren<sup>762</sup> arabera, AEBetan langabeziak gora egin zuenean, sindikatuak batik bat sektore batzuei mesede egiten zieten lorpenak eskuratu zituztelarik, ez zen hain zaila izan batez ere langile sektore horietatik kanpo zeudenen artean espezializazio denboraren antolaketa malguaren aldarrikapenak pertsuasio baliabide bezala erabiltzea langile horiek ekintza kolektiboa langile indibidual bezala hautsi zezaten. Askatasun handiagoa eta ekintzarako malgutasuna aldarri egokiak izan zitezkeen bai neoliberelek bai langile ugari partekatzeko.

Gainera, enpresariak ezarri zituzten dispositibo berriek ezustean harrapatu zituzten sindikatuak, Boltanskik eta Chiapellok<sup>763</sup> diotenez. Maiz ez zuten jakin izan zein jarrera hartu. Kontra egin zieten sarri, ugazaben ekimenak beti berez txarrak iritzita, baina sindikatuak beren ideia autogestionarioen oihartzunak ere ikusi zituzten enpresaburuen proposamenetan. Ezkerreko mugimenduen baitan ere zenbaitek babestu egin zituzten ugazabek proposatutako eredu berriak. Gainera, enpresetan soldatapekoek zenbaitetan hainbat disposizioen aldeko jarrera hartu zuten eta sindikatuak ezin zieten jarrera hauei aurre egin, berenganako konfiantza areagotzeko bildurrez.

Horrez gain, 1980ko hamarkadan goia joko zuen sindikatuen aurkako kritika ez zetorren soilik ugazaben aldetik, Boltanski eta Chiapelloren<sup>764</sup> arabera. Ezkerraren baitako hainbat mugimendu langile sektore batzuen pribilegioak babestea leporatzen hasi ziren sindikatuei.

Halaber, sindikatuen zenbait jokabidek kalte egin zieten beren posizioei, Boltanskik eta Chiapellok<sup>765</sup> diotenez. Afiliatuen kezka behar bezala ezagutzeko, ponderatzeko eta defendatzeko arazoak izan dituzte maiz, analisi honen arabera, eta sarri leporatu zaie afiliatuak bertan behera uztea.

Sindikatuak dauzkaten arazo hauek guztiek ahuldu egiten dute sindikatuen posizioa, galdu egiten dute jendearengana iristeko gaitasuna, ez daukate negoziatorako hainbesteko ahalmenik eta langileen konfiantza txikitzen doa haienganako, Boltanskik eta Chiapellok<sup>766</sup> diotenez.

Castellsen arabera<sup>767</sup> kapitalaren eta lanaren arteko harremanaren birmoldaketan, baldintza historikoak, teknologikoak eta ekonomikoak medio, ekonomia nazionalak eta enpresa pribatuek 1980ko hamarkadaren hasieratik eragin zuten lanekuaren kostetan, produktibitatea handitu enplegurik sortzeke edo/eta enplegu mota askoren kosteak txikituz. Orduan, sindikatuak ziren aldaketa unilateral baterako oztopo nagusia, baina ahuldu egin ziren, ez zirelako gai izan enplegatu mota berrien ordezkari papera jokatzera egokitzeko, lantoki berrietan eragina izateko, eta erakundetze mota berrietan (saretan) eraginkortasunez jokatzeko. Halaber, AEBetako eta

---

<sup>762</sup> Harvey, 2005, 53 or.

<sup>763</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 288, 382 eta 385 or.

<sup>764</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 389-390 or.

<sup>765</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 395 or.

<sup>766</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 370 or.

<sup>767</sup> Castells, 2000b, 110 or.

Erresuma Batuko gobernuek ez ezik Espainiako eta Frantziako estatuetakoko gobernuek ere sindikatuen indarra ahulduko zuten makina bat neurri gauzatu zituzten.

## 4.6 Galdera gehiago

Oraindik hainbat galderari erantzun behar diegu. Kritika mugimendu handi eta eraginkorrari aurre egin ahal izateko dinamika kapitalistak aldatu egin zirela ikusi dugu hainbat ekarpenetan baina oraindik ez dugu aipatu nolakoa den kapitalismoaren izpiritu berria? Zein da bere jokaera gaur egun? Zein bitarteko erabiltzen ditu? Aldaketa hauek langile guztiei berdin eragiten al diete?

## 5. Langile eredu berria: masa ekoizpenetik malgura

Kapitalismoaren izpiritua eraldatu den bakoitzean langile mota ezberdin bat sustatzen ahalegindu da. Batik bat gaur egun ereduak zein den jakitea interesatzen zaigu orain, aztergai dugun jendea, zer testuingurutan bizi izan den argitze aldera, baina hori azaldu ahal izateko komenigarria da industrializazioan eraiki nahi izan zen ereduak aztertzen hastea, orduan ezarri baitziren oinarriak. Zenbait ezaugarri aldarazi diren arren, beste asko bere horretan mantentzen dira.

### 5.1 Lanaren etika industrializazioan

Foucaultek<sup>768</sup> Aro Klasikotik aurrerako ni-aren teknologiak aztertu zituen. Foucaultek uko egiten dio gizaki naturalaren ideiarri. Subjektua ez da substantzia, forma baizik. Eraikia denez, ez da beti berdina. Foucaultek nortasunaren eraikuntza zein irizpideren arabera burutzen zen analizatu zuen. Sokratesek nork bere burua zaintzearen alde sutsu egiten zuen. Bere garaian, ordea, jendearen ardurak nagusia aberastasuna, izen ona eta ohorea zirela ikusten zuen berak. Epikuro ez zebilen ideia horretatik urrun: filosofatzea, arima zaintzea zela zioen; filosofatu beharra zegoen gazte nahiz zahar izanik, nor bere arimaz arduratzeko inoiz ez baita ez goizegi ez beranduegi. Filosofatzeaz ari denean, argitu beharra dago ez dela filosofiaren arlo zehatzaz soilik ari, zeren greziar klasikoek biziki estimatzen baitzuten hausnarketa bizitzaren esparru guztietan aplikatzea. *Zaindu zeure burua* leloaren isla zuzena da hau. Hari honi segituz, Plutarkok lan egiteko borondateari zuzenki dagokion lazedemoniarren aforismo bat aipatzen du: Alexandridas izeneko bati galdetu zioten ea espartarrek zergatik uzten zieten esklaboek lurra lantzearen lana, eta honek erantzun zuen nahiago zutela beren buruez arduratu. Nork bere burua zaintzea pribilejioa zen Grezia Klasikoan, sozialki gainetik egotearen ezaugarri nabarmenetakoa. Beste muturrean zeuden bizi ahal izateko besteez arduratu behar zirenak, eta oraindik muturrerago biziraupenerako ofizio batez arduratu behar zutenak. Azken batean, aberastasunak, estatusak eta jaiotzez sozialki gorago egoteak nor bere buruaz arduratzea ahalbidetzen zuen. Norberaz arduratzea ez zen prestakuntza, baizik eta bizimodua. Norbera bere buruarentzat zen. Burujabetasuna norberaren baitan bizitzea zen. Ez zen berekoitzat jotzen, hori baitzen besteengana modu egokian iristeko era bakarra. Bere burua zaintzen ez zuenak ezingo zuen besteekin harreman egokirik izan. Norbera zaintzea besteak zaintzea zen. Nork bere burua zaintzearen jardura kritikoa zen, baliogabea eta okerra

---

<sup>768</sup> Foucault, 1999.



baztertu egin behar baitziren. Borroka hau etengabea zen; ez zen behin osatutakoa betirako nahikoa izaten. Baina ez zen karga bezala bizi. Plutarkoren arabera, funtzio sendatzailea eta terapeutikoa zuen. Filosofia eta medikuntza eremu bakartzat zituen.

Ikuspegi hau aldatu egin zen I. eta II. mendeko pentsalari batzuen artean. Foucaultek *zaindu zeure burua* lelotik *ezagutu zeure burua* lelorako trantsizio bezala laburbiltzen du. Senekak nor bere buruaz arduratzeko beste norbaiten beharra defendatzen du. Galenok, berriz, azpimarratu egiten du beste baten autoritatepean jarri ez zen jende asko ikusi zuela estrapozu egiten. Galenoren iritziz, badago bere pasioez bakarrik sendatu ahal izateko bere burua gehiegi maite duen jendea. Salto handia dago hemen. Senekak Demetrio aipatuz nork bere burua atletek bezala prestatu behar duela aholkatzen du: prestakuntza ez da norberarekiko egin behar, baizik eta arerioak garaitzeko beharrezkoak eginez. Borrokalari batek bezala, erresistentzia ahalbidetuko duten trebezietan saiatu behar da. Orainari eta etorkizunari aurre egiteko derrigorrezkoa da egiazko diskurtsoak eraikitzea. Ezagutzaren bitartez munduaren mapa egin eta honetan oinarrituko gara ekin ahal izateko. Arazoen aurrean egiaren diskurtsoa eskuragarri izan beharra dago. Pasioak itzalarazteko kanpoan eraikitako egiak barneratzea gomendatzen du Senekak. Hala, hezkuntzari dagokionez, ikaslea entzule soil bihurtzen da. Sokratesek justu kontrakoa zioen: ikasleengandik inkontzienteki bazekitena beraien ahotik atera beharra zegoen. Senekak, ordea, entzuten jakitearen bertutea gorensten du.

Kristautasuna, jauzi handia da ibilbide honetan, Foucaultek dioenez<sup>769</sup>. Salbazio eta aitortza erlijio honek zorrotz ezartzen ditu egia, dogma eta arauak. Gizarte disziplinarioaren eraikuntzan urrats sendoa da kristautasuna. Egiak onartu eta sinestera eta sinismen hauek demostratu behar izatera darama gizabanakoa. Autoritatea instituzionalki onartu beharra dago. Fedeaz gaindiko beste egia bat ere bada: norberak jakin behar du bere buruaz, akatsak, tentazioak eta desirak ondo ezagutu eta suntsitzeko. Hori Jainkoari edo erkidegoari jakinarazi behar zaio. Beraz, fedea eta nork bere burua ezagutzea dira oinarriak. Horrela garbitzen da arima. Nia eta egia ezagutzea ezinbestekoak dira, niaren aurkikuntzak niaren suntsipena esan nahi duen heinean. Egiaren jokoak ez dira praktika koertzitiboak, baizik eta subjektuarentzat autotransformatzaileak. Ez da ukoaren moralala. Norberarekiko ariketa da. Helburutzat norbera lantzea du, izaera mota batetara iritsi arte aldaraztea. Inperioaren aurreneko bi urteetan Atanasiok bakoitzak bere burua idatziz ezagutu behar duela uste du. Honela, bekatua bereiztu eta bihotza pentsamendu gaiztoez libra daiteke. Idazketa besteen begien pareko izatea espero du, besteen aurrean egingo ez genukeena geure idazketaren aurrean ez egiteko. Bere hitzetan gogorrago adierazten da<sup>770</sup>: *geure burua horrela beztean, gorputza esklabizatu eta etsaiaren azpijokoak zapaldu ahal izango ditugu*. Idaztea, beraz, erakustea da, ikusgarri bihurtzea, norberaren aurpegia bestearen aurrean agerraraztea. Baina ez soilik begiratzea, baita aztertzea ere. Ez hainbeste norbera deszifratzea, baizik eta norbera besteari irekitzea. Horren harira, Senekak egunero-egunero nork bere buruari buruzko kontzientzia azterketa aholkatzen du.

Hurrengo jauzia Estatuaren sorreran kokatzen du Foucaultek<sup>771</sup>. Poliziaren jatorrizko esanahiari jarraiki, Estatuak bere egitura indartu egiten du jendearekiko komunikazioan jendea moldatu eta

---

<sup>769</sup> Foucault, 1990.

<sup>770</sup> Foucault, 1999.

<sup>771</sup> Foucault, 1990.

populazio bihurtuz. Harreman hau egunerokotasunean gauzatzen da batik bat. Delamaren hitzetan esatearren, *poliziaren helburu bakarra gizona bizitza honetan goza dezakeen bezain besteko zorientasunera gidatzea da*. Hartara, populazioa kudeatu eta bizitza kontrolatu egin beharra dago. Indibiduoaren nia sakrifikatu egiten da, maisuak erabat kontrolatu nahi duen subjektua eraikitzeko. Ez da botere errepresibo hutsa. Batez ere sortzailea da botere harreman hau, hartu-emanetik nortasun berri bat jaiotzen baita. Horrela, gizakien kudeaketa, artzain agintea azken finean, bere gorenera iristen da Estatuaren sorkuntzarekin. Honenbestez, gizakiaren helburua ez da gorputzarentzat ona dena (bestela, mediku izatearekin nahikoa omen luke); ez da aberastasuna (bestela, administratzaile izatea aski litzateke); ez da egia (bestela, irakasle soil izan beharko luke). Gizakiak zintzotasunaren bidea irekiko dion norbait behar du. Hau da, konformitatearen bidez zorientasun zerutiarra lortzeko modua. Jainkoaren eredu sekularizatuan Estatu arrazoia da erantzuna.

Modernoia izatea, Foucaultek arabera<sup>772</sup>, ez da pasatzen diren uneen fluxuan norbera den bezalakoa izatea, baizik eta nork bere burua lanketa konplexu eta gogor baten objektutzat hartzea. Gorputz, sentimendu eta pasio propioak artelantzat hartzen dira. Gizaki modernoia bere burua bilatzen duena da, ez bere burua ezagutzera jotzen duena, ezagutza izatekotan bitarteko hutsa baita. Modernitate honek ez du gizakia bere izatetik askatzen. Bere burua lantzerantz behartzen du.

Sennettek<sup>773</sup> lanaren etikaranzko trantsizioa deskribatzean, denboraren erabilera autodisziplinatua eta beranduago etorriko denaren mesederako lan gogor egitea bihurtuko dira zutabe nagusiak. Gaur egungo gizabanakoarengan lan egiteko borondate mota hau nolakoa den jakiteko historian zeharreko zenbait egileren idatziak aztertzen ditu Sennettek, lanarekiko nortasun garaikidean haren oihartzunak nabari daitezkeelakoan. Hesiodok lana naturaren anarkiaren aurkakoa zela zioen; Axularrek bezala, gerotik gerora ez ibiltzea aholkatzen zuen. Virgiliorengan, orde, lanaren balioak barruranzko jauzia egiten du: lan gogorra barne anarkiaren aurka borrokatzeko bide bertutetsua da. San Agustinek, berriz, norberarentzat lan egitea bekatu dela uste du, esperientzia soilik pertsonala den heinean. *Zaindu zeure burua* leloaren kondarrak ere gutxietsi egiten ditu, aldi berean autodisziplina goretsiz. Lanari lotutako ikuspegiaren ibilbide honetan subjektuak gero eta estuago behartzen du indibiduo gobernaturik lan egiteko borondatea izatera. Ez da praktika soilik koertzitiboa. Errepresioa baino, esango luke Foucaultek, botere harremanen sormen gaitasuna da subjektua lanaren etikan itsuki sinestera daramana.

Lanaren etikaren aldeko adierazpenen galeria oso zabala da. Batzu-batzuk aukeratzearen, Fichteren<sup>774</sup> hitzak ekarriko ditugu gogora: *Denek izan beharko lukete beren lanetik bizitzeko aukera (...) Bizitzeko aukera, bera, lan egitearen baldintzapean dago, eta ez da halako eskubiderik izango baldintza hau betetzeke*. Henry Ford<sup>775</sup> ere hari berari tiraka aritu zen: *funtsezko printzipio moralak gizakien lanerako eskubidea da. Nire ustez, ez dago aisiak betetzen duen bizitza baino beldurgarriagorik. Gutako inork ez du horretarako eskubiderik. Zibilizazioan ez dago bere denbora aisian pasatzen duen jendearentzat lekurik*. Carlylek<sup>776</sup>, berriz, ezagutza ere derrigorrez lanetik lortutakoa dela aldarrikatzen du, beste guztia hipotesiak besterik ez direla.

<sup>772</sup> Idem.

<sup>773</sup> Sennett, 2001.

<sup>774</sup> Grupo Krisis, 2002.

<sup>775</sup> Idem.

<sup>776</sup> Idem.

Beste muturrean egon direnak ere ezin ahaztuko ditugu. Nietzsche<sup>777</sup>, beste gauza askoren artean, lanaren funtzio ezkutuaz ere aritu zen:

“Azken batean, orain horrelako lana polizia guztietan hoberena dela sentitzen da. Jende guztia dagoen posiziotik mugitu gabe mantentzen du eta badaki nola ekidin sendotasunez arrazoiaren garapena eta independentzia gogo. Hori lortzearen, energia nerbio kopuru handia erabiltzen du lanak, energia hau gogoetari, bere baitan biltzeari, ametsari, kezkarri, maitasunari eta gorrotoari kenduz. (...) Lanak gero eta onarpen hobea dauka: pozarekiko joerari dagoeneko *atseden hartzeko beharra* esaten zaio eta jendea bere izaeraz lotsatzen hasia da honezkero (...) Laster, kontenplaziozko bizitzaren aukera ere ez dugu izango. Hau da, paseoan pentsamenduekin edo lagunekin joateagatik geure buruak mesprezatu eta kontzientzia arazoak izango ditugu.”

Bere hasierako idatzietan Marx<sup>778</sup> ere ez zebilen ideia horretatik urrun:

“Lana izatez da jarduera ez librea, ez gizatiarra eta ez soziala, jabetza pribatuak baldintzatua eta jabetza pribatuaren sortzailea. Jabetza pribatuaren eraispena ez da gauzatuko harik eta lanaren eraispen bezala pentsatua ez den arte.”

Sennettek<sup>779</sup> Weberren etika protestanteari buruzko azalpen erabakiorra ematen digu kapitalismoaren garaiko (hastapenetakoa nahiz oraingoa) lan egiteko borondatea interpretatzeko. Mundu ikuskera honek *homo faber* izenekoa kritikatzeko du. Funtsezkoena gero etorriko den plazeraren ikuspegiaz orain lan egitea da. Katolizismoa ikono zalea eta kanpokoagoa bazen, Martin Luteroarena indibiduoaren teologia da, bere burua moldatzen duen sinestunarena. Calvinok hari horri segitzen dio gehiago saiatzeko gomendatuz, ezer ez dela nahiko ona, existentzia etengabe dagoela auzitan. Protestanteak lan gogorra etorkizunerantz zuzendu behar du. Aszetismo lurtarra da hau. Kapitalismoranzko pausoa latza da: bere balio morala frogatu nahi duen gizakiak lanaren bitartez egin beharko du. Etika protestantearen erudutzat hartzen den Benjamin Franklin plazeraren beldur bizi den pertsona bat da Sennetten ikuspegitik. Lanarekin obsesionatuta, orori uko egiten dio, ukoa bertute izango balitz bezala. Ezin du daukanaz gozatu, ezer ez baita nahikoa. Autoestima besteen onarpenaren bilaketa nekeza eta etengabea da, laudorioak ere ezin baititu onartu, bestela nia onartzea ekarriko lukeelako horrek. Guztia da instrumentala: orain ezerk ez du bere baitan inporta, ekarriko duenaren arabera baizik, eta zerbait badakar, hori ere ez da bere baitan garrantzitsua, ondoren etor daitekeena baizik, eta horrela taigabe.

Gorz-en<sup>780</sup> iritziz, lana, gaur ezagutzen dugun bezala, Modernitatearen produktua da. Baumanek<sup>781</sup>, berriz, lanaren etika ulertzeko bi premisa zehazten ditu: batetik, zoriotsua izateko, besteek baliotsutzat eta trukean ordaintzeko modukotzat duten zerbait egin behar da; bestetik, inozokeria eta moralki kaltegarria da daukagunarekin konformatu eta gehiagoren bila ez saiatzea baldin eta gehiago lortzeko aukera izanez gero. Lan egitea, beraz, ona da. Ez egitea, berriz, txarra. Beraz,

---

<sup>777</sup> Idem

<sup>778</sup> Idem.

<sup>779</sup> Sennett, 2001.

<sup>780</sup> Gorz, 1995.

<sup>781</sup> Bauman, 2000, 17-18 or.

lanaren etikaren arabera, lanean jarraitu behar da baita horrekin zer lortu nahi dugun ez dakigunean edo lor dezakeguna behar ez dugula uste dugunean ere.

Imazek<sup>782</sup> dioenez, fisiokratentzat lurra zen bezala, liberalismoaren ikuspegitik lana da aberastasunaren iturria. XVII eta XVIII mendeetan hasi zen ikuspegia batetik bestera aldatzen. Liberalismoan lana da norberaren garapena jorratzeko biderik egokiena. Baina norberarentzat ez ezik gizartearentzat ere funtsezkoa da lana, liberalismoaren ideologiaren arabera.

Azkarragaren<sup>783</sup> arabera, Weber-ek kapitalismoaren sehaska bezala aztertu zuen protestantismoak Euskal Herrian apenas itzalik izan duen arren, Weber-ek etika kalbinistari egotzi zizkion hainbat ezaugarri funtsezkoak izan dira eta neurri handi batean dira euskaldunon artean nortasuna eraikitzeke: sakrifizioarako joera, lanerako jarrera positiboa eta izpiritu saiatu, lehiatsu eta ekintzailea. *Utilitarismo katolikoa* izan zuen Julio Caro Barojak hizpide. Azken batean, lanaren etika deitu izan dena sendoa da Euskal Herrian. Kapitalismoaren *ethos*-a hemen ere sakon errotu zen beraz. Dagoeneko XVII. mendeko Euskal Herrian aurki daitezke kapitalismoaren izpirituaren zantzuak baina XIX. mendeko bigarren erdialdean instituzionalizatuko da. Lanaren etikaz gain, erlijio katolikoak ordurako begi onez ikusiko ditu kapitalismoa ahalbidetzen duten oinarriak. Mozkina eta mailegua kasu. Mende batzuk lehenago anatema zena, orain egokia eta, areago, egin beharrekoa bihurtu zen.

Bauman-ek<sup>784</sup> dioenez, industrializazioarekin sortu berriak ziren fabriketan ugazabek sustatu zuten lanaren etika European. Helburua, Bauman-en arabera, argia zen: desagerrarazi egin nahi zituzten erlojuak eta makinak ezartzen zuten bizi erritmoarekiko erresistentzia eta fabriketako lanak eskaintzen zuen bizimoduaren baldintzekiko erresistentzia. Orduan ohitura nagusia oinarritzko beharrak (garai hartan definitzen ziren bezala) asetzeko lan egitea zen eta hori lortu ondoren lanean ez jarraitzea. Lanaren etika inposatzea ezinbestekoa zen fabriketako diziplinan kontrola eta menpekotasuna ezarri ahal izateko. Botere borroka zen. Bestela, lan indar diziplinaturik gabe, fabrikek ezingo zuten aurrera egin, industrializazioak ez zuen arrakastarik izango. Izan ere, industrializazioaren hastapenetan hainbat fabrikek porrot egin zuten ez zirelako gai izan lanaren etika langileen artean errotzeko. Fabrikek lan indarra behar zuten eta lan indar hori ezin zen orduan ohikoa zen lan ohituretan oinarritu. Lanaren etikaren sustatzaileek esklaboen ekonomia eta garai berriaren garapen modernoa uztartu zituzten.

Fabriketako ekoizleak ekoitzi egin behar zituzten, Bauman-ek dioenez. Baina ez ziren soilik fabriketarako beharginak sortzen. Fabrikaren bitartez norbanako mota zehatz bat sortu nahi zuten. Horrexegatik ere nahi zuten jende guztiak fabriketan lan egitea, kanpoan gelditzen zirenak ez zeudelako kontrolpean. Testuinguru horretan aldarrikatu zen txirotasuna desagerrarazteko helburua: lanaren etika sustatzen zutenen arabera, lan egiten ez zuenak, nahi ez zuelako ez zuen lan egiten eta, beraz, ez zuen inoren babesik merezi. Marxismoak ere bere egingo zituen ideia hauek, langile mugimenduak ludismoaren ekarpenak atzean utzi ahala.

---

<sup>782</sup> Imaz, 2006, 97 or.

<sup>783</sup> Azkarraga Etxegibel, 2006a.

<sup>784</sup> Bauman, 2000, 17-18 or.

Castillo-ren<sup>785</sup> arabera, industria iraultzaren ondorioz lehengo ekoizpen sistema eta bizimodua utzi zuten pertsonak ez zuten beren borondatez egin. Zubero-ren<sup>786</sup> arabera ere kapitalismoaren eraikuntza, bortxa antropologikoan oinarritu zen: garai hartako gizarteek zituzten oinarri kulturalak eraldatzea zen aldaketa horren zeregina.

Zubero<sup>787</sup> dioenez, Stephen Marglin-en “What do Bosses Do? The Origins and Functions of Hierarchy in Capitalist Production?” (1974) artikulua arabera, lanaren banaketa eta fabriken sistema ez ziren eraginkortasun arrazoiengatik egin baizik eta beren lan indarraren gain kontrol handiagoa izateko eta eszedentearen zati handiagoa eskuratu ahal izateko. Batzuek diote fabriken gorakadaren arrazoi nagusia animaliangandik ez zetorren energian oinarritutako makineria erabiltzen hasia izan zela, baina Marglinek gezurtatu egin zuen fabrikaren nagusitasun teknologia, eta bide batez gezurtatu egin zuen fabrikaren jatorri soilik teknologikoa. Animaliangandik ez zetorren energian oinarritutako makineriaren aurretik ere bazeuden fabrikak. Industria iraultzan jokoan zegoena ez zen eraginkortasuna baizik eta botere soziala, hierarkizazioa eta lan indarraren diziplina.

## 5.2 Langile fordista

Hardt eta Negri-ren<sup>788</sup> arabera, Ongizate estatu modernoa hiru osagairengan zeutzan: taylorismoaren sintesia lanaren antolakuntzan, fordismoa soldaten erregimenean, eta keynesianismoa gizartearen arauketa makroekonomikoan. Bigarren Mundu Gerraren ondoren gauzatu ziren berreraikuntza ekonomiko egitasmo guztiek eredu hau inposatu zieten herrialde kapitalista nagusiei.

Coriat-en<sup>789</sup> arabera, taylorismoak eta fordismoak lan prozesuan ezarriko dituzten aldaketek nabarmen eragingo diote kapitalaren metatze prozesuari. Industrializazio prozesuaren hastapenetan manufakturak ahulak eta ezegonkorrak izan ziren hirurogeita hamar urtez, langile trebeak zeuden lekuetara mugitu behar izaten baitzuten. Lantokietan langile trebe kopuru nahikoa izatea ez zen erraza izan. Langileen erresistentziak ofizioari (lan egiteko modu tradizionalari) eusteko borondatea zuen ardatz. Langilea eta bere ofizioa ez dira kapitalaren kontua, ez dira bere balioaren oinarri. Aitzitik, ofizioa izan zen kapitalaren metatze prozesuaren oinorde nagusia, bi arrazoi tarteko: batetik, ofizioa zekitenen kopurua txikia zen eta, bestetik, batik bat ofizio bat ondo ezagutzeak fabrikaziorako ezagutza ahalbidetzen zuelako. AEBetako American Federation of Labor (AFL) langile erakundeak ofizioan oinarritzen zuen kide egiteko aukera. *Unskilled* delakoak, trebezia gabeko jotzen zirenak, baztertu egiten zituzten. AFL-ek azpikontratista lanak egiten zituen: lanaren truke soldata (soldata orduka zenean) eta pieza bakoitzeko denbora jakin bat eta kalitate arau bat ezartzen zituen. AEBetako langile klasearen historian boikot kanpaina erraldoiak ez ezik *horien* aurkako borroka *unskilled* delakoen aurkako gerrarekin ere nahasten da, beren lan indarra tarifatik kanpo saltzen zutelako. Langile aristokraziaren izaera agerian gelditzen da AFLaren agiri arrazista eta xenofoboetan.

---

<sup>785</sup> Castillo & Prieto.

<sup>786</sup> Zubero, 1994, 26 or.

<sup>787</sup> Zubero, 1994, 25 or.

<sup>788</sup> Hardt & Negri, 2002, 227-228 or.

<sup>789</sup> Coriat, 2001, 4 eta 8-15.

Ugazaben pentsamendua ofizioen aurka hasiko da, Coriat-ek<sup>790</sup> dioenez. Esate baterako AEBetan *open shop movement* delakoa izango da ugazaben estreinako koalizioa. Langileen aurkako hainbat bitarteko erabili zituzten. Lehenik makinaren bitartez bilatuko dute irtenbidea: ekoizpen kostuak murriztu, lan erritmoa handitu, langileen antolakuntzaren aurka borrokatu eta langileen insubordinazio eta indiziplinaren aurka borrokatu ahal izan zuten. Makina, lan produktiborako oinarri ez ezik erregularizaziorako eta dominaziorako tresna bezala ere balia daiteke. Horrez gain, ugazabek umeak erabili zituzten lantegietan (umezurtzak asko), industria fluxuaren jarraikortasuna bermatzen dutelako, bide batez langile helduei erregulartasuna eta diziplina ezarri. Halaber, somara egiten ziren lan kontratazioak ere erabili zituzten. Hori guztiaz gain, ugazabek koertzioa eta bortxa fisikoa ere erabiliko dituzte langileen eta sindikatuen aurka.

Coriat-en<sup>791</sup> arabera, ugazaben mugimendu zabal honen baitan Taylor mugarri izango da, ofizioak izango dituelako bere erasoan jomuga zuzen: ofizioa desagerrarazi nahiko ditu, langileek ekoizpen denboren gain zuten kontrola hausteko. Taylor-en ikuspegiaren funtsa honakoa da, Coriaten arabera: lan jardueren modua dominatzen eta ezartzen duena izango da ekoizpen denboren jabe. Taylor-en iritziz, ekoizpenaren ezagutza praktikoa langileen eskuetan *alperkeria sistematikoa* bihurtzen da eta geldiarazi egiten du kapitalaren garapena. Taylor-en arabera, soilik lanaren produktibitatea handitzeak ahalbidetu dezake kapital metatzearen garapena. Beraz, Coriat-en arabera, taylorismoaren ekarpen historiko handiena ofizioko langileak lan prozesuaren gain duen kontrolaren ordeztu ugazaben lege eta arauak ezartzea izango da. Denborak eta mugimenduak analizatzen zituen Taylor-en *kudeaketa zientifikoa* izan zen kapitalak luzaroan bilatu zuen erantzuna ofizioko langileen erresistentziaren aurka egiteko eta kapitalaren hedapena ahalbidetzeko. Lan dinamikan *sekreto* profesionalen ordeztu arloz arloko mugimendu errepikakorrek ezartzen direnean, kronometroa batik bat lanaren gaineko dominazio politikorako tresna da. Kronometroak gremioen elkartasuna hautsiz langileen erresistentzia suntsitu nahi du, hori baita lehenengo industrializaziorako ezinbesteko baldintza, baina baita kapitala eskala handian metatzeko traba ere. Langile profesionalen ordeztu etorriberria den masa langile ez kualifikatua eta batez ere ez antolatua hartzen da oinarri. Ofizioko langilearen ordeztu *unskilled* delakoak sartzean, sindikalismoa bi frontetan garaituko dute: batetik, ofizioko langilea progresiboki egotzi egingo dute fabriketatik eta, bestetik, langile berriak, sindikatuta eta antolatuta ez daudenez, merkeagoak izango dira ugazabentzat, langileek ez baitute hainbesteko gaitasunik izango beren lan indarraren balioa defendatzeko. Halaber, ugazabentzat errazagoa izango da ezarritako mugimendu produktiboen bitartez (jarduerak aginte zentralaren arabera estandarizatu, atsedenaldiak murriztu eta lanaldia luzatu, besteak beste) produktibitatea eta lanaren intentsitatea handitzea. Kronometroak erregimen aldaketa ahalbidetzen du.

Testuinguru honetan sortuko da ekoizpen katea, kapitalaren ametsa den fluxu jarraia, mugimendu etengabea, gauzatze aldera, Coriat-ek<sup>792</sup> dioenez. Langileaz kanpoko aginte guneak ezartzen du lanaren kadentzia. Piezak estandarizatzea ezinbestekoa izango da, elkarrekiko berdinak eta elkartrukagarriak izan zitezen. Halaber, atelierraren baitan espezializazioa sustatuko da, trebeziaren beharra desagerraraziz. Hauxe da fordismoa. Lan kadentziaren abiadura eta eraginkortasuna beste inork egin ez zuen bezain beste estutuko du: transportadoreak

<sup>790</sup> Coriat, 2001, 16-22 eta 32.

<sup>791</sup> Coriat, 2001, 2-5 eta 23-37.

<sup>792</sup> Coriat, 2001, 38-51 or.

atsedenaldiak ezabatuko ditu eta ondorioz nabarmen handituko da lanaldia praktikan eta aldi berean jagoletza panoptikoa ezarriko da. Honi guztiari esker, merkantzia estandarizatuaren serieko ekoizpena bihurtuko da arau berri eta honek ahalbidetuko du ekoiztako merkantziaren balioa txikiagoa izatea lan denborari dagokionez. Honenbestez, kapital produktiboaren zikloa azeleratu egingo da.

Honela sortuko da masa ekoizpena, Coriat-en<sup>793</sup> arabera: merkantzien serie handi eta estandarizatuaren bihurtuko da arau. Masa ekoizpenaren oinarrian ikus daiteke lan prozesuaren eraldaketek eta kapitalaren metatzeak duten harremana. Taylor eta Ford-en metodoen bitartez ustiapenak uniformizatzeko eta homogeneousizatzeko joera izango du, Coriat-ek dioenez.

Sennett-en<sup>794</sup> arabera, 1860 eta 1970 urteen artean enpresek egonkortasuna lehenetsi zuten, erakundearen iraunkortasuna bermatzeko eta lanpostuak sortzeko irizpiderik egokiena zeritzotelako. Merkatuak arriskuan jartzen zituen etekinak berregiten saiatzen zen burokrazia eta azken honen logika eraginkorragoa zela zirudien.

Burokrazian oinarritutako enpresak barne mailan antolatzeko bere era zuen. Sennett-ek<sup>795</sup> dioenez, militarrei ikasitako ereduak aplikatu zituzten lantokietan. Ejerzitoan bezala, burokrazia handi batean ere boterearen banaketa piramide itxuran diseinatzen zen. Modu arrazionalizatuan, kargu bakoitzak funtzio zehatza zeukan. Enplegatu ona izateko, lanpostuak eskatzen zuena egin behar zen eta marrik irteten zena zigortu egiten zuten. Ejerzitoetan bezala, autoritate burokratiko eta karismatikoa konbinatzen ziren.

Foucault-en<sup>796</sup> arabera, Modernitatean hainbat erakunde berregin ziren eredu berean oinarrituz: ejerzitoa, espetxea, ospitala, eskola eta lantegia, besteak beste. Erakunde hauetan ezarri zen diziplinak hainbat teknika erabiltzen zituen norbanakoak espazio horietan banatzeko: a) eremua bere baitan itxi egiten zen, leku heterogeneo bat besteen aurrean mugatuz, b) eremu horretan norbanako bakoitzari leku bat esleitzen zitzaion, eremua gorputz adina esparrutan banatuz, c) esleitutako lekuek ez diote soilik jagote funtzioari erantzuten, ez dira soilik komunikazio arriskutsuak hausteko, espazio erabilgarri bat sortzeko ere badira, beti ere ekoizpenaren baldintzetara doitzeko ahalegina eginez, c) banaketak mailaketa irizpideen arabera egiten zen.

Fordismoak soldataren arloan ere ekarpen erabakiorrak egingo ditu, Coriat-en<sup>797</sup> arabera. Taylor-ek ekoiztako piezen araberako soldata ezarri zuen teorian, baina ugazabek praktikan beste kezka batzuei ere erantzun zieten: langilea sindikatutik urrundu ahal izateko, soldatak zerikusia izango du langileak egiten duen *lan ekarpenarekin* baina baita langilearen erreprodukzio gastuekin ere. Beraz, soldata langilearen estimulu tresna soil izatetik langilearen erreprodukzioarako tresna izatera pasatzen da. Soldata politika berriaren helburu ekonomiko eta soziala sindikatuei asistentzia funtzioak kentzea izango da, honela ongizate politikak bere erara *open shop campaign* delakoari ekarpena egiten diolarik. 1914 urtean soldatak bikoiztu zituelarik, Ford aitziandari izan zen, hainbat helburu tarteko: a) lan indar hornikuntza bermatzea, b) insubordinazio kroniko egoera hausteko

---

<sup>793</sup> Coriat, 2001, 66 or.

<sup>794</sup> Sennett, 2006, 23-25 or.

<sup>795</sup> Sennett, 2006, 30 or.

<sup>796</sup> Foucault, 2005.

<sup>797</sup> Coriat, 2001, 52-60 or.

eta aginte gunearen lan arauak errotzeko borondatea, c) soldata berria jasotzeko langilearen bizimoduan irizpideak ezartzea (sei hilabeteko aintzinasuna, hogeita bat urtetik gorakoa, gizonezkoa, moral jakin baten baldintzak betetzen zituena). Urrats hau jauzi kualitatibo handia da: baldintza soilik merkantilen dominazioa bilatzetik langileen erreprodukzioari lotutako baldintza ez estuki merkantilak dominatzerara pasa nahi du.

Bauman-en<sup>798</sup> arabera, Ford-ek hartu zituen neurriak, soldata igoera barne, langileak fabrikari lotuta mantentzeko izan ziren. Langileak lantokira lotzen zituen katea zen fordismoa funtsean. Kapitala leku jakin batera lotuta zegoen, kontratatzen zituen enplegatuak bezain beste. Ford-ek soldatak igotzean, langileen orduko mugikortasun hazkorra geldiarazi nahi zuen, enpresaren dinamikari kalte egiten ziolako. Langileen trebakuntzan inbertitutako diruari etekina atera nahi zion etengabe eta langileen gaitasuna ahal bezain beste baliatu ekoizpenaren eta bide batez kapitalaren mesedetan. Bizimodu tradizionala suntsitu ondoren, orden berriak sendotu egin behar zituen parametro berriak: Modernitate sendoa eraikitzeko iraunkortasuna eta handitasuna ziren ardatz. Kapitalismo pisutsuaren ideala kapitala eta lana ados jartzea zen. Langileen biziraupena kontratatutak izatean zetzan eta kapitalaren erreprodukzioa eta hazkundea, berriz, kontratazioan. Lantokiaren sendotasunak lotu egiten zituen kapitala eta lana leku jakin batera. Estatuaren babesa ezinbestekoa zen adostasuna bideragarri bihurtzeko. Gatazka egon, bazegoen, baina fordismoaren testuinguruan egonkortasuna erlatiboki nahiko handia zen.

Gorz-en<sup>799</sup> arabera, taylorismo-fordismoak eraldatu egin zuen kapitalaren eta lanaren arteko gatazka. Lanaren eremuan negoziazio kolektiboaren bitartez eta eremu politikoan Ongizate Estatuaren bitartez gauzatzen da. Soldataren igoera eta produktibitatearen hazkundearekiko harremana izango dira borroka nagusiak. Beraz, langileek barneratu egingo dute arrazionaltasun ekonomiko kapitalista.

Bestalde, Sennett-ek<sup>800</sup> dioenez, langile fordistak enplegua oinarri du familiaren eta erkidegoaren ohorearentzat eta sentimendu honek ez du zerikusirik zuzenik enpleguko jarduerak bere kasa eragiten dion asetasun mailarekin.

Moreno-ren<sup>801</sup> arabera, gizarte industrialetan soldatapeko lanak diru sarrera ahalbidetzeaz gain nortasun soziala eta besteen aurreko prestigioa ere ematen du. Egunei denborazko egitura ematen die, harreman sozialak zabaltzen dituzte, estatus eta nortasun soziala ematen dituzte. Mendebaldea izeneko eremuko herrialdeetan egunaren herena lanean ematen dute biztanleen gehiengoak. Honenbestez, harreman sozialak eta gizarteaz aztertzeko funtsezkoa da lana analizatzea. Alvaro-k lanaren lau ezaugarri nabarmentzen ditu: a) lana, jarduera ekonomiko bezala, 2) lana, nortasuna eraikitzeko funtsezko elementu bezala, 3) lana, denbora diziplinen inposatzaile bezala bai lan ordutan bai gainerako denbora erabiltzeko, 4) lana, jarduera sozializatzaile bezala. MOW nazioarteko ikerketa taldeak honako ezaugarriak aipatzen ditu lanari buruz: 1) estatusa eta prestigioa ematen ditu, 2) pertsona gehientzat euskarri ekonomiko garrantzitsua da, 3) jendearen bizitzan denbora zati oso handia hartzen du, 4) lantokia pertsonen arteko harremanetarako eta sozializatorako leku garrantzitsua da, 5) lanaren produktu material eta

<sup>798</sup> Bauman, 2003a, 64 eta 152-154 or.

<sup>799</sup> Gorz, 2001.

<sup>800</sup> Sennett, 2006, 60 or.

<sup>801</sup> Moreno, 2003.



inmaterialak zerbitzua ematen diote gizarteari, 6) jendearen gaitasuna erakusten du eta jendearen adierazpen bidea da. Dominique Méda-k dioenez, modernitatean zehar enpleguak lotura sozial bezala hainbat funtzio izan ditu: 1) ikaskuntza soziala eta nortasunak eraikitzea ahalbidetzen du, 2) elkartruke sozialaren arauak ezartzen ditu, 3) enpleguaren bitartez norbanako bakoitzak zerbaitetan erabilgarri izatea lortzen du, 4) eremu pribatua gainditzen duten mekanismo sozialak artikulatzen dira. Honen guztiaren ondorioz, enplegu falta estigmatizatzailea da.

Nolanahi ere, eredu taylorista-fordistak bere baitan hainbat kontraesan dauzka. Nabarmenetakoa aipatzearen, Coriat-en<sup>802</sup> arabera, industria handiaren *arrazionalizazioak* eta soldata eredu honen orokortzeak bi baldintzen hartzeko kontraesana sortuko du: batetik, langileen biziraupen bitartekoak eta kontsumo eredu asetzeko bitartekoak diruz hornitzea eta, bestetik, ustiapen tasa eta kapitalaren metatze maila ez gehiegi kaltetzea. Testuinguru honetan hedatuko dira progresiboki estatuaren gizarte segurantza aparatuak, baina langileei mezu argia helarazi nahi diete: soldatetik kanpora ez dago salbaziorik. Horregatik, adibidez, AEBetan *Social Security Act* eta *Work Relief* delakoak soldatapeko lana egiteko ezintasuna duten soldatapeko langileei laguntzera bideratuko dituzte bakarrik. Beraz, asistentzia, industria handiari estuki loturik agertuko da. AEBetakoaren erako asistentzia lan indarraren erregulazio eta kontrol tresna izango da. Erakunde parapublikoek ugazaben *seguro* sistemak ordezkatzeko dituzte, kapitalak lan indarra eskuratzeko behar zuen dispositiboa osatu dezan eta horrela kapitalaren hedapena bermatu dadin. Frantzian ere istripuak, langabezia eta erretiroaren eremuak hartzen dituzten kutzak bat eginez joango dira, asistentzia industria handiaren zerbitzura dagoen tresna bihurtu dadin, lan indarraren diziplina eta menpekotasuna bermatuz. Progresiboki, asimetrikoki eta jauzika aurrera egingo duen prozesu honetan Keynes mugari izango da. Ekoizpenaren eta kontsumoaren egitura berriak doitzen ez ziren testuinguruan, Keynes-ek erosketa ahalmena mantentzea sustatu zuen, soldata eta errenta banatuz, bere iritziz hori baitzen gakoa kontsumo maila handia mantendu ahal izateko eta krisitik irteteko. Horixe izango da estatu mota berriaren oinarria.

Boltanskik eta Chiapellok<sup>803</sup> diotenez, kapitalismoari eta sozialdemokraziari lotutako Estatu sozialari leporatu egiten zioten langileak integratzen saiatzen ari zela, iraultzarako ikuspegiak lausotu eta langileak kapitalaren zerbitzura jarri zituela. Ikuspegi honen arabera, Estatu sozialaren helburua ustiapen maila mugatuz Estatu sozialak legitimazio irabaziak lortzea zen.

Coriat-en<sup>804</sup> arabera, Bigarren Mundu Gerraren ondoren urrezko urteak biziko dituzte masa ekoizpen kapitalistak eta estatu planifikatzaileak, oinarriak AEBetan ezarri eta Europara zabaldu ondoren. Makineria honek lan esku *ez kualifikatuaren* kontsumoa eskatuko du eskala handian eta ondorioz inmigrazio *behartu* masiboa antolatuko dute kapitalismoaren erdiguneetara. Lanaren *arrazionalizazioak* aurrera egin ahala gero eta gehiago joko da ez kualifikatuzat jotzen den lan indarrerara, eta industria handiak langile kopuru oso handia merke lortzen dituenean, lan indarraren truke balioa txikitu egingo da. Coriat-ek dioenez, lan hauek egiteko behar diren gaitasunak (erresistentzia fisikoa eta nerbioa, trebezia, adi egoteko gaitasuna eta mugikortasuna, besteak beste) gutxiesteari eutsi dakioke soilik baldin eta enplegu hauetarako lan indarra lortzeko baldintza sozialak mantentzen diren bitartean. Coriat-ek eskuz egindako lanaren berbalorazio

<sup>802</sup> Coriat, 2001, 79-96 or.

<sup>803</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 439 or.

<sup>804</sup> Coriat, 2001, 103-119 or.

prozesua aipatzen du horren seinale. Izan ere, soldatak esleitzeko erabili ohi den kualifikazio sistema eraikuntza soziala da, botere harremanen arabera eraikitakoa, eta diakroniko nahiz sinkronikoki aldakorra da.

Castel-ek<sup>805</sup>, berriz, soldatapekoen historia aztertzean, berebiziko garrantzia emango dio fordismoaren garaia. Bere analisia egiteko bi indibidualismo mota bereiziko ditu: positiboa eta negatiboa. Positiboan oinarritzen da norbanako independente eta autonomoek beren borondatez egiten duten hitzarmen kolektiboa. Liberalismoak XVIII. mende bukaeran industria eta politika iraultzaren bitartez sustatu zuen, Castel-ek dioenez. Inbidualismo kolektiboa da baina hitzarmenean ez dago kolektiboen edo babesen erreferentziarik. Hortaz, kolektibotasunaren ekarpenak suntsitzen ditu babes berriak sustatu gabe eta ondorioz iraultza liberalak aldi berean indibidualtasun negatiboaren anomia sustatuko du, eta azken hau gabeziaren arabera definituko da: kontsiderazio falta, segurtasun falta, jabetza seguruen eta harreman egonkorren falta. Baina aldi berean, kontratu baten menpe bizi ziren biztanleentzat kontratu sistemaren ahultasuna gainditzeko modua izan zen, estatutu bat lortu ahal izateko. Ordura arte soldatapekoak, gero lortuko zuten estatutua eskuratu aurretik, segurtasun gutxieneko egoeran bizi ziren, ez zen duina, erabat miserablea zen. Soldatapeko bihurtzen ziren nor ez zirenak, trukerako ezer ez zeukatenak, besoen lan indarra salbu. Egoera degradatuena bezala ikusten zen. Egunean bizitzera kondenatuta, behar gorrian bizitzera. Frantziako hirugarren errepublikan Alderdi Erradikalak Marseilako 1922 urteko kongresuan honakoa adierazi zuen: “soldatapekoa desagerrarazi behar da, esklaboak bezala bizitzea baita”.

Baina, Zuberok<sup>806</sup> dioenez, industria iraultzaren testuinguruan elkartasun mota berri bat eraikitzen hasi ziren, batik bat langileen artean. Sistemarengandik etekin handiena ateratzen zuen gutxiengoaren aurrean, baztertutako gehiengoak berdinen arteko elkartasuna jorratu zuen, proposamen indibidualistak gainditu, analisi sozialerako tresnak eskuratu eta ezberdinkeria baldintzak aldatuko zituen ekintza politikoa sustatzeko. Egitasmo honek langileei ikusarazi egin nahi zien batasunak indartu egiten zituela eta ekintza kolektiboak bazterketa gainditu zezakeela.

Cohen-ek<sup>807</sup> dioenez, komunistek langile klaseari buruz uste zuten gizartearen gehiengoa zirela, gizartearen aberastasuna beraiek ekoizten zutela, ustiatu egiten zituztela, behartsuak zirela eta iraultzarekin ez zutela zer galdu izango. Hortaz, Cohen-en arabera, komunisten iritziz langile klasea gai zen gizartea aldatzeko, hori egitea interesatzen zitzaien eta aurki egingo zuten.

Nolanahi ere, Zuberok<sup>808</sup> dioenez, ez zen erraza izan izaera masiboko elkartasunezko praktika politikoak gauzatzea. Industria iraultzak eragindako pobrezia, koakzio, ezberdinkeria eta zapalkuntza baldintzak antzekoak ziren gehiengoarentzat baina errealitate material horrek ez zuen berez ahalbidetzen klasean oinarritutako ekintza politiko antolatua. Langileen arteko lehiakortasuna, besteak beste, traba handia zen. Leialtasun sektorialak gaindituz eta konbikzio intelektualean oinarrituz, ez desesperazio hutsagatik, nabarmen handitu zen klase kontzientzia, nahiz eta langileen elkartasunak hainbat erronka eta maiz kontraesan izan zituen: kolonizazioa, nazioarteko gerra eta lan baldintzen heterogeneotasuna, besteak beste. Industria iraultzak

---

<sup>805</sup> Castel, 1997.

<sup>806</sup> Zuberok, 1994, 49-61 or.

<sup>807</sup> Cohen, 2001.

<sup>808</sup> Zuberok, 1994, 49-61 or.

gehiengoaren proletarizazio eta homogeneousazio prozesu sakona gauzatu zuen arren, inoiz ez zen izan langile klase homogeen, batu eta kontzientziaturik, heterogeneotasuna ez zen desagertu, baina langile mugimenduak ekintza kolektibo politikoaren bidez lortu zuen ezberdinkeria-aren aurka aurrerapauso handiak ematea.

Castel-en<sup>809</sup> arabera, soldatapekoek sakrifizio, sufrikario eta presio etengabeen bitartez progresiboki eskuratu zuten beren estatutua eta horrela murriztu zen Castel-ek indibidualismo negatiboa deitzen duenaren eragina. Lan harremanak gainditu egin zuen kontratu bidezko menpekotasun pertsonalizatua eta soldatapekoei oro har eta uniformeki aitortzen zitzaizkien eskubideen arabera izaten hasi zen soldatapekoen nortasuna. Desindibidualizazio prozesua zen, langilea erregimen orokorretan sartzen baitzuen. Lan kontratu autonomo eta indibiduala estatu kolektibo batean oinarritzen zen eta, halaber, estatutu hau orden publiko heteronomo eta kolektibo jakin baten menpekota zen. Langileak lan eskubideak eta babes sozialak zeuzkan erregulazio publikoaren bitartez. Ez zen tutoretza hutsa ezta kontratu soila ere, baizik eta zeregin komunetan oinarrituz egituratutako eskubideak eta elkartasuna. Soldaten gizar-tean, lan munduak ez du norbanakoen gizar-te bat osatzen baizik eta lanaren banaketan oinarritutako kolektibitateen estratifikazioa, zuzenbideak aitortzen duena. Lanetik kanpo ere bizitza testuinguru komunitarioen bitartez egituratzen da. Batik bat langile klaseak eraiki zituen intentsitate eta sendotasun handikoak izan zitezkeen soziabilitate formak. Norbanakoa indibiduo bezala bizi zitezkeen, pertsona *pribatua* zen heinean. Nork bere indibidualtasuna erosoago bizi du baldin eta baliabide objektiboek eta babes kolektiboek laguntzen badiote. Orduan estatutu profesionala publikoa eta kolektiboa zen eta horrek ahalbidetu zuen bizimoduaren egonkortzea. Estatutua onartua zegoen eta mugikortasun handia zeukan. Zuzenbideak gaina hartzen zion derrigortutako afilizioari. Baina estatutuak 1960ko hamarkadan goia jo zuenean, hondoratzen hasi zen.

### 5.3 Langile posfordista

Lanak gaur egun duen zentraltasunaz eztabaida handia dago, Morenok dioenez<sup>810</sup>. Bauman-en<sup>811</sup> arabera, adibidez, lana jadanik ez da nortasuna eta bizitza proiektua sendo eraikitzeko oinarria, ez du garai bateko zentraltasunik, ez da jendearentzako oinarri etikoa, ezta norbanakoarentzako oinarri etikoa ere. Aitzitik, Guy Aznar-ek<sup>812</sup> dioenez, enpleguaren zentraltasuna handia da gaur egun. Sennett-en<sup>813</sup> arabera, berriz, garai bateko zentraltasuna higatu zaion arren, enpleguak nortasuna eraikitzeko eta identifikaziorako ardatz izaten jarraitzen du gaur egun. Enplegua oraindik ere oinarritzakoa da nork bere buruarekiko errespetua bermatzeko. Ez dirudi lan eredu malguak lanaren etikaren izaera identitarioa gehiegi higatu duenik baina bai beste alderdi batzuegan eragina izan duela: esate baterako, narrazio luzeetako mugikortasunaren zentzua makaldu ahala ahultzen da denbora atzeratutako sariak jasotzeko aurreikuspenak ahalbidetzen zuen lanaren etika zaharraren diziplina boterea. Crespo-ren<sup>814</sup> arabera, lanari buruzko balorazioak galtzen ari dira garai bateko homogeneousotasuna. Lanaren etika anitz daude orain, mota askotakoak.

---

<sup>809</sup> Castel, 1997.

<sup>810</sup> Moreno, 2003.

<sup>811</sup> Bauman, 2003a, 149.

<sup>812</sup> Aznar, 1994.

<sup>813</sup> Sennett, 2006, 60 eta 155-158 or.

<sup>814</sup> Crespo.

Lanaren etikari buruzko hainbat diskurtso ezberdin agertu dira: esate baterako, lan baldintzen arabera bereizketa eginez gero, Crespok dioenez, lan baldintza erosoetan daudenek enpleguaren alderdi positiboak nabarmentzen dituzte eta, aitzitik, egoera okerragoetan daudenen artean iritziak oso fragmentatuta daude eta batzuen artean laneko autonomia falta eta koertzioa nabarmentzen dira. Moreno-ren arabera<sup>815</sup>, enpleguaren garrantzia oso handia da gaur egun ere eta gehiengoarentzat funtsezko euskarri ekonomikoa da, baina lanaren etika higatzen ari dela islatzen duten joera hauteman daitezke. Balioa ez da ugaltu baina kokapen berria dauka, erabateko hegemonia galdu du beste zenbait faktoreren aurrean.

Hardt eta Negri-k<sup>816</sup> diotenez, gaur egun ere lan indarra da gizartearen ardatz eratzaila. Lan indarrak eraikitzen du birtualitatetik errealera daraman pasabidea. Zilegiztatzearen euskarria da.

Castel-en<sup>817</sup> arabera, 1960ko hamarkadan soldatapekoaren estatutuak goia jo zuen eta harrezkero endekatzeari ekin zion, lanaren mundua nabarmen eraldatuz. Estatutua higatu ahala indartu egin da indibidualismoa. Ez die guztiei berdin eragin, batzuek eroso sentitzen baitira (klase ertainak aipatzen ditu Castelek), baina oro har indibidualismo negatibo eraldatu bat nagusitzen ari da, gabeziaren bitartez definitzen dena, ez interes subjektiboek gaina hartzen dutelako. Ziurgabetasuna da ezaugarri nagusia eta ez ni-a gurtzea. Kontratua ari da berriro bihurtzen lan harremanaren oinarria, ez estatutua, eta honek hartueman sozialen indibidualizaziora darama. Zeregin zehatzen arabera egiten da kontratua. Lan arloko zuzenbideak ere indibidualizazioaren bidea hartu du. Soldatapekoei estatutu eta nortasun sendoa ahalbidetzen dieten erregulazio orokorreki gaina hartzen diete gero eta gehiago lan kontratu mota anitzek, zereginera gero eta doituagoak, estatutu eta nortasun orokorraren kaltetan. Modu asko daude: kontratuak aldi baterako, behin-behinekoak eta partzialak, enpleguaren eta ez-enpleguaren arteko egoerak, eta abar. Gizarte hiperdibertsifikatu hauetan zatikatze arriskua oso handia da.

Boltanskik eta Chiapellok<sup>818</sup> diotenez, masan egindako ekoizpena eraldatu egin zuten, produktu eta zerbitzu anitzagoak, ez hain iraunkorrak eta azkar ordezkagarriak ekoizte aldera jotzeko. Baztertu egin zuten fordismoaren produktu estandarizatuen eredia. Lilura eta asperdura ziklo berriak eragin nahi zituzten ekoizpenaren dinamika berriarekin.

Castells-en arabera<sup>819</sup>, ekoizpena malgutzea izan da funtsezko ezaugarri berrietako bat.

Marazziren<sup>820</sup> arabera, eredu fordistan arau juridiko iraunkorrek babesten zituzten eskubide sozialak, teorian behintzat, baina eredu posfordistan merkatuaren gorabehera lotutako argumentazioak gaina hartu dio eskubideen printzipioei. Marazzik dioenez, eredu posfordistaren arabera, merkatuak agintzen duenean langileak fideltasuna eta obedientzia erakutsi behar ditu nahiz eta ziurgabetasuna arau bihurtu. Batik bat kontratu iraunkorrek lan egiten duen enpleguari fideltasuna eskatzen zaio enpresaren helburuekiko. Enpresaren *aldarte* gorabeheretara egokitzeko eskatzen diete langileei. Ondorioz, lan merkatuaren arau bidezko erregulazioaren

---

<sup>815</sup> Moreno, 2003, 231 or.

<sup>816</sup> Hardt & Negri, 2002, 326-327 or.

<sup>817</sup> Castel, 1997.

<sup>818</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 556-557 eta 562 or.

<sup>819</sup> Castells, 2001a, 33 or.

<sup>820</sup> Marazzi, 2003, 30 or.

ordez feudalismo industrial antzeko zerbait sartzen da indarrean, Marazziren arabera. Mirabe izaerako lan harremanetaranzko joera ekoizpen eredu posfordistan errotuta dago. Soldata gero eta gehiago hartzen da politika ekonomikora doitu beharreko aldagai bezala, shock makroekonomikoak eta egoeraren gorabeherak enplegatuen soldatek jasan beharra dituztela inposatu nahi den heinean. Marazziren arabera, soldatarentzako arau berriak ziurgabetasuna kudeatzeko funtsezko teknika dira. Soldatak indibidualizatu egiten dira eta norberaren lanpostu nahiz sektorearengandik bereizi egiten dira, gero eta gehiago norbanakoaren arabera erremunerazio bihurtuz. Honela lor daiteke lanpostu mota bakarrak soldata mota asko izatea. Honek guztiak etekinen banaketan ez ezik boterearen banaketan ere eragina du eta dominazio erraztu egiten du alde batetik.

Marazzik<sup>821</sup> dioenez, ekoizpen eredu berrian produktibitatea ez da hazten eskala ekonomien bitartez, ez da produktu gehiago ekoizten unitate bakoitzaren prezioa txikitu dadin. Produktu modelo ezberdin ugari serie txikiak ekoiztea da helburua, akatsik egin gabe, merkatuaren gorabeherari berehala erantzuteko asmoz. Serie luze estandarizatuak ekoizte beharrean produktu ezberdindu eta anitzak merkaturatzea da xede. Hori lortu ahal izateko kontsumitzaileen *gustu* aldakorra ezagutu behar da. Eredu honetan salmentek agintzen dituzte horniketa berriak eta bide batez ekoizpena. Enpresen miniaturazioa da bitartekoetako bat.

Sennett-en<sup>822</sup> arabera, enpresa eredu berrian egonkortasuna seinale txarra da, ahultasunarena, berritzeko gaitasun ezarena, aukera berriak aurkitzeko ahalmen falta, aldaketa kudeatzeko ezintasuna. Enpresa desegonkortzeko borondateak, berriz, seinale positiboa igortzen du, beti ere ereduaren jarraitzaileentzat.

Marazziren<sup>823</sup> arabera, Taylor injiniariak lan indar oso espezializatua eta atomizatua nahi zuen. Langile bakoitzak mugimendu berdina errepikatu behar zuen egun osoan zehar. Posfordismoan langile *eredugarriak* erritmo eta zeregin ezberdinetara egokitzeko gai izan behar du, balioaniztasuna izan behar du, informazio fluxua irakurtzen badakiena, komunikatzen lan egiten badakiena, Marazzik dioenez. Komunikazioa ekoizpenean sartzean, langilea makina linguistikoki bihurtzen da eta garrantzitsuagoa da langilearen datuak biltzeko gaitasuna (software) euskarria edo kapital fijo bano (hardware).

Negri-ren<sup>824</sup> arabera, fordismotik posfordismorako trantsizio garaia bizi dugu. Fordismoan botere diziplinatzaileak ziren nagusi: lanaren taylorizazioa, kontsumoaren soldata arloko sustapena eta kontrola forma fordisten bitartez harik eta politika keynesiarren forma makroekonomikoetan antolatzen diren arte. Aitzitik, gaur egun lana, iruditeria eta bizitza barne hartzen dituzten dispositiboaren bitartez gobernatzen da biztanleria.

Bauman-en<sup>825</sup> arabera, gaur egun autoritate mota ugari daude eta aniztasun honek higatu egiten du autoritatea. Gaur egun ez dago *Bulego Nagusirik* zuzena eta okerra bereizteko eta ondorioz mundua hamaika aukeren bilduma da. Norbanako batetik bizi ahal izango lituzkeenak baino

---

<sup>821</sup> Marazzi, 2003, 12-13 eta 17 or.

<sup>822</sup> Sennett, 2006, 40 or.

<sup>823</sup> Marazzi, 2003, 14-15 or.

<sup>824</sup> Negri, 2004, 84-85 or.

<sup>825</sup> Bauman, 2003a, 67 or.

askoz aukera gehiago daude munduan eta aukera horiek guztiek betetzen dute orain Bulego Nagusiak utzi duen espazioa.

Coriat-en<sup>826</sup> arabera, lanaren antolaketa berrietan oinarria ez dira lanpostu indibidual eta ez kualifikatuak, ezta beren lanpostuetan jagonduta dauden indibiduoak ere. Aitzitik, talde txiki autonomoetan lan egitearen printzipioa berreskuratu egiten da. Gainera, teknologia berriek jadanik ez dute zertan gertaera determinatuei erantzun behar, ausazko gertaerei erantzuteko ere prestatuta daude. Beraz, teknologia berriek langileen ekimen eta autonomia handia eskatzen dute. Halaber, lanaren antolaketa berriek *arintasuna* eskatzen dute, malgutasuna, lan eskua unean uneko baldintzetara egokitzeko gaitasuna. Azken batean, Coriat-en arabera, ekoizpen kate klasikoaren oinarriko printzipioak mantendu egiten dira (fluxu etengabearen ekoizpena eta lanaren banaketa) baina printzipio horiek gauzatzeko eredu ezberdinak erabiltzen dira. Coriat-ek hiru ezaugarri nabarmentzen ditu: a) fluxu etengabearen ekoizpena baina hainbat lan lekutan segmentatuta, bakoitzak bere biltokiak eta tresnak dituelarik; b) langile bakoitzak lanpostu bat eta lanpostu bakoitzak zeregin bakarria izan beharrean, langile talde bat da oinarri, baina lanaren kadentzia kanpotik ezarriko dute eta taldeak berak erabakitako moduan gauzatu du zeregina (autonomia kontrolatua); c) talde hauek menpekotasuna izango dute ekoizpenaren zirkulazioa (fluxu etengabea) bermatuko duen transportadore zentralarekiko.

Sennett-en<sup>827</sup> arabera ere, erakunde malguetan boterea erdigunean kokatua dago: erakundearen unitate zentralak ezartzen du zeregina, emaitzak epaitzen ditu, enpresa zabaldu eta estutu egiten du. Sennetten iritziz teknologia analitiko berriek kontrol panoptikoa ahalbidetu dute, teknokologia hauek pantailan islatzen baitituzte baliabide eta errendimendu mapan gertatzen ari diren unean bertan. Baina emaitza azkarrak eta malguak lortu ahal izateko autonomia maila bat ematen zaie taldeei eta era berean enpresaren barruan taldeen arteko barne merkatuak sortzen dituzte.

Boltanskik eta Chiapellok<sup>828</sup> diotenez, lan eredu berrietan autonomia printzipio formalen ardatz bada ere, autokontrola eta talde lana daude autonomiaren oinarrian eta, beraz, nork bere buruarekiko eta taldekideek elkarrekiko kontrola funtsezkoak dira eredu honetan. Halaber, merkatuaren esanetara lan egitea eta euskarri informatikoen ahalbidetzen duten kontrola ere kontuan hartzekoak dira. Ondorioz Boltanskik eta Chiapellok diote langileak lehen baino kontrolatuagoak daudela. Jagole zuzenen eskuhartzea txikiagoa da baina beste bitarteko batzuekin egiten den kontrol ikusezina oso zorrotza da.

Bonazzi-k<sup>829</sup> dioenez, lan eredu berrietan maiz ez da ikusten non dagoen borondatezko partaidetzaren eta nork bere burua ustiatzearen arteko muga.

Kontrol panoptikoaren osagarri, Arratibel eta Zubiriren<sup>830</sup> arabera, talde barneko kontrola sustatzen da, taldekideek elkar kontrola dezaten, baina kontrolaren egoera ideala autokontrola da, nork bere burua erabat kontrolatzea, baina ez norberaren erritmoari jarraitzeko baizik eta unitate

---

<sup>826</sup> Coriat, 2001, 150-172 or.

<sup>827</sup> Sennett, 2006, 48-49 or.

<sup>828</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 543-544 or.

<sup>829</sup> Bonazzi.

<sup>830</sup> Arratibel & Zubiri, 2004.

zentralak ezartzen dituen helburuei erantzuteko, norik bere baliabideak erabiliz baina epe eta helburu jakinekin.

Coriat-ek<sup>831</sup> dioenez, irizpide berrietan oinarrituz enpresek lanaren errendimenduan irabazi errealak lortzen dituzte, hainbat arrazoi tarteko: lana kateatzean gertatzen diren galerak ezabatuko dituzte, atsedenaldirako denbora txikitu egingo dute, desplazamenduak murriztu egingo dituzte, mugimenduak sinplifikatu eta manipulazioak laburragoak bihurtu, besteak beste. Horrez gain, langileak autoerregulazioa areagotzera bultzatuko dituzte, ondorengo zuzenketak murrizte aldera, kalitate kontrola kentzea ahalbidetuz. Halaber, ordezkapenak desagerrarazi egingo dira, taldeek izango baitute zeregina lortzeko ardura, ez indibiduoek, eta, beraz, taldea moldatu beharko baita kideak faltan izanik ere zeregina betetzen. Bestalde, unean uneko zereginari erantzun beharko diote langileek, aldiaren aldiko eskaeretara egokitu, batik batik serie txiki eta ertainetan eta batez ere produktu alternatiboetan.

Sennett<sup>832</sup>-ek Giza Baliabidetako zuzendari baten hitzak erabiliz honela laburbiltzen du langile posfordistaren kontrol ideala: menpekotasunik gabeko autodiziplina. Boterea eta autoritatea bereizi egiten dira. Botere gune nagusia unitate zentralean dago, honek jarraitzen baitu zereginak eta epeak ezartzen, baina autoritate irudi argirik ez da ageri. Ez dago boterea eta autoritatea hezuramitzen dituen rolik. Langileari zeregin zehatz bat ezartzen diote, epe jakin batean egin beharrekoa, merkatuari erantzuteko hori egin beste aukerarik ez dagoela argudiatuz, eta langileak zeregina bete behar du, ez dio nagusiari zuzenean erantzun behar.

Lanaren errendimenduari etekin handiagoa ateratzeaz gain, Sennett-ek<sup>833</sup> lanaren antolaketa modu berrien beste helburu osagarri bat nabarmentzen du. BBC telebista katean enpresa eredu berriranzko pausoak eman zituztenean adibidez, kanpo aholkularien irizpideei jarraiki, langile ugari mugitu zituzten trebatuta zeuden arloetatik ezagutzen ez zituzten arloetara, Sennett-ek dioenez, eta enplegatuen antsietateak gora egin zuen. Malgutasunaren bertsio honekin zer irabaz dezakete zuzendariek? Batetik, aholkularien presentziak seinale ideologiko bat igortzen die langileei: zuzendarien boterea eta ekimenetarako borondatea erakusten die. Bestetik, erabaki mingarrien ardura aholkularien esku uzten dute zuzendariek.

Coriat-ek<sup>834</sup> dioenez, bi helburuak funtsezkoak dira lana antolatzeko modu berrientzat: denboraren eta kontrolaren ekonomia berria sortzen dute. Lanaren intentsitatea eta autodiziplina handitu egiten dira eta ondorioz lan indarrari esleitzen zaion balioa txikituarazi egin daiteke. Egoera honetan ezegonkortasuna eta mugikortasuna izango dira langilearen ohiko ezaugarriak, Coriaten<sup>835</sup> arabera. Langileak behartuta ibiliko dira hainbat adar, kategoria eta lanpostua batetik bestera ibiltzen.

Beck-en<sup>836</sup> arabera, bigarren modernitateranzko trantsizioa gertatu da eta orain arriskuaren gizartea da nagusi. Segurtasun eza eta ziurgabetasuna dira gaur egungo gizartearen ezaugarriak

---

<sup>831</sup> Coriat, 2001, 150-172 or.

<sup>832</sup> Sennett, 2006, 56-57 or.

<sup>833</sup> Sennett, 2006, 52-53 or.

<sup>834</sup> Coriat, 2001, 176-178 or.

<sup>835</sup> Coriat, 2001, 202 or.

<sup>836</sup> Beck, 2000, 79 or.

behinenak.

Petras-en<sup>837</sup> arabera, ziurgabetasuna da langile belaundaldi berriaren ikurra. Kalean gelditzearen bildur dira, lan bat bukatzean hurrengoa ez aurkitzearen bildur, eta horrek goitik behera baldintzatzen du beren bizimodua. Egun batetik bestera kalean gelditzearen bildurra oso presente dago. Erraz ordezkia daiteke langile bat. Ondorioz, ahula eta gaizki tratatua izatearen sentimentua sortzea ez da zaila. Honek autoestima arazoetara ere bultza dezake.

Ziurgabetasuna da eredu hauetan ardatz, baina, Sennett-ek<sup>838</sup> dioenez, ziurgabetasuna ez da soilik merkatuen gorabeheren arabera. Erakunde eredu berriaren osagaia da. Burokrazia berri honetan ziurgabetasuna ez da eratorritako fenomeno bat, diseinu berria bilatu duen osagaia baizik. Arriskua langile posfordistarentzat balio dominatzaile bihurtu izan balitz, espero beharko genuke aldi baterako enplegatuen estatusa handitu egingo zela, Sennett-ek<sup>839</sup> dioenez, baina bere ikerketetan ikusi ahal izan du langileek ia salbuespenik gabe desio dutela goiz-berandu egonkortasuna lortzea, nahiz eta hastapenetan mugikortasun handiko zenbait langile gustura dauden horrelako enplegetan.

Bauman-en<sup>840</sup> arabera, ziurgabetasuna etengabea denean eta hala hautematen denean, munduan egotea ez da ikusten ekintza logikoen kate bezala, ez da ekintza iraunkor, sendo eta metatzaileen jarraipena, ez daude arauak lotuta eta ez diete arauak erantzuten. Aitzitik, munduan egotea kanpo faktore aldakor eta aurrenezinez menpekotasunean bizitzea da eta pentsatu daitezkeen egitasmoak behin-behinekoak, malguak eta iragankorrak izateko joera dute, epe motzera pentsatzera mugatzeko joera dute. Epe luzerako ikuspeirik gabe, ahaleginek emango duten emaitzarekiko konfiantzarik gabe, zentzu handirik ez du solairuz solairu lan handia eta iraunkorra egitea, zentzua galtzen du epe luzerako logikak. Orainaldia gutxiago kontrolatu ahala eskasagoa izango da etorkizuna planifikatzeko aukera. *Etorkizuna* deitzen den denbora epea murriztu egiten da eta bizitza baten iraupena zatikatu egiten da hainbat ataletan, unean unekoa egitera mugatuz. Jarraikortasuna ez da jadanik perfektioaren adierazle. Garapenaren izaera, metatzailea eta epe luzerakoa izan zen baina gaur egungo logika, Baumanek modernitate likidoa deitzen duenarena, fragmentarioa da eta unean uneko egoerak eskatzen duenari erantzuteko joera du. Bizitzaren atal bakoitzaren bertuteak frogatu egin behar dira eta hurrengo atalera pasa aurretik erabat kontsumitu. Malgutasuna ardatz, bizitzarako estrategiak eta egitasmoak epe motzerako besterik ezin dira izan. Honen guztiaren ondorioz, fragmentazioa gero eta handiagoa izango da. Ziurgabetasuna indar individualizatzaile boteretsua da. Batu beharrean banatu egiten du. Interes komunaren kontzeptua gero eta lausoagoa da. Elkartasuna nekez agertzen da.

Ekoiaren sistema honek estresa eta angustia maila handiak eragiten dizkie langileei, Sennett-en<sup>841</sup> arabera. Horrez gain, langileen fideltasuna erakundearekiko txikitu egiten da, langileek elkarrekiko konfiantza informal ahulagoa dute eta langileek erakundeari buruz duten ezagutza txikitu egiten da. Sennett-en arabera, kapital soziala txikitu egiten da baldin eta jendeak ikusten badu bere konpromisoak kalitate txikikoak direla eta, alderantziz, kapital soziala handitu egiten da bere

<sup>837</sup> Petras, 1996, 33 eta 55 or.

<sup>838</sup> Sennett, 2006, 160 or.

<sup>839</sup> Sennett, 2006, 69-70 or.

<sup>840</sup> Bauman, 2003a, 147 eta 158 or.

<sup>841</sup> Sennett, 2006, 49, 58 eta 60 or.



konfiantza eta konpromisoa handitu ahala. Leialtasun gabeziak areagotu egiten du langilearen estresa eta arazoa okertu egiten da lan orduak luzatuz gero.

Badirudi honek guztiak eragina duela gazteen estrategietan. Sennett-ek<sup>842</sup> Michael Laskaway-ren ekarpenean oinarrituz azaltzen du garai eraldaketarekin batera aldatu egin dela ibilbide profesionalak planifikatzeko modua. 1970eko hamarkadako eta gaur egungo unibertsitateko ikasleak aztertzean ondorioztatu du bi garaietan direla anbiziotsuak eta biek dutela ikasketa maila ona baina ezberdintasuna beren anbizioak bideratzeko era da: 1970eko hamarkadakoek epe luzerako irabazi estrategikoen terminoetan pentsatzen dute, artean gaur egungoek berehalako egitasmoen terminoetan pentsatzen dutelarik.

## 5.4 Informazioa, materiaren hirugarren dimentsioa

Bauman-ek<sup>843</sup> dio ideiak direla gero eta gehiago gaur egun etekinen iturri garrantzitsuena, batik bat etekin handiena eta etorkizuneko kapitalarena, eta ez objektu materialek ez dutela garai batean izan zuten zentraltasuna.

Hardt eta Negri-ren<sup>844</sup> arabera, 1960 eta 1970eko hamarkadako borroka sozialek erreproduzio kostuak handitzeaz gain lanaren kalitatea eta izaera aldatzera behartu zuten. Jarduera produktiboen balio soziala handitzea ahalbidetzearekin batera sormenaren dinamika malguagoak eta ekoizpen forma inmaterialagoak balioetsi zituzten, besteak beste ikasle mugimenduak ezagutza eta lan intelektualari balio sozial handiagoa ematera behartu baitzuten.

Negri-k<sup>845</sup> dioenez, 1970eko hamarkadan lan prozesuak sakon eraldatzen hasi zirenean, lan material zuzenki produktiboa bere zentraltasuna galtzen hasi zen ekoizpen prozesuan. Batzuek *kapitalismo kognitiboaren* aroari ekin zitzaiola diote, kapitalismoaren hirugarren trantsizioa: manufakturaren eta industria handiaren aroak gaindituz, jarduera sozial orokortuaren baitatik hartzen ditu balioa sortuko duten osagai berritzaileak. Enpresak bere baitan ez dauden sare sozialez gero eta gehiago baliatzen saiatzen da. Testuinguru honetan, Hardt eta Negri-ren<sup>846</sup> arabera, ekoizpen lana gero eta inmaterialagoa da. Superabitaren eragile bezala lekua galtzen ari dira fabriketako langileak eta haren ordez progresiboki lan indar intelektual, inmaterial eta komunikatiboa ari da pisua irabazten. Aberastasun soziala gero eta inmaterialagoa da: harreman sozialak, komunikazio eta informazio sistemak eta sare afektiboak barne hartzen ditu. Hardt eta Negri informazioaren metaketak betetzen duen rol nagusia nabarmentzen dute. Honek lehengo ekoizpen prozesuak bere sareetan integratzen ditu eta ondorioz hainbat ekoizpen eremutan produktibitate maila handienak eragiten ditu.

Hardt eta Negri-ren<sup>847</sup> arabera, sistema ekonomiko orotan hainbat lan forma ezberdin izaten dira aldi berean, baina beti langile eredu batek besteen gaineko hegemonia izan ohi du. Eredu

---

<sup>842</sup> Sennett, 2006, 71-72 or.

<sup>843</sup> Bauman, 2003a, 161 or.

<sup>844</sup> Hardt & Negri, 2002, 254-255 or.

<sup>845</sup> Negri, 2004, 55 eta 76-77.

<sup>846</sup> Hardt & Negri, 2002, 42-43 eta 240.

<sup>847</sup> Hardt & Negri, 2004, 135-141 or.

hegemoniko honek gainerakoekiko eragin zentripetua izaten du, zeren gainerakoek progresiboki eredu hegemonikoaren ezaugarri nagusiak bereganatzen baitituzte. Eredu hegemonikoa ez da kuantitatiboki nagusi. Bere nagusitasuna gainerakoak eraldatzeko gaitasunean datza. Zentzu honetan hegemonia hitzak joera iradokitzen du. XIX. eta XX. mendeetan fabriketako lana hegemonikoa izan zen ekonomia globalean nahiz eta kuantitatiboki ez zion utzi beste ekoizpen forma batzuekiko gutxiengo izateari, nekazaritzarekiko kasu. Industria hegemonikoa zen, gainerako lan formekiko erakarpen indar zentripetua zuelako: nekazaritza, meatzaritza eta, are gehiago, gizartea oro har industrializatzen behartuta egon ziren. Praktika mekanikoez ez ezik lan industrialaren bizi erritmoak eta ordutegiak ere gainerako erakunde sozial guztiak progresiboki eraldatu zituzten (familia, eskola eta ejerzitoa, besteak beste).

XX. mendeko azken hamarkadetan fabriketako lanak hegemonia galdu zuen eta bere ordean *lan inmateriala* gailentzen hasi zen, produktu inmaterialak ekoizten dituen lana alegia (ezagutza, informazioa, komunikazioa, harremana edo erantzun emozionala ekoizten ditu, besteak beste), Hardt eta Negri diotenez. Ekoizpen inmaterialan esku hartzen duen lanak materiala izaten jarraitzen du, gure gorputz eta burmuinak baititu oinarri, beste edozein lan motan bezala, baina bere jardunaren emaitza, bere produktua, inmateriala da. Baina Hardt eta Negri esaten dutenean lan inmateriala posizio hegemonikoa hartzen ari dela, ez dute esan nahi gaur egun langile gehienek produktu inmaterialak ekoizten dituztenik. Aitzitik, azken mende luzeetan bezala kuantitatiboki nekazaritza lana da nagusi. Halaber, mundu mailan industriako lanak kuantitatiboki ez du behera egin. Lan inmateriala lan globalaren zati txiki bat baino ez da eta, gainera, munduko zenbait eremu dominatzailetan kontzentratua dago. Hortaz, Hardt eta Negri lan inmaterialaren nagusitasunaz hitz egiten dutenean, hegemonia kualitatiboaz ari dira, gainerako lan formak eta gizartea oro har eraldaketara daramaten joeraz alegia. Industrializazio prozesuan lan forma guztiak eta gizartea oro har industrializatzerantz jo zuten bezala, gaur egun lana eta gizartea informatizatzen ari dira, intelektualizatzen, eta komunikazio eta afektu forma berriak hedatzen ari dira.

Hardt eta Negri-k diotenez, lan inmaterialaren hegemoniak ez du esan nahi lana atseginagoa edo asetzaleagoa bihurtzen ari denik, ezta lan eremuan hierarkizazioa, polarizazioa eta autoritarismoa murrizten ari denik ere. Fordismotik posfordismorako trantsizioan enplegu eredu egonkorra eta epe luzerakoa izatetik malgu, mugikor eta prekario izatera pasa da.

Marazzi-ren<sup>848</sup> arabera, lanean ematen diren zerbitzuak gero eta gehiago gauzatzen dira pertsonen arteko harremanetan. Hardt eta Negri-k<sup>849</sup> diotenez, lan inmaterialaren ezaugarri behinenak komunikazioa, harreman sozialak eta lankidetzak ekoiztea dira.

Marazzi-ren<sup>850</sup> iritziz komunikazioa eta, beraz, hizkuntza ekoizpenaren eremuan sartzeak ahalbide du paradigma aldatzea, fordismotik posfordismora igarotzea, masa kontsumotik ekoizpen eta banaketa malgura. Komunikazioak eta ekoizpenak bat egiten dute eredu berrian, prozesu bera dira, artean fordismoan komunikazioa ekoizpen prozesuari atxikirik zegoelarik. Eredu fordistan komunikazioa ekoizpen prozesuan zuzenean sartzen zenean, traba egiten zuen

---

<sup>848</sup> Marazzi, 2003, 37 or.

<sup>849</sup> Hardt & Negri, 2004, 143 or.

<sup>850</sup> Marazzi, 2003, 7-12 or.

edo bestela desorekatzailea zen. Eredu posfordistean, berriz, komunikazioak balio produktiboa dauka zuzenean.

Hardt eta Negri-ren<sup>851</sup> arabera ere informazioa gero eta errotuagoa dago gaur egungo ekoizpen prozesuetan eta komunikazioa, berriz, egoera berriaren euskarri garrantzitsuenetakoa da. Botereak ekoizten duenean, antolatu egiten du; antolatzean, hitz egin eta autoritatez adierazten du bere izaera; hizkuntzak komunikatzen duenez, merkantzia sortzen du eta aldi berean subjektibotasunak sortzen ditu, elkarren artean harremanetan jartzen eta ordenatzen ditu. Ekoizpen komunikatiboa eta legitimazioa eskutik doaz, baina baita eremu sozial ororen ekoizpena ere.

Lanaren eremuan ere hala da Hardt eta Negri-ren<sup>852</sup> arabera, eredu fordistatik toyotistara errotik aldatu da ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko harremana. Eredu fordistan harremana *mutua* zen: merkantzia estandarizatuaren ekoizpen masiboak eskari egokia zuen eta, beraz, ez zion merkatuari *entzun* beharrik. Haatik, toyotismoan ekoizpenaren planifikazioa etengabe eta hurbiletik dago komunikazioan merkatuekin: fabrikek zero stock izatea dute helburu eta, hortaz, merkatuen unean uneko eskariaren arabera ekoizti behar dute. Hartueman jarraia izatea da xedea. Komunikazioak eta informazioak inoiz izan ez duten berebiziko garrantzia dute orain. Izan ere, zerbitzu gehienak informazio eta ezagutza elkartruke etengabe oinarritzen dira.

Hardt eta Negri-k *lan inmaterial* bezala definitzen dute zerbitzuen ekoizpen sektorean egiten den lanaren zati handi bat, lanaren emaitzak ez materialak eta ez iraunkorrak direlako. Jarduera hauen artean daude arazoak konpontzea, arazoak identifikatzea eta negoziazio estrategikoak egitea, besteak beste. Hardt eta Negri hiru lan inmaterial mota bereizten dituzte:

- 1) Informatizatu eta komunikazioaren teknologia bere egin zituen ekoizpen industrialeko lan inmateriala.
- 2) Jarduera analitikoaren eta sinbolikoaren lan inmateriala. Bi azpimultzotan banatzen da: batetik, manipulazio sortzailea eta intelektuala eta, bestetik, errutinazko jarduera sinbolikoak.
- 3) Afektuen ekoizpen eta manipulazioaren lan inmateriala da. Gorputzezkoa eta afektiboa izanik ere, produktu intangibleak ekoizten ditu: erosotasun sentimenduak, ongizatea, asetasuna, emozioa edo pasioa. Harremana erreala edo birtuala izan daiteke, aisialdiaren industrian bezala.

Marazzi-ren<sup>853</sup> arabera, eredu posfordistak mirabe izaerako lan harremanak ezartzeko joera du eta euskarri linguistiko-komunikatiboa ezinbestekoa da horretarako, prozesu ekonomiko osoa euskarri honek harilkatzen duelako. Euskarri baino baliabidea da, ekoizpenaren baitan dagoena. Eredu posfordistak komunikazioa partekatzea sustatzen du batetik, baina bestetik komunikazioa banatu, hierarkizatu, segmentatu eta pribatizatu egin nahi du, nahiz eta baliabide publikoa den. Marazziren<sup>854</sup> arabera, eredu posfordistak datu base bat bailitzan antolatu nahi du enpresa, trabarik gabeko komunikazio linguistikoaren bitartez bere buruaren gain eragiteko gaitasuna duen erakundea bihurtuz, komunikazioaren fluxua oinarri, interfaz bat balitz bezala.

<sup>851</sup> Hardt & Negri, 2002, 46-47 or.

<sup>852</sup> Hardt & Negri, 2002, 269-273 or.

<sup>853</sup> Marazzi, 2003, 37 or.

<sup>854</sup> Marazzi, 2003, 23 or.

Castellsen iritziz<sup>855</sup> ekonomia informazional-globala ekonomia industrialarekiko ezberdina da baina ez da logika industrialaren kontrakoa. Industrialismotik informazionalismorako jauzia ezin da parekatu nekazaritza ekonomietatik ekonomia industrialerako trantsizioarekin. Ekonomia informazionalan nekazaritza informazionala, industria informazionala eta zerbitzu informazionalak daude. Sektoreak ez dira aldatu. Ez da informazioan oinarritutako sektore berri bat agertu, ez behintzat hiru sektoreen zentzuan. Ekonomia informazionalan informazioa sektore guztietara zabaldu da eta beren dinamiketan eragiten du. Beraz, ez dira giza jarduerak aldatu. Jarduera hauetan informazioa erabiltzeko gaitasuna aldatu da. Gizakia animalia bitxia da, gainerako animaliek ez baitute sinboloak prozesatzeko halako gaitasunik. Bada, orain ekonomia informazionalan doain hori nabarmen handitu da.

Preciado-k<sup>856</sup> farmakopornografia deitzen duen horri buruz, Hardt eta Negri lan inmateriala deitzen dutenaren antzekoa litzatekeenari buruz, Preciadoren arabera ezin da esan inmateriala dela. Preciadok dio dei lekiokela *übermaterial* (supramateriala), teknomateriala edo hipermateriala, bere euskarria biologikoa baita, molekularra, aldi berean haragizkoa eta zenbakizkoa, ezinbestean sinaptikoa eta digitalizagarria, eta Preciadok dio lan horren emaitza oso materiala dela. Preciadok lan pornografikoren paradigma erabiliz esaten du lan horren emaitza *hazi litroetan* neur daitekeela.

Preciadok dioenez, Negri eta Hardt kapitalismo garaikidearen forma konplexuak aztertzen ari direlarik, Foucaulten *ekoizpen biopolitika* kontzeptua erabiltzen dutenean, beren analisiak gelditu egiten dira gerrira iristen direnean. Preciadoren arabera, kapitalismoa garaikidearen lan eredu hegemonikoa ez da Hardt eta Negriren lan inmateriala, ez behintzat Hardt eta Negri ematen dioten izen eta izaerarekin behintzat. Preciadok dio kapitalismo postfordistan gerraren enpresa globalarekin batera industria nagusiak industria farmazeutikoa (bai aparatu zientifiko medikuaren eta kosmetikoaren luzapen farmakologiko bezala, bai ilegaltzat diren drogen trafiko bezala) eta industria pornografikoa direla eredu hegemonikoak. Hipotesi ausarta dela gaztigatuz, Preciadok dio ekoizpen prozesu garaikidearen lehengaiak exzitazioa, erekzioa, hazi isurketa, plazera, eta autokonplazentzia eta kontrol ahalguztidun sentsazioa direla. Kapitalismo garaidearen benetako motorra subjektibotasunaren kontrol farmakopornografikoa da, Preciadoren arabera, horren produktu direlarik serotonina, testosterona, antiazidoak, kortisona, antibiotikoak, estradiola, alkohola, tabakoa, morfina, insulina, kokaina, sinedofil zitratoa (Viagra) eta horrekin batera exzitazioa, lasaitasun eta deskarga, ahalguztidun eta erabateko kontrol egoera mentalak eta psikosomatikoak ekoizten lagundu dezakeen edozein eragile material nahiz birtual.

Preciadoren arabera, biokapitalismoa farmakopornografikoak ez ditu gauzak ekoizten. Ideia mugikorrek ekoizten ditu, organu bizidunak, sinboloak, desirak, erreakzio kimikoak eta arimaren egoerak. Bioteknologian eta pornokomunikazioan ez dago ekoizti beharreko objekturik. Helburua subjektu bat asmatzea eta maila globalean ekoiztea da. Preciadok errejimen sexopolitiko diziplinarioa deitzen duenaren jagoletza eta kontrol dispositibo erreflexiboak progresiboki miniaturizatu, internalizatu eta barrurantz begira jarriko dira, intimoztat hartzen den eremurantz. Mikrokontrolerako teknologia bigun hauek kontrolatzen duten gorputzaren forma hartzen dute, gorputz bihurtzen dira, harik eta gorputzarengandik bereiziez bihurtzen diren arte, harik eta

---

<sup>855</sup> Castells, 2001a, 134 or.

<sup>856</sup> Preciado, 2008.

subjektibitate bihurtzen diren arte. Gorputza ez da leku diziplinarioetan bizi, haiek gorputzarengan bizi dira, bere egitura biomolekular eta organikoa da kontrol sistema hauen azken baliabidea.

Halaber, Preciadok kritikatu egiten du lanaren *feminizazio* kontzeptua, baldin eta ez bazaie prekarizatutako langile guztiei (gizonezko nahiz emakumezkoen, bio- nahiz tekno-) *emakume* deitzen.

Testuinguru honetan, eremu ezberdinen arteko lotura gero eta estuagoa den mundu honetan, lausotzen ari da bizitza pribatuaren eta bizitza profesionalaren arteko bereizketa, Boltanski eta Chiapelloren arabera<sup>857</sup>. Bi arrazoi dira medio. Batetik, norbanakoaren ezaugarrien eta lan indarraren arteko lotura handitzen ari da, bietan ageri delarik konpetentzia. Bestetik, norberaren jabetzen (eta horien artean dago nork bere buruaren ondarearen jabe izatea) eta jabetza sozialaren (erakundeak daukanaren) artean. Honenbestez zaila da bizitza pribatuaren denbora eta bizitza profesionalaren denbora bereiztea, lagunarteko afariak eta negozio bazkariak bereiztea, lotura afektiboak eta harreman erabilgarriak bereiztea. Esate baterako, hurbileko adibide bat jartzearen, DBHko irakasle bat zinema areto batera *Entre les murs* (gaztelaniaz *La clase*) pelikula ikustera doanean, esperientzia horrek ez dio soilik bizitza pribatuari eragiten, baina irakasle hori bera lagunartean ikastetxeen egoeraz eztabaidan aritzen bada, esperientzia horren eragina eremu pribatura nahiz profesionalera iritsi daiteke.

Honenbestez, Marazzik<sup>858</sup> dioenez, eskubide berdinak dituzten eta lanean denbora berdina ematen duten langileen artean kualitatiboki lan gehiago egiten duten langileak daude, norberaren historiak, sentsibilitateak eta gaitasunak baldintzatuta, azken finean botere harreman asimetrikoen ibilbideak eraginda. Fenomeno hau nabarmenagoa da posfordismoan.

Marazziren<sup>859</sup> arabera, eredu posfordistan *lan biziduna* gero eta garrantzitsuagoa da, hain zuzen ekoizkina bere ekoizletik banaezina den lana. Bere baitan gauzatzen den lan mota da hau. Horrelakoak dira pertsonen zerbitzua emateaz arduratzen diren lanak eta gero eta gehiago hedatzen ari da jarduera erlazionalen forma hartuta. Lan bizidunaren kopurua handitzen ari da. Makineriak (kapital iraunkorrak) barne hartuta daraman zientziak ahalbidetzen du lanaren alderdi industrial desagerraraztea, hain zuzen lan materiala, exekutiboa eta mekanikoa desagerraraztea. Lana intelektualizatu egiten da, gero eta gehiago bihurtzen da adimenaren arlokoa, baina ez dio uzten lan bizidun neketsua izateari. Lan komunikatibo-erlazionalak eragiten duen nekea fisikoa ez ezik burukoa ere bada, eta hala erakusten du lan estresari lotutako eritasunen hedapenak. Arlo honetan lan pertsonala garrantzitsuagoa da makineria (kapital iraunkorra) baino. Gaitasun kognitiboa handitzeak (testuinguruaren zeinuak eta informazioa interpretatzeak eta lan bizidunean islatzeak) hobetzen du lanaren eraginkortasuna.

Izan ere, informazioa materiaren dimentsio berri bat da, Marazziren<sup>860</sup> arabera. Informazioa ez da masa ezta energia ere. Informazioa informazioa da, materiaren hirugarren funtsezkoa dimentsioa. Ekoizpen teknologia berrien oinarria da. Informazioa informazioa dela esatean, tautologia

<sup>857</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 235 or.

<sup>858</sup> Marazzi, 2003, 54 or.

<sup>859</sup> Marazzi, 2003, 57-58 or.

<sup>860</sup> Marazzi, 2003, 61 or.

produktibo bat esatean ari gara, makineria linguistikoa ahalbidetzen duten arau, sintaxi eta azken batean softwarearen arabera.

Marazziren<sup>861</sup> arabera, produktu edo zerbitzu baten balioa ekoizpen prozesu guztian zehar lortzen da. Ekoizpena ez da lantokian hasten eta bukatzen. Balio ekonomikoa handitzen duen heinean, langilea lantokira iritsi aurretik hasten da produktibitatea. Enpresen balio intelektualari dagokionez, jakintza aldi berean da materia intelektuala eta erlazionala, edukia eta kultura. Beraz, ekoizpen prozesuan ematen den lan jarduera ezin da irizpide tradizionalekin neurtu. Ez da baliagarria aldagai andanak osatutako mapa erraldoi bat osatzea. Marazzik dioenez, produktibitatearen definizio klasikoak dagoeneko ez du zentzurik; hots, ez dela baliagarria pentsatzea produktibitatea neurtzeko bukatutako produktuen balioak ekoizpen faktoreen kostarekin duen harremana neurtu behar denik. Produktibitatea ezin da neurtu lantokian lan egindako orduetan ekoiztutako produktuen arabera.

Marazziren arabera, *kogniteria* bezala itzul dezakegun ekoizle mota berri bat hedatzen ari da. Beren lana zuzenean ezartzen duen aginte gunea ez da lan biziak kanpoko makina bat, baizik eta teknologia gero eta mentalagoa, sinbolikoagoa eta komunikatiboagoa. Kapital iraunkor berriak, biziaren gain agintzen duen makineria berriak, sustatzen du langilearen ekoizpena. Makineria berria ezin da fisikoki identifikatu eta kokatu, tradizionalki egin den bezala. Gero eta gehiago kokatzen da langilearen baitan, bere adimenean, bere izaeran. Kapital iraunkor berriaren oinarria harreman sozialak dira, bizitza oro har. Informazioa ekoizteko eta lortzeko moduak lan indarrean jalkitzen dira eta ekoizpen prozesuan zehar pizten dira. Ekoizpenaren bitartekoak inmaterializatzen diren heinean, gaitasun kognitiboa haztea ahalbidetzen duten baliabide soziokulturalak espzializatu egiten dira. *Kogniteria* eraikitzea ahalbidetzen dute, posfordismoaren ekoizle inmaterialen klasea. Edozein testuinguru izan daiteke kapital iraunkor zeren lan biziarekin harremanetan sartzean produktibo eta ondorioz lehiakor bihurtzeko. Izan ere, giza baliabide intelektuala da balioaren benetako oinarria, baina enpresarentzat ezerezean gelditzen da baldin eta enpresak ez badu bere egiten, baldin eta ez badu ezagutza dena jabetza bihurtzen.

Hortaz, Marazziren arabera, produktibitateak faktore multzo bat neurtzen du. Faktore hauek eremu sozio-espaziala ezaugarritzen dute eta langile isolatua baino askoz gehiago dira. Testuinguru langilearen bitartez edo langilea testuinguruan oinarrituz bihurtzen da aberastasunaren sortzaile, kolektibotasun baten kide den heinean. Jakintza, modu gero eta informagoetan hedatzen eta pilatzen da. Kolektibotasunaren inbertsio estrategiak eta sustapenak gero eta gehiago bideratzen dira makineria soziokulturala handitzera. Kolektibotasunak gero eta nabarmenago aitortzen du kapital kognitiboak, identitarioak, lan bizidunarekin harremanetan sortzen duela aberastasuna.

Marazzik dioenez, oro har salmenta unean neurtzen dira lehenengoz ekoizpen prozesuan zehar azaleratu diren giza baliabideak. Dirutan neurtzen dira hain zuzen. Diruak merkantzia bihurtzen ditu giza baliabideak. Baina, Marazziren arabera, ez dirudi ekoizpen prozesuen jauzi linguistikoak soldaten negoziazioen jauzirik ekarri duenik. Ez dira kontuan hartzen ahalegin logistiko guztia, baliabide kognitiboen erabilera, lan eta esperientzia ordu guztiak eta lan prozesuan

---

<sup>861</sup> Marazzi, 2003, 64-71 eta 96.

erreziklatzearen kosteak, besteak beste. Barne autoustiaketa antzeko zerbait eragiten du honek guztiak, Marazziren arabera.

Nolanahi ere, Marazzi arabera, lan posfordista inmateriala, sinboloen, datuen eta hitzen manipulazioaz arduratzen dena, aldaketa handi baten zati bat besterik ez da. Oso esanguratsua da, batik bat joera berriaren ezaugarriak nabarmen agertzen direlako bere baitan. Baina lan komunikatibo-erlazionalaren parametroetan dabiltzan jarduera askoz gehiago daude eta hauek guztiek osatzen dute diziplina posfordistaren zutabeetako bat. Jarduera komunikatibo-erlazionala ekoizpen-banaketa-berrekoizpen zirkuito osoan zehar hedatzen da. Jarduera anitzetan gauzatzen da, zaharretan nahiz berrietan, inmateriala nahiz artisauetan, teknologikoki aurreratuetan nahiz tradizionala, linguistikoetan nahiz exekutibo eta mutuetan.

Hardt eta Negri-ren<sup>862</sup> arabera, biobotereak barne hartzen ditu intelektualak eta gorputzezkoak diren gaitasun produktiboak. Izan ere, botere produktiboak erabat biopolitikoak dira. Ekoizpena ez ezik erreproduzioa ere barne hartzen dute. Inteligentzia eta afektua oinarrizko botere produktibo bihurtzen direnean, ekoizpenak eta bizitzak bat egiten dute, bizitza ez baita ekoizpena besterik eta erreproduzioa gorputz eta burmuin multzoa baita. Bizitza dagoeneko ez da ekoizten lanaldiaren menpeko erreproduzio zikloetan. Izan ere, lanaren eta ekoizpenaren balioa bizitzaren baitan determinatzen dira. Bizitzaren zabaltasunean datzanez, balioa neurri oroz kanpo dago. Negri-k<sup>863</sup> *multitude* deitzen duen hori da gaur egungo lan indarra, jendea bere orokortasunean da lan indarra. *General Intellect* delakoaren garaian ez du kapitalak inposatzen lankidetzaren produktiboa. Lan indar inmaterialaren berezko ezaugarria da. Adimenaren lana ezinbestean izan behar da kooperatiboa. Lan linguistikoa soilik modu kooperatiboan adieraz daiteke.

Testuinguru honetan, Negri-ren<sup>864</sup> arabera, enpresa gero eta gehiago saiatzen da bereak ez diren sare sozialak baliatzen. Kapitalismo kognitiboa testuinguru sozial orokorrean dauden osagai berritzaileak bereganatu egin nahi ditu enpresarentzat balioaren sortzaile izan daitezkeen. Beraz, enpresak indartu egin behar du jabetze pribaturako gaitasuna, lan kognitiboaren fluxu sozialak bereganatu ahal izateko. Enpresak bere ekoizpen prozesu zuzenetik kanpo dagoen aberastasun soziala bereganatzen duenean, enpresak ez du lehengai hau kontsumitzen. Aitzitik, enpresaren ekoizpen prozesu zuzenean barnerarazten denean, fluxu soziala ekoizpenarekin batera handitu egiten da, areagotu egiten da lankidetzaren bolumena.

Hardt eta Negri-ren<sup>865</sup> arabera, lana lantokiaren mugetatik haratago hedatzen den heinean, gero eta nekezagoa da lanaldiaren neurketaren fikzioari eustea. Gero eta zailagoa da ekoizpenerako denbora erreproduktiborako denboratik bereiztea edo lanerako denbora aisialditik bereiztea. Erlojuek ezin dute neurtu ekoizpen biopolitikoak. Langileek beren orokortasunean eta egun osoan zehar ekoizten dute. Lana, Hardt eta Negri-k<sup>866</sup> diotenez, intelektu eta gorputz orokorren jarduera produktiboa da eta neurri oroz kanpo dago. Negri-ren<sup>867</sup> arabera, Marxek eta ekonomia klasikoak erabili zuten balioaren legea lanaren antolaketaren garai bati dagokio, hain zuzen lan egindako

---

<sup>862</sup> Hardt & Negri, 2002, 332-333 or.

<sup>863</sup> Negri, 2004, 78-79 eta 117 or.

<sup>864</sup> Negri, 2004, 77 eta 205 or.

<sup>865</sup> Hardt & Negri, 2002, 365 or.

<sup>866</sup> Hardt & Negri, 2002, 327 or.

<sup>867</sup> Negri, 2004, 50 or.

denbora unitateetan oinarrituz lana neur zitekeen garaia. Negri<sup>868</sup> dioenez, balorazio prozesuen dimentsio inmaterial eta zientifikoak jarduera produktiboaren hainbat sektorerekin hibridatuta agertzen dira, lana hainbat osagaien kimikaz eratuta balego bezala (intelektuala, materiala, antolakuntzakoa, artistikoa, ikerketakoa, kontsumokoa, erreproduktiboa eta abar). Lanaren balioa forma biopolitikoan agertzen denez, Negriren arabera, balioa ezin da neurtu denbora kopuruetan oinarrituz, zeren bizitzea eta ekoiztea gauza bera bihurtzen ari baitira, bizitza eta ekoizpena gero eta gehiago hibridatzen ari baitira.

Negri-ren<sup>869</sup> arabera, lan denbora jadanik ez da oinarri egokia lanaren eremuan edozein hurrenkera ezarri ahal izateko. Lan denbora eta denbora hori neurtzeko irizpideak gaur egun ez dira ekoizpenaren osagai zentralak, ez dira ekoizpenaren kuantifikaziorako baliagarriak. Dagoeneko lanaldia ezin da soilik langileak lantokian ematen duen denbora izan. Lehen merkantzia bat ekoizteko hainbat orduko lan sinplea ezinbestekoa bazen (ilusio naturalista hau ere) edo merkantzia kopuru handiagoa ekoizteko lan masa handitu behar bazen, gaur egun ekoizpenaren hazkundera jarduera intelektualetan oinarritzen da, asmakuntza zientifikoaren indar produktiboan, eta batik bat materia eraldatzeko jardueretan egiten den zientziaren eta teknologiaren aplikazio estuan. Ondorioz denbora produktiboaren funtzioa erabat aldatu dela diote Hardt eta Negri. Esate baterako, ekoizpenean emandako denbora baino garrantzitsuagoa da heziketan eta trebakuntzan egindako denbora.

Edonola ere, Negri<sup>870</sup> dioenez, honek ez du esan nahi ustiapena desagertu denik. Gaur egun partekatua dena suntsituz eta lankidetzaren emaitzez jabetuz agertzen da ustiapena. Kapital kolektiboa lana segmentatzen eta hierarkizatzen saiatzen da, ekoizpen baldintzen arabera lanaren banaketa berriak ezartzen saiatzen da. Balio kateak atzematen direnean, oinarri partekatua izkutatu egiten da eta hori lortu ahal izateko leku bateko sekuentziari lotuta eta jabe bakarrak gobernatuta balitz bezala erakusten da. Lankidetzaren kontrol sistema hau batzuetan goitik hasten da eta behean bukatzen du eta beste zenbaitetan behetik hasten da eta goian bukatzen du. Sistema honen funtsa lankidetzaren etetea eta artikulazio edo hartueman hierarkiko bihurtzea da, beti ere etengabeko dominazio sistema produktibo baten testuinguruan. Prozesu honetan oso lagungarriak dira komunikaziorako teknologia berriak, zeren langile autonomoen arteko interakzio koordinatua eraginkortasun handiz bermatzeaz gain, jabetza boterearekiko menpekotasun hierarkikoa ahalbidetzen baitu.

Baina jabetza pribatuaren izaera aldatu egin da, Hardt eta Negri-ren<sup>871</sup> arabera. Jabetza pribatu orok beti behar izan du nolabaiteko babes poliziala baina ekoizpen inmaterialaren paradigmaren jabetza inmaterialaren hedapenarekin kontrolagaitzagoa gertatzen da eta honek segurtasun arazo berriak eragiten ditu. Baliotsu egiten dituen erreproduzibilitatea da izaera pribatuarekiko mehatxu handiena. Erreprodukzioa, jakina, lapurketa tradizionalaren formekiko oso ezberdina da, ez baita jabe bere jatorrizko jabetza kentzen; izan ere, erreprodukzioaren bitartez jabetza hori beste norbaiten eskuetara ere pasatzen da baina jabearen kendu gabe. Tradizionalki jabetza pribatua urritasunean oinarritzen zen: jabetza materiala ezin zen bi lekutan aldi berean egon: zuk baldin badaukazu, nik ez daukat. Baina jabetza inmaterialaren formetan erreprodukzio aukerak

<sup>868</sup> Negri, 2004, 210-211 or.

<sup>869</sup> Negri, 2004, 75-76 or.

<sup>870</sup> Negri, 2004, 201-204 eta 214 or.

<sup>871</sup> Hardt & Negri, 2004, 213-223 or.



amaigabeak dira eta ondorioz desagerrarazi egiten dute urritasunean oinarritutako ikuspegi oro. Hortaz, lan inmaterialaren jabetza pribatuak ere izkutatu egiten du produktu inmaterialak lan sozialaren emaitza direla eta jabetza pribatu bihurtzen ditu (ezagutza tradizioaletik eratorritako ideiak, genetikoki eraldatutako sagu mota bat edo lore zehatz batzuetatik lortzen den lurrina adibidez jabetza pribatu bihur ditzake) eta horrela lan sozialaren emaitzak eta natura jabetza pribatuaren eskutara pasatzen ari dira, partekatuak izateari utziz. Ekoizpenaren izaera partekatu eta sozialari jabetza pribatuaren justifikazio juridikoak hartzen dio gaina. Horren ondorioz, besteak beste, jabetza pribatuak trabatu egiten ditu sormena eta berrikuntza zeren ideiak eta informazioa eskuratzeko bideak oztopatzen baititu, eta bizitza soziala ezinbestean partekatutako osagaietan oinarritzen da.

Hardt eta Negri-k<sup>872</sup> diotenez, lankidetza sozialaren bitartez sortzen da aberastasuna eta ustiapena aberastasun horren emaitzez segmentazioaren eta hierarkizazioaren bitartez jabetzea da. Baina ustiatuta ere, lankidetza sozialak aberastasuna ekoizteko ahalmena mantentzen du eta hori da bere indarra. Testuinguru horretan erretzen da antagonismoa eta eraldaketarako subjektibotasuna.

## 6. Langileen arteko gatazka

Aise eror daiteke azalpena errazkerian, baina egoera konplexuak analizatu nahi direnean, errazkeriak ez du baliagarritasunik. Aldaketak soilik globalizazioari edo teknologia iraultzari zor zaizkiela esatea nahiko azalpen murrizta da. Kapitalaren eta lanaren arteko gatazkak egoera guztiz azaltzen duela pentsatzea, aztergai dugun errealitatearen hainbat ezaugarri ez erreparatzea litzateke. Neoliberalismoak kapitalismoari egiten zitzaion kritikari gaina hartu dio baina bere eraginak ez die langile guztiei berdin eragiten. Gainera, langileek elkarren aurkako gatazka handiak bizi dituzte. Hauxe da neoliberalismoak kapitalismoaren erdigunean nagusitzeko behar zuen gakoetako bat, bestela ez baitzuen arrakastarik lortuko ziur aski. Errealitate hau azaltzeko asmoz, lehenik enpresek lana berregituratzeko zein estrategia erabili dituzten aztertuko dugu, eta ondoren testuinguru honetan sortu diren oligopolioak eta lan prekarioa analizatuko ditugu. Azkenik, langileen sare estratifikatuak zer diren eta langileen arteko gatazken ezaugarriak azaltzen saiatuko gara.

### 6.1 Enpresen estrategiak lana berregituratzeko

Castellsek dio ekonomia globala hedatu ahal izateko ezinbestekoa izan dela antolaketa logika berri bat zabaltzea: sarea<sup>873</sup>. Lanaren eremuan ere enpresen deszentralizazioa eta interkonexioa ezaugarri erabakiorrak dira azken urteetan gertatu diren aldaketak ulertu ahal izateko, Castellsek<sup>874</sup> dioenez. *Gizarte informazionala* delakoaren ekonomia berria mundu mailan hedatzen ari da, Castells-en<sup>875</sup> arabera, baina testuinguru mota anitzetan zabaltzen ari denez, eremu bakoitzean nabardura ezberdinez gauzatzen ari da, eta hala ere eremu guztietan ekonomia informazionala izenekoaren ekoizpen, kontsumo eta banaketa prozesuen antolaketa modu berriek ezaugarri

<sup>872</sup> Hardt & Negri, 2004, 16 or.

<sup>873</sup> Castells, 2001a, 202 or.

<sup>874</sup> Castells, 2001a, 33 or.

<sup>875</sup> Castells, 2001a, 201-254 or.

komunak dituzte. Castells-en iritziz, bitarteko komun hauek gabe aldaketa teknologikoak, estatu politikek eta enpresen estrategiek ez lukete sistema ekonomiko berri bat osatuko. Castells-en oinarritzko tesia honakoa da: ekonomia informazional globala delakoa antolakuntza logika berri batean oinarritzen da, eta logika berri honek aldaketa teknologikoarekin harremana du, baina ez da haren menpekoa. Hortaz, paradigma teknologiko berri bat eta antolakuntza berri bat uztartuz eta elkarri eraginez osatzen da Castells-ek ekonomia informazionala deitzen duena. Hala ere, antolaketa logika honek forma ezberdinak hartzen ditu ingurumaria kultural eta instituzional bakoitzean.

1970eko hamarkada mugarrria izan zen ekoizpenaren antolakuntzan eta ekonomia globaleko merkatuetan, Castells-en iritziz. Antolakuntza aldaketek eta informazio teknologien hedapenak elkarri eragin zioten, baina oro har independenteak izan ziren. Gehienetan antolakuntza aldaketak informazio teknologien hedapenaren aurretik gertatu ziren. Adibidez, Toyotaren *Kanban* sistema, Nafarroako autogintzaren Just in Time sistemaren aurrekaria, Toyota enpresan 1948an sartu zen eta ez zuen on-line lotura elektronikorik behar izan. Antolakuntza aldaketen helburu nagusia ingurune ekonomiko, instituzional eta teknologikoan etengabe gertatzen ari ziren abiadura azkarreko aldaketei aurre egitea izan zen, ekoizpenaren, kudeaketaren eta merkaturatzearen malgutasuna handituz. Testuinguru kultural eta instituzional bakoitzean abiadura eta forma ezberdinak izan zituen arren, Castells-en ikuspegitik, oro har joera nabarmenak daude.<sup>876</sup> Ekoizpen prozesuak sakon aldatzen hasi ziren. Ezaugarri berberak zituzten serie luzeak ekoiztetik, etengabe aldatzen ari diren ezaugarriak dituzten serie askoz laburragoak ekoiztera aldatuz joan zen. Merkatuaren aniztasuna eta aldakortasun hazkorra aldarri, enpresa handien ekoizpen kate luzeak eraldatzen hasi ziren, unean uneko aginduetara egokitzeko moldagarriagoak ziren unitate txikiagoz osatutako enpresak antolatze aldera. Industrian ez ezik zerbitzuetan ere joera berdina abiarazi zuten. Castells-en arabera<sup>877</sup>, enpresa tradizionala malgutasun prozesuetara egokitzeko traba handiena enpresa kultura tradizionalen *zurruntasuna* izan omen zen. Masiboki hedatu zirenean, gakoa informazio teknologiak zirela aldarrikatu ohi zen, baina, Castells-en arabera, informazio teknologiak antolakuntza eraldaketarik egin gabe aplikatu zirenean, Castells-ek *burokratizazio* eta *zurruntasun* deitzen dituen arazoak handitu egin omen ziren. Hala ere, beti ere Castells-en arabera, antolakuntza eraldaketa sakonak gauzatzen hasi zirenean, zenbait neurri hartzea ezinezkoa gertatuko zitzaie baldin eta informazio teknologiak erabili izan ez balituzte.

Ekoizpenaren antolakuntzan enpresak honako estrategiak lehenesten ari dira, Castells-en arabera:

- a) Enpresen tamaina txikitu, kualifikazio handiko ezinbesteko enpleguak mantenduz eta koste txikiko eremuetatik produktuak inportatuz.
- b) Establezimendu transnacionalei eta sare laguntzaileei lanaren zati bat azpikontratatu, aukeran dutelarik establezimendu transnacionalen eta sare laguntzaileen ekoizpena enpresaren sare sisteman barneratzeko.
- c) Herrialdean bertan langileak lanaldi partzialerako edo aldi baterako enplegatu edo, bestela, enpresa informalak hornitzailatzat hartu.

<sup>876</sup> Castells, 2001a, 204-222 or.

<sup>877</sup> Castells, 2001a, 201-254 or.

- d) Jarduerak eta funtzioak automatizatu eta berkokatu, lan merkatuaren prezioak formula alternatiboekin alderatuta handiegitzat jo daitezten.
- e) Beren lanekuak, nukleoak barne, lan eta soldata baldintza okerragoak onartzera behartzea beren enpleguak mantentzen daitezten, horrela langileen indarra handiagoa zeneko egoeretan adostutako kontratu sozialak sakon eraldatuz.

Sare dinamikak ez die soilik enpresen arteko harremani eragiten. Sarekatzea enpresen barruan ere gertatzen ari da. Sarearen bazter guztietan nabaritzen da aldaketa: periferietan, erdibideetan eta erdiguneetan. Langile kualifikatuei eta ez kualifikatuei eragiten die. Castells-en iritziz, sare egiturarekin batera hedatzen ari diren enpleguaren ezaugarri hauek ez dira sare egituratik eratortzen. Enpresaburuek eta politikariek hartzen dituzten erabaki ekonomiko eta politikoak dira.

Coriat-en<sup>878</sup> arabera ere 1970eko hamarkada izan zen aldaketaren garaia, batik bat 1974-1975 urte arteko krisiak aldaketak azkartu egin zituelarik, baina Coriat-en iritziz aldaketa hauek batik bat urte luzetako borroken eta adostasunen aurkako erasoak dira eta ikuspegi honetatik Coriatek aldaketaren beste alderdi batzuk nabarmentzen ditu, Castellsek azpimarratzen ez dituenak. Enpleguaren baldintzak erlatiboki ondoen bermatuta dauden kontratu eta hitzarmenen testuinguruan baliatzen hasten dira sistematikoki enpresaren baitakoak ez diren kanpoko enpresak, estatutu orok kanpoko baldintzetan kontratatuz. Helburua, Coriaten arabera, lan indarraren sail osoak ezegonkortzea da, baita tradizionalki enplegu baldintza hobekak izan dituztenen ere. Beraz, lanaren prekarizazioak kategoria guztiei eragiten die.

Sassen-en<sup>879</sup> arabera, gaur egun zilegi da hainbat ekoizpen gune koordinatuz merkantzia bakarra aldi berean ekoiztea eta, beraz, ekoizpena hainbat lekutan barreiatu daiteke. Baina Hardt eta Negri-ren<sup>880</sup> arabera, ekoizpen prozesu eta arloen barreiadurarekin batera ekoizpenaren kontrola zentralizatu egiten da. Ekoizpenaren mugimendu zentrifugoa agintearen joera zentripetuekin orekatzen da.

Bourdieu ez du sareaz hitz egiten, berregituraketaz baizik, eta prekaritatearekin lotzen du, ez derrigorrez hala gertatu behar delako, sare egiturari hori dagokiolako, baizik eta Bourdieuren iritziz hala gertatzen ari delako. Bourdieuren arabera, lanaren munduan haustura handia dago behin-betiko kontratua eta behin-behineko kontratua daukaten langileen artean, eta ondorioz, edozein eratako ekintza kolektibo zaildu egiten da.<sup>881</sup> Ekoizpen modu berriak, Bourdieuren iritziz, ekonomia duala eraikitzen ari dira: gero eta gutxiago diren lanpostu egonkorak batetik, eta bestetik, gero eta gehiago diren erreserbako ejerzito erraldoia, etorkizunerako egitasmo indibidual eta kolektiborik ez duena ia. Eta goranzko hierarkian daudenak ere dominatzaileak dira baina dominatuta daude, beren buruak ustiatzera gero eta behartuagoak baitaude, bestela kasu gehienetan amildegira eroriko baitira seguru.<sup>882</sup> Ingurumaria honetan, enpresarekiko atxikipenak hiru oinarri dauzka: segurtasun eza, sufrimendua eta estresa. Lanpostuen segurtasun faltak zentsura eta derrigorrezko adostasun itxura eragiten dute. Indibiduoaren askatasuna aldarrikatu

<sup>878</sup> Coriat, 2001, 200-201 or.

<sup>879</sup> Sassen, Saskia, 1991.

<sup>880</sup> Hardt & Negri, 2002, 276 or.

<sup>881</sup> Bourdieu, 1999a, 314 or.

<sup>882</sup> Bourdieu, 2001a, 53 or.

arren, bildurrak ezarritako dinamika da. Lan munduaren prekarizazioak, ondorioz, eragin nabarmena du lanari buruzko kultur ekoizpen eta transmisioan.<sup>883</sup> Izan ere, prekarizazioko habitusik gabe ezin da dominaziorik gauzatu. Zentzu horretan hitz egin daiteke prekarietatearen kulturaz<sup>884</sup>.

Berregituraketa sakon honek enpleguaren egoeran eragin erabakiorra du, Castells-ek<sup>885</sup> dioenez. Aldaketak herrialde bakoitzean heterogeneoki gauzatzen ari diren arren, enpleguaren garapenari dagokionez hainbat joera orokor nabarmentzen dira, Castellsen arabera:

- a) Nekazaritza enpleguaren desagertzearen progresioa.
- b) Industriako enplegu tradizionalaren endekatze etengabea.
- c) Ekoizpen eta gizarte zerbitzuen hazkundera.
- d) Zerbitzu jardueren dibertsifikazioaren hazkundera, enplegu iturri.
- e) Enplegatu ejekutibo, profesional eta teknikoaren hazkundera azkarra.
- f) Bulegari eta saltzailez osatutako *white collar* proletario baten osaketa.
- g) Merkataritza minoristan enplegu kopuru egonkor baten egonkortasun erlatiboa.
- h) Okupazio egituraren goi eta behe muturren hazkundera aldi berean.
- i) Okupazio egiturako goiko muturraren hazkundera erlatiboki handixeagoa.

Marazzik<sup>886</sup> dioenez, 1989 urtean hasi zen atzerakada ekonomikoa *white collar* delakoen atzerakada izan zen. 1992 urtean kaleratzeen %80ak langile mota hauei eragin zien. Joera hau herrialde guztietan errepikatu zen. Berregituraketa posfordistak txikitu egin zuen koadro ertainek erakundeetan zeukatzen pisua eta ekoizpen unitate osoak externalizatu egin zituen (*outsourcing*). Ondorioz teknikari kualifikatu asko kalean gelditu ziren eta enpresak langile *independentee* harremanak berdefinitu ahal izan zituen.

Izan ere, orain malgutasuna da aldarria, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>887</sup>. Malgutasuna bi eratakoa izan daiteke: barne mailakoak enpresa barruko lanaren antolaketa eta teknikak errotik alda ditzake eta kanpo mailakoak sarean lan egitea du helburu.

Baina *malgutasunak* ez die soilik *white collar* delakoei eragiten. Enplegatu mota guztietara nola edo hala iristeko joera du eta hori lortu ahal izateko teknika ugari erabiltzen dituzte. Frade eta Darmon<sup>888</sup> antolaketa modu berrietaz ari direnean, adibidez, besteak beste honako hauek aipatzen dituzte: enplegu agentzietako lana, funtsezko zereginak eremu publikotik pribatura kanporatzea, eremu pribatuan enpresen erdiguneetan egiten ziren zereginen kanporatzea, funtsezko nahiz periferiako zereginen azpikontratatzeko edo autoenplegu faltsuaren sustapen zuzena, finantzazio pribatuko ekimenak sustatzea, eta quasi-merkatuen sorrera.

<sup>883</sup> Bourdieu, 1999a, 419 or.

<sup>884</sup> Bourdieu, 1999a, 139-143 or.

<sup>885</sup> Castells, 2001a, 201-254 or.

<sup>886</sup> Marazzi, 2003, 86-88 or.

<sup>887</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 300 or.

<sup>888</sup> Frade & Darmon, 2005.

Erdiguneko enpresak bere zereginak kanporatu eta hornitzaile sareak osatzean, kanporaketa bi kontratu motetan oinarritzen da, Frade eta Darmon-en<sup>889</sup> arabera: batetik, kontratu komertziala erdigunearen eta hornitzailearen artean, eta, bestetik, lan kontratua hornitzailearen eta enplegatuen artean, baina beti ere lan kontratua kontratu komertzialaren arabera delarik. Ondorioz, zereginen kanporatzeak sustatzen du segurtasun ezaren eta arriskuen kanporantzko transferentzia. Erdigunearan ziurgabetasuna eta arriskua txikitu egiten dira, kanporantz enpresa hornitzaileari transferitzen dizkiolako. Halaber, enpresa hornitzaileak langileari transferitzen dizkio ziurgabetasuna eta arriskua. Hortaz, erdigunearen kosteak, ziurgabetasuna eta arriskua murrizten dira, hornitzaile sareari lanak kanporatuz, eta, ondorioz, merkatu oso aldakor batean sareko langileek beren gain hartzen dituzte lehenago erdiguneko enpresarenak ziren kosteak, ziurgabetasuna eta arriskua.

Hau guztia dela eta, Fradek eta Darmonek<sup>890</sup> diotenez, egoeraren azterketa egin nahi izanez gero ezinbestekoa da enpleguak nor kontrolatzen dituen jakitea, nor ematen dituen funtsezko aginduak, baldin eta enplegatzailea nor den benetan jakin nahi badugu. Baina sarritan helburu hau nekez lor daiteke, enpresa sareen konplexutasuna oso handia baita. Beste batzuetan, ordea, ez da zaila. Horrez gain, enpresatik kanporatutako ekoizpena edo zerbitzuak eskaintzen dituen hornitzailearen rola eta estatusa jakin beharra dago. Maiz hornitzaileen autonomia ezdeusa da eta, ondorioz, kontratu komertzialek behartu egiten dute hornitzailea erdigunearen esanetara guztiz makurtzera, kontratua ez berritzearen mehatxua etengabea baita. Hartara, erdiguneak aldaketa amaigabeak egin ditzake kanpokoei agindutako zereginen ezaugarrietan, jardueraren abiaduran eta enkarguaren iraupenean. Erdiguneko enpresak sareko enpresen bezero dominatzaileak dira, merkatuaren gain aginte osoa baitute. Erdiguneko enpresaren hornitzaileak merkatu egitura hierarkiko batean kokatuta daude eta kokapen horren menpekoak dira. Salneurrien gaineko kontrolik ere ez dute sarri, erdiguneak sustatutako sareko enpresen arteko lehiakortasunak, salneurriak txikitzeko joera indartzen baitu.

Honenbestez, Frade eta Darmon-en<sup>891</sup> arabera, enpresen berregituraketa estrategia honen bitartez azken bi hamarkadetan ahuldu egin da enpresek langileekiko zuten soldata harremana eta, aitzitik, langileekiko merkatu harremana indartu egin da. Azken harreman mota honetan ez dago legez eta kolektiboki babestutako estatusik langilearentzat. Merkatu harremanean merkatu hitzarmen bat besterik ez dago. Merkatu harremanean diru baten truke lan zehatz bat egiten da. Ez dago bestelako adostasunik, ezta aitortzarik ere. Merkatu harremaneko enpleguetan, enplegua zeregin zehatz baten sinonimo hutsa da. Langileekiko lan harremanak merkatu harreman bihurtzeko joerak ondorio nabarmenak izan ditu. Enplegatzailearen irudia lausotu egin da, enplegatzaile-enplegatu harremana higituz, eta, beraz, enplegatuen arteko tentsioa eta gatazkak handitu egin dira, eta, halaber, enplegatuen baldintzen arteko ezberdintasunak handitu egin dira.

Langilearekiko lan harremana merkatu harreman bihurtzeko joerak eragina du gutxienez honako esparrutan, Frade eta Darmon-en arabera:

- a) Kontratuaren iraupena gero eta gehiago doitzen da zereginaren iraupenera. Frantziako estatuaren eta gehienbat Espainiako estatuaren legeen arabera enplegu ez estandarra

---

<sup>889</sup> Frade & Darmon, 2005.

<sup>890</sup> Frade & Darmon, 2005.

<sup>891</sup> Frade & Darmon, 2005.

salbuespenezkoa ez izan arren, nagusitzen ari da epe jakinerako kontratuen erabilera, eta bide batez legea epai berritzaileen bitartez (langileen kaltetan) legez salbuespenezkoa dena sistematizatzen, arautzen eta normalizatzen ari da. Epai hauen argumentuak enpresaren beharretan oinarritzen dira: merkatuaren lehiakortasunari aurre egiteko antolakuntza mota berrien beharra dutela aldarrikatzen dute.

- b) Lanerako hartzen den denbora gero eta gehiago doitzen da zeregina betetzeko behar den denborara. Lanegun partzialaren kopuruak, adibidez, oso handiak dira Alemanian eta Erresuma Batuan. Lan ordu gutxi astean, tartekako lan egunak, aste bakoitzean lan egun aldakorrak, eta gisako beste zenbait formula oso hedatuta daude.
- c) Ordainketa soilik betetako zereginarengatik egiten da, bestelakoak barnean hartu gabe.

Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>892</sup>, ekoizpenaren antolaketan egin dituzten aldaketek lan baldintzen prekarizazioa eragin dute. Boltanski eta Chiapellok aipatzen duten G. Lyon-Caen-en ikerketaren arabera, enpresen estrategia berriak dira prekarietatearen kausa. Kontratazio politika eta antolaketak berriak dira bitartekoak. Merkataritza zuzenbideak lan zuzenbideari gaina hartu ahal izateak ahalbidetzen du eraldaketa hau. Lyon-Caen-ek prekarietatera daramaten estrategien hainbat prozedura zehazten ditu:

- a) Enplegatzailea aurrez saiatzen da bere konpromisoen denbora epea mugatzen, honela ez baitu ordaindu beharko kontratua ez betetzeagatik kalte ordainik.
- b) Enplegatzailea soldata intermitentea pagatzen saiatzen da eta honek aldi behingo lana ahalbidetzen du (zereginaren arabera), gero eta zailagoa delarik soldatapeko langilearen eta langile independentearen artean bereiztea.
- c) Enplegatzaileak aukera juridiko berriak baliatu ditzake kosteak murrizteko baldin eta enplegatzaile eta trebatzaile lanak bere buruari esleituz praktikatako kontratuak, enplegu-trebakuntza kontratuak edo gisakoak erabiltzen baditu.
- d) Enplegatzaileak aldi baterako lan enpresak erabili ditzake, legeak hastapenetan ahalbidetzen zuena progresiboki zabalduz joan baita enplegatzailearen alde.
- e) Enplegatzaileak azpikontratatu egin ditzake lanak, honela bere enpleguak kontrolpean baina enpresatik kanpo kokatuta edukiko lituzkeelarik.

Bourdieuaren ikuspegitik aldaketen atzean ugazaben elkarten sustapena eta Estatu administrazioen laguntza dago. Horrela gauzatzen dira hainbat neurri: eskuhartze publikoaren beharrek erlatiboa, langileen mugikortasuna eta malgutasuna (lan hitzarmenen murrizpen eta prekarizazioaren bitartez, eskubide sindikalen berrikuspenaren bitartez eta kaleratze baldintzen malgutzaren bitartez), zerga politikaren birtartez laguntza publikoak inbertsio pribatura bideratzea, ugazaben diru kargen murrizketa, eta abar.<sup>893</sup> Bourdieu-ren ikuspegia berresten duten datuak nahiko argiak dira: esate baterako behin-behinekotasunari esker koste orokorrak jaitsi eta irabaziak igo egiten dira, adibidez azken zazpi urteetan lan kosteak %56,7 igo ziren bitartean, irabaziak %155,6 hazi ziren.<sup>894</sup>

<sup>892</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 311-314 or.

<sup>893</sup> Bourdieu, 2001a, 18-19 or.

<sup>894</sup> Gara 2005-05-29.

Arazoak, gainera, ez du aldatzeko trazarik. Hori egiaztatzeko, kontratazioen edo Aldi Baterako Lan Enpresen garapenen datuengan erreparatzea besterik ez dago<sup>895</sup>. 35. ikus daitekeenez, 2000 eta 2005 urteen artean egin ziren lan kontratuen %90a baino gehiago behin-behinekoak izan ziren Euskal Herrian.

<b>35. Taula: Lan arloko kontratazioen garapena, Euskal Herria 2000-2005 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)</b>						
	<b>2000</b>	<b>2001</b>	<b>2002</b>	<b>2003</b>	<b>2004</b>	<b>2005</b>
Mugagabeak	20.150	19.562	26.622	25.635	21.950	27.870
Guztira	266.691	267.514	280.993	279.725	300.128	306.213
Behin-behinekoak (%)	92,4	92,7	90,5	90,8	92,7	90,8
Iturria: Eurostat, INE, Eustat, UGT, Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministeritza						
Oharra: Behin-betiko bihurtu diren behin-behinekoak ere <i>Mugagabe</i> kategorian barne daude						

Halaber, 36. Taulan ikus daitekeenez, ABLEek egin zituzten kontratuen kopurua nabarmen hazi zen 1995-2002 urteen artean, 129.118 izatetik 2.190.439 izatera, eta horrenbestez Hego Euskal Herriko lan merkatuan ABLEen bitartekaritza egin ziren kontratuen ehunekoa ere nabarmen handitu zen, %9,3 izatetik %20,3 izatera.

<b>36. Taula: ABLEek egin dituzten kontratuen kopurua eta kontratu hauek lan merkatuan duten pisua, Hego Euskal Herria 1995-2002 (kontratu kopurua eta lan merkatuan guztira egin diren kontratuetikiko ehunekoa)</b>			
<i>Urtea</i>	<i>Espainiako estatua</i>	<i>Hego EH</i>	<i>ABLEen bitartekaritza euskal lan merkatuan</i>
1995	129.118	43.668	9,3%
1996	809.139	90.888	17,3%
1997	1.309.021	137.985	22,2%
1998	1.803.547	176.594	25,1%
1999	2.002.039	179.174	22,2%
2000	2.005.132	182.298	21,0%
2001	1.901.352	168.645	19,5%
2002	1.849.453	170.310	19,6%
2003	1.991.140	190.450	20,8%
2004	2.190.439	197.028	20,3%
Iturria: Eurostat, INE, Eustat, UGT, Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministeritza			

Antolaketa berriaren arrazoiak zeintzuk diren zehazte aldera arestian aipatu ditugun bi ekarpen berreskura ditzakegu: batetik, Sennett-ek<sup>896</sup> dioenez, antolakuntzaren aldaketak seinale ideologikoa igortzen die langileei, zuzendarien boterea eta ekimenerako borondatea erakutsiz, eta, bestetik, aldaketak erabakitzen dituztenek erabaki gogorrenen ardura kanpo faktoreei egozten dizkiete, eta hari horri jarraiki, Coriat-ek<sup>897</sup> dioenez, antolaketaren aldaketen bitartez denboraren eta kontrolaren ekonomia berria sortzen dute eta horrela lanaren errendimendua handitu dezakete, lanarengandik etekin handiagoa eskuratuz. Imazen<sup>898</sup> arabera, politika hauen helburua honakoa da: lan kostuak murriztea, kapitalaren irabaziak handitzea eta batik bat lan harremanetan

<sup>895</sup> Gara 2005-05-29.

<sup>896</sup> Sennett, 2006, 52-53 or.

<sup>897</sup> Coriat, 2001, 176-178 or.

<sup>898</sup> Imaz, 2006, 188 or.

boterea eta kontrola enpresak eskuratzea. Hots, etekina handitzea eta ekoizpenaren gaineko kontrola areagotzea.

Castells<sup>899</sup> ez dator bat ikuspegi hauekin. Afera honi orrialde bakan batzuk eskaintzen dizkion arren, Castells-en arabera enpleguaren garapenaz ari garenean funtsezkoa da jakitea lanaren eta kapitalaren arteko harremanak zertan diren, hortxe baitago lanaren baldintza aldaketak ulertzeko gakoa, eta ez *ekonomia informazionala* izenekoaren paradigman. Aldatu egin da lanaren eta kapitalaren arteko indar harremana, Castells-en iritziz, eta horren ondorioz etorri dira desenplegua, azpikontratazioa, errentaren desoreka, pobrezia eta polarizazio hazkorra. OCDE eta Nazioarteko Moneta Funtza erakundeen iritziz, arazoan kausa laneskuen kualifikazioaren desegokitasuna eta lan merkatuen malgutasun eskasa da. Castells-en arabera, ordea, kualifikazio handiagoko gero eta enplegu gehiago eskaintzen dira, baina soldata ez da kualifikazio eskariaren pare handitzen, eta batzuetan kontrakoa ere gertatzen da, hots, kualifikazio eskaria handitu ahala txikitzen dela soldata. AEBetan, adibidez, 1987 eta 1993 urteen artean hezkuntza maila txikiagokoen soldatak gehiago txikitu ziren arren, unibertsitateko ikasketak zituztenen soldatak ere bere horretan gelditu ziren. Ondorioz, errentaren banaketa polarizatu egin zen: errenta handiak handitu eta txikiak txikitu egin ziren. Castells-en iritziz, AEBak errenta desorekaren muturreko adibidea diren arren, AEBetako enplegu *malguaren* eredu hedatzen ari denez, AEBetako errenta banaketan joera ere hedatuko dela aurrean daiteke. Aldaketa honek langile mota guztiei eragiten die: kualifikatuei eta ez kualifikatuei, sareetako muturretan edo erdibidean edo erdigunean daudenei. Baina Castells-en ikuspegitik lanaren prekarizazioa ez datza antolaketa moduan baizik eta lanaren eta kapitalaren arteko harremanaren egoeraren asimetria hazkorrean oinarrituz sare itxurako antolaketa modu berriez egiten den erabileran. Hau da, arazoa ez da egitura baizik eta egitura horren erabilera desegokia.

Aitzitik, Frade eta Darmon-en<sup>900</sup> iritziz, antolaketaren egitura bera da arazoa. Gaur egun enpresa estrategiak lan merkatuko araudiekin konbinatuz osatzen dira enplegu prekarioa oinarri duten enpresen antolaketa modu berriak. Izan ere, enpresen antolaketa modu berri gehienetan enplegu estandarra enplegu prekario bihurtzean oinarritzen dira. Frade eta Darmon-ek enplegu prekariotzat hartzen dituzte arau estandarrek baino baldintza okerragoak dituzten enplegu mota guztiak. Arau estandarreko enplegua, lanaldi osoko enplegu egonkorra da, baina ez da maiztasun kontu soil bezala ulertu behar, zeren enplegu estandarra araudi baten testuinguruan ematen da eta testuinguru hau legez eta kolektiboki babestua dago. Enplegu prekarioa dutenak lan merkatuaren segurtasun eza eta arriskuak nozitzeko aukera handiagoak dituzte. Segurtasun ezaren eta arriskuaren banaketa desorekatuaren ondorioa da enplegu prekarioa.

Castells-ek<sup>901</sup> dio sareko enpresek (sare horizontalez ari da) kosteak eta ziurgabetasuna txikitzen dituztela, baina testuinguru honetan, Bourdieuren<sup>902</sup> aburuz, enpresek jasan ohi zituzten arriskuak langileen gain gelditzen ari dira: enpresaren diru kontuak gaizki badoaz, enplegatuek pairatzen dituzte eraginak, kaleratzeen edo bestelako neurrien bitartez. Enpresaren etekinak erabiltzen dira sarri enplegatuen aurkako politiketan, eta maiz fikziozko etekin-galerak izaten dira. Bourdieu-ren

<sup>899</sup> Castells, 2001a, 255-398 or.

<sup>900</sup> Frade & Darmon, 2005.

<sup>901</sup> Castells, 2001c, 201-254 or.

<sup>902</sup> Bourdieu, 2001a, 114 or.



hari beretik Chomsky-k<sup>903</sup> dio gaur egun kapitalismoak arriskuak eta kostuak sozializatu eta irabaziak pribatizatu egiten dituela.

Marazziren<sup>904</sup> arabera, langileen presio indarra ahuldu denez, soldatak produktibitatea baino gutxiago hazten dira eta horri esker lan unitatearen kostea murriztu egiten da. Coriat-ek<sup>905</sup> dioenez, antolatzekeko modu berriek denboraren eta kontrolaren ekonomia berria sortzen dutelarik, lanaren intentsitatea eta autodiziplina handitu egiten dira eta ondorioz lan indarrari esleitzen zaion balioa txikituarazi egin daiteke. Boltanskik eta Chiapellok<sup>906</sup> diotenez, etekinak handitzeko gaur egun aberastasun handiagoa ekoiztea baino errazagoa da enpresentzat bitartekoak bilatzea kolektibotasunak kosteak jasan ditzan. Lehen enpresek beren gain hartzen zituzten koste ugari, gaur egun sozializatu egin dituzte. Halaber, Boltanski eta Chiapelloren<sup>907</sup> arabera, enpresen egitura eredu berriek eta enplegatuen kudeaketa eredu berriek ahalbidetu egin dute produktibitatea handitzea, ekoizpenaren kosteak murriztea eta sindikatuen erresistentzia gaitasuna txikitzea.

Honen guztiaren adibide argia da, esate baterako, Nafarroako autogintzan erabiltzen den Just In Time eredu. Castillo-k eta López-ek<sup>908</sup> egindako ikerketa da kasu honetan gure informazio iturria. Ez da adibide bat gehiago. Hazkunde ekonomiko sustengatu baten eta oparotasun erlatiboki handi baten ingurumarian, autogintza alorreko enpresa sareak nonahi hedatu direnean, Nafarroako autogintzan Volkswagen Polo modelo da ardatza. Castilok eta Lópezek ardatz hori eta bere inguruan eraiki den sarea aztertu dute. Adibidea kualitatiboki ez ezik kuantitatiboki ere oso esanguratsua da. Ikerketa egin zutenean, 2001 urtean alegia, Landabeneko Volkswagenek 5.600 enplegatu zituen. Baina Castillo eta López-en kalkuluen arabera, orotara 20.000 lagun ari ziren Polo modelo fabrikatzeko lanetan. Nafarroako ekoizpen sistemaren bizkarrezurra da Polo kotxea. Datu gehiago horren erakusgarri: Nafarroako esportazioen %58 horretan oinarritzen dira, eta horri automozioiko osagaiak gehituz gero, esportazioen %90. Horrez gain, 1995 eta 2001 urteen arteko inbertsio osoaren %48 egin zen honetan.

Gaur egungo ekoizpen egitura ulertzeko gutxienez hamar urte egin behar da atzera. 1990eko hamarkadan zehar Volkswagen-eko (hemendik aurrera VW) makina bat jarduera VW-tik kanporatu zituzten, ekoizpenaren merketzea, azkartzea eta malgutzea helburu. Espezializazio malgua deitzen diote. VW-ren inguruan Polo kotxearen piezaren bat egiten duten hamaika enpresa espezializatu sortu dira. Iraun ahal izateko, enpresa hauek produktu merkeagoa, kalitatekoa eta ekoizpen azkarrekoa egin beharra dute. Sare asimetrikoak dira. Sare horretan enpresa batzuk oso txikiak eta apalak dira, osagai ez konplexuak ekoizten dituzte, baina ezinbestekoak dira sareak aurrera egin dezan. Erdiguneak ezartzen duen doinuan dantzatzen dute, eta, bestela, desagerrarazi egiten dituzte, gisako beste enpresa batek ordezkari ditzan. Sareko enpresa txikien arteko lehiakortasun oso handiak higitu egiten ditu sareko txikiek erdiguneari egin diezaizkioketen eskaerak. Enpresa desagerraraztearen arriskua etengabea da. Ondorioz, salneurrien endekatzea taigabea da eta, ekoizpenarekiko presioa ere proportzionalki hazten denez, lan baldintzak neurri berean estutzen dira. Erdiguneak enpresa hornitzaileekiko jokatzen duen

<sup>903</sup> Chomsky, Noam in Imaz, 2006, 161.

<sup>904</sup> Marazzi, 2003, 40-41 or.

<sup>905</sup> Coriat, 2001, 176-178 or.

<sup>906</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 357 or.

<sup>907</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 380 or.

<sup>908</sup> Castillo & López, 2003.

bezala jokatzeko enpresa hornitzaileek beren langileekiko: kolektibotasuna higatuz, hartumana indibidualizatzen da

Ingurumaria honetan langabetuen kopurua oso txikia da, baina prekaritatea oso handia. Hala ere, langile guztiak ez daude egoera berean, ezta gutxiago ere. Nafarroako autogintza sarearen lehiakortasunaren gakoak sektore, geografia eta genero ezberdintasunean dago. Faktore hauen arabera hobetzen edo okertzen dira langileen lan eta soldata baldintzak. Soldata eskala oso zabala da. Normalean, VW-ren erdigunetik urrundu ahala (eta urruntasuna ez da soilik geografikoa), txikitu egiten da soldata. Horrez gain, kualifikazio txikiagoa edo/eta beren kualifikazioen balioa defendatzeko gaitasun txikiagoa izan ahala, gutxiago ordaintzen diote zerbitzua. Lan berdina egiteagatik erdia kobratzen dute batzuek, enpresen sarean duten kokapena dela eta. Diskriminazioa gauzatzeko beste zenbait teknika ere badaude. Adibidez, jardueraren abiadura handitu daiteke baina abiadura txikiago batean ordaintzen dena ordainduz, eta horrela txikitu egiten da pieza bakoitzaren kostea, soldata txikitu beharrik gabe.

Antolaketa eredu honek arrisku argiak ditu bere sustatzaileentzat. Espainiako estatuan 2008 urtean egin zuten garraiolarien grebak agerian utzi zuen. Euskal Herrian Gasteizko Mercedes gelditu egin behar izan zuten hornikuntza faltagatik eta Iruñeko VW ere hurbil ibili zen<sup>909</sup>. Katalunian besteak beste Martolell-eko Seat-ek ekoizpen arazo larriak izan zituen<sup>910</sup>.

Castillo-ren<sup>911</sup> arabera, autogintzaren ereduak paradigma erabilgarria da sektore eta adar guztietako lan garaikidearen joera azaltzeko: enpresen fragmentazioa, azpikontratazio orokortua, lan kontratu harremanaren eta negoziazio gaitasunaren suntsipena, eta oro har lan baldintzen okertzea, lanaren intentsitatearen handitzea, guztia bai eskulanerako bai lan inmaterial gero eta ugariagoarentzat. Ekoizpen katearen zatiek lehiatu ahal izateko deskualifikazioa eta intentsifikazioa erabiltzen dituzte.

Honenbestez Castillo eta López-ek<sup>912</sup> diote Nafarroako autogintzaren Just In Time (JIT) dinamikaren errentagarritasun ekonomikoa lan indarraren ahultasunean oinarritzen dela. Castillo eta López-en iritziz, JIT estrategian egituraren nolakotasunak ez du errentagarritasunik eragiten. Hortaz, esan genezake Castells-en iritzia, batetik, eta Castillo eta López-ena, bestetik, erabat kontrajarriak direla. Castillo eta López ikuspegitik, JIT estrategiak ez dauka estrategia produktiboekin zerikusirik. Dominazio estrategia sozio-politikoa da. Lehenengo mailako helburuak produktuen kalitatea handitzea, stock-ak txikitzea, ekoizpenaren abiadura azkartzea, eta produktuaren aldaketetara egokitzeko gaitasuna handitzea da. Horretarako, behin-behinekotasuna, soldata eskubideen urraketa, negoziazio kolektiborako gaitasunaren higadura eta lan abiaduraren intentsifikazioa dira JIT strategiaren bitartekoak. JIT strategiak lan baldintzak prekarizatzen ditu eta, bidez batez, langileen bizi baldintzak eskasten ditu. Horri guztiari esker, JIT strategiak bere azken helburua erdiesten du: gutxi batzuen diru etekin handiak lortzea.

JIT strategiaren aldarria malgutasunari lotutako deszentralizazioa da. Baina enpresa hornitzaileen sarea osatuz, JIT strategiak lan eskuen negoziatorako ahalmena txikitzen du eta horrela

<sup>909</sup> Berria, 2008-06-11.

<sup>910</sup> El País, 2008-06-11.

<sup>911</sup> Castillo, 2005.

<sup>912</sup> Castillo & López, 2003.

laneskuaren merketzea eragin dezake. Kolektibotasuna higituz, kualifikazioa txikituz eta behin-behinekotasuna handituz, prekarietatea sarean zehar barreiatzean datza gakoa. Plusbalioa ez da lanesku merkean oinarritzen. Alderantziz: laneskua merketzea da plusbalioaren oinarria. JIT sareak ez du enpresa handi bakar baten baitan ekoitzi daitekeen aberastasuna baino handiagorik sortzen. JIT estrategiak sarean zehar banatu beharko litzatekeen aberastasuna bereganatuz erdiesten du etekina. Lana kanporatuz eta fragmentatuz, azken helburua lan harremanak guztiz eraldatzea da: JIT estrategiak langileekiko soldata harremana, merkatu harremana bihurtu nahi du, Frade eta Darmonen ekarpenean oinarrituz arestian azaldu dugunaren haritik.

Azken finean, arriskuan oinarritutako ekoizpen sistema bat da. Baina arriskua sarearen gain uzten du. Erdiguneak sareko enpresa hornitzaileei transferitzen die arriskua, eta enpresa hauek beren enplegatuei. Etor daitezkeen kalteak gehienbat langileek pairatuko dituzte. Aldaketei aurre egin ahal izateko, sarearen erdigunetik urrundu ahala handiagoa da arriskua. Aldaketa txiki batek agian ez du batere eraginik izango erdigunetik hurbil dagoen langile batengan, baina akaso sarearen muturren batean dagoen langilearentzat akabera izan daiteke.

## 6.2 Oligopolioak

Ekonomia berrian funtsezkoa da enpresen arteko interkonexioa, Castells-en iritziz<sup>913</sup>. Enpresen arteko loturetarako eredu bat baino gehiago dago. Castells-en ikuspegia eskematikoki azalduz esan genezake bi eredu azaltzen dituela: enpresa eredu horizontala eta bertikala.

Sareko enpresa horizontalaren ezaugarriak azaltze aldera, definizio potentzialki erabilgarri bat ere ematen digu Castells-ek. Helburu autonomoa daukaten sistemen segmentuak dira oinarria. Segmentu hauen intersektzioak dira bitartekoak. Azken batean, sareko enpresa bitarteko hauen sistemetan oinarritzen da. Hortaz, sarearen osagaiak sarearekiko autonomoak bezain menpekoak dira, eta sare baten zati diren bezala izan daitezke beste sare baten zati. Sare baten eraginkortasunak bi oinarri izango ditu: batetik, sareko osagaien artean zaratarik gabeko komunikazioa ahalbidetzeko gaitasuna, eta, bestetik, sareak eta bere osagaiak zer mailara arte partekatzen dituzten helburuak. Enpresa sare horizontalak ezaugarri argiak ditu, Castells-en arabera: deszentralizazioan, partaidetzan eta koordinazioan oinarriturik beren burua programatzen eta zuzentzen dituzten unitatez estrategikoki eta dinamikoki osatua dago. Castells-en iritziz, enpresa sare horizontalen antolakuntza modu berriak bat datoz *ekonomia informazionala* deitzen duenaren ezaugarriekin: arrakasta daukaten erakundeek ezagutza ekoitzi eta informazioa prozesatzeko gai dira; ekonomia globalaren geometria aldakorrera egokitzeko gai dira; kosteak eta ziurgabetasuna txikitzen dituzte; kultur, teknologia eta erakunde aldaketa azkarren eraginpean, helburuak aldatu ahala bitartekoak aldatzeko bezain malguak izateko gai dira; eta berrikuntza, lehiakortasunerako funtsezko giltza bihurtzen denean, berrikuntzak gauzatzeko gai dira. Beraz, Castells-en ikuspegitik, sareko enpresak *ekonomia informazional-globala* izenekoaren kultura hezurramitzen du: seinaleak etekin bihurtzen ditu, ezagutza sare horizontaletan prozesatuz.

Toyotismoaren jatorrizko ereduan derrigorrezkoa da ardatz den enpresak hornitzaile sare zabal eta dinamikoa izatea. Funtsezko hornitzaileek erdiguneko enpresarekiko menpekotasun oso

<sup>913</sup> Castells, 2001a, 201-254 or.

handia dute, sarri erabatekoa, baina ez dira erdiguneko enpresaren parte. Fordismoan enpresa handiek beren baitan zuten sailez osatutako egitura bertikal handiaren ordeztu enpresa sareak hornitzen du erdigunea.

Gaur egungo ekonomia globalizatuan antolakuntza modu berriak eta aldaketa teknologikoak uztartzea bihurtu da, Castells-en iritziz, lehiakortasunaren forma berria. Bi faktore horietan oinarritutako sareetatik kanpo bizirik irautea gero eta zailagoa da. Castells-en aburuz zalantzarik ez dago sareak direla eta izango direla enpresa erakunde berrien oinarria. Aitzitik, Castells-en iritziz, ez dago argi etorkizunean nolakoak izango diren enpresak, zein ereduren antza izango duten. Toyotismoak menpeko enpresa sarea derrigorrezkoa zuen, enpresa horizontalak ez, baina toyotismoak *enpresa informazionala* delakoaren beste ezaugarri berri ugari ere baditu. Ondorioz, Castells-ek toyotismoa trantsizioa eredutzat dauka. Gainditu beharra omen dago. Castells-en iritziz, enpresa horizontal informazionala da egokiena. Ez dago argi, ordea, zein eredu nagusituko den.

Baina galdera gehiago ere gelditzen dira airean. Adibidez, sareko egitura ezartzeak nola eragiten die langileei? Lanaren prozesua, egitura sozialaren muinean dago. Hedatzen ari den sareko enpresa berrian ekoizpen harremanen eta lanaren teknologia eta antolakuntza aldaketan bitartez eragiten dio, Castells-en arabera, paradigma informazionalak eta globalizazio prozesuak gizarteari oro har. Zeintzuk dira ondorioak?

Etorkizunean enpresa sareak horizontalak edo bertikalak izango diren ez du argitzen Castells-ek, baina lan baldintzei dagokienez, Castells-en<sup>914</sup> diagnostikoan eta aurreikuspenen ez dago zalantzarako tarte handirik: bertikalitatea nagusitzen ari da eta gero eta indar handiagoa hartuko du. Aldaketa hauei guztiei buruz hitz egiten denean, Castells-ek<sup>915</sup> kontatzen duenez, maiz entzun ohi da enpresa handiak krisian sartu zirela eta txikiak hobeto egokitu zirela ingurune hain aldakor batera. Castells-en iritzia bestelakoa da. Bere aburuz, enpresa txikiak ekoizpen malguaren aldaketetara ondo egokitu ziren arren, aldi berean gogorazten du enpresa txikien dinamismo berria enpresa handien mende dagoela finantza, merkaturatze eta teknologia arloan gutxienez, eta enpresa handiak, berriz, ekonomia global berrian botere egituren erdigunean kokatuta daudela.

Castillo eta López-en arabera, teoriarik erdiguneko enpresak ekoizpen prozeduretarako autonomia oso handia ematen die sareko enpresa hornitzaileei, beren esku dago ezarritako helburura nola iritsi, baina helburuak kanpotik ezarriak dira. VW-ren erdiguneak gehienetan oso zehatz ezartzen ditu bere eskariaren ezaugarriak. Sareko enpresek ez dute produktuaren izaera erabakitzeke autonomiarik izaten. Gehienetan hori egiteko batere eskumenik ez dute. Azken finean, sareko enpresak lanekuaren hornitzaile hutsak dira, ez produktuen hornitzaileak. Gainera, sareko enpresen lehiakortasun giroan erdiguneak sareari helburuak ia nahieran ezartzeko boterea duenez, helburuak ez dira betetzen errazak izaten, eta ondorioz prozeduretarako autonomia tarte handirik ere ez da gelditzen. Hortaz, prozeduretarako autonomia teoriko handiarekin batera, oso handia da VW-ko erdigunearekiko menpekotasuna. Testuinguru honetan, lan denboraren antolaketa autonomia dela esatea ez da zuzena. Gainera, nahiz eta Just In Time estrategiari ekoizpen arina

<sup>914</sup> Castells, 2001a, 255-398 or.

<sup>915</sup> Castells, 2001a, 204-222 or.

ere esaten zaion eta bere aldarri nagusia malgutasuna den, sareko enpresa ugaritan kronometro tayloristaren presioa oso zorrotza da eta sarearen erdigunetik urrundu ahala gogortzen da presio hori. Halaber, enpresa eta langile bakoitzaren autonomia ez da berdina sarearen kokapen guztietan: erdigunetik urrundu ahala, adibidez, handitu egiten da jardueraren abiadura eta luzatu egiten da lanastea.

Antolaketa modu berria nagusitzen ari den testuinguru honetan, Harvey-ren<sup>916</sup> arabera, askatasun neoliberalak hogeita hamar urtez hedatu ondoren, elite kapitalistak botere handia berreskuratzeaz gain, enpresen botere pilaketa handiak ere geratu dira hainbat eremutan (energia, hedabideak, industria, farmazeutikak, garraioak, txikizkako salmentakoak).

Boltanski eta Chiapello-ren<sup>917</sup> arabera ere enpresa handien eta beren menekoen boterea handitu egin da. Merkatu guztietan oligopolikoak osatu dituzte. Etengabe hedatzen ari dira oligopolio hauen merkatuak eta lankide sareak. Hainbat datuk islatzen dute fenomeno hori. Esate baterako lanen azpikontratazioa nabarmen handitu da, Boltanski eta Chiapelloren arabera: dagoeneko 1996 urterako lan industrialeko bolumenaren %21era iritsia zen. Enpresen tamaina txikitzen joan da: 1975 urtean 500 enplegatutik gorako enpresetan zeuden soldatapekoen %21 eta 1996 urtean, berriz, %11, bitartean 10 enplegatutik beherako enpresetan kopurua %18tik %26ra pasa delarik. Enpresen txikitze honek izkutatu egiten du enpresa egitura handiak hazi egin direla, enpresa txikiagoek osatutako sare handietan garatzen baitituzte beren estrategiak. Horrelako sareetan dauden enpresetan lan egiten dute soldatapekoen erdiak. Enpresa sare hauek ekoitzi zuten balio erantsiaren %60a, higiezin tangiblearen hiru laurden, baliabide propioen %87 1995 urtean.

Juaristi-ren<sup>918</sup> arabera, azken hamarkadetan Euskal Herriko enpresa ugari pribatizatu edo/eta multinazionalen agindupean jarri dira. Halaber, gaur egungo ekoizpenaren funtsezkoak diren hainbat sektoretako makina bat enpresa ere multinazionalen esku daude: autogintza (Daymleer-Chrysler, Michelin, Bridgestone-Firestone, Volkswagen, eta abar), energia, etxetresnak, makina-erreminta, papera, aeronautika eta beste zenbait, baina ez soilik industriaren sektorean, baita gainerakoetan ere. Sektore eta azpisektore gehienetan kontzentrazio handiak gertatzen ari dira eta ondorioz Euskal Herriko ekoizpenaren zati handiena nazioarteko enpresa taldeen esku daude.

Lide Salvador-ek<sup>919</sup> EAeko aurrezki kutxentzat 2003 urtean egin zuen ikerketaren arabera, azpikontrataturako enpresen esku dago EAeko industria jardueraren %27,5 eta enplegu osoaren %31. Horrez gain, Gizarte Segurantzaren EAeko langileen %29ak autonomo bezala kotizatzen du.

Espainiako Ogasun Ministerioaren baitan dagoen Zerga Ikerketarako Estudioak (Instituto de Estudios Fiscales) 2003 urtean egin zuen ikerketaren arabera, Espainiako estatuan ekonomia murgildua BPGaren %20,9 izango litzateke. Lanbide erakundeak *Lan Merkatuaren Behatokiak* txostenean argitaratu zituen datuen arabera, 2004 urtean EAEn 889.643 langile zeuden Gizarte Segurantzaren afiliatuta, artean urte horretan bertan enplegatuta zegoen biztanleriaren kopurua

---

<sup>916</sup> Harvey, 2005, 38 or.

<sup>917</sup> Boltanski & Chiapello, 2002.

<sup>918</sup> Juaristi, 2001, 58 or.

<sup>919</sup> Salvador, Lide in Imaz, 2006, 180 or.

912.500ekoa zelarrik. Hau da, 20.000 langilek baino gehiagok onartu zuten Gizarte Segurantzaren kotizatu gabe zeudela enplegatuta.<sup>920</sup>

Mundu mailan eraikitzen ari diren oligopolioek ez diote lehiakortasunaren printzipioei erantzuten, Boltanskik eta Chiapellok<sup>921</sup> diotenez. *Lehiakortasun* terminoak eskaeraren eta eskaintzaren arteko harreman desoreka disimulatzen ditu. Lehiakortasuna oso urrun dago perfektua izatetik, merkatu lehiakorra izatetik. Maiz indartsuenaren legea besterik ez da.

Imazen<sup>922</sup> arabera, ikuspegi kritikoak gaitzetsi egiten ditu neoliberalismoak sustatzen dituen neurriak zeren araurik gabeko merkatu neoliberal kapitalistek, merkatu perfektuen ezaugarriak betetzetik urrun daudenez, oligopolioak eta monopolioak sortzeko joera baitute eta gizarteak trukean ez baitu zerbitzu hoberik edo salneurri merkeagorik jasotzen. Neoliberalismoak aukeratzeko askatasuna sustatzen duela aldarrikatu arren, neurri neoliberalak aberastasun eta botere kontzentrazioa eragin ohi dute, Imazek azaltzen duen ikuspegi kritikoaren arabera. Espainiako estatuaren adibidea aipatuz, Imazen arabera, 1996 urteatik aurrera PP alderdiak gauzatu zituen politika liberalizatzaile eta pribatizatzaileek ahalbidetu zuten hainbat sektoretan oligopolioak eta monopolioak sortzea edo sendotzea, mundu mailan beste hainbat botere gunerekin gertatzen ari den norabide berean.

Imazek dioenez, elektrizitatearen merkatua Endesa, Iberdrola eta Unión Fenosaren esku dago. Gasaren merkatuan Gas Natural, Endesa (%20) eta Iberdrola (%10) dira nagusi. Petrolioaren merkatuan Repsol-YPF da jaun eta jabe. Gas Natural-en %24 Repsolena da eta Repsol-en %8,15 BBVA-rena eta %12,5 La Caixarena, eta azken bi hauek dira estatuko finantza erakundeetan lehen eta bigarren handienak, Imazen arabera. Energia merkatu berriagoetan ere izen berberak daude; esate baterako, parke eolikoaren merkatuan kontrolatzen duen Gamesa enpresan Iberdrola da nagusi. Telekomunikazioen eremuan Telefónica enpresa pribatizatuak merkatuaren %86 kontrolatzen zuen 2003 urtean. Enpresa honen akziodun nagusienetakoa BBVA da (%6,8). Hedabideen eremuan Prisak eta Vocentok saltzen dute egunkari gehien eta irratian nagusi dira RNE (publikoa), SER-Cadena 40 (Prisa), Cope-Cadena 100 (eliza katolikoarena) eta Onda Cero (ONCE eta Telefónicaarena). Halaber, telebista eta argitaletxe handiak ere talde handien eskuetan daude. Autopistak nagusiki Iberpistas, Aurea eta Acesa enpresen esku zeuden baina 2002 urtean azken biak elkartu eta lehenengoari OPA aurkeztu zioten. Hauen guztien akziodun nagusiak bankuak eta kutzak dira eta bertako kide asko aipatu ditugun enpresetako kide dira edo hangoeekin lotura zuzena dute. EAEn ere botere gune handien artean lotura estuak daude. Orain aipatu ditugun taldekatzeetan zenbait aldaketa gertatu dira azken urteetan baina joera oligopolikoak bere horretan jarraitzen du.

Navarro-ren<sup>923</sup> arabera, enpresa pribatizatuak izan dituzte irabazirik handienetakoa. Adibidez, Espainiako estatuko elektroindar enpresek dauzkate Europako Batasuneko zerga abantaila handienak, pribatizatu ondorengo lehenengo urteetan 7.213 milioi euro jaso dituzte dirulaguntzetan eta aldi berean etxeko kontsumorako Europako Batasuneko salneurri handienak dituzte.

---

<sup>920</sup> Imaz, 2006, 181 or.

<sup>921</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 652-653 or.

<sup>922</sup> Imaz, 2006, 72-80 or.

<sup>923</sup> Navarro, 2002, 49 or.

Klein-en<sup>924</sup> arabera, legedi berriek erraztu egin dituzte monopolioen sorrerak. Garai batean monopolioiek elkarren aurka lehia izatearen itxurak egin eta isilpean salneurriak adosten zituzten bezala, gaur egun gero eta monopolistikoagoak diren enpresen indar hazkorrak txikitu egiten du jendearen aukeratzeko gaitasuna. Zenbaitetan txikizkako merkataritzaren aurka eta egitasmo monopolistikoen sinergiaren alde ez ezik zentsura ere zuzena izan da, hainbat eskaintza desagerrarazi egin baitituzte.

Hortaz, ekarpen hauetan oinarrituz erantzun beharko bagenio Castells-ek egiten zuen galderari (zeintzuk nagusituko dira etorkizunean, sare bertikalak ala horizontalak?), esango genuke oligopolioek gero eta hedapen eta indar handiagoa dutela, hots ekoizpen sare bertikalen eredu nagusitzen ari dela.

Baina Klein-en<sup>925</sup> arabera kontua ez da soilik zein enpresa mota nagusitzen ari den. Klein-ek dioenez, enpresa korporazio handiak guztiok erabiltzen ditugun produktuen hornitzaileak ez ezik gaur egun mundu mailako indar politiko boteretsuenak ere badira. Shell eta Wal-Mart bezalako transnazionalen urteko aurrekontuak, esate baterako, munduko estatu gehienen BPGa baino handiagoak dira. Izan ere, munduko 100 ekonomia indartsuenetatik 51 transnazionalak dira. Beraz, soilik 49 dira estatuak. Klein-ek dioenez, astiro gauzatzen ari den estatu kolpe bat da. Báez-en<sup>926</sup> arabera, 200 inguru korporazio globalek beren kontrolpean dute mundu mailako BPGaren %25a.

### 6.3 Prekarietateak baditu milaka aurpegi

Testuinguru honetan maiz entzun ohi dira *malgutasuna* eta *prekarietatea* hitzak. Batzuen diskurtsoan malgutasuna da aldarria. Beste askoren ahotan, berriz, prekarietatea nagusitzen da. Baina nola deitu, malgutasuna ala prekarietatea? Zer da, fenomeno berbera baina nork bere ikuspegitik bataiatua?

Klein-en<sup>927</sup> arabera, langile askori interesatzen zaie malgutasuna ahalbidetzen duen lan hitzarmena izatea, baina langileek *malgutasuna* ulertzeko duten modua eta ugazabek dutena oso ezberdinak dira.

Zuberok<sup>928</sup> dioenez, langile mugimenduak historikoki lan kopuru nahikoa, kalitatekoa eta duina eskatu izan du. Lanaren Munduko Erakundeak bere 87. biltzarraren kariatara 1999 urteko ekainean Genevan, zuzendari orokorraren txostenean islatu zuen ezin zirela lanaren alderdi kuantitatiboa eta kualitatiboa bereizi.

---

<sup>924</sup> Klein, 2005.

<sup>925</sup> Klein, 2005.

<sup>926</sup> Báez, 2008.

<sup>927</sup> Klein, 2005, 289 or.

<sup>928</sup> Zubero, 2007a, 13-14 or.

Laparra-k<sup>929</sup> 2007 urtean zioen arazoa ez zela enpleguen kopurua baizik eta kalitatea. Hiru langiletik bat aldi baterako izatea ez da Europan beste inon gertatzen, baina, Laparrak dioenez, enpleguaren beste hainbat ezaugarri ere kontuan hartu behar dira: lanaren baldintzak, intentsitatea, segurtasuna eta promoziorako aukerak, besteak beste. Kalitate eta prekarietate kontzeptuak aldi baterako kontratua izatea baino zabalagoa da.

Pentsatzen dugu 2000ko hamarkada bukaerako krisiarekin batera makina bat enplegu suntsitzen ari direla ikusita, enplegu kopuruaren arazoa berriro lehen mailan jarriko dela eta ondorioz prekarietatearen arazoari langabeziaren arazoa gehituko zaiola. Izan ere, 2010 urtearen hasieran 4 milioi langabetu daude Espainiako estatuan. Espainiako bankuaren arabera<sup>930</sup>, langabezia tasa %20ra iritsiko da.

Zuberoren<sup>931</sup> arabera, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan aldaketa sakonak izan dira enpresek laneskua kudeatzeko zuten eran eta honen ondorioz enpleguaren arau sozialak eraldatu eta batzuetan desagertu egin dira. Dagoeneko ez da nagusi enplegu egonkor eta arautua, jarraia eta denboran luze irauten zuena, ibilbide profesionala egitea ahalbidetzen zuena. Hau izan zen integrazio sozialaren oinarria. Izan ere, enpleguari buruz hitz egiten denean, maiz ez da kontuan hartzen enpleguaren edukiei lotuta doan aberastasun sozial eta politikoa. Enplegua bere osotasunean ulertu ahal izateko ezinbestekoa da enplegua arau sozial bezala hartzea. Enpleguari dagokion araua betidanik izan da borrokagai eta bere edukia aldatu egin da urteetan zehar. Esate baterako, 1960ko hamarkadan arauak egonkortasunaren alderantz egiten zuen eta, aldiz, 1990eko hamarkadan arauak prekarietatearen aldera egin zuen. Joera honek ez du soilik enpleguaren orientazioa definitzen. Gainerako erakunde sozialen norabidea ezaugarritzeko funtsezko oinarria da: familia, hezkuntza, gobernua, eta abar.

Zuberok dioenez, azken hamabost urteetan besteak beste OCDE bezalako erakundeen irizpideei jarraiki Europako ongizatearen oinarri guztiak desegituratu egin dira (erregulazioak, adostasunak eta erakundeak). Ongizate hark bi zutabe zituen: a) enplegu egonkorraren gainean eraikitako lan merkatua eta b) segurtasun sareak oinarri zituen politika soziala eta honek bermatu egiten zien gutxieneko bizi maila bazterketa sozialaren arriskuan bizi ziren pertsonen beste guztiak huts egiten zuenean, baina funtsean enpleguak bermatzen zuen integrazio soziala. Aitzitik, gaur egun Bourdieuk *malgustiapena* deitzen duena (malgutasuna eta ustiapena uztartzen dituen joera) nagusitzen ari da. Enplegua gero eta gehiago da merkantzia hutsa. Malgutzeko prekarizatzaileak da lan merkatuko politiken ardatza. Gainera, guztientzat enplegua bilatzen denean ere enplegu kaskarren hedapena da politika ofizialen funtsa.

Nolanahi ere, prekarietateaz hitz egin nahi badugu, kontuan hartu beharra dago prekarietatea fenomeno oso konplexua dela. Batetik, Miguélez-en<sup>932</sup> ekarpenean oinarrituz esan genezake prekarizazio prozesuak adierazpide ezberdinak dituela herrialde bakoitzean. Bestetik, atal honetan ikusiko ditugun prekarietatearen hainbat adierazle aintzat hartuz esan genezake prekarietatea ez dela unidimentsionala, prekarietatea ez dela soilik behin-behineko kontratua izatea, prekarietateak hamaika aurpegi dituela. Fenomeno hau ezin da soilik kuantitatiboki analizatu, enplegu ereduak

<sup>929</sup> Laparra, Miguel in Berria, 2007-07-29.

<sup>930</sup> TVE, 2010-03-30.

<sup>931</sup> Zuberu, 2007b.

<sup>932</sup> Miguélez, 2003.



alderdi kualitatiboak nahiz kuantitatiboak baititu. Beraz, lehenik eta behin, prekarietatearen dimentsioak zeintzuk diren definitu beharko genituzke.

### 6.3.1 Behin-behinekotasuna

Prekarietatea maiz kontratuen behin-behinekotasunaren sinonimoa balitz bezala erabiltzen da. Oraintxe aipatu dugun bezala, esango genuke prekarietatea hori baino askoz gehiago dela baina aldi berean ez dugu ahaztu behar gaur egun behin-behinekotasuna dela prekarietatearen aurpegirik agerikoenetako bat, batik bat zenbait eremutan, Espainiako estatuan kasu. Izan ere, Klein-en<sup>933</sup> arabera, nagusitzen ari den lan ereduaren ezaugarri behinenetako bat da behin-behinekotasuna. AEBetan behin-behineko enplegatutako kopurua %400 hazi zen 1982 urtetik 1999 urtera. Frantzia, Espainia, Herbehereak eta Alemaniako langileentzat ohikoa bihurtu da epe luzera behin-behineko kontratuen bitartez sartzea lan merkatuan. Honela enplegatuak erraz ekiditen dute kaleratzea zailtzen duen legedia eta horri esker arestian aipatu ditugun hainbat helburu erdietsi ditzakete.

OCDE erakundeak kezka azaldu du Espainiako Estatuko lan merkatuaren behin-behinekotasun eta dualtasun handiagatik<sup>934</sup>. Hego Korea da parera iristen zaion bakarra. OCDE erakundearen dauden beste guztiek egoera hobea dute.

Gainera, Castillo-k<sup>935</sup> dioenez, ez dirudi arazo hau iragankorra denik. Batzuek maiz nabarmendu nahi izan dute gazteen lan arazoaren izaera behin-behinekoa dela, kontratuen aldi baterako izaera besteak beste, denbora pasa ahala gairatu egiten dela, baina denboraren poderioz agerian gelditu da arazo horien iraunkortasuna ez dela eteten.

Espainiako estatuko lan merkatuak joera orokorrari bere erara erantzuten dio. Enpleguen behin-behinekotasuna, adibidez, Europako Batasuneko batez bestekoaren bikoitza baino askoz handiagoa da: Espainiako estatuan 2004an %31,8 izan zen bitartean, Europako Batasunean %12,8an zegoen batez bestekoa. Espainiako Estatuan 1998 eta 2004 artean behin-behineko lan kontratuen kopurua %35 handitu zen. 2004an Europako Batasunaren behin-behinekotasun tasaren batez bestekoa %0,8 txikitu zen artean, Espainiako estatuan %2,2 handitu zen. Honenbestez, Espainiako estatua da behin-behineko langile gehien dituen estatua Europako Batasunean: euroaren eremuko behin-behineko langileen %26 daude bertan baina horien okupazioak %7a besterik ez du suposatzen euroaren eremuan. Etorkizunerako ikuspegi argirik ez duten langilez beteta utzi du horrek Espainiako estatua. Eta ez du aldatzeko itxurarik. 2005eko apirilean, esate baterako, sinatutako kontratuen %10 bakarrik izan zen behin-betikoa, artean %75 ekoizpenak eragindako baldintzen arrazoiengatik eta %18 zerbitzu edo lan zehatzetarako izan zirelarik.<sup>936</sup>

---

<sup>933</sup> Klein, 2005, 295 or.

<sup>934</sup> Expansión 2004-07-07

<sup>935</sup> Castillo, 2004, 14 or.

<sup>936</sup> El Correo, 2005eko maiatza

Díaz Salazar-ek<sup>937</sup> berretsi egiten ditu behin-behineko kontratuen kopuruaren bilakaeraren datuak: Espainiako estatuan 1987 urtean aldi baterako kontratuak %15,6 ziren, 1992 urtean %33,5 eta 2002 urtean %30,7.

Gainerako estatuetan ez da hainbestereinokorik gertatzen. Honako datuetan Europako Batasuneko gainerako estatuekiko alde handia ikus daiteke:<sup>938</sup>

19. Grafikoan ikus dezakegunaren arabera, 2004 urtean Espainiako estatuaren behin-behinekotasun tasa %32 ingurukoa zen. Hego Euskal Herria asko hurbiltzen zitzaion, ia %30era iristen baitzen. Baina gainerakoak oso urrun zeuden datu hauetatik. Poloniak bakarrik gainditzen zuen %20ko muga, %21,9an baitzegoen. Baina gainerako estatu guztiak %20tik behera zeuden. Are gehiago, EB-27ko estatuetatik 21 zeuden %15eko kopurutik behera (Frantziako estatuan %12,9koa zen) eta horietatik 14 %10etik behera. EB-27ko batez bestekoa %12,8koa zen.

Nafarroari dagokionez, esate baterako, Laparra-k<sup>939</sup> enpleguaz egin duen ikerketaren emaitzetan azaltzen du 2004 urtearen inguruan 84.000 lagun zeudela lanean inolako lan kontratu finkorik gabe, aldi baterako kontratu bat bestearen atzetik kateatzen, eta 2007 urterako kopurua 90.000 lagunera igo zela. Laparrak dioenez, administrazio publikoa erregistratutako datuen arabera, 1999 eta 2004 urteen artean 40.000 lagun zeuden egoera horretan, ez ziren estimazioak.

Eusko Jaurlaritzaren *Lan Merkatuaren Errolda 2003*<sup>940</sup> ikerketan ere behin-behinekotasun tasa oso handia da EAEn: 16 eta 64 urte arteko biztanleria okupatu soldataduna, kontratu motaren arabera bereiziz gero, %71,1ak kontratu mugabea dauka, %25,7ak behin-behinekoa, eta %3,2ak ez dauka kontraturik.


Adina kontuan hartzea oso komenigarria da kopuru hauek aztertzeko orduan, adin taldeen arteko alde oso nabarmenak baitaude. 37. Taulan ikus dezakegunaren arabera, EB-25eko batez bestekoa %12,8 da baina 25 urtetik beherakoen artean behin-behinekotasun tasa %37koa da, 25-49 urte artekoetan %10,5ekoa eta 50 urtetik gorakoen artean %6,3koa. Estatuen artean Espainiakoak dauzka datu okerrenak: 25 urtetik beherakoen artean %65,7koa, 25-49 urte artekoetan %31koa eta 50 urtetik gorakoen artean %14,2koa. Hego Euskal Herrian datuak antzekoak dira: 25 urtetik beherakoen artean %63,7koa, 25-49 urte artekoetan %29koa eta 50 urtetik gorakoen artean %13,8koa. Kopuru askoz txikiagoak dituztenen artean ere desorekak oso nabarmenak dira baina, hala ere, Espainiako estatuan eta Hego Euskal Herrian ez bezala, Europako Batasuneko estatu guztietan, Polonian eta Portugalen salbu, 25 urtetik gorakoen behin-behinekotasun tasa %15etik beherakoa da eta, are gehiago, 22 estatutan %11tik beherakoa. Frantziako estatuan, adibidez, 25 urtetik beherakoen artean behin-behinekotasun tasa %47koa da, 25-49 urte artekoetan %10ekoa eta 50 urtetik gorakoen artean %5,1ekoa.

<sup>937</sup> Díaz Salazar, 2003, 77 or.

<sup>938</sup> Gara 2005-05-29.

<sup>939</sup> Laparra, Miguel in Berria, 2008-07-29.

<sup>940</sup> Eusko Jaurlaritza, 2004.



Iturria: Eurostat, INE, Eustat, UGT, Espainiako Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministeritza.

Díaz Salazar-ek<sup>941</sup> ere adinaren arabera dauden ezberdintasunak nabarmentzen ditu. Bere arabera, behin-behineko kontratua dutenen %52ak 25 eta 39 urte artean dituzte. %77ak dauzka 16 eta 39 urte artekoan. Aldiz, %23ak dauzka 40 eta 69 urte artean. Adin tarte bakoitzari dagokionez, behin-behineko kontratua dute 16-19 urte artekoen %54ak, 20-24 artekoen %46ak, 25-29 artekoen %36ak, 30-39 artekoen %25ak, 40-49 artekoen %17ak, 50-59 artekoen %13ak eta 60-65 artekoen %11ak.

Generoa kontuan hartzea ere ezinbestekoa da behin-behinekotasuna tasa aztertzerakoan. Díaz Salazar-ek<sup>942</sup> dioenez, generoa aldagai oso garrantzitsua da behin-behinekotasunari dagokionez: 2002 urtean Espainiako estatuan gizonezkoen %71ak zeukan kontratu mugagabea eta emakumezkoen artean, berriz, %66ak.

<sup>941</sup> Díaz Salazar, 2003, 79-80 or.

<sup>942</sup> Díaz Salazar, 2003, 79-80 or.

<b>37. Taula: Lan arloko aldi baterako kontratazioa estatuaren eta adin tartearen arabera, 2004 (soldatapeko guztiekiko chunekoak)</b>				
<i>Estatua</i>	<i>Guztira</i>	<i>25&gt;</i>	<i>25-49</i>	<i>50&lt;</i>
Hego EH	29,8	63,7	29	13,8
Espainiako Est.	32,5	65,7	31	14,2
Polonia	21,9	58,5	18,9	12,6
Portugal	19,9	46,5	17,9	9,8
Eslovenia	17,8	64,9	13,2	8,5
Finlandia	16	43,8	14,6	6,8
Suedia	15,2	51,9	12,7	7,2
Herbehereak	14,6	38,1	10,8	6,8
EB-25	12,8	37	10,5	6,3
Frantziar Est.	12,9	47	10	5,1
Luxemburgo	12,8	54,4	10,4	
Alemania	12,2	53	7,4	4
Suitza	12,2	46,9	6,4	4,5
Grezia	11,8	26,3	11,3	6,1
Italia	11,8	34,6	10,6	5,9
Norvegia	9,8	30,2	8,2	3,5
Letonia	9,7	16,7	9	8,2
Danimarka	9,5	25,7	7,6	4,6
Txekiar Errep.	9,3	17,7	7	12
Austria	9	33,6	4,6	3,4
Belgika	8,8	31,6	7	3,7
Hungria	7,1	15,8	6,7	4,7
Txipre	6,6	8,6	7,2	3,1
Lituania	6,4	14,3	5,9	5,2
Britaina Handia	6	12,8	4,5	5,4
Eslovakia	5,4	10,9	4,2	5,8
Irlanda	4,4	14	2,1	2,2
Malta	3,3	8,3	2	1,9
Estonia	2,5	13,8	2,4	
Iturria: Eurostat, INE, Eustat, UGT, Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministeritza				

Lan esparrua ere aintzat hartzea komeni da behin-behinekotasuna analizatzean, lan esparru batzuetan behin-behinekotasuna askoz handiagoa baita, Díaz Salazar-en<sup>943</sup> arabera: zerbitzuetan %58a behin-behineko kontratuak dira, eraikuntzan %21a, industrian %16a. Sektoreka aldi baterako kontratu gehien eraikuntzak (%56) dauzka eta gero nekazaritzak (%53), zerbitzuek (%28) eta industriak (%24).

Gainera, Navarrok<sup>944</sup> dioenez, behin-behineko lan kontratua ez dutenen artean ere ezegonkortasuna eta segurtasun falta oso handiak dira. OCDEren datuen arabera, langileen %64ak, enplegu egonkorra dutenak barne, adierazi du lana galtzearen beldur dela. AEBen ondoren OCDEko estatuaren artean Espainiako estatuak du portzentaje handiena.

Enplegatuek enpresa batean zenbat denbora daramaten kontuan hartzeak nolabait isla dezake Navarrok aipatzen duen ziurgabetasuna. Eusko Jaurlaritzaren *Lan Merkatuaren Errolda 2003*<sup>945</sup> txostenaren arabera, orain dauden enpresan zenbat denbora daramaten kontuan hartuz gero, honakoa ikus genezake EAERI dagokionez: %24,9ak bi urte baino gutxiago, %20,7ak 2 eta 4 urte

<sup>943</sup> Díaz Salazar, 2003, 79-80 or.

<sup>944</sup> Navarro, 2002, 31 or.

<sup>945</sup> Eusko Jaurlaritza, 2004.

artean, %15,7ak 5 eta 9 urte artean, %10,7ak 10 eta 14 urte artean, %8,3ak 15 eta 19 urte artean, eta %19,7ak 20 urte baino gehiago. Hala ere, orain dauden enpresan 5 urte baino gutxiago daramaten enplegatuen kopurua askoz handiagoa da sektore batzuetan; batez bestekoa %45,7 da, baina kopurua %63,7 da etxeko zerbitzuetan, %61,1 enpresentzako zerbitzuetan, %58,9 hosteleritzan, %55,1 eraikuntzan, %53,8 bestelako zerbitzu komertzialetan. Horrez gain, langile autonomoen kopurua kontuan hartu beharra dago: biztanleria aktiboaren %11,8 dira.

### 6.3.2 Lanaldi partziala eta autoenplegua

Frade eta Darmon-en<sup>946</sup> arabera, arau estandarreko enplegua, lanaldi osoko enplegu egonkorra da, baina ez da maiztasun kontu soil bezala ulertu behar, zeren enplegu estandarra araudi baten testuinguruan ematen da eta testuinguru hau legez eta kolektiboki babestua dago. Hortaz, alderdi kuantitatiboari ez ezik kualitatiboari ere begiratu behar zaio, baina soilik kuantitatiboa analizatzen dugunean ere behin-behinekotasun tasa ez ezik bestelako ezaugarri batzuk ere aztertu behar dira, lanaldi partzialaren kopurua kasu. Eusko Jaurlaritzaren *Lan Merkatuaren Errolda 2003*<sup>947</sup> txostenaren arabera, EAEn biztanleria okupatuaren %7,7ak lanaldi partzialeko kontratua dauka. Aldiz, astean 35 ordu baino gutxiago lan egiten duten biztanleria okupatuaren datuei erreparatuz gero, honakoa ikus genezake: 31 eta 35 ordu artean lan egiteko kontratua dauka %8,9ak, 21 eta 30 ordu artean %4,5ak, 11 eta 20 ordu artean %5,6ak, eta hamar ordu baino gutxiago %2,1ak.

Frade eta Darmon-ek<sup>948</sup> enplegu ez estandarren kopurua zehazte aldera batu egiten dituzte autoenpleguaren, lanaldi partzialaren eta aldi baterako kontratuen kopuruak eta horren arabera ondorioztatzen dute enplegatuen %40ak enplegu ez estandarren baldintzak dituztela Alemanian, Erresuma Batuan, Espainiako estatuan, Frantziako estatuan eta Italian. Gainera, aintzat hartu behar da kopuru hauek ez dutela kontuan hartzen legalki aitortu gabeko lana, eta hainbat estimazioen arabera Europako Batasunean %7-11 artean dago.

<b>38. Taula: Enplegu ez estandarren kopurua enplegatu kopurua osoarekiko, bost estatutan eta Europako Batasunean (ehunekoak)</b>						
<i>Estatua</i>	<i>Autoenplegua</i>		<i>Lanaldi partziala</i>		<i>Aldi baterakoa</i>	
	<b>1980</b>	<b>2000</b>	<b>1994</b>	<b>2001</b>	<b>1994</b>	<b>2001</b>
Alemania	6,98	9,22	15,8	20,3	10,4	12,4
Erresuma Batua	7,11	10,83	24,2	24,9	7	6,8
Espainia	16,26	16,02	6,7	8,1	33,8	31,7
Frantzia	10,71	8,06	15,2	16,4	11,5	14,9
Italia	19,2	23,21	5,9	8,4	6,8	9,8
Europako Batasuna (Norvegia barne)	10,87	12,54	15,5	17,9	11,5	13,4
<p>Iturria: Autoenplegua - Pedersini (2002); lanaldi partzialeko eta aldi baterako kontratuak – <i>Employment in Europe 2002</i> in Frade &amp; Darmon.</p> <p>Oharra: autoenpleguaren hazkunde handiena 1980ko hamarkadan jazo zen. Aldi baterako kontratuak iraupen mugatuko kontratu mota oro hartzen dituzte barnean, ABLEen, sasoiaren araberrako enplegua eta praktikatako kontratuak barne.</p>						

<sup>946</sup> Frade & Darmon, 2005.

<sup>947</sup> Eusko Jaurlaritzza, 2004.

<sup>948</sup> Frade & Darmon, 2005.

38. Taulan ikus dezakegunaren arabera, Europako Batasunean autoenpleguaren batez besteko kopurua 1980 urtean %10,87koa eta 2000 urtean %12,54koa zen. Aztertutako estatuen artean kopuru handienak Italiak (%19,2 eta %23,21 hurrenez hurren) eta Espainiak (%16,26 eta %16,02 hurrenez hurren) izan zituzten. Lanaldi partzialari dagokionez, Europako Batasunaren batez besteko kopurua 1994 urtean %15,5ekoa eta 2001 urtean %17,9koa zen. Aztertutako estatuen artean kopuru handienak Erresuma Batuak (%24,2 eta %24,9 hurrenez hurren) eta Alemaniak (%15,8 eta %20,3) izan zituzten. Aldi baterako kontratuari dagokionez, Europako Batasuneko batez besteko kopurua 1994 urtean %11,5ekoa eta 2001 urtean %13,4koa izan zen. Aztertutako estatuen artean kopuru handienak Espainiak izan zituen (%33,8 eta %31,7 hurrenez hurren).

Klein-en<sup>949</sup> arabera, AEBetan hirukoiztu egin da lanaldi partziala duten enplegatuen kopurua 1968 urtetik aurrera. Kanadan, berriz, 1975 eta 1997 urteen artean enplegu egonkorren kopurua baino ia hiru aldiz gehiago hazi da lanaldi partzialen kopurua. Klein-ek dioenez, lanaldi partzialak funtzio ugari izan ditzake enpresarentzat. Ekoizpena enpresaren beharretara doitzeko izan daiteke, enpresaren dinamika erabat malgua ahalbidetzeko, baina baita soldata txikiagoa ordaintzeko ere. Adibidez, UPS enpresan 1997 urtean egin zuten greban horren aurka egin zuten protesta. Izan ere, 1996 urtean mila milioi dolarreko irabaziak lortu arren, UPSek bere langileen %58a lanaldi partziala egiten mantendu zituen eta, gainera, enplegatu are *malguagoak* lortzeko bidean zen. 1992 urtetik sortu zituen 43 mila enpleguetatik soilik 8 mila izan ziren lanaldi osokoak. Horrez gain, lanaldi osoko enplegatuekin alderatuta, gutxiago ordaintzen ziren lan egiten zuten ordu bakoitzeko lanaldi partzialeko enplegatuei.

Beck-en<sup>950</sup> arabera, lehen eta hirugarren munduko lanaren garapenean antzekotasun handiak ikus daitezke. Mendebaldea deitzen zaion eremuan ere prekaritatea, jarraikortasun eza, ziurgabetasuna eta informaltasuna (beltzean lan egitea) nagusitzen ari dira. Adibidez Brasil bezalako herrialde semi-industrializatu batean lanaldi osoko soldatapeko enplegatu egonkorrak gutxiengo dira. Gehiengo, berriz, prekaritatean bizi da. Alemanian, aldiz, Mendebaldeko herrialde gehienek garapena islatzen da: 1960ko hamarkadan langileen hamarren bat zegoen prekaritate egoeran, 1970eko hamarkadan bostena, 1980koan laurdena, 1990ekoan herena. Joera bere horretan mantenduz gero, Beck-en aurreikuspena zen hamar urte barru (1999an argitaratu zuen ideia hau plazaratzen zuen jatorrizko testua) soldatapeko langileen erdiak izango zuela lan prekariora.

Castells-ek<sup>951</sup> ere lan ez-estandarren hedapen handia islatzen duten zenbait datu ematen ditu:


---

<sup>949</sup> Klein, 2005, 289-291 or.

<sup>950</sup> Beck, 2000.


<sup>951</sup> Castells, 2001a, 324-325 or.

20. Grafikoa: Lanaldi partziala duten enplegatuen kopurua enplegatuen kopuru orokorrarekiko OCDEko hainbat estatutan, 1983, 1994 eta 1997 urteetan (ehunekoak)




Iturria: Castells, Manuel: *La era de la información Vol. I*, 324. Or.

21. Grafikoa: Langile autonomoen kopurua enplegatuen kopuru orokorrarekiko OCDEko hainbat estatutan, 1983 eta 1994 urteetan (ehunekoak)




Iturria: Castells, Manuel: *La era de la información Vol. I*, 324. Or.

22. Grafikoa: Aldi baterako langileen kopurua enplegatuen kopuru orokorrarekiko OCDEko hainbat estatutan, 1983, 1994 eta 1996 urteetan (ehunekoak)



Iturria: Castells, Manuel: *La era de la información Vol. I*, 325. Or.

23. Grafikoa: Enplegu forma ez estandarren kopurua enplegatuen kopuru orokorrarekiko OCDEko hainbat estatutan, 1983 eta 1993 urteetan (ehunekoak)



Iturria: Castells, Manuel: *La era de la información Vol. I*, 325. Or.

Klein-en<sup>952</sup> arabera, AEBetako 1997 urteko estatistiketan lanaldi partzialeko, behin-behineko eta ordezkoko enpleguak kontuan hartzen badira, enplegua duten edo enplegu bila dabiltzanen %40a dira, baina kopuru honetan barne hartzen badira lanerako adinean egonik ere enpleguaren bila ez dabiltzalako langabetuen kopuruetan sartzen ez diren pertsonak, orduan lanaldi osoko kontratu egonkorrek dituzten enpleguak gutxiengoa dira.

<sup>952</sup> Klein, 2005, 323 or.



Díaz Salazar-ek<sup>953</sup> *XXI. mendeko proletar*goa deitzen die lan erreformak zuzenean sufritzen dituztenei eta bere datuen arabera, 2002 urtean soldatapekoen %31 ziren Espainiako estatuan, eta horri langabetuak gehituz gero, %46. Langabetuak kontuan hartu gabe soldatapekoen bi herenak diren arren, lan erreformen eragina progresiboki hedatzen ari denez, langile askok erretiroa hartzen dutenean, orain heren bati eragiten dion egoera honek lan merkatuaren gero eta zati handiagoa hartuko du.

### 6.3.3 Soldata

Prekarietatearen hedapena soldatetan ere islatzen da. Beck-en<sup>954</sup> arabera, hazkunde ekonomikoak eta enpresen etekinen hazkundeak lotura galdu dute langileen soldatekin eta bestelako lan baldintzekin. Klein-en<sup>955</sup> arabera ere, enplegatuek gogor lan eginez beren enplegatzaileek arrakasta lortzen badute ere, arrakasta orokorraren eta arrakasta partekatua izango denaren arteko harremana orain inoiz baino ahulagoa da. Iritzi horiek berresten dituzte OCDEren datuek<sup>956</sup>: Espainiako estatuan batez besteko soldata erreala %4 jaitsi da 1995 eta 2005 urteen artean, baina Espainiako estatuko BPGa eta enplegu tasa Europakoa baino gehiago hazi da 1999 eta 2005 urteen artean. Halaber, enpresen mozkinak %73 handitu dira epe horretan. Badirudi Espainiako estatuko hazkunde ekonomikoa eta mozkinen gorakada soldaten moderazioan oinarritu dela, OCDEren datuen arabera.

Zuberok<sup>957</sup> dioenez, Espainiako estatuan 2006 urtean batez besteko soldata 1.922 eurokoa zen, Europako batez bestekotik %15 behera, eta jaitsierak sofritu ditu termino errealetan: adibidez, 2006 urteko lehen hiruhilekoan %0,5 txikitu zen, inflazioaren eta enpleguaren prekarizazioaren erruz. Lanaren Munduko Erakundearen arabera, *trabajo decente* izeneko kontzeptua oinarri hartuta, Espainiako estatua zortzigarren onena da (ikus 24. Grafikoa).

Baina Dharam Ghai-k egin duen OCDEko 22 estaturen analisi konparatiboan Espainiako estatua azken postuan dago (ikus 39. Taula).

Egoeraren kaskarra islatzen duen analisi hau bat dator, Zuberok<sup>958</sup> dioenez, kalitate tekniko eta anbizio interpretatibo handiz egin diren beste hainbat ikerketekin: besteak beste, Vicenç Navarro-ren *La situación social en España* (Anagrama, 2006, Bartzelona), Daniel Lacalle-ren *La clase obrera en España: continuidades, transformaciones, cambios* (El Viejo Topo, 2006, Madril) eta Diego Guerrero-ren *La explotación: trabajo y capital en España. 1954-2001* (El Viejo Topo, 2007, Madril). Halaber, Zuberoren arabera, ikerketa kualitatiboek ere berretsi egiten dute interpretazioaren norabide hau.

Baina aldi berean ez dugu ahaztu behar, 2. atalean azaldu dugunaren haritik, soldaten prekarizazioa fenomeno orokortua izan arren, kopuru erlatiboki handi bati ez diola eragiten, eta

<sup>953</sup> Díaz Salazar, 2003, 73 or.

<sup>954</sup> Beck, 2000, 108 or.

<sup>955</sup> Klein, 2005, 307 or.


<sup>956</sup> El País, 2007-06-26.

<sup>957</sup> Zuberok, 2007b, 69 or.

<sup>958</sup> Zuberok, 2007b, 69 or.

asimetria hauen bitartez 20-80 gizartea deitzen duten horretaranzko joeraren zantzuak suma daitezkeela.

24. Grafikoa: *Fundamentuzko lana* kontzeptuaren arabera ondoen sailkatutako 25 estatuak (*fundamentuzko lana* indizea).



Iturria: Bonet & beste in Zubero: “Trabajo decente...”, 69.

Gogora ditzagun gorago aipatu ditugun zenbait datu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ogasunen 2005 urteko datuen arabera<sup>959</sup>, zergak ordaintzen dituztenen artean %45ak, 461.926 lagunek hain zuzen, pobrezia mugatik beherako diru sarrerak aitortu zituzten. Urte horretan pobrezia mugatik hileko 778 euron kokatuta zegoen, OCDEren irizpideen arabera. Pertsona Fisikoen Errentaren Gainerako Zergaren aitortpena egin zuten hamar lagunetik seik (%62,1ak) 18,000 eurotik beherako lan errentak izatea aitortu zuen. Multzo honen esku dago oinarri likidagarri orokorraren %32,2. Hots, %62,1aren esku soilik %32,2 dago. Bitartean 31.707 lagunek 54.000 eurotik gorako irabaziak aitortu zituzten. Are pribilegiatuagoak direnei dagokienez, 8.544 lagun, aitortpena egin zutenen %0,8 hain zuzen, aitortutako errentaren %6,4aren jabe dira. Azken hauek errenta globalaren %14,4 eskuratu zuten. Eusko Jaurlaritzak plazaratu dituen datu hauen arabera, azken sei urteetan %63,15 hazi dira diru irabazi handienak dituztenen errentak.

Zuberok<sup>960</sup> ere ezberdinkeriak aztertzeke hainbat aldagai nabarmentzen ditu Esate baterako, emakumezkoek batez beste %40 gutxiago irabazten dute eta Ogasunaren “Mercado de trabajo y

<sup>959</sup> Gara, 2007-08-12.

<sup>960</sup> Zubero, 2007b, 71 or.

pensiones en la fuentes tributarias de 2005” txostenaren arabera 2005 urtean lanean hasi zirenen zati handi bat mileurista bihurtu ziren, ia guztiek kobratu zuten gutxieneko soldata interprofesionalaren bikoitza baino gutxiago, eta orduan 513 eurokoa zen.

**39. Taula: Fundamentuzko lana kontzeptuaren araberako sailkapena. OCDEko estatuak, 2003.**

<i>Estatua</i>	<i>Generoen arteko berdint.</i>	<i>Enplegua</i>	<i>Babes soziala</i>	<i>Elkarrizk. soziala</i>	<i>Fundament. lana</i>	<i>Emaitza ekonomikoak</i>	<i>Azken sailkapena</i>
Alemania	11	9	5	13	6	18	<b>14</b>
Australia	8	14	21	11	14	2	<b>4</b>
Austria	12	5	9	9	5	17	<b>11</b>
Belgika	14	16	7	5	8	13	<b>9</b>
Kanada	6	8	19	10	7	12	<b>6</b>
Danimarka	10	2	2	2	2	1	<b>1</b>
Espainia	17	21	15	20	22	15	<b>20</b>
AEB	3	11	20	21	15	6	<b>9</b>
Finlandia	2	10	3	3	4	8	<b>3</b>
Frantzia	18	19	4	22	20	8	<b>19</b>
Grezia	21	20	14	16	21	20	<b>22</b>
Irlanda	13	22	18	6	19	4	<b>13</b>
Italia	20	18	12	7	15	22	<b>20</b>
Japonia	14	3	22	18	15		<b>7</b>
Luxenburgo	22	7	11	8	10	10	<b>7</b>
Norvegia	1	3	6	4	3	3	<b>2</b>
Zelanda Berria	7	17	16	16	15	11	<b>15</b>
Herbehereak	18	13	8	14	12	6	<b>5</b>
Portugal	9	12	17	14	13	14	<b>17</b>
Erresuma Batua	5	15	13	12	9	18	<b>17</b>
Suedia	3	1	1	1	1	21	<b>11</b>
Suitza	14	5	10	19	11	15	<b>15</b>

Iturria: Ghai in Zubero: “Trabajo decente...”, 70.

Beste hainbat datuk ere erakusten dituzte ezberdinkeria hauek. Espainiako Lan Ministeritzaren eta INEren datuetan islatzen denez<sup>961</sup> (ikus 40. Taula), EAEEn hamar langiletik hiruk mila euro baino gutxiago kobratzen dituzte hilean (langileen %30ak hain zuzen). Hilean 1.200 euro baino gutxiago kobratzen duten langileak, aldiz, %42a dira. Emakumezkoek gizonezkoek baino %14 gutxiago kobratzen dute, eta alde nabarmena dago adinaren, sektorearen eta kontratu motaren arabera. Eustat-en arabera, EAEEn 1993 urtetik 2006 urtera lan errenten pisua txikitu egin da BPGarekiko, hain zuzen %54,7 izatetik %48,3 izatera. 1993tik 2000ra lansariak hazkundera %119koa da. BPGarena, ordea, %147koa. Enpresen mozkinena, berriz, %167koa.

Honetan guztian zerikusi handia dute kontratazio politika berriek. Urteko soldata gordinei buruzko 2006ko INEren<sup>962</sup> datuetan argi islatzen da hori. Esate baterako, lanaldi partziala eta osoa izan zutenen artean aldea nabarmena da: lanaldi partziala izan zuten langileen %75ak 12.000 euro gordin baino gutxiago irabazi zituen urtean (enplegatuen %16,6ak zeukan lanaldi partziala, gizonezkoen %4,7ak eta emakumezkoen %11,9ak). Batez besteko soldatarekin alderatuz gero, lanaldi partziala dutenek %50 inguru gutxiago irabazi zuten. Nolanahi ere, langileen laneko errentak ezagutzeko egokia bada ere, ez du balio lanekuaren salneurria definitzeko, lanaldi osoko soldata lan ordu gehiagori baitagozkie. Hortaz, lanekuaren salneurria ezagutzeko neurgailu

<sup>961</sup> Berria, 2007-11-29.

<sup>962</sup> INE, 2006.

egokia orduko irabaziak dira. Hau kalkulatzeko hileko irabaziak zati lan egindako orduak (arrunta eta ezohikoak) egiten da<sup>963</sup>. Lanaldi partziala dutenek batez bestekoak baino lan orduko irabazi txikiagoak dituzte. Emakumezkoen dagokienez, batez beste lan orduko irabazten dena baino %24,3 gutxiagokoa da. Lanaldi partziala duten emakumezkoen %75ak lan orduko 8 euro baino gutxiago irabazi zituzten. Bitartean lanaldi osoko emakumezkoek eta lanaldi partzialeko gizonezkoek 10 euro baino gutxiago irabazi zituzten eta lanaldi osoko gizonezkoek, berriz, 12 euro. Beraz, lan orduko irabaziei dagokienez, emakumezkoek gizonezkoen %83,7a irabazi zuten (urteko soldata gordinaren batez bestekoari dagokienez, emakumezkoek gizonezkoen %83,7a irabazi zuten).

<b>40. Taula: Beharginen diru sarrerak lanbide egoeraren, kontratu motaren, sektorearen eta sexuaren arabera. EAE, 2005 (euroak eta ehunekoak)</b>		
<b>Lanbide egoera</b>	<b>Batez besteko sarrerak eurotan</b>	<b>EAEko batez bestekoarekiko %a</b>
Edm. Publikoetako soldatapekoak	1.548,84	125,2
Enp. Publikoetako soldatapekoak	1.392,36	112,2
Enp. Pribatuetao soldatapekoak	1.156,08	93,4
<b>Kontratu mota</b>		
Mugagabe	1.313,01	106,1
Aldi baterako	987,11	79,8
Kontraturik ez	518,31	41,9
<b>Sektorea</b>		
Nekazaritza	1.028,98	83,1
Industria	1.297,83	104,9
Eraikuntza	1.290,48	104,3
Zerbitzuak	1.209,79	97,8
<b>Sexua</b>		
Gizonezkoak	1.358,99	109,8
Emakumezkoak	1.061,34	85,8
Iturria: Espainiako Lan Ministeritza, INE		

Kontratuaren iraupena kontuan hartuz gero, emaitzak ere argiak dira. INEren arabera, kontratu mugagabea dutenekin alderatuta, aldi baterako kontratua dutenek batez beste %32,6 gutxiago irabazten dute. Batez besteko urteko soldata gordinarekin alderatuta, gizonezkoen dagokienez kontratu mugagabea dutenek %25 gehiago kobratzen dute eta aldi baterako kontratua dutenek %20 gutxiago eta emakumezkoen dagokienez, berriz, kontratu mugagabea dutenek %11,5 eta aldi baterako kontratua dutenek %34 gutxiago.

Horrekin guztiarekin batera Castillo-ren<sup>964</sup> arabera nabarmentzeko modukoa da gaur egun doan lan egitea ez dela arraroa. Esperientzia eskuratzearen (curriculumerako adibidez) lan egiten dute batzuek. Hots, lan egiteagatik ordaindu egiten dute, lan indarra oparitzen ari direlako lan egitearen esperientziaren truke. Maiz soilik etxean egonean ez gelditzearen truke. Horretarako ezinbestekoa da lana jarduera sozialki integratzaile eta indibidualki baliagarritzat hartzea. Ikuspegi honen eraikitze prozesuan estatuak ere garrantzi handia izan du, lan bezala hartzen baititu bai lan merkatutik kanpokoak (borondatezko lana arautzean) bai lan merkatuaren baitakoak (erretribuziorik gabek lana legalizatzean). Gainera, baldintza hauetan lan egiten dutenei mesede egiten ari zaiela aldarrikatzen du estatuak, haien integrazio soziala sustatzen duela. Estatuaren

<sup>963</sup> INEk kalkuluak egiteko erabili duen erreferentziazko hilabetea urria denez eta hilabete horretan ordainketa gehigarririk izan ohi ez denez, orduko irabazien emaitzak urteko datuetan agertuko lirakeenak baino txikiagoak dira.

<sup>964</sup> Castillo, 2004.

babesik gabe, soldatapekoek bete beharko lituzkete lanpostu hauek. Estatuak lan mota hau babestu aurretik, egon, bazeuden horrelako lanak eta, beraz, estatuak babes horrekin lan mota horiek legitimatu egiten ditu, hain zuzen lan duinen behar handiena duten biztanleak kaltetuz (gazteak, emakumezkoak, etorkinak).

Zuberok<sup>965</sup> dioenez, testuinguru honetan agertu da orain dela gutxi pentsaezina zen figura berri bat: langile txiroa (*working poor*). Enplegua izan arren, hain da baldintza kaskarretan, ezin dutela bazterketa soziala ekidin. Duela ez askora arte, enplegua izatea eta txiroa izatea ez ziren konpatibleak. Orain bai. Eurostat-en txosten baten arabera, 2001 urtean 25 kideko Europako Batasunean enplegua zutenen %7a, 14 milioi lagun inguru alegia, pobreziaen marratik behera zeuden bizikidetzaren unitateetan bizi zen. Etxe horietan bizi ziren kide guztiak kontuan hartuta, 15 kideko Europako Batasunean 20 milioi pertsonak sofritzen zuten *in-work poverty* delakoa. Hots, biztanleriaren %6a ziren, eta biztanleriaren %36a pobrezia erortzeko arriskuan zegoen. Azken hamabost urteetan langabezia tasak txikitu egin diren arren, pobrezia tasa mantendu edo handitu egin da. Caritas-en 2000. urteko ikerketa baten arabera, Espainiako estatuan 8 milioi pertsona bizi ziren pobrezia mugatik behera. Haurren artean lautik bat ziren. INEk 2005 urtean egin zuen Bizi Baldintzen Inkestan emaitza berretsi egin zuen: Espainiako estatuko bost biztanletik bat txirotzat har zitekeen. Azken hogeitau urteetan adierazle makroekonomikoak onak izan badira ere, txiroen kopurua erlatiboa ez da txikitu.

INERen Bizi Baldintzen Inkestak<sup>966</sup> 2009 urteari buruz azaltzen dituen datuen arabera, Espainiako estatuan bizi diren bost lagunetik bat (%19,5) pobrezia mugaren azpitik bizi zen. 2008 urtean kopurua antzekoa zen (%19,6). 2009 urtean bizikidetzaren unitateen artean hirutik bat ez zen gai ezusteko gastuei aurre egiteko. 2008 urteko kopurua baino %5,8 handiagoa da hori. 2009 urtean bizikidetzaren unitateen %13,7 zailtasun handiekin iristen zen hilabete bukaerara, 2008 urtean baino %1,5 gehiago. Bestalde, bizikidetzaren unitateen %38,9ak ezin zuen oporretara joan gutxienez astebetez, 2008 urtean baino %5,4 gehiago.

Díaz Salazar-ek<sup>967</sup> dioenez, *working poor* delakoen kopurua Espainiako estatuan %9koa da Harreman Industrialen Europako Behatokiaren arabera.

### 6.3.4 Lanaren gaineko kontrola

Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>968</sup> prekaritatearen kausa kontratu mota (aldi baterako, ordezkapena, jardunaldi partziala, jarduera aldagarria, eta abar) edo azpikontratutako enpresan enpleguak daukan posizioa izan daitezke, besteak beste, baina Díaz Salazar-en<sup>969</sup> arabera, kontratuaren iraupena eta soldata baino askoz gehiago da prekaritatea. Bere iritziz, ezegonkortasunari eta indefentsioari lotuta dago batik bat eta honek zerikusi zuzena du langile bakoitzak ekoizpen sarean duen posizioarekin. Castillo eta Lopez-ek<sup>970</sup> Nafarroako Volkswagen-

<sup>965</sup> Zubero, 2007a.

<sup>966</sup> ETB, 2010-03-17.

<sup>967</sup> Díaz Salazar, 2003, 82 or.

<sup>968</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 311 or.

<sup>969</sup> Díaz Salazar, 2003, 76-78 or.

<sup>970</sup> Castillo & Lopez, 2003.

en inguruan sortu den ekoizpen sarea analizatzen duten bezala, Beaud eta Pialoux-ek<sup>971</sup> Frantziako Sochaux-en Peugeot-ek duen lantegiaren inguruan zabaltzen ari den ekoizpen sarea analizatzen dute eta antzeko ondorioetara iristen dira, beste hamaika adibidek islatuko luketen bezala, azken finean bai baitirudi hori dela nagusitzen ari den joera.

Ondorioak ez dira nolanhikoak. Imazek<sup>972</sup> dioenez, Europako Batasuneko Fundación para la Mejora de las Condiciones de Vida y Trabajo izenekoak erakundeak 2001. urtean argitaratu zuen "Lan merkatuaren egoerari buruzko hirugarren inkesta europarra" delakoaren arabera, 1995. urtetik aurrera langileek beren enpleguarekiko duten kontrol maila murriztu egin da: 2000. urtean langileen %33ak adierazi zuen bere enpleguarekiko kontrol txikia edo batere kontrolik ez zeukala. Esate baterako, agerikoa den afera bati dagokionez, atsedenaldi eta oporrak noiz egin erabakitzeke orduan 1995. urtean %61ak erantzun zuen bazuela zeresanik eta 2000. urtean, berriz, portzentajea %56ra jaitsi zen. Baina, jakina, lanaren gaineko kontrolaren endekatzea hori baino askoz gehiago da. Izan ere, Europako lan baldintzak okertzen ari dira: gaixotasun profesionalak areagotzen, lan erritmoa handitzen eta behin-behinekotasuna hazten ari da, besteak beste.

Honenbestez askok eta askok soldata berdintsuagatik intentsitate handiagoz lan egiten dute, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>973</sup>. Produktibitatea handitu egiten da langileen jarduerari etekin handiagoa atereaz: lan gehiago egiten dute eta gutxiago irabazten dute. Hau lortu ahal izateko bitarteko garrantzitsuak dira lanaren prekarizazio orokorra eta azpikontratazioa, honela erdiesten baita ordaindutako denboratik kanpo uztea lanerako erabiltzen ez diren uneak, trebatze epeak, atsedenaldiak eta gisakoak. Enpresa batek azpikontratutako enpresari eskatzen dion lan abiadura handiagoa da enpresa horrek bere baitan egingo lukeena baino, baina azpikontratutako enpresako langileen jarduera abiaduraz handitzeak ez du langile hauentzat trukean ezer onik ekartzen. Merkatuaren presioa izan ohi da argumentuaren ardatza. Agindua ematen dutenek ez dute lan jardueraren abiaduraren ardura beren gain hartzen. Enpresa barneko hierarkiak egin lezakeen presioarekin alderatuta, kanpo kontrola indartsuagoa, eraginkorragoa eta legitimoagoa da. Edonola ere, barne mailan ere lor daiteke lanaren intentsitatea handitzea. Kudeaketa metodo berriak erabili ohi dira horretarako. Beste hainbat bitarteko ere badaude: ISO 9000 ziurtagirien gisako arau estandarrak, teknologia berriak, langileen balioaniztasunaren garapena, konpetentzia berrien bilaketa eta lan baldintzen indibidualizazioa, besteak beste.

Testuinguru honetan dira lan istripuen kopuruak hain handiak, Díaz Salazar-en<sup>974</sup> arabera. Zuberok<sup>975</sup> dioenez, urtean milioi bat istripu eta mila inguru hil izaten dira Espainiako estatuan. Lanean 100.000 langiletik 6,6 hiltzen dira. EB-15 eremuan batez bestekoa 4,8koa da. Hildako langileen ezaugarrien joera orokorrak honakoak dira: gaur egungo 3 hildakotik 1 eraikuntzako da, behin-behinekotasuna eta azpikontratazioa aldagai oso garrantzitsuak dira, 20-30 urte artekoak dira asko, zabor kontratuak dituzte eta enpresa txikietan enplegatuta daude gehienak. Izan ere, Espainiako estatuan 23.300 okupatuko inspektore bakarra dago. EB-15 eremuan batez bestekoa 12.000 okupatuko bat izatea da. Hots, estatuak ere zeresan eta zeregin handia du arazo larri

---

<sup>971</sup> Beaud & Pialoux, 2003.

<sup>972</sup> Imaz, 2006.

<sup>973</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 346-348 or.

<sup>974</sup> Díaz Salazar, 2003, 84-88 or.

<sup>975</sup> Zuberok, 2007b, 69 or.

honetan. Navarrok<sup>976</sup> dioenez ere lan istripu gehienak (%84) langile prekarioen artean gertatzen dira.

Halaber, Zuberok<sup>977</sup> dioenez, mobbing kasuak lan harreman dinamika baten adierazpena dira. Mobbing izeneko jazarpena sofritu zuten 13 milioi langilek 2000 urtean Finlandian, Erresuma Batuan, Herbehereetan, Suedian, Portugalen, Italian eta Espainian, Lanaren Nazioarteko Erakundeak lan baldintzei buruzko 3. inkestaren arabera.

*Burn out* sindromea ere, lanak eragindako muturreko nekea alegia, gaur egungo lan baldintzen dinamikak eragiten du, Zuberok<sup>978</sup> dioenez. Estresean oinarritzen den lanaren kudeaketa da eragilea. 1980ko hamarkadaren amaieran Japonian *karoshi* izena jarri zioten. Bertan urtero 20.000 langile hiltzen dira gehiegizko lanaren ondorioz. Maiz norbanakoari leporatu ohi zaio, *workaholic* delakoan kasuan bezala, eta ahaztu egiten dira lanaren egoera errealak. Le Figaro astekariaren ikerketaren arabera, Frantziako enplegatuen %18ak dauzkan estres baldintzek arriskuan jartzen dute beren osasun psikologikoa. Espainiako estatuan gehiegi ikertu ez den arren, estimazioen arabera %15ak sofritzen du langile errearen sindromea. Estatuko Lan Idazkariak adierazi zuen 2006 urtean lan istripuen %34,35, herena inguru alegia, gehiegizko ahaleginaren edo estresaren ondorioz gertatzen dela. Txinan mandarinez *guolaosi* bezala ezagutzen da eta Zhongguancua parke teknologikoa (Txinako Silicon Valley) zuzentzen dutenen artean bizi esperantza 54 urtekoa da, enplegatuen %70ak *guolaosi* delakoak jota hiltzeko arrisku handia baitute.

Honek guztiak eragin nabarmenak ditu. Esate baterako, Navarrok<sup>979</sup> dioenez, azken urteetan jaitsi egin da Espainiako estatuan bizi itzaropena neurtzen duen Europako Batasuneko ranking-ean. Bizi itzaropenaren hazkunde txikiena duen estatuetako bat da, hilkortasuna handitu egin delako. Trafiko istripuek eta HIESak zerikusi handia dute datu hauetan baina lan istripuen kopurua haiek bezain garrantzitsua da gutxienez. Katalunian klase altuko eta apaleko baten arteko bizi itzaropenaren aldea 10 urtekoa da. Europako Batasunean 7 urtekoa da.

### 6.3.5 Hortaz, zer da prekaritatea?

Orain arte prekaritatearen kontzeptua osatzeko hainbat ezaugarri aipatu ditugu baina beste hainbat erantsi beharko genizkioke. Adibidez, Imazen<sup>980</sup> arabera, behin-behinekotasuna kontuan hartzeaz gain, enpleguaren kalitatea neurtzeko beste aldagai batzuk ere kontuan hartu beharko liriateke: besteak beste, karrera profesionala garatzeko aukerarik eskaintzen ez duten kualifikaziorik gabeko enpleguak, ordutegi luzeak edo/eta traketsak, soldata txikiak, azpikontratazioaren bidez kanporatzen diren lanak, autonomo faltsuak, eta abar.

Bestalde, Castells-ek<sup>981</sup> azaltzen duenez, industrializazioarekin batera salarizazioa eta ekoizpenaren sozializazioa gertatu ziren. Gaur egun, ordea, joera alderantzizkoa da: lan prozesuan langilea indibidualizatzen ari da. Lana zatikatzen eta barreiatzen ari da. Malgutasuna aldarri, enpleguaren

<sup>976</sup> Navarro, 2002, 39 or.

<sup>977</sup> Zuberok, 2007b, 30 or.

<sup>978</sup> Zuberok, 2007b, 28-30 or.

<sup>979</sup> Navarro, 2002, 38-39 or.

<sup>980</sup> Imaz, 2006, 180 or.

<sup>981</sup> Castells, 2001a, 255-398 or.

baldintzak errotik aldatzen ari dira, eta aldaketek lan baldintzen esparru ugari eragiten diete: soldata, mugikortasun geografikoa, posizio okupazionala, kontratuaren eta zereginaren segurtasuna, eta abar. Castells-ek Martin Canoy-ren analisia ere baliatzen du lan arloko aldaketak laburbiltzeko:

- a) Lanaldia ez da 35-40 orduko tradizionala.
- b) Enpleguaren egonkortasunik ez da bermatzen.
- c) Langile gehienek enpresan bertan lan egin arren, gero eta gehiago externalizatzen dira.
- d) Kontratua indibidualizatzen ari da, zereginak ez daude zehazki definituak, soldata gero eta gutxiagotan da estandarra, formazio aukerak eskasagoak dira, etekin sozialak gero eta urriagoak dira, eta ibilbide profesionala gehienetan ezin da aurreikusi.

Agullo-k<sup>982</sup> lau ezaugarri aipatzen ditu lan arloko prekarietatea definitze aldera:

- a) Laneko ezegonkortasuna (iraupen motza, segurtasun txikia eta ziurgabetasuna, besteak beste).
- b) Enpresaburuek beren interesetan oinarrituta eskatzen dutenari aurre egiteko langileen gaitasun txikia.
- c) Langilearen babes falta.
- d) Soldata txikia.
- e) Promoziorako aukera eskasak.

Cal Barredok Standing-ek ere aipatzen ditu lan merkatuaren aldaketak<sup>983</sup>:

- a) Lan merkatuaren segurtasun eza hedatu da, langabezia kopuru handietan eta langabezia epe luzeetan gauzatuz.
- b) Enpleguaren segurtasun eza hedatu da: aldi baterako eta iraupen zehatzeko kontratuen, autoenpleguaren eta lanaldi partzialeko enpleguaren hazkunde handia.
- c) Okupazioarekiko segurtasunaren galera: langileek gero eta gehiago aldatzen dute lanpostuz, honek promozioa esan nahi duenez argi izan gabe.
- d) Irabazien segurtasunaren higadura: langabeziak, lan prekarioak eta azpienpleguak eragiten dute.

Rodgers-ek honako ezaugarriak aipatzen ditu<sup>984</sup>:

- a) Lanpostuan jarraitzeari buruzko segurtasun eza: lan prekarioek epe motzerako ibilbidea eta lanpostua galtzeko arrisku handia izaten dute.
- b) Langilearen kontrol eza bere jarduerarekiko: lanarekiko segurtasuna murriztu egiten da langileak lan harremanak, soldata eta lan erritmoa kontrolatzen ez dituen heinean.

---

<sup>982</sup> Agullo, 2001.

<sup>983</sup> Standing in de la Cal Barredo, 2004.

<sup>984</sup> Rodgers in de la Cal Barredo, 2004.



- c) Legezko babesaren gabezia arriskuekiko, diskriminazio egoerekiko, ez-legezko kaleratzeekiko, eta abar.
- d) Irabazi baxuak: ongizate gabezia, pobrezia edo segurtasun gutxiko integrazio soziala eragin ditzake.

Hortaz, orain artean aipatu ditugun ezaugarriak sintetizatuz esan genezake lan arloko prekaritateak honako dimentsio hauek har ditzakeela kontuan:

- a) Irabazi txikiak.
- b) Aldi baterako kontratuak.
- c) Lanaldi partzialeko kontratuak.
- d) Legezko babes eskasa. Enplegatuen estatusaren higadura.
- e) Jardueraren intentsitatearekiko kontrolik eza.
- f) Jardueraren ezagutza eza.
- g) Enpresaren baitako jardueraren aldakortasun handia.
- h) Segurtasun baldintza eskasak.
- i) Posizio okupazionalaren aldakortasun handia.
- j) Mugikortasun geografiko handia.

## 6.4 Langileen sare estratifikatuak: munduan, herrialdean, enpresan

### 6.4.1 Joera orokorra

Sennett-ek<sup>985</sup> dio ekonomia berria ez dela oraindik nagusi AEBetan. Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>986</sup> ere, kapitalismoaren izpiritua izugarri aldatu da baina eguneroko praktikak ez dira hain azkar eraldatzen. Gainera, enpresei modu eta intentsitate ezberdinez eragin diete. Langile guztiei ere ez die era berean eragin. Egoera nahiko anitza da. Boltanskik eta Chiapellok Frantziako estatuari buruz ematen dituzten datuen arabera, eredu tayloristako kate lanak ez du atzera egin eta 40-45 urte baino gehiagoko enplegatuen artean handitu egin da era horretara lan egiten dutenen kopurua. Haatik, oro har ordutegi finkoak atzerantz doaz. Beren lantegian zeregin bat baino gehiago dituztenen kopurua ere handitu egin da. Etengabeko trebakuntzan dabilzananen kopurua ere handitu egin da. Halaber, enpresen %60ak gauzatu du antolakuntza mailako berrikuntza bat gutxienez. Aldi baterako enplegatuen kopurua ere ikaragarri hazi da. Halaber, Castellsen arabera<sup>987</sup>, lan harremanen indibidualizazioa eta dibertsifikazioa gero eta nabarmenagoa da. Garapen ezberdina ez da soilik Iparraren eta Hegoaren artean gertatzen, gizarte bakoitzaren baitan dauden segmentu eta eremuen artean ere nabarmena da, Castellsen arabera<sup>988</sup>.

<sup>985</sup> Sennett, 2006, 16 or.

<sup>986</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 301-303 or.

<sup>987</sup> Castells, 2001a, 34 or.

<sup>988</sup> Castells, 2001a, 34 or.

Testuinguru honetan, Castel-ek<sup>989</sup> dioenez, tradizionalki *langile klasea* deitu izan denari gaina hartu diote aldaketa sozial sakonek: soldatapekoen orokortzea, bere baldintzen aniztasun hazkorra, soldatapekoen beste kategoria batzuek gaina hartzea eta *langile klasea* deitzen zen multzoa soldatapeko langileen osaeran ez zentrala izatea. Soldatapekoen orokortzeak ez du esan nahi baldintza sozialak homogeneizatu direnik. Alderantziz, estratifikazioa oso zabala da soldatapekoen artean. Gatazka ere ez da desagertzen. Bi bloke antagonikoen artean polarizatu beharrean, barreiatu egiten da soldatapekoen eskala zabal osoan zehar eta soldatapekoen hainbat estraturen arteko konkurrentziak sustatzen du egoera. Prozesu hau aspalditik dator baina 1970eko hamarkadako krisiak bizkortu eta sakondu egin zuen. Kualifikazio bera duten bi langilek, hainbat arrazoi medio, ibilbide oso ezberdinak izan ditzakete: batek bere estatus profesionala mantentzeko bizi osoan zehar eta besteak, ordea, lan batetik bestera egin dezake salto, kualifikazioa aldatuz, tarteka langabezia egonez. Ezberdintasun hauek ahuldu egiten dute kategoria berekoen arteko elkartasuna. Deskolektibizazioa sustatzen dute. Ondorioz, estrategia indibidualak indartzen ari dira eta hauetan egiten diren inbertsioak estrategia kolektiboen kaltetan izan ohi dira.

Petras-ek<sup>990</sup> dioenez, langileen artean bi multzo daude: batzuek (gero eta kopuru txikiagoak) kontratu mugagabeak dauzkate, sindikatuetan afiliatuta daude, soldata erlatiboki ona dute eta sarri etekin osagarriak dauzkate, eta beste langile multzokoek (gero eta gehiago dira) behin-behineko enpleguak dauzkate, gaizki ordainduak, ordutegi irregularrak, ez daukate etekin osagarriarik eta enpresariaren esanei lotuagoak daude. Petras-en arabera, dikotomia honek zerikusi handia du belaunaldien arteko ezberdintasunekin: belaunaldien arteko beheranzko mugikortasuna nagusitzen ari da Espainiako estatuan ez ezik Ipar Amerikan eta European ere. Langile belaunaldi berrian banakoak atomizatuta daude. Ahulak dira enpresariaren aginduen aurrean, zeinak estatuaren babes legala baituen, eta erakunde kolektiboen babesik ez dute ia sentitzen, indibidualizatuta ikusten dituzte beren buruak. Merkatuaren dantzan dabilta, hark agindutako pausoan, arrastotik irten ezinik baileuden. Elkartasunaren ordez lehiakortasuna nagusitzen da. Merkatu librea deritzonak talde sozialen arteko ezberdintasunak handitzeaz gain, taldeen baitako ezberdintasunak ere areagotu egiten ditu, gizarte fragmentatua, atomizatua, sortuz.

Zuberoren<sup>991</sup> arabera, lan harremanak berfeudalizatzen ari dira. Kolektiboki negoziatutako bermeek gero eta garrantzi txikiagoa dutela eta norbanakoaren jokabideak gero eta handiagoa duela hautematen dute langileek oro har. Zuberok<sup>992</sup> dioenez, lan merkatua malgutzeko politikak hasi zirenetik areagotu egin da langileen heterogeneitatea. Segmentazio prozesua oso indartsua izan da eta handitu egin dira arazoak langile bakoitzaren berehalako interes ekonomikotik oinarritzko interes politiko orokorragoetara pasatzeko. Langileen interes gero eta anitzagoei erreparatuz gero, zailagoa da eraldaketa sozialerako estrategientzat oinarri material argirik ikustea eta ikusaraztea. Halaber, ezaugarri subjektiboen heterogeneitateak ere joera berdina duela dirudi.

Sasen-ek<sup>993</sup> dioenez, mundu mailako berregituraketa ekonomikoak gero eta gehiago eskatzen ditu bai oso ondo ordaindutako profesional transnazionalak bai soldata txikiko langileak. Fenomeno hau nola industriaren sektorean hala zerbitzuen sektorean gertatzen da. Adibidez, Londres edo

---

<sup>989</sup> Castel, 2003.

<sup>990</sup> Petras, 1996, 32-55 eta 80-82 or.

<sup>991</sup> Zuberu, 2000, 21 or.

<sup>992</sup> Zuberu, 1994, 58-61 or.

<sup>993</sup> Sasen, 2007, 231-232 or.

New York bezalako hirietako nazioarteko finantza gune aurreratuak langile mota askorentzako lantoki dira. Globalizazioaren egungo formek areagotu egiten dituzte lehendik bazeuden desorekak eta, gainera, desoreka berriak sortzen dituzte.

Castellsen arabera<sup>994</sup> teknologia eta antolakuntza modu berriek ahalbidetu dute kapitalaren eta lanaren arteko harremanaren definizio berria. Laneskua ia nahieran elkartzeko eta barreiatzeko gaitasunak ahalbidetu du enpresa birtualaren sorrera erakunde funtzional bezala. Birtualizazioaren mehatxupearan besteak beste, batetik, erakundeen erresistentzia gaititzen joan da eta, bestetik, lanekuarengandik eta sindikatuengandik gero eta kontzesio gehiago erdietsi ditu kapitalak. Produktibitatea eta errentagarritasuna handitu egin dira, baina aldi berean lanekuak babes instituzionala galdu du eta aldaketa etengabearen dagoen merkatuan negoziazio indibidualekiko menpekotasuna gero eta handiagoa bihurtu da. Prozesu honetan, jakina, irabazleak eta galtzaileak agertu dira. Gaur egun, Castells-en aburuz, lanak inoiz baino zentraltasun handiagoa du, baina inoiz baino ahulagoa dago.

Cohen-ek<sup>995</sup> dio gizarte industrializatu aurreratuan ez dagoela industrializazioaren hastapenetan *proletargoa* edo *langile klasea* etiketarekin definitzen zen jende multzoak zeuzkan ezaugarriak biltzen dituen talderik. Aipatzen dituen lau ezaugarri nagusiak honakoak dira: a) gizarteak behar dituen ekoizleak izatea, b) ustiatuak izatea, c) beren familiekin batera gizartearen gehiengoa izatea eta d) behar handia izatea. Ezaugarri bat edo beste daukan jende multzoak egon, badaudela dio Cohen-ek baina bakar batek ere dituela lau ezaugarriak biltzen. Cohen-en iritziz gaur egun kapitalismoak ez ditu bere suntsitzaileak ekoizten eta sozialistak izaera moralagoa duten ekimenekin konformatu behar dira. Aitzitik, Bowles eta Gintis-en<sup>996</sup> arabera, gaur egungo egoeran ere jendeak politika berdinzaleak babesteko bi arrazoi egon daitezke: batetik, politika berdinzaleak sarri berme sozialean oinarritzen dira eta irabazi baino gehiago galdu egiten dutenek ere babesten dituzte, norberaren arriskuak murrizteko balio dutelako; bestetik, arrazoi funtsean autointeresatuaz haratago, politika berdinzaleak erreziprozitate indartsuan ere oinarritzen dira, ekonomian nagusitu diren testuek esaten dutena baino eskuzabalagoa baita jendea, nahiz eta ez diren pentsamendu utopikoak deskribatzen dituen subjektu altruistak.

Hardt eta Negri ere ez datoz bat Cohen-ekin. Hardt eta Negri-k<sup>997</sup> *proletargo* kontzeptuaren edukiak berritzearekin bat azaltzen dute termino horren barruan sartuko liratekeenek ez dutela batasun homogeneo eta ezberdintasun gabea osatzen baizik eta hainbat norabide dauzkaten ezberdintasun eta estratifikaziok banatzen dituztela. Hardt eta Negri-ren ustez kapitalaren baitan bizitza eta kapitala sustengatzaiek definitzen dute proletargoa klase bezala. Espazio soziala uniformizatzen ari bada ere, ezberdinkeriak eta segmentazio sozialak ez dira desagertu, Hardt eta Negri-k<sup>998</sup> diotenez. Aitzitik, alderdi askori dagokionez sakondu egin dira, baina forma ezberdina hartu dute. Lan arloko politika da horren adibide garbia, Hardt eta Negri-ren arabera. Lan indarraren ahultzea eta zurruntasun galera prozesu erabat politikoa izan da, helburu etekin ekonomikoa maximizatzea zuelarik, batik bat kostuak murriztuz. Produktibitatearen arau berriek ezberdindu eta segmentatu egiten dituzte langileak. Honenbestez, Hardt eta Negri *administrazio*

<sup>994</sup> Castells, 2001b, 110 or.

<sup>995</sup> Cohen, 2001.

<sup>996</sup> Bowles & Gintis, 2001.

<sup>997</sup> Hardt & Negri, 2002, 64 or.

<sup>998</sup> Hardt & Negri, 2002, 308-312 or.

*imperiala* deitzen duten horren zeregina espazio sozialaren integrazio prozesua kudeatzea da eta ondorioz indar sozial ezberdindu eta segmentatuak baketzea, mugiaraztea eta kontrolatzea. Burujabetza nazionalako erregimen modernoetan administrazioak gatazken integrazio lineala bilatzen zuen, aparatu sozial koherentea ezarriz gatazka desagerraraztea, bizitza sozialaren normalizazio arrazionalaren bitartez alegia. Gaur egun, ordea, gatazkek integratzen saiatzen da, ez aparatu sozial koherentea ezarriz baizik eta ezberdintasunak kontrolatuz. Beraz, integrazio sozialaren alde egin beharrean, mekanismo barreiatzaile eta ezberdintzailea da.

Hardt eta Negri-ren<sup>999</sup> arabera, Bigarren Mundu Gerraren ondoren ezarri ziren gaur egungo egoeraren oinarriak. Batetik, deskolonizazio prozesuak mundu mailako merkatuen berregituraketa ekarri zuen, AEBetatik abiatzen ziren adar hierarkikoak jarraituz, hasieran indar militarren eskuhartze handiarekin, gero moneta politikaren bitartez. Bestetik, ekoizpena progresiboki dezentralizatu zen: enpresa transnazionalak bihurtu ziren herrialde poskolonialetan eta menpeko erregioetan eraldaketa ekonomiko eta politikoaren motor nagusi, hastapenetan ekoizpenerako ardatza eraikitzeko oinarritzkoa zen teknologia transferituz, gero herrialde horien lan indarra eta ekoizpenerako gaitasuna mugiaraziz, eta azkenik aberastasunaren fluxuak eskuratuz eta mundu osoan zehar zirkulazioan jarritz, Estatu-nazio poskolonialetako gobernuen babesean. Horrez gain, nazioarteko harremanen marko berria eraiki zuten progresiboki, erdiguneko gizarteetako botere harremanen eredia mundu osora hedatuz. Azken batean, mundu mailako merkaturak bihurtu zen zirkulazio globalen sarea erregulatzeko ardatz. Baina mundu mailako merkatuaren berregituraketa prozesua ez zen unidimentsionala izan. Aniztasuna eta dibertsifikazioa izan ziren bere joera errearen oinarriak.

Coriat-ek<sup>1000</sup> dioenez, lanaren antolaketa berriaren helburua langileak berrezberdintzea da, langileen borroka ziklo berriak itoartzeko. Langileen multzoaren osieran aldatetak eragiten dituzte, diskriminaziorako osagai objektibo berriak sartuz eta ondorioz ezberdintze eta segmentazio berriak eraginez. Horietako bat *kualifikazioa* esleitzeko irizpide ezberdintzaileak ezartzea da, kontzeptu horretan oinarrituz egiten baita gehienetan langileen hierarkizazioa eta segmentazioa. Izan ere, Coriat-en arabera, lanaren antolaketa zientifikoa bere tranpan erori da: hierarkia legitimatzen zuten ofizioak suntsitu eta langileak homogeneizatu zituztelarik, lanaren antolaketa zientifikoak langileen eskaeren batasuna sustatu zuen, berdintasuna aldarri zutenak, eta antolaketa kapitalistarekin hausteko tresna bateratzaile oso boteretsua bihurtu zen.

Laparra-ren<sup>1001</sup> arabera, enplegu prekarioaren eraikuntzak oinarri politikoa du batez ere, ez ekonomikoa. Globalizazioarekin nazioartean handitzen ari den lehiakortasunak enplegu prekarizatuaren zati txiki bat besterik ezin dezakeela azaldu dio Laparrak. Enplegu prekarioa tokiko faktoreen arabera eraiki eta hedatu da, politika jakin batzuetan oinarrituz. Enplegu prekarioaren eraikuntzan Laparrak hainbat faktore identifikatu ditu: batik bat 1984ko eta 1994ko lan erreformak, aldi baterako kontratazioari ateak parez pare zabaldu zizkiotelako; langabeen babes eskasa, zeren beste enplegurik ezean, enplegu prekarizatuak ere onartu behar izaten baitituzte; administrazio publikoak ere batez ere enplegu prekarizatuan oinarrituz hedatu dira.

<sup>999</sup> Hardt & Negri, 2002, 229-235 or.

<sup>1000</sup> Coriat, 2001, 186-189 or.

<sup>1001</sup> Laparra, Miguel in Berria, 2007-07-19.

Testuinguru honetan, Hardt eta Negriren<sup>1002</sup> arabera, ustiapenaren logika ez da berdina langile guztientzat. Lanaren eta boterearen banaketa globalaren kudeaketa da kapitalaren arma indartsuenetako bat ekoizpen eta aberastasun globalaren gain bere dominazioa mantendu ahal izateko. Herrialdeen arteko hartuemanak ere asimetrikoak dira: mundu mailako merkatuetan etengabe azpibalaratzen da txirotutako herrialdeen ekoizpena eta ondorioz txirotutako herrialdeek diruz laguntzen dituzte aberastutako herrialdeak, ez alderantziz. Ezberdinkeria mekanismoak bazter guztietara hedatu dira: Hardt eta Negri *dumping biopolitiko*a deitzen dutenaren bitartez ezartzen da lanekuaren salneurria, langile batzuen lanak gehiago eta besteenak gutxiago balio duelarik (batzuenari ia ez zaio baliorik aitortzen). Honenbestez, ezberdinkeria handiak daude herrialdeen artean eta munduko eremu geografiko handien artean, baina eremu horiek ere ez dira homogeenak, hierarkizazio eta segmentazio larriak askoz konplexuagoak baitira. Halaber, lanaren banaketa globala ez ezik hari estuki lotuta dagoen boterearen banaketa globala ere kontuan hartu behar da. Adam Smith eta David Ricardo-renak bezalako ekonomia politikoko testu klasikoetan nazioarteko lanaren banaketa fenomeno natural bezala aurkezten da, kapitalista jakintsu eta ondo informatuak baliatzeko modukoa balitz bezala. Baina beti egon dira lanaren nazioarteko banaketa koordinatzen eta mantentzen duten botere hierarkiak, administrazio kolonialetatik hasi eta botere harreman poskolonialetara. Lanaren banaketa eta botere hierarkiak hain daude estuki lotuta sistema globalean, ezen elkarrekin hartu behar dira kontuan. Gainera, banaketa hauek ez dira muga nazionaletara doitzen eta ondorioz Hardt eta Negri egokiagoa deritzote, James Mittelman-i jarraiki, lanaren eta boterearen banaketa globalaz hitz egitea. Banaketa globalak botere harremanen helburua eta emaitza dira eta, beraz, banaketan oreka egonkorra lortu ahal izateko ezinbestekoa da normalizazioa, naturalizazioa eta banaketan kontrola erdietsiko duten arauak ezartzea.

Hardt eta Negri-k<sup>1003</sup> diotenez, jadanik ez dago *ejerzito industrialik*. Industriako langileek dagoeneko ez dute batasun konpaktu eta koherentea osatzen. Baina ikuspegi orokorrago batetik, enplegatuen eta langabetuen arteko bereizketa ere gero lausoagoa da. Posfordimoan kapitalismoaren herrialde nagusienetan ere gero eta enplegu egonkor eta bermatu gutxiago dago. Ez dago marra bereizle argirik baizik eta eremu arretu zabal bat, non langile guztiek enpleguaren eta langabeziaren artean fluktuatzen duten. Halaber, ez dago *erreserbarik*, ekoizpen sozialarekiko kanpokoa den lan indarrik ez baitago lan inmateriala hegemoniko bihurtzen ari den garaian.

Negri-ren<sup>1004</sup> arabera, dinamika hauen helburua lan sozialaren emaitzez jabetzea da. Jendearen, *multitude* delakoaren, artikulazio hierarkikoa hori lortu ahal izateko bitartekoa da. Globalizazioaren mekanismo behinenetakoa da. *General Intellect* delakoaren lanaren nazioarteko banaketa ezartzen du.

#### 6.4.2 Erdigunean

Castillo-k<sup>1005</sup> dioenez, lan erreformek ez diete lan baldintza onenak dauzkaten langileei zuzenean eragiten, zeharka baizik: lan erreformek zuzenean lehenengo enpleguak lortzen dituztenei

<sup>1002</sup> Hardt & Negri, 2004, 182 eta 194-196.

<sup>1003</sup> Hardt & Negri, 2004, 162 or.

<sup>1004</sup> Negri, 2004, 213 or.

<sup>1005</sup> Castillo, 2004, 12-13 or.

zuzenduta daude, enplegua lortzearen aitzakiaz zenbait lan eskubide urratuz, baina enplegu mota honen kopurua handitzen doan heinean lan baldintza onenak dituzten langileei ere eragiten die. Aldaketek lan merkatu osoari eragingo diote. Lan erreformetarako gaztea izatea koartada ideologikoa da. Hauei laguntzearen argumentua erabiltzen hasten dira arazoak, prekarietarearen abiapuntua dira, eta ez soilik gazteentzat, zeren talde honetan egindakoa esperimentera eta abiapuntua baita, ondoren progresiboki lan merkatu osora hedatzeko.

Aldaketak oso sakonak dira Bourdieuren aburuz: langileen atomizazioa, soldata harremanaren indibidualizazioa, polibalentziara derrigortuta egotea, meritu eta gaitasunen araberako soldata, ardura maila pertsonala handitzea autoustiaketa areagotzearen (autokontrola), kudeaketa partehartzailea, lan erritmoaren handitzea. Horrez gain, sare-enpresen bitartez enpresen deslokalizazioa sustatzen da. Honen guztiaren ondorioz, lehiakortasunaren diskurtsoa indartu egiten da, langileek elkarren aurkako jarrera har dezaten sustatuz.<sup>1006</sup>

Prekarietatea, kultura bat da. Klein-en<sup>1007</sup> arabera, enplegu ona lortu duenak ere senti dezake mehatxua, izan berarekiko edo bere guraso, seme-alaba edo lagunekiko. Lan arloko ziurgabetasunaren kulturari bizi gara eta guztiongan iritsi dira nor bere kasa moldatzeko gai izan dadin aholkatzen duten mezuak.

Klein-en<sup>1008</sup> arabera, enpresentzat enpleguaren degradazioa eta lanpostuen galera dira ekonomia hazteko bidea: 1998 urtean, adibidez, AEBetan datu makroekonomikoak bikainak ziren arren, bertako enpresek 677 mila enplegu egonkor desagerrarazi zituzten. Bourdieuk<sup>1009</sup> ere ez du zalantzarik: erakundetutako prekarietatea bihurtu da etorkizuneko enpresen lan antolaketarako printzipio eta, Bourdieuren, iritziz, prekarietatea da enpresen etekinak handitzearen oinarria. Frade eta Darmon<sup>1010</sup> bat datoz Bourdieurekin. Castells-en<sup>1011</sup> arabera, ordea, enpresen antolaketa berriaren helburua kosteak merketzea baino gehiago eraginkortasuna handitzea da. Halaber, Castells-en iritziz, informazioaren erabilera eraginkorra sarean egitea da sareko enpresen arrakastaren oinarria.

Lan merkatua zatikatzen ari da, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>1012</sup>. Dualizatzen ari dela esaten dute Boltanskik eta Chiapellok, batetik, lanpostu egonkor, kualifikatua dago, soldata maila nahiko altua eta sindikatua dagoena, eta, bestetik, lanpostu ezegonkorra, gutxi kualifikatua, gaizki ordaindua, gutxi babestua, zerbitzu gehigarriak egiten dituztenak. Lana formalki kanporatzeak egoera oso konplexua eragiten du: lantoki bakarrean estatutu mota ezberdinak dauzkaten enpleguak elkarrekin aritu daitezke lanean, antzeko jardueretan, pareko kualifikazioekin, zuzendaritza berberaren pean, baina lan baldintza oso ezberdinetan. Nolanahi ere, prekarietateak ez die eragiten bakarrik kalitate txikiko enpleguak dituztenei, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>1013</sup>. Lan baldintzak langilearen kaltetan eraldatzen ari dira baita enplegu egonkorragoetan eta enpresa sendoagoetan.

<sup>1006</sup> Bourdieu, 1999a, 121-128 or.

<sup>1007</sup> Klein, 2005, 318 or.

<sup>1008</sup> Klein, 2005, 311-312 or.

<sup>1009</sup> Bourdieu, 2001a, 51 or.

<sup>1010</sup> Frade & Darmon, 2005.

<sup>1011</sup> Castells, 2001a, 201-254 or.

<sup>1012</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 319-321 or.

<sup>1013</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 345 or.

Lan erkidegoaren desintegrazioa ahalbidetu du espazio bakarrean enpresa ezberdinetatik datozen eta estatutu ezberdinak dauzkaten enpleguak elkarrekin lanean aritzeak, Boltanski eta Chiapellok<sup>1014</sup> diotenez. Malgutzeko prozesuak eta sailkapen taulen neutralizazioak biderkatu egiten dituzte egoera singularrak eta enpresa batetik bestera aldarazi egiten dituzte hierarkiarako irizpideak, eta honek edukiz hustu egiten ditu lehen erabiltzen ziren kategoria sozialak eta kolektibotasunen balioa. Klase soziala bezalako kontzeptuak iruditeria publikotik propio desagerraraziz eta lan praktika fragmentatuak sustatuz kolektibotasuna higatzen den era berean eraikitzen dira bestelako banaketa batzuk. Esate baterako, langile kualifikatuak eta ez kualifikatuak bereizteak ez du islatzen langileen konpetentzia maila baizik eta lan hitzarmen kolektiboak biltzen dituen negoziatorako indar harremanak, Boltanski eta Chiapelloren<sup>1015</sup> arabera.

Klein-en<sup>1016</sup> arabera, adibidez txikizkako marka ospetsuen enpresek irabazi handiak lortzen dituztenean, enpresen hedapenerako erabiltzen dituzte, artean enplegatuen soldatak mantendu edo, areago, txikitu egiten direlarik. British Columbia-ko Starbucks-eko enpleguak 1997 urtean orduko 7,50 dolarretik 7 dolar kobratzera pasa ziren hain zuzen enpresak irabaziak bikoiztu eta 350 denda berri ireki zituen urte berean.

Lan oso prekarizatuaren arazoak Hegoaldea deitzen den eremuan ez ezik herrialde guztietan ere gertatzen dira, Zuberok<sup>1017</sup> dioenez. Esate baterako, AEBetako National Labor Committee-ko Charles Kernaghan-ek salatzen duenez, New York hiriko jantzigintza industriako jardueraren %75 baldintza oso prekarioetan egiten da: 1-2 dolar orduko kobratuz 4.500 lantegi daude (industriari honetan 7.500 lantegi dira guztira); hots, 50.000 langile inguru.

### 6.4.3 Munduan

Imazek<sup>1018</sup> dioenez, herrialde dirudunenetan politika neoliberalak prekarietatea arrunt bihurtu badu, gainerako herrialdeetan egoera ez da samurragoa: sindikatuak debekaturik askotan, soldata miserableagoak, ordutegi luzeak, ekonomia murgilduaren nagusitasuna, lan zuzenbidearen gabezia eta abar.

Klein-en<sup>1019</sup> arabera, gaur egungo enpresa ezagun askok ez dute produkturik ekoizten ezta publizitatzen ere. Produktuak erosi egiten dituzte eta beren markak jartzen dizkiete. Beren marken irudia sortzeaz eta indartzeaz arduratzen dira baina ekoizpena eta publizitatea beste enpresa batzuegandik jasotzen dute. Mundu mailako enpresa handiak hasi ziren horretan eta gero joera horri lotu zaizkio beste hamaika. Estrategia honek argudiatzen duenaren arabera, edozeinek ekoizti dezake produktu bat eta horregatik esleitzen zaio lan hau azpikontratei. Hauen zeregina eskariak garaiz eta kostu txikiarekin ematea da. Bitartean egoitza nagusietan benetako negoziak arduratzen dira: produktu gordin hauei beren marka ezarri ahal izateko mitologia korporatibo ahal bezain boteretsua ekoizten ahalegintzen dira, marka eraikitzen eta balioa

<sup>1014</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 379 eta 416 or.

<sup>1015</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 411 or.

<sup>1016</sup> Klein, 2005, 286 or.

<sup>1017</sup> Zuberok, 2007, 27 or.

<sup>1018</sup> Imaz, 2006, 186 or.

<sup>1019</sup> Klein, 2005, 33, 49 eta 239 or.

handitzen alegia. Nike enpresako Phil Knight-ek dioenez, “jadanik ez du merezi gauzak egitea. Balioa lortzeko kontu handiz egindako ikerketa, berrikuntza eta marketina dira beharrezkoak”. Nazio Batuen Erakundearen 1997 urteko txosten baten arabera, lan kostuek gero eta zati txikiagoa dute enpresen aurrekontuetan, baita soldata txikiak dituzten herrialdeetan ere, Kleinek<sup>1020</sup> dioenez. Nabarmena da enpresen desinbertsioa lanaren eremuan. Markek *balio erantsia* irentsi duten garaian, propio gutxiesten da produktuen ekoizpena, honen balioa ez aitortzearen. Enpresa batzuek nahiago dute beren burua *antolatzaile* gisa aurkeztu eta ez enplegu sortzaile bezala. Enpresa bakoitzak bere produktuak bere lantegietan ekoitzi beharrean, ekoizpena externalizatu egiten dute (*outsourcing*), maiz atzerrira. Sarri eskaria kontratista bati egiten diote eta honek beste zenbaiti egite die eta hauek beste batzuei. Ekoizpenaren azpikontratazio sareak ekoizten dira horrela. Zenbait enpresentzat ekoizpena kanporatzearen arrazoia soilik kostuak murriztea da. AEBetan eta Alemanian jantzigintza industriako langileek batez beste orduko 10 eta 18,50 dolar artean kobratzen dituzte hurrenez hurren. Txinan, berriz, 87 zentimo. Beste askotan hori ere ez. Batzuek 13 zentimo. Esate baterako, Haitin Disney-ren produktuak ekoizten dituzten enpresa batean langile batek egunero ehundaka kamiseta egiten ditu baina AEBetan kamiseta bakar batek duen salneurriarekin langile horren ia bederatzi lan eguneko soldata ordaindu daiteke.

Baina enpresa askorentzat kostua bezain garrantzitsua da ekoizpenaren moduak eraldatzea, Kleinek dioenez. Erosleek baldintza gogor eta zorrotzak ezartzen dizkiete hornitzaileei hainbat arlotan: materiala, amaiera epea eta batik bat kostu txikia. Baina enpresa erosleak ez dira arduratzen lantegiak eraikitzeaz, makinak erosteaz edo laneskua kontratatzeaz. Hori guztia enpresa hornitzailearen esku gelditzen da. Langileak ez ezik enpresa hornitzaileak ere erraz alda ditzake eskaria egiten duen enpresak. Dinamika hau eskaria egiten duten enpresen malgutasuna maximizatzeko diseinatuta dago. Arriskurik gabeko globalizazioa da enpresentzat.

Indonesian, Txinan, Mexikon, Vietnamen, Filipinetan eta beste hainbat lekutan makina bat eremu eraiki dituzte *esportazioak prozesatzeko*, ofizialki esaten duten bezala, Kleinen arabera. Arropa, jostailuak, artikulua elektronikoak, makinak, autoak eta beste hamaika gauza ekoizteaz arduratzen dira. Lantegiek ez dute marka zehatzik baina marken aginduetara aritzen dira. Sarri lantegi hauen eremuan administrazio publikoek ez dute zergarik kobratzen eta estatu militarizatu txikiak izan ohi dira. Herrialde txirotuetakoa gobernuak lan arloko protestak isilarazteko bitartekoak eskaintzen dituzte, besteak beste. Hauetako eremu askotan sindikatuak debekatuta daude. Gaur egun Txina da horrelako eremu gehien dauzkana: kalkulu apalenen arabera, Txinak dauzkan horrelako 124 eremuetan 18 milioi pertsonen egiten dute lan. Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, gutxienez horrelako 850 eremu daude baina ziur aski kopurua 1.000 ingurukoa izango da, 70 estatutan daude eta 27 milioi pertsonen egiten dute bertan lan.

Vogel-en<sup>1021</sup> arabera, ekoizpen sare bertikalek ez dituzte langileak besterik gabe erakartzen. Vogel-ek, adibidez, azaltzen du nola nagusiki Erta Amerikatik, batik bat Mexikotik, lortzen dituzten langileak AEBetako legez kanpokoen lanpostuetarako eta Erta Amerikako *maquiladoras* delakoetarako. Lehenik ezinbestekoa izan da AEBek finantza eta politika arloan eskuhartzea, bertako eliteen lankidetzarekin batera, Mexikoko eta oro har Erta Amerikako langileak txirotu zitezten. Mexikon, esate baterako, 1980 eta 1990eko hamarkadetan austeritatea, zorraren

---

<sup>1020</sup> Klein, 2005, 239-284 eta 408 or.

<sup>1021</sup> Vogel, 2008.



berregituraketa zorrotza eta pribatizazio ekimenak behartu zituzten, Mexikoko burgesiaren mailegu politika neurritz kanpokoaren ondoren, eta aldaketa horiek langabezia eta desegituraketa eragin zuten.

Hart-Landsberg-ek<sup>1022</sup> dioenez, ekoizpen prozesuen fragmentazio eta banaketa geografikoaren bitartez, inbertsioek Hirugarren Mundua delako eremuan bilatzen dute ekoizpen intentsibo segmentuetarako eskulana. Ondorioz, egitura bertikaleko nazioarteko ekoizpen sare ugari hedatu dira hainbat herrialdetan. OCDEren herrialdeetan eta gorantz doazen herrialdeen input-output taulak aztertuz UNCTAD-ek ondorioztatu du sare bertikaletan oinarritutako merkataritzak munduko esportazioen %30a hartzen duela eta azken 25 urteetan %40 hazi dela. Nolanahi ere, herrialde askotara ez dira zabaldu sare hauek, kanpoan gelditu dira. AEBak batik bat Ipar Amerikan (NAFTA eremuan), japoniar kapitala Asia ekialdean eta europar kapitala Europa zentrolean hedatu da. Manufakturak lantzen dituzte nagusiki. Ondorioz, Hirugarren Munduan manufakturak 1970eko hamarkadan esportazioen %20 izatetik 1980ko hamarkada bukaeran %70 izatera pasa ziren. Halaber, Hirugarren Mundua delako eremua mundu mailako manufakturen esportazioetan 1965 urtean kopurua %4,4 izatetik 2003 urtean %30,1 izatera pasa zen.

Kleinek dioenez, ekoizpenaren mundu mailako berregituraketa globalizatuak txirotutako herrialdeetan ere kalteak eragin dizkie langileei. Kasu askotan ekoizpena sektore formaletik informalerara pasa da, lanpostu egonkorra eta lantegietan egina izatetik lanaldia behin-behinekoa edo partziala eta maiz atelier pribatu txikietan egitera pasa da, eta ondorioz soldatak eta lan baldintzak okertu egin dira. Lantegi eremu hauetan lanaldi luzeak izaten dituzte egunero: hamalau ordura arte Sri Lankan, hamazazpi Txina hegoaldean eta hamabi Filipinetan. Langile gehienak emakumezkoak dira, guztiak gazteak, beren bizilekuetatik urrun dauden eta orain bizi diren lekuarekin lotura handirik ez duten pertsonak izan ohi dira gehienak, eta Korea, Taiwan edo Hong Kong bezalako lekuetako azpikontratatistentzat egiten dute lan, eta halaber kontratista hauek AEB, Erresuma Batua, Japonia, Alemania edo Kanada bezalako estatuetako enpresentzat egiten dute lan. Lanekuaren kudeaketak izaera militarra du, arduradunak maiz arbitrarioak izan ohi dira, soldatak biziraupen mailatik behera daude, lana ez kualifikatua eta nekagarria izaten da, kontratuak epe motzerako izaten dira eta sarri ez dira berritzen. Tarteko dagoen arrazoia edozein dela ere, lan egiten ez duen langileak, ez du kobratzen. Langileei ez dizkiete beti kontratuak egiten. Esportazioak prozesatzeko eremuak. Horrela deitzen diete. Baina, Kleinen iritziz, esklabo izaerako lan getoak dira. Nekez aldera daitezke erdiguneko txikizkako enpresetako langileen baldintzak eta txirotutako herrialdeetako langileen egoera, batik bat esportazioak prozesatzeko eremuetako langileena, baina Kleinen arabera batzuek eta besteek lan eredu berari erantzuten diote.

Hart-Landsberg-ek<sup>1023</sup> dioenez, ekoizpen sareak eta merkataritza Hirugarren Mundua izeneko eremura zabaltzea ez da oso lagungarria izan bertakoen bizi maila, oreka ekonomikoa edo garapen nazionalerako perspektibak hobetzeko. Hainbat arrazoi nabarmentzen ditu Hart-Landsberg-ek:

---

<sup>1022</sup> Hart-Landsberg, 2008.

<sup>1023</sup> Hart-Landsberg, 2008.

- a) Liberalizazio eta deserregulazio testuinguruan erakarri duten kanpo inbertsioak oro har suntsitu egin du esportazioekin lehian zebilen industria nazionala, eta horrek langabezia, inportazioen hazkundera eta hainbat sektore industrialen galera eragin du.
- b) Hirugarren Mundua delako eremuan lekututako jarduera ekonomikoek gutxitan transferitzen dituzte trebezia edo teknologia, eta gutxitan sustatzen dute industria nazionalarekiko lotura, eta ondorioz nekez sustatzen dute garapen prozesu dinamiko eta nazionalki integratua.
- c) Esportazioek inportazioekiko menpekotasun handia dute eta ondorioz etekinak ematen dituzten kanpokoekiko elkartruke komertzialak nabarmen txikitzen dituzte.
- d) Trasnazionalen metatze prozesuak eragiten du Hirugarren Mundua delako eremuaren garapenak kanpo eskariarekiko gero eta menpekotasun handiagoa izatea.

Herrialde gutxi egin diete ihes arazo hauetara, Hart-Landsberg-ek dioenez. UNCTAD-en ikerketen arabera, 1981-1996 urteen artean garapen bidean zeuden zazpi herrialde aurreratuenak Hong Kong (Txina), Malaysia, Mexiko, Hego Korea, Singapur, Taiwan eta Turkia izan ziren eta korporazio trasnazionalak kontrolatutako sare bertikalek hartzen dutenez jarduera esportatzailearen zati handi bat, langileen ongizatera eta garapen nazionalera bideratutako irabaziak urriak izan ziren. Agian Mexikoren esperientziak islatzen du egoera ondoen: 1980-1997 urteen artean produktu manufakturatuen mundu mailako esportazioan Mexikok zeukan eskuhartzea hamar aldiz handiagoa bihurtu zen baina produktuko balio erantsian zeukan partaidetza herena txikitu zen eta, halaber, mundu mailako errentan zeukan partaidetza %13 txikitu zen. Txinaren kasua ere aipatzeko modukoa da. Gobernuak neurri handi batean enpresa pribatua eta nazioarteko merkatuaren indarrak pribilegiatzean oinarritutako hazkunde estrategia hartu zuenetik, Txina Hirugarren Mundua izeneko eremuan ekonomia gehien hazten zaion estatua da, munduan produktu manufakturatuko gehien esportatzen dituen eta atzerriko inbertsio zuzen gehien jasotzen duen estatua (1990 urtean 3.500 milioi dolar izatetik 2004 urtean 60.600 milioi dolar izatera). Txinan hazkundeak aberastu egin du errenta altuko sektore erlatiboki txiki bat baina gehiengoari ez dio mesede handirik egin eta langile ugari nabarmen kaltetu ditu.

#### 6.4.4 Kapitalaren mugikortasuna

Aldaketa sakon hauetan bada nabarmendu beharreko fenomeno bat: kapitalaren mugikortasun gero eta handiagoa. Bauman-en<sup>1024</sup> arabera, industrializazioaren hastapenetan kapitala oso lotuta zegoen leku jakin batera, kontratatzen zituen langileak bezain beste. Baina gaur egun kapitalaren mugikortasuna oso handia da eta lanarena, berriz, lehen bezain zaila ia. Hala ere, kapitalaren mugikortasuna ez da nahiko lukena bezain handia eta hori handitzen saiatzen ari da. Lurraldetasunaren faktorea eta tokiko gobernuen boterea kontuan hartu behar dira, kapitalari mugak ezartzeko gai baitira. Baina kapitala inoiz ez bezain extraterritoriala bihurtu da, arina, deserrotua, eta azken urteetan lortu duen mugikortasunari esker erraz extorsionatu ditzake tokiko agente politikoak bere eskaerei erantzun diezaieten, Baumanek dioenez. Gobernu guztiek oso kontuan hartzen dute kapitalak tokiko konpromisoak hausteko egiten duen mehatxu etengabea. Praktikan zergak txikitzea eta lan merkatua *malgutzera* esan nahi du honek.

<sup>1024</sup> Bauman, 2003a, 64-159 or.

Beck-en<sup>1025</sup> arabera, gaur egungo botere jokoan bi agente mota daude: lurralde bati lotuta daudenak (gobernuak, legebiltzarrak, sindikatuak) eta lurralde bakar batekiko ere loturarik ez dutenak (kapitala, finantzak eta merkataritza). Prozesu ekonomikoak nabarmen galtzen ari dira leku batekiko zalantza gabeko atxikipena. Kapitalismo globalak globalizazio kultural eta politiko prozesu bat sustatzen du, lurraldetasunaren printzipioaren kaltetan. Lurraldetasuna gero eta gutxiago da gizartearen eta kulturaren ordenerako ardatza eta, beraz, nork bere buruarekiko eta munduarekiko irudi lasaigarri modernoaren ardatza (lurraldetasuna) higatzen ari da. Halaber, Beck-en arabera, lurraldetasunaren endekatzearekin batera higatzen ari da gizarte industrialaren behar gaindiezin bat: leku zehatz batean elkarren alboan lan egitearena. Ekoizpen guneen arteko distantzia geografikoak garrantzia galtzen ari dira. Lehiakortasuna areagotzen ari da. Ondorioz, lanaren eta kapitalaren arteko harremanak eraldatu egin dira, kapitala globala baita eta lana, berriz, tokikoa. Gaur egun gero eta gehiago, kapitala globalki koordinatua dago eta lana, berriz, tokikoa da eta gero eta indibidualizatuagoa dago. Kapitalak gero eta errazago aukera dezake nahi duen lekua ekoizpenerako, zergak ordaintzeko, kotizaziorako edo erresidentzia bezala, besteak beste lanekuaren kostua eta politika fiskala kontuan hartuz. Aitzitik, mundu osoa kontuan hartuta, langileen mugikortasuna txikitu egin da. Dinamika honek desintegrazio lokala eta integrazio globala dakar.

Zuberok<sup>1026</sup> dioenez, lan prozesua globalizatu egin da baina lana ez. Lana pertsonarengan errotuta dago. Izaeragatik, pertsonak ezin dira kapitala bezain mugikorrak izan baina, gainera, kapitalismoari ez zaio interesatzen pertsonak munduan zehar ibiltzeko askatasuna izatea, horrela botere abantaila handia lortzen baitu langileekiko. Kapital globalizatu erabat mugikorra eta lan indarra lurraldeari atxikia konbinatzean, egoera hau etekin faktore ez ezik botere berriaren iturri nagusi ere bihurtu da.

Hardt eta Negri-ren<sup>1027</sup> arabera, kapitalak izaera urduri eta geldigaitza du. Bere egarria asezina baretzeko beharrezko ahalegina da kapitalaren hedapenerako joera, kapitalak beharrezkoa du, baina edonora hedatzea lortzen badu ere, inoiz ez da nahikoa izaten. Ondorioz, kapitalak krisia berezkoa du. Nolanahi ere, kapitala ez da hedatzen soilik bere unean uneko barne beharrak asetzeko eta merkatu berriak bilatzeko. Zabalkundearen bultzatzaile nagusienetako bat hurrengo metatze zikloaren beharrak asetzeko da, hau da kapitalizazio prozesua. Ekoizpenerako bitarteko gehigarriak eskuratzeko, kapitalak inguruarekin harremanak ezartzen ditu. Haren baliabideak erabili arren, batzuetan kapitalak ez du inguru hori kapitalismoaren eremuan sartzen. Beste batzuetan, berriz, kanpoko barneratu egiten da. Horixe gertatzen da lan indar berria lortzen duenean eta proletargoa (termino hau Hardt eta Negri erabiltzen duten eran) ekoizten duenean. Kanpoko segmentuak ez dira berdintasun eredu bati jarraituz barneratzen baizik eta gorputz koherente batean funtzionatzen duten organu ezberdinak bezala.

Klein-en<sup>1028</sup> arabera, enpresa hornitzaileen esklabo dinamikak ahalbidetzen du eskaria egiten duten enpresen malgutasuna maximizatzea. Horrela etekina atera dezakete munduan zehar sortzen diren unean uneko aukerez: zerga mailako onurak, moneten devaluazioa eta

---

<sup>1025</sup> Beck, 2000.

<sup>1026</sup> Zuberok, 2007, 38 eta 92 or.

<sup>1027</sup> Hardt & Negri, 2002, 209-214 or.

<sup>1028</sup> Klein, 2005, 269-272 or.

diktaduretako gobernu zorrotza, besteak beste. Fabrikak eskaria egiten duen enpresarenak ez direnez, enpresa transnazionalak botere handiagoa du ekoizpenaren gain eragiteko.

Sassen-en<sup>1029</sup> arabera, enpresa globalen eta beren zenbait bezeroren atxikipen eta nortasun nazionala nabarmen higitzen ari dira, batik bat Mendebaldea deitzen den eremuan, nahiz eta munduko beste eremu askotan ere gertatzen ari den. Esate baterako, enpresa handiek komeni zaien lekuan kokatzen dituzte beren egoitza nagusiak, herrialdea kontuan hartu gabe. Halaber, enpresa garrantzitsu gehienek meneko enpresen nazioarteko sare zabalak eta tokiko enpresekin bestelako lankidetzak motak dauzkate.

Sennett-en<sup>1030</sup> arabera, enpleguak kendu egiten dira AEBak eta Alemania bezalako soldata handiko herrialdeetatik eta enplegu horiek berak aldatu egiten dira soldata txikiko eta langile kualifikatutako, batzuetan gainkualifikatutako, herrialdeetara.

#### 6.4.5 Prekarietatearen estratu estratifikatua

Castells-ek<sup>1031</sup> dioenez, OCDE eta Nazioarteko Moneta Funttsak argitaratu dituzten zenbait analisiren arabera, lan harremanen izaera berriak familiako harremanak eta genero ezberdintasunak hobetzen lagundu dezake. Castells-ek aipatzen du, ordea, analisi horiek guztiz zapuzten dituzten beste ikerketa batzuk ere badaudela. Esate baterako, Japoniak aspalditik izan du lan merkatu *dualizatua*, hamarkada askoan zehar egon direlarik lanaldi partzialeko enplegatuek, eta, besteak beste, egoera horrek zilegiztatu du lan baldintza orokorren endekatzea: legez onartua dago enpresak erabakitzen duela zeintzuk diren lanaldi partzialeko enplegatuek, baina erabaki honek ez du lan orduekin zerikusi handirik, bestelako lan baldintzekin baizik; lanaldi partzialeko enplegatuek lanaldi osoko enplegatuek bezain beste ordu lan egiten dituzte ia, baina batez beste soldata arruntaren %60 eta urteko etekinen %15 irabazten dituzte, eta enplegatu hauen bi heren emakumezkoak dira.

Japoniakoa aurrekari bat da. Euskal Herriko lan baldintzei buruz eta zehazki gazteen prekarietateari buruz egin diren ikerketek argi erakusten dute enplegu ez estandarra gurean ere nagusitzen ari dela eta bere ondorioak ez direla mesedegarriak. Cal Barredok<sup>1032</sup> kontatzen duenez, garai batean, baina ez duela hainbeste, ibilbide profesional tayloristak zurrin ezarriak zeuden. Bizitzak hiru epealdi zituen, lana zuelarik ardatz: gaztaroa trebakuntzarako, helduaroa ekoizpenerako, eta zahartzaroa erretiroa hartu eta atsedenerako. Alonso de Armiño, Gómez, Moreno eta Zuberoren<sup>1033</sup> arabera, orain dela ez askora arte, nahiko erraza zen gaztaroa eta helduaroa bereizten zituen muga definitzea. Estandarraren arabera, lau jauzi egiten ziren: bikote batekin egonkorki elkartu, etxe independente batean bizitzen hasi, seme-alabak izan, eta okupazio estatus egonkorra erdietsi. Gaur egun, ordea, nagusiki etxebizitzaren eta lanaren jauziak oztopatzen dute gaztarotik helduarorako pausoa ematea.

<sup>1029</sup> Sassen, 2007, 215-216 or.

<sup>1030</sup> Sennett, 2006, 78 or.

<sup>1031</sup> Castells, 2001a, 255-398 or.

<sup>1032</sup> Cal Barredo, 2004.

<sup>1033</sup> Alonso de Armiño & Gómez & Moreno & Zubero, 2004.

Izan ere, Cal Barredoren<sup>1034</sup> arabera, 1970eko krisiak ekoizpen moduak ez ezik lan harremanak eta, azken finean, dinamika sozialak ere aldarazi ditu. Lehenik langabezia eta inflazio handia etorri ziren. Horri ekoizpenaren eta antolakuntzaren berregituraketarekin erantzun zioten. Halaber, estatuak eta enpresek zuten papera ere eraldatu zen. Aldaketa hauekin guztiakin, pobrezia berriak pertsona erlatiboki gazte, kualifikatu eta osasuntsuei eta umeei eragingo die. Langabeziak eta jarduera ezak zerikusia handia dute pobreziarekin, baina, lehen aipatu dugun bezala, pobrezia berri bat ere agertu da: enplegu ez estandarren hedapenaren ondorioz, Europako Batasuneko enplegatuen %8 pobrezia mugaren azpitik daude.

Alonso de Armiñok, Gómezek, Morenok eta Zuberok<sup>1035</sup> datu esanguratsu bat ematearren, arestian eman ditugun beste datu batzuen haritik aipatzen dute EAEko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren arabera 1999an sortzen ziren enpleguen %94 behin-behinekoak izan zirela. 29.000 enplegu sortu ziren baina 636.000 kontratu izan ziren. Ikerketa honen arabera, testuinguru honetan gazteek ezin dute epe luzerako egitasmorik eraiki. Ziurgabetasuna da jaun eta jabe. Langile gaztearen bizitzan fragmentazioa, jarraikortasun eza eta aurreikuspenetarako gaitasun eza nagusitzen dira. Egileen arabera, nabarmena da lan ibilbideetan izandako enplegu kopurua eta haien arteko lotura eza. Gainera, ikerketa honen arabera, enpleguek ez dute egindako ikasketekin lotura izaten. Halaber, analisi honetan ikus daitekeenaren arabera, enpleguak kualifikazio txikikoak eta diru irabazi eskasekoak izaten dira. Ezagunek laguntzen diete gehienei enpleguak lortzen, baina ABLEek ere egiten dute sarri bitartekari lana. Emakumezkoen egoera okerragoa da oro har. Lan baldintza gogorrei aurre egin behar badiete ere, ez zaie itzaltzen ilusioa, ikerketak kontatzen duenez. Agian beharrak derrigortzen ditu. Aurrera egin ahal izateko ezinbestekoa da beren enplegua. Lanak bakarrik ez ditu asetzen, baina aurrera egiteko ezinbestekotzat dute. Etorkizunera begira, askok eta askok beren curriculum osatzeko ikasketetan ahalegintzen dira. Mugitu beharra dagoela sentitzen dute, nahiz eta badakiten sarri ez dela eraginkorra izaten. Bestalde, bilatzen duten lan idealaz hitz egiterakoan, diru baldintzak ez ezik bestelako ezaugarri batzuk ere betetzea nahiko lukete: lan eskubideen bermea, lan giroa, beren interesekin bat etortzea, lanetik kanpoko bizitza ahalbidetzea. Baina independizatzeko nahiak eta ezinak eramaten ditu lanaren baldintza ekonomikoak nabarmentzera, baina ez dirudun izateko asmoz, baizik eta autonomoak izatera iritsi ahal izateko.

Honela kultura berri bat ekoizten ari da, prekaritatearen kultura hain zuzen, Imazek dioenez<sup>1036</sup>. Marxek langabezia kapitalaren erreserba ejerzito bezala definitu zuen bezala, diskurtso kritikoak uste du prekaritateak funtzio berdina duela: ziurgabetasuna hedatuz, langileak bildurtu eta diziplinatu egiten ditu. Dominazio modu berri bat da. Ziurgabetasuna hedatuz eta egonkortuz behartzen ditu langileak menpekotasunera. Baina ez die soilik langile prekarioei eragiten. Gainerakoak ere horren eraginpean daude. Prekaritatea kultura bat da eta gaur egun onarpen zabala du. Ez da soilik mehatxuan oinarritzen. Ageriko bortxa nabarmenegia denean, dominazioa ez da hain eraginkorra. Boterea ez da soilik suntsitzailea, sortzailea ere bada, konbentzitzeko gaitasuna ere badu. Foucaulten<sup>1037</sup> arabera, boterea batez ere sortzailea da, boterea beti jakintzari

---

<sup>1034</sup> Cal Barredo, 2004.

<sup>1035</sup> Alonso de Armiño & Gómez & Moreno & Zubero, 2004.

<sup>1036</sup> Imaz, 2006, 189 or.

<sup>1037</sup> Foucault, 2005.

lotuta agertzen da, mundu ikuskera eraikitzen du. Weber-ek<sup>1038</sup> dioenez, botere orok dominatzaile bihurtzean legitimazioa bilatzen du.

Bourdieuaren<sup>1039</sup> arabera, segurtasun eza orokortuak sumisioa sustatzen du. Bourdieuk *malgustiapena* bezala euskaratu dugun kontzeptuaren bitartez azaltzen du errejimen berriaren langileekiko tratua, malgutasuna eta ustiapena konbinatzen dituelako. Ez ustiapen malgua delako, baizik eta malgutasunaren diskurtso eta praktika ekonomiko-politikoek segurtasun ezaren angustiaren bitartez ustiapen eraginkorra lortu nahi dutelako.

Bauman-ek<sup>1040</sup> dioenez, langabetuen bizitzak ez ezik gainerako guztienak ere prekarizatuta gelditu dira, gutxienez psikologikoki, eta hori kasurik onenean. Nagusitzen ari dira segurtasun falta (gure posizioarena, eskubideena, bizirauteko bitartekoena), ziurgabetasuna (gure jarraipenaren eta etorkizuneko egonkortasunarena) eta babesgabetasuna (gorputzarena, izatearena eta beren luzapenena: jabetzak, auzoak, erkidegoak). Prekarietatea da ezaugarri behinena.

Prekarietatea sektore publikoan eta pribatuan dago, gero eta gehiago zabaltzen ari da, Bourdieuren<sup>1041</sup> arabera. Sofritzen duenari kalte handia egiten dio, bere etorkizuna airean gelditzen baita nabarmen: aurreikuspen arrazionalak eragozten ditu eta gehienbat errebelatzeko ezinbestekoa den etorkizunarekiko esperantza pixka bat zapuzten du. Eta ustez zuzenean sofritzen ez dutenek ere ezin dute sekula ahaztu, presente baitago uneoro, orpoz orpo mehatxuak jarraitzen baititu. Enplegudunari ikusarazten dio bere ekarpena ez dela ordezkazina, justu kontrakoa baizik, eta gainera, bere baldintzak nolabait pribilegio bat direla eta, beraz, ez kexatzeko eta lan egiteko ahal bezain sutu. Enplegudunak lan baldintza txarrak izan arren, badauka zer defendatu, okerrago egon daitekeela ikusten baitu. Ondorioz, lanarekiko lehiarekin batera lanean lehia izan ohi da horrelakoetan, denak denen aurka izan daiteke, elkartasun eta gizatasun balio oro azpiratuz batzuetan. Segurtasun falta objektibo orokortuak segurtasun eza subjektiboa eragiten du, orokortua hau ere bai. Desmoralizazioaren eta desmobilizazioaren sustraia dira: arrazionaltasunerako ezinbestekoa da neurri batean presentetik etorkizunerantz proiektatzeko gutxieneko gaitasuna eta aukerak izatea.

Polavieja-ren<sup>1042</sup> arabera, lan merkatua aztertzen duten hainbat ekarpenek nahastu egiten dituzte kontratazio moduak eta klase okupazionalak. Ondorioz, badirudi *white collar* langile guztiek kontratu egonkorra dutela eta *blue collar* langileek, berriz, ezegonkorra, baina Polavieja-k dioenez ez dago ikuspegi hau babesteko inolako froga enpirikorik. Egonkor-ezegonkor edo *insider-outsider* dikotomia egitea zilegi bada, ez da posible klase okupazionalarekin nahastea, zeren okupazio mota guztiak zeharkatzen baititu prekarietateak. Kualifikazio txikiena dutenei gehiago eragiten die baina datuek argi erakusten dute lan merkatuaren aldaketak okupazio eta kategoria guztietara hedatu direla. 1997 urtean, esate baterako, lan kualifikatutzat hartuak zirenetan enplegatuta zeudenen %61ak kontratu egonkorra zeukan eta 12 urteko batez besteko aintzinasuna lanpostuan eta soilik %10ak azaldu zuen urte horretan zehar lanpostua galtzeko bildurra. Lan kualifikatutzat jotzen ziren enpleguetan zebilen gainerako %39ak behin-behineko kontratuak zeuzkan, batez

---

<sup>1038</sup> Weber, 2007.

<sup>1039</sup> Bourdieu, 1999a, 121-128 or.

<sup>1040</sup> Bauman, 2003a, 171 or.

<sup>1041</sup> Bourdieu, 1999a, 121-128 or.

<sup>1042</sup> Polavieja, 2003, 4-35, 79-129 eta 303-304 or.

beste 14 hilabeteko aintzinasuna zuen lanpostuan eta %62ak azaldu zuen urte horretan zehar lanpostua galtzeko bildurra.

Sennett-en<sup>1043</sup> arabera, lanaren prekarizazioa esparru guztietan aplikatzen da. Enpresaren kanpoko harremanetarako ez ezik barne dinamiketan ere hedatuta dago. Enpresa baten langileak lan baldintzen arabera zirkulu kontzentrikoetan banatuko bagenitu, esango genuke prekarietateak gogor kolpatzen dituela kanpoko geruzetakoak baina barnekoei ere eragiten diela eta batzuetan oso gogor gainera.

Nolanahi ere, prekarietatearen kultura ideologiko-praktikoa orokortzen ari dela esateak ez du esan nahi guztiei berdin eragiten dienik, baina afera honi buruz ere eztabaida dago. Esate baterako, Bauman-en<sup>1044</sup> arabera, zoritxarra nori egokituko zaion jakitea ezinezkoa da, zoritxarrak ausaz aukeratzen baititu biktimak, edo gutxienez logika arraro eta azalduzinari jarraiki, kolpeak modu gutziatsuan banatuz, ezinezkoa baita aurreikustea nor dagoen kondenatua eta nor salbatuko den. Ezin da jakin bihar nor izango den non. Lanaren munduan ere halaxe gertatzen da Bauman-en arabera. Halaber, EAEko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak (KES) 2006 urteko martxoan plazaratu zuen ikerketaren arabera<sup>1045</sup>, neurri batean Bauman-en ikuspegiarekin bat eginez dio gurasoen lan egoerak eta ikasketa mailak ez dituela inola ere gazteen aukerak baldintzatzen.

Baina beste asko ez dira iritzi berekoak. Beck-en<sup>1046</sup> arabera prekarietateak ez die guztiei berdin eragiten eta hori ez da ausaz gertatzen. Ikuspegi hori nabarmena da, adibidez, aipatzen duenean prekarietateak gehiago eragiten diela emakumezkoiei. Castellsek<sup>1047</sup> berretsi egiten du ikuspegi hori esanez emakumezkoak gero eta gehiago murgiltzen ari direla enpleguaren munduan baina gehienbat diskriminazio baldintzetan egiten ari direla.

Boltanski eta Chiapelloren<sup>1048</sup> arabera, hainbat faktorek eragina dute prekarietatearen hedapen asimetrikoan. Esate baterako, kontratazio politikak hainbat irizpidetan oinarritzen direla diote. Boltanski eta Chiapelloren arabera, faktore dokumentatuenak adina, jatorri nazionala eta sexua dira. Baina hauekin batera Boltanskik eta Chiapellok diote enplegatuen hautaketa kualifikazio mediku-psikologikoen arabera ere egiten dela eta ezaugarri hauek, besteak beste, estatutu hierarkikoarekin, adinarekin eta heziketa mailarekin lotuta daudela. Horrekin batera harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna, inplikazio eta egokitze gaitasuna

Cardenal-en<sup>1049</sup> ekarpena ere hari beretik doa. Cardenalek ez du uste gazteen belaunaldia aztertzean egoera ondo ulertu daitekeenik baldin eta ez bada kontuan hartzen homogeneizazio prozesuekin batera diferentziazio prozesuak ere gertatzen direla jatorri soziala, sexua eta talde etnikoa, besteak beste, ardatz direlarik. Gazteen esperientzia oso dibertsifikatua dago. Gazteen laneko prekarietatea oso orokortua dago, baina prekarietatea ez da guztientzat maila berekoa. Ikasketa mailak, adibidez, garai batean zuen indarra galdu duen arren, gaur egun oraindik eragina du ezegonkortasun urteen iraupena luzatzeko edo murrizteko. Era berean, hurbileko sare sozialek

<sup>1043</sup> Sennett, 2006, 20 or.

<sup>1044</sup> Bauman, 2003a, 157-158 or.

<sup>1045</sup> Berria, 2006-03-22.

<sup>1046</sup> Beck, 2000, 79 or.

<sup>1047</sup> Castells, 2001a, 34 or.

<sup>1048</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 322-326 eta 335-343 or.

<sup>1049</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 18, 34-39 eta 82-90 or.

eragin erabakiorra dute. Familia, erkidego etnikoa, lagunaren sareak eta gisakoek estatuaren nahiz merkatuaren eragina beren galbahetik igaroarazten saiatzen dira. Lehen mailako sare sozialek eragina dute, beraz, estatuan eta merkatuan. Gainerako funtsezko egitura sozialekin batera oso garrantzitsuak dira erreproduzio sozialerako eta, ondorioz, ibilbide sozialengan eragin nabarmena izateko.

Sennett-en<sup>1050</sup> arabera, jatorri soziala funtsezkoa da ibilbide profesionalean. Elitekoen seme-alabek beren ibilbide profesionalean aurrera egin ahala aukera dute nahasketa estrategikoak izateko. Posizio apalagoetan, seme-alabak ezin dute horrelako luxurik permititu. Eskematikoki azaltzearen, Sennett-en arabera, elitekoek aukera handiagoak izango dituzte jatorri familiarrari eta hezkuntza nahiz lanbide sareei esker. Pribilegioak txikitu egiten du epe luzerako estrategiak trazatzearen beharra. Sare sozial indartsu eta zabalek aukera ematen diete baliabide gehien dituztenei unean unekoa bizi dezaten. Baliabide gutxiago dauzkatenen harreman sarea ez da hain boteretsua eta zabala. Beraz, pentsamendu estrategikoaren beharra handiagoa da norbanakoaren iraupena bermatzeko. Pentsamendu estrategikoak ulertzeko moduko mapa soziala behar du eraginkorra izateko. Mapa soziala lausotzen bada, ezer aurreratzeko modukoa ez bada, baliabide gutxiago dauzkatenek aukerak kendu egiten zaizkie.

Waisgrais eta Calero-k<sup>1051</sup> Espainiako estatuko lan merkaturanzko gazteen trantsizioari buruzko azterketaren emaitzak 2008 urtean aurkeztu zituztenean, ikerketa kuantitatiboaren bidez azaldu zuten familiaren ezaugarri sozioekonomikoen neurri handi batean baldintzatzen zituela gazteen ibilbide akademiko eta profesionalak. Etxeko enrenta handitu ahala areagotu egiten dira seme-alabek kalitateko enplegu bat lortzeko duten probabilitatea eta ondorioz murriztu egiten da langabeziaren arriskua. Halaber, familiako enrenta mailak eragin du seme-alaben ibilbide profesionalean. Etxeko enrenta maila handiagoa izatea seinale garbia da seme-alabentzat lan merkaturako sarrera atzera dezaten eta hezkuntza sisteman gehiago inbertitu dezaten. Gainera, lan merkaturanzko trantsizio aroan ikasketa, inaktibitate, enplegu bilaketa eta enplegu garaiak modu heterogeneoan konbinatzen dira. Nabarmen luzatu den epe horrek eragin du gazteak hezkuntza sistema formalek irten ondoren ere gurasoekin bizitzen luzaroan jarraitzea eta egoera horrek ahalbidetu du belaunaldi arteko transferentziak bizilekuan eta familia sare informalean bidez oraindik gehiago gauzatzea.

---

<sup>1050</sup> Sennett, 2006, 72 or.

<sup>1051</sup> Calero & Waisgrais, 2008.



**41. Taula: Lan indarraren portzentajea adinaren arabera (biztanleria orotara), lan indarraren portzentajea erremunerazio txikiko enpleguetako langileen artean, eta gain/azpi-errepresentazio maila (ehunekoak)**

	Lan indarraren portzentajea adinaren arabera			Erremunerazio txikiko lan indarraren portzentajea adinaren arabera			Gain/azpi-errepresentazio maila		
	15-30	31-47	48-68	15-30	31-47	48-68	15-30	31-47	48-68
<i>Estatua</i>									
Alemania	23,81	49,46	26,73	32,08	44,03	23,90	1,35	0,89	0,89
Austria	31,44	46,42	22,14	28,77	42,81	28,42	0,92	0,92	1,28
Belgika	19,71	55,83	24,46	35,26	52,02	12,72	1,79	0,93	0,52
Danimarka	21,42	47,25	31,33	47,18	36,62	16,20	2,20	0,78	0,52
Espainia	35,06	36,01	28,93	40,03	39,94	20,92	1,16	1,11	0,72
Finlandia	23,36	43,23	33,42	37,03	38,48	24,49	1,59	0,89	0,73
Frantzia	26,7	46,53	26,77	40,36	38,10	21,54	1,51	0,82	0,80
Grezia	27,1	44,73	28,17	32,58	34,39	33,03	1,20	0,77	1,17
Irlanda	34,75	38,33	26,91	47,19	25,28	27,53	1,36	0,66	1,02
Italia	28,62	48,20	23,17	32,86	45,28	21,86	1,15	0,94	0,94
Portugal	34,21	39,19	26,6	37,2	29,97	32,83	1,09	0,76	1,23
Erresuma Batua	29,80	45,06	25,14	45,33	31,56	23,11	1,52	0,70	0,92

Iturria: Ramos-Díaz-ek egina European Household Panel 2004 datuetan oinarrituz in Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 153.


Ramos-Díaz-ek<sup>1052</sup> aurkezten dituen datu kuantitatiboek erremunerazio txikiko enpleguak hartzen ditu erreferentzia. Honelako enpleguak dituztenen ezaugarriak aztertzen dituelarik, ondorioztatzen du hainbat faktorek harreman nabarmena dutela erremunerazio txikiko enpleguak izatearekin. 41. Taulan ikus daitekeenez, adina da horietako bat: erremunerazio txikiko enpleguen kopurua erlatiboki handiagoa da 15 eta 30 urte artekoetan aztergai diren estatu ia guztietan. Kasu bereziak dira, batetik, Austria, Grezia eta Portugal, 48-68 urte artekoetan ere kopuru erlatiboki handia delako erremunerazio txikiko enpleguetan eta, bestetik, Espainiako estatua ere berezia da, 31-47 urte artekoetan ere kopurua erlatiboki handia baita erremunerazio txikiko enpleguetan.

INEren<sup>1053</sup> arabera, adinean gora egin ahala handitu egiten da laneko diru irabazia, 25. Grafikoan ikus daitekeen bezala. INEk bere txostenean dioenez, ez dago adinean oinarritzen den gehigarririk baina bai enpresan egindako urteen arabera aintzinasunean oinarritzen dena.

<sup>1052</sup> Ramos-Díaz, 2005.

<sup>1053</sup> INE, 2006.

25. Grafikoa: Urteko batez besteko soldata adinaren eta sexuaren arabera, Espainiako estatua 2006 (euroak eta betetako urteak)



Iturria: INE, Encuesta de Estructura Salarial 2006.

Generoa ere bada kontuan hartu beharreko faktoreetako bat. Ramos-Díaz-ek<sup>1054</sup> aurkezten dituen datuen arabera, 42. Taulan ikus daitekeenez, aztergai diren estatu guztietan emakumezkoen kopurua erlatiboki handiagoa da erremunerazio txikiko enpleguetan.

Beste hainbat ikerketek ere joera horixe bera islatzen dute. Lan Baldintzen Hobekuntzarako Fundazio Europarrak 2006 urtean aurkeztu zuen ikerketaren arabera, generoa funtsezko faktoreetako bat da lan merkatuaren egituraketan: Europako Batasunean emakumezkoek betetzen dituzte hezkuntzako eta osasun zerbitzuetako enpleguen %75 eta merkataritzako %55 eta gizonetzkoek, berriz, eraikuntzako enpleguen %90, argi eta ur hornikuntzako %80 eta garraio eta telekomunikazioko %76. Soldatei dagokienez, emakumezkoen ia %50 soldata eskalaren beheko herenean kokatuta daude (lanaldi partzialak soilik joera honen zati bat besterik ez du azaltzen). Zuzendaritza postuetan dauden emakumezkoen kopurua gorantz doa baina gizonetzkoen presentzia baino askoz txikiagoa da. Lan ordui dagokienez, Europako Batasunean batez bestekoa astean 51 ordukoa da, horietatik 7,9 ordu ez ordainduak, baina emakumezkoek dagokienez batez bestekoa astean 63 ordukoa da, horietatik 23 ez ordainduak.

<sup>1054</sup> Ramos-Díaz, 2005.

**42. Taula: Lan indarraren portzentajea generoaren arabera (biztanleria ortara), lan indarraren portzentajea erremunerazio txikiko enpleguetako langileen artean, eta gain/azpi-errepresentazio maila (ehunekoak)**

	Lan indarraren portzentajea generoaren arabera		Erremunerazio txikiko lan indarraren portzentajea generoaren arabera		Gain/azpi-errepresentazio maila	
<b>Estatua</b>	<b>Gizonzk.</b>	<b>Emakumzk.</b>	<b>Gizonzk.</b>	<b>Emakumzk.</b>	<b>Gizonzk.</b>	<b>Emakumzk.</b>
Alemania	54,97	45,03	38,54	61,46	0,70	1,36
Austria	56,37	43,63	39,51	60,49	0,70	1,39
Belgika	51,80	48,20	32,76	67,24	0,63	1,40
Danimarka	51,61	48,39	34,97	65,03	0,68	1,34
Espainia	61,08	38,92	47,85	52,15	0,78	1,34
Finlandia	52,01	47,99	48,7	51,3	0,94	1,07
Frantzia	54,46	45,54	45,48	54,52	0,84	1,20
Grezia	61,61	38,39	53,23	46,77	0,86	1,22
Irlanda	60,69	39,10	59,49	40,51	0,98	1,04
Italia	61,48	38,52	55,35	44,65	0,90	1,16
Portugal	56,07	43,93	54,08	45,92	0,96	1,05
Erresuma Batua	53,66	46,34	44,74	55,26	0,83	1,19

Iturria: Ramos-Díaz-ek egina European Household Panel 2004 datuetan oinarrituz in Navarro, Vicenç: *La situación social...*, 156.

Waisgrais eta Calero-ren<sup>1055</sup> ekarpenak ere ondorio berdinetara iristen dira. Hauen arabera, DBH bukatzen duten gizonzkoek emakumezkoek baino aukera handiagoak dituzte kalitateko enpleguak aurkitzeko, baita kalitate txikiko enpleguak aurkitzeko ere. Batxilergoa edo Lanbide Heziketako Ziklo Ertainak bukatzen dituzten gizonzkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasuna are handiagoa da. Nahiz eta emakumezkoek hezkuntza sistema formalean partaidetza eta errendimendu handiagoa duten, lanaren eremuan emakumezkoen aurkako estigmatizazio eta zigorraren fenomenoak erabateko egunerokotasuna du: langabezia handiagoa dute, aktibitate tasa eta soldata txikiagoak, eta aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuen kopuru handiagoak, besteak beste.

Bestalde, faktore ezberdintzaile bezala, ikasketak ere funtsezko faktorea dira, Ramos-Díaz-ek<sup>1056</sup> aurkezten dituen datuen arabera. 43. Taulan ikus daitekeenez, erremunerazio txikiko enpleguetan kopurua erlatiboki askoz txikiagoa da goi mailako ikasketak dituztenen artean. Ikasketa maila ertaina dutenen artean kopuru erlatiboa handiagoa da eta oinarrizko ikasketak dituztenen artean are handiagoa. Alemania eta Frantziako estatua dira salbuespenak, oinarrizko ikasketak dituztenen artean kopurua txikiagoa baita maila ertaineko ikasketak dituztenen artean baino.

INEren<sup>1057</sup> arabera, ikasketa mailaren araberako diru irabazien asimetria oso handia da, 26. Grafikoan ikus daitekeenez. Ikasketa maila handitu ahala handitzen da urteko soldata gordina. INEren 2006 urteko datuei dagokienez, ikasketarik gabeko edo Lehen Hezkuntza gainditua zuten langileek batez besteko soldata baino %27 gutxiago irabazi zuten. Bitartean unibertsitateko lizentziatuek oro har batez besteko urteko soldata gordina baino %64,1 gehiago irabazi zuten. Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa edo Goi Mailako Lanbide Heziketa edo maila handiagoa dutenek batez beste gainditu egiten dute batez besteko urteko soldata gordina. Goi mailako

<sup>1055</sup> Calero & Waisgrais, 2008.

<sup>1056</sup> Ramos-Díaz, 2005.

<sup>1057</sup> INE, 2006.


titulazioa zutenen artean %50ak baino gehiagok 32.000 euroko urteko soldata gordina baino handiagoa izan zuten. Maila txikiko titulazioak zituztenen artean, berriz, soilik %3,4ak gainditu zuen kopuru hori. Emakumezkoen dagokienez, unibertsitateko titulazioa zutenen artean %50ak irabazi zituen 23.000 euro baino gehiago, baina oinarrizko ikasketarik gabekoen %3,9ak gainditu zuen kopuru hau. Bestalde, Lehen Hezkuntza gainditua dutenen eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa gainditua dutenen artean ez da alde esanguratsurik.

**43. Taula: Lan indarraren portzentajea ikasketa mailaren arabera (biztanleria orotara), lan indarraren portzentajea erremunerazio txikiko enpleguetako langileen artean, eta gain/azpi-errepresentazio maila (ehunekoak)**

Adina	Lan indarraren portzentajea ikasketa mailaren arabera			Erremunerazio txikiko lan indarraren portzentajea ikasketa mailaren arabera			Gain/azpi-errepresentazio maila		
	Goi	Ertain	Oinarzke.	Goi	Ertain	Oinarzke.	Goi	Ertain	Oinarzke.
Alemania	24,61	56,77	18,26	18,33	62,71	18,75	0,74	1,10	1,03
Austria	9,62	73,13	17,25	4,20	74,48	21,33	0,44	1,02	1,24
Belgika	43,77	35,31	20,92	35,63	37,36	27,01	0,81	1,06	1,29
Danimarka	33,01	52,42	14,53	24,48	57,34	18,18	0,74	1,09	1,25
Espainia	31,55	20,92	47,53	17,12	18,94	63,94	0,54	0,90	1,33
Finlandia	34,04	47,37	18,59	24,06	54,20	21,74	0,71	1,14	1,17
Frantzia	31,56	12,70	55,75	12,54	19,78	66,97	0,40	1,56	1,20
Grezia	20,23	37,77	42	7,92	32,84	59,24	0,39	0,87	1,41
Irlanda	22,34	42,81	34,85	15,9	32,82	51,28	0,71	0,77	1,47
Italia	12,71	45,09	42,2	6,4	38,94	54,66	0,50	0,86	1,30
Portugal	10,73	14,3	74,97	1,9	9,24	88,86	0,18	0,65	1,19
Erresuma Batua	47,49	24,09	28,14	36,1	28,4	35,4	0,76	1,18	1,26

Iturria: Ramos-Díaz-ek egina European Household Panel 2004 datuetan oinarrituz in Navarro, Vicenc: *La situación social...*, 156.

**26. Grafikoa: Batez besteko soldaten arteko aldeak ikasketa mailaren arabera, Espainiako estatua 2006 (batez besteko soldatarekiko desbideraketa ehunekoetan).**



Iturria: INE, Encuesta de Estructura Salarial, 2006.

Edonola ere, EAEko Kontseilu Ekonomikoak eta Sozialaren (KES) 2006 urteko ikerketaren arabera<sup>1058</sup>, ikasketa maila bezain garrantzitsua da ikasketa mota: Lanbide Heziketako ikasleek eta zientzia teknikoetan trebatutako unibertsitateko ikasleek lortzen dute lana azkarren eta giza eta osasun zientzietako unibertsitateko ikasleek, aldiz, zailtasun gehiago izaten dituzte.


<sup>1058</sup> Berria, 2006-03-22.

Bestalde, Waisgrais eta Calero-k<sup>1059</sup> diotenez, gaur egun ikasketak mailak baldintzatu egiten ditu enpleguaren baldintzak baina egoera hau areagotu egingo da: 2004 urteko aurreikuspen baten arabera, sortuko den enpleguaren %40 bigarren mailako ikasketak dituztenentzat izango da eta soilik %15 oinarritzko ikasketak dituztenentzat.

Aipatu ditugun faktoreez gain, badira beste hainbat. Harreman sozialak, kontaktuak, ezagunak, hori da kontuan hartu beharreko beste funtsezko faktoreetako bat. Berria egunkariak<sup>1060</sup> “Aldaba onak izatea da lana azkar lortzeko modurik onena” izenburuarekin laburbiltzen zituen EAEko KES-en 2006 urteko ikerketaren emaitzak. Emaitzen arabera *aldaba onak* dira lana aurkitzeko biderik eraginkorrena eta erabiliena, gazteentzat batez ere. Fenomeno hau nabarmen agertzen da lana aurkitzeko zailtasun gehien dituztenen artean: gazteak daude okerren, batik bat Lanbide Heziketakoak baino maila txikiagoko ikasketak dituztenak eta emakumezkoak. Lana lortzeko aukera gehien faktore hauek betetzen dituztenengan daude: gizonezkoa, lanaldi osoko enplegua bilatzea, zientzia teknikoei lotutako ikasketak egin izana eta oroz gain aldaba onak izatea.

Nazionalizatea ere kontuan hartzeko moduko faktorea da, INEren<sup>1061</sup> arabera. Nazionalitateak zerikusia du, adibidez, urteko soldata gordinarekin. Ofizialki Espainiako nazionalitatea ez dutenen artean, 2006 urteari dagokionez (ikus 27. Grafikoa), soilik Ipar Amerikakoek eta Europako Batasunekoek izan zuten batez bestekoa baino soldata handiagoa. Gainerakoek batez bestekoa baino %25 eta %30 artean gutxiago irabazi zuten. Nazionalitatea eta generoa kontuan hartuz, ofizialki Espainiako nazionalitatea zutenek izan zituzten irabazi handienak, gizonezkoen nahiz emakumezkoek dagokienez, eta irabazi txikienak, berriz, emakumezko etorkinek. Espainiako nazionalitatedunen artean %40ak baino gehixeagok irabazi zituzten 20.000 euro baino gehiago. Kopuru hau emakumezkoen artean %25,5ekoa da Espainiako nazionalitedunen artean, baina etorkinei dagokienez gizonezkoen %13,4ak eta emakumezkoen %9,3ak bakarrik gainditu zuten kopuru hori. Bestalde, erretribuzio handienei dagokienez, 60.000 eurotik gorakoei dagokienez alegia, Espainiako nazionalitedun gizonezkoen artean %3ak gainditu zuen kopuru hori, baina hori egin zutenen kopurua hutsaren hurrengoa da langile etorkinentzat eta emakumezko langileentzat, Espainiako nazionalitatea izan edo ez.

27. Grafikoa: Urteko batez besteko soldaten arteko aldea nazionalitate ofizialaren arabera, Espainiako estatua 2006 (batez besteko soldatarekiko desbideraketa ehunekoetan).



Iturria: INE, Encuesta de Estructura Salarial 2006.

<sup>1059</sup> Calero & Waisgrais, 2008.

<sup>1060</sup> Berria, 2006-03-22.

<sup>1061</sup> INE, 2006.

Hortaz, aztertu ditugun datuen arabera, badirudi gutxienez aipatu ditugun faktoreek harreman zuzena dutela enplegu mota bat edo beste lortzearekin. Ondorioz, hipotesi bezala formula dezakegu honakoa: indibiduoari egozten zaizkion hainbat ezaugarri baldintzatu egiten dute ibilbide profesionalaren izaera. Beraz, hipotesi hori berretsiko balitz, esan ahal izango genuke faktore horiek zerikusia dutela ibilbide mota ezberdinen osieran. Hots, faktore ezberdintzaileen ondorioz hainbat ibilbide mota daudela. Baina zer ibilbide mota daude?

Ibilbideen azterketan erreferentziala da GRET ikerketa taldearen ekarpena. Casal-ek<sup>1062</sup> dioenez, ibilbide terminoak gutxienez bi adiera dauzka:

- 1) ikuspegi pedagogistak curriculumaren bidearekin edo trebakuntzaren bidearekin parekatzen du;
- 2) ikuspegi biografistatik jabetzearen eta klasetzearen modalitate biografikoa da.

Casalek bigarrena aukeratzen du. Emantzipazio prozesuetan gazteek dauzkaten jabetze eta gauzate aukerak adierazten ditu: lorpenak eskolako trebakuntzan, aurretiazko lan esperientziak, trantsizio profesionala, nortasunen eta espektatiben eraikuntza, hiritartasun estatutua, bizitza afektiboa, nor bere etxean bizitzeko aukera, eta abar. Eskolatik lanerako trantsizioa, batetik, maila indibidualean aktoreen bizitzaren tarte esanguratsua da eta, bestetik, maila sozialean segmentazio soziala hezkuntza sisteman, ekoizpen sisteman eta insertzio profesionalean aurki daiteke. Ibilbide terminoak errealitate bakarrean biltzen ditu hainbat alderdi: ezaugarri instituzionalak (aukerak), biografikoak (hautuak) eta testuingurukoak (determinatzaile sozialak). Terminoak berak iradokitzen du hainbat ibilbide daudela eta haietako bakoitzean, gutxi-asko, *zirkulazio* fluxua dagoela. Ibilbidea bakoitzak iradokitzen du etorkizun hurbilak eta arrakasta nahiz porrot laboralak eta sozialak aurreikusteko probabilitatea

Ibilbideak anitzak izatearekin zerikusi handia du Eskolatik Lanbiderako Trantsizioaren (ELT) epe esanguratsua, Casalen arabera: indibiduoak bere trebakuntza zikloaren azken epearen eta epe ertainerako enplegu eta profesionalizazio aukeren artean determinatzen da arrakasta edo porrot soziala. ELT unea hartzen diren erabakiak funtsezkoak dira, maila sozialeko hainbat kristalizazio edo klasetze suposatzen baitute.

Casal-ek dioenez, ELT eskolako trebakuntza amaitu aurretik hasten da eta lehenengo enpleguaren edo lan kontratua baino askoz geroago bukatzen da. ELT erabakien eta estrategien garaia da, ziurgabetasunei aurre egiteko unea. Sarri ez du atzera buelta errazik. Determinatzaile sozial askok eragiten diote ELTari: aukerak, jarrerak, hautemate pertsonalek, familiaren bultzadek, etab. Zer ikasi eta zertarako erabaki behar da. Ikasketekin batera edo justu ondoren lanaren munduan haztamuka ibiltzen da. Trebakuntza bukatu, jarraitu, aldatu edo utzi egiten da. Lanerako intserziorako aukerak eta bideak identifikatzen dira. Enpresa edo enplegua alda daiteke espektatibak gorantz edo beherantz doitu. Gastuari eta bere banaketari buruzko erabakiak hartzen dira. Azken finean, erabaki asko hartu behar diren garaia da.

---


<sup>1062</sup> Casal, 2003.

Casal-en arabera, ikuspegi neoliberaletik eskolatik lanerako trantsizioa subjektu edo indibiduoek dagokie. Baldintzapen sozial gehiagorekin edo gutxiagorekin, indibiduoek beren etorkizunari buruzko erabakiak hartu behar dituzte. Asmatzen badute, arrakasta lortuko dute eta, bestela, porrot soziala edo bazterketa soziala nozituko dute. Garai txarretan akatsen arriskua handiagoa litzateke, baina, nolahi ere, indibiduoaren lorpenak bere hautuen baitan leudeke.

Haatik, Casal-ek dioenez, ikuspegi kritikotik polarizazio sozialek eta klase, genero eta etnia ezberdinkeriek zerikusi handia dute ELTarekin eta prozesu honetan kristalizatzen diren fenomenoekin.

Casal-ek eskema kontzeptual honetan laburbiltzen du GRET-en ikuspegia (ikus 28. Gafikoa):

### 28. Grafikoa: Eskolatik Lanbiderako Trantsizio motak GRET-en arabera



Hezkuntza sistemako trebakuntza ibilbide hauek bereizten dituzte:

- Bikaina: eskola arloko trebakuntza nahiko luzeak baina emaitza onekin eta garaiz hartutako erabakiekin eta atzerapenik gabe. Gehienetan unibertsitateko ikasketak edo goi-mailakoak, emaitza onekin eta tituluak lortuz. Subjektuaren lehentasun arrazionalizatuak, prozesuan zehar eten garrantzitsurik ez dagoelarik.
- Nahikoa: eskola arloko trebakuntza nahiko luzeak baina maiz unibertsitatean sartu gabe edo maila ertaineko titulazioak lortuz. Ebaluazio prozesuetan etenak eta zailtasunak izan ohi dira. Hezkuntza sisteman luzaro egon arren, irtenbide profesional handirik gabekoa izan ohi da.
- Eskasa: derrigorrezkoak diren titulazio akademikoak edo oinarrizko profesionalak lortzen dituzte. Maiz ibilbide luzeko ikasleak dira baina bukaeran ikasketak titulaziorik gabe utzi dituztenak. Eskastzat hartzea ez dator eskolako nota txarretatik baizik eta hauek lan kualifikatua lortzeko duten balio txikitik.
- Errefusa: ikastetxeen eskaintzarekin tupust egiten duten eta ikastetxearen aurkako jarrera erakusten duten gazteak identifikatzen ditu. Gehienetan derrigorrezko ikasketak dagokiena

baino lehenago edo modu eskasean bukatzen dituzte, eta trebakuntza profesionalizatzaileenganako jarrera itxia izaten dute.

Lan merkatuaren segmentazioa honela bereizten du Casalek:

- Lehen mailako goi segmentua: aitortza sozial eta estatus profesional handieneko enpleguak identifikatzen ditu, hauek direlarik soldata erretribuzio eta desenplegu babes handiena dutenak. Gehienetan goi-mailako ikasketei lotuta daude eta hala aitortzen zaie. Bizitza osoan zehar egiten den trebakuntza jarraia kopuru handiena segmentu honetan egiten da. Enpresako piramide egituran gora egiteko aukerak ematen ditu. Sarri segmentu honek egonkortasun eta estres arazoak ditu, baina estatus eta erremunerazio erakargarriak izan ohi ditu.
- Lehen mailako behe segmentua: sozialki hala aitortzen zaien lanbide eta enpleguak identifikatzen ditu. Egonkortasun eta desenplegu babes maila ertaina izaten dute. Trebakuntza jarraia lotuta daude, baina ez hainbeste. Segmentu honetan daude goi-mailako tituludun asko eta, halaber, oinarriko trebakuntza formal handirik gabe enpresan enplegatu estatusa eta ofizioa lanean osatzea espero zaienak. Egonkortasun eta lan esperientzia arloko emaitza erakargarriak izaten dituzte, baina ez karrera profesionalaren eta barne promozioaren arloan.
- Bigarren mailakoa: gehienetan eskuzko lanak eta berariazko ikaskuntza profesionali lotuta ez dauden okupazioak identifikatzen ditu. Enpleguaren segurtasuna gehienetan txikia izan ohi da eta testuinguru ekonomikoaren arabera aldatzen da. Kalifikazio txikia aitortzen zaio. Lanaren gaineko kontrol txikiak eta lanaren intentsitateak eragiten du emaitza eskasak izatea egonkortasunean, karreraren eta estatusaren.
- Marginala: errotazio, aldaketa eta babes falta handieneko enpleguak dira. Berariazko trebakuntza profesionalik ez dute, baina azpiokupazio testuingurua baliatzen dute. Enplegu marginala ordezkatzeko errazagoa da eta, ondorioz, egonkortasunik ez dago (edo beste forma batzuen bitartez neurtzen da). Gainera, enpresek errazago ken ditzakete enplegu hauek.

Lan insertziorako honako trantsizio ibilbideak bereizten ditu Casalek:

- Arrakasta goiztiarra: hezkuntza arloko arrakasta enplegurako lehen insertzioaren arrakastarekin lotzen da: langabezia denbora gutxi edo batere ez, enpleguaren aurreko edo enpleguko ikasketa jarduerak metatzea, konpetentzia profesionaletan trebakuntza paraleloa (hizkuntzak, IKT arlokoak...), etorkizuneko barne promozioetarako aukera ematen duen enplegu edo lanbide batera erlatiboki azkar atxikitzea, kalifikazio profesional handiak, etorkizunera begira onak diruditen erretribuzioak, etab. Lan insertziorako lehenengo garaia positiboa da eta etorkizunerako oinarri egokiak ezartzen ditu.
- Pausoka hurbiltze motelagoa: gazteak lanbidera hurbiltzeko modu nagusia hau da gaur egun. Prekarietatea lehenengo kasuan baino luzeagoa da, baina azken emaitza ona du enpleguan. Funtsean lan merkaturako hainbat sartu-irten edo batetik bestera ibiltzea suposatzen du, baina oro har metaketan eragiten duten erabakiak hartuz, atzerapena eta eten erabakiorrak ekidinez. Maiz, aurreikusitako lan estatusaren beherantzko



birplanteamentua suposatzen du, ikasketen eta eskaintako enpleguen arteko parekotasun eza dela tarteko.

- Lan prekarietatea: gazteak lanbidera sartzeko modu oso ohikoa da hau ere, baina aurrekoan baino luzaroago irauten du prekarietateak eta laneko errotazioak. Prekarietate honek eragiten duen zailtasun gehigarria da nekezagoa dela laneko curriculum vitae koherente, metatzaile eta hazkorra eraikitzea. Aitzitik, lortutako kontratuek ez dute elkarrekiko zerikusirik eta lan esperientzia ez da oso metatzailea. Lan prekarietateak amaieran kontratazio nahiko egonkorra izan ohi du, baina enpresek testuinguru ekonomikoaren arabera enplegu hauen enplegarritasuna aldatu ohi dute.
- Inertzio erratiko edo desegituratuak: prekarietateak eta langabezia garaiak gogorren kolpatzen dituzten ibilbideak dira. Prest daude curriculum okupazionala alde batera utzi eta horren truke enplegu prekario, ahul eta ezegonkor bateko erretribuzioak lortzeko. Ibilbideak eragin negatiboa izan ohi du etorkizuneko kontratazioetan. Enpleguarekiko espektatibak eta jarrerak beherantz aldatzen dituzte. Neurri batean amildu egiten da enplegarritasuna. Sarri langabezia kronikoan eta lan bazterketan hondoratu ohi dira.

Honenbestez, GRET ikerketa taldean oinarrituz Casal-ek lau ibilbide biografiko nagusi bereizten ditu:

- A ibilbidea: eskola arloko bikaintasuna + lanerako trantsizioan arrakasta goiztirra + lan merkatuko goi segmentua. Arrakasta sozial oso koherentea osatuko luke, karreraren hautuan hasi eta profesionaltaunean eta estatus sozial eta ekonomikoan sendotua. Ibilbide honetan gehienetan abiapuntua kapital handiko klase sozial eta familia jatorriari lotua dago.
- B ibilbidea: eskola arloan nahikoa + pausokako hurbiltze motelagoa + lan merkatuko lehen mailako behe segmentua. Luzaroan irauten duen ibilbide honetan erabaki asko hartzen dituzte, baina erabakien arteko lotura ez da gehiegi mantentzen. Lan merkatuan sartu-irten eta batetik bestera ibiltzea eta espektatibetan behera egitea ohikoa da. Azkenean egoera profesionala nahiko egonkorra da, baina arrakasta kanonetatik eta goi-mailako kalifikazio profesionaletatik urrun. Batzuetan goiko ibilbideranzko jauzia egiten dute, baina gehienetan luzapenak eta espektatiben beheranzko doikuntzak nagusitzen dira.
- C ibilbidea: eskolaren eremuko lorpen murrizagoek eragina izaten dute enpleguen prekarizazioan, batik bat industrian eta zerbitzuen sektoreko enpresa bitartekarien bidez. Errotazio eta aldaketa profesionala luzatu egiten dira denboran, kristalizazio epea luzaraziz. Bigarren mailako lan merkatuan eskuzko lanak dira nagusi, antolakuntza eredu tradizionalagoak erabiltzen dituzte eta ekoizpenaren testuinguruari oso lotua dago. Ondorioz, amaieran gutxi kualifikatutako posizioa izan ohi da, izandako lan esperientziari oso lotua. Lan asko, metatze gutxi, karrera txikia eta probabilitate handiak enpresaren atzeraldien ondorioz kaltetua izateko.
- D ibilbidea: eskolaren oinarritzko sozializazio formekiko errefusak lanarekiko errefusa edo aurkakotasun formak eragin ditzake. Ibilbide honetan legoke *erreserba ejerzitoa* deitu izan dena, txirotutako herrialdeetako etorkinak, bazterketa soziala sofritzen dutenak eta antolakuntza enpresarialetik at lan egiten dutenak. Ibilbide honetan lanak izaera erabat instrumentala du eta oso urrun dago okupazio edo ofizio ideiatik. D ibilbidean matentzeak gehienetan lanarekiko aurkakotasun prozesuen sorrera eragiten du.

Casal-en arabera, eskolatik lanbiderako trantsizioan eragin handia dute familiaren baldintza sozial eta ekonomikoek, gazteen azpikulturek, pertinentziako bizimoduek, indibiduoaren nortasun sozialak, lurraldearen testuinguruak eta eskaintzen dituen aukerak, eta beste hainbat faktorek.

Honenbestez, ikuspegi honen arabera, kostata hitz egingo genuke gazteen estratu kolektibo trinko batetaz. Begirada homogeneizatzailea ekidin egin behar da, egoeraren konplexutasuna lausotzen duelako, funtsezkoa den fenomeno bat izkutan utziz: gazteen lan eta bizi baldintzen prekarietateranzko joera orokortua dagoen arren, prekarietatea estrato estratifikatua da. Prekarietateranzko joerak ez du eragin berdina guztiengan. Lan merkatuaren dualizatutzat definitu ohi da sarri, baina zatiketa ia gizabanakoen mailaraino eraman dezakegu. Dena den, errealitatearen ulermena errazte aldera, bestelako banaketa batzuk egitea komeni zaio analistari, gizabanakoen zenbait ezaugarri komun kontuan hartu eta hauengan oinarrituz taldeak osatuz. Van Kooten-ek<sup>1063</sup>, adibidez, dualizazioa baino konplexuagoa den banaketa proposatzen du:

- a) Lehentasunezko lan merkatuko langileen talde zentrala: kualifikazio handia eta malgutasuna eskaera handia.
- b) Bigarren mailako lan merkatuaren lehenengo periferia: lanaldi osoko enplegatuak baina segurtasun eta promoziorako aukera gutxiagodunak.
- c) Bigarren mailako lan merkatuaren bigarren periferia: lanaldi partziala daukaten enplegatuak, epe motzerako kontratudunak, praktiketan, eta abar.
- d) Jarduera batzuetan (garbikuntza, telelana, sarean egindako lana, eta abar) espezializatutako pertsonak: etxetik lan egiten dute, azpikontratutako enpresetan, edo Aldi Baterako Lan Enpresen bidez kontratatzen dituzte.

Beck-ek<sup>1064</sup> lau talde bereizten ditu:

- a) Globalizazioaren irabazleak: diruaren eta jakintzaren eliteak.
- b) Kualifikatu prekarioak: diruz ondo gehienetan, behin-behinekoak, plurienplegatuak eta azpienplegatuak maiz.
- c) Working poor delakoak: kualifikazio txikia, erraz ordezkagarriak.
- d) Tokiko txiroak: kapitalak ez ditu behar.

Beraz, prekarietatea definitzeko hainbat faktore definitu ditugun bezala, langileek hainbat posizio izan ditzakete, eta honen guztiaren konbinazioak hainbat irizpideren arabera mailakatutako espazio sozial teoriko bat eraikitzea ahalbidetuko liguke. Egoera oso konplexua dela dirudi. Bi taldez baino, hainbat faktoreren arabera sailkatutako sare batez hitz egiten ariko ginatke. Ez da mailakatze unidimentsionala, multidimentsionala baizik, Bourdieuren espazio sozialean bezala. Hipotesi bezala aurrera genezake indibiduo bakoitzaren kapitala eta kapital hori nola baliatzen den erabakigarria izango dela une bakoitzean indibiduo bakoitza kokapen banatan egokitzeke. Kapital bolumen handiagoa izan ahala, kapital hori ondo baliatuz gero, sarearen posizio egokienetan kokatuko da indibiduo bakoitza. Baina Bourdieuri jarraiki esan genezake bolumenaz

---

<sup>1063</sup> Van Kooten in de la Cal Barredo, 2004.

<sup>1064</sup> Beck, 2000, 79 or.

gain, kapitalaren egitura ere esanguratsua dela: indibiduo bakoitzak bere kapitalaren egituraren arabera enplegu mota batzuetarako edo besteetarako joera handiagoa izango du. Halaber, indibiduoaren unean uneko kapitalaren bolumenaz eta egituraz gain, indibiduo horrek kapitalari dagokionez egin duen ibilbidea ere kontuan hartu beharra dago. Azken finean, indibiduoaren kapital bolumenaren eta egituraren arabera eta kapital horren bolumenak eta egiturak izan duten ibilbidearen arabera, indibiduo bakoitzak sarean kokapen bat edo beste izateko joera du.

Ikuspegi honek tupust egiten du meritokraziaren diskurtsoarekin. Azken lau mendeetan hainbat diskurtsok gero eta garrantzi handiagoa eman diote norbanakoaren merituari, jaiotzez jasotako mota askotako herentzien kaltetan, Sennett-en<sup>1065</sup> arabera. XVII. mendean, adibidez, jatorri burgesa zutenen artean *talentuari irekitako ibilbide profesionalak* formula ohikoa bihurtu zen. Pribilejioa irabazi egin behar zela zioten. Diskurtso honen arabera, norbanakoaren gaitasuna izan behar zen pribilejioaren oinarri. Jefferson-ek, esate baterako, “aberastasunean eta jaiotzan oinarritutako aristokrazia artifizialaren” ordeztu “aristokrazia naturala” proposatu zuen, “bizi baldintzek ematen duten kemenean eta talentuan oinarritutakoa”. Gaur egungo gizarteek trebezia saritzeko formula burokratiko ugari sortu dituzte.

## 6.5 Langileak elkarren aurka

*Kontraerasoa* deitu dugun fenomenoaren subjektuak definitzen ari garelarik, ezin dezakegu ahaztu langileen arteko gatazka. Gorago aztertu ditugun zenbait ekarpenek aipatzen duten bezala, langileen arteko gatazka inoiz ez da desagertu industrializazioa hasi zeneretik baina hainbat unetan bestelako elkartasun faktoreek gaina hartu diote gatazkari eta garai jakinetan langile multzo oso handiek ekimen kolektiboak abiarazi dituzte. Orain azaltzen ari garen norabide aldaketan, ordea, joera kontrakoa dela dirudi. Izan ere, prekarizazioa aztergai dugunean nekez baztertu dezakegu langileen arteko gatazka prekarizazioaren eragile bezala. Ikus ditzagun zentzu honetan egin diren hainbat ekarpen.

Zuberok<sup>1066</sup>, adibidez, bi langile motaren arteko interes gatazka islatzen du:

“Los que hemos triunfado en los sesenta, setenta y ochenta – los que tenemos formación, buenos empleos, seguridad social, etc.- somos el mejor ejemplo de solidaridad. Somos hijos e hijas del Estado de bienestar. Pero ahora que hemos triunfado nos sentimos amenazados por aquellas personas que tan sólo piden las mismas oportunidades que nosotros tuvimos: becas para estudiar, seguridad en el empleo, salarios dignos, etc. Nos aferramos a un falso discurso individualista, reconstruimos una falsa historia de méritos personales y exigimos a los demás que se ganen la vida por sus propios medios.”

Imazek<sup>1067</sup> lanaren banaketaz eta lanaldiaren murrizketaz hausnartzen duenean, irtenbideak jorrazteko arazoak ez dizkio leporatzen soilik lanaren eta kapitalaren arteko gatazkari. Langileen egoeren aniztasuna ere kontuan hartu beharreko faktorea dela azpimarratzen du. Langile batzuek enplegu duina dute, soldata, ordutegi eta lan baldintza egokiekin, gizartean erabat integratuta

<sup>1065</sup> Sennett, 2003, 79-81 eta 84 or.

<sup>1066</sup> Zuberok, 2000, 290 or.

<sup>1067</sup> Imaz, 2006, 219 or.

daude, ziurtasunez bizi dira, aberastasunaren eta denboraren banaketan estimatzeko moduko zatia egokitu zaie, eta kapitalarekin batera langile talde hau irabazle ateratzen da gainerako langileekin alderatuz gero, eta ez daude prest beren tartaren zatia kolokan jartzeko.

Polavieja-ren<sup>1068</sup> arabera, kontratu motaren arabera segmentazioaren teoriak diote kontratu mugagabea duten langileak kaleratzea garestia denez, behin-behineko kontratuak tresna eraginkorra izan daitezkeela langileengandik ahalegin produktibo handiagoa sustatzeko, kontratua berritzearen aukerarekin jokatu. Halaber, *amortiguazio efektua* delakoaren bitartez, kontratu mugagabea dutenek kaleratzeko eta negoziazio kolektibo ez inklusiboa dela-eta, langile egonkorren negoziazio ahalmena handitzen dute, langile ezegonkorren segurtasunaren kaltetan. Hortaz, langile ezegonkorren segurtasun ezak langile egonkorren segurtasuna ahalbidetzen du. Hots, lanaren sare estratifikatuaren testuinguruan nukleoko langileek baldintza hobeak dituzte, zeren besteak beste beren posizio erlatiboki indartsuagoa eta ezegonkorragoen posizio erlatiboki ahulagoa baliatzen baitute beren baldintzak hobetzearen alde eta gainerakoen baldintzen aurka. Hortaz, *sustapen efektua* delakoari *amortiguazio efektua* gehitu behar zaio. Sustapen efektuaren arabera, lan erreformek ahalbidetu dute enpresaburuek beren etekinak handitzea behin-behineko langileen errentak txikituz. Amortiguazio efektuaren arabera, langile egonkorrek beren errentak handitu ahal izan dituzte behin-behineko langileen baldintzen kaltetan. Behin-behineko kontratua duten langileentzat gero eta zailagoa da posizio egonkorrak lortzea eta handitu egiten da, beraz, lan ibilbide prekarioetan harrapatuta gelditzeko arriskua. Polavieja-ren arabera, aldaketa honek lan arloan ez ezik langileen jarrera eta jokabide sindikal eta politikoetan ere eragina izan du.

Caparrós-en<sup>1069</sup> arabera ere, laneko kanpo mugikortasuna aztertzen ari delarik, argi dago negoziazio kolektiboak bereziki kontratu egonkorreko langileei egiten diela mesede, baina bereizketa handiagoak ere egiten ditu. Enplegu egonkorren kopurua handiagoa da gizonezkoen artean, 35-45 urte artekoetan eta hezkuntza maila handitu ahala. Mugikortasun boluntarioa handitu egiten da baldintza hauetan eta errenta handitu ahala. Aitzitik, mugikortasun ez boluntarioa justu aurkako baldintzetan handitzen da. Enpresa boluntarioki uzten dutenek erremunerazio handitze nabarmenak izan ohi dituzte gehienetan eta are handiagoak izaten dira ikaske maila handiagoa izan ahala, nagusiki gizonezkoen artean. Beste hainbat faktorek ere laguntzen dute: aintzintasun luzeak, lanaldi osoko kontratuak, postu ertain edo altuak eta sektore publikokoa izateak. Nolanahi ere, behin-behineko langileen artean kontratu egonkorrak lortzeko aukera handiagoak dauzkate gizonezkoek, ikasketa maila handikoek eta lan esperientzia luzeena dutenek, baina azken aldagai honen balioa txikitu egiten da lanaren balioa handitu ahala. Bestalde, behin-behineko kontratua dutenek kontratu egonkorra dutenek baino errenta txikiagoak dituzte.

Castellsek<sup>1070</sup> Polavieja-ren *amortiguazio efektua* izenekoaren antzeko fenomeno bat aztertzen du European. 1980ko berregituraketa sozialak AEBetan presio handia eragin zuen lan eta soldata baldintzak okertze aldera. Fenomeno honek, horrela azalduta behintzat, Polavieja-ren *sustapen efektua* delakoaren antza du. European, berriz, Castells-ek azaltzen duenak *amortiguazio efektua* delakoaren antza du. Castells-ek dioenez, sindikatuek historian zehar irabazitako posizioak modu eraginkorragoan defendatzen zituztenez, enplegatuta zeudenen baldintzak eta soldatak ez ziren

<sup>1068</sup> Polavieja, 2003, 4-35 or.

<sup>1069</sup> Caparrós Ruiz, 2003.

<sup>1070</sup> Castells, 2001b, 110 or.

okertu oro har, baina enplegatuta ez zeuden gazteek enpleguan sartzeko zailtasun oso handiak izan zituzten eta, halaber, adineko enplegatu asko enplegutik zegoiena baino lehenago irten ziren. Industrializazio bideetan zeuden herrialdeetan, aldiz, lan merkatu formala eta informala artikulatzen ziren, malgutasun eredu berriaren egoeraren parekoa sortuz.

Ekarpen hauek ontzat emango bagenitu, esan ahal izango genuke *kontraerasoa* deitu dugun fenomeno horretan beste subjektu bat ere definitu dezakegula: posizio erlatiboki hobegoetan dauden enplegatuak.

## 7. Denbora, diruaren beste aurpegia

Denbora, Lasén-en arabera<sup>1071</sup>, prozesu sozialen bitartez eraikitzen da. Denbora ez da berezkoa. Denbora ez da naturala. Gizarte bakoitzak bere denbora errejimenak dauzka. Gizarte bakoitzak denbora ikusteko eta bizitzeko bere modua dauka. Baina denbora soziala, beste edozein produktu sozial bezalaxe, modu gatazkatsuan eraikitzen da. Denboraren izaera botere harremanen sarean eraikitzen da. Azken finean, gizarte bakoitzaren errejimen tenporalaren nolakotasunean gizartea bera islatzen da.

Imazen<sup>1072</sup> lanaldi murrizketari buruzko ikerketan argi ikus dezakegu denboraren erabilerari buruzko diskurtsoen artean gatazka gogorra dagoela eta borroka irabazten duenak definitzen duela denboraren errejimen eta bide batez errealitatea. Arraiek uretan dabilzanaren kontzientzia ez daukaten bezala, gizakia ez da jabetzen kulturaren murgilduta bizi dela eta ondorioz bere parametro sozio-kulturalak naturalizat jotzen ditu maiz, baina hauen eragina funtsezkoa da. Denbora da gizarteak definitzeko ardatz nagusienetakoa. Nolanahi ere, denboraren gaineko gatazka agerikoa izan da industrializazio garaitik. Antonio Riveraren ekarpenean oinarrituz, Imazek azaltzen du industrializazioaren hasieran, ludismoaren garaian, fabrikak eta makinak erretzen ziren aroan, langileek ez zutela lan prozesuaren denbora kapitalaren esku utzi nahi, eta beraz ezta lan denborarena ere. Baina kapitalak gero eta gehiago kontrolatuko ditu lan prozesuak. Langile mugimenduaren estrategiak aldatu egingo dira eta ludismoaren ideiak baztertzen dituelarik aurrerantzean lan denbora murriztea izango du helburu. Bigarren Mundu Gerraren ondoren kontsumo gizartea hedatu ahala, ordea, denbora murriztearen aldeko estrategia ahuldu egingo da eta gero eta ohikoagoa izango da aparteko orduetan aritzea kontsumo produktu eta zerbitzu gehiago eskuratzearen truke. 1970eko hamarkadako krisiaren ondoren hasiko da lanaldi murrizketari buruz hitz egiten. 1980ko hamarkada hasieran Europako hainbat estatuk murriztuko dute lan denbora: Frantziakoak eta Espainiakoak 40 orduko lan astera, Danimarkak 37 ordura, Belgikak eta Herbehereek 38 ordura. 1990eko hamarkadan 35 orduko lanastea onartuko dute Frantzia eta Alemanian. Baina 1970eko hamarkadaren ondoren malgutasunaren aldarria gero eta gehiago zabalduko da eta denboraren erabileran eragin nabarmena izango du.

Gorz-en<sup>1073</sup> ikuspegiak agerian uzten du denbora oinarri duen gatazka. Gorz-ek dioenez, orain eta beti lan arloko gatazkaren gakoetako bat irabazien banaketa eta denboraren antolaketa

---

<sup>1071</sup> Lasén Díaz, 2000.

<sup>1072</sup> Imaz, 2006.

<sup>1073</sup> Gorz, 1995.

kuantitatiboa nahiz kualitatiboa izan dira. Egungo ekoizpen gaitasunarekin aukera genuke, Gorz-ek dioenez, urtean 1.000 ordu inguru lan egiteko, beti ere erreforma fiskala tarteko. Lana guztientzat legoke, ordu askoz gutxiago, irabaziak (modu orekatuagoan banatuz gero, noski) soberan leudeke. Bide horretan neurriak hartzen ez badira, botere harremanen ondorioz da, irizpide batzuk nagusitzen direlako, ez ezinbestekoa delako. Egungo dinamikak helburu zehatzak ditu eta irabazleak nahiz galtzaileak eragiten ditu.

Baina Gorz-ek aldarrikatzen duen denbora errejimenaren ordeztu beste bat nagusitzen ari da gaur egun, Castells-en<sup>1074</sup> arabera. Informazionalismoaren etika, Castells-en iritziz, behin-behinkotasunaren kultura da, aurpegi anitz ditu eta birtuala da. Ez da fantasia bat, indar material eskerga baizik. Schumpeter-en suntsipen sortzailea da, Castells-en iritziz, informazionalismoaren etikaren funtsa.

## 7.1 Zurruna eta malgua aurrez aurre

Sennett-ek<sup>1075</sup> modu argian aztertu zuen kapitalismo berriak gizabanakoen gain duen eragina. Sennett-en arabera, kapitalismoaren dinamikak nabarmen aldatu dira. Oso ezberdinak dira garai batean kapitalismoak sortu nahi zuen langile eredua eta gaur egungo kapitalismoak sortu nahi duen langile eredua. Langileen nortasuna eraikitzeke moldea aldatu egin da. Langileek lana ikusteko eta, bide batez, denbora bizitzeko bi ikuspegi kontrajartzen ditu Sennett-ek. Azken batean, Sennett-ek bi bizimodu eredu azaltzen ditu. Eredu idealak dira, hau da, ideien mundukoak, baina joera garaikideak ulertzeko baliagarriak dira.

### 7.1.1 Burdinezko kaiolaren denbora

Sennett-ek AEBetako egoera kontatzen du. Duela gutxi arteko kapitalismoan denbora lineala zen. Denbora, lerro bat zen. Lerro horretan aurrera egin ahala lortzen zena pilatu egiten zen. Urtez urte, egunerokotasunean ez zegoen lanean aldaketa nabarmenik. Garai bateko ezustekoak aurreikusteko modukoak ziren. Weber-ek burnizko kaiola deitu zuen horretan bizi ziren. Muga zurrunak izaki, denbora arrazionalizatu eta hala baliatzen zuten. Ingurumaria horretan, diziiplina oso eraginkorra zen. Beren bizitzen narrazioak argiak ziren. Esperientzia eta bestelako lorpenak pila zitzaketen narrazio linealak ziren. Estrato sozial beretsuan mantendu arren, ingurumaria horretan beren bizitzen egile zirela senti zezaketen sarri.

Sennett-ek kontatzen duenez, Daniel Bell-ek General Motors-en egin zuen ikerketan argi ikusten da lan errutinizatu pertsonarentzat degradantea dela. Halaber, Sennett-ek Adam Smith-en *Nazioen aberastasuna* luze-zabalean irakurtzea aholkatzen du, bertan aurkituko dugulako Adam Smith-ek ere pentsatzen zuela lan errutinizatuak kalte egiten diola gizabanakoari.

Gaur egun, Sennett-en arabera, oraindik ere lan gehiena eredu fordistari jarraiki egiten da. Bi heren inguru agian. Haatik, beste herena eredu berri batean egiten dela esaten du Sennett-ek. Lan

---

<sup>1074</sup> Castells, 2001a, 201-254 or.

<sup>1075</sup> Sennett, 2001.

eredu berri hau, kapitalismo berriak sustatzen duena hain zuzen, gehienbat ekonomiaren sektore dinamikoenetan hedatzen ari da, Sennett-ek esaten duenez. Kapitalismo berriaren lan eremuan errutinak gero eta leku txikiagoa du.

### 7.1.2 Ziurgabetasunaren denbora

Kapitalismo berrian, Sennett-en arabera, mugikortasun handiagoa dago eskala sozialean, baina mugikortasuna handiagoa da zentzu guztietan. Esate baterako, enplegu batetik bestera inoiz ez bezain beste aldatu behar izaten dute gaur egungo langileek. Tarteka agian lehenago lortu ahal izango zuketena baino diru kopuru handixeagoa lortzeko aukera badute ere, diru sarrera handixeagoa erdiesten duten horiek ere maiz beren bizitzen gaineko kontrola galtzear dutela sentitzea ohikoa da. Nork bere lan ibilbideari begiratu egitea besterik ez dauka hori sentitzeko. AEBetako gazte batek aurrean dezake berrogei lan urtetan zehar gutxienez hamaika aldiz aldatuko duela enplegua eta gutxienez hiru aldiz aldatu beharko duela kualifikazioen oinarria. Hartara, lelo bat nagusitzen ari da: ezer ez epe luzera, dena da behin-behinekoa.

Egituraren zuloak handiagoak dira egitura malguetan, Sennett-ek azaltzen duenaren arabera. Arriskuan inbertituz gero (adibidez, lan *on* bat utziz *hobeago* batean hasteko), egitura zurrunetan mugitzean baino aukera handiagoak daude, baina zuloren batean hanka sartzeko arriskua ere handiagoa da. Sennett-en datuen arabera, nahiz eta enpleguz aldatzean batzuek irabaziak izan (%28), gehienek (%34) dirua galtzen dute. Garai batean, gehienak bere lekuan gelditzen ziren, enpleguaren segurtasunak bultzatuta.

Ibilbide *malguetan*, ziurgabetasunaren ibilbideetan alegia, ez dago narrazioaren antza handiegia duen ezer, ez ekonomikoki ez sozialki. Enpresak sortu, elkartu edo desagertu egiten dira eta lanpostuak agertu eta desagertu egiten dira, lotura gabeko gertaerak balira bezala. Arriskuaren gizartean ez dago narrazio linealetarako aukera handirik. Memoria laburra da. Ahaleginen fruitua, eskasa epe ertain-luzera. Aldiro erakutsi beharra daukazu horretarako balio duzula. Ia egunero zerotik hastea bezala da.

Kontsumitzailearen aldia aldiko eskarira egokitutako merkatuaren aldarria ahotan hartuta, dena da epe motzera: errentagarritasuna, azpikontratazioa (enpresa handiak txikitu eta sare bihurtzea), sare itxurako hierarkiak sortzea.

Sennett-en arabera, kapitalismo berriak langileei arintasuna eskatzen die, aldaketarako prest egotea, arriskuak hartzea, arau eta prozeduren arabera gero eta gutxiago jokatzeko. Askok malgutasuna deitzen duten ziurgabetasunak antsietatea sortzea normala da, inork ez baitaki ziurgabetasun testuinguru batean gaur egungo ahalegin eta arriskuek zer ekarriko dioten bihar. Horrexegatik, *malgutasuna* eufemismo hutsa da gehienetan. Opresioaren mozorroa, Sennett-en arabera. Burokrazia zaharraren kontra eginez, malgutasunaren aldarria lehenetsiz, kapitalismo berriak behialako arauak eraisten ditu, baina, aldi berean, kapitalismo berriak kontrol mekanismo berriak ezartzen ditu. Kapitalismo berria maiz botere errejimen ikusezina bihurtzen da. Ulertezina sarri. Egitura berrietan botere hierarkien itxura aldatzen ari da. Boterea ikusezina goa bihurtu arren, egon, badago. Kontzentrazioerik gabeko zentralizazioa gauzatzen ari diren erakundeetan, adibidez, goitik datorren zentralizazioa indartsua eta amorfoa da. Malgutasuna deitzen duten

ziurgabetasunaren denbora, botere berri baten diziplina da. Sennett-en arabera, malgutasunak eraginkortasun eza, antolakuntza falta eta, azken batean, anabasa eragin ditzake, baina horrek ez du esan nahi kapitalismo berriak errejimen tenporala zorrotz betearazten ahalegintzen ez denik.

### 7.1.3 Diderot-en denbora ideala

Sennett-en iritziz denbora *malgna* eta *zurruna* dira gaur egungo errejimen tenporal nagusiak. Hala ere, Sennett-en analisisian beste denbora errejimen bati buruz hitz egiten duen aipamen bat ere aurki dezakegu: Denis Diderot-ek 1751 eta 1772 urteen artean argitaratu zuen Entziklopedian azaltzen duena hain zuzen. Sennett-en iritziz, errejimen tenporal hau ideala da, hau da, ideien esparrukoa, ez enpirikoa. Baina hurrengo atalean azalduko dugunaren haritik, esan genezake ameskeria baino gehiago dela.

Diderot-ek azaltzen duenaren arabera, jendeak errutina eta erritmoa bere menpean zeuzkanean, lana bere menpean izatea lortzen zuen eta, aldi berean, lasaitu egiten zen. Papera ekoizten duen lantegi bati buruzko azalpenean aurki dezakegu ikuspegi hau. Izan ere, ikuspegia nahiko idealizatua dela irudi dezake batez ere paper ekoizpen lantegi bati buruz ari bagara. Baina akaso funtsezkoena ez da ikuspegiaren egiazkotasuna, baizik eta ikuspegi horretan azaltzen diren irizpideak. Diderot-en iritziz, paper ekoizpen lantegian enplegatuen lana ez zen mekanikoa. Langileak ekoizpen prozesuaren estadio bakoitza manipulatzeko eta aldatzeko ikasten zuen heinean, jardueraren errutinak garapen etengabea zuen. Hein handi batean, lanaren erritmoak esan nahi du ekintza bat errepikatzen dugunean abiadura nola biziagotu eta nola mantsotu dezakegun jabetzen garela eta aldaerak egiten ikasten dugula, materialekin jolasten ikasten dugula, modu berriak garatzen. Musikari batek pieza bat interpretatzen duenean, denbora baliatzen ikasten duen bezala. Errepikapenari eta erritmoari esker, Diderot-en ustez, langileak buruaren eta eskuaren arteko batasuna lor dezake.

## 7.2 Erritmoa eta arritmia

Lasén-ek<sup>1076</sup> erritmoa eta arritmia bereizten ditu. Bere ekarpenak Sennett-en ikuspegia aberasteko balioko digu.

### 7.2.1 Erritmoa

Jarduera erritmikoa materia bizidunaren funtsezko ezaugarri bat da. Izaki bizidunen barne egutegiak kanpo bulkada anitzi erantzuten die, ingurunearekiko sentsibilizazio eta insentsibilizazio epeak tartekatuz. Kanpo bulkadak aldakorak dira eta, ondorioz, barne egutegia aldakorra bihurtzen dute, baina, halaber, ingurune kanpo bulkadak izaki biziduna ingurunearekin eta bere espezieko gainerako kideekin sinkronizatzen dute.

---

<sup>1076</sup> Lasén Díaz, 2000.



Egun bete inguruko iraupena duten erritmoek arautzen dituzte izaki bizidunen gorputzen tenperatura, odol presioa, pultsoa, arnasketa, hormona ekoizpena eta zelulen banaketa, besteak beste.

Erritmoa ez da berdinarekin errepikapena. Egun beteko iraupena duten erritmo hauek, ilargiaren edo urte sasoen erritmoak bezala, alda daitezke, beti ere kanpo denbora emaileen testuinguruari jarraiki. Gorputzean ez dago erloju zentralik erritmo oro zuzentzen. Maila askotako agindu emaile ugarik arautzen dute gorputzeko erritmoen aniztasuna.

Sinkronizatzailerak nagusiki sozio-ekologikoak izaten dira. Garrantzitsuena atsedena (iluntasunari eta isiltasunari lotua) eta jarduera (bizitza sozialeko betebeharrekin erlacionatutako argia eta zaratari lotua) tartekatzen dituen da. Gizakiei dagokienez, erritmoaren benetako sozializazioaz hitz egin dezakegu, zeren egun beteko iraupena duten erritmoak haurtzaroan zehar errotzen baitira gorputzean.

Izaki bizidunak oso konplexuak dira eta ezinbestekoa dute indeterminazio maila bat mantentzea, inguruak ekar ditzakeen erronkei aurre egin ahal izateko. Horrexegatik, ez-oreka egoera horretan mantentzeko, izaki bizidunek energia kopuru handia xahutu behar izaten dute. Erritmoek ahalbidetzen dute energia ekonomizatzea, jarduera eta atsedena epe gogorak eta lasaiak tartekatuz. Erritmoak eraginkortasun emozionala bermatzen du. Erritmo biologikoak autonomia eta menpekotasun erlatiboaren arteko harremanaren adibide garbia dira: izaki bizidunen menpekotasuneko autonomia. Ingurunearekiko sentsibilizazio eta insentsibilizazio epeak tartekatuz, beren buruak antolatzen dituzten sistema erlatiboki autonomoak eta, aldi berean, ingurunearekiko erlatiboki menpekoak dira. Tartekatze erritmikoak ahalbidetzen duen dinamika eraginkorragoa da, ekonomikoagoa da, guztia aldi berean egitearen ezintasunari erantzun ahal izateko.

Halaber, arestian aipatu dugun bezala, erritmo sozialek, biologikoen gisan, orainaldi kolektiboa eraikitzen laguntzen dute. Epe zehatz batean antolakuntza erritmiko bera duten banakoak sinkronizatu egiten dira, kanpo denbora emaile sozial eta ekologikoei esker. Ez da fluxu bat, lotura eta forma baizik. Mugimenduari legeak ezartzen dizkio eta fluxua gatibatzen du. Erritmoak hurrenkera eta moldea ahalbidetzen ditu, baina banaketa simetrikoa izan gabe. Justu kontrakoa da, erritmo biologikoen kasuan bezala. Erritmoek erkidego izaerako harreman sozialak errazten ditu. Erritmoa, hurrenkera baino, erdigunerik gabeko ingurumaria da, jokabideen, ideien eta jarrerren doikuntza etengabea. Ni-aren eta gu-aren dialektikan, erakartze-urruntze erritmoan doa. Gu-aren esperientzia hau da erkidego zilegi ororen oinarria. Gizakiak elkarri lotuta daude kultura baten erritmoen jarraikortasunari esker. Erritmoa hizkuntzaren eta gorputzaren mugimenduen bitartez adierazten da.

## 7.2.2 Arritmia

Bizitza sozialaren naturarekiko autonomiak eta bereziki denboraren kontzeptzioaren autonomiak erritmo biologikoak ahaztea dakar. Modernitatean neurria progresiboki erritmoa ordezkatzeko ari

da. Neurria, ulermenaren eta analisiaren menpeko hurrenkera kuantitatiboa da. Aurreikuspena ahalbidetuko duen jarraikortasun ideal baten mesedetan egiten da erritmoaren sinpletzea.

Eredutzat etenik gabeko jarraikortasuna zegoen lekuan, neurriak etenak, geldiuneak eta abiadura aldaketak ezarriko ditu, baina erritmoaren forma integratzailerik gabe. Hartara, estrainekoz arritmia nagusitzen joango da gizarte industrial modernoetan. Denbora diziplina industrial estandarizatua da. Lanari lotutako erritmoen aniztasuna desagertuko da, makinaren kadentzia monotonoen mesedetan. Denbora neurtuak ordezkatu du jardueraren erritmoa. Azken batean, gizarte metronomiko batek ordezkatu du gizarte erritmikoa. Metrononoak ez du erritmoa ematen. Pendulo bat da eta konpasa abiadura ezberdinetan eraman dezake. *Tempo*-a adierazten du. Zerbait gauzatzeko behar den abiadura. Ez erritmoa. Denbora diziplina honen oinarriak zehaztasuna, aplikazioa eta erregulartasuna dira.

Jarduera gero eta konplexuagoak gero eta eremu ezberdinetan sinkronizatzeko beharrak sustatu du erlojuaren denboraren hedapena. Lanaren santifikazioa eta denboraren erabilgarritasun ekonomikoa dira testuinguru honetan funtsezko faktoreak. Benjamin Franklin-ek argi aldarrikatu zuen: denbora, dirua da. Hortaz, denbora *alperrik* galtzea, jarduera ekonomiko ez produktiboetan alegia, moralki debekatu nahiko luke Franklinek.

Erlojuak ekoizpenaren estandarizazioa ahalbidetzen du. Lana automatizatu ahal izateko beharrezkoa den energia gastu zehatza eta beharrezkoa den denbora zehatza determinatu daitezke. Denboraren merkantilizazioa da. Diruak bortizki laguntzen du indibiduoaz gairik erkidego erritmiko batetik erkidegotik deserrotuagoa dagoen indibiduo baten testuingurura igarotzen. Makinen kadentzia monotonoak ekoizten du denbora. Gizakiaren denbora, makinaren aurrean makurtzen da. Frederic W. Taylor-ek eraman zuen ikuspegi hau muturrera. Bere egitasmoaren arabera, zuzendaritza da langileei denbora diziplina ezartzen dien organo zentrala. Lanaren banaketa gero eta espezializatuago batean, jarduera bakoitza kronometratu beharra dago. Lanaren intentsitatea handituz areagotzen da produktibitatea. Dagoeneko lanaren edukiak ez du lanaren denbora ezartzen, kronometroak baizik. Botere harremanak gorputzean sustraitzen dira denboraren bitartez. Langileen gorputzak etekin ekonomikoa lortzeko baliatzen dira. Diziplinatutako gorputza, keinu ekonomikoki eraginkorraren oinarria da. Hau ez da masaren koordinazio erritmikoa. Eraginkortasun ekonomikoa, produktibitatea eta mugikortasuna lehenesten dira. Denbora mekanikoak ordura arte ezagutzen ez zen ekoizpen erritmoen azelerazio handia ahalbidetzen du. Ford lantegia aitzindaria izan zen. Lehen aldiz Forden lantegian gauzatu zuten kateko lanak hezuramaitzen du kapitalismoaren ametsa: betiereko mugimendua, etenik gabeko fluxu jarraia. Antolakuntza sistema honek ahalbidetzen du masa ekoizpena.

Ingurumaria honetan, banakoak teknikoki lotuta daude, eta, aitzitik, sozialki elkarrekiko eta lanarekiko loturarik gabe. Bestelakotzearen beste dimentsio bat da. Langilea ez da soilik bestelakotzen egiten ari den lana arrotza zaiolako. Lanaren denbora ez da bere keinuetan oinarritzen, eta, ondorioz, arritmia horrek ere bestelakotu egiten du langilea.

Industrializazioaren eta langile mugimenduaren historian nabarmenak dira denboraren kontrolaren eta erabileraren gaineko gatazkak. Hastapenetan, denbora industrial azkar eta etenik

gabekoaren aurkako borroka ziren. Gerora, ordea, langileek ere denbora dirua dela barneratu dutenez, lan denboraren iraupena murrizteko borroka bihurtzen da. Gaur egun, lanerako denbora gizarte modernoan erdigunean kokatua dago eta beste denbora sozial batzuen eredu bezala jokatzeko du. Orain ohikoak dira denboraren erabilera utilitarista eta homo economicus-aren aurrekia, aurreikuspena eta baliabideen erabilera arrazionala.

### 7.3 Kapitalismo berriaren denbora ustez malgua

Castellsek<sup>1077</sup> argi adierazten du bere ikuspegitik lehengo denbora eredu desagertzen ari dela. Denbora diziplinaren garapena ezberdina izan da herrialde eta sektore sozial bakoitzean, lekuan lekuko antolaketa ekonomikoaren arabera, borroka sozialen intentsitatearen arabera, kontratu sozialen arabera eta erakundeek bultzatutako erreformen arabera, baina oro har 1870 eta 1980 urteen artean lanari emandako denbora murriztu, homogeneizatu eta erregulatu egin zen. Lan eredu honen arabera denbora lerro zuzen bat zen, ezin zen atzera egin, neurgarria eta aurreikusteko modukoa zen. Lana izan da eta izango da ziur aski jendearen bizitzaren nukleoetako bat eta gehienetan enpleguaren denborak, diruz ordaindutako lanaren denborak alegia, egituratzen du denbora soziala. Beraz, orain dela ez askora arte denbora soziala, eta ondorioz bizitza, lerro zuzen baten antzekoa zen, aurreikusteko modukoa eta ziurgabetasun ez oso handikoa oro har. Gainera, eredu hau eraikitzen joan ahala murrizten joan ziren lanean ematen ziren orduen kopuruak: esate baterako, Frantziako estatuan 1870 urtean 2.945 ordu egin ziren urtean batez beste pertsonako, 1913 urtean 2.588 ordu, 1950 urtean 1.989 ordu eta 1979 urtean 1.727 ordu.

Imazek<sup>1078</sup> dioenez, industrializazioak hastapenetan lanorduak ugaritzea eragin zuen eta lan denboraren kontrola kapitalaren esku gelditu zen baina orduko langile mugimenduak hainbat urtetako presio lanari esker lortu zuen joera honi buelta eman ahal izatea. 1866 urtean Genevan egin zuten I. Internazionalen eguneko lan denbora zortzi ordura jaitsi behar zela aldarrikatu zuten, *hiru zortziak* bete zitezkeen: zortzi ordu lanerako, zortzi lotarako eta zortzi gainerako zereginetarako. Hogei urte geroago lan denbora murriztearen alde Chicagon deitu zuten greba orokorrean poliziak hainbat buruzagi anarkista erahil zituen. 1886 urteko maiatzaren lehena zen, langilearen egunean gogorarazten den gertaera hain zuzen. XIX. mende amaiera aldera eta XX. mendearen hasieran lan denbora murrizteko zenbait neurri onartu ziren arren, maiz soilik haur eta emakumezkoentzat, Lehenengo Mundu Gerraren ondoren hasi ziren eguneko zortzi lanorduak ezartzen. 1918 urteko Versailleseko Itunak horixe aholkatu zuen: 8 orduko laneguna, 48 ordu astean eta igandean jai. 1919 urtean Lanaren Nazioarteko Erakundeak ere *aste ingelesa* proposatzen zuen: zortzi lan ordu egunean eta larunbat arratsaldeak eta igandeak jai.

Espaniako estatuan XIX. mendearen bukaera aldera eta XX. mendearen hasieran emakumezkoen eta umeen lan denbora arautzen eta mugatzen da batez ere, Imazek<sup>1079</sup> azaltzen duenaren arabera. Bartzelonako ehungintza sektorean langileek egin zuten grebaren ondorioz 1913 urtean dekretuz urtean gehienez 3.000 orduko muga ezarri zuten, astean 60 ordu, egunean

<sup>1077</sup> Castells, 2001a, 507-547 or.

<sup>1078</sup> Imaz, 2006, 21-23 or.

<sup>1079</sup> Imaz, 2006, 27-30 or.

hamar, sei egun astean. 1919 urtean formalki onartu zuten 48 orduko lan astea baina erabakia ez zen gauzatu askoz geroagora arte. 1980 urtean onartu zen Langileen Estatutuak urtean 1.827 orduko muga ezarri zuen, hau da 43,7 ordu astean. 1983 urtean PSOEn gobernua 40 orduko gehienezko lan astea onartu zuen. Harrezkero legeak bere horretan jarraitzen du. Bestalde, hitzarmen kolektiboari dagokionez, asteko lan orduen batez bestekoa txikitu egin da: 1976 urtean 46 ordu izatetik 2006 urtean 37-38 ordukoa izatera pasa da. Batez bestekoa aldatu egiten da lan sektore batzuetatik besteetara: ordu gutxien sektore publikoan (2006 urtean EAEn sektore publikoan urteko batez bestekoa 1.555 orduko izan zen, eta pribatuan, berriz, 1.688 ordukoa), enpresa handietan eta zerbitzuetan, eta ordu gehien, aldiz, nekazariek, autonomoek eta enpresa pribatu txikietako enplegatuek, besteak beste (EAEn ofizialki 42,5 ordu egiten dituzte lan autonomoek, 2005 urteko datuen arabera). Erdibidean daude industria eta eraikuntza. EAeko Lan Harremanen Kontseiluak plazaratu zituen datuen arabera, 2005 urtean EAEn lan hitzarmen kolektiboen batez bestekoa urtean 1.686 orduko izan zen, hau da 37 ordu astean. Nolanahi ere, lan hitzarmenetan adosten diren orduak eta benetan lan egiten diren orduak ez datoz bat. Fundación para la Mejora de las Condiciones de Vida y Trabajo erakundearen arabera, 2000 urtean Europako Batasuneko langileen erdiak astean 40 ordu baino gehiago egin zituen lan. Espainiako estatuaren kasuan langileen %73a izan zen. Datu hauetan ez dira aparteko ordu ez ofizialak islatzen. Horrez gain, ez da kontuan hartzen langileek etxetik lantokira ematen duten denbora eta Europan batez bestekoa ordu betekoa da.

Castellsek<sup>1080</sup> dioenez, erlojuaren diziplinatik ihesi, azken urteetan ez-denbora izeneko diziplina tenporala nagusitzen ari da. Just In Time leloa aldarrikatzen duen diziplina berri honek ordutegi finkorik ez izatea eskatzen du, batzuetan lan ordu gehiago eta beste batzuetan gutxiago egitea, batzuetan azkarrago, besteetan motelago. Baina norik erabakitzen du noiz egingo den lan gehiago eta noiz gutxiago? Noren interesen arabera moldatzen lan ordutegia? Erantzunerantz hurbiltze aldera, aipa dezagun azken hamarkadetan oro har lanari emandako orduak murriztu egin direla baina datu horrek ezin du ahaztuarazi beherakada hori ahalbidetzeko lanaldi murriztuak (soldata murriztuak bide batez) funtsezkoak izan direla. Halaber, aipatu beharra dago murrizte orokorrarekin batera zenbait herrialde eta sektore sozialetan lan orduen kopurua handitu egin dela. Beraz, denbora diziplinaren homogeneizazioa desagertzen ari da. Izan ere, garai bateko eredu ahultzen ari da: herrialde industrializatu nagusienetan enplegatuen zati handi batek (laurdena eta erdiak artean) ez du betetzen lanaldi osoko lan ordutegi erregular baten eredu klasikoa. Eta kopurua etengabe handitzen ari da.

Sennett-ek kapitalismo berria deitzen duen horren testuinguruan aztertu dute Arratibelek eta Zubirik<sup>1081</sup> Euskal Herriko enpresa batean denboraren diziplina aldatzeko zuzendaritzaren ahalegina. Aztergai zen enpresan Kalitate Osoa izeneko kudeaketa moda aplikatzeko saiakeran ari zen zuzendaritza. Kalitate Osoak erlojuen desagertzea aldarrikatzen du. Erlojuak ez du lan dinamika diziplinatuzko legitimitaterik, antza. Bakoitzak bere zereginaren arabera moldatu behar du denbora. Itxuraz, artisauen erara, zereginera egokitutako erritmorik itzultzen da Kalitate Osoak dakarren denboraren kontzeptua. Baina egoera nabarmen aldatu den arren, erlojua ez da desagertu. Sare itxurako ekoizpen sistemetan hierarkia desagertzeke izkutatzen den bezala, erlojua ere ez da taylorismoan bezain ikuserraza. Denbora abstraktua kanpo diziplinatzailea izatetik

<sup>1080</sup> Castells, 2001a, 507-547 or.

<sup>1081</sup> Arratibel & Zubiri, 2004.

gorputz barruan egotera pasatzea du helburu. Langileek Kalitate Osoaren irizpideak erdiz erdi onartu eta barneratuko balituzte, langileek, itxuraz, dagoeneko ez lukete kanpo sinkronizatzailek behar. Diziplinatik autodiziplinaranzko trantsizioa dago. Industrializazioaren hastapenetan aurreneko jabeek hainbeste lan eman zizkien enplegatuen diziplinatze ahaleginen fruitu gozoena litzateke. Garai batean pentsaezina zen arrakasta lortzeko asmoa datza Kalitate Osoaren denboraren kontzeptuaren oinarrian. Baina Kalitate Osoaren denborarekiko ikuspegia, kapitalismoa berriaren errejimen tenporala alegia, ez da hegemonikoa. Gainerako denborarekiko ikuspegiakin modu gatazkatsuan artikulatua dago, baina diskurtso orokorrean gero eta pisu handiagoa du, nahiz eta harekiko erresistentziaren kontzientzia ere hazkorra bihurtzen ari den.

Gorputzetan barneratzeko joera ez da berria. Denboraren ikuspegi sozial guztiek behar dute gorputzetan sartzea. Denbora abstraktu merkantilizatuak, hala ere, posible bada behintzat, diziplina estuagoa ezartzen du eta eraginkorragoa da barneratua badago. Franklinek kapitalismoaren izpiritua indartzen hasten denetik azpimarratzen du denboraren kontzeptu produktibista barneratzearen beharra. Kalitate Osoaren lan ereduaren gakoetako bat giza baliabideak ahal bezain beste ustiatzea denez, denbora abstraktu merkantilizatuaren ikuspegia barneratzea du helburu garrantzitsutzat.

Merkatuaren indar koertzitiboa, halaber, oso gogoan hartu behar den faktorea da. Arrazionaltasun ekonomikoa nagusi den ingurumarian zereginera zuzendutako lanaren erritmoa ez du norberaren beharrak zehazten, baizik eta kanpoko eskaerak. Kalitate Osoarekin bezeroa erreferentzia nagusitzat jarrita, arrazionaltasun ekonomikoak totem antzeko bat kokatzen du enpresan. Esanguratsua da ikerketa horretan elkarriketatutako batek esan zuena:

“Grafikoki esateko, sistema piramidal batetik sistema horizontal batetara pasatzen da. Horrek ez du esan nahi sistema horizontalean denak berdinak direla, baizik eta ardatz nagusia izan daitekeena lehen gerentea zena edo arduradun nagusia dena, orain klientea dela. Orain baidirudi hemen ez dakit zeinek agindu behar duela beti, eta ez. Gure helburua da agintzen duena klientea izatea eta guk oporrak hartzea klienteak gustora daudenean eta guk lana uztea zerbitu behar zaiona zerbitu zaionean (...) Jabetzea hemen nomina ordaintzen diguna ez dela ez dakit zenbagarren bazkidea, kanpoan dagoen klientea dela nomina ordaintzen diguna, hari esker bizi garela eta haren beharrak betetzen”

Gurtu beharrekoa bezeroa da eta zereginaren abiadura hark aginduko du. Ondorioz, denbora abstraktuak zekarren denboraren merkantilizazioaren printzipioa areagotu egiten da. Arrazionaltasun ekonomikoaren logikari segituz, baliabideengandik ahalik eta etekin handiena lortu nahi bada, denboraren produktibitatea biziagotu egin behar da. Merkatuak ezartzen du lanaren abiadura. Lanerako denboraren jatorria ez dago langileen eskuetan eta keinuetan, kanpo instantzia batean baizik. Bezeroa da denbora emaile nagusia. Kapitalismo berriak produktibitate handiko denbora merkantilizatua bilatzen du. Hori da kanpo erlojuak desagertzearen kausa. Aldaketa, baina, ez da gatazka gabekoa. Denborarekiko hainbat ikuspegi modu gatazkatsuan artikulatzen dira.

Kapitalismo berriaren lan ereduak malgutasunaren beharra azpimarratzen duenean, arritmia erreferentziatutako duen denboraren kontzeptu batetaz ari dira. Erritmo biologikoen ezaugarri asko

ditu itxuraz, zereginera zuzenduta egotea kasu, baina denbora abstraktu arritmikoaren pisua nagusitzen da funtsean. Bezeroak agintzen duenaren arabera lan egin behar denez, zereginera zuzentzen da jarduera, baina zereginak arritmikoa izaten segitzen du gehienetan. Gainera, zeregin gero eta konplexuagoak sinkronizatu behar dira eta horrek diziplinatzen ahalegin handia eskatzen du, bestela lankideen dinamika hautsi egiten baita. Taldekako lanak, adibidez, talde barruan bakoitzak bere erritmoa eramatearen ezintasuna suposatzen du; besteak kaltetu nahi ez baditu behintzat, produktibitate txikienekoek intentsitatea handitu behar duten bitartean, eraginkorrenak hutsuneak bete behar dituzte. Horrez gain, oraindik ere bezeroaren aurrean puntualtasuna derrigorrezkoa da. Zehaztasuna, aplikazioa eta erregulartasuna ezinbesteko bihurtzen dira horrela.

Produktibitatearen funtsezko ideiak bere horretan jarraitzen du, ikerketa horretako elkarrizketatu batek honako aipuan esaten duenaren arabera:

“Gero eta konpententzia handiagoa dago. Konpetitzeko egin behar duzuna da prezioak baxu mantendu. Eta prezioak baxu mantentzeko, dirua irabazi nahi baduzu, produktibitatea aumentatu beharra daukazu. Beste irteerarik ez dago. Jende berdinarekin lan gehiago egin behar da”<sup>1082</sup>

Taylorismoan zuzendaritza da denbora emalea eta produktibitatea handitu nahi izanez gero, lanaren intentsitatea handitu egiten du. Kontzeptu hau ez da kapitalismo berriaren lan ereduarekin aldatzen. Lanaren intentsitatea handitzea da lan sistema hauen helburuetako bat. Baina denbora emaleak desberdinak dira. Zuzendaritzak ez du horretan agintzen, itxura denez. Bezeroak eskatutakoaren arabera jokatzeko da. Bezeroa da, hortaz, denbora emalea. Produktibitatea eskaeraren arabera moldatu behar da. Produktibitatea handitzeko beharra dagoenean, gehitu egin behar da intentsitatea. Zereginera zuzendutako jarduera dirudi. Ez da ahaztu behar, hala ere, bezeroen kopurua eta izaera nola moldatzen den. Merkatuaren lehiakortasunaren izenean ahal den guztia eraldatzeko prest egon behar dela dirudi. Merkatua da, azken batean, funtsezko denbora emalea, eta merkatua, arritmiaren erresuma da. Merkatu globalizatuak aldarriztat daukan malgutasunak ez du erritmoaren dinamika integratzaile. Esanguratsuak dira ikerketa hartako elkarrizketatu honen hitzak:

“Lan gogorak dira fundizioa eta. Zenbait lekutan hamar ordu lan egiten ez zuten aste osoa aguantatuko (...) Orain nola erlourik ez dagoen (...) Nik mugatu egingo nituzke. Ordularia neretzako azkarregi kendu dute”<sup>1083</sup>

Produktibitatea handitzea eta, beraz, kasu honetan lanaren intentsitatea handitzea erlojuaren desagerpenarekin lotzen dira. Autokontrola eta diziplina handiagoa eskatzen du lan eredu berriak.

Malgutasunaren bertsio hau etenez eten doa. Hausturak zereginera zuzendutako lanaren erritmoa ezereztu egiten du. Testuinguru honetan garatzen dira lan eredu berriak. Erritmo biologikoekiko haustura nabarmena da langileen artean, azterketa hartatik hartutako honako aipuan islatzen denaren arabera:

---

<sup>1082</sup> 5. elkarrizketa in Arratibel & Zubiri, 2004.

<sup>1083</sup> 3. Elkarrizketatua Arratibel & Zubiri, 2004.

“Lehenago baino estresatuagoa sentitzen naiz. Lehenagoko lana da eta orain Holandako eta Frantziako ekipoan nago. Estresatuagoa seguro (...) Presionatuagoa seguro”<sup>1084</sup>

## 7.4 Hiru lan eredu: arritmikoa, malgu erritmikoa eta *malgu* ez jarraia

Orain arte aipatu ditugun ekarpenak sintetizatuz, esan genezake hiru lan eredu daudela: arritmikoa, malgu erritmikoa eta *malgu* ez jarraia. Lan eredu bakoitzak denbora soziala bizitzeko modu ezberdin bana suposatzen du, baina eredu bakoitzaren ezberdintasunak errejimen tenporalari ez ezik gainerako esparruei ere badagokie (errentaren banaketari, adibidez), gizarte bakoitzaren denbora sozialaren izaeran gizartearen botere harremanak islatzen baitira.

### 7.4.1 Lan eredu arritmikoa

Lan eredu arritmikoa, metronomoaren errejimen da. Burdinezko kaiola. Arrazionalizazio osoaren eremua. Banakoak bere lekura estu lotuta daude. Banakoen bizitzek lerro itxurako narrazioak osatzen dituzte. Lorpenak pilatu egiten dira eta bakoitzak bere lekuan pauso txikiak egingo dituela ziurtasun nahiko handiz aurreikus dezake.

Langileak teknikoki lotuta daude, produktibitate ekonomikoaren mesedetan, baina sozialki isolatuta bizi dira.

### 7.4.2 Lan eredu malgu erritmikoa

Lan eredu malgu erritmikoa ziklo biologikoen aldaera soziala da. Ez da naturala, ezta berezkoa ere. Produktu sozial bat da. Baina, erritmo biologikoen gisan, jarraikortasun ez errepikakorra da. Ingurunearekiko sentsibilizazio eta insentsibilizazio dialektikan, ziklo erritmikoak eta jarraikortasuna konbinatzen dira. Ez da berdinen errepikapena, erritmoa baizik. Forma integratzailea da. Langilea jabetzen da lanaz, ez lana langileaz. Jarraikortasuna eta burujabetza dira lan eredu malgu erritmikoaren gakoak.

Etenik ez dagoenez, lorpenak pilatu egiten dira. Nork bere ibilbidea kontatzeko ez dago lerro zuzenik, gora-behera ziklikoak daude, baina narrazio modu malgu bat egikaritzen da. Lorpenetaz ari garenean, besteak beste denboraz eta diruaz ari gara.

Langileak erritmikoki sinkronizatuta daude, ez metronomikoki. Kolektibitatea eta isolamendua ziklikoki artikulatzen dira. Hartara, banakoaren lorpenak ingurumaria kolektibo sinkronizatu batean garatzen dira. Merkatuaren aginduek ez dute langilearen burujabetza eta lanaren jarraikortasuna zapuzten.

---

<sup>1084</sup> 3. Elkarriketatua Arratibel & Zubiri, 2004.

### 7.4.3 Lan eredu *malgu* ez jarraia

Sennett-ek azaltzen duenez, *flexible* hitza XV. mendean sartu zen ingeles hizkuntzan. Haizeak zuhaitz baten adarrak astintzen dituenean, adarrak mugitu eta zenbaitetan ia tolestu ere egin daitezke, baina haize astinaldiaren ondoren, adarrak bere onera itzultzen dira, zuhaitzak bere lehengo itxura bera berreskuratzen duelarik. Hala ere, euskaraz *malgua* den zerbeit ez da derrigorrez bere lehengo egoerara bueltatzen. Material malgu bat aldiro moldatu daiteke, parametro batzuen barruan beti ere, baina moldatzen den bakoitzean inoiz izan ez duen forma izan dezake. Azken finean, malgutasuna ulertzeko bi ikuspegi hauen oinarrian jarraikortasuna eta burujabetza dago. Malgutasun ez jarraiaz eta ez burujabeaz ari bagara, esan genezake gaur egungo kapitalismoak sustatzen duen dinamika malgua dela. Hori bai, inola ere ezingo genuke esan kapitalismo berriaren malgutasuna erritmikoa denik.

Hortaz, lan eredu malgu ez-jarraia etenik eten doa. Gainerako lan eruedetan baino aldaketarako aukera gehiago daude teoriarik, baina oroz gain ziurgabetasuna da jaun eta jabe. Gaurko ahaleginari esker lortutakoak bihar lagunduko dizunetz ez dago bermatua. Orainaldi etengabea bizitzea da. Ez-jarraitasuna besterik ez da errepikatzen. Ezer ez epe luzera, guztia da behin-behinekoa. Suntsipen sortzailearen mundua da.

Ingurumaria honetan jende guztia ez da berdin moldatzen. Irabazleak eta galtzaileak daude. Turistak eta etxegabeak. Baumann-en<sup>1085</sup> azalpena gordina eta argia da. Batzuek turistak izango dira: atzerrira egindako bidaia batean leku eta une bakoitza goza daitekeen bezain beste aprobetxatuko dute, handik berriro ez direla pasako jakinik, bihar beste leku eta une berri batzuk ia nahieran bisitatu ahal izango dituztela gogoan hartuta. Etxegabeek, berriz, leku eta une bakoitza pairatu beharko dute, ziurgabetasunak edo eskasiak jipoituta.

## 8. Errejimen sinboliko berria

### 8.1 Errestaurazio neoliberala

Weber-ek<sup>1086</sup> *Herrschaft* izeneko honela definitzen du: pertsona talde zehatz batek agindu batzuk edo agindu guztiak obeditzeko probabilitatea. Beraz, *Herrschaft* izeneko ez da besteengan boterea (*Macht*) edo eragina izatea. Dominazioa (*Autorität*) obedientzia eragiten duten motibo askotan oinarritu daiteke (ohituratik hasi eta motibazio arrazional-instrumentaleraino) baina *Herrschaft* delakoaren izaera duen harreman orotan dago gutxieneko obeditzeko borondatea; hots, obeditzeko interesa (materiala nahiz izpirituala). Weber-ek dio dominazio oro ahalegitzen dela bere legitimotasunarekiko fedea eraikitzen eta sustatzen, zeren dominazioaren iraupena bermatzeko ez baita aski (edo ez da hain sendoa behintzat) soilik motibazio materiala, afektiboa edo arrazionala. Legitimotasunak irauten laguntzen dio dominazioari. Dominazioak lortu nahi duen legitimotasunaren arabera, obedientzia mota bat bultzatzen saiatzen da.

---

<sup>1085</sup> Bauman, 1999.

<sup>1086</sup> Weber, 2007.



Weber-ek dioenez, botere ororen azken helburua bere burua legitimatzea da eta horretarako ezinbestekoa du dominatuaren nolabaiteko obedientzia. Lan honetan rol oso garrantzitsua jokatzen dute mundu ikuskerek. Botereak sistema sinboliko osoak ezartzeko ahalegina egiten du eta hau prozesu gatazkatsua da beti baina lan nekeza da errejimen sinboliko berriak hedatzea eta jendearengan errotzea. Erronka hori, ordea, lehentasunezkoa izan da neoliberalismoaren egitasmoarentzat eta horretarako hainbat bitarteko erabili izan dituzte. Erresuma Batuko lehen ministro zenean Margaret Thatcher-ek<sup>1087</sup> argi adierazi zuen bere esaldi ospetsu hartan: “ekonomia metodoa da baina helburua arimak aldatzea da”.

Bourdieu<sup>1088</sup> dioenez, egitasmo neoliberalak sustatu du prekarietatearen kultura. Bourdieuk iraultza neoliberalaren sasoitzat duen honetan Errestaurazio kontserbadoreak (halaxe deitzen dio Bourdieuk) garapena, arrazoia eta zientzia bezalako aldarriak darabiltza, baina Bourdieuren iritziz funtsean muturreko kapitalismoa da: diru etekinaren maximizazioa da bere legea. Nolanahi ere, ez ditu soilik diru kontuak jorratzen: ekonomian oinarrituz egiten duen indarra biderkatu egiten da botere sinbolikoaren bitartez. Botere orok egiten duenari jarraiki, iraultza neoliberalak bere mundu ikuskera hedatzeko ahalegin berezia egiten du, bere ideiak egia ekidinezinak balira bezala. Bourdieuk berebiziko garrantzia aitortzen dio ideien arteko gatazkari. Bourdieuren arabera, makina bat faktorek sustatzen dute iraultza neoliberalak: finantza merkatuen presioak, enpresa multinazional handiek (gehienbat banketxeek), nazioartekoa erakundeek (Munduko Bankuak, Nazioarteko Moneta Funtzak eta Munduko Merkataritza Erakundeak, besteak beste) eta SESBaren erorreraren ondoriozko egoera monopolistikoak. Hauek guztiak funtsezko faktoreak dira Bourdieuren iritziz, baina horiekin guztiekin batera Bourdieuk ezinbestekotzat jotzen ditu egitasmo politiko honen alde egiten duten *think tanks* delakoen jarduera, intelektualen ekarpenak, kazetarien laguntza eta neoliberalismoaren ideiak hedatzen laguntzen duten gainerakoena. Hauen guztien artean gauzatzen da Bourdieuk bortxa sinbolikoa deitzen duenaren lan eskerga. Bourdieuren ikuspegitik, bortxa sinbolikoa da iraultza neoliberalaren ezaugarri behinena. Fatalismoa, adibidez, egoera bestelakoa ezin dela izan sinestaraztea alegia, bortxa sinbolikoa da.<sup>1089</sup> Bourdieuren iritziz hori gertatzen da, esate baterako, Beck eta Giddens-en kasuan: dominatzaileek inposatutako arauak joko arau bezala hartzen dituzte.

Bourdieu<sup>1090</sup> arabera, errestaurazio kontserbadorea deitzen duen egitasmo politiko horrek baztertu egin ditu garai bateko diskurtsoaren hainbat osagai, modernitatearen zenbait zati baliatuz hornitzen da eta teknika berriak erabiltzen dituzte, Bourdieuk dioenez: kudeaketa modu berriak, merkatu ikerketak, marketina eta publizitate komertziala, besteak beste. Garai bateko diskurtsoa baztertu eta modernitatearen zatiez hornitzen da.

Atal honetan teknika horietako bat aztertzen saiatuko gara, kudeaketa modak hain zuzen, horiek analizatuz neoliberalismoaren egitasmoak hedatzen duen errejimen sinbolikoa islatzen ari garelakoan baikaude.

---

<sup>1087</sup> Thatcher, Margaret in Harvey, 2005, 23 or.

<sup>1088</sup> Bourdieu, 1999a eta 2001a.

<sup>1089</sup> Bourdieu, 1999a, 434-435 or.

<sup>1090</sup> Bourdieu, 1999a, 43-50 or.

Boltanski-k eta Chiapello-k<sup>1091</sup> *kapitalismoaren izpiritua* deitzen dutenak eragina du hainbat esparrutan (politikan, sindikalgintzan, kazetaritzan eta ikerketan, besteak beste) baita enpresen kudeaketari buruzko literaturan ere, eta Boltanski eta Chiapelloren harira, liburudendetan erraz aurkitzen den literatura horixe aukeratu dugu gaur egun neoliberalismoak, kapitalismoaren izpiritu garaikideak, hedatu nahi duen errejimen sinbolikoaren ezaugarri nagusiak aztertzeko. Kudeaketa moden izpiritua ez da kapitalismoaren izpirituaren sinonimoa, azken hau askoz zabalagoa eta konplexuagoa baita. Halaber, kapitalismoaren izpiritua ez da bere garaiaren izpiritua, ideologia dominatzailea inoiz ez baita bete-betean dominatuen ideologia bihurtzen. Kudeaketa modek izenetik izanera ez dute bide laua izaten, maiz trabatu eta aurrerabiderik gabe gelditzen dira, langileak ez direlako orrialde zuri bat eta ezin delako beraien gainean nahieran idatzi, baina kudeaketa moda jakin bat sustatzen dutenentzat indar harremanak behar bezain aldekoak badira, kudeaketa modak kudeaketa modu bihurtzen dira hainbat alorretan. Hori dela eta, Boltanski eta Chiapello-k kapitalismo garaikidearen izpiritua deitzen dutena definitzen aldera, kudeaketa modak aztertzea baliagarria da, ondorio partzial baina esanguratsuetara irits gaitzkeelako.

Boltanski eta Chiapelloren arabera, enpresa kudeaketarako literaturak oro har etekinak lortzeko modu bat zergatik den hobea azaldu behar du, zergatik den desiragarriagoa, interesgarriagoa, liluragarriagoa, berritzailea, nola eransten dion balioa enpresaren produktu edo zerbitzuei. Arrazoi ekonomikoak aurkezteaz gain, helburu normatiboei dagozkien arrazoi indibidual eta kolektiboak ere azaldu behar ditu. Baina errealismoa ez da testu hauen ezaugarri nagusia. Beraien iritziz izan beharko litzatekeena azaltzen dute, ez gertatzen dena. Beraz, kudeaketa modak ez dira errealitatearen neurri bezala hartu behar baizik eta egitasmo baten borondatearen produktu bezala.

## 8.2 Modaren egitura eta dinamika

Lipovetsky-k dioenez<sup>1092</sup>, modaren fenomenoak gizarte eremu gehienetara zabaldu da. Joera sozial honek ez du helburu eta eduki zehatzik, baina bere ezaugarri orokorrak nahiko egonkorak dira. Janzkeran ez ezik beste hamaika esparrutan ere garatzen ari da modaren izaera aldakor, behin-behineko, seduzitzaile eta gutiziazalea. Mendebaldea izeneko eremuko gizarteetan indartu da fenomeno hau. Modak tradizioarekiko haustura dakar, orainaldian plazera sentitzeko helburuarekin aldaketa delako ardatz. Gizarte tradizionalak herentzian jasotako iraganeko eredu jarraipenean oinarritzen dira eta ez dute jarrera transformatzailea eta fantasiotsua onartzen, Lipovetsky-k dioenez, hauek iraganarekiko mespretxua adierazten dutelako. Aitzitik, moda nagusitzen denean, garaian garaiko berritzaileak imitatu nahi dira, ez arbasoak. Modak aldi berean ustiatzen ditu mundu materiala (jarduera produktiboaren *arrazionalizatzearen* bitartez) eta itxuraren aldaketa gaitasuna. Biek berresten dute naturarekiko autonomia.

Imitazioa, diferentziazioa eta berrikuntzarako desira dira moda ulertzeko gakoak. Lipovetsky-k dioenez, moda enpresen munduan aplikatzen denean, eragin eraldatzailea du. Hara zer dioten Lipovetsky-k<sup>1093</sup> honi buruz:

<sup>1091</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 97-152 or.

<sup>1092</sup> Lipovetsky, 1990.

<sup>1093</sup> Lipovetsky, 1990.

“Con el cambio de la imagen social de la empresa, ésta se convierte menos en lugar de explotación y lucha de clases que en lugar de creación de riquezas que apela más a la participación de todos: la idea de *círculos de calidad* comienza tímidamente a penetrar en Europa, y la figura del patrón aprovechado cede masivamente terreno ante la del creador y del hero-star de la empresa. Ya desde ahora, el sindicalismo comienza a tener en cuenta este cambio de clima en su lenguaje (...) El capitalismo ya no es el mal absoluto (...) Es la hora de los ganadores, de los patrones mediáticos y de los *yuppies*.”

Baina eragin eraldatzaile hori ez da dirudien bezalakoa. Baudrillard-en<sup>1094</sup> arabera, moda beti guztiengana zuzentzen da, guztien kontua balitz bezala, guztiei mesede egin behar balie bezala, baina modak azkenean nor bere lekuan kokarazten du. Izan ere, modan agertzen den berritasuna batik bat ezberdintze zeinua da eta ez zinezko berritasuna. Hots, berritasuna ez da helburua bere baitan, berritasuna bitartekoa da, besteengandik bereizteko bitartekoa. Azken batean, Baudrillard-ek dioenez, modak beste edozein erakundek baino eraginkorrago berregiten eta sendotzen du *status quo*-a. Modak erabiltzen duen diskurtsoan nabarmena da kultur ezberdinkerien eta diskriminazio sozialen aurka egiteko argumentazioa baina, Baudrillard-en arabera, modak hain zuzen kontrakoa egiten du: ezberdinkeria eta bazterketa bertan behera uztearen argumentazioa erabiliz, ezberdinkeria eta bazterketa berreraiki eta sendotu egiten ditu.

Lipovetsky, lehen aipatu dugunarekiko kontrajarria dirudien arren, bat dator Baudrillard-ekin afera honetan. Honela dio Lipovetsky-k<sup>1095</sup>:

“Aún más, la moda contribuye a la inercia social por cuanto la renovación de los objetos permite compensar una ausencia de movilidad social real y una desengañada aspiración al progreso social y cultural. Instrumento de distinción de clases, la moda reproduce la segregación social y cultural, y participa de la mitología moderna que enmascara una igualdad inexistente”

Lipovetsky-ren arabera, berrikuntza goseak eragile gisa jokatzeko du. Enpresen munduan, adibidez, gaitasuna duten enpresa guztiek bilatzen dute diferentziazio konpetitiboa eta atzean gelditzen direnek, aldiz, abangoardiako enpresa eredugarritzat dituztenak imitatu nahi dituzte. Imitazio behar honek nortasun sendoa eraikitzeko beharri erantzuten dio. Erosoagoa da besteak bezalakoa izatea, bereziki diferentzia ez legitimatuak suntsi zaitzakeela dakizunean. Imitazioak askatu egiten du banakoa aukeratzearen larritasunetik, baina mimetismorako joera hau ez da behin betiko gertatzen, eguneroko prozesu ia ikusezinetan baizik. Modak zeresan handia du prozesu honetan, presio sozialerako sistema arauemailea baita.

Lipovetsky-ren arabera, moda mugako fenomeno da, iraganaren eta etorkizunaren artean dagoen tentsioa adierazten du eta, beraz, etengabe aldatzen denez, funtsezkoena ez da modan egotea, aldaketen lasterketan ez baztertera gelditzea baizik. Modaren merkatu jakin batera eredu berri bat kaleratzen denean, puntako erakundek bakarrik erantzun ahal izango diote aukerari. Eredu hori hedatzen joan ahala, enpresa aurreratueni ez die diferentziazio konpetitiborako tresna bezala balioko eta, beraz, moda berri bat jorratzen hasiko dira, artean beste guztiak oraindik bere arrastoari segika saiatzeko ari diren bitartean. Jantziaren industrian bezala, kudeaketa aholkulariek

<sup>1094</sup> Baudrillard in Lipovetsky, 1990.

<sup>1095</sup> Lipovetsky, 1990.

eliteko enpresentzako zerbitzuak eskaintzen dizkietenean, enpresa hauen helburua diru, esperientzia eta prestigio irabaziak lortzea da. Baina beren zerbitzuak gero eta eskuragarriago daudenez, enpresa apalagoek eredu berriak bere egin ahala modaren produktuek balioa galtzen dute.

Boltanskik eta Chiapellok<sup>1096</sup> diotenez, XX. mende hasieran sortu zen enpresen kudeaketarako literatura. Garai hartan sortu ziren soldatapeko zuzendari eta administratzaileen gorputz sozialak. Hauei esleitu zieten egunerokotasunean enpresa handiak kudeatzearen lana, bitartean jabe handi gehienak akziodun bezala gelditu zirelarik.

Harrezkero etengabe hazi da enpresen kudeaketarako literaturaren moda eta dinamika honen bitartez azken hamarkadetan kudeaketa moden industria etekin ekonomiko erraldoiak erdiesten dituen negozioa bilakatu da. Beste edozein produktu edo zerbitzu bezala, kudeaketa teoriak merkatura moldatu egiten dituzte, segmentuen arabera dibertsifikatzen dituzte, publizitatea egiten diete, eta ustiatzeko merkatu berriak bilatzen dizkiete etengabe. Micklethwait eta Wooldridge-k<sup>1097</sup> diotenez, industria honen ekoizpenak maila askotakoak dira: guru ospetsuek sortutako produktu sendoen ondoan, berritsuen lan ugari aurki daitezke. Dena den, funtsean hiru sektoretan bana daiteke: AEBetako 1996ko datuei erreparatuz gero, modak aplikatu ahal izateko enpresek kontratatu behar izaten dituzten aholkularitza taldeek 20.000 mila milioi dolar irabazi zituzten; Management and Business Administration izeneko 75.000 titulu banatu ziren; eta hitzaldiak eta telebistako agerraldiak haztearekin batera liburu eta bideoen salmenta 1960an zenaren hamabost halako izan zen. Peters bezalako guru baten arrakasta komertziala ukaezina da: mintegi bakar batean irabaz dezake goi zuzendari batek urte oso batean poltsikoratuko duena baino gehiago.

---

<sup>1096</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 97-152 or.

<sup>1097</sup> Micklethwait & Wooldridge, 1998.

44. Taula: Kudeaketa moden egitura		
Nivel		Significado
Marco general o referencial	Metamodelo	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Marco o esquema conceptual determinante que actúa como guía.</li> <li>• Concepción general y global, núcleo paradigmático acerca de la empresa, el entorno amplio y sus interacciones.</li> <li>• Base filosófica: describen los rasgos filosóficos, valores y conceptos más representativos de una escuela de pensamiento.</li> </ul>
	Problemática y resultados	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Área o proceso de la empresa u organización que problematiza el modelo o herramienta.</li> <li>• Diversos métodos para sistemas y subsistemas de la empresa</li> </ul>
	Lenguaje y jerga	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Conjunto de términos característicos del modelo y sus herramientas.</li> <li>• Dichos términos adquieren un significado específico en función del contexto.</li> </ul>
Método o grupo homogéneo de herramientas		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Modelo visto desde la perspectiva de las herramientas interrelacionadas que incorpora.</li> <li>• Agregado de herramientas integrales que constituyen un cuerpo integrado, aplicable a problemáticas ubicadas en uno o varios de los ámbitos principales de actividad de la empresa.</li> <li>• Se identifican con el nombre utilizado por cada escuela, que normalmente viene distorsionado por la especialidad científica o funcional que la ha desarrollado.</li> <li>• A veces, esta identificación coincide con el nombre del área de problemática específica que hay que abordar.</li> </ul>
Herramienta		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Método formalizado, susceptible de ser visualizado por un diagrama de proceso, acompañado de los correspondientes soportes formales, para analizar y resolver problemas específicos de gestión empresarial.</li> </ul>
Iturria: Ezagutzaren Clusterra		

Kudeaketa moda bakoitzak bere burua berritzaile bezala aurkezten du beti, aurreko guztiak baztertu eta irtenbideak ahalbidetuko dituen ekarpena balitz bezala, baina kudeaketa moda guztiek funtsean egitura berdina izan ohi dute. Kudeaketa moden diskurtsoari erreparatuz gero, egitura errepikatu egiten da, Ezagutzaren Clusterra<sup>1098</sup> delakoaren arabera (ikus 44. Taula).

Kudeaketa modak funtsean produktu nahiko errepikakorrek ez ezik produktu iragankorrek ere badira. Beste edozein produktuk bezala, kudeaketa modek bizi zikloa jakin bat izan ohi dute. Ezagutzaren Clusterra<sup>1099</sup> delakoak honela laburbiltzen du bizi ziklo hori:

- a) Sorkuntza: gehienbat AEBetako unibertsitate eta aholkularitza enpresetan kontzeptualizatzen dituzte ereduak eta tresnak.
- b) Aplikazioa: normalki agente sortzaileek burutzen dituzte aurreneko frogak, gero masiboki zabaldu ahal izateko.
- c) Hedapena: liburu, aldizkarietako artikulu, ikastaro, mintegi, hitzaldi, bideo eta bestelakoen bidez gauzatzen da.

<sup>1098</sup> Ezagutzaren Clusterra, laburbildua.

<sup>1099</sup> Ezagutzaren Clusterra.

d) Ordezkapena: eredu eta tresna berriek partzialki edo erabat ordezkatzen dituzte.

Modak merkatuaren dinamika agintzen duen gainerako merkatuetan bezala, moda berrien fluxu etengabeak iraganeko *errejeta definitiboak* ahaztarazten ditu. Haiek ere mehatxuz eta aukeraz betetako garai batean garatu ziren, aurreko modak zaharkituztat jo zituzten, irtenbide berritzaile eta ezin eraginkorrakoak aurkeztu zituzten, eta azkenean, beste guztiak bezala, hurrengo modak indarra hartu zuenean hasi zuten endekatzea harik eta desagertu egin ziren arte. Eccles eta Wooldridge-k<sup>1100</sup> diotenez, AEBetan, esate baterako, 1950eko hamarkadan epe luzerako plangintza zen irtenbidea. 1960koan eta 1970koan karteraren planifikazioa eta dibertsifikazio estrategikoa, 1980koaren hasieran analisi konpetitiboa eta estrategia generikoa, 1980aren erdi aldera iturri konpetitiboa eta berregituraketa, 1980ko hamarkadaren bukaeran pentsamendu estrategikoa, konpententzia nuklearra, estrategia globala eta aliantza estrategikoak. Gurera moda gutxiago eta beranduago iritsi ziren, kudeaketa moden ekoizpena AEBetan nahiko zentralizatua dagoelako, baina iritsi, iritsi ziren: Cluster del Conocimiento delakoaren arabera, 1970eko hamarkadan zabaldu zen epe luzerako planifikazioa, aurrekontuen kontrola eta kudeaketa plana. 1980ekoaren hasieran ekin zioten planifikazio estrategikoa jorratzeari. 1985etik aurrera ISO 9000ak, ekoizpen arina, reinjenieritza eta beranduago EFQM ereduak etorri ziren<sup>1101</sup>.

### 8.3 Hutsalak al dira modak?

Iragankorrak izanagatik, kudeaketa modak ez dira hutsalak. Esan genezake kudeaketa teoria batzuen oinarri teorikoak enpresarientzat ere eskasak direla eta ez dutela erabilgarritasunik, esan genezake kudeaketa teoria batzuek ez doazela ezagutza arrunta baino urrunago, ez dutela hizkera ulergarririk, ezta autokritika gaitasunik ere, eta sarri kontraesan gaindiezinetan erortzen direla. Baina horrek guztiak ez luke esan nahiko kudeaketa modak eraginkorrak ez direnik.

Imajina dezagun hitzik gabeko enpresa bat, sinbolo gabekoa, batere metaforarik gabea. Pentsaezina da: hitzak haizearekin egindako hotsa baino askoz gehiago dira. Erakunde sozialek ezin dute mundu ikuskerarik gabe funtzionatu. Beharrezkoak dira barne nahiz kanpo elementuei esanahia, munduan leku bat, emango dieten errepresentazioak. Mundu garaikidean modek badute zeresana honetan. Barthes-ek<sup>1102</sup> modaren hiru errealitate bereizten ditu: ekintzak, irudiak eta hitzak. Hitzek hiru funtzio dituzte, Barthes-en arabera: a) inmovilizazioa: hautematearen maila diskurtsoaren ekoizleak nahi duen lekuan geldiaraztea; b) ezagutza: izkutuan dena azalerraztea; c) enfasia: bistan dena indartzea. Beraz, hitzak dira mundu ikuskera eraikitzeke funtsezko euskarrietako bat. Barthes-ek sistema erretorikoa azaltzen duen eran argi ikusten da funtzio hau. Sistema erretorikoa hirutan banatzen du Barthesek: ekintzen poetika, modaren mundua eta modaren arrazoa.

Ekintzen poetikaren bitartez ekintzen eta egoeren deskribapena egiten da eta hala materiak eta hizkerak topo egiten dute. Objektibotasun itxurak ikuspegi konnotatuak izkututzen ditu.

<sup>1100</sup> Eccles & Wooldridge, 1995.

<sup>1101</sup> Ezagutzaren Clusterra.

<sup>1102</sup> Barthes, 2003.

Diskurtso guztiak eraikitzen dira mundu ikuskera baten gainean, nahiz eta deskribapen objektibo soilaren estrategia hartu.

Modaren munduari dagokionez, esanahia esplizitua denean, ekintzen kodeak mundua unitate semantikoetan sailkatzen du. Erretorikak unitate hauek bere egin, ordenatu eta mundu ikuskera bat eraikitzen du, kosmogonia bat. Barthesen ikuspegitik, munduaren eraikuntza erretorikoak metafora eta parataxia erabiltzen ditu tresnatzat. Lehenengoak unitate semantiko arruntak originaletan bihurtu ditu. Bigarrena metafora baino urrutirago doa: objektu eta egoera ez jarraietan oinarrituz giro bat sortzen du. Izaera ezberdineko murrizpenen bidez eratutako ingurune bat eraikitzen du. Ingurune hau ez da ez erabileran ezta zeinuengan ere oinarritzen, narrazioaren logikan baizik. Horrela erretorikak konbinazio ez jarrai batetik bizidun koadro batetarako trantsizioa ahalbidetzen du, egituratik gertaerara. Egiturazko elementuengan oinarrituz, erretorikak itxuraz jarraia den orden bat eraikitzen du eta horren bidez egitura gertaera balitz bezala agertzen da. Metafora eta parataxia ahulak eta eskasak direnean, estereotipoan erortzen dira. Hau egitura higatua izan arren, moda orekatzen laguntzen du, berritasun itxura emanaz informazio lasaigarria transmititzen duelako. Moda bere funtzioa betetzeko prest dago horrela: subjektua moda bakoitzaren baldintzetara egokitze erabili. Erabilera erritual batean bihurtzen dute proiektzio absolutuen bitartez, hauek behin eta berriz errepikatzean ongizate sententzioa sortzen duelarik.

Lakoff eta Johnson-en<sup>1103</sup> metaforari buruzko ekarpenak berretsi egiten du Barthesen ikuspegiaren oinarria, nahiz eta beraien hurbilpena bestelakoa izan. Lakoff eta Johnson-en arabera, metafora oso presente dago gure egunerokotasunean. Ez da hizkera poetikodun apaingarri isolatu soil bat, baizik eta gure mundu ikuskeren oinarritzko tresna, eta hori guztiz literala izan daiteke, nahiz eta gauza metaforikoki bizia izan. Gure pentsamendua gidatzen duten kontzeptuek osatzen dute mundu ikuskera, egunerokotasunean mugitzeko irizpideen multzoa. Pentsamendua hizkuntzan nola gauzatzen den erreparatzen badugu, konturatuko gara gure ohiko sistema kontzeptualak izaera metaforikoa duela. Metaforak sistema koherentearen itxura emango duen multzoetan kokatzen saiatzen dira. Metaforen funtza gauza bat beste baten terminoetan ulertu eta bizitzea da eta honek hainbat funtzio ditu:

- a) Adierazitakoaren zenbait ezaugarri indartzen ditu, besteen kaltetan.
- b) Esanahiak zehazten ditu.
- c) Adierazitakoari esanahi berria ematen dio, egunerokotasunaren konplexutasunari makina bat esanahi eman dakizkioke-eta.
- d) Baliagarriak sorta daitezke, helburuak zehazten lagundu dezaketelako.
- e) Hartzailearen arabera metaforaren esanahi aldatu egiten da.

Andoni Unzalu<sup>1104</sup> diskurtsoen arteko gatazkari buruz ari delarik, azalpen osagarria ematen digu diskurtsoaren hainbat teknika deskribatuz: 1) izkutaketa: hizlariak gustuko ez duen errealitatearen zati bat izkutatzea; 2) errepikapena: etengabe aipatzen den leloa ezinbesteko bihurtzen da; 3) eufemismoa: hizlariak bere horretan onartu nahi ez duen errealitate bat aipatu beharra duenean,

<sup>1103</sup> Lakoff & Johnson, 1995.

<sup>1104</sup> Unzalu, Andoni in Imaz, 2006, 158 or.

eramangarriagoa den beste termino bat erabiltzea; 4) errebotea; bere horretan onartu nahi ez den errealitate bat presio sozialagatik hizlariari komeni ez zaion terminoa erabiliz izendatu beharra badago, beharrezkoa ez den beste termino kontrajarri bat eransten zaio.

Bestalde, Barthes-ek<sup>1105</sup> dioenez, modaren izaera erretorikoak ihes egiten dio denborari, ez duelako ez higadura ezta denborak eragindako nekea ere jasaten. Une absolutura mugatzen da, edozein trantsitibitate motatik libre. Modaren erretorika, giza jarduera bere arazo nagusienetatik libratzeko prestakuntza bezala agertzen da: bestelakotzea, asperdura, auresangarritasun ezina, eta bereziki ezintasuna. Plazeraren eta argitasunaren izaera lasaigarria mantentzen du. Moda etengabe saiatzeko transmititzen bere bitartez arazoak gaingaitzea posible dela eta modak erakusten duela nola egin. Moden erretorika argia izan behar da egoera azaltzerakoan, baina ez argiegia, nahiz eta beti ere diskurtsoak errealismo eraginkor bati eutsi behar dion. Modak eragiten duen sentsazioa intentsitate handikoa eta lausoa da aldi berean. Modak eragiten duen euforiak gaizkia uxatzen duela dirudi. Osagai kontraesankorrez eraikitako osotasun ametsa da. Moda ezinezkoa da baina aldi berean oso ezaguna gertatzen zaio jasotzen duenari.

Moda berriaren beharra ziurtatzeko iraganetik zenbait elementu aukeratu behar dira, lehengo egoera aldatzea derrigorrezkoa dela ikusarazteko. Halaber, etorkizunaren ikuspegi itxaropentsua ezinbestekoa da. Publikoaren desira eta emozioak kitzikatzeko, eredu zaharraren kontraesanak azpimarratu eta eredu berriaren irudi idealizatuarekin alderatu behar dira. Diskurtsoa eraikitzerakoan hobe da malgutasunerako aukerak mantentzea, atzeraezina den ezer ez eginez.

Azkenik, modaren arrazoiak, Barthes-en sistema erretorikoaren hirugarren osagaia, modako zeinuaren transformazio erretorikoa da. Adierazlearen eta adieraziaren arteko harremana alda daiteke, bien artekoa zenarengan beste harreman mota batzuen ilusioa islatuz. Moda arrazoi hutsaren itxuraz agertzen den zeinu sistema zurruna da. Modaren izaera tiranikoa eta bere zeinuarena arbitrarioak direnez, naturalak edo lege arrazionalak balira bezala agertzen saiatu behar dute. Horrela, erabilerara zuzendutako oinarri enpirikoa izanik, nola lege eta dekretu bihurtzen dituen lege edo erakundeetan oinarrituz, modaren konnotazioa ez da hutsala. Esanahia esplizitua denean, nahiz eta modaren elementu bakoitzari funtzio bat egokitu, hauek beste asko izan ditzakete. Esanahia implizitua denean, zeinua ezin da funtzio bihurtu, horretarako izendatua izan beharko lukeelako. Orduan, moda araua balitz bezala aurkezten da. Zeinu esplizituek arrazoiaren marka behar dute. Implizituek, ordea, naturaltasunaren maskara.

Honenbestez, erretorikak mundua irekitzen dio modari. Mundua erretorikaren bitartez dago presente modan. Hortaz, zeinu abstraktuak ekoizteko giza gaitasuna ez ezik arrazoi multzo gisa ere eraikia da. Moda, beraz, ideologia da. Modak botere harremanen jarraipena edo moldaketa une bakoitzera egokitzen ahalegintzen dira. Enpresa batean, adibidez, kudeaketa moda jakin batek sustatu dezake lanaren dinamika jakin bat. Funtsean ekintza eraginkorra mobilizatzeko nortasun indibidual nahiz kolektiboa sortzea du helburu. Modak iragankorrak dira baina moduak sustatzeko gaitasuna izan dezakete.

---

<sup>1105</sup> Barthes, 2003.



Zentzu honetan Foucault-en ikuspegia ere bat etorriko litzateke. Foucault-ek<sup>1106</sup> bestelako analisi bat proposatzen du arrazionalizazioaren eta agintearen arteko harremana aztertzeko. Foucault-en<sup>1107</sup> arabera, botere harremanak ez dira soilik koertzitiboak. Botere harremanen gakoetako bat *egiaren politikak* dira. Beren izaera sortzaileaz baliatuz, eraginkortasun soziala izan nahi duten arrazionaltasunak eraikitzea da botere harremanen sarean dabilen edozein posizioen lehentasuna. Erretorikaren gorputzaren politika, beraz, egiaren politika da azken batean, eta hau, berriz, nortasun indibidual nahiz kolektiboak eraikitzen gauzatzen da.

Foucaultek, beraz, boterearekin batera jakintza ere aztertu behar dela uste du, bere iritziz elkar loturik baitoaz. Bourdieuk *habitus* deitzen duenaren antza handia du Foucaulten jakintzaren kontzeptuak. Bourdieuentzat jarrerak eta praktikak ekoizten dituen da habitusa. Foucaultentzat, aldiz, jakintza mundu ikuskeraren parekoa dela ematen du. Foucaulten ikuspegitik, botere jardueraren ezinbesteko alderdia da jakintza. Botereak egiaren politika erabiltzen du bere iraupenaren derrigorrezko elementu bezala. Boterearen teknika hauek diskurtso bat osatzen dute eta hau errealitatetzat jotzen denez, gertaera guztiak egiaren politikak sortutako diskurtsoak mugatzen duen ingurumaria horren arabera hartzen dira kontuan. Horrela, botereak bere jarraipena bermatu egiten du. Bost ezaugarri zehazten ditu Foucaultek egiaren politikari buruz<sup>1108</sup>:

- 1) Diskurtso zientifikoan eta hori ekoizten duten instituzioetan oinarritua dago.
- 2) Ekonomiak eta politikak bultzatzen dute, besteak beste ekoizpen ekonomikorako nahiz botere politikoaren jarduerarako derrigorrezkoa baita.
- 3) Forma ezberdinak hartzen ditu eta bere kontsumoa zabala da, hezkuntzarena eta informazio sareena kasu.
- 4) Aparatu ekonomiko eta politiko handiek (unibertsitateek, armadak, idazkuntzak, hedabideek...) zeresan handia dute *egiaren* ekoizpenean.
- 5) Gatazka sozial eta eztabaida politiko baten ezinbesteko alorra da.

Azken batean *egiaren politikak* funtsezko osagaiak dira azpiratze harremanetan. Azpiratze harremanek erritual kutsua dute: betebeharrak eta eskubideak ezarri, prozedura konplexuak eraiki, markak ezarri (baita gorputzean bertan ere), zorren zenbatzaile bihurtu. Arau hauek ez dira bortxa arintzeko sortuak, botereari darion bortxa hori asetzeko baizik. Arazoa ez da errituala bera, sorburua boterean izatea baizik. Arauen ezartzeak, gainera, ez dio guduari uko egiten, bortxa hori arauak direla medio bideratzen baita<sup>1109</sup>.

Nolanahi ere, Bourdieuk<sup>1110</sup> dioenez, baliabide erretorikoen eraginkortasuna ezin da hitzen erabilera soilean aztertu. Enuntziatu performatiboan atzean zer dagoen aztertu beharra dago. Testuinguruak ematen dio hizlariari ahalmena eta autoritatea. Beraz, illocutionary force hori ezin dugu ez hitzetan edo diskurtsoan bilatu. Hitzen boterea, hizlariak duen botere delegatua baita. Hitzen boterea kanpotik dator. Hitzen autoritate hori autoritatea errerepresentatzera mugatzen da. Hitzen ezaugarriak, hizlariak okupatzen duen posizioak markatzen ditu. Hizlaria eramalea da,

<sup>1106</sup> Foucault, 1998, 82-83 or.

<sup>1107</sup> Foucault, 1994, 143-144 or.

<sup>1108</sup> Foucault, 1994, 143-144 or.

<sup>1109</sup> Foucault, 1991, 17 or.

<sup>1110</sup> Bourdieu, 1999b.

bideratzailea asko jota, baina ez bere hitzen ahalmenaren iturri. Hitz horiek hizlariaren atzean dagoen taldearen kapital sinbolikoaren arabekoak dira. Baina hau ez da nahikoa enuntziatu performatiboak arrakasta izan dezan. Hizlariak ezaugarri batzuk bete behar ditu eta harreman bat ezarri behar da diskurtsoaren ezaugarrien, diskurtsoa plazaratzen duenaren ezaugarrien eta diskurtsoa plazaratzea onartzen duen erakundearen ezaugarrien artean. Beraz, diskurtsoak arrakasta izan dezan, egoera legitimo batean, pertsona legitimatu batek eta forma legitimoetan enuntziatu beharra dago. Honela, enuntziatu performatiboek errealitatea eraikitzen dute izendatze soilaren bitartez; bere burua gauzatzen duen profezia bat izango balitz bezala funtzionatzen du. Testuinguru honetan eraikitzen dira nortasunak. Agente sozialek egitura kognitiboen bitartez eraikitzen dute mundu soziala. Egitura hauek historikoki eraikitako formak direnez, konbentzionalak dira eta, hortaz, arbitrarioak. Posizio sozial bakoitzak bere egia ekoizten du eta egia guztiak elkarren aurka borrokan aritzen dira, zein zeini zertan nagusituko; bakoitzaren egia bere posizioa legitimatzeaz gain, besteengan ere eragin nahi izaten du, botere harremanean aldaketak sortu asmoz.

## 8.4 Azken moda

Mickelthwait eta Wooldridge-ek<sup>1111</sup> diotenez, gaur egungo kudeaketa moden abiapuntua Japoniako Toyota enpresa-hiria da. Japoniak ez du ia guru aipagarririk eman baina, hala ere, lan dinamika propioak garatu dituzte. Toyota Mendebaldeko enpresa partenalisten moldera sortu zuten. Autoen ekoizpenean aritzen den egitura konplexu honek ezaugarri bereziak ditu. Toyota ereduaren idealen arabera, enpleguak burubelarri saiatzen dira bakoitzak egiten duenari balioa eransten. Lankidetzaren lehiakor giroa dago. Enpresaren egitura hierarkikoak egon badaude, baina adostasun giroa sortzea lan dinamika eraginkorragoak eta legitimoagoak bihurtzeko gakoa da. Hala eskatzen du dinamika orokorrak: ekoizpen arinak materiala ez alperrik galtzera eta almagaztan ezer gutxi edukitzera behartzen du. Produktuak, berriz, kalitate handikoak izan behar dira eta horretarako derrigorrezkoa da langileen inplikazioa, bakoitzak bere zeregina ahal bezain ondo bete dezan. Eta guztia bezeroaren eskaeren arabera moldatu beharra dago. Hau guztia beti ere Toyota ereduaren sustatzaileen arabera. Hortaz, laburbilduz, ereduak honako oinarriak ditu: produktuen kalitatea, enplegatuen inplikazioa eta eskaerara egokitzea. Eredu honi Toyota ekoizpen sistema edo ekoizpen doitua deitu ohi zaio. Eredu honek seriean egindako ekoizpenaren oinarriak kolokan jartzen ditu. Toyota ekoizpen sistemak aurreko sistemarekiko bereiztearren nabarmentzen du lehengo ereduak ez dela eskaeraren aldaketetara egokitzeko bezain moldagarria eta, gainera, akatsak dituzten produktu ugari ekoizten dituela eta, aitzitik, Toyota ekoizpen ereduak gai dela erronka hauei aurre egiteko, enpresa barneko egitura aldatuz eta enpresa bere eskaeren arabera asetuko duten enpresa hornitzaileen sarea osatuz. Horixe diote eredu berri hau sustengatzen dutenek.

Eredu honen Japoniatik munduranzko hedapena 1980ko hamarkadaren hastapenetan hasi zen, Mickelthwait eta Wooldridge-ek diotenez. Garai hartan enpresa japoniarrak gero eta merkatu kuota zabalagoa lortzen ari ziren. Horixe izan zen abiapuntua. Orduan hasi ziren AEBetan Japoniako ekoizpen sistemak aintzat hartzen. Japoniako dinamiketan oinarritu zituzten AEBetako kudeaketa moda berriak eta bertatik mundu osora zabaldu zituzten.

---

<sup>1111</sup> Micklethwait & Wooldridge, 1998.

Nolanahi ere, Coriat-ek<sup>1112</sup> dioenez, Japoniako ereduaren oinarritzat hartzeak ez du esan nahi bere horretan aplikatu dutenik. Coriat-en arabera, Toyota ekoizpen ereduaren hainbat ezaugarri eta terminologia hartu eta beste asko baztertu egin dituzte. Esate baterako, enpleguaren baldintzei dagozkien ezaugarriak desagertu egin dira neurri handi batean. Japoniako ereduaren aurka eginez, hedatu den ereduaren ez dago enpleguaren egonkortasunari buruzko edo errentaren banaketari buruzko batere aipurik. Hori dela eta Coriat-ek dio kudeaketa eredu berria tresna bezala erabili dutela langileek irabazitako eskubideak urratzeko eta dominazio teknika berriak ezartzeko.

Gure inguruan kalitatea aldarritzat duten kudeaketa modak zabaldu dira gehien azken urteetan. Bik izan dute nolabaiteko arrakasta: batetik, European Foundation for Quality Management (EFQM) erakundeak sustatuko eredu eta, bestetik, International Standardization Organization (ISO) erakundeak bultzatutako arau multzoak.

EFQM<sup>1113</sup> delakoaren arabera, bere ereduak taylorismoa gainditzen du eta egokiagoa da gure garaian enpresek aurrera egin dezaten (ikus 45. Taula).

<b>45. Taula: EFQM erakundearen ikuspegia taylorismoari eta Kalitate Osoari buruz</b>	
<i>Ikuspegi tradizional tayloriarra</i>	<i>Egungo Kalitate Osoaren ikuspegia</i>
Produktu eta zerbitzuak ekoiztu	Bezeroa pozik utzi
Departamendukako helburuak	Prozesuei lotutako helburu estrategikoak
Gutxi batzuek dena pentsatzen	Denek pentsatzen
Lan indibiduala	Talde lana
Bitarte fisikoak azpimarratzen	Pertsonak azpimarratzen
Inbertsio bidezko hobekuntza	Hobekuntza jarraitua
Lana salerosketarako merkantziatzat	Enplegatuen integrazioa enpresan
Gatazka- Negoziazioa – Gatazka	Kooperazioa
Iturria: Euskalit: <i>Calidad Total</i>	

ISO 9000 arautegi multzoaren printzipioak ere hari beretik doaz:

- 1) Bezeroarekiko ikuspegia: erakundearen biziraupena bezeroen araberakoa da eta, beraz, hauen egungo eta etorkizuneko beharrak ulertu beharko lituzkete, haiek asetu eta, ahal bada, bezeroen espektatibak gainditzeko.
- 2) Lidergoa: liderrek zehazten dituzte helburuak eta orientazio irizpideak. Beraiek sortu eta mantendu beharko lukete giro egokia jende guztia erakundearen helburuak lortzeko bidean burubelari saiatu dadin.
- 3) Guztien partaidetza: kideak dira erakundearen funtsa eta hauen erabateko inplikazioak ahalbidetzen du beraien trebetasunak erakundearen mesedetan erabili ahal izatea.

<sup>1112</sup> Coriat, 1993.

<sup>1113</sup> Euskalit, 2000.

- 4) Prozesuetan oinarritutako ikuspegia: zehaztutako helburuak modu eraginkorragoan lortzen dira jarduera eta baliabide oro prozesuak balira bezala kudeatzen direnean.
- 5) Kudeaketarako sistema ikuspegia: elkarrekiko harremana duten prozesuak sistema baten zati balira bezala identifikatu, ulertu eta kudeatzeak areagotu egiten du erakunde baten eraginkortasuna bere helburuak lortzeko bidean.
- 6) Hobekuntza jarraia: jarduera osoaren hobekuntza jarraia erakundearen etengabeko helburua izan beharko litzateke.
- 7) Gertaeretan oinarritutako ikuspegia erabakiak hartzeko: erabaki eraginkorrek datuen eta informazioaren analisisian oinarritzen dira.
- 8) Hornitzailearekiko harremana bi aldeentzat mesedegarria izan dadila: erakunde bat eta bere hornitzaileak interdependienteak dira, eta elkarri onura ekarriko dion harremanak areagotu egingo du bien balioa sortzeko gaitasuna.

Joera hauen isla garbia da Koldo Saratxagaren lana bai teorian bai praktikan. Sona handia izan du gure inguruan, hainbat egitasmo zuzendu dituelako batik bat<sup>1114</sup>. Saratxagaren *Harreman-estilo berri bat. Egiteko dagoen organizazioen aldaketarako* liburuan argi azaltzen ditu bere helburuak eta haietara iristeko bitartekoak. Bere xede nagusia “gure ingurumariko organizazioen lehiakortasuna hobetzeko [dauzkan] ideiak eta sentimenduak”<sup>1115</sup> azaltzea da, enpresek ezin baitiote lehiakortasunari eutsi lehengo forma, tresna, metodo, egitura eta kulturekin. Saratxagaren arabera, “produzitzen zen guztia saltzen zen garaia joan zen. (...) Beraz, kontua ez da honezkero produzitzea, hori edonork eta munduko edozein lekutan egiten du. Orain jakintzan oinarritutako organizazioak behar ditugu, bertan diharduten pertsonen berrikuntza-gaitasuna eta gauzak egiten jakitea balio nagusizat hartuko dituztenak.”<sup>1116</sup> Saratxagak nabarmendu egiten du “aldaketak beti [duela] gako argia eta bakarra: pertsonak”<sup>1117</sup>. Izan ere, Saratxagaren arabera, “organizazioetan dugun estimagarriena pertsonak dira, eta haiengandik duten baliotsuena lortzeko trebetasuna landu behar dugu, eta hori ez da duten indar fisikoa, eta ezta obeditzeko eta atazak errepikatze gaitasuna ere”<sup>1118</sup>. Saratxak dioenez, “fisikoa, eskuzkoa, errepikakorra, langileek eta enplegatuek, eta erantzukizun-maila bat duten askok ezagutzen dutena bakarrik kudeatzen bada, erraz ulertzen da zergatik bilatzen dituzten enpresari eta zuzendaritzako horiek guztiek Txinan, Marokon, Polonian edo Errumanian lehiarako abantailak”<sup>1119</sup>.

Saratxagaren arabera, eraginkortasuna handiagoa helburu duen enpresako dinamiken aldaketa gauzatzea zilegi da kostuak handitu gabe, eta horixe da Saratxagaren proposamenen helburua: “Enpresa txiki eta ertainetako ugazabei eta exekutiboei, benetan gure herriko errealitate dinamikoenak direnei, esaten diet: *izan zaitzte egoistak, emaitzkiezue aukerak, zeren kostu berean askoz balio handiagoa ekarriko dizuete*”<sup>1120</sup>. Saratxagak lehentasuna kendu nahi dio diru irabazien banaketaren gaiari: “Trauli egin nahi dut kontzeptu hau: Lana = Soldata. Horrela ausartuko nintzateke esatera: Sorkuntza = Emaitzak = Uzta” eta horren ordez lehenetsi egin nahi du merkatuan ondo dabilen enpresa baten kide izatearen fideltasuna: “Pertsonak harro sentitzea da

<sup>1114</sup> Albizu & Olazarán & Simon, 2003.

<sup>1115</sup> Saratxaga, 2007, 21 eta 28 or.

<sup>1116</sup> Idem, 29 or.

<sup>1117</sup> Idem, 33 or.

<sup>1118</sup> Idem, 47 or.

<sup>1119</sup> Idem, 144 or.

<sup>1120</sup> Idem, 63 or.

kontuan. Esan ahal izan dezatela eta esan dezatela: harro nago nire gaitasunak beste lagun askorekin batera garatzearen truke, ikastea, arrakastazko lorpenak erdieste eta nire diru-sarrerak lortzea ahalbidetzen didan leku bateko, proiektu bateko partaide izateaz”<sup>1121</sup>. Saratxagaren arabera, “parte izatearen harrotasunak lorpen handiago batekiko motibazioa eta interesa handitu egiten ditu”<sup>1122</sup>. Baina Saratxagak uneoro egitasmo enpresariala du hizpide, ez bestelakorik. Merkatu arloko lehiakortasuna da helburua. Beste guztia horren arabera da.

Aginte moduari dagokionez, Saratxagak zalantza izpirik gabe dio “lidergo bateratzailea” behar dela enpresen dinamika aldatzeko eta eredu berrira egokitzeko<sup>1123</sup>. Halaber, Saratxagaren arabera, “talde batek beti lider bat, erronka bat eta epe bat [ditu]”<sup>1124</sup>. Baina aldi berean Saratxagak azpimarratu egiten du “kontua ez [dela] batzuek pentsatu, erabaki eta kontrolatzea eta beste batzuek lanak errepikatuz egitea, eginkizun monotonoan jardunez”, horrela nekez lortuko bailukete partaidetza aktiboa sustatzeko funtsezkoa den erkidego sentsazioa<sup>1125</sup> eta “konfiantza ezinbestekoa da pertsonen arteko jarduerak benetan eraginkorrak izan daitezen”<sup>1126</sup>. Buruzagiek langileekin izan behar duten harremanean “garrantzitsuena konfiantza izatea da”, Saratxagaren arabera, “organizazioen euskarria da”<sup>1127</sup>. Saratxagaren arabera, enpresan parte hartzen dutenen “aniztasun hori balio bihurtzea da kontua”<sup>1128</sup>. Izan ere, “berrikuntza, berria denaren posibilitateak, areagotu egiten dira pertsonen arteko konexioen bidez (...) Lankidetzaren prozesu bat da, komunikazioak berebiziko garrantzia duena”<sup>1129</sup>. Saratxagak dio “jakintzaren sorkuntza handiena talde-lanetik [datorrela]; hau da, esperientzia partekatutik. (...) Jakintza, boterea da. Organizazioen boterea bertan lan egiten duten pertsonen boterearen batura da. (...) Zer enpresari edo exekutibori ez zaio interesatzen bere enpresak jakintza gehiago eta beraz botere handiago izatea?”<sup>1130</sup>. Hori lortu ahal izateko teknika egokiena talde lana da. Saratxagaren hitzetan: “egitura hierarkikoak lekua utzi behar dio talde-lanari”<sup>1131</sup>. Taldeak dira langileen “askatasun guneak”<sup>1132</sup> eta funtsezkoak dira “pertsonen barruan daramaten guztia eman dezaten”<sup>1133</sup> baina “talde horiek dira beren arloko bezeroarekin zerikusia duen guztiaren arduradunak eta harreman-eredu berrian parte hartzen duten ahalik eta pertsona gehienaren konplizitate lortzen saiatzen dira, eta badakite haiek, Presidente eta Koordinatzaile Nagusia bezalaxe, besteen zerbitzuan daudela eta ez alderantziz”<sup>1134</sup>.

Terminologiari ere garrantzi handia ematen dio Saratxagak. Esate baterako, *langile* terminoa baztertzea proposatzen du, automatikoki ugazaba-langile bereizketa ekartzen duelako gogora eta Saratxagak dioenez “buruzagien eta langileen arteko bereizketak zentzua galdu zuen, (...) *buruzagi* direlako horiek ere, langileak direlako, erantzukizun jakin batzuekin, beste guztiak bezalaxe”<sup>1135</sup>.

---

<sup>1121</sup> Idem, 139 or.

<sup>1122</sup> Idem, 140 or.

<sup>1123</sup> Idem, 47 or.

<sup>1124</sup> Idem, 81 or.

<sup>1125</sup> Idem, 41 or.

<sup>1126</sup> Idem, 48 or.

<sup>1127</sup> Idem, 133 or.

<sup>1128</sup> Idem, 42 or.

<sup>1129</sup> Idem, 110 or.

<sup>1130</sup> Idem, 93-95 or.

<sup>1131</sup> Idem, 45 or.

<sup>1132</sup> Idem, 55 or.

<sup>1133</sup> Idem, 129 or.

<sup>1134</sup> Idem, 82 or.

<sup>1135</sup> Idem, 23 or.

Saratxagaren diskurtsoan bezeroa da erreferentziazko ikurra: “bezeroaren fideltasuna lortzea azken helburutzat [hartu behar dugu]. Hauxe da bezeroa integratzea deituko nukeena: organizazio osoan, ahalik eta pertsona gehienek senti dezatela parte aktiboa direla, senti daitezela beharrezkoak bezeroaren gogobetetzera”<sup>1136</sup>.

Hortaz, sintetikoki esatearren, Saratxagaren proposamenak enpresaren lehiakortasuna handitu nahi du baina enpresaburuek beren gain hartzen duten kostua handitu gabe. Horretarako enpresako langileen gaitasuna ahal bezain beste ustiatzea da gakoa. Izan ere, gaur egun soilik fisikoa ez den lanak gero eta garrantzi handiagoa du eta hori enpresaren mesedetan mugiarazten jakitean datza enpresen lehiakortasunaren oinarria. Lidergoa eramango duen buruzagitzak erabaki eta ezarri behar ditu enpresaren helburuak eta aldi berean langileen artean konfiantza giroa sustatu behar du, erkidego bat osatzaren sentsazioa, langile guztiek beren baitan daramaten gaitasun potentziala enpresaren onerako erabil dezaten. Taldeka banatu behar da lana. Taldeari helburua ezarriko dio buruzagitzak baina taldeak asmatu behar du nola bete helburua. Bezeroa da langileek kontuan hartu behar duten erreferentzia. Enpresaren xedeak betetzen direnean, langileei ere aitortu behar zaie beren balioa baina ez du zertan kostuan eraginik izan behar.

Kudeaketa moda posfordisteki buruzko hainbat analisi kritiko aurki ditzakegu<sup>1137</sup>. Azkarragaren<sup>1138</sup> arabera, adibidez, arriskutsua da enpresen moda berriaren zati handi bati darion oportunitate pragmatikoa eta etikaren instrumentalizazioa. Boltanskik eta Chiapellok<sup>1139</sup> ere ikuspegi kritikoa dute kudeaketa modekiko. Boltanskik eta Chiapellok diotenez, enpresa kudeaketarako literaturan ohikoa da garai bakoitzean sortzen den kudeaketa moda berriak aurreko epeari dagokion diskurtsoa eta praktikak kritikatzeko, baina funtsean kudeaketa proposamen hauek, kapitalismoaren izpiritu garaikidearen isla diren heinean, langilearen atxikipena lortzea dute helburu. 1960ko hamarkadako testuek hainbat alorretan familia ereduko kapitalismoa maiseatzen duten bezala, 1990eko hamarkadako testuek hierarkia eta planifikazioa ardatz zituzten enpresa erakunde erraldoiak larrutzen dituzte hainbat alorretan. Izan ere, Boltanskik eta Chiapellok diotenez, langileari egokitu zaion zereginean ahal bezain motibatuta lan egitea nahi dute unean uneko kudeaketa modek. Une historiko bakoitzean eraldatu egiten da diskurtsoa, garaian garaiko testuinguru sozio-politiko-sinboliko-kulturala kontuan hartu behar baitu, agian aldatu egiten dira bitartekoak, baina azken xedea prozesu kapitalista ahal bezain modu eraginkorrean legitimatzea da.

Lan indarra mugiaraztea eta norbanakoen motibazioa sustatzea izan da hastapenetatik enpresa kudeaketarako literaturaren kezka nagusienetakoa, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>1140</sup>. 1960ko hamarkadan koadroak motibatzea zuten helburu, baina 1990eko hamarkadatik aurrera enplegatu guztiak bihurtuko dira literatura honen begipuntuaren xede. ISO eta EFQMaren proposamenak joera horren azken muturra direla dirudi: motibazioa eta ardura enpresako enplegatu guztiei maila berean esleitzen diete.

---

<sup>1136</sup> Idem, 80 or.

<sup>1137</sup> Orain arte aipatu ditugunen artean daude, besteak beste, Castillo eta López: *Los obreros del Polo...*, Hardt eta Negri: *Imperio* eta *Multitud*, Imaz: *Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida*, Lahera: *La participación de los trabajadores en la democracia industrial*, Paniagua: *Calidad Total...*, Sennett: *La corrosión del carácter...*

<sup>1138</sup> Azkarraga, 2007.

<sup>1139</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 106 or.

<sup>1140</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 104 or.

ISO agiriek nahiz EFQM ereduak Taylor-en ereduak erabiltzen dute kritikarako erreferentzia bezala. Hura oso okerra dela argudiatzen dute eta propio saiatzen dira taylorismoarekiko ezberdintasunak ahal bezain beste nabarmentzen. Azken kudeaketa modak sustatzen dituen literaturan mota askotako kritikak aurki daitezke, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>1141</sup>, 1960ko hamarkadan hasi ziren hainbat kritika berreskuratu dituztelarik: enpresen erraldoikeria eta horrek sortzen dituen kudeaketa arazoak, zentralismoaren ondorioz langile guztien potentzialtasuna ez baliatzen jakitea, ugazaba tradizionalen xuhurkeria, autoritarismoa eta arduragabezia, planifikazioaren eta lan dinamikaren zurruntasuna, bezeroaren behar indibidualizatuak ez kontuan hartzea, besteak beste.

Arazo horien aurrean kudeaketa moda garaikideek hainbat irtenbide aldarrikatzen dituzte, Boltanskik eta Chiapellok diotenez: besteak beste, deszentralizazioa, meritokrazia, helburuen arabera zuzendaritza, lan dinamikaren malgutasuna, bezeroen eskaera indibidualizatuak kontuan hartzea, lehiakideen mugimenduei oso adi egotea, aldaketa etengabeko prest egotea, berrikuntzarako gaitasuna, langile bakoitzak bere zereginaren ardura osoa bere gain hartzea horretarako zuzendarien beharrik izan gabe, zuzendarien ordean manager-ak egotea. Gainerako enpresekiko lehiakortasuna eta bezeroaren eskaeretara egokitzeko gaitasuna diskurtsoen ardatz bihurtu dituzte. Halaber, sarean lan egiten duten enpresa *arinak* eta *malguak* bezeroaren esanetara jarri behar direla argudiatzen dute, helburukako eta taldekako dinamikaren bitartez. Horrez gain, ezinbestekoa da enpresako buruzagien ikuspegiak eraginkortasunez ahalbidetzea enplegatu guztien motibazioa; langileak mugiarazi egin behar dituzte beren onena eman dezaten, beren potentzialtasuna ahal bezain beste baliatzeko asmoz, produktu edo zerbitzuetan egon daitezkeen akatsei aurre hartuz eta beren lanaren ematei ahal bezain besteko balioa erantsiz. Gaur egungo kudeaketa moden arabera, enpresa eredu garriena erakunde malgu eta arin bat litzateke, inguruan litzazkeelarik hornitzaile sareak, azpikontrata, zerbitzu emaileak, behin-behineko enplegatuak, lankidetzarako prest dauden enpresak. Sarearen metaforak laburbiltzen ditu asmo hauek guztiak, Boltanskik eta Chiapellok diotenez.

Gainerako kudeaketarako literatura gairikidearen haritik (Just In Time, Kalitate Osoa, hobekuntza jarraia, ekoizpen talde autonomoak, kalitate zirkuluak, KanBan, 5Sak, besteak beste), ISOk eta EFQMak proposatzen dutena funtsean bat dator Taylor guru aitziandariak proposatutakoarekin: enpresako kide guztiak gogotsu saiatzea beren produktu edo zerbitzuen kopuru eta kalitate handiagoa lortzen ahal bezain merke eta ahal bezain denbora gutxian. Teknikak, ordea, ezberdinak dira. Bezeroa, merkatuaren sinonimoa, da ekoizpen prozesuaren gidari eta, hortaz, lan jardueren agintari. Merkatuaren esana da nagusi. Espezializazio malguaren bitartez taldekako lankidetzaz eta bakoitzak ardura osoz jokatuz erantzun behar zaio bezeroaren eskaerari, bere beharretara egokituz.

Enpresa kudeaketaren historia, dominazio tekniken sofistifikazioaren historia bezala har daiteke, Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>1142</sup>, eta enpresa kudeaketarako literatura horren isla litzateke. Pertsonak dira dominazioaren helburu nagusi. Enpresaren estrategia landu zenean, merkatuen eta lehiakideen kontrola jorratu zuten. Marketinarekin garatu zuten banaketa zirkuituen eta bezeroen erosketaren ohituraren ezagutza. Erosketen kudeaketarekin landu zuten hornitzaileen kontrola.

<sup>1141</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 107-134 or.

<sup>1142</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 127-152 or.

Harreman publikoak jorratuz hedabideak eta botere politikoak izan zituzten helburu. Eta enplegatuen arloa nola jorratu izan da izar: taylorismoak, esate baterako, enpleguak kontrolatzea zuen helburu, eta helburukako zuzendaritzak koadroak kontrolatu nahi zituen. 1990eko hamarkadan enplegatuen motibazioa eta kontrola dira kezka nagusiak. Proposatzen duten irtenbidea autokontrola da. Enplegatuen testuingurua ere aldatu egin da: lehen, arau zehatzetara doitu gero, karrera egiteko aukera zegoen; orain aldaketaren, arriskuaren eta mugikortasunaren apologia dira jaun eta jabe. Hau guztia eskaintzen dute gaur egungo enpresa kudeaketarako modak. Agian eskaini baino eskatu esan beharko genuke. Langileari eskatzen zaizkionak aipatzeko zerrenda oso luzea egin behar da: autonomia, malgua, mugikorra, gaitasun mota asko eta handikoa, lankidetzarako egokia, sortzailea, berritzailea, lanerako beti prest dagoena, ezberdintasunerako sentsibilitatea duena, intuitiboa, besteak beste. Kudeaketa moda garaikideek erabateko konpromisoa eskatzen diote langileari. Langilearengandik hori lortu ahal izateko dispositibo berriak erabiltzen ditu, dominaziorako teknika sofistikatuagoak baliatuz. Pertsonen baitan sakonago sartzen da dominazioa, pertsonengandik sakonago den zerbait lortu nahi duelako. Langileak buru-belarri murgiltzea nahi dute. Gizabanakoa lanerako inoiz baino tresna eraginkorragoa bihurtu nahi dute kudeaketa moda garaikideek, Boltanskik eta Chiapellok diotenez.

Kapitalismoaren izpiritu garaikidearen ispilu dira hauek guztiak. Garai bateko kritika indartsuari erantzuteko sortu ziren moda berriak, eta kritika ikaragarri ahultzea lortu zutenetik aurrera, beren bidea egin dute. Boltanskik eta Chiapellok diotenez<sup>1143</sup>, kapitalismoaren izpirituak beti bezala soldatapekoen lankidetzara lortu nahi du kapitalaren etekina ahalbidetzeko, baina lehen, langile mugimenduaren presioari esker, garapen ekonomikoa justizia sozialari lotu behar izan zuen kapitalismoaren izpirituak, artean gaur egun subjektu indibidualean duelarik ardatz, errendimendu pertsonala eta mugikortasuna bezalakoak nabarmenduz.

Intentsitate eta izaera aldakorrarekin bada ere, erresistentzia mekanismoen erabilera ohikoa da eta bitarteko hauen erabilera etengabeak frogatzen du komunikazio eredu tradizionalak hartzaile pasibo soiltzat duena, aktore sortzailea dela eta edozein azterketak gehienbat hura hartu beharko lukeela aintzat, azken batean irakurleak eraikitzen duelako bere testuingurutik igortzen zaizkion mezuen esanahia, beti ere indar harremanen arabera.

Kudeaketa modekiko hainbat jarrera aurki ditzakegu: a) babesa, promozioa eta konpromisoa, b) onarpen hutsa, c) indiferentzia eta pasibotasuna, d) erresistentzia inplizitua, e) erresistentzia esplizitua<sup>1144</sup>.

Lahera-ren<sup>1145</sup> arabera, kudeaketa modek duten eragina ez da alde bakarrekoa. Batetik, Laherak dioenez, lanaren kudeaketa modak langileak kontrolatzeko eta mugiarazteko antolakuntza eta ideologia paradigmak dira, zeren kudeaketa moden helburua enplegatuen lan indarra enpresarentzat lan eraginkor bihurtzea baita, baina horren aurrean langileak beren partaidetza autonomorako eremuak zabaltzen saiatzen dira beren arau informalen bitartez eta horrela lortzen dute a) beren jardueraren eta lan erritmoaren gaineko kontrola neurri batean berreskuratzea, b)

<sup>1143</sup> Boltanski & Chiapello, 2002, 299-300 or.

<sup>1144</sup> Intxausti & Elola & Larrañaga & Mujika, 1999.

<sup>1145</sup> Lahera, 2004, 124 or.



lan indarraren kudeaketarako dispositibo berrien emaitzen kaltegarrien aurrean ekoizpenaren burujabetza maila bat mantentzea, c) beren zereginak berdefinitzea lana gauzatzeko prozedura formalak lanaren testuinguru errealerara egokitu daitezzen, d) beren kompetentziak eta autonomia areagotzearen truke lortzen dituzten ekarpenak handitzea, e) ekoizpenaren kudeatzaile adituen nortasun kolektiboa mantentzea. Baina bestetik, Laherak dioenez, langileen jarrera honek mesede ere egiten dio kudeaketa moden sustatzaileei, enpresaren ekoizpena eraginkorragoa bihurtzen baita langileen ekimenari esker. Ondorioz, Laheraren ikuspegitik, kudeaketa modak zeharka bere helburuak lortzen ditu.

Baina langileen erantzunaz gain kudeaketa modek bestelako arazoak ere badituzte gaur egun. Casadesús eta Gimenez-ek<sup>1146</sup> diotenez, kudeaketa moda hauek arrakasta izan dutela defendatzen dutenen artean, analista bakoitzaren arabera errotik aldatzen da, esate baterako, ISO 9000 ziurtagirien aplikazioak enpresetan egiten duen mesedea: batzuek barne mailan eta besteek kanpora begira egiten dutela gehienbat mesede uste dute. Hala ere, badira ISO 9000 ziurtagirien aplikazioak behar adina eman ez duela uste dutenak ere: ziurtagirien kopuruak gora egin arren, barne dinamiken eta produktuen kalitatea hobetzeko baino, arrazoi komertzialengatik lortutako ziurtagiria dela aitortzen dute enpresa ugari, nahiz eta badiren batzuk enpresaren zenbait ezaugarri *hobetu* dituztela esaten dutenak. Hala ere, gure inguruko enpresetan Casadesús eta Heras-ek egindako ikerketen arabera<sup>1147</sup>, bezeroen eskariz edo enpresaren kalitate irudia aldatzeko asmoz aplikatzen dira ISO 9000 ziurtagiriak kasu gehienetan, eta barne motiboek ez dute paper garrantzitsuegirik izaten; hau da, prozesuen, prozeduren eta enplegatuen hobekuntza kualitatiboa ez da gehiegi aldatzen kudeaketa modak hau aplikatzerakoan. ISO 9000 ziurtagiriek bereziki praktika egokiak daramatzaten enpresei egiten omen diete mesede. Abian diren dinamikei izena emateko balio dute, beraz, ziurtagiriek. Enpresa batzuk besteek baino eragin positibo nabariagoa badute, hortaz, ez da ISO 9000 ziurtagiria aplikatzerakoan hobeto moldatu direlako, baizik eta aurretik funtzionatzen zuten dinamikak eraginkorragoak zirelako.

---

<sup>1146</sup> Casadesús & Giménez, 2001a.

<sup>1147</sup> Casadesús & Heras, 2001b.

## IV. Prekarizazio estratifikatuaren belaunaldia

Elkarrizketaren teknika erabili dugu tesi honetarako informazio enpirikoa jasotzeko. Atal honetan, lehenik eta behin, teknika hori nola gauzatu dugun azaltzen saiatuko gara, horretarako lehenengo urratsa ikuspegi metodologikoa argitzea izango delarik. Ondoren, elkarrizketa egiteko moduari buruzko xehetasunak eta elkarrizketatuen ezaugarriak izango ditugu hizpide. Horren segidan, elkarrizketatuen diskurtsoak aztertuko ditugu. Joera nagusiak analizatuko ditugu, baina horiekin batera baita diskurtsoen artean dagoen aldea ere.

### 1. Elkarrizketaren erronkak

#### 1.1 Soziologoaren erronkak

Soziologoak zentzuzkoak diren baieztapenak kolokan jartzen baditu, dio Bourdieuk<sup>1148</sup>, berehala agertuko da harekiko susmoa. Agian leporatuko zaio aurreiritzi ideologikoei men egin diela edo alderdikieriaz jokatu duela<sup>1149</sup>. Arrisku hori egon, badago, azterketa oro ekoizten baita posizio sozial batetik, baina analisiak arrisku hori kontuan hartuz egiten ez badira, alternatibak askoz okerragoak dira: arrisku hori ez balego bezala jokatzea edo, bestela, analisirik ez egitea. Analisi teoriko ezak munstroak ernetzen ditu, Bourdieuren iritziz. Analisisirik gabe, esloganak eta propaganda indartzen dira. Dominazio sinbolikoari bidea libre uzten zaio. Horrexegatik, arriskuak arrisku, ikerketa soziala beharrezkoa da Bourdieuren ustez, baita eremu pribatuetan ere, baina beti ere kontuan hartuta analisi teorikoak ere eragin ditzakeela eslogana eta propaganda.

Hortaz, Bourdieuren<sup>1150</sup> arabera, ikerketa sozialaren helburua izkutuko dinamika sozialak azaleratzea eta azaltzea da. Bourdieuren iritziz harreman sozialak hobeak liriteke baldin eta pertsonak ezagutu eta kontrolatuko balituzte beren miserietara bideratzen dituzten dinamikak. Ezagutzen ez den araua, patua balitz bezala hartuko da. Identifikatu daitekeen araua, berriz, askatasun esparru bat irabazteko aukera bezala ager daiteke, Bourdieuren aburuz<sup>1151</sup>. Gauzatzeo probabilitate handienak dituen aukera ezagutzeak ahalbidetu dezake probabilitate txikienak dituen aukerak aurrera egiteko parada izatea. Probabilitatea ezagutzeak errazten du posibilitatea, nahiz eta aukera horrek zaila izaten segitzen duen. Mundu sozialak egin duena, mundu sozialak desegin dezake. Bourdieuren arabera<sup>1152</sup>, bizitza mingarri eta batzuetan onartezin bihurtzen duten dinamikak kontzientera ekartzeak ez du esan nahi dinamika horiek neutralizatzen direnik, baina diskurtso soziologikoarekiko konfiantza eskasa izan arren, Bourdieuren iritziz onartu egin beharko litzateke dinamika hauek azaleratzea ez dela guztiz alperrikako lana.

<sup>1148</sup> Bourdieu, 2000a, 13-18 or.

<sup>1149</sup> Bourdieu, 2000a, 25 or.

<sup>1150</sup> Bourdieu, 2000a, 35 or.

<sup>1151</sup> Bourdieu, 2000a, 45-46 or.

<sup>1152</sup> Bourdieu, 1999d, 559 or.

### 1.1.1 Ekoizpen zientifikoaren ezaugarriak

Ikuspegi sozialak eta historiak badintzatzen dute egia oro (zientziaren aurkikuntzak barne), eta, ondorioz, ezagutza oro da ikergai. Horixe da Bourdieu-ren<sup>1153</sup> ikuspegia. Merton-ek Copernicorengandik hartutakoak ditu oinarri.

Bourdieuaren ikuspegiaren arabera, zientziaren mikrokosmosa egon, badago, baina aurkikuntza zientifikoak ekoizpen sozialak dira. Zientziaren eremuan ere borroka latzak daude eremuak eskaintzen dituen baliabide mugatuak eskuratzeko. Eremu honetan dauden indar harremanak mantentzea edo aldatzea dira ekimen ororen xede, nahiz eta eremu zientifikoaren gatazkan arma oso partikularrak erabiltzen diren. Azken batean, ekoizpen zientifikoak posizio bakoitzaren habitusaren arabera eta, aldi berean, eremuaren egiturazko inposaketaren arabera eraikitzen dira. Hortaz, Mertonen zientziari buruzko balioak (erkidego zientifikoaren lanen objektibotasuna, originaltasuna eta erabilgarritasuna) eta printzipioak (unibertsalismoa, erkidegotasun intelektuala, desinteresa eta eskeptizismoa) uneoro hausten dira. Berdina gertatzen da, noski, Mertonek aipatutako arauekin: unibertsalismoa, erkidego intelektuala, desinteresa, eskeptizismoa, eta mekanismoak errazteko kontrola, komunikazioa, ebaluazioa, ordainketa, erreklutamentua eta irakaskuntza). Erkidego zientifikoan ohikoak dira aurkikuntzak lortzeko borroka latzak, disimulu handiko edo txikiko plagioak, farolak, eta inposaketa sinbolikoak, besteak beste.

Bourdieuaren<sup>1154</sup> arabera, praktika zientifikoarekiko hausnarketak ez du landu behar *egiazko* zientzia, *egiten ari den zientzia* baizik, berariazko *zorrozatasuna* helburu, ez araudi betierekoen bila. Bourdieuk dio ezinezkoa dela pentsamendu benetan zientifikoaren baldintzak *a priori* ezartzea. Bachelard-i jarraiki, Bourdieuk dio zientifikotasuna konkistatu egiten dela, eraiki, egiaztatu, eta, beraz, baztertu egiten ditu, batetik, ekintza zientifikoa egiaztatze huts bezala hartzen duen enpirismoa eta, bestetik, ekintza zientifikoa eraikuntzaren aurkakotzat aurkezten duen konbentzionalismoa.

Bourdieu dioenez, zaintza epistemologiko zorrotza ezinbestekoa da batik bat ohiko iritzien eta diskurtso zientifikoaren arteko bereizketa lausoa denean, baina, nolahi ere, inoiz ezin da oinarritu *zientziaren objektibotasuna* bezalako euskarrietan. Ikergai den objektua beti definitzen eta eraikitzen da *problematika teoriko* baten arabera, honek ahalbidetzen baitu sistematikoki aztertzea aukeratutako fenomenoek harremanetan jartzen dituzten errealitateen ezaugarriak. Errealitateak inoiz ez du lehenengo urratsa ematen. Galdetzen zaionean bakarrik erantzuten du. Prozesu zientifikoan hipotesien eta esperientzien arteko harremana inoiz ez da simetrikoa. Gainera, gertaera zientifikoa konkistatu, eraiki eta egiaztatu egiten dela baieztatzeak ez du esan nahi ekintza epistemologiko hauek kronologikoki hurrenez hurren egiten direnik. Edozein ikerketak azaltzen dituen gertaerak ezinbestean ikerketa horren teoriari lotuta daude. Gertaera zientifikoaren izaera hori galdu egiten dute baldin eta teoriatik bereizten badira. Praktikaren arloko operazioen balioa beti da praktiken oinarrian dagoen teoriaren balioaren parekoa. Arrazoiak lehentasun epistemologikoa du, esperientziaren gainetik. Itxuraz ikerkuntza teknika neutralena denak ere bere baitan darama eremu sozialari buruzko teoria. Praktikari lotuta teoriaren existentziarekiko kontzientzia txikiagoa denean, aukera handiagoak daude harekiko kontrola are gehiago galtzeko

<sup>1153</sup> Bourdieu, 1997, 85-90 or.

<sup>1154</sup> Bourdieu, 1989.

eta, ondorioz, ikergai den objektuarekiko egokitu ez dadin. Honek guztiak berdin balio du ikerkuntza teknika guztientzat. Honenbestez, Bourdieuk bat-bateko epistemologiaren aurka egiten du eta, beraz, baztertu egiten ditu positibismoa eta intuizionismoa.

### 1.1.2 Haustura epistemologikorik ez dago

Frantziako intelektualei buruz egin zuen ikerketan, esate baterako, Bourdieuk<sup>1155</sup> erakusten du intelektual guztiek daukatela loturak eta sustraiak, pasioak eta interesak, posizioak eta, beraz, ikuspegiak eta hankasartzeak. Bourdieuk horrela onartzen du ez dagoela haustura epistemologikorik.

Hala ere, analisiak aukera batzuk ere eskaintzen ditu. Izan ere, Bourdieuren<sup>1156</sup> aburuz, praktika denboraren lerroan gauzatzen da, baita analisisa ere, baina denborarekiko beste begirada bat ahalbidetzen du. Bourdieu-k<sup>1157</sup> dioenez, analistak mundu sozialaren jokoak aztertzen duenean, mundu sozialean jokoaren presa dago eta normalean analistak ez dauka jokoaren presarik, ez behintzat aztergai duen jokoaren parekoa. Jarrera honek azterketarako aukerak zabaltzen badizkio ere, aldi berean analista jokoaz kanpo gelditzen da eta aktorearen eta behatzailearen ikuspegia nahasteko joera du, Bourdieuren iritziz. Horrez gain, haustura epistemologikorik ez dagoenez, beste eremu sozial batzuetan jokalaria izateari ez dio uzten.

Hau guztia dela eta, analistaren eredu abstraktua baliagarria izan dadin, Bourdieuren<sup>1158</sup> iritziz derrigorrezkoa da analistak argi eta garbi esatea bere analisi teorikoa praktikarekiko arrotza dela, nahiz eta analisisa praktikari buruzkoa izan. Bourdieuren ustez ezinbestekoa da analistak esplizituki aitortzea bere eredu abstraktua eraikin teoriko bat dela.

Horrexegatik, Bourdieuren<sup>1159</sup> arabera beharrezkoa da analistaren eskema perfektuekiko mesfidantza. Mundu soziala, gertaera etengabeen uholde bat da eta, beraz, analistak mundu sozialaren errepresentazio bat aurkezten duenean, ezinbestean mutilatzen du. Analistak mundu sozialari begirada baten kategoriak ezartzen dizkio. Mundu sozialaren *continuum*-a eten egiten du. Analistak beti eraikin teorikoak egingo ditu. Mundu sozialaren errepresentazioak dira, ez mundu soziala bera. Hala ere, eraikin teorikoak ekoizpen soziala diren heinean, eraikin teorikoak ere mundu sozialaren parte bihurtzen dira<sup>1160</sup>.

### 1.1.3 Metodo kualitatiboa

Cardenal-ek<sup>1161</sup> dioenez, Conde-ren arabera metodo kuantitatiboek eta kualitatiboek bi operazio epistemologiko ezberdinei erantzuten diete eta, beraz, baita metodologia eta teknologia ezberdinei ere. Ikuspegi kuantitatiboa erabili behar da gertaera sozialak fenomeno neurgarri bezala hartu

<sup>1155</sup> Bourdieu, 2004, 232 or.

<sup>1156</sup> Bourdieu, 1991, 142 or.

<sup>1157</sup> Bourdieu, 1991, 140-141 or.

<sup>1158</sup> Bourdieu, 1991, 175 or.

<sup>1159</sup> Bourdieu, 1991, 144 or.

<sup>1160</sup> Ikus 2.1.4 *Kapital sinbolikoa* atala.

<sup>1161</sup> Cardenal de la Nuez, 2006, 121 or.

nahi direnean, operatiboki definitu eta zehazki kuantifikatzeko. Helburua da fenomenoaren hedapen eta maiztasuna ezagutzen lagunduko duen abstrakzio maila batera eramatea, fenomenoaren praktika sozialek duten zentzia eta esanahia baztertuz. Aitizik, interesgunea fenomeno sozialen esanahia eta motibazioa aztertzea bada, aktoreek beren errealitatea nola interpretatzen duten eta beren arrazionaltasun praktikoa nola eraikitzen duten analizatzea bada, metodo kualitatiboak erabili behar dira.

## 1.2 Elkarrizketaren erronkak

Elkarrizketatuen ibilbidea ikertzeak ez du esan nahi beren bizitzak helburu baterantz bideratutako ibilbidetzat hartzen ditugunik, Bourdieu-k<sup>1162</sup> dioenez. Elkarrizketatuak zentzia eraikiz narratzen ditu gertaera-kateak. Kausak eta efektuak bere ikuspegitik azaltzen ditu. Elkarrizketatua bere bizitzaren ideologo bihurtzen da. Elkarrizketatuaren iritziz elkarrizketa egoera batean esanguratsuak eta kontatzeko modukoak diren gertaerak bakarrik hautatzen ditu. Ariketa hau egitean, ni-a bateratzen du: bizitzaren gertaerak narrazio bihurtzen ditu. Ezin da ahaztu nor bere bizitza aurkeztean, errepresentazio pribatu baten aurkezpen publikoa egiten ari dela, ofizializazioa alegia. Errepresentazio pribatuak dagoeneko badauzka hainbat koertzio eta zentsura eta, beraz, errepresentazio pribatua publikoki eskaintzen denean, pertsona bakarrari bada ere (kasu honetan elkarrizketatzaileari), publiko egitearen pausoak koertzio eta zentsura gehigarria suposatzen du. Hau guztia kontuan hartuta, soziologoak bizitza ibilbideak gutxienez bere testuinguruan analizatu behar ditu. Analistak ezin du soilik elkarrizketatuak esandakoa kontuan hartu. Bestela, metroan egindako bidaia bat sarea aintzat hartu gabe analizatzea bezala izango litzateke. Gertaera biografikoak epe baterako inbertsioak eta espazio sozialeko mugimenduak dira: eremu bakoitzeko kapital-jokoaren gorabeherak.

## 2.1 Sondeoen arazoak

Bourdieu-en<sup>1163</sup> arabera, sondeoez zientzia sozialen ideari erantzun nahiko liokete, baina ez dute hori egiten. Sondeoen galderak bezeroak ezartzen ditu neurri batean. Gainera, ezin da edonor bezero izan, beharrezkoa baita sondeo bat finantzatzeko diru nahikoa. Sondeoa, beraz, kapital ekonomikoaren eta sinbolikoaren jabetzari loturik ulertu behar da. Gehienbat estatuek eta bere azpiadministrazioek, hedabide arloko enpresek, enpresa handiek eta alderdi politiko indartsuek finantzatzen dituzte sondeoa. Bezeroak galderen diseinua orientatzea ohikoa den arren (zenbaitetan baita erantzunena ere), horrek ez du esan nahi dinamika hornek zerikusia duenik zientzia positibistaren printzipioekin. Ondorioz, Bourdieu-en arabera, sondeoez sarri neurketa tresnaren eraginak sortutakoaren emaitza besterik ez dute neurtuko. Ikertzaileak elkarrizketatuei arazo multzo bat inposatzen die, nahiz eta maiz elkarrizketatuek ez duten hartzen arazo multzo hori beren arduratzat, eta, hala ere, elkarrizketatu ugari erantzun egiten dute (sumisioagatik, indiferentziagatik edo beste asmoren bategatik agian). Bourdieu-en iritziz oso kontuan hartzekoa da merkatuak inkesten egileekiko daukan koakzio indarra. Halaber, presaren eragina ezin da

---

<sup>1162</sup> Bourdieu, 1997, 74-83 or.

<sup>1163</sup> Bourdieu, 1987, 185-191 or.

gutxietsi, Bourdieuk esaten duenaren arabera. Era berean, Bourdieuren aburuz, aintzat hartu beharra dago ikerketa egiten duen enpresak enplegatuta dauzkan langileen gaitasun maila.

Hildo beretik kritikatzeko du Bourdieuk<sup>1164</sup> Zientzia Politikoa. Objektibismoaren itxurak egin nahi izaten dituelako, baina funtsean politikarien iritziak jaso eta zientzia itxurarekin bueltatzen dituelako. Bourdieuk dioenez, zientzia itxura ematea da despolitizaziorako teknika eraginkorrenetako bat, eta despolitizazioa prozesu guztiz politikoa da. Bourdieuren iritziz, botere sinbolikoa onartzeko teknika oso eraginkorra da. XVIII. mendeko Frantzian *iritzi publikoa* deiturikoa talde sozial txiki baina indartsu baten iritziaren adierazpena zen. Gaur egun sondeok ere funtzio hori betetzen dute, Bourdieuk dioenez.

Hala ere, arazoa ez da soilik sondeoa, Bourdieuren<sup>1165</sup> arabera. Metodologia positibistaren baitan kokatzen du Bourdieuk akatsaren funtsa. Metodologia positibistak *aldagai independente* deitzen dituen horietan sinesteko, Bourdieuren iritziz, derrigorrezkoa da ez kontuan hartzea *azalpena emateko balio duten faktoreak* egia esan *botereak* direla eta soilik eremu batzuetan erabil daitezkeela, borroka sozialen produktu baitira eta borroka horien ondorioen bitartez ezartzen baitzaie *prezio soziala*. Borroka sozialik gabe ez lirateke *faktore* edo *aldagai independente* bihurtuko. Bourdieuren<sup>1166</sup> arabera, aldagai independente guztiak sozialki eraikiak dira eta beti izkututzen dituzte azpilotura konplexu eta ugariak.

## 2.2 Bourdieuren proposamenak

Edozein inkesta mota (dela itxia, etnologiararena, elkarrizketa, eta abar) harreman sozial bat da eta, beraz, makina bat distorsio suposatu behar zaizkio, Bourdieuren<sup>1167</sup> iritziz. Positibisten ametsetako xalotasun epistemologikoa ezinezkoa da. Alderantzizkoa aholkatzen du Bourdieuk: beharrezkoa da datu bilketan hausnarketarako jarrera sendoa izatea. Zientzia sozialetan ezberdintasuna ez da ikerketetan eraikuntzak egiten dituztenen eta ez dituztenen artekoa, baizik eta eraikuntza egon, datu bilketa guztietan badagoela jabetzen direnen eta ez direnen artekoa. Inkesta beti da intrusio arbitrarioa neurri batean, modu batean aurkezten garelako, estimulu batzuk eman eta beste batzuk ukatzen ditugulako, eta abar. Elkarrizketatzaileak ezartzen ditu helburuak, arauak, gaiaren lerroak, kontraeraso edo suspertze teknikak, eta beste zenbait teknika. Elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren arteko kapital ezberdintasunak ere eragina du, bereziki kapital kulturean aldea baldin badago (gehienbat konpetentzia linguistikoei dagokienez). Ondorioz, Bourdieuren ikuspegitik inkestaren bidez beti gauzatzen da nolabaiteko bortxa sinboliko bat eta, beraz, hori ahal bezain beste murriztea da gakoa. Horretarako ezinbestekoa da elkarrizketatzailea entzule aktiboa eta metodikoa izatea.

Horrez gain, elkarrizketa batean bortxa sinbolikoa gainditze aldera Bourdieuk<sup>1168</sup> zenbait proposamen egiten ditu. Horietako bat da elkarrizketatzailea elkarrizketatuaren hurbilekoa izatea: laguna, senidea, edo adibidez aktoreak aktoreari, bankuko enplegatuak bankuko enplegatuari.

---

<sup>1164</sup> Bourdieu, 2004, 107 or.

<sup>1165</sup> Bourdieu, 1999b, 93 or.

<sup>1166</sup> Bourdieu, 1999b, 102 or.

<sup>1167</sup> Bourdieu, 1999d, 528-543 or.

<sup>1168</sup> Idem.

Elkarrizketa ez da horrela batek emandako informazioa, baizik eta elkarrizketatu-elkarrizketatzaile interakzioa ia bortxazkoa ez den giroan, dezentegaitzen baita distantzia sozialak eragindako tartea. Horrelakorik ezin denean, distantzia sozialak ahalik eta gutxien markatutako erantzunak espero daitezke kasurik onenetan, eta horretarako inkestatzaileak bere hizkera eta galderak egoerara egokitu behar ditu, tonua eta bereziki edukia zainduz. Kontua ez da itxurak egitea, distantzia sozialik ez balego bezala, baizik eta bestearen lekuan jartzeko jarrera ahal bezain beste gauzatzea. Elkarrizketatzailea elkarrizketatuaren alde jarri behar da: bestearen bizi baldintzak ezagutu eta ulertu behar ditu. Elkarrizketatua eroso egotea lortu behar du elkarrizketatzaileak. Egiten ari zaion elkarrizketa zentzuzkoa eta baliagarria dela ikusarazi behar dio. Elkarrizketatuari buruzko aurreiritziek lagundu dezakete horretan agian. Elkarrizketatuari buruzko hipotesietan oinarrituz, elkarrizketatzaileak galdera egokiak era aiposean egin behar ditu. Bourdieuren iritziz elkarrizketatuaren jarrera horrek ahalbidetu dezake elkarrizketatuak daukan informazio guztia ematea, nahiz eta agian elkarrizketatuari buruzko hipotesi okerrekin elkarrizketatuak emango duen informazioa gehiegi baldintza dezaketen. Elkarrizketa batzuetan nabarmenak izan ohi dira elkarrizketatzailearen aurrean nor bere buruari ezartzen dizkion koakzioak. Grabagailuak areagotu egiten du arazoa. Baina bestela ere, hamaika dira elkarrizketaren harremanean sor daitezkeen jolasak, engainuak eta gaizkiulertuak. Azken batean, erreflexiboa izanik ere, ezinezkoa da inkesta-harremanaren eraginak ezabatzea. Asko jota, baretu egin daitezke.

Transkribapenetan eta analisisian ere arazo handiak daude. Transkribapenetan soilik grabatutako soinua jartzen da idatziz eta tonua edo antzeko fenomenoak islatzeko sinbolo gutxi batzuk bakarrik daude. Elkarrizketetan, ordea, askoz gauza gehiago gertatzen dira. Elkarrizketa bakoitzak bere *tempo*-a dauka (ez da irakurlearena), keinuen hizkuntza, mimika, gorputzaren jarrera eta abar. Transkribatzea, beraz, idaztea da. Transkribatzeak berridazketaren zentzua dauka. Itzulpena da, Bourdieuren iritziz. Horrez gain, irakurketa erraztearen, elementu batzuk ezabatu eta beste batzuk pixka bat eraldatuta aurkezten dira sarri. Esan dezakegu analistaren eskuhartzea zaila eta arriskutsua dela, baina aldi berean esan beharra dago beharrezkoa dela, Bourdieuren ikuspegitik. Analistaren eskuhartzeaz gain, irakurle bakoitzak bere interpretazio eskemak erabiliko ditu elkarrizketa hauek irakurtzean eta elkarrizketak ahozkoak izan zirenez eta ez idatzizkoak, eta hala ere idatziz aurkezten direnez, analistak derrigorrez egokitu behar du elkarrizketa. Azken finean, soziologoak ezin du ahaztu bere ikuspegia zer den: ikuspegi bati buruzko ikuspegia. Horrexegatik, funtsezkoa da elkarrizketaren egoeraz jabetzen saiatzea eta horren arabera elkarrizketa egoeraren eraginak ahal bezain beste baretzea.<sup>1169</sup>

Ikerketa honetarako egin ditugun elkarrizketetan grabatutakoa transkribatu dugunean, entzundakoa bere horretan idazten saiatu gara, batere aldaketarik egin gabe. Horrela, elkarrizketatik hurbilago egoteaz gain elkarrizketatuen hizkera antzeman daiteke, baina, jakina, horrek ez du esan nahi idatziz aurkeztu dugunak elkarrizketa bere horretan islatzen duenik.

Nolanahi ere, transkribapena egiteko orduan jarraitu ditugun zenbait irizpide aipatzea komeni da, transkribapenak suposatzen duen itzulpenaren nondik-norakoak pixka bat argitzearen. Transkribapenean inkoherentziak daudela dirudi. Adibidez: batzuetan “bezala” eta besteetan “bezela” agertzen da, batzuetan “dut” eta bestetan “det”, edo esaldi berean “seguridade” eta “segurtasun”. Grabatutakoa ahal bezain fidel transkribatze aldera, ez dugu horrelakoen

---

<sup>1169</sup> Idem.

homogeneizaziorik bilatu. Gaur egun euskaraz hitz egiten duten adin horretakoen hizkuntza egoera ere islatzen da hor. Hala ere, hitz batzuetan h letra sartu dugu: adibidez, “leno” esan duten lekuan “lehen” jarri dugu. Halaber, aditz laguntzailea bereizi egin dugu elkartua ahoskatzen den lekua: adibidez, “goratze” ahoskatu dutenenean “goratzen det” (gogoratzen dut) idatzi dugu.

Bestalde, elkarrizketatuen datuen isilpekotasuna mantentze aldera, zenbait izen aipatzen zituzten lekuan honako ikur hauek jarri ditugu: [...]. Eta beharrezkoa zen lekutan, ikur horien barruan azalpenen bat agertzen da. Adibidez, elkarrizketatuak “Argia Ikastola” aipatu badu, nik [Tuterako D ereduko ikastetxe pribatua] jarri dugu.

Horrez gain, elkarrizketan zehar isilune luzeak, zarata, barreak edo antzeko zerbait izan denean, [...] ikur horren barruan aipatu dugu, elkarrizketan gertatzen ari zena hobeto ulertze aldera.

### 3. Elkarrizketatuen ezaugarriak

#### 3.1 Aukeraketa irizpideak

Ikerketa honetarako 31 elkarrizketa egin ditugu 2007 eta 2009 urteen artean. Elkarrizketa guztiak tesi lan honen egileak berak egin ditu.

Elkarrizketatuak aukeratzeko elur bolaren teknika erabili dugu: balizko elkarrizketatuei elkarrizketa egitea proposatzeko beti elkarrizketatuentzat konfiantzako pertsonak izan ditugu bitartekari eta, halaber, elkarrizketatuek elkarrizketa egin ondoren, haien bitartez elkarrizketatu berriak lortzen saiatu gara harik eta teknika honetan *saturazio puntua* deitzen dena iritsi garen arte, hots, bilatzen genuen informazioa errepikatzen hasten den arte, horrela berresten dugularik elkarrizketetan agertu zaizkigun diskurtsoen artean ezaugarri jakin batzuk kasu isolatuak ez direla. Honenbestez, elur bolaren teknikaren bitartez bermatu egiten ditugu elkarrizketatu berriak eta diskurtso berriak lortzeko aukerak zabaltzea. Halaber, teknika honek erraztu egiten digu elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen artean biziki lagungarria den gutxieneko konfiantza giroa sortzea, zeren elkarrizketatuari konfiantzazko norbaiten bidez iristen baitzaio elkarrizketatzailea eta horrek abiapuntu egokia ahalbidetzen baitu. Nolanahi ere, lagundu egiten du elkarrizketatzailearen adina eta bizilekua elkarrizketatuaren berbera izatea, haien arteko hurbiltasuna gauzatzeko baldintzak ekoizten baitira horrela, baina horretaz guztiaz gain, ezinbestekoa da elkarrizketatzaileak elkarrizketa eramateko teknikak egokitasunez erabiltzea, bestela konfiantzarako balizko baldintza oro ezerezean gelditzen baita.

Elkarrizketatuek zenbait baldintza bete behar zituzten:

- Elkarrizketaren unean elkarrizketatuek gutxienez 28 urte eta gehienez 33 urte izan behar zituzten. 1980ko hamarkadan indarrean zegoen hezkuntza sisteman eskolatu zituzten pertsonen ibilbideak aztertu nahi genituen, 1990eko hamarkadako hezkuntza erreformen aurrekoa, baina, aldi berean, lanaren munduan lan erreforma handien ondoren sartu zirenak izatea nahi genuen eta, halaber, lanean urte gutxi batzuetan behintzat ibiliak zirela



bermatzea, garai jakin bateko ibilbide akademiko eta profesionalen arteko loturak ikuste aldera.

- Elkarrizketatuak Donostialdean bizi behar ziren umetatik. Hainbat elkarrizketatu Donostialdetik kanpo jaiok dira baina elkarrizketatu guztientzat bihurtu da bizileku haurtzaroan zehar, ia guztientzat ume txikiak zirenean. Eskualdearen aldagaia neutralizatu nahi izan dugu horrela, zeren Euska Herriko hainbat eskualderen artean ez ezik Gipuzkoaren baitan ere nabarmena baita eskualde batzuen eta besteen arteko aldea ikergai dugun eremuan.

Elkarrizketatuen aniztasuna bermatzearen, elkarrizketatuak aukeratzeko hiru irizpide ezberdintzaile erabili ditugu:

- Elkarrizketatuen ikasketa maila formala (amaitutako ikasketak) elkarrizketa egin genien unean. Hiru maila bereiztu ditugu: oinarrizko ikasketak, lanbide heziketako ikasketak eta unibertsitateko ikasketak. Hiru multzo hauetako pertsonak elkarrizketatu ditugu.
- Elkarrizketatuen diru sarreraren zenbatekoa elkarrizketa egin genien unean. Arlo honetan espektro zabala lortu dugu: besteak beste, elkarrizketaren unean (azken hilabeteetan) batere diru sarrerarik ez duten elkarrizketatuak, hilean 1.000 euroren bueltan dabilzanak, eta 2.000 euro baino gehiago irabazten dituztenak.
- Elkarrizketatuen sexua ere kontuan hartu dugu, bien arteko oreka mantendu asmoz: 14 emakumezko eta 17 gizonezko elkarrizketatu ditugu.

Bi irizpide hauek erabiltzea ezinbestekoa zen. Elur bolaren teknikaren bitartez balizko elkarrizketatu askorengana iritsi bagaitezke ere, baldin eta bestelako irizpiderik erabiltzen ez badugu, arriskua argi bat dago: lotura sozialen bitartez hedatzen ari garenez, posible da soilik sektore jakin batzuetara ailegatzea eta beste batzuk ez kontuan hartzea. Alta, baldin eta ikasketa maila formala eta diru irabaziak irizpidetzat jartzen baditugu eta derrigorrezkoa bihurtzen bada bi irizpide hauetako bakoitzean mota guztietako pertsonengana iristea, bermatu egingo dugu ez ditugula, esate baterako, soilik diru irabazi txikiak dauzkatenak elkarrizketatuko, edo, adibidez, ez ditugula bakarrik unibertsitateko ikasketak dituztenak ikertuko. Argi dago bi irizpide hauek, ikasketa maila formalak eta diru irabaziak, ez dutela bermatzen sektore guztietara iristea, baina ikertzen ari garen eremuan ziurtatu egiten dute gutxieneko aniztasuna.

### **3.2 Elkarrizketaren estrategia**

Ikerketa honetarako diseinatu dugun elkarrizketa estrategian ezinbesteko helburua izan da, jakina, lortu nahi genuen informazioa lortzea. Hori lortzearen, elkarrizketaren teknikaren parametroetara doitu gara. Funtsetako bat elkarrizketak gauzatzeko ahal bezain baldintza egokiak sortaraztea izan da.

Orduaren aukeraketa izan da oinarrietako bat. Elkarrizketatzailearen baldintzek ahalbidetzen zuten heinean, elkarrizketatuentzat egokiena zen orduan adosten genuen elkarrizketa, beti ere ordu eta erdi inguru iraungo zuela jakinaraziz. Elkarrizketa gehienak ordubete ingurukoak izan

dira, bi elkarrizketa ordu erdiren bueltakoak, elkarrizketa gutxi batzuk ia bi ordukoak, eta elkarrizketa bat hiru ordukoa.

Lekuaren aukeraketa funtsezkoa izan da. Elkarrizketak grabatu egin behar nituenez, zarata handiegirik ez zegoen tokietan egin behar zen eta horrek asko baldintzatzen zuen lekuaren aukeraketa. Elkarrizketatuek beren etxeetan egitea proposatu dutenean bakarrik egin dugu elkarrizketa etxe partikular batean. Bi elkarrizketa lanlekuan bertan egin ditugu, elkarrizketa egiteko pribatutasuna eta isiltasuna bermatuta genituenean. Gainerakoak leku publikoetan egin ditugu, nagusiki kafetegi, garagardotegi eta tabernetan, bertako giroak elkarrizketatuaren gutxieneko lasaitasuna ahalbidetuko zuelakoan.

Elkarrizketa gordetzeko teknikari dagokionez, gure xedea elkarrizketa guztiak grabatzea izan da. Lehenengo hiru elkarrizketak grabagailu euskarri tradizionaletan bildu ditugu. Gainerakoak grabagailu digitalaren bitartez jaso ditugu. Salbuespena da idatziz jaso genuen elkarrizketa, aurretik elkarrizketatuak baldintza ekidinezintzat ezarri baitzigun grabagailua ez erabiltzea.

Elkarrizketetan ez da aparteko zailtasunik sortu. Akaso aipatzeko modukoa da hezkuntza sistemarekiko kritikak egin nahi izan dituzten zenbait elkarrizketatuk hastapenetan beren diskurtsoak nabarmen baretu dituztela, ez zekitelako unibertsitatearekin eta hezkuntza sistemarekin lotzen zuten elkarrizketatzaileak nola erreakzionatuko zuen. Antzekoa izan da lan munduarekiko kritikak egin nahi zituztenen jokabidea. Elkarrizketaren teknikak derrigorrez eskatzen duen enpatia agerian utziz, errazagoa izan da hezkuntza sistemari buruzko diskurtso kritikoak azaleratzea, agian harekiko distantziak hori ahalbidetzen duelako. Nolanahi ere, lan munduari dagozkion diskurtso kritikoak ere ez dira falta izan.

Elkarrizketaren teknikan funtsezkoa da oreka lortzea bi punturen artean: batetik, elkarrizketatuaren diskurtso ahalik eta modu ez-behartuenean ekoizten uztea eta, bestetik, elkarrizketak erdietsi nahi duen informazioa eskuratzea. Oreka hori lortzearen, oinarrizko elkarrizketa bat diseinatu genuen eta hori izan da elkarrizketak bideratzeko oinarrizko euskarria, baina, aldi berean, elkarrizketatua bultzatu egin dugu bere diskurtsoa bere kasa ekoitzi dezan, nahi adina hitz egiteko parada emanez, elkarrizketatzaileak bere isiltasuna ahal bezain beste mantenduz.

Edonola ere, argigarria izan daiteke oinarrizko elkarrizketa azaltzea. Elkarrizketa lau ataletan banatua dago.

- 1) Sarrera
- 2) Ibilbide akademikoa
- 3) Ibilbide profesionala
- 4) Gurasoen eta anai-arreben ibilbide akademikoa eta profesionala

Hasieran elkarrizketatuari elkarrizketaren eskema orokorra aipatzen dio elkarrizketatzaileak. Lehenengo atala nahiko gidatua da. Elkarrizketaren garrantzia eta isilpekotasunari buruzko azalpenak eman ondoren, hainbat galdera zehatz egiten dizkio elkarrizketatuak: jaiotza data eta

lekua, eta non eta norekin bizi izan den jaio denetik gaur egun arte. Segidan, aisialdiari buruz eta intereseko gaietarako buruz galdetzen dio elkarrizketatuak, eta horietan zenbateraino datorren bat gurasoek, lagunek eta bikoteak egiten dutenarekin.

Sarrerako zati honetan jolas txiki bat erabili dugu hainbat elkarrizketarekin, bi helburu genituelarik: batetik, nor bere buruaz zuen irudia azalera eta, bestetik, elkarrizketatua elkarrizketaren giroan sartzen laguntzea. Baina hainbat elkarrizketarekin eraginkorra izan den arren, beste zenbaitekin traba sortatu da eta, beraz, hurrengo elkarrizketetan baztertu egin dugu.

Bigarren eta hirugarren atalean ibilbide akademikoak eta profesionalak dira hizpide, hurrenez hurren, eta elkarrizketatuari diskurtsoa bere kasa ekoizten uztea da egokiena. Horretarako elkarrizketatzaileak azalpen labur batzuk ematen dizkio, oro har zer informazio jaso nahi duen azalduz. Hala ere, elkarrizketatzaileak beti esku hartu behar izaten du, elkarrizketatua ez dadin desbideratu edo elkarrizketatuak utzi dituen informazio hutsuneak bete ditzan. Hala ere, beren kasa hitz egiten dutenekin, elkarrizketatuak ahal bezain gutxi esku hartu behar du.

Ikasketei dagokienez, hauek dira elkarrizketan zehar erantzun nahi diren galdera implizituak:

- Non, noiz, eta zer? Adinaren erreferentzia hartu (adb.: 14-18 instian)
- Zergatik aukeratu zenuen? Zergatik utzi? Zergatik ez beste zerbait?
- Zer moduz moldatu zinen notekin, irakasleekin, ikasteko autodiziplinan, ikaskideekin?
- Harremanik haiekin gaur egun?
- Zure ibilbide akademikoaz pentsatzean, norbaiti zerbait eskertu nahiko zenioke? Norbaiti zerbait leporatu?
- Zertan lagundu dizute ikasketek?

Lanari dagokionez, honakoak dira elkarrizketatuarengandik jaso nahi izan dugun informazioan erantzun nahi genituen galdera implizituak:

- Zer ezaugarri hartzen dituzu kontuan lan bat bilatzerakoan?
- Non, noiz eta zertan (zure jarduera eta kategoria)
- Zergatik hartu zenuen? Zergatik utzi? Zergatik ez beste zerbait?
- Nola lortu zenuen lanpostua? Inguruko jendeak lagundu zizun zerbaitetan (informazioa, kontaktua, etab.)
- Gurasoek lagundu dizute aukera egiten? Presioa egin dizute zerbait aukeratzeko? Gustura zeuden zure aukerekin?
- Zer moduz moldatu zinen zure lanarekin, nagusiekin, lankideekin, giroarekin?
- Gustura ordutegiarekin, lanaren erritmoarekin?
- Zer kontratu mota daukazu?
- Gustura soldatarekin? Zenbatekoa da
- Soldaten arteko proportzioa zenbatekoa da? Zeren arabera da soldata?
- Zure lan ibilbideari buruz pentsatzean, nori eskertu nahiko zenioke zerbait? Nori leporatu?
- Badaukazu kotxerik, etxerik, aurrezteko gaitasunik, zorrik?
- Zertan dira zure hilabeteroko gastu handienak?
- Nola ikusten duzu zeure burua hemendik 7 urtera? Nola ikusi nahiko zenuke?

Elkarrizketaren laugarren zatian hurbileko senideen ibilbide akademikoak eta profesionalak dira hizpide. Elkarrizketatzaileak labur kontatzeko eskatzen dio elkarrizketatuari.

### **3.3 Elkarrizketatuen ibilbide akademiko-profesionalen perfila**

Elkarrizketatu dugun pertsona bakoitzaren ibilbide akademiko eta profesionalen ezaugarri orokorrak zeintzuk diren ikus daiteke segidan, elkarrizketatuz elkarrizketatu.

## 1. *elkarrizketatua* (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-13	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan ondo)
13-17	BBB eta UBI ikastetxe publikoan, D eredua (ikasketetan ondo)
17-18	UBI berriro (ez errepikatzen) zientzietatik D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan estuago baina ondo)
18-25	Biologian lizentziatua unibertsitate publikoan (gora-behera handiak, baina noten azken batez besteko ona)
25	Hizkuntza eskola ez ofizialeko irakasle izateko ikastaro laburra
25-28	Majisteritzan diplomatua unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)
27-29	Letretan doktore ikastaroak (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
24	Euskarako klase partikularrak (soldata eskasa)
24	Egunkari banatzaile (bi hilabete, soldata eskasa)
25	Jatetxeko sukaldari (soldata eskasa)
25-28	Euskaltegiko irakasle (curriculum a eramanaz lortutako enplegua, aldi baterako kontratua, lehenengo bi urtetan 600 euro hilabetean eta hirugarren urtean gutxiago)
27-28	Ikastetxe publiko bateko jangelan begirale (adiskideen bitartez lortutako enplegua, aldi baterako kontratua, lanaldi partziala, 300 euro hilabetean)
28-29	D ereduko ikastetxe pribatu bateko irakasle majisteritzako diplomaturari esker (praktikak bertan egiteari esker lortutako enplegua, ordezkapen kontratua, lanaldi osoa, 1.300 euro garbi inguru hilabetero)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Ama	Majisteritzan diplomatua	Industriako behargin Etxeko lanetan enplegatua Irakasle 31 urte zituenetik
Aita	Teologian lizentziatua Filosofian lizentziatua Soziologian doktore	Apaiz Kultur arloko egitasmoak Dendako behargin Unibertsitateko irakasle ia hiru hamardaz
Anaia	Lanbide Heziketako goi zikloa Majisteritza	Industriako behargin Udal bateko kale hezitzailea

## 2. *elkarrizketatua* (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-15	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan eskas, OHO 8 errepikatu)
15-16	BBB ikastetxe publikoan hasi eta ikasturtea amaitu gabe utzi
16-21	REM ikastetxe publikoan (1. Maila errepikatu eta gero erdizka)
21-24	Lanbide Heziketako Goi Zikloa ikastetxe publikoan (urtebeteko ikasketak hiru urtean)
24	Mekanografia ikastaroak

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
24	Praktikak zerbitzu enpresa batean hiru hilabetez
24	Merkatalgune handiko behargin lau-bost hilabetez (adiskide baten bitartez lortutako enplegua, azpikontratatua, aldi baterako kontratu bat baino gehiago, lau ordu egunean, 300 euro hilean)
25-27	Dendako behargina (adiskide baten bidez lortutako enplegua, hasieran aldi baterako kontratua eta gero kontratu mugagabea, 39 orduko lanastea asteburuak barne, 800 euro hilean)
27	Tabernako behargina bi hilabetez (adiskide baten bitartez lortutako enplegua, 40 ordu astean asteburuak barne, 1.000 euro hilean)
27	Donostiako udaletxean administrazioko enplegatu hilabetez (ordezkapen kontratua, soldata handia)
28-29	Merkatalgune handiko behargin (adiskide baten bitartez lortutako enplegua, hasieran aldi baterako kontratua eta gero kontratu mugagabea)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Mekanika	Tailer mekanikoko behargin hiru hamarkadaz
Ama	Pelukeria ikasketak	Bere pelukerian hiru hamarkadaz

### 3. *elkarrizketatua* (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan baleko, arazo ez handiak)
14-18	BBB eta UBI ikastetxe publikoan, D ereduan, Donostian (ikasketetan baleko, arazo ez handiak)
18-23	Zuzenbidean lizentziatua unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)
23-25	Enpresen kudeaketa eta administrazioan masterra unibertsitate pribatuan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
25	Zerbitzu enpresa txiki bateko komertziala 6-7 hilabetez (unibertsitatearen bitartez lortutako enplegua, hasieran praktikatako kontratua eta gero aldi baterako kontratua)
25	Zerbitzu juridiko-ekonomikoak eskaintzen zituen enpresa batean 7 hilabetez (curriculumak eramanaz lortutako enplegua, hasieran praktiketako kontratua eta gero kontraturik gabe hilabete, soldatarik gabe denbora guztian)
26	Aurrezki kutxa batean PFEZ kanpainan hiru hilabetez (curriculumak bidaliz lortutako enplegua, aldi baterako kontratua, 1.500 euro hilabetean)
26	Banku batean komertzial bi hilabetez (lan eskaintzara aurkeztuz lortutako enplegua, praktikatako kontratua)
26-27	Aurrezki kutxa batean komertzial (lan eskaintzara aurkeztuz lortutako enplegua, urtebeterako kontratua, 1.500 euro hilabetean)
27	Donostiako udaletxean bideragarritasun egitasmo batean lau hilabetez (INEMen bitartez lortutako enplegua, aldi baterako kontratua, 2.400 hilabetean)
27-29	Aurrezki kutxa batean komertzial 18 hilabetez (lan eskaintzara aurkeztuz lortutako enplegua, 4-5 aldi baterako kontratu mota ezberdin, 1.500 euro hilabetean)
29-30	Gipuzkoako Foru Aldundian aholkularitza juridikoan (lan eskaintzara aurkeztuz lortutako enplegua, urtebeterako kontratua, 2.000 euro hilean)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Ama	Oinarrizkoak	Bankuko enplegatu 16 urtetatik erretiroa hartu duen arte
Aita	Enpresaritzan lizentziatua	Hainbat enpresetan finantza arduraduna

#### 4. *elkarrizketatua* (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan baleko)
14-19	BBB eta UBI D ereduko ikastetxe pribatuan (BBB nahiko baleko eta UBI errepikatu eta bigarreanean nahiko baleko)
19-24	Zuzenbideko lizentziaturako lehenengo bi mailetan
24-26	Ordenagailu bidezko diseinua (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
16-18	Kitarrako klase partikularrak (adiskideen bitartez lortutako enplegua, kontraturik gabe, 250 euro hilean)
22	Musika dendako behargina hilabetez (adiskideen bitartez lortutako enplegua, kontraturik gabe, 600 euro hilean)
23-27	Musika banaketa almazeneko behargina (adiskideen bitartez lortutako enplegua, lanaldi partziala, bederatzi hilabete kontratu gabe, gero aldi baterako kontratua eta azkenik kontratu mugagabea, hasieran 300 euro eta azkenerako 500)
27-30	Musika banatzailea eta editorea (autonomoa, lan ordu ugari larunbatak barne, 900 euro hilean)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Industriako maixu	Industriako behargin Industriako enpresa txiki baten sortzaile eta jabe Hosteleritzako enpresa txiki baten sortzaile eta jabe Postari
Ama	Oinarrizkoak	Industriako behargin Etxeko lanetan enplegatua
Anaia	Erizaintzan diplomatua	Erizaina



## 5. *elkarrizketatua* (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan baleko)
14-15	BBB1 ikastetxe publikoan, D eredia (ikasketetan ondo, giroarekin gustura ez)
15-19	BBB 2-3 eta UBI beste ikastetxe publiko batean, D ereduan (hasieran ikasketetan baleko, gero eskas, UBI errepikatu)
19-23	Soziologia unibertsitate publikoan (hasieran baleko, gero ondo)
23-26	Doktore ikastaroak, ikerketa eta IAD (ikasketetan ondo)
24-25	CAP unibertsitate pribatuan distantzian

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
23-24	Ikerketa unibertsitatean (beka, 450 euro, lanaldi erdia, urte 1)
24-25	Ikerketa unibertsitatean (beka, 1.000 euro, urte 1)
25-26	Kudeaketa arloko kalitate teknikari (6 hilabete)
26-27	Ikerketa unibertsitatean (aldi baterako kontratua, 1.000 euro)
27-28	Kale hezitzailea (lanaldi erdia, gero 25 ordu)
28-29	Unibertsitateko ikerketa taldeko koordinatzaile (1.400 euro, bi obrako kontratu: lanaldi erdia enpresa pribatuan eta lanaldi erdia unibertsitateko ikertzaile)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Lanbide Heziketa Kimika	Enpresa ertaineko goi kargu (progresiboki promozionatzen)
Ama	Oinarrizko ikasketak	Etxekoandre Aisialdiko begirale Jangelan Enpresa bateko harreran

## 6. *elkarrizketatua* (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatua (ikasketetan ondo)
14-16	BBB Lizeo batean, D ereduko ikastetxe pribatua (ikasketetan eskas, BBB2 gainditu gabe)
16-19	BBB2 eta 3 eta UBI ikastetxe publikoa batean (ikasketetan gorabeheratsu, justu gaindituz)
19-21	FP2 Diseinatzaile Grafikoa ikastetxe pribatua (ikasketetan baleko)
21-23	FP2 Tinten Edizioan, Inpresioan eta Preinpresioan Goi mailako Teknikaria ikastetxe pribatua (ikasketetan baleko)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
18	Frabrikako behargin (aldi baterako kontratua, 2 hilabete udan)
23-26	Diseinatzaile Grafikoa (600 euro, aldi baterako kontratua, 10 ordu egunean)
26-32*	Diseinatzaile Grafikoa (autonomoa, hilean 150 euro eta 1.500 euro artean, lanaren arabera)
27-29	Diseinu Grafikoko lan bila hiri handi batean (urte eta erdi)
28	Komertziala telefonia arloan (60 euro eta 300 euro artean astero, salmenten arabera, aldi baterako kontratua, 7 hilabete)
29-31	Fabrikako behargin (4.000 euro hilean, turnoka, atsedean egun gutxi, hainbat kontratu, ia bi urte)
31-33	Langabezia

\*Lan hau konbinatu egin du gainerakoekin (lan bolumenean gorabehera handiak)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita		
Ama	Idazkari ikasketak	Idazkari Langabezian 4 urte Haurrak zaintzen
Arreba	Enpresaritzan lizentziatua	Eraikuntza enpresa batean bulegoko lanetan hasieratik
Arreba	FP2 Idazkaritza FP2 Haur Hezkuntza	Haurrak zaintzen Klase partikularrak ematen Dendako enplegatu Supermerkatuan kajan Supermerkatuan hornitzaile
Arreba	Zuzenbidean lizentziatua	Abokatu bulegoan enplegatua Goi Mailako Eskola batean idazkari

## 7. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatua (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI ikastetxe publikoan, D eredua (ikasketetan ondo)
18-26	Nekazaritza injinieritza unibertsitate publikoan (hasieran gaizki, gero kostata)
26-27	Karrera bukaerako proiektua

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
26-27	Landare haztegia (800 euro, zati bat beltzean, 8 ordu egunean, tarteka baita asteburuak ere, fisikoki gogorra, fin de obra kontratua, lagun bidez)
27	Inprimategia (6 euro ordua, lan errepikakorra, kontraturik ez, lagun bidez, hilabete gutxi)
27	Klase partikularrak (kontraturik ez)
27	Tabernako zerbitzari (kontraturik ez)
27-29*	Nekazaritza eskolan helduentzako irakasle (300 euro, berandu ordaindu, kontraturik ez)
27-29*	Euskaltegiko irakasle (800 euro, bi talde)
29	Ikastetxe publikoan Bigarren Hezkuntzako irakasle (2.000 euro, 3 hilabetez)
29	Ikastolan Bigarren Hezkuntzako irakasle (hilabete bat)
29-30	Ikastolan Bigarren Hezkuntzako irakasle (bi hilabete)
30-31	Ikastolan Bigarren Hezkuntzako irakasle (1.900)

\*Aldi berean egin zituen lan hauek

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Eskola graduatua	Bankuko enplegatua
Ama	Eskola graduatua	Idazkari arkitektoen elkargoan

## 8. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxean (ikasketetan baleko)
14-16	BBB Ikastolan, D ereduko ikastetxean (ikasketetan gaizki, esperientzia txarra)
16-18	BBB eta UBI D ereduko ikastetxe publikoan (ikasketetan baleko)
18-19	Zuzenbideko 1. maila unibertsitate publikoan (oso eskas)
19-27	Euskal Filologian lizentziatua unibertsitate publikoan (ikasketetan tarteka baleko, tarteka utzita, tartean krisi pertsonala)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
25	Paperdendako enplegatu (550 euro, aldi baterako kontratua)
25	Inprimategia (7 euro ordua, lan errepikakorra, kontraturik ez, lagun bidez, hilabete gutxi)
25	Itzultzaile kultur kudeaketa enpresa batean (2 hilabete)
26-30	Euskaltegiko irakasle (aldi baterako kontratua, enpresak tarteka eten)
30-31	Ikastetxe publikoan Bigarren Hezkuntzan irakasle (800 euro, ordezkapen kontratua)
31-32	Ikastetxe publikoan Bigarren Hezkuntzan irakasle (1.200 euro, ordezkapen kontratua)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Lanbide Heziketan elektrizitatea	Elektrizista, lanpara salmentan negozio propioa eta asteburutan Telefonican elektrizista
Ama	Jostuna	Okindegian tarteka Etxekoande urte gehienetan Alarguntzean, agureen zaintza
Ahizpa	Lanbide Heziketa Irudia eta Soinua Ikastaroak: pelukeria argazkigintza, makilajea,	Hainbat lanbide AEBetan au pair Telebistan pelukera

## 9. *elkarrizketatua* (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO ikastetxe publikoan, D eredia (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI ikastetxe publikoan, D eredia (ikasketetan ondo)
18-20	Kazetaritzako lehen bi ikasturteak unibertsitate publikoan (akademikoki ondo)
25-27	Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloa, Programazioa, ikastetxe publikoan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
20	Tabernan (asteburutan, kontraturik ez, 6 hilabetez)
21-22	Irratiko esatari (300 euro, jardunaldi erdia, 14 hilabetez)
22-24	Kazetari udal aldizkarian (6 ale urtean, diru oso gutxi)
23-24	Irrati saioen ekoizpen enpresako enplegatu (900 euro, aldi baterako kontratua)
24	Atelierreko enplegatu (1000 euro, 11 ordu egunean, hilabete bat udan)
26-27	Informatikaria GKE batean (400 euro, aldi baterako kontratua, jardunaldi erdia)
27	Irratsaio egitasmorako prestakuntza (diru irabazirik ez, kontraturik ez)
28-29	Tabernako zerbitzari (700 euro, jornada erdia, kontraturik ez, urte 1)
29	KZ Guneako enplegatu (800 euro, 8 ordu egunean, 3 hilabetez)
30-32	Egunkari bateko kazetari (1.200 euro, aldi baterako hainbat kontratu)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Oinarrizko lanbide heziketa	Kaldererian enplegatu Papeleran enplegatu 20 urtez Langabezia Istripua, elbarritasuna Gureak-en enplegatu, soldata oso eskasa
Ama	Oinarrizko ikasketak	Baserriko lanak 18 urte arte Neskame Fabrikako enplegatu 1991 arte Neskame, agureen zaintza, taberna

## 10. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO ikastetxe katoliko pribatuan, D eredua (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI Lizeoan, D ereduko ikastetxe pribatuan (hasieran ondo, gero eskaserantz)
18-23	Psikologian lizentziatua unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)
23-25	Doktore ikastaroak, ikerkuntza eta IAD (ikasketetan ondo)
25-27	Masterra sexologian unibertsitate publikoan

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
23-26	Unibertsitateko orientatzailea (400 euro, bekaduna)
26-27	Unibertsitate publikoan irakasle (500 euro, jardunaldi erdia, urte eta erdi)
27-30	Eskuhartze psiko-soziala behar bereziak dituzten pertsonak enplegatzen dituen enpresa batean (1.400 euro, kontratu finkoa, familiaren bidez)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Enpresaritzan lizentziatua	Zerga aholkularitza enpresa propioa
Ama	Psikologian lizentziatua	Psikologia kontsulta propioa
Ahizpa	Enpresaritzan lizentziatua	Transnasionaleko administrazioko enplegatua Altzari enpresa bateko marketin arduraduna

## 11. elkarrizketatua (gizonezkoa)

Ibilbide akademikoa	
Adina	Ikasketak
3-14	OHO ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI Lizeoan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan ondo)
18-22	Euskal Filologian lizentziatua (ikasketetan ondo)
22-24	Doktore ikastaroak, ikerketa eta IAD (ikasketetan ondo)

Ibilbide profesionala	
Adina	Enplegua
18-21	Udal udaleku irekietan begirale (80.000 pezeta, obra kontratua)
21	Udal ludotekan sustatzaile (300 euro, obra kontratua, larunbat goizetan 3 ordu)
21-22	Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren beka unibertsitatean (2.000 euro)
22	Udaletxearen euskara sustatzaile (asteburuetan, obra kontratua)
22	Tabernako zerbitzari atzerrian (hilabete, kontraturik ez, jardunaldi erdia)
22-25	Eusko Jaurlaritzaren doktore aurreko beka (1.000 euro hilean)
22-24	Irratian kolaborazioak (45 euro kolaborazioko, astean behin)
23	Egunkari batean kolaborazioak (30 euro kolaborazioko, astean behin)
24-25	Unibertsitate publikoan irakasle (600 euro, ordezkapen kontratua, lanaldi partziala, 3 lan egun presentzial, 6 eskola ordu, 6 tutoretza ordu)
25-27	Unibertsitate publikoan irakasle (1.600 euro, ordezkapen kontratua, lanaldi osoa, urte eta erdiz)
27-29	Unibertsitate publikoan irakasle (560 euro, ordezkapen kontratua lau urterako, lanaldi erdia)

Etxekoak		
Nor	Ikasketak	Enpleguak
Aita	Magisteritzan diplomatua Filosofia eta Letretan lizentziatua	Ikastolako irakasle HABEko irakasle azken 20 urteetan
Ama	Magisteritzan diplomatua	Ikastolako idazkari Lehen Hezkuntzako irakasle
Anaia	Heziketa fisikoan lizentziatua Masterra atzerriko unibertsitate pribatu batean Heziketa fisikoan doktore	Atzerriko unibertsitate pribatu batean irakasle

## 12. elkarrizketatua (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI ikastetxe publikoan, D ereduan (ikasketetan ondo)
18-23	Biolontxelo Goi Mailako Musika Kontserbatorioan (ikasketetan ondo)
23-26	Gorputz berbideraketa (Alexander teknika) atzerriko bi ikastetxetan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
26-27*	Txeloko irakasle Gipuzkoako bi musika eskoletan (1.400 euro, aldi baterako kontratu bana)
26-27*	Musika eta dantza irakasle umeentzat kultur etxetan
27-28**	Txeloko irakasle Arabako hiru musika eskoletan (1.400 euro, aldi baterako kontratu bana)
27-28**	Alexander teknikaren irakasle hainbat kultur etxetan
28-29	Txeloko irakasle Musikenen (1.400 euro, ordezkapen kontratua, lanaldi erdia, 6 eskola ordu astean)
29-33	Txeloko irakasle Gipuzkoako bi eta Arabako musika eskola batean (1.500 euro, aldi baterako kontratu bana)

\*Aldi berean egin zituen lan hauek

\*\*Aldi berean egin zituen lan hauek

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Oinarrizko ikasketak	Kotxe mekanikaria Langabezia Arte Grafikoetarako makineria ekoizten duen enpresa txiki baten jabe
Ama	Idazkaritza	Dendako enplegatu Senarraren enpresan administrari
Arreba	Arte Ederretan lizentziatua	Diseinu grafikoan hainbat bulegotan (lehen baldintza txarrak, orain gustura)



### 13. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-7	HH eta OHO 2 arte A ereduiko ikastetxe pribatuan (itxi egin zuten)
7-16	OHO 2-8 A ereduiko ikastetxe pribatuan (ikasketetan eskas, bi urte errepikatu)
16-18	Administrazio Laguntzailea FP1 A ereduan eliza katolikoaren ikastetxe pribatu batean (ikasketetan baleko)
18-21	Administrazioa FP2 A ereduan eliza katolikoaren ikastetxe pribatu batean (ikasketetan baleko)
22-24	Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloa, Administrazioa eta Finantzak eliza katolikoaren ikastetxe pribatua batean (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
24	Tabernako zerbitzari (3 hilabete)
24-26	Garbikuntza (soldata aldatokorra, 850 euro gehenez, ordezkapen kontratua, senideen bitartez)
24-31	Garbikuntza (850 euro, kontratu finkoa, transnazional batean baina azpikontratatuta, 6 ordu egunean)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Ikasketarik ez	Eraikuntza Butano banatzaile Eraikuntza
Ama	Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak	Kontserba lantegian behargin Garbikuntza

#### 14. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
2-18	OHO, BBB eta UBI Lizeoan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan gorabeheratsu, tarteka eskas)
18-19	Pedagogiako lehen maila hasi unibertsitate pribatuan (berehala utzi)
19-22	Magisteritza Lehen Hezkuntzan diplomatua unibertsitate publikoan (ikasketetan gorabeheratsu, uztear)
24-25	Psikopedagogia lehen maila (hasi eta utzi)
26-28	Magisteritza Entzumena eta Hizkeran diplomatua unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
18	Propaganda banatzaile (30 euro aldiro, larunbat bat hilean behin)
21	Pizza banatzaile (150 euro hilean, 25 ordu astean, aldi baterako kontratua)
21-23	Jatetxe eta tabernetan zerbitzari
24	Garbikuntza
24-32	Tabernako zerbitzari (lanaldi aldakorra: osoa 1.000-1.200 euro, orduka 15 euro inguru, asteburuan 2 egun 150 euro, kontraturik ez)
25-32	Lehen Hezkuntzako irakasle ikastolan (1.650 euro gehienez, lanaldiaren arabera, osoa eta bi heren artean, aldi baterako kontratuak eta 31 urtetik aurrera kontratu finkoa)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita		Dekoratzaila Obrako arduradun
Ama	Oinarrizko ikasketak	Aurrezki kutxako enplegatua
Ahizpa	Aparejadorea	Arloko funtzionaria
Anaia	Historia hasi eta utzi Informatika Lanbide Heziketan	Administraria, funtzionaria
Ahizpa	Erizaintza laguntzailea	Orain langabezian

### 15. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
6-14	OHO A ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan eskas)
14-17	Administrari Laguntzailea FP1 A ereduan eliza katolikoaren ikastetxe pribatu batean (ikasketetan eskas)
17-19	Administraria FP2 hasi A ereduan eliza katolikoaren ikastetxe pribatu batean (ikasketetan eskas, bukatu gabe utzi)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
20-29*	Garbitzailea (400 euro gehienez, orain kontratu finkoa baina gorabeheratsua)
22-26	Garbitzailea (aldi baterako kontratua)
26-29	Garbitzailea (600 euro gehienez, kontratu finkoa baina gorabeheratsua)

\*Lan hau beste biek in konbinatu du

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	OHO	Kotxe mekanikaria
Ama	Oinarrizko ikasketak	Garbikuntza
Ahizpa	Lanbide Heziketan Sukaldaritza	Sukaldari

## 16. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO ikastetxe katoliko pribatuan, D eredia (ikasketetan eskas)
14-16	FP1 D ereduko ikastetxe publikoan (ikasketetan ondo)
16-18	BBB3 eta UBI D ereduko ikastetxe publikoan (ikasketetan justu)
18-20	Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloa, Ahoko eta Hortzetako Higienea (ikasketetan ondo)
27-28	Magisteritza Atzerriko Hizkuntzan hasi unibertsitate publikoan (utzi)
28-30	Magisteritza Lehen Hezkuntzan bi maila gainditu (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
16-17	Haur bat zaintzen (bi uda)
20-28	Ahoko eta Hortzetako Higienista dentista baten kontsulta pribatuan (1.000 euro 4. urtetik aurrera, azkenean 1.100 euro, zati bat beltzean, hasieran hainbat ordezkapen kontratu, gero praktiketan, ondoren kontratu finkoa)
28-30	Langabezia kobratzen

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita		Kotxe mekanikaria
Ama		Garbitzailea Jatetxeko zerbitzaria
Anaia	Psikologian lizentziatua Magisteritzan diplomatua	Lehen Hezkuntzako irakaslea

### 17. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-15	OHO ikastetxe katoliko pribatuan, D eredua (ikasketetan eskas, urte 1 errepikatu)
15-20	BBB eta UBI D ereduko ikastetxe publikoan (ikasketan eskas, UBI errepikatu)
20-22	Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloa, Haur Hezkuntza (ikasketetan ondo)
22-28	Magisteritza Lehen Hezkuntzan diplomatua (ikasketetan gora-beheratsu)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
20-22	Haurrak zaintzen
22-25	Haurrak zaintzen (arratsaldean)
22-31	Aurrekolako hezitzailea ikastolan (orain 1.300 euro, 22-23 urtekin ordezkapen kontratuarekin lanaldi osoa, 23-24 urterekin ordezkapen kontratuarekin jangela orduan, 24-26 urterekin ordezkapen kontratuarekin hasieran lanaldi erdia eta gero osoa, 26 urtetik aurrera kontratu finkoarekin lanaldi osoa)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Oinarrizko ikasketak	Segurtasuneko behargin ABLEko nagusia
Ama	Oinarrizko ikasketak LHko Administrazioa eta Finantzak ikasketan ari da orain EPAn	Dendako behargin
Anaia	Enpresaritzan lizentziatua urterekin	26 Eraikuntza enpresako administrari

## 18. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-19	OHO, BBB eta UBI Lizeoan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan justu, udako beti 1 edo 2, selektibitatea irailean, UBI errepikatu nota hobetzeko baina ez zuen lortu)
19-22	Magisteritza Haur Hezkuntzan diplomatua unibertsitate publikoan (ikasketetan baleko)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
22-24	Gurasoen bitxidendan lanean (soldatarik ez, kontraturik ez)
24-25*	Ikastetxeen autobusetako begirale (aldi baterako kontratua)
24-25*	Ikastetxe pribatuko eskolaz kanpoko kirol jardueren begirale
25-31	Ikastetxe pribatu katolikoko irakasle (LHn urte bat, HHn harrezkero, 25-28 urte artean hainbat ordezkapen kontratu, 28 urtetik aurrera kontratu finkoa, 1.600 euro)

\*Aldi berean egin zituen lan hauek

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Bitxigintzako ikasketak	Familiako bitxidenda bere esku
Ama	Oinarrizko ikasketak	Senarraren bitxidendan enplegatu
Ahizpa	Pedagogian lizentziatua	Haurtzaindegian lanean betidanik

### 19. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI D ereduko ikastetxe publikoan (ikasketetan ondo)
18-22	Euskal Filologian lizentziatua unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)
22-28	Doktore ikastaroak, ikerketa eta IAD Euskal Filologian unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)
26-28	Doktore ikastaroak, ikerketa eta IAD Literatura Teorian eta Konparatuan unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
22-23	Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren beka (2.000 euro)
22-26	Eusko Jaurlaritzaren doktorearreko beka (1.000 euro)
26-28	Doktorearreko beka
28	Egunkari banatzailea (600 euro, kontratua orduka, 5 hilabete)
29-30	Unibertsitate publikoan irakasle (1.600 euro, ordezkapen kontratua, lanaldi osoa, 18 hilabete)
30-31	Unibertsitate publikoan irakasle (580 euro, ordezkapen kontratua, 4 eskola ordu, lanaldi erdia, 3 hilabete)
31-32	Unibertsitate publikoan irakasle (1.780 euro, ordezkapen kontratua, 6 eskola ordu, lanaldi osoa)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Injiniaria	Aitaren enpresako goi karguetan betidanik
Ama	Jostun ikasketak	Lehen Hezkuntzan adimen urritasuna dutenekin Etxekoandre Ikastaroak zerbitzu sozialetan
Ahizpa nagusia	Matematikan lizentziatua	Ikastetxe pribatuan DBHn irakasle 22 urtetatik aurrera
Ahizpa txikia	Magisteritza Musika Hezkuntzan lizentziatua Magisteritza Haur Hezkuntzan lizentziatua	Tabernako zerbitzari urtebete Ikastetxe pribatuan HHn irakasle 24 urtetatik aurrera

## 20. elkarrizketatua (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatua (ikasketetan baleko, azken bi urteetan hainbat suspentso)
13-16	Solfeo eta akordeoi ikasketak akademia pribatua (ikasketetan ondo)
14-19	BBB eta UBI Lizeoan, D ereduko ikastetxe pribatua (ikasketetan eskas, UBI errepikatu)
18-23	Akordeoi eta Armonia ikasketak akademia pribatua (ikasketetan ondo, baina bukatu aurretik utzi)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
16-30	Gurasoen tabernan zerbitzari (16-18 noizbehinka, 18-26 maizago, 26-30 egunero, kontraturik ez)
29	Egunkariak doblatzen (12 euro ordu eta erdigatik, ordezkapen kontratuak, tarteka)
29	Eraikuntzan behargin (epe laburra)
30	Akordeoiarekin trebatzen orkestra profesionalerako baina orkestra proiektua bertan behera
31	Berbena taldeko musikari izateko prestatzen baina taldea bertan behera
29-32	Langabezia

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Oinarrizko ikasketak	Artzai Industrian behargin Basomutila Igeltsero Tabernan zerbitzari Taberna bere esku urte luzez
Ama	Oinarrizko ikasketak	Baserriko lanak Jostun Neskame Tabernan zerbitzari Taberna bere esku
Anaia	Lanbide Heziketa Industria Lanbide Heziketa kirola	Taberna Hirugarren sektorea



## 21. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-18	OHO eta REM Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan ondo)
18-21	Medikuntza unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo, hirugarren urtean utzi)
22-25	Magisteritza Kirol Hezkuntzan diplomatua unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)
25-27	Heziketa fisikoan lizentziatua unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)
27-29	Doktoretza ikastaroak, ikerketa eta IAD Psikodidaktikan unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
16	Klase partikularrak
16-17	Udalekuetako begirale (boluntario)
18-25	Ikastolen Federazioko udalekuetako begirale (400 euro 15 eguneko, aldi baterako kontratua)
27-32*	Gimnasio pribatuko begirale (900 euro astean 25 orduko baina lanaldi gorabeheratsua, kontratu mota asko)
27	Lehen Hezkuntzako irakasle ikastetxe pribatu katolikoan (astebete, ordezkapen kontratua, hilabete osoa 1.700 euro litzateke)
27	DBHko irakasle ikastolan (1.700 euro, ordezkapen kontratua, hilabete)
28	DBHko irakasle ikastolan (1.300 euro, ordezkapen kontratua, lau hilabete)
29	Lehen Hezkuntzako irakasle ikastetxe pribatu katolikoan (1.700 euro, lanaldi erdia, hiru hilabete)
30-31	Lehen Hezkuntzako irakasle ikastetxe pribatu katolikoan (1.300 euro, ordezkapen kontratua, lanaldi erdia)
31-32	Lehen Hezkuntzako irakasle ikastetxe pribatu katolikoan (1.700 euro, ordezkapen kontratua, lanaldi osoa)

\*Lan hau konbinatu egin du 27 urtetik aurrera egin dituen gainerakoekin. Azken urteetan bi enplegetako soldaten batura 2.000 euro ingurukoa da.

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Lanbide Heziketa Industria Maixu	Fabrikako behargin Lanbide Heziketako irakaslea
Ama	Idazkari ikasketak Magisteritzan diplomatua	Idazkari aitaren enpresan Idazkari beste bi enpresetan Haur Eskolako zuzendaria
Ahizpa	Telekomunikazioak utzi Enpresaritzan lizentziatua	Udalekuetako begirale Unibertsitateko lan/beka Transnasionaleko kontabilitatean azken urteetan

## 22. elkarrizketatua (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-19	OHO, BBB eta UBI Lizeoan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan justu, UBI errepikatu nota hobetzeko baina ez zuen lortu)
19-21	Zuzenbidea unibertsitate publikoan (ikasketetan eskas)
21-24	Aktore ikasketak prestigiozko ikastetxe pribatuan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
23	Telebista saio bateko kolaboratzaile (30 euro kolaborazioko)
24	Telebistako serie batean aktore (hiru hilabete, zati bat beltzean)
24-31*	Telebista saio bateko aktore (lehen 26 saio urtean, orain 20 saio, 400 euro saioko, aldi baterako kontratua)
28	Pelikulako aktore (1.500 euro)
28-31	Zenbait kolaborazio telebistako serieetan eta laburmetraietan
30	Hipodromoko mantentze lanak (1.100 euro, aldi baterako kontratua, 9 hilabete)
31	Igeltsero (1.400 euro, aldi baterako kontratua)

\*Lan hau konbinatu egin du ondoren etorri diren gainerakoekin.

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Medikuntza ikasketak	Mediku psikiatra
Ama	Oinarrizko ikasketak	Agente komertziala gaztetan Etxekoandrea
Anaia	Arte Ederretan lizentziatua Lanbide Heziketa Goi Mailako Zikloa Iluminazioan	Iluminadorea antzerkian, laburmetraietan eta argazkian Argazkilaria

### 23. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO ikastetxe pribatu katolikoan, D eredia (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI Lizeoan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan ondo)
18-23	Enpresaritzan lizentziatua unibertsitate pribatuan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
23-24	Marketin arduraduna enpresa txikian (700 euro, praktiketako kontratua)
24-25	Enpresa txikiko enplegatu (Leonardo beka)
25-26	Call center eta gero katalogoan lanean enpresa txikian (1.500 euro, kontratu finkoa, enpresa itxi)
26-31	Transnasionaleko marketina, datuak prozesatzea eta salmenta (2.000 euro, kontratu finkoa)
31-33	Altzari enpresako marketin arduraduna (2.200 euro, kontratu finkoa)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Enpresaritzan lizentziatua	Hainbat enpresetan lan Aholkularitza bulego propioa
Ama	Psikologian lizentziatua	Psikologia kontsulta
Ahizpa	Psikologian lizentziatua	Laguntzaile psiko-soziala

## 24. elkarrizketatua (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
6-7	OHO 1 A eredu ikastetxe pribatu katolikoan
7-17	OHO 2-8 eta BBB A eredu ikastetxe pribatu katolikoan (ikasketetan eskas)
17-19	BBB 3 eta UBI ikastetxe publikoan, A ereduan (BBB kostata eta UBI eskas, bukatu gabe)
19-21	Lanbide Heziketa FP2 Diseinu Grafikoa (ikasketetan baleko)
27	INEM Iturgintza (8 hilabete)
32-33	Maila Ertaineko Zikloa Elektrizitatea (ikasketetan baleko, 1. maila gainditua)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
21	Catering enpresan behargin (2 egun, 120 euro)
21-23	Diseinadore grafikoa (600 euro, aldi baterako kontratua)
24	Papelerako behargin (1.400 euro, aldi baterako kontratua, 10 orduko egunean, 2 hilabete)
24	Elektrizitate enpresa (7 hilabete)
25-26	Karpa montajearen behargin (urte 1)
26	Kanpineko behargin (5 hilabete)
26	Fabrikako behargin (2 hilabete)
27	Tabernako zerbitzari
28	Iturgin iturgintza enpresan (500 euro, praktikatako kontratua, 12 ordu egunean, etxetik 900 kilometrora)
28-29	Iturgin iturgintza enpresan (700 euro, autonomo faltsua)
29-30	Iturgin iturgintza enpresan (700 euro, autonomo faltsua, oso berandu kobratu, urte 1)
30-32	Iturgin iturgintza enpresan (1.100 euro, obrako kontratua, 2 urte, lan gaixotasunarengatik kaleratua)
32-33	Langabezia
33	Iturgin mantentze lanen zerbitzuak eskaintzen dituen transnasionalean (1.200 euro, 6 hilabeterako kontratua, orain berri beharra)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita		
Ama		
Anaia		

## 25. elkarrizketatua (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO ikastetxe pribatu katolikoan, D erdua (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI D ereduko ikastetxe publikoan (ikasketetan ondo)
18-23	Psikologian lizentziatua unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)
24	PIR gairitu eta plaza lortu (ikasketetan ondo)
24-26	Doktore ikastaroak, ikerketa eta IAD unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
24-27	Psikologia klinikoan espezialista trebakuntza-lana (1.000 euro, PIRaren praktikak)
27	Psikologoa zerbitzu publikoetan (ordezkapen kontratua, aste gutxi)
27	Neuropsikologoa gaixoei osatutako elkarte batean (lanaldi erdia)
28	Psikologoa elkarte batean (1.200 euro, autonomo faltsua, 2 hilabete)
28-29	Psikologo kliniko zerbitzu publikoetan (2.500 euro, aldi baterako kontratua, urte eta erdi)
29-31	Psikologo kliniko zerbitzu publikoetan (2.500 euro, funtzionario plaza)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Filosofian lizentziatua Teologian lizentziatua Doktore	Transnasionaleko administrari lanetan enplegatua
Ama	Idazkaria	Administrari gaztetan Etxekoandre ezkondu zenetik
Arreba	Psikologia klinikoan lizentziatua PIR	Funtzionario plaza zerbitzu publikoetan

## 26. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO A ereduko ikastetxe publikoan (ikasketetan baleko)
14-16	FP1 Administrari Laguntzailea A ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan baleko)
16-18	FP2 Kudeaketa Informatika A ereduko ikastetxe pribatuan (3 urte ziren eta 2. mailan utzi)
20-21	FP2 Kudeaketa Informatika A ereduko ikastetxe pribatuan (urte 1 eta utzi)
22-24	Argazkilaritza ikastetxe profesional pribatu ez homologatuan (ikasketetan ondo)
30-31	EPA unibertsitatera sartzeko prestaketa ikastaroa (ikasketetan ondo)
31-32	Magisteritza Lehen Hezkuntza (1. maila hasiberria)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
17-18	Taberna eta jatetxeko zerbitzari (30 euro zerbitzuko, kontraturik ez, asteburutan)
17-28*	Aitaren iturgintza enpresan administrari lanak (diru saririk ez, kontraturik ez)
21-22	Tabernako zerbitzari (kontraturik ez, asteburutan, ordu asko, 9 hilabete)
22-23	Kirol Federazio batean administrari lanak (150 euro, lanaldi partziala)
23	Tabernako zerbitzari (kontraturik ez, udan, kontraturik ez)
23-24	Haur baten zaintzaile (2 uda, kontraturik ez)
24	Garbitzaile (kontraturik ez)
24-25	Argazkilaritza laguntzaile ezkontzetan (60 euro zerbitzuko, autonomia)
25-28	Argazkilaritza denda propioa eta ikastaroak (autonomia, itxi beharra)
28-30	Fabrikako behargin transnazionalen enpresa hornitzailean (1.300 eta 1.500 euro artean, autonomo faltsua)
30-32	Tabernako zerbitzaria (800 euro, aldi baterako kontratua)

\*Lan hau konbinatu egin du tarte horretan egin dituen gainerakoekin.

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Iturgintza ikasketak	Unaia Iturgin behargin Iturgintza enpresa propioa Eskolako bedela (elbarritasun partziala)
Ama	Oinarrizko ikasketak	Fabrikako behargin Etxekoandre ezkondu zenetik Garbitzaile eta zerbitzuak etxe pribatuan 59 urterekin hasita
Anaia	FP1 Eraikuntza FP2 bukatu gabe	Aitaren iturgintza enpresan lanean Transnazionaleko biltegian enplegatu Langabezia Transnazionaleko behargin urtean 6 hilabetez azken 3 urtetan

## 27. *elkarrizketatua* (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO ikastetxe pribatu katolikoan, D eredia (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI ikastetxe publikoan, D eredia (ikasketetan ondo)
18-23	IVEFen lizentziatua unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
23-32*	DBHko irakaslea ikastetxe pribatu katolikoan (1.000 euro, hasieran ordezkapen kontratua, gero kontratu finkoa, lanaldiaren %55)
26-32*	DBHko irakaslea ikastetxe publiko katolikoan (800 euro, hasieran ordezkapen kontratua, gero kontratu finkoa, lanaldiaren %35)

\*Bi enplegu hauek aldi berean egiten ditu 26 urte zituenetik.

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Enpresaritzan lizentziatua	Aurrezki kutxako enplegatua betidanik
Ama	Oinarrizko ikasketak	Fabrikako behargin Etxekoandre ezkondu zenetik Administrari zerbitzu publikoetan ordezkapenak
Anaia	Injiniari Teknikoa Informatikan eta Elektronikan unibertsitate pribatuan Masterra Lan Arriskuen Prebentzioan	DBHko irakasle ikastetxe pribatuetan Aseguru etxeko enplegatua lan arriskuen prebentzioaren arloan

## 28. *elkarrizketatua* (emakumezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
6-8	OHO 1-2 A ereduko ikastetxe publikoan (ikasketetan ondo, ikastetxea itxi)
8-10	OHO 3-8 ikastetxe pribatu katolikoan, A eredia (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI ikastetxe publikoan, A eredia (ikasketetan ondo)
18-25	Medikuntza unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo)
26	MIR (ikasketetan ondo)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
26-29	Mediku residentea (1.100 euro oinarrizko soldata, 1.100 euro 4 goardia hilean, trebakuntza-lana)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Lanbide Heziketan Elektrizitatea	Eraikuntzan eskabadorarekin
Ama	Oinarrizko ikasketak	Garbitzailea 30 urtez



## 29. *elkarrizketatua* (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan baleko)
14-17	BBB ikastetxe publikoan, D eredua (ikasketetan justu, azkenerako eskas, 3. maila bukatu gabe utzi)
17-19	REM ikastetxe publikoan, D eredua (ikasketetan baleko)
19-21	Lanbide Heziketan Goi Mailako Zikloa Mantentze Lanak (ikasketetan baleko)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
22	Papelerako behargin (obrako kontratua, 10 ordu, baita asteburuak ere, 2 hilabete)
22	Udaleko sail batean mantentze lanak eta publikoari arreta (1.300 euro, tartekako ordezkapen kontratuak, 3 hilabete)
22	Fabrikako behargin (300 euro, praktiketako kontratua, 2 hilabete)
23	Garagardo makinen konpontzen lanetan behargin (900 euro, aldi baterako kontratua, 2 hilabete)
23-32	Mantentze lanak transnazional baten enpresa azpikontratatuan (1.200 euro, kontratu finkoa)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Bitxigintza ikasi informalki	Familiaren bitxidenda eta atelierra bere kargu Lanbide Heziketako bitxigintzako irakasle
Ama	Lanbide Heziketan Administrazioa	Bitxidendako ardura
Anaia	REM	Bitxidendako enplegatu Kristalero Langabezia

### 30. elkarrizketatua (gizonezkoa)

Ibilbide akademikoa	
Adina	Ikasketak
3-15	OHO ikastetxe pribatu katolikoan, D eredia (ikasketetan eskas, 1 erreplikatu)
15-18	BBB ikastetxe publikoan, D eredia (ikasketetan eskas, bukatu aurretik utzi)
21-22	FP1 Eraikuntza ikastetxe publikoan INEMen ikastaroan prestatuta (ikasketetan ondo)

Ibilbide profesionala	
Adina	Enplegua
18-19	Posta banaketa (300 euro, kontraturik ez)
21-22	Eraikuntzako behargin (300 euro, praktiketako kontratua, ikasketa-lana)
22-23	Eraikuntzako behargin, erreforma txikiak (1.200 euro, obra kontratua, urte 1)
23-24	Eraikuntzako behargin, fatxadak (1.600 euro plusei esker, obrako kontratua, 6 hilabete)
24-26	Eraikuntzako behargin, obra handiak (1.200 euro, tarteka plusak, obrako kontratua)
26-28	Eraikuntzako behargin (1.700 euro, 10 euro orduko, obrako kontratua, urte eta erdi)
28-29	Langabezia
29-30	Hirugarren sektoreko behargin (900 euro, aldi baterako kontratua)
30-32	Kimika industriako transnasionaleko behargin (hasieran ABLE bidez aldi baterako kontratua 900 euro, gero kontratua zuzenean, finkoa baina gehiegizko ekoizpenagatik, 1.700 euro, gero, kaleratu ondoren, hilabete batez behin-behineko)
32-33	Langabezia

Etxekoak		
Nor	Ikasketak	Enpleguak
Aita	Lanbide Heziketako ikasketak	Mekanikoa
Ama	Oinarrizko ikasketak	Fabrikako beharko Etxekoandre ezkondu zenetik
Anaia 17 urte zaharragoa	Oinarrizko ikasketak	Aurrezki kutxa bateko enplegatu
Arreba 16 urte zaharragoa	Jostuna	Jostuna
Arreba 9 urte zaharragoa	Lanbide Heziketan Laguntzailea	Klinika Haurrak zaintzen urte luzez Dentista baten laguntzailea

### 31. elkarrizketatua (gizonezkoa)

<b>Ibilbide akademikoa</b>	
<b>Adina</b>	<b>Ikasketak</b>
3-14	OHO Ikastolan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan ondo)
14-18	BBB eta UBI Lizeoan, D ereduko ikastetxe pribatuan (ikasketetan baleko baina gainbehera)
18-25	Injiniaritza Teknikoa unibertsitate publikoan (hasieran eskas, gero luzapenetan, azkenean utzi)
27	Filosofia unibertsitate publikoan (soilik zenbait arlo, gero utzi)
27-31	Lanbide Heziketan Goi Mailako Zikloa Gorputz eta Kirol Jardueretan Teknikari ikastetxe publikoan (2 urtekoa 4 urtetan, istripu larria tartean)
30-32	Lanbide Heziketan Goi Mailako eta Maila Ertaineko Zikloa Mendi eta Eskaladan Teknikaria (ikasketetan ondo, 3 mailatik 2 gainditu, urtean urtekoa)
31-32	Magisteritza Gorputz Hezkuntza unibertsitate publikoan (ikasketetan ondo, 3 mailatik 1 gainditu, urtean urtekoa)

<b>Ibilbide profesionala</b>	
<b>Adina</b>	<b>Enplegua</b>
23	Aterpetxeko zaintzaile eta ikastaroen begirale (60 euro asteburuko eta eski ikastaroengatik 400 euro, kontraturik ez, 6 hilabete)
24-27	Eskiko ikastaroen begirale (tarteka 24-26 urte artean, maiz 27 urte, batik bat urtarrila eta martxoa artean, kontraturik ez, 50 euro 2 orduko ikastaroa, 75 euro 4 ordukoa, 100 euro egun osoa)
25-27	Iturgin (400 euro batez beste baina lanaldi aldakorra, gainerako jardueren araberakoa)
30-32	Mendiko begirale (50 euro gordin eguneko, 600 euro asteko, 31 urtetik aurrera obrako kontratua)
31	Udaleku irekietako begirale (2.200 euro, obrako kontratua)
31	Kale hezitzaile (obrako kontratua, asteburutan mendi irteerak eta bestelako aisialdiko jarduerak)
31-32	Igerilekuko begirale udan (lehenengo urtean 400 euro azpikontrataren bidez, bigarren urtean 1.200 euro enpresak zuzenean kontratatuta)

<b>Etxekoak</b>		
<b>Nor</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Enpleguak</b>
Aita	Lanbide Heziketan Elektrizitatea	Transnasionaleko behargin
Ama	Ingelesa Lanbide Heziketan Administrazioa	OHOko irakasle Administraria
Anaia	Lanbide Heziketan Goi Mailako Zikloa Elektronika Magisteritza Atzerriko Hizkuntza	Hirugarren sektorea

### 3. Eskolak ertz ugari

Begirada homogeneizatzailea errealitatearen etsaia da. Hori aurkitu dugu elkarrizketatu ditugunen diskurtsoak aztertzerakoan. Elkarrizketatuen ibilbide akademikoei dagokienez ere ezingo genuke gutxiago esan. Eskolak ertz ugari ditu. Elkarrizketatuen diskurtsoetan ikertu ditugunak azaltzen saiatuko gara segidan.

#### 3.1 Eskolak funtzionatzen du

Soilik alde batera begiratuko bagenu, elkarrizketatu ditugun hainbaten ibilbide akademikoak kontuan hartuz, zalantzarik gabe esan ahal izango genuke eskolak benetan funtzionatzen duela. Beste zenbait elkarrizketaturi dagokienez ere, hainbat unetan arazoak izan dituzten arren, beren diskurtsoetan nabarmena da zenbait unetan hezkuntza sistemak bete-betean asmatu duela beraiekin, edo beraiek behintzat hala sentitzen dutela, beraiek adierazi digutenaren arabera.

“Nik txikitako oso oroitzapen ona daukat. Oso babestuta sentitu nintzen. Garai oso onak izan ziran (...) Diziplina asko. Gustatzen zitzaidan... Bueno, orduan ez baina orain gustatzen zait ta iruditzen zait beharrezkoa dala hori transmititzea (...) Ikasketekin oso ondo moldatzen nintzan. Ikasle fina nintzan. Etxean beti diziplina handia izan det. Ez neukan batere arazorik.”<sup>1170</sup>

“Oso ikasle ona izan naiz ta neretzat dena izan da zuzena. Oso gustora.”<sup>1171</sup>

“[Oroitzapen] ona dakat, orokorrean ona. Ni ez nintzan pertsona bat ikasle moduan arazo asko sortzen zituna ta irakasleekin beti oso harreman ona. (...) Beraz, ondo tratatu naute.”<sup>1172</sup>

“Ez daukat [OHOk] oroitzapen txarririk. Zazpigarren mailara arte ondo ibili nintzen notekin. Erraza izango zan baita ere. (...) Natural egin zitzaidan garai batera arte (...) Giro ona zeon. Lagunak ginan [irakasleak eta ikasleak]. Giro politta zeon.”<sup>1173</sup>

“Oroitzapen ona daukat. Ez daukat traumarik [barre egiten du] (...) Txikia zinan eta edozein gauzakin ondo pasatzen zenun. Ez zeon txapa-txapa haundirik. Ez daukat buruan behintzat. (...) Irakasle bat kenduta, harreman ona izan det beti. (...) Dena aprobaten nun.”<sup>1174</sup>

“Siempre he sido una persona que he ido super a gusto a clase. Nunca no me ha no-gustado ir. He ido y he estado siempre bien. No tengo mal recuerdo. Al revés. (...) Yo tenía claro que quería estudiar y sabía que era lo que tenía que hacer. (...) [Me arreglaba] muy bien con las notas, sin ningún problema. (...) Era buena estudiando. Hacía lo que quería.”<sup>1175</sup>

---

<sup>1170</sup> 7. Elk.

<sup>1171</sup> 12. Elk.

<sup>1172</sup> 25. Elk.

<sup>1173</sup> 20. Elk.

<sup>1174</sup> 27. Elk.

<sup>1175</sup> 28. Elk.

Aipu hauetan agerikoa da hainbat elkarrizketuk iritzi ona dutela beraiek ezagutu duten hezkuntza sistemarekiko. Nabarmentzeko modukoa da elkarrizketa hauen iritzi ona neurri handi batean lotua dagoela elkarrizketatuek izan duten ibilbide akademiko arrakastatsuari. Besteak beste, emaitza akademiko onak, ikastetxeko diziplinara egokitzea eta irakasleekiko harreman ona aipatzen dituzte. Hots, norberaren ibilbideak zerikusia du hezkuntza sistemaren balorazioarekin. Norbera da erakundearen neurria? Akaso hein handi batean hori ondoriozta dezakegu. Agian alderantziz ere esan genezake: erakundea norberaren neurrira egina dagoela dirudi. Edo apika buelta eman beharko genioke baieztapen horri: norbera erakundearen neurrira egina dagoela dirudi.

Hezkuntza sistemaren bertuteak nabarmentzen dituen diskurtso bat aurkitu dugu hainbat elkarrizketetan. Batzuetan elkarrizketatzailearen diskurtso nagusia da, beste guztiei gaina hartzen ziena. Beste zenbait elkarrizketetan txertatu egiten da bestelako diskurtsoekin batera, tartean edo azpian.

Hezkuntza sistemarekiko ikuspegi hau ez da agertu soilik ikasketa maila edo ikastetxe mota batzuei buruz hitz egitean. Zenbait elkarrizketatuk balorazio positiboak egin dituzte Lehen Hezkuntzari buruz, baina baita Bigarren Hezkuntza eta Hirugarren Hezkuntzari buruz ere. Gainera, hainbat ikastetxe mota aipatu dituzte: ikastetxe publikoak, ikastolak, ikastetxe pribatu katolikoak, unibertsitate publikoak eta unibertsitate pribatuak, besteak beste.

Doain ugari aipatu dituzte hezkuntza sistemaren lorpenen artean. Esate baterako, positibotzat aipatu dute hezkuntza sistema baliagarria dela lanerako trebatzeko.

“Asignatura guztiak ziran interesgarriak [unibertsitatean], oso esparru berriak zialako. (...) Oso ondo moldatzen nintzen asigurekin. (...) [Ikasketek lagundu didate] batetik maila akademikoan, batez ere orain egiten deten lanerako nik nabaritzen det ikaragarri. Formakuntzan ikaragarri lagundu diate.”<sup>1176</sup>

Baina erabilgarritasun profesionala ez ezik beste era batera ere erabilgarria dela ere nabarmendu dute zenbait elkarrizketatuk. Ezagutza orokorra eskuratzen laguntzen du hezkuntza sistemak, zenbait elkarrizketaturen arabera. Kultur arloan aberasgarria da eta bizitzarako trebatzeko baliabideak eskaintzen ditu, elkarrizketatu hauen arabera.

“UBIn geundenean disfrutatu nun pila bat. Ziran... nik ikasi nun historia ta literatura ta nik disfrutatu nun pila bat. Iruditzen zitzaidan oso interesgarria. Utila? Bueno, es que hori da oso... Eguneroko bizitzarako? Nik uste dut institutua bukatzen genuenean, bukatzen genuen kultura pila batekin. (...) Gauza askori buruz gauza asko genekizkien. Nik disfrutatu nun pila bat 3. mailan eta COUn.”<sup>1177</sup>

Norberaren heldutasun prozesua sustatzen du hezkuntza sistemak, elkarrizketatu honen arabera:

“Nik oroitzapen onak dauzkat. Nik ez det inoiz izan arazorikan eskolara juteko. (...) Gauza da nik ez neukala zailtasun haundirik ta orduan zu ez zea konsziente gauzetaz, ze nola zuk iteituzun inolako zearik gabe, ba, iteituzu ta listo. (...) Bizitu ditudan egoera ezberdinetan, leku ezberdinetan, jende

---

<sup>1176</sup> 19. Elk.

<sup>1177</sup> 25. Elk.

ezberdinekin, nere heldutasun prozesuan-edo lagundu diatela, bai ni nere buruakin bai ikuspegi ezberdinak. Akademikoki jakituriarekin ere ikasten dezu, baina ni gehio gelditzen naiz bestekin, pertsonalakin, askoz gehio.”<sup>1178</sup>

Halaber, hezkuntza sistemak euskarri moduan funtzionatzen du Bourdieuk kapital soziala deitzen duena lantzeko, elkarrizketatu honek dioenez:

“Oso kontentu nao [Lizeo jakin batean] ikasi izanaz. Nere bizitzan daukadan altxor haundienetariko bat nere lagunak dia eta nere kuadrilan orain daude parbulitotan elkarrekin ikasi genun klaseko bost. (...) Orain izango gera 10 edo 11 (...) ta beste guztiak [Lizeo jakin horretatik] etorri zian, beste geletatik-edo. (...) Parte batean [Lizeo jakin honek] dauka garrantzi haundia hortan.”<sup>1179</sup>

Hizkuntzen diglosia egoeraren aurre eginez, hainbat ikastetxek baliabideak eman dizkiete bertan ibili diren ikasleei euskara ikasteko.

“Irakasleak orokorrean nahiko onak ziren (...) Edukiei begira (...) gaurtik begira iruditzen zait nahiko osatua zela. Euskalduntzeari dagokionez (...) gerora konturatu naiz batez ere gurasoak erdaldunak dituen jende askorekin ez direla batere euskaldundu, ta gu hiruak [hiru ahizpak] nahiko euskaldundu gera, ta ziur naiz ikastolak izan zuela zerikusia horrekin, haundia (...) Ikusten dituzunean beste ikastola batzuk, esaten dezu: Ai ene, hau bai, ondo egiten zuten.”<sup>1180</sup> [Guraso erdaldunak dauzka]

Arrotzak diren diziplinetara egokitzera bultzatzea ere positibotzat aipatu dute zenbait elkarrizketatuk.

“Apaizak ondo portatu zian gurekin. (...) Nahiko ondo iruditu zitzaidan. Ondo egon zan. (...) [Ni ibili nintzen ikastetxearen hezkuntza eredu] ondo iruditu zitzaidan. Alde gendun, ba, adibidez, andereño bat monja zela ta nahiko gogorra zan, ez? Adibidez, kontrolatzen zizkigun hilabetero ez dakit zer. Kuadrikulatua zen. Iguala idazten hasteko utzi behar dituzu lau kuadrigo goitik, bost kuadrigo... Zan hori... Niretzat, bueno... Nik uste dut nahiko ikasle ona izan nintzela ta, orduan, nahiz ta kuadrikulatua izan, ba, nik jarraitu nun ta ondo moldatu nintzan. (...) Neretzat ondo egon zan.”<sup>1181</sup>

Baina orain arte aipatu duguna hezkuntza sistemaren aurpegi bat baino ez da. Egin ditugun elkarrizketetan nabarmen gelditu dira hezkuntza sistemaren modu bateko eta besteko ajeak.

### 3.2 Eskola ez dabil ondo

Eskolak ondo funtzionatzen du, baina batzuentzat bakarrik. Pausoka aztertzen saiatuko garen hainbat fenomeno tarteko, hezkuntza sistemak sarri eraginkortasun handiz ezartzen ditu dinamika zatikatzaileak, mesprextatzaileak eta baztertzaileak. Aniztasunari berdintasunez erantzuteko arazo oso handiak dauzka. Aurreko atalean ikusi dugunez, badirudi bere eredura hurbiltzen dena gogo

---

<sup>1178</sup> 21. Elk.

<sup>1179</sup> 22. Elk.

<sup>1180</sup> 19. Elk.

<sup>1181</sup> 23. Elk.

onez hartzen duela. Are gehiago, pertsona horiei babeseta eta auspoa ematen die. Baina zer gertatzen da gainerakoekin?

Dinamika hori azaltze aldera, beste muturretik hasiko gara. Ikasketa jakin batean ondo moldatu direnak gaizki dabilzanekiko adierazten duten ikuspegia aztertuko dugu. Diskurtso horietan badirudi, neurri handi batean behintzat, arazoaren jatorria ikaskideengan dagoela.

“Neretzako dezepzioa izan zan unibertsitate giroa, ez dagolako batere kultur girorik. Zuk espero dezu jungo zeala unibertsitatera eta badagoela jauzi bat jendearen interesen artean, eta ez zegoen batere... Alegia, institutoko jende hori zeukana aisialdian antzekoa zan (...) ta batez ere humanitateetan (...) nahi nun jendea bizi zana kulturari lotua, eta klasean bertan kultur kezka haundigoa zeukan jendea.”<sup>1182</sup>

“Askotan konturatzen zea, ba, igual klasean daon giroagatik, ba, igual abanzatu ditteken guztia ezin dala abanzatu, ba, jende asko ez daolako ikasteko, jende asko daolako, ba, hoixe, hormonak aldatuta edo denbora pasa edo gurasoek bidali dutelako. Orduan, ez da ikasteko leku bat eta ez dezu abanzatzen abanzatu litteken guztiya”<sup>1183</sup>

“[Lanbide Heziketako ikastetxe jakin batean nengoela] interesa galdu nun berriro. Nobedaderik ez zeon. Ez genuen abanzatzen. Klase batzuk hamar minutuko ariketak zian ta ordu osoa irauten zun. Irakaslea besteei laguntzen ibiltzen zan ta ni aspertu iten nintzan.”<sup>1184</sup>

Hots, zenbait elkarrizketatuk hezkuntza sistemaren garai batzuk galga bezala bizi izan dituzte. Ezin izan dute beren interesa asetu. Ziurtzat jotzen dute hezkuntza sistema eta bere baitan dauden agente guztiak potentzialki gai direla askoz emankorrakoak izateko baina ez direla iristen hori lortzera.

Fenomeno honen oinarrian aniztasuna dago, gure ikuspegitik, eta batez ere ezberdintasuna baliokidetzan oinarrituta lantzeko gaitasun eskasa. Berdinkeria ardatz duen hezkuntza estrategiak ezberdinkeria ekoizten du.

Hori ulertzeko gakoetako bat argitasun handiz formulatzen du elkarrizketatu batek, nahiz eta berak ibilbide akademiko arrakastatsua izan duen:

“Hezkuntzan batez ere helburutan jartzen da indarra. Ta hori ikusten da ume txikiakin. Dena da gauzak lortu, ta denak jun behar degu batera, ta hor individuala galtzen da. Bestea topikoa da, bakoitzak beharko lukeela irakasle bat, baina bestea ere, hor gelditzen dira %20a edo %10a ez zaiona eman behar bezain beste protekzio.”<sup>1185</sup>

Diskurtso horrek aztergai dugun hezkuntza sistemaren funtsetako bat iradokitzen du: kultura bakarraren ideia. Kultura, letra larriz idatzia. Funtsezko kulturatzat definitzen dena ikastea derrigorrezkotzat jotzen da. Hori da ikasi beharrekoa, ez beste ezer. Gainerakoa interesgarria izan

<sup>1182</sup> 19. Elk.

<sup>1183</sup> 9. Elk.

<sup>1184</sup> 6. Elk.

<sup>1185</sup> 12. Elk.

daiteke, baina benetan garrantzitsuena hezkuntza helburuetan zehazten dena ikasleen artean hedatzea da. Helburu jakin batzuk metodologia zehatz batzuen bitartez lortu beharra erabakitzen dute hori erabakitzeko legitimotasuna daukatenean eta hori ezartzeko dinamika eraginkorrak inposa ditzaketenean. Ondorioz, ikasle potentzialen multzo anitzaren gain dinamika homogeneizatzaileak ezartzen dira. Guztiek erdietsi behar dituzte helburu berberak metodologia uniformizatu batzuen bitartez. Hezkuntza sistemaren urrats bakoitza gainditu behar da prestigiotsutzat jotzen den ibilbidea jarraitu ahal izateko. Baina zer gertatzen da kanpoan gelditzen direnekin?

Elkarrizketatuen artean askok adierazi dute hezkuntza sistemaren urrats jakin batzuetan ez direla ondo moldatu. Elkarrizketatu batzuek, berriz, urrats jakin batzuetan ez ezik oro har hezkuntza sistemaren urrats guztietan gaizki ibili direla azaldu dute.

“[BBBko ikastetxe publikoan] zorrotzagoa zan dana. Guretzako behintzat salto haundia. Gainera, beste ikastetxeko jendeakin nabaria zan nibela. Klase berean nivel ezberdineko jendeakin, ba, zaila. Altua baldin baukazu, ez, baina bajua... bueno, bajua o beste nivel mota bat baldin baukazu.”<sup>1186</sup>

“Nik jaso nuena izan zen han ikasle ona izanez gero, tokia zenuela, baina txarra izanez gero, oso laguntza gutxi. (...) Onartu behar det alperra izanik ez nuela nahikoa ikasten, baina gero ere, pues, ez nuen, ez dakit nola esan, laguntza berezirik jasotzen. Penko pilo bat ateratzen nitun ta inor... bueno, irakasle bat izan ezik, beste inor ez zen etorri neregana ikustea, ea, ikasle honek zergatik ateratzen ditu penko asko? Motza da? Edo beste arazo batzuk ditu? Zergatik?”<sup>1187</sup>

“Nik dakat sentazioa Lizeoan ondo zihoazten ikasleei laguntza gehiago eskaintzen zietela eta igual hain trebeak ez ginane, ba, penkatzen genune, ba, agian gauzak... ba, laguntza gehio eskaini ordez, badirudi ikasle onei laguntza gehio eskeintzen zietela.”<sup>1188</sup>

“[Ikastetxe publikoa jakin batean] la motivación era cero. Edo zu motibatzen zinan edo... eta gehienbat ikasle txarra bazinan. Nik argi daukat. Ikasle txarrarena ta pixkat atzean gelditzean dena, atzean gelditzen da. Ahí no hay ningún tipo de refuerzos ni nada por el estilo. Jarraitzen dute aurrera con los primeros de la clase ta ya está. Y si pillas, pillas, y si no...”<sup>1189</sup>

“Ikasle ona bazinen, ba, oso ondo ta apoiatu iten zizuten, baina ikasle txarrak zirenetaz paso iten zuten zeharo. Orain laguntza gehio dago, baina gure garaian oso estigmatizatuta zeuden, oso banatuta.”<sup>1190</sup>

“[BBBko ikastetxe publikoan] bakoitzak bere ardura hartu behar zun gehio ta irakasleak ez zeuden hain gainean, ta orduan, ba, hori nere kasuan izan zan ya la gota que colmaba el vaso, ya burua galtzeko edo ez zentratzeko behintzat. (...) Ikastolan zeuden mentalizatuagoak pertsona bakoitzarekin ahalik eta hoberena egiteko, eta institutoan zentratzen zian adi zeudenekin, aurrera jarraitu nahi zutenekin. Besteak zian lastre bat beraientzat. Klasea fastidiatzen zieten. Pentsatzen det hori zan ya

---

<sup>1186</sup> 29. Elk.

<sup>1187</sup> 8. Elk.

<sup>1188</sup> 10. Elk.

<sup>1189</sup> 17. Elk.

<sup>1190</sup> 25. Elk.



naturala. Irakasleak adin horretako jendearekin iten du aukeraketa naturala. Adi bazaude, esplikatuko dizut, baina adi ez bazaude, aurrera ta listo.”<sup>1191</sup>

Beraz, elkarrizketatu hauen arabera, hezkuntza sistemaren makineriak bereizketa lana egiten du ikasle batzuen eta besteen artean. Emaidza akademikoak dira bereizketa horien ageriko euskarri erabiliena, publikoki proiektatzen den hezkuntza sistemaren diskurtsoan behintzat. Ideia hori ikasleen diskurtsoetan ere islatzen da. Hezkuntza sistemak eskatzen dituen helburuetara ailegatzeko denak aurrera egiten du eta gainerakoek ez. Ikasleen gaitasun indibiduala bihurtzen da bereizketaren ardatz. Egoera horren aurrean, goian aipatu ditugun elkarrizketatuen arabera, hezkuntza sistemak ez du baliabide nahikorik erabiltzen helburu estandarretara egokitzen ez diren ikasleak babesteko. Aitzitik, eguneroko dinamika estandarra jarraitzen ez dutenez, prestigiozkoa den dinamika nagusitik at uzten ditu. Elkarrizketatu baten hitzak baliatuz esan genezake hezkuntza sistemak estigma ekoizten duela.

Hezkuntza sistemaren diskurtsoak zalantza izpirik gabe azaltzen du dinamika honen zergatia: ikasleek helburu jakin batzuk bete behar dituzte eta horretara iristen ez diren ikasleei ezin zaie aurrera egiten utzi harik eta helburu horiek gainditzeko gai diren arte. Baina fenomeno hau *gainditu vs ez gainditu* dikotomiak islatzen duena baino askoz konplexuagoa da. Gaitasuna ez da bereizketaren sakoneko oinarria, funtsean ez behintzat, nahiz eta ageriko maila batean hala izan. Horren zantzuak aztertuko ditugu aurrerago.

Dinamika hau areagotu egiten da batik bat nerabezeroan. Elkarrizketatuen diskurtso askotan garai kritikotzat islatzen dute. Urte horietan garatzen den hezkuntza sistemaren aldaketak nabarmendu dituzte elkarrizketatu ugari. Nagusiki irakasleekiko urruntasun askoz handiagoa, babes sentazioaren desagertzea eta esijentzia akademiko zorrotzagoa azpimarratu dituzte hainbat elkarrizketatuk.

“Hor bai nabaritu nuen salto handia. Ba, leku oso babestu batetatik, ba, pixkat zure kabuz ibili behar zean lehenengo faseak. Ikastetxea haundiagoa da. Ez dituzu irakasle guztiak ezagutzen. Erdal jendea dago. Askatasun haundiagoa dezu klasera juteko edo ez (...) Ikasketetan ez zeneukan irakaslea gainean (...) Ikastetxearen funtzionamendua hotza zan, oso hotza (...) Ikastolak familia goxotasun hori ematen zizun (...) [Institutuan] ondo. Zailagoa in zitzaidan (...) baina ondo gainditu nun.”<sup>1192</sup>

“Gero [auzoko] institutora joan nintzen. Eso era jauja. Ikastolan denok ezagutzen ginen. Kontrol haundia zegoen. Institutoan no te conocía ni dios. Klasera juten bazinen, ondo, ta juten ez bazinen, mejor; así no molestabas.”<sup>1193</sup>

“El instituto es más voluntario que el colegio, yo creo. Entonces, si quieres, vas, y si quieres, no vas. Punto. Entonces, vas allí, te sueltan su chapa y tú si quieres escuchas y si no, no. Y en el colegio de monjas era un poco más estricto, más recto, digamos.”<sup>1194</sup>

---

<sup>1191</sup> 30. Elk.

<sup>1192</sup> 7. Elk.

<sup>1193</sup> 17. Elk.

<sup>1194</sup> 28. Elk.

[Lehen Hezkuntzan irakasleen lanarekin] oso pozik nengoen. Haurrarekin oso bolkatuta daude, oso gainean daude (...) Neri horrek asko lagundu zidan motibatzen. Hori azkenean da ikasteko motibazioa (...) [Bigarren Hezkuntzan] zentro berdinean eta hainbesteko diferentzia. Gezurra dirudi. Irakasleak hor ziran ya en plan de no me toques (...) Gero, ezagutzen zintuzten heinean, konfiantza gehio ematen zizuten, baina hasieran zan en plan Hitler.”<sup>1195</sup>

“[OHOkoko ikastola eta BBB eta UBiko ikastetxe publikoa alderatuz] salto haundia zeon irakasleen inplikazioan. Askoz inplikazio haundiagoa zeon ikastolan. Gero oso ondo moldatu nintzen, baina orokorrean nabaritzen zen hezkuntzarekin askoz inplikazio... Etortzen ziren klasera, botatzen zuten rolloa ta distantzia haundiagoa. Eskolan gertatzen ari zenarekiko inplikazio... Bestean nabaritzen zan komunitate bateko parte zirela denak ta institutoan bakoitzak bere lana egiten zun (...) ta mailari begira, interesik ez zegonez... gogoratzen det literatura espainola sekulako interesekin, gogoratzen det artea interesekin hartu nula... baina gainerako guztiak... (...) Hori bai, inplikazio gutxigo zegonez, askatasun haundiagoa zegoen ta gutxi gorabehera eginda, ateratzen zenun.”<sup>1196</sup>

“Ikastolan beti... ez dakit... zure gainean zeuden ikastolan. Ez dakit. Gertuagotik jarraitzen zizuten ta beti kontrolatuagoa. Institutoan ez ziren gehiegi preokupatzen horretan. Preokupatzen zian, ba, gaia aprobateaz eta ondo juteaz. Hori bai egiten zutela. Baina beste arloak ez zituzten ikutzen. (...) Institutoan ez zuten ezer amankomunean irakasleek. Bakoitzak bere aldetik jotzen zun.”<sup>1197</sup>

Lagunartean gertatzen diren aldaketak ere oso lotuta daude nerabezaroarekin. Aldaketa garaia da zentzu askotan, horrek susposatzen dituen aukera eta arriskuekin.

“[OHOkoko ikastetxea] ondo iruditzen zait ikastetxe bezela. (...) Ikasketetan ondo nenbilen, oso ondo, egia esan. Ni nintzen el típico empollón, media bikain... ez nintzen empollón. Garai hartan ez zegoen exigentziarik entorno horretan. (...) Nere klasetik bi bakarrik ez ziran BUPera pasa. Beste guztiak rekomendazioa geneukan. (...) Nik beste mentalitate bat neukan. Ez nun obligazio bezela ikusten. Seguro zeola baten bat ez zitzaidana gustatzen, baina ez geroko atragantatzen ziran hoiek. (...) [BBBko ikastetxean] aldatu zan dana. (...) Sozialki kriston aldaketa egon zan [OHOkoko ikaskide] guztientzat. Entorno txiki batetik, jende iguala izatetik, mundu berri batera. (...) Amistade berriak egiten dituzu, prioridade berriak dauzkazu. Institutoko rol hoiek sortzen dia, grupitoak. Beste presio sozial batzuk zeuden. Institutoetan ikusten dan... berdín du... lagun berriak in beharra, ondo erortzea lagun berri hoiei. Nik beti aparte egon nahi nun gauza hoietatik, baina azkenean beti erortzen zea. (...) Ta ikasketekin gaizki nenbilen. (...) La edad del pavo. Prioridade aldaketa haundiak gertatzen dia. Asignaturak interesatu bai... baina hori beste tema bat da. Niri beti gustatu izan zait ikastea, baina aspertu iten nintzan. Mantsoa zalako edo ulertzen nulako... aspertu iten nintzan. Baina gehienbat aldaketa soziala izan zan txarrena neretzat. Horrek baldintzatu nindun. Nere rola aldatu zan. Pixkanaka ikasketena zan obligazio sekundarioa, nahiz eta irakasleek eta gurasoek esan... (...) Orduan ez nintzen gai ikusteko nola eragingo zion nere bizitzari.”<sup>1198</sup>

“Un horror. Un horror. Oso gaixki, bukatu nuelako irakasle batekin en concreto oso gaixki. Zortzigarren maila errepikatu nun ere eta juntatu nintzan con lo mejorcito de cada casa. Euki nun

<sup>1195</sup> 18. Elk.

<sup>1196</sup> 19. Elk.

<sup>1197</sup> 27. Elk.

<sup>1198</sup> 6. Elk.

denboraldi bat hola... Nota txarrak ateratzen nitun. Los curas son un poco así (...) Gurasoekin ere pixkat mobidita.”<sup>1199</sup>

“Hor izan zan talde bat juntatu ginana txarra, ta adina ere ez da egokina.”<sup>1200</sup>

“[Ikastetxe publiko jakin batean arazoak izan nituen], ba, nere inguruan zeon jendearekin juntatzeagatik ta alde batea utzi nitun ikasketak jendearekin eoteagatik eta beste gauza batzuk direla medio.”<sup>1201</sup>

Baina zenbait elkarrizketatuk ez dute negatibotzat jo ikastetxearekiko eta irakasleekiko urruntasuna. Haatik, askeago ibiltzeko abagune bezala interpretatu dute.

“Ta ikastolai buruzko ze iritzi? Eon nintzan bitartean ez zan drama bat netzako. Gauzak pasatzen jun nintzen. Eskatzen zitzaidana iten nun. Pixka bat izakera edukitzen hasten zeanean ta atzea beitzen dezunean, ez zaizu oso gauza normala iruditzen, ze iruditzen zait hango dinamikai lotu nintzaiola ta hango dinamika hain zuzen e... gustatzen ez zitzaidala alegia. Hango balore batzuk, umeei balore batzuk ezarri nahia, baino nahiko modu ez nere gustokoa. Eta bueno, hori orokorrean. Irakasleak nahiko gainean genitula ta beraien lantzat ez zutela hartu bakarrik guri asignaturak erakustea baizik baita gu hezitzea ere bai, esplikatzuz gauzak nola izan behar zian ta nola ez zian izan behar, ta halako gauzak. Eta horren konparazioan, [Ikastola bateko] etapa pasa ta gero [BBB eta UBiko ikastetxe publiko batera] pasa ginen. (...) Orduan hasten zea... iraultza bat dator, ez eskolagatik bakarrik baizik zure izakeragatik e bai. Oroitzapen ona det. Bueno, nerabe batek izan ditzakeen problemekin, baina oroitzapen ona dauket batez e librego ibiltzen ginalako. Irakasleek ez zeukaten inolako asmo berezirik guri esplikatzeko nolakoa izan behar zen pertsona bat.”<sup>1202</sup>

### 3.3 Ikasleen espektro zabala

Zuri-beltzean ikusteko joera handia dugu maiz, baina hori lortu ahal izateko ezinbestekoa da asmo horrekin begiratzea. Ikerketa honetarako elkarrizketatu ditugunen diskurtsoak ere zuri-beltzean ikus genitzake, hala begiratzuz gero: ikasketetan ondo eta gaizki moldatu direnak. Azalean gelditu beharko genuke ordea.

Elkarrizketatu bakoitzari buruz 3.3 atalean trazatu ditugun perfiletan agerikoa da elkarrizketatu guztien ibilbideak ezberdinak direla. Haietako bakoitza errepikaezina da. Gainera, kontuan hartu behar da perfil horiek ez direla ibilbidea bera: elkarrizketatuak une jakin batean elkarrizketatzaile zehatz baten aurrean bere ibilbideari buruz ekoitzi duen diskurtsoan oinarrituz gerorrek egin dugun laburpen-interpretazioa da. Beraz, ibilbidearen izaerara hurbiltze ahaleginarekin batera dator halabeharrezko distantzia eta interpretazioa. Baina, hala ere, aise ikus daiteke elkarrizketatu bakoitzak bere bidea egin duela.

---

<sup>1199</sup> 17. Elk.

<sup>1200</sup> 14. Elk.

<sup>1201</sup> 2. Elk.

<sup>1202</sup> 1. Elk.

Aldi berean, ordea, oraintxe esan duguna ukatu gabe, esan genezake hainbat elkarrizketatuen ibilbideek begibistako antzekotasunak dauzkatela. Guztiak dira ezberdinak, baina batzuek elkarren antza dute.

Elkarrizketatu ditugun pertsonen ibilbideen ikusmira orokorra errazte aldera, elkarrizketatu guztien ibilbideak modu eskematikoan laburbildu ditugu. Zehaztasun batzuk galdu egiten dira eskema honetan eta ikur batzuk eztabaidagarriak dira, baina orokortasuna ikusten lagundu dezake eta, halaber, elkarrizketatuen arteko antzekotasunak nahiz ezberdintasunak nabarmentzeko tresna baliagarria izan daiteke.

Informazioa laburbilduta aurkezten duen 46. Taulan ikus dezakegunez, elkarrizketatuen ibilbide akademikoen iraupena oso ezberdina da: gazteen utzi zuenak 20 urte zituelarik bukatu zuen bere ibilbide akademikoa eta, aitzitik, elkarrizketatu batzuk 30 urte beteta ere ikasten ari dira, tartean etenak izan dituztelarik. Nolanahi ere, atentzioa ematen du elkarrizketatu guztiek 20 urte bete ondoren bukatu gabe zutela beren ibilbide akademikoa. Salbuespenak salbuespen, belaunaldi honentzat ohikoa dena harrigarria da ikuspegi historiko batetik. Baiezta genezake, hezkuntza formalari dagokionez behintzat, inoiz ikasketa formaletan denbora gehien inbertitu duen belaunaldia dela hau. Fenomeno orokortua da hori, nahiz eta modu asimetrikoan gauzatu den, hots, batzuen ibilbidea besteena baino askoz luzeagoa den arren.

Joera orokor batzuk ere aipa genitzake. OHOn ondo moldatu diren gehienak BBB egitera pasa dira (aurrerago aztertuko dugu REM ikasketei begiratzeko aurkitu ditugun ikuspegiak). Halaber, BBB eta UBI ikasketetan ondo moldatu direnek unibertsitate ikasketak egin dituzte, salbuespenik gabe. Hortaz, ondoriozta genezake ibilbide prestigiotsuena OHO-BBB-UBI-Unibertsitatea dela. Aurrerago analizatuko ditugun elkarrizketatuen diskurtsoetan argi gelditzen da ikuspegi sozial hau hegemonikoa dela.

**46. Taula: Elkarrizketatuen ibilbide akademikoak**

Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
1	B✓	B✓	B✓	C✓	C✓	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U✓	U✓	U✓	U✓					
2	O?	B*	R*	R?	R?	R?	R?	R?	F?	F?	F?	-	-	-	-	-					
3	B○	B○	B○	C○	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-				
4	B○	B○	B○	C*	C○	U*	U*	U*	U*	U*	U*	F✓	F✓	-	-	-	-				
5	B✓	B✓	B✓	C*	C*	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-				
6	B?	B*	B?	B?	B?	F✓	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
7	B✓	B✓	B✓	C✓	U*	U*	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	-	-	-	-	-	-	-	-
8	B*	B*	B○	C○	U*	U○	U○	U○	U*	U*	U*	U?	U?	U?	-	-	-	-	-	-	-
9	B✓	B✓	B✓	C✓	U○	U○	U*	-	-	-	-	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-
10	B✓	B✓	B○	C○	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-				
11	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-					
12	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-
13	O*	O*	F○	F○	F○	F○	F○	F○	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
14	B○	B○	B○	C○	U*	U○	U○	U○	U○	-	U*	U*	U✓	U✓	U✓						
15	F*	F*	F*	F*	F*	F*	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-					
16	F✓	F✓	B○	C○	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	U*	U✓	U✓	U✓				
17	O?	B?	B?	B?	C*	C?	F✓	F✓	F✓	U?	U?	U?	U?	U?	U?	-	-	-	-	-	-
18	B?	B?	B?	C?	C?	U○	U○	U○	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
19	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-
20	B?	B?	B?	C*	C*	F✓	F✓	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
21	R✓	R✓	R✓	R✓	U✓	U✓	U✓	U*	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-
22	B?	B?	B?	C?	C?	U*	U*	U*	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
23	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
24	B?	B?	B*	B?	C*	F○	F○	F○	-	-	-	-	-	F○	-	-	-	-	-	F○	F○
25	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-
26	F○	F○	F○	F○	F*	-	F○	F*	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	C✓	U✓	U✓		
27	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
28	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-
29	B?	B?	B*	R○	R○	R○	F○	F○	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
30	B?	B*	B*	-	-	-	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
31	B✓	B✓	B?	C?	U?	U*	U*	U*	U*	U*	U*	U*	-	F✓	F✓	F✓	F✓	U✓	U✓		

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: Ikurrek ikasketen maila (O [OHO], F[FP], R [REM], B [BBB], C [UBI], U [Uni]) eta zer moduz zihokion (ondo ✓, eskas \*, baleko ○, justu ?) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean lanean ari zela.

Arazo motaren bat izan dutenen artean, aldiz, batzuk unibertsitatera joan dira eta beste batzuk lanbide heziketan ibili dira. Interesgarria da aztertzea zergatik egin duten bide ezberdina itxuraz antzeko egoera akademikoan zeudenek. Hori egiten saiatuko gara aurrerago.

Edonola ere, sinplekerian erortzea litzateke elkarrizketatuak unibertsitatera joan direnen eta joan ez direnen artean banatzea. Esate baterako, unibertsitatera joan zirenen artean ezberdintasun handiak daude: ikasketa maila, mota eta prestigioa, ikasketen iraupena, ikasketak burutzeko erraztasuna edo zailtasuna, ikasketek eragiten duten asetasun maila, eta tituluaren kopurua, besteak beste. Unibertsitateko tituluak eskuratu ez dituztenen artean ere, jakina, ezberdintasunak oso agerikoak dira: lanbide heziketan ibili direnetz, ikasketaren bat burutu dutenetz eta zer moduz moldatu diren ikasketetan, besteak beste.

Espektra oso zabala da, beraz, elkarrizketatu ditugunen artean. Gainera, kontuan hartu behar da aniztasun hori nabarmena dela soilik ikasketa maila eta ikasketetan zer moduz moldatu ziren

azaletik aintzat hartuz. Bi faktore horietan sakonduz gero edo beste zenbait faktore esanguratsu aztertuz gero, egoeraren konplexutasuna areagotu egiten da.

### 3.4 Ikastetxeen aniztasuna

Elkarrizketatuek ezagutu dituzten ikastetxe moten espektroa ere nahiko zabala da. Ikastetxeen arteko bereizketak egiteko denen ahotan dabilzan hainbat irizpide aipa ditzakegu: publikoa edo pribatua den, zein hizkuntza eredu duten (A, B edo D), eta laikoa edo erlijioso den. Elkarrizketatu ditugun pertsonen artean faktore hauen konbinazio guztiak ikusi ditugu, nahiz eta batzuen kopurua handiagoa den elkarrizketatuen artean.

Baina elkarrizketatuek ez dute hain modu esplizituan formulatzen horiek guztiak bezain garrantzitsua den beste irizpide bat. Ez dute hori egiten agian ez dagoelako definizio sozial argi, hedatu eta eraginkorrik. Irizpide horri *hezkuntza eredu* dei geniezaioke. Joera orokorrak egon, badaude, eta oso indartsuak eta orokortuak dira (eredu nagusi hori aurrerago azaltzen saiatuko gara), baina aldi berean erraz antzeman daiteke elkarrizketatuek aipatu dizkiguten ikastetxe guztien hezkuntza ereduak ez direla berdinak. Badirudi ikastetxeek joera indartsuenak oso hurbiletik jarraitzen dituztela, baina horrek ez du esan nahi joera horiek erabat hegemonikoak direnik. Gainera, ez dirudi hemen hezkuntza eredu deitzen dugun irizpide horrek bat egiten duenik aipatu ditugun beste irizpideekin (publiko-pribatu, hizkuntza eredu, laikoa-erlijioso). Hau da, azken hiru irizpideen konbinazio bakoitzak ez du hezkuntza eredu bana eskaintzen. Aitzitik, irizpideen konbinazio berdina duten bi ikastetxek hezkuntza eredu ezberdina izan dezakete eta, halaber, irizpideen konbinazio ezberdina duten bi ikastetxek antzeko hezkuntza eredu eskain dezakete. Esate baterako, D ereduko ikastetxe publiko laiko guztiek ez dute hezkuntza eredu berdina eskaintzen eta, aldi berean, zenbait arlotan oso antzekoak dirudite, adibidez, D ereduko ikastetxe pribatu batzuek eta A ereduko ikastetxe publikoek eskaintzen dutena.

Horren adibidea aurki dezakegu segidan aurkezten ditugun bi elkarrizketaturen aipu banatan. Bi elkarrizketatuek egin zuten REM. Itxuraz antzeko eskaintza zena, elkarrizketatu bakoitzak oso modu ezberdinean bizi izan zuen. Elkarrizketatu batek OHO bukatu bezain azkar erabaki zuen REM egitea, metodologia ezberdina zuelako. Beste elkarrizketatuak, ordea, BBBeko lehenengo mailan gaizki moldatu ondoren joan zen REM egitera, errazagoa zelakoan. Azken elkarrizketatu honen ikastetxe berean REM egiten aritu zen beste elkarrizketatu batek<sup>1203</sup> berretsi egiten du orain aurkezten dugun elkarrizketatuaren aipuak zeharka islatzen duena: REM eskaintzen zuen ikastetxe honen hezkuntza eredu aurretik BBB ikasi zuten ikastetxeko hezkuntza eredu berdina da baina badirudi exijentzia maila txikiagoa dela.

Bi aipu hauetan iradokitzen da izen beraren azpian bi hezkuntza eredu daudela. Ez dira agian elkarrengandik oso ezberdinak baina nabarmena da metodologia ezberdinak erabiltzen dituztela.

“Garai hartan eon zan eztabaida a ver jari REM edo BUP, ta nere aita nahiko sartuta zeon hortan ta REMen aldeko apustua egin zuten eta nere gurasoek sinisten zuten hortan, askoz ere hezkuntza... ba,

<sup>1203</sup> 26. Elk.

lanen bidez eta gehiago egiten zan zea batean, talde lanak, ez hainbeste memorizatu eta ikasi, pixkat gerorako lan mundurako antzekotagoa zelakoan, ta, bueno, nahiz eta mundu guztiak esan ikasle txarrentzat zela, ba, nik hori egin nun. Egia esan behar badet, nik lan pilo bat egin nun REMen, ta orain askotan pentsatzen det orduan egin nitun lanak, jesus, maria ta jose. Ba, ez dakit, ba, hamabost urte ta gai nintzelako edozein lekutan informazioa bilatu, leku ezberdinetakoa, liburu ezberdinetakoa, ta gero itzulpen lan mordoa in behar zan, ze nola dena ia erderaz zeon (...) Irakurketako liburuekin ere flipatzen nun (...) Gauza batean sartzen baldin banaiz ta gustoa hartzen badiot, agian ez detela neurtzen ondo denbora eta indarrak, ta orduan gehiago. Dena da egin nahia, jakin nahia, ta bai, gustoa ibiltzen nintzan.”<sup>1204</sup> [elkarrizketatuaren herria ez zegoen BBB eta UBI euskaraz]

“Ikastola bukatu ta gero [BBB eta UBiko ikastetxe publiko batera] jun nintzan BUP ikastera. Ta gero utzi nun institutoa... Gurasoek erabaki zuten beste zerbait errexagoa ikastea. (...) [BBBn] ikasketekin oso zaila in zitzaidan. Suspenso asko atera nitun ta [lehenengo maila] bukatu baino lehen gurasoek erabaki zuten aldatzea ta zerbait errexagoa hartzea. Ta ordun [beste ikastetxe publiko batean] hasi nintzen kursoa pasa ta gero. Gaur egun REM izango zana. (...) Hor lehenengo REM iten suspenditu nun. [barre egin du]. In zitzaidan... arlo pixkat zaila izan zan. Estudioak nahiko gaizki eraman nitun ere urte hortan. Ta hortik aurrea pixkat bultzada eman nion ta atera nun. (...) Harremana denen artean oso ona zan. Ta irakasleen artean ere oso ona, irakasleren bat kenduta. Beste edukazio bat, beste irakaskuntza bat eramaten zuten [BBB1 hasi zuen ikastetxearekin] konparatuz. Autoritarismo gutxiago zegon ta ikasleen ta irakasleen arteko laguntasun gehio bezela, ta hurbiltasun gehio. (...) Ikaskideekin ere oso ondo. Giro ona zeon denen artean.”<sup>1205</sup>

Lehenengo aipuan islatzen den hezkuntza ereduak iradokitzen du bere metodologiaren oinarrian talde lana eta norberaren interesari lotutako ikerketa pertsonala dagoela. Aitzitik, bigarren aipuan BBBeko ereduaren aldaera errazago bat deskribatzen du elkarrizketatuak.

Beraz, elkarrizketatuen diskurtsoen arabera, ez dirudi hezkuntza ereduaren izenak edo bestelako faktoreen konbinazio soilak (publiko-pribatu, hizkuntza eredu, laikoa-erlijiosoa) hezkuntza ereduaren izaeran erabakiorrak direnik, nahiz eta ukaezina den itxuraz behintzat eredu mota batzuk hurbilago diruditela ikastetxe mota batzuetatik, ondorengo aipuetan antzeman daitekeenaren arabera behintzat.

Elkarrizketatuen diskurtsoetan hainbat hezkuntza eredu iradokitzen dira.

“Hezkuntzan aldatuko nituzke gauzak, mila, baina ezin det esan [ikasle ibili nintzen ikastolan] hezkuntza txarra izan zenik. Pixka bat garai batekoa... garai batekoa, nahiko modernoa konparatuta beste eskola batzuekin. Batik bat izan det erlazioa [ikastetxe pribatu katoliko bateko] ikasleekin ta kontatzen dituzten gauzak ez dauka erlaziorik gureakin.”<sup>1206</sup>

“Neri ez zait batere gustatzen [ni ibili nintzen ikastetxe pribatu katolikoa eskaintzen zen hezkuntza] (...) Ikastola horretan zeuden hainbeste gauza que dejaban tanto que desear. Para empezar, ikastola bat izanda bazeuden irakasleak euskeraz ez zekitenak (...) Erlijiosoa zan ta nik gero erlijioarekin ez

<sup>1204</sup> 21. Elk.

<sup>1205</sup> 2. Elk.

<sup>1206</sup> 12. Elk.

det oso harreman esturik euki inoiz ta igual horregatik ez naiz oso gustora sentitu inoiz. Gero, pedagogia aldetik era pasar la lección (...) Me suena un poco a El Florido Pensil, ahí pasando la lección, oso garai batekoa, ta bere garaian hala zen, pasaban la lección una vez a la semana.”<sup>1207</sup>

“Era una enseñanza autoritaria. (...) De estar en clase y ni moverte. Para ir al baño: Señor profesor, ¿me podría dar permiso para ir al servicio por favor? Muy del plan de aquí aleccionamos a la clase dirigente (...) Somos un colegio de gente de prestigio.”<sup>1208</sup>

“Ikastetxea momentuan izugarria iruditu zitzaidan. Lan egiten genuen beste era batera. Ez zan bakarrik teoria. Zan e bai egitea. Horrek egiten zun ikasketa politagoa. Baina asko hobetu zitekeen. Irakasleak ez ziran zoragarriak, baina institutik nentorren, han dena memorizazioa zan. Hezkuntza sistema defizitario batetik nentorren.”<sup>1209</sup>

“Medikuntza in eo magisteritza in, unibertsitateak bi mundu desberdin ematen due. O sea, ez dauka zerikusirik (...) Neretzako magisteritza izan zan institutura bueltatzea bezela, neurri batean. (...) Medikuntzatik pasa ondoren, dinamika zan askoz antzekoagoa. Askoz ere gehiago zan lanak, ba, talde lanak, informazioa bilatu eta autore hau eta bestea. O sea, zerbait sortzaileagoa. Nik galderak in ditzaketela ta nik erantzunak bilatu. Ez bakarrik lan hau horrela da ta horrela da. Neri gustatzen zait erantzunak hor eukitzea, baina behar det erreflexionatu pixkat, ta magisteritzak hori eskeintzen zun (...) Hor pilo bat disfrutatu nun ta pilo bat ikasi nun (...) Berriro disfrutatu nun lan egiteaz eta irakasleek ez zeukaten zerikusirik. Medikuntzan irakasleak edo makina bat jarriko balute, antzeko parecido. Beti daude salbuespenak, baina orokorrean... Esan behar da medikuntzan ginala talde askoz haundiagoak eta magisteritzan 30 elkartzen baginan, asko zen.”<sup>1210</sup>

“Ikasleen artean zeon girua, adin desberdinetakoak nahastuta egotia, jende gutxi izatea gelan... zen hiru kursoak batea igual izango ginan 30 lagun (...) gure gelan igual zazpi lagun (...) 4. eta 5. mailan beste irakasle batekin egon ginan (...) ta hori zan aurrekoan beste aldia (...) ta 6. ta 7. mailarako oso gauza berezia in zuten, experimento bat. Bera etorri zan ta esan zun: Hemen jende gutxi ta ez do kontrolik ikuskaritzan aldetik ta hemen in behar degu experimento bat. Sinestu iten zuten beren lanian. Orain dela gutxi egon zan berriro [auzoan] ta esan zigun: Gure helburua zan zuei sartzea ikasteko gogua, ikasteko harra, ta lortu genun?, galdetu zun. Bai. Batzuketan bai behintzat... Ta, bueno, sistema erabat ezberdina zan. Azterketa batzuk iten genitun in behar zialako, baina lanez bidez funtzionatzen ginun. Ta [auzoan] bizita batza geneukan, konejuak, oiluak genitun, estazio meteorologiko bat. Juten ginan han ta urak neurtu ta ez dakit ze, ta holaxe ikasten genun, praktikan (...) Iten genitun idazketak, sormen... Benga, bost minututan pentsatu gabe idatzi. Iten genitun gauza bereziak. Ta ni konturatu naiz gure adineko... batzuk behintzat, ba, dauzkagu musikariak, trikitilariak, jende berezia daukagu [auzoan]. Hitz eiten dezu jendiakin ta bati interesatzen zaio astronomia, bestiai politika... Bakoitzak daka bere... Denetik do, leku guztitan bezela, baina gure aurrekoak ehiztariak dia, pelotariak, oso tradizionala, ta orain datorren belaunaldia, gure ondorengoa, berdinak dia. (...) Ikasketetan lagundu diate batipat ikasteko gogua sartzen. 14 urte artekoek. Kuriosidadea sortzen. Nik kriston curiosidadea daukat ta edozein gauzari ematen diot.”<sup>1211</sup>

---

<sup>1207</sup> 17. Elk.

<sup>1208</sup> 24. Elk.

<sup>1209</sup> 6. Elk.

<sup>1210</sup> 21. Elk.

<sup>1211</sup> 9. Elk.



Elkarrizketatuen diskurtsoetatik hartutako aipu hauetan aise soma genezake hezkuntza sistema ez dela oso homogenea. Modu zeharo eskematikoan adierazi nahiko bagenu, esango genuke aipu hauetan bereizi egiten direla hezkuntza eredu tradizionala, eredu garaikide estandarra eta eredu partehartzaileagoa, baina horrelako baieztapenak egin nahiko bagenu, argi eta garbi azalduko genuke izen horiek etiketak baino ez direla, eredu idealak, ideien eremukoak alegia, eta izen horien azpian dagoen errealitatea arras konplexua denez, ezin dela eskematikoki begiratu.

Edonola ere, aipu hauetan oinarrituz, hezkuntza eskaintzaren heterogenotasuna nabarmendu nahiko genuke. Aniztasuna ez da oso handia. Badirudi joera nagusietatik urruntzen den hezkuntza eskaintza errealitatea baino gehiago aukera dela, hots, balizko egitasmoen bideragarritasuna erakusten duela, baina, joera nagusiak oso hedatuta eta errotuta dauden arren, bestelako joerak badaudela erakusteak gutxienez begirada homogenezatzailea urratzeko balio du.

### 3.5 Diziiplina eta teoria

Hezkuntza sistema ez da ahalegintzen soilik edukiak transmititzen. Ikasleengan jarrerak, jokabideak eta sentimenduak hedatzen ere erruz saiatzen da. Hezkuntza mota bakoitzak diziiplina eredu jakin bat ezarri nahi dio ikasleari.

Zenbait elkarrizketatuk egokitzen jotzen dute hezkuntza sistemaren diziplinatze lana.

“[Burututako ikasketak] batez ere pase bat ematen dizu. Lan bila zaudenean, ba, espediente on bat eukitzeak, ba, laguntzen dizu. Hori. Igual e bai taldeko lanak. Gero lanean zaudenean ere laguntzen dizu. Gero e bai erderaz esaten dena hábito de estudio, gero lanean zaudenean, zerbait egin behar dezunean eta kontzentratuta zaudenean, horrek ere laguntzen dizu, konstantzia batez ere. Igual, ez dakit, ikasi dezuna baino, contenido baino, han dituzun jarrerak. Nik ikasi ditudan gauza batzuk bai. Ba, igual enpresaritze arloan aplikatzen dituzu, baina, bueno, batez ere lan egiteko erak.”<sup>1212</sup>

Elkarrizketatu honen arabera, hezkuntza sistemak eskaintzen dituen edukiak baino garrantzitsuagoak dira, batetik, hezkuntza formalak esleitzen dituen titulu akademikoek hainbat lan eremutan sartzeko ematen dituzten aukerak eta, bestetik, hezkuntza sistemaren baitan ikaslearengan errotu daitekeen diziiplina. Elkarrizketatu honek bata bezain beste baliosten du bestea, hezkuntza sisteman edukiak transmititzeak daukan garrantziaren gainetik. Azken batean, elkarrizketatuak *hábito de estudio* deitzen duenak bere baitan dauzka kontzentratzeko gaitasuna, jarraikortasuna, orain lan egitea gero emaitza lortzeko, eta, elkarrizketatuaren arabera, horrek guztiak zerikusituz du ikasleak etorkizunean lanaren munduan erabili ahal izango dituen lan ohiturekin.

Baina beste zenbait elkarrizketaturen diskurtsoetan agerikoa da hezkuntza sistemaren diziplinatze lanak gatazka ere sorrarazten duela.

“Akademikoki beti oso-oso ondo ibili naiz. Beti nota onak. Hori bai, oso ongi, bikain. Baina irakasleak... ez dakit nola esan. Ez det uste oso gustora zeudela nerekin, ta gurasoengana jute ziren

---

<sup>1212</sup> 23. Elk.

askotan, ez nitzela geldi egoten, ez nintzela isiltzen, beti protestan (...) Pixkat rebeldea banintzen, baina gero nota aldetik... Ez nintzan konstantea, ez nintzan arduratsua, baina gero erantzuten nuen.<sup>1213</sup>

Aipu honetan argi ikus daiteke emaitza akademikoari ez ezik diziplinatze lanari ere berebiziko garrantzia ematen zaiola hezkuntza formalaren eremuan, emaitza akademikoetatik bereizitako esparru bezala. Elkarrizketatu honen arabera, berak emaitza akademiko oso onak zeuzkan baina, hala ere, irakasleak kexu ziren bere jarrera eta jokabideekin.

Aztergai dugun hezkuntza sisteman ez dago eredu homogeneousik, ikastetxeen aniztasuna errealitate bat da, baina aldi berean ukazina dirudi diziplinaren eremuan dinamika oso konstante bat nagusitzen dela hezkuntza formalaren ekimen gehienetan. Segidan aurkezten ditugun bi elkarrizketaturen aipu banatan, adibidez, dinamika horren kontrako kritika ikus daiteke.

“Nik ez dakit zein dan klaseak emateko modurik egokiena, baina gelan aspertu egiten nintzan ta egoten nintzan ondokoa molestatzen. Ez dakit zein dan modua, baina hori ez da egokiena (...) Aspertu baino... Atentzioa... Hainbeste denbora pertsona bati begira, aspertu egiten naiz (...) Neri gogorra egiten zait. Neri gustatzen zait aktibitateekin ikasi. Ikasten da oso ondo ta behintzat mugitzen zaude.”<sup>1214</sup>

“Ez zait iruitzen... Ez dihoa adinarekin bat. Adinak eta gorputzak eta eskatzen dutenarekin ez dator bat hezkuntza modu hau, adin hoietako (...) Eserita eukitzea pareta bati beira 30 lagun 6 orduz 16 urtekin ez da normala. Neri ez zait normala iruditzen, ta dakat irudipena sistema horrek prestatze zaitula gero etorriko dian pildora guztiak irensteko, ta, bueno, eon hemen, tragatu pildora hauek, jun apaltzen, ta gero hartarako etorriko zaizkizuen guztiak tragatzen jungo zeate.”<sup>1215</sup>

Elkarrizketatu hauen aipuetan islatzen den hezkuntza eremuan ordutegi finko baten barruan ikasleek eserita egon behar dute denbora gehiengan eta ikasgelako dinamikaren erdigune rola duen irakaslearen gidaritzapean aritu behar dute. Bi aipuetan islatzen da hezkuntza eredu honek derrigorrez eskatzen duela gorputzaren gaineko kontrola ezartzea, besteak beste mugimendua mugatuz. Bigarren aipuan zedarritze fisikoa ez ezik psikologikoa ere nabarmentzen da, hezkuntza arloko diziplinatze lana bortxa psiko-sozialtzat jotzen delarik.

Gaur egungo ikuspegi pedagogiko gehienetatik zentzugabeak diruditen hainbat neurri oraindik indarrean zeuden aztergai dugun garaiko zenbait ikastetxetan.

“Ezkerrarekin hasi nintzan idazten ta behar ninduten eskubiarekin idaztera. Gero esaten zidaten letra txarra neukala.”<sup>1216</sup>

Beste elkarrizketatu batek<sup>1217</sup> ere azaldu du behartu egin zutela eskubiko eskua erabiltzera. Elkarrizketatu hauetako batek ikastetxe publiko batean eta besteak ikastola batean ikasi zuen.

---

<sup>1213</sup> 11. Elk.

<sup>1214</sup> 18. Elk.

<sup>1215</sup> 9. Elk.

<sup>1216</sup> 26. Elk.

<sup>1217</sup> 20. Elk.

Atal bat bereizi beharko litzateke garai bateko muturreko diziplinatze tekniken herentzientzat, garai batean hedapen oso handia izan zuten haientzat. Hezkuntza sistemaren diziplinatze lana eremu oso zabala da eta bortxa fisikoa erabiltzen duten diziplinatze teknikak gaur egun ez dira hegemonikoak. Elkarrizketatuen diskurtsoetan antzeman dugunaren arabera, ikastetxe bakan batzuetako irakasle gutxi batzuen teknikak baino ez dira. Baina horrek ez du esan nahi antigoaleko kontuak direnik. Zenbait elkarrizketatuk adierazi dutenaren arabera, hezkuntza arloko bortxa fisikoak bere lekua izan du aztergai dugun garaian.

“EGB 1, 2 ta 3n irakasleak... apaiza, katoliko porrokatua (...) h-ak kendu iten zizkigun, guztiak (...) kazkarrekoak ematen zizkion jende guztiari. Giroa nahiko represiboa zan”<sup>1218</sup>

“De los curas tengo recuerdo de que me pegaban. Algunas hostias ya me llevé. (...) De los curas... tengo buen recuerdo de algunos que eran majos, pero otros eran unos hijos de la gran puta, especialmente el [x] aquel. Ése le pegó una paliza a mi hermano. Le partió un labio. Ese nos daba, ¿cómo se llama?, manualidades. Ese venía por detrás y empezaba como a meter mano, a hacerte cosquillas. Le tenía un miedo... Bua, no se me va a olvidar nunca. (...) Era un reprimido sexual y los tenía allí a los niños para meterles mano.”<sup>1219</sup>

Bestalde, edukien transmisioari dagokionez, elkarrizketatu gehienek azaldu dutenaren arabera, memorizazioan eta teoriar oinarritutako teknikak erabiltzen ziren gehien. Salbuespenak salbuespen, teknika hauek hezkuntza maila eta mota guztietan dira nagusi. Elkarrizketatu askok faltan botatzen dute beraiek *praktika* deitzen dutena.

“Geneukan irakasle bat zela gauzak transkribatzea. Gizarte ematen zun. Ta ulertu orde, memorizatu behar genitun, ta ez bazenun dena hitzez hitz egiten, ba, txartzat hartzen zizun.”<sup>1220</sup>

“Teoria pila bat ta praktika batez. Orduan ateratzen zen karreratik titulo batekin baina (...) ateratzen zea ez dakizula arbol bat kimatzen”<sup>1221</sup> [Nekazaritza Injiniaria da]

“[Lizentziaturari buruz] iruditzen zait unibertsitateko irakasleak direla oso teorikoak, baina ez daukatela egunerokotasunarekin kontakturik. Formazio horrek ez du praktikotasunik. (...) Egunerokoa eta praktikoa oso ezberdinak dira. Ez dute eskeintzen beharrezkoa den informazioa. (...) [doktore ikastaroei buruz] izan zen una mierda impresionante. Un nivel bajísimo. Unibertsitatean baino askoz ere bajuagoa. Suficiencia egin nun... baina es que izan zen timo bat, baina timo bat kristona.”<sup>1222</sup>

“Es un buen negocio que tienen montau. Lo tienen de puta madre, porque para aprender fontanería, como se aprende es haciendo. Yo terminé el cursillo, me mandaron a una obra y no tenía ni puta idea. No tienes ni puta idea, porque lo primero que vas a hacer es maceta y cincel, y a picar como un

---

<sup>1218</sup> 9. Elk.

<sup>1219</sup> 24. Elk.

<sup>1220</sup> 10. Elk.

<sup>1221</sup> 7. Elk.

<sup>1222</sup> 25. Elk.

gilipollas. Es la herramienta que vas a ver durante un buen tiempo. Pues, pa eso no necesitas un curso del INEM. Pa eso lo que necesitas es ir a la obra y picar.”<sup>1223</sup>

“Ez nitun gauza asko barneratu. Oso gaizki ematen zuten. Zian klase magistralak. [OHOkoko irakasle] horrek ematen zuen la lección. Ikasi behar zenuen la lección eta gero berak galdetzen zuen la lección.”<sup>1224</sup>

“Irakasle gazteak pixkat renobatzen saiatzen ziran, baina guk genitun irakasle zaharrak, apaizen eta monjen eskola bat zen, eta oso modu klasikoan... memorizatu, ulertu baino; azterketa como en la época de no sé qué; pasaba la lección cada semana (...) Informazioa transmititu, zuk ikasi ta zuk horrekin zer egin ez zenekin. (...) Iten dana asko ta neri ez zait inoiz gustatu da hori, informazioa klase magistral baten bidez eman ta hori eskaten zizuten memorizatzea, ez ulertzea, ez horrekin ezer egitea, ta hori lorito bat bezela esaten bazenun, bikain bat izango zenun, nahiz eta ezer ez ulertu.”<sup>1225</sup>

“Ondo iruditu zitzaidan [BBB eta UBiko ikastetxe publiko jakin baten] eskeintza. Optatiba asko zenezkan, técnicas de laboratorio, egiteko gauzak. Hombre, gero zeon oso bideratuta selektibitatera... edukiak, edukiak, edukiak, ta ez zeon...”<sup>1226</sup>

“[Armonia] erakusten dizute matematika hutsa balitz bezala, baina nik ez det hola funtzionatzen. Nik ikasten det entzunez ta inez. Ordun nik nahi nun praktikara eraman hori. Nik nahi nun hiru ahots sartu kintatzen (...) baina berak esaten zun: ¿Pa qué haces eso si son tonterías? Zuk ikasi hau behar bezela ta gero ingo dezu dena behar bezela. Nik dena oztupoak ikusten nitun. Nik ikusten nun bide bat jasotzeko informazioa errex xamar baina aipatzen nun bakoitzean bide hori, oztupoak jartzen zizkidaten beti ta nahi zuten beti ni bide konkretu hortan sartzea. (...) Neri ikastea interesatzen zitzaidan zerbaiterako balio bazun. Ba, talde batean jotzeko edo... Baina ikastea ikasteagatik, ez. Titulo puta bat atetzeko, ez.”<sup>1227</sup>

“Unibersidadean ginan denbora galtzeko (...) Erabiltzean poderioz ikasiko ditu gauzak (...) Oso teorikoa da (...) Gero ikustet asignatura batzuk baliagarriak diala. Bibliotekonomia. Baina 18 urteko pertsona bati jarri liburutegi baten aurrean ta esplikatzia nola ordenatzen dan... Jarriozu lan bat (...) Helburu bera mantenduta in daiteke (...) baina beste era batera ez badute, ezin dute ikasi (...) Jendea zan artalde bat irakasleari beida.”<sup>1228</sup>

“Hemen sekulako aldea zegoen lizentziaturaren eta doktoredutzaren artean. Lizentziaturan bazeuden irakasle batzuk askoz maila altuagoakin, ta juten zinan doktoradutzara eta denborapasa bezela sentitu nun nik, oso denborapasa. Ez zegoen ikerketarako bideratzen zintuen inor ere.”<sup>1229</sup>

Aipu hauetan guztietan elkarrizketatuek dikotomia argia ezartzen dute teoriaren eta praktikaren artean. Elkarrizketatu hauen arabera, beraiek aipagai duten hezkuntza eskaintza batik bat teoria lantzerantz bideratua dago, praktikari atxikita ez dagoen teoria jorratzera hain zuzen.

<sup>1223</sup> 24. Elk.

<sup>1224</sup> 16. Elk.

<sup>1225</sup> 25. Elk.

<sup>1226</sup> 16. Elk.

<sup>1227</sup> 20. Elk.

<sup>1228</sup> 9. Elk.

<sup>1229</sup> 19. Elk.

Elkarrizketatuek mintzagai dituzten hezkuntza eskaintzak oso ezberdinak dira, baina badirudi guztiek joera beretsua dutela teoria-praktika dikotomiari dagokionez, nahiz eta kasu batzuen eta besteen artean intentsitate gradazio argia dagoen: ez da gauza bera garai bateko moldea jarraituz irakasleak ikasleari eskatzea erabat memorizatutako irakasgaia buruz baina jatorrizkoarekiko fideltasunez azaldu dezala edo hainbat irakasgai ikerketara bideratuta ez egotea. Baina, berriro diogu, horietan guztietan joera bat antzematen da: praktika dei daitekeenarekiko lotura lausotzea eta horren ondorioz teoria lanari praktikotasunik ez ikustea.

Zenbait elkarrizketatuk adierazi dutenaren arabera, hezkuntza eredu honek potentzialtasunik garatzeko aukerak galdu egiten ditu eta, okerragoa dena, arazo handiak sortzen dira ikasleek hezkuntza eredu honekin duten harremanean. Segidan aurkezten ditugun aipuetan elkarrizketatuek modu oso argian azaltzen dute hori.

“Eman zuna baino gehio baloratzen det eman zezakeen guztiya (...) Hainbeste potentzialidade garatu leizkenak... Nik kriston kuriosidadea dakat, baina askotan bere kasa ase behar det, ta faltan botatzen det agian gidari bat esateko: Ba, probatu hemendik; edo esateizuna: Bakizu... (...) Garai hartan emaila baino bideratzailea izan behar du irakasleak”<sup>1230</sup>

“Amak askotan eraman behar izan nindun negarrez, ta nik nahi nulako hasi nintzan hor [musika eskola batean] (...) Irakasteko modua ez zitzaidan batere ona iruditu. Hori COUn ere gertatu zitzaidan. Ni naiz naizen bezelakoa ta motibazio modu batzuk behar ditut seguraski nere kapazidadeak martxan jartzeko. Ez badaukat motibazio hori, dirudienez ez det funtzionatzen. Horregatik psikologoangana behin baino gehiagotan eraman naute. (...) Idazten ikasten hasi ginanean, idazteko hartzen nun lehenengo esku bat ta gero bestea, ta nola hola jarraitzen nun, irakasleak esan zion amari psikoloarengana eramateko, ta azkenean behartu ninduten esku bat aukeratzera. (...) Neri filosofia asko gustatzen zait. Matematika asko gustatu dakidake, baina nik BUPen euki ditudan irakasleek ez zidaten hori transmititzen. (...) Iruitzen zait irakasle horiek ez zeukatela batere asmorik edo gogorik guri hori interesgarria egin zekigun edo uler genezan. Hasten zian beraien speech-a botatzen ta ulertu bazenun, ondo, ta, bestela, a tomar por culo. (...) [Ikasketa formalek balio izan didate] kultura zabaltzeko, ezagutza bat edukitzeko munduari dagokionean. Eta... ez dakit, nere buruari laguntzeko mundua ezagutzen, baina ez naute eraman, ta akaso nik ez det jakin, gero bizitza egitan danari aurre egiteko prestatzera. Hau da, bizitza azken baten da lana, eta ni ez naiz iritsi prest egotera lanerako.”<sup>1231</sup>

Bi pertsona hauen elkarrizketak aztertuz gero, nabarmena da kapital kultural handiko pertsonak direla eta, hala ere, ez dutela aurkitu beren lekua hezkuntza sistemaren baitan. Hezkuntza sistema garaikidearen diskurtsoak zalantzarik gabe esango luke bi pertsona hauen ardura izan dela hori, ez hezkuntza sistemarena. Elkarrizketatu hauen ikuspegitik, ordea, hezkuntza sistemak ez du gaitasunik izan beren interes eta beharretara egokitzeko. Beraz, argi dago bi diskurtso dauzkagula aurrez aurre. Aurrerago sakonduko dugu honetan.

---

<sup>1230</sup> 9. Elk.

<sup>1231</sup> 20. Elk.

Nolanahi ere, ezin da ahaztu beste zenbait elkarrizketaturen arabera hezkuntza eredu hau baliagarria dela. Atal honen hasieran aipatu dugun elkarrizketatu baten<sup>1232</sup> ekarpenak adierazten duenaren haritik, segidan aurkezten dugun aipuak aitortu egiten dio baliagarritasuna nagusi den hezkuntza eredu garaikideari, bai eduki aldetik bai diziplina ezartzeari dagokionez:

“[Ikasketek lagundu didate] diziplina pixka bat hartzeko, baina hola, akademikoki, ba, kulturilla general (...) ze karrera bukatzen dezunean ez zaude super-prestatuta, benga, kontsulta bat irekitzeko. Hori ya da eguneroko, ez, ez, hori lanean hasten zeanean hasten zea dena ikasten edo zure beharrak bilatzen edo motibatzen zaituneruntz juten.”<sup>1233</sup>

Edonola ere, berretsi egin behar dugu aztertzen ari garen hezkuntza ereduak ez dela homoginoa. Joera nagusi indartsu, sendo eta eraginkorrek dauzka. Erraz antzeman daiteke hori elkarrizketa guztietan. Baina horrek ez du esan nahi errealitate guztiek eredu nagusia errepikatzen dutenik, ezta eredu horren hurbileko aldaerak direnik ere. Estandar horretatik urruntzen diren esperientziak jaso ditugu ikerketa honetarako egin ditugun elkarrizketetan. Lehenago ere aipatu ditugu batzuk eta segidan aurkezten duguna ere esanguratsua da:

“Pasa nitun hiru urte hor lana eta formakuntza arteko gauza hori egiten, ta hori izan zan azkenean super polita, ze hori izan zan lehenengo kontaktua ofizioarekin. Gainera, responsabilitate puntu batekin baina, gainera, apoioarekin, eta hor ikasi nun pila bat. Hor da benetan nere formakuntza nagusia. Ikasten dituzu teknikak, moduak, manejuak, ta hori hor garatzen dezu, ta hiru urte horietan juten zera gero eta autonomia haundiagoa edukitzen. Lehenengo urtean askoz ere superbisio haundiagoa edukitzen ta hiru urte pasatzen direnean, suposatzen da lan egin dezakezula, formakuntza nahikoa badaukazula, baina hiru urte horiek izan ziran oso politak.”<sup>1234</sup>

Elkarrizketatu honek adierazten duenaren arabera, hezkuntza eredu honek uztartu egiten ditu ikasketa formala eta lana, teoria eta praktika. Testuinguru babestu batean, lanean ohikoak liratekeen ardura mailak bere gain hartu gabe, ikasketa prozesuan dagoen pertsona honek bertatik bertara ezagutzen du bere lan eremua, progresiboki bere autonomia eskuratzea lortzen duelarik.

### 3.6 Irakaslearen eta ikaslearen rola

Hezkuntza sistema jakin bat analizatu nahi izanez gero, funtsezkoa da aztergai izatea hezkuntza sistema horretan parte hartzen duten agenteek zer leku duten. Besteak beste, irakaslea eta ikaslea agente zentralak dira hezkuntza sistema garaikidean, elkarrizketatuen diskurtsoetan nabarmendu denaren arabera.

Irakasleak autoritate urrun eta diziplinatzailetzat islatu dituzte elkarrizketatu ugariak. Irakasleak dira diziplina ezartzearen begibistako jatorria. Irakasleek banatzen dituzte sariak eta zigorrak. Irakasleek ikasleekiko harreman hierarkikoa dute: irakaslea dago goian eta ikaslea behean. Botere harreman hau ez dagokio soilik ezagutzaren eremuari. Hots, hezkuntza eredu honek irakasleari

---

<sup>1232</sup> 23. Elk.

<sup>1233</sup> 10. Elk.

<sup>1234</sup> 25. Elk.

esleitzen dio diziplina ezartzearen rola. Irakaslea da diziplina eredu jakin baten azken erantzulea. Irakasleak du diziplina ezartzeko autoritatea. Hori lortu ahal izateko delegatzen du hezkuntza sistemak agintea irakaslearengan. Segidan aurkezten ditugun hiru elkarrizketaturen aipu banatan islatzen da eredu hori.

“Oroitzapen haundina diziplina aldekoa, nahiko zorrotzak, nahiko sorginak izaten ziala, eta irakasleak urruti zeuden norbait ziala, agintea edo autoritatea zuten norbait ziala. Ez zian gertukoak.”<sup>1235</sup>

“Ona zan [gurea], baina hobea izan zitekeen (...) Zeon irakaskuntza zan irakaslea ta umeak (...) Nere neskak izan du erlazioa Amara Berriko planarekin, ta bauzka bere gauzak ere, baina, bueno, umeak dira askoz autonomoagoak. Horren inguruan in dute lan asko (...) Zan garai hartan zeon irakaskuntza mota [ni ibili nintzen ikastolan]: egin zazu hau ta, bestela, zigortuko zaitut.”<sup>1236</sup>

“Irakasleak orokorrean nahiko onak ziren. (...) Edukiei begira (...) gaurtik begira iruditzen zait nahiko osatua zela (...) Nahiko euskaldundu gera, ta ziur naiz ikastolak izan zuela zerikusia horrekin, haundia (...) Baina zan oso heziketa... igual nik etxean ez neukalako, baina zan oso... ez dakit elitista, baina oso hierarkikoa. Orduan, sortu zitun zalantza asko nigan. Agindu askoren aurrean ez nekien zer egin. Hori zen nere gatazka haundiena.”<sup>1237</sup>

Ezagutzaren jatorria ere irakaslea da ikasgelan. Hurrengo aipuan elkarrizketatuak argi laburbiltzen du hezkuntza sistema honekiko bere ikuspegia.

“Oso edukazio klasiko bat izan dugu. Orain ikusten duzu nola saiatzen diran haurrak oso autonomo bihurtzen, nola saiatzen diran haurrak bere baliabideak erabiltzen, ta guri ez, guri txapa sartzen ziguten.”<sup>1238</sup>

Aipu honetan oso ohikoa den kontzeptua ageri da: *txapa sartu*. Hezkuntza eredu honen oinarriaren sintetizazioa eta, aldi berean, bere kritika da kontzeptu hau. Irakasleak hitz egin eta ikasleak entzun egiten duen hezkuntza eremuan, eskematikoki esatearren, irakaslea da jakintzaren sorburua eta ikaslea hartzaile hutsa da. Eredu honen arabera, irakasleak hitz eginez hedatzen du ezagutza ikasleen artean. Ikasleak, berriz, jaso eta barneratu egin behar du irakasleak transmititzen dion ezagutza. Ikaslea ez da jakintzaren iturri. Ikasleak ez du ekarpenik egiten. Irakasleak azaldu diona bere egin eta ezagutza hori erakusteko gaitasuna lortu beharko luke.

Elkarrizketatu honek hezkuntza eredu honi *hezkuntza klasikoa* deitzen dio. Beste muturrean kokatzen du haurraren autonomia ardatz duen hezkuntza eredu, bide batez adierazten duelarik berak ezagutu duen hezkuntza sistemak ez duela lehentasunen artean haurraren autonomia lortzea.

Joera nagusia oraintxe aipatu duguna izanik ere, elkarrizketatuen diskurtsoetan argi ikusi dugu elkarrizketatuen irakasleek ez dutela joera nagusia modu berean interpretatu. Joera hauek beti

<sup>1235</sup> 14. Elk.

<sup>1236</sup> 12. Elk.

<sup>1237</sup> 19. Elk.

<sup>1238</sup> 25. Elk.

uzten duten aldaketarako tartea. Joeraren indarraren arabera handiagoa edo txikiagoa izaten da ezberdintzeko tarte hori. Gainera, tarte hori modu askotara interpreta daiteke, hau da, forma asko har ditzake.

Eredu nagusia koska bat estutuz, botere gehiegikeriaren edo botere erakustaldiaren bidetik eraman daiteke irakaslearen rola. Ondoren aurkezten dugun aipuan irakur dezakeguna izan daiteke horren adibide:

“Irakaslea petril batean igota dago. Hor guk nola parte hartuko degu (...) Bulegora joaten zinen ta irakasle batzuk kriston prepotentzia (...) Behin azterketa ikustera joan nintzen eta hankak mahai gainean zituela hartu ninduen. Azterketa hartu eta esan zidan: Baina, neska, nola egin daiteke halako azterketa bat?”<sup>1239</sup>

Beste hainbat irakasle mota ere aurkitu ditugu elkarrizketatuen diskurtsoetan. Esate baterako, ondorengo elkarrizketatuaren aipuan ikus daitekeen irakaslea:

“El de matemáticas te dejaba... El que quería le seguía, y el que no, pues, a su bola. Él te explicaba y te daba ejercicios pa hacer y ya está (...) [Si no entendías el ejercicio], no pasaba nada. Tú podías hacer lo que quisieses en esa clase (...) Él estaba ahí sentau hasta que pasase la hora. Él te ponía a hacer los ejercicios. Si querías hacer los ejercicios, bien, y si querías ponerte a hablar o escuchar la radio, a él tampoco le parecía mal.”<sup>1240</sup>

Aldaketarako tartea ezberdin jokatzeko aukera ere eman dezake. Eredu nagusia hautsi gabe, zenbait aldaera gauzatu daitezke hainbat egoeretan. Honako aipuak zirrikitu horien berri ematen digu:

“Nik uste garai hartan leku guztietan bezela eredu iguala zala. Ba, klase magistralak. Irakaslearen arabera parte hartze maila ezberdinak, baina irakaslea klasera jun eta berea esan, ariketak bidali... Baina beti zeon irakasleren bat tonikatik kanpo. Euskarakoarekin, adibidez, bertsoak kantatzen genitun jendea aurrian ta gero txapelketak eta antzerkiak... eta bitartean matematika ta hoi dena zan normal.”<sup>1241</sup>

Badirudi zenbait egoeretan joera nagusiak hausteko aukera ere badutela irakasleek, neurri batean behintzat. Ondorengo elkarrizketatuak ohikoa ez den dinamika bat azaltzen du:

“Karrera praktikoa iruditu zitzaidan. Nik ezagutu nitun irakasle batzuk asko gustatu zitzaizkidan (...) Temarioa banatu iten zun ta klasea guk ematen genun. Ordun, bilatu behar genun informazioa, zuk bilatu behar zenun ze ematen zenun ta zure gelakoei zuk ematen zenien informazioa (...) Praktikoa zan. Ez zan eseri ta entzun, nik beti problema izan detena. Zan iritsi ta esplikatutesteei... quieras que no, beti nahi dezu besteekin ondo gelditu (...) Zan ikaslea klasea ematen, ta gero geneukan kritika, honekin zer lortu nahi zenun... oso praktikoa (...) Azkenean, eseri ta entzutea... kalanbrea emateit.”<sup>1242</sup>

---

<sup>1239</sup> 8. Elk.

<sup>1240</sup> 14. Elk.

<sup>1241</sup> 21. Elk.

<sup>1242</sup> 14. Elk.



Haustura ez da erabatekoa, besteak beste curriculuma irakasleak ezartzen duelako, baina dinamika honek rol askoz aktiboagoa eta partehartzaileagoa esleitzen dio ikasleari eta, halaber, hein batean uko egiten dio ikasgelako banaketa fisikoari eta gorputzen gaineko ohiko diziplinari, horrek dakarren guztiarekin.

Irakasle rolaen interpretazioak aztertzen ari garelarik, baliagarria izan daiteke irakasleek ikasleen aurrean ematen duten irudiaren beste alor bat kontuan hartzea: irakasleen ezagutza eta motibazioa, beti ere ikasle izan direnen ikuspegitik. Ondoren transkribatu ditugun hiru elkarrizketaturen aipu banatan irakasle mota oso ezberdinak islatzen dira.

“Ni irakasleek asko motibatu izan naute. Irakasleen oroitzapen berezi batzuk baditut eta hoiek onak izatean eta zure lana ona dela ikusten dutenean, zuk ere gehio erakusten diezu, baina bitartean, zuk interesik ez badezu, esan dizut, zuk... distantzia mantendu izan da beti: zuk interesik ez badezu, nik ere ez.”<sup>1243</sup>

“La verdad es que sorpresa bat izan zan. Encantada de la vida (...) aurkitu nulako gauza bat gustatzen zitzaidana pila bat eta ez nekin, ta gero hango ikasketak ta irakasleak ta emateko modua ta hola gustatu zitzaidan pila bat. Gustora nengon ta ikasi nun, ta ideia horrekin gelditu nintzen, bi urte izan ziren ta gelditu nintzen como que gauza pila nituela. Niretzako izan zan como una nueva experiencia. (...) Ez zen sólo datos. Inplikazio bat zeon (...) Irakasleak ere gustora, gaia gustora ematen. No es el típico profesor quemau que está ya de las matemáticas... Igual ere izan daiteke nik beste era batera bizi nula. No lo veo objetivo (...) Nere aldetik gustora nengolako ta beraiek gustora zeudelako (...) Asignaturak interesanteak eta erabilgarriak ziran.”<sup>1244</sup>

“COUn zeon irakasle bat, arte garaikidea ematen zigun (...) Nola bera oso zalea zan, ematen zigun hori, arte garaikidea (...) Nola hainbesteko afizioa zeukan, kutsatu iten zun afizio hori (...) 25etik 22 egoten zian liluratuta entzuten (...) Ikusten dezunean irakasle bat ez daona gustoa edo materia ezagutzen ez duna... ba, azkenean gogoa kentzeizu”<sup>1245</sup>

Elkarrizketatu hauen diskurtsoetan nabarmena da irakasleek modu ezberdinetan gorputzen dituztela hezkuntza sistema orokor beraren baitan nagusi diren joerak. Deskribapen hauetan irakasle mota asko antzeman ditzakegu: erreak, gogotsuak, interes handia erakusten dutenak eta interesa aspaldi galdu zutenak, besteak beste.

Irakasle mota hauek guztiek agerian uzten dute hezkuntza sistemaren joera nagusiak ez direla homogeneotasunez hedatzen. Eredu estandarrak oso indartsuak izan daitezkeen arren, eredu horiek gauzatzen diren unean interpretatu egin behar dira. Hau da, irakasle bakoitzak hezkuntza sistemaren baitan berari dagokion rola gorputzen duenean, joera nagusia interpretatu egiten du, ez erreproduzitu. Jakina, horrek ez du esan nahi irakasleak bere jokamoldea ezerezaren gainean ekoizten duenik. Fenomeno hauek testuinguru batean gauzatzen dira beti. Hezkuntza sistemaren baitan testuinguruak baldintza oso indartsuak, sendoak eta eraginkorrak ezartzen ditu. Eremuak behartu egiten du irakaslea eta, hala ere, irakasleak beti dauzka interpretaziorako tartearak.

---

<sup>1243</sup> 14. Elk.

<sup>1244</sup> 17. Elk.

<sup>1245</sup> 9. Elk.

Bestalde, aztergai dugun hezkuntza ereduak irakasleari eta ikasleari rol jakin batzuk esleitzen dizkienean, automatikoki bultzatzen du ikaslea posizio zehatz batera hezkuntza sistemaren baitan. Batzuek gogo onez hartzen duten arren (ikus aurreko atalak), rol hori ez da eramangarria hainbat elkarrizketarentzat. Ondorengo elkarrizketatuak, adibidez, ibilbide akademiko arrakastatsua badu ere, errefusatu egiten du irakasle-ikasle norabide bakarreko harremanean oinarritzen den hezkuntza dinamika.

“[Unibertsitatean] irakaskuntza aldetik hasieran bai interes gehiokin edo zea gehiokin jarraitu nula bai klaseak ta bai eskeintza ta eztaikit zer, baina gero gogoratzen naiz azkeneko bi urtetan ta batez ere azkenekoan iruitzen zitzaidala oso... ez zigutela aukerarik ematen ezer... guk ezer aportatzeko. Adibidez, laugarren mailan klasera derrigorrezko asignaturetara ez nintzan juaten kasi klasera, ze izaten zan, ba, apunteak irakurtzen zitun irakasleak ta kontaktzen zun hau ta bestea ta listo, ta orduan norbaitek... in behar zana zan apunteak hartu ta buruz ikasi ta listo (...) Aldiz, hautazko asignaturetan, pixkat libreagoa zianetan, hoietara juten nintzan, aukera ematen zutelako eztabaidatzeko edo gauzak pixkat planteatzeko.”<sup>1246</sup>

Ikaslearen interesa da hezkuntza eremuaren baitako mugimenduak aztertzeke giltzarrietako bat eta kasu honetan adierazle horrek agerian uzten du elkarrizketatu honen interesa pizteko ezinbestekoa dela hezkuntza dinamikak ikasleari ekimenerako aukera aitortzea, hots, irakasle-ikasle norabide bakarreko eredu haustea.

Beste adibide batzuk aztertzen baditugu, ikus dezakegu zenbait kasutan irakaslearen autoritatearen gogortasuna handituz gero, areagotu egiten dela ikaslearen erresistentzia. Makina bat adibide aurkitu ditugu elkarrizketatuen diskurtsoetan, baina segidan irakur dezakeguna aski esanguratsua da.

“[4. mailatik aurrera] irakasle gehienak oso kuadrikulatuak ziran. Iritsi ginen bat edukitzera 5. mailan bat jartzen gintuna hola, belauniko, con los brazos en cruz arbelan aurrean. Horri bota nion nik borradore bat burura. Han geunden bi tonto bezela. Ordubata, ateratzeko ordua ta gurasoek ez zekiten nun geunden. Inork ez zien deitu esateko zigortuta geundela. Etorri zan, ez dakit ze in zun nere ondoan zeonak, [irakasleak] eman zion koskorroi bat ta nik borradorea bota egin nion. Izan zan reflejo bat. (...) [x] honek zeukan eraztun bat eta ikusten bazintun ezer egin gabe, etortzen zan atzetik eta buruan [jotzen zintuen] eraztunarekin.”<sup>1247</sup>

Honenbestez, hainbat elkarrizketaturen ekarpenetan oinarrituz esan genezake hezkuntza ereduak joera nagusi jakin batzuk dituela baina joera horiek ez direla bere horretan hedatzen. Eremu horretako agenteek interpretatu egiten dituzte eta, gainera, hainbat agentek propio egiten diete aurre joera horiei.

---

<sup>1246</sup> 11. Elk.

<sup>1247</sup> 26. Elk.

### 3.7 Aspirazioak, gaitasuna, patua eta beste zenbait sinesmen

Gaitasuna da hezkuntza sistema honen ageriko irizpide bereizlea. Hezkuntza sistemaren diskurtso nagusiak esaten duenaren arabera (ikus II atala), gaitasuna da ikasleak hierarkikoki sailkatzeko ardatz. Ikerketa honetan, ordea, norbanako bakoitzaren gaitasunak duen zentraltasuna kolokan jartzen duten hamaika zantzu aurkitu ditugu. Are gehiago, gaitasuna deitzen dugun hori neurri handi batean sinesmen mota bat dela ondorioztatu dugu, edo zehatzago esatearren: gaitasuna ez da ahalmen soila; sinesmen mota baten eta sinesmen horren ondorioen konbinazioaren emaitza ere bada, eta zenbait kasutan batik bat sinesmena eta bere ondorioak dira gaitasunaren osagai nagusia.

Aspirazioak, ahalmenak eta patu sentimenduak uztartuz sortzen den coctail indartsua aztertzea izan daiteke azalpenaren gakoa. Gaitasunaren ideia produktu sozial bat da. Aurreko ataletan eraikin honen zenbait osagai aurreratu ditugu. Segidan eraikuntza prozesu horren beste hainbat teknika azaltzen saiatuko gara.

Arestian esan dugun bezala, zenbait elkarrizketaturen diskurtsoak aztertuz erraz ondoriozta genezake hezkuntza sistema oso baliagarria dela zenbait pertsonentzat: ezagutza transmititzen die, trebatu egiten ditu gorputzaren eta gogoaren diziplina jakin batzuetan eta titulu akademikoek bitartez sarbidea ematen die hainbat eremutara, besteak beste. Elkarrizketatu ditugun pertsonen artean eredu honetara nor doitzen den eta nor ez bereiztea lan nekeza eta eztabaidagarria da oso, baina talde bakar eta ahalik eta homogeneoena osatzearen, talde honetan sartu ditugunek bi baldintza bete behar zituzten: unibertsitateko ikasketak bukatuta izatea eta elkarrizketan zehar inolako arazo akademikorik ez aipatzea. Aukeratu ditugun elkarrizketatuez gain, beste batzuk ere aise sartuko genituzkeen talde honetan, baina taldearen homogeneotasun estua lehenetsi dugu. Esan gabe doa sailkapena erabat eztabaidagarria dela, baina funtzionala den heinean, erabiltzea aukeratu dugu, beti ere sailkapen honen esangura bere neurrian onartuz.

47. Taula: Ikasketetan arazoak izan ez dituzten elkarrizketatuen ibilbide akademikoak																					
Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
11	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
12	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-
19	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-
23	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
25	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-
27	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
28	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: Ikurrek ikasketen maila (O [OHO], F[FP], R [REM], B [BBB], C [UBI], U [Uni]) eta zer moduz zihokion (ondo ✓, eskas ✗, baleko ◐, justu ?) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean lanean ari zela.

Nabarmena da 47. Taulan agertzen diren elkarrizketatuen ibilbide akademikoak dizdiratsuak direla, haiek azaldu dutenaren arabera beti ere, noski. BBB eta UBI arazorik gabe gairatu zuten, garaian garaikoa ondo eramanez, eta ondoren guztiek amaitu dituzte unibertsitateko ikasketak inolako oztoporik gabe. Ez dago prestigiotsuena den bidetik desbideratzen den urte bakar bat ere. Hauen artean aurkitu ditugu hezkuntza sistemari buruzko ikuspegi positiboak eta, halaber, ezin

dugu ahaztu hezkuntza sistemak hauei buruz eman duela iritzirik positiboena. Hots, hezkuntza sistemak ikasle mota hauek balioetsi ditu ondoen. Hezkuntza sistemak batik bat ikasle mota hauei esan die argi eta garbi balio dutela, gai direla, egin dutela eta egin dezaketela. Hezkuntza sistemak ikasle hauei egiten dien ekarpen hau ezin da inola ere gutxietsi.

Norberarekiko ideia indar handiz transmititzen du hezkuntza sistemak. Gorago aipatu dugu hezkuntza sistemak jakintza, diziplina eta pasaportea ematen dizkiela, baina horrez gain hezkuntza sistemak garrantzi erraldoia duen beste ekarpen bat ere egiten die ikasleei: norbanako bakoitzaren gaitasunaren ideia transmititzen die. Hezkuntza sistemak etengabe proiektatzen ditu bere parametro hierarkizatzaileak ikasleengan: konfiantza, mesfidantza, doaia, gabezia, orientazioa eta abar.

Ibilbide arrakastatsuak dituzten ikasleek proiektzio positiboak jasotzen dituzte. Edo agian alderantziz esan beharko genuke? Hots, proiektzio positiboak jasotzen dituzten ikasleek ibilbide arrakastatsuak egiten dituzte?

48. Taula: Ikasketetan arazoak izan ez dituzten elkarriketatuen ibilbide akademikoak																					
Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
1	B✓	B✓	B✓	C✓	C✓	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U✓	U✓	U✓	U✓					
2	O?	B*	R*	R?	R?	R?	R?	R?	F?	F?	F?	-	-	-	-	-					
3	B○	B○	B○	C○	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-				
4	B○	B○	B○	C*	C○	U*	U*	U*	U*	U*	U*	F✓	F✓	-	-	-	-				
5	B✓	B✓	B✓	C*	C*	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-				
6	B?	B*	B?	B?	B?	F✓	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
7	B✓	B✓	B✓	C✓	U*	U*	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	-	-	-	-	-	-	-	-
8	B*	B*	B○	C○	U*	U○	U○	U○	U*	U*	U*	U?	U?	U?	-	-	-	-	-	-	-
9	B✓	B✓	B✓	C✓	U○	U○	U*	-	-	-	-	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-
10	B✓	B✓	B○	C○	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-
13	O*	O*	F○	F○	F○	F○	F○	F○	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
14	B○	B○	B○	C○	U*	U○	U○	U○	U○	U*	U*	U*	U✓	U✓	U✓						
15	F*	F*	F*	F*	F*	F*	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-				
16	F✓	F✓	B○	C○	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	U*	U✓	U✓	U✓				
17	O?	B?	B?	B?	C*	C?	F✓	F✓	F✓	U?	U?	U?	U?	U?	U?	U?	-	-	-	-	-
18	B?	B?	B?	C?	C?	U○	U○	U○	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
20	B?	B?	B?	C*	C*	F✓	F✓	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
21	R✓	R✓	R✓	R✓	U✓	U✓	U✓	U*	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-
22	B?	B?	B?	C?	C?	U*	U*	U*	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
24	B?	B?	B*	B?	C*	F○	F○	F○	-	-	-	-	-	F○	-	-	-	-	-	F○	F○
26	F○	F○	F○	F○	F*	-	F○	F*	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	C✓	U✓	U✓		
29	B?	B?	B*	R○	R○	R○	F○	F○	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
30	B?	B*	B*	-	-	-	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
31	B✓	B✓	B?	C?	U?	U*	U*	U*	U*	U*	U*	U*	-	F✓	F✓	F✓	F✓	U✓	U✓		

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarriketak  
 Oharra: Ikurrek ikasketen maila (O [OHO], F[FP], R [REM], B [BBB], C [UBI], U [Uni]) eta zer moduz zihokion (ondo ✓, eskas \*, baleko ○, justu ?) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean lanean ari zela.

Fenomeno hori ikertzeko baliagarria da kontuan hartzea elkarriketatutuguneren artean arazoren bat aipatu dutenen ibilbidea (ikus 48. Taula). Gorago osatu dugun taldea oso homogeneoa den bezala, segidan aztertuko duguna arras heterogeneoa da. Arazo mota asko eta intentsitate oso ezberdinekoak aipatu dituzte beren diskurtsoetan.

Taula honetan barne hartu ditugun elkarrizketatuen ibilbideak oso ezberdinak dira. Batzuek gorabehera esanguratsurik gabe amaitu dituzte BBB eta UBI, ondoren unibertsitateko joateko eta bertan ikasketak amaitzeko. Beste batzuek zailtasunak izan dituzte beren ibilbide akademikoen uneren batean edo batzuetan, baina egoera horiek gainditu egin dituzte eta unibertsitateko ikasketak amaitzea lortu dute. Beste zenbaitek OHOn edo BBBn arazoak izan ondoren, Lanbide Heziketaren bidetik joan dira eta ikasketak amaitu egin dituzte, zenbaitek goi mailako ikasketak eta beste hainbatek erdi mailakoak. Halaber, badira beren ibilbide akademikoan zehar izan dituzten arazoaren ondorioz egin asmo zituzten ikasketak bukatu gabe utzi dituztenak eta arlo akademikoan bestelakorik burura eramanez ez dutenak. Ezaugarri oso ezberdineko ibilbideak ikus ditzakegu elkarrizketatuen diskurtsoetan.

Baina taula honetan dauzkagun ibilbide batzuen arteko alderaketak eginez hasten bagara, atentzioa ematen duten hainbat antzekotasun eta ezberdintasun antzeman daitezke. Esate baterako, antzeko arazoak izan dituzten zenbait elkarrizketatuk ibilbide oso ezberdinak egin dituzte. Gisakoak ziren oztopoen aurrean modu ezberdinean jokatu dute hainbat elkarrizketatuk. Zergatik gertatzen da hori? Galdera honi erantzuteko gako bat baino gehiago hartu behar da kontuan. Atal hauetan ahal bezain beste giltzarri agerian uzten saiatzen ari gara. Elkarrizketatuen diskurtsoen azterketan oinarrituz esan genezake gako horietako bat norbanako bakoitzaren gaitasunaren ideia dela. Zehatzago esatearren: hezkuntza sistemak ikasleei nola transmititzen dien ideia hori.

Hainbat elkarrizketatuen adierazpenek argitasun osoz islatzen dute fenomeno hau. Bi joera bereiztuko ditugu: norbanakoaren gaitasunaren ideia proiektatzen dutenak eta norbanakoaren ezintasuna edo gabezia aditzera ematen dutenak.

Elkarrizketatu batzuen diskurtsoetan ikusi dugunaren arabera, gaitasunaren ideia transmititzeko baliagarria izan daiteke ikasleei ikasle diren garaian bertan indartsu transmititzea etorkizunean izan beharko luketen posizio sozialaren ideia, horrek lekarkeen zeregin sozial eta ardurarekin.

“Han irakasleek transmititu dizutena da: Zu etorkizunean injenieria izango zea, izango dezu jendea zure agindupean, etekina maximizatu ta punto pelota”.<sup>1248</sup>

“Transmititzen zizuten curriculum on bat izan behar zenula. Ba, kompetentzia. Bazegon irakasle bat esaten ziguna: Es que vosotros sois la élite. ¡Qué élite ni que nada! Baina, bueno, horrek bultzatzen zintun udan hizkuntzak ikastera, ba, praktikak egitera eta holakoak.”<sup>1249</sup>

Bi aipu hauetan mezua oso esplizitua da: ikasketa jakin horiek egiten dituztenek, etorkizunean, lanaren munduan sartzen direnean, beste askoren gainera dagoen posizioa izango dute eta kokapen horri dagokion bezala jokatzeko ikasi behar dute. Horrez gain, bigarren aipuan nabarmena da hezkuntza sistemak ikasleari igortzen dion mezua horrek eragin praktikoa duela, zeren ikaslea hainbat arlotan besteak baino gehiago trebatzera bultzatzen baitu. Etorkizuneko ikuspegi horrek interesa pizten dio ikasleari eta sustatu egiten du ikasleak hezkuntzan inbertsioak

---

<sup>1248</sup> 7. Elk.

<sup>1249</sup> 23. Elk.

egitera, praktikoak direla uste duelako, lanaren munduan errentagarriak izango direla sinesten duelako.

Fenomeno hori oso argi ikus daiteke honako bi aipuetan:

“Musikan interesa neukan. Esaten zidaten ona nintzela. Irakasleak esan zidan: Zergatik ez dezu pixkat solfeoa edo zerbait ikasten (...) Potentziaten nun musika ikastolatik kanpo, musikak zeukalako igual zerbait berezia, baina ez nik bilatu nulako, ze nola esan zioten amari: Zergatik ez eraman? Hasi nintzan orduan musika kanpoan ere ikasten ta musikan ona nintzan ta maixuak pelota zizun.”<sup>1250</sup>

“Diseinua, marrazketa, beti gustatu zitzaidan. Ezagunak neuzkan. Txikitatik esan didate erraztasun handia dudala marrazketarako ta pentsatu nun ikasketak hortik bideratzea, gero hortan lan iteko, ta sartu nintzan diseinu grafikoan.”<sup>1251</sup>

Elkarrizketatu hauen diskurtsoetan agerikoa da hezkuntza sistematik ekoizten diren mezuek eragin handia izan dezaketela norbanakoaren sinesmenetan eta, ondorioz, estrategietan. Eraginkortasunez transmititzen badiote ikasleari arloren batean trebea dela, aukera handiagoa dago norbanako horrek ideia hori bere egin eta trebezia hori handitzeko ahaleginak egiteko. Beraz, proiektzio positiboek interesa piztu dezakete. Beraz, arlo zehatz batean trebea dela esan dioten norbanakoak errazago jo dezake arlo horretan inbertsioak egitera. Izan ere, norbanakoaz kanpoko proiektzio positiboak interesa susta dezake eta, hari horri jarraiki, interesak inbertsioa eragin dezake.

Prozesu honek aurrera egiten badu, zirkulu itxia bihurtzen da: arlo batean inbertsioak egiten dituenak aukera handiagoak izango ditu arlo horretan emaitzak lortzeko eta, ondorioz, arlo horretan trebea dela aitortzen dion proiektzio positiboa erdiesteko. Erabat itxia balitz, zirkuluak, eskematikoki esatearren, bost pauso izango lituzke (lehen eta azkena berbera liratekeelarik):

- a) norbanakoaz kanpoko proiektzio positiboa arlo batean,
- b) norbanakoaren interesa piztea arlo horrekiko,
- c) norbanakoak inbertsioa egitea arlo horretan,
- d) norbanakoak emaitzak lortzea arlo horretan, eta
- e) norbanakoaz kanpoko proiektzio positiboa arlo horretan

Zirkuluaren ideia, jakina, aukerak handitzeari dagokion fenomeno bezala har genezake gehienez. Inola ere ez da zirkulu determinista bat. Baina lagundu egin dezake patu sentimendua transmititzen, norberaren patuaren sinesmena sendotzen eta bide batez gaitasuna aldarri duen dinamikari egiantzekotasuna ematen.

Thomas-en teorema bete-betean gauza liteke fenomeno honetan: egia izan edo ez ikasle jakin bat ondo moldatzen dela arlo jakin batean, baldin eta hezkuntza sistemako agenteek (ikasleak eta irakasleak barne) egia balitz bezala jokatzeko badute (zailtasunak zailtasun, arlo horretan eroso

---

<sup>1250</sup> 12. Elk.

<sup>1251</sup> 6. Elk.

sentitzen delako, bere buruarengan konfiantza duelako, badakielako gai izango dela erronka hori gainditzeko, badakielako bere ahaleginak fruituak eman ditzakeela bai besteen proiektio positiboetan bai etorkizuneko balizko emaitzetan), sinesmen hori egia izango da bere ondorioetan.

Halaber, Merton-ek egin zuen teoremaren aldaera ere erabilgarria izan daiteke, zenbait kasutan behintzat, fenomeno hau azaltzeko: ikasle jakin bat arlo jakin batean ondo moldatu ez arren, hezkuntza sistemako agenteek (ikasle horrek berak eta irakasleek) egia balitz bezala jokatzeko badute (besteak beste, ikasle *saiatuari* dagokion dinamikan murgilduz), ikasle hori ondo moldatuko da arlo horretan, egia ez zena egia bihurtuz.

Honenbestez, esan genezake hezkuntza sistemak hainbat baliabide helaraz diezaizkiekela ikasleei: ezagutza, diziplina, pasaportea eta proiektioa. Baina zer gerta daiteke proiektio negatiboak transmititzen dituenen?

Hezkuntza sistemak joera handia du patuaren ideia ezartzen ahalegina egiteko. Patua beti ere gaitasunaren ideiarekin lotuta agertzen da. Meritokraziaren ideologia nagusitzen da. Segidan aurkezten dugun aipuan fenomeno hori oso esplizitua da.

“Zeon [irakasle bat] (...) zala pedagogikoki zero. Juten zan banan-bana ta: Zuk ingo dezu REM, despectivamente; Zuk BUP; Zu jungo zea REMea, ze nahiko ikasle txarra zea (...) 12-13 urte genitunean. Ikasle txarrak REMeako zian ta besteak BUPerako.”<sup>1252</sup>

Elkarrizketatu honek argi islatzen du hezkuntza sisteman indartsua den diskurtso hau: norberak daukan gaitasunaren arabera erabakitzen da norberaren etorkizuna. Hau da, gaitasuna neurtzeko parametro jakin batzuk daudela suposatzen da eta norbanakoak horren arabera neurtzen direnean, suposatzen da objektibotasunez erabakitzen dela pertsona bakoitzak zer aukera izan ditzakeen. Objektibotasunaren ideia funtsezkoa da dinamika hau legitimatzeko.

Gaitasunaren ideiarekin lotutako dinamika bezain esplizitua ez den arren, generoari lotutako patua ezartzeko hitzezko ageriko ahalegina egon, badago.

“Guk bagenitun bi irakasle bereziki (...) Bi horiek etengabe iten zituzten komentario matxistak. Baina zan... Komentario matxistak zan... pues cuanta chica... gu ginan, emakume gehiago ginan mutilak baino karreraren. Kurioso zan. Ta esaten zuten: Pues cuanta chica hay; tendrías que estar haciendo corte y confección, eta con tanta chica a ver si se van a despistar los chicos, ta holako txorakeriak”<sup>1253</sup>

[Nekazaritza Injiniaritzako ikasketetan]

Gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, hezkuntza sistemaren baitan oraindik ere badaude emakumezkoen gutxiespena sustatzen duten diskurtso publikoak, goian irakur dezakegun honen antzeko. Baina genero arloko diskurtso esplizitua izebergaren goiko muturra baino ez da. Emakumezkoak gutxiesteko ageriko modu hori ikusgarria den arren, izkutuan gauzatzen da prozesu eraginkorra. Naturala balitz bezala barneratzen dituzte gizonezkoek eta

<sup>1252</sup> 10. Elk.

<sup>1253</sup> 7. Elk.

emakumezkoek hainbat joera. Berezkotzat dauzkate. Ez dira agertzen elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan, kasu askotan ziur aski ez elkarrizketatzaileari izkutatu egiten diotelako baizik eta hori pentsamendu bezala esplizitatu ez dutelako. Nolanahi ere, elkarrizketatuen diskurtsoetan islatzen diren ibilbideetan zeharka antzematen da fenomeno honen sakonera. Izan ere, genero arloko politikak eraginkorrak dira hein handi batean. Emakumezkoak posizio jakin batzuetarantz bultzatzen dituzte. Batzuk debalutuak daude eta, beraz, haietarantz bideratzen direnak horren ordaina jasotzen dute. Beste zenbait posizio prestigiozkoa dira, baina feminizatuta daude. Edonola ere, ikerketan aurkitu duguna kontuan hartuz, ezingo genuke determinismoan erori. Generoak asko baldintzatzen du, baina beste faktore batzuekiko negoziazioan artikulatzen da (famiaren estrategia, norberak daukan kapitala eta norberaren lana). Ez dirudi hezkuntza formalak genero diskriminazioaren aldeko politika propio egiten duenik, baina ikuspegi kritikoa lantzen ez duenez (edo lantzen duenean, gutxi eta eraginkortasun txikiarekin egiten du), hezkuntza sistemaren baitan genero baldintzapenak gainditzeko tarreak irekitzen dira baina, aldi berean, hezkuntza sistemak genero politiken korrante garaikidea jarraitzen du hein handi batean.

Gaitasunaren ideia ardatz duen patua generoaren antzekoa da. Dinamika honen eraginkortasuna negatiboki ere oso indartsua izan daitekeela adierazten duten zantzu ugari aurkitu ditugu. Hezkuntza sistemak ekoizten duen gaitasuna-ergo-patua diskurtsoarekiko tolerantzia maila handia dute hainbat elkarrizketatuk. Ondoren aurkezten dugun honetan nabarmena da.

“Zortzigarren mailan [OHOn] bazegon irakasle bat que cuando le daba la ventolera, ostegunero edo ez dakit zer, esaten zigula: A ver, zuk ze ikasi behar dezu hurrengo urtean? Y decías ahí muy optimista: Yo BUP. Ta berak: ¿Tú? Que va, que va. Tú no puedes estudiar BUP porque no vas a llegar. Orduan, nik uste det como que horrek te iba bajando la autoestima (...) Orduan zenbat urte dauzkazu? 13? 14? Nik uste det orduan zeala nahiko vulnerable gauza hoietara. Alde batetik, farra egiten zenun. Esaten zenun: Puta vieja. Baina, beste alde batetik, esaten zenun: Pues, igual no valgo.”<sup>1254</sup>

Gainera, ez da ahaztu behar gaitasuna-ergo-patua diskurtsoaren presentzia oso hedatua dagoela eta oso errepikakorra dela. Behin eta berriz ekoizten da eta etengabe iristen da hezkuntza sistemako agente guztiengana. Ez gara hitz egiten ari soilik irakasleak ikasleei gelan transmititzen dizkien hitzezko ideiei buruz. Gaitasuna-ergo-patua diskurtsoa ekoizteko eta hedatzeko teknika asko daude. Esate baterako, emaitza akademiko formalek, notek alegia, funtzio hori betetzen dute. Ez genuke gutxietsi behar diskurtso honek etengabe errepikatzeko duen beharra. Izan ere, bere presentzia eraginkorra da soilik behin eta berriro modu batera edo bestera errepikatzen denean.

Bestalde, patua gaitasunaren ideiarekin araberak ezarri nahi duen dinamikan funtsezkoak dira beste bi mugimendu: naturalizazioa eta indibidualizazio psikologikoa. Ondorengo aipu honetan antzeman daitezke biak.

“Algunos profesores decían: Que esta niña no vale, es un poco tontita (...) Los profesores les dijeron a mis padres que me mandaran al psicólogo, a donde van los del síndrome de Down, para ver si tenía algún problema de retraso, y dijeron que no (...) En segundo de EGB, porque repetí segundo de

<sup>1254</sup> 17. Elk.



EGB. (...) Una profesora que me tocó me hacía la vida imposible y ahí empezó todo (...) Decía que era tonta, que no llegaba, y en las reuniones que tenía que ir al psicólogo, que no sé qué. Yo creo que no era buena profesora. Cada vez que la veo por la calle, se me pone esto [zainak]...”<sup>1255</sup>

Elkarrizketatu honen diskurtsoan suma dezakegu hezkuntza sistemaren baitan nola indibidualizatzen eta psikologizatzen diren arazoak. Elkarrizketatuek egin dituzten hainbat ekarpenetan ikusi ahal izan dugu norbanakoa hezkuntza sistemaren baitan arloren batean ondo moldatzen ez denean, norbanakoari leporatu ohi zaiola. Arazoaren kausa norbanakoaren ezaugarri psikologikoengan kokatzeko joera handia dago. Norbanakoaren gaitasunaren ideari estuki lotutako ikuspegia da, noski.

Naturalizazioa testuinguru horretan eraikitzen da: diskurtso honen arabera, ikasle jakin bat arlo jakin batean ondo moldatzen ez bada, arazoa norbanakoari dagokio, ezaugarri psikologiko batzuk direla tarteko, eta, beraz, horrela ondorioztatzen dute ikasle horrek berezkoa duela arlo horretan gaitasun txikiagoa izatea. Horrela naturalizatzen da arazoa. Norbanakoak gorpuzten du arazoa, bestelako faktorerik ez balego bezala.

Nolanahi ere, aipatzeko modukoa da elkarrizketatu honek ikuspegi kritikoa duela ezarpen ahalegin horrekiko. Agian ikuspegi horrek zerikusia du bere ibilbide akademikoarekin.

Hezkuntza sistemak arazo handiak dauzka gaitasuna-ergo-patua eta naturalizazio-indibidualizazio psikologikoaren parametroak gainditzeko. Nekez jabetzen da berak ekoiztutako arazoetaz.

“Gauza kuriosoa izan zan. Gutxi estudiatu, justu aprobatu ta ez aprobatu... gero eta interes gutxiago neukan ikasteko. Asignatura batzutan ez zitzaidan gustatzen: historia, mate, kimika... hasi nintzan atragantatzen ta penkoak ateratzen. Klase partikularretan irakasteko modua oso ezberdina zan eta gustatzen hasi zitzaidan. Esplikatzeko modua oso ezberdina zan. Beste ikuspegi batetik ematen zuten historia. Urte sueltoak... hola irakasten zan lehen. Lo puto peor. Ez zun sortzen inquietudea. Irakasle partikularrak bai. Dena lotzen hasi nintzen: Erroma, bisigodoak... dena erlazionatua zegola. Lehenengo examinean oso nota ona atera nun ta esan zidan: kopia in dezu. Ta nik: Ez, klase partikularrak eman dizkidate. Ez zan lehenengo aldía. Askotan pasa zait. Beti izan naiz oso gualtrapa. Dinamika horretan sartu nintzen, interesatzen bazitzaidan, gelditzan nintzan kontuakin eta, bestela, txorradak iten hasten nintzan. Fama txarra hartu nun, paso iten nula. Orduan, bapatean nota ona atera nun ta esan zun: Kopia in du. (...) Antzekoa gertatu zitzaidan matekin, logaritmo nepertarra y su puta madre. Orduan hartu zidan nere izebak. Izeba eta osaba irakasleak dia. Fisika ta kimikako tituloa daukate, uste det. (...) Izebak lagundu zidan notekin. Berdina gertatu zitzaidan. Ikuspegia aldatu zan. Ondo pasatzen nun. Interesgarria ta dibertigarria zan. Ta klasean berdina esan zidaten, kopia in nula.” (...) [Natur zientzietan] empollón batek kopia in zidan dena literalki. Berari eman zizkion puntuen erdiak eman zizkidan. Empolloientzat baremo bat erabiltzen zuten. Para los apestados beste baremo bat. Beti ikusi det.<sup>1256</sup>

“Kontra iteagatik ere iten nun. Esaten zidatenean, honek ezin du, honek errepikatu ingo du (...) Hori COUn izan zan. Alperkeria haundia sartu zitzaidan. Dana suspenditzen hasi nintzan eta ya

<sup>1255</sup> 13. Elk.

<sup>1256</sup> 6. Elk.

errepikatzaile bezela jarri ninduten, eta haserretu in nintzan. Dena aprobatu eta, azkenean, selektibitatearekin COUko nota ere igo in nun (...) Erronka bat daonean, erakutsikoet, baina bitartean... ez. (...) Zuk hori ezin dezu in. Bai, in dezaket. Zuk lana in ta gero ez sinistu zuk indakoa dala (...) Ama, nik lana in det. Ez badidate sinisten lana nik indakoa dala... ta, efectivamente, deitu ta lana berak in du, nik ikusi det etxean lana iten. (...) Irakasle batzuk lagundu diate. Nigan sinisten zuten irakasle batzuk. Beti dao feeling bat pertsonen artean eta badakizu batzukin erosogo sentitzen zeala, ta baditut irakasle batzuk... (...) Nahi nula iten ai nintzala erakusteak asko lagundu zidan, nahi nulako erakutsi que tonta no era. Que no. Que si lo quiero, lo puedo hacer. Askotan ikastolan zalantzan jartzen zizuten hori: Honek ezin du, honek ez daki, es que honek burua ez dakit nun daukan... Zalantzan jartzen dizute (...) Gai ez nintzala pentsatzen ez zuten hoiek [kalte egin zidaten]. El orgullo beti. Daukazu zalantza hori. ¿Qué no me llega? Baina, bueno, gero gustoa gelditu nintzan. Bai. Zeren eta jende horri argi erakutsi nion haien notak eta selektibitatean tribunal objetibo batek zuzendutakoak, nere izena ezagutzen ez zutenak, beste emaitza hobek ematen zutela (...) Horri buelta eman nion, baina momentuan iten du mina. Haserretu egiten zaitu eta izorratu badezakegu, gehio izorratzen dezu.”<sup>1257</sup>

Aipu hauetan erresistentzia ere ikusten da. Baina erresistentziarekin batera antzematen da hezkuntza sistemaren hainbat agentek transmititu dieten ideien eragina bi elkarrizketatuen ibilbide akademikoetan.

Gaitasuna-ergo-patua diskurtsoak proiektio negatiboak egiten dituen ere eragina izateko joera du. Hala islatzen da hainbat elkarrizketaren diskurtsoetan, segidan aurkezten dugun honetan kasu.

“Me aconsejaron que lo mejor para mí era la rama de profesional. Me dijeron que no valía para hacer BUP y COU. No me veían preparada. Entonces elegí administrativa (...) No es una cosa que llamaba mucho. Luego no he trabajado en eso.”<sup>1258</sup>

Gaitasuna ardatz harturik patua ezartzeko dinamikan oso erabilgarriak dira etiketak. Izenak izana ekoizteko eraginkortasun handia izan dezake norbanakoari esleitzen zaionean. Hurrengo aipuan elkarrizketatuak esplizituki hitz egiten du etiketazeari buruz, elkarrizketatzaileak horri buruzko batere aipamenik egin gabe.

“Iritu zitzaidan antipedagogiko total. Ni traumatizatuta atea nintzan. Apaizen eskola bat da (...) Nik oso gaizki pasan nuen. Oso ondo pasa nuen lagunekin eta hori. Baina la lección... Neri ez galdetzeko, neri ez galdetzeko, ta: Señorita, dígame usted la lección. Igual hasten zinan ta: Usted no se la sabe. Eta hori zan un bloqueo personal. Ta gero nik etiketa neukan, ta ni bezela jende asko. Etiketatzen zaituzte: Zu ez zera ona hontan. Ta beti zaude... Daude bi opzio: saiatu esaten irakasleari ahal dezula edo, niri gertatu zitzaidan bezela: ¿Que no puedo? Pues, no puedo, eta paso, paso, (...) Gainera, etxean badakite bi penko eramango dituzula, o sea que jende guztiak normalizatzen du zu ez zerala ona. Ta zu ez zera saiatzen (...) Atera nintzan ta esan zidaten ez nengoela BUP bat egiteko eta juteko [ikastetxe publiko jakin batera] FP bat egitera, eta jun egin nintzan. Baina FPan, ez dakit, buelta eman nion. Ez zitzaidan batere kostatu eta nota oso onak atera nituen, eta hango orientadoreak esan zidan

<sup>1257</sup> 14. Elk.

<sup>1258</sup> 15. Elk.

BUP bat egiteko nengoela. (...) Beti pentsatu izan det ezin dudala ikasi, Ikastolan beti esaten zidatelako. (...) Ez zeranean ikasle ona, juten zeanean tokietara ez ikasle onentzako, ba, beti atera ditut nota oso onak. Ni nengoen erdian bezela. Zerbait gehiago ikasteko, baina agian ez medikuntza bat egiteko. Agian ez naiz kapaz. Ez igual arkitektura egiteko. (...) Ni ez naiz ikasle ona izan. Orduan ¿qué te queda? Modulo bat egin (...) Jendeak ez du uste zu unibertsitatera joango zarenik. (...) [Ni ibili nintzen OHoko ikastetxean] oso gaizki ikusia zeon FP bat egitea, baina neri berdin zitzaidan. (...) FPko orientatzailea, tipa oso ondo. Norbaiti entzutea ahal nuela. Nik uste aldatu nuela begiratzeko modua nere buruari. Por fin norbaitek esaten zidan nik zerbait gehiago egin ahal nuela. Bueno, notek ere esaten zuten. Baina esatea: Jun zaitetz batxilergoa egitea... zan como argia ikusi det.»<sup>1259</sup>

Etiketa modu eraginkorrean jartzen denean, norbanakoak etiketa hori gorpuzten du besteen aurrean eta norbere buruaren aurrean. Norbanakoak etiketa bere egiten du. Etiketa egiazkoa izan edo ez, egiazkoa balitz bezala jokatzen duenean, norbanakoa etiketara egokitzen da. Norbanakoak lekua aurkitzen du eta gainerakoek ere leku hori aitortzen diote. Nekeza da etiketaren mugak urratzea.

Baina goiko aipuan argi ikus daiteke etiketatze lana ez dela betierekoa. Ez da hain sendoa. Behin eta berriro errepikatu beharra dauka. Egiten ez denean, indarra galtzen du. Zirrikituak agerian gelditzen dira. Elkarrizketatu honen ibilbide akademikoa, esate baterako, oso gorabeheratsua da. Une batzuetan ez dirudi gai izango denik *ikasle txarra* dela esaten duen etiketa gainditzeko. Hori erdiesten duen zenbait unetan, pisu handia du etiketaren eraginak, adibidez unibertsitatea beretzako lekua ez dela eta lanbide heziketa egitea beste paradarik ez duela erabakitzen duenean, bere balizko ibilbideen aukerak asko murriztuz. Baina elkarrizketatu honen ibilbide akademikoa bere osotasunean aztertuz gero, nabarmena da elkarrizketatu honi urte luzez ezarri nahi izan dioten etiketa, ustez gaitasun faltan oinarritzen dena, benetan ez dela gaitasunean oinarritzen, baizik eta unean uneko beste zenbait faktorek eragiten dutela, besteak beste honakoek:

- a) hezkuntza ereduaren izaerak,
- b) ikaslearen familiaren eredu kulturalak, espektatiben ortzemugak eta estrategiek,
- c) norbanakoaren eredu kulturalak, norbanakoak testuingurua prozesatzeko eta haren gain eragiteko daukan estrategiak, eta norbanakoaren espektatiben ortzemugak.

Honetan guztian etiketatzearen fenomenoak zeresan handia du. Arestian azaldu dugun bezala, Thomas-en teorema oso eraginkorra da fenomeno hau azaltzeko: egia izan edo ez, egia bailitzan jokatzean datza. Teoremaren aldaera ere erabilgarria da: hasieran egia ez zena, sinestearen ondorioz eta egia bailitzan jokatzearen ondorioz, egia bihurtzen da.

Hezkuntzaren eremuan norbanakoari sinestarazten bazaio ez dela ondo moldatzen eta, halaber, ingurukoek hala onartzen badute, litekeena da norbanakoaren interesa murriztea. Norbanakoak, etiketak ezartzen dizkion espektatibak betetzeko joera izan ohi du. Edo zehatzago esatearren: kanpotik norbanakoari iristen zaizkion etiketek indar zentripetua dute. Hainbat elkarrizketaturen diskurtsoek agerian uzten dute fenomeno hori. Hezkuntzaren eremuan ere etiketari lotutako espektatibek harreman nahiko estua dute hezkuntza eremuarekiko norbanakoak izaten duen

---

<sup>1259</sup> 16. Elk.

interesarekin. Desinbertsioek oinarri hori dute, interes falta alegia, elkarrizketatu ditugun hainbaten diskurtsoetan islatzen denaren arabera.

Fenomeno honetan kate bat osatzen da: etiketa, espektatiba, interesa, inbertsioa, trebezia, eta berriro etiketa eta abar. Kate-begi hauek guztiak harreman konplexu batean uztartzen dira. Ez da norabide bakarreko harremana. *Gaitasuna* kontzeptuaren antza duen *trebezia* fenomeno honen osagaietako bat da, baina ezin da ulertu gainerako osagaiak kontuan hartu gabe. Gainera, fenomeno hau aztertzerakoan, ezin da ahaztu hezkuntza eredu jakin baten testuinguruan gauzatzen dela.

Sinesmenak eta gertaerak lotuta doaz. Sinesmenak eragina izan dezake gertaerarengan eta, era berean, gertaerak eragina izan dezake sinesmenarengan. Izan ere, sinesmena gertaera mota bat da. Inbertsioen eta desinbertsioen fenomenoak agerian uzten du hori. Etiketatze negatiboari norbanakoaren interes falta lotzen zaionean, desinbertsioa gertatzen da, hots, norbanakoak atzera egiten du eremu horretatik etekina lortzeko ahaleginean. Desinbertsioa hainbat intentsitate mailatakoa izan daiteke eta intentsitate horren arabera izango da desinbertsioak izango duen eragina norbanakoak eremu jakin batean duen trebezian. Norbanakoak eta bere inguruak onartzen badute pertsona horrek ez duela balio, ez dela gai, eremu horretan egin dezakeen ahaleginak ez dakarrela ezer praktikorik (ezagutza hutsa ere praktikotzat har daiteke, jakina), ez badio eremuari etekinik atera behar, norbanakoari interesa murriztu egingo zaio eta desinbertsioaren estrategian murgilduko da, denborak aurrera egin ahala okerrago moldatuko delarik eremu horretan. Ondorioz, oinarri eskasagoekin zailagoa egingo zaio trebezia berriak ikastea. Fenomeno honen eraginkortasuna handitzen den heinean areagotzen da etiketatzearen eraginkortasuna sendotzeko aukera, berriro ere osagai guztiak norabide jakin batean indartzen direlarik.

Baina, hala ere, ez da prozesu itxi, geldiezin, atzeraezin edo zirrikitu gabea. Elkarrizketatu ditugunen diskurtsoetan nabarmena da hori. Hezkuntzaren eremuko erakundeek eta agenteek osatzen duten amaraunean joera nagusiak sendoak dira baina, aldi berean, hamaika dira interes kontrajarriak, bat egiten ez duten estrategiak, kontraesanak, zirrikituak eta aukerak.

## 4. Familiaren koltxoia

Familia funtsezko erakunde soziala da ikerketa honetan aztergai ditugun ibilbide akademikoak analizatzerakoan. Familia guztiek dute beren estrategia norbanakoen ibilbideekiko. Batzuetan aldakorrak dira, inkoherenteak, kontraesankorrak, baina guztiek eragin handia dute, hala izan dadin familiek makina bat teknika erabiltzen baitituzte. Azter ditzagun elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan aurkitu ditugunak.

### 4.1 Ikastetxea aukeratzen

Familiak seme-alaben heziketa formalean eragiteko daukan begibistako moduetako bat etxeko txikien ikastetxea aukeratzea da. Elkarrizketatu ditugunen diskurtsoak analizatzean, argi dago dago heziketa formalaren parametroak ez direla berdinak ikastetxe guztietan. Elkarrizketatu

ditugunen narrazioetan ageri da hori. Baina horrez gain, familiak hezkuntza formal jakin bat propio bilatzen du ikastetxe bat edo beste hautatzen duenean. Familiaren helburuetara doitzen den ikastetxea aukeratzeko, familiak hainbat irizpide erabili ohi ditu. Segidan, elkarrizketatu ditugunen diskurtsoetan aurkitu ditugun irizpide esanguratsuenak aztertzen saiatuko gara.

Hurbiltasuna da jaun eta jabe, esplizituki aipatzen direnei dagokienez. Elkarrizketatu askok garrantzi handia eman diote ikastetxea familiaren ohiko etxebizitzatik ahal bezain hurbil egoteari.

Ikastetxearen prestigioa ez da hain ageriko irizpidea, baina nabari da pisu handia duela familiak beren seme-alaben (guk elkarrizketatu ditugunen) ikastetxea aukeratzekoan. Prestigioa hainbat irizpideri lotuta agertzen da. Hauetako asko ez dira modu esplizituan azaleratzen. Agerikoena pribatu-publiko dikotomian ikus dezakegu. Prestigioa ikastetxe pribatuari lotzen zaio eta ikastetxe publikoak, berriz, estigma jasateko joera du: istiluak, ikasketa maila txikiagoa eta familiak nahi ez duen mugimendu politikoa, besteak beste.

“[Lizeo jakin bat, ikastetxe pribatua, OHOk ikastola horretako ikasleen] lehen opzioa zan. Fama onena zeukan. Fama zeukan maila altua zala ikaskuntzan.”<sup>1260</sup>

“Normalean ikastolakoak joaten ziren institutura, baina ni [Lizeo jakin batera], gurasoek pentsatzen zutelako hezkuntza hobea bat jasoko nula.”<sup>1261</sup>

“[Lizeo jakin batera joan nintzen] gurasoengatik, institutua publikoa zelako eta [Lizeo jakin hori] pribatua eta ospea zeukalako, hezkuntza kalidade hobea bilatzen zutelako gurasoek.”<sup>1262</sup>

“Publikoa da, fama txarra daka (...) satanizatua zeon.”<sup>1263</sup>

“El hecho de ser pribatua, concertado (...) igual nere gurasoentzat emango zien puntu bat... no sé de qué. Igual publikoa lehen ikusten zan peor, ez dakit. Hoiak dira nere ideiak. Ez dakit. Ta beti esan da [auzoko ikastola] oso politizatua dagoela, ta nere gurasoak rollo horretan ere ez dira gehiegi sartu.”<sup>1264</sup>

Ustezko estigma horiei buelta eman eta bere alde baliatzen dituenik ere bada:

“[Ikastetxe publiko jakin bat aukeratu nuen] gertu zegoelako, ikastolako lagun batzuk han zeudelako. Hombre, egia da fama... Nik entzuten nuen mobida asko izaten zirala, baina nolabait banekien institutuan [ikastolan] baino maila baxuagoa aurkituko nula, ta esfortzu pixka bat eginda lasai asko aterako nuela, ta hori gertatu zen”.<sup>1265</sup>

Ikastetxea erlijiosoa edo laikoa izatea ere kontuan hartzen du familiak aukeratzeko duenean. Ondoren aurkezten dugun aipuan, adibidez, elkarrizketatuak dioenez, ikastetxe katoliko eta pribatu jakin bat hautatzea erlijioari eta prestigioari lotuta doaz, hurrenez hurren.

---

<sup>1260</sup> 6. Elk.

<sup>1261</sup> 9. Elk.

<sup>1262</sup> 31. Elk.

<sup>1263</sup> 7. Elk.

<sup>1264</sup> 17. Elk.

<sup>1265</sup> 8. Elk.

“[Zergatik aukeratu zuen amak ikastetxe pribatu katoliko bat galderari erantzunez] Mi abuela era muy religiosa. (...) Y colegio de pago porque me imagino que sería: Aquí los chicos van a salir ingenieros industriales. Pues, algo así.”<sup>1266</sup>

Baina prestigioa hezkuntza ereduari lotuta ere ager daiteke, segidan irakur dezakegun aipuan bezala.

“Bazeukan fama izatearena irekiagoa. Ez dakit zer esan nahi duen horrek. Ba, hezkuntza aldetik edo ideologia aldetik ezkertiarra, ta gero azkenean irakaskuntza aldetik oso, ba, nahiko tradizionala izan zala. Ez det uste beste eskoletan edo instituto batean eskaintzen zenarengandik oso aparte dagonik.”<sup>1267</sup>

Bestalde, izkutuan doan irizpidea da prezioa. Elkarrizketatu bakan batzuek soilik aipatu dute ikastetxeen matrikulak ordaintzeko gaitasuna, zailtasuna edo ezintasuna, baina nabarmena da elkarrizketatuek mintzagai dituzten ikastetxeen kosteak oso ezberdinak direla. Publikoak merkeagoak eta pribatuak, berriz, garestiagoak edo askoz garestiagoak. Ondoren aurkezten dugun aipuan, adibidez, elkarrizketatuak bere familiaren ordainketa gaitasuna azaltzen du.

“Más cercano y más esto, porque era concertado. Era más barato, yo creo también. Porque, por ejemplo, [ikastetxe pribatu jakin bat] era más caro (...) Era un pastón y mis padres podían pagar hasta cierto punto (...) Era privado total (...) 20.000 pesetas al mes.”<sup>1268</sup>

Euskararekiko estrategia ere funtsezkoa da familiek ikastetxea aukeratzeko dutenean. Elkarrizketatuen diskurtsoen arabera, Donostialdean hezkuntza formalean euskaraz ikasteko aukera ez zen oso zabala. Batik bat ikastolek bermatzen zuten. Ikastetxe publikoen eskaintza oso eskasa zen.

“Garai hartan ez zeon Donostin euskeraz ikasteko aukera askorik. Garai hartan ikastolen mugimendua pilpilean zegoen ta, bueno, gainera, etxetik gertu zegoelako (...) Argi zuten bere alabak euskeraz hezitu nahi zituztela.”<sup>1269</sup>

“Gurasoak ez dia euskaldunak baina (...) baloratu zuten behintzat seme-alabek euskeraz jakin zezaten, ta hemen inguruan pentsatzen det ez zeola aukera haundirik. [Ikastola] bere hasieratan zeon ta hor peleatu zuten beren historia ta gu izan ginan horren parte. Nik uste det horregatik. Ez zen eskola horrek tradizio handia zeukalako. Ez zeuzkan urte asko. Ez zan: Jun zaitetz [ikastetxe pribatu katoliko jakin batera] ze oso ona da.”<sup>1270</sup>

“Aitona izan zan han dirua... ikastola pribatueta... dirulaguntza ematen. Ikastola zan ere. Beraiek nahi zuten murgiltzea euskara munduan.”<sup>1271</sup>

---

<sup>1266</sup> 24. Elk.

<sup>1267</sup> 11. Elk.

<sup>1268</sup> 13. Elk.

<sup>1269</sup> 8. Elk.

<sup>1270</sup> 12. Elk.

<sup>1271</sup> 18. Elk.

“Leheno [euskarazko hezkuntza eskaintza] aukera gehiegi ez zeon, publikoak edo ikastolak, oraindik pribatuak ez zianean (...) [Ni ibili nintzen ikastola] euskeragatik antolatu zuten. Hortan gurasoak beti izan zian... euskaldunak, euskera bultzatu. Garai hartan, gainera, dirua ta jarri behar zan. Ikastolak sortzen ai zian.<sup>1272</sup>

Aipu hauetan antzematen da familiek aktiboki eta kontzienteki bilatutako estrategiak ahalbidetu zuela euskara hezkuntza formalean txertatzea. Ikastetxea aukeratzen zutenean, lehentasunezko irizpidea ere bada hainbat familitan, zenbait elkarrizketatuk diotenez. Aitzitik, hezkuntza formalean erdal ereduak aukeratu dituzten elkarrizketatuek ez dute aipatu hori egiteko hizkuntzaren arloko arrazoirik.

Euskaraz egiten den hezkuntza formalean ohikoa da materiala gaztelaniaz izatea, esate baterako ondorengo aipu hauetan ikus dezakegunez.

“Gainera, solfeoa erderaz [zan] ta liburuak garai hartan denak gazteleraz zeuden.”<sup>1273</sup>

“Ba, ez dakit, ba, hamabost urte ta gai nintzelako edozein lekutan informazioa bilatu, leku ezberdinetakoa, liburu ezberdinetakoa, ta gero itzulpen lan mordoia ia behar zan, ze nola dena ia erderaz zeon.”<sup>1274</sup>

Ofizialki euskaraz diren zenbait ikasketa egunerokotasunean gaztelaniaz egiten dira.

“Zailtasunak zeuden euskera aldetik. Guk teorian euskeraz ikasten genun. Praktikan euskeraz genitun oso ikasgai gutxi. (...) Irakasle gehienek erderaz zekiten eta euskeraz ez, edo euskeraz ez ziren ausartzen ikasgai guztia euskeraz eskeintzen. Azkenean karrera gehiena erderaz zan.”<sup>1275</sup>

Euskeraz ikasi duten hainbat elkarrizketatuk azaldu dute gaztelaniarekiko hartuemanetan izan dituzten zailtasunak.

“[Unibertsitateko ikasketetan] gaztelaniaz iten genun ta, noski, COU arte dana euskeraz... ba, kosta zitzaidan, asko.”<sup>1276</sup>

“Oso ezberdina izan zan. Batetik, erderaz ikastea. Nik ordura arte dena euskeraz in izan nun. Pasa nitun ez dakit zenbat hilabete kontuatu nintzela nik euskeraz pentsatzen nula.”<sup>1277</sup>

“Aldaketa haundia izan zan. (...) Nik ordura arte dena euskeraz ikasi nun ta han [unibertsitatean] kuartimstre bakoitzean igual bat zenun euskeraz [ta gainerakoak erderaz].”<sup>1278</sup>

---

<sup>1272</sup> 14. Elk.

<sup>1273</sup> 20. Elk.

<sup>1274</sup> 21. Elk.

<sup>1275</sup> 27. Elk.

<sup>1276</sup> 7. Elk.

<sup>1277</sup> 21. Elk.

<sup>1278</sup> 23. Elk.

Hizkuntza, gainera, jende motarekin lotuta agertzen da maiz. Ez soilik euskara jakitea edo ez, baizik eta euskararen ezagutza maila eta euskarari ematen dioten lehentasun maila. Horrek guztiak sozializazio joerak ezartzen dituela dirudi, segidan aurkezten ditugun elkarrizketatuen ekarpenetan ikus dezakegunez.

“[Ni ibili nintzen FPko ikastetxe publikoan] giroa ez zan... oso erdalduna zan. Gure taldetxoan egin genun ta ez ginan hortik atera (...) Ta [ni ibili nintzen BBB eta UBIfko ikastetxe publikoan] ere erderakoekin ezer ez, harremanik ez, ta nik uste dut hori toki guztietan.”<sup>1279</sup>

“Kontrastea oso haundia zan (...) [Auzokoak] gela berean ginan, baina zeuden beste 25 [udalerraren erdigunekoak], erderaz hitz egiten zuten, zian kalekume zea batzuk ez zutela gure mundua ezautzen, ta aparte gu heldu ginen beste heziketa batetik (...) Hasieran txoke haundia izan zan, batipat erdal munduakin aurreneko... ze gu 14 urte arte euskeraz bizi izan ginan. Ez genun erdera ezertako erabili gure artean (...) Gu haietzako ginan los vascos, baserritarrak (...) Ta gero aparte zeuden erdaldunak, ze hauek zian teoriar euskaldunak. Ta haiekin kasik hostiaka ibiltzen ginan. Brometan edo ez, baina gatazka zeon.”<sup>1280</sup>

## 4.2 Zereginak, aspirazioak eta beste zenbait ahalegin

Ikastetxea aukeratzea, estrategia orokorrago baten teknika bat baino ez da. Elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan oso nabarmena da familia bakoitzak etengabe erabiltzen dituela bere ondorengoekiko hainbat estrategia. Ikastetxea aukeratzea baino garrantzitsuagoa dirudi familiak seme-alabengan erreferentzia estrategikoak ezartzeko egiten duen ahalegina. Familia taigabe saiatzen da etxeko txiki eta gazteei hainbat aspirazio, espektatiba, ezagutza, interes eta zeregin transferitzen. Familiak lan hau modu askotara egin dezake: esplizituki nahiz inplizituki, hala kontzienteki nahiz inkontzienteki, eraginkortasunez edo gabe, eta koherentziaz edo gabe, besteak beste.

Fenomeno hau erraz antzematen da elkarrizketatu ditugunek hezkuntza formalaren eremuari buruz kontatu dizkigutenetan. Badirudi elkarrizketatu bakoitzaren familiak bere estrategia erabili duela, haietako bakoitza neurri batean originala eta errepikaezina dela, eta, gainera, hainbat kasutan sinkronikoki nahiz diakronikoki ez-uniformea izan dela. Baina, hala ere, baldin eta aztertzen badugu familiaren estrategian zer ezaugarri diren egokiak hezkuntza formalaren eremuan inbertsioak egitera bultzatzeko, inbertsioa eta desinbertsioa bultzatzen duten hainbat osagai identifikatu ditugu. Nolanahi ere, argi utzi nahi dugu ondoren azalduko ditugun ezaugarriak ez dagozkiela bi familia estrategia motari. Ezaugarri hauek guztiak nahasian aurkitu ditugu elkarrizketatuen diskurtsoetako familietan. Tipo idealak eraiki nahi bagenitu, esango genuke bi familia ideal (ideien eremukoak alegia) leudekeela: hezkuntza formalean inbertitzera bideratutako strategiak dituzten familiak eta hezkuntza formalean ez inbertitzera bideratutako strategiak dituzten familiak. Baina orain gure helburua ez da elkarrizketatuen diskurtsoetako familiak zer tipo idealera egokitzen diren erabakitzea, baizik eta familia hauen artean inbertsiora

---

<sup>1279</sup> 16. Elk.

<sup>1280</sup> 9. Elk.



nahiz desinbertsiora bultzatzen duten ezaugarriak aurkitzea, nahiz eta hauek familia horretan bertan kausi daitezkeen beste zenbait osagairekiko kontraesankorra izan.

Hezkuntza formalarekiko ikuspegiaren eraikuntza funtsezkoa da familiaren estrategian. Propio eginez edo beren borondatearen kontra, familiak uneoro saiatzen dira seme-alabei transmititzen hezkuntza formalaren balioari eta erabilgarritasunari buruzko ikuspegi bat, izan inbertsioak egitearen aldekoa, kontrakoa edo erdibidekoa. Hezkuntza formalean egiten diren inbertsioen errentagarritasuna gutxiesten duen familiak lehenetsi egingo du lanaren mundura lehenbailehen sartzea. Ondoren irakur dezakegun aipuan argi ikusten da familiaren ikuspegia hezkuntza formalarekiko eta, halaber, elkarrizketatuak izan duen bilakaera ikuspegi horrekiko.

“Ikasketen aldetik nahiko ondo moldatzen nintzan. Seigarren mailara arte ez nun suspensorik atera inoiz eta suspenditu nun dibujo lineal ta pasa nun uda bat mapak egiten. Eta gero hor EGBn nik uste det ez nula suspensorik atera. (...) Ikusten nun institutokoa... Guri erakutsi ziguten moduan zan institutura juten bazerate, gero selektibitatea in behar da ta gero unibertsitatera jun. Aja. Ta FPra juten bazerate, urte gutxigo dira ta gero lanera. Bale. O sea, institutoa zaila da, grekoa emango dezute, latina emango dezute. Momentu hortan iruditu zitzaidan astakeri bat. Ta FPn dena praktikoa da... Una leche. Baina dena praktikoa da, askoz errazagoa, askoz gutxigo ikasi behar da ta gero lanera. Orduan, FPra goaz. (...) Nere etxean da la de inportanteena da lana. FPra lanera, guapa. Zan como vale. Ta nik jarrera bat neukan administrazioa, secretariado edo zerbait. Nik txikitan jolasten nun etxean. Gero ez zen nik uste nuna. (...) [30 urterekin] gogoa neukan ikasteko zerbait. Beiratu nitun berriz ikastaroak, baina gero pixkat pentsatuta, orain arte egin ditudan kurtso guztiakin ez det ezer egin. Oso praktikoak ziren, oso ondo pasa det, baina besterik ez. (...) Ez dizu inora joateko ematen. (...) Eta esan zidaten: Zergatik ez zara EPARA juten? Han kurtso pila bat daude. (...) Ikusi nun folleto bat: Prestatu unibertsitatera sartzeko. Nik unibertsitatea ikusten nun imposible bat bezela. (...) Etorri zitzaigun EPARA irakasle bat izugarria. (...) Ein dezakezu hau, oso praktikoa delako. Hau egiten badezu, zuzenean lanean hasiko zea. Beste hau nahi badezu, distantzian edo nahi dezun bezela. Ireki zizkidan ate ta leiho ta bide guztiak. Aukera guztiak jarri zizkidan aurrean ta esan zidan: Orain zuk aukeratu ze nahi dezun egin. Nik ez nun aukerarik ikusten eta derrepente honek hemen sartu dizkit las de dios.”<sup>1281</sup>

Elkarrizketatu honek azaltzen duenaren arabera, bere familian lanaren munduan lehenbailehen sartzea da lehentasuna, ez hezkuntza formalean inbertitzea. OHOkoko emaitza akademikoak balekoak izan arren, beste elkarrizketatu batzuek zalantzarik gabe unibertsitatera bidean BBB eta UBI egitea aukeratu duten egoeraren antzekoan, emaitza akademikoek dagokienez behintzat, elkarrizketatu honek Lanbide Heziketaren bidea aukeratu du, bi arrazoi tarteko: uste duelako, batetik, ikasketak errazagoak direla eta, bestetik, lanaren mundurako sarbidea azkarragoa dela. Familiaren ikuspegiak gaina hartzen dio baita emaitza akademikoek ere. Erabakia hartzen duen garaian, alabaren iritziz familiaren ikuspegia da zentzuzkoa den bakarra. Ia bi hamarkadaren ondoren aurka egingo dio elkarrizketatu honek ikuspegi horri.

Beste muturrean dago hezkuntza formalean egiten diren zenbait inbertsiotan fermuki sinesten duen familia estrategia. Inbertsioak orain egiten dira emaitzak gero jasotzeko, eta hori ziurtasunez

---

<sup>1281</sup> 26. Elk.

jakiteak bide egokian joatearen asetasuna sortzen du orain. Honako aipu honetan islatzen da familia estrategia hori.

“Nere aitak [unibertsitate pribatu bateko fakultate jakin batean] ikasi zun. Orduan baita ere, ba, bueno, ba, igual, txikitatik... bera oso pozik egon zan han. Pixkat igual transmititu egin zigun hori, edo behintzat neri. (...) Jende askok ikasi zun, ba, suposatzen delako irteera asko zitula, baina niri asko gustatu zitzaidan, pila bat. (...) Ikasten ari zeran bitartean ez dituzu gauzak oso argi (...) baina, ez dakit, igual nere inguruan zegoen jendeak komentatzen zuna (...) Aukeraren aldetik igual nire aitaren influentzia izan zan, hori batez ere.”<sup>1282</sup>

Elkarrizketatuaren diskurtsoan familiaren erabateko sintonia antzematen da hezkuntza formalarekiko. Ikuspegi honen arabera, ezinbestekoa da hezkuntza formalean epe luzerako inbertsioak egitea. Horren arrazoia ez da soilik ikasketa horiek burutzeari esker lor daitezkeen lanpostuak erdiesteko aukerak handitzea. Inbertsioa sustatzen duen ikuspegia hori baino askoz errotuagoa dago: badirudi familia horren kideen betebeharra dela ikasketa horiek edo gisakoak egitea. Hori islatzen dute hainbat elkarrizketaturen diskurtsoek. Bete beharreko patu sentimendua da. Espektatibak sakon sustraitzen dituen ikuspegia da hau.

Badirudi familiak bakoitzak aurreikusteko joera duela bere ondorengoen posizioa zein izango den etorkizunean eta horren arabera ikuspegia transmititzeko ahalegina egiten duela, onerako nahiz txarrerako, baita hezkuntza formalari dagokionez ere. Baina elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan islatzen denaren arabera esan genezake aurreikuspena baino gidari lana egiten duela, etorkizuna deskribatu baino ezarri egiten duela, edo horretan saiatzen dela behintzat, nahiz eta ez dirudien inoiz fede txarrez egiten dutenik.

Horren erakusgarri izan daiteke emaitza akademikoekiko familiaren estrategia. Segidan, hiru elkarrizketaturen diskurtsoetatik hartutako adibide bana jarriko ditugu.

“Lehenengo urtean iritsi nintzan ez dakit zenbat suspensokin (...) ta amak lehenengo urtean esan zidan: Emango dizut aukera bat irailera arte ta, bestela, lanean hasiko zea, ta neretzat hori izan zan... ni lanean? O sea, ni lanean? Inposiblea da hori, ta hor egurra eman nion, buelta eman nion. Amak etxean beti babestu nau.”<sup>1283</sup>

Aipu honetan elkarrizketatuak berebiziko garrantzia ematen dio hezkuntza formalaren arloko inbertsioari. Halaber, amaren mehatxuak eta alabak amari aitortzen dion babesak zeharka baina nahiko argi iradokitzen du zein den familiaren estrategia: inbertsioaren aldeko ikuspegi garbia.

Kontrako estrategia antzeman daiteke ondorengo aipuan.

“Si suspendía, en casa tampoco reaccionaban mal. Me echaban la bronca, pero tampoco una bronca exagerada, ni me castigaban ni nada. (...) Yo quería trabajar (...) Entre estudiar y trabajar, siempre prefiero trabajar, porque entraba dinero a casa. Bueno, a casa... A mí me entraba dinero. Por eso

---

<sup>1282</sup> 23. Elk.

<sup>1283</sup> 7. Elk.

prefería trabajar y no estudiar (...) Además, nunca me ha interesado estudiar. Nunca me ha gustado.”<sup>1284</sup>

Goiko aipu honetan islatzen den estrategia ez dago hezkuntza formalean inbertsioak egitera bideratua, kontrakoa baizik. Familiak, jakina, ez du nahi, ez du gustuko beren alabak emaitza akademiko kaskarrak lortzea, baina familiak ez du mugimendu eraginkorrik egiten egoera horri buelta emateko. Badirudi familiak normalizatu egiten duela egoera, asumitua duela. Alabak, elkarrizketatuak hain zuzen, ikuspegi hori bere egiten duela dirudi: ez du interesik hezkuntza formalaren inertsoetan; aitzitik, ahal bezain azkar lanaren munduan sartzeko aspirazio sendoa du, ikasketa formalak baztertuta.

Ahalmenarekiko espektatibak murriztea ere desinbertsioaren aldeko strategiaren osagai arrunta izan daiteke, hurrengo aipuan irakur daitekeen bezala.

“Amak esan zidan: Zuk uste badezu hori [FP] egin behar dezula, ba, egin. Egia da neri pena ematen didala zu batxilergo batera ez juatea, baina errespetatu zuen. Ta gero BUPera juan nintzanean, esan zidan: Ahalko dezun BUParekin?”<sup>1285</sup>

Goiko aipuan amak alabaren *gaitasuna* (hitz giltzarria) zalantzan jartzen duenean, inbertsioaren errentagarritasuna jartzen du kolokan. Ikuspegi horrek mesfindantzaz hartzen du hezkuntza formaleko ibilbide prestigiotsuenean saiatzeak ekar dezakeen emaitza eta ez ote den hobea inbertsioa aukera *errealetara* doitzea. Elkarrizketatu honen ibilbide akademikoa ikusita, nabarmena da familiaren strategiak alabaren benetako aukeren gainetik lehenesten duela familiaren ikuspegia, familiaren arabera estrategia *errealista* dena. Hots, familiarentzat errealista dena ez da doitzen benetako aukeretara eta, ondorioz, alabak egin dezakeenaren gainetik egin beharko lukeena inposatzen ahalegintzen da familia. Beraz, aukerari (benetako gaitasun potentzialari alegia) betebeharra gailentzen zaio, familiak alabari ezarri nahi diona.

Hainbat elkarrizketaturen ekarpenetan oinarrituz esan genezake familiaren strategiak seme-alabei ezarri nahi dien ikuspegiak eragina duela seme-alabek ibilbide akademikoetan duten estrategian. Beraz, badirudi sistema ustez meritokratikoan aldarriztat hartzen den *gaitasuna*, sinboloetan behinena, neurgailuetan garrantzitsuena, ez dela benetan hain erabakiorra, ez duela halako zentraltasunik, eta, hala ere, elkarrizketatuen diskurtsoetan begibistakoa da *gaitasuna* izeneko kontzeptuak hautaketa eta erabaki ugari zuzitzen dituela.

### 4.3 Familiaren posizioa erreferentziatzen

Maiz errepikatu dugu ikuspegi determinista ez zaigula egokia iruditzen. Familiaren posizio sozialak seme-alaben hezkuntza formalarekiko estrategian izan dezakeen eragina aztertzerakoan ere berretsi egiten dugu ideia hori. Familiaren posizioak baldintzatu egiten du seme-alaben estrategia, baina nola egiten duen aztertzen badugu, begirada homogeneizatzailearen galbahetik igaroarazten ez badugu behintzat, nekez ondoriozta genezake familiaren posizioak seme-alaben

---

<sup>1284</sup> 14. Elk.

<sup>1285</sup> 16. Elk.

ibilbidea determinatzen duela. Baina, jakina, horrek ez du esan nahi familiaren posizio sozialak eragin handia ez duenik. Oso ezberdina da faktore batek norbanakoaren ibilbidea determinatzea edo indar handiz baldintzatzea.

Familiaren estrategiak seme-alaben ibilbide akademikoan eragiteko tekniken artean daude ikastetxearen aukeraketa eta familiaren hezkuntza formalarekiko ikuspegia transmititzen saiatzea, aurreko bi ataletan aztertzen ahalegindu garenaren haritik, baina familiaren estrategiak beste zenbait baliabide ere erabiltzen ditu, eta horien artean dago familiako kideen posizio soziala erreferentziatzen transmititzea. Fenomeno hau modu askotara gerta daiteke: horri buruz propio hitz eginez, kontzienteki, esplizituki, baina baita zeharkako modu batean ere, inplizituki, sarri inkontzienteki, esate baterako familiako kideen bizimodua erakutsiz (bizitzeko era baten euskarriak, dinamikak, ohiturak eta prestigioa, besteak beste).

Fenomeno horren zantzuak bilatzearen baliatu ditugu gurasoen posizio sozialaren zenbait ezaugarri. Irakurleari lana errazte aldera, elkarrizketatuen fitxaz fitxa joan beharra izan ez dezan eta aipu gehiegi ekarriz saturatu ez dezagun, zenbait tauletan laburbildu dugu elkarrizketa kualitatiboetan jaso dugun informazio empirikoa. Kontuan hartu behar da atal honetan zehar aztertuko ditugun taulek ez daukatela balio kuantitatiborik, noski, eta, beraz, direna bezala analizatu behar direla, ikerketa kualitatibo baten informazioa bezala alegia. Ez dugu hitz egingo joera batek edo besteak erakusten duen maiztasunari buruz, baizik eta aurkitu ditugun joeren nolakotasunari buruz.

#### 4.3.1 Ikasketa maila

Elkarrizketatuaren aitak, amak edo biek unibertsitateko ikasketak dituztenean, erreferentzia hau oso indartsua dela dirudi. Beheko taulan eskematizaturik ikus ditzakegun ibilbideetan ere antzeman daiteke familiako kideren batek unibertsitateko titulua izatearen erreferentzia ezartzen duenean (seme-alaben aurrean aipatu beharrik ere ez dago; edukitze hutsa nahikoa dela ematen du), zalantzarik gabe bete beharreko patu baten espektatiba eraikitzen bultzatzen duela dirudi. Salbuespenek erakusten dute ez dela patu ekidinezina (22. elkarrizketatua kasu: medikuntzarantz), baina zirrikitu gutxi uzten dituela esango genuke (ikus 49. Taula).

Segidan aurkezten ditugun aipuetan argi ikusten da zeregina baino sakonagoa den sentimendu bat, guk hemen *patu* terminoarekin adierazten duguna.

“Ni pixkat esan daiteke ikasketetan ez detela sekula sentitu iritsiko ez nintzenik ezertan. Asignatura guztietan ez zela eon sekula sentimentu bat esanez “ostras, hau ezin det gainditi”. Beti lasaitasun horrekin. Lan ohiturengatik, etxean lan egiteko ohituragatik. Konfiantza, ulertuko dezu. Sekula ez det izan sentsaziorik iritsiko ez nintzenik. (...) Ordun ba matematikak eta inglesak jarraitu zuten, nota eskasena atezten nitun, nahiko, ongi, motibazioan arabera; igual motibazio altuakin oso ongi, eta hoiek jarraitu zuten izaten lanik gehientsuena ematen ziatenak. Ta hola. Suspenditu izan nitun batzuk, uste det, baina bueno, en fin, nahiz eta suspenditu badakizula despiste bat izan dala. (...) Ba, banekin nere etorkizuna jungo zala ikasketetatik, unibertsitatean eongo nintzela. (...) Nik ikasketetatik kanpo ez det nere burua ikusten. Alegia, unibersidadeko ikasketak bukatu bitarte egin ditudan

pertsona baten... o sea, eskolan hasi eta unibersidadera arteko ikasketak in ditut eta hori egin gabe ez det nere burua ikusten. Ordun bestea ezin det planteatu. Holaxe. Eta hau, bistan da, lizentziatua izanik ziurrenik lizentziatua ez dan beste jende askok ez dun sarbidea izan nezake.”<sup>1286</sup>

49. Taula: Unibertsitateko ikasketak dituzten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide akademikoak																					
Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
1	B✓	B✓	B✓	C✓	C✓	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○					
3	B○	B○	B○	C○	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-				
10	B✓	B✓	B○	C○	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-				
11	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-					
21	R✓	R✓	R✓	R✓	U✓	U✓	U✓	U*	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-		
22	B?	B?	B?	C?	C?	U*	U*	U*	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-		
23	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
25	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	
27	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: Ikurrek ikasketen maila (O [OHO], F[FP], R [REM], B [BBB], C [UBI], U [Uni]) eta zer moduz zihokion (ondo ✓, eskas ✖, baleko ○, justu ?) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean lanean ari zela.

“Nik uste det heziketagatik [ez nuela zalantzan jarri unibertsitatera joan behar nuenik], familiaren heziketagatik. Bigarren hezkuntza in nun lekuan ere gutxi gorabehera jende guztia unibertsitatera begira hezten zutelako, ta, gainera, garai hartan bazeon, orain baino gehiago, nik uste det, uste bat esaten zuna lanbide heziketa ta holako gauzak ziala ikasteko balio ez zun jendearentzat. Más o menos azkeneko recursoa zan. Ta familian ere... Egia esan, ez zitzaidan pasa burutik beste ezer unibertsitatea ez zena, ta uste det dena zeola bideratua hortara, bai familia aldetik bai nere lagunak ere. Nere gertukoak behintzat, danek in zuten zerbait, karreraren bat, ta gelakide gehienak e bai, nik uste.”<sup>1287</sup>

“Ikasketak-eta, bueno, notak-eta nahiko ondo ateratzen nitun ta iruitzen zitzaidan pauso logikoena. Ez nun beste ezer planteatu. Beste zerbait aukeratzen zuna zan igual nota onak ateratzen ez zun pertsonak, ez?”<sup>1288</sup>

“Beti nota onak atera ditut ta nik uste dut neregandik espero zala ni unibertsitatera jutea. Ba, nota onak atera ditut ta tokatzen zait unibertsitatera joatea. (...) Horri ez nion bueltarik eman. Nik banekien jungo nintzala ta bakarrik aukeratu behar nun ze karrera. (...) Irakasleek eta gurasoek hori espero zuten.”<sup>1289</sup>

Elkarrizketatu hauen diskurtsoetan beren patu akademikoarekiko sinesmena emaitza akademikoen gaintik dago. Ez dute oztopo akademiko nabarmenik. Gehienek emaitza dizdiratsuak lortzen dituzte etengabe, baina hala ez denean, emaitzak bikainak izan gabe oso onak direnean edo unereren batean emaitza akademiko eskasen bat iristen zaienean, behin-behineko arazotzat ulertzen dute, horrek ez duelarik inola ere beraiek erabat barneratuta daukaten patu

<sup>1286</sup> 1. Elk.

<sup>1287</sup> 11. Elk.

<sup>1288</sup> 23. Elk.

<sup>1289</sup> 25. Elk.

akademikoaren eraginkortasuna zalantzan jartzen. Horren erakusgarri argia da elkarrizketatu hauek ez dutela horri buruz behin ere hausnartu. Ez da inoiz agertu beren kezken artean. Elkarrizketzaileak unibertsitatea ez beste aukeraren batean pentsatu zuten galdetu dienean, elkarrizketatu hauek harritu egin dira, aukera hori inoiz burutik pasa izan ez balitzaie bezala.

Baina salbuespenak egon, badaude elkarrizketatu hauen artean. Ondorengo aipuan ikus genezake horren adibide bat.

“Institutoa ta gero, zea, zuzenean karrera bati ekin nion. Derecho aukeratu nun. Egia esan, hirugarren BUPen negoziarik, zalantzak nitun karrera bat egin o ez egin, baina bueno, zea, e, pentsatu nun bere garaian FP modulon bat egitea edo... uste det nahiko modan jarri zialako edo dexente entzun zialako momentu hortan holako irteerak. Uste det zala garai bat nun unibertsitario gehiegi pilatzen ai zian eta uste det komentario batzuk entzun nitula hortik. Ba bueno, lan irteera hobeagoak eskeintzen zituztela beste modulo mota batzuk, beste ikasketa mota batzuk... Kasu hontan formazio profesionala zana eta dana oaindik. Baina bueno, uste det suertez, ta oain behintzat pozik nao aukeraketa hori ez nulako egin eta bueno, karrera bati ekin niolako. Momentu hortan nahiko galduta nebilela ziur nao. Banekin ikasteko gogoa neukala oaindik, baina egia esan, karrera ikastea aukeratu nun bezela, ba, posible izango zala ere igual beste moduloren bat aukeratu izana. (...) Ba, pixkat izan zan, igual momentu hortan, zea, zientzia politikoak ikasteko gogoa ere banula. Ba ez dakit. Igual politikaren inguruan garai hortan oso gainean geundelako ta igual izenak kointziditzen zulako, ez? Kaleko politika eta karreraren izena. Ba, oso ondo jakin gabe ere zer zan. Izena bietan eman nun, zientzia politikotan eta derechon, ba derecho ere gustora ikasiko nun zerbait zala. Gustoa ikasi zuten karrera bat zala eta gero gauza dexente in zitezkeela holako karrera batekin. Ez zala nik momentu hortan uste nun bezain besteko karrera itxi bat. Ez zala bakarrik abokatutza munduan lan egitea. Beste hainbat irteera bazituela eta aldi berean bizitzako alor asko ikutzen ditulako karrera horrek. Nik uste det batez ere horregatik aukeratu nula karrera hori. Batez ere entzun nitun komentarioengatik gurasoena eta gurasoen inguruko jendeana. O sea, politika inguruan zebilen jende bat ere derecho ikasia zana. Gurasoen lagun batzuk hor Madrilen lanean ibilitakoak edo hor dabilzanak, pixkat politikan munduan, eta hoiek denek karrera derecho aukeratu zutelako, ez? Ta nik uste det batez ere horregatik aukeratu nula, entzun nulako nere inguruan horrekiko gauza onak. Nere burua nahiko galduta ikusten nulako eta berdin berdin in nezakelako zientzia politikoak edo derecho.”<sup>1290</sup>

Elkarrizketatu honek adierazten duenaren arabera, bigarren hezkuntza amaitu zuenean, berak ez zuen patu akademikoaren deia ozen entzuten. Familiakoen erreferentzia ez beste faktore batzuek bultzatuta, lanbide heziketa hautatzeko aukera oso presente zuen. Baina familiaren estrategia gailendu zen. Familiaren hurbileko erreferentziak baliatuz transmititu zioten semeari zein zen familiaren strategiaren araberrako aukera onena. Elkarrizketatuak estrategia hori une hartan ontzat hartzeaz gain, badirudi bere ere egin duela, elkarrizketatuaren ibilbide akademikoa bere osotasunean aztertzen badugu behintzat.

Nolanahi ere, gurasoen ikasketa akademikoen erreferentzia ez da nahikoa. Presio oso handia egiten du, seme-alaben espektatiben derrigorrezko erreferentzia bihurtzera artekoa, baina beste

---

<sup>1290</sup> 3. Elk.

zenbait osagai ere ezinbestekoak dira patu akademikoaren deiarri eraginkortasunez erantzun ahal izateko. Horren erakusgarri da hurrengo aipua.

“Nere aita medikua da eta besteak laguntzen nituela ikusita, igual holako, ez dakit, grin batek bultzatuta [erabaki nuen medikuntza ikasi nahi nuela]. (...) Orduan galdu xamar neon, ze ezin izan nun medikuntza egin eta, bueno, jaungoikoari eskerrak orain, ta, bueno, esan ziaten, ba... gogoratzen naiz esan zidatela nahiko diplomatikoa nintzela eta orduan zeatik ez nuen zuzenbidea egiten. Lo que pasa es que orduan ai nintzan kolaborazioak iten irratan. Horrek asetzen nindun askoz gehiago (...) Etxean gezurrak kontatzen (...) Desastre. (...) Ta nere amona hil zen egunean, tristura hori aprobetxatuz, esan nien gurasoei zuzenbidea utziko nuela eta antzerkia egin nahi nuela, Madrilen, ta onartu zuten.”<sup>1291</sup>

Bestalde, aipu honek fenomeno esanguratsu bat islatzen du: gurasoen erreferentzien itzulpenarena alegia, hots, jasotako erreferentzien forma eraldatzea pareko beste erreferentzia batera iritsi ahal izateko, baina fenomeno hau aurrerago aztertuko dugu, horretarako aipu hau bera berreskuratuko dugularik.

Laburbilduz, esan genezake unibertsitateko tituludun gurasoak dauzkaten elkarrizketatuek hezkuntza formalarekiko estrategia nahiko homogenea dutela, inbertsio handiak egin beharraren sinesmena oso errotuta baitaukatete, nahiz eta estrategia horren eraginkortasuna ez den beti maila berekoa.

Haatik, gainerako elkarrizketatuen artean hezkuntza formalarekiko estrategien heterogeneitatea handia da. Gainera, ez dirudi unibertsitatez kanpoko titulazioa edukitzeak edo ez banaketa marra argiak ezartzen dituenik. Elkarrizketetan jaso dugun informazioa eskematizatzen duen taulan ere sumatzen denez, ibilbide mota asko daude elkarrizketatu hauen artean (ikus 50. Taula).

---

<sup>1291</sup> 22. Elk.

50. Taula: Unibertsitateko ikasketak ez dituzten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide akademikoak

Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
2	O?	B*	R*	R?	R?	R?	R?	R?	F?	F?	F?	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
4	B0	B0	B0	C*	C0	U*	U*	U*	U*	U*	U*	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-
5	B✓	B✓	B✓	C*	C*	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
6	B?	B*	B?	B?	B?	F✓	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
7	B✓	B✓	B✓	C✓	U*	U*	U0	U0	U0	U0	U0	U0	U0	-	-	-	-	-	-	-	-
8	B*	B*	B0	C0	U*	U0	U0	U0	U*	U*	U*	U?	U?	U?	-	-	-	-	-	-	-
9	B✓	B✓	B✓	C✓	U0	U0	U*	-	-	-	-	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-
12	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-
13	O*	O*	F0	F0	F0	F0	F0	F0	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
14	B0	B0	B0	C0	U*	U0	U0	U0	U0	U*	U*	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-
15	F*	F*	F*	F*	F*	F*	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
16	F✓	F✓	B0	C0	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	U*	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-
17	O?	B?	B?	B?	C*	C?	F✓	F✓	F✓	U?	U?	U?	U?	U?	U?	-	-	-	-	-	-
18	B?	B?	B?	C?	C?	U0	U0	U0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
19	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-
20	B?	B?	B?	C*	C*	F✓	F✓	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
24	B?	B?	B*	B?	C*	F0	F0	F0	-	-	-	-	-	F0	-	-	-	-	-	F0	F0
26	F0	F0	F0	F0	F*	-	F0	F*	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	C✓	U✓	U✓	-	-
28	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-
29	B?	B?	B*	R0	R0	R0	F0	F0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
30	B?	B*	B*	-	-	-	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
31	B✓	B✓	B?	C?	U?	U*	U*	U*	U*	U*	U*	U*	-	F✓	F✓	F✓	F✓	U✓	U✓	-	-

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak

Oharra: Ikurrek ikasketen maila (O [OHO], F[FP], R [REM], B [BBB], C [UBI], U [Uni]) eta zer moduz zihokion (ondo ✓, eskas \*, baleko 0, justu ?) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean lanean ari zela.

Horrek ez du esan nahi goi mailako titulu akademikoaren jabe ez diren familiek ez daukatenik estrategiarik beren baitako hezkuntza erreferentziak transmititzeko. Baldin eta onartuko bagenu gurasoen ikasketa mailak erreferentziatzen funtzionatzen duela seme-alabekiko, ondorioztatu beharko genuke eremu informalearen baitako parametroetan ere eraginkortasunez gauzatzen dela fenomeno hau, hots, titulu akademiko ofizialik izan gabe ere familiak bere baitako hezkuntza informaleko erreferentziak transmititu diezaizkiekela seme-alabei. Familien baitako ezagutza motak eta mailak ez dira alperrikakoak, nahiz eta ezagutza hauek titulu akademikoaren bitartez ofizialki aitortuta egon ez. Ezin dugu ahaztu elkarrizketatuen gurasoen belaunaldian titulu akademikoaren hedapena elkarrizketatuen belaunaldiaren garaian baino askoz murriztagoa dela eta, beraz, zailagoa dela ikustea zein familietan metatu duten hezkuntza sisteman eskatzen den ezagutza mota. Titulu akademikoaren hedapen txikiak ikusezin bihurtzen du ezagutza mota eta maila elkarrizketatuen gurasoen artean. Edonola ere, akaso argitu beharra dugu ezagutza informal horri buruz ari garenean (titulu akademikoak mintzagai ditugunean bezala), guk ez dugula hierarkiarik ezartzen ez dugula adierazi nahi familia honek beste horrek baino gehiago dakiela. Ezagutza maila eta mota aipatzen ditugunean, hezkuntza sistemak eskatzen dituen ezagutzekiko hurbiltasuna edo urruntasuna dugu hizpide, inola ere bestelako ezagutzak mespretxatu gabe, hezkuntza sistemak bere baitan ez lantzeagatik ez baitira balio txikiagokoak. Ezagutza informalearen hipotesiak balio lezake azaltzeko, adibidez, ikasketa formalei dagokienez itxuraz egoera berean dauden bi familietako alaba bakar banak izan duten ibilbide akademiko hain ezberdina.



“Entre estudiar y trabajar, siempre prefiero trabajar, porque entraba dinero a casa. Bueno, a casa... A mí me entraba dinero. Por eso prefería trabajar y no estudiar (...) Además, nunca me ha interesado estudiar. Nunca me ha gustado.”<sup>1292</sup>

“Desde pequeña. Tenía varias opciones desde pequeña: informática o médica, y al final... cuando me he hecho más mayor lo de la informática lo he dejado un poco aparte y siempre médico, médico, médico, y la nota me dio y empecé la carrera. (...) En el instituto lo tenía muy claro. (...) Me gusta y ya está. No te puedo explicar por qué. (...) La segunda opción era enfermería y la tercera farmacia. (...) Nunca he tenido ningún problema de nada. (...) Siempre he sido buena estudiante. Igual está mal que lo diga, pero es así. He sido super responsable siempre. He estudiado, he sacado buenas notas. Entonces, mis padres: Si quieres hacer medicina, haz medicina. (...) Lo que tú quieras.”<sup>1293</sup>

Aipu hauetan muturreko bi diskurtso ikus ditzakegu: batean hezkuntza formalarekiko interes txikia eta inbertsio eskasa islatzen dira eta bestean, ordea, lehen unibertsitateko tituludun gurasoak dituzten elkarrizketarekin azaldu dugun patu akademikoaren ideia modu oso indartsuan agertzen da. Bi elkarrizketatuen gurasoen titulazio akademikoa oso oinarrizkoa da, posizio soziala ere bi kasuetan antzekoa dela dirudi, eta, hala ere, bi elkarrizketatu hauen ibilbide akademikoek ez dute elkarrekiko zerikusirik.

Bi elkarrizketatu hauen ibilbideen arteko aldea agian soilik norbanakoari egotzi geniezaioke, baina susmoa dugu, bi elkarrizketa hauetan zeharka islatzen diren bi familia estrategia ezberdinak aintzat hartuz, norbanakoaz gain familiak ere zerikusia duela horretan, nahiz eta ezin dugun baieztatu bi familia horietan ezagutza informala edo hezkuntza formalarekiko inbertsio estrategia ezberdinak direla.

#### 4.3.2 Posizio okupazionala

Gurasoen posizio okupazionala ere erreferentzia eraginkorra izan daitekeela dirudi. Bi talde bereiztu ditugu: batetik, posizio okupazional *on* batean dauden gurasoak (aita, ama edo biak) dauzkaten elkarrizketatuak eta, bestetik, gainerako elkarrizketatuak. Posizio okupazional on bat zer den erabakitzea ez da erraza. Aitzitik, irristakorra da, agian arriskutsua. Baina, arazoak arazo, baliagarria dela dirudi.

Lehengo taldean sartu ditugu enpresa jabe txikiak, enpresetako goi karguak, baldintza hobeak izan ohi dituzten enpleguetan dabiltzanak eta irakasleak, besteak beste (guztiak ikusi ahal izateko, elkarrizketatu bakoitzaren perflera jo beharko du irakurleak). Atentzioa ematen du talde honetan sartzen direla unibertsitateko tituludun gurasoak dauzkaten elkarrizketatu guztiak. Honek agerian uzten du garai batean unibertsitateko titulua lortzeak aukera oso handiak ematen zituela posizio okupazional proportzionalki onak lortzeko.

---

<sup>1292</sup> 14. Elk.

<sup>1293</sup> 28. Elk.

51. Taula: Itxuraz posizio okupazional <i>on</i> batean dauden gurasoen seme-alaben ibilbide akademikoak																					
Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
1	B✓	B✓	B✓	C✓	C✓	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U✓	U✓	U✓	U✓					
3	B○	B○	B○	C○	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-				
5	B✓	B✓	B✓	C*	C*	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-				
7	B✓	B✓	B✓	C✓	U*	U*	U○	U○	U○	U○	U○	U○	U○	-	-	-	-	-			
10	B✓	B✓	B○	C○	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-				
11	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-				
12	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-
14	B○	B○	B○	C○	U*	U○	U○	U○	U○	-	U*	U*	U✓	U✓	U✓						
17	O?	B?	B?	B?	C*	C?	F✓	F✓	F✓	U?	U?	U?	U?	U?	U?	-	-	-			
18	B?	B?	B?	C?	C?	U○	U○	U○	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-			
19	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-
21	R✓	R✓	R✓	R✓	U✓	U✓	U✓	U*	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-
22	B?	B?	B?	C?	C?	U*	U*	U*	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
23	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
25	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-
27	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
29	B?	B?	B*	R○	R○	R○	F○	F○	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
31	B✓	B✓	B?	C?	U?	U*	U*	U*	U*	U*	U*	U*	-	F✓	F✓	F✓	F✓	U✓	U✓		

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
Oharra: Ikurrek ikasketen maila (O [OHO], F[FP], R [REM], B [BBB], C [UBI], U [Uni]) eta zer moduz zihoakion (ondo ✓, eskas ✖, baleko ○, justu ?) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean lanean ari zela.

Elkarrizketetan eskuratu dugun informazioa eskematizatzen duen taulan (ikus 51. Taula) ere antzematen da gurasoen (aitaren, amaren edo bien) posizio okupazionalak izan dezakeela indar erreferentziala, talde honetako elkarrizketatuen ibilbide akademikoak oro har nahiko homogeneoak direlako (ez unibertsitateko tituludun gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen taldekoa baino askoz txikiagoa hala ere). Itxuraz posizio okupazional “on” batean dauden gurasoen seme-alaben ibilbide akademikoak prestigiozkotzat jotzen diren ibilbideetarako joera garbia ikus daiteke. Hezkuntza formalean inbertitzeari halako garrantzia ematen dion testuinguru batean, badirudi familiaren posizio okupazionala izan daitekeela inbertsio horiek egitera bultzatzen duen erreferentzietako bat.

Baina ez dirudi erreferentzia hau unibertsitateko tituludun gurasoak izatea bezain eraginkorra denik. Talde honetan sartu ditugun elkarrizketatuen diskurtsoetan hezkuntza formalarekiko ikuspegi aniztasuna handiagoa da. Patu akademikoaren ideia oso lausoa da zenbait elkarrizketatuen diskurtsoetan. Are gehiago, hausnarketak, zalantzak eta aukeren zabaltasunak zentraltasuna lortzen dute hainbat diskurtsoetan.

Ondorioz, gainerako elkarrizketatuek osatzen duten taldearen egoera zein den aurreikustea ez da hain zaila. Eskematizatuta aurkezten dugun informazioan ere suma daiteke elkarrizketatu hauen diskurtsoetan agertzen diren ibilbide akademikoaren aniztasuna (ikus 52. Taula).

52. Taula: Itxuraz posizio okupazional on batean ez dauden gurasoen seme-alaben ibilbide akademikoak

Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
2	O?	B*	R*	R?	R?	R?	R?	R?	F?	F?	F?	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
4	B0	B0	B0	C*	C0	U*	U*	U*	U*	U*	U*	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-
6	B?	B*	B?	B?	B?	F✓	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
8	B*	B*	B0	C0	U*	U0	U0	U0	U*	U*	U*	U?	U?	U?	-	-	-	-	-	-	-
9	B✓	B✓	B✓	C✓	U0	U0	U*	-	-	-	-	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-
10	B✓	B✓	B0	C0	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-
13	O*	O*	F0	F0	F0	F0	F0	F0	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
15	F*	F*	F*	F*	F*	F*	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
16	F✓	F✓	B0	C0	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	U*	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-
20	B?	B?	B?	C*	C*	F✓	F✓	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
24	B?	B?	B*	B?	C*	F0	F0	F0	-	-	-	-	-	F0	-	-	-	-	-	F0	F0
26	F0	F0	F0	F0	F*	-	F0	F*	F✓	F✓	F✓	-	-	-	-	-	C✓	U✓	U✓	-	-
28	B✓	B✓	B✓	C✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	U✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-
30	B?	B*	B*	-	-	-	F✓	F✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: Ikurrek ikasketen maila (O [OHO], F[FP], R [REM], B [BBB], C [UBI], U [Uni]) eta zer moduz zihokion (ondo ✓, eskas \*, baleko 0, justu ?) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean lanean ari zela.

## 4.4 Koltxoia

Elkarrizketatu batek *koltxoia* deitu dio bere familiak eskaintzen dion babesari. Familiaren estrategian aurki dezakegun teknika hau aztertu nahi dugu atal honetan. Izan ere, familia koltxoia da seme-alabentzat, zentzu askotan gainera, eta familiak lan hori egiten ez duenean, litekeena da familiaren ondorengoek gabezia hori nabaritzea, nahiz eta hutsune horren aurrean ez duten guztiek berdin jokatzeko, hainbat faktore tarteko, subjektuaren lan aktiboa, besteak beste.

Familiak koltxoi izateko modu bat baino gehiago izan ohi du. Segidan, elkarrizketatuen diskurtsoetan identifikatu ahal izan ditugun koltxoi izateko teknikak azaltzen saiatuko gara.

### 4.4.1 Afektiboa

Afektiboa da koltxoi mota garrantzitsuenetako bat. Ibilbide akademikoetan ezinbestekoa da familiaren babes afektiboa. Mota eta intentsitate askotakoak daude, baina elkarrizketatu guztien diskurtsoetan antzematen da egon, badagoela. Noski, babes afektiboaren eraginkortasuna ezberdina da gutxienez bi faktoreren arabera: batetik, mota eta intentsitatea eta, bestetik, nola uztartzen den indar hau gainerako faktoreekin.

Segidan, honi buruz hainbat elkarrizketatuk egin dituzten ekarpenen artean hautatu ditugunak daude irakurgai.

“Neure buruari [eskertuko nioke lortu dudana], neure egoskorkeriari. Familian beti izan det babesa. Esaten dezu: Ezingo det in, ta esaten dizute: Eutsi horri. Baina meritua neure buruari jartzen diot.”

<sup>1294</sup>

“Lagundu, azkenean, familiak laguntzen zaitu. Benga, ikasi, ez dakit ze. Ondo zaude? Laguntza behar dezu? O gaizki zaude?”<sup>1295</sup>

“Mis padres me han ayudado en los estudios, insistiendo. Desde pequeña veían que no quería, no quería. Me mandaron a psicólogos y entonces les dijeron: Es inteligente pero es vaga. No quiere. Cuando se le mete en la cabeza que no, que no, que no. Entonces mi madre y mi padre insistiendo, pagándome clases particulares para que por lo menos sacara EGB.”<sup>1296</sup>

“Gurasoek beti eman izan didate indarra. Beti pentsatu izan det badaudela pertsona batzuk gehio kostatzen zaiela ikastea ta beste batzuei gutxiago. Batek ordubetean ikasten duena, ba, igual nik behar ditut bi, distrakzioa dalako. Ni igual nago ikasten ta begiratzen det beste alde batea ta... Orduan, beti jarri izan dizkidate erreztasunak ikasteko (...) Igual klase partikularrak (...) Gurasoen aldetik beti izan dia animoak.”<sup>1297</sup>

Aipu hauetan guztietan ibilbide akademiko oso ezberdinak iradokitzen dira, baina guztietan argi islatzen da familiaren *koltxoi* afektiboa. Norbanakoak bere kasa egingo ez lukeena, edo behintzat oso kostata lortuko lukeena, familiak sustatu eta ahalbidetu egiten du. Familiaren babes afektiboak kemena ematen dio norbanakoari. Elkarrizketatuen diskurtsoetan antzematen denaren arabera, badirudi laguntza mota hau funtsezkoa dela norbakoak hezkuntza formalaren eremuan inbertsioak egin ditzan.

#### 4.4.2 Ekonomiko-estrategikoa

Familiak eskain dezakeen babes ekonomiko-estrategikoa funtsezko faktorea da. Elkarrizketatuen diskurtsoetan aurkitu dugunaren arabera, norbanakoaren hezkuntza formaleko inbertsioak sustatzeko edo ahalbidetzeko euskarri oso garrantzitsua izan daiteke. Estrategia horren intentsitatearen eta eraginkortasunaren arabera zabaldu edo murriztu egingo dira seme-alaben inbertsiorako aukerak. Laguntza horren kopurua eta emateko modua oso ezberdinak izan daitezke.

Seme-alaben eguneroko bizimoduaren gastu arruntak bere gain har ditzake familiak, bai gastuak zuzenean ordainduz bai familiaren euskarrien bitartez gastuak murriztuz. Hurrengo bi aipuetan ohikoak diren bi moduen adibide bana irakur ditzakegu.

“Nola amakin bizi nintzan, gastu haundirik ez neukan, ta hola tiratu nun.”<sup>1298</sup>

---

<sup>1294</sup> 7. Elk.

<sup>1295</sup> 10. Elk.

<sup>1296</sup> 13. Elk.

<sup>1297</sup> 18. Elk.

<sup>1298</sup> 9. Elk.

“Hipotekarik ez daukagu. Ordun, zortea daukagu horretan. Ordaintzen degu oso alokairu txikia, familiako etxe batean nagoelako. Ta hortan ere eskerrak, ze esaten dudana: Zu hola bizi zaitezke? Ba, bai... Benetan eukiko banu hipoteka bat ta ume bat, txiringittoa itxi ta beste gauza bat egin, ze... Nola ekonomikoki ez dauzkadan behar haundi-haundiak, ba, moldatzen naiz (...) Alokairuan ordaintzen deguna oso gutxi da.”<sup>1299</sup>

Goiko aipu hauetan ikus daitekeenaren arabera, familiaren babes ekonomikoak ondorio estrategikoak dauzka: seme-alabek gastu arruntei bere gordinean aurre egin behar ez dietenez, potentzialki aukera zabalagoak dauzkate hezkuntza formalean inbertsioak egiteko.

Hezkuntza formalaren eremuko inbertsiora bideratua dagoen familiaren estrategia argiago ikusten da hurrengo aipuetan.

“[Zuzenbidean lizentziatu ondoren, 23 urterekin,] konturatu nintzan lan munduan sartzeko gogo gehiegirik ez nuela eta pixkat gehio ikasteko gogoa ere banula, ta batez ere ekonomiaren aldetik ere ikasi nahi nun, ekonomia eta enpresak... ze garrantzi duten gizartean, eta batez ere nola funtzionatzen duten, ze helburu duten eta nola antolatzen dian beraien interesak aurrera eramateko, ez? Eta hortako master bat aukeratu nun. Nik uste momentu hortan arrazoi hori zala nagusia master hori aukeratzeko. Pixkat ikusteko enpresa munduak nola funtzionatzen dun barrutik ta erabaki nun master en administración de empresas bat egitea [unibertsitate pribatu batean].<sup>1300</sup>

Goiko aipuan elkarrizketatuaren familiak estrategia argia dauka: semeak hezkuntza formalean inbertsio gehiago egin ditzan, zuzenean ordaindu egiten diote ikasketaren kostea, baina ezin da ahaztu erabaki horren ondorioz kasu honetan semea beranduago sartuko dela lanaren munduan eta ikasketekin jarraitzen duen bitartean ez duela diru sarrerarik lortuko; beraz, familiak bere gain hartuko ditu gastu horiek, ordainetan semearen inbertsio akademikoa jasoko duelarik.

Elkarrizketatu ditugun pertsonen familiek horrelako estrategiak gauzatu ahal izateko gaitasun oso ezberdina dute. Ez dago guztien eskura, ezta hurrik eman ere. Hori egiteko aukera ez izateak, noski, eragin handia du norbanakoaren erabakitze ahalmenean. Ikasketa batzuk egiteko edo ez egiteko gakoa izan daiteke. Baina egitea erabakiz gero ere, ez da berdín lanean eta ikasten aldi berean aritzea edo denbora guztia ikasketei eskaintzeko aukera izatea.

Baina familiaren gaitasun ekonomikoa funtsezkoa dela esateak ez du esan nahi familiaren eraginkortasun ekonomikoa familiaren gastu estrategikoaren arabera neur daitekeenik. Neurria ez da familiak zenbat diru gastatzen (edo inbertitzen) duen zuzenean edo zeharka seme-alaben hezkuntza formaleko inbertsioetara bideratuta. Hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan aurkitu dugu familiek dirua eman beharrik ere ez dutela familiaren gaitasun ekonomikoa eraginkorra izan dadin. Hurrengo hiru aipuak dira horren lekuko.

“Beka eman ziatenean, galdetu nion familiari zer egin. Dena utzi behar nun. (...) Zan dejar un trabajo seguro por irte [atzerrira] eta, bueno, esan zidaten: Aprobetxatu esperientzia.”<sup>1301</sup>

---

<sup>1299</sup> 12. Elk.

<sup>1300</sup> 3. Elk.

<sup>1301</sup> 23. Elk.

“Hor euki nun zalantza, ba, agian psikopedagogian gelditzen nintzen hemen ta, bueno, era berean hasi pixkat lanean, ze klaro, ya 25 urte neuzkan, edo harea jun, eta, egia esan, hortan bai animatu ninduten jutea (...) Ez zidaten inungo oztoporik jarri. Lagundu ziaten.”<sup>1302</sup>

“Etxean erabakita zegon edo dirua lortzen nun ikasteko edo lanean hasten nintzan (...) Denoi karrera ordaindu ziguten, ta, gainera, neri bereziki ordaindu zidaten gehiago kanpoan nengolako. Besteak egon ziran [hiri jakin batean] baina [amonaren] etxean. Orduan, justizia kontu bat zen. Besteak orain lanean hasi behar dira. Zuri ez dizugu ordainduko aparte. Nahi badezu, egin, oso ondo, baina zure esku. Badezu karrera. Badezu jatekoa bilatzeko modua. Hemendik aurrerakoa zure esku. (...) Lagundu etxekoek, asko (...) Hartzen nitun erabaki guztietan babes. Esan nahi det, hartzen banun jornada erdia, beraiek ikustea guztia apustu bat zala (...) Jakitea momenturen batean behar banu, ba, gurasoek lagunduko zidatela (...) edo psikologigoki laguntzen didatela, ze beste lagun batzuei (...) esan diete: Har zazu lan finko bat, aukera dezulako, ze aukera degu seguraski momentu honetan DBHn (...) Neri alderantziz: Gustatzen bazaizu, nahiz eta denbora gehiago behar, nahiz eta ez dakit zer, in zazu apostua. Nahiz eta urte hauetan okerrago egon, eskertuko dezu (...) Hasieran, desesperatzen nintzenez, egia da, etxekoek esaten ziaten: (...), a ver, oraingo hau gero hobeto egoteko izango da. Alde hortatik asko asko asko [lagundu didate]. Formakuntza guzti horrek dakarrena da desoreka... sozialak. Esan nahi det, jendeak egiten dunakin zu zoaz desorekatuta (...) Nere ahizpak 24 urtekin lanean zeuden lan ia-ia egonkor bateako, ta orduan bazetozen... Ni familian nolabait desorekatuta neon, ta orduan ulertzen zuten zuk babes bat behar zenula zuk ez esateko: Ba ez, bide errexa hartuko det.”<sup>1303</sup>

Abalista ekonomiko-estrategikoak dirudite goiko aipuetako hiru familiek. Azken aipuan, adibidez, zuzenenean dirurik ez ematea erabakita zeukan familiak ere oso esplizituki erakusten du bere gaitasuna. Balizko egoera txarretan egingo lukeen berme lana ziurtasunez transmitituz bideratzen eta ahalbidetzen du seme-alaben estrategia. Esan gabe doa familiak egiten duen gastu zuzenak berebiziko garrantzia izan dezakeela (familia guztiek ez daukate 3. elkarriketatuaren familiak ordaindu zuen unibertsitate pribatu bateko bi urteko master garesti bat ordaintzeko gaitasuna, semeak jadanik 23 urte dituzenean), baina horrelako gastuak egin gabe ere, koste txikia duten erakustaldiak egiteko indarra izatea ere oso garrantzitsua izan daiteke, batik bat une erabakiorretan, zeren seme-alaben ibilbide akademikoa alde batera edo bestera bultzatu baitezake.

Izan ere, funanbulistaren sare lana egin dezake familiaren gaitasun ekonomikoak. Hurrengo bi aipuetan modu oso esanguratsuan adierazten dute hori elkarriketatuek.

“Nik badakit eta beti jakin izan det nik izan dudala sare haundi bat eta nik funanbulistarena egin dezaket sare hori dudanaren konszientea naizelako, eta oso konsziente gainera. (...) Arriskatzeko sarea [da]. Azken batean, eurak izan dila esan dutenak: Zuk bizi itzazu gauzak, erortzekotasn gu hemen egongo gara berriro igo zaitezten eta zuk bizitzen jarrai dezazun. Nolabait esatearren afekturik sekula ez zaidalako falta izan, ez zaidalako falta izan gogoeta sakon bat edo erreflexibitatea pizte hori. (...) Ez zitzaidalako inoiz faltako zer jan eta ez zitzaidalako inoiz faltako zer jantzi. (...) Faboreak inork gutxik egiten dio beste bati, gurasoak izan ezik. Gurasoak zuretzako bizi dira eta zuregatik dena

<sup>1302</sup> 21. Elk.

<sup>1303</sup> 19. Elk.

ematen dute eta, bueno, guraso tituloaz aparte, lan egiten dute, edo ondo betetzen dute daukaten tituloa. (...) Orain dela gutxi lan aukera bat atera zan. Nere aittak esateit. Berak lan iten dun enpresan nik nahi nuken momentuan entxufatzeko aukera dexente eongo lirateke, soldatan ere segurtasun bat izateko. (...) Baina nik ez det nahi hori. Nahiago izan det nere incertidumbre hortan segitu.”<sup>1304</sup>

“Ni oso sinplea naiz horretan (...) Abentura bai baina bueltakin. Han oso erosoan zan bizitza. Gurasoek ordaindu zidaten dena (...) Ikaskide batzuk bilatu behar zituzten las castañas. Ni neon askoz babestuagoa. Diru aldetik ez neukan arazorik.”<sup>1305</sup>

Erortzeko arriskuaren aurrean, litekeena da behean sare handiena ikusten duen pertsona ausartzea errazen pausoak ematera. Sarerik gabe dabilenak, ordea, muturreko ziurgabetasuna bizi dezake, mugiezinik gelditzearen sentazioak har dezake, etorkizun hurbilean ere biziraupenerako gutxieneko baldintzak bermatuta ez izatearena. Segidan aurkezten dugun aipua islatzen duen egoera oso ezberdina da aurretik irakurgai izan ditugunekiko.

“Tabernan neonean, gastu gehiago euki nitzaken, atera nintekeen lagunekin pote batzuk hartzera, noizbehinka parranda bat bota, instrumentuntzako... Instrumentuak gastu handia dia (...) Baina azkeneko urtean zehar ez daukat gasturik eukitzeko eskubiderik (...) Xahutu ditut neuzkan xoxa guztiak. Ez daukat diru iturririk, eta oaintxe, egia esaten badizut, azkeneko alkilerria pagatu det eta ez daukat diru gehio. Hurrengo alkilerreako ez daukat dirurik. Dauzkat kontzertu pare bat hurrengo egunetan. Akaso dirua jasokoet, akaso ez. Akaso lana aurkitukoet, akaso ez, eta litekeena da edo gurasoen etxera bueltatu behar izatea edo eskatzea dirua gurasoei edo baten bati datozen bi hilabeteetan zeoze bilatzen deten artean.”<sup>1306</sup>

Azken elkarrizketatu honi familiak bermatzen dio biziraupena, baina ez dirudi familiaren estrategia hori baino gehiago egiteko abiapuntua izan daitekeenik.

Nolanahi ere, familiaren gaitasun ekonomikoaren eraginaren fenomenoak ezer ez dauka determinismotik edo mekanizismotik. Agente guztiek beren galbahetik pasarazten dute, beti ere beren strategiaren eta ahalmenaren arabera. Horren erakusgarri izan daiteke hurrengo aipuan elkarrizketatu batek bere familiak eskaintzen dion koltxoiarekiko adierazten duen ondoeza.

“Gurasoek eman didaten koltxoiak eman dit hori iteko aukera. Gurasoak hor nitun ta gainea sartu izan diate urtetan... anaiak e bai... ta eztabaida bukatzen zan nere bidea aurkitzeko arazoak nitula ta denbora behar nula, baina, claro, daukazu zure buruan eztabaida e bai a ver ez zean ai akomodatzan edo echándole geta gurasoen koltxoiari. Gogorra da. Arrastaka zaude hor e bai. Komodoa da, me estoy aprovechando pero lo estoy pasando mal. Ordun... eta batzutan ausart zaude. Bueno, aurrera atako gea, ta bestetan zaude de fracaso, fracasau. Gorabeherakin zaude. (...) Dauzket gurasoak hor. Bide guztia in ahal izateko laguntza guztia beraiek eman diate.”<sup>1307</sup>

---

<sup>1304</sup> 5. Elk.

<sup>1305</sup> 12. Elk.

<sup>1306</sup> 20. Elk.

<sup>1307</sup> 31. Elk.

### 4.4.3 Kulturala

Familiaren kultura motaren eta bolumenaren arabera funtsezko faktorea izan daiteke seme-alaben ibilbide akademikoan, elkarrizketatu ditugunen diskurtsoak aztertuz ondorioztatu dugunaren arabera. Hezkuntza formalean eskatzen denarekiko hurbiltasuna oso lagungarria da baldin eta familiak bere baliabideak erabiltzen baditu. Elkarrizketatu bakoitzaren diskurtsoan iradokitzen diren familiak kultur baliabideei dagokienez egoera ezberdinean daudenez, esan genezake ez daudela bi familia berdin. Baina, hala ere, zenbait joera orokor antzeman ditugu. Bi muturrak erakustearren, zenbait aipu aukeratu ditugu.

“Lagundu, egia esan, gutxi laguntzen dute irakasle aldetik eta hola. Eta etxean, nere gurasoek dazkaten ikasketekin honeaino lagundu dezakete. Hortik aurrera *ikasi* esan dezakete eta fuera.”<sup>1308</sup>

Goiko aipuan agertzen den familiaren kultura, hezkuntza formalaren eskakizunetikiko ezberdina dela dirudi eta, ondorioz, alabari ikasketa formaletan laguntzeko gutxi egin dezaketela.

Beste muturrean daude ondorengo bi aipuetan islatzen diren familiak.

“Nire aitak berdina ikasi zuenez, hasieran dudak berari galdetzen nizkion.”<sup>1309</sup> [Unibertsitate pribatu bateko enpresaritza ikasketetan]

“Etxean ez genun gehiegi hitz egiten. Igual amak galdetzen zidan: Ze irakasle dituzu [unibertsitatean]? Ta zemuz honekin? (...) Igual bai lan mundura begira, amakin gehio hitz egiten nun. Jo, ta ze ingo det hau amaitzean? Ta: Zer gustatzen zaizu? Bukatzean adar bat aukeratu behar degu ta ni neon hezkuntzan aldetikan edo klinikan aldetikan, hori nekan, ta orduan igual gehio hitz egiten genun (...) Etorrizunean ze in behar nun. Batez ere horretaz zian elkarrizketa serioagoak amakin. Ta lagundu zidan”<sup>1310</sup> [Ama psikologian lizentziatua da eta psikologia bulego propioa dauka]

Goiko bi elkarrizketatuek aitarengandik eta amarengandik, hurrenez hurren, erreferentzia zuzena jaso dezaketela ikus daiteke. Familiakoen kultura mota oso hurbil dago ikasketa formal horietan eskatzen denetik.

Baina ikasketen edukiekiko hurbiltasuna bezain garrantzitsua da ikasketetan eskatzen den lan dinamika, diziplina dei dezakeguna. Hori transmititzeari familia batek ematen dion garrantzia islatzen da ondorengo aipuan.

“Más que nota batzuk atera [gurasoek eskatzen zidaten] diziplina bat hartzea, ikastea ta kurtsoak ateratzea (...) [Zerbait gainditu ez banuen,] gehio ikasi behar nula [esaten zidaten] (...) Lanetan ohitura onak hartzea edo ikasketetan ohitura onak izatea eskatzen zidaten, batez ere hori (...) Hori bai, etxean daban por hecho karrera bat ikasi behar nula (...) Ez nion planteatu beste ezer nere buruari.”<sup>1311</sup>

<sup>1308</sup> 26. Elk.

<sup>1309</sup> 23. Elk.

<sup>1310</sup> 10. Elk.

<sup>1311</sup> 10. Elk.



Hezkuntza formalak eskatzen dituen edukiekiko eta diziplinarekiko familiaren hurbiltasunak eragin handia izan dezake. Baldin eta familia bat bi arlo hauetan hezkuntza sistemaren eskakizunetik hurbil badago, litekeena da seme-alabek hezkuntza formalean ondo moldatzeko aukera handiagoak izatea. Aukerak, berriro diogu, hau ez baita faktore bakarra, baina aukera garrantzitsuak inondik ere. Hurrengo aipuan bi arloak uztartzen dituen familia bat islatzen da.

“Nire familian izan det kriston apoioa betidanik. (...) Nire arrebak ta nire aitak lagundu didate bereziki. Nire etxean beti egon da ikasketen inguruan kultura bat, ikastekoa. Balio haundia eman zaie. Ba, txikitatikan zerbait ulertzen ez banun, esplikatzen zidaten, edo lektzioa, esaten dana me pasaban la lección. Ariketaren bat egin behar banun, ba, neukan nere aitaren laguntza. Institutoan ere. Ta unibertsitatean nere arrebak psikologia ikasi zun ta apunteak uzten zizkidan, lanak, azterketak... Zalantzarik baneukan, berak esplikatzen zizkidan. Nere aitak eta nere arrebak pila bat lagundu didate zentzu honetan.”

#### 4.4.4 Krisietarako

Elkarrizketatu guztien diskurtsoetan aurkitu ditugu une kritikoak. Mota eta intentsitate oso ezberdinekoak dira, baina gaititu beharreko erronkak guztiak ere. Nabarmena da krisi askoren aurrean erabakiorra dela familiaren papera. Orain arte aipatu ditugun koltxoi lan guztientzat krisiei aurre egitea izaten da frogaz zailena. Larritasun eta sakonera esanguratsua duten krisien hainbat adibide aurkitu ditugu elkarrizketatuen artean.

Baina krisian dagoena familia bera bada, seme-alaben ibilbide akademikoan krisiak eragina izan dezake. Horren adibide da honako aipua.

“Gurasoak bereiztu zian. Ez nun oso ondo pasa ta hasi nintzan penkatzen ta hola.”<sup>1312</sup>

Edonola ere, familiaren esparru batzuk krisian egoteak ez dakar derrigorrez hezkuntza arloko krisia. Horren adibideak ere aurkitu ditugu. Baina familiaren krisia eta seme edo alabaren krisia garai berean elkartzan badira, sinergia hori gaititzea lan nekeza da. Etenak ere eragin ditzake, ondorengo aipuan ikus dezakegunez.

“Gero tokatu zan etxean kriston iskanbilakin, aita, ama... netzako ez zan bate garai ona izan, estabilitateagatik (...) Gehi, aparte, istripua izan nun lagunekin kotxian. Bi hil zian eta horrek buruai buelta asko emanarazi zizkidan. (...) Dena batera. Koktel nahiko potentea. Ta erabaki nun ni han [unibertsitatean] ez neola denbora galtzeko. (...) Amak beti errespetatu izan du nik erabaki detena.”

<sup>1313</sup>

Nolanahi ere, ezin dugu pentsatu krisiei aurre egiteko familia dela euskarri bakarra. Baina familiaren eragina bestelako agenteen norabide berean badoa, krisiari aurre egiteko aukerak handitu egiten dira, segidan aurkezten dugun aipu honetam antzeman daitekeen bezala.

---

<sup>1312</sup> 10. Elk.

<sup>1313</sup> 9. Elk.

“Pentsatzen det hartu deten erabaki onenetako bat [dala]. In eta bukatu (...) Uzteko puntuan egon nintzan, baina hori... Azken finean, rollo asko juntatu zian. Aita gaixo, ta hil in zan, ta ordun, ba, danak desilusioak daukazunak. Ta uzteko puntuan egon nintzan, ta azkenean jarraitu nun. Besteek animatu ninduten (...) Lagunek, nerekin ikasten zutenek. Batez ere bat egon zan. Esan nion utzi egingo nula ta: Ze esan didate utzingo dezula? Apunte guztiak ekarri zizkian (...) Ta azkenean amak arrazoia zun. Tituloak gorde in behar dia kajoian. Egunen batean beharko dituzulako, zeren ta bukatu nunen, hantxe gorde nun tituloa, lana bilatu eta, gero, handik urte batzutara atea nun berriro (...) Amak garrantzi haundia ematen zion tituloa edukitzeari (...) Ama oso kontziente izan da gehio edo gutxio jakin ez dizu tituloak esango, baina tituloak gaur egun eskatzen dia. Gero nik inglesarekin konprobatu nun. Bere garaian ez nun titulorik atea porque los títulos no valen pa nada, eta gero First-a eskatu ziaten, eta korrika First-a atea behar izan nun, zeren tituloek ez dute ezer balio hasta que te los piden (...) Oain horregatik ateatzen ai naiz [ingeleza]. Oain ez dizkiate eskatzen baina etorkizunean eskatuko dizkiate eta horregatik iten ai naiz oain.”<sup>1314</sup>

## 5. Subjektu aktiboa

Txotxongilorik ez dago ikerketa honetarako elkarrizketatu ditugunen diskurtsoetan. Orain arte nabarmendu egin dugu hezkuntza sistemak eta familiak norbanakoen ibilbide akademikoetan duten eragina, fenomeno horiek nabarmenak direlako aztergai ditugun elkarrizketetan, baina bere horretan onartuko bagenu bi erakunde sozial hauek direla ibilbide akademikoaren eragileak, erreprodukzio (birsortze) soilaren ikuspegian kokatuko ginatke. Beste erakunde sozial batzuk aintzat hartuko bagenitu (adibidez adinkideen taldearen eragina), ez ginatke erreprodukzioaren parametroetatik aterako.

Norbanakoa da erreprodukzioaren ikuspegia bere horretan baztertzeko gakoetako bat. Elkarrizketatuen diskurtsoetan antzeman dugunaren arabera, familiak eta hezkuntza sistemak transmititzen dizkioten baldintzak modu aktiboan prozesatzen ditu norbanakoak. Ez da hartzaile pasiboa. Ez ditu aginduak betetzen. Norbanakoak bere testuinguruan ekoizten ditu bere baldintzak. Ez da ezerezaren gainean egiten den lana. Norbanakoa une eta leku bakoitzean baldintza jakin batzuetan bizi da, espazio sozialean kokapen bat dauka, eta testuinguru horretan egiten du norbanakoak bere lana, baina posizio sozial bakoitzak ez du behartzen norbanakoa lan zehatz bat egitera. Posizio sozialak baldintza batzuk ezartzen dizkio, baldintza ugari, sendoak eta pisuzkoak, baina norbanakoak baldintza horiek modu aktiboan prozesatzen ditu. Posizio sozialaren baldintzen itzulpen lan sortzailea eginez, norbanakoak bere baldintzak ekoizten ditu.

Subjektu askea izatearekin ez du batere zerikusirik. Norbanakoak ez du kanpoko eraginaren galbahe lan soila egiten. Norbanakoak ez du soilik testuinguruaren eraginaren zati bat hartzen eta bestea baztertzeko. Ikuspegi horren arazo nagusia da testuinguruaren itsasoan dagoen irlatzat erretratatzeko duela norbanakoa, hots, testuinguru gauza bat eta norbanakoa beste bat balitz bezala. Ikuspegi horren aldaera bat litzateke subjektu ahalguztiduna, testuinguruaren aurrean bere erabakiak modu erabat askean eta arrazionalki hartzeko gai litzatekeena alegia. Baina, intentsitatez ezberdina den arren, molde berekoa litzateke testuinguruaren zenbait eragin hartzen eta beste zenbait baztertzeko dituen subjektua, testuinguruarekin harremana bai baina zerikusia ez lukeen

---

<sup>1314</sup> 14. Elk.

erakundea balitz bezala. Elkarrizketatuen diskurtsoetan nabarmena iruditu zaigu norbanakoek beren testuingurua gorpuztu egiten dutela, norbanakoak testuingurua ere badirela, testuingurua ez zaiela arrotz, eta, aldi berean, norbanakoek ez dutela makineria baten osagai rola jokatzen, ez direla sistema baten pieza determinatua, norbanakoen ekoizpen lan aktibo eta sortzailea aintzat hartzea ezinbestekoa dela ibilbide akademikoen bilakaerak ulertu ahal izateko. Norbanakoek egin, egiten dute erreproduzio lana, handia gainera, baina jarduera hori ekoizpen lan handiago baten baitan ulertzen dugu, zeinetan erreproduzioa zati bat den.

Nolanahi ere, gorago aztertu dugunaren arabera, erreproduzioa eta ekoizpena ez dagokio soilik norbanakoari. Elkarrizketen analisisan orain arte ondorioztatu dugun ikuspegiari jarraiki, ezin da gutxietsi hezkuntza sistemaren baitan eta familia bakoitzean egiten den ekoizpen lana. Ez dute *beren baldintzei* dagokien erreproduzioa egiten. Beren egoeran dauzkaten baldintzekiko hartueman aktiboa dute. Agente sortzaileak dira. Baina beti ere beren baldintzen testuinguruan.

Azken batean, elkarrizketatuen ibilbide akademikoei dagokienez, hiru erakunde sozialen lana nabarmenduko genuke: norbanakoa, familia eta hezkuntza sistema, ez derrigorrez hurrenkera horretan. Eragina duten beste zenbait erakunde sozial ere identifikatu ditugu, ziur gaude identifikatu gabeko gehiago ere badaudela, baina, ikerketa honetan ondorioztatu ahal izan dugunaren arabera, ibilbide akademikoen erakunde eraginkorrenak norbanakoa, familia eta hezkuntza sistema dira.

Atal honetan hiru erakunde hauen arteko hartueman oinarri izanik, subjektuaren lan aktiboa aztertzen ahaleginduko gara.

## 5.1 Ikasketekiko interesa

Norbanakoak ikasketekiko azaltzen duen interesa ez da bere posizio sozialaren itzulpen soila. Elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan oso agerikoa da norbanakoaren lan aktiboa ezinbesteko osagaia dela ikasketekiko interesa ulertzeko.

Ukaezina da norbanakoaren posizioak baldintzak ezartzen dituela. Horren adibide garbia da honako aipua.

“Gehien ingelesa interesatzen zitzaidan, baina bentaja nulako. Akademira juten nintzan.”<sup>1315</sup>

Arlo jakin batean daukan posizioak oso eskura uzten dio norbanakoari interesa piztea. Elkarrizketatu honek inbertsioa bideragarria dela eta etekina erdietsiko duela deritzo. Baldintza horietan pizten da norbanakoaren interesa. Baina norbanakoaren posizioak ikasketekiko interesa determinatuko balu, suposatu beharko genuke posizio batzuetatik mekanikoki eratorritzen dela interesa eta, haatik, beste posizio batzuetatik sistematikoki ekoizten dela interes eza, horrela dinamika orokorra erreproduzitu egiten delarik. Segidan aurkezten ditugun aipuek, ordea, kolokan jartzen dute erreproduzioaren ikuspegia.

---

<sup>1315</sup> 14. Elk.

“Adin horretan neretzako zan una obligación jutea ta ematen zutena jasotzea. Eta interesgarria no me parecía nada (...) Hain recuerdo txarra daukat que he borrau todo de la cabeza (...) Ez dakit ikasle txarra baina alferra izan naiz hasta... Ordun, kostatzen zitzaidan pila bat, pila bat.”<sup>1316</sup>

“Beti nintzan la ley del mínimo esfuerzo, (...) ez neukalako interesik hor zeuden gaietan. Euskera, etortzen zitzaidun: perpaus bakuna, aditzlaguna, izenlaguna... Vete a tomar por culo. Horrible.”<sup>1317</sup>

“No me interesaba ninguna asignatura. Nunca me ha gustau ni matemáticas ni lengua. No ha habido una cosa que me haya llamau. Ni una cosa ni otra (...) Me arreglaba fatal, porque no me gustaba estudiar (...) Cuando estudiaba, sí que aprobaba, pero tenía que estudiar mucho para aprobar.”<sup>1318</sup>

Goiko hiru aipuetan oso esplizitua da interes ezaren diskurtsoa. Horietako bi diskurtsotan agerikoak dira interes faltak eragiten dituen zailtasun akademikoak ere. Baina hiru aipu hauetatik ezin dugu ondorioztatu beren posizioek eraman dituztela interes eza piztera. Hiru elkarrizketatuen posizioak ezberdinak dira, haietako bakoitzaren fitxa laburbilduak agerian uzten duen bezala. Baten batek esango luke agian hiru posizio ezberdin horietatik interes faltaranzko joera dagoela. Baina baieztapen horren akatsa da hiru elkarrizketatu hauen posizioan dauden beste zenbaitek ikasketekiko interes askoz handiagoa izan dutela eta, ondorioz, ibilbide oso ezberdinak izan dituztela, hezkuntza formalean askoz gehiago inbertitzera bideratu dituztenak. Gainera, ezin da ahaztu goiko aipuetatik bi egin dituzten elkarrizketatuek goi mailako ikasketak burutu dituztela. Nola azaldu daiteke egoera konplexu eta aldakor hau? Familiaren estrategiak eta hezkuntza sistemaren dinamikak erantzunaren zati esanguratsu bat eskain diezagukete, batik bat kontuan hartzen badugu bai bataren estrategia bai bestearen dinamika modu konplexu, kontraesankor eta aldakor batean garatzen direla. Baina gutxienez beste gako bat behar dugu aztergai dugunaren azalpen osoago baterantz hurbildu ahal izateko: mekanizismoaren edo determinismoaren eredua jarraitzen ez duen norbanakoaren ahalegina.

Izan ere, posiziotik interesera doan prozesua ez da mekanikoa. Baldintzek ez dute interesa determinatzen. Tartean funtsezkoa da norbanakoaren ahalegina. Elkarrizketatuen diskurtsok garrantzi oso handia ematen diote norbanakoaren ahaleginari. Zenbait diskurtsok norbanakoa agente erabakior bakarra balitz bezala azaltzen dute, adibidez familiak eta hezkuntza sistemak eraginik ez balute bezala. Beste hainbat diskurtsok, berriz, familia eta hezkuntza sistema gutxietsi gabe, nabarmendu egiten dute norberaren ahalegina. Esate baterako honako aipuan islatzen da horren antzeko diskurtso bat.

“Nere ama beti hor eon da, beti oso aholku onak eman dizkit, baina azkenean zuk in behar diozu aurre zure egoerari, ta (...) lotsa hoik, ta beldur hoik... zuk in behar diezu aurre. Nik uste det zentzu hortan inork ez ditela ezer oparitu”<sup>1319</sup>

Beste zenbait diskurtsotan norbanakoa hain esplizituki nabarmendu gabe agerian gelditzen da norbanakoak egin behar duen ahalegina, hurrengo bi aipuetan kasu.

---

<sup>1316</sup> 17. Elk.

<sup>1317</sup> 22. Elk.

<sup>1318</sup> 15. Elk.

<sup>1319</sup> 7. Elk.

“Orokorrean dena interesgarria iruditzen zitzaidan. Gainera, gogoratzen det esaten nula: Hau ikasi behar det eta ikasi behar det. Hau ez badet ikasten edo pereza ematen dit, baina atera behar det, es que, bestela, errepikatu ingo det, ta orduan saiakera hori iten nun.”<sup>1320</sup>

“Yo creo que era más madura y veía lo que había alrededor y... pues, la gente y eso. Y en casa también me decían: Mira lo que hay: o te pones a estudiar o a trabajar. Y tenía 16 años y decía: ¿Me pongo a trabajar? Y: No, tengo que hacer algo, un par de años más, estudiar algo, y luego ya tendré tiempo de trabajar. Y ya que me dieron una oportunidad y me dieron la confianza, quise demostrar que podía (...) Saqué buenas notas (...) Me parecía interesante. (...) Igual es porque estudié lo que me gustaba. Yo elegí lo que quería hacer. Si me sale mal, es cosa mía. (...) No hice empresariales por vaga. También empecé a currar, y currar y compaginar... es muy duro. Hombre, si te lo propones, lo haces, pero es duro, te tiene que gustar, de salir, de estar con los amigos, con la pareja, porque ya tenía pareja. Estudiar y trabajar chapeau para los que lo hacen, pero es muy duro.”<sup>1321</sup>

Goiko bi aipu hauetan norbanakoak modu ezberdinean egiten du bere baldintzen interpretazio lana. Beren diskurtsoetan azaltzen denaren arabera, bi elkarrizketatu hauek posizio ezberdinetan daude, eta hori, jakina, kontuan hartu behar da, baina, aldi, berean, bi aipuetan antzematen da norbanakoaren ahalegina, nahiz eta zeharka ikus daitekeen norbanako bakoitzak norabide ezberdinean egiten duela bere egoeraren interpretazioa.

Edonola ere, analizatzen ari garen fenomeno honi buruz, norbanakoaren interpretazioa lanari buruz alegia, argi azaldu nahiko genuke norbanakoaren ahalegina ez dela objektu bat leku batetik bestera garraiatzeko beharrezkoa den erregaia. Hau da, norbanakoaren ahaleginak ez du balio bakarrik baldintza jakin batzuk interes bihur daitezten. Norbanakoaren lanak interpretatu egiten ditu bere posizioaren baldintzak eta horretan oinarrituz lan aktibo baten bitartez norbanakoak berak ekoizten ditu bere baldintzak. Beraz, antzeko posizioan zalantzarik gabe posible da ekoizpen ezberdinak egitea.

Fenomeno hori iradokitzen da hainbat elkarrizketatuk izan duten ikasketekiko interesaren bilakaeran. Norbanakoaren interpretazio lana ez da soilik diakronikoki gertatzen, noski, norbanakoak uneoro egiten baitu sormen lan aktiboa, baina elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan agertzen diren adibide diakronikoez fenomeno hau argiago azaleratzeko aukera ematen digute. Ondoren aurkezten ditugun aipuetan ikasketekiko interesaren bi norabide antzeman daitezke, handitzen ari dena eta gainbehera datorrena.

“Hombre, hor aldaketa haundia ikusi nun, ez? Hemezortzi-hemeretzi urtekin hor nik antolatzen nun nere bizitza, nere denbora libre, ta konturatu nintzan gustora iten nun zerbait zala, eta bueno, ikastolako azkeneko urteekiko eta institutoko urteekiko hobeto in nitun. Badakit ikasketak zaildu in ziala, baina notak hobetu in zian. Batez ere gustoa, gustoa egiten nitulako ikasketa hoiek, ta gustoa ikasten dezunean zerbait, normalki emaitzak hobeagoak izaten diela.”<sup>1322</sup>

---

<sup>1320</sup> 10. Elk.

<sup>1321</sup> 13. Elk.

<sup>1322</sup> 3. Elk.

“Beti nahi izan nun [Magisteritza] ikasi, ta, gainera, nabaritzen da notetan, COUra arte ze nota neuzkan ta Magisteritzan ze nota neuzkan.”<sup>1323</sup>

“[La escuela] no me parecía interesante (...) porque era muy distraída. Me gustaba mucho hablar. (...) Al principio me costó, me costó un poco, y luego ya fui... cuando eres más mayor vas recapacitando, ya iba cogiendo gustillo a lo que era el colegio y todas esas cosas.”<sup>1324</sup>

“Hasieran oso motibatua neon. Gero erabat desmotibatua. (...) Ez nion bururik ikusten. (...) Hankak bai, ba hori, ikasketak aurrera jarraitu eta laneako formakuntza bat jasotzeko bidea zelako, baina gero bururik ez, ze arrazoi horrekin ni motibatzeke 2. BUPetik aurrea ez zan nahikoa. Orduan gainbehera izan nun motibazio aldetik. (...) [Unibertsitatean nengoela,] hasi nintzan ikasketa unibertsitarioak mespretxatzen bezala. Esperantza neukan interesa sortzen zidan zerbait... Igual umetan dezu oso idealizatuta unibersidadeko ikasketak izatea, ta gero, horren idealizatua izatetik, ba, frustrazio haundiagoa eraiten dizu. Hezkuntza arloa euki nun mespretxatua bezala ta bizitzatik ikastea eman nion garrantzia. Hezkuntza neukan ongi ez zihokidan bide bat bezala, baina hor eusten nion pixkat.”<sup>1325</sup>

Lau diskurtso hauek egin dituzten elkarrizketatuen posizioak eta ibilbideak kontuan hartzen baditugu, norbanako bakoitzaren interesaren gorabeherak ezingo genizkioke egotzi beren posizioen aldaketari, hots, posizio aldaketa ez dela interesaren gorabeheren eragilea. Familiaren estrategia bere konplexutasunean egonkorra bada eta hezkuntza sistemaren eredia modu esanguratsuan aldatzen ez bada, arrazoizkoa dirudi ondorioztatzea beste faktoreren batek eragiten duela ikasketekiko interesaren gorabehera. Aipu hauei begira esan genezake aldaketa horien arrazoiak norbanakoaren heldutasuna eta nerabegaroko krisia direla, baina izen horiek erabiltzen ditugunean, azken finean norbanakoak bere egoera prozesatzeko moduz hitz egiten ari gara, hau da, norbanakoaren interpretazio lan aktibo eta sortzaileaz. Elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoak analizatzen baditugu, nekez ahaztu dezakegu fenomeno hori, zeren norbanakoak bere posizioaren baldintzak bere galbahetik igaroarazten dituenean, prozesu horrek emaitza esanguratsuak baititu.

## 5.2 Estrategien adibidea (1): unibertsitatera bai ala ez

Ibilbide akademikoak azaltzeko hiru gako aztertzen saiatu gara, hiru erakunde sozial: hezkuntza sistema, familiaren estrategia eta norbanakoaren ahalegina. Hiruen arteko harremanean egoera ezberdinak aurkitu ditugu elkarrizketatuen diskurtsoetan. Zenbaitetan hiru erakundeetako bat nagusitzen dela dirudi, beste hainbatetan hiruen arteko sinergia nabarmentzen da.

Harreman hauek ikertzeko adibidetzat aukeratu dugu elkarrizketatuek unibertsitateko ikasketak egiteari buruz duten estrategia. Unibertsitatera joatea edo ez erabaki kritikoa da. Kontuan hartu behar da elkarrizketatuen diskurtsoetan jaun eta jabe dela unibertsitateranzko ibilbide akademikoa prestigiatzen duen ikuspegia, hurrengo aipuan argi eta garbi azaltzen den eran.

---

<sup>1323</sup> 18. Elk.

<sup>1324</sup> 13. Elk.

<sup>1325</sup> 31. Elk.

“Garai hartan bi aukera zeuden. Unibertsitatera jun behar zinan notak bazenitun eta los negaus juten zian FP itea (...) REM itea ere zan, uf, para los negaus. Hortarako prestatu gintuzten. Institutoan zan zu karrerara zoaz, karrerara zoaz, karrerara zoaz”<sup>1326</sup>

Diskurtso honek dio eredu zko ibilbidea unibertsitatetik igarotzen dela, tartean BBB eta UBI eginez, nahiz eta, arestian ikusi dugun bezala, REM ikasketei buruzko iritziak nahiko anbiguoak diren.

Segidan aztertuko dugun kasuistika oso zabala da. Horrek irmo iradokitzen du hezkuntza sistema-familia-norbanakoa hirukian bilakaera ez dela mekanikoa eta, aitzitik, nagusitu egiten direla konplexutasuna, aniztasuna, kontraesana eta gatazka, beti ere ahaztu gabe hauetako erakunde sozial bakoitzak ibilbide akademikoak baldintzatzeko indar handia duela.

Zenbait elkarrizketaturen diskurtsotan hiru erakundeen arteko sinergia oso eraginkorra dela dirudi, hurrengo honetan kasu.

“Unibertsitatera jutea erabaki nun. Ez dakit zeatik. Nik ustet momentu hortan erabakiak hartzeko ez neola prest, inguruak eramaten nindula. Ya hemen nao ta nota on xamarrak eo... zazpiko batzuk eta zortziko batzuk eta, bueno, ikasteko balio du mutil honek. Holako gauzak esaten dizkizue, ta pentsatu gabe gainea zer dan unibersidadea”<sup>1327</sup>

Hiru erakundeen arteko armonia eza agerikoa da hurrengo hauetan.

“[BBB eta UBIn ikastetxe pribatuan] bukatzea... arrastaka bukatu nun eta gaizki, gaizki pasa nun horregatik. (...) Notak gero ta okerrago. 2. BUPen euki nun ikasteko gogorik ez eta noten gainbehera eta bapaten historiak (...) eta natur zientziekin hirugarren mailan izan nun gorakadatxo bat, baina ya COUn zan: Sal de ésta como puedas. (...) Selektibidadea eta unibersidadea juteko helburu abstrakto horrekin intzazu minimoa, ta hori, txuleta, trapitxeoak, azterketa lapurretak (...) ta oso gaizki pasatzen. (...) Pixkat superbibentzia. Beste aukera zan COU ez aurrea ateatzea ta hori zan impensable. (...) Azterketak lapurtzeko ta tranpeoa iteko prest neon horregatik, porrota zalako pentsaezina zan gauz bat. (...) Beldurra ematen zidan... Kurso bat errepikatzea izango zan jasanezina.”<sup>1328</sup>

“Bueno, UBIn lehenengo aldia [barre egin du], bai, UBIn lehenengo aldia, gaizki jun zitzaitezen, hasteko mentalki jende asko ez daolako prestatua UBI iteko. A ver, esplikatzen det. UBI lehenengo eguna da “kaixo, guazen ikastea ze esamina dao eta bla, bla, bla”. O sea, igual lehenengo egunean akonjonatzen zaituzte. Igual bigarrean e bai. Baina astebetere esaten dezu “benga, hombre”. Arazoa da gero esaminak etortzen diala ta temario erraldoi bat eman behar dutela betetzeko gero sartzen dana selektibidadean, eta ordun konturatzen zea aurreko urteko, hirugarren mailako erritmoakin ezin dezula aurrea jarraitu. Ordun, lehenengo estadioa, lehenengo egoera da ba igual zortzi asignaturatetik gaudituz gabe igual zazpi. Esaten dezu “oain bai, bai, bai, espabilatuko naiz eta ikasiko det eta ez dakit zer”. Claro, horrek azkenean ekartzen duna da daukazula motxila bat 500 kilokoa eta ezin dezula kilo

<sup>1326</sup> 7. Elk.

<sup>1327</sup> 9. Elk.

<sup>1328</sup> 31. Elk.

bat bera ere kendu oraindik dauzkezulako gauza gehiago ikasteko aurreago. Eta azkenean da bola erraldoi bat bezela. Hori batetio, eta bestetio, ez nun batere argi ze in nahi nun. Hau da, guztia jokatzeko da... UBIIn jokatzeko da gero ze in nahi dezun, ta mundu guztiak tontoak bezela in nahi du superkarrera bat. Oain, jendeak ez dauka ni puta idea ze in nahi dun. Azkenean, jendeak, kenduta lau lumbreras edo badakitenak oso argi ze in nahi duten edo oso nota onak ateatzen dituztenak, gainontzekoak doaz, ba hori, esan diate oso polita dala ez dakit zer, eta bueno, ba ordun, ez dakit zer horri nahikoa zaio aurrea ateatzearekin, eta ikusterakoan mediarekin eta ze ateatzen dezun, ba bueno, ba probatzea... esan diate oso polita dala x... Oain, nere kasuan ikusten nun gaindituta ere ez neukala ezer interesgarririk. O sea, ez nekin ez ze erabaki ez ze erabaki. Ordun, azkenean zan nolabaiteko akzio-erreakzio egoera. Ba, ez det gainditzen, ondorioz ez det ezer aukeratu behar. Punto. Ba, hori gauzarik errexena. Errexena egiteko, ez logikoena. Eta hortaz bai goatzen naizela, lehenengo trimestrea izatea, bua, izatea horrible, zortzi asignaturatik zazpi gainditu gabe, eta gero bigarrena ya en plan de “aber zeinek ateatzen ditun penko gehiago”. Ordun berdin zitzaitela. Gero hurrengo urtea izan zan ya beste gauza bat. Igual nolabaiteko beste aktitude bat hartzen bezulako, ez? Ez dakit nik askoz argiago neukan gauza, baina ya beste gauza batzuk ikusten nitun. Bueno, lehen argi ez naukan ze ez nun in nahi ere. Oain, berriz, argi neukan ze ez nun in nahi, eta bitartean adibidez gertuko lagunak ya sartuta zeuden unibersidadean. Esplikatu ziaten zer zan, zer ez zan, bakoitzak iten zuna, ze iruitzen zitzaien, zer zan bertako egoera. Ez dakit, ze azken finean institutotik jutea unibertsidadera beste pauso bat da, juten zean bezela batxilergoa... oi, batxilergoa... hamalau urte bete eta juten zeanen institutura edo beste edozein lekutara. Eta, ez dakit, bai ikusten nula beste gauza batzuk, eta hoietako bat izan zan nere, konkretuki nere kuadrilako bat hasi zala zuzenbidea ikasten, eta beakin hitzeitan eta komentatzen zizkian gauzengatik esaten nun “ostras, ba, honek interesatea ematen du”. Ta ordun, baukazu zerbait esateko “ostras”... ta gainera hasieran dudatan eon nintzan ein filosofia edo in zuzenbidea. Baina behintzat baneukan idea bat ze in nahi nun. Agian ez zala oso zuzena ikusita gero ze gertatu zan, baina bai dakazu idea bat eta idea horrek behintzat behartzen zaitu pixka bat munitzea.”<sup>1329</sup>

Goiko aipuetan begibistakoa da norbanakoaren lana. Norbanakoa ez beste erakundeek norbankoari ezartzen dizkioten baldintzak ez dira aldatzen. Norbanakoak bere posizioa interpretatu egiten du eta irakurketa aldatu egiten da diakronikoki, era berean norbanakoaren ahaleginaren izaera eta bolumena aldatu egiten direlarik.

Ondorengo adibideetan ere egoera nahiko konplexuak aurkitu ditugu. Segidan ikusiko ditugun bi elkarrizketatuen diskurtsoak alderatzen baditugu, ikus dezakegu norbanakoaren ikasketekiko interesa ez datorrela bat derrigorrez ikasketekiko etorkizunera begirako ikuspegiarekin.

“Behintzat ikastolako lehenengo urtetan, ba EGB 4. ta 5. maila arte, gogoan dut ikastolan ikasitako gauza gehiengoa, batez ere gauza teknikoak, matematikak eta holako gauzak banekizkila. Igual etxean txikitatikan lagundu ziatelako gauza hoietan. Gogoan dut ez nula holako zailtasunik holako gauzetako. O sea, esplikatzeko zizkiguten gauzak banekizkila sentsazio hori baneukan o badaukat. (...) Nik lehenengo lau-bost urte hoiek igarota gauzak konplikatzen hasi ziala ikusi nun eta aldi berean nere motibazioa ta nere ikasteko gogoia ere gutxitzen zihoan, ba, bizitzan gauza gehio daudela ikusten zoazen heinean, ez? Orduan hasten zea gauza berriak ikusten ta deskubritzen eta, bueno, burua gutxigo konzentratzen ikasketetan, ez? Nik uste det gauza normala dala ta gainera seguruenik

<sup>1329</sup> 4. Elk.



beharrezkoa. Orduan, haserako urtetan notak gutxi zian, edo bueno, inportantzi gutxikoak, baina onak zian orokorrean denak, eta bosgarren-seigarren mailatikan aurrea nota hoiek bajutzen jun zian, suspensotara iritsi gabe gehienbat. Suspensoren bat izan nun, baina bueno, notak dexente jeitsi zian mailaz, nahikoa, ongia, maila hortan ibiltzen zian asignatura askotan. Egiten nun nahikoa aprobatzeko baino hortikan aurrea esfortzu gehiegirik egiten ez nula badakit. Eta gutxi egiten nula. Justo ere ikasi gauzak aprobatzeko eta punto.”<sup>1330</sup> [Zuzenbidean lizentziatu zen unibertsitate publikoan eta Administrazio eta Finantzak masterra egin zuen unibertsitate pribatu batean]

“Saqué EGB con un suficiente y hacer carrera... No me puse. Si me hubiera puesto, si me hubiera esforzado, podría haber sacau eso, pero no me llamaba.”<sup>1331</sup>

Bi elkarrizketatuek eremu akademikoan izan dituzten arazoen larritasun maila oso ezberdina denez, agian horrek eta familiaren estrategiak gaina hartzen diote norbanakoak espektatibak ekoizteko daukan ahalmenari. Izan ere, bi elkarrizketatuen ibilbideak oso ezberdinak dira eta ez dirudi bien arteko aldea batik bat gaitasun indibidualean oinarritzen denik, ezta ikasketekiko interesean ere. Badirudi familiaren estrategia gailendu egiten dela. Lehenengo aipuko elkarrizketatuak hainbat urtez ikasketekiko interes eskasa erakutsiko du, hezkuntza sistemak zigortu egingo du bere balorazioetan, baina horrek ez du behartuko bere espektatibak murriztera, eta hala egiten duen unean, UBI ikasketak bukatzeaz dituela hain zuzen, familiaren bultzadak unibertsitaterantz bideratuko du, aurretik OHOn BBB ikasketetarantz bultzatu zuen bezala. Alta, bigarren aipuko elkarrizketatua prestigio gutxiagoko bidetik joango da, euskarri gutxiago dituelako eta, ondorioz, bere espektatibak beherantz moldatu behar izan dituelako.

Hiru erakundeen arteko negoziazio harremanean norbanakoa nagusitzen denean, horrek ez du apustuaren arrakasta bermatzen, ezta hurrik eman ere.

“Ez zan garai bat neretzako gai ikusten nuna nere burua. Zan 14 urte. Bapatean ikastolako lagun guztiak alde batera edo bestera. Neri, adibidez, esan zidaten ikasteko [lanbide heziketako ikastetxe pribatu batean] secretariado bat edo irteera zeukana. (...) Etxean esan zidaten, anaiak-eta. (...) Pentsatzen zuten hortik irteera gehiago egongo zela. Nere izateko moduakin institutua da pixkat bidea unibertsitatera, ta igual beraiek bazekiten nik baino gehio, nik unibertsitaterako bidea ez nuela lortuko. Ez zidaten ezta inposatu (...) Erabakiak hartzeko oso argia ez nintzan izan. Hor ikasteko aukera izan nun ta ez nun egin, ta orduan instira, ba, nere lagun gehienak instira zihoazelako, eta erosotasunagatik, etxetikan 50 metrora, baina perspektibarik gabe.”<sup>1332</sup> [ikasketetan eskas zebilen eta bukatu aurretik utzi zuen]

Negoziazio harreman horretan adostasunek eraginkortasuna izan dezakete, baina ez derrigorrez, zenbaitetan norbanakoa nagusitzeak mesede egiten baitu. Ondorengo aipuan harreman konplexu baten bilakaera ikus dezakegu.

“Nik [OHO] zortzigarren mailan egin nuenean lehenengo aldiz, pues estás en la fase un poco rebelde de la vida, o yo estaba, ta nik [hiriko ikastetxe publiko batera] jun nahi nun. ¿Por qué? Pues, porque

<sup>1330</sup> 3. Elk.

<sup>1331</sup> 13. Elk.

<sup>1332</sup> 30. Elk.

iban todos mis colegas a hacer FP. Zer egin nahi nun? Ba, ez dakit, baina nik FP in nahi nun ta nere gurasoek esan zidaten ezetz, egin behar nula BUP fijo, ta nere gurasoek nahi zuten [Lizeo jakin bat, D ereduko ikastetxe pribatu bat], ta nik ezetz, que eso era de pijos, eta, bueno, pues a [auzoko ikastetxe publiko bat], REM. Ta que no, que no, que no, que vas a [Lizeo jakin batera, D ereduko ikastetxe pribatu batera]. Ta azkenean iritsi ginen a un acuerdo que hacía BUP pero en el insti de [auzoan], nere lagunak ere horrea juten zialako, [ni ibili nintzen OHO ikastetxearen] ondoan zegoelako, hondartza ondoan zegoelako... un cúmulo de alicientes. (...) [BBB ikasten ari nintzenean, gurasoek] esaten zidaten que ya era mayorcita ta ezin zirela nere gainean egon. Nik ikusi behar nula zer egin. Y así me fue. (...) [UBIn] ez nekien qué quería hacer con mi vida. Ta egon nintzan orientatzailearekin hitz egiten ta esaten nun: No hay una cosa que me llame. No se me da bien las letras, no se me da bien las matemáticas. Ez nekien nundik... Psikologia beti gustatu izan zait baina terminar psicología era una fantasía... vamos. Enteratu nintzan [beste udalerrri batean] zegoela Educación Infantil (...) La verdad es que sorpresa bat izan zan. Encantada de la vida (...) aurkitu nulako gauza bat gustatzen zitzaidana pila bat eta ez nekin, ta gero hango ikasketak ta irakasleak ta emateko modua ta hola gustatu zitzaidan pila bat. (...) Que tu hija no haya hecho una carrera de primeras zan pixkat... Baina gero esaten zuten modulo hortatik jende gehiena lanarekin ateratzen zen. Injenieria bat badaukazu baina lanik ez badezu aurkitzen, al final no te sirve de nada (...) [Psikologia] gustatzen zait baina maila nahiko altua dela niretzat. Igual en plan ez det esango patxanga baina zuretzako, zure bizitzarako, igual bai, baina para ser psicóloga... Nere burua ez det horretarako prest ikusten. Bueno, auskalo. Tampoco me veía en la universidad ta azkenean karrera atera det. (...) [Magisteritzan diplomatura] está hecho. No me ha aportado nada, baina el día de mañana behar badet, tituloa hor dago, badaukat (...) Unibertsitatean azkenean da el título lo que te vale, al menos nere bizitzan.<sup>1333</sup>

Aitzitik, zenbaitetan negoziazio harreman horrek ez du modu eraginkorrean askatzen parez pare duen korapiloa, honako aipuan ikus dezakegun bezala.

“Nere ametsak musikan zeuden oinarrituta eta nahiz eta suposatu genezaken amets hoietara gerturatzeko BUP zala bide egokia, ez geneukan batere garbi. (...) Baina garai hartan inork ez dizu esaten zein den egin beharreko bidea. Dana da laino bat. (...) Neri ez zidan inork erakutsi egin nahi nuena egiteko zer in behar zan. O sea, pixkat inertziatz jun ginan BUPera. (...) Nere interes haundiena momentu hortan musikan zeon ta bera [ikasketen arloko psikologoa] ai zan saiatzen, ba, matematika ikas nezan. Denbora guztia... musika ez zun aipatzen sekula. Beti aipatzen zun beste edozer gauza, hori ez beste, ta neri horrek afektatuko zidan garai hartan. Esango nun: Ze hostia, nik nahi det ta ez dit esaten ezer horri buruz gainera. (...) Neri askotan itxi egiten zidaten pianoa giltzakin, ez nulako estudiantzen. Nere amak nahi zun estudiantu behar nula, ez pianoa, ikastolako edo institutoko gauzak, edo akordeoia pieza konkretu hoiek, baina nik nahi nuna egiten nunez, ixten ziaten pianoa. (...) Beti ofizialtasunetik kanpo nabil, gauza bategatik edo besteagatik. Ta zaila da ofizialtasunetik kanpo bizitzea arlo guztietan.”<sup>1334</sup>

Goiko diskurtsoan aurkitu dugun korapiloaren antzekoa da hurrengo aipuan aurki dezakeguna, baina emaitza ezberdina da.

<sup>1333</sup> 17. Elk.

<sup>1334</sup> 20. Elk.

“Bueno, pauso haundi, garai hartako pauso haundiak izan zian neurri haundi batean ez entzulego izatea bakarrik baizik eta nolabait musikan ere parte hartzea, hau da, talde bat sortuaz, rebista batean parte hartuaz, irrati batean e bai programa bat eginez. Hau da, zan ya nolabait gauza oso konkretu bat nolabait bizitza modu oso konkretu bat eramaten dizuna. Ya ez zan gusto kontu bat bakarrik. Hau da, ez da zu zinea juten zean bezela eta “zinea gustatzen zait”. Ez. Da “zinea gustatzen zait eta gainea ematen det pauso bat aurreago eta bertan sartzen naiz”. Ez dakit, nahi dezun bezela. Eta orduan, nere kasuan zan geroz eta gehio interesatzen zitzaitela eta geroz eta gehio barneratzen nintzala musikaren munduan bere arlo diferentetatio, eta bestalde, ikusten nun nahiz eta neurri haundi batean interesgarria zan ikasten ai nintzana, ez ziala bereziki graziarik eiten edo ez nula ikusten helburu bezela. Hau da, zuzenbide karrera bukatzea, bueno, bale, imajinatzen det, ba, gauza guztiak bezela, ba, baldin badaukazu titulo bat gehiago edo holako zerbait oso interesantea dala lana bilatzeko garaian. Oain, nere burua ez nun ikusten holako ezertan, edo zuzenbideari loturiko ezertan behintzat argi eta garbi ez. Ordun, hasera batean helburua izan zan gauza bat bihurtu zan gauza bat guztiz sekundarioa. Eta inportantzia hasi zan gero eta gehio musika hartzen, nahiz eta ya institutoan taldea neukan. Baina hori izan zan aurrerapauso bat haundiagoa. Diska bat ere kaleratu genun. (...) 19 urtekin. Ordun, diska bat kaleratzeak e bai suposatu zun aurrerapauso bat izateaz aparte, pentsamendu aldaketa bat. Hau da, nolabaiteko pentsamendu profesionalago bat bezela. Ya ez da lau lagun pasatzen dutela asteburutan gitarra jotzen eta ez dakit zer egiten, baizik eta hau gustatzen zait eta hau da nere helburua. Ordun, hau lortzeko profesional pentsamendu bat edo profesionalki in behar ditut gauzak, ordu gehiago eskeiniak edo kontaktuak lortuz edo, ez dakit, beste mila gauza eginez, eta gauza hoiek exijitzen dute denbora. Eta saiakera itea askoz nivel haundiagoan. Lehen nahikoa bazan, esan dizudana, astean behin edo gehienez, oso gehienez, astean bitan ensaiatzea, orain hori bihurtzen da prioridade bat eta bukatzen du izaten klasera jun beharrean, jutea ensaiatzea goizean agian astean hiru-lau aldiz. Eta nolabait zure bizitza guztia edo zure nolabait esateko lan edo produkzio gauza izatea musika eta musikaren inguruan gainontzeko guztia edukitzea. Logikoki, bigarren maila batea pasatzen da ikastekoa. Azkenean utzi in nun zuzenbidea. Azkenean nazkatu nintzan, ta ikusi nunean denbora galtzen... bueno, banekin denbora galtzen ai nintzala aspaldi, baina ya dirua galtzen hasi nintzanean, esan nun ya ez zula pena merezi ya tontona gehio itea. Ordun, utzi nun ta ya está. Gertatzen da ikasketa bakarrik ez ziala koartada bat etxean. Baita ere ematen zidan beste koartada bat lanean. Hau da, ni hasi nintzanean lan eiten, jornada erdiz bakarrik nebilen, ze ikastea juten nintzalako unibersidadea. Orduan, neukan nolabaiteko koltxoi bat edo pareta bat nere jefe ohiak koñazoa ematen zidanean, ba hori, lan ordu oso bat eiteko soldata osoarekin eta abar, esaten nion “ba hori, ikasten ari naiz”, nahiz eta egia esan ez zitzaidan batere inporta zuzenbidea eta azkenean zan nolabaiteko pareta bat ez juteko egun guztia lanea, ze azken finean ez zizaiten interesatzen egun guztian lanea jutea. Horregatik koltxoi bezela erabili nun (...) gehio baloratzen nulako dirua baino gehio askatasuna. Hau da, askatasuna gustatzen zitzaiten lan batean lan eiteko baina ez denbora gehiegi, ez nere jefe ohi, en fin, atzeratuarekin, eta aldi berean uzten zian denbora bastante zentratzeko nahi nunean, ta zan musikan ta nere taldean. Ordun, konpajinatu nezakenez erdi duina zan soldata bat denbora libre bastanterekin, azkenean balantzan soluzioa errexa zan, ta soluzioa zan diru gehiago eta denborarik ez ala diru gutxi baina diru horrekin nahikoa aprobeatzeko denbora librea. Hau da, azkenean hori aukeratu nun.”<sup>1335</sup>

Goiko aipuan familiak eta hezkuntza sistemak ez dute asmatzen balizko ibilbide akademiko eraginkorrik eskaintzen, baina norbanakoa gailendu egiten da, bide itxien aurrean bere bidea

<sup>1335</sup> 4. Elk.

eginez eta neurri batean irtenbide eraginkorrak jorratuz. Arazoa da norbanakoak familiaren estrategiari aurka egin eta hezkuntza sistemaren dinamikei muzin egiten dienean, eta hori testuinguru jakin batean gertatzen denean, hezkuntza formalean egiten den inbertsioa saritzeko joera dagoen batean alegia, norbanakoak joera horien aurkako apustua egiten badu, arrisku handiko inbertsioetan sartzen da eta, ondorioz, nekezagoa da auresatea ea horrek etekina eman dezakeenetz.

Honenbestez, orain arte aztertu dugunean oinarrituz baieztatu genezake negoziazio harremanaren hirukiko ertz bakoitzak (hezkuntza sistemaren dinamikak, familiaren estrategiak eta norbanakoaren lanak) zeresan handia duela.

- Ibilbide akademikoan etekinak lortzeko modurik eraginkorrena hiruen arteko sinergia ibilbide prestigiotsuetatik bideratzea da. Arriskua oso txikia da. Litekeena da arrakasta aurreikustea eta asmatzea.
- Haatik, hiru erakunde sozialen arteko negoziazioetan elkarren arteko gatazka indartsuagoa denean, bidea zaildu egiten da, baina horrek ez du esan nahi ibilbidea modu eraginkorrean egin ezin daitekeenik. Kontraesan eta, are gehiago, gatazka harreman baten testuinguruan, oztopoak oztopo, hainbat elkarrizketatuk ibilbide akademiko prestigiotsuak trazatu dituzte.
- Nolanahi ere, hiru erakundeen arteko gatazka maila handiegia bada, besteen aurka hartutako erabakiek arrisku handiagoak eragiten dituzte eta, ondorioz, kaltetu egin daitezke ibilbide akademikoetan egiten diren inbertsioen eraginkortasuna eta lor daitezkeen etekina.
- Baina, era berean, gatazka ibilbide akademikoekiko eraginkorra ere izan daiteke, zeren estrategietan aldaketa eraginkorrak lortzeko modua izan baitaiteke. Gatazka eraginkorrak inbertsio proposa eta etekina maximizatzea eragin ditzake.
- Hala ere, hiru erakundeen arteko gatazka ez da prestigio txikiko ibilbide akademikoak ekoizteko arrazoi bakarra. Armonia ere izan daiteke inbertsioak eteteko eta etekinak galtzen uzteko motorra. Hiru erakundeek aho batez adierazten badute pertsona batek prestigio txikiko ibilbide akademiko bat egin beharko lukeela, armoniak desinbertsioa eta balizko etekinen galera eragingo ditu.

### **5.3 Estrategien adibidea (2): unibertsitatean zer ikasi**

Hiru erakundeen arteko negoziazio harremanaren beste adibide baliagarri bat izan daiteke unibertsitateko ikasketak egitea erabaki dutenen artean zer ikasketa egitea erabaki duten aztertzea. Hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan aurkitu dugunaren arabera, unibertsitateko ikasketak egitea arrakastaz erabakitzen dutenen artean une oso kritikoa da unibertsitatean zer ikasi erabakitzea. Une zaila da. Erabaki egokiak hartzea ez da erraza, eta horretan zerikusia handia du lehen azaldu dugun hiru ertzeko harremanak, hots, hezkuntza sistemaren dinamikak, familiaren estrategiak eta norbanakoaren ahalegin-estrategiak elkarrekiko duten erlazioak alegia. Halaber, kontuan hartu behar da hiruki horren ertz bakoitzak hainbat baliabide izan ohi dituela eskura, kasu bakoitzean ezberdinak izan ohi direla eta, beraz, erakunde bakoitzak bere baliabideen arabera gehiago edo gutxiago asma dezakeela erabakia hartzearen une kritikoari aurre egitean.

Hortaz, badirudi hiru erakunde horietako bakoitzaren baliabideen eraginkortasunak eta hiru erakundeen arteko harremanaren izaerak bideratzen dutela erabakia.

Buru adina egoera dauden arren, zenbait joera orokor identifikatu ditugu. Joera horien nolakotasuna azalerratzte aldera, elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetatik hainbat adibide aztertzen saiatuko gara.

Hiru erakundeen arteko armonia nagusitzen denean, erakunde guztiek bide bat hobesten dutenean, errazagoa da erabakia naturala balitz bezala hartzea, hurrengo aipuan iradokitzen den bezala.

“Nere ama psikologoa da. Orduan, igual, ezagunagoa egiten zait kontu hori. Nere ahizpak, adibidez, ikasi zun nere aita zana ta nik ikasi nun nere ama zana, baina ez digute inoiz esan zer egin behar genun. Nik aukeratu nun eta gustoko nun. Nere pentsamendua zan jendea laguntzeko modu bat zela.”<sup>1336</sup>

Alta, hirukiko erakunderen batek edo batzuek seinale argiegiak transmititzen ez dituztenean, erabakiorra izaten dira hiru erakundeetako bakoitzak darabiltzan baliabideak eta hiru erakunde hauek elkarrekiko duten indar harremana. Faktore horien arabera, erabakiak oso ezberdinak izan daitezke, baina baita erabaki horien eraginkortasuna ere. Hori aztertze aldera ekarri ditugu hona bi elkarrizketaturen aipu bana, aurretik ere irakurri dugun aipu bat berrreskuratuz.

“Garai hartan ez neukan oso argi zer izan nahi nuen. Unibertsitatera joan bai, baina zer egin, ez. (...) Garai hartan, 18 urterekin (...) auzoko mugimenduan nengibilen, gazteen mugimenduan nengibilen. Orduan politikan oso sartua nengibilen ta horrek eragin handia zeukan nigan, ta horregatik nahi nun politikarekin... pixka bat mundu horrekin erlazionatuta. Orduan Zuzenbidean sartu nintzen [Zientzia Politikotarako nota nahikoa ez zuelako] ta ikusi nituenean ze totxo estudiantu behar ziren, uf, ez, ez, ez zegoen praktikotasunik (...) Zuzenbidean bukatu nun de rebote. Urte sabatiko bat izan zen.”<sup>1337</sup>

“Momentu hortan nahiko galduta nebilela ziur nao. Banekin ikasteko gogoa neukala oraindik, baina egia esan, karrera ikastea aukeratu nun bezala, ba, posible izango zala ere igual beste moduloren bat aukeratu izana. (...) Ba, pixkat izan zan, igual momentu hortan, zea, zientzia politikoak ikasteko gogoa ere banula. Ba ez dakit. Iguale politikaren inguruan garai hortan oso gainean geundelako ta iguale izenak kointziditzen zulako, ez? Kaleko politika eta karreraren izena. Ba, oso ondo jakin gabe ere zer zan. Izena bietan eman nun, zientzia politikotan eta derechon, ba derecho ere gustora ikasiko nun zerbait zala. Gustoa ikasi zuten karrera bat zala eta gero gauza dexente in zitezkeela holako karrera batekin. Ez zala nik momentu hortan uste nun bezain besteko karrera itxi bat. Ez zala bakarrik abokatutza munduan lan egitea. Beste hainbat irteera bazituela eta aldi berean bizitzako alor asko ikutzen ditulako karrera horrek. Nik uste det batez ere horregatik aukeratu nula karrera hori. Batez ere entzun nitun komentarioengatik gurasoena eta gurasoen inguruko jendeana. O sea, politika inguruan zebilen jende bat ere derecho ikasia zana. Gurasoen lagun batzuk hor Madrilen lanean ibilitakoak edo hor dabiltzanak, pixkat politikan munduan, eta hoiiek denek karrera derecho aukeratu zutelako, ez? Ta nik uste det batez ere horregatik aukeratu nula, entzun nulako nere inguruan

---

<sup>1336</sup> 10. Elk.

<sup>1337</sup> 8. Elk.

horrekiko gauza onak. Nere burua nahiko galduta ikusten nulako eta berdin berdin in nezakelako zientzia politikoak edo derecho.”<sup>1338</sup>

Goiko bi aipu hauek egin dituzten elkarrizketatuen emaitza akademikoak parekoak ziruditen erabakia hartu zuten garai hartan. Esan genezake bi elkarrizketatuen egoera antzekoa zela. Zalantza handien ondoren, biek lehenetsi zuten Zientzia Politikoak ikastea, baina Zuzenbide ikasketetan hasi ziren. Batek emaitza akademikoen batezbestekoa eta besteak familiaren eskuhartzea seinalatzen dituzte erabaki aldaketaren arrazoitzat. Bi elkarrizketatuen ibilbide akademikoak aztertzen baditugu, ezberdintasunak argiak dira: batek berehala utzi zuen Zuzenbidea eta besteak, berriz, zegokion urteetan bukatu zuen. Erabaki hauek ez dute zerikusirik gaitasun indibidualarekin, hiru aldeko harremana osatzen duten erakunde horiekin baizik. Baliteke bi kasuen arteko aldearen gakoa familiaren estrategia izatea, eta norbanakoak hori prozesatzeko duen modua.

Familiaren strategiak inbertsio eraginkorren bidera eramanez dezake ibilbide akademiko jakin bat, baina, era berean, familiaren strategiak kale egin dezake baldin eta norbanakoaren interesa pizteko bezain eraginkorra ez bada, hurrengo aipuan islatzen den bezala.

“Nik ez nekin zer nahi nun, baina garrantzitsua zan... gurasoengandik jasotzen nuna zan garrantzizkoa zela lanbide irteera ona zun ikasketak itea zela. Etorkizun haundiko gauza bat elektronika mundua da ta injenieritza tekniko bat hor itea, etorkizun haundiko, oneko ikasketa bat da. Aitan aldetik, batipat elektrizidade arloan lan in izan du, aditua da, ta berak hori ezagututa, aukera on bat zan semeantzako, ta amak e bai hori pentsatzen zun. (...) Nik arrazoi hori ulertzen nun ta konpartitzen nun, baina ez dakizu zer nahi dezun. (...) [Unibertsitatean nengoela,] hasi nintzan ikasketa unibertsitarioak mespretxatzen bezala. Esperantza neukan interesa sortzen zidan zerbait... Igual umetan dezu oso idealizatuta unibersidadeko ikasketak izatea, ta gero, horren idealizatuaz izatek, ba, frustrazio haundiagoa eragiten dizu. Hezkuntza arloa euki nun mespretxatua bezala ta bizitzatik ikastea eman nion garrantzia. Hezkuntza neukan ongi ez zihoakidan bide bat bezala, baina hor eusten nion pixkat. (...) Gaztetan dituzu oso ideia finkoak, baina bizitza aurrea doan heinean, ba, ba, burua... ikuspegia mugitzen zoaz, malguagoa, ze bizitzak zenbat buelta emateitun ta ikusten dezu gauzak ez dia sota, caballo y rey. (...) Kaltegarritzat neukan injenieritzara bialdu izana, baina gero, ohartu nintzan ezetz, hortik pasa beharra zeola. Inorrek ez daki, ez dauka argi, ez nik ez gurasoek. Gurasoek ikusi behar zutena hori zan, eta hortik hasi. Ez da aurrea atea baina esatezu: Después de visto, zuk zure burua hobeto ezautzen dezunen, joder, ba, claro, hori hartu behar nun, baina después de visto, todo el mundo es listo. Ezin daitekeena esan da kaltegarria izan zala jakin aurretik indako zerbait. Bidea izan zan. Bidea aurkitzeko hortik pasatu nintzan.”<sup>1339</sup>

Baina familiak eta norbanakoak adostasunez egiten dituzten apustuek, eremu aproposalan egiten direnean ere, baldin eta bide eraginkorrenera doitzen ez badira, ez dute etekin potentzial guztia ematen. Hori ikus daiteke hurrengo aipuan.

“Trailean aprobaten dezunean selektibitatea, ate asko itxi iten zaizkizu. (...) Pedagogia ikasi nunean, ez nekin zer zen zehatz-mehatz. (...) OPUSera jun nintzan (...) Inoiz ez zait ahaztuko: La

<sup>1338</sup> 3. Elk.

<sup>1339</sup> 31. Elk.

organización educativa debe estar basada en la fe de dios. Hori izan zan liburu bat iriki ta ikusi nun lehenengo esaldia. Liburua itxi ta esan nun: Nik nola ingoet azterketa hau? Que no creo en nada de lo que pone en el libro (...) Pedagogía OPUSen... hezkuntza, pertsona, beraiek zerbaitetan oinarritzen dute, ta hortan nik inundik inoa ez det sinisten (...) Nik nere buruakin izan nun konfliktoa. (...) Lehen Hezkuntza in nun, ezertarako balio ez duna (...) Beste karreratakoek egin dezakete Lehen Hezkuntzak egin dezakeena. Haur Hezkuntzakoak Lehen Hezkuntzan in dezake lan, baina Lehen Hezkuntzak ezin du Haur Hezkuntzan in, ta Atzerrikoek in dezakete Haur Hezkuntzan baina Lehen Hezkuntzakoak ezin du beste titulaziorik gabe beste ezer in (...) Nik adinagatik aukeratu nun. Nik 6tik 12ra nahi nun, ta tutore izateko, baina gero konturatzen zea: Beste guztiek aukera gehio dituzte guk baino (...) Ta gero konturatzen zea que es la carrera de tontos, que no vale pa nada.<sup>1340</sup>

Hiru erakunde sozialen arteko gatazka sortzen denean, ez da beti familia edo hezkuntza sistema nagusitzen. Norbanakoaren interpretazio lana ere gailentzen da batzutan. Aurreko atalean ikusi dugunaren haritik, norbanakoaren interpretazioak gainerakoei gaina hartzeak ez du esan nahi ibilbide akademikoetan inbertsioa eta etekina bermatzen direnik, ezta kalte egiten duenik ere. Kasu bakoitza aztertu behar da, guztiak ezberdinak direlako. Batetik, erakunde sozial bakoitzaren baliabideak nahiz estrategiak eta, bestetik, erakundeen arteko indar harremanak ezberdinak diren heinean, emaitzak ere ezberdinak izango dira. Zenbait adibide analizatuz, norbanakoak familiaren estrategiari edo hezkuntza sistematik igorritako mezuei aurka egiten dien kasuak ikusiko ditugu.

Hurrengo bi aipuetan islatzen diren egoerek, esate baterako, elkarren antza dute.

“[Musika instrumentu jakin batekin] burubelarri nengilen. Ondo juten zitzaidan. Kualidade pixkat banituen, erreztasun pixkat. Ta ordun hor sartzen zea ta (...) bideak zaramatza pixkat. Ez nun hausnarketa haundirik egin. Ez nintzan oso heldua horretarako. Egia esan, gustatzen zitzaidan. (...) Garai hartako irakasleak esaten zidan: Oso ondo, baina musika (...) hobeto da ikastea beste zerbait. Esaten zidan hobe zela karrera batean saiatzea.”<sup>1341</sup>

“Txikitatik esan ziaten hizkuntzakin... Txikitatik esan izan zieten gurasoei irakasleek erreztasuna neukala hizkuntzakin moldatzeko. Ez bakarrik atzerriko hizkuntzekin, baizik eta euskeraz ere. Pentsatzen det txikitan destakatuko nula hortan. Ta gero interesa baneukan hizkuntzan kontu hortan (...) Incluso irakasleek eta ingurukoek ziurtzat ematen zuten filologia egingo nula. Baina beste batzuk esaten zidaten, gurasoek tartian, aita batez ere, ta irakasle batzuk e bai, hori ez zela... hori nere kontura in nezaken zerbait zela (...) ez zula merezi unibertsitate karrera bat hortaz eitea. Ta gogoratzen det incluso euskerako irakasleak, filologia eginda zeukanak, esan zidala hori ez eiteko, eiteko karrera tekniko bat, zerbait zientifikoa.”<sup>1342</sup>

Goiko bi aipuetan bi elkarrizketatuek umetatik jaso dituzte beren gaitasuna nabarmentzen duten seinaleak. Biek arlo banarekiko mezuak nabarmendu dituzte. Goi mailako ikasketak aukeratzeko unean, ordea, unibertsitateko ikasketen artean prestigio handiena dutenetarantz bideratzeko mezuak oso indartsuak dira hezkuntza sistemako zenbait agenteren aldetik eta, bigarren aipuari dagokionez, baita familiaren aldetik ere. Mezu hauen arabera, elkarrizketatuek beren espektatibak

<sup>1340</sup> 14. Elk.

<sup>1341</sup> 12. Elk.

<sup>1342</sup> 11. Elk.

ibilbide prestigiotsuenetara bideratu behar dituzte, beren ordura arteko ibilbideak horretara bultzatzen dituelako. Aintzat hartu behar da bi kasu hauetan bi elkarrizketatuek bestelako kanpo erreferentziak aurkitu dituztela eta horrek gainerako kanpo presioak orekatze aldera laguntzen diela, baina ezin dugu gutxietsi horrelako egoera batean norbanakoak egiten duen interpretazio lan aktiboa. Norbanakoak bere posizioan aurkitzen dituen baldintzak irakurri egiten ditu eta testuinguru horretan idazten du bere ibilbidearen estrategia.

Gorabeheratsua eta aldakorra izan daiteke norbanakoak familiaren estrategiarekiko eta hezkuntza sistemaren dinamikarekiko izan dezakeen harremana. Esate baterako, hurrengo aipuan harreman horietako baten bilakaera antzeman dezakegu, menpekotasun posizio batetik gatazka posizio batera eta hortik norbanakoaren interpretazioa modu berri batean ekoiztera eta gainerakoekiko nagusitzera.

“Ez neukan nere buruan seguridadea ta orduan gehiago kaso in nien kanpoko mezuei. Baina oain agian in dezaket erreflexio hori urteak pasa ondoren. Momentuan, ba... ez dakit. Nik uste nun... Neri betidanik gustatu izan zait kirolarena (...) Baina gero azkenengo urte hortan batetik nere ikasteko gaitasuna, nota onak, agian hobeto zela aprobeztatzea ta kirola gehio dala afizioa. (...) Nahi gabe, aldatu nun. (...) Esaten ziaten hobe nula ittea karrera serioago bat, gai izanda gainea. Etorkizun hobe... (...) Jaso nun mezua bai zuzenki bai zeharka (...) Igual komentariotan nahi gabe: Hau nola ikasle txarra zen, heziketa fisikoa... (...) Gurasoek ez ninduten gehiegi presionatzen alde batea edo bestea, baina ez dakit zehazki nola, baina nik jasotzen nun hobeto zela medikuntza, edo behintzat egitearena heziketa fisikoa ez zen beste zerbait, beraiek ikusten zutelako zela aisialdiko zerbait eta ez karrera bat itearena. Ta ni seguru eongo banintz... Ez, ez nik seguru dakat, ba, ez liakete ezer esango, baina ni nola nintzen haizea jotzen zun... (...) Neurria hartu nien [ikasketei], baina gero izan nun krisi moduko bat... Jarraitzen dezu dinamika agian gustatzen zaizulako eta ahal dezulako egin, baina gero bapatean konturatzen zea zure bizitza izangoala, lana hortan ingo dezula, zure zea guztia hortara bideratuko dela, ta horrelako karrera batean suposatzen zun e bai beste esparru askotako denbora ta energiaren murriztea, ta nik ez neukan argi ez bata ta ez bestea. (...) Ta orduan ez nintzan ikusten. Nik hogeit urtekin gauza pilo bat in nahi nitun, ta ikastea asko interesatzen zitzaidan gai bat, bai ikusten nun asko estutzen nindun kate bat. Orduan aukera bakarra zan hortik jarraitu edo eten, eta eten in nun, baina ez da hain erraxa ateatzea bidetik. (...) Hasieran medikuntzan [gurasoak] gustora zeuden. Gero hasi zianean nere reflexioak, nere barne zalantzak... Azkenean da ateatzea zure betiko ingurutikan ta zaude zu-ago, zu bakarrik. Batzutan gogorra da, ez dakazulako babes hori, baina beste batzutan benetan barruan dakazuna sentitzeko erraxagoa, ez dakazulako inguruko hainbesteko eraginik. Baina ni nola hain ohituta neon esaten ziatena iten (...) Gurasoek uste zuten ikasteari utzi nahi niola, ez nula in nahi ezer bizitzan ta alper bat bihurtu nahi nula. Nolabaite, ardua falta ta horrelakoak ikusten zituzten. (...) Beharrezkoa izan zan dena haustea. Nolabaite, zerotik haustea. Gogorra da, baina behintzat zuk ematen dituzu pausoak.”<sup>1343</sup>

Itzulpenaren fenomenoak izan daiteke norbanakoa gatazka hauek piztera daramana zenbait kasutan. Familiaren estrategiak eta hezkuntza sistemaren balorazioak transmititzen duten ikuspegia eraldatzea da itzulpena, hots, estrategia baten espektatiba maila mantenduz, estrategia horren izaera aldatzea. Bi adibideren bitartez azaltzen saiatuko gara.

---

<sup>1343</sup> 21. Elk.



“Euskal Filologia gustatzen zitzaidan gehiago. Zuzenbidea jarri nun lehenengo, ba, lanerako aukera gehiago emango zizkidala uste nulako, ta jende guztiak esaten zidan: Zure notekin nola egingo dezu Euskal Filologia? Amak izan ezik. Nere amonak eta hola... Dakazun kurrikulumarekin egin dezakezu injenieritza bat edo zuzenbidea edo ez dakit zer. Dakazun notakin... eta iten dezu notarik behar ez duen karrera, nolabait tontoak ere... (...) Nik pentsatzen nun in behar nula nahi nuna, ta azken momentuan amak esan zidan: (...), ez tonta izan, in zazu nahi dezuna. Azken momentuan esan nun: Ingo det gustatzen zaidana.”<sup>1344</sup>

[Psikologia aukeratu nuenean], nire aitak ondo [hartu zuen], baina nere amak pixkat disgustoa hartu zun. Ba, iruditzen zitzaion karrera hori zala nahiko errexa ta ni, hori, nota onak ateratzen nitunez, ikasi behar nun zeoze zailagoa. Izan zen pixkat drama kontatu nienean ikasi behar nula psikologia. (...) Uste zun izango zala gutxiegia neretzat. Ta institutoan ere irakasleek esaten nienean: Ah, ¿sólo eso? Pero si tú puedes estudiar algo más. Hor izan nun traba txiki bat. (...) Nere amarekin kriston amorrua ematen zidan ta irakasleekin igual ere.”<sup>1345</sup>

Goiko aipuetako diskurtsoa ekoitzi duten bi elkarrizketatuen adibideak oso esanguratsuak dira eta funtsean elkarren antza handia dute. Bi elkarrizketatuek UBIRA arteko ibilbide akademiko dizdiratsua dute eta unibertsitatean zer ikasi erabaki behar duten unean kanpotik oso indartsu iristen zaizkien mezuek transmititu nahi diete beren *gaitasuna* ibilbide akademiko prestigiotsuenetan inbertitu behar dutela. Elkarrizketatu hauek ere badauzkate bestelako kanpo erreferentziak, baina bi kasuetan oso handia da gainditu behar duten presioa eta, hala ere, norbanakoen ikuspegiak gailentzen dira. Itzulpen lanaren paradigma izan daitezke biak ala biak. Familiaren estrategiak eta hezkuntza sistemaren balorazio parametroek ibilbide akademikoen gorengo erpinean kokatu nahi dituzte eta horretarako erabili nahi dituzten bitartekoak prestigio handieneko ikasketa formalak dira. Bi elkarrizketatu hauek, ordea, estrategia horien espektatiba maila oso handia mantendu egiten dute baina strategiaren izaera erabat aldatzen dute: prestigio ertaina duten unibertsitateko ikasketak hautatuz, bide horietan azken muturrera arteko ibilbidea trazatzen dute, azkenerako, maila oso handiko espektatibak beste era batera asetuz. *Maila* dei dezakeguna mantendu egiten dute baina izaera oso ezberdinaren bitartez.

Norbanakoak bere burua gainerakoen aurrean berresteko teknika izan daiteke itzulpena. Baina, era berean, itzulpena ere izan daiteke norbanakoak garai horretan bizi dituen kezkei, sentitzen dituen interesei eta ikusten dituen aukerei erantzuteko modu bat, eta azken kasu honetan familiaren strategiarekiko eta hezkuntza sistemaren seinaleekiko aurkakotasuna sortzeko arrazoia beste bat litzateke, hain zuzen beste bi erakunde hauek ez gai izatea norbanakoak bizi, sentitu eta ikusten dituenak hautemateko.

Elkarrizketatuen diskurtsoetan antzeman dugunez, norbanakoak ekoitz ditzakeen itzulpen lanen eraginkortasunaz jabetzeko zailtasun handiak izan ditzakete bai familiaren estrategiak bai hezkuntza sistemaren balorazio parametroek.

Hirukia osatzen duten erakunde sozialek itzulpen lana onartzen dutenean, sinergia indartzen da, ondorengo aipuan islatzen den bezala.

---

<sup>1344</sup> 19. Elk.

<sup>1345</sup> 25. Elk.

“Duda pila nitun. (...) Empresariales ta hauen astunegiak iruditzen zitzaizkidan. (...) Kirola betidanik gustatzen zitzaidan. (...) Aitak nahiago zun... ez dakit serio... zerbait serioagoa egitea. Ez dakit. Ikusten zuten IVEF pasatiempo bat bezala. Ez dakit. (...) Amak esaten zun nik aukeratu behar nula ta ikusiko zala zer gertatzen zan. (...) Aitak beti económicas, empresariales, holako zerbait nahi zun. (...) Berak arloa kontrolatzen zun. Kutxan egiten zun lan. (...) Etorkezuna ikusten zun. Nik etorkizuna ez nun begiratzen gehiegi 18 urtekin. Nik begiratzen nun zer nahiago nun. Ez nun pentsatzen 25 urtekin ze ingo nun. Berak bai. Berak pentsatzen zun. (...) Azkenean ondo hartu zuten. Onartu zuten. Apoiatu behar ziaten ta aurrera. (...) Adin horretan zure erabakiak dira pixkat... ez dakit nola esan... [barre egiten du]... ez dakizula ondo zer erabakitzen dezun. Nik uste det pixkat zentratu egiten dutela asuntoa. (...) Momentuan esaten dezu: Nik bakarrik egin det dana. Baina gero konturatzan zera pixka bat bideratzen dizutela.”<sup>1346</sup>

Nolanahi ere, argi dago erreferentzia ezagunen erreproduzio ahaleginerantz jotzea baino zailagoa izan daitekeela itzulpen lana egiten ahalegintzea, batik bat zenbait kasutan, bereziki modu bateko edo besteko kanpo mezuak pisu handikoak direnean. Handiagoak dira istilu, zalaparta eta gatazka irekirako aukerak, nahiz eta ez den halakorik derrigorrez gertatu behar. Horren adibide izan daiteke goragoko atal batetik berreskuratzen dugun aipua eta hori egiten duen elkarrizketatuaren ibilbidea.

“Nere aita medikua da eta besteak laguntzen nituela ikusita, igual holako, ez dakit, grin batek bultzatuta [erabaki nuen medikuntza ikasi nahi nuela]. (...) Orduan galdu xamar neon, ze ezin izan nun medikuntza egin eta, bueno, jaungoikoari eskerrak orain, ta, bueno, esan ziaten, ba... gogoratzen naiz esan zidatela nahiko diplomatikoa nintzela eta orduan zeatik ez nuen zuzenbidea egiten. Lo que pasa es que orduan ai nintzan kolaborazioak iten irratan. Horrek asetzen nindun askoz gehiago (...) Etxean gezurrak kontatzen (...) Desastre. (...) Ta nere amona hil zen egunean, tristura hori aprobetxatuz, esan nien gurasoei zuzenbidea utziko nuela eta antzerkia egin nahi nuela, Madrilan, ta onartu zuten.”<sup>1347</sup>

Bestalde, elkarrizketatuen diskurtsoetan ageri diren kasuak aztertuz ondoriozta genezake itzulpen lana ez egiteak aukerak galduarazi ditzakeen gisan, itzulpen lana egiteak ezinbestean dakarrela arriskua. Azken finean, ezagunegiak ez diren bideak jorratzearen ondorio ere bada hori. Arriskuei aurre egiteko funtsezkoak izango dira baliabideen eta estrategien indarra, izaera eta eraginkortasuna. Hurrengo aipuan agerikoa da zenbait kasutan ahalegin handia egin behar izaten dela inbertsio ezezagun eta arriskutsuei etekina ateratzeko.

“Hor gertatzen da COUen gauza berezi xamar bat in nula. Ta izan zan COU bi aldiz in nula. Lehenengo in nun... Nahi badezu esplikatuko dizut. Ez da erraxa esplikatzen baina bueno. COU berez letra mistotatik in nun ta garai hartako... Ez da oso erraxa esaten. Urte asko die. Bueno, danadalakoagatik erabaki nun COU berriro itea zientzietatik asignaturak hartuta, ta gainea nire buruai esaten nion biologia ingo nula ta hortarako, biologia iteko, zientzietako adarretatik indako COU behar nuela. Beraz, selektibidadea in nun ta hurrengo urtean, zetorren urtean, unibertsitatera jun beharrean, COU itea jun nintzan [ikastetxe pribatu jakin batera], Donostiako eskola pribatu

<sup>1346</sup> 27. Elk.

<sup>1347</sup> 22. Elk.

prestigioso batetara, ta in nun COU zientzien alorrean. Eta lehenengo ebaluazioa nik uste det ez zitzaidalda batere ondo atera. Lana gogor in nun baina ez zitzaidan batere ondo atera. Nik uste det presioagatik izan zala. Kableak gurutzatu zitzaizkidala. Edo larritasunen bategatik. (...) Baina bueno, sortu zan egoera arraro batean sentitzen nintzela eta inseguro, eta pixka bat bastante inseguro. (...) Bueno, horri buruz hitz eitea gehiegi ez zait gustatzen. Batek daki. Ba, banekin nere etorkizuna jungo zala ikasketetatik. Unibertsitatean eongo nintzela... Jakinmina banulako alde batetik, ta gero banekilako ikasketekin zerikusia zeukan... ikasketa teknikoekin ez, nolabait esateko zientzietako ikasketa teorikoekin zerikusia eukiko zutenak, ta hortan ibiliko nintzela. Artean, ez neuzkan gauzak bate garbi. Ze gustatzen zitzaidan... Nere lekua zein zan. Gauza ez nun batere garbi. Ta nere berezko joera letretakoa izanik, nere berezko joera ez zana landu nahi nun. Suposatzen det hori izango zala. Presaik ez nula sentitzen momentu hortan. Biologia ez zan nere berezko joera baina sentitzen nun momentu hortan... [isiltasuna] Erronka edo... [isiltasuna] (...) [Lizentziaturan] sei urte t´erdi pasa dituteneako, gauza dexente luzatu zan. Ba, bueno, nola esan, lehenengo urtean lan dexente in nun ta notak atera nitun, hori, baina atea nitun irailan ta hola. Ez dakit nola esan, nola deskribatu. Betikoa, badakizu pasa dezakezula baina antsiedadea... ez dakit nola esan. Esango nuke alde batetik zaila... zaila ez, gogorra in zitzaidalda. Ez karreragatik beragatik... nere egoeragatik, ta aldi berean karreran ikusten nitun asignatura batzuk disfrutatu nitun. Disfrutatu ez nun asignaturaik ez zan eon ikasten horta jarrita. Ordun, nerea ez zan mundu batean ibili nintzen, ikasten nun guztia ahaztu iten nun, baina hala ere, zortziko mediakin bukatu nun. Esan nahi det, nota ona ta hala ere esango nuke ikasketa guztian zehar mingotsa izan zala. (...) Lizentziatura hau bukatu nunean... ze lizentziatura hau uztekotan eon nintzen, ze desesperatuta nenbilen beste istorio batzuegatik... Baina hortan bai, hortan pentsatzeko gaitasun handik ez nun, ezin nun gehiegi nere kabuz gehiegi pentsatu, ta edozein astakeri in aurretik insisititu zidaten komeni zala lizentziatura bukatzea, eukitzeagatik bakarrik, nahiz eta komentzituta neon beste edozein erabaki hartzeko ez nintzela gai, baneon asignaturak atatzeko gai. Hau ateako det ta ikusiko det. Ta gero hotzean pentsatuta, aitortu nion neure buruai horrekin etorkizunik ez nula biologo bezala. Ta ikusi nun irakaskuntza izan zitezela bide bat igual. Ta hori planteatu nunean serio planteatu behar izan nun bukatu ziala nere alegria hoiek, ez dakit ze ikasiko det ta beste ingo det. Ta laneako garaia zala ta momentu hortan ezer ez neukala eskeintzeko. Ta ordun planteatu nun epe laburreko karrera bat, gustoa ingo nuna ta emaitzak emango zizkidana, ta aldi berean pixkat animatuko ninduna. Ordun, ba, majisterio itea erabaki nun.”<sup>1348</sup>

Honenbestez, esan genezake itzulpenaren fenomeno hiru erakunderen arteko harremanaren testuinguruan ulertzen dugula, hain zuzen norbanakoaren, familiaren eta hezkuntza sistemaren arteko erlazioan. Itzulpena, gatazka modu bat da. Kanpotik transmititzen diren espektatiben maila mantentzea baina izaeraz aldatzea du helburu, baina esparru erlatiboki ezezagunetan murgiltzen den heinean, handitu egiten da itzulpen estrategiaren arriskua. Etekinak maximizatzeko aukera gal daiteke baldin eta itzulpen estrategian inbertitzen ez bada, baina itzulpen lanak egiteak ezinbestean dakar arrisku handiagoa eta, ondorioz, inbertsio horretatik eratortzen den etekina ez da guztientzat berdina. Baliabideen eta estrategien indarrak, izaerak eta eraginkortasunak zerikusi zuzena dute emaitzarekin.

<sup>1348</sup> 1. Elk.

## 6. Prekaritatearen kultura

Prekarizazioa ez dagokio soilik lan baldintzei. Prekarietatea, kultura bat da. Ibilbide akademikoan eta profesionalen eraikuntza sozialak zeresan handia du kultura horren ekoizpenean. Orain arte ibilbide akademikoak izan ditugu aztergai. Segidan, ibilbide profesionalak analizatzen saiatuko gara, baina ibilbide profesionalak ez ditugu azalduko ibilbide akademikoengandik aparte beste zerbait balira bezala. Ibilbide akademikoek eta profesionalak elkarrekiko duten harreman sakona kontuan hartuta, elkarrizketatuen diskurtsoetan oinarrituz esango genuke ibilbide akademiko-profesional bakoitza osotasun bat dela, bi pausotan eraikitzen den dinamika sozial bat. Bi pausotan diogunean, horrek ez du esan nahi ikuspegi diakroniko batetik lehenengo bat eta gero bestea egiten direla. Aitzitik, ez dute halabeharrezko hurrenkera jakinik. Bata bestearen atzetik gerta daitezke, baina baita aldi berean edo tartekatuta ere. Horixe da aztergai dugun jende multzoaren ibilbide akademiko-profesionalen ezaugarri bereizgarrietako bat, aurreko belaunaldiekin alderatuz gero behintzat.

Hurrengo azpiataletan aztergai ditugun ibilbideen pauso profesionala nola eraikitzen den analizatuko dugu, honek ibilbideen pauso akademikoarekiko duen harremana aintzat hartuz.

### 6.1 Egoeren aniztasuna

Baiezta genezake lan baldintzen prekarizazioa fenomeno orokortu bat dela baldin eta elkarrizketatuen diskurtsoak aztertzen baditugu. Baina baieztapean eraginkorra dela ukatu gabe, gaztigatuko genuke hankamotz gelditzen dela, batik bat orokortzearen orokortzeaz ezberdintasuna lausotu egiten dituelako. Elkarrizketatuen diskurtsoetan agertzen diren ibilbideak banan-bana analizatzen baditugu eta gero gainerakoekin alderatzen saiatzen bagara, ondorioztatuko dugu lan baldintzen prekarizazioak hedapen oso handia duela baina ez dela heterogeneoki zabaltzen, asimetrikoki baizik. Hau da, lan baldintzen prekarizazioa fenomeno orokortua da baina hedapen asimetrikoa du. Beraz, esan genezake prekarizazioa fenomeno orokortu-estratifikatua dela.

Elkarrizketatuen diskurtsoetan nabarmena da fenomeno hau. Irakurleari analisia errazte aldera, aurreko ataletan egin dugun eran, elkarrizketatuen ibilbide profesionalen azalpen eskematizatuak aurkezten ditugu segidan. Honela, analizatzen ari garen material enpirikoaren erreferentzia eskematizatu eskura izango du irakurleak. Ez dira taula kuantitatiboak, baizik eta teknika kualitatibo baten bitartez, elkarrizketa baliatuz hain zuzen, eskuratu dugun informazioaren gida bat. Xehetasun gehiago nahi duenak, elkarrizketatuen fitxetara jo dezake, eskema hauetan zehaztasun asko galtzen baitira, baina, hala ere, ezin da ahaztu fitxa horiek ere elkarrizketetan jaso dugunaren eskematizazioa direla.

Lan baldintzen prekarizazioa ez dagokio soilik kontratuaren izaerari (ikus III. atala). Beste hainbat ezaugarri ere kontuan hartu beharko lirakeke. Nolanahi ere, bakarrik kontratuaren iraupena eta diru sarreren zenbatekoa aintzat hartuz (enplegu prekarizatuaren muga non dagoen zehaztea oso eztabaidagarria da, jakina, eta azalpen honetara ezarri ditugunak ere halakoxeak dira), argi ikus daiteke prekarizazio fenomenoaren izaera orokortu-estratifikatua (ikus 53. Taula). Elkarrizketatu

guztiek bizi dute fenomeno hau, baina batzuegan aldi baterako eragina besterik ez du, beste egoera bateranzko trantsizioa baino ez da, artean beste batzuentzat beren ibilbideetan egonkorra dirudien egoera dirudielarik. Bestalde, kontuan hartu behar da prekarizazio maila eta mota ugari aurkitu ditugula elkarrizketatuen diskurtsoetan. Esate baterako, egoera ezberdina da soldata 1.000 eurokoa edo 500 eurokoa denean, edo prekarizazioak soldata edo kontratuaren iraupena edo biak aldi berean kaskartzen dituean.

53. Taula: Elkarrizketatuen ibilbide profesionalak																					
Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
1	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*					
2	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*					
3	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	B	B				
4	I	I	*	*	*	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*				
5	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*					
6	I	I	I	I	*	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	B	B	B	L	L	
7	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	B	B	B			
8	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*			
9	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	L	*	*	*	*	*	*	*	*	
10	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	S	S	S				
11	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	B	B	*	*					
12	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	B	B	B	B	B	
13	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	
14	I	I	I	I	*	I	I	*	*	*	*	B	*	*	*	B	B	✓	✓		
15	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*					
16	I	I	*	*	I	I	*	*	*	*	S	S	S	S	S	L	L				
17	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	S	S	S	S	S	S			
18	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	✓	✓	✓	✓			
19	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	B	*	B	B		
20	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	L	L	L		
21	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	B	B	B	B	B	B		
22	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	
23	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
24	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*
25	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	B	✓	✓	✓			
26	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*
27	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	✓	✓	✓	✓	✓	✓		
28	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	B	B	B	B					
29	I	I	I	I	I	I	I	I	*	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S		
30	I	I	I	I	*	*	L	*	*	B	*	*	B	B	L	*	*	*	B	L	
31	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	L	L	*	B	*		

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: Ikurrek lan baldintza egokiak (✓), baldintza prekarizatuak (\*), hilean 1.500 euro edo gehiago irabazten dute baina ez dute kontratu finkorik (B), kontratu finkoa daukate baina hilean 1.100-1.499 euro artean irabazten dituzte (S), langabezia (L) edo ikasten bakarrik (I) adierazten dute. Bestalde, ikurak adierazten du aldi berean ikasten ari zela.

Soilik soldatei bagozkio, elkarrizketatuen arteko aldeak agerikoak dira (ikus 54. Taula). Elkarrizketatuek aitortu dizkiguten kopuruak bere horretan onartuko bagenitu (eta zalantzarik ez dugu kopuru horiek beti ez direla benetakoetara doitzen), aipa genezake, adibidez, elkarrizketatu batzuek 2.000 euro edo gehiagoko soldata egonkorrak dauzkatela elkarrizketaren unean, artean beste elkarrizketatu batzuek 1.000 euro edo gutxiagoko soldata egonkorrak dauzkatelarik. Gainera, soldaten bilakaera aztertuko bagenu eta gutxi gorabehera estimatzeko gai izango bagina

elkarrizketatu bakoitzak hainbat urteren buruan eskuratu duen diru kopurua, elkarrizketatuen arteko aldea oso handia izango litzateke.

54. Taula: Elkarrizketatuen soldatak (euroak)														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
1	I	I	I	I	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>600</u>	<u>600</u>	<u>300</u>	<u>1300</u>				
2	I	I	I	I	300	800	800	800	-	1000				
3	I	I	I	I	I	E	1500	2400	1500	1500	2000			
4	I	I	<u>600</u>	<u>300</u>	<u>300</u>	<u>500</u>	<u>500</u>	500	900	900	900			
5	I	I	I	450	1000	1000	1000	-	1400	1400				
6	I	I	I	600	600	600	600	G	G	G	4000	4000	L	L
7	I	I	I	I	I	I	800	E	1100	1100	2000	1900		
8	I	I	I	I	I	<u>550</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	800	1200		
9	E	300	300	900	1000	L	400	400	700	700	1200	1200	1200	
10	I	I	I	<u>400</u>	<u>400</u>	<u>400</u>	<u>500</u>	1400	1400	1400	1400			
11	I	I	1000	1000	1000	600	1600	1600	560	560				
12	I	I	I	I	I	I	1400	1400	1400	1500	1500	1500	1500	1500
13	I	I	I	I	850	850	850	850	850	850	850	850		
14	I	<u>150</u>	1000	1000	<u>900</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	1650	1650	1650	1650	1650
15	400	400	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000				
16	600	600	800	800	1000	1000	1000	1000	<u>1100</u>	<u>L</u>	<u>L</u>			
17	I	I	<u>1200</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>700</u>	<u>1300</u>	<u>1300</u>	<u>1300</u>	1300	1300	1300		
18	I	I	I	E	E	1600	1600	1600	1600	1600	1600	1600		
19	I	I	1000	1000	1000	1000	1000	1000	600	1600	1600	1780	1780	
20	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
21	I	I	I	I	I	I	I	<u>900</u>	<u>1300</u>	<u>1700</u>	2000	2000	2000	
22	I	I	I	I	900	900	900	900	700	700	1100	1100		
23	I	I	I	700	700	1500	1500	2000	2000	2000	2000	2200	2200	2200
24	I	600	600	600	900	900	900	900	700	700	1100	1100	<u>L</u>	<u>1200</u>
25	I	I	I	I	<u>1000</u>	<u>1000</u>	<u>1000</u>	<u>1000</u>	1200	2500	2500	2500		
26	I	<u>E</u>	<u>150</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	E	1300	1300	<u>800</u>	<u>800</u>	<u>800</u>	
27	I	I	I	1000	1000	1000	1800	1800	1800	1800	1800	1800	1800	
28	I	I	I	I	I	I	<u>2200</u>	<u>2200</u>	<u>2200</u>	<u>2200</u>				
29	I	I	1000	900	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	
30	L	300	1200	1600	1200	1200	1700	1700	L	900	900	900	1700	L
31	I	I	I	<u>400</u>	<u>E</u>	<u>400</u>	400	400	I	I	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
Oharra: I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

Lan kontratuen iraupena kontuan hartuko bagenu, berriz, behin-behinekotasunaren hegemoniaz hitz egingo genuke, baina elkarrizketatuen diskurtsoetan ez da agertzen prekarizazio fenomeno homogeneo bat (ikus 55. Taula). Zenbait elkarrizketatuk ihes egiten diote kontratuaren behin-behinekotasunari.

55. Taula: Elkarrizketatuen lan kontratuen iraupena														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
1	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x				
2	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x				
3	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x			
4	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x			
5	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x				
6	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	L	L
7	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x		
8	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	
9	x	x	x	x	x	L	x	x	x	x	x	x	x	
10	I	I	I	x	x	x	x	x	✓	✓	✓			
11	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x				
12	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x
13	I	I	I	I	x	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓		
14	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
15	x	x	x	x	x	x	✓	✓	✓	✓				
16	x	x	x	x	x	✓	✓	✓	✓	L	L			
17	I	I	x	x	x	x	✓	✓	✓	✓	✓	✓		
18	I	I	I	x	x	x	x	x	✓	✓	✓	✓		
19	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
20	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
21	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	
22	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x		
23	I	I	I	x	x	x	✓	x	✓	✓	✓	✓	✓	✓
24	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	L	x
25	I	I	I	I	x	x	x	x	x	✓	✓	✓		
26	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
27	I	I	I	x	x	x	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	
28	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x				
29	I	I	x	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	
30	L	x	x	x	x	x	x	x	L	x	x	x	x	L
31	I	I	I	x	x	x	x	x	I	I	x	x	x	

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
Oharra: ✓(kontratu finkoa), x (kontratu finkorik ez), I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

Hortaz, ondoriozta genezake lan baldintzen prekarizazioa fenomeno-estratifikatua dela, hedapen zabala baina asimetrikoa duela. Ondoren, fenomeno hori nola eraikitzen den analizatzen saiatuko gara. Azalpenaren gakoa, noski, ibilbide akademiko-profesionalen eraikuntza sozialaren izaera izango da.

## 6.2 Eskolaren abaroan

Ibilbide akademikoek eta profesionalek elkarrekiko harreman sakona dute. Bata bestearen moldean eraikitzen dela dirudi, baina ezingo genuke esan zein egiten den zeinen moldean, zeren batzuetan pentsamendu diakronikoaren bultzadak alde baterantz eramaten gaitu, baina beste zenbaitetan aurrekaritzaren zantzuek eta espektatibaren eraginkortasunak kontrakoa iradokitzen digute. Azken finean, elkar elikatzen duten bi eremu dirudite, elkarrekiko ezberdinak eta autonomoak eta, aldi berean, harreman sakona dutenak. Ez dugu antzeman norabide bakarreko

harremanik, ezta determinismorik ere, eta, halaber, nabarmena da bi eremuek beren historia kolektiboa eta indibiduala dutela eta irizpide nahiz arau propioen arabera moldatzen direla. Baina, era berean, argi ikusi dugu bi eremu hauek ez direla bizi elkarri bizkarra emanaz.

Elkarrizketatuen diskurtsoetan hainbat ezaugarri errepikatu egiten dira bi eremuei buruzko deskribapenetan, baina, gainera, ibilbide akademikoen eta profesionalen eraikuntza dinamikak nahiko antzekoak dira. Are gehiago, ibilbide akademikoek eta profesionalak elkar baldintzatzen dute. Besteak beste, azaldu dugu ibilbide profesionalekiko ikuspegiak eragina duela ibilbide akademikoan, baina alderantzizkoa ere nabarmena da. Ibilbide akademikoan zehar erabili diren estrategiek, eraiki diren ikuspegiak, egin diren ahaleginek, gauzatu diren inbertsioek eta lortu diren etekinek berebiziko garrantzia dute ibilbide profesionalean.

Errazenetik joz, pentsa daiteke ibilbide akademikoan erdiesten diren titulu akademikoak direla osagai garrantzitsu bakarra. Arestian aipatu dugunaren haritik, gogorazi behar dugu ibilbide akademikoan zehar gutxienez lau ardatz lantzen direla: ezagutza, diziplina, pasaportea eta proiektzioa. Hau guztia gaitasuna-ergo-patua sinesmenak indar handia duen testuinguru batean gertatzen da. Beraz, pentsa genezake ibilbide akademikoan zehar ekoitzi diren lau ardatz hauen (ezagutza, diziplina, pasaportea eta proiektzioa) bolumena eta izaera garrantzitsua izango dela baita ibilbide profesionalean ere. Hari honi jarraituko bagenio, ez gintuzke harrizko norbanako bakoitzaren ibilbide akademikoen eta profesionalen artean sortzen den harremanak. Baina bi eremuen arteko harremana hori baino askoz konplexuagoa da, nahiz eta kasu batzuetan ez dirudien halakoa denik.

Berrero aurkezten ditugu informazio kualitatiboen eskemak, irakurleari lana erraztearren. Lehenik eta behin, bereizi egin ditugu ikasketetan batere arazorik izan ez dutenak eta gainerako guztiak. Berrero gogorazi behar dugu bereizketa hauek eztabaidagarriak bezain argigarriak direla, zenbait ibilbideren eraikuntzaren ezaugarriak iradokitzen direlako. Lehenengo talde honetan beste elkarrizketatu batzuk ere sartuko genituzke, izan dituzten arazoak ez direlako hain handiak izan, baina talde honetan soilik ikasketetan ibilbide dizdiratsu nabarmena izan dutenak sartzen ditugunean, begibistakoa da talde nahiko homogeneo bat osatzen dutela (ikus 56. Taula): ibilbide akademiko prestigiotsuenek harremana dute ibilbide profesional prestigiotsuenekin. Elkar elikatzen dute, uztartu egiten baitira aurrekaritza eta pasaportea, espektatiba eta inbertsioa, interesa eta diziplina, proiektzioa eta trebezia.

Gainerakoek, berriz, ez dute talde homogeneoa osatzen (ikus 57. Taula). Ibilbideen aniztasuna zabalagoa da. Sinergia baino bestelako dinamikak nabarmentzen dira: konplexutasuna, kontraesanak, itzulpena, zirrikituak, gatazka, baina baita interesa, inbertsioa eta etekina ere, nahiz eta ez den hainbesteko armoniaz ageri, ezta norabide berean ere.



**56. Taula: Ibilbide akademikoan inolako arazorik izan ez duten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak**

Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
11	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	B	B	x	x					
12	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	B	B	B	B	B	
19	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	B	x	B	B		
23	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	
25	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	B	✓	✓	✓			
27	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓		
28	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	B	B	B	B					

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak

Oharra: Ikurrek lan baldintza egokiak (✓), baldintza prekarizatuak (\*), hilean 1.500 euro edo gehiago irabazten dute baina ez dute kontratu finkorik (B), kontratu finkoa daukate baina hilean 1.100-1.499 euro artean irabazten dituzte (S), langabezia (L) edo ikasten bakarrik (I) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean ikasten ari zela.

**57. Taula: Ibilbide akademikoan arazoren bat izan dutenen elkarrizketatuen ibilbide profesionalak**

Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
1	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x					
2	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x					
3	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	B	B				
4	I	I	x	x	x	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x				
5	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x					
6	I	I	I	I	x	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	B	B	B	L	L	
7	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	B	B	B			
8	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x			
9	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	L	x	x	x	x	x	x	x		
10	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	S	S	S				
13	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x		
14	I	I	I	I	x	I	I	x	x	x	x	B	x	x	x	B	B	✓	✓		
15	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x					
16	I	I	x	x	I	I	x	x	x	x	S	S	S	S	S	L	L				
17	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	S	S	S	S	S	S			
18	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	✓	✓	✓	✓			
20	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	L	L	L		
21	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	B	B	B	B	B	B		
22	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x		
24	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
26	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x		
29	I	I	I	I	I	I	I	I	x	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S		
30	I	I	I	I	x	x	L	x	x	B	x	x	B	B	L	x	x	x	B	L	
31	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	L	L	x	B	x		

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak

Oharra: Ikurrek lan baldintza egokiak (✓), baldintza prekarizatuak (\*), hilean 1.500 euro edo gehiago irabazten dute baina ez dute kontratu finkorik (B), kontratu finkoa daukate baina hilean 1.100-1.499 euro artean irabazten dituzte (S), langabezia (L) edo ikasten bakarrik (I) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean ikasten ari zela.

Nolanahi ere, ezin dugu gutxietsi titulu akademikoaren balioa. Seinale argi bat da, iradoki egiten baitu pasaporteaz gain ibilbide akademiko baten beste hainbat ezaugarri bere baitan har ditzakeela. Ez da bakarrik hainbat lanbidetan jarduteko esleitzen duen lizentzia. Hori garrantzitsua da, baina horrekin batera joan daitezke ezagutza, diziplina eta proiektzioa, ikuspegia, espektatiba, eta sarri saski berean sartuta garraiatzen dira, titulu akademikoak horren xingola izan

nahiko lukeelarik. Esate baterako, unibertsitateko titulua dutenen diru irabaziaz aztertuko bagenitu, bi aldagai horien arteko loturaz gain, bi horiek lortzeko eskatzen diren ezaugarri partekatuak ere aurkituko genituzke (ikus 58. Taula). Posizio prestigiotsurantzko joera ageri da.

58. Taula: Unibertsitateko titulua duten elkarrizketatuen soldatak (euroak)														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
1	I	I	I	I	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>600</u>	<u>600</u>	<u>300</u>	<u>1300</u>				
3	I	I	I	I	I	E	1500	2400	1500	1500	2000			
5	I	I	I	450	1000	1000	1000	-	1400	1400				
7	I	I	I	I	I	I	800	E	1100	1100	2000	1900		
8	I	I	I	I	I	<u>550</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	800	1200		
10	I	I	I	<u>400</u>	<u>400</u>	<u>400</u>	<u>500</u>	1400	1400	1400	1400			
11	I	I	1000	1000	1000	600	1600	1600	560	560				
12	I	I	I	I	I	I	1400	1400	1400	1500	1500	1500	1500	
14	I	<u>150</u>	1000	1000	<u>900</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	1650	1650	1650	1650	1650
17	I	I	<u>1200</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>700</u>	<u>1300</u>	<u>1300</u>	<u>1300</u>	1300	1300	1300		
18	I	I	I	E	E	1600	1600	1600	1600	1600	1600	1600		
19	I	I	1000	1000	1000	1000	1000	1000	600	1600	1600	1780	1780	
21	I	I	I	I	I	I	I	<u>900</u>	<u>1300</u>	<u>1700</u>	2000	2000	2000	
23	I	I	I	700	700	1500	1500	2000	2000	2000	2000	2200	2200	2200
25	I	I	I	I	<u>1000</u>	<u>1000</u>	<u>1000</u>	<u>1000</u>	1200	2500	2500	2500		
27	I	I	I	1000	1000	1000	1800	1800	1800	1800	1800	1800	1800	
28	I	I	I	I	I	I	<u>2200</u>	<u>2200</u>	<u>2200</u>	<u>2200</u>				

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
Oharra: I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

59. Taula: Unibertsitateko titulua ez duten elkarrizketatuen soldatak (euroak)														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
2	I	I	I	I	300	800	800	800	-	1000				
4	I	I	<u>600</u>	<u>300</u>	<u>300</u>	<u>500</u>	<u>500</u>	500	900	900	900			
6	I	I	I	600	600	600	600	G	G	G	4000	4000	L	L
9	E	300	300	900	1000	L	400	400	700	700	1200	1200	1200	
13	I	I	I	I	850	850	850	850	850	850	850	850		
15	400	400	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000				
16	600	600	800	800	1000	1000	1000	1000	<u>1100</u>	<u>L</u>	<u>L</u>			
20	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
22	I	I	I	I	900	900	900	900	700	700	1100	1100		
24	I	600	600	600	900	900	900	900	700	700	1100	1100	<u>L</u>	<u>1200</u>
26	I	<u>E</u>	<u>150</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	E	1300	1300	800	800	800	
29	I	I	1000	900	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	
30	L	300	1200	1600	1200	1200	1700	1700	L	900	900	900	1700	L
31	I	I	I	<u>400</u>	<u>E</u>	<u>400</u>	400	400	I	I	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
Oharra: I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

Unibertsitateko titulua ez dutenen diru irabaziaz, berriz, kontrakoaren erakusgarri dirudite (ikus 59. Taula). Are gehiago, urtetan zehar irabazitako dirua kontuan hartzen badugu, harremana argiagoa da oraindik.

Baina titulu akademikoak lortzea baino fenomeno sakonago baten aurrean gaudela frogatze aldera, baliagarria da lanbide jakinetan lan egiteko lizentzia ematen ez duen beste ezaugarri bat kontuan hartzea: ikasketetan arazorik izan duten edo ez. Baten batek esan dezake titulu akademikoak soilik ahalbidetzen duela posizio okupazional prestigiotsuenerako sarrera, baina ibilbideen fenomeno hori baino askoz konplexuagoa da. Berrito diogu: ibilbide akademikoetan ekoizten diren ezaugarriak (dei diezaiegun ezagutza, diziiplina, pasaporte eta proiektzioa) motor bihurtzen dira baita ibilbide profesionalean ere. Titulu akademiko berbera lortzen duten bi norbanako itxuraz abiapuntu berberetik ekiten diote beren ibilbide profesionalari, baldin eta titulu akademikoa bada erreferentzia bakarra, baina honezkero argi geldituko zen gure analisiaren arabera titulu ofizialik ez duten bestelako ezaugarriek ere berebiziko garrantzia dutela.

Ikasketetan ondo moldatu direnen taldean sartu ditugun elkarrizketatuen diskurtsoak kontuan hartuz esan genezake talde honetako elkarrizketatuek ezaugarri nahiko homogeenak dituztela baita soldaten kopuruari dagokionez ere (ikus 60. Taula).

60. Taula: Ikasketetan ondo moldatu diren elkarrizketatuen soldatak (euroak)														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
11	I	I	1000	1000	1000	600	1600	1600	560	560				
12	I	I	I	I	I	I	1400	1400	1400	1500	1500	1500	1500	1500
19	I	I	1000	1000	1000	1000	1000	1000	600	1600	1600	1780	1780	
23	I	I	I	700	700	1500	1500	2000	2000	2000	2000	2200	2200	2200
25	I	I	I	I	1000	1000	1000	1000	1200	2500	2500	2500		
27	I	I	I	1000	1000	1000	1800	1800	1800	1800	1800	1800	1800	
28	I	I	I	I	I	I	2200	2200	2200	2200				

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
Oharra: I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

Ikasketetan arazoren bat izan dutenen taldekoak kontuan hartzen baditugu, ordea, egoera askoz anitzagoa da (ikus 61. Taula).

Talde honetan dauden artean ikasketen arloko arazoak mota askotakoak eta intentsitate ezberdinekoak izan dira. Horrek elkarrizketatuen arteko aldea azaltzen lagundu dezake, baina hori ez litzateke nahikoa. Talde honen baitako ezberdintasunak azaldu ahal izateko, beste osagai batzuk ere aztertu beharko genituzke. Hori egiten saiatuko gara ondorengo ataletan.

61. Taula: Ikasketetan ondo moldatu ez diren elkarrizketatuen soldatak (euroak)														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
1	I	I	I	I	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>600</u>	<u>600</u>	<u>300</u>	<u>1300</u>				
2	I	I	I	I	300	800	800	800	-	1000				
3	I	I	I	I	I	E	1500	2400	1500	1500	2000			
4	I	I	<u>600</u>	<u>300</u>	<u>300</u>	<u>500</u>	<u>500</u>	500	900	900	900			
5	I	I	I	450	1000	1000	1000	-	1400	1400				
6	I	I	I	600	600	600	600	G	G	G	4000	4000	L	L
7	I	I	I	I	I	I	800	E	1100	1100	2000	1900		
8	I	I	I	I	I	<u>550</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	800	1200		
9	E	300	300	900	1000	L	400	400	700	700	1200	1200	1200	
10	I	I	I	<u>400</u>	<u>400</u>	<u>400</u>	<u>500</u>	1400	1400	1400	1400			
13	I	I	I	I	850	850	850	850	850	850	850	850		
14	I	<u>150</u>	1000	1000	<u>900</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	1650	1650	1650	1650	1650
15	400	400	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000				
16	600	600	800	800	1000	1000	1000	1000	<u>1100</u>	<u>L</u>	<u>L</u>			
17	I	I	<u>1200</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	700	<u>1300</u>	<u>1300</u>	<u>1300</u>	1300	1300	1300		
18	I	I	I	E	E	1600	1600	1600	1600	1600	1600	1600		
20	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
21	I	I	I	I	I	I	I	<u>900</u>	<u>1300</u>	<u>1700</u>	2000	2000	2000	
22	I	I	I	I	900	900	900	900	700	700	1100	1100		
24	I	600	600	600	900	900	900	900	700	700	1100	1100	<u>L</u>	<u>1200</u>
26	I	<u>E</u>	<u>150</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	E	1300	1300	<u>800</u>	<u>800</u>	<u>800</u>	
29	I	I	1000	900	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	
30	L	300	1200	1600	1200	1200	1700	1700	L	900	900	900	1700	L
31	I	I	I	<u>400</u>	<u>E</u>	<u>400</u>	400	400	I	I	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
Oharra: I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

### 6.3 Familiaren itzala

Familiaren estrategiak eragina du baita ibilbide profesioaletan ere. Elkarrizketatuen diskurtsoetan aurkitu dugunaren arabera, ageriko lana egiten ez duenean ere, familiaren estrategia erreferentzia garrantzitsua da, gutxienez bi modutara. Batetik, ibilbide akademiko osoan zehar familiaren estrategiak izan duen eragina ez da desagertzen. Urteetan zehar presioa egiten du bere estrategia seme-alabei transmititzearren. Norbanakoak familiaren presioaren bidetik ibilbide akademikoetarako ekoizten dituen osagaiak erabili egin ditzake norbanakoak ibilbide profesioaletan. Bestetik, familiaren estrategia seme-alaben ibilbide akademikoetan eragina izaten saiatuko da etengabe, kontzienteki nahiz inkontzienteki, propio nahiz nahi gabe, zuzenean nahiz zeharka. Izan ere, familia beti erreferentzia indartsua da, baita erreferentzia horren aurka egiten denean ere.

Espektatibak isla daitezke familian. Segidan aurkezten ditugun aipuak horren adibide izan daitezke.

“[Amari] nik uste pena ematen ziola. O sea, es que azkenean arrastaka zaude. Ez zaude ez toki baten ez beste tokin. Egun guztia lanean ta, ba, pixka bat beti, ba, esperantza... es que ni ez neon ondo ere, ta ordun nik ez nun transmititzen: A, ze ondo naon. Nik beti pentsatu izan det... bueno, beti ez...

karrera bukatu ta ez dakit dan gizarteak edo irakasleek transmititzen ziatena, baina zan: Zuk euki behar dezu lan bat, kristona, kriston diru pila irabazi behar dezu eta izango zea el puto amo (...) Hori karreran eta gizartean. Injeniaritza, ez dakit zer (...) Ta ordun amak ze esaten zidan: Ba, a ver lortzen dezun zeoze hobea, edo pixkat... ba, ai zea zure bidea iten baina ez zaude gustoa, ta ez neon gustoa. (...) Beldurtuta naonean, amak esaten dit: Bai neska, ingo dezu (...) Orain [amari] oso ondo iruditzen zaio, ze oso ondo ikusten nau (...) Aurreneko aldia da estabildade minimo bat lortu detela, inestabildadean, ze ordezkapenak iten ai naiz”<sup>1349</sup> [Lan baldintza askoz hobek dauzka]

“[Gurasoei] nik uste pixkat pena ematen diela. Ta neri ere nere buruak. Tipo hau hain argia izanik ta balio du asko ta lanbidea ez dauka oso-oso (...) Baina gustora hori egiten nabil gaur egun (...) Baina horrek dauka gero ez direla oso lanbide... ekonomikoki eta hola behintzat, baldintzak ez dia onenak. Ta orduan hor ze itezu? Igual hobeto da utzi ta igual hain gustora ez zauden beste gauza bat egin. Igual gero gustora egongo zera. Ez dakit (...) Gaur egun baldin badaukat zalantza ekonomikoki agobiatzen nauena hori da (...) Etorkizunari begira, ba, zalantza asko, ze hola jarraitzea, ba, ez dakit, ez dakit pena merezi dun, ze ez dizu ematen estabildadea. Umeak nahi badituzu ere... Ez naiz asko agobiatzen, baina pixkat. Ez daukat oso argi, baina nahiko nuke (...) Baloratzen ai naiz sartzea bigarren hezkuntzan (...) Baina ez det inoiz indarra lortu, konbikzioa, esateko gaur da eguna.”<sup>1350</sup>

Goiko aipuetan familiak ispilu lana egiten du. Norbanakoak bere burua ikusten du islatuta familiak transmititzen dion mezuan, baina familiak transmititzen duena beti pasatzen da bere estrategiaren galbahetik, eta, hala ere, bi aipu hauetan nabarmena da norbanakoak egiten duen interpretazio lana.

Edonola ere, espektatiben ekoizpenean ikus daiteke norbanakoak eta familiak elkarren erreferentzia erabiltzeaz gain, beti gainerakoen egoeraren erreferentzia erabiltzen dutela. Beraz, espektatiben ekoizpena beti fenomeno erlazionala da. Beti besteekiko harremanean eraikitzen da. Testuingurua osatzen duten gainerako osagaiak funtsezko erreferentzia dira. Norbanakoak bere egoera hobetu nahi duela pentsatzen duenean edo familiak bere seme-alaben egoera hoherentz eraldatu nahi duenean, ezinbestekoa da bestea. Hurbileko erreferentzia gainerakoen lan egoera da, baina oinarrian erreferentzia nagusia gainerakoen ibilbide akademiko-profesionala da. Espektatibak ekoizteko bestearen ibilbide akademiko-profesionala da ardatz, eta horren haritik baita bestearen posizio soziala ere. Horrela eraikitzen da espazio sozial sinbolikoa, hainbat irizpide erreferentziatuz hautatuz eta beste guztiak baztertuz.

Ispilu baino argazki baten negatiboa ere izan daiteke familiaren erreferentzia, hurrengo aipuan bezala.

“[Zuzenbidean matrikulatuta nengoelarik, musika banaketa enpresan hasi nintzenean,] hasieran ez zitzaien gehiegi gustatu, nahiz eta teorian hasieran koltxoi bezela erabiltzen nun ikasketarena eta nolabait konpajinatzen nitun bi gauzak. Baina ez zitzaien gustatu. Beraiek nahi zutena zan lana utzi eta ikasketa batzuk bukatzea tajuz, suposatzen zalako ikasketa hoiendorioz bizitza maila hobeko bat eramango nula. Ordun, hasieran ez zien graziarik egin. Gero, logikoki, ba, lau urtez, bost urtez lanean eonda gero, jendeak, ba, asumitu zun nolakoa zan gauza. Ta gero, montatu nunean enpresa,

<sup>1349</sup> 7. Elk.

<sup>1350</sup> 12. Elk.

ba, bai. (...) Ondo hartu zuten, bazekitelako urte askoz eon nintzala bertan, ikusten zutelako ilusioa neukala, ta batez ere banekilako zertan sartzen ai nintzan, ez zalako bapatean okurritu zitzaiten zerbait, ez nekina nola funtzionatzen zun edo ze gauza in behar zian, o zein deitu behar zan, o nola eskatu behar zan dirua. Zalako gauza bat hemen sartu nuna lau urtez bai nik bai gaur egun nere sozioak bagenekila iten, eta gainea atea genezakela dirua hortatik. (...) Oain gustoago daude.”<sup>1351</sup>

Goiko aipuan norbanakoa itxuraz urrundu egiten da familiaren estrategiatik. Familiak indar handiz lehenesten du goi mailako ikasketetan inbertitzea. Semeak, ordea, bide horretan ez du aurkitzen bere interesa asetzeko aukerarik. Horren ordez, familian bertan aurkitzen dituen erreferentziak erabiltzen ditu. Nabarmena da aitaren ibilbide profesionalak erreferentzia lana egiten duela. Hortaz, familiaren estrategiarekiko aurkakotasunak nabardura ugari dauzka kasu honetan.

Hurrengo aipuan ere familiaren espektatiben aurka egiten du norbanakoak, baina egoera oso bestelakoa da.

“Lanean nengoela sartu zitzaidan gehio ikasteko gogoa (...) Erabaki fuertea izan zan. Asko kostatu zitzaidan, ta jun nintzan ikastera lehenengo kurtsoa Magisteritza, Atzerriko Hizkuntza (...) Zaila izan zan ze nere etxean maila ertain-bajua ta nere ama ta aita beti oso langileak. Nik uste dut badago hor hezkuntza bat dala: Mundu honetara gatoz lan egitera, ez lujoak eukitzeko, bizitzeko. Ta lan bat uztea ez zan nere guraosen buruan sartzen. O sea, zuk hau ikasi dezu. Gainera, guri kostatu zaigu zuk [beste hiri batean] ikastea. Kostatu zaizu egindako guztia. Daramazu zortzi urte lanean. Ez dago lan asko. Ez utzi. Eta gehienbat erabakia zaila izan zan... Ez nekien balio nun irakasle moduan, ez nekien. Bueno, hala ere, lehenengo urtean ibili nintzen lanean eta ikasten (...) Jendeak ez du espero. Baina nik behar nuen zerbait gehiago egin. (...) Unibertsitatearekin kontaktu bat izatea ona da. Unibertsitatean, ez dakit nola esan, daukate informazio bat, ba, langile direnak-eta ez daukatena.”<sup>1352</sup>

Lehenengo aipukoarekin alderatuz, azken elkarrizketatu honen diskurtsoan familia estrategia ezberdin bat islatzen da: eremu akademikoetan inbertsio oso handiak sustatzen ez dituen eta seme-alabak lanaren mundura ahal bezain azkar sartzea bultzatzen duena. Norbanakoak inbertsio akademikoetan eta desinbertsio profesionalen bitartez egiten dio aurre bere familiaren estrategiari.

Konfiantza edo mesfidantza transmititzeko gaitasuna ere badu familiak. Espektatibei lotuta agertzen dira maiz. Interesa ekoizteko eta inbertsiora bultzatzeko faktore garrantzitsuak diren arren, ez dute beti espero zaien etekina ematen.

“Min egin dit igual... onegia naizela sinestarazi didaten pertsonak. Ulertzen? Badaude... eta orduan... Ulertzen diazu? (...) Zuk hontako balio dezu... O sea, horrek nere desioa itzali du. Uste nuen dena errexagoa izango zela. Badaude beste pertsona batzuk esaten dietena: Zuk hontako ez dezu balio, eta horrek, kontrako kutsu bat bezela, aurrerarazten ditu... (...) Zortzi urte pailazoekin nabil, eta ez dirudi aurrera egingo dudarik, baina ez zait inporta, eta horrek kezkatu egiten nau (...) Hori sinestarazi didaten pertsonak egin didate min.”<sup>1353</sup>

---

<sup>1351</sup> 4. Elk.

<sup>1352</sup> 16. Elk.

<sup>1353</sup> 22. Elk.

Nolanahi ere, elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan makina bat zantzu aurkitu ditugu eta, beraz, ondoriozta dezakegu familiaren erreferentzia eraginkorra dela ibilbide profesionalari dagokienez ere. Modu eskematizatuan hainbat erreferentzia aurkeztuko ditugu ondoren. Ez dira datu kuantitatiboak, baizik eta teknika kualitatibo batekin eskuratutako informazioaren laburpen eskematizatu. Ikus ditzagun zenbait adibide.

Familiako kideren batek unibertsitateko titulu akademikoa duenez kontuan hartzen badugu, badirudi seme-alaben espektatiba profesionalen eraikuntzan pisua duela, nahiz eta beti ez duen eraginkortasun maila bera (ikus 62. Taula). Gorantz bideratzen ditu espektatibak, baina erreferentzia horretatik abiatzen diren ibilbide profesional batzuek ihes egiten diote prekarizazioari, beste batzuek ez ordea.

62. Taula: Unibertsitateko tituludun gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak																					
Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
1	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*					
3	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	B	B				
10	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	S	S	S				
11	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	B	B	*	*				
21	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	<u>B</u>	<u>B</u>	<u>B</u>	B	B	B		
22	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*			
23	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
25	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	B	✓	✓	✓		
27	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	✓	✓	✓	✓	✓	✓		

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: Ikurrek lan baldintza egokiak (✓), baldintza prekarizatuak (\*), hilean 1.500 euro edo gehiago irabazten dute baina ez dute kontratu finkorik (B), kontratu finkoa daukate baina hilean 1.100-1.499 euro artean irabazten dituzte (S), langabezia (L) edo ikasten bakarrik (I) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean ikasten ari zela.

Unibertsitateko ikasketak ez dauzkaten gurasoen seme-alaben artean ere ibilbide oso ezberdinak aurkitu ditugu (ikus 63. Taula).

63. Taula: Unibertsitateko tituludun gurasoak ez dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak

Elk.	Adina																					
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	
2	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*						
4	I	I	*	*	*	<u>I</u>	<u>I</u>	<u>I</u>	*	*	*	*	*	*	*	*	*					
5	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*						
6	I	I	I	I	*	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	B	B	B	L	L		
7	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	B	B	B				
8	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*				
9	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	<u>L</u>	*	*	*	*	*	*	*	*		
12	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	B	B	B	B	B		
13	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*		
14	I	I	I	I	*	I	I	*	*	*	*	<u>B</u>	*	*	*	B	B	✓	✓			
15	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*						
16	I	I	*	*	I	I	*	*	*	*	S	S	S	<u>S</u>	<u>S</u>	<u>L</u>	<u>L</u>					
17	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	<u>S</u>	<u>S</u>	<u>S</u>	S	S	S				
18	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	✓	✓	✓	✓				
19	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	B	*	B	B			
20	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	L	L	L			
24	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*		
26	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*		
28	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	B	B	B	B						
29	I	I	I	I	I	I	I	I	*	S	S	S	S	S	S	S	S	S				
30	I	I	I	I	*	*	L	*	*	B	*	*	B	B	L	*	*	*	B	L		
31	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	<u>L</u>	<u>L</u>	*	<u>B</u>	*		

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak

Oharra: Ikurrek lan baldintza egokiak (✓), baldintza prekarizatuak (\*), hilean 1.500 euro edo gehiago irabazten dute baina ez dute kontratu finkorik (B), kontratu finkoa daukate baina hilean 1.100-1.499 euro artean irabazten dituzte (S), langabezian (L) edo ikasten bakarrik (I) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean ikasten ari zela.



Gorago gurasoen posizio okupazional *ona* bezala definitu dugunak ere erreferentzia lana egiten du, baina abiapuntu horretatik ibilbide mota ugari ekoizten dira (ikus 64. Taula).

64. Taula: Posizio okupazional <i>ona</i> duten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak																					
Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
1	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>					
3	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	B	B				
5	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*					
7	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	B	B	B			
10	I	I	I	I	I	I	I	I	I	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	S	S	S				
11	I	I	I	I	I	I	I	I	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	*	B	B	*	*					
12	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	B	B	B	B	B	
14	I	I	I	I	*	I	I	<u>*</u>	<u>*</u>	*	<u>*</u>	<u>B</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	B	B	✓	✓		
17	I	I	I	I	I	I	*	*	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>S</u>	<u>S</u>	<u>S</u>	S	S	S			
18	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	✓	✓	✓	✓			
19	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	B	*	B	B		
21	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	<u>B</u>	<u>B</u>	<u>B</u>	B	B	B		
22	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	*	*	*	*	*		
23	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	*	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
25	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	*	B	✓	✓	✓			
27	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	*	*	✓	✓	✓	✓	✓	✓		
29	I	I	I	I	I	I	I	I	I	*	S	S	S	S	S	S	S	S	S		
31	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>*</u>	<u>L</u>	<u>L</u>	<u>*</u>	<u>B</u>	<u>*</u>	

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: Ikurrek lan baldintza egokiak (✓), baldintza prekarizatuak (\*), hilean 1.500 euro edo gehiago irabazten dute baina ez dute kontratu finkorik (B), kontratu finkoa daukate baina hilean 1.100-1.499 euro artean irabazten dituzte (S), langabezian (L) edo ikasten bakarrik (I) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean ikasten ari zela.

Gurasoek posizio okupazional *ona* ez dutenen artean ere hainbat ibilbide mota ikus ditzakegu (ikus 65. Taula).

65. Taula: Posizio okupazional <i>ona</i> ez duten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak																					
Elk.	Adina																				
	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34
2	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x					
4	I	I	x	x	x	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x				
6	I	I	I	I	x	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	B	B	B	L	L	
8	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x			
9	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	L	x	x	x	x	x	x	x		
13	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x		
15	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x						
16	I	I	x	x	I	I	x	x	x	x	S	S	S	S	S	L	L				
20	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	L	L	L		
24	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
25	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	B	✓	✓	✓			
26	I	I	I	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x		
27	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓		
28	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	B	B	B	B					
29	I	I	I	I	I	I	I	I	x	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S		
30	I	I	I	I	x	x	L	x	x	B	x	x	B	B	L	x	x	x	B	L	
31	I	I	I	I	I	I	I	I	I	x	x	x	x	x	L	L	x	B	x		

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: Ikurrek lan baldintza egokiak (✓), baldintza prekarizatuak (x), hilean 1.500 euro edo gehiago irabazten dute baina ez dute kontratu finkorik (B), kontratu finkoa daukate baina hilean 1.100-1.499 euro artean irabazten dituzte (S), langabezian (L) edo ikasten bakarrik (I) adierazten dute. Bestalde, \_ ikurrak adierazten du aldi berean ikasten ari zela.

Aitzitik, soldatak kontuan hartzen baditugu, gurasoen artean unibertsitateko ikasketak dauzkan norbait egoteak badirudi erreferentzia lan indartsuagoa egiten duela, baina ez du ezer determinatzen (ikus 66. Taula).

66. Taula: Unibertsitateko tituludun gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen soldatak (euroak)														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
1	I	I	I	I	E	E	600	600	300	1300				
3	I	I	I	I	I	E	1500	2400	1500	1500	2000			
10	I	I	I	400	400	400	500	1400	1400	1400	1400			
11	I	I	1000	1000	1000	600	1600	1600	560	560				
21	I	I	I	I	I	I	I	900	1300	1700	2000	2000	2000	
22	I	I	I	I	900	900	900	900	700	700	1100	1100		
23	I	I	I	700	700	1500	1500	2000	2000	2000	2000	2200	2200	2200
25	I	I	I	I	1000	1000	1000	1000	1200	2500	2500	2500		
27	I	I	I	1000	1000	1000	1800	1800	1800	1800	1800	1800	1800	

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

Unibertsitateko titulua ez daukaten gurasoen seme-alabek erreferentzia hori ez izateak ez ditu determinatzen (ikus 67. Taula).

67. Taula: Unibertsitateko tituludun gurasoak ez daukaten elkarrizketatuen soldatak (euroak)														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
2	I	I	I	I	300	800	800	800	-	1000				
4	I	I	<u>600</u>	<u>300</u>	<u>300</u>	<u>500</u>	<u>500</u>	500	900	900	900			
5	I	I	I	450	1000	1000	1000	-	1400	1400				
6	I	I	I	600	600	600	600	G	G	G	4000	4000	L	L
7	I	I	I	I	I	I	800	E	1100	1100	2000	1900		
8	I	I	I	I	I	<u>550</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	800	1200		
9	E	300	300	900	1000	L	400	400	700	700	1200	1200	1200	
12	I	I	I	I	I	I	1400	1400	1400	1500	1500	1500	1500	1500
13	I	I	I	I	850	850	850	850	850	850	850	850		
14	I	<u>150</u>	1000	1000	<u>900</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	1650	1650	1650	1650	1650
15	400	400	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000				
16	600	600	800	800	1000	1000	1000	1000	<u>1100</u>	<u>L</u>	<u>L</u>			
17	I	I	<u>1200</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>700</u>	<u>1300</u>	<u>1300</u>	<u>1300</u>	1300	1300	1300		
18	I	I	I	E	E	1600	1600	1600	1600	1600	1600	1600		
19	I	I	1000	1000	1000	1000	1000	1000	600	1600	1600	1600	1780	1780
20	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
24	I	600	600	600	900	900	900	900	700	700	1100	1100	<u>L</u>	<u>1200</u>
26	I	<u>E</u>	<u>150</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	E	1300	1300	<u>800</u>	<u>800</u>	<u>800</u>	
28	I	I	I	I	I	I	<u>2200</u>	<u>2200</u>	<u>2200</u>	<u>2200</u>				
29	I	I	1000	900	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	
30	L	300	1200	1600	1200	1200	1700	1700	L	900	900	900	1700	L
31	I	I	I	<u>400</u>	<u>E</u>	<u>400</u>	400	400	I	I	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
Oharra: I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

68. Taula: Posizio okupazional <i>ona</i> duten gurasoak daukaten elkarrizketatuen soldatak (euroak)														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
1	I	I	I	I	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>600</u>	<u>600</u>	<u>300</u>	<u>1300</u>				
3	I	I	I	I	I	E	1500	2400	1500	1500	2000			
5	I	I	I	450	1000	1000	1000	-	1400	1400				
7	I	I	I	I	I	I	800	E	1100	1100	2000	1900		
10	I	I	I	<u>400</u>	<u>400</u>	<u>400</u>	<u>500</u>	1400	1400	1400	1400			
11	I	I	1000	1000	1000	600	1600	1600	560	560				
12	I	I	I	I	I	I	1400	1400	1400	1500	1500	1500	1500	1500
14	I	<u>150</u>	1000	1000	<u>900</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	<u>1650</u>	1650	1650	1650	1650	1650
17	I	I	<u>1200</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>700</u>	<u>1300</u>	<u>1300</u>	<u>1300</u>	1300	1300	1300		
18	I	I	I	E	E	1600	1600	1600	1600	1600	1600	1600		
19	I	I	1000	1000	1000	1000	1000	1000	600	1600	1600	1780	1780	
21	I	I	I	I	I	I	I	<u>900</u>	<u>1300</u>	<u>1700</u>	2000	2000	2000	
22	I	I	I	I	900	900	900	900	700	700	1100	1100		
23	I	I	I	700	700	1500	1500	2000	2000	2000	2000	2200	2200	2200
25	I	I	I	I	<u>1000</u>	<u>1000</u>	<u>1000</u>	<u>1000</u>	1200	2500	2500	2500		
27	I	I	I	1000	1000	1000	1800	1800	1800	1800	1800	1800	1800	
29	I	I	1000	900	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	1200	
31	I	I	I	<u>400</u>	<u>E</u>	<u>400</u>	400	400	I	I	<u>E</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
Oharra: I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

Gurasoen posizio okupazional *ona* deitu dugunak erreferentzia lan eraginkorra egiten du seme-alaben soldatetan, goranzko joerak ezartzen baititu (ikus 68. Taula).

Haatik, gurasoek posizio okupazional “ona” ez izateak badirudi beheranzko joera ezartzen duela (ikus 69. Taula). Honek ez du esan nahi joera ekidinezina dela, ezta hurrik eman ere.

69. Taula: Posizio okupazional <i>ona</i> ez duten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen soldatak (euroak)														
Elk.	Adina													
	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33
2	I	I	I	I	300	800	800	800	-	1000				
4	I	I	<u>600</u>	<u>300</u>	<u>300</u>	<u>500</u>	<u>500</u>	500	900	900	900			
6	I	I	I	600	600	600	600	G	G	G	4000	4000	L	L
8	I	I	I	I	I	<u>550</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	800	1200		
9	E	300	300	900	1000	L	400	400	700	700	1200	1200	1200	
13	I	I	I	I	850	850	850	850	850	850	850	850		
15	400	400	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000	1000				
16	600	600	800	800	1000	1000	1000	1000	<u>1100</u>	<u>L</u>	<u>L</u>			
20	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
24	I	600	600	600	900	900	900	900	700	700	1100	1100	<u>L</u>	<u>1200</u>
26	I	<u>E</u>	<u>150</u>	<u>E</u>	<u>E</u>	E	E	E	1300	1300	<u>800</u>	<u>800</u>	<u>800</u>	
28	I	I	I	I	I	I	<u>2200</u>	<u>2200</u>	<u>2200</u>	<u>2200</u>				
30	L	300	1200	1600	1200	1200	1700	1700	L	900	900	900	1700	L

Iturria: Tesi honetarako egin ditudan elkarrizketak  
 Oharra: I (ikasten bakarrik), \_ aldi berean ikasten, E (soldata eskasa), L (langabezia).

Honenbestez, ondoriozta genezake familiaren baitako erreferentziak garrantzitsuak direla, baina erreferentzia hutsak ez duela ezer bermatzen, ez alde batera ez bestera. Erreferentziak eraginkorrak izan daitezen ezinbestekoa da transmisio lana, baina hori ere ez da nahikoa. Hau guztia erakunde sozialen arteko negoziazio harremanen testuinguruan gertatzen da eta, beraz, familiaren baitako erreferentziak eraginkorrak izan daitezen, erakundeen arteko indar harremanek ahalbidetu egin behar dute erreferentzia horien eraginkortasuna.

## 6.4 Subjektuaren lana

Ibilbide profesionalari dagokionez ere, elkarrizketatuen diskurtsoetan aurkitu dugunaren arabera, norbanakoa ez da agente pasibo eta hartzailea, ez da gainean idatz daitekeen orri zuri bat, baina ezta subjektu independentea ere. Norbanakoak testuinguru batean ekoizten du bere ibilbidea. Gainerako erakunde sozialekiko negoziazio harremanean, norbanakoak bere posizioa interpretatu egiten du uneoro. Modu aktibo eta sortzailean aritzen da. Norbanakoaren ahaleginak ahalbidetzen du jarduera hau.

Norbanakoaren izaera aktiboa azaltze aldera, baliagarria izan daiteke, adibidez, norbanakoak ibilbide profesionalekiko espektatibak nola eraikitzen dituen aztertzea, hots, zer irizpideren arabera saiatzen den enplegua aukeratzeko. Hori egin ahal izateko elkarrizketatuen diskurtsoetatik zenbait aipu aukeratu ditugu.

“Karrera bukatu nunean, oso galduta neon. Ez nekin ze in nahi nun, ze iteko gai nintzan. Pixkat nahaste haundia neukan.”<sup>1354</sup>

Lehenengo aipu honetan begibistakoa da norbanakoaren lanaren garrantzia. Testuinguruak informazio ugari transmititzen dio norbanakoari. Guztiei ez die berdina helarazten, noski. Norbanakoaren posizio sozialak baldintzatu egiten du testuingurutik jasotzen den informazioa. Baina, edonola ere, testuingurutik informazio uholdeak jasotzea ez da nahikoa norbanakoak bere estrategia eraiki dezan. Horretarako ezinbestekoa da norbanakoaren interpretazio eta eraikuntza lan aktiboa. Elkarrizketatuen diskurtsoetan antzeman daiteke batzuetan besteetan baino ahalegin handiagoa eskatzen duela, baina, gainera, lan aktibo eta sortzaile hori ez dela beti hain eraginkorra, bi zentzutan behintzat: batetik, emaitza ez da beti izaten estrategia argi bat eta, bestetik, estrategia argi bat eraikitzen denean ere, estrategia horren eraginkortasuna oso ezberdina izan daiteke.

Norbanakoaren interpretazio lanak kritikarako aukera parez pare irekitzen du. Hurrengo aipua horren adibide izan daiteke.

“Zuk ikasten dezu eta esaten dizute la élite y tal cual o lo que sea, prestatzen zera, hizkuntzak ikasten dituzu, etortzen zea a la realidad ta orduan hori izan zan pixkat gogorra, baina, bueno, ni ez nintzan han oso ondo egon.”<sup>1355</sup>

Aipu honetan ikus dezakegun kritikaren izaera eta edukia adibide bat baino ez da. Aipu honetatik atera dugun ondorio garrantzitsuen norbanakoaren kritikarako aukera da. Elkarrizketatuen diskurtso guztietan ikusi dugu. Aipu honetan zehazki, norbanakoak une batean bizi duen egoera kritikatzeko bere ibilbideko hainbat erreferentzia erabiltzen ditu. Hortaz, norbanakoa gai da diskurtso kritikoak eraikitzeko, eta horretarako aukeratu egiten ditu erreferentziak. Hamaika dauzka aukeran eta horietako batzuk hautatuz osatzen du ikuspegi kritikoak. Aukeraketa ez du askatasunez eta independentziaz egiten. Norbanakoaren posizio sozialak baldintzatu egiten ditu norbanakoari iristen zaizkion informazioak. Halaber, norbanakoarengana heltzeko intentsitate eta eraginkortasun maila ezberdina da. Ondorioz, norbanakoak ez du aukera berdintasuna, ezta ikuspegi kritikoak eraikitzen dituen ere. Baina horrek ez du esan nahi kanpokoak determinatzen duenik norbanakoaren kritikotasuna. Inola ere ez. Kanpokoak baldintza sendoak ezartzen dizkio norbanakoari, baina norbanakoak interpretazio eta ekoizpen lan aktibo eta sortzaile baten bitartez eraikitzen du bere posizioa, eta hala egiten du baita ikuspegi kritikoak eraikitzen dituen ere. Edonola ere, *kanpo* eta *norbanako* terminoak bereizten ditugunean, egoera eskematikoki adieraztearren egiten dugu, ez baitugu adierazi nahi bata eta bestea bi gauza bereizi direnik; aitzitik, kanpokoak erraz aurki dezakegu norbanakoan eta, era berean, norbanakoa ere badago kanpokoan.

Bestalde, norbanakoen estrategien eraginkortasuna aintzat hartuz, ezin da testuinguruaren garrantzia inola ere gutxietsi, bi zentzutan bederen: batetik, norbanakoak bere estrategia ekoizten duen unean izan dezakeen eraginagatik eta, bestetik, inbertsioak egiten diren unean

---

<sup>1354</sup> 7. Elk.

<sup>1355</sup> 23. Elk.

testuinguruaren aldaketak etekinetan izan dezakeen eraginagatik. Azken honen adibidea da hurrengo aipua.

“Formatu zea, in dezu bide guztia, baina, gainera, justu arlo batean ez dagola jende gehiegi ta beharra dagona unibertsitatean, ta orduan zortea izan dezu”.<sup>1356</sup>

Norbanakoak arlo bateko esparru oso zehatz batean inbertsioak egiten dituzenean, beti ez dauka informazio nahikoa eta inoiz ez dauka informazio guztia inbertsio zehatz horren eraginkortasuna aurreikusteko eta, beraz, testuinguruaren bilakaerak asko baldintzatzen du inbertsioen errentagarritasuna. Elkarrizketatuen diskurtsoetan aurkitu ditugun hainbat inbertsio a priori maila berekoak diren arren, testuinguruaren esparru oso zehatzen aldaketa txikiak handitu edo txikitu egingo dute etekinen bolumena. Are gehiago, itxuraz inbertsio txikiagoak direnek etekin handiagoak eman ditzakete baldin eta testuinguruaren aldaketek hori ahalbidetzen badute.

Beraz, norbanakoaren lan aktiboa nabarmentzen dugunean, inola ere ez dugu gainerako faktoreen eragina gutxietsi nahi. Gainera, testuinguruak bere indarra bideratzeko modu asko dauzka. Oraintxe azaldu duguna, bat baino ez da.

Nolanahi ere, norbanakoaren lanak berebiziko garrantzia dauka. Gainerako erakunde sozialen indar baldintzatzaile oso handia nabarmentzeak ez du esan nahi norbanakoa determinatua dagoenik. Norbanakoa erabakiorra da.

Esate baterako, unibertsitateko titulu berdina duten eta hezkuntza formalean lan egiten duten bi elkarrizketatuk estrategia ezberdinak dauzkate enplegu arloko egonkortasunari dagokionez.

“Hogeita piko urtekin ez badaukazu beste ardurarik, ba bueno, baina azkenean denok nahi dugu egonkortasun bat”<sup>1357</sup>

“Unibertsitatean sartzia edo kontu hori da... ustet pazientzia haundia euki behar dala zentzu askotan. Ez da gauza bat momentu batetik bestera lortzezuna. Igual pasa behar dezu ordezkapenetan edo kontrato ez oso duinekin denbora pilo bat eta oingoz ez zait inporta edo prest nago. Apustu hori in det nolabait ta, bueno, gustoa nao ta gustatzen zait iten deten lana, baina ez dakit hemendik zazpi urteta jarraitu nahiko deten hola edo nahiagoko deten ziurtasun pixkat gehio emango didan lan bat (...) edo deskonektatzeko denbora gehio emango didana.”<sup>1358</sup>

Titulazio akademiko berdina izanik ere, bi elkarrizketatu hauek antzeko hezkuntza sistema batetik pasa diren arren, ibilbide akademiko eta profesional oso ezberdina dute eta, halaber, haietako bakoitzaren familiak estrategia ezberdina dauka. Era berean, argi dago elkarrizketatu bakoitzaren estrategia oso ezberdina dela, aldea ez dagokiola soilik egonkortasunaren arloari. Ezberdintasunak norbanakoa ez beste faktoreei egotz dakizkioke, adibidez familiari, eta, ziur aski, bi hauen kasuan ez ginateke oker ibiliko. Baina, aldi berean, azalpen hori ez da nahikoa elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan aurkitu dugun aniztasuna ulertzeko. Are gehiago, goiko bi

---

<sup>1356</sup> 19. Elk.

<sup>1357</sup> 8. Elk.

<sup>1358</sup> 11. Elk.

elkarrizketatuen arteko aldea gauzatu dadin ezinbestekoa da norbanakoaren lana, bi zentzutan gutxienez: batetik, norbanakoak bere baitan metatzen ditu bere ibilbidean zehar jaso dituen eraginak eta ekoitzi dituen ohiturak, trebeziak, ikuspegiak, espektatibak, baina, bestetik, norbanakoa ez denez txotxongiloa, bere posiziotik interpretatu egiten ditu bere baldintzak eta lan aktibo baten bitartez ekoitzen du bere estrategia. Hau da, goiko bi elkarrizketatuen kasuan izan zitezkeen egonkortasunari buruzko ikuspegiak justu kontrakoak izatea bi kasuetan.

Azken batean, ukalezina da oso antzeko egoeretan ikuspegi eta espektatiba ezberdinak ekoitzi daitezkeela. Elkarrizketatuen adibideetan adibide asko aurkitu ditugu. Atentzioa ematen dute, esate baterako, familia beraren baitako anai-arreben ibilbideek. Antzematen dira familiak ezartzen dituen joerak, batzuetan joera oso sendoak, zenbaitetan ia ekidinezinak diruditelarik, baina inoiz ez dute seme-alaben ibilbidea determinatzen. Batzuetan familiaren baitako rolek zeresan handia izan dezaketela dirudi: posizio ezberdinean daude, adibidez, gizonezkoak eta emakumezkoak, seme-alaba nagusiak, erdikoa eta txikiak. Gainera, familia guztien estrategiek ez daukate beren helburuak betetzeko eraginkortasun maila berdina. Baina, hala ere, elkarrizketatuen diskurtsoetako ibilbide akademiko-profesionalak aztertzen baditugu, aipatu ditugun faktore horiek guztiak ez dira nahikoa ibilbideen nondik norakoa azaltzeko. Beharrezkoa da norbanakoaren lana kontuan hartzea.

Hurrengo bi adibideak erreferentzia baliagarria izan daitezke.

“Si me hubiera ido mal... Pero como me ha ido bien, me he asentau, me he quedau (...) Si te soy sincera, no quiero trabajar de administrativa, porque gano lo mismo. Está mal pagau. Yo hago ahí mis seis horas, hago, limpio, llego a mi casa y no me llevo el dolor del trabajo, y pagan lo mismo (...) Y el dolor de cabeza que se llevan a casa cuando no salen las cosas (...) Si no estuviera a gusto, buscas otras cosas, te mueves, pero estoy encantada.”<sup>1359</sup>

“[Aurrezki kutxa jakin bateko] lana nik utzi nun. Ba, pixkat aspertua alde batetik, horrelako ebentualidadea ez zalako normala jakinda lanpostu bat iten ai zeala beste pertsona bat bezela, ta bueno, normalena holako kaso batean, kontrato fijo bat eskeintzea, indefinido bat eskeintzea zalako, ez? Nik hori planteatu nien: nahi bazuten [X aurrezki kutxan] gelditzea, hori eskeini beharko ziatela, ta erantzuna izan nun egingo ziatela baina ez zekitela noiz. Ordun, ba bueno, nik beste lan eskeintza batzuk banitun administraziotik eta bueno, lan eskeintza batzuk atzera utzi eta gero, azkenean animatu nitzan administrazioko eskeintza bat onartzea eta oain hortxe nao. (...) Oain Diputazioan iten det lan. Aholkularitza juridikoa ematen diot departamentu bati.”<sup>1360</sup>

Lehenengo aipuan, elkarrizketatuak bere horretan mantentzeko asmoa erakusten du, bere ikuspegiak agintzen diolako ez daukala hobetzeko aukerarik. Bigarreanean, berriz, beste askok nahiko lituzketen baldintzak baztertu egiten ditu, bere ikuspegitik hobe den enplegu batean hasteko. Bi elkarrizketatuak posizio oso ezberdinetan daude, zalantzarik gabe, baina beraien antzeko posizioan dauden beste hainbat elkarrizketatuk beste estrategia batzuk ekoitzi dituzte. Lehenengo aipuko elkarrizketatuari dagokionez, antzeko baldintzetan zeuden beste zenbait elkarrizketatuk mugimendu gehiago egin dituzte inbertsioa-arriskua-aldaketa parametroetan.

<sup>1359</sup> 13. Elk.

<sup>1360</sup> 3. Elk.

Bigarrenari dagokionez, aldiz, antzeko baldintzetan zeuden hainbat elkarrizketatuk ez dute halako mugimendurik egin.

Zeri zor zaizkio mugimendu hauek? Horixe da ikerketa honen muina, eta ez dago erantzun unidimentsionalik. Oraintxe aztergai ditugun bi elkarrizketatuei gagozkiolarik, esan genezake lehenengo aipuko elkarrizketatuaren kasuan familiaren estrategiak eta hezkuntza sistemaren desbalorizazio lanak beherantz tira egin diela elkarrizketatu honen espektatibei. Baina norbanakoak ez du amore eman, ibilbide akademikoan ez behintzat, goi mailako lanbide heziketako ikasketak bukatu egin baititu, ezarri nahi izan dizkioten espektatiben gainetik, baina ibilbide profesionalean, ordea, azkenean hezkuntza sistemak seinalatzen zionaren azpitik konformatu dela dirudi, hots, gainerakoen espektatiben kontra titulu akademiko bat lortu duen arren, titulu akademiko horrek seinalatzen diona baino gutxiago eman du ontzat, gainerakoen espektatibei men eginez bezala. Erabaki honetan familiaren estrategiak eta generoak zerikusia dutela esango genuke. Baina, aldi berean, norbanakoa funtsezkoa da hau guztia ulertzeko. Adin batera arte, norbanakoa ez beste erakunde sozialek beherantz egiten zioten tira eta, hala ere, espektatibak gainditu zituen eta gero, ordea, hezkuntza sistemak gorantz tira egiten dionean, espektatiba horien azpitik kokatzea erabaki du, bere tokia hori delakoan. Norabide ezberdinetan doazen eraginak jasotzen ditu norbanakoak, horiek guztiak aktiboki interpretatzen ditu eta bere estrategia ekoizten du.

Bigarren aipuko elkarrizketatuak, berriz, inbertsio handiak egin ditu adin batetik aurrera, adin batetik behera egin ez zituen bezala. Azken urteetako inbertsioetan oinarrituz egin ditu mugimenduak, antzeko baldintzetan dauden beste elkarrizketatu batzuek erabili ez dituzten inbertsioa-arriskua-aldaketa parametroetan.

Azken finean, bi elkarrizketatu hauek estrategia jakin batzuk ekoitzi dituzte, artean beste zenbait elkarrizketatuk antzeko egoeretan estrategia ezberdinak eraiki dituztelarik. Aztergai ditugun gainerako erakunde sozialen eskuhartzeak zeresan handia du norbanakoen estrategietan, gainerako erakundeek baldintzatu egiten dituzte norbanakoen estrategiak, baina gainerako baldintzak oso antzekoak izanik bi norbanakok estrategia ezberdinak trazatzen dituztenean, norbanakoaren lanaren garrantzia agerian gelditzen da. Ez du eragiten bakarrik antzeko kasuetan, guzti-guztietan nabarmena da, baina antzekotasun handiak daudenean bihurtzen da inoiz baino ikusgarriago.

Inbertsio estrategia da seinale argienetako bat. Adierazle hau bestelako ardatzen artean bat gehiago da, gainerako ardatzekiko autonomia eta elkarrekiko menpekotasuna uztartzen ditu, baina, aldi berean, begibistakoa da eta neurri batean behintzat gainerako ardatzen zeharkako adierazpidetzat ere har liteke, beti ere kontuan hartuz ez dela gainerakoekiko menpeko.

Arriskua, jakina, ez da ezerezaren gainean sortzen, ezta ibilbideetako inbertsio estrategiei dagokienez ere. Sortzen diren arriskuak eta ustez har daitezkeen arriskuak lotuta daude hein handi batean norbanakoaren baliabideekin eta espektatibekin, eta, noski, horietan guztietan inguruko erakunde sozialek duten eraginarekin. Elkarrizketatu guztiak ez daude arrisku jakin batzuk onartzeko egoeran. Mugimendu batzuk askoz arriskutsuagoak dira elkarrizketatu batzuentzat besteentzat baino. Baina horrek ez du esan nahi faktore hauek determinatzen dutenik



norbanakoaren estrategiaren arrisku maila. Faktore hauek baldintzatu egiten dute norbanakoaren estrategiaren arrisku maila, ez determinatu. Aldea oso handia.

Goiko bi aipuekin aldera ditzakegu hurrengo bi aipuak. Norbanakoen estrategien konplexutasuna agerian uzten dute.

“[Fabrikakoa] lan horriblea zan, mekanikoa. Gaizki pasa nun. (...) Fabrikako langileek esaten zidaten: Ahal badezu, in beste zerbait. Melquiades deitzen zan batek esaten zidan: estudia; aquí dinero sí, pero no vas a ninguna parte. (...) [Diseinu grafikoko enpresa batean] izan zan lehenengo lana, letra haunditan. Hasieran ondo, oso gustora, oso rezeptibo neolako. Ikasteko antsia haundia neukan, mundu laborala nolakoa zan. Lehen lan serioa izan zan, nahi nun leku batean. Esperantza haundiakin hartu nun, gero desinflatu ziranak. Lehenengo urtean asko ikasi nun, baina gero estakantatua neon. Soldata txikia neukan, haunditzeko promesak hasieratik in zizkidaten, baina ikasi beharrekoa ikasi nun. Eman zekizkidaketen ardura guztiak eman zizkidaten eta ez zegoen ezer gehio beraien filosofiaren barruan. Ez aurrera ez atzera nengon. Gehio nahi nun ta enpresak ez zidan ematen. Aliziente bakarra dirua zan, baina diruaren promesa, ez diru erreala. (...) Askorentzat lana objetibo bat da. Neretzako bitarteko bat da. Nik nahi det lanak aukera ematea okupazio gustokoak izateko. Gauza berdinak in nahi ditut, baina ez besteen irizpideen esanetara, baizik eta nere arabera.”<sup>1361</sup>

“Ni printzipioz gustora nago lanean. Dakat pilo bat ikasteko. Askotan, jo, profesionalki neretzat gauza txarrena, bueno, ez dakit txarrena, baina neretzat da estankatua sentitzea, ezin dezula gehio ikasi, ta gero los retos. Gero zaude hecho polvo (...) baina behar izaten da. [Lanean ibili nintzen transnasionalean] azkenean esaten nun: ¿Tanto me he preparau pa esto? No, no. Sentitzen zeanean makina haundi baten engranaje bat bezela ta nahi duten formakoa egiten zaituztela... o sea, zu hirukia zera ta egin nahi zaituzte lauki bat, ta berdin zaie, te hacen cuadro. Sentitzen zeanean proiektu baten parte ta zure ideiak baloratuak daudenean gutxi gorabehera.”<sup>1362</sup>

Lehenengo aipuko elkarrizketatuak (6. Elk.) goragoko lehenengo aipuko elkarrizketatuaren (13. Elk.) titulazio akademikoaren parekoa duen arren, baten estrategia inbertsioa-arriskua-aldaketa parametroetan askoz kokatuagoa dago. Bestalde, arriskua onartzeko strategiari dagokionez, bigarren aipuko elkarrizketatuak (23. Elk.) antza handia du goragoko bigarren aipuko elkarrizketatuarekin (3. Elk.), biek bere egiten baitituzte inbertsioa-arriskua-aldaketa parametroak, beste askok gaur egun baztertuko ez lituzketen lan baldintzak alde batera utziz, baina hauetako batek koska bat gorago jartzen ditu bere espektatibak, enpleguaren lan dinamikari asetatsun maila handiagoak eskatzen baitizkio.

Beste makina bat adibide har genitzake elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetatik, hamaika zantzu aurkitu baititugu. Gainerako erakunde sozialen eraginak sortzen duen testuinguruan, norbanakoak bere posiziotik interpretazio lan aktiboa egiten du, bere strategiaren ekoizlea da. Ez dago determinatua. Ez da independentea. Faktoreen arteko harreman sare konplexu batean ekoizten dituzte beren strategiak, nork berea, kopiazina baina imitatze modukoa. Horregatik ez ditugu aurkitu bi estrategia berdina, eta horregatik estrategia batzuek elkarren antza dute. Norbanakoaren lan aktiboa ezinbesteko gunea da ibilbide akademiko-profesionalak azaltzeko.

---

<sup>1361</sup> 6. Elk.

<sup>1362</sup> 23. Elk.

Hau guztia espazio sozial sinboliko batean gertatzen da, sistema erreferentzial baten baitan. Ondorioz, funtsezkoa da *besteak* errepresentatzen duen rola. Nork bere posizioa besteekin alderatzen du, beti ere alderagarriak direla deritzon besteekin, ez beste guztiekin. Erreferentzia horren izaerak eta norberak erreferentzia horri begiratzeko erabiltzen duen posizioak baldintzatu egiten dute norberaren estrategia. Hurrengo aipua esanguratsua da zentzu horretan.

“Baina ez daukat zerekin konparatu. Azken finean ez det besterik ezagutu. Bestea nolakoa izango zan ez dakit. Ordun, ezin det esan hori nahi det. Es que, egia esanda, ez dakit hori nahi dudan.”<sup>1363</sup>

Bestearen erreferentziak motor lana egiten du. Besteak ahalbidetzen du norbanakoak espazio sozial erreferentziala edukitzea. Norberaren posizioa beti termino erlatiboetan eraikitzen denez, beti bestearen posizioaren arabera, espazio sozial erreferentzialaren izaerak sustatu egingo du norbanakoaren estrategiaren izaera era batekoa edo bestekoa izatea.

## 6.5 Aldaba onak

Entxufeak, aldaba onak, kontaktuak, funtsezkoak dira ibilbide profesionalean. Etekinak maximizatzeko bitarteko oso eraginkorra dira. Bi norbanakok baliabide, ikuspegi eta espektatiba berdinak izan arren batek aldaba onak badauzka eta besteak ez, antzeko egoera bati etekin askoz handiagoa aterako dio lehenengoak, baina, gainera, inbertsioa bide errentagarrienetatik bideratzeko aukera handiagoak izango ditu.

Erakunde sozial askotako agenteek ahalbidetzen dituzte kontaktu eraginkorrak: batik bat familiakoek, adinkideek, hezkuntza sistemakoek eta lanaren mundukoek, elkarrizketatuen diskurtsoetan aurkitu dugunaren arabera.

Baliabide hau gehienetan zeharka baino ez da agertzen elkarrizketatuen diskurtsoetan. Batzuek desagerrarazi ere egiten dute, baina maiz esan beharrik ere ez dute, agerian gelditzen baita, nahiz eta faktore honen presentzia eta eraginkortasuna oso ezberdina den elkarrizketatu bakoitzaren ibilbidean. Nolanahi ere, zenbait elkarrizketatuk esplizituki nabarmendu dute aldaba onen garrantzia. Horren lekuko dira segidan aurkezten ditugun aipuak.

“Norberak meritu batzuk in behar ditu, baina lanen %80a ezagunen bidez lortzen da. Ta nik ere azkenean, ba, ezagun batek hau ta horrek bestea (...) Azkenean, lana bilatzen ditek.”<sup>1364</sup>

Lehengo aipuan modu generikoan azaltzen da aldaba onen fenomenoak. Hurrengo bi aipuak, ordea, sektore zehatzei buruzko ekarpenak dira.

“[[kasketek lagundu didate] batez ere (...) mugitzen mundu akademikoan (...) Ezagutzen degun instituzio bat da. (...) Ez dago bide hori bakarrik egiterik. Ondoan ditugu beste doktoregai batzuk ez dutenak izan beka hori edo, beka hori izanda, ez dutenak izan guk bezelako zuzendaririk, ez gaituena zuzendu batere tesia egiten, baina zuzendu gaitu bide profesionalean (...) Askok bideratu gaitu

---

<sup>1363</sup> 27. Elk.

<sup>1364</sup> 9. Elk.

profesioko arlotan. Egin zazu hitzaldi hau, egin zazu kongresu hau, ta ordun asko prestatu gaitu profesiorako.”<sup>1365</sup>

“Jendeak esaten dizu: ¿Y no haces castings? Ulertzen? Castingak egitea errega balitz bezela. Ta, claro, casting bat dago, esan dezagun Tele5-ko serie baterako, baina orduan jende asko dago, baina jende asko. Representanteak asko mugitzen dira, mugitzen dira beren aktoreak jun daitezen, ta nik... esan dezagun kotoa itxi egiten dute ta orduan ez zera enteratzen. Ulertzen? Beti dago enteratzen den xaguren bat, eta hori da garrantzitsua, eta muturra izatea, eta neri asko kostatzen zait, ez dakit, ate bat jo eta: Kaixo, prueba bat egiten didazu? Entzun det... Ikusiko ninduzuke? Oso zaila egiten zait. Baina casting-en asuntoa oso gauza itxia da.”<sup>1366</sup>

Bi aipu hauetan oso argi islatzen da aldaba onen eraginkortasuna: antzeko egoeran dauden bi norbanakok nekez lortuko dute beren etekinak arrakasta maila berdinarekin maximizatzea baldin eta batek harreman sozial biderkatzaileak badauzka eta besteak ez.

## 6.6 Estratifikazioa

Ibilbide profesionalak analizatzen ari bagara, ezinbestekoa da aztergai dugun eremua, enpleguaren erakunde soziala alegia, zertan den ikertzea. Elkarrizkatuen diskurtsoetan argi eta garbi islatzen da enpleguaren prekarizazioa. Aldi baterako kontratuak ezaugarrietako bat baino ez dira. Prekarizazioaren fenomenoak hainbat baliabide erabiltzen ditu estratifikazioa ekoizteko, batzuk klasikoak, beste zenbait nahiko berritzaileak.

Legez kontrako ohiturak ez dira desagertu. Beltzean lan egitea da horietako bat.

“Osteleritzan ez det aurkitu kontratu bat jornada osoa... jornada osoa lan in ta jornada osoa ordaintzen dizutena. Normalean hori ez da existitzen. Normalean da... Beraiek pa curarse en salud, jornada osoa iten dezu baina kontratua jornada erdikoa da, ta gaur egun ere ezagutzen ditudan toki gehienek hola jarraitzen dute funtzionatzen. (...) Nik normalean orduka in izan det [lan] ta orduan dirua ateratzen dezu, baina kontraturik ez daukazu, Ordun, orduka kobratzen dezunean, ikustezu zenbat ordu in dituzun lan, baina paperik ez daukazu, ez daukazu segurorik, ez daukazu bajarik, ez daukazu gauza asko. Eskua puskatzen badezu, ba, ez daukazu inungo bajarik ez ezer. Ezin zea ez gaixotu, ez dituzu oporrak, ez daukazu paga extrarik, ez daukazu ezer. (...) Ez dakizunean ze izango dezun hurrengo urtetan, ba, inestabilidade haundia sortzen da, ta espero dezunean gauza bat eta gauzak ez dianean espero bezela ateatzen, ba, orduan disgustoak etortzen dia. Gaur egun [irakaskuntzan] nahiko estable nao baina, hala ere, ordutan gora-beherak ditut. (...) Ordun hoi ez da establea, ta bizitza bat daukazunean, prestamo bat, seme bat, diru kopuru bat behar dezu hilabetean.”<sup>1367</sup>

Beltzean eta legalki lan egitea nahasten dituzte beste zenbaitek.

---

<sup>1365</sup> 19. Elk.

<sup>1366</sup> 22. Elk.

<sup>1367</sup> 14. Elk.

“Lehenengo beatzi hilabeteak izan zian inungo kontraturik gabe ta ezer gabe, ze hasera batean tipoak esan zidan, ze hasiera batean izango zanez sustituzio bat, ba, tipoak esaten zidan “ya te pagaré”, pasatzen zula mogollón iteaz kontratua, baina bueno, bale, baina karo, egoera luzatzen zihuan heinean, azkenean ultimatuma eman behar izan nun. Soldata mierda bat zan. 50.000 pela zian. Logikoki ez zuten pagatzen ez autobusa ez ezer haruntza juteko, ta egunen batean gelditu behar banun bazkaltzen, nere kontua zan, claro.(...) Eta lehenengo beatzi hilabeteak izan zian hola. Gero, kontratua in ziaten eta igo ziaten soldata 60.000 pelara, zala bueno, un lujazo de la hostia, eta hasi nintzan ardura haundiagoak zeuzkaten gauzak egiten enpresan. Bastante haundiagoak gainea.”<sup>1368</sup>

Legezkoa izanik ere, enplegu estatusa aitortzen ez zaion lana ere ohikoa da. Horixe da, adibidez, bekadunen egoera.

“Bekakin hasten naizenean, nik lan-lana bezela nik ez nun bizi, baina bazan ardura bat, ze jendea etortzen zan laguntza eske. Baina orduan beka bat eukitzea ta ez kotizatzea ematen du ez dala lana. Nik ez nun lana bezela bizi. Nintzen becaria bat.”<sup>1369</sup>

Lanari enplegu estatusa aitortzen zaionean ere, horrek ez du esan nahi dagokiona aitortzen zaionik. Hainbat elkarrizketatuk horri buruzko diskurtso kritikoa azaldu dute. Honakoa horietako bat da.

“Ze garrantzitsua dan rekonozimendua ematea. Ez ekonomikoki, baizik eta bestela (...) Ez nago psikologa moduan. Nago teknikari moduan. Pues, chanchullo de la empresa. Kontratzen banaute psikologa moduan, soldata haundiagoa da. Orduan, ba, horrek amorrua ematen dit (...) Ni hor nago dirulaguntza batzuk daudelako. Dirulaguntza hoiek egongo ez balira, nire irudi hori, beharrezkoa izango litzateke (...) Nik uste det egiten dudana lana oso garrantzitsua dala (...) Orduan, dirulaguntzagatik? Dirua badago. Jarri zazute jende gehio.”<sup>1370</sup>

“Gustatzen zait giroa, baina okerrena da inork ez dula zure lana baloratzen. Jendeak uste du zaudela edozertarako edozein momentutan, eta ia mesede iten dizutela aurreko gauean deituta bi egunetan juteko. (...) Dia ordu pila bat (...) Ez dago batere ondo ordainduta. Suposatzen dun lana ta desgaste fisikoa, ez dago batere ondo ordainduta. Gertatzen dena da normalean hor dabilen jendeari gustatzen zaiola ta engantxatzen zaitu.”<sup>1371</sup>

Egiten den lanaren balioa aitortzea ez da nolanhiko kontua. Hortxe dago estratifikazioaren gako nagusia. Lanak daukan balioa baino lanari aitortzen zaion balioaren arabera ezartzen dira enpleguaren lan baldintzak. Soldata garrantzitsua da, baina, jakina, lan baldintzei buruz ari bagara, soldata baino askoz faktore gehiago hartu behar ditugu kontuan.

Estratifikazioa ekoitzi ahal izateko, izendatze lana derrigorrezkoa da. Izena modu eraginkorrean ezartzen bada, izenak izana ordezkaturiko balu bezala funtzionatzen du. Etiketak bihurtu nahi du lanaren balioaren sinbolo. Izendatze strategiaren arrakastak baldintzatuko du estratifikazioaren

---

<sup>1368</sup> 4. Elk.

<sup>1369</sup> 10. Elk.

<sup>1370</sup> 10. Elk.

<sup>1371</sup> 21. Elk.

eraginkortasuna. Zereginen balioa modu hierarkikoan aitortuz zuzitzen da estratifikazioa. Teknika klasikoa da hau.

Baina estratifikazioa ekoizteko teknika berritzailegoak ere aurkitu ditugu elkarrizketatuen diskurtsoetan. Esate baterako, egiten den lanari, zereginari, balio berdina aitortu arren, lan baldintza ezberdinak esleitzea. Hurrengo aipuan ikus genezake hori.

“Han jarraituko nuke baldintzak ezberdinak izan balira (...) Hor iten duten tranpa da badaudela bazkideak, kooperatibistak direnak, ta gero langileak. Orduan kontratua iten zizuten, otsailean moztu... Orduan, otsailero moztu, berritu, eta ekainera arte. Zergatik? Bestela, kooperatiba batean bazkide in behar zaituztelako (...) Beti zeuden kejaka jendeak lana uzten zulako (...) Esan zidaten momentuz ez zeukatela baldintzak aldatzeko aukerarik (...) Hola funtzionatzen dute (...) Langileak ez dituzte ondo zaintzen.”<sup>1372</sup>

Nukleoan enplegatu egonkorak daude, erlatiboki lan baldintza onenak dauzkatenak. Periferian, berriz, aldi baterako enplegatuak kokatzen dituzte. Enpresarentzat egiten duten lanari dagokionez, zeregin berdina izan dezakete, enpresak hori aitortu diezaike, baina, hala ere, lan baldintza ezberdinak izango dituzte nukleoan eta periferian.

Estrategia honek enpresaren beharrei erantzuten die? Erantzun azkarra baiezkoa da, baina beste galdera bat doakio atzekita: Enpresaren zer beharrei erantzuten die? Hurrengo aipuak hori du hizpide.

“Ba, kontratu mota asko izan ditut hor, beti ere, zea, kontratu ebentualak, konpromezua izanda ere beharra zekatela eta berritzen jungo ziala kontratu hoiek. Ordu, pixkat paradójikoa da egoera hori, ez? Jakinda lana dakazula eta jakinda behar asko daudela enpresa hortan eta gauzak ondo iten dituzula, baina bueno, ez dutela jendea finko egiten, ahalik eta gutxien. Ordu, eskeintzen ziatena zan kontratu bat bestearen atzetik. Ordu, ba, totalean lauzpabost kontratu sinatu nitun hemezortzi hilabete hoietan, bakoitza baldintza ezberdinekoak eta fundamentu ezberdin batekin: batzuk langile baten sustuzio tenporalak eginez gaixotasunagatik, beste batzuk prejubilazio kontratu bati jarraitutako beste kontratu motaren bat... Egia esan kontratu danak ezberdinak izan dia. Kausak ahaztuta ditut. Denak ezberdinak. Baina bueno, denek amankomunean zuten ebentualidadea.”<sup>1373</sup>

Aldi baterako kontratuen diskurtso ofizialaren arabera, epe jakin batera mugatzen diren lanei erantzuten diete, hots, une jakin batean sortu eta epe nahiko motzera desagertuko diren beharrak asetzeko. Beraz, pertsona batek ia etengabe enpresa berean lan egiten duenean, zeregin zehatza aldatzen bada ere, argi dago enpresak pertsona horren beharra ez duela aldi baterako bakarrik, beharra egonkorra da, eta egoera berdina da baldin eta enpresak lanpostu baterako etengabe pertsona bat bestearen atzetik kontratatzen badu. Lanpostua egonkorra da, enpresak duen beharra bezain beste, baina aldiro pertsona ezberdin bat dago lanpostu hori betetzen. Hortaz, zeri erantzuten dio estrategia horrek? Gainera, kontuan hartu behar da nukleoko eta periferiako enplegatuen arteko aldeak ez dagozkiola soilik kontratuaren iraupenari. Beraz, zergatik?

---

<sup>1372</sup> 8. Elk.

<sup>1373</sup> 3. Elk.

Enpresaren ekoizpen kosteak minimizatzeko. Horixe da lehenengo erantzuna. Segidan aurkezten dugun aipuan argi ikus daiteke.

“Udaran parora zoaz ta kontratatzen zaituzte gero (...) Hori dago oso hedatuta. [Herri jakin batean] daude irakasle batzuk era batean kontratatuta, kontratu normalak, ta beste asko gaude orduka. (...) [Musika eskola] munizipala da. Dirua dago ta eskolak oso ondo funtzionatzen du (...) Orduan kobratzen dezu orduka. Orduan iristen dia gabonak ta zuk ez badezu lan egiten, ez dezu kobratzen, eta udaran ere (...) Diru aldetik ibiltzen dia regateatzen. Ni harrিতa nao, ze ez da hainbesteko dirua udaletxe batentzat batipat.”<sup>1374</sup>

Baina periferiako enplegatuari bere lanagatik gutxiago ordaintzeaz gain, periferiako enplegatuek koltxoi lana egiten dute enpresarentzat, hurrengo aipuan adierazten den eran.

“Rekorteak hasi ziren. Gu ebentualak ginan. (...) Pedidoak jaitsi ziren. Papelerak lotuta daude. Beteranoak enpresa batetik bestera mugitzen dira. Lehenengo ebentualak botatzen dituzte. Gero, azkenean, fijoak botatzen dituzte. Beteranoekin gelditzen dira.”<sup>1375</sup>

Arriskua periferiako enplegatuei transferitzen diete. Gorabeherak periferiako enplegatuak ordaintzen ditu. Azken batean, kaleratze librea ohiko bihurtu da. Gainera, gehienetan doako kaleratzea izaten da baldin eta enpresak aldi baterako kontratua amaitu arte itxoitzen badu.

Baina estratifikazio estrategiak botere politika ere badira. Honi esker lan baldintzen gaineko negoziazio indar handiagoa dute enpresek beren enplegatuekiko. Honako aipuak izan daitezke horren erakusgarri.

“Lehenengo, froga bezela sartu nintzen. Egokitzen bazera, soldata aldatuko degu. Ordutegia gogorra zan. Hamar ordu batez beste. Beti berandu arte egoten ginan ta goizean goiz puntual iritsi behar ginan. Bi aldiz bost minutu berandu iristen baginan, bronka botatzen ziguten, ta aurreko egunean hamaikak arte egon ginan igual. Hasieran baldintzak ez ziran onak, baina nire espektatibek gainditzen zuten, baina gauza txarrak pilatu egin ziran eta azkenean jefeari ultimatuma bota nion. Akordiora iritsi ginan despidoa kobratzeko. Gutxi pentsatu zun. Handik astebetera beste bat hartu zun nere baldintza berdinetan. Pentsatzen det enpresa eramateko modua dala. Jende fijo dauka ta ikastetxetik irten berriak hartzen ditu, erretzen dian arte, soldata txikiakin ta lan baldintza gogorretan.”<sup>1376</sup>

“Gainea, nahiko enpresa berexia zan eta bueno, gauza edo estandar asko betetzen zituna. Lankide fijo gutxi eta ahalik eta rotazio gehien langileak ahalik eta baldintza kaskarrenetan egoteko.”<sup>1377</sup>

Indar harreman honek ahalbidetzen du enpleguan egiten den jardueraren baldintza kaskarrak mantentzea. Hurrengo aipuetako batean elkarrizketatuak *lan erre*a kontzeptua erabiltzen du bere enpleguko zeregina azaltzeko. Kontzeptu hau enpleguko jarduerak behartzen dituen ezaugarri fisikoekin nahiz psikologikoekin lotu daiteke.

---

<sup>1374</sup> 12. Elk.

<sup>1375</sup> 6. Elk.

<sup>1376</sup> 6. Elk.

<sup>1377</sup> 3. Elk.

“Oso lan errea da. Tentsio haundikin lan itea. Presa haundikin. Lana atea beharra dao derrior, ta orduan hor sortzen dia mila gauza. Nahi gabe, baina sortu iten dia. Orduan ikusten dezu jendea borondate onez, batzutan txapuza batzuk iten diala, baina presakin dabilenak tentsio hortan, ezinbestean.”<sup>1378</sup>

“Fisikoki zan lan gogorra. Psikologikoki ez zan batere lan gogorra. Fisikoki bai zeren eta denbora guztian pixuakin ibiltzen ginan eta oso azkar egin behar zan lana, baina nik horretan ez neukan arazorik.”<sup>1379</sup>

“Tabernak bere alde polittak dauzka, baina gogorra da. Azkeneako psikologikoki erre itten du asko, batez ere gu genbiltzan bezela jende askokin. Eta iritsi zan momentu bat ero moduan genbiltzala lanean eta jendeak, jende askok, errespetu gutxi du eta aguantatu behar dia gauza asko. Erre itten du psikologikoki.”<sup>1380</sup>

Ez da enpresaren kontua bakarrik. Enplegatu batzuek ere baliatzen dute beren interesen alde eta beste enplegatu batzuen interesen kontra.

“En el trabajo ha habido gente que me ha perjudicau. Pues, por ejemplo, la nueva compañera que tengo y las otras... también. Vamos a decir que sí. Bien por delante, pero por detrás la cuchillada (...) en vacaciones, en trabajos... en las horas de hacer los trabajos. Ellas lo bueno y lo malo para las nuevas (...) Hay como dos grupos (...) Cambian ellas el trabajo. Lo más difícil pa las demás”<sup>1381</sup>

Azken finean, bi dinamika uztartzen dira: batetik, enpresak estratifikazio estrategiaren bitartez bere aldeko aberastasun eta botere politikak sendotzen ditu eta, bestetik, nukleko enplegatuek beren interesak defendatzen dituzte. Bi aurpegi dituen fenomeno hori deskribatzen da honako aipuan.

“Daude hemen nere ondoan funtzionario batzuk ni baino lau aldiz gehio kobratzen ai dianak eta ai zeate ematen neri lan batzuk... O sea, haiei eman ezkeo, izango zituzten kriston jaleuak. Seguraski jende gehio eskatuko zuten edo jende gehio kontratatzekeo edo ez dakit ze. [Administrazio publiko jakin batean] dao jende bat ez dakila oso ondo ze in. Es que [administrazio publiko jakin horretan] daonak ez du ezer iten. Es que hola da. Ta orduan hoiei zeoze eman beharrez, ematen dizkiete holako lanak.”<sup>1382</sup>

Edonola ere, estratifikazio estrategia berritzailearekin batera garai bateko enpleguaren hainbat ezaugarri bere horretan mantentzen dira zenbait enplegutuan, ondorengo bi aipuak kasu.

“Ni printzipioz gustora nago lanean. Dakat pilo bat ikasteko. Askotan, jo, profesionalki neretzat gauza txarrena, bueno, ez dakit txarrena, baina neretzat da estankatua sentitzea, ezin dezula gehio ikasi, ta gero los retos. Gero zaude hecho polvo (...) baina behar izaten da. [Lanean ibili nintzen transnasionalean] azkenean esaten nun: ¿Tanto me he preparau pa esto? No, no. Sentitzen zeanean

---

<sup>1378</sup> 9. Elk.

<sup>1379</sup> 2. Elk.

<sup>1380</sup> 20. Elk.

<sup>1381</sup> 13. Elk.

<sup>1382</sup> 9. Elk.

makina haundi baten engranaje bat bezela ta nahi duten formakoa egiten zaituztela... o sea, zu hirukia zera ta egin nahi zaituzte lauki bat, ta berdin zaie, te hacen cuadrau. Sentitzen zeanean proiektu baten parte ta zure ideiak baloratuak daudenean gutxi gorabehera.”<sup>1383</sup>

“[Fabrikakoa] lan horriblea zan, mekanikoa. Gaizki pasa nun. (...) Fabrikako langileek esaten zidaten: Ahal badezu, in beste zerbaít. Melquiades deitzen zan batek esaten zidan: estudia; aquí dinero sí, pero no vas a ninguna parte. (...) [Diseinu grafikoko enpresa batean] izan zan lehenengo lana, letra haunditan. Hasieran ondo, oso gustora, oso rezeptibo neolako. Ikasteko antsia haundia neukan, mundu laborala nolakoa zan. Lehen lan serioa izan zan, nahi nun leku batean. Esperantza haundiakin hartu nun, gero desinflatu ziranak. Lehenengo urtean asko ikasi nun, baina gero estakantatua neon. Soldata txikia neukan, haunditzeko promesak hasieratik in zizkidaten, baina ikasi beharrekoa ikasi nun. Eman zekizkidaketen ardura guztiak eman zizkidaten eta ez zegoen ezer gehio beraien filosofiaren barruan. Ez aurrera ez atzera nengon. Gehio nahi nun ta enpresak ez zidan ematen. Aliziente bakarra dirua zan, baina ez diruaren promesa, ez diru erreala. (...) Askorentzat lana objetibo bat da. Neretzako bitarteko bat da. Nik nahi det lanak aukera ematea okupazio gustokoak izateko. Gauza berdinak in nahi ditut, baina ez besteen irizpideen esanetara, baizik eta nere arabera.”<sup>1384</sup>

Lehenengo aipuan makineria baten menpe sentitzen den langilea islatzen da, norbera garatzeko eta asetzeko aukerarik ez izatea. Bigarreanean, berriz, lan errepikakorra eta ikasteko aukerarik ematen ez duena agertzen da.

Estratifikazioa eraikitzeke hainbat ardatz erabiltzen dira. Ikerketan zehar azaldu ditugun faktoreek, zalantzarik gabe, eragin handia dute. Ibilbide akademikoa, adibidez, funtsezko irizpide diskriminatzailea da, baina ezin da ahaztu horren azpian beste hainbat eragile izkututzen direla. Baina orain arte gutxi aipatu ditugun beste bi ardatz ere erabiltzen dira estratifikazioaren estrategian: adina eta generoa.

“Eta badaki jende gazteak bankan ze funtzio dun, eta jende gaztearen funtzioa bankan, ba, batez ere da ahalik eta kaña gehien sartzea eta, gainea, helburuak eta jarriz bakoitzaren gestioari. Helburu puntualak ezarri eta haiek betearazteke presioa sartzen dalako, ez?”<sup>1385</sup>

“INEMen [Real Sociedad futbol taldearen zelaia zaintzeke enplegua zela-eta] (...) tipoak esaten zidan: ¿Tú ya sabes cambiar una bombilla? Pues, sí. ¿Tú ya sabes cortar la hierba? Pues, sí. Yo ya ando con la desbrozadora. ¿Y tú la Real Sociedad sabes en qué puesto va?”<sup>1386</sup>

“Haztegi bat zan ta merkatutara neskak bakarrik juten ginan. Asteburutan izaten zian. Asteburutan mutilek ez zuten lanik egiten eta, hala ere, guk gutxiago kobratzen genun (...) Jartzen zituzten kategoria ezberdinak. Mutilak zian jardineruak ta neskak zian jardineru laguntzaileak. Legalki perfektoa da (...) baina hori iten zuten bat mutila zalako ta bestea neska.”<sup>1387</sup>

---

<sup>1383</sup> 23. Elk.

<sup>1384</sup> 6. Elk.

<sup>1385</sup> 3. Elk.

<sup>1386</sup> 7. Elk.

<sup>1387</sup> 7. Elk.



“En la feria de muestras hauek zeukaten beti un stand que era alucinante eta beti eramaten zuten una azafata que era espectacular. Siempre hay en las ferias... para captar clientes... lo que sea. Bueno, ba, tipo honek esan zidan niri a ver feria de muestrasea juan nintkeen para servir cafes y vaciar cenicerros. Necesitamos una chica decente que estuviera como azafata.”<sup>1388</sup>

Generoaren eta adinaren araberako estratifikazio ahaleginak nonahi aurkitu ditugu elkarrizketatuen diskurtsoetan. Batzuetan elkarrizketatuek esplizituki kritikatzten dituzte, besteetan arazorik aipatu gabe onartzen dituzte, naturalak edo aldaezinak balira bezala. Baina, aldi berean, hainbat diskurtsotan aurkitu ditugu mugak urratzeko mugimenduak.

Izan ere, erresistentzia konstantea da. Ikuspegi kritikoaren intentsitatea eta edukia oso ezberdina da elkarrizketatuen diskurtsoetan, baina egon, badago. Mota guztietako diskurtsoak aurkitu ditugu, baita mutur batekoak eta bestekoak ere. Esate baterako, meritokraziaren diskurtsoa erabiltzen dute zenbait elkarrizketatuk hainbat esparrutan. Ondorengo aipua izan daiteke horren adibide.

“Instituzio pribatu batean lan eginda edo publikoa batean lan eginda oso diferentea da, ta hori askotan nabaritzen det lagunekin hitz egiten detenian, beraien lanaz hitz egiten detenian. Nik hemen ikusten detena da, ba, oso... Ez dakit nola esan. O sea, oso... Dena da merituen arabera. Hor zaude zuri dagokizulako ta orduan ez det sentitzen inork lagundu didanik hor sartzen eta ez det uste inork trabatu didanik. O sea, da gauza bat pixka bat mekanikoa bezela. Hor zaude ta listo. Según zeinekin topatzen zean, batek gehio laguntzen dizu eta besteak gutxiago, baina kontra ere ez det euki, ez det sentitu holakorik.”<sup>1389</sup>

Meritokraziaren diskurtsoa norberaren alde bezain beste erabil daiteke norberaren aurka, adibidez nork bere buruari posizio sozial hobea edo okerragoa esleitzen dionean.

Baina lehiakortasunarekiko diskurtso kritikoak ere aurkitu dugu zenbait elkarrizketatuen diskurtsoetan. Honakoa, esate baterako.

“Humanoki erabat ezberdina zen. Kontserbatorioaren leloa esan daiteke zela: Garrantzitsuena da helburua; ia berdin du nola lortzen dezun. Lortu helburua. Ta horrela gabiltza, denak tendinitisa gora, tendinitisa behera, baina gauza da jo behar dezula ez dakit ze kontzertu, ez dakit ze examin (...) Ta han [atzerriko hiri batean] ikasi nun teknika honen bitartez helburua garrantzitsua dala, baina garrantzitsuagoa dala nola lortzen dezun. (...)”<sup>1390</sup>

Are gehiago, erresistentzia esplizituaren diskurtsoa ere aurkitu dugu.

“Nik esaten nion jefeari zirujia ikasi nahi nuela (...) Baina nik diru asko ematen nuen hor (...) Guk erabiltzen degun teknika ikastea oso zaila da. (...) Ordua pagatzen zidan 800 pezeta, ta paziente bakoitzari 80 euro [kobratzen zion] hiru ordu laurden. Ta materiala esterilizatu egiten da eta erabiltzen dezuna da pasta bat. Baina azkenean beste guztia... Material oso gutxi gastatzen da (...)”

---

<sup>1388</sup> 23. Elk.

<sup>1389</sup> 11. Elk.

<sup>1390</sup> 12. Elk.

Lana oso manuala da. Ordaintzen dena manuala da. Ta ai gera hitz egiten lau silioi. Bat bazkaltzera doa ta beste bat sartzen da. (...) Nere esperientzia oso txarra izan zen, traumatikoa. Nik neuzkan kontratu txiki pilo bat. Lehenengo zan baja por enfermedad, gero amatasun baja, gero ez dakit zer de prácticas. Orduan, nerekin más o menos normal zegoen, baina kontratu aldaketa hoietan egiten zian lavado de cerebro: Gaizki egiten duzu, ez duzu ezertarako balio (...) Gainera, nere gurasoak hain langileak izanda, ni ez nintzan juaten etxera kejaka. Esaten nuen: Hau normala da. Baina gero puntu batera iritsi nintzan ta esan nun: Ez da normala. Kontratu aldaketa neukan bakoitzean, ez dakit tipoak pentsatzen zun gehio eskatuko niola, baina zan machaque psicológico... pasada bat... Igual pazientearen aurrean kristonak esan (...) Angustia bat. Ez nun jun nahi. Hola bi edo hiru urte. Amari esan nion ta esan zidan: Jungo zea gizon horregana ta esango diozu ez baduzu balio higienista moduan, bazoazela. (...) Joan nintzan, esan nion (...) eta hasi zan ez ni baloratzen, (...) ez zidan ezer positiborik esaten (...) baina bera bere tokian jarri nuen. Lortu genuen ekilibrio bat, baina beti tentso. (...) Baina banekien bera gelditzen. (...) Hotza bihurtzen zea.<sup>1391</sup>

“Iritsi ginen egotea hiru hilabete kobratu gabe eta esan nien: Bihar asmoa daukazue etortzeko? Baita ere salsera naiz gauza hoietako baina esan nien: Ni bihar ez naiz etorriko. Ez kobratzeko? Danak ai dia etortzen. Mutilak ai dia kobratzen bere soldata ta guretzat ez dao baina guk lan in behar degu? Ba neri ez zait normala iruditzen. Baina ez bagea etortzen, botako gaituzte. ¿Pero qué más te da? Hemen edo kanpoan vas a seguir sin cobrar. (...) Ni jun nintzanean fabrika hartan bizi zian akojonatuta.”<sup>1392</sup>

Langileen arteko elkartasuna islatzen duen diskurtsoa ere ekoitzi dute zenbait elkarrizketatuk, ondorengoak kasu.

“Lankideekin oso ondo. Geneukan oso konplizidade haundia, gehienbat argi zeolako nolabait esateko gaiztoa edo adarra jo beharrekoa jefea zala. (...) Jefeak arazo haundi bat zaukan ta zan berez ez zekila ze produktu erosi ta zeintzuk saltzen zian. Guk eramaten genuen hori. Baina aldi berean ez geneukan soldata duinik eta ez zigun kaso iten. Eta berak beti zaukan arrazoia. Arazoren bat gertatuta, kulpa beti langileena zan. Ordun, zuk kobratzen zenun bitartean puta mierda bat, tipoak esaten zizun erosi zizula ehun ta piko milioiko etxea Ibizan. Ordun, azkenean bihurtu zan, ba ez dakit, akzio-erreakzio putada egoera bat.”<sup>1393</sup>

Testuinguru honetan ekoizten dira langile sare estratifikatuak. Baina dinamika hau ez da soilik enpresa barruan garatzen. Enpresen artean ere ikus daiteke. Horrela sortarazten da enpresen sare estratifikatua. Segidan aurkezten ditugun aipuak izan daitezke estrategia horren erakusgarri.

“Zeuden irakasle batzuk direktoki udaletxeak kontratatzen zitun. Hori udaletxearentzat zama bat da, beste langile bat, seguridadea, eskubideak dauzka. Ez dakit zeintzuk baina badauzka ta askotan kontuatzen zea, ba, zu nola jornada oso txikirako zoazen, ba, zuri zuzenean kontratatu orde, subkontratatzen zaituzte. Hori udaletxeek iten dute.”<sup>1394</sup>

“Zea multionazional baten barruan enpresa subkontratu bat, txiki-txikia. (...) Lanean [aritzen gara] besteen antzeko, lan batzutan. Gero, soldatan eta zubietan ta hori, ba, ez. (...) Bertakoak dianak

<sup>1391</sup> 16. Elk.

<sup>1392</sup> 26. Elk.

<sup>1393</sup> 4. Elk.

<sup>1394</sup> 12. Elk.

dituzte beste eskubide batzuk: dirua dala, jantokia dela edo aukera ezberdinak ikasketak egiteko, guk ez ditugunak. (...) Zerbait danean zikina edo lan gehio in behar da edo orduak sartu behar diala eta abar, orduan subkontratak daude. (...) Bertakoak ordurik [extrarik] ez dute sartu nahi. (...) Enpresa subkontratatuak enpresa barruan daude, fisikoki, ta iten dezu lana etxeko batekin, beste batekin parez pare, bikote bezela o momentuan horrekin o beste batekin. (...) Dena toki berean da.”<sup>1395</sup>

## 6.7 Atomizazioa

Estratifikazioak taldekatze mota asko ekoitz ditzake. II. atalean azaldu dugunez, estratifikazioak bereizketa eta homogeneizazioa sustatu ditzake aldi berean: adibidez, baldintza ezberdinetan dauden pertsonak bi multzotan kokaraztera bultzatu ditzake, horrela, batetik, bi taldeen arteko bereizketa jorratuz eta, bestetik, talde bakoitzaren baitan daudenen arteko homogeneizazioa sakonduz. Ez da hori elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan aurkitu dugun estratifikazio mota.

Atomizazioa da estratifikazio prekarizatuaren egituraketa, elkarrizketatu ditugun diskurtsoetan azaltzen diren egoeren arabera. Egoera horren oinarrietako bat langileen mugikortasun handia da. Ondorengo bi aipuak izan daitezke egoera horren erakusgarri.

“Daon rotazioekin ta hola... Oso hotza da (...) Zuk han pasatzen dituzu hiru aste ta fuera.”<sup>1396</sup>

“Pixkat zaude hemen ta pixkat nago han. Orduan, gauza askotaz ez zea enteratzen.”<sup>1397</sup>

Jardueraren abiadurak ere sustatzen du atomizazioa, hurrengo aipuan ikus daitekeen bezala.

“Lankideak bakarrik. Harremana ez zan estua. Harremana nahiko... urrutiko harremana zan. Batzuetan ez genuen ezta hitz egiten. Lana oso azkarra zan ta orduan ez zizun denbora ematen hitz egitea jendearekin. Denbora guztian zure lana iten zenun zu bakarrik eta listo.”<sup>1398</sup>

Baina estratifikazioa ez da homogeneoki hedatzen. Nukleoan eragin txikia du, artean periferian nukleotik urrundu ahala atomizazioa handiagoa delarik, segidan aurkezten dugun aipuan azaltzen den gisan.

“Badago talde txiki bat... edo badago jende kopuru txiki bat, ba, harreman oso ona dakatena, ba, zalantzaren bat izanez gero, arazoren bat, edo zerbait behar izanez gero, lasai jo dezaketelako beraingana. [Beste leku hartan lan egiten nuenean], aldiz, sentitzen nintzan han erori nintzala zerutik ta, ez dakit, pixkat hor bakarrik.”<sup>1399</sup>

---

<sup>1395</sup> 29. Elk.

<sup>1396</sup> 7. Elk.

<sup>1397</sup> 27. Elk.

<sup>1398</sup> 2. Elk.

<sup>1399</sup> 11. Elk.

Testuinguru honetan areagotu egiten da langileen arteko gatazka. Atomizaziorik gabe ere egongo litzateke, posizio guztiak erabat homogeneousatuta ez daudenean behintzat, baina atomizazioak handitu egiten du gatazka. Langile bakoitzaren posizioa ezberdina den heinean, ezberdinak dira posizio horri dagozkion interesak, beti ere norberak bere posizioa interpretatzeko duen modu aktiboaren arabera, eta, ondorioz, estratifikazio atomizatzaileak ezin konta ahala posizio ekoizten baditu, handitu egiten da langileen artean gatazka pizteko aukera baldin eta langileek gatazka horren aurkako diskurtsoak eraikitzeke gai ez badira.

“Son las típicas que cobran sin hacer nada y luego vienen exigiendo derechos, y luego su trabajo va encima al nuestro, porque tenemos que sacar los dos adelante, porque sino, se queja el cliente.”<sup>1400</sup>

“Tema de poder, de subir, de trepas. Asko zeon. (...) Empresa barruko kontua zan. Igual zerbait gaizki dezunean, normalena da jun eta esatea, baina han azkenean ia moda zan e-mail bat bidaltzea denei con copia a los jefes mayores esanez: Has hecho mal esto. Barruko gerrak ziren. (...) Igual bere lana kritikatzeko zuten nere jefea kritikatzeko ta hori egiten zuen beste batek nahi zulako nere departamentuan sartu.”<sup>1401</sup>

“Lankideak nik bizi ditut kaltegarriak bezala onuragarriak baino, ze frenatu egiten didate nik lan egiteko modua. Batzutan aldatu behar det pixkat lan egiteko sistema, egokitzeko ikuspuntu horietara. Psikiatrakin batzutan zaila da harremana. Medikazioa jarri behar zaiola norbaiti uste baduzu, psikiatrarekin hitz egin behar da, ta orduan bai. Lankideak uste det dirala nere oztoporik haundiena. (...) Psikiatreek gu mespretxatu egiten gaituzte eta orduan gure iritzia dago beste maila batean. Esfortzu haundiagoa egin behar dezu zure iritziak pisu haundiagoa izan dezan.”<sup>1402</sup>

Meritokraziaren ideia-sistematik eratortzen den lehiakortasun giroa funtsezkoa da estratifikazio atomizatzailea eraginkorra izan dadin, baina horrek ez du esan nahi diskurtso hori kontrako ikuspegi kritikorik gabe zabaltzen denik. Ondorengo aipuak horixe adierazten du.

“Profesionalki oso onak dia. Alde batetik, eskerrak etorri ziala. Guri erakutsi ziguten pilo bat. Baina da jendea, hori, bizi izan dena beste gizarte batean, puteatuagoak, ta han bai ikasi behar zenula: Edo onena naiz edo ez naiz ezer. Filosofia hori daukate. Oso konpetitiboa. Uztazu gauza guztiak. Lehenengo hau, hau ta hau, ta zu gaztea zea. Oso arkaikoak horretan. Nobiak utzi, ze horrek ez zaitu inora eramango (...) Nahi dezunean irabazi, zankadila jarri behar diezu ingurukoei (...) Batek esaten zun, nahiko despektiboki, baina esaten zun: Honi kentzen diozu instrumentua, ta zer da? Tximu bat kakaueteak jaten.”<sup>1403</sup>

Estratifikazio atomizatzaileak nabarmen zailtzen du langileen arteko elkartasuna eta honetatik erator daitekeen mugimendu kolektibo kritikoa. Oztopoak enpresa bakoitzaren baitan ez ezik enpresen arteko langile sareetan ere begibistakoak dira, hurrengo bi aipuetan ikus dezakegunez.

“Gure artean hitz egiten genuen baina ez genuen oinarriarik gure artean ezer egiteko, ze bakoitzak zeukan bere egoera pertsonala (...) Orduan bakoitzak berea burukatu behar du. Ezin dezu bat egin

<sup>1400</sup> 13. Elk.

<sup>1401</sup> 23. Elk.

<sup>1402</sup> 25. Elk.

<sup>1403</sup> 12. Elk.

aurrera iteko. Dao oso atomizatua asuntoa. Orduan zuk nahi badezu zurea burukatu edo protestatu... baina nik daukat beste koiuntura bat ta ni ez naiz sartuko zurean”<sup>1404</sup>

“[Transnazonal jakin bateko enpresa azpikontratatu baten enplegatuen eskubideak defendatzeari dagokionez], zaila da hori. Bertakoek berez ezin dute sartu... dia delegatuak [transnazonaleko] langileenak. Subkontraten langileenak ez dira. Horregatik ezin dituzte defenditu, o bai... gauza batzutan saiatzen dira, baina berez ezin dituzte defendatu, ta subkontratetan daudenak in behar dutena da, pues, beraiek enpresan bertan saiatu dirua ateratzen. Zaila da. (...) Subkontratetan ez dago indar nahikoa hori lortzeko.”<sup>1405</sup>

Estratifikazio atomizatzaileak langile sare estratifikatuak ekoizten ditu bai enpresa bakoitzaren barruan bai enpresen arteko harremanean. Politika honek ez dio produktu eta zerbitzuen ekoizpen beharrei erantzuten, langileekiko negoziazio gaitasuna handitzeko borondateari baizik. Langileak behartzeko bitarteko eraginkorra da. Langileen posizioak bereizteko joera nagusitzen da. Estratifikazio atomizatzailea taldekatze homogeneizatzaileak ekiditen ahalegintzen da. Arrakasta gorabeheratsua du. Berdinen arteko elkartasuna ere aurkitu dugu elkarrizketatuen diskurtsoetan, baita ezberdinen arteko gatazka eta adostasuna ere. Baina, nolana ere, esango genuke estratifikazio atomizatzailea dela aztergai ditugun pertsonen ibilbide profesionalak azaltzeko ezaugarri indartsuenetako bat.

## 6.8 Ziurgabetasuna

Ibilbide profesionalen prekarizazioak ziurgabetasuna hedatu du. Etorkizunerako bermerik ez izatea da ziurgabetasuna, gaur hemen eta bihar han ibiltzea, norberak aukeratu gabe, etena noiz gertatuko den jakin ezin denean. Ziurgabetasunak zentraltasun handia du prekarietatearen kulturaren. Ondorengo aipuetan ohikoak diren egoerak ikus ditzakegu.

“Azken momentuarde ez dakik oso ondo ze pasako dan hikin. Bat bueltatu behar dek sei hilabete barru, bestea bi barru, baina bitartean beste bat jun iten dek. Plantilako zea nahiko konplikatu dek (...) Askotan ez dakik azkeneko momentuarde ze pasako deken hikin. Bueno, ni, egiya esan, ni hamar urtean ibili naizen bezela ibilita, jakittea sei hilabetetan hemen eongo naizela ta hala hilabetetan bukatzen zaitela... pues, bale. Neri aski zait horrekin.”<sup>1406</sup>

“Ordezkoa izanda, ez nekien inoiz noiz arte egongo nintzan. Ez zidan inork abisatzen eta nik ibili behar nun titularrari deika, ta gero, azkenean, kontratua bukatu zitzaidanean ere, bezperara arte ez nuen jakin. Jakin nun kontratua moztu ziatela astebete beranduago edo hola (...) Nik ez nekin kontratua neukan edo ez, ta orduan hurrengo aste hortan lanean jarraitu nun, baina gero, astebete beranduago, esan zidaten aurreko asteleheneretik ya ofizialki bera zala klaseak eman behar zituna. Horregatik esaten dizut funtzionamendu aldetik eta eman ziaten trataeragatik ez nintzan oso gustora sentitu eta ordezkapenak egiten ai dian beste batzuk ere ez.”<sup>1407</sup>

---

<sup>1404</sup> 7. Elk.

<sup>1405</sup> 29. Elk.

<sup>1406</sup> 9. Elk.

<sup>1407</sup> 11. Elk.

Ziurgabetasuna ez da homogeneouski hedatzen, elkarrizketatuen diskurtsoetan ikusi ahal izan dugunaren arabera. Estratifikazio atomizatzaileak ahalbidetzen du ziurgabetasuna asimetrikoki zabaltzea langile sare estratifikatuetan zehar, posizioaren arabera, oro har prekarizazioarekin gertatzen den bezalaxe.

- Elkarrizketatu batzuek ia ez dute bizi izan ziurgabetasun arorik beren ibilbideetan.
- Beste elkarrizketatu batzuen ibilbideetan urte luzez nagusitu da ziurgabetasuna, baina gainditzeko aukera errealak aurreikusten dituzte.
- Hainbat elkarrizketaturentzat ziurgabetasuna errealitate egonkorra da, etorkizunean aldatzeko itxurarik ez duena.

Azken joera honek indar handia du. Ibilbide prekarizatuen ondorio behinena da. Zenbait elkarrizketaturen diskurtsoetan zentraltasun osoa lortu du ziurgabetasunak, hurrengo bi aipu hauetan ikus daitekeen bezala.

“Nere lagun batzuk ikustezu daukatela biografia pixkat zuzenagoa, edo helburua... garbi zeukaten aspaldidanik zer izan nahi zuten eta nolabait lortzen ari dia. Nik ez daukat helburu hori. Eraikitzen ari naiz momentuoro. (...) [Nahiko nuke] egonkortasuna eta incertidumbre txikiagoa.”<sup>1408</sup>

“[Gaurdanik zazpi urtera] ez zeukat planik. Ez diat pentsatzen hortan (...) Galderan bizi nauk. (...) Lana bilatzeakin ez nauk asko amargatu. Beti zoeze atea zaiak (...) Ez zaiak ajola 6 hilabete pasatzea oain taberna batean, ze oain bazekiat gustoko ez deten hori utz dezaketela. Jende askok gaizki pasatzen dik horrekin. Konturatzen nauk inguruko jendeak, askok, lana uzten dek ta: Ba nola? Lana utzi dezu? Ta ze in biezu? (...) Jendeak beldur haundiya dio lana galtzeai edo uzteai edo ezpadu aurretik zerbait lortzen, eta nik ikusietenangatik denbora hontan, ez dakat bate beldurrik. Apuro batian, edozein gauza ingot, ta nazkatzen banaiz, utzi. (...) [Amonak esaten du] ofiziyo asko, pobre seguro. Amonan ikuspegia oso tradizionala da ta nik ustet sufritu iten dula ni hola ikustean (...) Lana dakazu ta eutsiozu lanai. (...) Nik bizi izan det lanai buruzko sakralizazio bat. Baina, bueno, netzako 20 urtekin ikasketak uztea izan du sakralizazio hoi mozteko modu pixka bat.”<sup>1409</sup>

Galderan bizi. Hori izan daiteke ibilbide prekarizatuen ziurgabetasuna ezaugarritzeko modu baliagarri bat. Elkarrizketatuen diskurtsoetan ikusi dugunez, nola edo hala ibilbide guztiei eragiten die. Diskurtso guztietan txertatu da. Arestian esan dugun bezala, ziurgabetasunak ez die guztiei modu eta maila berean eragiten, baina fenomeno orokortua da. Bizi duenak bere egiten du, bere ibilbidearen baldintza eta motor garrantzitsuenetako bat da. Bizi izan ez dutenek edo atzean uztea lortu dutenek, berriz, erreferentziatzat darabilte, beren buruak alderatu egin ditzakete hura pairatzen dutenekin, baina, gainera, eredu horren hainbat dinamika bere jarduera eta ikuspegietan barneratzen dituzte. Ziurgabetasuna, dominazio teknika bat da. Eraginkortasun handia du gaur egun.

Ziurgabetasunak, ordea, ez dio soilik mesede egin etsipena edo menpekotasuna sustatzen duten diskurtsoei. Ikuspegi kritikoak ere hauspotu ditu. Horixe aztertuko dugu hurrengo atalean.

---

<sup>1408</sup> 5. Elk.

<sup>1409</sup> 9. Elk.

## 6.9 Lanaren etika

Prekarizazio estratifikatuak atomizazioa eta ziurgabetasuna sustatu ditu. Dinamika hau sustengagarria izan dadin ezinbestekoa da hori sofritu behar dutenen artean gutxieneko legitimotasuna lortzea. Horretarako funtsezkoak dira ibilbide akademiko-profesionalak. Hauen eraikuntzan ekoizten da prekarietatearen kultura. Elkarrizketatu ditugun diskurtsoetan nonahi aurkitu dugu. Prekarietatearen kulturak eraginkortasun gorabeheratsua du ordea. Elkarrizketatu guztien diskurtsoetan dagoen arren, elkarrizketatu bakoitzak modu ezberdinean interpretatzen du, elkarrizketatu bakoitzaren diskurtsoan intentsitate, eduki eta onarpen maila ezberdina dauka.

Arrakasta gorabeheratsu horren erakusgarri izan daiteke hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan aurkitu dugun osagai garrantzitsu bat: lanaren etika urratzen duten ikuspegiak. II. atalean azaldu dugunez, industrializazio prozesuan oinarritzko gatazketako bat lanaren etikaren onarpena izan zen. Urte luzeko ahaleginen ondoren hedatu zen langileen artean. Bada, prekarizazio prozesuak berriro mahaigaineratu du gatazka hori.

Edonola ere, elkarrizketatuen diskurtsoetan denetik aurkitu dugu. Lanaren etika sutuki bizi duten hainbat diskurtso badaude, batzuetan elkarrizketatuaren diskurtso orokorrean jaun eta jabe delarik, besteetan modu kritikoa hartzen delarik. Horratx bi horien adibide bana hurrenez hurren.

“Ni printzipioz gustora nago lanean. Dakat pilo bat ikasteko. Askotan, jo, profesionalki nerretzat gauza txarrena, bueno, ez dakit txarrena, baina nerretzat da estankatua sentitzea, ezin dezula gehio ikasi, ta gero los retos. Gero zaude hecho polvo (...) baina behar izaten da.”<sup>1410</sup>

“Musika klasikoan munduan hainbeste urte sartuta (...) musikak behartzen zaitu zure alderdi perfektionista lantzera, ta hori uste det ez dela gauzarik onena (...) Hainbeste urte horretan sartuta, azkenean zure izakera pixkat moldatzen dezu (...) Jo ta ke lan ingo det, in behar det, ta horrek izakera pixkat aldatzen dizu.”<sup>1411</sup>

Lanaren etikaren aldaera bat litzateke lanarekiko sinesmenagatik baino diru sariagatik aritzea enpleguaren lanetan burubelarri.

“Jendea dago ohituta hor sartu, lan egin ta ospa. Orduak sartu, hola diru gehiago eramatet ta listo. Giroan hori ikusiet. Igandean lan in behar dela, hobeto, diru gehio daukat. Ohitu dira hortara. Denak ez, baina batzuk hola dabilta.”<sup>1412</sup>

Baina hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan ez dugu halakorik topatu. Nolanahi ere, batzuen nahiz besteen artean, azken finean, elkarrizketatuen diskurtsoetan antzeman dugunez, lana funtsezko ardatza da. Asko baldintzatzen du pertsona guztien bizitza. Hurrengo aipua oso esanguratsua da.

---

<sup>1410</sup> 23. Elk.

<sup>1411</sup> 12. Elk.

<sup>1412</sup> 29. Elk.

“Denboraren %90 hartzen du lanak. O sea, azkenean errealitatea da lana dala bizitzaren ardatza, nere kasuan behintzat.”<sup>1413</sup>

Baina ardatz izanik ere, ez dirudi elkarrizketatu guztien bizitzetan hainbestearainoko garrantzia duenik, edo esan dezagun beste era batera: lana funtsezkoa da guztientzat, baina hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan aurkitu dugu lanarekiko distantzia ezartzeko ahalegina, lanari garrantzia kentzekoa, lanarekiko atxikimendua nabarmen txikitzekoa. Lanaren etika hainbat esparrutan urratzen dute elkarrizketatu hauen diskurtsoek.

Batetik, hainbat elkarrizketatuk adierazi dute ez daudela prest enpleguarekiko ardura handia beren gain hartzeko.

“Ardura bai baina puntu batera arte. Ni inplikutzen naiz baina... Nik ikusten ditut nere lankide batzuk... Ez det ikusi nahi nere burua gaindituta lanarengatik”.<sup>1414</sup>

Bestetik, enpleguko lanari eskaintzen dioten denbora ahal bezain txikia izatea modu oso aktiboan bilatzen dute zenbait elkarrizketatuk, baita diru irabazien kaltetan denean ere. Soldatapeko lanean ohikoa izan da langilea etengabe saiatzea soldata berdinarekin truke ahal bezain lan ordu gutxi egiten, II. atalean ikusi dugunez. Langileek ekoizten duten aberastasunaren banaketa da gatazka horren oinarria. Elkarrizketatu batzuen diskurtsoetan hori ere aurkitu dugu. Baina horrez gain, zenbait elkarrizketaturen diskurtsoetan ikuspegi berri bat dago, industrializazioaren hasierako gatazkekin zerikusia duena: zenbait elkarrizketatuk nahiago dute soldata askoz txikiagoa poltsikoratu eta denbora libre gehiago izan, eta, esan gabe doa, ihes egiten diete enpleguari lotutako ordu extra mota guztiei, hurrengo aipuan irakur daitekeenez.

“8 ordu sartu beharra zeon, baina, 11 in behar zian, ta 10 sartu ezkeo, gaizki begiratzen zizuten (...) Eskeini ziaten jarraitzeko baina esan nun ezetz. Hoi zan zentzugabekeria bat, burrada bat. Astean ateratzen zian 60 ordu. Esan nun: Hauek erotuta daude. Nola ingo dituzu lan hainbeste ordu (...) Nik lana topatu detenean, ikusten dezunez, beti baloratu izan det jornada erdiak eta hola, ze hola uzten diate denbora beste gauzetako.”<sup>1415</sup>

Aisialdia asko baliosten dute zenbait elkarrizketatuk. Hainbeste, ezen enpleguari buruzko iritzian pisu handia daukan aisialdirako zenbat denbora uzten duen, ez enpleguko lana ez egiteagatik (baina baita horregatik ere), baizik eta batik bat aisialdirako aukera ahalbidetzeagatik. Segidan aurkezten ditugun aipuetan antzeman daitezke ideia horiek.

“Askorentzat lana objetibo bat da. Neretzako bitarteko bat da. Nik nahi det lanak aukera ematea okupazio gustokoak izateko.”<sup>1416</sup>

“Zer dauka ona? Ez da oso estresantea. Gustatzen zait. Badakit ondo egiten dudala. Umeak gustora daude. Hori da nere poz bakarra. Eta udara libre daukadala.”<sup>1417</sup>

---

<sup>1413</sup> 4. Elk.

<sup>1414</sup> 7. Elk.

<sup>1415</sup> 9. Elk.

<sup>1416</sup> 6. Elk.

<sup>1417</sup> 12. Elk.



“Lan honek aukera ematen dit bidaiatzeko, opor luzeak iteko, ta nere karrerakin ikasitakoak ez (...) Deitu ziaten nekazal injenieritza enpresa batetik (...) Elkarrizketarako deitu ziaten (...) Pentsatzen nun: Hartuko banindute, ez dakit hau nahi deten, ze da lana a saco, orduak a saco, zuk moldatu baina lanak entregatu behar dira (...) Eukiko dezu hilabete bat bakarrik opor. Etortzen nintzan etxera ta esaten nun: Berez, hau izan behar da nere lana, o sea aspiratu behar detena, baina ez det nahi. Nahiago det hezkuntzan apuntatu ta ibili de la ceca a la meca. Egun berean deitu zidaten hezkuntzatik ta enpresa hortatik ta tipoak esan zidan: Ez zaitugu aukeratu, ta esan nion ¡Qué bien! Ta tipoa flipao (...) Garai batean ibili nintzan halako despatxotan lana bilatzen, pentsatzen nulako hori zela nere aspirazioa, baina konturatu naiz ez detela hori nahi”<sup>1418</sup>

“Lehengo astean psikiatra batek proposatu zidan bere kontsulta pribatuan lan egitea, baina nere lanak 8-etatik 3-etara bete iten nau eta kargatu iten nau, eta gero 3-etatik aurrera atzera eta berdinean lanean jarraitu? Neri gustatzen zait ta ondo kobratzen det eta gustatzen zait denbora libreaz gozatu eta lana goizez eta arratsaldea libre edozer egiteko. Es que ordu gehioz lan egitea... ez, ez, ez.”<sup>1419</sup>

“Ez nuke jakingo zer eskatu, baina bai daukat fitxatuta lan egonkor hori, denbora libre asko uzten dizuna ta baldintza onekoa. (...) Kiroletan ikusten dezu zeinek daukan denbora entrenatzeko, ta hezkuntza ta suhiltzaile.”<sup>1420</sup>

Estrategia hau ez dute elkarrizketatu guztiek partekatzen. Lanaren etika ez da homogeneouski hedatzen, hainbat intentsitate, forma eta eduki hartuz baizik. Berdina gertatzen da bere ifrentzuarekin. Mutur batetik bestera espektro zabala eta anitza dago. Nolanahi ere, esango genuke nabarmentzeko modukoa dela lanaren etikarekiko ikuspegi kritikoak suposatzen duen berritasuna. Testuinguru honetan ikuspegi ezberdinen arteko talka gertatzen da. Lanaren etika sutzuki bizi dutenek eta gainerakoek ezberdin begiratzen diote enpleguaren munduari eta, halaber, enpleguaren aurkakotzat hartzen den aisialdiari. Hurrengo aipuan argi islatzen da ikuspegien arteko gatazka.

“Sentitzen det presioa jendeak galdetzen didanean lanean ari naizen edo ez naizen ari. Claro, lan egiten detenean, esan dezagun gero langabeziak ematen didalako aukera lanik egin gabe egoteko berriro hasi arte eta horrelako trikimailuekin, eta orduan presioa nabaritzen det lanean ez nabilela esaten detenean. Ez dakit, adibide bat jartzen dizut. Nere neskalagunaren amonak 82 urte dauzka eta igande gau batean ez du dudarik egiten ea plantxa egin behar duen edo ez. Plantxa egiten du, eta 82 urte dauzka eta hor dago lanean asto bat bezela, eta nik 31 urte dauzket eta barrabilak ikutzen ari naiz lanean berriz hasi arte. Ulertzen? Orduan presio hori nabaritzen det edo jartzen diot nere buruari. (...) Nik ondo eramaten det. Ni egon naiteke lanik egin gabe azaro arte, ta neretzako, pues, de puta madre, baina gero ez naiz hain ondo sentitzen, pues, nere gurasoekin ari naizenean. Ikusten det aita ari dela lan egiten a saco, edo nere neskalagunaren gurasoak ikusten ditudanean lan egiten de sol a sol esaten dena, eta orduan gaizki sentitzen naiz inguru horretan. Ulertzen? Ondo sentitzen naiz nere lagun [x]-en txalupara juten banaiz eta hor nago Espartaco Santoni bat bezela eguzkia hartzen, eta orain hemen nago zurekin terraza batean, neretzako de puta madre, asko gustatzen zait, baina gero...

---

<sup>1418</sup> 7. Elk.

<sup>1419</sup> 25. Elk.

<sup>1420</sup> 31. Elk.

Ulertzen? Lagunekin oso ondo eramaten dut hori, errespetatzen dute baina pertsona helduagoen artean notatzen det edo nik sentitzen det ez dagoela ondoegi ikusia nahiz eta errespetatzen duten... O sea, nik ez diot inori ezer zor. Ez nago langabezian eta zorra dauket. Nere rekursotatik bizi naiz, baina bada zerbait espinoso. (...) Gurasoek ez didate ezer esaten, baina behin hitz egin behar izan nuelako aitarekin. Nik nabaritzen nuen bere tonoa. Bueno, eta esan nion, berarentzako problema bat zen. Nik ez niola duro bat kostatzen. Ni bizi nintzala nere diruarekin, gutxiago edo gehiago, neukanarekin, eta, bueno, konturatu zen, bueno, ba hori, errespetatzen zuela. Ta nere neskalagunaren gurasoekin, ba, asko maite naute, asko maite ditut, baina suposatzen det pentsatzen dutela egunen batean ezkonduko garela, elkarrekin bizitzera jungo garela eta orduan nundik... ez dakit. Ez didate sekula ezer esan, baina nabaritzen da, edo igual nere paranoia bat da. Madrilen biziko banintz beste aktore batzuekin, ez legoke problemarik. Casting, tabernari... denok gara superbibienteak.”<sup>1421</sup>

Ikuspegi kritikoaren koska bat igotzea da lanarekiko atxekimendu txikitik harago joan eta lanaren kontzeptua bera kolokan jartzera pasatzea, ondorengo aipuan irakur dezakegun bezala eginez.

“Lanarekin beti euki det arazoa. Batzuk lana deitzen diotena, nik ez nekin lana deitu edo ez. Lanaren kontzeptua ez daukat oso argi eta ez det inoiz euki. Ni beti ibili izan naiz kantak egiten taldeantzako, diskoak grabatzen, baina hemen, ez dakit gure kultura dalako edo erakutsi diguten pentsamoldea dalako, ez da lantzat hartzen hori. Beste leku batzutan bai. Hemen ez. Eta, bueno, ez det xoxik irabazi sekula.”<sup>1422</sup>

Bakarrik elkarrizketatu honen diskurtsoan aurkitu dugu lana-enplegua kontzeptualizazioarekiko hain kritika esplizitua, baina interesgarria da ikuspegi hau enpleguaren sakoneko eraldaketaren testuinguruan kokatzea: enplegua gero eta gutxiago da enpleguaren orduetan egiten dena soilik. Inoiz ez da horrela izan, baina elkarrizketatuen diskurtsoetan aurkitu ditugun enpleguak gero eta gehiago oinarritzen dira enplegu orduetatik kanpo lortutako baliabideen erabileran. Gainera, fenomeno hau ez da jarduera *intelektualenetan* bakarrik gertatzen. Are gehiago, agian ez da ustez intelektualagoak diren jardueretan intentsitate handiagoz gertatzen. Lanaren intelektualizazioak enplegu ugari eraldatu ditu, nahiz eta aldi berean beste hainbat enpleguaren deskualifikazioa ere gertatu den.

Honenbestez, esan genezake lanaren etikan arrakalak ageri direla. Lanarekiko atxikimendua ez da goren mailakoa elkarrizketatu guztien diskurtsoetan. Lanaren etika tradizionalaren arabera, enpleguan egiten den lana bitartekoa baino askoz gehiago da. Lan hori bizitzaren helburu izan behar da, ez horren bidez beste zerbait lortzeko, baizik eta pertsona oso bezala asetuta bizi ahal izateko. Lanak egiten du pertsona. Bizitzeko lan egin eta lanerako bizi, hori da diskurtsoa. Hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan, ordea, ez da halakorik ageri. Elkarrizketatu guztiek balioesten dute aisialdia, enplegutik kanpoko denbora, librea, baina ez gara horri buruz ari. Aisialdiko denbora eta egitasmoak lehenesteak urratzen du lanaren etika, aisialdiak enpleguari gaina hartzeak alegia.

Prekarizazio estratifikatuak sustatu du atomizazioa eta ziurgabetasuna. Indar harremanen gain eragiteko bitarteko baliagarriak dira, baina, aldi berean, helburu horiekin bat ez datozen

---

<sup>1421</sup> 22. Elk.

<sup>1422</sup> 20. Elk.

dinamikak ahalbidetzen ditu. Prekarizazio estratifikatuak ez du ekoitzi lanaren etikarekiko ikuspegi kritikoa. Hori jendeak ekoizten du. Baina prekarizazio estratifikatuak zirrikituak utzi ditu (lanaren etikaren higadura adibide bat baino ez da), batzuetan arrakalak agertu zaizkio, beste edozein dominazio sistemari beti gertatzen zaion bezala, eta tarte horietatik begibistan gelditzen da ikuspegi kritikoa, batzuetan apal, gutxitan oldarkor.

## VI. Ondorioak: balioa eta estratifikazioa ekoizten, jendearen aniztasunetik espazio sozial hierarkizatura

Meritokrazia, dominazioa estrategia bat da. Gaitasun indibiduala da estrategia horren ikur behinena. Diskurtso meritokratikoaren arabera, norbanakoak egin dituen merituen arabera jasotzen ditu sariak eta zigorrak. Unean uneko emaitzek erabakitzen omen dute pertsona bakoitzak bete behar duen posizio soziala: norbanako baten merituei balio handia aitortzen badiete, posizio sozial erlatiboki ona esleituko diote, hots, ustez meritu eskasak egin dituen pertsona bati egokituko dioten posizioa baino hobea. Horrela ekoizten du meritokraziak espazio sozial hierarkizatua.

Oinarrizko ideia hauek indar handia dute gure testuinguru sozial garaikideetan. Esate baterako, gaitasun eta ahalegin indibiduala da hezkuntza sistemaren aldarri errepikatuenetako bat. Halaber, kapitalismo neoliberalak totem bezala erabiltzen du meritu indibidualaren ideia.

Nolanahi ere, nabarmena da estrategia hori ez dela beti eraginkorra. Konplexua, kontraesan eta hutsunez betea, gorabeheratsua eta gatazkatsua da taigabe. Zirrikitu horietan sustraitzen da ikerketa hau, orain esku artean duzuna.

Soziologia kritikoaren haritik, maskara kentzea izan da gure ahaleginaren helburu. Meritokraziaren estrategia zertan oinarritzen den aztertu nahi izan dugu. Horretarako, ikerketa honek ibilbide akademiko-profesionalak (IAP hemendik aurrera) jarri ditu bere begipuntuaren xedean, zerikusi oso handia baitute pertsona bakoitzak daukan posizio sozialarekin. Meritokraziak norbanakoen posizio sozialak azaltze aldera, gaitasuna eta lorpen indibiduala hartzen ditu ardatz. Aitzitik, ikerketa honetan beste ondorio batzuetara iritsi gara.

IAPak posizio-hartze eta gatazka sozial eremuak dira. Ez dira banakako fenomeno isolatuak. Haatik, ibilbide guztien arteko harremanek espazio sozial bat osatzen dute. Aniztasunak baino ezberdinkeriak ezaugarritzen du espazio hau. Posizio guztiei ez zaie aitortzen balio berdina. Hierarkiak bideratzen du estratifikazioa. Ikerketa honen funtsa honakoa da: hierarkia ezartzen duten motorrak aztertzea, IAPetan beti ere.

Espazio sozial hierarkizatua ez da meritu indibidualetan oinarritzen, gure ikerketaren arabera. Halaber, ez dute faktore jakin batzuek determinatzen. Fenonemo askoz konplexuagoa da. Hainbat erakunde sozialek parte hartzen dute IAPen ekoizpenean. Erakunde bakoitzaren baitako gatazkek eta erakundeen arteko harreman konplexuek eraikitzen dituzte ibilbide hauek. Erakunde hauetako bakoitza joko eremu bat da, indar harremanek elkar neurtzen duten gunea eta, era berean, erakundeen arteko hartuemanak negoziazio prozesu etengabeak dira. Ikerketa honetan lau erakunde sozial erabakior identifikatu ditugu: hezkuntza formala, enplegua, familia eta norbanakoa. Jabetzen gara beste batzuek ere eragina izan dezaketela, adinkideek eta hedabideek kasu, baina ikerketa honetan ondorioztatu dugunaren arabera, aipatu ditugun lau horiek daukate pisu handiena.

IAPak ez dira ezerezaren gainean gertatzen. IAPek eraikin bakarra osatzen dute, bi pausoko ekoizpen sozial bakarra balira bezala, gorabeheratsua, kontraesankorra, atzera-aurrera ibil daitekeena, eta bi erakunde sozialen eremuetan murgilduz gauzaten dira, hain zuzen hezkuntza formalaren eta enpleguaren munduetan barneratuz, eta ez beti hurrenkera horretan.

Hezkuntza sistemak ertz ugari dituela ondoriozta dugu gure ikerketan. Esango genuke, batetik, hezkuntza sistemak bete-betean asmatzen duela hainbat mailatan zenbait lagunekin. Eskolak ondo funtzionatzen duela, alegia. Hezkuntza sistemaren bertuteak nabarmentzen dituen diskurtso bat aurkitu dugu. Hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan gainerako balorazioei gaina hartzen die honek. Beste zenbait elkarrizketaturen diskurtsoetan txertatu egiten da bestelako diskurtso batzuetara. Ikuspegi positibo hau ez da izan soilik hezkuntza maila edo ikastetxe mota jakin batzuekiko. Ia maila eta mota guztiak agertu dira. Ez da diskurtso orokortu bat, zenbaitzuk bakarrik adierazten dute, baina hauen arabera hezkuntza sistema baliagarria da, besteak beste, lanerako trebatzeko, ezagutza orokorra eskuratzeko, norberaren heldutasun prozesua sustatzeko, harreman sozialak lantzeko, hizkuntzen diglosia gainditze aldera egiteko eta zenbait jarduera egin ahal izateko diziplina barneratzeko.

Ikerketa honen emaitzek adierazten digute norberaren ibilbideak zerikusi handia duela hezkuntza sistemaren balorazioarekin. Emaitza akademiko onak dauzkatenez joera handiagoa dute hezkuntza sistemarekiko ikuspegi positiboak adierazteko. Badirudi erakundea norbanako horien neurritara egina dagoela. Edo agian alderantziz da: norbanako hauek, erakundeari buruzko iritzi ona dutenak, hezkuntza sistemaren neurritara eginda daudela.

Baina, gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, badirudi eskolak ez duela asmatzen nola iritsi hainbat ikaslerengana. Hots, eskolak ondo funtzionatzen duela, baina batzuentzat bakarrik. Hezkuntza sistemaren diskurtso ofizialak esaten du gaitasun indibidualen arazoa dela. Ikerketa honetan, ordea, beste ondorio batzuetara iritsi gara.

Durkheim-ek (ikus II.1.1 atala) eskaintzen digu gure ondorioetara iritsi ahal izateko lehenengo gakoa. Hezkuntzaren soziologian aitzindari izan zen ikertzaile honek dio hezkuntza formala ez dela loreak hazi daitezen ureztatzea bezala. Ibilbide akademikoetan ez dira norbanakoaren baitako esentziak azaleratzen. Hezkuntza, pertsonak ekoizteko ahalegina da. Pertsonak heziketa formalerako eremuetan mantentzen direnean, ez diete laguntzen barnean daramaten zera hori ateratzen. Ikuspegi psikologista, Dewey, Russell eta Chomsky-ren ikuspegia eta tradizio idealista baztertuz, Durkheimek dio hezkuntzak izaki berri bat sortzen duela gizakiarengan, hezkuntza gizartearen lana dela, norbanakoa bere isolamendutik ateratzen duela. Aztergai ditugun IAPak ulergaitzak lirake baldin eta hezkuntza formalaren langintza soziala ahaztuko bagenu. Analizatu ditugun ibilbideak beren testuinguru sozialean ekoitzi dituzte. XX. mende bukaeratik XXI.era doan Gipuzkoan eraiki dituzte, ez Grezia klasikoan. Garai bateko Espartan hezkuntzak espartarrak sortzea zuen helburu. Gipuzkoa garaikidean hezkuntzak ez du espartarrak munduratu. Esentziarik izatekotan, Durkheimek aipatzen dituen sortzetiko ezaugarri oso orokorrak eta lausoak lirake, ore baten antzekoak. Alde handia dago jaiotzetiko kualitateen eta hauek bizitzan zehar hartuko duten forma espezifikoren artean.

Bigarren gakoa ere Durkheimen ekarpenetan aurkitu dugu, baina harekiko ikuspegi kritikoan oinarritu gara. Durkheimen (ikus II.1.1) tesi nagusienetako bat da ez dagoela hezkuntza unibertsalik edo betierekorik, baina, aldi berean, Durkheimek azaltzen duen hezkuntzari buruzko ikuspegiaren aurki ditzakegu unibertsalak diruditen baieztapenak. Durkheimek dio gizarte bakoitzak garai eta leku bakoitzean bere hezkuntza eredu eraikitzen duela, aldi berean bakarra eta anitza dena, ume bakoitzaren baitan bi beharrei dagozkien egoera fisiko eta mentalak piztu daitezkeen: batetik, oro har bere gizarteari dagozkionak eta, bestetik, espezifikoki bere talde sozialari dagozkionak. Hortaz, Durkheim-ek hobetsi egiten du hezkuntzaren bitartez gizarte jakin bateko kide guztiek zenbait ezaugarri partekatzea eta, halaber, kide horiek taldekatu eta estratu bereiztuetan sailkatzea.

Hildo honetan kokatzen da tradizio idealista (ikus II.1.1). Davis eta Moore (ikus II.1.3) ere iritzi berekoak dira: behar unibertsalek derrigortzen dute estratifikazio mekanismo eraginkorren erabilera, kualifikazioaren araberako posizio esleipenak eginez gizarteak hobeto funtziona dezan, azken finean denentzat aproposena hori baita. Hari honi tira egiten dio Parsons-ek (ikus II.1.2): errendimendu akademikotzat hartzen dena oinarritzat hartuz, objektibotasunez bereiztu behar dira ikasle onak eta txarrak. Parsonsek dioenez, errendimenduaren erreferentzia kulturarekiko adostasuna da. Kultura, letra larriz. Parsonsek barne hartzen ditu edukiak eta diziplina: ezagutza ez ezik agindutako zereginak betetzea, lehiakortasuna eta indibidualismoa, eta autoritatearen aitortza eta onarpena baita ere.

Gure ikerketan arazo bat aurkitu diogu ikuspegi honi, bereziki Parsonsen ekarpenari: *gizartearen beharrak* kontzeptua. Ikerketan erabili dugun ikuspegi tradizio kritikoan kokatzen da. Hurrengo hauek dira horen erakusgarri.

Bourdieu-k eta Passeron-ek (ikus II.2.3) diotenez, ekintza pedagogiko oro arbitrariotasun kulturean oinarritzen da, baina ekintza pedagogikoak beti izkutatzen du bere izaera. Naturala edo unibertsala balitz bezala aurkezten da. Indar harremanen testuinguruan ezartzen dira ikuspegi pedagogikoak. Chomskyren (ikus II.2.3.2) arabera ere interesak daude tartean. Fernández Enguitak dio hezkuntza sisteman ezagutzaren transmisio prozesu osoan zehar irakaspena, hautaketa eta omisioa gertatzen direla, hots, galbahea dagoela. Nolanahi ere, Bourdieuren (ikus II.2.3) arabera, hezkuntza sistemak gehiago erantzuten die batzuen interesei besteenei baino, baina historia luzeko erakunde konplexua da eta gaur egun interes mota askori erantzuten die.

Apple, Freire, Willis, Macedo eta Giroux-ek (ikus II.3.3) ere, erresistentziaren teoria deitzen denaren izen esanguratsuenetakoek alegia, kritikatu egiten dute ikuspegi estrukturalista-funtzionalista, eskola ez dutelako aztertzen interes sozialei lotuta eta soilik arau eta balio sozialen transmisioaren eraginkortasunagatik arduratzen direlako, ikasleak *kultura* (bakarra bailitzan) kontsumitzaile pasibo hutsak balira bezala hartuz, ezagutzak botere harremanekin zerikusia ez balu bezala, gatazka soziala eta interes sozio-ekonomiko lehiakorrek gutxietsiz.

Erresistentziaren teoriatik estrukturalismo-funtzionalista deitzen den ikuspegiak naturalizatu egiten du hezkuntza sistema eredu jakin bat, batasun hierarkizatua sustatzen duena, berezkoa balitz bezala, beste aukerarik ez balego bezala, baina hainbat analisik agerian uzten dute eredu honen historikotasuna.

Foucaulten (ikus II.1.4) arabera, XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera indartuko da eskola eredu berriaren eraikuntza prozesua. Foucaultek azaltzen dituen teknikak ez dira garai hartakoak, zaharragoak baizik, baina garai hartan modu berritzailean artikulatzen dituzte. Mende honetan hasiko da ikasleen sailkapen eta mailaketa funtsezko irizpide bihurtzen eskolaren eremuan banaketak egiteko: frogen emaitzen arabera mailaketa, adinaren arabera, irakasgaiaren arabera eta zailtasun mailaren arabera, besteak beste. Eskola modernoak ikaskuntzarako denboraren ekonomia berria antolatu du. Eskolaren eremuak ikasteko makina bat bezala funtzionatzea lortu du, baina baita jagoteko, hierarkizatze, saritzeko eta zigortzeko makina bat izatea ere. Foucaultek dioenez, gainerako erakunde modernoan antzera, eskolak ez ditu indarrak kateatzen indarra apaltzeko. Aitzitik, bere helburuetara doituak erabilera ahal bezain eraginkorra sustatzen du eskolak. Foucaulten arabera, botereak ez du soilik baztertzen, erreprimitzen, zentsuratzen eta izkututzen. Botereak ekoitzi egiten du, sortzailea ere bada. Errealitateak ekoitzen ditu. Egia errealitateak sortzen ditu.

Fernández Enguita-ren (ikus II.1.4) arabera, eskolatzeko unibertsitateak ez zuen hainbesteko zerikusia izan filantropiarekin, ilustrazioaren ideekin eta ebangelizazioaren sukarrarekin. Fernández Enguitak dio prozesu honetan ezin direla ahaztu estatu-nazioa eta enpresa industrialak. Ramírez eta Boli-k (ikus II.1.4) ere estatu-nazioen rola azpimarratzen dute hezkuntza sistemaren hedapenean. Horrez gain, Fernández Enguitak (ikus II.1.4) dio liberalismoak eta ilustrazioak *gizonen* arteko berdintasuna aldarrikatu zutenean, bere horretan utzi zituztela, besteak beste, sexuari, arrazari eta klase sozialari zegozkien ezberdintasunak. Oinarri horiekin eraiki zuten hezkuntza eredu modernoa, pertsonak bi multzotan banatuz: dakitenak eta ez dakitenak, ilustratuak eta barbaroak. Lehenengok irakatsi egin behar diete bigarrenari, azken hauei ikasketarako motor eraginkorra ebatsiz: interesa. Ilustratuek beren gain hartzen dute garrantzitsua zer den eta nola irakatsi behar den erabakitze ardurak.

Terrén-en (ikus II.1.4) arabera, ilustrazioak uztartu egin zituen salbazio historia baten filosofia eta jagondutako lanaren diziplina, baina, gailendu ahala, nabarmendu egin zen gero eta biztanleria zati handiagoaren gain manipulazio estrategiak eta bolumenen kontrola ezartzeko borondatea. Sozializazio forma alternatiboak suntsitzeko makineria bihurtu zen. Azken batean, *arima eraikitza* indibiduen birmoldaketa produktiborantz jotzen dute. Terrén-en arabera, horrela hedatuko da humanismo burgesaren funtsezko kontzeptu bat: meritokrazia.

Gure ikerketan arbitrariotasun kulturala besterik ez dugu aurkitu. Horretan datza hezkuntza sistema garaikidea, beste edozein erakunde sozial bezalaxe. Baina kultura bakarra balego bezala jokatu du. Kultura, letra larriz, Parsons en. Mundu ikuskera horren indarrak erabat baldintzatzen du hezkuntza sistemaren dinamika. Kultura bakarraren ideia da hezkuntza sistemaren bizkarrezurra. Zer eta nola ikasi erabakitzen da horrela. Ikasle potentzialen multzoa heterogeneoa den arren, hezkuntza sistemak dinamika homogeneizatzaileen galbaketik pasatu nahi ditu. Ikasle guztiek erdietsi behar dituzte helburu berberak metodologia uniformizatu bitartez. Ikasleek urrats bakoitza gainditu behar dute bide prestijiosuenetik jarraitu ahal izateko: OHO-BBB-UBI-Unibertsitatea (gaur egun LH-DBH-Batxilergo-Unibertsitatea izango litzatekeena), bereziki unibertsitateko ikasketak jakin batzuetara bideraturik. Hau guztia naturala balitz bezala, berezkoa. Darwinismo sozialaren kutsua du. Gaitasuna-ergo-patua dinamika legitimatzeko euskarria da.

Homogeneizazio eta estratifikazio dinamika da. Bere eredura hurbiltzen dena gogo onez hartzen du. Are gehiago, pertsona horiei babes eta auspoa ematen die. Aitzitik, aniztasuna baliokidetasunaren ikuspegitik lantzeko zailtasunak dauzka. Hezkuntza sistemak gaitasun handia du hainbat dinamika zatikatzaile, mespretxatzaile eta baztertzatzaile eraginkortasunez ezartzeko. Bere eredutik hurbil ez daudenek edo, bestela, urrundik abiatuta eredura hurbiltzen ez direnek daukate dinamika horietan erortzeko aukera handienak. Hezkuntza sistemaren makineriak bereizketa lana egiten du ikasle batzuen eta besteen artean. Horrela ekoizten da pribilegioa eta estigma, titulua eta bazterketa. Emaitza akademikoak dira bereizketa horien ageriko euskarri erabiliena, publikoki proiektatzen den hezkuntza sistemaren diskurtsoan behintzat. Dinamika hau areagotu egiten da nerabezaroan, hain zuzen oso kritikoak diren garaietan, baina aro horren emaitzek iraupen luzea izan dezaketen ondorioak uzten dituzte.

Berdinkeria ardatz izanik, ezberdinkeria ekoizten du hezkuntza sistemak. Ezberdintasuna ez du baliokidetzaren ikuspegitik begiratzen. Hierarkiaren galbahetik so egiten dio. Ezberdintasunari neurria ezartzeko ezinbestekoa da kultura bakarraren ideia, honen arabera ebaluatzen baita hurbiltasuna eta onespena.

Nolanahi ere, hezkuntza sistemak egiten duena ez da soilik nor dagoen bere eredutik hurbil eta nor ez adieraztea. Hezkuntza sistema garaikidearen zeregina ez da besterik gabe *hurbiltasun zjurtagiriak* banatzea. Hori baino lan eraginkorragoak egiten ditu. Hezkuntza sistemak batik bat baliabideak helarazten dizkie ikasleei. Baliabide bolumen handiak. Baliabide mota asko. Baina baliabide hauek asimetrikoki transmititzen dituenek, ikasle guztiek ez dute lortzen baliabide mota eta bolumen berdina eskuratzea eta, ondorioz, ikasle guztiek ez dute erdiesten etekin maila berdina hezkuntza sistemarengandik.

Ohikoa da hezkuntza sistema edukien hedatzaile huts bezala erretratatzeko, baina gure ikerketan edukien transmisioarekin batera beste hiru baliabide orokor ere identifikatu ditugu. Beraz, lau baliabide nabarmenduko genituzke: ezagutza, diziplina, pasaporte eta proiektzioa deitu diegu.

*Ezagutza* izena eman diogunari dagokionez, arestian aipatu dugun bezala, bi ikuspegi bereiztuko genituzke: batetik, ikuspegi estrukturalista-funtzionalistak dio gizarte beharrei erantzuten dieten ezagutzak eskaini behar dituela hezkuntza sistemak eta, bestetik, ikuspegi kritikoak arbitrariotasun kulturalaren ideia azpimarratzen dute. Aztergai izan ditugun diskurtsoetan ikuspegi mota asko aurkitu ditugu, alde batera nahiz bestera gerturatzen direnak.

*Diziplina* deitu dugunari dagokionez, gure ikerketan agerikoa izan da hezkuntza sistema gogotik saiatzen dela ikasleengan jarrerak, jokabideak eta sentimenduak moldatzen. Ikasketa ohituren bitartez egiten du hori. Kontzentratzeko gaitasuna, jarraikortasuna eta orain lan egitea gero emaitza lortzeko, horietatik dira tekniketako batzuk. Gorputzaren gaineko kontrola ezinbestekoa da. Diziplinatze mota honekiko diskurtso kritikoak ere aurkitu ditugu ikerketa honetan: bortxa psiko-sozialtzat hartzen dute. Izan ere, hezkuntza eredu jakin bat da jaun eta jabe: espazio itxi batean zedarrirituta, hainbat orduz eserita, irakasleari begira eta adi, memorizazioa landuz, eta praktikari atxikita ez dagoen teoria lehenesten duen eredu hain zuzen. Baliagarria da hainbat ikaslerentzat, adibidez teoriari praktikotasuna ikusten diotelako, baina ikuspegi hori partekatzen ez dutenekin potentzialtasuna garatzeko aukerak galdu egiten ditu hezkuntza sistemak.



*Pasaporte*a deitu dugunari dagokionez, hezkuntza sistemak legitimotasun handia du lizentziatzen hartzen diren ziurtagiriak esleitzeko. Potentzialki atak irekitzen dituzte hainbat lanbidetan aritzeko eta bidez batez zenbait posizio sozialetara iritsi ahal izateko. Edonola ere, pasaporteari dagokionez, azaldu beharreko aldaketak gertatu dira hezkuntza sistemaren baitan. Bourdieu-k (ikus I.3.2) dio ezberdintzeko borondatea funtsezko motorra dela espazio sozialean, baina, Bourdieu eta Passeronen (ikus II.4.2.3) arabera, eskolaratze masiboak hezkuntza sisteman aldaketa morfologikoak eragin dituzenez, ezberdintzeko modu berriak sortu dira. Ikasleen maila orokorra handitu egin denez, garai batean ezberdintzeko balio zuten titulu akademikoek galdu egin dute indar hori. Haatik, ezberdintzeko borondatea apaldu ez denez, titulazioen devaluazioak behartu egin ditu hainbat talde hezkuntza sisteman inbertsio handiagoak egitera. Gainerakoei joera ezarri diete. Bourdieuk dio familien hezkuntza formalarekiko interesa handitu egin dela. Gaur egun inoizko diru, denbora eta energia inbertsio handienak egin ohi dituzte hezkuntza formalean. Horrela handitu dira hezkuntza sisteman egiten diren inbertsioak. Horrela luzatu dira urteak eta zabaldu dira aukera formalak, hezkuntza sistemaren baitako ibilbideen aniztasuna hainbat adarretan zehar barreiatu delarik. Hierarkizazio forma berriak lausoagoak dira, baina fenomeno honek titulurik ez daukatenak kaltetu ditu gehien, zeren devaluatutako tituluak baino beherago kokatzen baitituzte.

Parkin-ek (ikus II.2.2) Weber-en *itxiera soziala* kontzeptua erabiltzen du *credentialism* deitzen duen fenomenoaz aztertzeko: titulu akademikoaren hedapenak ahalbidetzen du kolektibitate sozial batzuek beren irabaziak (ez soilik ekonomikoak) handitu ahal izatea, tituluen bitartez murriztu egiten baitute hainbat esparrutara sarbidea izango duten hautagaien kopurua. Berg-ek (ikus II.2.2) dioenez, titulu akademikoak gero eta gehiago eskatzeak ez dio bereziki erantzuten tituluak baimentzen dituzten jardueren eskaerei.

Hortaz, *pasaporte*a deitu dugun baliabidearen garrantzia gero eta handiagoa da. Nabarmena iruditu zaigu hori gure ikerketan. Ikasketa formaletan inbertitzen dituzten urteen kopuru orokorra inoiz ez bezain handia da. Ibilbide dizdiratsuenak, ertainak eta apalenak urte luzez garatzen dira. Berritasun handia da aurreko belaunaldiekiko. Horrez gain, aipatzeko modukoa da ibilbide akademikoaren iraupenak ez duela zerikusirik zuzenik etekinarekin, hau da, iraupen luzeak ibilbideak etekin akademiko txikia ere eman dezakete, baita errepikatzaileak ez direnentzat ere. Fenomeno berri hau ahalbidetzen dute hezkuntza sistemaren baitako aldaketa morfologikoak. Ibilbideen aniztasuna asko zabaldu da, baina aniztasun hierarkizatua da. Beraz, etekina antzeman nahi izanez gero, ibilbideen iraupena ez ezik hezkuntza maila eta mota kontuan hartzea ere ezinbestekoa da.

*Proiektzio*a deitu dugun baliabideari dagokionez, gure ikerketan ondorioztatu dugu hezkuntza sistema meritokraziaren diskurtsoaz baliatzen dela norbanako bakoitzari buruzko ideia oso eraginkorrak transmititzeko, handia baita gaitasuna-ergo-patua diskurtsoarekiko tolerantzia maila. Hezkuntza sistemak meritua erabiltzen du ikasleak hierarkiko sailkatzeko irizpidetzat, gaitasuna eta ahalegina aldarritzat hartuz, ebaluazioaren objektibotasunaren ideia funtsezkoa delarik dinamika hau legitimatzeko, baina ikerketa honetan aurkitu dugunaren arabera, gaitasuna ez da ahalmen soilak. Sinesmen mota baten eta sinesmen horren ondorioen emaitza ere bada, eta zenbait kasutan batik bat sinesmena eta bere ondorioak dira *gaitasuna* deitzen denaren osagai nagusia. Izan

ere, gaitasunaren ideia produktu sozial bat da, hain zuzen aspirazioa, ahalmena eta patu sentimendua uztartuz sortzen den coctail indartsu bat.

Thomas-en teorema bete-betean gauza liteke fenomeno honetan: egia izan edo ez ikasle jakin bat ondo moldatzen dela arlo jakin batean, baldin eta hezkuntza sistemako agenteek (ikasleak eta irakasleak barne) egia balitz bezala jokatzeko badute (zailtasunak zailtasun, arlo horretan eroso sentitzen delako, bere buruarengan konfiantza duelako, badakielako gai izango dela erronka hori gainditzeko, badakielako bere ahaleginak fruituak eman ditzakeela bai besteen proiektzio positiboetan bai etorkizuneko balizko emaitzetan), sinesmen hori egia izango da bere ondorioetan. Halaber, Merton-ek egin zuen teoremaren aldaera ere erabilgarria izan daiteke, zenbait kasutan behintzat, fenomeno hau azaltzeko: ikasle jakin bat arlo jakin batean ondo moldatu ez arren, hezkuntza sistemako agenteek (ikasle horrek berak eta irakasleek) egia balitz bezala jokatzeko badute (besteak beste, ikasle *saiatuari* dagokion dinamikan murgilduz), ikasle hori ondo moldatuko da arlo horretan, egia ez zena egia bihurtuz.

Beraz, ikerketa honetan ondorioztatu dugunaren arabera, dinamika honek zirkulu itxi baten forma hartuko balu, pauso hauek jarraituko lituzke:

- a) norbanakoaz kanpoko proiektzio positiboa arlo batean,
- b) norbanakoaren interesa piztea arlo horrekiko,
- c) norbanakoak inbertsioa egitea arlo horretan,
- d) norbanakoak emaitzak, trebezia, lortzea arlo horretan, eta
- e) norbanakoaz kanpoko proiektzio positiboa arlo horretan

Hortaz, gure ikerketaren arabera, fenomeno honek arrakasta duenean, azkenerako *gaitasuna* ez da sinesmen hutsa. Sinesmenak eta gertaerak lotuta doaz. Sinesmenak eragina izan dezake gertaerarengan eta, era berean, gertaerak eragina izan dezake sinesmenarengan. Eskematikoki bi mutur bereiztearren, norabide emankorrari dagokionez, esan dezagun norbanako jakin batekiko proiektzio positiboen bidetik norbanakoarengan interesa pizten bada eta inbertsioak egiten baditu, arlo horretan trebeziak garatzeko aukerak handitu egingo zaizkiola eta bide batez litekeena dela kanpotik proiektzio positiboak jasotzea. Aitzitik, norabide antzuarri dagokionez, norbanakoak eta bere inguruak onartzen badute pertsona horrek ez duela balio, ez dela gai, eremu horretan egin dezakeen ahaleginak ez dakarrela ezer praktikorik (ezagutza hutsa ere praktikotzat har daiteke, jakina), ez badio eremuari etekinik atera behar, norbanakoari interesa murriztu egingo zaio eta desinbertsioaren estrategian murgilduko da, denborak aurrera egin ahala okerrago moldatuko delarik eremu horretan. Ondorioz, oinarri eskasagoekin zailagoa egingo zaio trebezia berriak ikastea.

Dinamika honetan esleitzen dira etiketak. Hori aurkitu dugu gure ikerketan. Izenak izana ekoizteko eraginkortasun handia izan dezake norbanakoari esleitzen zaionean. Eraginkortasunez egiten denean, norbanakoak etiketa hori gorpuztu egiten du besteen aurrean eta norbere buruaren aurrean. Etiketa egiazkoa izan edo ez, benetakoa balitz bezala jokatzeko du. Gaitasuna-ergo-patua fenomenoaren eraginkortasuna handitzen den heinean areagotzen da etiketatzearen eraginkortasuna sendotzeko aukera, berriro ere osagai guztiak norabide jakin batean indartzen

direlarik. Honela, gure ikerketa Rist-ek (ikus II.2.2) *etiketatzea* eta Bourdieuk (ikus I.1.1.2) *allocation* deitzen dutenaren hildoan kokatuko litzateke.

Atentzioa eman digu gure ikerketan gaitasunari buruzko ebaluazioak zenbat errepikatzen diren. Behin eta berriz ekoizten dira eta etengabe iristen dira hezkuntza sistemako agenteengana. Ez da komeni diskurtso honek errepikatzeko duen beharra gutxieste. Izan ere, badirudi bere presentzia eraginkorra dela soilik behin eta berriro modu batera edo bestera errepikatzen denean. Egiten ez denean, indarra galdu egiten du. Butler-ek (ikus II.3.6.2) *performatibitatea* deitzen duen fenomeno izango litzateke hau.

Gaitasuna-ergo-patua dinamikan funtsezkoak dira beste bi mugimendu: naturalizazioa eta indibidualizazio psikologikoa. Norbanakoa hezkuntza sistemaren baitan arloren batean ondo moldatzen ez denean, gaitasuna-ergo-patua dinamikak norbanakoari leporatu ohi dio. Arazoaren kausa norbanakoaren ezaugarri psiko-kognitiboetan kokatzeko joera handia dago. Gaitasuna-ergo-patua dinamikak automatikoki ondorioztatzen du ikasle horrek berezkoa duela arlo horretan gaitasun txikiagoa izatea. Horrela naturalizatzen da arazoa. Norbanakoak gorpuzten du arazoa, bestelako faktorerik ez balego bezala. Hezkuntza sistemak arazo handiak dauzka gaitasuna-ergo-patuaren eta naturalizazio psikologikoaren parametroak gainditzeko. Nekez jabetzen da berak ekoiztako arazoez.

Baliabideen transmisio asimetrikoa ez da ausaz gertatzen. Mailaketa zeren arabera gertatzen den azaltzeko berriro Durkheimek (II.1.1) seinalatzen digu bidea. Durkheimen ikuspegitik hezkuntza ez da orri zuri baten gainean idaztea bezala, Locke eta Helvetius-ek uste zutenaren kontra. Erruz ahaleginduko balitz ere, hezkuntzak ez luke pertsona ekoiztiko, ez nahieran behintzat, zeren hezkuntza beti errealitate baten gainean aritzen baita.

Bourdieu-k (ikus I.2.3 eta II.2.3) ikuspegi hori darabil hezkuntza sistemaren baitan sortzen diren ezberdinketak azaltzeko. Familiaren rola funtsezkoa da Bourdieuren ekarpenean. Hain zuzen familia da gure ikerketan erabili dugun lau erpineko ikuspegiko erakundeetatik bat. Bourdieuk dioenez, familiek gorputz bat balira bezala funtzionatzeko borondatea izan ohi dute, baina ez dute eraginkortasun maila berdina izaten. Familia bakoitzak bere posiziotik ekoizten du bere estrategia eta bere ondorengoei transmititzen ahalegintzen da. Familien estrategien arteko ezberdintasunak azaltze aldera Bourdieuk (ikus I.2) *kapital* kontzeptua erabiltzen du. Bourdieuren arabera, mundu soziala, metatutako historia da. Ez da behin-behineko indar oreka-desoreka egoeren jarraipen hutsa. Iraganaren herentziak ez du determinatzen, baina pisu handia dauka. Bourdieuren *kapital* kontzeptuak orainaldian pilatzen den guztia adierazteko balio du, materiala nahiz sinbolikoa, gorputzaz kanpokoa nahiz barneratua. Kapitalaren banaketa asimetrikoak eragozten du indar harremanak ausaz gertatzea. Kapital handiagoa eta egoerara doituagoa duenak aukera handiagoak dauzka hainbat helburu erdiesteko. Bourdieuk ez du kapital kontzeptua unidimentsionalki erabiltzen. Kapital ekonomikoaz gain, kulturalak, sozialak eta sinbolikoak berebiziko garrantzia dute Bourdieuren ekarpenetan. Ondorioz, kapitalak bolumen ezberdina ez ezik egitura ezberdina ere izan dezake. Gainera, aldatu egiten da denboran zehar. Beraz, hiru dimentsioko espazio soziala ekoizten du kapitalak: bolumena, izaera eta denbora. Hiru irizpideen konbinazioan ekoizten da posizioa eta honetatik eratortzen da Bourdieuk *habitus* deitzen duena, ibilbideak ekoiztiko dituen disposizio multzoa alegia.

Bourdieu (ikus I.2.3) dioenez, indar harreman asimetrikoak denboran zehar iraun dezaten ezinbestekoa da kapitala ondorengoei transmititzea, eta familiak rol oso garrantzitsua jokatzen du horretan: familia bakoitzak bere kapitala seme-alabei transmititzeko ahalegina egiten du eta familia guztiek kapital kopuru eta izaera berdina ez dutenez, asimetria mantendu egiten da familiaren baitako kapitalaren transmisioaren bitartez. Fernández Palomares-en (ikus I.2.3.1) arabera ere familiaren transmisio lana funtsezkoa da erreprodukzioa bermatze aldera, familia baita funtzio hau betetzen duen agente sozializataile eraginkorra. Familiaren egitura eta dinamika tradizionalaren endekatzea nabarmena den arren (ikus I.2.3.3), Bourdieuren arabera oraindik ere rol zentrala jokatzen du pribilegio ekonomiko, sozial, kultural eta sinbolikoak transmititzeari dagokionez. Bourdieu (ikus I.2.3) dioenez, familia fikzio bat da, artefaktu sozial bat, ilusio bat, baina ilusio oso sendoa da, eta maiz oso eraginkorra. Kohn-ek (ikus II.2.3.4) nabarmendu egingo ditu familia batetik besterako estrategia ezberdinak. Aita edo ama batek, adibidez, kualitate jakin bat garatzea beste batzuk baino egokiagoa dela pentsatuko du baldin eta kualitate hori garrantzitsutzat jotzen badu, hots, baldin eta kualitate hori ez garatzeak haurrari kalte egingo liokeela baderitzo eta kualitate hori garatzea segurutzat jotzen ez badu. Kohn-ek dio ama edo aita batek egin ditzakeen aukerak ez direla ezerezaren gainean egiten, beren posizio sozialak baldintzatu egiten baititu.

Kapitala batik bat familiaren baitan transmititzeak eragin zuzena du hezkuntza sisteman, Bourdieuren (ikus II.2.3) arabera: hezkuntza sistema garaikideen berdintasun formalak izkutatu egiten du diskriminaziorako joera. Berdintasun formalak meritua pertsonala aldarrikatzen du, baina Bourdieu dio familiaren kapitalaren bolumenak, izaerak eta ibilbideak asko baldintzatzen dutela seme-alabek eskolan izan dezaketan ibilbidea. Hezkuntza sistemak eskatzen duen kapitalarekiko hurbiltasunak baldintzatzen du arrakasta akademikoa. Beraz, Bourdieuren arabera, berdintasun formalak bermatu arren, eskolak sozialki legitimatutako mugak ezartzen ditu: titulu akademikoak esleituz eta ukatuz izanari izena jartzen dio eta, ondorioz, ezberdinkeria sozialak legitimatzen laguntzen du zeren bereizketak meritua indibidualen arduratzat hartzeko joera baitago. Baina, gainera, ezberdinkeria sozial berriak ere ezartzen ditu agente batzuk talde zehatzetako kide bihurtzen dituenean. Bourdieu dioenez, azterketak dira berdintasunaren ikurrik behinena hezkuntza sistema garaikideetan. Azterketen bidez sailkatzen dira ikasleak. Legitimotasun sozial handia dutenez, emaitzek epai sendo eta zorrotz lana egiten dute, ikasleengan *patu* sentazioa errotuz. Ikuspegi meritokratiko-sustantzialista honek zauri sendaezinak eragin ditzake.

Navarro-k (ikus II.2.3.4) eskaintzen dituen datuen arabera, diru irabazi handienak dauzkaten familiek inbertitzen dute gehien hezkuntza formalean, baina hauei kostatzen zaie erlatiboki gutxien, familiako irabaziak erlatiboki handiagoak direlako. Dinamika honek eragin handia du lorpenetan: familiaren errenta handitu ahala areagotzen da hezkuntza formalean gora egiten dutenen kopurua. Lanbide motak ere baldintzatzen du. Honek guztiak eragina du seme-alaben etorkizuneko diru irabazietan: titulazio maila handiagoa izan ahala areagotzen da lan errenta handiagoa izateko aukera eta, aldiz, txikitu egiten dira langabezian eta pobrezian egoteko aukerak. Baina, Navarroren datuen arabera, emakumezkoek errentagarritasun txikiagoa ateratzen diote titulazio akademikoari.

Nolanahi ere, familiaren eta hezkuntza sistemaren arteko harremana aztertzen ari garelarik, aintzat hartu beharke gure bi erakunde sozial hauen baitan aldaketa handiak gertatu direla.

Familiari dagokionez, Castells, Giddens eta Fernández Palomaresek (ikus I.2.3.3) diotenez, familia patriarkala asko higatu da eta, ondorioz, familiaren baitako indar harremanak ez dira garai batekoak. Familia beti izan da gatazka eremu, baina gaur egun inoiz baino intentsitate handiagoa dauka barne mailako etengabeko negoziazioak. Aldaketa hauek zerikusia dute familiaren funtzionaltasunarekin. Taberner-ek (ikus II.2.3.1), berriz, nabarmendu egiten du adinkideek eta hedabideek ere agente sozializatzaile rola jokatzen dutela gaur egun eta, halaber, familiaren baitako gatazka mailak eta familiaren baitako anomia mailak ere eragina dutela haurren nortasunarengan eta, ondorioz, eskolako errendimenduan. Ikuspegi honen harira, Martín Criado-k (ikus II.2.3.1) dio kapital kulturala ez dela objektu material arrun bat bezala transmititzen zeren familiako nagusien eta txikien arteko hartuemanaren izaerak eta intentsitateak nabarmen baldintzatzen baitute transmisioa: erabiltzen den denbora, ezartzen diren dinamikak, nagusitzen diren estrategiak.

Hezkuntza sistemaren erreformei dagokienez, ezin dugu ahaztu Bigarren Mundu Gerraz geroztik hezkuntza sistemaren hedapen kuantitatiboa oso zabala izan dela eta, gainera, azken hamarkadetan erreforma ugari egin dituztela (ikus II.4.2). Waisgrais eta Calero-ren (ikus II.4.2.1) arabera, nabarmen handitu da belaunaldi berrien ikasketa maila. Fernández Enguitak (ikus II.4.2.1), aldiz, ikerketa honetan aztergai dugun adin taldea lehen eta bigarren hezkuntzan zegoen garaiari buruzko MECen datuetan oinarrituz azaltzen du eskola porrota eta arazo akademikoak kontuan hartzekoak zirela. Bourdieu eta Passeronen (ikus II.4.2.3) arabera, eskolaratze masiboak aldaketa morfologikoak eragin ditu hezkuntza sisteman, ikasleen maila orokorra handitu egin da, baina, sakoneko dinamiketan ez dago aldaketa esanguratsuegirik. Varela eta Alvarez Uria-ren (ikus II.4.2.1) arabera, ezberdinkeria formalek desagertze aldera egingo dute, baina ezberdinkeria izkutuago batek ordezkaturiko ditu. Lerena-ren (ikus II.4.2.1) arabera, erreformen ondoren, nobleziak sehaska, estatusa eta ohorea aipatzen zituen lekuan burgesiak bokazioa, gaitasuna eta meritua aldarrikaturiko ditu. Fernández Enguitak (ikus II.4.2.2 eta II.4.1) erreformen porrotari buruzko hainbat azalpen ematen ditu. Lehenengo epealdi batean dio erreformek arrakastarik ez izatearen arrazoia ekonomikoa bezain kulturala dela: hezkuntza sistemak kultura mota batean oinarritua izaten jarraitzen du, baina kultura hori bakarria balitz bezala hedatzen saiatzen da. Alta, bigarren epealdian erreformen porrota irakasleei leporatzen die. Aitzitik, Contreras eta Esteve-ren (ikus II.4.1) arabera, erreformen porrota bere testuinguruan ulertu behar da, zeren hezkuntza sistemak legitimotasun krisi larria bizi baitu. Usategik eta Valle-k (ikus II.4.1) diotenez, eskola *azken itxaropena* da arazo sozial guztientzat, baina,aldi berean, gizarte honentzat eskola erakunde periferikoa da.

Gure ikerketan aztertu dugun adin taldeak azken erreforma ez beste guztiak bizi izan ditu eta azkena ere ez zaio guztiz arrotz, eta, hala ere, analizatu ditugun diskurtsoetan ez dugu aurkitu aldaketa sakonik familiaren eta hezkuntza sistemaren arteko harremanean. Ikerketa honetan ondorioztatu ahal izan dugunaren arabera, familia funtsezko erakunde soziala da hezkuntza sistemaren baitan gertatzen diren ezberdintze prozesuak ulertu ahal izateko. Gure ikerketaren arabera, familia guztien estrategiek eragin handia dute, baina ezinbestekoa da estrategia horien bitartekoak eta emaitzak nolakoak diren aztertzea, horretan antzeman baititugu ezberdintasunak. Kapitalaren bolumerari, izaerari eta ibilbideari dagokionez, posizio sozial ezberdinetan dauden familiak aurkitu ditugu eta nabarmena iruditu zaigu posizio sozialak asko baldintzatzen duela

transmisioaren izaera eta eraginkortasuna. Lau teknika orokor identifikatu ditugu eta, ondorioztatu ahal izan dugunez, teknika hauen erabilera ezberdintasunak ekoizteko baliatzen da:

- 1) Etxeko txikien ikastetxea aukeratzea da horietako bat. Kontuan hartzen dituzten hainbat irizpide identifikatu ahal izan ditugu: hurbiltasuna, prestigioa, hezkuntza eredua, publikoa edo pribatua izatea, laikoa edo erlijiosoa izatea, hizkuntza eredua eta prezioa.
- 2) Familia etengabe saiitzen da seme-alabengan erreferentzia estrategikoak ezartzen. Taigabe ahalegintzen da etxeko txiki eta gazteei hainbat aspirazio, espektatiba, ezagutza, interes eta zeregin transferitzen. Familiak lan hau modu askotara egin dezake: esplizituki nahiz inplizituki, hala kontzienteki nola inkontzienteki, eraginkortasunez edo gabe, eta koherentziaz edo gabe, besteak beste. Hezkuntza formalari dagokionez, familia guztiek ez dituzte inbertsioak modu eta intentsitate berdinarekin sustatzen. Familiak uneoro transmititzen die seme-alabei hezkuntza formalaren balioari eta erabilgarritasunari buruzko ikuspegi bat. Eskematikoki esatearren, hezkuntza formalean egiten diren inbertsioen errentagarritasuna gutxiesten duen familiak lehenetsi egingo du lanaren mundura lehenbailehen sartzeari eta, haatik, hezkuntza formalean egiten diren zenbait inbertsiotan fermuki sinesten duen familiaren estrategiak epe luzerako inbertsioak sustatuko ditu, inbertsioak orain egin eta emaitzak gero jasotzearen ideia alegia. Badirudi familia bakoitzak bere ondorengoen posizioa etorkizunean zein izango den aurreikusteko joera duela eta horren arabera ikuspegia transmititzeko ahalegina egiten duela, baina, gure ikerketaren arabera, aurreikuspena baino gehiago, gidari lana egiten du. Etorkizuna deskribatu baino gehiago, ekoitzi egiten du, edo horretan saiitzen da behintzat, nahiz eta ez dirudien inoiz fede txarrez egiten dutenik. Familiak egitasmoren baten aurrean seme-alaben *gaitasuna* zalantzan jartzen duenean, adibidez, inbertsioaren errentagarritasuna jartzen du kolokan, inbertsio *errealitara* doitzea lehenetsiz. Estrategia hau eraginkortasunez ezartzen denean, familiak errealitatetzat duena gailentzen da, norbanakoaren hautaketa eta erabaki aukerak mugatuz. Emaitza akademikoak baino indartsuagoa izan daiteke sinesmena.
- 3) Familiak bere kideen posizio soziala erreferentziazat transmititzen du. Fenomeno hau modu askotara gerta daiteke: horri buruz propio hitz eginez, kontzienteki, esplizituki, baina baita zeharkako modu batean ere, inplizituki, sarri inkontzienteki, esate baterako familiako kideen bizimodua erakutsiz (bizitzeko era baten euskarriak, dinamikak, ohiturak eta prestigioa, besteak beste). Ikerketan aurkitu dugunaren arabera, badirudi familiako kideen ikasketa mailak erreferentzia lana egiten duela. Aitak edo amak unibertsitateko titulua duenean, adibidez, ikasketak lanerako bitarteko tresna baino zerbait sakonagoa izateko joera du, *patu* sentimendu antzeko bat. Emaitza akademikoei gaina har diezaioke. Hots, *patu* sentimenduak emaitza akademikoak ezerezean utz ditzake. Onerako eta txarrerako. Esate baterako, familiaren erreferentzietatik prestigio txikiagoko ibilbideen alde egiten badute, emaitza akademikoek gorago seinalatu arren, familiaren erreferentzia gailentzen bada, emaitza akademikoek seinalatzen dituzten bideak baztertu egingo dituzte. Bestalde, badirudi gurasoen posizio okupazionala ere erreferentzia eraginkorra izan daitekeela, nahiz eta ez dirudien erreferentzia hau ikasketa mailarena bezain eraginkorra denik. Nolanahi ere, gurasoen ikasketa maila edo posizio okupazionala, noski, ez da *patu* sentimendu hori eragin dezakeen bakarra.

- 4) Familiak euskarri lana egiten du, *koltxoi* funtzioa. Uneoro da garrantzitsua, baina bereziki garrantzitsua da krisi garaietan, hots, seme-alabek aldaketei, erabakiei eta ahuluneei aurre egin behar dietenean. Hainbat euskarri mota identifikatu ditugu: a) Laguntza *afektiboa* mota eta intentsitate askotakoa izan daitekeen arren, badirudi oro har seme-alabei babesa eta kemena ematen diela; b) familiaren euskarri *ekonomiko-estrategikoa* ere funtsezkoa dela dirudi, zeren honen intentsitatearen eta eraginkortasunaren arabera zabaltzen edo murrizten baitira seme-alaben inbertsiorako aukerak, baina familiaren gaitasun ekonomiko-estrategikoa oso garrantzitsua dela baieztatzeak ez du esan nahi familiaren eraginkortasun ekonomikoa soilik familiaren gastuaren arabera neurtzen denik, zeren abalista lana egite hutsak ere gastuarenak bezain besteko bermea suposa baitezake, funanbulistaren sarea bailitzan; c) familiaren *kultura motak eta bolumenak* ahalbidetzen duen babesa ere eraginkorra izan daiteke, zeren hezkuntza formalean eskatzen denarekiko hurbiltasuna oso lagungarria baita baldin eta familiak bere baliabideak erabiltzen baditu, baina hori bezain garrantzitsua da ikasketetan eskatzen den lan dinamikaren aldeko apustu eraginkorra.

Bourdieuren *kapital* kontzeptuaren bitartez argiago uler dezakegu familiaren eta hezkuntza sistemaren arteko harremanean nola ekoizten den ezberdinkeria, baina ez dugu uste analisia bere horretan utz daitekeenik. Lehenik eta behin, nahasketak ekiditearren, argi utzi nahi dugu gure ikerketan *kapitala* eta *gaitasuna* ez direla gauza bera. Meritokraziaren ikuspegitik bai, gaitasunak ezartzen baitu etorkizuna: zenbateko meritua hainbateko kapitala izango du norbanakoak. Ondorioz, meritokraziak dio norbanako bakoitzak bere merituen arabera eskuratuko duela eskolako kapitala. Alta, ikerketa honetan darabilgun *gaitasun* kontzeptuak beste adiera bat du. Trebezia da, kapitalak ezartzen duen neurriaren galbahea pasa aurrekoa. Hezkuntza eredu honetan trebezia, kezka eta espektatiba batzuek ez dute lekurik. Meritokraziak horri meritu falta deitzen dio eta zigortu egiten du.

Bestalde, orain arte kontuan hartu ditugun osagaiekin ezingo genituzke azaldu gure ikerketan aurkitu ditugun hainbat fenomeno. Une honetara arte esan dugunarekin, baten batek pentsa dezake ikerketa honetan deskribatzen ari garen hezkuntza sistema makineria estratifikatzaile zorrotz perfektua dela. Kutsu determinista hori dute Parsons en ereduak eta korrespondentziaren teoriak. Bourdieuren ekarpenak, aldiz, beste maila batean kokatuko genituzke: bere zenbait ekarpen oso baliagarriak dira gure ikerketan, baina batik bat erreprodukzioaren azterketaz arduratu denez, ez dio arreta handirik eskaini beste zenbait ate irekitzeari, erresistentziaren teoriak zabaltzen dutenari kasu, eta bien bitartean beste zenbait ate irekita gelditu zaizkio, erreprodukzio soilaren ikuspegia adibidez.

Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, IAPak aztertzerakoan halabeharrez gainditu behar dira erreprodukzioaren teoriak, nahiz eta hauek oinarri sendotzat hartu. Hori egin ahal izateko ekarpen berriak egingo ditugu hezkuntza sistemari eta familiari buruz. Horrez gain, erakunde sozial bat gehiago mahaigaineratuko dugu: norbanakoa, lau erpineko gure ikuspegiaren hirugarren osagaia.

*Hezkuntza sistemari* dagokionez, begirada homogeneizatzailea ez dator bat ikerketa honetan aurkitu dugunarekin. Batetik, gure ikerketan ondorioztatu dugu joera orokor sendo, eraginkor eta hedatuak daudela. Hezkuntza eredu nagusiaren arabera, irakaslea da baliabide ororen iturri:

ezagutza, diziplina, pasaporte eta proiektzioa. Irakasleak gorpuzten du hezkuntza sistemaren autoritatea. Irakasleek ikasleekiko harreman hierarkikoa dute: irakaslea dago goian eta ikaslea behean, irakaslea igorlea da eta ikaslea kontsumitzailea. Bestetik, ordea, Usategi-k eta Valle-k (ikus II.3.3.2) dioten bezala, hezkuntza erkidegoak ez du helburu multzo bakarra partekatzen. Gure ikerketan aurkitu ditugun ikastetxeen, irakasleen eta ekintza pedagogikoen espektroa ez da homogenea. Lehenik eta behin, denen ahotan dabilzan bereizketa irizpideak aipa ditzakegu: ikastetxea publikoa edo pribatua den, zein hizkuntza eredu duten (A, B edo D) eta laikoa edo erlijiosoa den. Baina, gainera, eskola dinamika alternatiboak ere aurkitu ditugu: esate baterako, ikasleak bideratutako lanean oinarritutako azterketarik gabeko jarduerak, ikastetxeaz kanpoko inguruarekin harreman estua ahalbidetzen duten jarduerak, ikasleek irakaslearen rola hartzen duten jarduerak, eta enplegua eta ikasketa uztartzen dituen jarduerak. Baina baita hezkuntza dinamika tradizionalagoak ere: lezioa pasatzea kasu. Halaber, aipatzeko modukoa da ikasleek ez dutela irakasle mota bakarria hautematen: erreak, gogotsuak, zorrotzak, pasotak, tradizionalak, estandarrik, berritzaileak, interes handia erakusten dutenak eta interesa aspaldi galdu zutenak, besteak beste.

Kasu hauek existitzeak egin daitekeenaren aukerak erakusten ditu. Ikastetxe eta irakasle bakoitzak gorpuztu egiten du hezkuntza sistemaren baitan berari dagokion rola. Ezinezkoa da joera nagusiak bere horretan erreproduzitzea. Derrigorrezkoa da interpretatzea. Prozesu horretan sortzen da ezberdin jokatzeko aukera, baina ez nahieran, noski, beti ere testuinguru jakin batean, joera nagusiek baldintzapean lan handia egiten baitute. Kuantitatiboki aztertuz gero, ziur aski bestelako dinamika hauek ez lirakeke esanguratsuak. Kualitatiboki, aldiz, garrantzitsuak dira, parada adierazten baitute.

Bourdieu (II.3.1) bere diskurtsoaren periferian aipatu izan du eskolaren gaitasun eraldatzailea, baina beti ere nabarmenduz eskolaren ekimen soilak ezin duela hezkuntza sistema berdinzale baten helburua berak bakarrik bete baldin eta mundua aldi berean aldatzen ez bada. Fernández Enguitaren (II.3.2) arabera, berriz, ikasleak ez dira irakasle ahalguztidunaren aurrean dauden izaki ahalgeak. Ikasleek beti lortzen dute negoziazio ahalmena, formalki ez bada, informalki.

Erresistentziaren teoriaritza hartzen diren Apple, Freire, Willis, Macedo eta Giroux-en ekarpenek (ikus II.3.3) bere egiten dituzte erreproduktzioaren teorien hainbat osagai (adibidez, kritika egiten diote eskolako ezagutza selektiboari eta ageriko nahiz izkutuko curriculumari), baina, haatik, erresistentziaren teoriariek ez dute uste hezkuntza formalaren dinamika nagusi guztiek klase dominatzaileen interesei erantzuten dietenik. Erresistentziaren teoriaren ikuspegitik, gatazka funtsezko ezaugarria da hezkuntza sistemaren eta, gainera, boterearen fenomeno ezin da aztertu hegemoniaren erdigunaren bila, ez baitago halakorik. Erresistentziaren ikuspegi arabera, erreproduktzioaren teoriak ez dute erakusten harreman sozial kapitalistak izatez direla kontraesankorrak eta eskolan ere dinamika nagusiak barne kontraesanak sortzen dituztela. Horrexegatik uste dute eraldaketa ekoizteko aukerak badaudela hezkuntza sistemaren baitan. Hildo honetan aitzindari izan zen Gramsci-k (ikus II.3), esate baterako, ikaskuntza sortzailea, esanguratsua eta kritikoa proposatzen du, zenbait arlotan trebakuntza bere horretan mantenduz. Gure ikerketan ez dugu halakorik aurkitu, baina bai, ordea, hezkuntza sistema makineria erreproduktore soila ez dela islatzen duten hainbat adibide. Bi aipatuko ditugu: generoa eta



hizkuntza. Hezkuntza sistemak ez du lortu bi hauekin oso eraldatzailea izatea, ez du beren egoera soziala irauli, ezta hezkuntza sistemaren baitan ere, baina bidea urratzen hasiak direla dirudi.

Haraway-ren (ikus II.3.2.2) arabera, patriarkatuak, kolonialismoak eta kapitalismoak esperientzia historiko bildurgarrien bitartez ezarri dituzte genero, arraza eta klase kontzientzia arloko errealitate sozial kontraesankorrak eta bide batez dominazioa. Butler-ek (ikus II.3.2.2) Simone de Beauvoir-en aldarria hartzen du abiapuntutzat: “Ez zara emakume jaiotzen, emakume bihurtu egiten zara”. Generoak eta sexuak ez daukate sustantziarik, ezta unibertsaltasunik, batasunik edo egonkortasunik ere. Ekintzen errepikapen estilizatuaren bitartez ekoizten dira. Beraz, uko egiten dio feminismo tradizionalaren ikuspegiari. Preciadok (ikus II.3.2.2), neurri batean Butler eta Haraway uztartuz, dio sexu/genero sistemaren osagaiak teknologia direla eta koertzio performatiboaren bitartez ahalbidetzen dutela batak bestea ustiatzea. Preciadoren arabera, kapitalaren hazkundea pentsaezina litzateke baldin eta dispositibo hauen bitartez emakumeek egiten dituzten zerbitzu sexualak, haurdunaldiak, heziketako lanak eta zaintzako lanak plusbalio bihurtu ez balira. Hezkuntzaren eremuari dagokionez, Davies-ek (ikus II.3.2.2) dio eskolaren politika pedagogikoak baldintzatu egiten duela haurrek ezberdintasunarekiko izango duten jarrera Reay-ren (ikus II.3.2.2) arabera, berriz, gehiengoak uste du hobe dela gizonezkoa izatea, nahiz eta gehiengoak ez duen uste gizonezkoak hobeak direnik.

Taberner-en (ikus II.3.2.2) arabera, azken hamarkadetan aldaketa kuantitatibo handiak gertatu dira: gizonezkoak gehiago izatetik emakumezkoen kopuru handiagoa izatera pasa da. Baina Fernández Enguitak (ikus II.3.2.2) gaztigitzen du ezberdinkeriak ez direla soilik ikasketa mailaren arabekoak, era berean ikasketa mota ere kontuan hartu behar dela. Ikuspegi honek ezinbestekoa dirudi, adibidez, EHUko ikasleen kopuruak generoaren arabera aztertzen ditugunean (ikus II.3.2.2): kopuru orokorrari dagokionez, emakumezkoak gehiago diren arren, gizonezkoek osatzen dute gehiago zabala, esate baterako, injinieritza ikasketa guztietan. Bestalde, oraindik Lanbide Heziketan emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino txikiagoa da (ikus II.3.2.2); adibidez, 2006. urtean hamarretik lau ziren emakumezkoak. Nolanahi ere, Fernández Enguitaren (ikus II.3.2.2) arabera, aurki iritsiko dira emakumezkoak hezkuntza sistemaren adar guztietan gehiago izatera, baina arazo larriena hezkuntza sistematik kanpo dago, zeren titulu akademiko berdinek baliagarritasun txikiagoa baitute emakumezkoentzat.

Gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, badirudi hezkuntza sistemak aurrea hartu diola bere tesuinguru sozialari, baina ez gehiegi. Hezkuntza sistemaren baitan oraindik ere badaude emakumezkoen gutxiespena sustatzen duten diskurtso publikoak. Baina genero arloko diskurtso esplizitua izebergaren goiko muturra baino ez da. Emakumezkoak gutxiesteko ageriko modu hori ikusgarria den arren, izkutuan gauzatzen da prozesu eraginkorra. Naturala balitz bezala barneratzen dituzte gizonezkoek eta emakumezkoek hainbat joera. Izan ere, genero arloko politikak eraginkorrak dira hein handi batean. Emakumezkoak posizio jakin batzuetarantz bultzatzen dituzte, eta horietako hainbat debalututa daude. Alta, Fernández Enguitak dioen bezala, hezkuntza mailan emakumezkoak gailendu diren bezala, badirudi denbora kontua dela hezkuntza mota guztietan emakumezkoak gehiago izatea. Edonola ere, joera hau ez da guztiz positiboa: emakumezkoek ez diote titulu akademikoei gizonezkoek bezain besteko etekina ateratzen eta, ondorioz, badirudi hezkuntza sisteman inbertsio handiagoak egitera behartuta daudela.

Hizkuntzari dagokionez (ikus II.3.2.3), aztergai dugun hezkuntza sisteman oso ezberdina da euskararen eta erdaren egoera. Gaztelaniak 352 milioi hiztun dauzka, frantsesak 122 milioi eta euskarak milioi bat baino gutxiago. Baina txikia ez ezik euskara hizkuntza gutxiagotua ere bada. Azken hamarkadetan hedatu egin den arren, soilik euskal herritarren laurdenak daki euskaraz eta hauen artean hamarretik lau hobeto moldatzen dira erdaraz. Beraz, gainerakoak hamarretik bi baino gutxiago dira. Eta halakoxea da euskaraz hitz egiten dutenen kopurua: hogeitau euskal herritarretatik hiru bakarrik. Kopuru hau %3,4 besterik ez da handitu azken 17 urteetan. Euskararen erabilera ez da handitzen ari euskararen ezagutza handitzen ari den maila berean. Datu hauek garbi iradokitzen dute euskararen hedapenak dauzkan gabeziak.

Asimetria hauek ez dira ezerezetik sortu. Hezkuntza sistema, adibidez, maiz erabili izan dute euskararen aurkako tresnatzat. Amurrio, Perez Urraza, Bilbao eta Ezkurdiaren (ikus II.3.2.3) arabera, Frantzia eta Espainiako nazio-estatuak garai historiko askotan desagerrarazi dute euskara hezkuntza sistematik. Mateos-en (ikus II.3.2.3) arabera, euskal nazionalismoa hastapenetatik arduratu da afera honetaz. Iztuetak (ikus II.3.2.3) dioenez, XIX. mende bukaeratik aurrera euskal irakaskuntza ardatz zuten hainbat egitasmo gauzatu dira. 1981 urtetik aurrera hizkuntza ereduak ezarri zituzten hezkuntza sisteman eta gaur egun horrek jarraitzen du indarrean. Kuantitatiboki (ikus II.3.2.3) Euskal Herrian oro har D eredia da aukeratuena, are gehiago Gipuzkoan, baina oraindik hamarretik sei ikasle daude D eredia ez beste batean (B, A, X edo G ereduetan matrikulatuta). Kopuru hori handiagoa da ikasketa mailan gora egin ahala. Gainera, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera, D ez beste ereduak ez dutela euskalduntzen eta D eredia ere ez dela beti eraginkorra.

Gure ikerketan ere islatzen dira euskararen argilunak. Batetik, aztergai dugun belaunaldia hezkuntza sisteman hasten ari zenean, gurasoen belaunaldiak euskal hezkuntzari eman zion bultzada eta honek izan zuen arrakasta partziala ageri da: hezkuntza sistemaren baitan euskara hainbat zentzutan normalizatu bago bezala ikasi ahal izan zuten beren seme-alabek, testuinguru sozialari askogatik aurrea hartuz. Bestetik, ordea, nabarmena da hezkuntza arloko ekimen honek bere inguruko testuinguru sozialean duen eragin partziala, hots, Bourdieuk dioen eran, hezkuntza sistema ezin dela guztiz aldatu baldin eta bere testuinguru soziala bere norabidean aldatzen ez bada.

Bi adibide hauen bitartez erakutsi nahi genuen hezkuntza sistema garaikidea ez dela ezberdinkeria sozialen erreproduktore hutsa, bere baitan gatazka eta kontraesana ohikoak direla, agente eta arlo guztietan gainera.

*Familiari* dagokionez, halaber, hezkuntza sistemari buruz oro har esan dugun bezala, begirada unidimentsionala ez dator bat ikerketa honetan aurkitu dugunarekin. Familiak erreproduktio lanak etengabe egiten dituela ondorioztatu dugun arren, funtzio horri ihes egiten dioten beste hainbat fenomeno ere topatu ditugu. Esate baterako, atentzioa eman digu itxuraz oso antzeko egoeran dauden familiek estrategia ezberdinak erakitzea eta, halaber, itxuraz egoera ezberdinetan dauden familiek antzeko estrategiak ekoiztea. Willis-en (ikus II.3.4) ekarpenetan ere aurki dezakegu fenomeno hau. Gure ikuspegitik fenomeno honen azalpena izan daiteke ikerketa honetan ez dela erraza izan zenbait familiaren kapitalaren bolumena, egitura eta ibilbidea zertan diren zehatzegi identifikatzea. Akademikoki aitortua ez dagoen kapital kulturala izan da horren

kausa nagusia, baina beste zenbait arazo ere aurkitu ditugu. Batzuetan zeharka baino ez dugu antzeman hainbat familietan sumatu dugun ezagutza informala.

Nolanahi ere, benetako arazo bakarra familien kapitala zehatz-mehatz identifikatzea balitz, ondorioztatu beharko genuke kapitalak estrategia determinatzen duela, hau da, familiaren kapitala identifikatzea lortuko bagenu, eratoritzen den estrategia automatikoki jakin ahal izango genukeela. Baina kapitaletik estrategiaranzko jauziak ez du horrela funtzionatzen. Izan ere, ezberdinak dira kapitala, estrategia eta transmisioa. Elkarrekiko harreman estua duten arren, kapitalak ez du estrategia determinatzen eta, halaber, strategiak ez du transmisioa bermatzen. Ez dago inola mekanikotasunik.

Familiaren kapitalak baldintza sendoak ezartzen dizkio familiak ekoitz dezakeen strategiari, baina familiak estrategia sortzen duenean, bere posizioa interpretatu egiten du, aktiboki eta sormenez gainera. Ezinbestekoa den interpretazio lan horrek ahalbidetzen du determinismoa ezinezkoa izatea.

Era berean, familiak estrategia jakin bat izateak ez du ziurtatzen estrategia horren osagai guztiak seme-alabei transmititzeko gai izango direnik. Kapitalaren transmisioa prozesu kritikoa da. Batzuetan ahalegin arrakastatsua izaten da, besteetan porrot nahiko handia, baina gehienetan erdibideko zerbait gertatzen da, arlo batzuetan arraskatarantz hurbilduz eta besteetan, berriz, porroterantz. Prozesu hau urteetan luzatzen da eta gizabanako batek baino gehiagok parte hartzen du. Gora-beherak izaten ditu. Beti egoten dira krisi uneak. Edonola ere, kapitalaren transmisio prozesu orotan dago haustura maila bat, batez ere gurea bezalako ingurumaria sozial konplexu eta aldakorretan. Gainera, kontuan hartu behar da haurtzaroa gainditzen denean, etxeokak ez direla izaten kapital emaile bakarrak.

*Norbanakoa* da, azkenik, hezkuntza sistemaren azterketan erreproduktzio soilaren ikuspegitik urrundu ahal izateko hirugarren euskarria. IAPak aztertzeke proposatzen dugun lau erpineko ikuspegian, hezkuntza sistema eta familia aipatu ondoren, norbanakoa da hirugarren zutabea.

Bourdieu (ikus I.1) ere aintzat hartzen du norbanakoa. Subjektu hitzaren ordeztan *agente* terminoa erabiltzen du. Bourdieuren agentea ez da egituraren epifenomenoa. Agenteak zentzu praktikoa dauka. Agentea gai da bere gaitasunak, ezagutzak eta joerak bizi duen egoerara moldatzeko, hein batean behintzat. Agenteak ahalmena dauka asmatzeko eta inprobisatzeko. Beraz, Bourdieuren arabera, bizi baldintzek ez dute praktika zuzenean eragiten. Tartean agente aktiboa dago eta honek ez du inola ere mekanikoki jokatu. Edonola ere, Bourdieurena ez da tradizio idealistaren subjektu trazeendental, ez da subjektu kalkulatuzaile arrazionala. Bourdieuren agenteak mundua aktiboki hautematen du eta agenteak berak eraikitzen du bere mundu ikuskera, baina hau guztia egiturazko koakzioen testuinguruan gauzatzen da eta, esan gabe doa, ez dago forma eta kategoria unibertsalik. Azken finean, Bourdieurena subjektibismo kolektibista da. Agentea, Bourdieuren arabera, historia kolektiboaren arrastoan dabilen pauso indibiduala da, haustura edo jarraipena landu ditzakeelarik.

Bourdieu (ikus I.1.1.5) dioenez, zentzu praktikoa gidatzen ditu agenteen ekintzak, ez erabateko arrazionaltasun kontzienteak. Bourdieuk *zentzu* terminoak dauzkan bi adierak erabiltzen ditu:

esanahia eta orientabidea. Batetik, agentearen ikuspegia da, egoera ulertzeko modua, eta, bestetik, egoera horretan nola jokatu adierazten dion estrategia da. Agentearen sormen lan etengabea ezinbestekoa da egoera infinituki ezberdinetara egokitu ahal izateko, egoerak inoiz ez baitira berdin-berdinak. Uneoro ikusten duena eta aurreikuspena erabiliko ditu agenteak. Bere ikuspegiaren araberako eraginkortasuna du helburu, baina emaitzak sekula ez dira ziurrak. Bourdieuren arabera, norbanakoak ez du inoiz bere posizioa bere osotasunean ezagutzen. Posizioaren eta posizioa hartzearen arteko harremana ez da mekanikoa eta ekidinezina. Habitua ez dago halaber egoerara oso doituia eta, edonola ere, inoiz ez dago erabat doituia. Halaber, habitua ez da derrigorrez oso koherentea eta, nolahi ere, inoiz ez da guztiz koherentea. Bourdieuk dio praktika beti oinarritzen dela interesean baina interesak inoiz ez diola erabateko kalkulu arrazionalari erantzuten.

Araua errespetatzeari dagokionez, badirudi Max Weber-en (ikus I.1.1.5) ikuspegia baliagarria dela: araua obeditzen dute baldin eta obeditzearen interesak gaina hartzen badiot ez obeditzearen interesari. Beraz, Weber-en ekarpena baliatuz Bourdieuk dio arau ez diren printzipioek ere eragina dutela agenteen praktikan. Hori guztia da zentzu praktikoa Bourdieuentzat eta horren osotasunak ekoizten du habitua, agente bakoitzaren disposizio sistema iraunkor eta transferigarria (ikus I.2).

Foucault-ek (ikus I.1.1) ere baztertu egiten du subjektuaren metafisika. Foucaulten arabera, subjektua ez da erabat autokontzientea, guztiz askea, bere autonomia izpirituaren metafisikan oinarritzen duena. Foucaultek dioenez, estrategia guztiak botere harremanen amaraunean eraikitzen dira. Armiarma sare honek ez du jaberik, ez baitu sustantziarik. Boterea harremanean sortzen da. Nonahi dago, ez soilik botere gune handietan. Estatuak, adibidez, botere asko metatu dute herritarrekiko harremanean, baina edozein etxetako sukaldean edo edonongo ikasgelan ere botere harremanak daude. Ez dira egitura ekonomikoen menpeko. Eremu orok elkar eragiten dute, nahiz eta batzuek indartsuagoak diren. Botere harremanak koertzitiboak ez ezik sortzaileak ere badira. Eta ez dira doitzen legezko eta legez kanpoko dikotomiara.

Butler-ek (ikus II.3.2.2), berriz, nabarmendu egiten du nortasuna ez dela egonkorra. Ekintzen errepikapen estilatuaren bitartez eraikitzen da etengabe. Sustantzia edukitzearen itxura, funtsean, eraikitako nortasunaren emaitza da. Beraz, kultur harreman arbitrarioetan oinarritzen da, baina nortasuna emaitza den heinean, testuingurua ekimenaren eskenatoki izanik, ez dago erabat determinatua eta ez da artifiziala eta arbitrarioa. Honenbestez, Butler-ek baztertu egiten du determinismoaren eta borondate askearen arteko dikotomia.

Negri-k (ikus I.1.1), aldiz, pisu oso handia aitortzen dio singularitasunari, baina beti ere sustantzia oro kenduz, indibiduoarekiko ikuspegi erabat inmanentetik. Gorputza, lan bizia da, Negriren arabera, ez ezarria datorren unibertsal traszendente bat.

Davies-ek (ikus I.1.2.1), bestalde, hautsi egiten du norbanakoaren batasunaren ideia. Norbanakoa ez da prozesu sozialen emaitza egonkorra. Osatu eta berrosatu egiten da bere posizioak bere diskurtsoan eta besteen diskurtsoan duen kokapenaren arabera, norbanakoak *ni* bat baino gehiago balu bezala. Norbanakoaren fragmentarioritasuna ez da soilik denboran zehar. Unean uneko egoera ere bada.

Gure ikerketan elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoek garrantzi oso handia ematen diote norbanakoaren ahaleginari. Norbanako horri batzuetan subjektu erabat independentearen izaera ere esleitzen diote hainbat diskurtsok. Meritokraziak erabiltzen duen subjektuaren antzekoa dirudi. Baina ikerketa honetan ez dugu halakorik aurkitu eta, aldi berean, ikerketa honetan ondorioztatu dugunaren arabera, nabarmentzeko modukoa da norbanakoa inondik inora ez dela sistema baten osagai hutsa edo txotxongiloa. Ez da kate begi bat, ezta pasiboa edo imitatzaile hutsa ere. Ez du inolako faktorek determinatzen. Baina, aldi berean, ez du nahieran jokatzeko, testuinguru baldintzatzaileraginkor batean baizik, botere harremanen sarean alegia. Hots, norbanakoaren bilakaera ez dago determinatua baina ez da arbitrarioa. Halaber, norbanakoaren singularitasunarekin batera agerikoa iruditu zaigu ni-aren ezegonkortasuna eta fragmentarioritasuna, nahiz eta elkarrizketatu orok tarteka ahalegin eskerga egiten duen beren nitasunaren batasunari buruzko ikuspegi koherentea ekoizteko. Ekintzen errepikapen estilizatuak lan erabakiorra egiten du horretan.

Ikerketa honetan antzeman ahal izan dugunez, norbanakoak bere baldintzak modu aktiboan prozesatzen ditu. Ez da hartzaile pasiboa. Ez ditu aginduak betetzen. Norbanakoak bere testuinguruan ekoizten ditu bere baldintzak. Ez da ezerezaren gainean egiten den lana. Norbanakoa une eta leku bakoitzean baldintza jakin batzuetan bizi da, espazio sozialean kokapen bat dauka, eta testuinguru horretan egiten du norbanakoak bere lana, baina posizio sozial bakoitzak ez du mekanikoki behartzen norbanakoa lan jakin bat egitera. Posizio sozialak baldintza batzuk ezartzen dizkio, baldintza ugari, sendoak eta pisuzkoak, baina norbanakoak baldintza horiek modu aktiboan prozesatzen ditu.

Subjektu askea izatearekin ez du batere zerikusirik. Norbanakoak ez du kanpoko eraginaren galbahe lan soila egiten. Norbanakoak ez du soilik testuinguruaren eraginaren zati bat hartzen eta bestea baztertzen. Ikuspegi horren arazo nagusia da testuinguruaren itsasoan dagoen irlatzat erretratatzeko duela norbanakoa, hots, testuinguru gauza bat eta norbanakoa beste bat balitz bezala. Ikuspegi horren aldaera bat litzateke subjektu ahalguztiduna, testuinguruaren aurrean bere erabakiak modu erabat askean eta arrazionalki hartzeko gai litzatekeena alegia. Ikerketa honetan nabarmena iruditu zaigu norbanakoek beren testuinguru gorpuztu egiten dutela, norbanakoak testuinguru ere badirela, testuinguru ez zaiela arrotz, eta, aldi berean, norbanakoek ez dutela makineria baten osagai rola jokatzeko, ez direla sistema baten pieza determinatua, norbanakoen ekoizpen lan aktiboa aintzat hartzea ezinbestekoa dela ibilbide akademikoaren bilakaerak ulertu ahal izateko. Norbanakoek egin, egiten dute erreproduzio lana, handia gainera, baina jarduera hori ekoizpen lan handiago baten baitan ulertzen dugu, zeinetan erreproduzioa zati bat den.

Edonola ere, Bourdieu, Foucault, Butler, Negri eta Davies-en ikuspegia baliagarria iruditzen zaigun bezala, beharrezkoa deritzogu Certau-k Bourdieuri eta Foucaulti egiten dion kritika eta, halaber, Preciadok Butler-i egiten diona (ikus I.3.2.4.3). Certeau-k erresistentziaren fenomeno gutxiesten leporatzen die Bourdieuri eta Foucaulti. Certeuren arabera, dominatu estatusak ez du batere zerikusirik pasibotasunarekin eta otzantasunarekin. Bourdieuk eta Foucaultek nabarmendu egiten dute agentearen jarduera aktiboa eta botere harremanen dinamika sortzailea nahiz erresistentzia, hurrenez hurren, baina Certeauk hori baino gehiago adierazi nahi du: dominatu estatusa dutenek ere eraldatu egiten dituzte dinamika dominatzailearen ekoizkinak beren interes eta arauetara egokitzeko. Beraz, Certeuren arabera, ekoizleak ez diren erabiltzaileek ere moldatu

egiten dituzte joera dominatzaileak. Horrela, determinazio erlazionalen aniztasuna inkoherente eta kontraesankor bat gurutzatzen da indibiduo bakoitzarengan. Aitzitik, Certeauk dioenez, Bourdieuk eta Foucaultek ez dituzte behar adina kontuan hartzen, batetik, erakunde arauemailetatik kanpoko praktikak eta, bestetik, estrategien multiplizitatea, inkoherentzia eta kontraesankortasuna. Foucault eta Bourdieuren analisisetan erresistentzia agertzen den arren, ondorioetara hurbildu ahala konplexutasuna lausotu eta erreprodukzioa nagusitzen dela kritikatzeko du Certeauk. Preciadok zentzu berean kritikatzeko du Butler-en nortasun performatiboaren teoria. Preciadoren arabera, gorputza ez da nortasunari buruzko diskurtsoen emaitza performatiboa. Arrakasta eta intentsitate maila ezberdinekin bada ere, gorputzek ihes larroak tratatzen dituzte.

Fenomeno honetan azalpen orokorraren eraikuntza eta singularitasunaren erretratu lantzen ari garelarik, gogoan dugu IAPen ikerketak joera arriskutsu asko har ditzakeela. Gehiegizko orokortzea izan daiteke horietako bat. Ezin dugu ahaztu pertsona bakoitzaren bizitza errepikaezina dela. Mailu batek guztia iltze ikus dezakeen bezala, urrunetik begira jar gaitezke eta, marra lodiak tratatuz, antzekotasunei tira eginez berdinkeria ekoitzi dezakegu halakorik ez dagoen lekuan. Ikuspegi mekanizistak eta deterministak hori egitearen oso zaleak dira: konplexutasuna murriztea eta eskematizatzea da estrategia teoriko horien zaletasun nabarmenena. Baina beste muturra ere arriskutsua da. Zuhaitz bakoitzari begira, ezin dugu basoa ahaztu. Bizitza indibidualak beti originalak diren arren, hainbat ezaugarri dagokienez, ez dira originalegiak. Antzekotasunak aurkitzea funtsezkoa da horrelako ikerketa batean. Batzuetan fenomeno orokortuak dira. Besteetan soilik hainbat kidek partekatzen dituzte eta gainerakoek ez. Hori guztia aintzat hartu behar da orokorkerian edo indibidualkerian eror ez gaitezen. Azken batean, xalokeriari uko eginez, erabakiorra da ikergaiak behar duen so zehatza erabiltzea, ez baitago begiradarik gabeko azterketarik. Horretara hurbiltzen saiatu gara ikerketa honetan.

Norabide horretan, norbanakoaren interpretazio lan aktiboa funtsezkoa iruditzen zaigu ikerketa honetan aurkitu duguna azaldu ahal izateko. Posizio sozialaren baldintzen itzulpen lan sortzailea eginez, norbanakoak bere baldintzak ekoizten ditu. Seme-alabek etxeko kapitalaren antzeko zerbait dutenean, ez da imitazioaren emaitza izaten. Interpretazio lana da. Kapitalaren transmisioa eta kapitalaren jabetzea prozesu oso aktiboa da. Ahalegin handia da etxekoentzat ez ezik ondorengoentzat ere. Etxekoek transmititu nahi duten kapitala jaso, interpretatu eta itzuli egiten da. Itzulpena, sormen lana da.

Interpretazio lana kontuan hartu gabe, ezin ditugu IAPak ulertu. Eredu bakoitzak egiten du, erakunde bakoitzak, norbanako bakoitzak. Ikastetxe, irakasle eta familia bakoitza bezala, ikasleak ere agente aktiboak dira, baina ez Bourdieuren zentzuan, Certeauren zentzuan baizik. Erresistentziaren teoriararen arabera ere (ikus II.3.3), ikasleek berrinterpretatu egiten dituzte ikasketa metodo planifikatu ofizialak, batzuetan partzialki onartuz, besteetan erdiz-erdi uko eginez. Fiske-k dioenez (ikus II.3.3.3), botere txikiagoa dutenek lapurtu eta moldatu egiten dituzte kultura dominatzailearen osagaiak, maiz modu subertsiboan, adibidez jatorrizkoa parodiatuz edo harekiko alardea, eskandalua edo erresistentzia sortuz. Ondorioz, kultura besteentzat ekoizteko ahalegina ezin da inoiz erabat arrakastatsua izan.

Horrexegatik emaitza akademiko eskas berbera har daiteke behin-behineko porrot bezala, norberaren gabeziaren seinaleztat edo emaitza erabaki duen erakundearen nahiz agentearen hanka sartze edo maltzurkeritzat. Familiaren estrategiak zerikusi handia du horretan, baina, gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, norbanakoaren interpretazio lanak ere badu zeresana, eta ez nolanhikoa gainera. Era berean, horrexegatik norbanakoak ikasketekiko azaltzen duen interesa ez da bere posizioaren itzulpen soila. Norbanakoaren posizioak ikasketekiko interesa determinatuko balu, suposatu beharko genuke posizio batzuetatik mekanikoki eratortzen dela interesa eta, aitzitik, beste posizio batzuetatik sistematikoki ekoizten dela interes eza, horrela dinamika orokorra erreproduzitu egiten delarik. Haatik, posizioak ez dakar automatikoki interesa eta, halaber, posizio ezberdinek antzeko interesa ekoitz dezakete. Baldintzek ez dute interesa determinatzen. Interpretazio lan aktiboa dago posizioaren eta posizio-hartzearen artean, eta hortxe irekitzen da sormenerako tartea.

Jarduera hau nabarmena da, adibidez, norbanakoak bere interesak aldatzen dituenean. Posizioa ekoizten duten gainerako baldintzak bere horretan mantentzen direnean (familiaren estrategia eta hezkuntza sistemaren dinamika), norbanakoaren interesa aldatzen bada, arrazoizkoa dirudi ondorioztatzea beste faktoreren batek eragiten duela. Elkarrizketatuen diskurtsoetan aurkitu dugunaren arabera, esan genezake hainbatetan norbanakoak bere egoera prozesatzeko modua da interes aldaketa ulertzeko gakoa, hots, norbanakoaren interpretazio lan aktibo eta sortzailea.

Bourdieu (ikus I.2.2.2) *itzulpena* edo *kapital eraldaketa* deitzen duen fenomeno ere horren erakusgarri da, baina hau ere ez dugu Bourdieuren zentzuan hartzen, Certeuren ikuspegitik baizik. Itzulpenaren fenomeno gatazka modu bat da. IEPei dagokienez, itzulpena izango litzateke norbanako baten baldintzetatik eratortzen den espektatiben *maila* mantenduz edo handituz, baldintza horietatik zuzenean ondorioztatuko litzatekeen strategiaren izaera aldatzea, baldintzek aurreikusten duten posizioa ez beste posizio baterantz bideratuz, baina aurreikusitako posizioaren pareko prestigioa izango lukeen posizio baterantz eginez. Itzulpena, beraz, norbanakoaren berrinterpretazio gaitasunean oinarritzen da. Norbanakoak bere burua gainerakoaren aurrean berresteko teknika izan daiteke itzulpena (familiak eta hezkuntza sistemak zailtasunak izan ditzakete itzulpen lanaren eraginkortasunaz jabetzeko), baina, era berean, norbanakoak une horretan bizi dituen kezkei, sentitzen dituen interesei eta ikusten dituen aukerei erantzuteko modua ere izan daiteke, hots, baliabideak maximizatzeko bide bat izan daiteke. Nolanahi ere, eremu ezezagunagoan egiten den inbertsioa den heinean, itzulpenak beti dakar arriskua. Erreferentzia ezagunen erreproduzio ahaleginerantz jotzea baino zailagoa izan daiteke itzulpen lana egiten saiatzea, batik bat zenbait kasutan, bereziki modu bateko edo besteko kanpo mezuak pisu handikoak direnean, handiagoak baitira istilu, zalaparta eta gatazka irekirako aukerak, nahiz eta ez den halakorik derrigorrez gertatu behar. Itzulpen lana ez egiteak aukerak galduarazi ditzakeen bezala, itzulpen lana egitearen emaitza baliabideak maximizatzea, berdin mantentzea edo galtzea izan daiteke.

Honenbestez, ondoriozta genezake derrigorrezkoa dela joera eta ekidinezintasuna ez nahastea, hots, baldintzatzea eta determinatzea bereiztea. Familiaren estrategia edo hezkuntza sistemaren autoritatea, adibidez, erreferentzia oso indartsuak dira, joera eraginkorrak ezartzen dituzte, baina norbanakoak ez ditu erreferentzia horiek pasiboki onartzen, ez ditu bere horretan ulertzen. Norbanakoak aktiboki interpretatzen ditu bere baldintzak. Posiziotik posizio-hartzerako jauzia

norbanakoak egiten du, bere sormenaren bitartez, iristen zaizkion baldintzak moldatuz, berreginez, beti ere norbanako bakoitzak dauzkan baliabideen parametroetan, sekula ez nahieran. Norbanakoa ez da bitartekari soila, ezta osagai askea ere. Ez da objektu bat garraiatzeko behar den erregaia, hau da, norbanakoaren ahaleginak ez du balio bakarrik baldintza jakin batzuk interes bihur daitezen. Norbanakoaren lanak interpretatu egiten ditu bere posizioaren baldintzak eta horretan oinarrituz lan aktibo baten bitartez norbanakoak berak ekoizten ditu bere baldintzak. Beraz, antzeko posizioan zalantzarik gabe posible da ekoizpen ezberdinak egitea, norbanakoak uneoro egiten baitu sormen lan aktiboa. Alta, norbanakoa ez da orri zuriaren gainean idazten duen sortzailea ere. Aitzitik, ezartzen dizkioten baldintzen eskenatokian interpretazio lan aktiboa eta sortzailea egiten duen agentea da norbanakoa.

Beraz, orain arte azaldu dugun guztia kontuan hartuz, esango genuke ibilbide akademikoak hainbat faktoreren konbinazioa direla: hiru erakunderen barne mailako gatazkaren eta hiru erakunde horien arteko negoziazio harremanen artean ekoizten denarena hain zuzen. Baina ikerketa honetatik ondorioztatu dugun ikuspegia osatzeko, lau erpinetatik azkena hartu behar dugu hizpide: enpleguaren mundua. IAPak ez ezik ibilbide akademikoak ulertzeko ere ezinbesteko osagaia dela ondorioztatu dugu.

Gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, esango genuke ibilbide akademikoek eta profesionalek elkarrekiko harreman sakona dutela. Elkar elikatzen dute, uztartu egiten baitira aurrekaritza eta pasaporte, espektatiba eta inbertsioa, interesa eta diziplina, proiektzioa eta trebezia. Bata bestearen moldean eraikitzen dela dirudi, baina ezingo genuke esan zein egiten den zeinen moldean, zeren batzuetan pentsamendu diakronikoaren bultzadak alde baterantz eramaten gaitu, baina beste zenbaitetan aurrekaritzaren zantzuak eta espektatibaren eraginkortasunak kontrakoa iradokitzen digute. Gainera, kronologikoki ibilbide akademikoa lehenago datorren arren, aztergai dugun adin tartean ibilbide akademikoaren bukaera eta ibilbide profesionalaren hasiera ez datoz bat. Aurreko belaunaldiekin alderatuta, berritasuna da zenbaitetan biak tartekatu egiten direla alternatiboki, batzuetan aldi berean gauzatu daitezkeela eta, halaber, lehen pentsaezina zen adinean oraindik ere elkarrekiko hartueman estua dutela. Azken finean, elkar elikatzen duten bi eremu dirudite, elkarrekiko ezberdinak eta autonomoak eta, aldi berean, harreman sakona dutenak. Ez dugu antzeman norabide bakarreko harremanik, ezta determinismorik ere, eta, halaber, nabarmena da bi eremuek beren historia kolektibo eta indibiduala dutela eta irizpide nahiz arau propioen arabera moldatzen direla. Baina, era berean, agerikoa da bi eremu hauek ez direla bizi elkarri bizkarra emanez.

GRET ikerketa taldean oinarrituz Casal-ek (ikus III.6.4.5) lau ibilbide biografiko mota nagusi bereizten ditu, hezkuntzaren eta enpleguaren eremua estuki lotuz: 1) eskola arloko bikaintasunetik abiatuta lanerako trantsizio azkarrean lan merkatuko goi segmentura iristen dena, 2) eskola arloko nahikotasunetik abiatuta pausokako hurbiltze motelagoan lan merkatuko lehen mailako behe segmentura ailegaten dena, 3) eskolaren arloko lorpen murrizagoetatik abiatuz enplegu arloko prekarizazio baldintzetan aritzen dena, eta 4) eskolarekiko errefusatik edo aurkakotasunetik abiatuz baldintza prekarizatuenetan aritzen direnak. Eredue teoriko hau argigarria da, ibilbideen arteko ezberdintasunak erakusten dituelako, begirada homogenezatzailea neurri batean gaudituz, baina gure ikerketan aurkitu duguna kontuan hartuz esango genuke lerro zuzenegiak trazatzen



dituela eremu batetik bestera, norabide bakarra izatearen itxura dutenak, bestelako faktoreei arreta handiegia eskaini gabe gainera.

Gure ikuspegitik askoz urrunago ikusten dugu korrespondentziaren teorialari ezagunenek (ikus II.2.1), AEBetan Bowles eta Gintis-ek eta Frantzian Baudelot eta Establet-ek, proposatzen duten ikuspegia, hots, hezkuntza sistemak erreproduzitu egiten dituela ekoizpenaren baldintza materialak, hau da, eremu ekonomikoan dauden dominazio eta subordinazio harremanak errepikatzen direla. Ikuspegi honen arabera, klase egituraketari jarraiki, hezkuntza sistemak bereiztu egiten ditu pertsonak eta, halaber, hezkuntza sistemak funtzio ideologizatzaile oso garrantzitsua du, zeren koertzio hutsa nahikoa ez denez, kontzientziaren arloko ekimenak funtsezkoak baitira ekonomiaren eremuko dinamikak betierekotezko.

Alta, ikerketa honetan aurkitu duguna oinarritzat hartuz, egokia iruditzen zaigu erresistentziaren teorialariek (ikus II.3.3.6) korrespondentziaren teoriaren aurka esaten dutena, hots, eremu, talde eta agente sozial bakoitzak autonomia partziala daukala, inoiz ez dagoela determinatua. Erresistentziaren teorialariek diote eskolako dinamikak eta enpresa ekonomiaren beharrak zuzen eta estu lotzen direnean, baztertu egiten direla hezkuntza eremuaren sakonera, bere autonomia erlatiboa, bere barne historia eta erakundearen baitan dagoen aniztasuna. Erresistentziaren teorialarien arabera, ezin da ahaztu hezkuntza erakundearen eta botere ekonomiko, kultural eta politikoen artean dagoen harremana, baina eragotzi egin behar da itsukeria ekonomizistan erortzea. Gainera, erresistentziaren teorialarien arabera, dominazioa gero eta gehiago oinarritzen da aparatu kulturalen. Gero eta eraginkorragoa da joera dominatzaileek erreproduzitzeko eta hedatzeko sinesmenen eta jokabideen sistemetan egiten duten eskuhartzea. Hezkuntza sistemak rol garrantzitsua jokatzen du aparatu kulturalen. Ez dago subordinatua. Boterea, Giroux-ek dioenez, forma sozialak ekoizten dituen praktika multzoa da, eta hezkuntza sistema oso eraginkorra izan daiteke langintza horretan.

Izan ere, IAPetan hain presente dagoen prekarizazioa batik bat kultura bat dela esango genuke: prekarietatearen kultura. Ez dagokio soilik enpleguaren baldintzei. Mundu ikuskera bat da. Bizimodu bat azken finean. Proposatzen dugun eredu teorikoan lau erpinak daude prekarietatearen kulturen murgilduta, hots, enpleguaren mundua ez ezik hezkuntza sistema, familia eta norbanakoa ere kultura horretako kide dira, nahiz eta intentsitate berdinarekin ez egin.

Enpleguaren eremuko prekarizazioa (ikus III.6.3) ez dagokio soilik behin-behinekotasunari, nahiz eta Europako tasa handienak izan. Lan baldintzen prekarizazioan barne har ditzakegu gutxienez soldata txikia, lanaldi partziala, legezko babes eskasa, jardueraren intentsitatearekiko kontrolik eza, jardueraren aldakortasun handia, segurtasun baldintza txarrak, posizio okupazionalaren aldakortasun handia eta mugikortasun geografiko handia.

Gure ikerketan begibistakoa iruditu zaigu enpleguaren prekarizazioak adin talde honetako kide guztiei eragiten diela. Castel-ek (ikus III.3.5.2) enpleguaren estatusa deitzen duenak zentraltasuna galtzen du eta horrela erakundetzen da enpleguaren prekarizazioa. Gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, esan genezake trantsizio honen ondorio nagusienetako bat *ziurgabetasuna* dei dezakegunaren hedapen masiboa dela. Galderan bizi. Hori da ziurgabetasuna. Etorkizunerako bermerik ez izatea, gaur hemen eta bihar han ibiltzea, norberak aukeratu gabe,

etena noiz gertatuko den jakin ezin denean. Diskurtso guztietan txertatu da. Dominazio teknika bat da. Eraginkortasun handia du. Era berean, ikerketa honetan aurkitu dugu egoera berri honi lotuta dagoela *lan errea* dei dezakegun fenomenoaren hedapena, ingelesez *burn out*, japonieraz *kaloshi* eta mandarinez *guolaosi* deitzen dena. Muturreko estresak ezaugarritzen duen lana da. Ordu kopuru handiari eta jardueraren abiadurari lotuta dagoen arren, gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, lan erreka oinarri kualitatiboak ditu, enplegua kudeatzeko modua da batik bat, baina gaitz honen sorburua ez da langilea, lanpostuak ezartzen dion zeregina baizik.

Baina, esan dugun bezala, prekarizazioa ez dagokio soilik enpleguari. Familiak, adibidez, gure lau erpineko ikuspegiaren zutabeetako batek, zeresan handia du prekaritatearen kulturean. Gure ikerketan nabarmena iruditu zaigu familiak koltxoi eta baretze lana egiten duela prekarizazio prozesuaren aurrean. Agerikoa iruditu zaigu neurri handi batean familiak lausotzen duela aztergai dugun adin taldearen pobrezia izkutua. Lanaren prekarizazioa eta etxebizitzaren salneurri garestiak tarteko, elkarrizketatu ditugun pertsonen diskurtsoetan begibistakoa da familia dela ongizatearen bermea une askotan, batzuetan urte luzez. Hezkuntza sistemari buruz ari ginenean bezala, orain ere aipatu behar dugu familiak koltxoi lana egiten duela gutxienez arlo ekonomiko-estrategikoan, bai elkarrizketatu ditugun pertsonak gurasoen etxean bizi direlako bai etxetik joan ostean ere berme hori mantendu egiten delako. Edonola ere, atentzioa ematen du hogeitamar urteren bueltan dabiltzan hainbatek ez dutela baliabiderik nahi izanez gero bakarrik independenteki bizitzeko.

Sanzo-k (ikus III.2.2) egoera hau islatzen duten datu kuantitatibo baliagarriak eskaintzen ditu EAERI buruz. Sanzoren arabera, EAEko ekoizpen sistema bi multzotan bereiz daiteke. Bi multzoak kopuruz antzekoak dira. Lehenengoa, enplegatu egonkorrek eta bizimodu estandarretako diru sarrera nahikoa dutenek osatuko lukete. Bigarrena, berriz, soldata txikia duten enplegatu egonkorrek, kontratua egoera prekarioetan edo irregularretan duten enplegatuek eta langabetuek osatuko lukete. Lehenengo multzokoak biztanleria aktiboaren %55,1 dira eta bigarren multzokoak %44,9. Testuinguru honetan, Sanzoren arabera, EAEko biztanle potentzialki independenteen artean soilik %32,9ak izango luke gaitasuna Sanzok *ongizate maila* deitzen duenera iritsi ahal izateko baldin eta pertsona bakarreko etxebizitza batean biziko balira. Pobrezia indibidualki gaintzeko, berriz, %62,2 izango litzateke gai. Egoera okerragoa da 35 urtetik beherakoen eta 65 urtetik gorakoen artean eta, halaber, ikasketa maila txikiagoa dutenen artean. Baina, aldi berean, Sanzok eskaintzen dituen datuetan ikusenez EAEko bizikidetzaren unitateen %72,2ak ongizate mailara iristea lortzen duela eta %95,7ak, berriz, pobrezia gaintzea. Ezinezkoa litzateke egoera ulertzea baldin eta familia kontuan hartuko ez bagenu.

Bi aurpegi dauzka fenomeno honek, hala ere. Batetik, familiak babesa ematen die prekarizazioak gehien kolpatzen dituenen. Presentzia eskasa duen ongizate estatuaren ordezkotza jokatzen du familiak. Baina, aldi berean, egoera honek ez du fenomenoaren larritasuna azaleratzen uzten. Egoera normalizatu egin da. Eusteko modukoa bihurtu da.

Bi faktore hauek, familia eta enplegua, uztartuz iristen gara hezkuntza sistemak prekarizazioarekin duen loturara. Izan ere, familiek enpleguaren prekarizazioaren aurrean betetzen duten funtzioa ez da diru kontua bakarrik. Ez da asistentzia lan soila. Familia ez da euskarria bakarrik. Familia, inbertsio estrategiak sustatzen dituen eremu bat da eta honek auspotzen du hezkuntza sistemaren

aldaketa morfologikoa, arestian azaldu duguna, baina ez da gertatzen Schultz eta Becker-en (ikus III.3.4.2) *giza kapitala*-ren teorian esaten den bezala: hezkuntza maila orokorra handitzeak ez dakar lan baldintzak hobetzea, justu kontrakoa baizik. Castillok (ikus III.3.4) dioenez, belaunaldi berrien hezkuntza formalaren maila nabarmen handitu denez, gaur egun ia edozein lanposturako behar baino askoz langile gehiago dago aukeran, lanpostuak eskatzen duena baino trebakuntza formal handiagoarekin maiz, eta, beraz, norbanakoek gaur egun ikasketa maila handitzeko egiten duten lasterketa luzea ez da lanpostuaren beharretara egokitzeko baizik eta lanpostu horretarako hautagai diren gainerakoekin lehiatzeko. Ondorioz, esan genezake enpleguaren prekarizazioak familia bultzatzen duen bezala, familiaren inbertsio akademikoen estrategiak asko baldintzatzen duela norbanakoaren espektatiba eta bide batez xaxatu egiten duela hezkuntza sistemaren aldaketa morfologikoa, eta horren guztiaren emaitzak indartu egiten du prekarizazioaren kultura eta, bidenabar, enpleguaren prekarizazio prozesua. Horrela gauzatzen da Petras-ek (III.3.4.2) azaltzen duen paradoxa: enpleguaren prekarizazio garaian, familiak lehen baino luzarago eskaintzen dio babesari seme-alabei hezkuntzarako, oinarrizko beharretarako eta aisialdirako, guraso askok gaztetan ezagutu ez dituzten baldintzetan, baina *kotoi artean* jaio eta bizi izan den belaunaldiak etorkizun oso prekarizatua du zain, bere egoera aldatzea lortzen ez badu behintzat.

Nolanahi ere, prekarizazioa estratifikatua da. Ez die guztiei berdin eragiten. Fenomeno orokortua dela esatea ez da nahikoa. Gure ikerketan oso argi ikusi dugu prekarizazioa ez dela homogeenoki hedatzen, asimetrikoki baizik. Prekarizazioa fenomeno orokortu-estratifikatua da. Enpresa bakoitzaren barruan eta enpresen arteko sarean ere ekoizten da. Ikerketa izan ditugun guztiek bizi izan dute prekarizazioa, baina batzuek aldi baterako eragina besterik ez du izan, beste egoera bateranzko trantsizioa baino ez da izan, artean beste batzuentzat beren ibilbide profesionaletan egonkorra dirudien egoera delarik. Baina, gainera, guztiek ez dituzte prekarizazio baldintza berdinak bizi, hau da, batzuek gehiago sofritzen dute prekarizazioaren aurpegi bat eta, aldiz, beste batzuek gehiago eragiten die beste alderdi batek. Prekarizazioa, ertz eta estratu asko dituen amarauna.

Estratifikazioaren funtsa enpleguan egiten den lanaren aitortza da, hots, esleitzen zaion balioa. Beltzean, erdi beltzean erdi legalki, bekadunak... kasu horietan argi ikusten da lanaren balioa ez aitortzeak dakartzan ondorioak, baina enplegu guztiei eragiten dien fenomeno da. Estratifikazioa ekoizti ahal izateko, izendatze lana derrigorrezkoa da. Izena modu eraginkorrean ezartzen bada, izenak izana ordezkatzeko balu bezala funtzionatzen du. Etiketak bihurtu nahi du lanaren balioaren sinbolo. Izendatze estrategiaren arrakastak baldintzatuko du estratifikazioaren eraginkortasuna. Zereginei balioa modu hierarkikoan aitortuz zurrizten da estratifikazioa. Teknika klasikoa da hau.

Teknika erlatiboki berritzailea da, ordea, prekarizazio orokortu-estratifikatua. Egituratzeko modu berria da gakoetako bat. Castellsek (III.6.1) dio ekonomia informazional globala hedatu ahal izateko ezinbestekoa izan dela antolaketa logika berri bat zabaltzea: sarea. Enpresen arteko harremanetan eta enpresa barruko egituraketan gertatzen da. Castellsen arabera, ikusketan dago etorkizunean sareak batik batik bertikalak edo horizontalak izango diren. Castellsek dio lan baldintzen endekatzea ez dagoela sare logikarekin lotuta, lanaren eta kapitalaren arteko harremanarekin baizik. Bourdieuk, ordea, sareaz baino berregituraketaz hitz egiten du, aldaketa hauek prekarizazioarekin lotuz. Coriaten (ikus III.6.1) ikuspegitik ere sare egituraketaren

hedapena hainbat lorpen sozialen aurkako eraso da. Frade eta Darmon-en (ikus III.6.1) arabera, sare egituraketa sustatzearen bitartez lana merkantilizatzen ari da berriro, langilearen estatusa hondoraziz. Boltanski eta Chiapelloren (ikus III.6.1) arabera ere ekoizpenaren antolaketa egin dituzten aldaketek lan baldintzen prekarizazioa eragin dute. Castillo eta López-en (ikus III.6.1) arabera, sare egituraketaren errentagarritasun ekonomikoa lan indarraren ahultasunean oinarritzen da. Ez da estrategia produktiboa, dominazio estrategia sozio-politiko baizik. Plusbalioa ez da laneku merkean oinarritzen. Alderantziz: lanekua merketzea da plusbalioaren oinarria. Testuinguru honetan eraiki dituzte aspaldi ez bezalako oligopolioak, hamaika noduloz osatutako sare bertikal eta estratifikatu zabaletan oinarritzen direnak. Hala diote, besteak beste, Boltanski eta Chiapellok.

Gure ikerketan aurkitu dugunaren arabera, sarea, dominazio teknika bat da. Egituraketa honek dauzkan hainbat helburu identifikatu ahal izan ditugu: enpresaren ekoizpen kosteak minimizatzea, merkatuaren arriskuak periferiako enplegatuei transferitzea arazoan aurrean koltxoi lana egin dezaten, eta, aldi berean, enplegatuen eta balizko enplegatuen aurrean negoziazio indar handiagoa eskuratzea. Honenbestez, bi ideia nabarmendu nahi ditugu: prekarizazioa fenomeno estratifikatua da eta estratifikazioa fenomeno prekarizatzailea da.

Baina prekarizazio estrategiaren protagonista bakarrak ez dira enpresen jabeak eta zuzendaritzak. Ikerketa honen bitartez ondorioztatu dugunaren arabera, esango genuke prekarizazioaren hedapenean bi estrategia uztartzen direla: batetik, enplegatzaileek beren aldeko aberaste eta botere politikak sendotzen dituzte eta, bestetik, nukleoko enplegatuek beren interesak defendatzen dituzte, gainerako langileenak kaltetuz, hots, besteen baldintzak okertzeari esker beren baldintzak bere horretan mantentzea lortuko balute bezala.

Erabilgarriak iruditzen zaizkigu Polavieja-k (ikus III.6.5) azaltzen dituen bi fenomenoak: *sustapen efektua* deitzen duenaren bitartez enpresaburuek handitu egiten dituzte beren etekinak eta *amortiguazio efektua* deitzen duenaren bitartez kontratu egonkorreko langileek beren baldintzen mesedetan eta ezegonkorren kaltetan negoziatzen dute. Edonola ere, hirugarren *efektu* bat ere badagoela esango genuke: amortiguazio efektuaz baliatzen diren enplegatuen paradoxa da gainerako baldintzak okertzen dituztenean, testuinguru orokorra ere eraldatzen dutela, prekarizazioari zentraltasuna emanez, eta, ondorioz, sarri nukleoko enplegatuen gaineko presioa ere handitu egiten dela, *lan erre*a bezalako gaitzen agerpena ahalbidetuz. Testuinguru horretan uler dezakegu Bowles eta Gintis-en (ikus III.5.2) ekarpena, zeren beren ikuspegitik gaur egun politika berdinzaleak babesteko bi arrazoi egon baitaitezke: batetik, irabazi baino galdu egiten dutenek ere arriskuak murrizteko berme sozialtzat har ditzakete politika berdinzaleak eta, bestetik, erreprozitatearen indarrak bultzatzen ditzake. Nolanahi ere, gure ikerketan nabarmena iruditu zaigu prekarizazioaren kulturak langileen arteko gatazka sustatzen duela, elkartasunaren eraginkortasuna nabarmen apalduz eta mugimendu kolektibo kritikoen garapena trabatuz.

Boltanski eta Chiapelloren (ikus III.4) ekarpenean argi gelditzen da zeinen garrantzitsua den mugimendu kritikoa neutralizatzea, baina hori lortzea ez da hain erraza, 1960ko eta 1970eko hamarkadek erakusten dutenez. Dena den, hainbat ikuspegiren arabera, erresistentzia funtsean mundu ikuskera eta praktika ekoizteko gaitasunean oinarritzen da. Marazzi eta Bourdieuren (ikus III.4) arabera, kritika mugimenduek ez dute miseria islatzen, baizik eta hautemandako

errealitatearen eta espektatiben arteko aldea. Hardt eta Negriren (ikus III.4) arabera, gabeziak amorrua eta gorrotoa sor ditzake, etsaia finkatzen lagundu dezake, baina matxinada soilik aberastasunean oinarritzen da; hots, inteligentzia, esperientzia, ezagutza eta desio exzedenteak bakarrik sor dezake matxinada.

Prekarizazioaren aurrean ohikoa da Beck eta Bauman (ikus III.5) bezalako analistek ordezkatzten duten ikuspegia. Dinamika berrien izaera aztertu egiten dute, eraginkortasun handiz gainera, baina analisi horretatik ondorioztatzen dutena batik bat dinamika berrietara egokitzeko zailtasuna eta ia ezinbestekotasuna dira. Zentraltasunik ez dute egoera sortzen ahalegindu direnei buruzko ikerketek edo sakoneko egoera eraldatzera bideratutako analisiek. Aitzitik, ikerketa honetan aztertu ditugun hainbat ekarpen teorikok kontrako bidea egiten dute. Negri-k eta Hardt-ek (III.1.3) baztertu egiten dituzte esku ikusezinaren eta konspirazioen teoriak. Castells-ek (III.1.3) dio iraultza teknologikoa eta globalizazioa ez direla horren eragileak, ez direla ez onak, ez txarrak, ezta neutralak ere, baina prekarizazioaren kausa kapitalaren eta lanaren arteko harremana dela.

Harvey-ren (ikus III.3) arabera, ordea, neoliberalismoa da eragile nagusia. Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zuten arren, 1970eko hamarkadan elite ekonomikoek beren posizioa benetan kolokan ikusi zutenean hasi ziren errezeta neoliberalak aplikatzen. *Askatasun indibiduala* du aldarri, baina, Harvey-ren arabera, neoliberalismoa hasieratik izan da klase boterea berreskuratzeko egitasmoa, inoiz ez baitu balio izan mundu mailako kapitalaren hazkundea biziarazteko. Alta, Harvey-k dio *kenduz metatu* formularen oinarritzen duela bere dinamika. Navarro (ikus III.3.2.2) ere bat dator. Klein-ek (ikus III.3.2.2) dioenez, krisiak erabili egiten dituzte politikoki ezinezkoa dena politikoki ekidinezin bihurtu dadin. Kleinek *korporatibismoa* deitzen duen horren hiru zutabeak deserregulazioa, liberalizazioa eta gastu sozialaren murrizketa dira. Chomskyren (ikus III.3.3) arabera, berriz, neoliberalismoak bere ageriko diskurtsoaren kontra sustatzen du estatuaren eskuhartzea handitzea eta bere interesen arabera moldatzea.

Baina kultura ekoiztea da tresnarik behinena, hainbat analisiren arabera. Harvey-k dio koertzioa ez dela nahikoa, neoliberalismoa erruz saiaturen dela bere legitimotasuna lortzen eta, beraz, berebiziko garrantzia ematen diola *zentsura* ekoizteari. Giroux-en (III.3.2.4) arabera, dominazioa gero eta gutxiago oinarritzen da indarkerian edo bere mehatxuan, eta gero eta garrantzi handiagoa du aparatu kulturalaren lanak. Adostasuna ekoiztea du helburu. Sinesmen eta jokabide sistema jakin batzuk erreproduzitzea eta hedatzea. Gramscik (ikus III.3) hegemonia ideologikoa deitzen dio. Foucault-en (ikus III.8.3) arabera, botere harremanetan ezinbestekoa da jakintza sortzea, *egia*-ren politika jorratzea, hau da, mundu ikuskeraren gatazkan gailentzea. Weber-ek (III.8) dio botere oro ahalegintzen dela legitimotasuna lortzen. Neoliberalismoa ez da salbuespena. Thatcher-ek argi (ikus III.8) esan zuen: “Ekonomia metodoa da, baina helburua arimak aldatzea da”. Bourdieuren (ikus III.8.1) arabera, bortxa sinbolikoa da iraultza neoliberalaren ezaugarri behinena. Kultur aparatuen garrantzia handiagoa litzateke langile posfordistaren garaian, Hardtek eta Negri-k (ikus III.5.4) *lan inmateriala* eta Preciadok (III.5.4) *lan supramateriala* deitzen dutena nagusitzen ari den aroan hain zuzen.

Weber-en haritik, Boltanski-k eta Chiapello-k (ikus III.4) kapitalismoaren izpiritu berriaz hitz egiten dute. Beste edozein dinamika sozialek egiten duen bezalaxe, garai bakoitzera moldatuz, kapitalismoak bere iraupenaren printzipioak ekoitzi behar ditu. Ez da gainegitura. Prozesu

kapitalistaren erdiguneetako bat da eta haren zerbitzura dago. Dinamika horretan kokatuko genuke ikerketa honetan *prekarietatearen kultura* deitzen duguna.

Baina kultur aparatu boteretsuenek ere ez dute inoiz hegemonia erdiesten, gorago esan dugunez. Horren adibide izan daiteke lanaren etikaren egoera. Ekoizpen prozesu luze eta gatazkatsu baten emaitza eraginkorra izan zen (ikus III.5.1), baina aldaketa handiak izan dira harrezkero. Horren seinale izan daiteke analistek lanaren zentraltasunaz duten eztabaida. Bauman-en (III.5.3) arabera, adibidez, lana jadanik ez da nortasuna eta bizitza proiektua sendo eraikitzeke oinarria, ez du garai bateko zentraltasunik, ez da jendearentzako oinarri etikoa, ezta norbanakoarentzako oinarri etikoa ere. Aitzitik, Guy Aznar-ek (III.5.3) dioenez, enpleguaren zentraltasuna handia da gaur egun. Sennett-en (III.5.3) arabera, berriz, garai bateko zentraltasuna higatu zaion arren, enpleguak nortasuna eraikitzeke eta identifikaziorako ardatz izaten jarraitzen du gaur egun, baina badirudi higatu egin dela narrazio luzeetako mugikortasunaren zentzua eta denboran atzeratutako sariak jasotzeko diziplina. Crespo-ren (III.5.3) arabera, lanari buruzko balorazioak galtzen ari dira garai bateko homogeneousutasuna. Lanaren etika mota asko daude orain: esate baterako, lan baldintza erosoetan daudenek enpleguaren alderdi positiboak nabarmentzen dituzte eta, aitzitik, egoera okerragoetan daudenen artean iritziak oso fragmentatuta daude eta batzuen artean laneko autonomia falta eta koertzioa nabarmentzen dira. Moreno-ren arabera (III.5.3), enpleguaren garrantzia oso handia da gaur egun ere eta gehiengoarentzat funtsezko euskarri ekonomikoa da, baina hegemonia galdu du beste zenbait faktoreen aurrean.

Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, prekarietatearen kulturak arrakala ugari utzi ditu, beste edozein dominazio sistemari beti gertatzen zaion bezala, eta tarte horietatik begibistan gelditzen da jendeak ekoitz dezakeen ikuspegi kritikoa. Horren erakusgarri izan daiteke hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan aurkitu dugun osagai garrantzitsu bat: lanaren etika urratzen duten ikuspegiak. Lanaren etika tradizionalaren arabera, enpleguan egiten den lana bitartekoa baino askoz gehiago da. Lanak egiten du pertsona: bizitzeko lan egin eta lanerako bizi. Baina hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan ez da halakorik ageri. Lana funtsezko ardatza da guztientzat. Askok baldintzatzen du pertsona guztien bizitza. Baina hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan aurkitu dugu lanarekiko distantzia ezartzeko ahalegina, lanari garrantzia kentzekoa, lanarekiko atxikimendua nabarmen txikitzekoa, eta ideia horrek asko baldintza ditzake enpleguarekiko estrategiak. Izan ere, erresistentzia konstantea da. Ikuspegi kritikoaaren intentsitatea eta edukia oso ezberdina da diskurtso batetik bestera, baina egon, badago. Hainbatek erabili egiten dute meritokraziaren diskurtsoa, baina lehiakortasunarekiko diskurtso kritikoa ere aurkitu dugu, baita erresistentzia esplizituaren eta langileen arteko elkartasunaren diskurtsoa ere.

Honenbestez, aztertu ditugu IAPak analizatzeko funtsezkoak iruditu zaizkigun lau erpinak, lau erakunde sozialak (hezkuntza sistema, familia, norbanakoa eta enplegua) eta hauen arteko harremanak, eta orain lau erpineko ikuspegi horretatik lortu ditugun ondorio orokorrak azaltzen saiatuko gara.

Ikerketa honetan oinarrizko ondorio hauetara iritsi gara:

- IAPak ez dira meritu indibidualetan oinarritzen.
- Nagusiki lau erakunde sozial dira protagonista IAPen ekoizpenean: hezkuntza sistema, familia, norbanakoa eta enplegua.
- Erakunde bakoitzaren baliabideek eta hauen eraginkortasunak zerikusi handia dute IAPen eraikuntzan.
- Erakunde bakoitzaren barne dinamika, gatazka maila eta interpretazio lana funtsezkoak dira IAPak trazatzen direnean.
- Lau erakunde sozial hauen arteko indar harremana, negoziazio prozesu etengabea eta hurbiltasuna erabakiorrak dira IAPen ekoizpenean.
- IAPak ekoizten dituzten lau erakundeen arteko harremanen kasuistika oso zabala da. Ikuspegi orokor batetik begirata, nagusitu egiten dira konplexutasuna, aniztasuna, kontraesana eta gatazka.

Lau erpinen arteko harremanei dagokienez, ikerketa honetan honakoa ondorioztatu dugu:

- Lau erakundeen arteko indar harremana gorabeheratsua eta aldakorra izan daiteke.
- Besteekiko harremanen testuinguruan, erakunde bakoitzak ez dauka informazio nahikoa eta inoiz ez dauka informazio osoa.
- Beste erakundeen aldaketek erakunde bakoitzaren aurreikuspenen eraginkortasuna txikitu edo handitu dezakete.
- Lau erakundeen arteko armonia nagusitzen denean, erakunde guztiek bide bat hobesten dutenean, errazagoa da erabakia naturala balitz bezala hartzea.
- Ibilbide akademikoan etekinak lortzeko modurik eraginkorrena lauen arteko sinergia ibilbide prestigiotsuetatik bideratzea da. Arriskua oso txikia da. Litekeena da arrakasta aurreikustea eta asmatzea.
- Lau erakunde sozialen arteko negoziazioetan elkarren arteko gatazka handia denean, bidea nekezagoa da, baina, aldi berean, kontraesanak eta gatazkak ere ahalbidetu dezakete aldaketa eraginkorrek egitea, inbertsio aproposak bideratzea eta etekinak maximizatzea. Edonola ere, erakundeetako bat nagusitzeak ez du bermatzen porrota, ezta arrakasta ere.
- Lau erakundeen arteko gatazka maila handiegia bada, besteen aurka hartutako erabakiek estrategien arrisku maila handitzea eragiten dute eta, ondorioz, kaltetu egin ditzakete IAPetan egiten diren inbertsioen eraginkortasuna eta lor daitekeen etekina.
- Lau erakundeen arteko gatazka maila handia ez da prestigio txikiko IAPak ekoizteko arrazoi bakarra. Armonia ere izan daiteke inbertsioak eteteko eta etekinak galtzen uzteko motorra baldin eta lau erakundeek aho batez adierazten badute pertsona bati prestigio txikiko IAP bat dagokiola, horrela desinbertsioa eta balizko etekinen galera eraginez.
- Mugikortasun soziala, bertikala nahiz horizontala izan daiteke

Beraz, IAPak oso ezberdinak izan daitezke elkarrekiko, baina, IAPei buruz ari garelarik, ezberdintasuna ez da aniztasun baliokidetzat hartzen. IAPen eraikuntzak ahalbidetu egiten du

jendearen aniztasunetik espazio sozial hierarkizaturako trantsizioa, baliokidetzatik hierarkiara, ezberdintasunetik ezberdinkeriarra, beti ere balioaren eta estratifikazioaren ekoizpena bermatuz. Horrela ekoizten da meritokrazia. Horrela legitimatzen da bere dominazio dinamika. Ezberdintasuna bezain artifizia da ezberdinkeria, baina lehenengoak baliokidetzaz du ardatz, bigarrenak hierarkia.

Kudeaketa moda garaikideen diskurtsoetan aurki ditzakegu fenomeno honen oihartzunak. Hurbileko adibide bat aukeratzearren, aipatzeko modukoak dira Saratxagak (ikus III.8.4) enpresaburuei ematen dizkien aholkuak, hitzez hitz: "Izan zaitzete egoistak, emaitzazue aukerak, zeren kostu berean askoz balio handiagoa ekarriko dizute. (...) Garrantzitsuen konfiantza da (...) Jakintza, boterea da. (...) Aniztasun hori balio bihurtzea da kontua".

Foucault-ek (ikus I.3.1.2) dio Mendebaldea deitzen zaion eremuan jauzi ekonomiko handia ez zatekeela gauzatuko baldin eta kapitala (Bourdieurentzat kapital ekonomikoa dena) metatzeko prozedurak eraldatzeaz gain, menpekotasunaren teknologia fin eta kalkulaturia gai izan ez balitz neurri batean behintzat botere tradizional garestia eta ageriko bortxa ordezkatzeko. Gure ikerketak trantsizio horretan kokatzen du jendearen aniztasunetik espazio sozial hierarkizaturanzko bidea. Prekarietatearen kultura, dinamika horren produktu historiko bat litzateke, garai honetan dominazioak bere iraupenaren printzipioak ekoizteko egiten duen ahalegina alegia.

Trantsizio hau azaltzeko baliagarria da Hardtek eta Negrik (ikus I.3.1) proposatzen duten *multitude* kontzeptua: jendea, *multitude* deitzen duten hori, multiplizitatea da, defnigaitza eta neurtezina. Ez da herria, ez du osatzen gorputz sozial bat. Ez da masa, ez da doitzen irrazional, pasibo, arriskutsu eta indarkeriazale izatearen definizioetara. Ez da langile klasea, ez ditu soilik langile batzuk barne hartzen. Jendea, singularitasunen multzoa da, esentziarik gabea, inmanentea. Jendeak ez du unitate bat osatzen, baina subjektu sozial aktiboa da. Hardtek eta Negrik diotenez, dominazio estrategia garaikideak behartuta daude jendearen multiplizitate singularra, aniztasuna, menperatzen saiatzera. Bestela, dominazio estrategiek ez lukete indarrean jarraitu ahal izango. Iraupena bermatze aldera, jendea unifikatu eta segmentatu egiten dute. Horrela integratzen dute jendea espazio sozialean. Singularitasunez osatutako jende multzo eskerga baketzea eta estratifikatzea da helburu. Aldi berean mugiarazi eta kontrolatu. Jendeak ekoizten duen aberastasuna baliatzearen ekoizten da espazio soziala, modu sortzailean.

Nolanahi ere, Hardt eta Negriren *multitude* kontzeptuaz ari garelarik, Bensaïd-en kritikak oso baliagarriak izan daitezke *multitude* kontzeptuaren erabilera zedarrizteko. Bensaïd-ek dioenez, kontzeptu hau teorikoki nahasia, soziologikoki zehazgabea eta estrategikoki hutsala da. Edonola ere, *multitude* kontzeptua erabiltzea interesgarria izan daiteke, hainbat ekarpen egin ditzakeelako: singularitasuna gehiago nabarmentzen duen multzoa izatea, Preciadok *iibermaterial* deitzen duen lanak jokalekuarekiko ikuspegiaren aldaketa ahalbidetzea eta, era berean, subjektu politikoa eraikitzeke hautagaien eremua gaurkotzea, besteak beste. Baina *multitude* kontzeptua erabili nahi izanez gero, kontu handiz ibiltzea komeni da baldin eta Bensaïd-ek *etsipenaren erretorika* edo *plebearen mistika* deitzen duen horretan erori nahi ez badugu. *Multitude* izeneko espazio horretatik subjektu politikoa aktiboa ez da berez eratortzen. Eraso neoliberalarak agerian utzi du, orain inoiz baino gehiago, *multitude* delakoak ez duela berez haustura eragiten. Gure ikerketan ere hori



nabarmena iruditu zaigu: ezberdinkeraren aurka egingo lukeen mugimenduak ezinbestean joango litzateke korrontearen aurka.

Ikerketa honetan, Bourdieuren ekarpena baliatuz, ondorioztatu dugu kapitala dela jendearen aniztasuna batzeko eta estratifikatzeko bitartekoa. Kapitalak neurria ezartzen dio singularitasunari. Kapitala da ezberdinkeria ekoizteko tresna. Ezberdintasuna kapitalaren galbahetik pasazten denean eraikitzen da meritokraziaren hierarkia. Horrela artikulatzen da jendea hierarkikoki. Baina horretarako ezinbestekoa da hainbat ezaugarri aukeratzea eta hauei balioa ezartzea, kapital bihurraztea, gero merituen hierarkia eraiki ahal izateko. Coriatek (ikus III.6.4) kualifikazioaren aitortzan ikusten du gakoa. Hardtek eta Negrik (ikus III.6.4) *dumping biopolitiko*a deitzen diote lanaren balioa ezartzea ahalbidetzen duen fenomenoari. Boltanski eta Chiapelloren (ikus III.6.4) arabera, kualifikazioaren esleipena ez da langileen konpententzian oinarritzen, definizioak egiteko indar harremanen egoeran baizik.

Baina gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, ezberdintasunaren kapitalizazioa ez da menperatze ariketa, bere helburua ez da kemena eta indarra apaltzea. Kapitalizazioak asko zaintzen du balioaren ekoizpena, hau da, badirudi estratifikazioa eraikitzea bezain garrantzitsua dela jendeak aberastasuna sortzea. Baina egoera horretan hainbat dinamikek ihes egiten diote kapitalizazioari eta horietatik zenbait kapitalizazioaren kaltetan izaten dira gainera.

Espazio sozialeko posizio-hartzeak zeren arabera egiten diren analizatzea erabakiorra da. Baumanek (ikus III.6.4.5) dio ezinezkoa dela jakitea prekarietatean lan egitea nori egokituko zaion, zoritxarrak ausaz aukeratzen baititu biktimak, edo gutxienez logika arraro eta azalduzinari jarraiki, kolpeak modu gutziatsuan banatuz, ezinezkoa baita aurreikustea nor dagoen kondenatuta eta nor salbatuko den. Alta, kontrako iritziak asko dira. Esate baterako, Beck-ek eta Castellsek generoa aipatzen dute, Boltanskik eta Chiapellok adina, jatorri nazionala eta sexua, Sennettek jatorri soziala, Waisgrais eta Calerok familiaren ezaugarri sozioekonomikoak, norbanakoaren ikasketa maila eta generoa, Ramos-Díaz-ek adina, generoa eta ikasketa maila, INEk adina, generoa, ikasketa maila eta nazionalitatea, eta EAEko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak generoa, ikasketa maila, ikasketa mota eta aldaba onak izatea.

Gure ikerketan aurkitu dugunak zalantzarik gabe eramaten gaitu Baumanen *ausazko hautapena* guztiz baztertzera. Bourdieu-ren terminologia erabiliz, laburbilduta esan genezake kapital ekonomikoa, kulturala, soziala eta sinbolikoa erabakiorrak direla, eta lau hauei gehituko genizkieke generoa eta hizkuntza. Kontuan hartu behar da ikerketa honetan aztertu ditugun guztiak adin tarte jakin batekoak direla eta, halaber, Donostialdean jaiotzetik edo umetatik bizi direla, eta, ondorioz, zenbait aldagai ikerketak berak neutralizatzen dituela, baina esango genuke beste ikerketa batzuetan aintzat hartu beharko liriatekeela adina, jatorria eta eskualde mota.

Dena den, orain arte baieztatu duguna berretsiz, nabarmendu egin nahi dugu sailkapen irizpide hauek ez direla faktore determinatzaileak. Ekidinezintasuna eta baldintza bereiztu egin beharko genituzke. IAPetan baliabide hauek guztiak ez dute patua ezartzen. Agente bakoitzak bere baldintzen interpretazio lan aktiboa eta sortzailea egiten du uneoro eta, gainera, jarduera hau aipatutako lau erakundeen arteko negoziazio harreman etengabearen testuinguruan gauzatzen da,

aldi berean erakunde haietako bakoitzaren baitan kontraesana, ezjakintasun partziala eta aldaketa konstanteak direlarik.

Gainera, Hardt eta Negri-ren arabera (ikus III.3.1.2), aniztasuna ezin da bere osotasunean kapitalek ezarritako neurrien menpe jarri. Aniztasunaren zati handi bat espazio sozialaren dinamika nagusietan integratzen bada ere, aniztasunak bere osotasunean gaina hartzen dio kapitalen neurtzeko eta hierarkizatzeko gaitasunari eta, ondorioz, aniztasuna ezin da bere osotasunean metatze kapitalistaren legeen menpe jarri.

Gure ikerketaren ondorioak bat datoz horrekin. IAPen bitartez jendearen aniztasunetik espazio sozial hierarkizaturanzko trantsizioa gertatzen denean, ezberdintasuna kapitalaren galbahetik pasaratzen da, meritokraziaren dinamika ahalbidetuz, baina IAPak hein handi batean espazio sozial kapitalizatuan integratzen diren arren, kontuan hartu behar da IAPak indar harremanen testuinguruan garatzen direla eta, beraz, IAPek dominazio, menpekotasun eta erresistentzia praktikak ekoizten dituztela. Adostasuna eta gatazka artikulatzen dira. IAPetan dominazioak bere iraupen printzipioak eraikitzen dituen bezala, dinamika anitz eta konplexuen amaraunean jokalariz guztien interpretazio lanari esker etengabe trazatzen dira ihes lerroak eta gatazka bideak.

## VI. Bibliografia

- 📖 Aguilar, Salvador; Navarro, Vicenç; Oliveres, Arcadi; Pastor, Jaime; Zeller, Carlos (2008): “Presentación” in *25 años de neoliberalismo*, Hacer Editorial, Bartzelona.
- 📖 Agullo, E. (2001): “Entre la precariedad laboral y la exclusión social: los otros trabajos, los otros trabajadores” in Agullo, E & Ovejero, A. (koordinatzaileak): *Trabajo, individuo y sociedad. Perspectivas psicosociológicas sobre el futuro del trabajo*, Editorial Pirámide, Madril.
- 📖 Albarracín, Jesús (1991a): “La extracción del excedente y el proceso de acumulación” Etxezarreta, Miren (koordinatzailea): *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*, Icaria-Fuhem, Bartzelona.
- 📖 Albarracín, Jesús (1991b): “La política de los sindicatos y la dinámica del movimiento obrero” Etxezarreta, Miren (koordinatzailea): *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*, Icaria-Fuhem, Bartzelona.
- 📖 Albizu, Eneka (1997): *Flexibilidad laboral y gestión de los recursos humanos*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Albizu, Eneka (2003); Olazarán, Mikel; Simón, Katrin: “Reingeniería y participación: gestión del cambio en Irizar” in *Inguruak. Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria*.
- 📖 Alonso, Luis Enrique (2000): *Trabajo y posmodernidad: el empleo débil*, Editorial Fundamentos, Madril.
- 📖 Alonso de Armiño, Iban; Gómez, Itxaso; Moreno, Gorka; Zubero, Imanol (2004): “Precariedad laboral, precariedad vital” in *Inguruak 32. Soziologia eta Zientzia Politikoaren euskal aldizkaria*, Euskal Soziologia Elkarte, Deustuko Unibertsitatea, EHUKo Soziologia, Soziologia Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Fundación Antonio Menchaca de La Bodega, Bilbo, 143-186 or.
- 📖 Althusser, Louis (1970): *Ideología y aparatos ideológicos del estado*, Laia, Bartzelona.
- 📖 Alvarez Uriá, Fernando & Varela, Julia (1991): *Arqueología de la escuela*, Ediciones de la Piqueta, Madril.
- 📖 Amin, Samir (2007): *El virus neoliberal*, Hacer editorial, Bartzelona.
- 📖 Amurrio, Mila (2006): “Emakumeak eta euskal hizkuntza orokortua” in Amurrio, Mila & Larrinaga, Ane (biltzaileak): *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 📖 Apple, Michael W. (1986): *Ideología y currículo*, Akal, Madril.
- 📖 Apple, Michael W. (1989): *Maestros y textos. Una economía política de las relaciones de clase y de sexo en educación*, Paidós/MEC, Bartzelona.
- 📖 Apple, Michael W. (1996): *El conocimiento oficial. La educación democrática en una era conservadora*, Paidós, Bartzelona.
- 📖 Apple, Michael W. (1997): *Educación y poder*, Paidós/MEC, Bartzelona.
- 📖 Arnot, Madeleine & Mac an Ghail, Mairtin (editoreak) (2007): *Gender and education*, Routledge, New York.
- 📖 Arratibel, Aloña & Zubiri, Arkaitz (2004): “Taylorismoaren berrasmakuntza: euskal kooperatiba baten kasua” in *Inguruak 39. Soziologia eta Zientzia Politikoaren euskal aldizkaria*, Euskal Soziologia Elkarte, Deustuko Unibertsitatea, EHUKo Soziologia, Soziologia Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Fundación Antonio Menchaca de La Bodega, Bilbo, 143-160 or.
- 📖 Azkarraga Etxegibel, Joseba (2005): *Diruak behar luke bihotzik: Arrasateko kooperatibismo globalizatuaen barrunbeak: atzoko zentzuak, gaurko ajeak, biharko erronkak*, Pamiela, Iruña.
- 📖 Azkarraga Etxegibel, Joseba (2006a): *Mendebaldearen mintzo mindua. Begiratu kritikoa gizarte eta kultura modernoari*, Euskaltzaindia / BBK Fundazioa, Bilbo.
- 📖 Azkarraga Etxegibel, Joseba (2006b): *Modernitate kapitalistari kritika: Weber, Frankfurteko Eskola, Habermas*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- 📖 Azkarraga Etxegibel, Joseba (2007): *Nor bere patroï. Arrasateko kooperatibistak aro globalaren aurrean*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

- 📖 Aznar, Guy (1994): *Trabajar menos para trabajar todos*, Editorial HOAC, Madrid.
- 📖 Aztiker (2006): *Euskal Herria datuen talaiatik 2006*, Txalaparta, Tafalla.
- 📖 Báez, René (2008): “EEUU desata *crack* financiero global” in *Alai America Latina* (2008-04-14).
- 📖 Ball, Stephen J. (2004): *Sociology of education*, Routledge Falmer, Oxon.
- 📖 Barthes, Roland (2003): *El sistema de la moda y otros escritos*, Paidós, Bartzelona.
- 📖 Baudelot Charles & Establet, Roger (1975): *La escuela capitalista en Francia, Siglo XXI*, Mexiko.
- 📖 Bauman, Zygmunt (1999): “Turistas y vagabundos” in *La globalización: consecuencias humanas*, FCE, Buenos Aires.
- 📖 Bauman, Zygmunt (2000): *Trabajo, consumismo y nuevos pobres*, Gedisa, Bartzelona.
- 📖 Bauman, Zygmunt (2003a): *Modernidad líquida*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- 📖 Bauman, Zygmunt (2003b): *Vida de consumo*, Fondo de Cultura Económica, Madrid.
- 📖 Beaud, Stéphane & Pialoux, Michel (2003): “Obreros sin clase social” in Díaz Salazar, Rafael (editorea): *Trabajadores precarios. El proletariado del siglo XXI*, Ediciones HOAC, Madrid.
- 📖 Beck, Ulrich (1998): *La sociedad del riesgo: hacia una nueva modernidad*, Paidós, Bartzelona
- 📖 Beck, Ulrich (2000): *Un nuevo mundo feliz. La precariedad del trabajo en la era de la globalización*, Paidós, 2000, Bartzelona.
- 📖 Becker, Gary S. (1983): *El capital humano*, Alianza, Madrid.
- 📖 Beltrán Llera, J. & Bueno Alvarez, J.A. (1995): *Psicología de la educación*, Editorial Boixareu Universitaria-Marcos, Bartzelona.
- 📖 Bensaïd, Daniel (2009): *Elogio de la política profana*, Península, Bartzelona.
- 📖 Berg, I. (1973): *Education and Jobs. The Great Training Robbery*. Penguin Books, Hardmondworth.
- 📖 Berger, P.L. & Luckmann, T. (1979): *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires.
- 📖 Bernstein, Basil (1988): *Clases, códigos y control*, Akal, Madrid.
- 📖 Bernstein, Basil (1999): “Una crítica de la educación compensatoria” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Bernstein, Basil (2004): “Social Class and Pedagogic Practice” in Ball, Stephen J.: *Sociology of education*, Routledge Falmer, Oxon.
- 📖 Bocoock, Robert (1989): *El consumo*, Talasa, Madrid.
- 📖 Boltanski, Luc; Chiapello, Ève (2002): *El nuevo espíritu del capitalismo*, Akal, Madrid.
- 📖 Bonazzi, G: “Modelo japonés, toyotismo, producción ligera: algunas cuestiones abiertas” in *Sociología del Trabajo*, 18. Zenbakia, udaberria, 3-22.
- 📖 Bourdieu, Pierre & Chamboredon, Jean-Claude & Passeron, Jean-Claude (1989): *El Oficio de Sociólogo*, Siglo XXI, Madrid.
- 📖 Bourdieu, Pierre (1991): *El sentido práctico*, Taurus Humanidades, Madrid, 451 or.; *Le sens pratique*, Les Éditions de Minuit, 1980.
- 📖 Bourdieu, Pierre (1996): *Cosas dichas*, Gedisa, Bartzelona, 200 or.; *Choses dites*, Les Éditions de Minuit, 1987, Paris.

- 📖 Bourdieu, Pierre (1997): *Razones prácticas. Sobre teoría de la acción*, Anagrama, Barcelona, 232 or; *Raisons pratiques. Sur la théorie de l'action*, 1994.
- 📖 Bourdieu, Pierre (1999a): *Contrafuegos. Reflexiones para servir a la resistencia contra la invasión neoliberal*, Anagrama, Barcelona, 153 or.; *Contre-feux. Propos pour servir à la résistance contre l'invasion néo-libérale*, Liber-Raisons d'Agir, 1998, Paris.
- 📖 Bourdieu, Pierre (1999b): *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*, Taurus, Madrid, 597or.; *La distinction*, Les Éditions de Minuit, 1979.
- 📖 Bourdieu, Pierre (1999c): *Meditaciones pascalianas*, Anagrama, 1999, Barcelona, 361 or.; *Méditations pascaliennes*, Éditions du Seuil, 1997, Paris.
- 📖 Bourdieu, Pierre (1999d): *La miseria del mundo*, Akal, Madrid, 564 or.; *La misère du monde*, Éditions du Seuil, 1993, Paris.
- 📖 Bourdieu, Pierre (2000a): *Cuestiones de sociología*, Istmo, Madrid, 272 or.; *Questions de Sociologie*, 1984.
- 📖 Bourdieu, Pierre (2000b): *La dominación masculina*, Anagrama, Barcelona, 159 or.; *La domination masculine*, Éditions du Seuil, 1998, Paris.
- 📖 Bourdieu, Pierre (2000c): *Poder, derecho y clases sociales*, Desclée de Brouwer, Bilbo, 232 or.
- 📖 Bourdieu, Pierre (2001a): *Contrafuegos 2. Por un movimiento social europeo*, Anagrama, Barcelona, 119 or.; *Contre-feux 2. Pour un mouvement social européen*, Éditions Raisons d'Agir, 2001, Paris.
- 📖 Bourdieu, Pierre; Passeron, Jean-Claude (2001b): *La reproducción. Elementos para una teoría del Sistema de Enseñanza*, Editorial Popular, Madrid, 253 or.; *La reproduction*, Les éditions de Minuit, Paris.
- 📖 Bourdieu, Pierre (2004): *Intervenciones 1961-2001, Ciencias sociales y acción política*, Hiru eta Ciencias Sociales, Hondarribia; *Interventions 1961-2001. Science sociale et action politique*, Agone, 2002, Marsella.
- 📖 Bowles, Samuel & Gintis, Herbert (1985): *La instrucción escolar en la América capitalista*, Siglo XXI, Madrid.
- 📖 Bowles, Samuel & Gintis, Herbert (2001): “¿Ha pasado de moda la igualdad?” in Gargarella, Roberto & Ovejero, Félix (biltzaileak): *Razones para el socialismo*, Paidós, Barcelona.
- 📖 Butler, Judith (1993): *Bodies that matter. On the discursive limits of sex*, Routledge, New York.
- 📖 Butler, Judith (2007a): *Gender Trouble*, Routledge, New York. (1. Edizioa 1990)
- 📖 Butler, Judith (2007b): “Performative Acts and Gender Constitution. An Essay in Phenomenology and Feminist Theory” in Arnot, Madeleine & Mac an Ghail, Máirtín (editoreak): *Gender and education*, Routledge, New York.
- 📖 Cal Barredo, M<sup>a</sup> Luz de la (2004): “Precariedad laboral y precariedad vital en los jóvenes” in *Inguruak 32. Soziologia eta Zientzia Politikoen enskal aldizkaria*, Euskal Soziologia Elkarte, Deustuko Unibertsitatea, EHUko Soziologia, Soziologia Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Fundación Antonio Menchaca de La Bodega, Bilbo, 67-87 or.
- 📖 Calero, Jorge & Waisgrais, Sebastián (2008): “Qué determina los procesos de transición al mercado de trabajo? Un análisis aplicado al caso español?” in *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Economía y sociología* 71. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Madrid.
- 📖 Caparrós Ruiz, Antonio (2003): *La movilidad laboral externa en España*, Mergablum, Sevilla.
- 📖 Carabaña, Julio (1999): “La pirámide educativa” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Barcelona.
- 📖 Cardenal de la Nuez, María Eugenia (2006): *El paso a la vida adulta. Dilemas y estrategias ante el empleo flexible*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid.
- 📖 Carnoy, Martin (1999): “Educación, economía y estado” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Barcelona.

- 📖 Casadesús, Martí & Giménez, Gerusa & Heras, Iñaki (2001a): “Los beneficios de la implantación de la normativa ISO 9000: estudio empírico en 288 empresas de Cataluña” in *Cuadernos de economía y dirección de la empresa*, 9. Zenbakia, 285-302. Or.
- 📖 Casadesús, Martí & Heras, Iñaki (2001b): “La norma ISO 9000: beneficios de su introducción en las empresas españolas. Un estudio empírico” in *Revista europea de dirección y economía de la empresa*, 10. Zenbakia, 55-68. Or.
- 📖 Casal, Joaquim (2003): “La transición de la escuela al trabajo” in Fernández Palomares, Francisco (editorea): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall Madrid.
- 📖 Castel, Robert (1997): *La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado*, Paidós, Bartzelona.
- 📖 Castel, Robert (2003): “¿Por qué la clase obrera ha perdido la partida?” in Díaz Salazar, Rafael (editorea): *Trabajadores precarios. El proletariado del siglo XXI*, Ediciones HOAC, Madrid.
- 📖 Castells, Manuel (2001a): *La era de la información. Volumen 1: La sociedad red*, Alianza (2. Edizioa), Madrid.
- 📖 Castells, Manuel (2001b): *La era de la información. Volumen 2: El poder de la identidad*, Alianza (2. Edizioa), Madrid.
- 📖 Castells, Manuel (2001c): *La era de la información. Volumen 3: Fin de milenio*, Alianza (2. Edizioa), Madrid.
- 📖 Castillo, Juan José; López, Pablo (2003): *Los obreros del Polo. Una cadena de montaje en el territorio*, Editorial Complutense, Madrid.
- 📖 Castillo, Juan José; López Calle, Pablo (2004): *Los hijos de las reformas laborales. Trabajo, formación y vivienda de los jóvenes en la Comunidad de Madrid*, UGT-Madrid, Madrid.
- 📖 Castillo, Juan José (zuzendaria) (2005): *El trabajo recobrado. Una evolución del trabajo realmente existente en España*, Miño y Dávila editores, Madrid.
- 📖 Catalán, Jordi (1991): “Del milagro a la crisis: le herencia económica del franquismo” Etxezarreta, Miren (koordinatzailea): *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*, Icaria-Fuhem, Bartzelona.
- 📖 Certeau, Michel de (1988): *The Practice of Everyday Life*, University of California Press, Berkeley eta Los Angeles.
- 📖 Chomsky, Noam (2000): *El beneficio es lo que cuenta. Neoliberalismo y orden global*, Crítica, Bartzelona. (Jatorrizkoa: *Profit over People*, 1999).
- 📖 Chomsky, Noam (2005a): *Sobre democracia y educación. Volumen 1. Escritos sobre ciencia y antropología del entorno cultural*, Paidós, Bartzelona.
- 📖 Chomsky, Noam (2005b): *Sobre democracia y educación. Volumen 2. Escritos sobre las instituciones educativas y el lenguaje en las aulas*, Paidós, Bartzelona.
- 📖 Cohen, Gerald A. (2001): *Si eres igualitarista, ¿cómo es que eres tan rico?*, Paidós, Bartzelona.
- 📖 Connell, R.W. (2007): “The Big Picture. Masculinities in Recent World History” in Arnot, Madeleine & Mac an Ghail, Mairtin (editoreak): *Gender and education*, Routledge, New York.
- 📖 Contreras, José (2002): “El profesorado y la república escolar” in Fernández Enguita, Mariano: *¿Es pública la escuela pública?*, Praxis, Bartzelona.
- 📖 Coriat, Benjamin (1993): *Pensar al revés. Trabajo y organización en la empresa japonesa*, Siglo XXI, Madrid.
- 📖 Coriat, Benjamin (2001): *El taller y el cronómetro. Ensayo sobre el taylorismo, el fordismo y la producción en masa*, Siglo Veintiuno de España Editores, Madrid.
- 📖 Crespo, E.: “Trabajo y vínculos sociales. La actividad laboral en el discurso legitimatorio cotidiano” in *Políticas Sociales en Europa*, 4. Zenbakia, iraila, 11-20 or.
- 📖 Crespo, E.; Bergere, J.; Torregrosa, J.R.; Alvaro, J.L.: “Los significados del trabajo: un análisis lexicográfico y discursivo” in *Sociología del Trabajo*, 33. Zenbakia, udaberria, 51-70 or.

- 📖 Crouch, Colin (2004): *Posdemocracia*, Taurus, Madrid.
- 📖 Davies, Bronwyn (2004): “The Discursive Production of the Male/Female Dualism in School Settings” in Ball, Stephen J.: *Sociology of education*, Routledge Falmer, Oxon.
- 📖 Davies, Bronwyn (2007): “Identity, abjection and otherness. Creating the self, creating difference” in Arnot, Madeleine & Mac an Ghaill, Mairtin (editores): *Gender and education*, Routledge, New York.
- 📖 Davis, Kingsley & Moore, Wilbert E. (1999): “Algunos principios de estratificación” in Fernández Enguita, Mariano (editores): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 De la Cal Barredo, M<sup>a</sup> Luz (2002): “Precariedad laboral y precariedad vital en los jóvenes” in Inguruak 32., Bilbo.
- 📖 Dewey, John (1995): *Democracia y educación. Una introducción a la filosofía de la educación*, Ediciones Morata, Madrid.
- 📖 Díaz Salazar, Rafael (2003): “Trabajadores precarios: el proletariado del siglo XXI” in Díaz Salazar, Rafael (editores): *Trabajadores precarios. El proletariado del siglo XXI*, Ediciones HOAC, Madrid.
- 📖 Dorronsoro, Iñaki; García, Cristina; Gonzalez, Miguel; Lezamiz, Mikel; Matey, Jesús; Moso, Mónica; Unzueta, Manuel (2001): *El modelo de gestión de las PYMEs vascas de éxito*, Cluster Conocimiento, Bilbo, 2001.
- 📖 Durkheim, Emile (1993): *Hezkuntza eta soziologia*, Klasikoak, Bilbo.
- 📖 Eccles, Robert & Nohria, Nitin (1995): *Más allá de la palabrería. Redescubramos la esencia de la gestión*, Apóstrofe, Bartzelona.
- 📖 Esteve, José M. (1994): *El malestar docente*, Paidós, Bartzelona. (1. Edizioa: Editorial Laia, 1987).
- 📖 Esteve, José M.; Franco, S.; Vera, J. (1995): *Los profesores ante el cambio social*, Anthropos & Universidad Pedagógica Nacional, 1995, Bartzelona.
- 📖 Etxezarreta, Miren (koordinatzailea) (1991): *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*, Icaria-Fuhem, Bartzelona.
- 📖 Euskalit (Kalitaterako Euskal Irakaskundea) (2000): *Calidad Total*, Euskalit, Zamudio.
- 📖 Eusko Jaurlaritz (Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantz Saila) (2004): *Censo del mercado de trabajo 2004*, Eusko Jaurlaritz, Eusko Jaurlaritzaren webgunean Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantz Saila, Estatistika Erakunde Espezifikoa.
- 📖 Eusko Jaurlaritz (Lehendakaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea eta Kultura Saila) (2004): *Juventud vasca 2004*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.
- 📖 Everhart, Robert (1979): *The In-Between Years: Student Life in a Junior High School*, Graduate School of Education, University of California, Santa Barbara (California).
- 📖 Farr, James (2004): “Social Capital. A Conceptual History” in *Political Theory* 32, otsaila, 6-33. or.
- 📖 Feito, Rafael (2003a): “Alumnado” in Fernández Palomares, Francisco (editores): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall, Madrid.
- 📖 Feito, Rafael (2003b): “El sistema de enseñanza y estratificación social” in Fernández Palomares, Francisco (editores): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall, Madrid.
- 📖 Fernández Enguita, Mariano (1990): *La escuela a examen*, Eudema, Madrid.
- 📖 Fernández Enguita, Mariano (1992): *Poder y participación en el sistema educativo. Sobre las contradicciones de la organización en un contexto democrático*, Paidós, Bartzelona.
- 📖 Fernández Enguita, Mariano (1999): “Los desiguales resultados de las políticas igualitarias: clase, género y etnia en la educación” in Fernández Enguita, Mariano (editores): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.

- 📖 Fernández Enguita, Mariano (2001): *Educación en tiempos revueltos*, Ediciones Morata, Madrid.
- 📖 Fernández Enguita, Mariano (2002): *¿Es pública la escuela pública?*, Praxis, Barcelona.
- 📖 Fernández Palomares (2003): “Socialización y escuela” in Fernández Palomares, Francisco (editore): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall, Madrid.
- 📖 Fiske, John (1999): “La cultura televisiva” in Fernández Enguita, Mariano (editore): *Sociología y educación*, Ariel, Barcelona.
- 📖 Flecha, Ramón & Serradell, Olga (2003): “El desarrollo de la sociología de la educación. Principales enfoques o escuelas. Revisión crítica” in Fernández Palomares, Francisco (editore): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall, Madrid.
- 📖 Frade, Carlos; Darmon, Isabelle (2005): “New modes of business organization and precarious employment: towards the recommodification of labour?” in *Journal of European Social Policy*, SAGE Publications, London.
- 📖 Foucault, Michel (1990): *Tecnologías del yo y otros textos afines*, Paidós & ICE-UAB, Barcelona.
- 📖 Foucault, Michel (1991): *Microfísica del poder*, La Piqueta, Madrid.
- 📖 Foucault, Michel (1994): *Un diálogo sobre el poder y otras conversaciones*, Alianza editorial, Madrid.
- 📖 Foucault, Michel (1998): *Gizakiaren heriotzak*, Jakin, Lizarra.
- 📖 Foucault, Michel (1999): *Estética, ética y hermenéutica. Obras esenciales. Volumen III*, Paidós, Barcelona.
- 📖 Foucault, Michel (2005): *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*, Siglo Veintiuno de España Editores, Madrid.
- 📖 Freire, Paulo (1980): *Pedagogía del oprimido*, Siglo XXI, Madrid (1. Edizioa: Montevideo, 1970).
- 📖 Freire, Paulo (1982): *La educación como práctica de la libertad*, Siglo XXI, Madrid (1. Edizioa: Montevideo, 1969).
- 📖 Freire, Paulo & Macedo, Donald (1989): *Alfabetización. Lectura de la palabra y lectura de la realidad*, Paidós, Barcelona.
- 📖 Freire, Paulo (1990): *La naturaleza política de la educación. Cultura, poder y liberación*, Paidós, Barcelona.
- 📖 Fukuyama, Francis (1992): *El fin de la Historia y el último hombre*, Planeta, Barcelona.
- 📖 García Gracia, Maribel (2004): “El sistema de enseñanza como construcción histórica y social” in Fernández Palomares, Francisco (editore): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall, Madrid.
- 📖 Giddens, Anthony (1998): *Sociología*, Alianza, Madrid (3. Edizioa).
- 📖 Giroux, Henry A. (1990): *Los profesores como intelectuales. Hacia una pedagogía crítica del aprendizaje*, Paidós & MEC, Barcelona.
- 📖 Giroux, Henry A. (2001): *Cultura, Política y práctica educativa*, Editorial Grao, Barcelona.
- 📖 Goñi Gradmontagne, Alfredo (1996): *Psicología de la educación sociopersonal*, Editorial Fundamentos, Madrid.
- 📖 Gorz, Andre (1982): *Adiós al proletariado. Más allá del socialismo*, Editorial 2001, Barcelona.
- 📖 Gorz, Andre (1995): *Metamorfosis del trabajo. Búsqueda del sentido. Crítica de la razón económica*, Editorial Sistema, Madrid.
- 📖 Gramsci, Antonio (1981): *La alternativa pedagógica*, Fontamara, Barcelona.
- 📖 Grupo Crisis (2002): *Manifiesto contra el trabajo*, Virus, Barcelona.
- 📖 Guerrero Serón, Antonio (2003): “El profesorado como categoría social y agente educativo” in Fernández Palomares, Francisco (editore): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall, Madrid.



- 📖 Hainbaten artean (2000): *Carta a una maestra*, Editorial PPC, Madril.
- 📖 Haraway, Donna J. (1991): *Simians, Cyborgs, and Women. The Reinvention of Nature*, Free Association Books, London.
- 📖 Hardt, Michael; Negri, Antonio (2002): *Imperio*, Paidós Estado y Sociedad, Bartzelona.
- 📖 Hardt, Michael; Negri, Antonio (2004): *Multitud. Guerra y democracia en la era del Imperio*, Debate, Bartzelona.
- 📖 Harvey, David (2005): *A Brief History of Neoliberalism*, Oxford University Press, Oxford.
- 📖 Hart-Landsberg, Martin (2008): “Neoliberalismo. Mitos y realidades” in *25 años de neoliberalismo*, Hacer Editorial, Bartzelona.
- 📖 Hernandez, José Manuel (2004): *La crisis del derecho del trabajo y globalización*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.
- 📖 Hernández, Pedro (1991): *Psicología de la educación. Corrientes actuales y teorías aplicadas*, Editorial Trillas, Mexico DF.
- 📖 Herrera, Rémy (2008): “La teoría económica neoliberal y el desarrollo” in *25 años de neoliberalismo*, Hacer Editorial, Bartzelona.
- 📖 Herrero, José Luis (1991): “Las relaciones de trabajo” Etxezarreta, Miren (koordinatzailea): *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*, Icaria-Fuhem, Bartzelona.
- 📖 Imaz Bengoetxea, Jose Inazio (2006): *Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida, 1995-2005*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 📖 INE, Encuesta de Estructura Salarial 2006 in [www.ine.es](http://www.ine.es).
- 📖 Intxausti, Kike & Elola, José M<sup>a</sup> & Larrañaga, José M<sup>a</sup> & Mujika, Iñaki (1999): *Nuestro viaje a la calidad*, Taldeka – Iceberg, Usurbil.
- 📖 Iztueta Armendariz, Paulo (2000a): *Euskal irakaskuntza autonomia aroan (1983-1994)*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 📖 Iztueta Armendariz, Paulo (2000b): *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 📖 Juaristi Larrinaga, Patxi (2001): *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*, Euskaltzaindia / BBK Fundazioa, Bilbo.
- 📖 Juaristi, Larrinaga, Patxi (2005): *Salgai. Euskal kontsumo gizartea aztertzen*, Alberdania, Irun.
- 📖 Kelly, Gail P. & Nihlen, Ann S. (1999): “La enseñanza y la reproducción del patriarcado: cargas de trabajo desiguales, recompensas desiguales” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Kerbo, Harold R. (2003): *Estratificación social y desigualdad. El conflicto de clase en perspectiva histórica, comparada y global*, Mc Graw Hill, Madril.
- 📖 Klein, Naomi (2005): *No logo. El poder de las marcas*, Paidós, Bartzelona.
- 📖 Klein, Naomi (2007): *La doctrina del shock. El auge del capitalismo del desastre*, Paidós, Bartzelona.
- 📖 Köhler, Holm-Detlev; Martín Artilles, Antonio (2005): *Manual de la sociología del trabajo y de las relaciones laborales*, Delta Publicaciones, Madril.
- 📖 Kohn, Melvin L. (1999): “Relaciones paterno-filiales y clase social” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Lahera Sanchez, Arturo (2003): “Gestión participativa de los recursos humanos en empresas fabricantes de máquina-herramienta” in *Inguruak. Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldiakaria*.
- 📖 Lahera Sanchez, Arturo (2004): *La participación de los trabajadores en la democracia industrial*, Catarata, Madril.

- 📖 Lakoff, George & Johnson, Mark (1995): *Metáforas de la vida cotidiana*, Cátedra, Madrid.
- 📖 Larrinaga, Ane (2006): “Unibertsitate esparrua, gatazka sinbolikoen agertoki: akademiko euskaldunen pertzepzioak” in Amurrio, Mila & Larrinaga, Ane (biltzaileak): *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 📖 Lasén Díaz, Amparo (2000): *A contratiempo. Un estudio de las temporalidades juveniles*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid.
- 📖 Lerena, Carlos (1980): *Escuela, ideología y clases sociales en España*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Lerena, Carlos (1983): *Reprimir y liberar. Crítica sociológica de la educación y de la cultura contemporáneas*, Akal, Madrid.
- 📖 Levin, Henry M. (1999): “El dilema de las reformas comprensivas de la escuela secundaria en Europa” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Lipovetsky, Gilles (1990): *El imperio de lo efímero. La moda y su destino en las sociedades modernas*, Anagrama, Bartzelona.
- 📖 Lucey, Helen; Melody, June; Walkerdine, Valerie (2007): “Uneasy Hybrids. Psychological aspects of becoming educationally successful for working-class young women” in Arnot, Madeleine & Mac an Ghail, Mairtin (editoreak): *Gender and education*, Routledge, New York.
- 📖 Luttwak, Edward (2000): *Turbocapitalismo. Quiénes ganan y quienes pierden en la globalización*, Crítica, Bartzelona.
- 📖 Marazzi, Christian (2003): *El sitio de los calcetines. El giro lingüístico de la economía y sus efectos sobre la política*, Akal, Madrid.
- 📖 Marchesi, Álvaro (2000): “Un sistema de indicadores de desigualdad educativa” in *Revista Iberoamericana de Educación*, 23. alea, maiatza-abuztua.
- 📖 Marchesi, Álvaro (2006): “El informe PISA y la política educativa en España” in *Revista de Educación*, Ministerio de Educación y Ciencia, 337-355.
- 📖 Martín Criado, Enrique; Gómez Bueno, Carmuca; Fernández Palomares, Francisco; Rodríguez Monje, Ángel (2000): *Familias de clase obrera y escuela*, Iralka, Donostia.
- 📖 Marx, Karl & Engels, Friedrich (1999): *Manifiesto comunista*, Los Libros de la Frontera, 1999, Bartzelona.
- 📖 Mateos, Txoli (2006): “Batu eta bereizi. Euskal nazionalismoa eta hezkuntza zibikoa” in Amurrio, Mila & Larrinaga, Ane (biltzaileak): *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 📖 Mc Robbie, Angela (1998): “Working Class Girls and the Culture of Femininity” in Women’s Studies Group (biltzailea): *Women Take Issue*, Hutchinson, Londres, 96-108 or.
- 📖 Merino, Rafael; Sala, Guillem; Troiano, Helena (2003): “Desigualdades de clase, género y etnia en educación” in Fernández Palomares, Francisco (editorea): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall, Madrid.
- 📖 Miclenthwait, John & Wooldridge, Adrian (1998): *La hora de los gurús. Visionarios y nuevos profetas de la gestión empresarial*, Alianza, Madrid.
- 📖 Mietzel, Gerd (2003): *Claves de la psicología*, Herder, Madrid.
- 📖 Miguelez, Fausto (2003): “¿Por qué empeora el empleo?” in Díaz Salazar, Rafael (editorea): *Trabajadores precarios. El proletariado del siglo XXI*, Ediciones HOAC, Madrid.
- 📖 Mills, C. Wright (1987): *La élite del poder*, México D.F.: Fondo de Cultura Económica, México D.F.
- 📖 Moreno, Gorka (2003): *Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto*, Arartekoa, Gasteiz.
- 📖 Morris, Marla (2005): “El pie zurdo de Dante pone en marcha la teoría queer” in Talburt, Susan & Steinberg, Shirley R. (editoreak): *Pensando Queer. Sexualidad, cultura y educación*, Graó, Bartzelona.

- 📖 Navarro, Vicenç (2002): *Bienestar insuficiente, democracia incompleta. Sobre lo que no se habla en nuestro país*, Anagrama, Bartzelona.
- 📖 Navarro, Vicenç (zuzendaria) (2005): *La situación social en España*, Editorial Biblioteca Nueva, Bartzelona.
- 📖 Navarro, Vicenç (2006): *El subdesarrollo social en España. Causas y consecuencias*, Anagrama, Bartzelona.
- 📖 Navarro, Vicenç (2008): “La lucha de clases a escala mundial” in *25 años de neoliberalismo*, Hacer Editorial, Bartzelona.
- 📖 Negri, Antonio (2004): *Guías. Cinco lecciones en torno a Imperio*, Paidós Estado y Sociedad, Bartzelona.
- 📖 Neill, Alexander Sutherland (1967): *Summerhill: un punto de vista radical sobre la educación de los niños*, México D.F.: Fondo de Cultura Económica, México D.F.
- 📖 O’Donell, Mike & Sharpe, Sue (2004): “The social construction of youthful masculinities” in Ball, Stephen J.: *Sociology of education*, Routledge Falmer, Oxon.
- 📖 Offe, Klaus (1998): “Democracia de competencia entre partidos y el estado de bienestar keynesiano. Factores de estabilidad y desorganización” in Hainbat Egile: *Partidos políticos y nuevos movimientos sociales*, Sistema, Madril.
- 📖 Olivier, Esther & Puigvert, Lúdia (2003): “Reformas educativas” in Fernández Palomares, Francisco (editorea): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall, Madril.
- 📖 Paniagua, J.A. (1999): “La calidad total: nuevas formas de nombrar el taylorismo” in *Reis 86*, CIS.
- 📖 Parkin, Frank (1999): “El cierre social como exclusión” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Parsons, Talcot (1990): El aula como sistema social: algunas de sus funciones en la sociedad americana” in *Educación y sociedad*, 6. Zenbakia (1. Argitalpena jatorrizkoan: 1959), 173-195 or.
- 📖 Perez Urraza, Karmelee; Ezkurdia Arteaga, Gurutze (2006): “Curriculumeko eduki soziokulturalak” in Amurrio, Mila & Larrinaga, Ane (biltzaileak): *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 📖 Petras, James (1996): *Padres-hijos. Dos generaciones de trabajadores españoles (Informe Petras)*, Ajoblanco, Bartzelona.
- 📖 Planas, Jordi (2003): “Educación y mercado de trabajo en la globalización” in Fernández Palomares, Francisco (editorea): *Sociología de la educación*, Pearson Practice Hall, Madril.
- 📖 Polanyi, Karl (1989): *La gran transformación. Crítica del liberalismo económico*, Las ediciones de la Piqueta, Madril.
- 📖 Polavieja, Javier G. (2003): *Estables y precarios. Desregulación laboral y estratificación social en España*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madril.
- 📖 Portes, Alejandro (2000): “The Two Meanings of Social Capital” in *Sociological Forum 15*, martxoa, 1-12. Or.
- 📖 Pover, Sally; Whitty, Geoff, Edwards, Tony; Wigfall, Valerie (2004): “Schools, families and academically able students” in Ball, Stephen J.: *Sociology of education*, Routledge Falmer, Oxon.
- 📖 Preciado, Beatriz (2002): *Manifiesto contra-sexual*, Pensamiento, Madril.
- 📖 Preciado, Beatriz (2008): *Texto Yonki*, Espasa Calpe, Madril.
- 📖 Ramos-Díaz, Javier: “Empleo de baja remuneración” in Navarro, Vicenç (zuzendaria) (2005): *La situación social en España*, Editorial Biblioteca Nueva, Bartzelona.
- 📖 Ramírez, Francisco O. & Boli, John (1999): “La construcción política de la escolarización de masas: sus orígenes europeos e institucionalización mundial” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Raya Díez, Esther (2002): “Estudio de la exclusión social desde una perspectiva subjetiva” in *Inguruak 32*. Bilbo.

- Reay, Diane (2004): "Finding or losing yourself? Working-class relationship to education" in Ball, Stephen J.: *Sociology of education*, Routledge Falmer, Oxon.
- Reay, Diane (2007): "Spice Girls, Nice Girls, Girlies, and Tomboy. Gender discourses, girls' cultures and femininities in the primary classroom" in Arnot, Madeleine & Mac an Ghaill, Mairtin (editoreak): *Gender and education*, Routledge, New York.
- Reimer, Everett (1971): *School is Dead: Alternatives in Education*, Penguin, London.
- Rist, Ray C. (1999): "Sobre la comprensión del proceso de escolarización: aportaciones de la teoría del etiquetado" in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- Roca Jusmet, Jordi (1991): "La distribución de la renta entre las clases sociales" Etxezarreta, Miren (koordinatzailea): *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*, Icaria-Fuhem, Bartzelona.
- Rofes, Eric (2005): "La transgresión y el cuerpo ubicado: el género, el sexo y los profesores varones gays" in Talburt, Susan & Steinberg, Shirley R. (editoreak): *Pensando Queer. Sexualidad, cultura y educación*, Graó, Bartzelona.
- Rogers, Carl & Freiberg, H. Jerome (1996): *Libertad y creatividad en la educación*, Paidós, Bartzelona.
- Rodriguez-Piñero Royo, Miguel C. (2005): "La legislación laboral española en la perspectiva de la Unión Europea" in Navarro, Vicenç (zuzendaria): *La situación social en España*, Editorial Biblioteca Nueva, Bartzelona.
- Sanzo, Luis (2004): "Precariedad económica y social en Euskadi a finales de los años 90" in *Inguruak 32. Soziologia eta Zientzia Politikoen euskal aldizkaria*, Euskal Soziologia Elkarte, Deustuko Unibertsitatea, EHUko Soziologia, Soziologia Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Fundación Antonio Menchaca de La Bodega, Bilbo, 89-105 or.
- Saratxaga, Koldo (2007): *Harreman-estilo berri bat. Egiteko dagoen eragizazioen aldatetarako*, Elkar, Donostia.
- Sassen, Saskia (1991): *The Global City: New York, London, Tokyo*, Princeton University Press, Princeton.
- Sassen, Saskia (2007): *Una sociología de la globalización*, Katz, Buenos Aires.
- Sastre, Pablo (2007): *Gauzen presentzia*, Elkar, Donostia.
- Schultz, Theodore W. (1960): "Capital formation by education" in *Journal of Political Economy*, abendua.
- Sennett, Richard (2001): *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*, Anagrama, Bartzelona.
- Sennett, Richard (2003): *El respeto. Sobre la dignidad del hombre en un mundo de desigualdad*, Anagrama, Bartzelona.
- Sennett, Richard (2006): *La cultura del nuevo capitalismo*, Anagrama, Bartzelona.
- Simmel, Georg: "La moda" in *Sobre la aventura. Ensayos filosóficos*, Península.
- Taberner Guasp, José (1999): *Sociología y educación. Funciones del sistema educativo en las sociedades modernas*, Tecnos, Madril.
- Talburt, Susan & Steinberg, Shirley R. (editoreak) (2005): *Pensando Queer. Sexualidad, cultura y educación*, Graó, Bartzelona.
- Terrén, Eduardo (1999): *Educación y modernidad. Entre la utopía y la burocracia*, Anthropos, Bartzelona.
- Thurow, L.C. (1983): "Educación e igualdad económica" in *Educación y sociedad*, 2. Zenbakia, Akal, Madril (1. Edizioa 1972), 159-171 or.
- Usategi, Elisa & Valle Loroño, Ana Irene del (2006): "Balioekin lan egitea euskal eskolan: irakasleen ikuspuntuak" in Amurrio, Mila & Larrinaga, Ane (biltzaileak): *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

- 📖 Varela, Julia (1999): “Una reforma para las nuevas clases medias” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Vygotskii, L.S. & Bronckart, Jean Paul & Schneuwly, Bernard (2008): *Vigotsky hoy*, Editorial Popular, Madril.
- 📖 Vogel, Richard (2008): “Trabajadores invitados en el capitalismo global” in *25 años de neoliberalismo*, Hacer Editorial, Bartzelona.
- 📖 Weber, Max (2007): *Sociología del poder. Los tipos de dominación*, Alianza, Madril. (*Economía y sociedad* liburuko 3. atala).
- 📖 Williamson, John: “From the Washington Consensus towards a New Global Governance” in <http://www.ie.com/publications/papers/williamson0904-2.pdf> (2008-10-09 egunean begiratua).
- 📖 Willis, Paul (1988): *Aprendiendo a trabajar. Cómo los chicos de clase obrera consiguen trabajos de clase obrera*, Akal, Madril.
- 📖 Young, Michael F.D. (1999): “Conocimiento y control” in Fernández Enguita, Mariano (editorea): *Sociología y educación*, Ariel, Bartzelona.
- 📖 Zubero, Imanol (1994): *Las nuevas condiciones de la solidaridad*, Desclée de Brouwer, Bilbo.
- 📖 Zubero, Imanol (2000): *El derecho a vivir con dignidad: del pleno empleo al empleo pleno*, HOAC, Madril.
- 📖 Zubero, Imanol (2007a): “¿A qué huele en Dinamarca?” in *Lan Harremanak. Revista de relaciones laborales* 16 *El debate sobre la flexiguridad. Malgutasuna versus egonkortasuna*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- 📖 Zubero, Imanol (2007b): “Trabajo decente: Iluminando una realidad cada vez más oscura” in *Se busca trabajo decente*, HOAC, Madril.

# VII. Taulen eta grafikoen zerrenda

## 1. Taulen zerrenda

1. Taula: Familia guneak, motaren eta 24 urte arteko seme-alabak dituzten edo ez kontuan hartuta. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001 (Kopuru absolutuak eta ehuneko bertikalak)
2. Taula: Eskolatzetasa garbiak ikasketamailaren eta klase sozialaren arabera 1981 eta 1991 (ehuneko horizontalak)
3. Taula: Hiru urtetik gorako biztanlerian derrigorrezkoak ez diren ikasketetan dabiltzanen kopurua ikasketamailaren eta estratuaren arabera Kanariar Uhartean, 1996 (ehuneko bertikalak).
4. Taula: Eskolatzetasa garbiak adinaren eta klase sozialaren arabera 1981 eta 1991 (ehunekoak)
5. Taula: Familiak hezkuntza egiten duten gastu pribatua eta gastu horrek etxeko gastuetan duen pisua, eskuragarri duten errentaren arabera bosten taldeen arabera Espainiako estatuan, 1998 (ehunekoak)
6. Taula: Eskolatzetasa eta ikasketamaila, adin tartearen eta etxekoek eskuragarri duten errentaren arabera Espainiako estatuan, 2000 (ehunekoak)
7. Taula: Eskolatzetasa eta ikasketamaila, adin tartearen eta etxekoek lanbidearen arabera Espainiako estatuan, 2000 (ehunekoak)
8. Taula: Etorkinen eskolatzetasa adinaren arabera Espainiako estatuan, 2001 (ehunekoak)
9. Taula: 25 eta 64 urte arteko biztanleria enpleguaren urteko laneko errenta, bukatutako ikasketamailaren eta generoaren arabera Espainiako estatuan, 2000 (euroak)
10. Taula: 25 eta 64 urte arteko biztanleria aktiboaren langabezia tasa, bukatutako ikasketamailaren eta generoaren arabera Espainiako estatuan, 2000 (euroak)
11. Taula: FGT pobrezia adierazlea (pobrezia mugak: eskuragarri duten errentaren medianaren %60a) bukatutako ikasketamailaren eta generoaren arabera, kontuan hartuta 25 eta 64 urte arteko familiaren erreferentziako pertsona Espainiako estatuan, 2000 (ehunekoak)
12. Taula: Hamabost urtetik gorako biztanleriaren titulazio maila, generoaren arabera. Gipuzkoa, 2001 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)
13. Taula: EHU-UPV-ko ikasleak sexuaren eta lizentziaturaren arabera (ehuneko horizontalak)
14. Taula: EHU-UPV-ko enpleguak sexuaren arabera kudeaketa karguen, doktoreen, irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako arloan (ehuneko horizontalak)
15. Taula: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza D ereduaren matrikulatuak bilakaera ikasturteka. Euskal Herria eta Gipuzkoa, 1982-2006 (ehunekoak)
16. Taula: Ikasleak unibertsitateetan, euskararen ezagutzaren eta eskolako hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2001/2002 ikasturtea (kopuru absolutuak eta ehunekoak)
17. Taula: Irakasleak unibertsitateetan, euskararen ezagutzaren eta eskolako hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2001/2002 ikasturtea (kopuru absolutuak eta ehunekoak)
18. Taula: PISA txostenaren emaitzak EAEn sarean eta ereduaren arabera, 2007 (batez bestekoak)
19. Taula: Hamabost urtetik gorako ikasleak eta biztanlerian duten pisua, adinaren eta sexuaren arabera. Euskal Herria eta Gipuzkoa, 2001 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)
20. Taula: Hamabost urtetik gorako biztanleriaren titulazio maila, adinaren arabera. Gipuzkoa, 2001 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)
21. Taula: PISA txostenaren emaitzak estatuaren (+Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskadiko Autonomia Erkidegoa) eta arloaren arabera, 2007 (batez bestekoak)

22. Taula: Eskolatzeko adinean daudenen eskolatzeko maila adinaren arabera. Espainiako estatua, 1966 eta 1986 (ehunekoak)
23. Taula: Hezkuntza arloko inbertsioen oinarrizko adierazleak EAEn, Nafarroan eta Espainiako estatuan, 2002 (portzentajeak eta kopuru absolutuak)
24. Taula: Urteko soldata gordina eta ratioa, generoaren eta erkidegoaren arabera. EAE eta NFE, 2006 (euroak eta ratioa)
25. Taula: Urteko soldata gordinaren batez bestekoa, mediana eta moda. Espainiako estatua, 2006 (euroak)
26. Taula: Biztanleria jardueraren arabera. EAE, 2000 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)
27. Taula: Biztanleria potentzialki independentearen pobrezia tasa, ongizate gabezia tasa, pobreen kopurua eta ongizategabeziaren kopurua generoaren, adinaren eta ikasketa mailaren arabera. EAE, 2000 urtean. (ehunekoak)
28. Taula: Potentzialki independentea den biztanleriaren banaketa, jardueraren eta pobrezia arriskuaren arabera. EAE, 2000 (Kopuru absolutuak eta ehunekoak talde bakoitzeko biztanleria osoarekiko)
29. Taula: Independizaturakoen eta ongizate mailaren kopuruak lan jarduerarekiko harremanaren arabera. EAE, 2000 (ehunekoak eta tasak)
30. Taula: Bizikidetzako unitateak, diru sarreraren eta ongizate mailaren arabera. EAE, 2000 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)
31. Taula: Babes sozialerako gastuan erabiltzen den BPGaren zatia 1991-2001 (ehunekoak)
32. Taula: Karga inpositiboaren garapena 1970-1998 (ehunekoak)
33. Taula: Zerga presio orokorra, zeharkakoa, zuzenakoa eta Gsaren kotizazioak Europan (BPGaren ehunekoak)
34. Taula: Sindikatuen afiliazio maila eta negoziazio kolektiboaren irismena (ehunekoak)
35. Taula: Lan arloko kontratazioen garapena, Euskal Herria 2000-2005 (kopuru absolutuak eta ehunekoak)
36. Taula: ABLEek egin dituzten kontratuen kopurua eta kontratu hauek lan merkatuan duten pisua, Hego Euskal Herria 1995-2002 (kontratu kopurua eta lan merkatuan guztira egin diren kontratuekiko ehunekoak)
37. Taula: Lan arloko aldi baterako kontratazioa estatuaren eta adin tartearen arabera, 2004 (soldatapeko guztiekiko ehunekoak)
38. Taula: Enplegu ez estandarren kopurua enplegatu kopurua osoarekiko, bost estatutan eta Europako Batasunean (ehunekoak)
39. Taula: *Fundamentuzko lana* kontzeptuaren araberrako sailkapena. OCDEko estatuak, 2003.
40. Taula: Beharginen diru sarrerak lanbide egoeraren, kontratu motaren, sektorearen eta sexuaren arabera. EAE, 2005 (euroak eta ehunekoak)
41. Taula: Lan indarraren portzentajea adinaren arabera (biztanleria orotara), lan indarraren portzentajea erremunerazio txikiko enplegetako langileen artean, eta gain/azpi-errepresentazio maila (ehunekoak)
42. Taula: Lan indarraren portzentajea generoaren arabera (biztanleria orotara), lan indarraren portzentajea erremunerazio txikiko enplegetako langileen artean, eta gain/azpi-errepresentazio maila (ehunekoak)
43. Taula: Lan indarraren portzentajea ikasketa mailaren arabera (biztanleria orotara), lan indarraren portzentajea erremunerazio txikiko enplegetako langileen artean, eta gain/azpi-errepresentazio maila (ehunekoak)
44. Taula: Kudeaketa moden egitura
45. Taula: EFQM erakundearen ikuspegia taylorismoari eta Kalitate Osoari buruz
46. Taula: Elkarrizketatuen ibilbide akademikoak

47. Taula: Ikasketetan arazoak izan ez dituzten elkarrizketatuen ibilbide akademikoak
48. Taula: Ikasketetan arazoak izan ez dituzten elkarrizketatuen ibilbide akademikoak
49. Taula: Unibertsitateko ikasketak dituzten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide akademikoak
50. Taula: Unibertsitateko ikasketak ez dituzten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide akademikoak
51. Taula: Itxuraz posizio okupazional *on* batean dauden gurasoen seme-alaben ibilbide akademikoak
53. Taula: Elkarrizketatuen ibilbide profesionalak
54. Taula: Elkarrizketatuen soldatak (euroak)
55. Taula: Elkarrizketatuen lan kontratuen iraupena
56. Taula: Ibilbide akademikoan inolako arazorik izan ez duten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak
57. Taula: Ibilbide akademikoan arazoren bat izan dutenen elkarrizketatuen ibilbide profesionalak
58. Taula: Unibertsitateko titulua duten elkarrizketatuen soldatak (euroak)
59. Taula: Unibertsitateko titulua ez duten elkarrizketatuen soldatak (euroak)
60. Taula: Ikasketetan ondo moldatu diren elkarrizketatuen soldatak (euroak)
61. Taula: Ikasketetan ondo moldatu ez diren elkarrizketatuen soldatak (euroak)
62. Taula: Unibertsitateko tituludun gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak
63. Taula: Unibertsitateko tituludun gurasoak ez dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak
64. Taula: Posizio okupazional *ona* duten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak
65. Taula: Posizio okupazional *ona* ez duten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen ibilbide profesionalak
66. Taula: Unibertsitateko tituludun gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen soldatak (euroak)
67. Taula: Unibertsitateko tituludun gurasoak ez dauzkaten elkarrizketatuen soldatak (euroak)
68. Taula: Posizio okupazional *ona* duten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen soldatak (euroak)
69. Taula: Posizio okupazional *ona* ez duten gurasoak dauzkaten elkarrizketatuen soldatak (euroak)

## 2. Grafikoen zerrenda

1. Grafikoa: Familia guneak, mota eta 24 urte arteko seme-alabak dituzten edo ez kontuan hartuta. Euskal Herria, 2001.
2. Grafikoa: Euskararen ezagutzaren bilakaera adin taldeka. Euskal Herria, 1986-2001 (ehunekoak).
3. Grafikoa: Hizkuntza gaitasuna. Euskal Herria, 2006 (ehunekoak).
4. Grafikoa: Kaleko elkarrizketak hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2004 (ehunekoak).
5. Grafikoa: Elkarrizketak hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2006 (ehunekoak).
6. Grafikoa: Gaztelaniaren, frantsesaren eta euskararen hiztun kopurua. Mundua, 2001 (kopuru absolutuak, milioiak).
7. Grafikoa: Kulturaren kontsumitzaile kopuru potentziala hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2006 (kopuru absolutuak).



8. Grafikoa: Unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatuak, mailaren eta hizkuntza ereduaren arabera. Euskal Herria, 2004-2005 ikasturtea (ehunekoak)
9. Grafikoa: Unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatuak, mailaren eta hizkuntza ereduaren arabera. Gipuzkoa, 2004-2005 ikasturtea (ehunekoak)
10. Grafikoa: AEBetako 0,01 dirudunen irabazien bilakaera, 1913-2003 (BPGarekiko ehunekoak)
11. Grafikoa: Batez besteko soldaten arteko aldea okupazioaren arabera (INEren Okupazioen Sailkapen Nazionalaren Talde nagusien arabera, ikus 520. oinoharra), Espainiako estatua 2006 (batez besteko soldatarekiko desbideraketa ehunekoetan).
12. Grafikoa: Gastu soziala Europako Batasunean, estatuaren arabera, 2005 (BPGarekiko ehunekoak).
13. Grafikoa: Zergen aurreko ezberdintasunaren bilakaera. Espainiako estatua, 1996-2001 (Gini indizea).
14. Grafikoa: PFEZaren berbanaketarako gaitasunaren bilakaera. Espainiako estatua, 19 (Reynolds-Smolensky indizea)
15. Grafikoa: PFEZaren progresibitatearen bilakaera. Espainiako estatua, 1996-2001 (Kakwani indizea).
16. Grafikoa: Ezberdintasunak errenta eskuragarriaren banaketan. Espainiako estatua, 1996-2001 (Gini indizea).
17. Grafikoa: AEBetako %1 dirudunen irabazien bilakaera 1922-1998 (BPGarekiko ehunekoak).
18. Grafikoa: AEBetako, Erresuma Batuko eta Frantziako %0,1 dirudunen irabazien bilakaera 1913-1998 (BPGarekiko ehunekoak).
19. Grafikoa: Behin-behinkotasun tasa herrialde eta adinaren arabera, 2004.
20. Grafikoa: Lanaldi partziala duten enplegatuen kopurua enplegatuen kopuru orokorrarekiko OCDEko hainbat estatutan, 1983, 1994 eta 1997 urteetan (ehunekoak).
21. Grafikoa: Langile autonomoen kopurua enplegatuen kopuru orokorrarekiko OCDEko hainbat estatutan, 1983 eta 1994 urteetan (ehunekoak).
22. Grafikoa: Aldi baterako langileen kopurua enplegatuen kopuru orokorrarekiko OCDEko hainbat estatutan, 1983, 1994 eta 1996 urteetan (ehunekoak).
23. Grafikoa: Enplegu forma ez estandarren kopurua enplegatuen kopuru orokorrarekiko OCDEko hainbat estatutan, 1983 eta 1993 urteetan (ehunekoak).
24. Grafikoa: *Fundamentuzko lana* kontzeptuaren arabera ondoen sailkatutako 25 estatuak (*fundamentuzko lana* indizea).
25. Grafikoa: Urteko batez besteko soldata adinaren eta sexuaren arabera, Espainiako estatua 2006 (euroak eta betetako urteak)
26. Grafikoa: Batez besteko soldaten arteko aldeak ikasketa mailaren arabera, Espainiako estatua 2006 (batez besteko soldatarekiko desbideraketa ehunekoetan).
27. Grafikoa: Urteko batez besteko soldaten arteko aldea nazionalitate ofizialaren arabera, Espainiako estatua 2006 (batez besteko soldatarekiko desbideraketa ehunekoetan).
28. Grafikoa: Eskolatik Lanbiderako Trantsizio motak GRETen arabera